Burundako hitzak

HITZAK, ALDAERAK ETA AZPISARRERAK

ARGIBIDEAK

SARRERA eta AZPISARRERA

zer, zein tokitan

burundako hitza — EUSKARA BATUA

sinonimoak — *antonimoak*

erdal ordaina 1
erdal ordaina 2
erdal ordaina 3
erdal ordaina 4
erdal ordaina 5
erdal ordaina 6

hiztegiko sarrera (> *aldaerak*) **1** iz. Esanahia eta adibideak. ▲ Sin. *sinonimoak*. ▼ Anton. *antonimoak*. **2** iz. Beste adierak. ◆ **azpisarrera(k)**. ● Esr. zah. *Esaera zaharrak*.

OHARRA: hiztegiko sarrera honetan hitzaren adiera eta ◆ **azpisarrera** guztiak biltzen dira: paragrafo honetan agertzen da hiztegirako den sarrera nagusia.

burundako hitza (azpisarrera) — EUSKARA BATUA

sinonimoak — *antonimoak*

erdal ordaina 1
erdal ordaina 2

azpisarrera eta adibideak. Lerroalde neurriz meharrago honetan agertzen dira azpisarreraren adiera eta adibideak.

Informazio hau bera **hiztegiko sarrera** nagusian ere agertzen da: (◆) ikurraren ondotik: ◆ azpisarrera(k).

ZIRRI-ZARRA
(2023.01.08)

a

A

¡ah!
ah qué (...); ¡menudo, -a! (usado para enfatizar el significado de un nombre)

a interj. Zerbait gogoratzen dela edo zerbaitez konturatzen dela adierazteko erabiltzen den hitza. *A, bai!, akordatzen naiz. A!, bajakinat* 'a!, bazakinat'. ◆ **a zer** (> *a ze*) interj. (Artikulua edo zenbatzaile zehaztua hartzen duen izen sintagma baten ezkerrean, hark adierazten duena nabarmenduz). *A ze eguna!* 'a zer eguna'. ◆ **a zer nolako** (> *a ze nolako*). *A ze nolako gezurra sartu dezu* 'a zer nolako gezurra sartu dizu'. *A nolako egia! A ze gezurtia!*.

a ze

A ZER

ah qué (...); ¡menudo, -a! (usado para enfatizar el significado de un nombre)

a zer (> *a ze*) interj. (Artikulua edo zenbatzaile zehaztua hartzen duen izen sintagma baten ezkerrean, hark adierazten duena nabarmenduz). *A ze eguna!* 'a zer eguna'. ◆ **a zer nolako** (> *a ze nolako*). *A ze nolako gezurra sartu dezu* 'a zer nolako gezurra sartu dizu'. *A nolako egia! A ze gezurtia!*.

abade, abadĭa

ABADE

apiz, apaiz

cura; sacerdote

abade iz. g.g.er. Apaiza. *Abade jauna.* ◆ **abade jaun** iz. *Ábade jauná, guk óndo ibazita dukú zerua* 'abade jauna, guk ondo irabazita daukagu zerua'. Ik. **apiz**, **apaiz**.

abadeju azal, abadeju azala

BAKAILAO GAZITU, LEHOR, IDOR

bacalada

abadeju azal iz. Bakailao lehorra, gazitua. *Leno abadeju azala eskatzen zan. Buztaneti asita, burua falta izaten zain. Seko-sekwek etortzen zĭan, ta gatza kentzeko, lenbizko parrilan, brasan, kentzen zezaien gatza* 'Lehen abadeju azala eskatzen zen. Buztanetik hasita, burua falta izaten zuten. Lehor-lehorrak etortzen ziren, eta gatza kentzeko lehendabizi arranparrilan, txingarretan, kentzen zitzaien gatza'. Ik. **abadeju**. ● Esr. zah. *Abadeju azala baindo flákwo* 'abadeju azala baino meheago'.

abadeju, abadejua

BAKAILAO

bakalau

abadejo
bacalao

abadeju iz. Bakailaoa (*Gadus morhua*). *G. g. er. Abadejua patatakin* 'bakailaoa patatekin'. Ik. **bakalau**. ◆ **abadeju azal** iz. Bakailao lehorra, gazitua. *Leno abadeju azala eskatzen zan. Buztaneti asita, burua falta izaten zain. Seko-sekwek etortzen zĭan, ta gatza kentzeko, lenbizko parrilan, brasan, kentzen zezaien gatza* 'Lehen abadeju azala eskatzen zen. Buztanetik hasita, burua falta izaten zuten. Lehor-lehorrak etortzen ziren, eta gatza kentzeko lehendabizi arranparrilan, txingarretan, kentzen zitzaien gatza'. ● Esr. zah. *Abadeju azala baindo flákwo* 'abadeju azala baino meheago'.

abadeki, abadekia

ADABAKI

remiendo; petacho

abaka, abakĭa

ABARASKA

panal (de miel)

abaka iz. Abaraska. *Abakaz beteik do erlotz oi* 'abaraskaz beterik dago erlauntz hori'. *Eztipe do abakĭá* 'eztirik gabe dago abaraska'. *Abaka urtuen urakin iten da mustilua* 'abaraska urtuen urarekin egiten da mustiloa' [*Mustilo*, eztiarekin egiten den ahia].

abandonatu, abandonatzen

ABANDONATU

autzi, alde batia autzi, baztartu, gaitxitxi

abandonar

abandonatu **1** *dau* ad. *Aurroi abandonatwik do* 'haur hori abandonaturik dago'. *Raso abandonatu dai batzia* 'arras abandonatu dute baratzea'. ▲ Sin. *autzi; alde batia autzi; baztartu; gaitxitxi*. Ik. **alde batia autzi**. **2** (Era burutua izenondo gisa). *Etxe abandonatu ortan zabalduko dai gaztetxĭa* 'etxe abandonatu hortan zabalduko dute gaztetxea'. Ik. **autzi**[2].

abandono, abandonua

ABANDONU

abandono, dejadez

abandono iz. Abandonua; norbait edo zerbait alde batera uztea, babesik gabe uztea. *Abandono aundia do kale baztar ortan* 'abandonu handia dago kale baztar horretan'.

abanikatu, abanikatzen

HAIZE EGIN; HAIZE EMAN

abanicar(se)

abanikatu *dau* ad. (Haizemailearekin) haize egin; haize eman.

abaniko, abanikua

ABANIKO, HAIZEMAILE

abanico

abaniko iz. Haizemailea; haizea ematen duen tresna; bereziki, norbera freskatzeko, eskuaz eragiten zaion orri modukoa, gehienetan toles daitekeena. *Musua freskatzen, periodikua abaniko moduen artuta* 'musua freskatzen, periodikoa [egunkaria] abaniko moduan hartuta'.

abar ziztin / txistin, abar ziztina / txistina

ABAR ZIZTRIN* [ABAR, ADAXKA]

txostamar

rama pequeña
leña

abar ziztin / **txistin**. Abar ziztrina*, abarra, adaxka. (Batez ere pl.) *Abar txistinak. Abar txistinak sua yazteko* 'abar ziztrinak sua irazekitzeko'. *Abar txistinakin, biarrakin ta ardiliekin iten dai txoiek kafia* 'abar ziztrinekin*, belarrarekin eta artilearekin egiten dute txoriek habia'. ▲ Sin. *txostamar*.

abar, abarra

ABAR

rama pequeña
leña

abar iz. pl. *Abarrak biltzen. Sua iteko abarrak biltzia fan da* 'sua egiteko abarrak biltzera joan da'. *Pertza yosteko, abarrakin indako sua, obia* 'pertza egosteko, abarrekin egindako sua, hobea'. ◆ **abar ziztin**. Abar ziztrina [abar, adaxka]. Ald. *abar txistin*. Batez ere pl. *abar txistinak. Abar txistinak sua yazteko* 'abar ziztrinak sua irazekitzeko'. ▲ Sin. *txostamar*. ◆ **abar seko**. ◆ **abar-sorta**. ◆ **abar pila**.

abarizia

ABARIZIA

avaricia, codicia

abarizia iz. *Orrek abarizia besteik eztuka* 'horrek abarizia besterik ez dauka'.

abarizioso, abariziosua

ABARIZIOS

diruzale

avaricioso, -a, codicioso, -a, avaro, -a

abarizioso adj. Abarizia duena. *Abariziosua da; asko ibili ta gaio nai* 'abariziosa da; asko eduki eta gehiago nahi'. Ik. **diruzale**.

abarka, abarkĭa

ABARKA

abarca

abarka (eta *albarka*) iz. Batez ere pl. *abarkak*. *Dantzaiek abarkak jantzi tuai* 'dantzariek abarkak jantzi dituzte'. *Narruzko abarkak* 'larruzko abarkak'. Ik. **zata**.

abarkeia

ABARKERIA (?) (OEH) (ZABARKERIA?)

golfería; holgazanería (?)

abarkeia iz. Alprojakeria. ◆ **abarkeien** adb. Alprojakerian [golfeien? – zabarkeria?]

abaro

ABARO

sombra
refugio (?)

abaro iz. Zuhaizpeko edo bestelako babesgunea, abereek eguzkitik gerizatzeko erabiltzen dutena. ◆ **abaro, abaro(an) egon, abaro(an) ibili** [eduki] (> *abaro eon / yon*; *abaro ibili)*. Itzalpean egon, itzalpean eduki. *Ganauek abaro jek arbola azpitan* 'abereak abaro zaudek arbola azpietan'. *Zen gustwa zein abaro!* 'zein gustura zaudeten abaro!'.

abaro, abaro yon, abaro ibili

ABARO, ABARO(AN) EGON, ABAROAN EDUKI

estar a la sombra; estar refugiado

> **abaro, abaro(an) egon, abaro(an) ibili** [eduki] (> *abaro eon / yon*; *abaro ibili)*. Itzalpean egon, itzalpean eduki. *Ganauek abaro jek arbola azpitan* 'abereak abaro zaudek arbola azpietan'. *Zen gustwa zein abaro!* 'zein gustura zaudeten abaro!'.

abasto

ABASTO

ugari

suficiente, bastante
abundantemente

abasto zenbtz. Ugari. *Orrek dirua abasto duka* (LM) 'horrek dirua abasto dauka'. ▲ Sin. *ugari*. ◆ **abasto eman**. *Ezin eman abasto*.

abatz, abatza

ABATZ

apatz

colodra (para ordeñar)

abatz (eta *apatz* [Ziordia]) iz. Gaztagintzan erabiltzen den zurezko ontzia, bi euskarri dituena, kaikua eta oporra baino handiagoa; jezteko ontzia. *|| Abatza're zurezkwá da, gaztaiá itéko* 'abatza ere zurezkoa da, gazta egiteko' (Ond Bak). Ik. **kaiku**; **opor**.

abeasgarri, abeasgarria

ABERASGARRI

enriquecedor, -a

aberasgarri (> *abeasgarri, abiasgarri*) adj.

abeastasun, abeastasuna

ABERASTASUN

ondasun

pobretasun

riqueza, abundancia de bienes; condición de rico, -a

aberastasun (> *abeastasun*, *abiastasun*) iz. *Abeastasunik gutxi orduen, bea pozik bizi gindan* 'aberastasunik gutxi orduan, baina pozik bizi ginen'. *Erriko abeastasunak; basoko abiastasuna*. Ik. **ondasun**. ▼ Anton. *pobretasun*.

abeaste, abeastĭa

ABERASTE

enriquecimiento

aberaste (> *abeaste*, *abiaste*) iz. *aberastu* aditzari dagokion ekintza. *Abeastĭa beste pensamentwik eztukai baten batzuk* 'aberastea beste pensamendurik ez daukate baten batzuk'. *Abeastĭa nai dinu danok* 'aberastea nahi dinagu denok'.

abeastu, abeasten

ABERASTU

urreztatu; dirua in

pobretu

enriquecer(se), hacer(se) rico

aberastu (> *abeastu*, *abiastu*) *da/dau* ad. *Oi raso abeastwik do* 'hori arras aberasturik dago'. *Gwaixe abeastu ber ga loteiekin* 'oraintxe aberastu behar dugu loteriarekin'. *Abeastu in da* 'aberastu egin da'. ▲ Sin. *urreztatu*; *dirua in*. ▼ Anton. *pobretu*.

abeats, abeatsa

ABERATS

dirudun, lezakena

pobre

rico, -a, hacendado, -a, acaudalado, -a

aberats (> *abeats*, *abiats*) adj./iz. *Etxe aundikwa da, abeatsa* 'etxe handikoa da, aberatsa'. *Gutxi ber dena, ua abeatsena* 'Gutxi behar duena, hura aberatsena'. Ik. **dirudun**. ▲ Sin. *dirudun*, *lezaken(a)*. ▼ Anton. *pobre*.

abegorri, abegorria

ABELGORRI

ganado vacuno
ganado de monte

abelgorri (> *abegorri*) iz. *Abegorria esaten zaie bei klaseko animaliairi* 'abelgorria esaten zaie behi klaseko animaliei'.

abemai, abemaia

ABEMARIA

avemaría

abemaria (> *abemai*) iz. *Abemaia jo dau, errosaiuen ondorien* 'Abemaria jo du, errosarioaren ondoren'. Ik. **agurmaria**.

abendu, abendua

ABENDUA

diciembre

abendu iz. Urteko hamabigarren eta azken hila. *Abenduen denbora luzĭa ematen da su ondwen ta sukaldĭen* 'abenduan denbora luzea ematen da sutondoan eta sukaldean' || *Abenduko elurrá, gailtzerubá* 'Abenduko elurra, altzairua' (Ond Bak). Ik. **Gaubon**. • Esr. zah. *Abendua: gau uts, jai uts* 'Abendua: gau huts, jai huts'. • *Abenduko eguna, argitu ordu (a)ko, iluna*.

abentura, abenturĭa

ABENTURA

aventura

abentura iz. *Umetan dana da abenturĭa* 'umetan dena da abentura'. Ik. **komedia**.

aberia

ABERIA

galte, iharri. 2 matxura

avería, daño, perjuicio

avería

aberia **1** iz. Kalte handia. *Aberia aundiek in tuai aurten momoxarruek* 'aberia handiak egin dituzte aurten momoxarroek'. *Aberia aundia jukak horrek buruen* 'aberia handia zeukak horrek buruan'. Ik. **galte**; **iharri**. **2** iz. *Autwa aberiatuik duka* 'autoa aberiaturik dauka'. Ik. **matxura**.

aberiatu, aberiatzen

MATXURATU

matxuratu; hundatu

averiar(se), estropear(se)

aberiatu da/dau ad. Matxuratu. *Berriz'e aberiatu zaira autwa* 'berriz ere matxuratu zait autoa'. Ik. **matxuratu**; **hundatu**.

aberiguatu, aberiguatzen

BILATU, IKERTU

bilatu; jakin

averiguar

aberiguatu (> *aberigwatu*) *dau* ad. Bilatu, ikertu. *Aberigwatu dot nor izan dan* 'bilatu dut nor izan den'. Ik. **bilatu**; **jakin**.

abestruz, abestruza

OSTRUKA

avestruz

abestruz iz. Ostruka (*Struthio camelus*).

abeto, abetua

IZEI

abeto

abeto iz. (Bot.) Izeia (*Abies sp., Pseudotsuga sp. eta Picea sp.*). *Abetwek ta pinuek erretxinĭa dukai* 'abetoek [izeiek] eta pinuek erretxina daukate'.

abezedaio, abezedaiua

ALFABETO

alfabeto, abecedario

abezedaio iz. Alfabetoa. *Lana franko maisuek guri abezedaiwa yakusten* 'lana franko maisuak guri abezedarioa erakusten'.

abiadore, abiadorĭa

ABIADORE, PILOTU

aviador, -a, piloto

abiadore iz. Pilotua, hegazkinlaria. *Gerra garaien abiadore izania da* 'guerra garaian abiadore izana da'.

abil, abila

ABIL

trebe

hábil, diestro, -a

abil adj. *Ezta batere abila dantza iten* 'ez da batere abila dantza egiten'. ▲ Sin. *trebe*.

abildade, abildadĭa

TREBETASUN, ABILEZIA, ABILIDADE

trebetasun; kapazidade

habilidad, destreza, maña, capacidad, aptitud

abildade iz. Abilidadea. *Abildade aundia*. *Abildadĭa duka* 'abilezia dauka'. *Banuka gaztĭen abildadĭa* 'banu gazteen abilidadea'. ▲ Sin. *trebetasun*; *kapazidade*.

abisatu, abisatzen

ABISATU

hots ein, gaztiatu, adbertitu

avisar, advertir

abisatu *dia* ad. *Abisatu geau bier etorriko dala* 'abisatu digu bihar etorriko dela'. *Aldez aurreti abisatu nezun* 'aldez aurretik abisatu nizun'. *Kontuz ibiltzeko abisatu dwa* 'kontuz ibiltzeko abisatu dit'. *Abisatazu* 'abisa ezazu'. ▲ Sin. *ots ein, gaztiatu, adbertitu*.

abisatze, abisatzĭa

ABISATZE

abisatze iz. abisatu ad.-aren aditz izena. *Aldez aurreti abisatzia ondo jok / jon*. 'Aldez aurretik abisatzea ondo zegok / zegon'.

abisu, abisua

ABISU

advertencia, aviso
aviso, recado, mensaje

abisu iz. *Artu dot abisua* 'hartu dut abisua'. ◆ **abisua eman**. *Biyer lania fateko abisua emaniozu aitai* 'bihar lanera joateko abisua emaiozu aitari'.

abitu, abitua

ABITU

hábito [erlijiosoena]

abitu iz. *Apizan abitwa* 'apaizaren abitua'. *Promesĭa iten zan, ongitu ondoren abitwa jazteko* (ohitura zaharra). *Mezia emateko, abitwa jantzi* 'meza emateko, abitua jantzi'.

abitxigorri, abitxigorria

BASAMARRUBI

basoko ailubi

fresa silvestre (Fragaria vesca)

abitxigorri iz. (Bot.) Basoko marrubia (*Fragaria vesca*) [Ziordia]. ▲ Sin. *basoko ailubi* [Urdiain]. Ik. **ailubi**.

abogau, abogaua

ABOKATU

abogado, -a, letrado, -a

abogau iz. Abokatua. *Abogaua hartu ber izan dau* 'abokatua hartu behar izan du'. *Abogau eskualdunak* 'abokatu euskaldunak'.

abonatu, abonatzen

ABONATU, ORDAINDU

patu

abonar

abonatu *dau* ad. Ordaindu. *Abonatu dau etxĭen partĭá* 'abonatu du etxearen partea'. ▲ Sin. *patu*.

aborrigarri, aborrigarria

ASPERGARRI

aspergarri

entretenigarri

aburrido, -a, que aburre; cansado, -a, que cansa; fastidioso, -a

aborrigarri (eta *aburrigarri*) adj. Aspergarria. *Au atsaldien aborrigarria!* 'hau arratsaldearen aspergarria'. *Jende aburrigarria*. Ik. **enplasto**. ▲ Sin. *aspergarri*. ▼ Anton. *entretenigarri*.

aborritu, aborritzen

ASPERTU, NAZKATU

aspertu, lazkatu, nazkatu, okatu

aburrir(se)

hartar(se), hastiar(se), cansar(se) de

aborritu (eta *aburritu*) *da/dau* ad. Aspertu, nazkatu. *Aborritzen dau bat telebisio txar orrek* 'nazkatzen du bat telebista txar horrek'. ▲ Sin. *aspertu*, *lazkatu*, *nazkatu*, *okatu*. ◆ **aborritzekoa izan** (> *aborritzekwa izan*).

abortatu, abortatzen

ABORTATU

umia bota, umia galdu.

abortar, tener un aborto

abortatu *dau* ad. Ik. **umea bota** / **galdu**.

aborto, abortua

ABORTU

aborto

aborto iz. Abortua. *Bi aborto izan zituen* 'bi abortu izan zituen'.

abrigatu, abrigatzen

ARROPA JANTZI; TAPATU

arropia jantzi, tapatu, estaldu

abrigar(se)

abrigatu *da/dau* ad. Arropa jantzi, edo babesgarri batekin estali edo bildu, beroa emateko.

abrigo, abrigua

BEROKI

gaban

abrigo, prenda de vestir

abrigo iz. Berokia. *Abrigo berria yosi dau* 'abrigo berria erosi du'. ▲ Sin. *gaban*. (Alderatu: **beroki**).

absolbitu, absolbitzen

ABSOLBITU

barkatu

absolver

absolbitu *dau* ad. Erl. *Libre naiz, pekatu guztiek absolbitu duatzi apizak* 'libre naiz, bekatu guztiak absolbitu dizkit apaizak'. Ik. **barkatu**.

absolbizio, absolbiziua

ABSOLUZIO

absoluzio, absoluziua

ABSOLUZIO

barkamen

absolución

absoluzio iz. Erl./Zuz. Asolbiziua eske (Ond Bak). Ald. *asolbizio*. ▲ Sin. *barkamen*.

abstenitu, abstenitzen

ABSTENITU

abstenerse

abstenitu *da* ad.

abuela, abuelĭa (?)

AMONA

amina, amandre; 2 atso

abuela
vieja

abuela (eta *abwelĭa*) **1** iz. Amona. Ik. **amina/amiña** (Izag.); **amandre**. *Abwelan'txia fan da* 'amonaren etxera joan da'. *Oien abwela / abwelĭa ezton onezkwa* 'horien amona ez dun onezkoa'. **2** iz. Adin handiko emakumea. ◆ **abuela zahar** (> *abwela zar, abwela xar*). *Abwela xar-xar bat ematen dau* 'amona zahar-zaharra ematen du'. Ik. **atso**. ▲ Sin. *amina, amandre; atso*.

abuelo

AITONA

atun (attun)

abuelo
anciano

abuelo **1** iz. Aitona. *Abwelok pagia eman dwa* 'aitonak paga eman dit'. **2** iz. Adineko gizona. ◆ **abuelo zahar** (> *abwelo zar*, *abwelo xar*). *Abuelo zar kuadrillia ibiltzen da emendi pasĭen* 'aitona zahar kuadrilla ibiltzen da hemendik paseoan'. Ik. **atun**; **attun**.

aburrigarri, aburrigarria

ASPERGARRI

aspergarri

aburrido, -a, que aburre; cansado, -a, que cansa

aburritu, aburritzen

ASPERTU

aspertu

aburrir(se); cansar(se)

abusatu, abusatzen

ABUSATU

abusar; usar mal, usar impropiamente

abusatu **1** *dau* ad. *"Abusatu" da dan baindore gaio hartzĭa* '«abusatu» da den baino gehiago hartzea'. **2** *dau* ad. *Txikio ta indar gutxio zukalako abusatu zen* 'txikiago eta indar gutxiago zuelako abusatu zuen'.

abutarda, abutardĭa*

BASOILO TXIKI

sisón

abutarda iz. Basoilo txikia. Zool. (Otis tetrax). [Ez da berez basoiloa (abutarda, Otis tarda), basoilo txikia baizik (sisón, Otis tetrax)].

abĭastasun, abĭastasuna

ABERASTASUN

riqueza, abundancia de bienes; condición de rico, -a

abĭats

ABERATS

rico, -a, hacendado, -a, acaudalado, -a

abĭon, abĭona

HEGAZKIN

aireplano

avión

abĭon iz. Abioia, hegazkina. *Abĭonĭen fan da Barzelona* 'hegazkinean joan da Bartzelonara'. *Gwai abĭona esaten dĭagu, bea leno beti aireplanwa* 'orain abioia esaten diogu, baina lehen beti aireplanoa'. ▲ Sin. *aireplano*.

adabaki, adabakia

ADABAKI

petatxo

remiendo; petacho

adabaki (eta *abadeki*) iz. *Adabakia dĭa belaunan parien* 'adabakia darama belaunaren parean'. ▲ Sin. *petatxo*. Ik. **partxe**. ◆ **adabakia eman**. Adabatu, adabakia(k) jarri / josi. *Adabakia eman berko dĭat pantalonairi* 'adabakia jarri beharko diet prakei'. *Emaniozu adabakia* 'emaiozu [ipin iezaiozu] adabakia'. *Adabakia eman dĭat soinekwai* 'adabakia jarri diot soinekoari'. Ik. **petatxua bota**.

adabakia eman

ADABATU, ADABAKIA(K) JARRI / JOSI

remendar, hacer remiendos

adana

NARRAS, UTZI(A)

autzi[2]; jarein(a); tresondagarri.

adán, descuidado, -a; desaliñado, -a; abandonado, -a

adana adj. Narrasa, utzia. *Ori adana, tresondagarrioi!* 'Hori adana [narrasa], desondragarri hori!'. Ik. **autzi**[2]; **jaregin(a)** (> *jareina*, *jaraina*); **tresondagarri**.

adar, adarra

ADAR; 4 ADABEGI

3 arrama, abar; galar. 7 sirena

cuerno

cuerno, antena (de algunos animales)

rama

nudo de la madera

cuerno (instrumento musical); sirena

tomar el pelo, fastidiar, reírse de alguien

adar **1** iz. Animaliarena. *Bei ardar-motza* 'behi adar-motza'. *Adarzutiek* 'adarzutiak' [res corniveleta]; *adar baldarrak*, *adar makurrak*; *adarzabal* [corniabierta]. *Beiai adarrak moztu* 'behiari adarrak moztu'. **2** iz. (Hedaduraz) *Kakolan adarrak* 'barakuiluaren adarrak', *barĭen adarrak* 'barearen adarrak'. **3** iz. Zuhaitzaren adarrak. *Arbolĭen adarrak* 'arbolaren adarrak'. ◆ **adar seko**. Zuhaitzen adar lehorrak. *Adar sekwek biltzen genduzen, sua iteko* 'adar lehorrak biltzen genituen, sua egiteko'. Ik. **arrama**, **abar**; **galar**. **4** iz. Adabegia. *Zuran adarra* 'zuraren adabegia'. *Adarrez josita (beteta) do pinu ol oi* 'adabegiz beteta dago pinu ohol hori'. **5** iz. Tronpeta-adarra. *Adarrezko tronpetĭa*. *Gio asi zan tronpetĭa, bea leno adarra jotzen zain bandwa emateko* 'gero hasi zen tronpeta, baina lehenago adarra jotzen zuten bandoa emateko'. **6** iz. Adarrezko ontzia, adar hustua. *Adarrezko potwen gordetzen zan grasĭa*. 'adarrezko potoan gordetzen zen grasa' ◆ **adarra jo**. *Burlaz, adarra jo diai* 'burlaz, adarra jo diote'. Ik. **tentatu**; **burlatu**. **7** iz. Fabrikako adarra. *Ordu bitan jo dau fabrikako adarrak* 'ordu bietan jo du fabrikako adarrak [sirenak]'. ▲ Sin. *sirena*.

adarbakar, adarbakarra

ADARBAKAR

de un solo cuerno

adarbakar adj. *Adarbakarreko beia* 'adarbakrreko behia'. *Ardi adarbakarra*.

adarbeiko, adarbeikua

ADARGABE

adardun (?)

(el) que no tiene cuernos

adarbeiko adj. Adargabea. *Adarbeiko ardiek* 'adargabeko ardiak'. ▼ Anton. *adardun*.

adardun, adarduna

ADARDUN

adarbeiko

cornudo, -a, con cuernos

adardun adj. *Ardi adarduna*. ▼ Anton. *adarbeiko*.

adarkada, adarkadĭa

ADARKADA

adarkazo

cornada

adarkada iz. *Adarkadĭa eman dĭa zezenak* 'adarkada eman dio zezenak'. ▲ Sin. *adarkazo*.

adarkaldi, adarkaldia

ADARKADA, ADARKA ALDI

cornada, golpe de cuerno

adarkaldi iz. Adarkada. Animalia adardunek adarka egindako aldia. *A ze adarkaldia in dai beiek!* 'a zer adarkaldia egin dute behiek'.

adarkan

ADARKA

a cornadas, golpeando con los cuernos; topar, topetar

adarka (> *adarkan*) adb. *Beiek adarkan* 'behiak adarka [talka egin]. *Beiek adarkan daitza* 'behiak adarka dabiltza'. ◆ **adarka egin** (> *adarka in*). ◆ **adarkaldi**.

adarkatu, adarkatzen

ADARKATU

cornear, dar cornadas

adarkatu *dau* ad. *Bein da berriz adarkatu dau* 'behin eta berriz adarkatu du'.

adarkazo, adarkazua

ADARKADA

adarkada

cornada, golpe de cuerno

adarkazo iz. Adarkada. *Eman dĭa adarkazo bat...* 'eman dio adarkada bat...' Ik. **adarkada**.

adarmakur, adarmakurra

ADAR-APAL, TXORDO, ADAR-MAKUR

adarbaldar

cornigacho, -a

adarmakur adj. Adar-apala, txordoa. *Bei adarmakurra* 'behi adar-makurra'. ▲ Sin. *adarbaldar*.

adarmotz, adarmotza

ADARMOTZ

cuerniquebrado, -a, que le falta un cuerno o los dos de cuernos despuntados

adarmotz adj. *Puntak moztutako adarduna, adarmotza.*

adarra jo

ADARRA JO

tentatu, burlatu, toriatu

tomar el pelo, fastidiar, reírse de alguien

adarra jo. *Burlaz adarra jo*. Ik. **tentatu**; **burlatu**; **toriatu**.

adartsu, adartsua

ADABEGITSU; 2 ADARTSU

2 arramatsu

nudoso, -a

frondoso, -a, lleno, -a de ramas

cornudo, -a

adartsu (> *adarsu*) **1** adj. Adabegitsua. • Esr. zah. *Arbola adartsua: gaiztua txikitzeko, bea sugilĩa* [sua egiteko ona] 'arbola adabegitsua: gaiztoa txikitzeko, baina su egilea'. **2** adj. Adartsua. *Arbola adarsua, arramatsua.* ▲ Sin. *arramatsu*.

adartxo, adartxua

ADARTXO

adartxo iz. *Bi adartxo dukatzi bildotsak* 'bi adartxo dauzka bildotsak'. *Adartxuet* 'adartxo bat'.

adarzabal, adarzabala

ADARZABAL

corniabierto, -a, que tiene los cuernos anchos

adarzabal adj. *Bei adarzabalak ipukua aundixo ber zen* 'behi adarzabalak ipuruko handixeagoa behar zuen' (*).

adarzuti, adarzutia

ADARSARDE

corniveleto, -a. Dicho de un toro o de una vaca: Cuyos cuernos, por ser poco curvos, quedan

adarzuti adj. Adarsardea. *Behi adarzutia.*

adbertitu, adbertitzen

ABERTITU

abisatu, gaztiatu, nahikua esan

advertir, avisar

adbertitu *dia/dau* ad. Abertitu. *Adbertizen duet hola ez ibiltzeko* 'abertitzen diat horrela ez ibiltzeko'. *Adbertituik hago* 'abertiturik hago'. Ald. *albertitu.* ▲ Sin. *abisatu, gaztiatu*; *naikwa esan*.

adelantatu

AURRERATU

aurriatu

adelantatu *da/dau* ad. Aurreratu. *Bideberrien, kontu aundiekin adelantatu ber dau beti* 'bideberrian, kontu handiarekin aurreratu behar da beti'. Ik. **aurreratu**.

adelantu

AURRERAPEN

avance, progreso, adelanto; mejora

adelantu iz. Aurrerapena. *Adelantu haundia. Lan in berrik eztu izanko guai den adelantuekin* 'lan egin beharrik ez dugu izango orain dauden aurrerapenekin'.

adiazi, adiazitzen

ADIERAZI

dar a entender, expresar, explicar, declarar, manifestar

adierazi (> *adiazi*) *dau* ad. *Eztia adiazitzen gaizki dailela* 'ez dio adierazten gaizki dabilela'. *Horri adiazi? Horri ez zaio adiazitzen txarki dailela* 'horri adierazi? Horri ez zaio adierazten txarki dabilela' (*). Ik. **ariyazi** (Iza Alts).

adibidez

ADIBIDEZ

gonbeztako, esate batiako

por ejemplo

adibidez adb. (Hitz berria) Ik. **esate baterako**; **konparazio baterako**.

adibinadora, adibinadorĭa

IGARLE

azti

adivinador, -a

adibinadora iz. Igarlea. *Jito kastako emakumĭek izaten zian adibinadorak*. 'ijito kastako emakumeak izaten ziren igarleak' ▲ Sin. *azti*. Ik. **mago**.

adibinatu, adibinatzen

IGARRI

asmatu, iarri

adibinatu *dau/dia* ad. Igarri. *Adibinatzak hoi!* ▲ Sin. *asmatu, iarri*.

adin, adina

ADIN

edade

edad

adin iz. *Adin txarra dukat lana bilatzeko* 'adin txarra daukat lana bilatzeko [aurkitzeko]'. ▲ Sin. *edade*. ◆ **adina etorri**. *Etorri zaigu jubilatzeko adina*. ◆ **adin bat izan**. *Adin bat bauka* 'adin bat badauka'. *Adin batĭa helduzkĭo, osasun kontuek nagusi* 'adin batera helduz gero, osasun kontuak nagusi'. ◆ **adinekoa izan** (> *adinekwa izan*). Adindua izan. ◆ **adin batekoak izan** (> *adin batekwek izan*). Adin berekoa izan. *Adin batekuk gaa* 'adin berekoak gara' (Iza Alts). ◆ **adin ingurukoak izan** (> *adin ingukwek izan*). *Uste dot adin ingukwek diala* 'uste dut adin ingurukoak direla'.

aditzerĭa bota

ADITZERA BOTA

puntadĭa bota

tirar una puntada a alguien

aditzera bota (> *aditzerĭa bota*) *dau* ad. Eztenkada; esaldi mingarria bota; puntada, zirikada. *Leno ez zala bátere euskalzalĭa bota dĭa aditzerĭa* 'lehen(ago) ez zela batere euskaltzalea bota [eman] dio aditzera'. Ik. **puntada**.

adobatu, adobatzen

ONDU, ONTZUTU, MARINATU

adobar, condimentar, aderezar

adobatu *dau* ad. Ondu, ontzutu.

adobo, adobua

ADOBO

adobo

adobo iz. *Adobwa iteko, almenizĭen txikitzen dĭa babatxuiek* 'adoboa egiteko, almaizan txikitzen dira baratxuriak'. Ik. **untagarri**.

adoptatu, adoptatzen

ADOPTATU

umetako hartu, seme-alabatako hartu; jaso (?)

adoptar [niños]

adoptatu *dau* ad. *Bi urteko aurra adoptatu dai* 'bi urteko haurra adoptatu dute'. Ik. **jaso**. ▲ Sin. *umetako hartu, seme-alabatako hartu*.

adoratu, adoratzen

ADORATU

adorar

adoratu *dĭa/dau* ad. *Adoratu iten dĭa aizpa zarrenai* 'adoratu egiten dio [du] ahizpa zaharrenari [zaharrena]'.

adornatu, adornatzen

ADORNATU,

apaindu

adornar, embellecer, engalanar, ornamentar

adornatu *dau* ad. Apaindu, apaingarriz hornitu. Ik. **apaindu**.

adornu, adornua

ADORNU, APAINGARRI

adorno, ornamento

adornu iz. Apaingarria, apaindura; apaintzeko jartzen edo erabiltzen den gauza. *Adornutako dukatzi lenoko gauza zarrak* 'adornutarako dauzka lehengoko gauza zaharrak'.

adrilu, adrilua

ADREILU

ladrillo

adrilu (eta *ladrilu*) iz. Adreilua. Ik. **ladrilu**.

adĭos

AGUR!, ADIO!; 2 ADIO!, AKABO!

2 akabo

¡adiós!
adiós, se acabó, se terminó

adios **1** interj. Agur, adio. *Beste aldi bat arte, adios!* **2** interj. Akabo, adio. *Adios baswa!* 'adio basoa, [edalontzia]'. ▲ Sin. *akabo*.

afai-lege, afai-legĭa

AFARI-LEGE

afai-modu

cena informal, cena frugal

afari-lege (> *afai-lege*). *Afai legĭa in* 'afari legea egin'. ▲ Sin. *afai-modu*.

afai-modu, afai-modua

AFARI-MODU

afai-lege

cena informal, cena frugal

afari-modu (> *afai-modu*). (Iza Alts). ▲ Sin. *afai-lege*.

afai, afaia

AFARI

cena

afari (> *afai*) iz. *Afaia prepatu* 'afaria preparatu'. *Afaiek ez dwa onik in, gaizki in dwa* 'afariak ez dit onik egin, gaizki egin dit'. Ik. **merienda-afari** (> *bendu-afai*). Ik. **sorgin afari** (> *sorgin afai*). ◆ **afari-lege** (> *afai-lege*). Afari arina. *Afai legĭa in* 'afari legea egin'. Sin. *afai-modu*. ◆ **afaritako** (> *afaitako*). Afaltzeko. *Afaitako lekua* 'afaritako lekua'. *Hartu afaitako lekua* 'hartu afaritako lekua'. *Zer do afaitako?* 'zer dago afaritako? *Afaitako eztukat ezere gaio* 'afaritako ez daukat ezer ere gehiago' ◆ **afaritan** (> *afaitan*) Afaltzen. *Afaitan gendela* 'afaritan geundela'. ◆ **afaritara** (> *afaitá*) adb. *Afaltzea* 'afaltzera' *Afaita fan da* 'afaritara joan da'. *Ator gwe etxĭá afaitá* 'hator gure etxera afaritara'. ◆ **sorgin afari** (> *sorgin afai*) iz. Gauerdi inguruan egiten den afaria, bereziki, egun berezietan lagunartean egiten dena. *Diote egunĭen iten da sorgin-afaia* 'inaute egunean egiten da sorgin-afaria'.

afaita

AFARITARA

a cenar

afaritara (> *afaita*) adb. *Afaltzĭá* 'afaltzera'. *Ator gwe etxĭá afaitá* 'hator gure etxera afaritara'.

afaitako, afaitakua (afeitako) AFARITAKO

para cenar, de cena

afaritako (> *afaitako, afeitako*). Afaltzeko. *Zer do afaitako?* 'zer dago afaritako'. *Artu afaitako lekua* 'hartu afaritako lekua'.

afaitan AFARITAN

cenando, durante la cena, en la cena

afaritan (> *afaitan*). *Afaltzen*. *Afaitan gendela* 'afaritan geundela'.

afalaurre, afalaurria AFALAURRE

tiempo antes de cenar

afalaurre iz. *Afalaurreti botikĭa hartzen dau* 'afalaurretik botika hartzen du'. *Afalaurreti ez jateko ezere (eztezere) esaten dĭat beti* 'afalaurretik ez jateko ezer ere (ezta ezer ere) esaten diot beti'.

afaldu, afaltzen AFALDU

cenar

afaldu *dau* ad. *Majo afaldu du* 'bapo afaldu dugu'. *Babatxui zopĭa afaltzeko* 'baratxuri zopa afaltzeko'. *Sardinakin afaldu du* 'sardinak afaldu ditugu'. *Afaldu ta oia* 'afaldu eta ohera'. "*Eta geó etxatorrita afaldu berrin lokartu nekatuiken*" (Iza Alts). ◆ **afaltzeko garaia**. *Gaur ixilik yon da afaltzeko garaien* 'gaur isilik egon da afaltzeko garaian'. Ik. **afalordu**.

afalondo, afalondua AFALONDO

tiempo después de cenar; sobremesa

afalondo iz. Afaldu ondoko denbora. *Afalondwen kantaitan hasi dĭa* 'afalondoan kantatzen hasi dira'.

afalordu, afalordua AFALORDU

hora de cenar

afalordu iz. *Afalordwako etorko da* 'afalordurako etorriko da'. Ik. **afaltzeko garai**.

afan, afana (?) AFAN, GRINA

gogo

afán, ocupación; empeño, deseo

afan iz. Grina. G.g.er. Ik. **gogo**.

afarriero, afarrierua AJOARRIERO

ajoarriero

afiliatu, afiliatzen AFILIATU

afiliar(se)

afiliatu ad. *Sindikatuen afilĭatu da* 'sindikatoan afiliatu da'. ◆ **afiliazi**.

afizio, afiziua ZALETASUN, AFIZIO

zaletasun

afición

afizio iz. Zaletasuna. *Emen afizio aundia do ziklismwen* 'hemen afizio handia dago ziklismora'. *Afizio gutxi lanai* 'afizio gutxi lanari'. Ik. **zaletasun**.

afizionatu, afizionatua — ZALE, AFIZIONATU. 2 AMATEUR

zale

aficionado, -a

afizionatu **1** iz. Zalea. Ik. **zale**. **2** iz./adj. Amateurra.

afizionatu, afizionatzen — ZALETU, AFIZIONATU

aficionarse

afizionatu *da* ad. Zaletu.

afolabaiku, afolabaikua — AXOLAGABEKO

despreocupado, -a; indiferente; negligente

aforru, aforrua — FORRU

forru

forro
encapotado (cubierto de nubes)

aforru (> *afurru*) **1** iz. Forrua; forradura. Ik. **forru**. **2** iz. *Irud.* (*Laino*) *afurrua* 'laino forradura' [hodeiz estalia]. *Yauria dekala menditik, afurruaren erditik* 'euria dakarrela menditik, afurruaren erditik [forraduraren erditik]'.

afurratu, afurratzen — FORRATU

forrar, poner forro

afurratu *dau* ad. *Txaketĭa afurratu dau* 'txaketa forratu du'. Ik. **forratu**.

afurru, afurrua — FORRU

forru

forro

agarratu, agarratzen — HELDU; HARRAPATU; ITSATSI

heldu

agarratu **1** *dia* ad. Heldu. *Agarratu dĭa lepoti*. Ik. **heldu**. **2** *dau* ad. Harrapatu. Ik. **harrapatu**. **3** *dau* ad. Itsatsi. Ik. **itsasi**.

agarrau, agarraua — DANTZA LOTU

baile agarrado

agarrau iz. Dantza lotua. Ik. **jota**.

agertu, agertzen — AGERTU

desagertu, desaparezitu

aparecer, mostrarse
presentarse, comparecer

agertu *da* ad. *Agertu dok mailua? Ama Berjinĭa agertu emen zezaien* 'Ama Birjina agertu omen zitzaien'. *Zazpiek aldĭa agertuko naiz* 'zazpiak aldera agertuko naiz'. Ik. **ageri** (> *agi da*). ▼ Anton. *desagertu*, *desaparezitu*.

agezta, ageztia — ALEZTA

aresta, agramiza, tomento

agezta iz. Alezta. (Batez ere pl.) *ageztak* (?). Lihoa jo ondoren geratzen den hondakina, amuko pobrea. Ik. **amuko**. Ald. *arezta* (JMS).

agi

AGERI, AGERTU

ageri (> *agi*) adj. ◆ **ageri izan** (> *agi izan*) *da* ad. Agertu. *Agi emen dĩa patatak* 'ageri omen dira patatak. *Emen ge gu espea, ta launak eztĩa agi* 'hemen gaude gu esperoan, eta lagunak ez dira ageri'.

agi izan

AGERI IZAN, AGERTU

aparecer, mostrarse

ageri izan (> *agi izan*) *da* ad. Agertu. *Agi emen dĩa patatak* 'ageri omen dira patatak. *Emen ge gu espea, ta launak eztĩa agi* 'hemen gaude gu esperoan, eta lagunak ez dira ageri'.

agila, agilia

ARRANO

águila (Aquila sp.)

agila iz. Arranoa (*Aquila sp.* etab.) *Agila beltza da erriko eskudwa* 'arrano beltza da herriko armarria'. Ik. **arrano** [sai, putre].

aginaldo, aginaldua

GABONSARI, AGILANDO

aguinaldo

aginaldo iz. Agilandoa, gabonsaria. *Fabrikan eman diai aginaldwa* 'fabrikan eman diote agilandoa'.

agindu, agindua

AGINDU (1)

ordenia; 2 mandamentu, promesa

orden, mandamiento, mandato

promesa

agindu[1] **1** iz. *Eman dai ubaxak ez arrapatzeko agindua* 'eman dute igelak ez harrapatzeko agindua'. ▲ Sin. *ordenia* (> *ordenĩa*). ◆ **agindutakoa egin, agindutakoa bete** (> *agindutakwa in*, *agindutakwa bete*). ▲ Sin. *obeditu, esandakwa in*. **2** iz. *Agindutakwa eztau bete* 'agindutakoa ez du bete'. ▲ Sin. *mandamentu, promesa*.

agindu, agintzen

AGINDU (2)

gobernatu. 2 errezetatu. 3 prometitu, hitza

mandar, ordenar; gobernar

recetar

prometer, dar la palabra

encomendar, encargar, confiar [?]

agindu[2] **1** *dau* ad. *Nok agintzen dau etxiontan?* 'nork agintzen du etxe honetan?'. *Oiek eztai agintzen Eskwalerrien* 'horiek ez dute agintzen Euskal Herrian'. Ik. **gobernatu**. | *Ixilik yoteko agindu zwan* 'isilik egoteko adindu zidan'. *Aitak goiz etortzeko agindu dĩa* 'aitak goiz etortzeko agindu dio. **2** *dau* ad. (Medikuak eriari). ◆ **medikuak agindu** (> *medikuek agindu*). *Medikuek agindu dwa botikĩau* 'medikuak agindu dit botika hau' Ik. **errezetatu**. **3** *dau* ad. Hitzeman. *Agindu zwaken ekarko zela, esan zwaken ekarko zela. Nei agindu zwan, bea eztau bete* 'niri agindu zidan, baina ez du (hitza) bete'. Ik. **prometitu**, **hitza eman**. **4** *dau* ad. Ik. **enkargatu**.

aginduazi, aginduazten

AGINTARAZI

obligar a mandar

aginduazi *dau* ad. Agintarazi. *Agindwazi: bestei esan agintzeko.*

agindutakua in, agindutakua bete

AGINDUTAKOA EGIN, AGINDUTAKOA BETE

obeditu, esandakua in

agindutakoa egin, **agindutakoa bete** (> *agindutakwa in*, *agindutakwa bete*). ▲ Sin. *obeditu, esandakwa in*.

agintai, agintaia

AGINTARI

nagosi

autoridad; jefe, -a, mandatario, -a

agintari (> *agintai*) iz. *Erriko agintaiek* 'herriko agintariak'. Ik. **nagosi**.

agirien

AGERIAN

al descubierto, a la vista, en evidencia
en público, públicamente

agerian (> *agirien*) adb. *Agirien do patatĭa* 'agerian dago patata'. Ik. **agirik**.

agirik

AGERIRIK

estalik, estalduik

a la vista, manifiestamente

ageririk (> *agirik*) adb. *Momoxarruek musua agirik* 'momoxarroak aurpegia ageririk'. *Ipurdia agirik* 'ipurdia ageririk'. Ik. **agerian** (> *agirien*). ▼ Anton. *estalik, estalduik*.

ago txikiekin esan

AHO TXIKIAREKIN ESAN

decir algo con la boca chica, chiquita, o pequeña (ofrecer algo por mero cumplimiento)

aho txikiarekin esan (> *ago txikiekin esan*). Konpromisorik gabeko eskaintza egin (?).

ago-haundi, ago-haundia

AHOHANDI

agozabal

que tiene la boca grande
exagerado, -a; bocazas

ahohandi (> *ago-aundi*) adj. Ik. **agozabal**.

ago, agua

AHO

boca
filo

aho (> *ago*) **1** iz. **2** iz. Ebakitzeko tresnarena. *Aizkora, kutxiluen... agwa*. *Ago zorrotza*, *ago aketsa* (Ond Bak). ◆ **ahotik kendu** (> *agoti kendu*). ◆ ago-haundi. ◆ ago zakar. ● Aguá bidién eztó sasík (Ond Bak). Aguén hitzík ez (Ond Bak). ◆ agua musti. ◆ agozihar, agoziharra. ◆ **ahoa giltzatu** (> *agwa giltzatu*). Ahoa ezin zabaldu (trismo); giharren uzkurtzeagatik, tetanos eritasunak eragiten duena. Ik. **tetano**. ◆ **[hitza] ahotik kendu** (> *agoti(k) kendu*). *Esan ber nena agoti kendu duazu guaixe* 'esan behar nuena ahotik kendu didazu oraintxe'. ◆ **aho zabalka** (> *agwa zabalkan*) adb. *Lo gutxi in dau-ta, goiz guztia dia agwa zabalkan, arrantsuketan* 'lo gutxi egin du-eta, goiz guztia darama ahoa zabalka, aharrausika'. ▲ Sin. *arrantsuketa, arrantsuketan*. ◆ **ahorik aho** (> *agoik ago*) adb. Ahoz aho. ● Esr. zah. *Arrantsuketia agoik ago eta katagorria pagoik pago*. ◆ **aho txikiarekin esan** (> *ago txikiekin esan*). Konpromisorik gabeko eskaintza egin (?).

agoarras, agoarrasa

AGOARRAS, TREMENTINA

aguarrás

agoarras (eta *agwarras*) iz. Agoarrasa, trementina. *Naio dot urakin nasten dan pinturĭa ta ez agoarrasakin* 'nahiago dut urarekin nahasten den pintura eta ez agoarrasarekin'.

agobero, agoberua [?]

AHOBERO

exagerado, -a; charlatán, -ana

ahobero (> *agobero*) adj.

agobizar, agobizarra

AHOBIZAR, AHOERI

glosopeda, fiebre aftosa

ahobizar (> *agobizar*) iz. Ganaduaren ahoko eritasuna, mihian gertatzen den handitu bat ezaugarri duena.

agogarbi

AHO-GARBI [?], MIHI GARBIKO

agozikin

bienhablado, da

aho-garbi (> *agogarbi*) adj. Aho garbikoa ▼ Anton. *agozikin*.

agoik ago

AHORIK AHO, AHOZ AHO

de boca en boca

ahorik aho (> *agoik ago*) adb. Ahoz aho. • Esr. zah. *Arrantsuketia agoik ago eta katagorria pagoik pago*.

agolba, agolbìa

AILORBE

alholva

agolba iz. (Bot.) Ailorbea (*Trigonella foenum-graecum*). *Agolbìa beieri ematen zezaien, bea esenĭa izaten zan míno* 'ailorbea behiei ematen zitzaien, baina esnea izaten zen minago'.

agolbatza, agolbatzia

AILORBE BARATZEA

Campo en que se ha cosechado alholva

agolbatza iz. Ailorbe baratzea, ailorbe uzta bildu den eremua. *Agolbatzia konponduta, bertan yaiten zan nagua, neguen ganaueri emateko* (LM). || Nagua yain ber du agolbatzien (Ond Bak). (Campo en que se ha cosechado alholva).

agonio, agoniua

AGONIA

hilzori

agonía, estado que precede a la muerte

agonio iz. Agonia. *Azkenekotan do, agoniuen do.* ▲ Sin. *hilzori*. ◆ **agoniua jo**. *Jo dai agoniua.* Ik. **hil ezkila**.

agopien

AHOPEAN

ixilpien [?]

en voz baja, al oído; en secreto; poner boca, o la boca, en alguien

ahopean (> *agopĭen*) adb. *Agopien, gaizki esaten ibili* 'ahopean, gaizki esaka aritu'. ◆ **norbait ahopean ibili** [eduki] (> *norbait agopien ibili*). Hitzez norbaiten kontra gaizki esanez jardun. *Oi beti agopein dukai, txarki esaten; gaixuoi* 'hori beti ahopean daukate, txarki esaten; gaixo hori'. (LM).

agor, agorra

AGOR-LIHO

variedad de lino, lino inferior

agor iz. (Bot.) Agor lihoa, liho mota. *Gariek baindo lenxuo yaiten zan agorra* 'gariak baino lehentxeago ereiten zen agor-lihoa'. *Bagazí agorra yaitĭa* 'bagoaz agorra ereitea'. Ik. **liho**. • Esr. zah. *Andramaria urriko, agorra bi orriko*.

agotz, agotza

AHOTZ, LASTO

paja

ahotz (> *agotz*) iz. Lastoa [laboreena]. *Sartu tu aurtengo agotzak agoztaira* 'sartu ditugu aurtengo ahotzak ahoztegira'. *Goiko ganbaran, agotzá* 'goiko ganbaran, ahotza'. Ik. **lasto**.

agozabal

AHOZABAL

ago-haundi

que tiene la boca grande

hablador, -a; charlatán, -ana; largo, -ga de lengua

ahozabal (> *agozabal*) **1** adj. Aho zabala duena. **2** adj. Behar baino gehiago eta zuhurtziarik gabe hitz egiten duena. *Oi agozabala; obeto inko like ixilik balo* 'hori ahozabala; hobeto egingo luke isilik balego'. Ik. **ago-haundi**.

agozeru, agozerua

AHOSABAI

paladar, cielo de la boca

agozeru iz. Ahosabaia, ahoko barrunbearen goialdea.

agozikin, agozikina

AHO-ZIKIN

mihizikin

agogarbi

malhablado, -a, maldiciente

aho-zikin (> *agozikin*) adj. Biraolaria; juramentuka ibiltzen dena; gaizki esaka ari dena. *Txarki esaten dailena da agozikina* 'txarki esaten dabilena da ahozikina'. ▲ Sin. *mihizikin*. ▼ Anton. *agogarbi*.

agoztai, agoztaia

AHOZTEGI, LASTATEGI

lastatei [Altsasu]

pajar

ahoztegi (> *agoztai*) iz. Lastategia. *Goiko ganbaran do agoztaia* 'goiko ganbaran dago ahoztegia'. Ik. **lastategi** (> *lastatei*).

agua giltzatu

AHOA GILTZATU (TRISMO; TETANOS)

trismo (Contracción por el tétanos, que produce la imposibilidad de abrir la boca)

ahoa giltzatu (> *agwa giltzatu*). Ahoa ezin zabaldu (trismo); giharren uzkurtzeagatik, tetanos eritasunak eragiten duena. Ik. **tetano**.

agua zabalkan

AHO ZABALKA

arrantsuketan

bostezando

aho zabalka (> *agwa zabalkan*) adb. *Lo gutxi in dau-ta, goiz guztia dia agua zabalkan, arrantsuketan* 'lo gutxi egin du-eta, goiz guztia darama ahoa zabalka, aharrausika'. ▲ Sin. *arrantsuketa, arrantsuketan*.

aguantatu, aguantatzen

AGUANTATU, JASAN

jarki; autsi

soportar, aguantar, padecer, sufrir

aguantatu **1** *dau* ad. Jasan. *Pixkat yaten denien, ez'tau iyuerek aguantatzen* 'pixka bat edaten duenean, ez du inork aguantatzen'. Ik. **jarki**. **2** *dia* ad. Eutsi. Ik. **autsi**.

aguante, aguantia

JASANKORTASUN

aguante

aguante iz. Jasankortasuna. *Agwante aundikwa da* 'jasankortasun handikoa da'.

aguatxinatu, aguatxinatzen

[USTELDU]

usteldu, galdu

aguachinar

aguatxinatu *da* ad. Gehiegizko ur edo euriagatik, fruitu edo elikagaiak hondatu edo laborea usteldu. *Patatia aguatxinatu*. Ik. **usteldu**, **galdu**.

aguazil, aguazila

AGUAZIL, UDALTZAIN

almiente, alminte

alguacil; policía municipal

aguazil iz. Udaltzaina. *Aguazilak isuna bota dia* 'aguazilak isuna jarri dio'. ▲ Sin. *almiente*, *alminte*.

agudo

AGUDO

listo, laister, azkar

rápido, -a

rápidamente, velozmente

agudo adb. *Agudo gek fiestatan* 'agudo gaudek festetan'. *Etor zaitez agudo! Agudo ibili! Etorri agudo.* ▲ Sin. *azkar*, *laister*, *listo*.

agujeta(k)

GIHAR MIN, GOGORDURA(K)

gorbeatuik / gorbeatuta

agujeta (pl.)

agujeta iz. pl. *agujetak*. Gihar mina, gogordura(k). Ik. **gorbeaturik** (> *gorbeatwik*) / **gorbeatuta**.

agur

AGUR

diosela

hola; adiós; salve

saludo, salutación; adiós, despedida

agur **1** interj. *Apizai, pasaeran: Agur Maria!* 'apaizari, pasaeran: Agur Maria!' ◆ **agur egin** (> *agur ein / in*). *Iniozu agur!* 'egiozu agur' (umeari aginduz, esate baterako). **2** interj. Akabo. Ik. **adios**, **akabo**. **3** iz. Ik. **diosela**.

agurmaria

AGURMARIA

izkon

avemaría [oración]

agurmaria **1** iz. Kristau otoitza. *Errezatazu hiru abemaria penitenziatako* 'erreza itzazu hiru abemaria penitentziatako. **2** interj. Diosala, agurra. *Apizai indako dioselia* 'apaizari egindako diosala —*Agurmaria!* —*Sortzez garbia* [erantzuna]. Besteen etxera sartzerakoan egiten den diosal hitza. Ik. **izkon**.

aguztu, aguztua

ABUZTU

agosto

aguztu iz. Abuztua. Ald. *abuztu*. *Aguztuen ez bero ta ez hotz* 'abuztuan ez bero eta ez hotz'. ◆ **Andramaria Aguztukuek** 'Andre Maria abuztukoak'. *Andramai Aguztukotan fiestak zelebratzen tu* 'Andra Maria Aguztukoetan festak ospatzen ditugu'. ● Esr. zah. *Aguztuek neguai fixtu* 'abuztuak neguari txistu [deitu]'.

ahabi, ahabia

AHABIA

arándano (Vaccinium myrtillus)

ahabia (> *abi*) **1** iz. (Bot.) Fruitu mamitsu beltxaxkak eta jateko onak ematen dituen zuhaixka (*Vaccinium myrtillus*). *Abi gogoti etortzen da Aizkibilen* 'ahabia gogotik etortzen da Aizkibilen'. **2** iz. Landare horren fruitua.

ahabidi, ahabidia

AHABIDI

arandanedo

ahabidi (> *abidi*) iz. Ahabiak dauden tokia. {"*Abidiya*, el arandanero" (sic) (Iza Alts)}.

ahaide, ahaidia

AHAIDE

parentela; alderdiko

pariente, familiar

ahaide (> *aide*) iz. Senidiek ta aidiek. *Aidiek dukatziei Ameiketan* 'ahaideak dauzkate Ameriketan'. Gue aidiek. ◆ **ahaide egin** (> *aide in*). ◆ **ahaide izan** (> *aide izan*). *Aidiek zielako* (Ond Bak). ▲ Sin. *parentela*; *alderdiko*.

ahal

AHAL

poder, posibilidad
ojalá

ahal (> *al*) partik. Oxala. *Yauria inko al dau, bestela akabo gue patatak* 'euria egingo ahal du, bestela akabo gure patatak. *Hilko al daiz!* 'hilko ahal haiz'. Ik. **ojala**.

ahal izan

AHAL IZAN

poder, ser posible

ahal izan (> *al izan*) *da/dau* ad. (Beste aditz bati ez dagokiola) *Al balin badiet inko diet* 'ahal baldin badiat egingo diat'. *Al izanezkio in ber dau laundu* 'ahal izanez gero egin behar da lagundu'. *Al dun garaien inko du* 'ahal dugun garaian egingo dugu' *Al badiet inko diet; ezin balin badiet, or geldituko dok in be* 'Ahal badiat egingo diat; ezin baldin badiat, hor geldituko duk egin gabe'. ◆ **ahal dala**. ◆ **ahal dan ...-ena**. ◆ **ahalik eta... -ena**. (?) ◆ **ahal dan bekela, ahal dan moduen** (> *al dan bekela*; *al dan moduen*). *Al dan bekela naile* 'ahal den bezala nabil'. (baleza eta ahal balike gauza bia dok) [?] LM

ahala

AHALA

tan pronto como; según, en la medida que

ahala (> *ala*) adb. (Aditz baten era burutuaren eskuinean). Bezain laster. *Egurra ekarri ala egurtokien patu dau* 'egurra ekarri ahala egurteran paratu du'. *Dirua artu ala gastatu iten dau* 'dirua hartu ahala gastatu egiten du'. *Sartu ala jarri iten zian* 'sartu ahala jarri egiten ziren'. Ik. **bezain listo**.

ahalaindu, ahalaintzen

AHALEGINDU

saiatu, esforzatu

empeñarse, esforzarse, hacer lo posible

ahalegindu (> *alaindu*) *da* ad. *Yakusten alaindu nauk* 'erakusten ahalegindu nauk'. ▲ Sin. *saiatu*, *esforzatu*.

ahalein, ahaleina

AHALEGIN

saio (saiwá)

esfuerzo; afán, empeño; tentativa, intento; lo posible

ahalegin (> *alein*, *alain*, *alaina*) iz. Sing. eta pl. *Alaina in dau* 'ahalegina egin du'. ▲ Sin. *saio* (*saiwá*). ◆ **ahalegina(k) egin** (> *aleina(k) in*). *Alainak / aleinak in diatzit* '[laguntzen] ahaleginak egin dizkiot'. *Aleina in ondorien, intenziuek balio dau* 'ahalegina egin ondoren, intentzioak balio du' (Ond Bak). Ik. **egin ahala** (> *inala*). (?).

ahaleina(k) in

AHALEGINA(K) EGIN

hacer lo posible; esforzarse

ahalegina(k) egin (> *aleina(k) in*, *alaina(k) in*). *Ahalainak/ahaleinak in diatzit* '[laguntzen] ahaleginak egin dizkiot'.

ahalik eta [?]

AHALIK (ETA)... -EN(A)

lo más... posible (intercalando un adjetivo o un adverbio)

ahalik eta [?] (Hitz berria). (LM-k ez dau ezagutzen). Ik. **ahal dan ...ena**.

ahardi, ahardia

AHARDI

eme

ordots, apo

cerda

ahardi (> *ardi*) **1** iz. Zerri emea [?]. **2** adj. *Txerri ahardi, urde ahardi, txerrikuma ahardi. Emiek dianak, danak* 'emeak direnak, denak'. *Txerri batzuk dia ordotsak, bestiek ardiek* '*zerri batzuk dira ordotsak, besteak ahardiak*'. ▲ Sin. *eme*. ▼ Anton. *ordots*, *apo*.

ahariko motza

AHARI, AHARIKO

carnero

ahariko motza (> *ariko motza*) iz. Ahariko adar motza (?).

ahariko, aharikua

AHARI

carnero

ahariko (> *ariko*) iz. Aharia. *Axui ariko bat* 'axuri ahariko bat'. *Arikuei bi begiek atartien* 'aharikoari bi begiak atera arte' (Ond Bak). ◆ **ahariko kapatua** (> *ariko kapatua*). Ahari zikiratua. ◆ **ahariko motza** (> *ariko motza*) iz. Ahariko adar motza (?).

ahaztu, ahazten

AHAZTU

buruti fan(ik) eduki, fanik eduki — *akordatu, goguen ibili*

olvidar(se)

ahaztu (> *aztu*) *da/dau/zaio* ad. **1** *Zue izena aztu in zaira* 'zure izena ahaztu egin zait'. *Ezta aztu ber gerran pasatu zana* 'ez da ahaztu behar gerran pasatu zena'. *Oi, ahazteko hobe* 'hori ahazteko hobe'. **2** *zaio* ad. *Eskuaz itz iten ahaztu zaio* 'euskaraz hitz egiten ahaztu zaio'. *Pausokan ibiltzen aztu zaio* 'pausoka ibiltzen ahaztu zaio'. ◆ **ahaztuta ibili** [eduki] (> *aztuta ibili*). *Aztuta nukan* 'ahaztuta neukan'. *Etxukak aztuik!* Ez zeukak ahazturik'. *Nola zaizkizu? Aztuik dukat zu izena* 'ze izen duzu? ahazturik daukat zure izena'. *Eztuka aztuik* 'ez dauka ahazturik'. *Kaxeteruek ezteka ahaztuik* (Ond Bak). *Aztuik nukan. Ahaztuik nengon* (Ond Bak). – *Aztu zaitez horrekin. Aztu hadi kontu horrekin.* Ik. [zerbait] **(burutik) joanik eduki** (> *buruti fan*, *fanik eduki*). ▼ Anton. *akordatu*, *goguen ibili*.

ahi, ahia

AHI

papilla

papilla, gacha [generalmente hecha con harina y leche]

ahi (> *ai*) iz. *Esenia, ina ta azukariekin iten da aia* 'esnea, irina eta azukrearekin egiten da ahia'. *Gustua jaten genduen aia txikitan* 'gustora jaten genuen ahia txikitan'. ▲ Sin. *papilla*. Ik. **ora**.

ahizpa, ahizpia

AHIZPA

hermana [de otra hermana]

ahizpa (> *aizpa*) iz. *Gue aman aizpĭa, izko Anjeles* 'gure amaren ahizpa, izeko Anjeles'. Ik. **arreba; ahizpatako.**

ahizpatako, ahizpatakua

AHIZPATZAKO

hermanastra [respecto a otra mujer]; hermana por adopción [respecto a otra mujer]

ahizpatako (> *aizpatako*) iz. Ahizpatzakoa. *Aizpatako hartzen dana* 'ahizpatako hartzen dena'. *Aizpatako nukan* 'ahaizpatako neukan'. *Ospizioti aizpatako ekarri genduen* 'umezurztegitik ahizpatzako ekarri genuen'. Ik. **anaitako**.

ahul, ahula

AHUL

makal, pattal, mengal; erkin — *indartsu, gogor, fuerte, sendo*

débil, flojo, -a, endeble, sin fundamento

ahul (> *aul*) adj. *Aize aula* 'haize ahula'. *Argitasun aula* 'argitasun ahula'. *Langile aula* 'langile ahula'. *Hoi ahula!* 'hori ahula!'. Ik. **erkin**. *Hau yuzkien ahula dukaguna!* 'hau eguzkiaren ahula daukaguna!'. ▲ Sin. *makal*, *pattal*. ▼ Anton. *indartsu*, *gogor*, *fuerte*, *sendo*.

ahuldade, ahuldadia

AHULDADE

ahultasun

debilidad, flaqueza

ahuldade (> *auldade*) iz. *Auldadiekin ezin ezin ibilik no* 'ahuldadearekin ezin ibilirik nago'. Ik. **ahultasun**.

ahuldu, ahultzen

AHULDU

makaldu, mengaldu, pattaldu, falsotu — *indartu, gogortu, sendotu*

debilitar(se)

ahuldu (> *auldu*) *da/dau* ad. *Auldu djá orren indarrak* 'ahuldu dira horren indarrak'. *Indarripe ta aulduĭk nó* 'indarrik gabe eta ahuldurik nago'. ▲ Sin. *makaldu*, *mengaldu*, *pattaldu*; *falsotu*. ▼ Anton. *indartu*, *gogortu*, *sendotu*.

ahuleia
AHULERIA

ahultasun, ahuldade

debilidad, flaqueza, flojera, desfallecimiento [generalmente por no comer]

ahuleria (> *auleia*) iz. *Egun guztia jan be; au auleia dukatena!* 'egun guztia jan gabe; hau ahuleria daukadana!'. ▲ Sin. *ahultasun*, *ahuldade*, *bajon*.

ahultasun, ahultasuna
AHULTASUN

ahuldade, ahuleia

debilidad, flaqueza

ahultasun (> *aultasun*) iz. Indar, kemen edo bizkortasun urritasuna. ▲ Sin. *ahuldade*, *ahuleia*. Ik. **indargale**.

ahuntz samalda, ahuntz samaldia
AHUNTZ TALDE

ahuntz talde

ahuntz samalda (> *auntz samalda*). Ahuntz taldea. Ik. **ahuntz talde**.

ahuntz talde, ahuntz taldia
AHUNTZ TALDE

ahuntz samalda

ahuntz talde (> *auntz talde*). Ik. **ahuntz samalda**.

ahuntz, ahuntza
AHUNTZ

cabra (Capra aegagrus hircus)

ahuntz (> *auntz*) iz. (*Capra aegagrus hircus*). *Ahuntza ta akerra. Ahuntza jaitxi* 'ahuntza jetzi'. *Ahuntzan esenia* 'ahuntz esnea'. *Ahuntzan gaztaia* 'ahuntz gazta'. *Ahuntz narrua* 'ahuntz larrua'. ◆ **ahuntz samalda** (> *auntz samalda*). ◆ **ahuntz talde** (> *auntz talde*). ● Esr. zah. *Ez arditako ta ez auntzetako.* 'ez ardita(ra)ko, ez ahuntzeta(ra)ko' *Auntzan (gauerdiko) eztula* (?). *Auntzai burua ikuzi* (?). Ik. **aker**; **antxuma**.

ahuntzai, ahuntzaia
AHUNTZAIN

cabrero, -a, pastor de cabras

ahuntzain (> *auntzai*) iz. Ik. **altsai**.

ahuntzetxe, ahuntzetxia
AHUNTZETXE, AHUNZTEGI

corral de cabras

ahuntzetxe (> *auntzetxe*) iz. Ahunztegia. *Errienak izaten dia auntzetxiek*, ta bertan auntzak preso sartzen zian 'herriarenak izaten dira ahuntzetxeak eta bertan ahuntzak preso sartzen ziren'. *Urriztin dó Urdingo auntzetxe zarra; Astiarreko bidetik faten da auntzetxe berrĭá* 'Urriztin dago Urdiaingo ahuntzetxe zaharra; Astigarreko bidetik joaten da ahuntzetxe berrira'.

ahuspez
AHUSPEZ

buz bea; muturrez aurria

boca abajo; de bruces

aldiak ibili [eduki] (> *aldiek ibili*). Aldarteak, aldiak izan, gorabeherak eduki. *Denboriek-e aldiyek dukatzi* 'eguraldiak ere aldiak dauzka'. *Abuela guai ondo do, bea aldiek dukatzi* 'amona orain ondo dago, baina aldarteak ditu'.

aldien

ALDEAN

junto a; cerca de
en comparación con; al lado de

aldean (> *aldĩen*) **1** adb. (Izen soilaren eskuinean). Ondoan, inguruan. *Mendi aldĩen elurra deka* 'mendi aldean elurra dakar'. *Ibai aldĩen zaitzan* 'ibai aldean zebiltzan'. **2** adb. (-en atzizkiaren eskuinean, konparaziotan). Ik. **alde**[1]. *Leno aldĩen igualeko ondo do gwai* 'lehenago [lehen] aldean igualeko ondo dago orain'. *Ne aldĩen indarra duka orrek* 'nire aldean indarra dauka horrek'.

aldien (-en aldien)

ALDEAN (-EN ALDEAN)

en comparación con; al lado de

-en aldean (> *-en aldĩen*). *Atzokuen aldĩen* 'atzokoaren aldean' (konparazioa). *Horren aldĩen* 'horren aldean'. *Horren aldĩen, igualekua dok bestioi* 'horren aldean, igoalekoa duk beste hori'. Ik. **parean** (> *parĩen*).

aldien behin

ALDIAN BEHIN

noizien behin, aldien-aldien, tartekan

de vez en cuando

aldian behin (> *aldien beĩn*) adb. *Aldien beĩn argia faten da* 'aldian behin argia joaten da'. || Áldién béhin (Ond Bak). *Aldien beĩn ikusten ga* 'aldian behin ikusten dugu elkar'. ▲ Sin. *noizien behin, aldien-aldien, tarteka(n)*.

aldien-aldien

ALDIAN-ALDIAN

aldien behin, noizien behin, tartekan

de vez en cuando

aldian-aldian (> *aldien-aldien*) adb. *Aldien-aldien gaubinaran bat agertzen da* 'aldian-aldian gauenararen bat agertzen da'. ▲ Sin. *aldien behin, noizien behin, tartekan*.

aldiezkan

ALDIZKA

txandakan (?)

alternativamente, por turnos

aldiezkan (> *aldizkan*) adb. Aldizka. *Aldiezkan ibiltzen dĭa haurra kaso iten* 'aldizka ibiltzen / aritzen dira haurra kasu egiten / zaintzen'. Ik. **aldikan**; **txandakan**.

aldikan

ALDIKA

txandakan

por turnos; alternativamente

aldikan adb. Aldika. *Mutxikan gendaitzala, aldikan* 'mutxika [jolasean] genbiltzala, aldika [aldia, txanda egokitu]'. Ik. **aldiezkan**; **txandakan**.

aldio

ALDIRO

beti

siempre, en todo momento, todo el tiempo

aldiro (> *aldio*) adb. *Aldio esaten dwa gauza bea* 'aldiro esaten dit gauza bera'. Ik. **beti**. ◆ **aldiro-aldiro** (> *aldio-aldio*). ◆ **aldiroko*** (?) (> *aldioko*) adb. Aldiko, aldi bakoitzeko. *Aldioko egur paxua ekartzen dau basoti* 'aldiko egur sorta ekartzen du basotik'.

aldioko

ALDIKO

aldiroko (> *aldioko*) adb. Aldiko. Aldi bakoitzeko. *Aldioko egur paxua ekartzen dau basoti* 'aldiko egur sorta ekartzen du basotik'.

aldiz

ALDIZ (3)

vez (-es), ocasión (-es)
vez (-es)

aldiz **1** (Zenbatzaile baten eskuinean; *bat* zenbatzailearekin ez da erabiltzen). *Mila aldiz esan dezut!* 'mila aldiz esan dizut!'. **2** (Biderkatzaile edo zatitzaile gisa). *Bost aldiz aundio da* 'bost aldiz handiagoa da'.

aldizkan

ALDIZKA

alternativamente, por turnos
de vez en cuando

ale, alia (1)

ALE

bikor

grano

ale[1] iz. *Alĭa ta bikorra diferenziatu iten dĭa: haundiokua, lemizkwa; txikio, bigarrena* 'alea eta bikorra bereizti egiten dira: handiagoa, lehenbizikoa; txikiago, bigarrena'. – gaztin ale, babatxui ale / bikor. – maiz bikor, gari bikor. – ale larria. – ale txea. Ik. **bikor**.

ale, alia (2)

MINBIZI [ALA (?)]

minbizi

cáncer

ale[2] / **ala** iz. [*ala*, *alĭa* (?)] Minbizia. G.g.er. Ik. **minbizi**.

alegranzia
ALEGRANTZIA

alaitasun, poz — *pena, tristetasun, tristura*

alegría, felicidad

alegrantzia (> *alegranzia*) iz. Ald. alegrentzia (Iza Alts). *Badukat alegranzia bat!* 'badaukat alegrantzia bat'. *Primaberiek badeka, sikia, alegranzia* 'udaberriak badakar, sikiera, alegrantzia'. ▲ Sin. *alaitasun*, *poz*. ▼ Anton. *pena*, *tristetasun*, *tristura*.

alegratu, alegratzen
ALEGERATU, POZTU

poztu, alaitu — *tristetu*

alegrar(se)

alegratu da/dau ad. Alegeratu, poztu. Ald. alegeatu (Iza Alts). ▲ Sin. *poztu*, *alaitu*. ▼ Anton. *tristetu*.

alegre, alegria
ALEGRE, ALEGERA

alai (?), alegere, kontentu, pozik

alegre; risueño -a; divertido -a

alegremente, animadamente

alegre Ald. *alegere* (Iza Alts). **1** adj. Alegera, alaia. *Alegrĭá da izatez* 'alegera da izatez'. **2** adb. *Gutxikin bea alegre bizi gindan* 'gutxirekin baina alegera bizi ginen. ▲ Sin. *kontentu*, *alai* (?), *pozik*. ▼ Anton. *triste*.

alegrentzia
ALEGRANTZIA

alaitasun, poz, poztasun — *tristetasun, tristura*

alegría, felicidad

alegrentzia iz. (Iza Alts). Alegrantzia. Ik. **alegrantzia**. ▲ Sin. *alaitasun*, *poz*, *poztasun*. ▼ Anton. *tristetasun*, *tristura*.

aleluia
ALELUIA

aleluya

aleluia interj.

aleman, alemana
ALEMAN

alemán, -ana

aleman 1 adj./iz. Alemaniakoa. 2 iz. Germaniar hizkuntza.

alergia
ALERGIA

alergia

alergia iz. ◆ **alergia egin** (> *alergĭa in*). *Alergia in dua janak* 'alergia egin dit janak'. *Gaien parte, jan txarrak iten dai alergia* 'gehien partez, jan txarrek egiten dute alergia'.

alerta
ALERTA

zain

alerta

alerta iz. *Elurte aundia botako delako, alertĭa eman dai* 'elurte handia botako duelako, alerta eman dute'. ◆ **alerta egon** (> *alerta yon*). *Yon hadi alerta* 'egon hadi alerta'. Ik. **zain egon** (> *zain yon*).

alertze, alertzia

ALERTZE

alerce, lárice (Larix sp.)

alertze (> *alerze*) iz. (Bot.) (Larix sp.). *Alerzĭek ostwa galtzen dau negwako* 'alertzeak hostoa galtzen du negurako'. Ik. **pinu**.

alfafa, alfafia

ALPAPA

alfalfa, mielga (Medicago sativa)

alfafa iz. (Bot.) Alpapa. Ald. *alfajia* (*alfajĭá*).

alfajia

ALPAPA

alfalfa, mielga (Medicago sativa)

alfer autzi

LUGORRI UTZI

dejar en barbecho

alfer autzi. Lurra alfer autzi, erein gabe, lugorri. *Lur alferrak urrengo urtien gaio ematen dau* 'lur alferrak hurrengo urtean gehiago ematen du'. Ik. **lur alfer**.

alfer-alferrik

ALFER-ALFERRIK

alfer-alferrik adb. alferrik-en indargarria.

alfer, alferra

ALFER

vago, -a, holgazán, -ana, haragán, -ana
inútil, vano, -a

alfer 1 adj./iz. ◆ **alfer maina**. *Hor jek jarrita, alfer mainan*. ◆ **alfer huts**. ◆ **alfer zar**. ◆ **alfer autzi**. Lurra alfer utzi, erein gabe, lugorri. *Lur alferrak urrengo urtĭen gaio ematen dau* 'lur alferrak hurrengo urtean gehiago ematen du'. Ik. **lur alfer**.

alfergura

ALFERGURA

alferkeia

pereza, vagancia

alfergura iz. (Iza Alts). Ik. **alferkeria**. {Deseoso de tratar (casarse, etc.) con una persona vaga. "*—Esan tzak ba ona naizela. —Ona izen baitz etxeako izein yitzan—. Ezan egosi iyork [anra]: txargure iyor ezta izeten, alfergura*" Iz Als (s.v. gizon)}.

alferkei, alferkeia

ALFERKERIA

alferreia, alfergura; nagikeia, pereza

vagancia, holgazanería, pereza

alferkeria (> *alferkeia*) iz. Ald. alferreria (> *alferreia*). ▲ Sin. *alfergura*, *alferreia*. Ik. **nagikeria** (> *nagikeia*); **pereza**. ¬

alferlan, alferlana

ALFERLAN

trabajo inútil, trabajo en balde

alferlan iz. Alferreko lana. • Esr. zah. *Auzalana, alferlana* 'auzolana, alferlana'.

alferrei, alferreia

ALFERRERIA, ALFERKERIA

vagancia, holgazanería, pereza

alferreria (> *alferreia*, *alferrei*) iz. Ik. **alferkeria** (> *alferkeia*). ◆ **alferrerian** (> *alferreien*) adb. Alferkerian, ezer egin gabe, lanik egin gabe (gaitzesgarritzat hartua).

alferrik

ALFERRIK

malamente; enbalde

inútilmente, en vano

alferrik adb. *Alferrik dail* 'alferrik dabil'. ▲ Sin. *malamente*, *enbalde*. ◆ **alfer-alferrik** adb. alferrik-en indargarria. – alferrik galdu. – alferrik yon. ◆ **alferrik izan**. *Alferrik don hasarratzia, ezton ezere ibaziko ta* 'alferrik dun haserretzea, ez dun ezer ere irabaziko eta'. ◆ **alferrik etorri, fan, in, ibili** (...). ◆ **alferrik egon*** (> *alferrik yon*). *Alferrik ago espĭa* 'alferrik hago esperoan'. ◆ **alferrik galdu**. *Dĭan bizi modu orrekin, osasuna alferik galtzen dail(e)* 'daraman bizi modu horrekin, osasuna alferrik galtzen dabil'.

alferrik galdu

ALFERRIK GALDU

echar a perder, estropear, deteriorar
desperdiciar, malgastar

alferrik galdu. *Dĭan bizi modu orrekin, osasuna alferik galtzen dail(e)* 'daraman bizi modu horrekin, osasuna alferrik galtzen dabil'.

alferrik izan

ALFERRIK IZAN

ser inútil/vano, ser en balde

alferrik izan. *Alferrik don hasarratzia, ezton ezere ibaziko ta* 'alferrik dun haserretzea, ez dun ezer ere irabaziko eta'.

alferrik yon

ALFERRIK EGON

estar ocioso, -a, estar sin hacer nada

alferrik egon* (> *alferrik yon*). *Alferrik ago espĭa* 'alferrik hago esperoan'.

alferrikako, alferrikakua

ALFERRIKAKO

inútil, vano, -a

alferrikako adj. *Alferrikako gauzĭa* 'alferrikako gauza'.

alferrontzi, alferrontzia

ALFERRONTZI

muy vago, -a

alferrontzi adj. *Adkor*. Alfer handia, oso alferra.

alfertu, alfertzen

ALFERTU

volver(se) vago, -a

alfertu *da* ad. *Leno intzailĭa zana, raso alfertu zaigu* 'lehen egintzailea zena, arras alfertu zaigu'. ◆ **alferturik** (> *alfertuĭk*) adb. *Alfertuĭk no; eztukat ezertxo're iteko gogoik* 'alferturik nago; ez daukat ezertxo ere egiteko gogorik'.

alferzar, alferzarra

ALFERTZAR

holgazán, -ana

alfertzar (> *alferzar*) adj./iz. *Lanai beti iesi, alferzar horrek* 'lanari beti ihesi, alfetzar horrek'.

alfonbra, alfonbria

ALFONBRA

alfombra

alfonbra iz. *Zakarra da, gio, alfonbrĭoi* 'zakarra da, gero, alfonbra hori'.

algara (?)

ALGARA (?)

algara (?). Ik. **yausi**.

algodon, algodona

ALGODOI, KOTOI

algodón

algodon iz. Kotoia. *Naio dot, askoz'e, algodona sintetikua baindo* 'nahiago dut, askoz ere, kotoia sintetikoa baino'. ◆ **algodonezko**. Kotoizkoa. *Algodonezko pantalonak yosten tut* 'kotoizko prakak erosten ditut'.

alibio, alibiua

ARINTZE, ARINDU; LASAITU, LASAITASUN

lasaitasun, konsuelo

alivio

alibio iz. Arintzea, arindua; lasaitua, lasaitasuna. *Gwai, binapin, alibio pixkat baduka* 'orain, behinik behin, alibio pixka bat badauka'. *Yauria ta yauria, alibioik eztau ematen denborĭek* 'euria eta euria, alibiorik ez du ematen denborak [eguraldiak]'. Ik. **lasaitasun**; **konsuelo**.

aliketa, aliketia / aliketak

ALIKETA

alicates

aliketa (> *alikete*)* iz. (pl) *Aliketak. Gauzak konpontzeko aliketak ber dĭa preziso* 'gauzak konpontzeko aliketak behar dira nahi eta nahi ez'.

alikete, aliketia

ALIKETA

alicates

alimentatu, alimentatzen

ELIKATU, JATERA EMAN

jatea eman

alimentar(se), sustentar(se), mantener(se)

alimentatu da/dau ad. Elikatu. Ik. **jatera eman** (> *jatea eman*).

alimentu, alimentua

ALIMENTU

jan, janai, jateko, jaki

alimento

alimentu iz. ◆ **alimentua ibili** [eduki]. *Alimentu aundia duká oraitzak* 'alimentu handia dauka oritzak'. Ik. **jan**, **janai**, **jateko**, **jaki**.

alkahuete, alkahuetia

NONZERBERRI, AUTUBATZAILE; KONTAKATILU

alcahuete, -a

alkahuete (> *alkabwete*) adj. Nonzerberria, kontakatilua.

alkahueteia

ESAMESA

hitzontzikeia

alcahuetería

alkahueteria (> *alkaweteia*, *alkaboteia*) iz. Ik. **hitzontzikeria**. *Beste itekoik eztuka: alkaboteien ematen dau yun guztĭa* 'beste egitekorik ez dauka: alkahueterian ematen du egun guztia'.

alkakats errosa, alkakats errosia

ASTOARROSA, SASIARROSA

rosal silvestre

alkakats errosa iz. (Bot.) Arkakaratsaren arrosa lorea, astoarrosa, sasiarrosa (*Rosa canina*). *Usai gozwa izaten dau alkakats errosĭek* 'usain gozoa izaten du arkakarats arrosak'.

alkakats, alkakatsa

ARKAKARATS

rosal silvestre, escaramujo

alkakats iz. (Bot.) Arkakaratsa, astoarrosa, sasiarrosa (*Rosa sp.*). ◆ **alkakats errosa** iz. (Bot.) Arkakaratsaren lorea (*Rosa canina*). *Usai gozwa izaten dau alkakats errosĭek* 'usain gozoa izaten du arkakarats arrosak'.

alkandora, alkandoria

ALKANDORA

atorra

camisa

alkandora* iz. G.g.er. *Gizakiek jazten zain blusa modukuek, milrayas arrastodunak, zian alkandorak* 'gizakiek janzten zuten blusa modukoak, mila-arraiazkoak, ziren alkandorak' (LM). Ik. **atorra**.

alkandoza, alkandozia

UR HODI

arcaduz, alcaduz

alkandoza iz. G.g.er. Zeramikazko ur hodia.
[Alcandoz. Zanja o canal, generalmente cubierta, por donde se conducen las aguas para regar y para otros usos. Alcaoduzar. Construir alcanduz o llevar por (Ikus 'Vocabulario arnedano')].
[DLE: arcaduz. (De alcaduz)].

alkar

ELKAR

mutuamente, uno y otro, uno a otro; se

alkar izord. Elkar. *Alkarren ondwen yoten ga eskolan* 'elkarren ondoan egoten gara eskolan'. *Alkarren onduen bizitzen, ta ez ikusten* 'elkarren ondoan bizitzen, ta (elkar) ez ikusten'. *Bi pezta alkarren gainien ez juntatu* 'bi pezeta elkarren gainean ez juntatu [dirurik egin ez duenagatik]. ◆ **alkar aditu** (> *alkar aitu*) *dau* ad. Adostu, ados jarri; elkar hartu; bat etorri. *Ezin alkar aitu* 'ezin elkar aditu, ezin elkarrekin adostu'. *Alkar aitu du nwa fan* 'elkar aditu [adostu] dugu nora joan'. *Alkar aitu dai lanak nola banatu, ta ondo moldatu dĭa* 'elkar aditu dute lanak nola banatu, eta ondo moldatu dira'. | *Gwartu naun, bai; oiek biek alkar aitwik jen ne kontra, ta asmo txarrak jukatzinai* 'ohartu naun, bai; horiek biak elkar aditurik zauden nire kontra, eta asmo txarrak zauzkaten'. ◆ **alkarrekin ondo / gaizki izan / etorri**. ◆ **alkar etorri** (Ond Bak). ◆ **alkarrekin ibili**. *Alkarrekin daitza bi neskixak* 'elkarrein dabiltza bi neskatxak [bikote moduan]'. *Alkarrekin daitza eskolan* 'elkarrekin dabiltza eskolan' Ik. **batean**; **batera**. ◆ **alkar nazikusi(a)**. ◆ **alkar jo**. Talka egin. *Alkar jo dĭa* 'elkar jo dira [dute]'. ◆ **alkarren modukoak izan** (> *alkarren modukwek izan*).

alkar aitu

ELKAR ADITU

entenderse, avenirse, ponerse de acuerdo; aliarse; compincharse

alkar aditu (> *alkar aitu*) *dau* ad. Adostu, ados jarri; elkar hartu; bat etorri. *Ezin alkar aitu* 'ezin elkar aditu, ezin elkarrekin adostu'. *Alkar aitu du nwa fan* 'elkar aditu [adostu] dugu nora joan'. *Alkar aitu dai lanak nola banatu, ta ondo moldatu dĭa* 'elkar aditu dute lanak nola banatu, eta ondo moldatu dira'. | *Gwartu naun, bai; oiek biek alkar aitwik jen ne kontra, ta asmo txarrak jukatzinai* 'ohartu naun, bai; horiek biak elkar aditurik zauden nire kontra, eta asmo txarrak zauzkaten'.

alkar ume (?) ERMANDADE

ermandade

hermandad

alkar-ume*. *Alkar-ume testamentua* 'ermandadeko testamentua' (testamento de hermandad). *Erenzia alkar ume in du* 'herentzia alkar-ume egin dugu' (LM). [Ermandadeko edo senitarteko testamentua: bi pertsonak edo gehiagok agiri bakarrean egiten duten testamentua]. Ik. **ermandade**.

alkartasun, alkartasuna ELKARTASUN

unio

solidaridad, unión

alkartasun iz. Elkartasuna. *Alkartasuna da alkarrekin ibiltzia, uniua; alkarrekin unitzia*. 'elkartasuna da elkarrekin ibiltzea, unioa [batasuna]; elkarrekin unitzea [elkarrekin ondo konpontzea]'. Ik. **unio**.

alkartatu, alkartatzen ELKARTU

alkartu, bildu, unitu *apartatu; separatu*

juntarse, reunirse, encontrarse

alkartatu *da/dau* ad. Elkartu. Ik. **alkartu**. ▲ Sin. *bildu*, *unitu*. ▼ Anton. *apartatu*, *separatu*.

alkartezin (?) ELKARREZIN, ELKARTU EZIN

inconciliable, incompatible

alkartezin (?) *Alkartu ezin*.

alkartu, alkartzen ELKARTU

unitu

juntarse, reunirse, encontrarse

asociarse

entenderse, llevarse bien, congeniar

alkartu *da/dau* ad. Ald. *alkartatu*. Ik. **unitu**.

alkate, alkatia ALKATE

alcalde, alcaldesa

alkate iz. *Alkatĭek dantzatu dau zortzikwa* 'alkateak dantzatu du zortzikoa'.

alkaze (?), alkazia AKAZIA

acacia (Acacia sp.)

alkaze* (?) iz. (Bot.) Akazia (Acacia sp.).

alki, alkia AULKI

sila; banketa; banku

silla; banco; asiento

alki iz. Aulkia. *Bai alkia ta bai maia, biek maki dukatzit* 'bai aulkia eta bai mahaia, biak maki [herren] dauzkat'. Ik. **sila**; **banketa**; **banku**.

alkilatu, alkilatzen ALOKATU

errentan hartu / errentan eman

arrendar, alquilar; tomar en arrendamiento

arrendar, alquilar; dar en arrendamiento

alkilatu *dau* ad. Aldaera berria. Ik. **errentan hartu**; **errentan eman**.

alkiler, alkilerra

ERRENTA

errenta

alquiler

alkiler iz. Ik. **errenta**. ◆ **alkilerrean** (> *alkilerrĭen*) adb. Errentan.

alkoba, alkobia

LOGELA

logela, gela

alcoba, dormitorio

alkoba iz. G.g.er. Logela. *Alkobĭa txiki bat duka sukalde ondwen* 'alkoba txiki bat dauka sukalde ondoan'. Ik. **logela**, **gela**.

alkol, alkola

ALKOHOL

alcohol

alkohol (> *alkol*) iz. *Alkol gutxiko ardo ozpindua ata dai yateko* 'alkohol gutxiko ardo ozpindua atera dute edateko'. *Galazita dukai alkola yatĭa* 'galarazita daukate alkohola edatea'.

almazen, almazena

BILTEGI, ALMAZEN

almacén

almazen iz. Biltegia. *Premiazko gauzak almazenĭen biltzen tu* 'premiazko gauzak alamazenean biltzen ditugu / ditu'. *Benta ondwen zukain almazena* 'benta ondoan zuten almazena'.

almazenero, almazenerua

BILTEGIZAIN

almazenero iz. Biltegizaina. *Gwe elkarteko almazenerwa txintxu-txintxu daile kontuek iten* 'gure elkarteko almazeneroa txintxo-txintxo dabil kontuak egiten'.

almeja, almejia

ALMEJA, TXIRLA

almeja

almeja iz. Txirla. *Almejak salsa berdĭen patuko tu bazkaitako* 'almejak saltsa berdean paratuko ditugu bazkaritarako'.

almendra, almendria

ALMENDRA

almendra

almendra iz. *Nabarrako mapĭa beira yon naiz, almendrĭa nun ematen dan ikusten* 'Nabarrako mapa begira egon naiz, almendra non ematen den ikusten'. ◆ **almendra-garrapiñada** (> *almendra-garrapiñadĭa*). *Garai batĭen estimazio aundia zukan almendra-garrapiñadĭek* 'garai batean estimazio handia zeukan almendra garrapiñatuak'.

almeniz, almeniza

ALMAIZ, MOTRAILU

almirez, mortero

almeniz iz. Almaiza, motrailua, zaparria; hainbat gai xehatzeko erabiltzen den ontzi sendoa. *Almeniza, babatxwiek-eta matxakatzekwa, txikitzekwa* 'almaiza, baratxuriak-eta matxakatzekoa [xehatzekoa], txikitzekoa'. *Adobwa iteko, almenizĭen txikitzen dĭa babatxuiek* 'adoboa egiteko, almaizan txikitzen dira baratxuriak'.

almiente, alminte

ALMIRANTE[2], AGUAZIL, HERRIZAIN

aguazil

alguacil

almirante[2] (> *almiente*, *alminte*) iz. (Ond Bak). ▲ Sin. *aguazil*.

almute erdi, almute erdia

ALMUTE ERDI

medio almud

almute erdi. Ald. amuterdi (Ond Bak). [almute: ale edukiera-neurria, ia bi litro eta erdiren baliokidea; neurri horretan sartzen den ale kopurua; neurri hori harzen duen ontzia].

almute, almutia

ALMUTE

almud; medida de capacidad para áridos; 1,75 l en Navarra

almute iz. Ale edukiera-neurria, ia bi litro eta erdiren baliokidea; neurri horretan sartzen den ale kopurua; neurri hori harzen duen ontzia. Ald. *amuta* (Ond Bak). *almute*, *almutĭa* [Urdiain]. Ik. **txirlo**. ◆ **almute erdi**. Ald. amuterdi (Ond Bak). ◆ **almutea jo** (> *almutĭa jo*). Pozoitu; intoxikazioagatik-edo sortzen den ondoez larria. *Ziza txarrak janda, almutĭa jo dau* 'ziza txarrak janda, almutea jo du'. Ik. **ointto-mointto**.
{ALMUD. Medida tradicional de capacidad para áridos, usada en Navarra desde la Edad Media. Era quivalente a 1/4 de cuartal*, 1/16 de robo* ó 1/64 de cahíz*. Reducido a medidas actuales supone 1,7581 litros, en los que caben 1.375 Kg de trigo, 1.125 Kg. de cebada ó 1 Kg. de avena. (Gran Enciclopedia de Navarra)}.

almutia jo

ONDOEZ, ALDITXAR [INTOXIKAZIOAGATIK]

indisposición, malestar [por intoxicación]

almutea jo (> *almutĭa jo*). Intoxikazioagatik-edo sortzen den ondoez larria. *Ziza txarrak janda, almutĭa jo dau* 'ziza txarrak janda, almutea jo du'. Ik. **ointto-mointto**. [Oharra. almute: Ale edukiera-neurria; neurri hori hartzen duen ontzia].

alojamentu, alojamentua

OSTATALEKU, OSTATU, ALOIMENDU

ostatu

alojamiento, aposento

alojamentu iz. Ik. **ostatu**.

alojatu, alojatzen

OSTATATU

alojar(se)

alojatu **1** *da* ad. Ostatu hartu. **2** *dau* ad. Ostatu eman. **3** *da/dau* ad. Kokatu. – alojatu jitu gauzak etxe batetik bestia (?)

alondai, alondaia

ALONDEGI, ARDANDEGI

alhóndiga

alondegi (> *alondai*) iz. *Festatan, alondaien inguen banatzen da ardwa* 'festetan, alondegiaren inguruan banatzen da ardoa'.

alparneka, alparnekia

GALANPERNA

galamperna, cistoderma (Cystoderma sp.); lepiota (Lepiota sp.)
persona insustancial, sin fundamento

alparneka (eta *aparneka* [Bakaiku]) **1** iz. Galanperna. Sulsoa [perretxikoa] (Cystoderma sp.; Lepiota sp.); (Macrolepiota procera). **2** adj./iz. [Ziordia] Ganorabako pertsona.

alparzero, alparzerua (?)

PARTZUER (?)

aparcero, ra

alparzero* iz. Partzuer. *Apopilo, alparzero yonik* (?)(AG). [aparcero, ra].

alpertxiku, alpertxikua
ALBERTXIKO, ABRIKOT

albaricoque, albérchigo

alpiste, alpistia
ALPISTE

alpiste (Phalaris canariensis)

alpiste iz. (Bot.) (Multzokari gisa) Txoriak elikatzeko erabiltzen diren haziak (Phalaris canariensis).

alpitz, alpitza [?]
ALBITZ

lastón (?)

alpitz iz. (Bot.) Albitza, belar mota bat (LM). (Brachypodium pinnatum) (?). ◆ **alpitz belar** (> *alpitz bear*, *alpitz biar*). Albitz belarra.

alrebes, alrebesa
ALDREBES

aldeontzi, atzekoz aurrea — *aldegun*

del revés, al revés; de mala manera, inadecuadamente; inversamente
[pertsonei buruz] torpe, desastre, poco hábil; [gauzei buruz] complicado, -a, enrevesado, -a

alrebes / **aldrebes*** **1** adj. Persona aldrebesa. *Hau da jendĭen alrebesa!* 'hau da jendearen aldrebesa'. **2** adb. Okerreko aldera. Alrebes in; alrebes patu; alrebes sartu. **3** adb. Alderantziz. Aldrebes jantzita diazu atorrĭa. Ik. atzekoz aurrera (> atzekoz aurrĭa) 4 iz. Alderantzia. ▲ Sin. *aldeontzi*. ▼ Anton. *aldegun*.

alrebes, alrebesa / aldrebes, aldrebesa
ALDREBES

aldeontzi, atzekoz aurrea — *aldegun*

del revés, al revés; de mala manera, inadecuadamente; inversamente
[pertsonei buruz] torpe, desastre, poco hábil; [gauzei buruz] complicado, -a, enrevesado, -a

alrebes **1** adj. Aldrebesa. Persona aldrebesa. *Hau da jendĭen alrebesa!* 'hau da jendearen aldrebesa'. **2** adb. Aldrebes, okerreko aldera. *Alrebes in*; *alrebes patu*; *alrebes sartu*. **3** adb. Alderantziz. *Alrebes jantzita diazu atorrĭa* 'aldrebes jantzita daramazu atorra'. Ik. **atzekoz aurrera** (> *atzekoz aurrĭa*) **4** iz. Alderantzia. ▲ Sin. *aldeontzi*. ▼ Anton. *aldegun*.

alrebeskeia
ALDREBESKERIA

baldarkeia

sinsentido, desatino, inconveniencia, equivocación, disparate, despropósito; chapucería

alrebeskeria* (> *alrebeskeia*) / **aldrebeskeria** (> *aldrebeskeia*) iz. *Alrebeskeia galanta in dau* 'aldrebeskeria galanta egin du'. [*Geizki eginia* 'gaizki egina']. ▲ Sin. *baldarkeia*.

altatu, altatzen
GORATU, JASO

guatu, jaso

levantar, alzar, elevar

altatu *dau* ad. Goratu, jaso. *Paretĭa altatu* 'pareta jaso'. ▲ Sin. *guatu*, *jaso*.

alteratu, alteratzen
ASALDATU; AZTORATU

alterar(se); turbar(se), perturbar(se)

alteratu *da/dau* ad. Asaldatu, aztoratu; norbait bere onetik atera. Ik. **nahastu**; **mogitu**.

alto
ALTO

geldik; kieto

¡alto!

alto interj. ◆ **alto bota**. Alto eman. Ik. **geldi(rik)**; **kieto**.

altsai, altsaia
ABELTZAIN

pastor, -a; ganadero, -a; persona que guarda, guía y apacienta el ganado

altsai iz. Ganadu zaina (Ond Bak). *Altsaiek: bestendako, askondako lan iten dainak. Badia "ahuntzaiek", "behizaiek", "txertxaiek".*

Altsu
ALTSASU

Alsasua

Altsu iz. Altsasu. *Altswá fan da, zinĭa ikustĭa* 'Altsasura joan da zinea ikustera'. • *Altsuko aurra, ñar da barre; titia yan da isildu* 'Altsuko haurra, negar eta barre; titia edan eta isildu'. [Urdiainen, haur negartiari burlaz kantatzen zitzaiona; gehienetan beste haurrek].

altsuar
ALTSASUAR

alsasuarra; natural de Alsasua
perteneciente o relativo a Alsasua o a los / las alsasuarras

altsuar adj./iz. Altsasuarra. **1** adj. Altsasukoa, Altsasuri dagokiona. **2** iz. Altsasuko herritarra.

altu, altua
ALTU

luze — *baju*

alto, -a
alto, -a, elevado, -a, gran

altu adj. *Bi emakume altu*. ▲ Sin. *luze*. ▼ Anton. *baju*. ◆ burua altu. ◆ **altu egon** (> *altu yon*). *Musikĭa altu jon* 'musika altu zagon'.

altuera, altueria
ALTUERA

altura

altuera iz. *Altuera aundia artu dau esiek* 'altuera handia hartu du hesiak'.

altura, alturia
ALTUERA

altura

altura iz. Ik. **altuera**.

altxatu, altxatzen
ALTXATU

jaso, goatu, aupatu

levantar(se), incorporar(se), alzar(se)

altxatu *da/dau* ad. *Altxatu lurreti aurroi* 'altxa(tu) lurretik haur hori'. ▲ Sin. *jaso*, *goatu*, *aupatu*.

altxerri, altxerria
ALTXIRRI

ongarri

estiércol de ganado lanar; excremento de oveja

altxerri iz. Altxirria, ardien ongarri zaharra. Ik. **ongarri**.

alu, alua
ALU

potorro, ipurdi

vulva
calificativo despectivo (canalla; estúpido, -a; tonto, -a)

alu **1** iz. Ik. **potorro**; **ipurdi**. **2** adj./iz. Irain hitz gisa.

aluminio, aluminiua
ALUMINIO

aluminio

aluminio iz. *Aluminiozko giltzak belaxe austen zaizkĭa* 'aluminiozko giltzak berehalaxe hausten zaizkit'.

ama
AMA

madre

ama iz. Ama etor da. Ne aman ama. Nere aman aitajunan aitak esania (Ond Bak). Gue ama 'gure ama'. Nearrontzia, korrikan amangana 'negarrontzia, korrika amarengana'. – **amatxo**. – **amazale**, amazalia. – **amazulo**.

ama ointo txar, ama ointo txarra
KULETO FALTSU

falsa oronja (Amanita muscaria)

ama ointo txar iz. (Mikol.) Kuleto faltsua (Amanita muscaria, Amanita verna).

ama ointo, ama ointua
KULETO, ARRAUTZA PERRETXIKO

ointo gorringo

oronja, yema del huevo (Amanita caesarea)

ama ointo (> *amointwa*) iz. (Mikol.) Kuletoa, arrautza perretxikoa (Amanita caesarea). ▲ Sin. *ointo gorringo*. Ik. **sultso gorri**.

amabirjina, amabirjinia
AMA BIRJINA

andramaria

Virgen María, Nuestra Señora

amabirjina (> *amaberjina*) iz. (Erl.) Ald. Ama Berjinia. Ama Berjinia Abuztukua, Andra Mai Abuztukua. || Amabirjina bezperan. Amabirjina egunien. Amabirjina biamunien (Ond Bak). ▲ Sin. *andramaria*.

amagiar, amagiarra
AMAGINARREBA

suegra, madre política

amagiar iz. Amaginarreba.

amagiarreba
AMAGINARREBA

suegra, madre política

amagiarreba iz. Amaginarreba. Ik. **amagiar**.

aman alderdiko, aman alderdikua
AMALDEKO

materno, -a
parecido, -a a la madre

amaren alderdiko (> *aman alderdiko*) **1** adj. Amaldekoa. *Aman alderdikwek etorri dĭa mezá* 'amaren aldekoak etorri dira mezara'. **2** Aamaren antza duenagatik. *Aman alderdikwen antza duka* 'amaren aldekoen antza dauka'.

amandre, amandria
AMANDRE

amona, abuela

abuela

amandre iz. Amona. *Gué amandriai perlesiek jo zian* 'gure amandreari perlesiak jo zion' (Ond Bak). ▲ Sin. *amona*, *abuela*.

amaordeko, amaordekua AMAORDEKO
unide
nodriza; madrastra

amaordeko iz. Amaordea. Ik. **unide**.

amapuntako, amapuntakua AMA PONTEKO, AMA BESOETAKO
madrina (del bautismo)

amapuntako iz. Ama pontekoa.

amarratz ARMIARMA
imirrimau (eta irrimau) [Urdiain]; mirrimarrau
araña

amarratz [Olatzagutia, Ziordia] iz. (Zool.) Armiarma. Ik. **imirrimau**.

amatxo AMATXO
mamá

amatxo iz. *Adkor*. Ama, bereziki haur hizkeran (mugagabean deklinatzen da).

amazale, amazalia AMAZULO
amazulo
enmadrado, -a, muy apegado, -a a la madre

amazale adj. Amazuloa. ▲ Sin. *amazulo*.

amazulo AMAZULO
amazale
enmadrado, -a, muy apegado, -a a la madre

amazulo adj. Haurrengatik hitz eginez, beti amarekin egon nahi duena. ▲ Sin. *amazale*.

amegun, ameguna AMARAUN, ARMIARMA-SARE
imirrimau sara
telaraña

amegun iz. Amarauna. Ald. *amaun* (Iza Alts); *amon* (Ond Bak). ▲ Sin. *imirrimau sara*.

ameikano, ameikanua AMERIKANO
americano, -a
indiano, -a

amerikano (> *ameikano*, *amaikano*) **1** adj./iz. Amerikarra. **2** adj./iz. Euskal Herritik Ameriketara joana.

amen AMEN
amén

amen iz. (Erl.) Kristau otoitzen amaierako hitza. ◆ **amen esan**. *Garai txarrak zian; danai amen-amen esan ber zendian* 'garai txarrak ziren, guztiari amen-amen esan behar zenion'.

amenaza, amenazia MEHATXU, AMENAZU
amenaza, desafío

amenaza iz. Mehatxua.

amenazatu, amenazatzen

MEHATXATU, AMENAZATU

amenazar, conminar

amenazatu *dau* ad. Mehatxatu.

amenazuka

MEHATXUKA

amenazando, haciendo o diciendo amenazas

amenazuka* adb. Mehatxuka. (?) (amenazakan*; amenazatzen).

Amerika(k)

AMERIKA

América (pl.)

Amerika(k) iz. (pl.) *Urdindik Ameiketá jende asko yoten zaken fanik* 'Urdiaindik Ameriketara jende asko egoten zuan joanik'. ◆ **Ameriketak egin** (> *ameiketak in / itĭa*). *Jende asko fan zaken Ameiketak itĭa* 'jende asko joan zuan Ameriketak egitera'.

ameskeia

AMESKERIA

quimera, fantasía, sueño, falsa ilusión

ameskeria (> *ameskeia*) iz.

ameslai, ameslaia

AMESLARI

soñador, -a

ameslari (> *ameslai*) adj./iz.

ametitu, ametitzen

ONARTU, AMETITU

admitir, aceptar, permitir

ametitu *dau* ad. Onartu. *Ametitu zuain etxiortan* 'ametitu zidaten [ninduten] etxe hortan'. *Oi ezta ametitzen* 'hori ez da ametitzen'.

amets gaizto, amets gaiztua

AMESGAIZTO

amets txar, lozorro

pesadilla

amets gaizto. Amesgaiztoa.

amets txar, amets txarra

AMETS TXAR

amets gaizto, lozorro

pesadilla

amets txar. Amesgaizto. ▲ Sin. amets gaizto. Ik. **lozorro**.

amets, ametsa

AMETS

sueño
quimera, sueño, fantasía
intención, propósito

amets **1** iz. *Nola iten ote dĭa amets klase oiek?* 'nola egiten ote dira amets klase horiek?'. **2** iz. Nahia; asmoa. *Zukin ametsik politena bete dot* 'zurekin ametsik politena bete dut'. *Ametsakin konformatu berko gaitun* 'ametsekin konformatu beharko gaitun'. ◆ **amets(ak) egin** (> *amets(ak) in*). **1** Lotan, amets egin. *Nik gaur ze ametsak in tuten!* 'nik gaur zer ametsak egin ditudan!'. **2** Amestu. ◆ **ametsetan** adb. *Ametsetan ibili naiz gau guztia*. *Hi ametsetan hago!* ◆ **amets gaizto**. Amesgaiztoa. ◆ **amets txar**. Amesgaizto. ▲ Sin. amets gaizto. Ik. **lozorro**.

amets(ak) in

AMETS EGIN

soñar

amets(ak) egin (> *amets(ak) in*). **1** Lotan, amets egin. *Nik gaur ze ametsak in tuten!* 'nik gaur zer ametsak egin ditudan!'. **2** Amestu.

ametsetan

AMETSETAN

en sueños

ametsetan adb. Amets egiten. *Ametsetan ibili naiz gau guztia. Hi ametsetan hago!*

ametz, ametza

AMETZ

melojo, marojo, roble negral, rebollo (Quercus pyrenaica)

ametz iz. (Bot.) Haritzaren antzeko zuhaitza (Quercus pyrenaica).

amezti, ameztia

AMEZTI

melojar, bosque de melojos

amezti iz. Ametz basoa.

amina / aminduik

AMIÑA, AMONA

abuela
anciana, mujer vieja

amina iz. Amiña.

amindu, amintzen

ATSOTU, ZAHARTU

zahartu

envejecer(se) [la mujer]; hacerse vieja

amindu da ad. Atsotu, zahartu. *Aminduik do* 'amindurik dago'. Ik. **zahartu**.

amistade, amistadia

ADISKIDETASUN

amistad, compañerismo, afecto

amistade iz. Adiskidetasuna. *Amistade aundia gendukan* 'adiskidetasun handia geneukan'.

amodio

AMODIO

amor

amodio iz. (Iza Alts): amorio.

amon

AMARAUN

amegun

telaraña, tela de araña

amon iz. Amarauna. (Ond Bak): *mirrimarrauen saria*. Ik. **amegun**.

amorratu, amorratua

AMORRATU

itsu; 2 erroi, erroitu (?)

rabioso, -a; furioso, -a; feroz
apasionado, -a, acérrimo, -a; ferviente; chiflado, -a; pirrado, -a

amorratu **1** adj. Zale amorratua. *Zine zale amorratua da*. Ik. **itsu**. **2** adj. *Oi dok jende amorratua!* 'hori duk jende amorratua!'. Ik. **erroi**, **erroitu** (?).

amorratu, amorratzen

AMORRATU

1 konsagratu

irritar(se), enfurecer(se); dar rabia
contraer la rabia

amorratu (> eta *amurratu*) **1** *da/dau* ad. Norbait bere onetik atera. *Oi pelmĭa; amorratzen dau bat!* 'hori pelma [gogaikarria]; amorratzen du bat!'. *Amorratwik non* 'amorraturik nagon'. Ik. **konsagratu**; **renegatu**. **2** *da* ad. Errabiak joa. *Ikusi berko da hozka in dezun txakurroi amorratuik ezton* 'ikusi beharko da hozka egin dizun txakur hori amorraturik ez dagoen'.

amorrazio, amorraziua

AMORRAZIO

amorru, errabia

enfado, indignación, rabia

amorrazio (> *amurrazio*) iz. ▲ Sin. *amorru*, *errabia*.

amorru, amorrua

AMORRU

amorrazio, errabia, kolla, hasarria, sumin. 2

rabia, indignación, ira
ansia, afán, anhelo
rabia (enfermedad)

amorru (> *amurru*) **1** iz. Haserre bizi eta oldartsua. *Zukan amorru guztĭekin jo zĭan zaplastakwa* 'zeukan amorru guztiarekin jo zion zaplaztekoa'. Ik. **amorrazio**; **errabia**; **kolla**; **hasarre** (> *asarrĭa*); **sumin**. **2** iz. Gogo edo lehia amorratua. Ik. **gogo**; **ansia**; **errabia**. **3** iz. Errabia, eritasun kutsakorra. *Amorruen kontrako txertua* 'amorruaren kontrako txertoa'. ◆ **amorrua eman**. Zerbaitek norbait amorrarazi. *Amorrua ematen dĭai kontu klase oiek* 'amorrua ematen diote kontu klase horiek'. Ik. **errabia eman**.

amu, amua

AMU

anzuelo

amu iz. *Amuekin arrapatzen tuai amurraiek* 'amuarekin harrapatzen dituzte amuarrainak'.

amukela, amukelia

MALUTA

copo

amukela iz. Maluta. (Batez ere pl.) *elur-amukelak*.

amuko, amukua

AMUKO

estopilla, cerro

amuko[1] iz. *Lio amukwa* 'liho amukoa'.

amuko, amukua (2)

AMUKO (2), IRAKA (?)

cizaña, borrachuela (Lolium temulentum) (?)

amuko[2] iz. (Bot.) Garien azpiko belar zikina. *Amukwa gogoti, ta garik ez!* [Iraka (?) (*Lolium temulentum*)].

amurrai, amurraia

AMUARRAIN

trucha

amurrai iz. (Zool.) Amuarraina. *Burunda ibaien ezte lenoko amurraiek* 'Burunda ibaian ez daude lehenagoko amuarrainak'. ◆ **amurraitxo**.

amurratu, amurratzen AMORRATU

irritar(se), enfurecer(se); dar rabia

amurrazi AMORRARAZI

hacer rabiar, molestar, encolerizar

amurrazi *dau* ad. Amorrarazi. *Amurrazi da* 'se ha enfadado' (Ond Bak). *Orrek iten dik amurrazi beste* 'horrek egiten dik amorrarazi beste' (Urdiain).

amurrazio, amurrazio AMORRAZIO

amorru, errabia

enfado, indignación, rabia

amurru, amurrua AMORRU

errabia

rabia, indignación, ira

ansia, afán, anhelo

an, ana BASARAN, BASAKARAN

endrina, arán, arañón

anai-arreba ANAI-ARREBA

senide

hermanos

anai-arreba iz. (pl.) *Zenbat anai-arreba zai?* 'zenbat anai-arreba zarete?'. ▲ Sin. *senide*.

anai, anaia ANAIA

hermano

anai iz. Anaia.

anaitako ANAITZAKO

hermanastro; hermano de adopción

anaitako iz. Anaitzakoa. Ik. **arrebatako**.

analfabeto, analfabetua ANALFABETO

eskolabeiko

analfabeto, -a

analfabeto adj./iz. ▲ Sin. *eskolabeiko*.

analisis, analisa ANALISI

análisis

analisis iz. Analisia. *Odolan analisa* 'odolaren analisia'. *Bi analisis iteko agindu dwai* 'bi analisi egiteko agindu didate'.

andaitz ENDAITZ

lanza [del arado]; timón del carro

andaitz [Altsasu] iz. Endaitza. Ik. **andatz**.

andaluz, andaluza ANDALUZ, ANDALUZIAR

andaluz, -a

andaluz adj./iz. Andaluziarra.

andarrai, andarraia

ANDAERRAI

lechecillas de cabrito/carnero (pl.)

andarrai iz. Andaerraia. (Batez ere pl.) *andarraiek*. [Bereizi '*lorak*', '*andarraiek*'].

andatz, andatza

ENDAITZ

timón del carro; lanza de arado

andatz (eta *andaitz* [Altsasu]) iz. Endaitza.

andra-gizon

ANDRE-GIZON

senar-emaztiek

marido y mujer, esposos, cónyuges

andra-gizon iz. (pl.) Andre-gizon, emaztea eta senarra. *Andra-gizonak*. ▲ Sin. *senar-emaztiek*.

andra, andria

ANDRE, ANDERE

esposa, señora;
mujer

andra **1** iz. Andrea, emakumea. *Andra gona gorriduna* (Ond Bak). **2** iz. Andrea, emaztea. ◆ **andra-gizon** iz. (pl.) Andre-gizon, emaztea eta senarra. *Andra-gizonak*. ▲ Sin. *senar-emaztiek*. ◆ **Andramari** (> *Andramai*). Andre Maria; Jainkoaren Amari ematen zaion izena.

andragai, andragaia

ANDREGAI

novia

andragai (> *andragei*) iz. Andregaia.

andramaria

ANDREMARIA, AMA BIRJINA

amabirjina

Virgen María
fiestas en honor de la Virgen, especialmente las de Agosto

andramaria iz. Andremaria, Ama Birjina. ◆ **andramari** (> *andramaiek*) iz. pl. Andremariak; abuztuan, Ama Birjinaren Jasokunde egunaren inguruan egiten diren jaiak. *Andramaietan launarteko afaia iten du* 'andremarietan lagunarteko afaria egiten dugu'. ◆ **Andramaria aguztukoak** (> *andramaria aguztukuek*, *andramabuztukuek*, *andramauztikuek*). Andremaria abuztuko festak. ● Esr. zah. *Andramaria urriko, agorra bi orriko*. Ik. **amabirjina**.

Andramaria aguztukuek

ANDREMARIA ABUZTUKOA(K)

fiestas en honor de la Virgen de Agosto

Andramaria aguztukoak (> *andramaria aguztukuek*, *andramabuztukuek*, *andramauztikuek*). Andremaria abuztuko festak.

andretxe, andretxia

SERORA ETXE (?)

andretxe iz. Serora etxea (?). Ermitek eraikinaren alde batean izaten duten sukaldea. *Aitziberko ermitĭek andretxĭa duka* 'Aiziberko ermitak andretxea dauka'.

angila, angilia

AINGIRA

caja de anguila de mazapán

angila iz. Aingira. ◆ **angila kaja**. Kaxaren baitan, aingira kiribildua irudikatzen duen mazpanezko gozokia. *Angila kajiá ekarri dĭai erregiek* 'angila kaxa ekarri diote erregeek'. Ik. **aingera**.

angiloi

KOJINETE, [GURDIAREN ATALA]

otsamai

cojinete, chumacera, palomilla

angiloi iz. Kojinetea; gurdiaren txirriken ardatzari eusten eta biratzen uzten dion atala. ▲ Sin. *otsamai*. {(Ond Bak): "Parte más gruesa de los varales, aldamenak, en que encaja el eje de la rueda. Antes era un pedazo distinto de los varales, a los que reforzaba" Ond Bac (en la pág. 411 hay un dibujo ilustrativo)}. *Angiloya* (JMS).

angula, angulia

ANGULA

angula

angula iz. *Angulak dĭa aingerakumak* 'angulak dira aingira kumeak'.

anibersaio, anibersaiua

URTEGARREN, URTEURREN

lemizko urte, enegarren urte; arimasaio(ko)

aniversario

anibersaio iz. Urteurrena. Ik. **-garren**; **arimasaio(ko)**. ▲ Sin. *lemizko urte*; *enegarren urte*.

anima, animia

ARIMA

ánima, alma

anima iz. Arima. ◆ **animain eguna**. Arimen eguna (Erl.). Ik. **arima**. *Errezatzen, lana gogoti iten dai baten batzuk animĭa salbatzeko* 'errezatzen, lana gogotik egiten dute baten batzuk arima salbatzeko'. Ik. **arima**.

animali, animalia

ANIMALIA

animal
bruto

animalia (> *animali*) 1iz. (Zool.). *Animalien gaitza* (Ond Bak). *Animali klase asko do, ta gu ga makurrenak* 'animalia klase asko dago, eta gu gara makurrenak [gaiztoenak]'. 2 Basatia, astoa. *Oi dok animali puskĭa* 'hori duk animali puska'. Ik. **zakar**.

animalikeia

ABEREKERIA

astakeia

animalada, burrada, barbaridad, salvajada
cantidad grande o excesiva

animalikeria (> *animalikeia*) **1** iz. Aberekeria, egintza anker eta basatia. Ik. **astakeria**. **2** iz. Gehiegikeria; kopuru handia edo gehiegizkoa. Ik. **izugarrikeria**.

animatu, animatzen

ANIMATU

alaitu, poztu

animar(se), dar(se) ánimos, alentar(se)

animatu *da/dau* ad. *Erriko ziklistak animatzĭá fan dĭa Turrĭá* 'herriko ziklistak animatzera joan dira Tourera'. Ik. **alaitu**, **poztu**.

animo, animua

ANIMO

dulabre, kemen; 2 aupa

ánimo, valor, energía
¡ánimo!, ¡vamos!

animo **1** iz. *Animo aundiekin daitza herriko dantzak ikasten* 'animo handiekin dabiltza herriko dantzak ikasten'. ▲ Sin. *dulabre*, *kemen*. **2** interj. *Animo, i! Ezakela etsi!* 'animo, hi! Ez ezak etsi!' ◆ **animoak eman** (> *animuek eman*). *Animuek eman diatziai Tourria fan aurreti* 'animoak eman dizkiote Tourrera joan aurretik'. Ik. **aupa**. ◆ **animorik gabe** (> *animoipe*).

animoso

ANIMOSO

animoso, -a; valeroso, -a; esforzado, -a

animoso adj. *Jende animoswa zailen manifestaziua alaitzen* 'jende animosoa zebilen manifestazioa alaitzen'. 2 (Adizlagun gisa). *Animoso daitza herriko gaztiek eskuaz ikasten* 'animoso dabiltza herriko gazteak eskuaraz ikasten'.

anisa, anisia

ANIS

2 ursula, usual

anís, matalahúga (Pimpinella anisum)
anís (bebida)

anisa (*a* itsatsia) (?). Anisa. **1** iz. (Bot.) Landarea eta hazia (*Pimpinella anisum*). **2** iz. Edaria. *Domekatan kopa bat anis hartzen dau* 'domeketan kopa bat anis hartzen du'. Ik. **ursula**; **usual**.

anju in

HITZ EGIN, ZEZELKA EGIN

balbucear, hablar (voc. infant.)

anju egin (> *anju in*). Haur. Hitz egin; zezelka egin. *In anju* 'egin anju'. Hitz egiten hasi aurretik, ahoska dezan umeari esaten zaiona.

anoras, anorasa

ANORAK

anorak, chubasquero, impermeable

anoras iz. Anoraka, berokia. *Obe dezu anorasa jantzita fatĭa* 'hobe duzu anoraka jantzita joatea'.

anpala

persona corpulenta y parsimoniosa

anpala adj. Gorputz handikoa eta geldoa denagatik esaten da.

anparo, anparua

ANPARO

amparo, resguardo, protección

anparo iz. Babesa. *Izkon anparwen azi izan dĭa* 'izekoren anparoan hazi izan dira'. *Jangoikuen anparo dukala* 'Jaungoikoaren anparo daukala'.

ansasi, ansasia

ELORRI BELTZ

arantza

endrino, arán, arañón (Prunnus spinosa)

aran sasi (> *an sasi*) iz. (Bot.) Elorri beltza, aran edo basaran sasia (Prunnus spinosa). *Lóran dé an sasiek; zuri-zuri, ikusgarriek* 'lorean daude aran sasiak; zuri-zuri, ikusgarriak'. ▲ Sin: *arantza* (Iza Alts), (Ond Bak).

ansia
GOGO BIZI, IRRIKA

amorru, errabi, desio, gogo

ansia, anhelo, ganas

ansia iz. Gogo bizia, irrika. Ik. **amorru**; **desio**; **errabi**; **gogo**. *Ansia batekin jaten dau*.

anteju(ek)
BETAURREKO(AK), ANTIOJO(AK)

gafas, anteojos

anteju iz. (pl.) Antiojoak, betaurrekoak. *Anteju berriek itia fan naiz optiká* 'antiojo berriak egitera joan naiz optikara'. *Majo ematen dezu antejuek jantzita* 'majo ematen duzu antiojoak jantzita'.

antiguoko, antiguokua
ANTIGOALEKO, ANTZINAKO

antiguo, -a
pasado, -a, desfasado, -a

antiguoko adj. Antigoalekoa, antzinakoa. *Antiguoko gona gorriek* 'antzinako gona gorriak'. *Antiguoko izena zan* 'antzinako izena zen'.

antipatiko, antipatikua
ANTIPATIKO

mutur haundi

sinpatiko

antipático, -a

antipatiko adj. Ik. **mutur haundi**. ▼ Anton. *sinpatiko*.

antortxa, antortxia
ZUZI, LASTARGI, TORTXA

antorcha

antortxa iz. Zuzia.

antuxa, antuxia
DOMINISTIKU, USIN

estornudo

antuxa iz. Dominístikua, usina. • *Antuxak, geien parte, bi o iru segituen iten dĭa, eta lemizkwa iten zan garaien "dominístikun" esaten zan; ta bigarrena iten zan garaien, "bakĭa ta osasuna"; eta irugarrena iten zan garaien, "Jainkwa deizula"*. 'antuxak, gehienetan, bi edo hiru segituan egiten dira, eta lehenbizikoa egiten zan garaian "dominístikun" esaten zen; eta bigarrena egiten zen garaian, "bakea eta osasuna"; eta hirugarrena egiten zen garaian "jainkoa deizula"'. ◆ **antuxa egin** (> *antuxia in*). Dominístiku egin.

antuxia in
DOMINISTIKU EGIN, USIN EGIN

estornudar

antuxa egin (> *antuxia in*). Dominístiku egin.

antuxketan
DOMINISTIKUKA

estornudando

antuxketan adb. Antuxa eginez, dominístikuka. Ik. **antuxa**.

antxintxikan
ANTXINTXIKA

korrikan

corriendo; corriendo dando brincos o saltos

antxintxika (> *antxintxikan*) adb. Korrika eta saltoka. Ik. **korrikan**; **txingikan**.

antxo, antxua

ANTXOA

boquerón, aladroque, anchoa (Engraulis encrasicolus)

antxoa (> *antxo*) iz. (Zool.) *Bi kilo antxo yosi tut marinatuik prepatzeko* 'bi kilo antxoa erosi ditut marinaturik preparatzeko''. *Aurten antxwa ezto hain gasti* 'aurten antxoa ez dago hain garesti'.

antxoilla, antxoillia

ANTXOA OLIOTAN (?)

anchoa en aceite

antxoilla iz. Antxoa oliotan.

antxuma, antxumia

ANTXUME

xaila

cabrito, -a

antxuma iz. (Zool.) Antxumea. *Antxuma: auxuá ta akerra* (Ond Bak). Ik. **auxo**; **saila**[2] / **xaila**. ◆ **antxumak atera** (> *antxumak ata*). Ik. **antxumaki**. Sutondoan, bernetako azalean beroagatik ateratzen diren gorrituak.

antxumaki, antxumakia

ANTXUMEKI

carne de cabrito
cabrillas; eritema

antxumaki **1** iz. Antxumekia, antxume okela. **2** iz. Batez ere pl. *antxumakiek*: sutondoan, bernetako azalean beroagatik ateratzen diren gorrituak. ◆ **antxumakiak atera** (> *antxumakiek ata*). Sutondoko beroagatik, azalean gorrituak atera; [eritema; cabrillas].

antz, antza

ANTZ

semejanza, parecido, aire
aspecto, semblanza
manera, traza

antz **1** iz. *Aman antza dukai* 'amaren antza daukate'. **2** iz. Lenoko antzik eztuka erriek 'lehenagoko antzik ez dauka herriak'. Ik. **itxura**. **3** iz. *Orrek eztuka ogien antzik* 'horrek ez dauka ogiaren antzik'. *Eztukazu kozinerwen antzik* 'ez daukazu sukaldarien antzik'. ◆ (norbaiten / zerbaiten) **antza hartu**. ◆ (norbaiten / zerbaiten) **antza ibili (eduki)**. ◆ **antzik ez eman** / **hartu**. ◆ gorri antza, urdin antza. ◆ **antzean** (> *antzĭen*). *Ondo antzĭen*. *Ondo antzĭen de* 'ondo antzean daude [nahiko ondo daude]'. ◆ **antzeko** adj. *Orren antzekoĭk ezto munduen* 'horren antzekorik ez dago munduan'. ▲ Sin. *kisako*, *moduko, pareko*. Ik. **antzetako**. ◆ **antzetako** adj. Antzekoa, antzerakoa. *Guaiko apizan antzetako bat zaken* 'oraingo apaizaren antzeko bat zuan'. ¬

antzar, antzarra

ANTZARA

ánsar, ganso, oca

antzar iz. (Zool.) Antzara.

antzeko, antzekua

ANTZEKO

kisako, moduko, pareko

semejante, parecido (a); una especie de

antzeko adj. *Orren antzekoik ezto munduen* 'horren antzekorik ez dago munduan'. ▲ Sin. *kisako*, *moduko, pareko*. Ik. **antzetako**.

antzetako, antzetakua

ANTZEKO

semejante, parecido (a); una especie de

antzetako adj. Antzekoa, antzerakoa. Guaiko apizan antzetako bat zaken 'oraingo apizaren antzeko bat zuan'. Ik. **antz**; **antzeko**.

antzu, antzua

ANTZU

estéril; seco, -a

antzu (eta *auntzu*) adj. *Urde ume-hazia antzu dago guaindo*.

antzutu, antzutzen

ANTZUTU

volverse estéril; esterilizar

antzutu (eta *auntzutu*) *da* ad. *Garaia da antzutzeko urdia, txerrikumak kendu ber datzau*.

anulatu, anulatzen

BALIOGABETU; EZEZTATU; INDARGABETU

anular, invalidar, revocar

anulatu *da/dau* ad. Baliogabetu; deuseztatu; ezeztatu; indargabetu. ¬

anunziatu, anunziatzen

ANUNTZIATU

yakusi

anunciar

anunziatu *dau* ad. (g.er.) Anuntziatu, aditzera eman; iragarri. *Denbwa txarra anunziatu dai* 'denbora [eguraldi] txarra anuntziatu dute'. Ik. **yakusi**.

anunzio, anunziua

ANUNTZIO

anuncio, aviso

anunzio iz. Anuntzioa, iragarkia; iragarpena. *Telebisioko anunziuek* 'telebistako anuntzioak'.

apain, apaina

APAIN

adornado, -a; arreglado, -a; elegante
arregladamente, elegantemente

apain **1** adj. Egoki edo txukun prestatua. Ik. **txukun**. **2** adb. Era apainean. *Apain jantzita*.

apaindu, apaintzen

APAINDU

arreglatu; adornatu

embellecer(se), adornar(se), engalanar(se), ornamentar

apaindu *da/dau* ad. Edertzen edo itxura hobetzen duten gauzez hornitu. *Apainduik, ondo jantzita* 'apaindurik, ondo jantzita'. Ik. **arreglatu**; **adornatu**.

apaintze, apaintzia

APAINTZE

embellecimiento

apaintze iz. *Apaintziati jazten dau (tu) antejuek* 'apaintzeagatik janzten ditu antiojoak'.

apaiz

APAIZ

abade

cura; sacerdote

apaiz [Altsasu] iz. Ik. **apiz**; **abade**.

apal, apala

APAL (2)

sapalda

estante, balda, anaquel

apal iz. Paretan edo altzari batean, bertan gauzak edukitzeko ezartzen den ohola. *Apal lúze bat ibiltzen zain sukaldĭen; sártu ta frenteko paetan, aldenik alde* 'apal luze bat ibiltzen zuten sukaldean; sartu eta aurreko paretan, alderik alde'. Ik. **sapalda**; **arasa** (> *asa*).

apaldu (?)

APALDU (?)

apaldu (?)

apapa

APAPA

a pasear, de paseo (voc. infant.)

apapa Haur. Paseatu; paseatzera. *[Zehaztu esanahia. Alderatu 'apapas'].

apapas

APAPA

a pasear, de paseo

apapas (Haur.). Apapa. Paseatzera. *Gazin apapas!* 'goazen apapa!'.

apar, aparra

APAR

ihintz

rocío que deja la lluvia

apar **1** iz. Bereizi pits. Ik. **pits**. **2** iz. *Yauria in ondoko ihintza* 'euria egin ondorengo ihintza'. Ik. **ihintz**; **senu**.

aparato, aparatua

APARATU, TRESNA

aparato, instrumento

aparato iz. Aparatua, tresna.

apareju, aparejua

APAREJU, APARAILU

2 elementu, erremendo, trasto

aparejo

apareju **1** iz. Apareju, aparailua. **2** adj. Hoi aparejua, hoi erremendua! Ik. **elementu**; **erremendo**; **trasto**.

aparkatoki, aparkatokia

APARKALEKU

aparcamiento (lugar)

aparkatoki iz. Aparkalekua. || Gurdibide bazterreko leku jakina, bertan gurdia geldirik utzita, kontrako norabidekoari pasatzen uzteko balio duena.

aparkatu, aparkatzen

APARKATU

aparcar, estacionar

aparkatu *dau* ad. Ik. **(autua) autzi** 'autoa utzi'. *Nun autzi don autwa?* 'non utzi dun autoa?'.

apartatu, apartatua

BANANDU(A), BANATU(A)

separado, da

apartatu adj. Banandua, banatua.

apartatu, apartatzen

APARTATU, BANANDU

separatu, bakartu. 2 diburziatu

alkartatu

alejar(se), separar(se), apartar(se)
elegir, escoger, seleccionar

apartatu **1** *dau* ad. Bereizi, banandu. Apartatzeko irina ta zahia... Eta ekartzen zian hiru alde apartatuta (Ond Bak). Indiabia apartatu. Ik. **separatu**; **bakartu**. ▼ Anton. *alkartatu*. **2** *da* ad. Banatu, bereizi. Senar-emazteak apartatu. Ik. **diburziatu**; **separatu**.

aparte

APARTE

irruti; 3 gainia

lejos, en lugar apartado
aparte, separado
aparte de, al margen de, dejando a un lado; || además de

aparte **1** adb. Urruti. ▲ Sin. *irruti*. **2** adb. Bereiz. *Hobe horrengandik aparte*. *Hobe hortik aparte*. *Hobe (de)zu aparte!* 'hobe(to) duzu aparte [geratzea]'. *Hoi aparte patu ber da* 'hori aparte pagatu [bereiz ordaindu] behar da'. *Auztazu libuoi aparte* 'utz ezazu liburu hori aparte'. **3** '-z gainera'. *Sweldwa aparte, pensio txiki bat duka* 'soldataz gainera, pentsio txiki bat dauka'. *Ortaz aparte, beste oitura batzuk'e ondo gorde dĭa* 'horrez aparte, beste ohitura batzuk ere ondo gorde dira'. Ik. **gainera** (> *gainĭa*).

aparteko, apartekua

APARTEKO

1 irrutiko; 2 espezial; estraordinaio

lejano, -a; de lejos
excepcional, extraordinario, -a; especial

aparteko **1** adj. *Aparteko kontuek tuk oiek* 'aparteko kontuak dituk horiek'. ▲ Sin. *irrutiko*. **2** adj. *Aparteko gaztaia iten dau* 'aparteko gazta egiten du'. ▲ Sin. *espezial*, *estraordinaio*.

apats, apatsa

AUPATS, KORROKADA

eructo, regüeldo

apats (> *apatx*) iz. Aupatsa. ◆ **apatsa egin** (> *apatsa in*). Aupats egin. Ik. **gaup egin** (> *gaup in*).

apatx, apatxa (ala epatxa)

AUPATS

eructo, regüeldo

apatxo

MUSU

pa (Haur.), matxo

beso

apatxo iz. Musua. ▲ Sin. *patxo*, *matxo* [Altsasu]; *pa* (Haur.), *apatxo*, *matxo* [Urdiain]. ◆ **apatxo eman**. *Apatxo eman eskuan* (Iza Alts).

apatz

ABATZ

colodra

apatz iz. Abatza [Ziordia]. Esnea gatzagiarekin jartzeko ontzia, gaztanbera egiteko. Ik. **abatz**.

apellidatu, apellidatzen

DEITU, DEITURA IZAN

apellidarse

apellidatu da ad. Deitu, deitura izan. Ne bekela apellidatzen da, bea ez ga senidiek.

apellido, apellidua

ABIZEN, DEITURA

apellido patronímico

apellido iz. Deitura, abizena. *Aman apellidwa patu diai aurrai* 'amaren deitura paratu diote haurrari'.

apenas

APENAS

no parece que, no creo que, difícilmente
apenas, difícilmente, escasamente; casi nada

apenas **1** adb. 'ez dirudi'-ren kidea (eskuinean -en dun esaldi txertatu bat duela). Apenas etorri dan. Ik. **eman** (*ez dau ematen*). **2** adb. Gutxi. *Apenas jok jatekoik* 'apenas zagok jatekorik'. Ik. **ia**.

apetitu, apetitua

APETITU

jateko gogo

apetito

apetitu iz. *Apetitu galanta ekar du mundu onta* 'apetitu galanta ekarri dugu mundu honetara'. ▲ Sin. *jateko gogo*. – apetitu haundikua. – apetituipe 'apetiturik gabe'.

apibil, apibila

APIRIL

abril

apibil (eta *apiribil* [Bakaiku]) iz. Apirila, urteko laugarren hila. • Esr. zah. *Apibil biribil.* | *Apibilan azkenien, hostua haitz gainien.* | *Apibil biribil / urdiek udetaien gosiek hil / apibila fan da* [eta] *maietza gero / ganba baztarrean agotza bero* [bego] (agotz gutxi). ¬

apiki

AGIDANEZ [DIRUDIENEZ, USTEZ]

según parece, según dicen, al parecer

apiki (eta *apika* [Bakaiku]) adb. Ustez, antza denez, agidanez. *Apiki etor dan* 'ustez, etorri da'. *Arbolioi apiki gindĭa dan* 'arbola hori apiki ginga den'.

apiz burubeltx, apiz burubeltxa

BUZTANIKARA

apiztxoi, buztanluze

aguzanieves (Motacilla alba)

apiz burubeltx iz. (Zool.) Buztanikara (*Motacilla alba*). ▲ Sin. *apiztxoi*, *buztanluze*.

apiz in

APAIZTU, APAIZ EGIN

ordenar(se) sacerdote

apaiz egin (> *apiz in*). Apaiztu.

apiz, apiza

APAIZ

abade

cura; sacerdote

apaiz (> *apiz*) iz. (Iza Alts): apaiz. *Apizangana fan da* 'apaizarengana joan da'. || *Erresponsua bota apizai* (Ond Bak). ◆ **apaizaren etxea** (> *apizan etxĭa*). *Apizan'txĭa faten dĭa dotrinĭa ikastĭa* 'apaizetxera joaten dira doktrina ikastera'. Ik. **apizetxe**. ◆ **apaiz-jantzia** (> *apiz-jantzia*). ◆ **apaiz egin** (> *apiz in*). Apaiztu. ▲ Sin. *abade* (gaur egun ia ez da erabiltzen).

apizantxe, apizantxia

APAIZETXE

casa cural, rectoría

apaizaren etxea (> *apizan etxĭa*). *Apizan'txĭa faten dĭa dotrinĭa ikastĭa* 'apaizetxera joaten dira doktrina ikastera'. Ik. **apizetxe**.

apizburu [BAZKA LANDAREA]

planta forrajera

apizburu iz. (Bot.) Bazka landarea, abereen bazkarako ereiten den belar landarea "Apizburu, cierta planta forrajera" (Ond Bak).

apizburubeltx BUZTANIKARA (?)

aguzanieves (?)

apizburubeltx iz. (Zool.) Txori mota (Ond Bak) [buztanikara (?)]. Ik. apiz burubeltx (?); apiztxoi.

apizetxe APAIZETXE

casa cural

apaizetxe (> *apizetxe*) iz. Ik. apaizaren etxe (> *apizan'txe*).

apiztxoi, apiztxoia BUZTANIKARA, APAIZ-TXORI

apiz burubeltx, buztanluze

aguzanieves, lavandera blanca

apiztxoi iz. (Zool.) Apaiz-txoria, buztanikara (Motacilla sp.). ▲ Sin. *buztanluze*. Ik. **apiz burubeltx** (Ond Bak). (Motacilla alba).

apo, apua APO, APOTE

ordots

verraco

apo iz. Apotea, txerri arra. ▲ Sin. *ordots*.

apoetxe, apoetxia (?) APOTEGI (?)

apoetxe (?) iz. Apoa, txerri ordotsa izaten zutenen etxea (?). Ik. **apotegi**.

apoki, apokia ORDOSKI (OEH)

carne de cerdo macho

apoki iz. Ordoskia (OEH). Apoaren, txerri arraren haragia. Ik. **txerriki**. ◆ **apoki gustu**, **apoki keru**. Apo txerrikiaren gustu edo keru txarra.

apopilo APOPILO

huésped, -a, a pupilo

apopilo iz. *Apopilo artu dai etxĭen herriko eskolako maistrĭa* 'apopilo hartu dute etxean herriko eskolako maistra'. ◆ **apopilo egon** (> *apopilo yon*). *Apopilo yon gindan Iruñean estudiante garaien* 'apopilo egon ginen Iruñean estudiante garaian'.

apostatu, apostatzen APUSTU EGIN

apustu in, jokatu

apostar

apostatu *dau* ad. Apustu egin. Ik. **apustu egin** (> *apustu in*), **jokatu**.

apostolu, apostolua APOSTOLU

apóstol

apostolu iz.

apotei, apoteia — ORDOTS TEGIA*

pocilga para verraco

apotegi (> *apotei*) iz. Apoaren, txerri ordotsaren tegia. Ald. *apotai* (Ond Bak). Ik. **txerritegi**.

aprendiz, aprendiza — APRENDIZ

aprendiz, -a; novato, -a

aprendiz iz./adj. Lanbide bat ikasten ari dena. *Nekazaia, il arte aprendiz* 'nekazaria, hil arte aprendiz'.

apreziatu, apreziatzen — AINTZAT HARTU, ESTIMATU; GOGOKO IZAN, *despreziatu*

estimatu; baloratu

apreciar

apreziatu *dau* ad. Aintzat hartu, estimatu. Gogoko izan, begiko izan. Ik. **estimatu**; **baloratu**. ▼ Anton. *despreziatu*.

aprezio, apreziua — ESTIMU

estimazio — *desprezio*

aprecio, estima, afecto; consideración, reconocimiento

aprezio iz. Estimua. ▲ Sin. *estimazio*. ▼ Anton. *desprezio*.

aprobatu, aprobatzen — ONARTU; 2 GAINDITU

2 suspenditu

aprobatu *da/dau* ad.

aprobetxamentu, aprobetxamentua — APROBETXAMENDU

probetxu

aprovechamiento; provecho

aprobetxamentu iz. Aprobetxamendua, probetxua. Ik. **probetxu**.

aprobetxatu, aprobetxatzen — APROBETXATU

baliatu

aprovechar

aprovecharse; valerse/servirse de alguien; valerse/servirse de algo

aprobetxatu *da/dau* ad. *Ondo baindo obeto aprobetxatu dot tela guztĭa* 'ondo baino hobeto aprobetxatu dut tela guztia'. ▲ Sin. *baliatu*. || *Zukin ondo aprobetxatu dĭa* 'zurekin [zutaz] ondo aprobetxatu dira'.

apropos / aprepos — APROPOS

nahita; 2 bromatan

a propósito, intencionadamente, aposta, adrede

bromeando, chanceando

apropos (eta *aprepos*) **1** adb. Nahita. *Usteztala ez, apropos in dau* 'ustekabe(an) ez, apropos egin du'. ▲ Sin. *nahita*. **2** adb. Txantxetan, broman, bromatan. *Ez zaitez asarratu, apropos esan dezut-eta* 'ez zaitez haserretu, apropos esan dizut eta'. ▲ Sin. *bromatan*. Ik. **broma**.

aproposa — APROPOS, EGOKI

eroki

adecuado, -a, idóneo, -a

aproposa adj. Egokia. *Gaztina lurra aproposa da azaleaindako* 'gaztaina lurra [gaztainondoaren lurra] aproposa da azaleendako [Rhododendron indicum]'. Ik. **eroki**.

apuatu, apuatzen — LARRITU, KEZKATU

larritu, estutu — *sosiatu, trankilizatu*

apurar(se), preocupar(se)

apuratu (> *apwatu*) *da* ad. Larritu, urduritu. *Ezazula apwatu!* 'ez zaitez larritu!'. ▲ Sin. *larritu*, *estutu*. ▼ Anton. *soseatu*, *trankilizatu*.

apuntatu, apuntatzen — APUNTATU

3 izena eman — *3 borratu*

apuntar

apuntar, anotar; tomar notas/apuntes

dar el nombre, apuntarse, inscribirse

apuntatu **1** *dia* ad. Keinatu. *Eskupetiekin apuntatu dĭa* 'eskupetarekin apuntatu dio'. **2** *dau* ad. Idatzi, oharrak hartu. *Yosi berreko gauzak apuntatuik dukatzit* 'erosi beharreko gauzak apuntaturik dauzkat'. *Izenak apuntatuik zukatziain* 'izenak apuntaturik zeuzkaten'. **3** *da/dau* ad. Izena eman. Ik. **izena eman**. ▼ Anton. *borratu*.

apunte, apuntia — APUNTE

apunte; apuntes

apunte iz. Idatziz hartutako oharra. ◆ **apunteak hartu** (> *apuntĭek artu*).

apuntei, apunteia — TIRO TREBETASUN, PUNTERIA

puntería

apunteria (> *apuntei*) iz. Ald. *punteia*. Punteria, tiro trebetasuna. Ik. **punteria** (> *punteia*).

apur-apurra in — APUR-APUR EGIN*

apurtu, txiki-txikia in

hacer trizas, triturar; desmigar

apur-apurra egin (> *apur-apurra in*). ▲ Sin. *txiki-txikia in*. Ik. **apurtu**; **mila txiki egin**.

apur, apurra — APUR, PAPUR

hondar

poco, pizca, pequeña cantidad

pedazo pequeño, migaja; pequeña cantidad; resto

apur iz. (Batez ere pl.) *Apurrak bestendako* 'apurrak besterendako'. Ik. **hondar**. ◆ **apurrak egin** (> *apurrak in*) *dau* ad. Zati txikiak egin. ◆ **apur-apurra egin** (> *apur-apurra in*). ▲ Sin. *txiki-txikia in*. Ik. **apurtu**; **mila txiki egin**. ◆ **ogi apur**. (pl.).

apuro, apurua — ESTUTASUN

estutasun, estualdi, larritasun

apuro, aprieto, angustia

escasez; falta, carencia; necesidad, apremio, urgencia, premura

apuro **1** iz. Estutasun, larrialdia. *Apuro haundia*. Ik. **estutasun**; **estualdi**, **larritasun**. **2** iz. Eskasia, premia larria. *Apuro batĭako, atorra zar onek gwaindo balio dau* 'apuro baterako [premiazko egoera baterako], atorra zahar honek oraindik balio du'.

apurrak in — PAPURTU

desmenuzar, desmigar

apurrak egin (> *apurrak in*) *dau* ad. Zati txikiak egin.

apurtu, apurtzen
APURTU

txiki-txikia in, apurrak in, apur-apurra egin

hacer trizas, triturar; desmigar

apurtu *da/dau* ad. Apurretan xehatu, desegin. Ogia apurtu. ▲ Sin. *txiki-txikia in*. Ik. **apurrak egin**; **apur-apurra egin**.

apustu in
APUSTU EGIN

apostatu, jokatu

apostar

apustu egin (> *apustu in*). Ald. *apostu in* (Ond Bak). ▲ Sin. *apostatu*, *jokatu*. ◆ **apustu egingo nike** [nuke]**...** (> *apustu inko nike...*). *Apostu inko nuke ohiati aitu zela* 'apustu egingo nuke ohetik aditu zuela' (Ond Bak). ▲ Sin. *jokatuko nike (...)*.

apustu, apustua
APUSTU

jokatu. 2 partido

apuesta; competición sobre la que se apuesta

apustu (eta *apostu*) **1** iz. *Galdu dot in nen apustua* 'galdu dut egin nuen apustua'. **2** iz. Norgehiagoka, lehiaketa. *Pilota apustua* 'pilota partida'. Ik. **partido**. *Korrika apustua* 'lasteketa'. ◆ **apustu egin** (> *apustu in*). Ald. *apostu in* (Ond Bak). ▲ Sin. *apostatu*, *jokatu*. ◆ **apustu egingo nike** [nuke]**...** (> *apustu inko nike...*). *Apostu inko nuke ohiati aitu zela* 'apustu egingo nuke ohetik aditu zuela' (Ond Bak). ▲ Sin. *jokatuko nike (...)*. Ik. **jokatu**.

apustulai, apustulaia
APUSTULARI

jokalai

apostante; apostador, -a

apustulari (> *apustulai*, *apostulai*) iz. Apustu egiten duen pertsona. *Apostulai amurratua da* 'apustulari amorratua da'. Ik. **jokalari** (> *jokalai*).

ar, arra
AR

ordots — *eme, ahardi*

macho

masculino

ar adj./iz. ▲ Sin. *ordots*; *apo*. ▼ Anton. *eme*, *ahardi*.

araba-hego, araba-hegua
HEGO-MENDEBAL

viento (del) sudoeste

araba-hego (> *arabego*) iz. (Meteorol). Hego-menebaleko haizea. [Ald. *arabego* (Ond Bak)].

arabaize
MENDEBALEKO HAIZE

mendabala, gaztala, gaztelaize

viento de poniente, viento (del) oeste

arabaize iz. (Meteorol.) Mendebaldeko haizea (Ond Bak). *Arabaizĭa daile* 'arabaizea dabil'. Ik. **gaztelaize**. ▲ Sin. *mendabala*, *gaztala*, *gaztelaize*.

arabego
HEGO-MENDEBAL

viento (del) sudoeste

arabego iz. (Meteorol.) (Ond Bak). Hego-mendebaldeko haizea.

aradura

aradura (?)

aran, arana

BASARAN, BASAKARAN

endrina, arán, arañón (fruto)

aran (> *an*) iz. (Bot.) Basarana. *Aranan loria, aranain loria* (Ond Bak). • Esr. zah. *Etxarri Aranatz, arana jan da mihia latz* (Ond Bak). *Anak, onduta, urrien bildu ber dĭa* 'basaranak, onduta, irailean bildu behar dira'. Ik. **aransasi**.

arantza

ARANTZA

ansasi

endrino, arán, arañón (Prunnus spinosa)

arantza iz. (Bot.) Elorri beltza (Prunnus spinosa). (Iza Alts), (Ond Bak). *Arana da bere frutua* (Ond Bak). Ik. **aransasi** (> *ansasi*).

araro

ADARO

pala de madera para recoger el trigo en la era

araro [Altsasu] iz. Adaroa; eultzitako garia biltzeko erabiltzen zen zurezko pala.

arasa

ARASA

aparador, armario, alacena
balda, estante, anaquel
espetera

arasa ([Altsasu], eta *asa* [Urdiain]) iz. Apala; altzari apalduna. *Gainbeko arasan auzten tut kikarak ta pate txikiek* 'beheko arasan uzten ditut kikarak eta plater txikiak'. Ik. **apal**; **sapalda**.

arazo (?)

ARAZO (?)

problema
cuestión, asunto

arazo [?] iz. (Hitz berria?) Ik. **problema**; **kontu**; **asunto**.

arbola-ipurdi, arbola-ipurdia

ARBOLA-IPURDI

arbola-ondo, trunku motz

tocón (parte del tronco que queda unida a la raíz tras talar el árbol)

arbola-ipurdi iz. Motzondoa, epaitondoa; enborra moztu ondoren, lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia. *Trunkuen ipurdia* (?) 'enborraren ipurdia'. ▲ Sin. *arbola-ondo*, *trunku motz*.

arbola-ondo, arbola-ondua

ARBOLA-IPURDI

arbola-ipurdi

tocón [parte del tronco que queda unida a la raíz tras talar el árbol]

arbola-ondo iz. Motzondoa, epaitondoa. Enborra moztu ondoren, lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia. ▲ Sin. *arbola-ipurdi*.

arbola, arbolia

ARBOLA

árbol; árbol frutal

arbola iz. || (Ond Bak): [Arbola] ondu: 1 *Arramatik behera ta zainetik gorakua*. 2 *Arbola bota ta zainetik gorakua*. – *Arbolan alderdiek: Zain eta ondua, lepotik gora arramak* (Ond Bak). ◆ **arbola(ren) lepo(a)** (> *arbolĭen lepwa*). Adarren aurreko enborraren zatia. ◆ **arbola saila** (*a* itsatsia: *arbola sailia*), Ik. **arboladi**. ◆ **arbola-ipurdi** iz. Motzondoa, epaitondoa; enborra moztu ondoren, lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia. *Trunkuen ipurdia* (?) 'enborraren ipurdia'. ▲ Sin. *arbola-ondo*, *trunku motz*. ◆ **arbola-ondo** iz. Motzondoa, epaitondoa; enborra moztu ondoren, lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia. ▲ Sin. *arbola-ipurdi*, *trunku motz*.

arboladi, arboladia

ARBOLADI

arbola sailia

arboleda

arboladi iz. Arbolak dauden eremua. *Arboladiko itzalpĭen eman du atsalde oswa* 'arboladiko itzalpean eman dugu arratsalde osoa'. ▲ Sin. *arbola saila*.

arbolape, arbolapia

ARBOLAPE

arbolazpi

lugar bajo un árbol, bajo árboles

arbolape (> *arbolpe*) iz. Arbola azpia. (Batez ere leku-denborazko kasu-atzizkiez) *arbolapĭen* (> *arbolpĭen*). ▲ Sin. *arbolazpi*.

arbolazpi, arbolazpia

ARBOLAPE

arbolape, arbolpe

lugar bajo un árbol, bajo árboles

arbolazpi iz. Arbola azpia. *Laitzen yon naiz arbolazpien* 'irakurtzen egon naiz arbolapean'. Ik. **arbolape**; **arbolpe**.

arbolpe

ARBOLAPE

arbolazpi

lugar bajo un árbol, bajo árboles

ardai-egur

ARDAGAI

agárico, hongo agaricáceo
yesca

ardai-egur iz. (Mikol.) Ardagaia (?). Arboletan sortzen den ointoa (Ond Bak). [Ardagaidun egurra (?)]*

ardai, ardaia

ARDAGAI

agárico, hongo agaricáceo
yesca

ardagai (> *ardai; ardangai*) (?) **1** iz. (Mikol.). **2** iz. [yesca] (Iza Alts). ◆ **ardagai beltz** (> *ardai beltz*) (Fístula hepática); *ardaibeltxa* (Fistullina hepatica). ◆ **ardagai zuri** (> *ardai zuri, ardai txuri, ardei zuri*) (Polyporellus Squamosus). "*Ardaizuri gutxi izaten da. Saltsamendin badakit nik arbol bat ardeizuria ekartzen duena. Pilotak egiteko balio du*".

ardana
ARDO ZOPA

kunkun, ardo zopa

sopa(s) de vino

ardana iz. Ardo zopa. Ardo berotua, txigortutako ogi koxkorrarekin. *Ardo zopa berwa* 'ardo-zopa beroa'. ▲ Sin. *kunkun*, *ardo zopa*.

ardangai (?)
ARDAGAI

ardatz, ardatza
ARDATZ

huso

ardatz iz. Irutean haria harilkatzeko erabiltzen den zurezko tresna, makila gisakoa, erdialdetik puntetara zorroztuz doana. *Aria iten, emakumĭek ardatzakin ibiltzen zĭan gaio; gizonak, santagerĭekin* 'haria egiten, emakumeak ardatzarekin ibiltzen ziren gehiago; gizonak, santagerarekin'. Ik. **santagera**; **lilai**; **ardazketa**.

ardazketa, ardazketia
ARDAZKETA

hilado

acción de hilar

ardazketa iz. Irutea. ◆ **ardazketan** adb. *Ataien bertan'e ibiltzen zĭan ardazketan* 'atarian bertan ere ibiltzen ziren ardazketan'.

ardazketan
ARDAZKETAN

hilando

ardazketan adb.

ardi adardun, ardi adarduna
ARDI ADARDUN

oveja cornuda; res ovina con cuernos

ardi adardun.

ardi esene, ardi esenia
ARDI ESNE

leche de oveja

ardi esene iz. Ardi esnea. iz. *Yosi beiko ardi eseniekin iten da gaztanberaik hobena* 'egosi gabeko ardi esnearekin egiten da gaztanberarik [mamirik] hoberena'.

ardi mozteko buexa(k)
AIZTUR(RAK)

tijeras para esquilar ovejas

ardi-mozteko guraize* (> *ardi mozteko guexa*, *ardi mozteko buexa*) iz. (pl) Ardiei ilea mozteko guraizeak.

ardi txakur
ARDI TXAKUR

artzai txakur

perro pastor

ardi txakur iz. Ardiak zaintzen dituen txakurra. ▲ Sin. *artzai txakur*.

ardi, ardia

ARDI

oveja, res ovina (Ovis aries)

ardi iz. – ardi zahar; ardi beltz; ardi zuri; ardi mutur zuri; ardi mutur beltz; ardi adardun. Ardiék haziko dau axúri. Ardiek ta aharikuek. Ik. **ahariko**. ◆ ardi galdu. ◆ ardi latx. ◆ ardi narru. ◆ ardiak moztu (> *ardiek moztu*) [esquilar]. ◆ **ardi esene** iz. Ardi esnea. iz. *Yosi beiko ardi eseniekin iten da gaztanberaik hobena* 'egosi gabeko ardi esnearekin egiten da gaztanberarik [mamirik] hoberena'. ◆ **ardi txakur** iz. ▲ Sin. *artzai txakur*. [Bereizi **ardi** eta **ahardi**]. Ik. **ahardi**. ● Esr. zah. *Ez arditako ta ez ahuntzetako*.

ardietxe, ardietxia

ARDIETXE, ARDI BORDA

construcción destinada a guardar las ovejas

ardietxe iz. Ardi borda. Ik. **ahuntzetxe**.

ardiki, ardikia

ARDIKI

carne de oveja

ardiki iz. Ardi okela. Ik. **axurki**.

ardila, ardilia

ARTILE

lana

lana [propiamente, la de oveja]

ardila iz. Artilea. ◆ **ardilazko**. Artilezkoa. ◆ **ardilazko galtza(k)**. pl. Artilezko galtzerdiak. ▲ Sin. *lana*.

ardilazko galtza(k)

ARTILEZKO GALTZERDI(AK)

calcetín(es) de lana

ardilazko galtza(k). pl. Artilezko galtzerdiak.

arditxe, arditxia

ARTEGI

borda, establo de ovejas; redil

arditxe iz. Artegia. *Gwai Belgikako legusuen etxĭa dana arditxĭa izan zaken* 'orain Belgikako lehengusuen etxea dena *ardietxea* izan zuan'. Ik. **borda**; **artai**.

ardo goxo, ardo goxua

ARDO GOZO

vino dulce

ardo gozo (> *ardo goxo*).

ardo zopa(k)

ARDO ZOPA

ardana, kunkun

sopa(s) de vino

ardo zopa(k). Ik. **ardana**, **kunkun**.

ardo, ardua

ARDO

vino

ardo iz. *Mats garnatxakin indako ardwa* 'mahats garnatxarekin egindako ardoa'. ◆ **ardo beltz**. ◆ **ardo gorri**. ◆ **ardo zuri** / (eta *ardo zwi*, *ardo txwi*). ◆ elizako ardo. ◆ **ardo zopa(k)**. Ik. **ardana**; **kunkun**. ◆ **ardoa pikatu** / **mindu** / **ozpindu** (> *ardwa pikatu / mindu / ozpindu*).

ardoketai, ardoketaia

ARDOKETARI

vinatero, -a [repartidor de vinos]

ardoketari (> *ardoketai*) iz. Ardoa banatzen duen pertsona.

ardozale, ardozalia

ARDOZALE

sietsekua (Lgart.)

aficionado, -a al vino; bebedor, -a, borrachín, -ina, vinolento, -a

ardozale adj. lk. **sietsekoa** (> *sietsekwa*) (Lgart.).

ardura, arduria

ARDURA

cuidado, diligencia, esmero, solicitud
responsabilidad

ardura iz. *Laniako arduria* 'lanerako ardura'. • Esr. zah. *Ardura ta Alferra. —Ardura! Intzak baswen egurra! Ta egurrik ez iten* 'Ardura eta Alferra. —Ardura! Egintzak basoan egurra! Eta egurrik ez egiten'.

arduradun (?)

ARDURADUN

cuidadoso, -a, solícito, -a, esmerado, -a
responsable, encargado, -a

arduradun (?) iz.

are, aria

ARE

rastra

grada

are iz. Nekazaritzako lanabesa. ◆ area pasatu (> *aria pasatu*). Aratu. lk. **rastra**;

argal, argala

ARGAL

mehea, flako, flakoxta — *gizen, lodi*

delgado, -a, flaco, -a, enjuto, -a

argal adj. Lehen erabiltzen zen; orain euskara batuaren eraginez suspertu da. ▲ Sin. *mehe*, *flako*, *flakoxta*. ▼ Anton. *gizen*, *lodi*, *puztikilo*. **2** adj. [ergel (?) LM].

argi indar, argi indarra

ARGINDAR

elektrizidade

electricidad

argi indar iz. Argindarra. ▲ Sin. *elektrizidade*.

argi, argia

ARGI

klaro

ilun

luz
luz (eléctrica)
luz, punto de luz, lámpara
luminoso, -a, claro, -a, brillante; despejado, -a; limpio, -a, diáfano, -a; inteligible, comprensible
listo, -a, inteligente
claro, claramente, con claridad

argi **1** iz. *Argi bizia*; *argi hila*. *Argi naturala*; *argi artifiziala*. *Yuzkien argia* 'eguzkiaren argia'. **2** iz. Argi artifiziala, bereziki elektrizitatezkoa. *Argipe ge, argia [argi indarra] fan da* 'argirik gabe gaude, argia [argindarra] joan da'. ◆ **argi indar**. Argindarra. ▲ Sin. *elektrizidade*. ◆ **argia yazi** *dau* ad. Argia piztu. ◆ **argia hil** *dau* ad. Argia itzali. ◆ **argia joan** (> *argia fan*) *da* ad. ◆ **argia eman**. ◆ **argia egin** (> *argia in*). Argitu. *Linterniekin, intzak emen argia* 'linternarekin, egizak hemen argia'. ◆ **argia kendu** *dau* ad. **3** iz. Argi iturria. *Sukaldeko argia*. *Autwen argiek* 'autoaren argiak'. *Gelako argia funditu in da* 'gelako argia erre egin da'. **4** adj. Argitsua. *Egun argia dekau gaur* (Ond Bak). *Hau gelĭen argia!* 'hau gelaren / gela argia!'. ▲ Sin. *klaro*. ▼ Anton. *ilun*. **5** adj. Adimen zorrotzekoa. Ik. **azkar**, **listo**. **6** adb. argi egon (> *argi yon*); *argi esan*. *Holakotan, argi do ze in ber dan* 'holakoetan, argi dago zer egin behar den'. ◆ **argi eta garbi** (> *argi ta garbi*) adb. *Argi ta garbi esan diatzi esan bearrekwek* 'argi eta garbi esan dizkio esan beharrekoak'. ◆ **argi ibili**; Ik. **kontuz ibili**; **atento**. ◆ **argitan** adb. ◆ **argi egon** (> *argi yon*) **1** Egunaz, eguraldiaz edo zeruaz mintzatuz, hodeirik gabea, argitsua. **2** adb. Zalantzarik edo puntu ilunik gabe. *Argi jok ze esan nai zen* 'argi zagok zer esan nahi zuen'.

argipe, argipia; argipien

ARGIPEAN

ilunpe, itzalpe

bajo la luz

argipien adb. Argipean. *Argipĭen lana ondo iten dok, ez ilunpein* 'argipean lana ondo egiten duk'. Ik. **argitan**. ▼ Anton. *ilunpe*, *itzalpe*.

argisenti, argisentia

ARGISENTI, EGUNSENTI

argitze, egunsenti

iluntze, ilunabar, arras

amanecer, alba, aurora

egunsenti iz. Eguna argitzen hasten dan garaia. ▲ Sin. *argitze*, *egunsenti*. ▼ Anton. *iluntze*, *ilunabar*, *arras*.

argitan

ARGITAN

a la luz de
a la luz, con luz; iluminado

argitan adb.

argitasun, argitasuna

ARGITASUN

klaridade

iluntasun

claridad, luminosidad, resplandor
claridad, transparencia

argitasun iz. *Argitasun aundia do sukaldiontan* 'argitasun handia dago sukalde honetan'. *Neguen ge, bea argitasuna egunetik egunĭa ibazten dua* 'neguan gaude, baina argitasuna egunetik egunera irabazten doa'. ▲ Sin. *klaridade*. ▼ Anton. *iluntasun*.

argitsu, argitsua ARGITSU

luminoso, -a, resplandeciente, brillante, radiante

argitsu adj. *Egun argitsua eldu da gaur* 'egun argitsua heldu da [dator] gaur'.

argitu, argitzen ARGITU

2 aklaratu *ilundu*

iluminar, alumbrar, dar luz
esclarecer, informar, ilustrar
amanecer, clarear, despuntar el día

argitu **1** *da/dau* ad. Eguna zabaldu, (eguna) argitu. *Eguna fan da argitu be* 'eguna joan da argitu gabe [eguzkia atera gabe]'. ◆ [eguna] **argitu baindo lénuo**. Argitu baino lehenago. *Gaur jagi ga argitu baindo lénuo* 'gaur jagi gara argitu baino lehenago'. ◆ [eguna] **argitziekin batia**. Argitzearekin batera. Ik. **egunsenti**, **argisenti**; **eguna argitu**. ▼ Anton. *ilundu*. **2** *da/dau* ad. Azaldu, dudak argitu. *Ondo argitu diatzit gauzak* 'ondo argitu dizkio gauzak'. ▲ Sin. *aklaratu*.

argitxo, argitxua ARGIXKA

klarotxo *iluntxo*

lucecita
bastante claro, -a

argitxo **1** iz. Argi txikia. **2** adj. Kolore argirantz jotzen duena. Emaiozu kolore argitxuet (argitxo bat). ▲ Sin. *klarotxo*. ▼ Anton. *iluntxo*.

argitze ARGITZE

argisenti, egunsenti *iluntze*

amanecer, amanecida, alba, aurora

argitze iz. Egunsentia. *Argitzen ondoko belar eske ta.* ▲ Sin. *argisenti*, *egunsenti*. ▼ Anton. *iluntze*.

argizai, argizaia ARGIZARI

cera
vela, candela, cirio
cerumen

argizari (> *argizai*) **1** iz. *Abakak urtuta iten du etxĭako argizaia* 'abaraskak urtuta egiten dugu etxerako argizaria'. *Lana franko ganbazelaiai argizaia ematen* 'lana franko ganbara-zelaiari argizaria ematen'. **2** iz. Kandela. *Argizaiekin eta bi kandelero ziriuekin* (Ond Bak). ◆ **argizaria paratu** (> *argizaia patu*). (Erl.) *Elizan, trapu beltza, zesterĭa ta agizaia patzen zezaien ildakuari* 'elizan, trapu [oihal] beltza, zestera eta argizaria [kandela] paratzen zitzaien hildakoei'. **3** Belarrietako argizaria. *Obeto aitzen dot guai, belarritako argizaia kendu duai-ta* 'hobeto aditzen dut orain, belarrietako argizaria kendu didate eta'.

argizaiol, argizaiola ARGIZAIOL

cerillero de difuntos; tabla para enroscar la cerilla o vela de cera delgada y larga

argizaiol iz. Hilobian edo elizan, familiak bere hilei eskaintzen dien argizari bildumena biltzen den ohola, gehienetan landua. *Leno, elizan patzen zĭan argizaiolak; gĭo zesterĭa* 'lehen, elizan paratzen ziren argizaiolak, gero zestera [errespontsurako saskia eta kandelak]'. Ik. **zestera**.

Argizar, Argizarra ARTIZAR

Venus; lucero del alba

Argizar iz. (Astron.) Artizarra. *Argizarra goizien* 'Artizarra goizean' (Ond Bak).

argulu / arbulu

BURUGABE, ERGEL; ASTAKIRTEN

insensato, -a; estúpido, -a, necio, -a, tonto, -a, lerdo, -a; zopenco, -a

argulu (eta *arbulu*) adj. Burugabea, ergela; astakirtena; ahoberoa, harroputza (?). *Gonbeztako, presidente amerikanuoi* [D. Trump] *da argulua* 'konparazio baterako, presidente amerikano hori da argulua'. || *Argulua: buruekin pensatzen eztena* 'argulua: buruarekin pentsatzen ez duena' (LM).

-ari (-lari)

-ARI (-LARI) (ATZIZKIA)

-lari; sufijo que adjunta significado de «agente profesional» o «afición favorita»

-(l)ari / **-(t)ari** (> *-(l)ai* / *-(t)ai*) (atzizkia). Izen bizidunak sortzen ditu, eta jarduera edo lanbide bat egiten duten gizakiei dagozkie. Adibideak: *aizkolai*, *bertsolai*, *iraikalai*, *korrikalai*...

ariko, arikua

AHARIKO

carnero

arima, arimia

ARIMA

alma

arima (eta *anima*) iz. *Holakon arimia premien balin bado* (Ond Bak). Ik. **anima**.

arimasaioko, arimasaiokua

URTEURREN

aniversario

arimasaioko iz. Urteurrena (Bakaiku). *Aurrizaria da hogien* [hobian] *patzen dan oihala argizaiekin eta bi kandelero ziriuekin, bat hiltzen dan garaien bedratziurrena iteko ta arimasaiokuen* [aniversario] *ere* 'aurreizara (?) da hobian paratzen den oihala argizariekin eta bi kandelero [argimutil] xirioekin, bat hiltzen den garaian bederatziurrena egiteko eta arimasaiokoan ere' (Ond Bak).

arin, arina

ARIN

1 pisu, pisutsu; 2 motel, torpe; 3 zogi

ligero, -a, liviano, -a; de poco peso
ágil, veloz, presto, -a, rápido, -a, raudo, -a
informal; irreflexivo, -a, variable, voluble

arin **1** adj. Pisu gutxikoa. *Bai arina! eztau ezere pisatzen* 'bai arina! ez du ezer ere pisatzen'. ▼ Anton. *pisu*, *pisutsu*. **2** adj. Erraz eta bizkor mugitzen dena. *Esku, hanka arinak. Larogei urte dukatzi ta gaztĩek baindo arino daile* 'laurogei urte ditu eta gazteak baino arinago dabil'. ▼ Anton. *motel*, *torpe*. **3** adj. Tentu gutxikoa. *Buru arina. Buru arina eztana, zogia, normala* (Ond Bak). ▼ Anton. *zogi*.

arindu, arintzen

ARINDU

aligerar, aliviar, hacer ligero o menos pesado

arindu *da/dau* ad.

ariyazi

ADIERAZI

dar a entender, expresar, explicar, declarar, manifestar

ariyazi *dau* ad. Adierazi; aditzera eman, jakinarazi. || {*Ariyazi genduan zér galdu zeen* [le hicimos comprender lo que había perdido] (Iza Alts)}. Ik. **adiazi**.

arka, arkia
ARKA

kutxa; arkatila; baula.

arca, arcón, cofre, artesa

arka iz. *Arkan dago irina* (Ond Bak). Ik. **kutxa**; **arkatila**; **baula**.

arkakuso, arkakusua
ARKAKUSO

pulga

arkakuso iz. *Arkakusoz beteik do gwe txakurra* 'arkakusoz beterik dago gure txakurra'. ◆ **arkakuso kaka**.

arkatila
ARKATILA

kutxatila

arqueta, cofrecillo; arca de dinero, cajita; estuche

arkatila iz. *Kutxan don kaja txiki bat* 'kutxan dagoen kaxa txiki bat' (Ond Bak). ▲ Sin. *kutxatila*. Ik. **arka**; **kutxa**.

arkaxte, arkaxtia
ARKAZTE

oveja joven [de 21 a 33 meses]

arkazte (> *arkaxte*) iz. *Ardi gaztĭa da arkaxtia* 'ardi gaztea da arkaztea'. *Arkaxtiek: zaharro bildotxa baindo* 'arkazteak: zaharrago bildotsa baino' (Ond Bak).

arkera
ARKARA

en celo (la oveja y la cabra)

arkera (eta *arkea*) adb. Arkara. Ardiengatik edo ahuntzengatik hitz eginez, arreske. *Ardia arkera do* 'ardia arkara dago'.

arku, arkua
ARKU

arco

arku iz. *Ataien arkua* 'atearen arkua'; *zuien arkua* 'zubiaren arkua'. *Elizataiko arkuek* 'eliz atariko arkuak'. *Arkuekin duka etxiek ataia* 'arkuarekin dauka etxeak ataria'.

arkuma, arkumia
ARKUME

axui, bildots

cordero [especialmente el lechal o recental]

arkuma iz. Arkumea. Ik. **axui**; **bildots**.

armaska (*)

armaska* iz. (Ond Bak): Bargagaingo harri haundi-zabalak, ia [Urbasa] mendi puntan.

armatu, armatzen
ARMATU

montatu — *desarmatu*

armar(se); proveer de armas

armar, montar

armatu **1** *da/dau* ad. Armaz hornitu. *Or ibil zian gerran, batzuk ondo armatuik ta bestatzuk ahal zain moduen* 'hor ibili ziren gerran, batzuk ondo armaturik eta beste batzuk ahal zuten moduan'. ▼ Anton. *desarmatu*. **2** *dau* ad. Zerbait muntatu. ▲ Sin. *montatu*. **3** *da/dau* ad. Sortu. *Guaindo armatuko dai gerra zar bat!* 'oraino armatuko dute gerratzar bat'. *Aldio armatzen dai istilua* 'aldiro sortzen dute istilua'. ▲ Sin. *sortu*.

armimau

ARMIARMA

amarratz [Ziordia, Olatzagutia]; imirrimau (eta

araña

armimau [Altsasu] iz. (Zool.) Armiarma. Ik. **imirrimau**. Ald. *imirrimau*; (eta *irrimau*) [Urdiain]; *mirrimarrau* (eta *irrimarrau*) [Bakaiku]. ▲ Sin. *amarratz* [Ziordia, Olatzagutia].

arnasa estua ibili

ARNASESTU

jadeo, sofoco; respiración fatigosa, respiración entrecortada

arnasa estua ibili [eduki] (> *arnasĭa estua ibili*). Arnasestua. *Arnasĭa estua duka asko erretzen delako* 'arnasestua du asko erretzen duelako'. Ik. **arnasestukan**.

arnasa hartu

ARNASA HARTU

hatsa hartu

inspirar, aspirar, tomar aliento; respirar
descansar, respirar, tomar(se) un respiro

arnasa hartu (> *arnasĭa artu*) **1** *Katarro txar onek eztwa arnasĭa ondo artzen auzten* 'katarro txar honek ez dit arnasa ondo hartzen uzten'. Ik. **hatsa hartu**. **2** Atseden hartu. *Prisakan nail(e), arnasaik artzeko betaipe* 'presaka nabil, arnasarik hartzeko betarik gabe'.

arnasa, arnasĭa

ARNASA

hats

aliento, respiración

arnasa (*a* itsatsia) iz. *Ikagarria duka arnasia* 'ikaragarria dauka arnasa'. ◆ **arnasa estua ibili [eduki]** (> *arnasĭa estua ibili*). Arnasestua. *Arnasĭa estua duka asko erretzen delako* 'arnasestua du asko erretzen duelako'. Ik. **arnasestukan**. ◆ **arnasa hartu** (> *arnasĭa artu*) **1** *Katarro txar onek eztwa arnasĭa ondo artzen auzten* 'katarro txar honek ez dit arnasa ondo hartzen uzten'. Ik. **hatsa hartu**. **2** Atseden hartu. *Prisakan nail(e), arnasaik artzeko betaipe* 'presaka nabil, arnasarik hartzeko betarik gabe'.

arnasestukan

ARNASESTUKA

albajaiketan

jadeando, respirando con dificultad, resollando

arnasestukan adb. *Tabako txar horrengeiti daile arnasestukan ta eztulketan* 'tabako txar horrengatik dabil arnasestuka eta eztulka'. ▲ Sin. *albajaiketan*.

arotz, arotza

ERREMENTARI, AROTZ

errementari, herrero; sutaile/a.

herrero, -a

arotz iz. G.er. Errementaria. ▲ Sin. *errementari*, *herrero*, *sutaile/a*.

arpildara, arpildaria

[ARPILLERAZKO] MANTA; ARPILLERA, ZAKU

manta (de arpillera, tela de saco)

arpildara iz. Arpillera. [Arpilleraz egindako] manta txikia, buru gainean zama eramateko erabiltzen zena. Karduek-eta buruen ekartzeko ibiltzen zan manta txikia. Ald. *alpildara* (?).

arpoi, arpoia

ARPOI

arpón; bieldo arponado, bieldo de puntas en gancho
azada de dos púas redondas

arpoi **1** iz. Sarde kakotua. *Ongarria atatzeko ibiltzen da arpoia* 'ongarria ateratzeko erabiltzen da arpoia'. **2** iz. Bi hortzeko aitzurra. *Bi ortzeko arpoia* 'bi hortzeko arpoia'.

arpon, arpona

ARPAN

tronzador [sierra]

arpon* **1** iz. Arpana. Goitik behera zerratzeko zerra. *Arpona, zerratokien ibiltzen zan zerrĭa* (AG). Ik. **tronza**. **2** Ik. **arpoi**. (Kasu honetan, ez da -on egiten, -oi baizik).

arrafistilu, arrafistilua

ZERBATANA, UFATUTU (URA JAURTITZEKOA)

cerbatana (para lanzar agua)

arrafistilu iz. Ald. *(h)arrifistilu*; *txirristilu* (Ziordia); *arifistilu* (Ond Bak). Zerbatana. *Arifistilu, -ba* (Bakaiku). Garai batean, ondokoei ura botatzeko erabiltzen zen tresna edo jostailua. *Ziziku*-aren parekoa, baina likidoetarako. "Juguete manual empleado para lanzar agua" (Erdozia). Ik. **txirristilu**; **ziziku**.

arrai saltzaile, arrai saltzailia

ARRAIN SALTZAILE

peskatero, -a

arrai saltzaile iz. Arrain saltzailea. *Arrai saltzaile ibiltzen zian jitwek, ibaiko arraiek harrapatuta* 'arrain saltzaile ibiltzen ziren ijitoak, ibaiko arrainak harrapatuta'. Ik. **sardina saltzaile**; **peskatero, -a**.

arrai, arraia

ARRAIN

peskau

pez; pescado
madrilla

arrai iz. Arraina. ▲ Sin. *peskau*. *Eztiatzizu ondo kendu: arrai onek ezurra besteik eztuka* 'ez dizkiozu ondo kendu: arrain honek hezurra besterik ez dauka'. ◆ **arrai bandada**. Arrain taldea, arrain sarda. ◆ **arrai zopa**. Arrain zopa. ◆ **arrai saltzaile** iz. Arrain saltzailea. *Arrai saltzaile ibiltzen zian jitwek, ibaiko arraiek harrapatuta* 'arrain saltzaile ibiltzen ziren ijitoak, ibaiko arrainak harrapatuta'. Ik. **sardina saltzaile**; **peskatero, -a**.

arraila, arrailia

ARRAIL

grieta, hendidura, fisura, raja

arrail (> *arraila*) (*a* itsatsia). iz. Arraila, arrakala.

arrailatu, arrailatzen

ARRAILDU

agrietar(se), rajar(se), desgarrar(se), hendir(se)

arrailatu *da/dau* ad. Arraildu. *Autwen parabrisa arrailatu zaira* 'autoaren parabrisa [haizetakoa] arraildu zait'. *Arrailatwik duka fatxada guztĭa* 'arraildurik dauka fatxada guztia'.

arraio, arraiua

ARRAIO

¡rayos!, ¡demonio(s)!, ¡diablo(s)!, ¡diantre(s)!
maldito, -a, del demonio, demonio (de)

arraio **1** interj. *Arraiua!* (-a mugatzailea hartzen dau; galdetzailearen ondoan erabil daiteke: *ze arraio*, *nor arraio*, *nun arraio*, *nua arraio*, *nola arraio*...; galdetzaileak hartzen du kasu-atzizkia). **2** adj. *Nun sartu ote da mutiki arraiuoi?* 'non sartu ote da mutiki arraio hori?'.

arrako, arrakua

ZARRAKO, ZARRADA, ZIRRARA; SARRAKIO (?)

inpresio, sensazio; ikara, susto

impresión fuerte; emoción, sensación, conmoción; pavor; gran miedo

arrako iz. Zarrakoa, zarrada, zirrara; sarrakioa (?). Ikara, izua. *In nen arrako bat!* 'egin nuen ikara bat'. *Artu nen arrako bat!* 'hartu nuen zarrako / izu bat'. *Yan nen arrako bat!* 'eraman [hartu] nuen zarrada bat'. [**halako bat egin**. Halako zirrara bat egin. Euskaltzaindiaren Hiztegia]* (?). Ik. **inpresio**.

arrama-zaldi, arrama-zaldia

GARAÑOA (ZALDIA)

garañón

arrama-zaldi iz. Garañoa, ernaltzeko erabiltzen den zaldia.

arrama, arramia

ARRAMA, ADAR

rama

arrama iz. Adarra. *Arramĭa moztu dija intxorrai* 'arrama moztu dio intxaurrari [arbolari]'. *Kanela arramĭa* 'kanela arrama, zotza'.

arramaio, arramaiua

ARMAIRU

armario, alacena

arramaio (eta *arremaio* [Bakaiku]) iz. Armairua. *Arramaiua ezta ondo ixten* 'armairua ez da ondo ixten'. *Gordetazu neguko arropak arramaiuen* 'gorde itzazu neguko arropak armairuan'.

arramatsu, arramatsua

ADARTSU

adartsu

frondoso, -a, lleno, -a de ramas

arramatsu adj. Adartsua; landareengatik hitz eginez, adar asko dituena. *Arbola arramatsua*. Ik. **adartsu**.

arran, arrana

ARRAN

cencerro grande
ruidoso, -a; bullicioso, -a, alborotador, -a, bullanguero, -a

arran **1** iz. Arrana, joarea, zintzarria. (Ziordia): *fara aundia* 'joare handia'. Ik. **mandafara**. **2** adj. Pertsona zaratatsua. Umeei negar gogorra egiten dutenean esaten zaie: *Ze arrana haizen!*.

arrankatu, arrankatzen

ABIARAZI, ABIAN JARRI; 2 ERAUZI, ATERA

martxan patu; 2 ata

poner en marcha; iniciar
arrancar, quitar; extraer, sacar

arrankatu **1** *dau* ad. Abian jarri. *Autwa arrankatu*. ▲ Sin. *martxan patu*. **2** *dau* ad. Erauzi, atera. ▲ Sin. *ata*.

arranke, arrankia

ABIARAZTE. 2 KEMEN

arranque (puesta en marcha)
pujanza, brío

arranke **1** iz. Abiaraztea, abian jartzea. **2** iz. Adorea, kemena. *Arranke aundia dau lanĭen* 'kemen handia du lanean'. *Arrankeduna*. Ik. **dulabre**; **yantzu**.

arrano beltza (?)

ARRANO BELTZ

águila real (Aquila chrysaetos)

arrano beltz (?)

arrano, arranua

SAI, PUTRE

buitre

arrano iz. (Zool.) Saia, putrea. *Aragi ustela jaten dena da arranua; aundi-aundia da*. 'haragi ustela jaten duena da arranoa [saia], handi-handia da'. Ik. **agila**.

arrantxo, arrantxua

ARRANTXO

rancho; comida

arrantxo (eta *rantxo*) iz. Pertsona askorendako prestatzen den janaria. Ik. **rantxo**.

arrantza[1], arrantzia

ARRANTZA[1]

peska

pesca

arrantza[1] iz. *Emen, ibaien ta errekan iten da arrantzĭa* 'hemen, ibaian eta errekan egiten da arrantza'. Ik. **peska**. ◆ **arrantzan** adb. *Bakalau arrantzan ibil zan Terranova aldĭen* 'bakailao arrantzan ibili zen Terranova [Ternua] aldean'. ◆ **arrantzan egin** (> *arrantzan in*) *dau* ad. *Galazita do ibaien arrantzan itĭa* 'galarazita dago ibaian arrantzan egitea'.

arrantza[2]

ARRANTZA[2]

2 fulu

rebuzno

aullido de lobo

arrantza[2] **1** iz. Astoaren orroa. *Arrantzan do astwa* 'arrantzan dago astoa' [Urdiain]. || *Astua arrantzaz* (?) *ikusi*. (Ond Bak): **2** iz. Otsoaren ulua (Ond Bak). Ik. **fulu**.

arrantzaile, arrantzailia

ARRANTZALE

arranzale

pescador, -a

arrantzaile ([Urdiain]; eta *arranzale* [Altsasu]) iz. Arrantzalea. *Arrantzaile onak zĭan Etxarriko jitwek* 'arrantzale onak ziren Etxarriko ijitoak'.

arrantzaketan

ARRANTZAKA (ASTOA)

rebuznando

arrantzaketan adb. Arrantzaka, (astoa) arrantza eginez. Ik. **arran**.

arrantzan in

ARRANTZAN EGIN

pescar

arrantzan egin (> *arrantzan in*) *dau* ad. *Galazita do ibaien arrantzan itĭa* 'galarazita dago ibaian arrantzan egitea'.

arranzale, arranzalia

ARRANTZALE

pescador, -a

arranzale ([Altsasu]; *arrantzaile* [Urdiain]) iz. Arrantzalea.

arras
ARRATS

iluntze, ilunabar

tarde, atardecer; primeras horas de la noche; noche

arras iz. Arratsa, iluntzea. ▲ Sin. *iluntze*, *ilunabar*. • Esr. zah. *Arrasgorri, bier egoaldi* 'arrats gorri, bihar eguraldi [ona]. Ik. **arrasgorri**; **goizarrats**.

arrasgorri, arrasgorria
ARRASGORRI

atardecer arrebolado, arrebol vespertino

arrasgorri iz. Arrats gorria, arratseko zeru gorria. • Esr. zah. *Arrasgorri, bier egoaldi* 'arrats gorri, bihar eguraldi [ona].

arrastada, arrastadia
ARRASTADA

urratua

rasguño, roce

arrastada iz. Urratua. ◆ **arrastada egin** (> *arrastadia in*). *Zaparrakin in dot arrastadĭa* 'zaparrarekin egin dut arrastada'. ▲ Sin. *urratu*. ◆ **laino arrastada** iz. (pl.) *Laino arrastadak*.

arrastaka(n)
ARRASTAKA

tatarrakan, tarrakan

arrastrándo(se), a rastras, arrastradamente, con dificultad; de mala gana

arrastaka(n) adb. *Lurreti arrastakan* 'lurretik arrastaka'. ▲ Sin. *tatarrakan*, *tarrakan*.

arrastatu, arrastatzen
ARRASTATU

arrastrar(se)

arrastatu *da/dau* ad. *Txarak arrastatu*. *Pisu aundia arrastatu du* 'pisu handia arrastatu dugu'. Ik. **narratu**.

arrasto, arrastua
ARRASTO, MARRA

seinale, marka

huella, rastro; vestigio, pista; señal
línea, raya
tachadura, tachón
cauce de agua

arrasto 1 iz. Aztarna'. *Elurrien hanka arrastuek de* 'elurrean hanka arrastoak daude'. ▲ Sin. *seinale*, *marka*. ◆ **arrastoa hartu** (> *arrastwa artu*). *Txakurrak basurdien arrastua hartu dau* 'txakurrak basurdearen arrastoa hartu du'. ◆ **arrastoan ibili** (> *arrastwen ibili*). *Txakurra erbien arrastuen jailek* 'txakurra erbiaren arrastoak zabilek'. Ik. **zantzuan** (> *zantzuen*). ◆ **arrastorik ez** (> *arrastoik ez*). *Ezta arrastoik'e; ezta badanik'e* 'ezta arrastorik ere; ezta badenik ere'. Ik. **susmo**. **2** iz. Marra; zirriborroa. Ik. **linia**. *Nork in tu arrastu hoiek?* (Ond Bak). *Alabĭek arrastoz bete dwa kuadernwa* 'alabak arrastoz beti dit koadernoa'. **3** iz. Ubidea. *Ura fateko bidĭa* (Ond Bak). ▲ Sin. *urzuin*, *ubide*.

arrastodun, arrastoduna
MARRADUN

rayado, -a, a/de/con rayas

arrastodun adj./iz. Marraduna. *Atorra arrastoduna*.

arrastuen ibili

ARRASTOAN IBILI

rastreando, siguiendo el rastro

arrastoan ibili (> *arrastwen ibili*). *Txakurra erbien arrastuen jailek* 'txakurra erbiaren arrastoak zabilek'. Ik. **zantzuan** (> *zantzuen*).

arratoi txakur

ARRATOI-TXAKUR

txakur txikia

perro ratonero

arratoi-txakur iz. *Katuz ta arratoi txakurrez beteĭk zon herria* 'katuz eta arratoi txakurrez beterik zegoen herria'. Ik. **txakur txiki**.

arratoi, arratoia

ARRATOI

rata (Rattus norvegicus)

arratoi iz. (Rattus norvegicus). *Arratoi kumak de egurtokiko kafien* 'arratoi kumeak daude egurtegiko habian'. ◆ **arratoi-txakur** iz. *Katuz ta arratoi txakurrez beteĭk zon herria* 'katuz eta arratoi txakurrez beterik zegoen herria'. Ik. **txakur txiki**. ◆ **ur arratoi** iz. Ugaztun karraskari anfibioa (Arvicola sapidus). ▲ Sin. *ur sagu*, *ursagu* [Bakaiku, Atsasu].

arratxur, arratxurra

AITZUR LUZE, ARRAITZUR (OEH)

azadón

arraitzur (> *arratxur*) iz. Aitzur luzea, arraitzurra. iz. *Atxur luze haundia, buruduna, sasiek eta zainak eta gauza zailak hausteko; agua, begia, buruba, girtena dekatza; buruba dekai arratxurrak* (Ond Bak).

arratz, arratza

ARRATZ

2 danbolin, txanbolin, txuntxun

cesto

tamboril; tambor

arratz **1** iz. Otarre estalkiduna. *Zumakin indakua [otarra]* 'zumez / zumeekin egindakoa'. *Arratza, zesto itxia* (Urdiain). *Antiguoko arratzak girtenakin izaten zian*. ◆ **arratz haundi**; **arratz txiki**. **2** iz. Danbolina. ▲ Sin. *danbolin*, *txanbolin*, *txuntxun*.

arrauli, arraulia

HARAGI-EULI, EULITZAR, EULI BELTZ

moscarda, moscarda azul, moscón, moscardón

arrauli iz. Haragi-eulia, eulitzarra, euli beltza (Calliphora vomitoria & Lucilia sp.). ◆ **arrauliak jo** (> *arrauliek jo*) *dau* ad.

arrauntsuketa, arrauntsuketia /

AHARRAUSI

agua zabalkan

bostezo

arrauntsuketa* iz. Aharrausia. Ald. *arrantsuketa*, *arrautsuketa* (?). • Esr. zah. *Arrauntsuketĭa, agoik ago, eta katagorria, pagoik pago* 'aharrausia, ahorik aho, eta katagorria, pagorik pago'. Ik. **ahoa zabalka** (> *agwa zabalkan*).

arrauntsuketan (arrautsuketan /

AHARRAUSIKA

agua zabalkan

bostezando

arrauntsuketan* adb. Aharrausika. ▲ Sin. *agwa zabalkan* 'aho zabalka'.

arrausketan

HAIZATZEN [EULTZITAKO GARIA]

aventando (para separar el grano del tamo); echando al viento los granos que se limpian en la

arrausketan adb. Eultzitako garia haizatzeko aldia, gari bikorra eta ahotza bereizteko. Ik. **arrauts**. *Gari bikorra haizetu, yuntziek inda gĭo* 'gari pikorra haizatu, eultziak egin eta gero'.

arrauts, arrautsa

ILAUN; HAUTS

tamo (polvo o paja muy menuda de varias semillas trilladas, como el trigo, el lino, etc.)

arrauts iz. Ilauna; hautsa. *Gari bikorrakin batĭa gelditzen dan agotz txea* 'gari pikorrarekin batera gelditzen den ahotz xehea'. Ik. **arrausketa(n)**. [(Ond Bak): tamo: polvillo, aristas, etc., que se forman al trillar].

arrazoi, arrazoia

ARRAZOI

razón, motivo, causa, explicación
razón, entendimiento

arrazoi iz. *Arrazoi aundiek dé eskolĭa berritzeko* 'arrazoi haundiak daude eskola berritzeko'. Ik. **motibo**. ◆ **arrazoia ibili, izan**. ◆ **arrazoia eman**. ◆ **arrazoiekin**. Arrazoiz. ◆ **arrazoirik gabe** (> *arrazoipe*). *Arrazoipe jo dwa* 'arrazoirik gabe jo (dit) nau'. *Maisuek arrazoipe bialdu zwan etxĭa* 'maisuak arrazoirik gabe bidali (zidan) ninduen etxera'. ◆ **arrazoizko** adj. *Arrazoizkwa da eskatzen dena* 'arrazoizkoa da eskatzen duena'. ◆ **pertsona arrazoizkoa** (> *persona arrazoizkwa*). Zentzuduna.

arrazoitu, arrazoitzen

ARRAZOITU

razonar, argumentar

arrazoitu *dau* ad. *Eztau ondo arrazoitzen* 'ez du ondo arrazoitzen'.

arrazoizko, arrazoizkua

ARRAZOIZKO

racional; razonable, justificado, -a

arrazoizko adj. *Arrazoizkwa da eskatzen dena* 'arrazoizkoa da eskatzen duena'. ◆ **pertsona arrazoizkoa** (> *persona arrazoizkwa*). Zentzuduna.

arre

ARRE[2]

so

arre

arre interj. Zaldiei eta beste zama-abereei aurrera egin dezaten esaten zaien hitza. *Astwai ta zaldiai, arre!* 'astoari eta zaldiari, arre'. ▼ Anton. *so*.

arrea

ENE BADA! 2 PRESATU

2 alde, ospa

arrea, atiza
arrea, para meter prisa

arrea **1** interj. Ene bada!, hara! **2** interj. Presatu, lehiaz mugitu. *Aur batzuk gindan, bea arrea sorwa aitxurrakin!* 'haur batzuk ginen, baina arrea sorora aitzurrarekin'. ◆ **arrea hemendi!** Alde hemendik. ▲ Sin. *alde*, *ospa*.

arreatu, arreatzen

AKUILATU; 2 PRESATU, LEHIAZ MUGITU

aguijar, aguijonear
apremiar

arreatu **1** *dau* ad. Akuilatu. *Beia, idia, zaldia, astwa..., akuluekin arreatu* 'behia, idia, zaldia, astoa..., akuiluarekin arreatu'. **2** *dau* ad. Presatu, lehiaz mugitu.

arreazi

ARREATU ARAZI (*)

arrearazi* (> *arreazi*) ad. Arreatu arazi.

arreba, arrebia

ARREBA

hermana (de varón)

arreba iz. Ik. ahizpa. ◆ **anai-arrebak**. ▲ Sin. *senide*.

arrebatako

ARREBATZAKO

hermana adoptiva [respecto al hermano]

arrebatako iz. Arrebatzakoa, arrebatako hartzen den emakumezkoa. Ik. **anaitako**.

arreglatu, arreglatzen

MOLDATU; KONPONDU

konpondu, moldatu; apaindu

arreglar, reparar, componer; resolver, aclarar
arreglarse, llevarse, congeniar
arreglarse, apañarse

arreglatu **1** *da/dau* ad. Konpondu. *Paruena ezta erraz arreglatuko* 'langabeziarena ez da erraz konponduko'. *Bizikletia arreglatu dot* 'bizikleta konpondu dut'. *Arreglatu tu giaure arteko kontuek* 'konpondu ditugu geure arteko kontuak'. Ik. **konpondu**. ◆ txumia arreglatu. **2** *da* ad. Konpondu, bat etorri. *E´naiz anaiekin ondo arreglatzen* 'ez naiz anaiarekin ondo moldatzen'. Ik. **moldatu**, **konpondu**. **3** *da* ad. Moldatu. *Ondo arreglatzen naiz bakarrik* 'ondo moldatzen naiz bakarrik. *E'naiz arreglatzen autoi'pe* 'ez naiz moldatzen autorik gabe'. Ik. **moldatu**, **konpondu**. ◆ **arreglaturik** (> *arreglatwik*) adb. Prezio egokian. *Arreglatwik ematen dai menua* 'arreglaturik ematen dute menua'.

arreglatzaile, arreglatzailia

KONPONTZAILE

konpontzaile

reparador, -a; restaurador, -a; el, la que arregla

arreglatzaile iz. Ik. **konpontzaile**.

arreglu, arreglua

KONPONKETA; KONPONBIDE; SOLUZIO

konpostura, konponketa, konponbide, soluzio

arreglo, reparación
solución
acuerdo

arreglu (eta *arreglo*). **1** iz. Konponketa. *Arreglu txarra jukak orrek* 'konponbide txarra zaukak horrek'. *Eliztorreko erlejuek ez emen duka arregluĩk* 'eliz dorreko erlojuak ez omen du konponbiderik'. ▲ Sin. *konpostura*, *konponketa*. **2** iz. Irtenbidea, soluzioa. *Erri ontako trafikwai arreglun bat bilatu berko zaio* 'herri honetako trafikoari soluzioren bat aurkitu beharko zaio'. ▲ Sin. *konponbide*, *soluzio*. **3** iz. Akordioa. *Aixkiatu ta arreglun batia ailatuko dia* 'adisketu eta konponbideren batera ailegatuko dira'. ▲ Sin. *konponbide*, *akuerdo*, *konformidade*.

arrepentimentu

DAMU

damu

arrepentimiento

arrepentimentu iz. Ik. **damu**.

arrepentitu, arrepentitzen
DAMUTU

damutu

arrepentirse

arrepentitu *da* ad. Ik. **damutu**.

arriesgatu, arriesgatzen
ARRISKATU

arriesgar(se), poner(se) en peligro, exponer(se)

arriesgatu *da/dau* ad. Arriskatu, arriskuan jarri.

arrija, arrijia
EZKONSARI

arreo, dote

arrija iz. Ezkonsaria. *Ezkontzeko arrijia*. Ald. *arrijo*. *Arrijua: hainbeste ohien azala yan dau arrijuen* (Ond Bak). *Arrija dana* 'ezkonsari guztia' (Iza Alts). Ik. **dote**.

arrikopiko, arrikopikua
ARRABIO; UHANDRE

errueda

salamandra (Salamandra salamandra)
salamandra acuática, (tritón)

arrikopiko iz. (Zool.) Arrabioa. Ald. *arrukapiku* (EHHA); *arrupapeko* (Ond Bak); *errueda* (Iza Alts). ¬

arrimatu, arrimatzen
ARRIMATU

inguatu; juntatu

acercar(se), arrimar(se)

arrimatu **1** *da/dau* ad. *Ez arrimatu suen ondwa* 'ez arrimatu suaren ondora'. Ik. **inguratu** (> *ingwatu*). **2** *da* ad. Bikote bat ezkondu gabe elkarrekin bizitzen jarri. Ik. **juntatu**.

arroba, arrobia [1250 m^2]
ARROA

arroba [medida de peso y capacidad]

arroba iz. Arroa. [1250 m^2] (?) Ala *errau* (?).

arrontza-kafi, arrontza-kafia
ARRAUTZA HABIA

arrontza-leku

nido de huevos

arrontza-kafi. Arrautza habia. *Oilwen arrontza-kafia* 'oiloen arrautza habia'. ▲ Sin. *arrontza-leku*.

arrontza-leku
ARRAUTZA LEKUA / HABIA

arrontza-kafi

arrontza-leku. Arrautza lekua, habia (Ond Bak). ▲ Sin. *arrontza-kafi*.

arrontza, arrontzia

ARRAUTZA

huevo
huevos, cojones

arrontza **1** iz. Hegaztien arrautza. *Hirurak (oiluek) jekanai arrontzia. Arrontza gutxîten dei oiluek* (Ond Bak). *Oilwek arrontzak patzeti autzi in dai* 'oiloak arrautzak paratzetik utzi egin dute [paratzeari utzi egin diote]'. *Uswen arrontzĭa* 'usoaren arrautza'. *Arrontza gorringwa* 'arrautza gorringoa'. *Arrontza zuringwa* 'arrautza zuringoa'. *Arrontza kaskala* 'arrautza azala, oskola'. *Arrontza txolostĭa* 'arrautza tolota'. *Arrontzak batitu* 'arrautzak irabiatu'. **2** iz. (Batez ere pl.) Lgart. Barrabila. ◆ **arrontza-kafi**. Arrautza habia. *Oilwen arrontza-kafîa* 'oiloen arrautza habia'. ▲ Sin. *arrontza-leku*. ◆ **arrontza-leku**. Arrautza lekua, habia (Ond Bak). ▲ Sin. *arrontza-kafi*. ◆ **arrontzia paratu / egin** (> *arrontzĭa patu / in*) *dau* ad. Arrautza egin, errun'. ◆ **arrontzati(k) ata**. Arrautzetik atera. ◆ **arrontzak zanpuztu**. [Txorien habiako] arrautzak zapuztu.

arrontzia patu / in

ARRAUTZA ERRUN

poner huevos

arrontzia paratu / egin (> *arrontzĭa patu / in*) *dau* ad. Arrautza egin, errun'.

arropa, arropia

ARROPA

jantzi

ropa, vestimenta

arropa iz. *Arropia seko-sekua do* 'arropa lehor-lehor dago'. *Garbitutako arropia sekatzen patu dot, kixkatakin tintilikan* 'garbititako arropa lehortzen paratu dut, kisketekin zintzilika'. *Ganba txikien dukagu arropak sekatzeko tokia* 'ganbara txikian daukagu arropak lehortzeko tokia'. *Traperwek arropa zarra jasotzen dai* 'traperoek arropa zaharra jasotzen dute'. *Arropa-dendĭa* 'arropa denda'. *Arropa saltzailĭa* 'arropa saltzailea'. *Arropĭa zikindu; arropĭa garbitu* 'arropa zikindu; arropa garbitu'. *Arropa garbia (-ek)*; *arropa zikina(k)* 'arropa garbia (k); arropa zikina(k). *Arropĭa lisatu / plantxatu* 'arropa lisatu / plantxatu'. ▲ Sin. *jantzi*. ◆ **arropa zuri** (> *arropa zwia*). *Barruko arropĭa, izarak-eta dĭa arropa zwia* 'barruko [azpiko] arropa, izarak-eta dira arropa zuria'. ◆ **jaiezko arropa**. Jai egunetan janzten den arropa. *Jaiezko arropak*. ◆ **lanezko arropa** (eta *llanezko arropa*). Lan eguneko arropa, astegunetako arropa. [Desberdindu egiten dira *llanezko arropa* eta *laneko arropa*]. *Llanezko arropĭa*. Ik. **laneko arropa**; **jaiezko arropa**.

arrotz, arrotz (1)

ARROTZ

extraño, -a; ajeno, -a

arrotz[1] adj./iz. Bertakoa ez dena; ezezaguna. *Ardi arrotza* (Iza Alts). Artaldekoa ez den ardia.

arrotz, arrotza (2)

ARROZ

arroz

arrotz[2] iz. Arroza [alea]. *Primeran dakiai arrotza prepatzen* 'primeran dakite arroza preparatzen'. *Guai arrotz-ura yaten du esenien ordez* 'orain arroz-ura edaten dugu esnearen ordez'.

arrotzada, arrotzadia

ARROZ-ESNE

arroz con leche

arrotzada iz. Arroz-esnea. *Ondo bazkalduta zon, ala're patekada arrotzada aixe jan dau* 'ondo bazkalduta zegoen, hala ere platerkada arroz-esne aise jan du'.

arrua ARROA

arroba [medida de peso y capacidad]

arrua iz. Arroa, pisu eta edukiera neurria. *Arrua bat* (Ond Bak). Ik. **errau** (?).

arruinatu, arruinatzen PORROT EGIN / ERAGIN

porrot in

quebrar, hacer quiebra, hacer bancarrota

arruinatu *da/dau* ad. Porrot egin, porrot eragin. Ik. **porrot egin**. Ik. **etxea jan** (> *etxĭa jan*).

arrupapeko ARRABIO; UHANDRE

salamandra (Salamandra salamandra)
salamandra acuática, (tritón)

arrupapeko iz. (Zool.) Arrabioa; uhandrea*. Ik. **arrikopiko**.

arsaldo, arsaldua ARSALDO

artalde

rebaño de ovejas

arsaldo iz. Artaldea. *Zenbat buru diatzizu arsaldwortan?* 'zenbat buru daramazkizu / daramatzazu arsaldo horretan? ▲ Sin. *artalde*.

arta-porka ARTO KORDA

maiz-porka

ristra de maíz

arta-porka iz. Arto korda (Ond Bak). ▲ Sin. *maiz-porka*.

artai, artaia ARTEGI

arditai, tai

redil, aprisco; cualquier tipo de construcción destinada a guardar las ovejas

artai iz. Artegia. ▲ Sin. *arditai*, *tai*. Ik. **arditxe**.

artakozkor ARTO-KOSKOR

koskol

panoja/mazorca desgranada

artakozkor iz. Arto-koskorra. *Sartu ziain artakozkor bat* 'sartu zioten arto-koskor bat' (Ond Bak). ▲ Sin. *koskol*.

artalde, artaldia (1) ARTALDE

arsaldo

rebaño de ovejas

artalde[1] iz. Ardiz osatutako taldea. ▲ Sin. *arsaldo*.

artalde, artaldia (2) ARTALDE* [ARTASOROEN EREMUA]

maizalde

campos de maíz; conjunto de los campos de maíz, patatas, etc., menos cereales

artalde[2] iz. (Nekaz.) Artoz-eta landutako lurrak: artoz, patataz...; zereal ez beste laborez ereindako soroak. ▲ Sin. *maizalde*. Zerealez ereindako soro multzoari «galalde» hots egiten zaio. Urtetik urtera txandakatu egiten dira *artaldea* eta *galaldea*. Ik. **galalde**.

artamotx, artamotxa

ARTABURU MOTZ

maiz motx

mazorca mocha [pequeña o pelada]

artamotx iz. Artaburu motza. *Artamotxak, artaburu txikiek eta hosto beikwek: porkatan jartzen ez dianak* 'arto motzak, artaburu txikiak eta hosto gabekoak: kordatan jartzen ez direnak'. ▲ Sin. *maiz motx*.

atzo adb. *Atzo etor(i) zĭan inarak* 'atzo etorri ziren enarak'. ◆ **atzoti(k)**. *Atzoti duka kalenturĭa* 'atzotik dauka kalentura' ◆ **atzoko 1** adj. *Mendien eman genduen atzoko eguna* 'mendian eman genuen atzoko eguna'. *Atzoko ogia*. **2** adb. (?) *Atzoko despeitwik ibil ber yen lana* 'atzoko despediturik ibili behar huen lana'. ◆ **atzokua (ez) izan**; **atzo goizekua (ez) izan** (?). ◆ **atzoko kontua (ez) izan**. *Oi ezta atzoko kontua* 'hori ez da atzoko kontua'.

atzoko, atzokua

ATZOKO

de ayer
para ayer

atzoko
– Atzoko ogia
– Atzoko despeituik ibil ber hien lana.
– atzoko kontua. Hoi ezta atzoko kontua.

atzoti(k)

ATZOTIK

desde ayer

atzoti(k).

aukera

AUKERA

eskei

opción
variedad, surtido, selección; abundancia

aukera iz. *Guai do aukerĭa lurra yosteko* 'orain dago aukera lurra erosteko' (LM). Ik. **eskei**. ◆ **aukeran** adb. [Aztertu, adibideekin: opción; elección; variedad, surtido, selección; abundancia; ocasión, oportunidad]. ¬

aukeratu, aukeratzen

AUKERATU

elejitu

elegir, escoger

aukeratu *dau* ad. ▲ Sin. *elejitu*.

aulinabar, aulinabarra

EULI NABAR, EZPARA, ITEULI

tábano bovino (Tabanus bovinus)

aulinabar (eta *yauli nabar* [Urdiain]) iz. (Zool.) (Ond Bak) Euli nabarra, ezpara, iteulia (Tabanus bovinus). [Mosca muy pequeña, pica al ganado]. Ik. **yauli**.

auntzu, auntzua

ANTZU

estéril

auntzu adj. Antzua. [*auntzu* eta *matxor* hitzek ez dute esanahi bera].

auntzutu

ANTZUTU

volverse estéril; esterilizar
escosar (Dicho de una hembra de animal doméstico: Dejar de dar leche)

auntzutu **1** *da/dau* ad. Antzutu, antzu bihurtu; fruiturik, umerik edo dagokionik ematen ez duela. **2** *da* ad. Etxeko abere emeengatik hitz eginez, esnea ematetik gelditu. *Etxeko beia auntzutu da* 'etxeko behia antzutu da'.

aupa!

AUPA

animo, segi aurria

¡aúpa!, ¡ánimo!

aupa **1** interj. ▲ Sin. animo, segi aurrĭa. **2** interj. Haur. Jarrita dagoenari altxatzeko esaten zaion hitza.

aupas

BESOETAN

coger en brazos (voc. infant.)

aupas Haur. Besoetan; aupas hartu. Besoetan hartu.

aupatu, aupatzen

AUPATU

jaso, altxatu

levantar

aupatu *dau* ad. Haurra aupatu. ▲ Sin. jaso, altxatu.

auri, auria

EURI

lluvia

auri iz. Euria (Ond Bak). Ik. **yauri**.

aurki (1)

AURKI

laister

pronto, enseguida, en breve, dentro de poco tiempo

aurki[1] adb. Berehala (Iza Alts). ▲ Sin. *laister*.

aurki (2)

AURKI

nunbait, apiki

al parecer, ciertamente, sin duda

aurki[2] adb. Antza, dirudienez. *Jenaro da aurki*. (Ond Bak). ▲ Sin. *nunbait*, *apiki*.

aurpegi, aurpegia

AURPEGI

musu, kara. 2 mutur

cara, rostro, semblante
desfachatez, descaro

aurpegi **1** iz. *Aurpegia estalik dekana* (Ond Bak). ▲ Sin. *musu*, *kara*. ◆ **aurpegi zimurra paratu** (> *patu*), **jarri**. Aurpegi txarra paratu, ['betondoa ilundu', 'kopeta ilundu' (poner mala cara)]. **2** iz. Azala, kopeta. iz. *Orrek jukak aurpegia, orrek!* 'horrek zaukak azala, horrek'. Ik. **mutur**.

aurre

AURRE

aurrekalde, frente

atze, atzekalde

parte anterior; delantera, fachada, frente
delante (de), ante
antes (de)

aurre iz. *Patazu maia aurri'ortan* 'para ezazu mahaia aurre horretan'. *Oi beti aurrĭen, beti aurreti* 'hori beti aurrean, beti aurretik'. || *Bi katilu, aurrien* 'bi katilu, aurrean' (Ond Bak). Ik. **aurretxo**; **aurrera**. ▲ Sin. *aurrekalde*, *frente*. ▼ Anton. *atze*, *atzekalde*. ◆ **aurrea hartu** (> *aurrĭa artu*). ◆ **aurre egin** (> *aurre in*) *dia* ad. *Katuek aurre in dĭa txakurrai* 'katuak aurre egin dio txakurrari'. Ik. **jarki**; **enfrentatu**; **kontra egin** (> *kontra in*). ◆ **aurrez aurrez**. Ik. **parez pare**. ◆ **aurreti(k)** **1** *Artzaia aurreti ziyuen, bidia ondo zakielako* 'artzaina aurretik zihoan, bidea ondo zekielako'. **2** Hasierakoa. *Ensaladĭa janko du aurreti* 'entsalada jango dugu aurretik'. *«Hesian» musika taldĭek joko dau aurreti* 'Hesian musika taldeak joko du aurretik'.

aurre in

AURRE EGIN

jarki, enfrentatu

hacer frente, afrontar, encarar; enfrentarse

aurre egin (> *aure in*). *Katuek aurre in dĭa txakurrai* 'katuak aurre egin dio txakurrari'. Ik. **jarki**; **enfrentatu**; **kontra egin** (> *kontra in*).

aurreako

AURRERAKO

aurrerako (> *aurreako*, *aurriako*) adb. ◆ **aurrerako autzi*** (> *aurreako autzi*, *aurriako autzi*). *Axui artxuék aurreáko auzten dia* 'axuri artxoak [axuri emeak] aurrerako uzten dira' (Ond Bak). ◆ **aurrerako egon** (> *aurrĭako yon*). Ernari egon; haurdun egon; umedun egon. Ik. **ernai**.

aurreako hazi / aurreako autzi

BIZITARAKO HAZI, BIZITARAKO UTZI

ume-hazi

criar un animal no para sacrificarlo, sino para que viva o para procrear

aurrerako hazi (> *aurreako azi*, *aurriako azi*). Bizitarako hazi, bizitarako utzi. Animalia, hiltzeko ez, etxerako edo ugaltzeko utzi. Ik. **ume-hazi**.

aurreatu, aurreatzen

AURRERATU

adelantatu

atzeatu / atziatu

adelantar(se), avanzar
adelantarse, anticiparse, tomar la delantera
adelantar, rebasar, pasar
avanzar, mejorar, progresar
ahorrar; prestar (dinero)
avanzado, -a; adelantado, -a

aurreratu (> *aurreatu*, *aurrĭatu*). **1** *da/dau* ad. Aurrera egin, aurrera joan; aurrerago jarri. *Aurrĭatu zaitez pixkat, eztwazu auzten ikusten da* 'aurrera zaitez pixka bat, ez didazu uzten ikusten eta'. **2** *zaio* ad. Aurrea hartu. *Akabo zizak; norbait aurrĭatu zaira* 'akabo zizak; norbait aurreratu zait'. **3** *da/dau* ad. *Erlojua aurrĭatu iten zaira* 'erlojua arreratu egiten zait'. *Meza ordua aurrĭatu in dai* 'meza ordua aurreratu egin dute'. ▲ Sin. *adelantatu*. ▼ Anton. *atzeatu*. **4** *da/dau* ad. Aurrerapenak egin; aurrerapenen bat lortu. **5** *dau* ad. Aurreztu. Ik. **aurretu** [Bakaiku]; **juntatu**. **6** *dĭa* ad. Mailegatu. *Dirua aurrĭatu dĭa (jeak / jean)*. **7** (Era burutua izenondo gisa). **aurreratu(a)** (> *aurreatua*, *aurrĭatua*). *Persona aurreatua*. ▼ Anton. *atzeatu(a)*. ◆ **aurreratu(t)a**, **aurreraturik** (> *aurreatuta*, *aurrĭatuta*; *aurreatuĭk*, *aurrĭatuĭk*). *Garia aurriatwik eldu da aurten* 'garia aurreraturik heldu da aurten'. ¬

aurreatua

AURRERATU(A)

atzeatu(a)

adelantado, -a; avanzado, -a

aurreratu(a) adj. *Persona aurreatua*. ▼ Anton. *atzeatu(a)*.

aurreatzaile, aurreatzailia

AURRERATZAILE

aurreratzaile (> *aurreatzaile*, *aurriatzaile*) iz. Aurreztailea.

aurrekalde, aurrekaldia

AURREALDE

aurre

atzekalde

parte delantera, parte anterior; fachada; anverso

aurrekalde iz. Aurrealdea. *Etxĭen aurrekaldĭa* 'etxearen aurrealdea'. Ik. **fatxada**. Ik. etxien atzekaldia. ▲ Sin. *aure*. ▼ Anton. *atzekalde*.

aurreko batien

AURREKO BATEAN

en una ocasión anterior, en otra ocasión, anteriormente, la otra vez

aurreko batean (> *aurreko batĭen*) adb. *Aurreko batĭen periodikwek zekan berria* 'aurreko batean periodikoak zekarren berria'.

aurreko, aurrekua

AURREKO

2 lehenoko, aintzineko

anterior, de delante; delantero, -a
antecesor, -a; ascendiente; antepasado, -a

aurreko **1** adj. Lekuaz edo denboraz mintzatuz, aurrean edo aurretik dena edo dagoena. *Aurreko egunĭako dana prepatwik zukain* 'aurreko egunerako dena preparaturik zeukaten'. || Batak besteari diosala etzionean esaten, batak: —"Aurrekoa non dok", ta besteak: —"Itxuak eamaten dok aurrekoa" (?) (Ond Bak). **2** iz. (Batez ere pl.) aurrekoak (> *aurrekwek*). ▲ Sin. *lenoko*, *aintzineko*. ◆ **aurreko batean** (> *aurreko batĭen*) adb. *Aurreko batĭen periodikwek zekan berria* 'aurreko batean periodikoak zekarren berria'.

aurrerabide, aurrerabidia

AURRERABIDE

medio u ocasión para avanzar/progresar

aurrerabide (eta *aurrĭabide*) iz. *Lantokiek itxi tuai ta zaila do hemen aurrerabidĭa* 'lantokiak itxi dituzte eta zaila dago hemen aurrerabidea'.

aurresku, aurreskua

AURRESKU

aurresku

aurresku iz. Euskal dantza.

aurreti(k)

AURRETIK

delante (de), por delante (de)
antes (de), antes (que); anteriormente, de antemano, previamente

aurreti(k) **1** *Artzaia aurreti ziyuen, bidia ondo zakielako* 'artzaina aurretik zihoan, bidea ondo zekielako'. **2** Hasierakoa. *Ensaladĭa janko du aurreti* 'entsalada jango dugu aurretik'. *Hesian musika taldĭek joko dau aurreti* 'Hesian musika taldeak joko du aurretik'.

aurretu

AURRERATU, AURREZTU

ahorrar

aurretu [Bakaiku] *dau* ad. Aurreratu, aurreztu. Ik. **aurreratu**.

aurretxo

AURRETXO, AURRE

delante (de)

aurretxo iz. Adkor. Aurrea. *Patazu maia aurretxu'ortan* 'para ezazu mahaia aurretxo horretan'. Ik. **aurre**. – **aurretxoan** (> *aurretxwen*). [tokikoa, bai; denborazkoa?]

aurria

AURRERA

adelante, hacia adelante
a (la) presencia de, delante de

aurrera (> *aurrea*, *aurrĭa*) **1** adb. *Nekatuik yonda're aurrĭá segitu genduen* 'nekaturik egonda ere aurrera segitu genuen'. **2** adb. *Biertik aurrĭa itxik yonen da tabernĭa* 'bihartik aurrera itxirik egonen da taberna'. Ik. **oraindik aurrera** (> *gwaitik aurrĭa*); **hemendik aurrera** (> *emetik aurrĭa*). **3** interj. Ik. **segi aurrera** (> *segi aurrĭa*); **animo**. ◆ **aurrera egin** (> *aurrĭa in*). *Ezerbe gelditu zan bea aurrĭa in dau* 'ezer gabe gelditu zen baina aurrera egin du'. ▼ Anton. *atzĭa in*. ◆ **aurreraz* bidaldu** (> *aurrĭaz bialdu*). Aurrean bidali. [aurrez* bialdu (?)]. ◆ **aurreraz* eraman** (> *aurrĭaz yan*). Aurrean eraman [aurrez* yan (?)]. ◆ **aurrera jo** (> *aurrĭa jo*). *Aurrĭa jo berko du al dan moduen* 'aurrera jo beharko dugu ahal den moduan'. ◆ **aurrera tiratu** (> *aurrĭa tĭatu*). Aurrera egin, aurrera jo. ◆ **aurrerako** (> *aurreako*, *aurriako*) adb. ◆ **aurrerako autzi*** (> *aurreako autzi*, *aurriako autzi*). *Axui artxuék aurreáko auzten dia* 'axuri artxoak [axuri emeak] aurrerako uzten dira' (Ond Bak). ◆ **aurrerako egon** (> *aurrĭako yon*). Ernari egon; haurdun egon; umedun egon. Ik. **ernai**. ◆ **aurrerako hazi** (> *aurreako azi*, *aurriako azi*). Bizitarako hazi, bizitarako utzi. Animalia, hiltzeko ez, etxerako edo ugaltzeko utzi. Ik. **ume-hazi**.

aurria in

AURRERA EGIN

atzia in

avanzar; seguir adelante

aurrera egin (> *aurrea in*, *aurrĭa in*). ▼ Anton. *atzĭa in*.

aurriaka(n)

AURRERAKA

atziaka(n)

avanzando; andando hacia adelante

aurreraka(n) (> *aurreakan*, *aurrĭakan*) adb. ▼ Anton. *atziaka(n)*.

aurriaz

AURREAN BIDALI

echar, expulsar
llevarse por delante a alguien o algo

aurreraz* (> *aurreaz*, *aurriaz*). ◆ **aurreraz* bidaldu** (> *aurriaz bialdu*). Aurrean bidali. ◆ **aurreraz* eraman** (> *aurriaz yan*). Aurrean eraman.

aurrien

AURREAN

aurrean (> *aurrien*). *Bi katilu, aurrien* 'bi katilu, aurrean' (Ond Bak). ◆ **aurrean* bidaldu** (> *aurrien bialdu*). Ik. **aurriaz**.

aurrizare, aurreizaria

IZARA, ALDARE-ZAPI ⌈BEDERATZIURRENETAN

mantel usado en el novenario

aurrizare iz. (Erl.) *Aurrizaria: hogien patzen dan oihala argizaiekin eta bi kandelero ziriuekin, bat hiltzen dan garaien bedratziurrena iteko ta arimasaiokuen ere* 'aurrizara: hobian [hildakoen elizkizunetarako elizako lekua] paratzen den oihala argizariekin eta bi argimutil kandelekin, bat hiltzen den garaian bederatziurrena egiteko eta urteurrenekoan ere'. *Aurrizare bat* (Ond Bak). Ik. **izara**.

aurten

AURTEN

este año, el año presente

aurten adb. *Aurten izanko dĭa elekziuek* 'aurten izango dira hauteskundeak'. ◆ **aurtengo** adj. *Akabo aurtengo fiestak!* 'akabo aurtengo festak!'. ◆ **aurtengo urte**. Aurten. *Aurtengo urtĭa*. *Aurtengo urtĭa ona baindo obiokua espĭa du* 'aurtengo urtea ona baino hobeagoa espero dugu'.

aurtengo urte, aurtengo urtia

AURTEN

este año, el año presente

aurtengo urte. Aurten. *Aurtengo urtĭa*. *Aurtengo urtĭa ona baindo obiokua espĭa du* 'aurtengo urtea ona baino hobeagoa espero dugu'.

ausardi, ausardia

AUSARDIA

atrevimiento, osadía, valor, audacia, valentía

ausardi iz.

ausartu, ausartzen

AUSARTU

atrebitu

atreverse, osar

ausartu *da* ad. ▲ Sin. *atrebitu*.

auski

EUTSI, HELDU, EDUKI

agarrar; sostener, apoyar

auski (eta *yauski*) *dia* ad. Eutsi, heldu, eduki (Ond Bak). Ik. **autsi**.

auskolo AUSKALO

fan da bila!, batek daki!, jakintazu!; utakio

a saber, quién sabe, vete a saber, cualquiera sabe, Dios sabe

auskolo interj. Auskalo. *Nwa fan don Garazi? —Auskolo!* 'nora joan dun Garazi? —Auskalo!'. ▲ Sin. *fan da bila*; *batek daki*; *jakintazu; zazi*; *utakio*. ◆ **auskolo zer**. *Eskutati opeatu nitzaken auskolo zer, eta botonak ezin lotu* 'eskuetatik operatu ninduan auskalo zer [erabateko soluzioa zelakoan], eta botoiak ezin lotu'. ◆ **auskolo nola**. *Auskolo nola ibili zian bilan* 'auskalo nola [ezin imaginatu nola] ibili ziren bila'. *Butik, auskolo nola!* 'burutik, auskalo nola [imajinatu ere ezin]'.

auto, autua AUTO

automobil, kotxe

auto, automóvil, coche

auto iz. *Autwa, baztar guzitan* 'autoa, bazter guzitan'. Ik. **automobil**. ▲ Sin. *kotxe*.

autobus, autobusa AUTOBUS

autobús

autobus iz. *Autobusa puntwal etorri da* 'autobusa puntual etorri da'. *Emengo autobusai "burundesĭa" esaten dĭagu* 'hemengo autobusari "burundesa" esaten diogu'.

automobil, automobila AUTOMOBIL

auto, kotxe

automóvil, coche, auto

automobil iz. Ibilgailu motorduna. ▲ Sin. *auto*, *kotxe*.

autsi, austen EUTSI

heldu, sujetatu

sujetar, agarrar

sujetar, sostener, mantener, aguantar

autsi[1] **1** *dĭa* ad. Eutsi. *Autsiozu pixkatĭen soka mutur oni* 'eutsiozu pixka batean soka mutur honi'. *Near iteko gogwai ezin autsi yon da* 'negar egiteko gogoari ezin eutsi egon da'. Ald. *auski*, *yauski* (Ond Bak). ▲ Sin. *heldu*, *sujetatu*. **2** *dau* ad. Iraun. *Guaindo fabrikĭek austen dau* 'oraindik fabrikak eusten [irauten] du'.

autsi, autsia XUHUR, EUTSI

eskuximur, zuhurra — *eskuzabal, emantzaile*

tacaño, -a, rácano, -a, avaro, -a

autsi[2] adj. Xuhurra, eutsia. ▲ Sin. *eskuximur*, *zuhur*. ▼ Anton. *eskuzabal*, *emantzaile*.

autsikan EUTSIKA

aguantando, conteniendo; agarrando

autsikan adb. Eutsika. Txixakurriai autsikan. Kakakurriai autsikan. *Besotik autsikan ibili da amakin pasĭen* 'besotik eutsika ibili da amarekin pasieran'.

autzi, autzia (2) UTZI (2)

jarein(a); abandonatu (2); adana

dejado, -a, abandonado, -a, desaliñado, -a

autzi[2] adj. Bere egitekoez arduratzen ez dena, zabarra. *Oi aurran autzia* 'hori haurraren utzia'. ▲ Sin. *abandonatu*. Ik. **adana**; **jaregin(a)** (> *jareina*, *jaraina*); **tresondagarri**.

autzi, auzten

UTZI (1)

abandonatu

hartu

dejar
permitir, dejar, consentir
abandonar, dejar
ceder, prestar, dejar
legar, dejar
dejar de

autzi[1] (eta *utzi* [Bakaiku]) **1** *dau* ad. *Autwen giltzak tabernan aztuta autzi tuzu* 'autoraren giltzak tabernan ahaztuta utzi dituzu'. **2** *dau* ad. *Etxien ez twai faten autzi* 'etxean ez didate joaten utzi'. *Bakĭen autzi* 'bakean utzi'. **3** *dau* ad. *Lana autzi dau* 'lana utzi du'. **4** *dĭa* ad. *Libu au autzi dwa* 'liburu hau utzi dit'. **5** *dĭa* ad. *Etxĭa ezpa, zukatziain ondasun guztĭek autzi deatziai* 'etxea izan ezik, zeuzkaten ondasun guztiak utzi dizkiote'. **6** *dĭa/dau* ad. *Jatĭai autzi* 'jateari utzi'. *Tabakwa autzi* 'tabakoa utzi [erretzeari utzi]. || *Artxuék aurrreáko auzten dia. Autzi hori bakien. Jesusek autzi zegun 'zigun' (despertadorea)* (Ond Bak). ◆ **autzi behar halakoari** (> *autzi ber alakoi*). *Patatia? Autzi in ber zaio etxekwai* 'patata? Utzi egin behar zaio etxekoari'. ◆ **alde batera autzi** (> *alde batĭa autzi*). ¬

auxo, auxua

AXO

cabrita

auxo iz. Axoa, antxume emea. *Antxuma: auxuá ta akerra* (Ond Bak). Ik. **antxuma**; **saila**[2] / **xaila**.

auzalan, auzalana

AUZOLAN

trabajo vecinal, trabajo comunal; trabajo en común de todos los vecinos; vereda

auzalan iz. Auzolana, herrikoen arteko elkarlana. *Santamaina bezpĭan iten zian auzalanak* 'Santamarina bezperan egiten ziren auzolanak'. • Esr. zah. *Auzalan, etxien jan da kanpuen lan* 'auzolan, etxean jan eta kanpoan lan'.

auzate (?)

AUZO OTORDU

aperitivo o refrigerio que con motivo de alguna celebración se da a toda la vecindad

auzate (?) iz. Auzokoen arteko otordua. Ik. **alboka**.

auzo-dei, auzo-deia

BATZAR-DEI

convocatoria de reunión

auzo-dei iz. Batzar-deia, auzora biltzeko deia [*auzoa*: herriaren etxeko 'udaletxeko' batzar gela].

auzo, auzua

BATZAR ARETO, BATZAR GELA

sala de juntas

auzo iz. Herriaren etxeko batzar gela; herria batzarrean biltzen den gela. *Herrientxeko auzwen biltzen da jendĭa* 'Herriaren etxeko auzoan biltzen da jendea'.

auztaile, auztailia (?)

EMAILE

dejador, ra

auztaile adj./iz. Besteei bereak diren gauzkak uzten diena, eskuzabala. Ik. **emataile**.

axa!

XAXA! (XAXATU)

azuzar (expresión para azuzar a los perros)

axa interj. Xaxa, xaxatu. Txakurrari esaten zaio norbaiti kosk egin diezaion. *Axa orri!* 'xaxa horri!'. Ik. **axatu**.

axai zulo, axai zulua
AZERI ZULO

axai koba

madriguera de zorro, zorrera, raposera

azeri zulo (> *axei zulo*, *axai zulo*). ▲ Sin. *axei koba*, *axai koba*.

axal
AZALEKO

sakon

poco profundo, superficial

axal adj. Azalekoa. Axal-axala. ◆ **axal-axalean** (> *axal-axalĭen*) adb. *Ur axal-axalĭen ibiltzen dĭa amurraiek* 'ur azalean ibiltzen dira amuarrainak'. Ik. **azal**. ▼ Anton. *sakon*.

axatu, axatzen
XAXATU

azuzar (sobre todo refiriéndose a los perros)
azuzar, inducir, provocar [para la lucha]

axatu *dau** ad. Xaxatu. *Txakurrak axatu*. *Axa horri!* Txakurrari esaten zaio norbaiti hozka egin diezaion.

axei buztan, axei buztana
AZERI-BUZTAN

cola de caballo, equiseto (Equisetum sp.)

azeri-buztan (> *axei buztan*). (Bot.) (Equisetum arvense).

axei, axeia
AZERI

zorro (común), zorro (rojo), raposo (Vulpes vulpes)
astuto, -a; taimado, -a

azeri (> *axei*, *axai*) **1** iz. (Zool.) (Vulpes vulpes) *Axei zarrak banaka arrapatu ta yaten tu oiluek oilateitik; axei gaztiek, danak arrapatu eta yan nai* 'azeri zaharrak banaka harrapatu eta eramaten ditu oiloak oilategitik; azeri gazteak, denak harrapatu eta eraman nahi'. **2** adj. Pertsonengatik esanda, maltzurra. ◆ **azeri-buztan** (> *axei buztan*). (Equisetum arvense). Landarea. *Batzĭa ongarritzeko ona da axei buztanan ura* 'baratzea ongarritzeko ona da azeri buztanaren ura'. ◆ **azeri koba** (> *axei koba*, *axai-koba*). ◆ **azeri txakur** (> *axei txakur*, *axai txakur*). *Axeitako txakurra*. ◆ **azeri zulo** (> *axei zulo*, *axai zulo*). ▲ Sin. *axei koba*.

Axerko
AXERIKO

personificación del zorro en los cuentos

Axerko iz. Axeriko. Azeriaren pertsonifikazioa ixinpluetan [ipuinetan] (Ond Bak).

axilimokan
EZKUTAKETAN [JOLASA]

axilimokan adb. Ezkutaketan [jolasa]. Ald. *atxilinbokan ibili* (Ond Bak) (A la gallina ciega). Axilimokan (jolasa)(Urdiain). – *Izarrak axilimokan ibil ziaken urte batien*.

axkola
AIXKOL (?)

almorta, muela, guija, tito

axkola iz. (Bot.) Aixkola (Lathyrus sativus) (Iza Alts).

axpixun, axpixuna
AZPIZUN

solomillo

azpizun (> *axpixun*) iz.

axui
AXURI

cordero recién nacido

axuiketai, axuiketaia

AXURI SALEROSLE, AXURI TRATULARI

tratante de corderos

axuiketai iz. Axuri saleroslea, axuri tratularia. (Axuriak erosten dituena).

axuri, axuria

AXURI

cordero recién nacido

axuri (> *axui*) iz. *Axuia: txiki jaio-berria. Axui ariko bat dekau (aurreáko)* 'axuri-ahariko bat daukagu (aurrerako)' *Ardiyék haziko dau axúri.* ◆ **axuri-artxo** (> *axui-artxo*). Axuri emea.

axurki, axurkia

AXURIKI, ARKUMEKI

carne de cordero lechal

axuriki (> *axurki*) iz. Axuriaren okela. *Bajakiei axurkia prepatzen* 'bazakitek axurikia preparatzen'. Ald. *axuki* (Ond Bak); *Axukiya eman gindan aitai* 'axurikia eman genion aitari'. Ik. **ardiki**.

axurtai, axurtaia

AXURTEGI

redil, aprisco, cerrado donde se guardan los corderos separados de sus madres

axurtegi* (> *axurtai*) iz.

aza orri, aza orria

AZA-ORRI

hoja de berza

aza orri. Aza-hostoa.

aza, azia (1)

AZA

col, berza, repollo (Brassica oleracea)

aza[1] iz. (Bot.) (Brassica oleracea). *Nei amak aza azpien bilatu zuan* 'niri [ni] amak aza azpian bilatu [aurkitu] zidan [ninduen]'. Ik. **azaburu**. ◆ **aza orri**. Aza-hostoa. *Azien barreneko ostwa* 'azaren barreneko hostoa'. ◆ **azak eman**. *Guaixe eman duatzizu, [duatzik/duatzin] azak, guaixe!* (bestearen ezin eztabaidatuzko argudioaren aurrean esaten dena) (*Guai joditu duak, guai!*).

aza, azia (2)

ZEIO, OPAITZUR, AASA [OEH]

zaio; azalki

azuela

desbastadora manual; cuchilla con dos mangos para desbastar

aza[2] **1** iz. Zeioa, opaitzurra, zura arbastatzeko aitzurra. Ik. **zaio**. ◆ **eskuzko aza**. *Eskuzko azĭa*. Zura arbastatzeko tresna, bi eskutoki dituena. Ik. **azalki**.
[Ik. OEH. **aasa**. (V ap. A), **aaxia**(det.). "Llana o cuchilla de dos asas que usan los barrileros" A. " Aasea, kirten biko aizto aundi bat. Beresietan miauri edo gaztaña landarakaz estrabeak egin, eta gero onekaz otzarak, zaranak eta otarrak egiteko egokia da (V-m)" (...)].

azaburu, azaburua

AZABURU

repollo/cogollo de la berza

azaburu iz. Aza-hostoak biltzen diren burua. Ik. **aza**[1].

azal, azala AZAL

3 kaskal

piel, pellejo
piel, corteza, cáscara
superficie; superficial

azal **1** iz. Azal txuia. **2** iz. Larru gogorra, kopetaduna. **3** iz. *Arbolien azala*. *Naranja azala*. *Ogi azala*. *Azal da guzti jaten tut sarrak* 'azal eta guzti jaten ditut sagarrak'. Ik. **kaskal**. **4** iz. Azalekoa, gainaldea. Ik. **axal**; **axal-axala**. ◆ **azal-huts**. Mehea; hezur-huts. Ik. **narru**, **larru**. ◆ **azala izan**. *Hoi da azala!* Ik. **lotsabeiko**.

azalki ESKUKO ARBASTAGAILU (?)

eskuzko aza

desbastadora manual

azalki iz. Zura arbastatzeko tresna; kirtenak-eta egiteko zura arbastatzeko lanabesa (JMS). Ik. **aza**[2].

azaro, azarua AZARO

noviembre

azaro iz. Urteko hamaikagarren hila. *Domisantu egunakin asten da azarwa* 'Domu Santu egunarekin hasten da azaroa'. *Azarwa, jeneralien, aizetsua ta yauritsua* 'azaroa, jeneralean, haizetsua eta euritsua'.

azeituna, azeitunia AZEITUNA, OLIBA

oliva, aceituna

azeituna iz. Oliba. *Azeituna beltzak*. *Eskatazu bi bermú ta azeituna batzuk, mesedez* 'eska ezazu bi bermut eta azeituna batzuk, mesedez'.

azelga, azelgia ZERBA

acelga (Beta vulgaris subsp. vulgaris)

azelga iz. (Bot.) Zerba (Beta vulgaris var. Cicla). *Azelgak albardatuta*.

azera, azeria ESPALOI

acera

azera iz. Espaloia. *Ezta arritzekwa azera gainien autwek aparkatuik ikustĭa* 'ez da harritzekoa azera gainean autoak aparkaturik ikustea'.

azertatu, azertatzen ASMATU

asmatu, aztatu *huts egin, fallo egin, fallatu*

acertar, atinar
adivinar, predecir

azertatu *dau* ad. Ik. **asmatu**; **aztatu**. ▼ Anton. *huts egin*, *fallo egin*, *fallatu*.

azertu, azertua AZERTU*

acierto

azertu iz. Azertua tiro trebetasunean. Azertua da. Azertu bat dok (?).

azi, azten ARAZI

palabra que precedida por la raíz de un verbo añade a este un valor factitivo

arazi (> *azi*) ad. Aditz arazleen atzizkia. Adibideak: *botazi*, *emanazi*, *kenduazi*, *pasarazi*...

azidente, azidentia

ISTRIPU, AKZIDENTE

accidente

akzidente (> *azidente*) iz. Istripua. *Gazteik il zan azidentien* 'gazterik hil zen istripuan'.

azien barreneko hostua

AZAREN BARRENEKO HOSTO

azaren barreneko hostoa (> *azĭen barreneko ostwa*). (?)

azienda

ONDASUN, OGASUN

ondasun

hacienda, bienes, riqueza, fortuna; conjunto de bienes y riquezas que alguien tiene.

azienda iz. Etxe eta lur ondasunak. *Batek dukatzien etxe eta soro guztiek dĭa aziendĭa* 'batek dauzkan etxe eta soro guztiek dira azienda'. Ik. **ondasun**.

azkar

AZKAR

laster, agudo, listo — *geldi, manso*

rápidamente, de prisa, con facilidad

azkar[1] adb. *Azkar ibili! Azkar intu lanak* 'azkar egin ditugu lanak'. Ik. **laster**. ▲ Sin. *laster*, *agudo*, *listo*. ▼ Anton. *geldi*, *manso*.

azkar, azkarra

AZKAR

bizi, pixkor. 2 listo, -a

listo, -a; despierto, -a; inteligente

azkar[2] **1** adj. Bizkorra. Ik. **bizkor**. ▲ Sin. *bizi*, *pixkor*. **2** adj. Buru argia. ▲ Sin. *listo / lista*.

azkarba, azkarbia

HATZ BIZAR

padrastro de los dedos

azkarba iz. Hatz bizarra, eskuetako azazkalen ondo-ondoan altxatzen den azala.

azkazal, azkazala

AZKAZAL. 2 APATX, APO

uña
pezuña

azkazal **1** iz. Azazkala. *Azkazal luzĭek* 'azkazal luzeak'. ◆ **azkazalak moztu**. **2** iz. Apatxa, apoa. iz. *Txerrien azkazalak* 'txerriaren azkazalak'.

azkein

AZKEN

atzen — *lenbizko, lenbiziko, lemizko (?)*

último, -a

azken (> *azkein*) ord. Azkena. Ald. *aizken* (Iza Alts), (Itrumendi) (KZ). Ik. **azkeneko** (> *azkeineko*) [Urdiain]. ▲ Sin. *atzen*. *Azkein aldia izan dailela* 'azken aldia izan dadila'. ▼ Anton. *lenbiziko*. ◆ **azken-aurreko** (> *azkein aurreko*) adj. ◆ **azkenean** (> *azkeinien*) adb. ◆ **azkeneko** (> *azkeineko*) adj. Azkena. Ik. **bigarren azkeinekua**; **hirugarren azkeinekua**. ◆ **azkenekoa izan (zerbait)** (> *azkeinekwa izan*). Azkena izan, aukera edo egokiera txarrena izan. *Moxkorreiai eman? Oi azkena dok!* 'mozkorkeriari eman? Hori azkena duk!'. ◆ **azkenekoz** (> *azkeinekoz*) adb. ◆ **azkenerako** (> *azkeiniako*) adb. ◆ **azkene(ra)koan** (> *azkeinekwen*) adb. ◆ **azkenekotan egon** (> *azkeinekotan yon*) adb. Azkenetan egon, hilzorian egon. ◆ **azken finean** (> *azkein finĭen*). Azken batean. ◆ **azken ordurako** (> *azkein orduako*) adb.

azkein finien
AZKEN FINEAN

al final, en último término, a fin de cuentas, en suma; en última instancia, en definitiva

azken finean (> *azkein finĭen*). Azken batean.

azkein orduako
AZKEN ORDURAKO

azken ordurako (> *azkein orduako*) adb.

azkeineko, azkeinekua
AZKENEKO

azkein, atzen *lehendabiziko*

último, -a

azkeneko (> *azkeineko*) adj. Azkena. Ik. bigarren azkeinekua; hirugarren azkeinekua. ◆ **azkene(ra)koan** (> *azkeinekwen*) adb.

azkeinekua izan (zerbait)
AZKENA IZAN

ser lo último

azkenekoa izan (zerbait) (> *azkeinekwa izan*). Azkena izan, aukera edo egokiera txarrena izan. *Moxkorreiai eman? Oi azkena dok!* 'mozkorkeriari eman? Hori azkena duk!'.

azkeinien
AZKENEAN

al final, al terminar
finalmente, por último
al fin, por fin; al cabo

azkenean (> *azkeinien*) adb.

azkenaldi, azkenaldia
AZKENALDI

final, tiempo final
últimamente, recientemente

azkenaldi iz. *Futbolĭen primeran jokatzen daitza azkenaldi ontan* 'futbolean primeran jokatzen dabiltza azkenaldi honetan'. ◆ **azkenaldi honetan** (> *azkenaldi ontan*). ◆ **azkenaldian** (> *azkenaldien*) adb.

azkonar, azkonarra
AZKONAR

tejón, tasugo (Meles meles)

azkonar iz. (Zool.) (Meles meles). *Azkonarrak arrapatzeko kajĭa* 'azkonarrak harrapatzeko kaxa'.

azkorra (?)
LINAZI

lihoazi

linaza

azkorra iz. Linazia, lihoaren hazia (JMS). Ik. **lihoazi**.

azkura, azkuria
AZKURA

picor, picazón, escozor, prurito
*rasquera**

azkura iz. *Ezin dot azkurĭau agwantatu* 'ezin dut azkura hau aguantatu'. ◆ **azkura ibili** [eduki] (> *azkurĭa ibili*). ◆ **azkura eman** (> *azkurĭa eman*). *Artilezko jersi'orrek azkurĭa ematen dwa* 'artilezko jertse horrek azkura ematen dit.

azkuria eman

AZKURA EMAN

picar; producir picor

azkura eman (> *azkurĭa eman*).

azkuria ibili / eduki

AZKURA IZAN / EDUKI

picar; sentir picor, tener picor

azkura ibili [eduki] (> *azkurĭa ibili*).

azorrazi

azorrazi iz. Linazia ateratzeko orrazia (JMS). (Peine para extraer la semilla de lino).

azote, azotia

AZOTE

látigo, azote
latigazo; castigo

azote iz. *A ze azotĭek mezi tú orrek* 'a ze azoteak merezi ditu horrek. Ik. **zigor**.

azpi, azpia (1)

AZPI

ondo[3] *gain*

parte inferior, parte de abajo
debajo de, bajo
dobladillo

azpi[1] **1** iz. *Ikustazu nola don oi'azpi oi* 'ikus ezazu nola daogen ohe azpi hori'. ▼ Anton. *gain*. Ik. **ondo**[3]. **2** iz. Azpildura, azpia. ◆ **azpia hartu** (> *azpĭa artu*). Azpildura josi. Ik. **azpilzana**. ◆ **azpian harrapatu** (> *azpien arrapatu*). *Trenak azpien arrapatu dau* 'trenak azpian harrapatu du'. ◆ **azpian hartu** (> *azpien artu*). Mendean hartu. Ik. **mendean hartu**. ◆ **azpi jan**. *Lurra eta azpitik kendu, ta bota iten da etxia* 'lurra-eta azpitik kendu, eta bota egiten da etxea' (Ond Bak). Ik. **azpijan**. ◆ **azpitik gora** (> *azpiti gora*, *azpiti gwa*) **1** adb. Behetik gora. **2** iz. **azpitigora** (> *azpitigorĭa*). Aldapa, behetik gorako aldapa; aldapa gora. ▲ Sin. *aldapa*, *gorantz(a)* [Bakaiku]. ▼ Anton. *goitibehera*, *beherantz*. ◆ **azpira joan** (> *azpĭá fan*). Ik. **hondora joan** (> *ondwa fan*).

azpi, azpia (2)

AZPI

kama

cama (de ganado)

azpi[2] iz. Abereendako etzauntza, etzalekua. (pl.) Azpiek 'azpiak'. Ik. **kama**. ◆ **azpiak atera** (> *azpiek ata*). Azpiak ukuilutik atera, azpi berriak egiteko. ▲ Sin. *ongarriek ata*. ◆ **azpiak egin** (> *azpiek in*). *Leno orbela ibiltzen zan ganaueiri azpiek iteko* 'lehenago [lehen, garai batean] orbela ibiltzen zen ganaduei azpiak egiteko'. ◆ **azpiak jaso** (> *azpiek jaso*). Azpiak atera.

azpiazal, azpiazala

(TXERRIAREN URDAI ATALA*)

hoja de tocino: Mitad de la canal del cerdo partido a lo largo

azpiazal iz. Txerriaren urdai atala. *Azpiazalak*. Ik. **urdai**. [hoja de tocino: Mitad de la canal del cerdo partido a lo largo].

azpibeltx, azpibeltxa

BARRENGORRI

champiñón silvestre (Psalliota campestris; Agaricus campestris, var. squamulosus)

azpibeltx iz. (Mikol.) Barrengorria; larreetan hazten den perretxiko zuria, jateko ona (Psalliota campestris; Agaricus campestris, var. squamulosus). Ik. **txanpiñon**; **ilarre-sulso**.

azpiek ata

AZPIAK ATERA

limpiar la cama [del ganado]

azpiak atera (> *azpiek ata*). Azpiak ukuilutik atera, azpi berriak egiteko. ▲ Sin. *ongarriek ata*.

azpiek in

AZPIAK EGIN

hacer la cama [al ganado]

azpiak egin (> *azpiek in*). *Leno orbela ibiltzen zan ganaueiri azpiek iteko* 'lehenago [lehen, garai batean] orbela ibiltzen zen ganaduei azpiak egiteko'.

azpiek jaso

AZPIAK JASO

limpiar la cama [del ganado]

azpiak jaso (> *azpiek jaso*). Azpiak atera.

azpijan, azpijana

AZPIJAN

desgaste; socavón; minado

azpijan iz. Zerbaitek azpiko lurra galtzea. ◆ **azpijana egin** (> *azpijana in*). ◆ **azpijanean ibili** (> *azpijanĭen ibili*) adb.

azpikalde, azpikaldia

AZPIALDE

barren, gainbekalde, bekalde

gainekalde; goikalde; goienkalde

parte inferior, parte de abajo

azpikalde iz. Azpialdea. ▼ Anton. *gainekalde*; *goikalde*; *goienkalde*. Ik. **barren**; **barrenkalde**; **gainbehekalde** (> *gainbekalde*); **behekalde** (> *bekalde*).

azpiko gona, azpiko gonia

AZPIKO GONA

gonbinazio

combinación, enagua(s)

azpiko gona. Gonaren edo soinekoaren azpian erabiltzen den azpiko arropa mehea, gerritik beherakoa edo gorputz osokoa. Ik. **gonbinazio**.

azpiko, azpikua

AZPIKO

inferior, subyacente, de fondo

azpiko **1** adj. Azpian dagoena. **2** adj. Mendekoa. Ik. **mendeko**. ◆ **azpiko gona** Gonaren edo soinekoaren azpian erabiltzen den azpiko arropa mehea, gerritik beherakoa edo gorputz osokoa. Ik. **gonbinazio**. ◆ **azpikoz gora** (> *azpikoz goa*, *azpikoz gwa*) adb. Azpian egon ohi dena gainean dagoela; nahas-mahas. Ik. **hankaz gora**.

azpikoz gua / azpikoz goa

AZPIKOZ GORA

al revés; patas arriba

azpikoz gora (> *azpikoz goa*, *azpikoz gwa*) adb. Azpian egon ohi dena gainean dagoela; nahas-mahas. Ik. **hankaz gora**.

azpilzana, azpilzania (?)

AZPILDURA

dolostura

dobladillo, repulgo
coger el dobladillo

azpilzana iz. Azpildura. Ik. **dolostura**. ◆ **azpilzana hartu** (> *azpilzanĭa artu*). Azpildura hartu. Ald. *azpiltzani* (Ond Bak). Ik. **azpia hartu**.

azpiti gora; azpitigoria

AZPITIK GORA

hankaz gora; 2 aldapa, gorantz(a) [Bakaiku]

goitibera, beherantz

de abajo arriba
al revés, boca abajo, patas arriba
(Sust.). subida, cuesta arriba

azpitik gora (> *azpiti gora*, *azpiti gwa*) **1** adb. Behetik gora. **2** iz. **azpitigora** (> *azpitigoriă*). Aldapa, behetik gorako aldapa; aldapa gora. ▲ Sin. *aldapa*, *gorantz(a)* [Bakaiku]. ▼ Anton. *goitibehera*, *beherantz*.

aztal, aztala

AZTAL

berna

talón
pantorrilla
(salpicaduras en la parte trasera del cuerpo o de la ropa)

aztal **1** iz. Orkatilatik belaunera doan zango zatia, bereziki atzeko alde mamitsua. Ik. **berna**; **orpo**. **2** iz. Batez ere pl. Aztalak dariola (> *aztalak daiola*). *Txibristinak aztalien* 'zipriztinak aztalean'. Korrikan edo bizikletan-eta ibiltzean, gorputzaren edo arroparen atzean jasotako lohi edo ur zikin zipriztinak. *Aztalak hartu* (Ond Bak). *Gona luze-luze batzúk aztalez josiík* (Iza Alts).

aztalzain, aztalzaina

HANKA ZAIN, AKILESEN ZAIN (?)

aztalmehea (edo aztal-mehea)

tendón de Aquiles (?)

aztalzain* iz. Hanka zaina (?). *Aztalzaina eta lepo-zaina moztuzkio, akabo* 'aztal-zaina eta lepo-zaina moztuz gero, akabo'. *Aztalzaina ebaitu* 'aztal-zaina ebaki'.

aztapatu, aztapatzen

ESTROPEZU EGIN, OZTOPATU

tropezar(se), entorpecer, trabar(se), obstaculizar

aztapatu *da* ad. Behaztopatu, estropezu egin, oztopatu. *Aztapatu in da* 'aztapatu egin da' (Ond Bak). *Aztapatu, ta ankazgwa* 'behaztopatu, eta hankaz gora'.

aztapo, aztapua

OZTOPO, BEHAZTOPA

ostopo, traba, yausgarri*

tropiezo, traspiés

aztapo iz. *Kontuen abil, aztapwa jok eta!* 'kontuan habil, oztopoa zagok eta!'. *Kálĭontati pasatu ber da bizikleta karreriá? Emen koskĭa ta aztapwa besteik eztó!* 'kale honetatik pasatu behar da bizikleta karrera? Hemen koska eta oztopoa besterik ez dago!'. Ik. **ostopo**. ▲ Sin. *ostopo*, *traba*, *yausgarri**. ◆ **aztapo egin** (> *aztapo in*). Oztopo egin.

aztarrika

AZTARRIKA

escarbando

aztarrika (> *aztarrikan*) **1** adb. *Batza guztĭa arrotu dai oilwek aztarrikan* 'baratze guztia harrotu dute oiloek aztarrika'. **2** iz. Irud. Lana, lan nekeza. *Ederrik aztarrika in diu mundu ontan* 'ederrik aztarrika egin diagu mundu honetan'. ◆ **aztarrika(n) ibili** adb.

aztarrika(n) ibili

AZTARRIKA IBILI

escarbando

aztarrika(n) ibili adb.

aztarrikatu, aztarrikatzen AZTARRIKATU

escarbar

aztarrikatu *dau* ad. *Oilwek aztarrikatu dai larrain guztĭa* 'oiloek aztarrikatu dute larrain guztia'.

aztatu, aztatzen ASMATU

asmatu, azertatu

acertar, atinar; adivinar, predecir

aztatu *dau* ad. Asmatu. Ik. **asmatu**; **azertatu**.

azti, aztia AZTI

adibinadora

adivino, -a, sortílego, -a, agorero, -a, pronosticador, -a

azti iz. ▲ Sin. *adibinadora*. Ik. **mago**.

azufre, azufria SUFRE

azufre

azufre iz. Sufrea. *Etxeko gelak desinfektatzeko erretzen zain azufrĭa* 'etxeko gelak desinfektatzeko erretzen zuten sufrea'.

azukara, azukaria AZUKRE

azúcar

azukara iz. Azukrea. *Azukara gutxi dekau*. *Azukari'au/oi/ura zikina do* (Ond Bak). ◆ **azukara ur (a)**.

azukareharri HAREHARRI (?)

hareharri (?)

arenisca (?)

azukareharri iz. Harri mota (Ond Bak). Harrigarratxa, hareharria (?).

azulejo, azulejua AZULEJU

azulejo

azulejo iz. Azulejua. *Azulejo aundiek patu tuai sukaldĭen* 'azuleju handiak paratu dituzte sukaldean'. Ik. **baldosa**.

azulete, azuletia ANIL

azulete

azulete iz. Arroparendako urdina, anil hautsa. *Azuletĭa eman dĭa txuitzeko kariai* 'azuletea eman dio zuritzeko kareari'. [Hormak zuritzeko kareari azuletea gehitzen zitzaion].

azundu, azuntzen AZUNDU

ernaldu

preñar o fecundar un animal

azundu *da/dau* ad. Ernaldu. (Iza Alts) [cruzar la cerda]. || *(Urdia) ezta azundu, ezta gelditu ernai* (Ond Bak). Ik. **ernaldu**.

ba (1) BADA

pues

ba[1] lokail. Bada. *Esan nian nik ba goiz etortzeko* 'esan nion nik ba goiz etortzeko. *Ze, ba?* 'zer, bada?'.

ba (2)

BA

¡anda!
¡bah!, ¡venga (ya)!

ba[2] **1** interj. Zerbait ikusteak edo gertatzeak eragiten duen harridura adierazteko hitza. Hara! *Ba!, emen zei ta* 'hara!, hemen zaudete eta'. ▲ Sin. *hónbre*. **2** interj. Zerbait sinesten ez dela, edo gutxiesten dela adierazteko hitza. *Ba, ba, ba!, ze aitu ber dun gwaindo!* 'ba, ba, ba!, zer aditu behar dugun oraino!'.

ba-

ba- junt. Txerrikumak jaten hasik balege! (Ond Bak). (Aurrizkia). Lehertuko balituzke 'ojalá'. Millon bat irabazko banuke (Ond Bak). Lehertuko balitz!

ba! (3)

BA!

¡va!

ba[3] partik. Abisua, pilota jokoan esaterako, sakea egin behar duenak aurkariari, edo apustua onartzerakoan.

baba leka, baba lekia

BABA LEKA

vaina de haba; haba verde
sinsustancia, persona insustancial

baba leka **1** *Baba lekak dé jateko* 'baba lekak daude jateko'. **2** adj./iz. Tentela.

baba malkar

BABA MALKAR

tallo del haba (seco y separado del grano)

baba malkar iz. Baba landarea; baba jo ondoren geratzen den lastoa. *Baba malkarrak, babak jo ondoko baba lastwa* 'baba malkarrak, babak jo ondoko baba lastoa'. Ik. **babalasto**.

baba txiki, baba txikia

BABA TXIKI

haba pequeña (Vicia faba var. minor)

baba txiki. Hazi txikiko baba barietatea (Vicia faba var. minor).

baba zabal, baba zabala

BABA HANDI (?)

haba grande (Vicia faba var. maior)

baba zabal. Baba handia; hazi handiko baba barietatea (Vicia faba var. maior) (?). *Pertzĩen yosita, baba zabala animalieri jateko ematen zezaien* 'pertzean egosita, baba zabala animaliei jateko ematen zitzaien'.

baba zapo, baba zapua

GURGURIO

gorgojo de las habas

baba zapo iz. Gurgurioa (Ond Bak), (Fam. Bruchidae eta Fam. Curculionidae).

baba zopa, baba zopia

BABA ZOPA

sopa de habas

baba zopa. Babarekin eta ogiarekin prestatzen den zopa.

baba zorri, baba zorria

KOKO

coco, gorgojo

baba zorri. (ez baba zapo). Koko ala gurgurio (zehaztu).

baba, babia

BABA

haba
ampolla

baba **1** iz. (Bot.) Baba (Vicia faba). *Aurten yaindako babĭa majo eldu da* 'aurten ereindako baba majo heldu da. *Baba berria, lekiekin jaten da* ' baba berria lekarekin jaten da'. **2** iz. Larruazalean, bereziki oin edo eskuetan sortzen den handitu urtsua. *Babak ata zaizkia eskutan*. Babak atera zaizkit eskuetan. *Babĭa lertu zaira; babak lertu zaizkĭa* 'baba lehertu zait; babak lehertu zaizkit'. ◆ **baba leka** **1** *Baba lekak dé jateko* 'baba lekak daude jateko'. **2** adj./iz. Tentela. ◆ **baba jan**. Janaldia babaz egindako eltzekariarekin. ◆ **baba malkar** iz. Baba landarea; baba jo ondoren geratzen den lastoa. *Baba malkarrak, babak jo ondoko baba lastwa* 'baba malkarrak, babak jo ondoko baba lastoa'. Ik. **babalasto**. ◆ **baba txiki**. Hazi txikiko baba barietatea (Vicia faba var. minor). ◆ **baba zabal**. Baba handia; hazi handiko baba barietatea (Vicia faba var. maior) (?). *Pertzĭen yosita, baba zabala animalieri jateko ematen zezaien* 'pertzean egosita, baba zabala animaliei jateko ematen zitzaien'. ◆ **baba zapo** iz. Gurgurioa (Ond Bak), (Fam. Bruchidae eta Fam. Curculionidae). ◆ **baba zopa**. Babarekin eta ogiarekin prestatzen den zopa. ◆ **baba zorri**. (ez da *baba zapoa*). Kokoa (?), lekarien zomorrotxoa.

babalasto, babalastua

BABALASTO

2 maizlasto

tallo del haba
soso, -a; bobalicón, -ona; alelado, -a; sosaina

babalasto **1** iz. Babaren lastoa. **2** adj. Tentela. ▲ Sin. *maizlasto*.

babalore, babaloria

BABALORE

flor del haba
soso, -a; bobalicón, -ona; alelado, -a; sosaina

babalore **1** iz. Babaren lorea. **2** adj. Ergela, sineskorra.

babarrun, babarruna

BABARRUN

indiaba; txopor; zuku

alubia, judía

babarrun iz. (Bot.) Indaba handia; mota zuriak dituena. (Phaseolus vulgaris). Ik. **indiaba**; **txopor**; **zuku**.

babasoro, babasorua

BABA SAIL

babatze

campo de habas

babasoro iz. Baba saila. ▲ Sin. *babatze*.

babatxui bikor, babatxui bikorra

BARATXURI-ALE

babatxui ale

diente de ajo

babatxui bikor iz. Baratxuri atala. ▲ Sin. *babatxui ale*.

babatxui buru, babatxui burua

BARATXURI-BURU

cabeza de ajo

babatxui buru. Baratxuri burua.

babatxui porka, babatxui porkia

BARATXURI-KORDA

ristra de ajos

babatxui porka. Baratxuri korda.

babatxui zopa, babatxui zopia

BARATXURI-ZOPA

usaldia

sopa(s) de ajo

babatxui zopa. Baratxuri zopa. Ik. **usalda**.

babatxui, babatxuia

BARATXURI

ajo (Allium sativum)

babatxui iz. (Bot.) Baratxuria *(Allium sativum)*. ◆ **babatxui ale**. Baratxuri atala. ◆ **babatxui bikor**. Baratxuri atala. ◆ **babatxui buru**. Baratxuri burua. ◆ **babatxui porka**. Baratxuri korda. ◆ **babatxui zopa**. Baratxuri zopa. Ik. **usalda**.

babatze

BABA SAIL

babasoro

campo de habas

babatze iz. Babaz ereindako soroa (Ond Bak). ▲ Sin. *babasoro* [Urdiain].

babo, babua

BABO

bobo, -a, tonto, -a, alelado, -a

babo adj. Ergela. *A ze babwa!* A zer baboa!

badia

BADIRA

ya son (tantos días / años...) que...

badira* (> *badĭa*). *Izan* aditza (esapideetan). *Badĭa ogeita sei urte eztotela yaten ardoik* 'badira hogeita sei urte ez dudala edaten ardorik'.

baezpada

BADAEZPADA

por si acaso

badaezpada (> *baezpada*, *baezpa*, *bazpa*) adb. ◆ **badaezpada ere** (> *bazpa're*). ¬

bafada, bafadia

BAFADA

bocanada

bafada (eta *fafada*) Ald. *bufada* (?) iz. Lurruna; ahokada, ahotik behingoan botatzen den airea. *Agotik botatzen dau bafada bat* 'ahotik botatzen du bafada bat' (LM).

bagon

BAGOI

vagón; coche [de tren]

bagon iz. Bagoia.

bai

BAI

ez

sí
sí, qué, cuán

bai (eta *pai*) **1** adb. Galdera bati erantzutean, baiezko esaldi baten ordain den hitza. — *Artuko dwazu bier ogia? —Bai, artuko dezut* '—hartuko didazu bihar ogia? —Bai hartuko dizut'. **2** adb. (Esaten denaren egiatasuna azpimarratzeko). || *Triste zonen, bai* 'triste zegonan, bai' (Ond Bak) || *Ezaun jok, pai, batzan eztailela* 'ezagun zagok, bai, baratzean ez dabilela'. ▼ Anton. *ez*. **3** adb. (Harridurazko esaldietan). *Bai etxe aundia!* 'bai etxe handia!'. ◆ bai... bai... *Kintotan, bai neskixak, bai mutilak, danak ibiltzen dĭa etxeik etxe eskĭen* 'kintoetan, bai neskak, bai mutilak, denak ibiltzen dira etxerik etxe eskean'. Ik. **eta; nola... nola...; ...dela ...dela** (> *...dala ...dala*). ◆ **bai... (ere)** (> *bai... 're*). Ik. **baita**[2]. *Atsaldĭon. —Bai zuri're* 'arratsalde on. —Bai zuri ere'. ◆ **bai horixe** (> *bai oixe*). ◆ **bai kuanto** (> *bai konto*). ◆ **bai zera!**, **bai, zera!** (> *bai zea*, *bai zĭa*).

baia

BAINA

pero, mas

baina[1] (> *bea* [Urdiain], *baia* [Bakaiku]) junt. *Eztakit autzi doten, baia*. (Ond Bak). *Peskaua badekagu biharko, bai; baia... eztakit. Bea munak atatzia geo/gio zala [Axerko eta Otxoko]* (Ond Bak)]. *Baia marsuek eskatu emen zatzan apiribilei ordaiz-egun lenbiziko bi egunak artzaiei galte itegaiti* (Ond Bak).

baia / baya

BAHE, GALBAHE

galbaia

cedazo, criba; tamiz, harnero

baia / baya (> *baĭa*) iz. Bahea. *Baya ta galbaya bat. Modu askotakuek dia: 1. Larru-baya: garia errotan iotzeko bezela jartzeko, zikinik be jartzeko. 2. Pasa-Baya: gariari, indabai, agotza ta indabien kaskala kentzeko. 3. Zaldale-baya: zaldalia errotan iotzeko bezela jartzeko* (Ond Bak). Ik. **galbaia**; **gerbillo**. ◆ **baiatik pasatu** (> *baijatik pasatu*). Bahetik igaro, bahetu. *Eguaize egunak dĭa aproposak indiabak jo ta baĭatik pasatzeko* 'hego haize egunak dira aproposak indabak jo eta bahetik pasatzeko'. Ik. **iyelki**.

baiatik pasatu

BAHETIK PASATU, BAHETU

cribar, tamizar, cerner, cernir, ahechar

baiatik pasatu (> *baijatik pasatu*). Bahetik igaro, bahetu. *Eguaize egunak dĭa aproposak indiabak jo ta baĭatik pasatzeko* 'hego haize egunak dira aproposak indabak jo eta bahetik pasatzeko'. Ik. **iyelki**.

baietz

BAIETZ

ezetz

que sí
a que sí, apuesto a que sí

baietz adb. Burundako forma. Ald. *baretz* [Urdiain]. ▼ Anton. *ezetz*. Ik. **baretz**.

baiezko (?) / barezko

BAIEZKO

baiezko* (?). *barezko* [Urdiain]. baietz [Burunda].

baiko

GABEKO

carente, que no tiene, que carece

baiko (eta *beiko*) adj. Gabekoa. *Sekula katarro bat arrapatu beikwa* 'sekula katarro bat harrapatu gabekoa'. • Esr. zah. *Aldapa baiko zelairik ezto* 'aldapa gabeko zelairik ez dago'. ◆ **izen baiko**. Izen gabekoa. *Etxĭen yoten dĭa izen baiko lan asko* 'etxean egoten dira izen gabeko lan asko' (Ond Bak).

baile, bailia

DANTZA, DANTZALDI

dantza, dantzaldi

sesión de baile; baile

baile iz. Dantzaldia. Ik. **dantzaldi**.

baina, bainia

LEKA

leka

judía verde, vaina

baina[2] iz. pl. Berdetan jateko leka, Phaseolus vulgaris landarearen haziak gordetzen dituen estalkia, egosita jaten dena. Ik. **leka**; **indabaxal**.

baindo

BAINO

más ... que (en comparativos de superioridad e inferioridad)

baino (> *baindo*, *beindo*) **1** Desberdintasunezko erkaketan erabiltzen den hitza. *Ni baindo aundio dáiz* 'ni baino handiago haiz'. || *Zu baindo lenuó etor naiz ni* 'zu baino lehenago etorri naiz ni (Ond Bak). *Sekula baindo garbio do urde oi* 'sekula baino garbiago dago urde hori'. **2 baino (ere)** (> *baindo* (*'re*)) Erkaketaren atal bietan hitz bera erabiliz, hitzaren balioa azpimarratzeko. *Ondo baindo obeto jakin berko zinen* 'ondo baino hobeto jakin beharko zinan'.◆ **zera baindo zerago** (> *zea baindo zeo*), **(izenondoa) baindo (izenondoa -ago)**. *Tontwa baindo tóntwo da* 'tontoa baino tontoago da'. Ik. **en**. [Bakaiku]. ◆ **...ean baino ...ean -ago** adb. (> *...ien baindo ...ien -o*). *Urtĭen baindo urtĭen zar gahio de* 'urtean baino urtean [urtetik urtera] zahar gehiago daude'. *Egunĭen baindo egunĭen pixkorro do aurra* 'egunean baino egunean bizkorrago dago haurra'. ◆ **zera baino (adj.)-ago** (> *zea baindo're* (*adj*.)-*o*). Oso, guztiz, erabat. *Listuó zea baindo're!* 'listoago [azkarrago] zera baino ere!'. ◆ **baino lehenago** (> *baindo lénwo*). (Aditz edo kideko baten ondotik). *Yostazu gastitu baindo lenwo* 'eros ezazu garestitu baino lehenago'. Ik. **lehenago** (> *lenwo*).

bainu, bainua

BAINU

baño

cuarto de baño, baño

bainu (Bustidura gabe, eta *bañu*) **1** iz. Gorputza uretan murgiltzea, garbitzeko edo atsegin hartzeko. **2** iz. Bainu gela. ◆ **bainua hartu**. Ik. **bañatu**.

baita

BAITA

ezta

y también, e incluso

baita lokail. Aurreko adierazpenari beste zerbait atxikitzeko erabiltzen den hitza, esangura aldetik *eta... ere bai* -ren kide dena. (Gehienetan, *ere* hitza hartzen du, ondo-ondotik nahiz, usuago, esaldiaren azkenean). *Inglesa ondo daki, ta baita franzesa're* 'ingelesa ondo daki, eta baita frantsesa ere'. *Gaztai onak iten tu; baita gaztaibeatu primerakwa're* 'gazta onak egiten ditu; baita gaztaberatu primerakoa ere'. *Aituko dĭai baita Altsun'e* 'adituko ditek baita Altsasun ere'. ▼ Anton. *ezta*. ◆ **baitare**. Baita ere. ◆ **baitare!** Baita zea're. ◆ **baita zera ere** (> *baita zea're*, *baita zĭa're*). *Lukaika muturroi txakurrandako? Baita zea're!* 'lukainka mutur hori txakurrarendako? Baita zera ere!'.

baita zia're

BAITA ZERA ERE

¡sí hombre!, ¡anda ya!, ¡vamos anda!, ¡y un cuerno!

baita zera ere (> *baita zea're*, *baita zĭa're*). *Lukaika muturroi txakurrandako? Baita zea're!* 'lukainka mutur hori txakurrarendako? Baita zera ere!'.

baitan

BAITA

(partícula empleada para formar los casos locales de declinación de los seres animados)
decir entre sí, decir para sí alguien (razonar consigo mismo)

baita / baitan *-gan* atzizkiaren ordaina. (Bizidunekin erabiltzen da, leku kasuetan, batez ere *baitan* forman). *Esan dot naure baitan, bai* 'esan dut neure baitan, bai' (Ond Bak). || *Niaure baitan esa'nen, kara txar orrekin baduka berreztana* 'neure baitan esan nuen, kara txar horrekin badauka ezbeharra'. Ik. **neaure buruz** (> *neaure buz*); **bere buruz** (> *be buz*).

baitare

(BAITA) ERE

también

baitare. Baita ere. Ik. baita. ◆ **baitare!** Baita zea're.

bajaguna, bajagunia

APALGUNE, SAKONUNE

sakan

bajaguna iz. Apalgunea, sakonunea. Ik. **sakan**.

bajatu, bajatzen

BAXATU

umillatu

rebajar(se), humillar(se)

bajatu *da/dau* ad. Baxatu; apaldu; jaitsi. Ik. **umillatu**.

bajera, bajeria

ETXABE; BEHEKO SOLAIRU

bajera

bajera iz. Etxabea. *Bajera ortan dukai tallerra* 'etxabe horretan daukate tailerra'.

bajeza, bajezia

GUTXIAGOTASUN

umillazio

bajeza; humillación; situación humillante; condición de humildad o inferioridad

bajeza iz. Gutxiagotasuna. Ik. **umillazio**.

bajon BEHERALDI, ERORIALDI

ahuldade, ahuleria, ahultasun

bajón (deterioro acusado de la salud o el ánimo)

bajon iz. (Hitz berria) Makalaldia, ahulaldia, beheraldia, erorialdia. *Bajona eman dwa*. Ik. **ahuldade**, **ahuleria**, **ahultasun**.

baju, bajua BAXU

altu

bajo, -a

baju adj. ▼ Anton. *altu*. ◆ **baju egon** (> *baju yon*). Baju do (makal do, ahul do). Ik. **ahul**, **makal**.

Bakaiku BAKAIKU

Bakaiku iz. *Bakaikuko zarrak ta gaztĭek* 'Bakaikuko zaharrak eta gazteak'. ● Esr. zah. *Bakaiku, ez esene eta ez kaiku*.

bakaikuar, bakaikuarra BAKAIKUAR

Lgart. katxarro

bakaikuarra

bakaikuar **1** adj. Bakaikukoa, Bakaikuri dagokiona. **2** iz. Bakaikuko herritarra. ▲ Sin. Lgart. *katxarro*.

bakalau, bakalaua BAKAILAO

abadeju

bacalao (Gadus morhua)

bakalau iz. Bakailaoa (*Gadus morhua*). Ik. **abadeju**.

bakar, bakarra BAKAR

solo, -a; único, -a

alguien; alguna persona

bakar **1** adj. *Alaba bakarra da*. – bakar batzuk. ◆ **bakar-bakarra** adb. **2** izord. Norbait. ◆ **bakarren bat**. Bat edo beste; norbait. *Bakarren bat etorku'ok* 'bakarren bat etorriko duk'. Ik. **baten bat**. ◆ **bakarren bat / batzuk izan**. *Bakarren bat badok oi* 'bakarren bat baduk hori'. *Aik'e batuk bakarren batzuk!* 'haiek ere badituk bakarren batzuk!'. ◆ **bakarren batzuk**. Batzuk, gutxi batzuk; ale batzuk, bakan batzuk. ◆ **bakarreko**. Txirrika bakarrekoa (Ond Bak).

bakardade, bakardadia BAKARDADE

bakartasun

soledad

bakardade iz. *Jendĭen eausi ta istilua baindo naio zituen bakardadĭa ta isiltasuna* 'jendearen erausi eta istilua baino nahiago zituen bakardadea eta isiltasuna'. Ik. **bakartasun**.

bakarkan BAKARKA

de uno en uno; separadamente, individualmente, aisladamente

bakarkan adb. Bakarka. Ik. **bakarrik**.

bakarreko, bakarrekua

bakarreko. Txirrika bakarrekoa (Ond Bak).

bakarren bat

BAKARREN BAT

alguno que otro

baten bat **bakarren bat**. Bat edo beste; norbait. *Bakarren bat etorku'ok* 'bakarren bat etorriko duk'. *Bakarren bat badok hoi* 'bakarren bat baduk hori'. *Bakarren bat etorku'ok* 'bakarren bat etorriko duk'. *Bakarren batzuk!* 'haiek ere badituk bakarren batzuk!'. *Bakarren bat badok hoi* 'bakarren bat baduk hori'.

bakarren batzuk

BAKARREN BATZUK

unos pocos, algunos pocos, algunos que otros

bakarren batzuk. Batzuk, gutxi batzuk; ale batzuk, bakan batzuk.

bakarrik

BAKARRIK

solo, a solas, en solitario
solo, solamente, únicamente, tan solo

bakarrik adb. ◆ **bakar-bakarrik**.

bakartasun, bakartasuna

BAKARTASUN

bakardade

soledad; retiro

bakartasun iz. Bakarrik dagoen edo egon ohi den pertsonaren egoera. Ik. **bakardade**.

bakarti, bakartia

BAKARTI

solitario, -a, sin compañía
solitario, -a; desierto, -a; no habitado, -a

bakarti **1** adj. *Txikitati izan da bakartia* 'txikitatik izan da bakartia'. **2** adj. Lekuez mintzatuz, jenderik bizi edo ibiltzen ez dena. *Leku bakarti bat*.

bakartu, bakartzen

BAKARTU

apartatu, separatu

aislarse, apartarse; quedarse solo
apartar, aislar, distanciar; incomunicar

bakartu *da/dau* ad. Ik. **apartatu**, **separatu**.

bakazio, bakaziua

BAKAZIO, OPOR

opor

vacación

bakazio iz. Batez ere pl. *bakaziuek*. *Badéka bakaziyóik?* 'badauka bakaziorik?' (Ond Bak). *Nwa fanko ga bakaziotan?* 'nora joango gara bakazioetan?'. Ik. **opor**.

bake, bakia

BAKE

paz
paz, tranquilidad, sosiego, calma

bake (eta *pake* [Bakaiku]) iz. *Au bakĭa!* 'hau bakea!'. *Oi eztonĭen, au bake santua!* 'hori ez dagoenean, hau bake santua!'. ◆ **bakean (a)utzi** (> *bakĭen autzi*). *Autzi ori pakien* 'utzi hori bakean' (Ond Bak). *Auztan bakien!* 'utz ezan bakean!'. *Autziozu bakĭen* 'utzi egiozu bakean'. ◆ **bakeak egin** (> *bakĭek in*). *Atzo asarre zen, bea gaur bakĭek in tuai ta aixkĭatu dĭa berriz* 'atzo haserre zeuden, baina gaur bakeak egin dituzte eta adiskidetu dira berriz'. Ik. **adiskidetu** (> *aixkiatu*).

baketsu, baketsua

BAKETSU

gerroso

pacífico, -a; tranquilo, -a, apacible

baketsu adj. ▼ Anton. *gerroso*.

bakiek in

BAKEAK EGIN

aixkiatu

hacer las paces

bakeak egin (> *bakiek in*). Ik. **adiskidetu** (> *aixkiatu*).

bakoitz, bakoitza

BAKOITZ

cada; cada uno, -a; cada cual

bakoitz **1** adj. *Festa egun bakoitza jende talde bati eskeinia do* 'festa egun bakoitza jende talde bati eskainia dago'. **2** (Izenordain gisa) *Bakoitzandako bat / bana* 'bakoitzarendako bat / bana'. *Bakoitzai berĭa* 'bakoitzari berea'. *Bakoitza be alde; laister kiebra inko dĭu* 'bakoitza bere alde; laster kiebra egingo dugu'. || *Bakoitzai bosna* 'bakoitzari bosna' (Ond Bak). **3** adj. (Harridura adieraziz) Nolako; a zer nolako. *Itxura bakoitza ibiltzen dau orrek!* 'itxura bakoitza ibiltzen [izaten] du horrek!' [A zer nolako itxurak izaten dituen horrek!]. *Idea bakoitza ibiltzen dau!* 'ideia bakoitza izaten du!'. ◆ **bakoitza bera** (> *bakoitza bĭa*). *Bakoitza bĭa izan ber dáu trebe* 'bakoitza bera izan behar du trebe'.

bakuna, bakunia

TXERTO

txertu

vacuna

bakuna iz. (Hitz berria). Ik. **txertu**. *Bakunĭa hartu*; *bakunĭa patu*.

bakunatu, bakunatzen

TXERTATU

txertatu

vacunar

bakunatu *da/dau* ad. (Hitz berria). Ik. **txertatu**.

bal, bala

BALA (1)

fardo

bala, haz

bal (-*a* berezkorik gabe) iz. Bala; uzta-sorta lotua. *Gari-bala*. *Lau-bost espalekin iten zan gari bal bat. Gari sorta bat zan amar gari bal* 'lau-bost espalekin egiten zen gari bala bat. Gari sorta bat zen hamar gari bala'. ▲ Sin. *fardo*. Ik. **espal**, **sorta**. ◆ **balgurdi** iz. Gari balaz betetako gurdia (Carro de mies. JMS). ◆ **balkarro** iz. Gari balaz betetako karroa, gurdia. Ik. **balgurdi**. ◆ **balkarroan** (> *balkarrwen*) adb. Gari-bala garraioan. Ik. **karro**.

bala, balia

BALA (2)

bala

bala iz. Balak eta postak. *Balĭekin il dai basurdĭa* 'balarekin [balaz] hil dute basurdea'. ◆ **balazo**. Balaz jotako tiroa.

balaio, balaiua / balaiho, balaihua

LEIHATE

ventanal; ventana larga, semejante a una puerta, que llega hasta el piso

balaiho (> *balaio*) iz. Leihatea; atearen tankerako leiho luzea, zorurainokoa izaten dena. *Balkoná atatzen da balaio ortati* 'balkoira ateratzen da baleiho* horretatik'. [Balaiua: *gari balak sartzeko laiua* 'gari balak sartzeko leihoa (?)]. Ik. **laiho**.

balanza, balanzia
BALANTZA

balanza (peso)

balanza iz. Balantza. *Pisatzeko balanzĭa* 'pisatzeko balantza'.

balanzatu, balanzatzen
BALANTZA EGIN, KULUNKATU

balancear(se); mecer(se)

balanzatu *da/dau* ad. Balantza egin, kulunkatu. *Kuia balanzatu* 'sehaska balantzatu'.

balanzo in
BALANTZAK EGIN

balanzokan, balanzatu

tambalear, bambolear

balanzo egin (> *balanzo in*). Balantzak egin. *Balanzo in dot gwai're* 'balantza egin dut orain ere' [balantzaka oreka ezagatik]. Ik. **balanzatu**; **balanzokan**.

balanzo, balanzua
BALANTZA

tambaleo, bamboleo; oscilación, vaivén

balanzo iz. Balantza, orekan ezin egon denak alde batera eta bestera egiten duen mugimendua. ◆ **balanzoa hartu** (> *balanzwa artu*). Balantza egin; oreka galdu. ◆ **balanzo egin** (> *balanzo in*). Balantzak egin. *Balanzo in dot gwai're* 'balantza egin dut orain ere' [balantzaka oreka ezagatik]. Ik. **balanzatu**; **balanzokan**.

balanzokan
BALANTZAKA, KULUNKAN

balanceándose, tambaleándose, dando tumbos

balanzokan (eta *balantzokan* [Bakaiku]) adlag. Balantzaka. *Balantzokan ai da* 'balantzaka ari da' (Ond Bak). Ik. **balanzo egin**.

balanzua hartu
BALANTZA EGIN

tambalear(se); perder el equilibrio

balanzoa hartu (> *balanzwa artu*). Balantza egin; oreka galdu.

baldar, baldarra
BALDAR

bihur, makur; 2 moldakaitz

zuzen

torcido, -a; retorcido, -a; curvo, -a; doblado, -a
torpe; patoso, -a; desmañado
torcido, torcidamente

baldar **1** adj. *Makila baldarra*. ▲ Sin. *bihur*, *makur*. ▼ Anton. *zuzen*. **2** adj. Traketsa. ▲ Sin. *moldakaitz*. **3** adb. Modu baldarrez, baldarka. *Baldar sartu dezu giltzĭa* 'baldar sartu duzu iltzea'.

baldargune, baldargunia
OKERRUNE

torcedura, desviación; curva

baldargune iz. Okerrunea.

baldarkan
BALDARKA

zuzen

torpemente; torcidamente

baldarkan adb. Baldarka. modu baldarrez. *Irud*. Herrenka (Julian Etxeberria). Ik. **baldarrakan**. ▼ Anton. *zuzen*.

baldarkeia
BALDARKERIA

makurkeia, alrebeskeia

torpeza; haraganería

baldarkeria (> *baldarkeia*) iz. ▲ Sin. *makurkeia*.

baldarrakan
ALDAROKA; BALDARKA (?)

aldarramaikan

tambaleante, torcidamente

baldarrakan adb. Aldaroka. *Mozkortwik eta baldarrakan etor da* (LM). Ik. **aldarramaikan**; **baldarkan**.

baldartu, baldartzen
BALDARTU* (MAKURTU, BIHURRITU)

makurtu, bihortu — *zuzendu*

torcer(se), retorcer(se), curvar(se)
encorvar(se)

baldartu *da/dau* ad. Bihurritu, makurtu. *Beswa baldartu*; *hankĭa baldartu*. *Bizkarra baldartwik duka* 'bizkarra baldarturik [makurturik] dauka'. ▲ Sin. *makurtu*, *bihortu*. ▼ Anton. *zuzendu*.

balde, baldia
BALDE

zina; pozal

balde; cubo

balde iz. *Freskatzeko, balde bat ur bota zĭan buti bĭa* 'freskatzeko, balde bat ur bota zion burutik behera'. *Zazi baldĭekin ur eske iturrĭá* 'zoaz baldearekin ur eske iturrira'. Ik. **zina**; **pozal**.

baldekada
BALDEKADA

pozalkada

balde, contenido de un balde lleno

baldekada iz. *Aldio, baldekada bat loina arrapatuko zen* 'aldiro, baldekada bat loina harrapatuko zuen'. Ik. **pozalkada**.

baldekan
BALDEKA

pozalkan

a baldes, a cubos

baldekan adb. Baldeka, baldea neurri erabiliz. ▲ Sin. *pozalkan*.

baldin
BALDIN

partícula que sirve de refuerzo y anticipa el prefijo condicional ba-

baldin (eta *balin*). **baldin... ba-** (> *balin ba-*) (Erabilera enfatikoa) *Baldín ínko baluké hólako gauzáik, sártu ber lukéi garzelá* (Ond Bak). *Balin bado*. *Balín bazán ezpálin bazán, autzi hori pakien*. *Heldu balin badá, eman berko dáu díruba* (Ond Bak). ◆ **baldin eta baldin** (> *baldin da baldin*, *badindabaldin*). Zerbait eragozteko adierazpidea. *Balbin da baldin ibaira faten!* 'baldin eta baldin ibaira joaten!'.

baldosa, baldosia
BALDOSA

baldosa

baldosa iz. *Baldosa zarrakin in dau friswa* 'baldosa zaharrekin egin du frisoa'. Ik. **azulejo**.

bale

BALE

konforme. 2 listo

vale

bale interj. *Lgart*. Ados! *Bale!, eztukak bi aldiz esan bearrik*. 'bale!, ez daukak bi aldiz esan beharrik'. Ik. **konforme**. ◆ **eta bale**. *Ontziek garbitu eta bale!* Ik. **nahiko**; **listo**. ¬

bale, balia

TXARTEL, BONU

vale, bono

bale iz. Txartela, bonua. *Auzalanain balĭek* 'auzolanen baleak'. *Libuek yosteko bale bat ibazi dot* 'liburuak erosteko bale bat irabazi dut'.

balgurdi, balgurdia

BALA-GURDI

balkarro

carro de mies

balgurdi iz. Bala-gurdia; gari balaz betetako gurdia [Carro de mies. JMS].
▲ Sin. *balkarro*.

bali(e)nte, balintia

AUSART, ADORETSU, KEMENTSU, BALIENTE

atrebitu. 2 haundi

valiente, audaz
gran, bueno, -a

baliente (eta *balinte*, *balintĭa*) **1** adj. Ik. **atrebitu**. **2** adj. Handia. *Apetitu balintĭa duka* 'apetitu balientea [handia] dauka'. Ik. **haundi**.

baliatu, baliatzen

BALIATU

aprobetxatu

emplear, utilizar; aprovechar

baliatu *dau* ad. *Ondo baliatu zen segurwa etxĭa erre zezaionĭen* 'ondo baliatu zuen asegurua etxea erre zitzaionean'. Ik. **aprobetxatu**.

balin

BALDIN

partícula que sirve de refuerzo y anticipa el prefijo condicional ba-

balio izan

BALIO IZAN

valer, costar
valer; tener valor/importancia
servir, valer; ser útil/adecuado/eficaz
valer, ser válido; tener vigencia

balio izan **1** *dau* ad. *Zenbat balio dau naranja kilwek?* 'zenbat balio du laranja kiloak?'. **2** *dau* ad. *Irud*. *Asko balio dau ematen den launtasunak* 'asko balio du ematen duen laguntasunak'. *Eztau balio yakusteko* 'ez du balio erakusteko [irakasteko]'. ● Esr. **lauko bat ez balio** [laukoa: balio gutxiko diru zaharra]; **lauko baten kanbiorik ez balio** (> *laukweten ganbioik ez balio*). *Laukueten ganbioik eztĭet balio* 'lauko baten kanbiorik ez diat balio'. **3** *dau* ad. Egitekoren baterako egoki edo erabilgarri izan. *Eltxwek iltzeko balio dau aparatworrek* 'eltxoak hiltzeko balio du aparatu horrek'. *—Pĭeza onek balio dau-o? —Baliobe!* '—pieza honek balio du-edo? —Balio gabe! [jakina balio duela]'. **4** *dau* ad. Balioduna izan, eragingarria izan. *Maistra titulwek balio dĭa lanbidĭortako* 'maistra tituluak balio dio lanbide horretarako. **5** Merezi izan. *Gwai eztau balio ñear iteik* 'orain ez du balio negar egiterik'. ◆ **balio gabe!** (> *baliobe!*) interj. 'Jakina balio duela' esanahiarekin. ◆ **gutxi balio**. *Irud*. Osasunez-eta makal dela adierazteko. *Gutxi balio dinat*. ◆ **tutik ez balio**. Ezer ez balio.

balio, baliua
BALIO

prezio

valor, valía; utilidad; estimación
precio, coste, valor

balio iz. *Balio gutxiko gauzak patu tu saltzeko* 'balio gutxiko gauzak paratu ditu / ditugu saltzeko'. Ik. **prezio**. ¬

balitzake
BALITEKE

es posible

balitzake* ad. Baliteke. Esapide modura erabiltzen den aditza.

balkarro, balkarrua
BALA-GURDI

balgurdi

carro de mies

balkarro iz. Gari balaz betetako karroa, gurdia. Ik. **balgurdi**. ◆ **balkarroan** (> *balkarrwen*) adb. Gari-bala garraioan. Ik. **karro**.

balkona, balkonia
BALKOI

balcón

balkona (*a* itsatsia) iz. Balkoia. *Geraniwekin apainduta dukai etxeko balkoniă* 'geranioekin apainduta daukate etxeko balkoia'. *Balkonak leno abazpien iten zituain* 'balkoiak lehenago habazpian [teilatuaren hegal azpian] egiten zituzten'. ◆ **aldenik aldeko balkona**. Alderik aldeko balkoia. *Eguteran, aldenik aldeko balkonia duka etxĭek* 'eguteran,alderik aldeko balkoia dauka etxeak'.

balon, balona
BALOI

balón

balon iz. Baloia. *Fu(t)bolĭen jokatzeko balona erregalatu dĭai* 'futbolean jokatzeko baloia erregalatu diote'.

baloratu, baloratzen
BALORATU

apreziatu, estimatu

valorar; estimar, apreciar

baloratu *dau* ad. Ik. **apreziatu**; **estimatu**.

balore, baloria
BALORE, ADORE, KEMEN

animo, kemen, dulabre

valor, valentía; ánimo

balore iz. Adorea, kemena. *Baloreik ez zerbait esateko*. *Eztuka baloreik maisu-maistrairi galdeiteko* 'ez dauka balorerik maisu-maistreei galdegiteko'. *Baloria ber dik gio, e!* 'balorea behar dik gero, e! [lotsagabekeria nabarmentzeko]. ▲ Sin. *animo*, *kemen*, *dulabre*; *koraje*.

bals, balsa
BALS

vals [baile y música]

bals **1** iz. Dantza mota. *Dantza bweltakalaia da balsa* 'dantza birakaria da balsa'. **2** iz. Dantza horren musika.

balsa, balsia
URMAEL, PUTZU

idoi, putzu; paltsa.

charca, balsa

balsa iz. Urbasako balsak. Ik. **idoi**; **putzu**; **paltsa**.

balzerra, balzerria
EZPATA (GURDIARENA)

zerra

estandorio, telero largo

balzerra iz. Gurdiaren aldeetan jartzen diren euskarrietako bakoitza. Ezpata, txarrantxa. Zerra luzea. Ik. **zerra**.

bana
BANA

uno cada uno; uno por cabeza

bana banatz. Bakoitzari bat; bakoitzak bat. *Artu tarta puska'na* 'hartu tarta puska bana'. ◆ **banaz beste** (Ond Bak). Ik. **batez beste** [Urdiain].

banaka
BANAKA

de uno en uno, uno a uno, uno por uno, uno cada vez

banaka (eta *banakan*) adb. *Banakan eta polikitxo sartu zaitezai* 'banaka eta poliki-poliki sar(tu) zaitezte' ◆ **banaka(n)-banaka(n)**. ◆ **banaka batzuk** (?). Bakarren batzuk. ¬

banakan
BANAKA

de uno en uno, uno a uno, uno por uno, uno cada vez

banatu, banatzen
BANATU

2 apartatu, separatu. 3, 4 partitu, repartitu

dispersar(se), esparcir(se), diseminar(se), extender(se)
separar(se), apartar(se)
repartir, distribuir
distribuir; suministrar

banatu **1** *da/dau* ad. Barreiatu, zabaldu, sakabanatu. *Ongarria banatu*. **2** *da* ad. Bereizi. ▲ Sin. *apartatu*, *separatu*. ▼ Anton. *alkartatu*, *bildu*, *unitu*. **3** *dau* ad. *Banatazai lana; obena izankwa-ta* 'bana ezazue lana; hoberena izango da eta'. **4** *dau* ad. *Edaiek banatzen ibiltzen da furgonetĭekin* 'edariak banatzen ibiltzen da furgonetarekin'. Ik. **partitu**.

banatzaile, banatzailia
BANATZAILE

partitzaile

distribuidor, -a; repartidor, -a

banatzaile iz./adj. ▲ Sin. *partitzaile*.

banatze, banatzia
BANATZE

partitze

dispersión; esparcimiento
distribución; repartición

banatze **1** iz. Barreiatzea, zabaltzea. *Gosta zaira ongarria ondo banatzĭa* 'kostatu zait ongarria ondo banatzea'. **2** iz. *Lana banatzĭa izan ber da obena* 'lana banatzea izan behar da hoberena'.

banaz beste BANAZ BERTZE

batez beste

por término medio

banaz beste (Ond Bak). Ik. **batez beste** [Urdiain].

banda, bandia BANDA

1 bandada

banda, bandada, grupo
banda de música
tira, banda, cinta

banda **1** iz. Multzoa, aldra, samalda, taldea. *Txoi bandĭa* 'txori banda. ▲ Sin. *bandada*. Ik. **alde**[3], **saldo**, **samalda**. **2** iz. *Musika bandĭa* 'musika banda'. *Txistulai bandĭa* 'txistulari banda'. **3** iz. Zerrenda edo xingola zabala. *Banda gorri bat zukan soinekwen* 'banda gorri bat zeukan soinekoan'.

bandada, bandadia BANDA, ALDRA

banda, saldo, samalda

bandada

bandada iz. Banda, aldra. *Uso bandadĭa* 'uso banda'. *Arrai bandadĭa* 'arrain sarda'. Ik. **banda**, **saldo**, **samalda**; **alde**[3].

bandera, banderia BANDERA

bandera

bandera iz. *Iru banderak patzen tuai festatan* 'hiru banderak paratzen dituzte festetan'.

bandido, bandidua BIDELAPUR, BANDIDU

bandido, -a (malhechor)
barrabás, travieso, -a

bandido **1** iz. Bidelapurra. **2** iz./adj. Alproja; barrabasa. Ik. **barrabas**.

bando, bandua BANDO

1 alde, alderdi, partido. 2 dei

bando, edicto; pregón, comunicado oficial
bando, facción, partido, grupo, camarilla

bando **1** iz. Aldea, alderdia. *Bando batekwek ta bestekwek* 'bando batekoak eta bestekoak'. Ik. **alde**, **alderdi**; **partido**. **2** iz. Deia. ◆ **bandoa bota** (> *bandwa bota*). ◆ **bandoa aditu** (> *bandwa aitu*). Ik. **dei**.

bankero, -a, bankerua, -ia BANKARI

banquero, -a

bankero, -a (Generoa hartzen du). iz. Bankaria.

banketa, banketia AULKI, ESERLEKU [BIZKARRIK GABEA]

alki

banqueta

banketa iz. Bizkarralderik gabeko aulkia. Ik. **alki**; **banku**.

bankete, banketia BANKETE

banquete

bankete iz.

banku, bankua (1)

BANKU

banco (empresa)

banku[1] iz. Banketxea. *Bankua lapurtu dai berriz* 'bankua lapurtu dute berriz'.

banku, bankua (2)

BANKU

alki

banco (asiento)

banku[2] iz. Jarleku luzea. *Guk "bankua" esaten diagu; haik, "alkia"* 'guk bankua esten diogu; haiek, aulkia'. Ik. **alki**.

banzu, banzua

BANTZU

banzo, zanca de escalera

bantzu (> *banzu*; *banzo* [Bakaiku]) iz. Bantzua. [Zanco de escaleras, banzo (Ond Bak)]. *Eskilarain banzua* 'eskaileren bantzua'.

bañatu, bañatzen

BAINATU

bainua hartu

bañar(se), darse un baño, tomar un baño

bañatu *da/dau* ad. Bainatu. Ik. **bainua hartu**.

bapo

BAPO

majo, ederki, ondo, ongi, primeran

muy bien, excelentemente, estupendamente
estar bebido

bapo adb. *Bapo jan dau* 'bapo jan du'. ▲ Sin. *majo*, *ederki*, *ondo*, *ongi*, *primeran*. ◆ **bapo egon** (> *bapo yon*) adb. *Irud*. Mozkorturik. *Bapo do* 'bapo [mozkortuta] dago. *Bapo etor da* 'bapo [mozkortuta] etorri da. ◆ **bapoa egin** (> *bapwa in*) *dau* ad. Ederra egin. *Bapwa in dau* 'bapoa egin du'.

bapo yon

BAPO EGON

mozkortuik

estar bebido

bapo egon (> *bapo yon*) adb. *Irud*. Mozkorturik. *Bapo do* 'bapo [mozkortuta] dago. *Bapo etor da* 'bapo [mozkortuta] etorri da.

bapore, baporia

BAPORE

lurrun

vapor

bapore iz. Lurruna. Ik. **lurrun**.

bapua in

BAPOA EGIN

bapoa egin (> *bapwa in*) *dau* ad. Ederra egin. *Bapwa in dau* 'bapoa egin du'.

bar-bar-bar

BAR-BAR

far-far-far, zar-zar-zar

en abundancia, abundantemente; copiosamente

bar-bar-bar adb. *Yauria deka bár-bar-bar* 'euria dakar bar-bar-bar'. Ik. **zar-zar-zar**.

bara, baria (1)

BARE (1)

limaco, babosa

bara[1] iz. Barea (Fam. Limacidae). *Ointo guztiek barak janik de* 'onddo guztiak bareak janik daude'.

bara, baria (2)

BARE (2)

bazo

bara[2] iz. Barea: urdailaren ondoan, gibelaren beste aldean dagoen erraia.

baraja, barajia

BARAJA, KARTA SORTA

baraja

baraja iz. Kartak; karta sorta. Ik. **karta(k)**.

baranda, barandia

BARANDA

barandilla

baranda iz. Ik. **petril**. (?)

barandoi, barandoia

ERROTA, HERA; ARANDOI, URDAIL

biro, estomago

molleja, estómago (de ave)

barandoi iz. Hera, errota, hegaztien urdail gihartsua. Ald. **barandura** (Ond Bak). Ik. **biro**; **estomago**.

barandura

ERROTA, HERA; ARANDOI, URDAIL

biro, estomago

molleja, estómago (de ave)

barandura iz. Hegaztien urdail gihartsua [Bakaiku]. Ik. **barandoi**.

barasara, barasaria

BARESARE

redaño, peritoneo

barasara iz. Baresarea, peritoneoa.

barbaridade, barbaridadia

IZUGARRIKERIA, IKARAGARRIKERIA

1 izugarrikeia; 2 astakeia; 3 ikagarrikeia, lepra

barbaridad

cantidad muy grande

barbaridade **1** iz. Izugarrikeria. Ik. **izugarrikeria** (> *izugarrikeia*). **2** iz. Astakeria. Ik. **astakeria** (> *astakeia*). **3** zenbtz. Kopuru ikaragarria. Ik. **ikagarrikeria** (> *ikagarrikeia*); **lepra**.

barbasku, barbaskua

LIHO MOTA

lino (de ínfima calidad)

barbasku iz. Kalitate gutxiko lihoa. *Zakuek iten zian barbaskuen ariekin* 'zakuak egiten ziren barbaskuaren hariarekin.

barberia

BIZARTEGI

bizartai

barbería

barberia (> *barbeia*) iz. Ik. **bizartegi** (> *bizartai*); **pelukeria**.

barbero, barberua BARBERU, BIZARGILE

pelukero, -a; bizargile

barbero

barbero iz. Barberua, bizargilea. Ik. **bizargile**.

barbu, barbua BARBO

barbo común (Barbus bocagei)

barbu iz. Barboa (Barbus bocagei). • Esr. zah. *Intrusak loran, barbuek erditzen* 'intsusak lorean, barboak erruten'.

bare (?) BARE (3)

geldi, lasai, manso

en calma, con tranquilidad, tranquilamente

bare adb. Ik. **geldi**, **lasai**; **manso**.

baretu, baretzen (?) BARETU

gelditu

calmar(se), tranquilizar(se), serenar(se)

baretu *da/dau* ad. *Aizĭa baretu* 'haizea baretu'. Ik. **geratu**; **gelditu**.

baretz BAIETZ

ezetz

que sí

a que sí, apuesto a que sí

baretz [Urdiain]. Ik. **baietz**. **1** adb. *bai* adizlagunaren zeharkako era. *Baretz esan dwa* 'baietz esan dit'. *Nik uste dot baretz* 'nik uste dut baretz'. ▼ Anton. *ezetz*. 2 adb. Baiezkoa berresateko. *—Bai? Orduen, ik inko tuk mandatuek? —Baretz, ba* 'bai? Orduan hik egingo dituk mandatuak [erosketak]? —Baietz, bada'. 3 adb. Apustua adierazteko. *Baretz txikienak ibazi* 'baietz txikienak irabazi'. **4** iz. Baietza, baiezkoa. (?). Ik. **barezko**.

baretz, baretza (?) BAIETZ

(el) sí; permiso; afirmación, confirmación

baretz iz. Baietza, baiezkoa. Ik. **barezko**.

barezko, barezkua BAIEZKO

ezezko

afirmación

aprobación

barezko iz. Baiezkoa. ◆ **barezkoa eman** (> *barezkwa eman*). Baiezkoa eman. *Barezkwa eman dwa* 'baiezkoa eman dit'. ▼ Anton. *ezezko*.

barga, bargĭa BARGA, (MENDI) HEGAL, MAGAL, MAZELA

ladera, varga; derrumbadero

barga iz. Mendiaren magala, aldatsa; Urbasa mendiaren magaleko basoa. *Barga barrena*. *Barga goia*. Ik. **gerba**.

bariedade, bariedadia
BARIETATE

klase, jenero, tipo

variedad (diferencia dentro de la unidad)
variedad, surtido

bariedade **1** iz. Barietatea, ezaugarri berak dituzten banakoen multzoa. Ik. **klase**; **jenero**; **tipo**. **2** iz. Ugaritasuna. Ik. **ugari** (> *ubari*).

barka, barkia
TXALUPA

barca

barka iz. Txalupa. Ik. **barku**.

barkamen, barkamena
BARKAMEN

barkazio

perdón, remisión

barkamen iz. Barkatzea. ▲ Sin. *barkazio*. ◆ **barkamena eskatu**. *Baniua barkamena eskatzĭa* 'banoa barkamena eskatzera'.

barkatu, barkatzen
BARKATU

perdonar; disculpar; levantar (el castigo, pena; sanción)

barkatu *dau/dĭa* ad. *Ai, barkatazu!* 'ai, barka ezazu!'. • Esr. zah. *Gaizki esanak barkatu, ongi esanak poltsan sartu* (Ond Bak).

barkazio, barkaziua
BARKAZIO

barkamen

perdón, remisión

barkazio iz. Barkamena. *Ez etorri negana barkazio eske* 'ez etorri niregana barkazio eske'. Ik. **barkamen**.

barkillo, barkillua
BARKILLO

barquillo

barkillo iz. Olata.

barku, barkua
BARKU, ITSASONTZI

nave, navío, embarcación, barco

barku iz. Itsasontzia. Ik. **barka**.

barra-barra
BARRA-BARRA

parra-parra, pirri-parra, firri-farra

en abundancia, abundantemente

barra-barra (eta *parra-parra*) adb. Ugari, ugaritasunez. ▲ Sin. *pirri-parra*, *firri-farra*.

barra, barria
BARRA

hagai. 2 mostradore

barra; barrote
barra, mostrador

barra **1** iz. Burdinaga. Ik. **hagai**. **2** iz. Tabernakoa. Ik. **mostradore**.

barrabas, barrabasa
BARRABAS

barrabás, travieso, -a

barrabas adj./iz. Oso bihurria. *Oi dok barrabasa!* 'hori duk barrabasa!'. Ik. **bandido**.

barrabaskeia
BARRABASKERIA

barrabasada, travesura

barrabaskeria (> *barrabaskeia*) iz.

barrabil bakarreko, barrabil bakarrekua
BARRABIL BAKOITZ, ARAKOIL, MONORKIDIKO

potrobakar

ciclán, monorquídico (persona o animal de un sólo testículo)

barrabil bakarreko adj./iz. Barrabil bakoitza, arakoila; barrabil bakarra duena. ▲ Sin. *potrobakar*.

barrabil, barrabila
BARRABIL

Lgart.: potro, koskabilo, arrontza(k)

testículo
criadilla
huevos, cojones

barrabil iz. Gizonaren eta animalia ar nagusien ugaltze-guruin bietako bakoitza, hazia sortzen duena. ▲ Sin. (Lgart.): *potro*, *koskabilo*, *arrontza*. ◆ **barrabil bakarreko** adj./iz. Barrabil bakoitza, arakoila; barrabil bakarra duena. ▲ Sin. *potrobakar*. ◆ **barrabilak ibili [eduki]**. *Orrek jukatzik barrabilak, orrek!* 'horrek zauzkak barrabilak, horrek!'.

barraka, barrakia
BARRAKA

barraca, caseta

barraka iz. *Patu tuai festatako barrakak* 'paratu dituzte festetako barrakak'.

barrakon, barrakona
BARRAKOI

barracón

barrakon iz. Barrakoia.

barranko, barrankua
BARRANKU

sakan

barranco

barranko iz. Barrankua, troka. Ik. **sakan**.

barratu, barratzen
BARREIATU

zabaldu; birri-barra

dispersar(se); diseminar(se); desperdigar(se)

barratu *da/dau* ad. Barreiatu. ▲ Sin. *zabaldu*. Ik. **isusi**; **birri-barra**.

barre falso, barre falsua
BARRE FALTSU, IRRI ZURI

risa falsa

barre falso (Ond Bak) iz. Barre faltsua, irri zuria.

barre in
BARRE EGIN

reír(se)
reírse de, burlarse de, cachondearse de; tomar a risa

barre egin (> *barre in*) **1** *Barre iten dot gustwa* 'barre egiten dut gustura'. **2** Burla egin. *Barre iten badezai, zuk ez kaswik in* 'barre egiten badizute, zuk ez kasurik egin'.

barre, barria (1)

BARRE

risa

barre[1] iz. *Nolako barrĭek in genduzen!* 'nolako barreak egin genituen!'. ◆ **barreari autsi** (> *barrĭai autsi*). Barreari eutsi. ◆ **barre egin** (> *barre in*) **1** *Barre iten dot gustwa* 'barre egiten dut gustura'. **2** Burla egin. Barre iten badezai, zuk ez kaswik in 'barre egiten badizute, zuk ez kasurik egin'. ◆ **barreari eman** (> *barrĭai eman*). ◆ **barre egiteko gogoa** (> *barre iteko gogo*) iz. ◆ **barrez** adb. ◆ **barrez ji-ji-ji**. Burlaz. ◆ **barrez lehertu** (> *barrez lertu*). ◆ **barre eginarazi** (> *barre inazi*). Barre eragin. ◆ **barre falso** (Ond Bak) iz. Barre faltsua, irri zuria.

barre, barria (2)

BARRIDE, AUZUNE

barrio, vecindad; barriada

barre[2] (eta *barride* [Altsasu]) iz. Barridea, auzunea. *I ze barrekwa daiz?* 'hi zer barridekoa haiz?'. *Gwe barrekwa da* 'gure barridekoa da'. *Fan adi ie barrĭa!* 'joan hadi hire barridera'. *Goienkalde, Iturtxulo-eta dĭa Urdingo barrĭek* 'Goienkalde, Iturtxulo-eta dira Urdiaingo barrideak'. Ik. **barrereko** (Ond Bak). ◆ **barrereko** iz./adj. Barridekoa, auzunekoa, kale berekoa. *Barrerekuek: etxĭa gertu donien* 'barridekoak: etxea gertu dagoenean' (Ond Bak). Ald. **barreko**, *barrekwa* [Urdiain]. [Oharra. **auzoko** ez da erabiltzen]. Ik. **kale**; **alde**[2]. [Gaur egun *barre*, *barrĭa* gutxi erabiltzen da. *kale* da ordezko zabalduena; baina (Urdiaingo) kale izendegian *alde*, (*alderdia*) da nagusitzen dena, eta ez *kale*: *Barrenkalde*, *Goienkalde* (eta ez *Barrenkale**, *Goienkale**), *Plazalde*, *Iturralde*, *Bentalde* eta abar].

barregarri, barregarria

BARREGARRI

grazioso, ridikulo

ñarregarri

gracioso, -a; chistoso, -a; jocoso, -a
ridículo, -a; irrisorio, -a; risible; grotesco, -a

barregarri **1** adj. Ik. **grazioso**; **ridikulo**. ▼ Anton. *ñarregarri*. **2** (Adizlagun gisa). *Barregarri ago txuma xelebrĭoiekin* 'barregarri hago txima xelebre horiekin'. ◆ **barregarri autzi**. Barregarri utzi. ◆ **barregarri gelditu**. *Maiz, barregarrio gelditzen da serio dailena* 'maiz, barregarriago gelditzen da serio dabilena'. Ik. **ridikulua egin** (> *ridikulua in*).

barregarrikeia

BARREGARRIKERIA

zelebrekeia

ridiculez, payasada, bufonada

barregarrikeria (> *barregarrikeia*) iz. ▲ Sin. *zelebrekeia*.

barregura, barreguria

BARREGURA

barre iteko gogo

neargura, near iteko gogo

ganas de reír(se)

barregura iz. Barre egiteko gogoa. ▲ Sin. *barre iteko gogo*. ▼ Anton. *neargura*, *near iteko gogo*. ◆ **barregura eman** (> *barreguria eman*). *Kontu oiek barreguria ematen dai* 'kontu horiek barregura ematen dute'.

barren, barrena BARREN
azpi, gainbehe, gainbehekalde *goien, goikalde*
extremo inferior, parte de abajo, bajo

barren iz. Zerbaiten beheko aldea edo ertza. ▲ Sin. *azpi*, *gainbehe*. ▼ Anton. *goien*; *goikalde*. || *Laiyuén beko barrena* (Ond Bak). *Barrena dok gainbekaldĭa* 'barrena duk (gain) behealdea'. *Eliz barrenĭen* 'eliza barrenean'. *Barrenkaldĭen* 'barrenaldean'. *Barga barrena* 'Barga barrena'. *Barreneko bidĭa* 'barreneko bidea'. *Pantalon barrenak* 'praka barrenak'. *Urdingo herri barrena: elizati goitibĭa* 'Urdiaingo herri barrena: elizatik (goitik-)behera'.

barrenkalde, barrenkaldia BARRENALDE
azpikalde, gainbekalde *goienkalde, goikalde*
parte de abajo, parte inferior

barrenkalde iz. Barrenaldea. ▲ Sin. *azpikalde*, *gainbekalde*. ▼ Anton. *goienkalde*, *goikalde*.

barreño, barreñua TERREINA, BARRINOI
barreño

barreño iz. Garbitzeko ontzia; barrinoia, terreina.

barrereko BARRIDEKO, AUZOKO
vecino, -a (de la misma calle)

barrereko iz./adj. Barridekoa, auzunekoa. *Barrerekuek: etxĭa gertu donien* 'barridekoak: etxea gertu dagoenean' (Ond Bak). Ald. **barreko**, *barrekwa* [Urdiain]. Ik. **barre**[2]. [Oharra. **auzoko** ez da erabiltzen].

barresinu, barresinua IRRIBARRE
sonrisa

barresinu iz. Irribarrea. *Barresinua in dau* 'barresinua egin du'.

barride BARRIDE, AUZUNE
barrio

barride iz. (Iza Alts). Auzunea. Ald. *barre*. Ik. **barre**[2].

barrika, barrikia BARRIKA
barrica, tonel

barrika iz. *Barrikan bertan prepatu dai zurrakapotĭa* 'barrikan bertan preparatu dute zurrakapotea'. Ik. **kupel**.

barrikada, barrikadia BARRIKADA
barricada

barrikada iz. *Gerra garaien barrikadak patzen zituain bideberrien* 'gerra garaian barrikadak paratzen zituzten bideberrian'.

barru, barrua

BARRU

interior, (lo) de dentro
dentro (de)
interior, espíritu, alma, conciencia, ánimo
dentro de, en (el plazo de), al cabo de

barru **1** iz. *Barrua ustelduik duka* 'barrua usteldurik dauka'. **2** (Leku atzizkiekin). *Gazin etxe barrwá, kanpwen otza do'ta* 'goazen etxe barrura, kanpoan hotz dago eta'. **3** iz. Barrena, pertsona baten barrualdea. *Barruen dĭat sentimentu oi* 'barruan daramat sentimendu hori'. Ik. **baitan**. **4** postpos. Adierazten den epea igaroz gero. *Amabost egun barru etorriko dala esan dwa* 'hamabost egun barru etorriko dela esan dit'. **5** adb.* barrurago (> *barru(r)o*) *Mendien barru(r)ó* (Ond Bak). ◆ **barruko** adj. *Barruko arropĭa* 'barruko arropa'.

barrukalde, barrukaldia

BARRUALDE

barru — *kanpokalde*

interior, parte interior

barrukalde iz. Barrualdea. ▲ Sin. *barru*. ▼ Anton. *kanpokalde*.

bart

BART

anoche, ayer por la noche, esta noche

bart adb. Joan den gauean. *Bart yon gindan izkon etxĭen* 'bart egon ginen izekoren etxean'. ◆ **bart arratsaldean** (> *bart atsaldĭen*). Bart arratsean. ◆ **bart gauean** (> *bart gaubĭen*).

baru, barua

BARAU

ayuno

barau (> *baru*) **1** iz. *Baru eguna* 'barau eguna'. *Barua gorde* 'baraua gorde'. *Barua ausi* 'baraua hautsi'. **2** adb. Baraurik. ◆ **baraurik** (> *barwik*) adb. *Barwik fan da analisak itĭa* 'baraurik joan da analisiak egitera'. ◆ **baraurik izan** (> *barwik izan*). *Baruik ze? Txerriek baruik de. Txerriek jan be de guaindo. Txerriek janik de* (Ond Bak). Ik. **baraurik egon**. ◆ **baraurik egon** (> *barwik yon*). *Barwik no* 'baraurik nago'.

barualdi, barualdia

BARAUALDI

tiempo de ayuno

baraualdi (> *barualdi*) iz. *Metzeko barualdia iten asi zan, bea lixto etsi zen* 'mehetzeko baraualdia egiten hasi zen, baina listo [azkar] utzi zuen'.

baruik izan

BARAURIK EGON

baraurik izan (> *barwik izan*). *Baruik ze? Txerriek baruik de. Txerriek jan be de guaindo. Txerriek janik de* (Ond Bak). Ik. **baraurik egon**.

baruik yon

BARAURIK

en ayunas, sin comer

baraurik egon (> *barwik yon*). *Barwik no* 'baraurik nago'.

basagizon, basagizona

BASAGIZON

hombre que trabaja en el monte; leñador

basagizon iz. Basolanean jarduten duen langilea, gehienbat basoa bota eta ateratzen. || Basotarra, basokoa.

basahuntz, basahuntza

BASAHUNTZ

nombre que reciben varios ungulados salvajes con astas, entre ellos el ciervo y el corzo

basahuntz (> *basauntz*) iz. Basahuntza eta oreina, orkatza edo kideko aberea. Ik. **korzo**.

basajaun, basajauna

BASAJAUN

basajaun, personaje de la mitología vasca
hombre rústico/huraño/salvaje

basajaun **1** iz. pl. basajaunak (?). *Bakizu Basajaunan ixinplwik?* 'badakizu Basajaunaren ixinplorik [ipuinik]?'. **2** iz. Basa gizona.

basakatu, basakatua

BASAKATU

gato montés

basakatu iz. Basoan hazi eta bizi den katua, etxekoa baino handiagoa eta indartsuagoa, buztan lodia duena (Felis sylvestris). *Basakatua dail(e) parajiontan* 'basakatua dabil paraje honetan'. *Basakatu kozkor bat ikus nen* 'basakatu kozkor [tamaina handikoa] bat ikusi nuen'.

basarreka, basarrekia

BASOKO ERREKA

regato, riachuelo, arroyo

basarreka iz. Izen berezi gisa, basoko erreka nagusia. ◆ **basarrekako harri** iz. Errekarria, harribila.

basasoro, basasorua

MENDIKO SORO

campo de cultivo en la montaña

basasoro iz. Mendiko soroa. *Patatĭa yaiten zan Urdintzauko basasorotan* 'Patata ereiten zen Urdintzauko [Urbasa mendiko alderdia] basasoroetan'. Ik. **soro**. [(G-nav). "Dermiotik kanpora landutako lurrak —Urdiainen basoa baino gorago, mendian zeuden—" Satr in Eusk 1988, 656.]

basatxipu, basatxipua

LERTXUN

fili-fili

álamo temblón, tiemblo (Populus tremula)

basatxipu (Ond Bak) iz. (Bot.) Lertxuna (Populus tremula). ▲ Sin. *fili-fili*.

basegal, basegala

BASO HEGAL*

basomutur

zona lindera con el bosque

basegal iz. Basoaren hegala, bazterra. ▲ Sin. *basomutur*.

baseper, baseperra

EPER

perdiz común

baseper iz. Eperra (*Alectoris sp.* eta *Perdix sp.*). Ik. **eper**. [Oharra. Euskara batuko 'eper', *baseper* da Urdiainen; euskara batuko 'galeper', *eper* da Urdiainen].

baserri, baserria

BASERRI

basoetxe, kaserio

caserío

baserri iz. (Hitz berria). Ik. **basoetxe**, **basoko etxe**. ▲ Sin. *kaserio*.

baserritar, baserritarra

BASERRITAR

habitante de un caserío; campesino, -a

baserritar iz. Ik. **nekazari**.

basijero, basijerua

ONTZITEGI (SUKALDEKOA)

alacena, aparador; vasar

basijero iz. Ontzitegia, sukaldeko ontziak gordetzen diren arasa. *Arramaiua basijerwekin* 'armairua basijeroarekin'. Ik. **arasa**.

baskula, baskulia

BASKULA

pisu

báscula

baskula iz. Pisatzeko tresna plataformaduna. *Kaso gaiai espiluai ta baskulĩai* 'kasu gehiegi espiluari eta baskulari'. Ik. **balanza**; **pisu**.

baso gizon

BASAGIZON

hombre que trabaja en el monte

baso-gizon iz. Basagizona, basoan lan egiten duen gizona.

baso, basua (1)

BASO (1)

bosque

baso[1] iz. *Herriko lurretan do baswa eta komunala da* 'herriko lurretan dago basoa eta komunala da'. || Baswa emen zan oi leno, eta gwai sorwa 'basoa omen zen hori lehenago, eta orain soroa' (Ond Bak). ◆ **baso sarri**. Arbola sarri den basoa. ▲ Sin. *basoitxi*. ◆ **basoa atera** (> *baswa ata*). Saldu ondoren, basoko zuhaitzak bota eta eraman. *Gainbeko baswen, baswa atatzen daitza* 'gainbeheko basoan, basoa ateratzen dabiltza'. ◆ **basoa bota** (> *baswa bota*). Basoko zuhaitzak moztu. ◆ **basoitxi 1** iz. Baso sarria. ▲ Sin. *baso sarri*. **2** iz. Baso hesitua. ◆ **goiko baso**. Gainbeheko basoaren aldean, altitude goragoko basoa, Urbasaren magalean dagoena. Ik. **barga**. ◆ **gainbeheko baso** (> *gainbeko baso*). Goiko basoaren aldean, altitude baxuagoko basoa, ibarraren iparraldean dagoena. ◆ **baso-gizon** iz. Basagizona, basoan lan egiten duen gizona. ◆ **Basoko Maria**. Basoko anderea, izaki mitologikoa. ◆ **Basoko Mariaren ogia** (> *basoko marien ogia*). Ohitura zaharra. Basoko lanetik etxera bueltan ekartzen ziren jateko hondarrak, ogia normalean, Basoko Mariak emandako bezala aprobetxatzen ziren gero etxean. Ik. **basoko**.

baso, basua (2)

BASO (2)

vaso

baso[2] iz. Edalontzia; ontzi horren edukia. *Baso erdi bat ur. Zerbezĩa eztau baswen artzen; botellati naio* 'zerbeza ez du basoan hartzen; botilatik nahiago'.

basoerdi (?)

BASOERDI

chiquito; vaso pequeño o medio vaso de vino

basoerdi (?)

basoetxe, basoetxia

BASETXE, BASERRI

kaserio

caserío

basoetxe iz. Basetxea. ▲ Sin. *kaserio*.

basoilar, basoilarra

ARGI OILAR

kakajale, sonbel txoi, txapela txoi

abubilla, upupa (Upupa epops)

basoilar (*) iz. Argi oilarra; zomorroz-eta elikatzen den txori moko-luzea, buru gainean lumazko mototsa duena (Upupa epops). ▲ Sin. *kakajale*, *txapela txoi*. [*Oharra: ez nahasi euskara batuko «basoilar» (Tetrao urogallus) hegaztiarekin].

basokada, basokadia

BASOKADA

contenido de un vaso [cantidad]

basokada iz. Baso baten edukia.

basoko mari, basoko maria

BASOKO MARIA

basoko maria (personaje imaginario femenino que vive en el bosque)

basoko mari(a) iz. Basoko amandrea, alegiazko pertsonaia. *Basoko Marien ogia* 'Basoko Mariaren ogia [Basoko lanetara eramandako jatekoetatik sobratzen zena, ogia-eta, aprobetxatzeko etxera bueltan ekartzen zen; sobra horiek etxeko txikienendako Basoko Mariak emandakoak ziren].

basoko, basokua

BASOKO

silvestre

basoko adj. Basokoa dena. *Basoko ailubiek* 'basoko marrubiak'. ◆ **basoko mari(a)** iz. Basoko amandrea, alegiazko pertsonaia. *Basoko Marien ogia* 'Basoko Mariaren ogia [Basoko lanetara eramandako jatekoetatik sobratzen zena, ogia-eta, aprobetxatzeko etxera bueltan ekartzen zen; sobra horiek etxeko txikienendako Basoko Mariak emandakoak ziren].

basolan, basolana

BASOLAN

trabajo que se realiza en el bosque o en el monte

basolan iz. Basoan egiten den lana. *Jubilatu artĭa basolanĭen ibil(i) da* 'jubilatu [erretiroa hartu] arte basolanean ibili da'.

basotar, basotarra

BASOTAR

basozaile

montaraz

basotar adj./iz. Basokoa, basoan bizi dena. *Beti baswen: basotarra* 'beti basoan: basotarra' (LM). Ik. **basozaile**.

basozai, basozaia

BASOZAIN

igurai, boxke

guarda forestal, guardabosque

basozai iz. Basozaina. ▲ Sin. *igurai*, *boxke*.

basozaile, basozailia

BASOZALE*

basotar

amante del bosque; aficionado, -a al monte

basozaile (?) iz. Basozalea (LM). Ik. **basotar**.

basta
NAHIKOA IZAN, ASKI IZAN

bastar, ser suficiente
basta; interj. usada para poner término a una acción o discurso

basta **1** *da* ad. Nahikoa izan. *Basta sukaldeko lurra arenatzĭa, sekatu be jendĭa sartu ta ata asteko* 'basta [nahikoa da] sukaldeko lurra harenatzea [zorua garbitu], lehortu gabe jendea sartu eta atera hasteko'. **2** interj. Nahiko! *Basta!, ixilik ago!* 'nahikoa!, isilik hago!'.

bastante
NAHIKO, SAMAR, ASKI

nahiko, samar, dezente

bastante

bastante adb. Ik. **nahiko**; **samar**; **dezente**. ◆ **bastanteko** adj. Nahikoa; nabarmena. *Bastanteko harrikazwa zukaken, bai* 'harrikada [buruko nahasmendua] nabarmena zeukaan, bai'. *Bastanteko golpĭa duka autwek* 'golpe handitxoa dauka autoak'.

bastidore, bastidoria
BASTIDORE

bastidor

bastidore iz. Brodatze lanak egiteko egitura. *Bordatzeko bastidorĭa* 'brodatzeko bastidorea'.

basto, bastua
BASTO. 2 BASTOI (KARTA)

zakar, ordinaio — *fin(a)*

basto, -a; tosco, -a; rudo, -a
basto (palo de la baraja española)

basto **1** adj. Zakarra dena, fina ez dena. ▲ Sin. *zakar*, *ordinaio*. ▼ Anton. *fin*. **2** iz. Bastoia; karta espainoletako lau sailetako bat, zurezko makila buru-lodi baten irudia ezaugarri duena; sail horretako karta. *Txotiko basto* 'txanka bastoia'.

baston, bastona
ESKUMAKILA, BASTOI

makila; mangulu

bastón

baston iz. Eskumakila. *Bastona duka launtasunik aundiena* 'bastona dauka laguntasunik handiena'. Ik. **makila**, **mangulu**.

basua bota
BASOA BOTA

talar el bosque

basoa bota (> *baswa bota*). Basoko zuhaitzak moztu.

basurda, basurdia
BASURDE

2 zakar

jabalí (Sus scrofa)
brusco, -a, desagradable (dicho de una persona)

basurda (eta *basurde* [Bakaiku]) **1** iz. Basurdea (*Sus scropha*). *Basurdak uxarratu dai larre guztia* 'basurdeek uxartu dute larre guztia'. || *Basurde bat* (Ond Bak). **2** adj. Pertsona zakarra, gozotasunik gabea. ▲ Sin. *zakar*.

basurdaki, basurdakia
BASURDEKI

carne de jabalí

basurdaki iz. Basurdekia, basurde haragia. *Basurdakia prepatzeko errezetĭa eman ber duazu* 'basurdekia preparatzeko errezeta eman behar didazu'.

basurdakuma, basurdakumia

BASURDEKUME

¡abato (cría del jabalí)

basurdakuma iz. Basurdekumea. Ik. **baxaka**.

basuso, basusua

BASAUSO, PAGAUSO

torkaza

paloma torcaz

basuso (eta *baso uso*) iz. Basausoa (Columba palumbus). ▲ Sin. *torkaza*.

bat

BAT

un, una; uno, -a

bat (eta *'at*) **1** zenbtz. *Emantazu bat* 'emaidazu bat'. *Best'at* 'beste bat'. || *Iruroindako patu ber dot best'at* 'hirurondako paratu behar dut beste bat'. *Arrua bat, arri bat, alaba bat, esku bet** 'arroa bat, harri bat, alaba bat, esku bat' (Ond Bak). *Bat beare artu ber dot* 'bat bederen hartu behar dut'. **2** Bera. *Erri batekwek ga biok* 'herri batekoak [berekoak] gara biok' ◆ *Adin batekwek* 'adin batekoak [berekoak]'. ◆ **bat eta beste**. ◆ bat edo beste (> bat o beste). ◆ **halako batean** (> *alako batĭen*). || *Puska'tĭen* 'puska batean'. *Urte batĭen* 'urte batean'. Narda bat... best'át. Batek... bestiek (Ond Bak). ◆ **baten bat** (Izenordain gisa). Norbait; bakarren bat. Ik. **bat edo bat** (> *bateon bat*). ▲ Sin. *bakarren bat*. ◆ **bat edo bat** (> *bateonbat*) (Izenordain gisa). Norbait. *bateonbatek*, *bateonbati*... ◆ **baten batzuk**. Batzuk; batzuen batzuk. ◆ **bat ere (ez)*** (> *bat'e ez*). *Kazkarrak jota, sar bat'e ezta gelditu sano* 'kazkabarrak jota, sagar bat ere ez da gelditu sano'. ◆ **bat heldu**. Bat etorri, iritzi berekoa izan. ◆ **batek jakin**. *Batek daki ze pasatuko dan* 'batek daki zer pasatuko den. ▲ Sin. *auskolo*; *fan da bila*; *zazi; jakintazu*. ◆ **batez beste** [Urdiain] adb. Ik. **banaz beste** [Bakaiku]. ◆ **batez ere** (> *batez'e*) adb. ▲ Sin. *gaienbat* / *geienbat*. ◆ **batean** (> *batĭen*) adb. Aldi berean; elkarrekin. Ik. **batera**. ◆ **batean ibili** (> *batien ibili*). Elkarrekin ibili. Ik. **alkar**. ◆ **batean..., bestean...** (> *batĭen..., bestĭen...*). *Batien barre ta bestĭen ñar, ala bizi berko gaitun* 'batean barre eta bestean negar, hala bizi beharko gaitun'. ◆ **batera** (> *batĭa*) adb. Ik. **batean**. Aldi berean; elkarrekin.

bat'ez

BATERE EZ / BAT (ERE) EZ (?)

ezez

¡nada!, ¡mierda!

se dice de las personas que no valen para nada

batere ez* (> *batez*). interj. Esapidea. Kaka zaharra! *Batez, orduen* 'batere ez, orduan'. ◆ **batere eza*** (> *batez*, *bateza*) adj. Ezereza. *Jende bateza, ezeza* 'jende batereza, ezereza' (LM). *Oi dok batez* 'hori duk batere ez'. Ik. **ezerez** (> *ezez*).

bataiatu, bataiatzen

BATAIATU

bautizar

bautizar (adulterar un líquido echándole agua)

bataiatu **1** *dau* ad. **2** *dau* ad. Edariei-eta ura bota. ◆ **urarekin bataiatu** (> *urakin bataiatu*). *Ardwau urakin bataiatu dai* 'ardo hau urarekin bataiatu dute'. *Ezti onek ematen dau urakin bataiatwik dola* 'ezti honek ematen du urarekin bataiaturik dagoela'. Ik. **bedeinkatu**.

bataio, bataiua

BATAIO

bautismo; bautizo

bataio iz. *Apizak pontĭen ematen dau bataiua* 'apaizak pontean ematen du bataioa'.

batasun, batasuna

BATASUN

alkartasun, unio

unidad; alianza

batasun iz. *Jendĭa ondo ibiltzeko batasuna ber din* 'jendea ondo ibiltzeko batasuna behar din' (LM). Ik. **alkartasun**; **unio**.

baten bat

BATEN BAT

bakarren bat

alguien; alguno, -a; algún/alguno que otro

baten bat (Izenordain gisa). Norbait; bakarren bat. Ik. **bat edo bat** (> *bateon bat*). ▲ Sin. *bakarren bat*.

baten batzuk

BATEN BATZUK

alguno que otro, unos cuantos, unas cuantas

baten batzuk. Batzuk; batzuen batzuk.

bater, baterra

KOMUN

komun, retrete

váter; cuarto de baño

bater iz.

batere

BATERE

ezez; zero

ningún, -una; no... alguna, -o; nada de; en absoluto
nada, (nada) en absoluto
¡nada!, ¡mierda!
se dice de las personas que no valen para nada

batere (ez) (eta *báte*) adb. Erabateko gabezia adierazten duen hitza. *Enauk batere arritzen* 'ez nauk batere harritzen'. *—Zenbat balio dau orrek? —Batez; ezez (ezerez)* 'zenbat balio du horrek? —Batere ez; ezer ere ez'. Ik. **bat ere**. ◆ **batere ez*** (> *batez*). interj. Esapidea. Kaka zaharra! *Batez, orduen* 'batere ez, orduan'. ◆ **batere eza*** (> *batez*, *bateza*) adj. Ezereza. *Jende bateza, ezeza* 'jende batere eza, ezereza' (LM). *Oi dok bat'ez* 'hori duk batere ez'. ▲ Sin. *ezez(a)*; *zero*. Ik. **ezerez** (> *ezez*).

bateria

BATERIA

batería (Elektr.)
batería (Mus.)

bateria (> *bateia*) **1** iz. Elektrizitatea metatzen duen tresna. **2** iz. Musika-instrumentua.

batez beste

BATEZ BESTE

batez beste [Urdiain] adb. Ik. **banaz beste** [Bakaiku].

batez e

BATEZ ERE

gahienbat / gehienbat

sobre todo; en especial; principalmente, singularmente

batez ere (> *batez'e*) adb. ▲ Sin. *gaienbat* / *geienbat*.

batia

BATERA

al mismo tiempo, a la vez; al unísono

batera (> *batĭa*) adb. Ik. **batean**. Aldi berean; elkarrekin.

batien

BATEAN

al mismo tiempo, a la vez, a un tiempo

batean (> *batĭen*) adb. Ik. **batera**. ◆ **batean ibili** (> *batien ibili*). Elkarrekin ibili. Ik. **alkar**. ◆ **batean..., bestean...** (> *batĭen..., bestĭen...*). *Batien barre ta bestĭen ñar, ala bizi berko gaitun* 'batean barre eta bestean negar, hala bizi beharko gaitun'.

batiko, batikua

BATEKO

as (en naipes)

bateko (> *batiko*, *battiko*) adj./iz. *Karta jokuen, batiko urrĭa* 'karta jokoan, bateko urrea'.

batitu, batitzen

IRABIATU

batir, revolver

batitu *dau* ad. Irabiatu, irauliz nahasi. *Tortillĭa iteko, arrontzak batitu* 'tortilla egiteko, arrautzak irabiatu'. *Mantekillĭa iteko, esene gaina batitu* 'gurina egiteko, esne-gaina irabiatu'.

batueko ur, batueko ura

UR SUFREDUN

txolosta ur

agua sulfurada

batueko ur iz. Batueko ura, ur sufreduna. *Inguontan badĭa batweko ura dekain iturriek* 'inguru honetan badira batueko ura dakarten iturriak [iturri sufredunak]'. ▲ Sin. *txolosta ur*. Ik. **txolosta**.

batxe, batxia

ZULO, TRANGO

zulo

bache, obstáculo [en la carretera]

batxe iz. Zuloa, trangoa. Ik. **zulo**; **zulanguna**; **drango**.

batza, batzia

BARATZE

ortu

huerto, huerta

batza iz. Baratzea. *Batzĭa txukuntzen laundu dwa* 'baratzea txukuntzen lagundu dit'. Ik. **ortu**; **saila**.

batzar, batzarra

BATZAR

junta, sesio, reunio

junta, asamblea, reunión

batzar (eta *bazar*) iz. Ik. **junta**; **sesio**; **reunio**. ◆ **Batzarramendi**. Leku izena; antzina, Burundako herriek batzarrean biltzen ziren lekua.

batzuk

BATZUK

unos, -as; algunos, -as

batzuk zenbtz. *Batzuk eta bestatzuk. Urdintar batzuk* 'batzuk eta beste batzuk. Urdiaindar batzuk' (Ond Bak). ◆ **baten batzuk**. ◆ **batzuetan** (> *batzutan*) adb.

baula, baulia

KUTXA

kutxa, arka

baúl

baula (> *báula*) (*a* itsatsia) iz. *Dirua, báulĭen*. Ik. **kutxa**; **arka**.

baxaka, baxakia

BASAKA, (TXERRIKUMEA)

cochinillo silvestre; rayón
silvestre, salvaje, asilvestrado, -a

baxaka **1** iz. Basaka*, txerrikume basaka; basurdekumea edo basurdearekin azundu [ernaldu] den urdearen umea. *Baxakak, nárruen luzeratá, arrastwek ibiltzen tuai, ta gĭo aunditzen dĭanĭen desagertu iten zaizkie* 'basakek, larruan luzeratara, arrastoak ibiltzen dituzte, eta gero handitzen direnean desagertu egiten zaizkie'. Ik. **basurdakuma**; **txerrikuma**. **2** adj. *Nesaki baxaka*.

baxka, baxkia

BASKA

blusa

chambra, blusa femenina

baxka iz. Baska, txanbra; aspaldi erabiltzen zen blusa; gaur, *blusa*. Ik. **blusa**.

bazar, bazarra

BATZAR

junta, sesio

junta, asamblea, reunión

batzar

bazkai lege, bazkai legia

BAZKARI LEGE

comida ligera

bazkari lege (> *bazkai lege*). ◆ **bazkari legea egin** (> *bazkai legĭa in*).

bazkai legia in

BAZKARI-LEGEA EGIN

comer frugalmente / ligeramente

bazkari legea egin (> *bazkai legia in*). Bazkari arin bat egin edo bazkaltzeko ohitura bete.

bazkai, bazkaia

BAZKARI

comida (del mediodía o primeras horas de la tarde)

bazkari (> *bazkai*) iz. *Bazkaiek eztwa onik in* 'bazkariak ez dit onik egin'. ◆ **bazkaria paratu** (> *bazkaia patu*); **bazkaria preparatu** (> *bazkaia prepatu*). ◆ **bazkari legea egin** (> *bazkai legĭa in*). ◆ **bazkaritako** (> *bazkaitako*). ◆ **bazkaritan** (> *bazkaitan*). ◆ **bazkaritara** (> *bazkaitá*).

bazkaia patu

BAZKARIA PRESTATU

poner, preparar la comida

bazkaria paratu (> *bazkaia patu*). Bazkaria prestatu.

bazkaita

BAZKARITARA

a comer

bazkaritara (> *bazkaitá*).

bazkaitako, bazkaitakua

BAZKARITAKO

para comer, de comer

bazkaritako (> *bazkaitako*).

bazkaitan

BAZKARITAN

comiendo, en la comida

bazkaritan (> *bazkaitan*).

bazkalaurre, bazkalaurria

BAZKALAURRE

tiempo anterior a la comida del mediodía

bazkalaurre iz. *Bazkalaurreti artzen dot botikĭa* 'bazkalaurretik hartzen dut botika'.

bazkaldu, bazkaltzen

BAZKALDU

tomar la comida del mediodía, comer

bazkaldu ad. *Patatakin bazkaldu du* 'patatak bazkaldu dugu'. ◆ **bazkaltzeko garai**. Ik. **bazkalordu**.

bazkalondo, bazkalondua

BAZKALONDO

sobremesa; tiempo después de comer o almorzar

bazkalondo iz. Bazkaldu ondoko denbora. *Bazkalonduen kartakan jokatzen dai* 'bazkalondoan kartetan jokatzen dute'.

bazkalordu, bazkalordua

BAZKALORDU

bazkaitako / bazkaltzeko garai

hora de comer al mediodía

bazkalordu iz. ▲ Sin. *bazkaitako / bazkaltzeko garai*.

baztabiatu, baztabiatua

GAZTA BERATU(A)

queso macerado

baztar hondatzaile

IZORRATZAILE

baztar hondatzaile (> *baztar ondatzaile*). Bazter hondatzailea.

baztar-ikustaile, baztar-ikustailia

IKUSNAHI, BEGILUZE

curioso, -a

baztar-ikustaile adj. Ikusnahia, begiluzea. *Baztar(rak) ikustailĭa*.

baztar-nahastaile, baztar-nahastailia

BAZTER-NAHASLE, BAZTER-NAHASTAILE

liante, enredador, -a; revoltoso, -a

baztarrak nahastaile. Bazter nahaslea.

baztar, baztarra

BAZTER

eskina, hegal, mutur; txoko, zulo.

borde, orilla, margen; extremo, límite
rincón
(pl.) lugares, partes, alrededores, tierras, sitios
costero

baztar **1** iz. Bazterra, ertza, muga. *Bide baztarra*. *Ibai baztarra*. *Baso baztarra*. *Errien baztarra* 'herriaren bazterra'. *Aparte bizi ga munduko baztar ontan* 'aparte bizi gara munduko bazter honetan'. Ik. **eskina**; **hegal**, **mutur**. **2** iz. Zokoa. *Sukalde baztarrĭen* 'sukalde bazterrean'. *Taberna baztarrĭen* 'taberna bazterrean'. Ik. **txoko**; **zulo**. **3** iz. Batez ere pl. Aldea, alderdia, lurraldea, bereziki bakartua. *Baztar guztietan* 'bazter guztietan'. *Maietzĭen berdetzen dĭa emengo baztar guztĭek* 'maiatzean berdetzen dira hemengo baztar guztiak'. **4** iz. Baztarra, kosteria, respaldua (EHHA). [costero: Cada una de las dos piezas más inmediatas a la corteza, que salen al aserrar un tronco, en el sentido de su longitud]. Ik. **lata**. ◆ **baztar-ikustaile** adj. Ikusnahia, begiluzea. *Baztar(rak) ikustailĭa*. Ik. **kuzka**. ◆ **baztarra(k) jo**. ◆ **baztarrak nahastu**. ◆ **baztarrak nahastaile**. Bazter nahaslea. ◆ **baztar hondatzaile**. ◆ **bazterrean utzi** (> *baztarrĭen autzi*). Alde batera utzi; abandonatu. *Ebein izkerĭa baztarrĭen auzteko asmoik eztukai* 'euren hizkera bazterrean uzteko asmorik ez daukate'. Ik. **baztartu**. (eta *baztartatu* [?]) ¬

baztarreko, baztarrekua

SUBIL

supil

tuero, trashoguero; tronco, leño (que se coloca en el fuego del hogar)

baztarreko **1** iz. Subila, beheko suan erretzen den enborra. Ik. **supil**. **2** adj. Periferikoa, aldirikoa. *Erri baztarrekwek* 'herri bazterrekoak'.

baztartu, baztartzen

BAZTERTU

abandonatu, kendu, retiatu

apartar(se), retirar(se), alejar(se)
marginar, dejar de lado, postergar; abandonar; despreciar

baztertu (> *baztartu*) **1** *da/dau* ad. *Baztartu pixkat, bidĭa auzteko!* 'baztertu pixka bat, bidea uzteko [agindua]'. 2 *dau* ad. Bazterreratu. *Baztartu in dai, gaixuoi* 'baztertu egin dute gaixo hori'. Ik. **bazterrean utzi** (> *baztarrĭen autzi*). Ik. **abandonatu**; **kendu**; **retiatu**.

be

GABE

sin

be[1] (> *pe*) postpos. Gabe. *Jani'pe* 'janik gabe'. || Bi hilábete bete bé de, bi hilábete bete bé dakatzéi. Josi be. Jan be. Sagonai'pe. Yon ga uri pe. (Ond Bak). || Erremolatxa pila ez ikutu, bota be, juxtu-juxtua do-ta. Jan tazu lixto, katuak jan be 'katuak jan ez ditzan'. Zuk kasu in patatai, irakiten hasten dienien gainez in be. Aldien behin jo txalai, bestaldiá fan be. Zuien erditik fateko, zuitik bera bota be. || Txerrikumak janik de: jan dei. Urdia do jan be, urdia do jateko: urdiak eztau jan. Bai, yon be yongo da! Afaldu be zon. || Larru-baia da garia zikinik pe jartzeko (Ond Bak).

be / beh

BA

¡bah!; interj. Utilizada para denotar indiferencia o desdén

be[2] (eta *beh*) interj. Zerbait arbuiatzen dela adierazteko erabiltzen den hitza. *Be!, eztot nai* 'ba!, ez dut nahi'.

be bua hil

(BERE...) BURUA HIL

suicidarse

(bere...) burua hil (> *be bua il*) *dau* ad. (Bere...) buruaz beste egin. *Raso akokinatwik ta bildurtwik zukain gizon aua, ta orrengeiti be bua il zen* 'arras kikildurik eta beldurturik zuten gizon hura, eta horregatik bere burua hil zuen'.

be buruz

BERE BURUZ

por sí mismo, por su cuenta, por propia iniciativa

bere buruz (> *be buz*). **1** Nor(k) bere buruz. *Be buz bota da zarra dalako* 'bere buruz bota da zaharra delako'. **2 bere buruz** (> *be buz*). Bere artean; bere kabuz. *Be buz hizketan* 'bakarrizketan'. *Be buz ikas dau gitarrĭa jotzen* 'bere buruz ikasi du gitarra jotzen'. ◆ **bere buruzko** (> *bebuzko*, *bebuzkwa*). Bere kabuzkoa. | Be buai esan. | neonen buz (neure kasa). ¬

be garaien

BERE GARAIAN

en su día; en su momento, a su (debido) tiempo

bere garaian (> *be garaien*) adb. *Be garaien in ber dai gauzak* 'bere garaian egin behar dira gauzak' [a su debido tiempo].

be, beria

BERE

su, de él, de ella, de ello; sus, de ellos, de ellas

bere (> *be*, *berĭa*) erak. (*haren*-ek hartzen duen forma perpaus bereko *nor*, *nork* edo *nori* osagaia berari dagokionean). ◆ **berea egin** (> *berĭa in*). Nork berea egin. *Orrek beti berĭa iten dau* 'horrek beti berea egiten du'. ◆ **bere alde** (> *be alde*). *Be alde daile lanien* 'bere alde dabil lanean'. ◆ **bere buruz** (> *be buz*). **1** Nor(k) bere buruz. *Be buz bota da zarra dalako* 'bere buruz bota da zaharra delako'. **2 bere buruz** (> *be buz*). Bere artean; bere kabuz. *Be buz hizketan* 'bakarrizketan'. *Be buz ikas dau gitarrĭa jotzen* 'bere buruz ikasi du gitarra jotzen'. ◆ **bere buruzko** (> *bebuzko*, *bebuzkwa*). Bere kabuzkoa. | Be buai esan. | neonen buz (neure kasa). ¬ ◆ **bere kisa** (> *be kisa*). Bere gisa. ◆ **bere kontura** (> *be kontwa*). *Be kontwa iten dau lan* 'bere kontura egiten du lan'. ◆ **beretako** (> *betako*); ◆ **berarendako** (> *bĭandako*). *[Aztertu: *berĭa* 'berea', eta *bĭana* 'berarena']. ¬

bea

BAINA

pero, mas

bea [Urdiain] junt. (Forma hori Urdiainen erabiltzen da). Baina. Ik. **baina** (> *baia*).

bea

BERA

el/lo mismo, la misma, el/lo propio, la propia, en persona

bera (> *bea*, *bĭa*) izord. || *Bea etortzeako* 'bera etortzerako'. *Jangoikuék beák* 'Jaungoikoak berak'. *Beák nai dén garaién o egunién* 'berak nahi duen garaian edo egunean' (Ond Bak). Bera bezela dalako (Ond Bak) ||. *Nik'e gauza bea esan diat* 'nik ere gauza bera esan diot'. *Tomate klase bea da* 'tomate klase bera da'. ◆ *beandako*; *beangana*; *beakin*; *beangeiti*... ◆ **berean** (> *berĭen*). *Egun berĭen jaio gindan* 'egun berean jaio ginen'. *Etxe berĭen bizi ga* 'etxe berean bizi gara'. [Gaur egun '*berdin*' erabiltzen hasi da].

bea
BEHERA

gainbea

abajo, hacia abajo

behera (> *bea*, *bia*) adb. *Buruti bĭa* 'burutik behera'. || Oinetati berá, Pilota-jokubá (do). Andi beraxó fanda Aingíbel (do) (Ond Bak). Ik. **gain behera** (> *gainbea*).

bea're / beare
BEDEREN, BEHINTZAT, GUTXIENEZ

behintzat, binapin, gutxienez

por lo menos, al menos, cuando menos, siquiera, aunque (sólo) sea; aunque

beare* (> *bĭare*) lokail. Bederen, behintzat, gutxienez. *Etxetik ataezkio hankan loia bea're ekartzen da* (Ond Bak). *Oi beare!* 'hori gutxienez!'. *Eaniotzin ok bĭare!* 'eramazkion hauek behintzat'. *Etxĭen geldik, triste do; leno pasĭa bĭare faten zan* 'etxean geldirik triste dago; lehen pasiera bederen joaten zen'. ▲ Sin. *behintzat*, *binapin*, *gutxienez*.

beandu
BERANDU

goiz, garaiz

tarde; con retraso, después de lo previsto u oportuno
tardío, -a

berandu (> *beandu*, *bĭandu*) **1** adb. *Beandua da* ▼ Anton. *goiz*, *garaiz*. **2** adj. Beranta, berankorra. *Patata beandua* 'patata berandua'; *gaztina beandua* 'gaztaina berandua'. (...). ▼ Anton. *goiz*. ◆ **beranduan** (> *beanduen*, *bianduen*) adb. *Atzo atsalde beanduen... Garai beanduen habil...* ◆ **berandu arte** (> *beandu artĭa*, *biandu artĭa*).

beandutu, beandutzen
BERANDUTU

atziatu

retardar(se), demorar(se), atrasar(se); tardar
hacerse tarde

berandutu (> *beandutu*, *bĭandutu*) **1** *da* ad. Ik. **atzeratu**. **2** *zaio* ad. *Beandutu imer zaigu; korritzun* 'berandutu egin behar zaigu; korri dezagun'.

beandutxo
BERANDUTXO

algo tarde, un poco tarde

berandutxo (> *beandutxo*, *bĭandutxo*) adb. Adkor. Berandu. *Beandutxwai eldu naiz gaur* 'berandutxoegi heldu naiz [nator] gaur'.

bear bedeinkatu, bear bedeinkatuek
BELAR BEDEINKATU

belar bedeinkatu (> *bear bedeinkatu*).

bear on, bear onak
BELAR ONAK

hierbas buenas (pl.) [ramillete que se bendice en San Juan y se quema en la hoguera al año

belar on(ak) (> *bear on(ak)*) (pl.). *Bear onaĭn sortĭa: anisĭa, irĭa, mentĭa, atsomotwa, errosĭa, lapaintza eta lilitxwia* 'belar onen sorta: anisa, ira, menda, atso-mototsa, arrosa, lapaintza eta lili zuria'. *Bear onak Sanjwanetan bedeinkatzen dĭa, urrengo urtĭen su eman ta lurrun aien gaineti salto iten da* 'belar onak sanjoanetan bedeinkatzen dira, hurrengo urtean su eman eta lurrun haien gainetik salto egiten da'. ◆ **belar unak** (> *bear unak*). *Sorginaindako patzen zĭan bear unak* 'sorginendako paratzen ziren belar *unak* [belar onak].

bear-soro, bear-sorua

BELAR-SORO

beardi, larre, larresoro

prado; pastizal

belar soro (> *bear soro*). Belarra hazten den landa. ▲ Sin. *larre*, *beardi*, *larresoro*.

bear, bearra

BELAR

hierba

belar ([Bakaiku] eta *bear*, *bĭar*) iz. *Bearra moztu, nastu, sekatu ta bildu* 'belarra moztu, nahastu, sikatu eta bildu'. ◆ **belar seko** (> *bear seko*); ◆ **belar berde** (> *bear berde*). ◆ **belar txar** (> *bear txar*). ◆ **belar bedeinkatu** (> *bear bedeinkatu*). ◆ **belar on(ak)** (> *bear on(ak)*) (pl.). *Bear onaĭn sortĭa: anisĭa, irĭa, mentĭa, atsomotwa, errosĭa, lapaintza eta lilitxwia* 'belar onen sorta: anisa, ira, menda, atso-mototsa, arrosa, lapaintza eta lili zuria'. *Bear onak Sanjwanetan bedeinkatzen dĭa, urrengo urtĭen su eman ta lurrun aien gaineti salto iten da* 'belar onak sanjoanetan bedeinkatzen dira, hurrengo urtean su eman eta lurrun haien gainetik salto egiten da'. ◆ **belar unak** (> *bear unak*). *Sorginaindako patzen zĭan bear unak* 'sorginendako paratzen ziren belar *unak* [belar onak]. ◆ **belar soro** (> *bear soro*). Belarra hazten den landa. ▲ Sin. *larre*, *beardi*, *larresoro*. ◆ **belarretan** (> *bearretan*). ◆ **belarretara (joan)** (> *bearreta fan*). ◆ **txipu belar** (> *txipu bĭar*).

beardi

BELARDI

larre

prado, pastizal, pradera, herbazal

belardi (> *beardi*) iz. Ik. **belar soro**; **larre**.

bearreta fan

BELARRETARA (JOAN)

a cortar hierba, a la siega del heno

belarretara (joan) (> *bearreta fan*).

bearretan

BELARRETAN

en la hierba, sobre la hierba
cortando hierba, segando el heno

belarretan (> *bearretan*).

beatu, beatzen

BERATU

biundu

gogortu

macerar, manir, poner(se) a remojo
ablandar(se), reblandecer(se)

beratu (> *beatu*) *da/dau* ad. *Garbanzuek beatzen patu* 'garbantzuak beratzen paratu'. Ik. **biundu**. ▼ Anton. *gogortu*. 2 (Era burutua izenondo gisa). ◆ **gaztai beratu(a)** (> *gaztai beatua*). (≠ beaztu, beazten, elurra). ◆ **beratzen paratu** (> *beatzen patu*). Beratzen jarri.

beatz, beatza

BERATZ

beazun; biun

gogor

beratz (> *beatz*; *bĭatz*) **1** adj. *Denbora beatza*; *elur beatza*. || *Beátzo* 'beratzago'. (Ond Bak). ▲ Sin. *beazun*, *biun*. ▼ Anton. *gogor*. **2** adj. *Persona beatza, sufritzeko kapazidadeik eztaukana* 'pertsona beratza, sufritzeko kapazitaterik [gaitasunik] ez daukana'.

beaztasun, beaztasuna

BERAZTASUN

deshielo; blandura; suavidad

beraztasun (> *beaztasun*) iz. *Bai, beaztasuna do* 'bai, beraztasuna dago' [elurra urtzen hasten denean].

beaztu, beazten / beratu (?)

BERAZTU

biundu; beaztu

ablandar(se), suavizar(se); templar (se)

beraztu (> *beaztu*) *da/dau* ad. Elurra urtu. Ik. **bigundu** (> *biundu*); gesaldu. [≠ beratu (> *beatu*)].

beazun, beazuna

BERATZ (EGURALDI BERATZ)

beatz(a)

deshielo (?)

berazun* (> *beazun*) **1** iz. Izoztetik epeltzera egiten duen giroa. *Denbora beatza don garaien, elurra urtzen da, ta beazuna do (urtzen ai dan elurra)* 'denbora [eguraldi] beratza dagoen garaian, elurra urtzen da, eta berazuna dago (urtzen ari den elurra)'. *Ateri do, baia beazuna do* 'ateri dago, baina berazuna dago'. Ik. **beratz** (> *beatz*). **2** adj. *Elur beazuna*; urtzen ari den elurra. Ik. **gesal**. ◆ **elur beazun**. Elur beratza. *Elur beazuna ta gesala* 'elur beazuna eta gesala'. *Elur beazuna do* 'elur beratza dago'. ▲ Sin. *elur gesal*. * [Desberdindu: *behazun* (erraia) eta *be(r)azun* (eguraldi beratza)].

bebuz

BERE BURUZ

por sí mismo, por su cuenta, por propia iniciativa

bebuzko, bebuzkua

BERE GISAKO

(dicho de alguien) que va a su aire; que actúa con arreglo a su propio parecer

bere buruzko (> *bebuzko*) adj. Bere gisakoa. *Bebuzkwa da, ta eztezu erraz konbenzituko* 'bere buruzkoa da, eta ez duzu erraz konbentzituko'.

bedeinkatu, bedeinkatua

BEDEINKATU

bendito

bedeinkatu. (Era burutua predikatu edo izenondo gisa). *Ogi bedeinkatua*. *Ur bedeinkatua*. *Bear bedeinkatuek* 'belar bedeinkatuak'.

bedeinkatu, bedeinkatzen

BEDEINKATU

bendecir, consagrar
bautizar, mezclar el vino con agua
bendito

bedeinkatu **1** *dau* ad. *Jatorduek bedeinkatzeko oituria dukai* 'jatorduak bedeinkatzeko ohitura daukate'. **2** *dau* ad. *Lgart*. *Ardwa bedeinkatu* 'ardoa bedeinkatu' [ardoa ureztatu]. Ik. **bataiatu**. **3** (Era burutua predikatu edo izenondo gisa). *Ogi bedeinkatua*. *Domeko-domeko, ogi bedeinkatua yaten da mezá* 'domekero-domekero, ogi bedeinkatua eramaten da mezara'. ◆ **bedeinkatu**. (Era burutua predikatu edo izenondo gisa). *Ogi bedeinkatua*. *Ur bedeinkatua*. *Bear bedeinkatuek* 'belar bedeinkatuak'.

bedeinkazio, bedenkaziua

BEDEINKAZIO

bendizio

bendición

bedeinkazio iz. (Erl.) Bedeinkapena. ◆ **bedeinkazioa eman** (> *bedeinkaziua eman*).

bedratzi

BEDERATZI

nueve

bederatzi (> *bedratzi*) zenbtz. Bedratzi egunien mezia eman hilandako (Ond Bak). *Bedratzitan, afaitá* 'bederatzietan, afaritara'. • Esr. zah. *Kazkarra botatzen denĭen, bedratzi eguneko lutua ondorĭen* 'kazkabarra botatzen duenean, bederatzi eguneko lutoa ondorenean' [odeiz estalita egoten da gero].

bedratzigarren, bedratzigarrena

BEDERATZIGARREN; 2 BEDERATZIURREN

2 bedratziurren

noveno, -a

novena, novenario

bederatzigarren (> *bedratzigarren*) **1** ord. **2** iz. (Erl.) Norbait hil ondorengo bederatzi egunak, eta horietan egiten diren otoitz edo elizkizunen multzoa. Ik. **bederatziurren** (> *bedratziurren*) (Ond Bak).

bedratziurren

BEDERATZIURREN

bedratzigarren

novena, novenario

bederatziurren (> *bedratziurren*) iz. (Erl.) Bedratziurrena iteko. Bedratziurrena: bedratzi egunien mezia eman hilandako (Ond Bak). Ik. **bederatzigarren** (> *bedratzigarren*).

bee-hots

BEE, MARRAKA

balido; bee (onomatopeya del balido)

bee hots (> *bee ots*) iz. (Batez ere pl.) *bee otsak*. Bee, marraka, ardiaren oihua.

beganatu, beganatzen

BEREGANATU

hacerse con, apropiarse, conseguir; atraer hacia sí

bereganatu (> *beganatu*) *dau* ad. *Beganatu tu etxeko ondasunak* 'bereganatu ditu etxeko ondasunak'.

begi nini, begi ninia

BEGI NINI

nini

pupila; niña (del ojo)

begi nini. Ninia, begiaren erdiko beltzune biribila, argi izpiak begi barrura sartzen uzten duena. Ik. **nini**.

begi yausgarri

AZALUSKERIA, ITXURAKERIA

falsa apariencia, hipocresía, fingimiento

begi yausgarri. Zer tapatua, itxurakeria.

begi zulo, begi zulua

BEGI ZULO

cuenca del ojo

begi zulo. Begia kokatzen den barrunbea.

begi, begia

BEGI

ojo; órgano de la vista; parte visible del ojo en la cara
ojo; agujero que tienen las herramientas para meter el mango
ojo; espacio entre los pilares de un puente
ojo; manantial, fuente

begi **1** iz. Ikusmenaren organoa. *Begi urdinak dukatzi* 'begi urdinak dauzka'. *Begi nabarrak. Begi haundia, begi txikia. Begi argiek* 'begi argiak'. • Esr. zah. *Ikusten ezten begiek, gaitzik ez* 'ikusten ez duen begiak, gaitzik ez' (Ond Bak). • Esr. zah. *Begiek, asko ikusi ta gutxi sufritu* 'begiek, asko ikusi eta gutxi sufritu'. • Esr. zah. *Besten mina, begien lua* 'besteren mina, begiaren loa'. • Esr. *Begia aundiokwa tripĭa baindo're* 'begia handiagokoa tripa baino ere'. **2** iz. Hainbat lanabesetan, kirtena ezartzen den zuloa. *Aitxurran begia; aizkorĭen begia* 'aitzurraren begia; aizkoraren begia'. **3** iz. Zubietan, arkuen arteko hutsartea. *Zenbat begi dukatzi Urdingo ibaiko zwiek?* 'zenbat begi dauzka Urdiaingo ibaiko zubiak?'. **4** iz. Iturri baten begia, iturburua. Ik. **iturbegi**; **ur-begi**. ◆ **begi(en) bista**; **begi bistan egon** (> *begi bistan yon*). ◆ **(begi) bistan ibili** [eduki]. Ik. **bistan ibili**. ◆ **begia itxi**. Begi-keinua egin. ◆ **begiak itxi eta zabaldu** (> *begiek itxi ta zabaldu*). Begiak kliskatu. ◆ **begiarekin geinua egin** (> *begiekin geinua in*). ◆ **begietan jo** (> *begitan jo*) Argi gehiegiak nahasi edo nahasia gertatu, liluratu. *Yuzkiek begitan jotzen zen* 'eguzkiak begietan jotzen zuen'. Ik. **itsutu**. || *Kolore bizi orrek begitan jotzen dau* 'kolore bizi horrek begietan jotzen du'. ◆ **begitan hartu** (> *begitan artu*). Gorrotatu. *Artu zen begitan* 'Hartu zuen begitan'. ▲ Sin. *mania hartu*. Ik. **nazikusi**. ◆ **begi nini**. Ninia, begiaren erdiko beltzune biribila, argi izpiak begi barrura sartzen uzten duena. Ik. **nini**. ◆ **begitako negar** (> *begitako near*, *begitako ñear*; *begitako ñar*). (Batez ere pl.) Negar malkoa. ▲ Sin. *negar tintin* [Altsasu]. ◆ **begietako min(a)** (> *begitako mina*). ◆ **begi yausgarri**. Zer tapatua, itxurakeria. ◆ **begi zulo**. Begia kokatzen den barrunbea.

begibakar, begibakarra

BEGIBAKAR

oker

tuerto, -a

begibakar adj. Begi bat galdu duena. ▲ Sin. *oker*.

begibaldar, begibaldarra

EZKEL, BEGIOKER

begizihar, begimakur

bizco, -a

begibaldar adj. Begi ezkela, begiratzean begi bat edo biak okertzen dituena. ▲ Sin. *begizihar*, *begimakur*.

begikua izan

BEGIKO IZAN / EDUKI

gustar, agradar; tener simpatía

begiko izan (> *begikwa izan*) *dau* ad. Gogoko izan.

begiluze, begiluzia

BEGILUZE

curioso, -a

begiluze **1** adj. Ikusnahia dena (?). **2** adj. Jan ahal duena baino gehiago hartzen duena. *Gaztaibeatuendako beti izan da begiluzĭa* 'gaztaiberatuendako beti izan da begiluzea'.

begimakur

BEGI-OKER

begibaldar, begizihar

bizco, -a

begimakur adj. Begi-okerra, ezkela. ▲ Sin. *begibaldar*, *begizihar*.

beginabar, beginabarra

BEGI NABAR*

(de) ojo(s) abigarrado(s)

beginabar adj. Kolore nabarreko begiak dituena. Begi urdin-berde.

begita, begitia

BEGIZTA, TXIBISTA

erroseta, lazo

lazo, lazada

begita iz. Begizta, biribil gisako batekin edo birekin egiten den korapiloa, muturretako bati tiratzean desegiten dena. Ik. **erroseta**; **lazo**; **txibita 2**. ◆ **begita egin** (> *begitĭa in*). Begizta egin, txibista egin. *Begitĭa iten badakizu?* 'begizta egiten badakizu?' (Ond Bak) [eta Urdiain].

begitako near, begitako nearra

NEGAR MALKO

negar tintin [Altsasu]

lágrima

begitako negar (> *begitako near*, *begitako ñear*; *begitako ñar*). (Batez ere pl.) Negar malkoa. ▲ Sin. *negar tintin* [Altsasu].

begitako ñar, begitako ñarra

NEGAR MALKO

lágrima

begitako ñear, begitako ñearra

NEGAR MALKO

lágrima

begitan hartu

BEGITAN HARTU (NORBAIT)

nazikusi

coger manía, tomar ojeriza, tomarla con, tener a uno entre ceja y ceja

begitan hartu (> *begitan artu*). Gorrotatu. *Artu zen begitan* 'Hartu zuen begitan'. ▲ Sin. *mania hartu*. Ik. **nazikusi**.

begitan jo

BEGIETAN JO, LILURATU

deslumbrar; ofuscar, cegar

begietan jo (> *begitan jo*) Argi gehiegiak nahasi edo nahasia gertatu, liluratu. *Yuzkiek begitan jotzen zen* 'eguzkiak begietan jotzen zuen'. Ik. **itsutu**. || *Kolore bizi orrek begitan jotzen dau* 'kolore bizi horrek begietan jotzen du'.

begitil

BETILE

pestaña

ceja

begitil [Altsasu] **1** iz. Batez ere pl. Betilea; betazal ertzetan dauden ileetako bakoitza. {"*Begitilat*, una pestaña" (Iza Alts)}. **2** iz. Bepurua, bekaina.

begizihar, begiziharra

EZKEL, BEGI-OKER, ESTRABIKO

begibaldar, begimakur

bizco, estrábico

begi-zihar adj. Begi ezkela, estrabikoa. ▲ Sin. *begibaldar*, *begimakur*.

begonia

BEGONIA

begonia (Begonia sp.)

begonia (> *begoniĭa*) iz. (Bot.) Lorategi landarea (Begonia sp.).

beharrezko, beharrezkua

BEHARREZKO

premiazko

necesario, -a; obligatorio, -a, imprescindible

beharrezko (> *berrezko* [Urdiain]) adj. Ik. **premiazko**; **berdan(a)**.

beharrien

BEHARREAN

nezesidadien yon, premien yon. 2 zorien. 3 ordez

en situación de necesidad, necesitado, -a
a punto de
en vez de, en lugar de

beharrean (> *bearrĭen*, *berrĭen*) **1** adb. Premia. *Autwa garajĭa yan beharrĭen jukat* 'autoa garajera eraman beharrean zaukaat'. Gaixoi berrien do, eztuka-ta ezere 'gaixo hori beharrean dago, ez dauka eta ezer ere'. ▲ Sin. *nezesidadĭen yon, premien yon*. **2** adb. (Osagarritzat aditz bat era burutuan duela). -tzeko zorian (> *-tzeko zorien*). *Burua lertu berrĭen dukat* 'burua lehertu beharrean daukat'. *Il berrĭen yon naiz* 'hil beharrean egon naiz'. Ik. **zorian** (> *zorien*). **3** (Era burutuan dagoen aditz baten eskuinean). Behar edo espero zena ez, baizik eta beste zerbait gertatzen denean erabiltzen den hitza. *Etxĭen gelditu bearrĭen, zinĭa fanko gaituk* 'etxean gelditu beharrean, zinera joango gaituk'. *Laundu bearrĭen, traba besteik eztau iten* 'lagundu beharrean, traba besterik ez du egiten'. *Konpondu bearrĭen, gaio ausi dau* 'konpondu beharrean, gehiago hautsi du'. *Ondo berrĭen, txarki ata da* 'ondo beharrean, txarki atera da'. *Obeto berrĭen esan dĭat, bea txarki artu dau* 'hobeto beharrean esan diot, baina txarki hartu du'. Ik. **ordez**.

beharsu, beharsua

BEHARTSU

pobre

abeats

necesitado, -a; pobre

beharsu (> *bearsu*) iz./adj. (ts gabe) Behartsua. ▲ Sin. *pobre*. ▼ Anton. *abeats*.

behartu, behartzen

BEHARTU

obligatu, premiatu, forzatu

obligar, forzar, apremiar

behartu (?) *dau* ad. *Zerbeit nunbaitĭen sartzĭa beartu*. Ik. **obligatu**; **premiatu**; **forzatu**.

behazun bear, behazun bearra

BEHAZUN BELAR [LUBEAZUN (?)]

centáurea menor (Centaurium erythraea) (?)

behazun belar (> *beazun bear*, *biazun bĭar*) (Bot.). [Lubeazuna (Centaurium erythraea) (?)]. [(Centaurea scabiosa) (?)].

behe

BEHE

gainbehe; barren, azpi — *goi, gain*

parte inferior, parte baja; bajo
abajo
inferior, bajo, -a
bajo, -a; de poca altura

behe (> *be*) iz. Jeneralean **gainbehe** (> *gainbe*) erabiltzen da. *Laiuek beiti ta goiti dekai arria* 'leihoek behetik eta goitik daukate harria (Ond Bak). Ik. **gainbehe**; **barren**; **azpi**. ▼ Anton. *goi*. ◆ **behetik*** (> *beiti*) **beheiti*** (> *beiti*). *Laiuek beiti ta goiti dekai arria* 'leihoek behetik eta goitik daukate harria' (Ond Bak). ▲ Sin. *gainbeheti*. ◆ **beheko** adj. Ik. **gainbeheko**. *Laiuén beko barrena* 'leihoaren beheko barrena' (Ond Bak). ▼ Anton. *goiko*. ◆ **beheko alde** (> *beko alde*, *bekalde*).

behekalde, behekaldia

BEHEALDE

gainbekalde; barren, barrenkalde; azpi, azpikalde — *goi, goikalde; gainekalde; goienkalde*

parte baja, parte inferior, abajo

behekalde (> *bekalde*) iz. Behealdea, beheko aldea. Jeneralean **gainbehekalde** (> *gainbekalde*) erabiltzen da. ▼ Anton. *goi*, *goikalde*; *gainekalde*; *goienkalde*. Ik. **gainbehekalde** (> *gainbekalde*). Ik. **barren**; **barrenkalde**; **azpi**; **azpikalde**.

beheko

BEHEKO

gainbeheko — *goiko*

inferior, de abajo

beheko adj. Ik. **gainbeheko**. *Laiuén beko barrena* 'leihoaren beheko barrena' (Ond Bak). ▼ Anton. *goiko*. ◆ **beheko alde** (> *beko alde*, *bekalde*).

behi, behia

BEHI

vaca

behi (> *bei*) iz. (*Bos taurus*). Ik. **zezen**. ◆ **esene behi**. Esne behia. ◆ **behi-kaka**.

behiki, behikia

BEHIKI

geliki / giliki

carne de vaca

behiki (> *beiki*) iz. Behiaren okela. Ik. **geheliki** (> *geliki*).

behin

BEHIN

una vez, una sola vez

behin **1** adb. Aldi bakar batean. *Bein esplikatuta entenditzen dau* 'behin esplikatuta entenditzen du'. **2** adb. Lehenaldiko une bat ahotan hartzeko erabiltzen den hitza. *Bein, afaitan gendela*, (...) Ik. **behin batean**. ◆ **behin baino gehiagotan** (> *bein baindo gaiotan*). ◆ **behin bakarrik**. *Bein bakarrik esplikatzen tu gauzak* 'behin bakarrik esplikatzen ditu gauzak. ◆ **behin batean** (> *bein batĭen*). Ik. **aldi batean** (> *aldi batĭen*). ◆ **behin betiko** adb. Betiko. *Fan da bein betiko* 'joan da behin betiko'. ◆ **behin bera ere*** (*bein bĭare*). Behin bederen. ◆ **behin eta berriz** (> *bein da berriz*) *Behin da berriz hotsein diat telefonoti, bea eztau artzen* 'behin eta berriz hots egin diot telefonotik, baina ez du hartzen'. Ik. **berriz**. ◆ **behin ere** (*bein'e*). (Ezezko esaldietan). Inoiz ez. *Bein ere enaiz yon Parisen* 'behin ere ez naiz egon Parisen'. ◆ **behinik behin** (> *binapin*) lok. Behintzat. *Gaur, binapin, egun ona ata dau* 'gaur, behinik behin, egun ona atera du'. Ik. **beare**; **behintzat**. ◆ **behin ...-z gero** (> *bein ...-zkĭo*) (Aditz baten era burutuarekin). Ondoren. *Bein asizkio, intzala dana* 'behin hasiz gero, egin dezala dena.

behin baindo gahiotan

BEHIN BAINO GEHIAGOTAN

más de una vez, varias veces, en más de una ocasión; a menudo, frecuentemente

behin baino gehiagotan (> *bein baindo gaiotan*).

behin batien

BEHIN BATEAN

aldi batien

una vez, en cierta ocasión; érase una vez

behin batean (> *bein batĭen*). Ik. **aldi batean** (> *aldi batĭen*).

behin betiko

BEHIN BETIKO

betiko

para siempre

behin betiko (> *bein betiko*) adb. Betiko. *Bein betiko fan don* 'behin betiko jaoan dun'.

behin da berriz

BEHIN ETA BERRIZ

una y otra vez, muchas veces

behin eta berriz (> *bein da berriz*) *Behin da berriz hotsein diat telefonoti, bea eztau artzen* 'behin eta berriz hots egin diot telefonotik, baina ez du hartzen'.

behin ere

BEHIN ERE

nunca, jamás, ni una sola vez

behin ere (> *bein'e*) (Ezezko esaldietan). Inoiz ez.

behingoz

BEHINGOZ

de una vez, de una vez para siempre; para siempre
por fin

behingoz (> *beingoz*) adb. Betiko, behin betiko.

behinguen

BEHINGOAN

behingoan (> *beingwen*) adb. *Ia despeitzen doten beingwen* 'ea despeditzen [bukatzen] dudan behingoan'.

behintzat

BEHINTZAT

beare, binapin, gutxienez

por lo menos, al menos, cuando menos, siquiera

behintzat (> *beintzat*, *mintzat*) lokail. *Orrek mintzat bauka ongeia* 'horrek behintzat badauka ontasuna'. ▲ Sin. *beare*, *binapin*, *gutxienez*.

behiti

BEHEITI

behetik* (> *beiti*) **beheiti*** (> *beiti*). *Laiuek beiti ta goiti dekai arria* 'leihoek behetik eta goitik daukate harria' (Ond Bak). ▲ Sin. *gainbeheti*. Ik. **behe**, **gainbehe**.

behizai, behizaia

BEHIZAIN

altsai

vaquero, -a; pastor de ganado vacuno

behizai (> *beizai*; *baizai* [Bakaiku] (Ond Bak)) iz. Behizaina. *Beizaiek atwa gordetzen zen* 'behizainak hatoa / hatua [behi saldoa] gordetzen zuen'. Ik. **altsai**.

beiko, beikua

GABEKO

carente, que no tiene, que carece

beinke

BEINKE

ondo hale!

¡ya lo creo!; ciertamente, así es

beinke interj. Esan dena berresteko edo baiezko erantzuna indartzeko erabiltzen den hitza. *Beinke ixinpluek!* ▲ Sin. *ondo hale!*

beira

BEGIRA

mirando

begira (> *beira*) adb. *Danak beira dukatziu* 'denak begira dauzkagu'. *Laioti beira* 'leihotik begira'. *Béirion nolako soinekwa dekan* 'begira egion nolako soinekoa dakarren'. Ik. **bera**.

beirakuna, beirakunia

BEGIRAKUNE, BEGIRADA

mirada

begirakune (> *beirakuna*) iz. Begiratzeko era, begirada. ◆ **begirakunea bota** (> *beirakuně bota*). Begirakune zantarra bota, begiratu gaiztoa egin. *A ze beirakuně bota dĭa!* 'a zer begirakunea bota dio!'.

beirakunia bota

BEGIRAKUNEA BOTA

lanzar una mirada torva

begirakunea bota (> *beirakuně bota*). Begirakune zantarra bota, begiratu gaiztoa egin. *A ze beirakuně bota dĭa!* 'a zer begirakunea bota dio!'.

beiratu, beiratzen

BEGIRATU

4 kasoin

mirar, observar, dirigir la mirada
mirar, atender, prestar atención
cuidar

begiratu **1** *dĭa* ad. **2** *dau* ad. (nor osagarririk gabe). *Beiratazu lurrĭá* 'begira ezazu lurrera'. **3** *dau* ad. Gogoan hartu, ikusi. *Beiratzak ze abilen!* 'begira ezak zer habilen!'. *Beiratzak ondo hasi aurreti* 'begira ezak ondo hasi aurretik'. **4** *dau* ad. Babestu, zaindu. *Eltzĭa beiratu* 'eltzea begiratu'. Ik. **kasu egin** (> *kasoin*).

bejon

BEJON

enhorabuena, felicidades; qué suerte, que aproveche

bejon- (*bejondeizula*, *bejondeikela*, *bejondeinela* formetan). Norbaiti zerbait onuragarri desiratzeko esaten zaion esapidea. [Ik. **biejun**. Zehaztu Burundako formak].

beka, bekia

BEKA

beca

beka iz. Diru laguntza. *Ikasteko bekĭa eman dĭai* 'ikasteko beka eman diote'.

bekada, bekadia

OILAGOR

chocha, chochaperdiz, becada, sorda (Scolopax rusticola)

bekada iz. Oilagorra. Ik. **oilagor**.

bekain beltz

KOPETILUN

serio

serio, -a; triste, de semblante triste

bekain beltz. Kopetiluna. ▲ Sin. *serio*.

bekain, bekaina

BEKOKIA, KOPETA

bekoki [Ziordia, Olatzagutia], kopeta

frente

bekain iz. Bekokia, kopeta. ▲ Sin. *kopeta*. Ik. **bekoki** [Ziordia, Olatzagutia] ◆ **bekain beltz**. Kopetiluna. ▲ Sin. *serio*.

bekatu, bekatua

BEKATU

pecado
falta, defecto, fallo

bekatu ([Altsasu]; eta *pekatu* [Urdiain]) **1** iz. Jainkoaren legearen edo Elizaren aginduen ohartuzko haustea. **2** iz. Hutsegitea. Ik. **pekatu**.

bekazina, bekazinia

ISTINGOR; KURLINTA, KULISKA (?)

agachadiza, becacina

bekazina iz. Istingorra (Gallinago gallinago).

bekela

BEZALA

bezela

como
como, en calidad de

bekela (eta *bezela*) partik. Bezala. **1** Berdintasunezko erkaketa adierazten duen hitza. *Txerriek bekela jaten dau* 'txerriak bezala jaten du'. *Fan zan urtĭen bekela, aurten'e biak ibazi dau karreră* 'joan zen urtean bezala, aurten ere berak irabazi du karrera [lasterketa]'. *Aita bekela ibiltzen da* 'aita bezala ibiltzen da'. *Auztazu don bekela* 'utz ezazu dagoen bezala'. *Intazu ber dan bekela* 'egin ezazu behar den bezala'. *Ze iten dezu or tontwa bekela beira?* 'zer egiten duzu hor tontoa bezala begira?'. **2** (Izen soilaren eskuinean). *Portero bekela ona dok* 'atezain bezala ona duk'. Ik. **kisa**. ◆ **ni zu(re) bekela / hi(re) bekela / bera bekela** (> *ni zu(e) bekela / i(e) bekela / bĭa bekela...*). Ni zure / hire / bere egoeran banengo... *Ni zu bekela [zure lekuan] apizangana fanko nintzake* 'ni zu bezala apaizarengana joango nintzake' (Ond Bak). ◆ **bekelako, bezelako**. Hoi bekelakoik ez to 'hori bezalakorik ez dago'. ◆ **ez bezelako**. ¬

bekelako, bekelakua

BEZALAKO

bezelako

como, igual que, semejante a

bekelako (eta *bezelako*) adj. Bezalakoa, modu berekoa. *Munduen etxok oi bezelako gezurtik* 'munduan ez zagok hori bezalako gezurtirik'. *Oi bekelakoik eztó* 'hori bezalakorik ez dago'. ◆ **ez bekelako** (eta *ez bezelako*). Ez bezalakoa.

bekelaxe

BEZALAXE

bezelaxe

exactamente como, exactamente igual que

bekelaxe (eta *bezelaxe*) partik. *bekela*-ren indargarria.

beki, bekia

BEREKI

silvestre
dicho del va a su aire; con arreglo a su propio estilo, maneras, costumbres
allegado, -a; consanguíneo, -a

bereki (> *beki*) **1** adj. Berez sortutako arbola landarea, arbola txertatu gabea. *Gaztina bekia* 'gaztainondo berekia' [txertatu gabea]. Ik. **borta**. **2** adj. Bere kasa dabilena, bakarrik dabilen jendea. [Jokatu egiten da (?): *beki*, *ebeinki*...]. **3** iz. Ahaidea (?). ["Allegado" A. "Behekiyak odolezkuek diranien esaten da "Satr Ahaid 648 (donde se intrepreta como var. de un supuesto berekide)].

bekoki, bekokia

BEKOKI

kopeta, bekain

frente

bekoki iz. [Ziordia eta Olatzagutia]. Ik. **bekain**, **kopeta**.

bela (3)

BEREHALA

belaxe, ensegida, segidan, segituen

enseguida, inmediatamente, al momento, al instante

berehala (> *bela*) adb. Ik. **berehalaxe** (> *belaxe*). *Belá samár: beláxe ez, píxkat beránduxó* 'berehala samar: berehalaxe ez, pixka bat beranduxeago' (Ond Bak). *Bela samar etor zan* 'berehala samar etorri zen'. ▲ Sin. *ensegida*, *segidan*, *segituen*.

bela, belia (1)

BELE; BELABELTZ

córvido, -a; cuervo (Corvus sp.)
corneja negra (Corvus corone corone)

bela[1] **1** iz. Belea (*Corvus sp.*). || Belabeltza, bele mota zabalduena (Corvus corone corone). Ik. **belatxiki**; **txoa**. **2** iz. Putrea [Bakaiku]. Hegazti haundi-haundia; 'buitre', gaztelaniaz (?) (Ond Bak). **3** iz. Irud. Azpaiza. • Esr. zah. *Belak etxĭen, aragia gertu* 'beleak etxean, haragia gertu' [apaiza, hilzorian dagoenaren etxetik bueltaka]. ◆ **haragi bela** (> *aragi bela*) iz. Erroia; bele mota handia (Corvus corax). *Bela aundiena da aragi belĭa* 'bele handiena da *haragi belea* [erroia]'. ◆ **galar bela**. Okil beltza. *Galar bela esaten zaio okil aundi beltzai* 'galar bele esaten zaio okel handi beltzari'.

bela, belia (2)

KANDELA

zirio

vela, cirio, bujía

bela[2] iz. Kandela. *Argizai belĭa* 'argizari kandela'. Ik. **zirio**.

belakuma, belakumia

BELAKUME

cría del cuervo, corvato

belakuma iz. Belakumea, belearen umea.

belarri luze

BELARRI-LUZE

orejudo, -a; orejón, -ona
curioso, -a; espía

belarri luze adj. Belarriak luzeak dituena; zelataria (?).

belarri, belarria

BELARRI

oreja
oído

belarri **1** iz. Entzumenaren organoa; bereziki, organo horren kanpoko zatia. *Belarriek, aundiek; bea aitu, gutxi* 'belarriak, handiak; baina aditu, gutxi'. *Bost zinzirrin zulo dukatzi belarri bakoitzĭen* 'bost zinzirrin zulo [belarritako zulo] dauzka belarri bakoitzean'. **2** iz. Musika-soinuak egoki hautemateko eta errepikatzeko gaitasuna. *Belarri ona duka* 'belarri ona dauka'. *Belarriek tapatu* 'belarriak tapatu'. ◆ **belarri luze** adj. Belarriak luzeak dituena; zelataria (?). ◆ **belarri motz**. Belarriak motzak edo moztuak dituena. *Ardi belarri motza*. Ik. **belarrimotz**. ◆ **belarriko zulo**. Belarri zuloa. *Belarriko zuloti muskarra sartu?; gwaindo ze aitu ber tun!* 'belarri zulotik muskerra sartu?; oraindik ze aditu behar ditugun!'. ◆ **belarriak berotu** (> *belarriek bĭotu*). Jipoitu. ◆ **belarriak tapatu** (> *belarriek tapatu*). ◆ **belarriak zuti**, **belarriak tente** (> *belarriek txuti*, *belarriek tente*) adb. Animaliengatik esanda, adi. ◆ **belarriko eskinako**. *Emanen duet belarriko eskinakon bat* 'emanen diat belarriko eskinakoren bat'. Ik. **belarriondoko**. ◆ **belarriko min**. *Belarriko minakin do* 'belarriko minarekin dago'. ◆ **belarrira esan** (> *belarrĭá esan*). Norbaiti, belarrira hurbilduz, zerbait isilik esan.

belarriko min

BELARRIKO MIN

otitis

belarriko min. *Belarriko minakin do* 'belarriko minarekin dago'.

belarriko zulo, belarriko zulua

BELARRI ZULO

oído, conducto del oído

belarriko zulo. Belarri zuloa. *Belarriko zuloti muskarra sartu?; gwaindo ze aitu ber tun!* 'belarri zulotik muskerra sartu?; oraindik ze aditu behar ditugun!'.

belarrimotx, belarrimotxa

BELARRIMOTZ

2 erdaldun

de orejas cortas o cortadas
no vascoparlante; castellanohablante [término despectivo]

belarrimotz (> *belarrimotx*) **1** adj. Belarriak motzak edo moztuak dituena. Ik. **belarri motz**. **2** iz. Lgart. Etorkina, eta hedaduraz, euskaraz ez dakiena, izendatzeko erabili ohi den irain hitza (Hitz berria). Ik. **erdaldun**.

belarriondoko

BELARRONDOKO

bofetada, bofetón, sopapo

belarriondoko iz. Belarrondokoa. *Belarriondoko bat eman* 'belarrondoko bat eman'. Ik. **zaplastako**; **blastako**; **belarriak berotu** (> *belarriek bĭotu*).

belatxiki, belatxikia

BELATXIKI

grajilla (Corvus monedula)

belatxiki iz. Belearen familiako hegaztia, familiakoen artean txikiena, lepondo grisa eta begi zurixkak dituena (Corvus monedula). Ik. **bela**[1].

belaun arin, belaun arina — BELAUNGOZO

arin, pixkor, ajil — *motel, nagi*

paso, andadura ágil; agilidad

belaun arin. Belaungozoa. ▲ Sin. *arin*, *pixkor*, *ajil*.

belaun kozkor (?) — BELAUNBURU; BELAUNEZUR

parte delantera de la rodilla; rótula

belaun kozkor. Belaunburua; belauneko hezurra. (?)

belaun, belauna — BELAUN

rodilla

belaun iz. ◆ **belaun arin**. Belaungozoa. ▲ Sin. *arin*, *pixkor*, *ajil*. ◆ **belaun kozkor**. Belaunburua; belauneko hezurra (?).

belauneko — BELAUNIKO

de rodillas, arrodillado

belauneko adb. Belauniko. *Jarri zaitez belauneko* 'jar zaitez belauniko'. *Belauneko, kastigatuta* 'belauniko, kastigatuta'.

belaunesi, belaunesia — HESI PASAGUNE; MAILADI

escala de seto, escalera de seto (paso del seto, alambrada, etc.)

belaunesi iz. Hesia pasatzeko mailadia. Hesiz itxitako larre, baso eta abarretan, hesia pasatzeko erabiltzen den maila.

belaunikatu, belaunikatzen — BELAUNIKATU

arrodillarse

belaunikatu *da* ad. Belauniko jarri.

belaxe — BEREHALAXE

enseguida, ahora mismo

berehalaxe (> *belaxe*) adb. *Belaxe eldu naiz* 'berehalaxe heldu naiz [nator]'. Ik. **berehala** (> *bela*). *Belaxetik errapatu da ausita zola* 'berehalaxetik erreparatu da hautsita zegoela'.

beleta, beletia — HAIZE ORRATZ. 2 ALDAKOR

veleta (para señalar la dirección del viento)
veleta (persona inconstante y mudable)

beleta **1** iz. Haize orratza. **2** adj. Pertsona aldakorra, iritziz edo asmoz aldatzeko joera duena. Ik. **txaketa-buelta**.

belozidade, belozidadia — LASTERTASUN, ABIADURA

velocidad

belozidade iz. Lastertasuna, abiadura. *Belozidade aundia dĭa* 'abiadura handia darama'.

beltx, beltxa — BELTZ

negro, -a
negro, -a; moreno, -a
negro, -a; triste; desgraciado, -a; sombrío, -a

beltz, beltza

BELTZ

negro
negro, -a; moreno, -a
negro, -a; triste; desgraciado, -a; sombrío, -a
(vino) tinto
duro, duramente

beltz (eta *beltx*) **1** adj./iz. *Ikatza baindo beltzo* 'ikatza baino beltzago'. *Beltxokwa* 'beltzagokoa' (Ond Bak). **2** adj./iz. Bere motako edo kidekoak baino ilunagoa dena. *Ardo beltza*. **3** adj./iz. Azala beltza duen giza arrazakoa dena. **4** iz. Kolore beltza. *Beltzez jantzita*. **5** adb. Gogortasunez. *Lan beltz in* 'lan beltz egin'.

belztxo, belztxua

BELTZAXKA

negruzco, -a

belztxo (eta *beztxo*) adj. Beltzaxka.

benazko

BENAZKO, BENETAKO

egiezko

verdadero, -a; real; sincero, -a

benazko adj. Benetakoa. [Altsasu] (Iza Alts). Ik. **egiezko**.

benda, bendia

BENDA, LOTURA

toka

venda, vendaje, apósito

benda iz. Lotura, oihalezko zerrenda. Ik. **toka**. ◆ **benda paratu** (> *bendĭa patu*). Ik. **bendatu**[2].

bendatu, bendatzen (1)

ASKALDU, MERIENDATU

merendar

bendatu[1] *dau* ad. Meriendatu, askaldu. *Ze nai dezu bendatzeko?* 'zer nahi duzu meriendatzeko?'.

bendatu, bendatzen (2)

BENDATU

bendia patu, tokia patu

vendar

bendatu[2] *dau* ad. Bendaz lotu, bendaz estali. *Eskua bendatwik* 'eskua bendaturik'. ▲ Sin. *bendĭa patu*; *tokĭa patu*.

bendizio, bendiziua

BENDIZIO, BEDEINKAZIO

bedeinkazio

bendición
ser una bendición (cosa excelente o muy beneficiosa)

bendizio **1** iz. (Erl.) Bedeinkazioa. *Artu genduen apizak emandako bendiziywa* 'hartu genuen apaizak emandako bendizioa'. Ik. **bedeinkazio**. **2** iz. (Irud.) Onuragarria, onura dakarrena. ◆ **bendizioa izan** (> *bendiziywa izan*). Onuragarria izan. *Bendizio bat dĭa bota tun yauriok* 'bendizio bat dira bota dituen euriok'.

bendu-afai, bendu-afaia

AFARI-MERIENDA

merienda-cena

bendu-afari (> *bendu-afai*). Afari-merienda.

bendu, bendua
MERIENDA, ASKARI

merienda

bendu iz. Merienda, askaria. ◆ **bendu-afari** (> *bendu-afai*). Afari-merienda.

beneno, benenua
BENENO, POZOI

veneno, ponzoña

beneno iz. *Benenwa besteik eztiai botatzen fruta arbolairi* 'benenoa besterik ez diote botatzen fruta arbolei'.

benenoso, benenosua
POZOITSU, POZOIDUN

venenoso, -a

benenoso adj. Pozoitsua, pozoiduna. *Aginan osto, azal ta aziek benenosuek dĭa* 'haginaren [zuhaitza; Taxus baccata] hosto, azal eta haziak pozoitsuak dira'.

benga
TIRA. 2 BAI ZERA!

1 tia

¡vamos!, ¡venga!
¡sí hombre!; ¡anda ya!; ¡ya, ya!

benga **1** interj. Norbait mugitzera edo zerbait egitera bultzatzeko. *Benga, sartu maletak autwen* 'tira, sartu maletak autoan'. *Benga berriz* 'ea, berriz'. Ik. **tira**[1]. **2** interj. Bai zera!, aurrekoak esandakoa ez dugula sinisten adierazteko. *Benga, benga, ze aitu ber dun gwaindo!* '[bai zera], zer aditu behar dugun oraindik!'. Ik. **baita zera ere**.

benganza, benganzia
BENGANTZA, MENDEKU

venganza

benganza iz. Bengantza.

benta, bentia
BENTA, OSTATU

venta
posada

benta iz. Bide-bazterrean edo bidegurutze batean herrigunetik kanpo dagoen ostatua. Ik. **ostatu**; **fonda**. ◆ **bentako** iz. Bentan bizi dena; bentaria. *Bentakwek* 'bentakoak'. Ik. **bentero, -a**. ◆ **bentako etxea** (> *bentako etxĭa*).

bentaja, bentajĭa
ABANTAILA, BENTAJA

alde; pribilejio

ventaja

bentaja iz. Abantaila; aldea. Ik. **alde**[1]; **pribilejio**. ◆ **bentaja hartu**; **atera**; **ibili**; **eraman**; **eman** (> *bentajĭa artu*; *ata*; *ibili*; *yan*; *eman*).

bentera, benteria
BENTARI EMAKUMEZKOA

ventera

bentera iz. Bentari emakumezkoa. Ik. **bentako**.

bentero, benterua
BENTARI GIZONEZKOA

ventero

bentero iz. *Benterwa ta benterĭa, bentan bizi zĭanak* 'benteroa eta bentera, bentan bizi zirenak'. Ik. **bentako**.

benzitu, benzitzen

BENTZUTU, GARAITU, IRABAZI

ibazi

ceder, vencer

benzitu *dau* ad. Bentzutu, garaitu, irabazi. *Muxinkwen asi, ta ibaztĭa da benzitzĭa* 'muxinkoan [borrokan] hasi, eta irabaztea da bentzutzea . Ik. **irabazi** (> *ibazi*).

beotasun

BEROTASUN

calor

beotu, beotzen

BEROTU

calentar(se)
entusiasmar(se), exaltar(se), acalorar(se), enfervorizar(se)
calentar(se), excitar(se) sexualmente
dar una paliza, sacudir

berotu (> *beotu*, *biotu*) **1** *da/dau* ad. Zerbait bero jarri, beroago bihurtu. **2** *dau* ad. Beroa eman. **3** *da/dau* ad. Norbaiten gogoa biziagotu, sutu. **4** *dau* ad. Norbait jo, jipoitu. ◆ **belarriak berotu** (> *belarriek bĭotu*). Belarrondokoa eman. Ik. **belarriondoko**.

beotzaile, beotzailia

BEROTZAILE

calentador, -a; el que calienta

berotzaile (> *beotzaile*, *bĭotzaile*) iz./adj. Berotzen duen pertsona edo gauza. *Fabrikan, ua faten zan gwe eltzĭek beotzĭa; ua, eltze beotzaile* 'frabrikan, hura joaten zen gure eltzeak berotzera; hura, eltze berotzaile'.

ber dan bezela

BEHAR BEZALA

behar dan bezela / bekela (> *ber dan bezela / bekela*).

ber dan bezelako, ber dan bezelakua

BEHAR BEZALAKO

adecuado, -a, debido, -a, correcto, -a; satisfactorio, -a

behar dan bezalako (> *ber dan bezelako / bekelako*) adj.

ber izan

BEHAR IZAN

necesitar
tener que, deber, haber de; deber de, estar a punto de; ir a

behar izan (> *ber izan*) **1** *dau* ad. Norbaiten edo zerbaiten beharra izan. *Ez dot ber* 'ez dut behar'. **2** *da/ dau* ad. (Osagarritzat beste aditz bat, era burutuan, duela). *Bier ertor(i) ber dau* 'bihar etorri behar du'. *Ala berko dau* 'hala beharko du'. || Esan ber jituet. Zopak in ber datzat esene horri. Ezta hori esan ber. Éman bérko dáu 'diogu' díruba. (Ond Bak). ◆ **behar dan bezala / bekela** (> *ber dan bezela / bekela*). ◆ **behar ez dan bekela** (> *ber eztan bekela*). ◆ **behar dan bezalako** (> *ber dan bezelako / bekelako*) adj. ◆ **beharko** (> *berko*). *Berko!* 'beharko!'. *Beste erremeioipe, berko belauneti opeatu* 'beste erremeioipe, beharko belaunetik operatu'. ◆ **hala beharko** (> *ala berko*). (Esapidea). Etsipenezko onarpena adierazten duen esapidea. *Hala berko dau!* 'hala beharko du'. [◆ **behar dena** (> *berdana*). **berdan(a)**. Behar dena. Ik. **beharrezko**, **premiazko**. ▼ Anton. *berreztana*. ◆ **behar ez dena** (> *berreztana*)]*. ¬

ber, berra

BEHAR

premia

necesidad; obligación, deber

behar (> *ber*) iz. *Kontu orrengeiti ezto asarratu berrik* 'kontu horregatik ez dago haserretu beharrik'. *Emen kontuz ibili berra do* 'hemen kontuz ibili beharra dago'. *Jan berra* 'jan beharra'. *Ezto orren berrik* 'ez dago horren beharrik'. || (Txerriek) emanik dekai, eman berra. Hiruroindako patu ber dot best'at. Hok erreik de honeskió, áta in ber tut. Beti eman berrien da (eta) beti aztu. Obe berrez yan da (ta) han hil. Hasi nintzan lan in berrien. Hura (autobus) batien faten ezpada, bestien fan in ber da. Hasi zan Axerko jan berrien. || ◆ **behar den bezala** (> *ber dan bekela*). *Zade geldik ta portatu zaitez ber dan bekela* 'zaude geldirik eta portatu zaitez behar den bezala'. ◆ **behar den bezalako** (> *ber dan bekelako*). *Ber dan bekelako zartairen bat yosi berko du* 'behar den bezalako zartaginen bat erosi beharko dugu'. ◆ **horren beharra ibili** [eduki] (> *orren berra ibili*) [¡lo que faltaba!]. Esapidea. *Horren berra do, ba!* 'horren beharra dago, bada!'. [◆ **behar dena** (> *berdana*). **berdan(a)**. Behar dena. Ik. **beharrezko**, **premiazko**. ◆ **behar ez dena** (> *berreztana*)]*.

bera

BEGIRA

mira [voz que se utiliza para llamar la atención de alguien]

begira[2] (> *bera*). Begira; hara; horra. Ik. **hara**. (Zerbait azaltzeko esaten den esaldi bat hastean). *Bera, gauza bat esamer dezut* 'begira, gauza bat esan behar dizut'. *Guk'e ala uste genduken; bea, bera* 'guk ere hala uste genian; baina, begira'. ◆ **bada, begira ba...** (> *ba, bera ba...*) [¡pues mira!].

beraneante, beraneantia

UDATIAR

veraneante

beraneante (eta *beraniante*) iz. Udatiarra.

berantz

BEHERANTZ, ALDAPA BEHERA; JAITSIERA

goitibera, jaitxiera

gorantz, azpitik gora

bajada, cuesta abajo

beherantz (> *berantz*) iz. Aldapa behera; jaitsiera (Ond Bak). Ik. **goitibehera**; **jaitsiera**. ▼ Anton. *gorantz*, *azpitik gora*.

beratz, beratza

BERATZ

biun (?), beazun (?)

sensible; que se emociona fácilmente

blando, -a

beratz (> *beatz*) adj. **1** Sentibera. **2** Elurra edo izotza beraztean. *Beatza do* 'beratz(a) dago'. *Denbora beratza* (Ond Bak) [& Urdiain]. Ik. **bigun** (> *biun*); **berazun*** (> *beazun*).

berba

BEHARBADA

hobenien, akaso, igual, igualien

acaso, quizá, probablemente, puede (ser) que

beharbada (> *berba*) adb. *Berba etorko da* 'beharbada etorriko da'. ▲ Sin. *hobenien*, *akaso*, *igual*, *igualien*.

berbena, berbenia

BERBENA BELAR; 2 GAU FESTA, BERBENA

verbena (planta)
fiesta popular con baile

berbena **1** iz. (Bot.) Berbena belarra (*Verbena officinalis*). *Gaitz asko ongitzen emen tu berbeněk* 'gaitz asko ongitzen omen ditu berbenak'. **2** iz. Gau festa (?).

berdana (behar dena)

BEHAR DENA

beharrezko, premiazko

berreztana

necesario, -a;

berdan(a). Behar dena. Ik. **beharrezko**, **premiazko**. ▼ Anton. *berreztana*.

berde, berdia

BERDE

verde
verde, inmaduro, -a

berde **1** adj. *Oi garien berdĭa!* 'hori gariaren berdea!'. **2** adj. Heldu gabea; ihartu gabea. • Esr. *Muskarra baindo berdĭo* 'muskerra baino berdeago'. **3** iz. Kolore berdea. **4** iz. Berdetasuna.

berdel, berdela

BERDEL

verdel, caballa

berdel iz. (*Scomber scombrus*).

berdetasun, berdetasuna

BERDETASUN

berde

verdor

berdetasun iz. *Yaurien ondoko berdetasuna dukai gwai larrĭek* 'euriaren ondoko berdetasuna daukate orain larreek'.

berdetu, berdetzen

BERDATU

reverdecer(se), poner(se) verde, verdear

berdetu *da/dau* ad. Berdatu. *Ikusgarria da nola berdetzen dan baswa maietzĭen* 'ikusgarria da nola berdatzen den basoa maiatzean'.

berdetxo, berdetxua

BERDEXKA

berdexka

verde, inmaduro, -a
verdoso, -a

berdetxo **1** adj. Berde samar. Ik. **berde**. **2** adj. Berdexka.

berdexka, berdexkia

BERDEXKA

berdetxo

verdoso, -a

berdexka adj. (Hitz berria) Berdearen antzekoa, berderantz jotzen duena. Ik. **berdetxo**.

berdin izan

BERDIN IZAN

igual izan

dar igual; ser lo mismo; ser algo indiferente para alguien

berdin izan **1** *da* ad. (nor marka 3. pertsona singularrean). Gauza bera izan; garrantzirik ez izan. **2** *zaio* ad. (nor marka 3. pertsona singularrean). Ik. **igual izan**.

berdin, berdina

BERDIN

bezelako, igual

desbedin, diferente

igual; par
liso, -a; llano, -a; plano, -a
igual, igualmente, de la misma manera, del mismo modo

berdin **1** adj. *Ia berdin-berdina ata ber den urtĭa!* 'ea berdin-berdina atera behar duen urtea (k)!'. *Fan zan urtekuen berdin-berdina* 'joan zen urtekoaren berdin-berdina'. *Berdin-berdinak* dia 'berdin-berdinak dira'. Ik. **bezelako**; **igual**. ▼ Anton. *desbedin*, *diferente*. [**Oharra**: ez dira nahasten *berdin* eta *bera*]. **2** adj. Laua; koskarik gabea. **3** adb. Modu berean. *Ezta batere aldatu, berdin-berdin segitzen dau* 'ez da batere aldatu, berdin-berdin segitzen du'. ◆ **berdin izan** **1** *da* ad. (nor marka 3. pertsona singularrean). Gauza bera izan; garrantzirik ez izan. **2** *zaio* ad. (nor marka 3. pertsona singularrean). Ik. **igual izan**.

berdindu, berdintzen

BERDINDU

igualatu; 2 zelaitu

igualar(se)
allanar, explanar, alisar

berdindu **1** *da/dau* ad. Berdin bihurtu, maila berean jarri. ▲ Sin. *igwalatu*. **2** *da/dau* ad. Zelaitu. Ik. **zelaitu**.

berdintasun, berdintasuna

BERDINTASUN

igualtasun, igualdade

desberdintasun, diferenzia

igualdad; semejanza

berdintasun iz. Berdina denaren nolakotasuna. *Igwaltasuna ta berdintasuna, igwalak tuk* 'igualtasuna eta berdintasuna, igualak dituk' (LM). ▲ Sin. *igualtasun*; *igualdade*. ▼ Anton. *desberdintasun*; *diferenzia*.

berdintsu, berdintsua

BERDINTSU

igualtsu, paretsu

prácticamente igual; más o menos igual; parecido, -a

berdintsu **1** adj. Gutxi gorabehera berdina. *Luzeran berdintsuek dĭa* 'luzeran berdintsuak dira'. Ik. **igualtsu**, **paretsu**. **2** adb. *Berdintsu balio dai* 'berdintsu balio dute'.

berdotz, berdotza

BERDOTZ, ZURBIL

pálido, -a; cetrino, -a (referido a personas)

berdotz adj. Zurbila. Ik. **putz**; **kolore putz**. [Aztertu beste adierarik baduen].

berdoztu, berdozten

BERDOZTU

cortar la cocción
palidecer

berdoztu **1** *da* ad. Jatekuek berdoztu. Edozein gauza, irekiten hasi ta bela, yosi be deila, iten badia hoztu, iten dia berdoztu, eztia yosten. Azelgia, aziata, ur hotzien jartzen badia, eztia yosten, berdoztu iten dia (Ond Bak). **2** *da* ad. Zurbildu.

berdura-zopa, berdura-zopia

BERDURA-ZOPA

sopa de verduras

berdura-zopa. *Obe da berdurĭa gutxi yostĭa berdura zopa ona iteko* 'hobe da berdura gutxi egostea berdura zopa ona egiteko'.

berdura, berduria

BERDURA, BARAZKI

verdura

berdura iz. *Berduriă jan* 'berdura jan'. *Berduriă jateko agindu dwa medikuek* 'berdura jateko agindu dit medikuak'. ◆ **berdura zopa**. *Obe da berduriă gutxi yostiă berdura zopa ona iteko* 'hobe da berdura gutxi egostea berdura zopa ona egiteko'.

berez

BEREZ

de por sí, por naturaleza; espontáneamente

berez adb. ◆ **berezko** adj.

berezi, berezia

BEREZI

especial; particular; diferente, peculiar

berezi adj. *Berezia, bestiĕk ezbekelakwa* 'berezia, besteak ez bezalakoa'.

berezko, berezkua

BEREZKO

natural, propio, -a; intrínseco, -a, esencial

berezko adj.

beria in

BEREA EGIN

salir(se) con la suya

berea egin (> *beriă in*). Nork berea egin. *Orrek beti beriă iten dau* 'horrek beti berea egiten du'.

berien

BEREAN

(en) el mismo, (en) la misma

berean (> *beriĕn*). *Egun beriĕn jaio gindan* 'egun berean jaio ginen'. *Etxe beriĕn bizi ga* 'etxe berean bizi gara'. [Gaur egun '*berdin*' erabiltzen hasi da].

berko!

BEHARKO!

¡qué remedio!; ¡a la fuerza!

beharko (> *berko*) interj. *Berko!* 'beharko!'. *Beste erremeioipe, berko belauneti opeatu* 'beste erremeioipe, beharko belaunetik operatu'. ◆ **hala beharko** (> *ala berko*). (Esapidea) *Ala berko* 'hala beharko'. *Ala berko dau!* 'hala beharko du'.

berna hezur, berna hezurra

BERNA HEZUR, BERNAZAKI

tibia

berna hezur (> *bernaezur*). Bernako hezur nagusia; tibia.

berna, bernia

BERNA

aztal

pierna

berna iz. Giza zangoaren beheko zatia, belaunaren eta oinaren artekoa. *Berna mé* 'berna mehe'. *Berna lodi*. lk. **aztal**. ◆ **berna hezur** (> *bernaezur*). Bernako hezur nagusia; tibia.

bero falso, bero falsua

SARGORI

bochorno, calor sofocante

bero falso iz. Bero faltsua. Ekaitzaren aurreko giro sargoria. ▲ Sin. *denbora falso*.

bero, berua

BERO

berotasun; kalda

calor

caliente, cálido, -a; caluroso, -a

bero **1** iz./adj. *Bero aundia, bero zakarra iten dau* 'bero handia, bero zakarra egiten du'. Ik. **berotasun**; **kalda**. **2** adb. *Zopĭa bero do* 'zopa bero dago'. *Bero fan da udĭa* 'bero joan da uda'. • Esr. zah. Obe da ero, baindo (?) bero 'hobe da ero, baina bero' (Ond Bak). [Ero, baia bero]. ◆ **bero egin** (> *bero in*). (Eguraldiaz mintzatuz, singularreko hirugarren pertsonan). *Gaur bekelako beroik eztau aspaldi in* 'gaur bezalako berorik ez du aspaldi egin'. ◆ **bero egon** (> *bero yon*). Bero egin. ◆ **bero falso** iz. Bero faltsua. Ekaitzaren aurreko giro sargoria. ▲ Sin. *denbora falso*. ◆ **bero ustel** iz. Geihegizko beroa aireztatu gabeko lekuan; bero itogarria, sargoria.

beroaldi, beroaldia

BEROALDI

cada una de las veces que algo o alguien está caliente o se calienta; (temporada de) calor

acaloramiento, arrebato, exaltación

beroaldi iz. Norbait edo zerbait bero dagoen edo berotzen den aldia. *Fan dĭa udazkeneko beroaldiek* 'joan dira udazkeneko beroaldiak'.

beroketa, beroketia

BEROKETA

hozketa

calentamiento

beroketa iz. Berotzea. *Yuzkia ata dok, bea etxok beroketa aundik* 'eguzkia atera duk, baina ez zagok beroketa handirik'. ▼ Anton. *hozketa*.

beroki, berokia

BEROKI

lugar abrigado/caliente

beroki iz./adj. Beroa dena; toki beroa, babestua. *Etxe honi berokia falta zaio* (Ond Bak). *Narruzko abrigwau berokia da* 'larruzko abrigo hau berokia da [beroa da]'. *Kanpwen otza do, bea au berokia dona etxĭontan!* 'kanpoan hotza dago, baina hau berokia dagoena etxe honetan!'. *Gústwa non etxeko berokiti elurrai beira* 'gustura nagon etxeko berokitik elurrari begira'. Ik. **epelki**.

berotasun, berotasuna

BEROTASUN

hoztasun

calor

berotasun (> *beotasun*, *biotasun*) iz. [berotasuna (Ond Bak)]. ▼ Anton. *hoztasun*.

berregun (?)

BERREHUN

bi aldiz egun

doscientos, -as

berregun zenbtz. Berrehun. ▲ Sin. *bi aldiz egun* 'bi aldiz ehun'. *Berregun laun ingwatu dĭa afaita* 'berrehun lagun inguratu dira afaritara'.

berrezko, berrezkua

BEHARREZKO

necesario, -a; obligatorio, -a, imprescindible

berreztana (behar ez dena)

BEHARREZTEN; EZBEHAR

berdana

inconveniencia
innecesario (?)

beharrezten(a)* (> *berreztana*) iz. Beharreztena; ezbeharra, zorigaitza, gertaera dohakabea. *Baduka berreztana* 'badauka beharreztena'. berreztanak / berreztianak (?). *Eztaile ondo osasunakin; berreztana ata ber dau* 'ez dabil ondo osasunez; beharreztena [gaitz larriren bat] atera behar du'.

berreztankeia

BEHARREZTENKERIA*, GEHIEGIKERIA

inconveniencia; disparate, absurdo

beharreztenkeria* (> *berreztankeia*) iz. Zentzugabekeria, desegokikeria. *In jituk berreztankeiek* 'egin ditik beharreztenkeriak'.

berri, berria

BERRI

3 notizia

zahar

nuevo, -a; reciente
recién
noticia, novedad, suceso reciente

biturri [Altsasu] iz. Sardearen hortza. Bi biturriko sardia. "*Biturriya*, la púa (de la horca). *Bi biturriko sardiá, bi biturrikua lepiziko. Bueltiéman aik eta gerrieíno, looodiya zoon lastuata; eta geo txikitzen zanín irú bitúrriko sardák, iru biturriko sardi asten zanín, úra pozá! Ya áusiík*" Bi iturriko sardea, bi biturrikoa lehenbiziko. Buelta eman harik eta gerriraino, lodia zegoen lastoa eta; eta gero txikitzen zenean, hiru biturriko sardeak, hiru biturriko sardea hasten zenean, hura poza! Ja hausirik (Iza Alts). Ik. **hortz**.

bitxo, bitxua

PIZTIA; 2 GAIZTO, BIHURRI

3 alaja, elemento

bicho (animal)
despierto, -a, listo, -a
avieso, -a

bitxo **1** iz. Piztia. Ik. **fixti**. **2** adj. Bizitasun handia duena, ernea. **3** adj. Gaiztoa, bihurria. ▲ Sin. *alaja*, *elemento*. ◆ **bitxo txiki**. Intsektua, zomorroa. Ik. **zapo**.

biundu

BIGUNDU

beatu / beaztu; samurtu

gogortu

bigundu (> *biundu*) *da/dau* ad. Ik. **beratu** (> *beatu*); **samurtu**. ▼ Anton. *gogortu*.

biuntasun, biuntasuna

BIGUNTASUN

gogortasun

suavidad, blandura

biguntasun (> *biuntasun*) iz.

biuntxo, biuntxua

BIGUNTXO

gogortxo

bastante blando

biguntxo (> *biuntxo*) adj. *Adkor*. Biguna; aukeran bigunegia. *Biuntxwa ata zaira bizkotxwa* 'binguntxoa atera zait bizkotxoa'. ▼ Anton. *gogortxo*.

biurtzeko, biurtzekua (?)

biurtzeko, biurtzekua (?). bihurtzeko (?) bihurtzen duena; bueltatzekoa dena (?); bihurkina (?); bihortzeko (?).

bixar, bixarra

BIXAR, ILAUN

pelusa

pelusa

bixar iz. Adkor. Ilauna, biloa [pelusa]. Ik. **bizar**; **pelusa**.

bixardo, bixardua

ZARBO

gobio (Gobio gobio)

bixardo iz. (Zool.) (*Gobio gobio*). Zarboa. Ibaietako arrain txikia, bizar antzeko bi luzakin dituena. Ik. **exkalu**, **txipa**.

bixi-bixi in

KILI-KILI EGIN

kibilatu

hacer cosquillas

bixi-bixi egin (> *bixi-bixi in*). Kili-kili egin; kilima egin; kilimatu. Ik. **kibilatu**.

bixi, bixia

BIXI, FEREKA; 2 BIZI

bixigura, kibila; azkura

cosquilleo

vivo, -a

bixi **1** iz. Kilima, fereka. Ik. **bixigura**; **kibila**; **azkura**. **2** adj. *Adkor*. Bizia. Ik. **bizi**. ◆ **bixi-bixi egin** (> *bixi-bixi in*). Kili-kili egin; kilima egin; kilimatu. Ik. **kibilatu**. ◆ **bixia eman**. Ik. **bixigura**.

bixigarri, bixigarria

BIXIGARRI

condimento; lo que realza el sabor

bixigarri iz./adj. Adkor. Bizigarria. Ik. **bizigarri**.

bixigu, bixigua

BISIGU

besugo, besuguete (Pagellus bogaraveo)

bixigu (eta *besigu*) iz. Bisigua (*Pagellus bogaraveo*).

bixigura, bixiguria

KILIKA, KILIMA, KILI-KILI

bixia, kibila; azkura

cosquillas, cosquilleo

bixigura iz. Kilima. Ik. **bixia**; **kibila**; **azkura**.

bixkardo

KONKORDUN

jorobado, -a; cheposo, -a; giboso, -a; encorvado, -a

bixki, bixkia

BIZKI, BIKI

biboro, biki

gemelo, -a, mellizo, -a

bixki iz./adj. Bizkia, bikia. ▲ Sin. *biboro*, *biki*.

bixkorrika

BIZKORRIK, PAUSO ARINKA

a paso ligero

(vigorosamente; ágilmente, rápidamente)

bixkorrika [Ziordia] adb. Bizkorrik, oinez bizkor ibili; pauso arinka (Andar rápido).

bizar labana

BIZAR LABANA

navaja de afeitar

bizar labana ([Bakaiku], eta *bizar labaina*, *bizar labina* [Urdiain]) *Bizarrá kentzekó kutxiluá da bizar-labaná* (Ond Bak). Ik. **labana**; **labaina**.

bizar labina

BIZAR LABANA

navaja de afeitar

bizar labina, bizar labinia

BIZAR LABANA, BIZAR ORRI

cuchilla de afeitar, hoja de afeitar

bizarlabina (eta *bizarrabina*) [Urdiain] iz. Bizarra egiteko xafla, *makinilla*ri jartzen zaiona. *Bizarra iteko makinĭekin baindo, gwaindo naio dot bizar labinak ibili bizarra ondo kentzeko* 'bizarra egiteko makina baino, oraindik nahiago dut bizar labinak eraibili bizarra ondo kentzeko'. Ik. **bizar labana**.

bizar, bizarra

BIZAR

barba

bizar **1** iz. Kokotseko eta masailetako ilea. *Bizarripe obeto ze* 'bizarrik gabe hobeto zaude'. Ik. **bixar**. **2** iz. (Hedaduraz). *Auntzan bizarra* 'ahuntzaren bizarra'. **3** iz. Gariaren eta antzeko landareen buruan sortzen diren izpiak. *Arto bizarra*. *Maiz bizarra*. *Gari bizarra*. *Garagar bizarra*. ◆ **bizar labana** ([Bakaiku], eta *bizar labaina*, *bizar labina* [Urdiain]) *Bizarrá kentzekó kutxiluá da bizar-labaná* (Ond Bak). Ik. **bizarlabina**. ◆ **bizarra egin** (> *bizarra in*). Bizarra kendu, bizarra moztu. *Bizarra iteko makinĭa* 'bizarra egiteko makina'. ◆ **bizarra kendu**. Ik. **bizarra egin**. ◆ **bizarra moztu**. Bizarra egin, bizarra kendu.

bizardun, bizarduna

BIZARDUN

bizartsu

barbudo

bizardun adj. Bizarra duena. Ik. **bizartsu**.

bizargile, bizargilia

BIZARGILE

barbero

barbero

bizargile (Iza Alts) iz. ▲ Sin. *barbero*.

bizarra in / kendu, iten / kentzen

BIZARRA EGIN / KENDU

afeitar(se) la barba

bizarra egin / **kendu** / **moztu**. Bizarra egin, bizarra kendu.

bizartai

BIZARTEGI

barbeia

barbería

bizartegi (> *bizartai*) (Iza Alts) iz. ▲ Sin. *barbeia*.

bizartsu, bizartsua (bizarsu)

BIZARTSU

barbudo, -a, que tiene mucha barba, velloso, -a

bizartsu ([Iza Alts], eta *bizarsu* [Urdiain]) adj.

bizi izan, bizi, bizitzen

BIZI IZAN, BIZI

vivir
habitar
mantenerse

bizi izan **1** *da* ad. Bizia izan, bizirik egon. *Ama gwaindo bizi da* 'ama oraindik bizi da'. *Ze inko du, ba? Il artia bizi* 'zer egingo dugu, ba? Hil arte bizi'. *Bizitzeko gogwa e'zaio falta* 'bizitzeko gogoa ez zaio falta'. **2** *da* ad. Adierazten den denboraz bizia izan. *Lasaitasun orrekin biziko daiz egun urte!* 'lasaitasun horrekin biziko haiz ehun urte!'. • Esr. zah. *Gaiena in zenak'e, il artĭa bizi* 'gehien egin zuenak ere, hil arte bizi'. **3** *da* ad. Bizirik irauteko bideak izan. *Galdubaz ikasten da bizitzen* 'galduaz ikasten da bizitzen' (Ond Bak). *Nekazantzati ezin da bizi* 'nekazaritzatik ezin da bizi'. • Esr. zah. *Bata bestiengandi bizi(tzen) ga denok*. **4** *da* ad. Halako bizimodua eraman. *Ondo bizitzeko ezta asko ber* 'ondo bizitzeko ez da asko behar'. *Ola bizitzeko obeto ilik bagende* 'hola bizitzeko hobeto hilik bageunde'. **5** *da* ad. Aipatzen den lekuan bizitza edo bizitza zati bat igaro. *Urdinen bizi da* 'Urdiainen bizi da'. ◆ **bizirik ibili** [eduki] ad. Bizirik izan. *Aita bizik dukai* 'aita bizirik daukate'. ◆ **bizitzeko gogo**. ◆ **bizitzeko poz**. Bizitzeko poza ematen duen gauza. *Eztuka bizitzeko poz aundik* 'ez dauka bizitzeko poz handirik'. Ik. **bizipoz**.

bizi, bizia

BIZI

1 hil(a); 6 motel(a)

vivo
vivo, -a, intenso, -a, fuerte, vivaz; rápido, -a, ágil, espabilado, -a, despierto, -a
vida
vivo, -a, puro, -a, desnudo, -a, sin otro elemento que lo cubra
rápidamente, vivamente, con celeridad, ágilmente

bizi **1** adj. Bizia duena, bizirik dagoena. ▼ Anton. *hil(a)*. **2** (Izen gisa). *Biziek eta iliek* 'biziak eta hilak'. **3** adj. Bizitasuna duena. *Begi biziek* 'begi biziak'. *Kolore biziek* 'kolore biziak'. *Bixia do salsĭau* 'bizia dago saltsa hau'. ▼ Anton. *hil(a)*. **4** iz. Bizitza. *Be bizi guztĭen eztau botikaik artu* 'bere bizi guztian ez du botikarik hartu'. **5** adj. *Aragi bizien* 'haragi bizian'. **6** (eta *bixi*) adb. Ald. *bixia*. *bizi-bizia*, *bixi-bixia*. (*Halako*) *bixi-bixi ibiltzen da*. *Sua bixi-bixi do* 'sua bizi-bizi dago. ▼ Anton. *motel*. ◆ **bizia galdu**. ◆ **bizi nahi(a)** (> *bizi naia*). Bizi nahia duka floriorrek [hizt bakarrean eman: *bizinahi* (?)].

biziatu, biziatzen

BIZIATU

viciar(se)
desencajar(se); descentrar(se) (una puerta, un eje, etc.)

biziatu (> *bizĭatu*) **1** *da/dau* ad. **2** da ad. Zerbaiten funtzionamendua eskastu. *Ataia bizĭatu* 'ataria biziatu'.

bizibide, bizibidia

BIZIBIDE

pasabide, bizimodu

sustento, modo de ganarse el sustento; empleo, profesión

bizibide iz. Ogibidea, bizitzeko egiten den lana. Ik. **bizimodu**; **pasabide**.

bizigarri, bizigarria

BIZIGARRI

condimento; lo que realza el sabor

bizigarri (> *bixigarri*) iz./adj. Gatz asko duka, bixigarri do (?)

bizik
BIZIRIK

con vida, vivo, -a

bizirik (> *bizik*) adb. *Gwaindo bizik emen jen aik* 'oraino bizirik omen zauden haiek'. ◆ **bizirik atera** (> *bizik ata*). *Min aundia artu dau, bea bizik ata da* 'min handia hartu du, baina bizirik atera da'.

biziketa, biziketia
BIZIKLETA

bicicleta; bici

bizikleta-karrera, bizikleta-karreria
BIZIKLETA LASTERKETA

carrera ciclista

bizikleta karrera iz. Bizikleta lasterketa. *Bizikleta karreria iten dai festa bezpian* 'bizikleta lasterketa egiten dute festa bezperan'.

bizikleta, bizikletia
BIZIKLETA

bicicleta

bizikleta (eta *biziketa*) iz. Bizikletan ibili. ◆ **bizikleta karrera**. Bizikleta lasterketa. *Bizikleta karreria iten dai festa bezpian* 'bizikleta lasterketa egiten dute festa bezperan'.

bizileku, bizilekua
BIZILEKU

vivienda, domicilio, morada, lugar de alojamiento

bizileku iz. *Eztezu bilatuko au baindo bizileku obia* 'ez duzu bilatuko [aurkituko] hau baino bizileku hobea'. *Erriko goienkaldien do ne bizilekua* 'herriko goien aldean dago nere bizilekua'.

bizimodu, bizimodua
BIZIMODU

modo de vida
oficio, sustento

bizimodu **1** iz. Bizitzeko modua. *Bizimodu ona diagu* 'bizimodu ona daramagu'. **2** iz. Bizibidea. Ik. **bizibide**.

bizinahi, bizinahia
BIZINAHI

bizitzeko gogo

ganas de vivir, apego a la vida

bizinahi (> *bizinai*) iz. Bizitzeko gogoa. [◆ bizi nahia*]. *Bizinaia duka floriorrek* 'bizinahia dauka lore horrek'. ▲ Sin. *bizitzeko gogo*.

bizio, biziua
BIZIO

ohitura txar

vicio
Desviación, pandeo, alabeo que presenta una superficie apartándose de la forma que debe tener

bizio iz. *Biziuek*. Ik. **ohitura**. **2** Ataiek biziua duka Ik. biziatu.

bizioso, -a, biziosua, -ia
BIZIOTSU

vicioso, -a

bizioso, -a (Generoa hartzen du) adj. Biziotsua. *Aur bizioso bat do inik* 'haur biziotsu bat dago eginik'.

bizipoz, bizipoz

BIZIPOZ

aliciente, ilusión, alegría de vivir

bizipoz iz. Bizitzeko poza. *Ondo asko dakit zek ematen dezun bizipoza* 'ondo asko dakit zerk ematen dizun bizipoza'.

bizitasun, bizitasuna

BIZITASUN

viveza, vivacidad, agilidad, agudeza

bizitasun iz.

bizitza

BIZITZA

bizi

heriotza

vida
vida, modo de vida

bizitza **1** iz. ▲ Sin. *bizi*. ▼ Anton. *heriotza*. **2** iz. Bizimodua.

bizitzeko poz, bizitzeko poza

BIZIPOZ

aliciente, ilusión, alegría de vivir

bizitzeko poz. Bizitzeko poza ematen duen gauza. *Eztuka bizitzeko poz aundik* 'ez dauka bizitzeko poz handirik'. Ik. **bizipoz**.

bizkar makur, bizkar makurra

BIZKAR MAKUR

bizkardo

columna desviada; escoliosis

bizkar makur. Bizkar [bizkarrezur] zuzena ez dena. Ik. **bizkardo**.

bizkar, bizkarra

BIZKAR

3 gain

espalda
lomo
loma

bizkar **1** iz. Giza gorputzaren atzeko aldea, lepotik gerrira. *Bizkarreko min aundiek izaten tu* 'bizkarreko min handiak izaten ditu'. *Zakua bikarrĭen artuta* 'zakua bizkarrean hartuta'. **2** iz Animalia baten gainaldea, lepotik isatsera. **3** (eta *bixkar*) iz. Mendi edo muino baten gainaldea, bereziki zabala denean. Ik. **gain**. ◆ **bizkar zabal**. Eraman handikoa izan. *Nik bízkar zabalá dekát; denáin kúlpak jasotzen tút nik* 'nik bizkar zabala daukat; denen kulpak jasotzen ditut nik' (Ond Bak). ◆ **bizkar makur**. Bizkar [bizkarrezur] zuzena ez dena. Ik. **bizkardo**. ◆ **bizkarra eman**. *Obeto gazi aizĭai bizkarra emanda* 'hobeto goaz haizeari bizkarra emanda'. ◆ **bizkarreko min**. *Bizkarreko minandako ejerziziuek agindu dĭatzi medikuek* 'bizkarreko minarendako ariketak agindu dizkio medikuak'. ◆ **-en bizkarretik**. Norbaiten bizkarretik bizi. *Aitan bizkarreti bizi da* 'aitaren bizkarretik bizi da'.

bizkardo

KONKORDUN

jorobado, -a; cheposo, -a; giboso, -a; encorvado, -a; corcovado, -a

bizkardo (eta *bixkardo*) (Ond Bak) & [Urdiain] adj./iz. Konkorduna.

bizkarkada, bizkarkadia

BIZKARKADA

soinkada

carga, cantidad que puede llevarse a la espalda

bizkarkada iz. *Bizkarkada bat egur ekartzen zen aldio* 'bizkarkada bat egur ekartzen zuen aldiro'. Ik. **soinkada**; **zanbrada**.

bizkarralde, bizkarraldia

BIZKARRALDE

parte de la espalda, espalda, parte trasera; dorso

bizkarralde iz. Bizkarreko aldea, bizkarra dagoen aldea. *Bizkarralde gúztĭa erreĭk duka yuzkiekin* 'bizkarralde guztia errerik dauka eguzkiarekin'.

bizkarreko min, bizkarreko mina

BIZKARREKO MIN

dolor de espalda

bizkarreko min. *Bizkarreko minandako ejerziziuek agindu dĭatzi medikuek* 'bizkarreko minarendako ariketak agindu dizkio medikuak'.

bizkarrezur, bizkarrezurra

BIZKARREZUR

columna vertebral, espina (dorsal), raquis

bizkarrezur iz. *Bizkarrezurra ausi* 'bizkarrezurra hautsi'.

bizkotxo, bizkotxua

BIZKOTXO

tarta

bizcocho

bizkotxo iz. Ik. **tarta**.

blastako, blastakua

PLASTATEKO, ZAPLAZTEKO

zaplastako

bofetada, torta, tortazo

blastako iz. Blastatekoa, zaplaztekoa. *Blastako bat eman zĭan muturrĭen* 'blastateko bat eman zion muturrean'. ▲ Sin. *zaplastako*.

blastakokan

PLASTATEKOKA, ZAPLAZTEKOKA

zaplastakokan

a bofetadas, a tortas, a tortazos, a guantazos

blastakoka(n) adb. Plastatekoka, zaplaztekoka. ▲ Sin. *zaplastakokan*.

blok, bloka

BLOK

bloc

blok iz. Ohar koadernoa. Ik. **koaderno** (> *kuaderno*). *Akordatzen dana blok txiki batĭen apuntatzen dau* 'akordatzen duena blok txiki batean apuntatzen du'.

bloke, blokia

BLOKE

bloque (de hormigón)

bloke iz. *Ormigonezko blokĭek* 'hormigoizko blokeak'.

blokeatu, blokeatzen

BLOKEATU

itxi

bloquear(se)

blokeatu *da/dau* ad. Ik. **itxi**.

blusa, blusia

BLUSA

baxka

blusa

blusón (para días de fiesta)

blusa **1** iz. Emakumeen atorra mota. – atorra-blusa (?) (LM). Ik. **baxka**. **2** iz. Herriko festa egunetan *kuadrillek* erabiltzen duten jantzia.

boba, bobia
BOGA (ARRAINA)

boga (Boops boops)

boba iz. (Ond Bak) [pez pequeño, ancho, corto y barrigudo]. Boga. Bisiguaren familiako arraina, itsasertzeko haitzetan baltsetan bizi dena (Boops boops).

bobil, bobila
BOROBIL

topor

redondo, -a

bobildu, bobiltzen
BOROBILDU, BIRIBILDU

redondear(se), tomar o dar forma redonda
enrollar(se)

borobildu (> bobildu) **1** *da/dau* ad. Biribildu, borobil bihurtu, borobiltasuna eman. **2** *da/dau* ad. Biribilean bildu. *Aria bobildu* 'haria borobildu' (enrollar).

bokau, bokaua
MOKADU

bocado

bokau (eta *mokadu (?)*) iz. Mokadua; ahoan aldi bakoitzean sartzen den janari puska edo kopurua.

bol-bol
BOR-BOR

a borbotones; en ebullición

bol-bol adb. Bor-bor, borborka. *Ura bol-bol iekiten* 'ura bor-bor irakiten'.

bola, bolia
BOLA

bolo; (elur) pilo; pilota

bola, esfera; globo; bíceps [músculos]

bola **1** iz. Esfera formako gauzakia. Ik. **bolo**; **pilo**; **pilota**. **2** iz. Bizepsa; beso eta bernako giharra.

bolada, boladia
BOLADA

denboraldi

oleada; racha; ráfaga, racha, soplo
gran cantidad de, abundancia de
temporada, época, racha

bolada **1** iz. *Aize boladĭa* 'haize bolada'. *Aize bolada batek yan dĭa txapelĭa* 'haize bolada batek eraman dio txapela'. **2** iz. Eztai boladia yon da aurten. **3** iz. *Azken boladan eztot ikusi* 'azken boladan ez dut ikusi'. *Bolada txarra aurtengwa* 'bolada txarra aurtengoa'. Ik. **denboraldi**.

bolakan
HEGAN, HEGAKA

furrakan

volando; en volandas

bolaka(n) adb. Hegan, hegaka. *Txoria furrakán diyuá, bolakan diyuá* 'txoria furrakan [hegaka] dihoa, bolaka dihoa' (Ond Bak). Ik. **furrakan**. ◆ **bolakan hasi**. *Txoikumak asi dĭa bolakan* 'txorikumeak hasi dira hegan' ◆ **bolakan ibili**. Hegan egin.

bolante, bolantia

BOLANTE

volante (de vehículo)
guarnición (rizada, plegada o fruncida con que se adornan prendas de vestir o de tapicería)

bolante **1** iz. *Bolante berrik eztai izanko emetik aurrĭá autwek* 'bolante beharrik ez dute izango hemendik aurrera autoek'. **2** iz. Apaindura. *Soinekwai bolantĭa patu dĭa* 'soinekoari bolantea paratu dio'.

bolatu, bolatzen

HEGAN EGIN

furrukatu, furratu

volar
desaparecer

bolatu **1** *dau* ad. Ik. **furrukatu**, **furratu**. **2** *dau* ad. Lgart. Desagertu.

bolau, bolaua

BOLADU

bolado, azucarillo

bolau iz. Boladua; hainbat osagairekin egiten den ore harro gozoa. [Masa esponjosa que se hace con azúcar y clara de huevo].

bolbolkan

BORBORKA

a borbotones; hirviendo

bolbolkan adb. Borborka. *Ura bolbolkan iekiten do* 'ura borborka irakiten dago'.

bolina, bolinia

BIZKAR SASKI

cesto

bolina iz. Saskia; otarre mota, esporta baino handiago. Ik. **esporta**.

bolkatu, bolkatzen

IRAULI

itzuli, itzuldu

volcar(se)

bolkatu *da/dau* ad. Irauli. Ik. **itzuli**; **itzuldu**.

bolo, bolua

BOLA, KANIKA

bola

bola, canica

bolo iz. Kanika, puxtarria; bola. Ik. **bola**.

boloka / bolokan

PUXTARRITAN

kanikatan

(jugando) a canicas

boloka(n) adb. Puxtarritan ibili. Ik. **kanikatan**.

bolsa, bolsia

POLTSA

zakutela

bolsa (eta *boltsa*) iz. Poltsa, esku zorroa. *Boltsa txiki batĭen* 'poltsa txiki batean' (Ond Bak). *Plastikozko bolsĭa* 'plastikozko poltsa'. *[Desberdindu: *bolsa* (eta *boltsa*) ≠ *polsa* (eta *poltsa*)].

bolso, bolsua POLTSA, ZORRO

bolso, bolsa de mano

bolso iz. Poltsa, esku zorroa. *Bolswa lapurtu dĭai* 'poltsa lapurtu diote'. [Desberdindu: *zorro*, *bolso*, *poltsa*, *bolsa*].

bonba, bonbia BONBA, LEHERGAILU. 2 PONPA; PUZGAILU

bomba[1]
bomba[2]
bomba de aire, inflador

bonba **1** iz. Lehergailua. **2** iz. Ponpa. *Ura atatzeko bonbĭa*. **3** iz. Puzgailua. *Biziketia puzteko bonbĭa*.

bonbatxo, bonbatxua BONBATXO

bombacho

bonbatxo iz./adj. (pl.)

bonbero, bonberua BONBERO, SUHILTZAILE

bombero, -a

bonbero iz. Suhiltzailea.

bonbilla, bonbillia BONBILLA

bombilla

bonbilla iz. *Bonbilliorrek eztau argik iten* 'bonbilla horrek ez du argirik egiten'. ◆ **bonbilla funditu** (> *bonbillĭa funditu*). Bonbilla erre.

bonetia BONET

bonete

boneta (*a* itsatsia) iz.

borda, bordia BORDA

txabola (?)

borda
cabaña

borda iz. ◆ ardi borda. ◆ artzai borda. *Bordan bertan iten tu gaztaiek* 'bordan bertan egiten ditu gaztaiak'. Ik. **txabola**. ◆ **bordak erre**. Norbaitekin haserretu. Ik. **hasarratu**.

bordak erre BORDAK ERRE

hasarratu

reñir, enfadarse

bordak erre. Norbaitekin haserretu. Ik. **hasarratu**.

bordatu, bordatua BRODATU, BRODALAN

bordado

bordatu iz. Brodatua, brodalana.

bordatu, bordatzen BRODATU

bordar
bordado

bordatu **1** *dau* ad. Brodatu. *Bastidoreĭkin ibiltzen da bordatzen* 'bastidorearekin ibiltzen [aritzen] da brodatzen'. **2** (Partizipio burutua izen gisa). *Bordatua*. Brodatua, brodalana.

borla, borlia

BORLA

moltso / moltxo

borla

borla iz. Mutur batekik edo erditik lotzen diren sokatxoen multzoa, apaingarri gisa erabiltzen dena. *Elastikuen borla* (Ond Bak). *Kaikuen* [euskal jaka] *borlak*. Ik. **moltso** (> *moltxo*).

borobil

BOROBIL

biribil; topor

redondo, -a

borobil ([Altsasu eta Bakaiku]; > *bobil* [Urdiain]) adj. Biribila. Ik. **biribil**; **topor**. ◆ **erderaz borobil*** (> *erdĭaz bobilak*). Erdara borobil; erdara mordoiloa. Ik. **erdera**.

borondate

BORONDATE

voluntad
voluntad, deseo, inclinación; intención, propósito, cosa deseada
voluntad, disposición del ánimo
pago voluntario y discrecional

borondate (eta *bondate*) **1** iz. *Gaztĭeri yakusteko borondatĭa duka* 'gazteei erakusteko borondatea dauka'. **2** iz. Nahia. *Jangoikwen borondatĭa* 'Jaungoikoaren borondatea'. **3** iz. Asmoa. Borondate ona; borondate txarra. **4** iz. Obligaziorik gabe, borondatez ordaintzen dena. *Eztai kobratzen; eman borondatĭa, nai badezu* 'ez dute kobratzen; eman borondatea, nahi baduzu'. ◆ **borondatez** adb. Gogo onez; inork edo ezerk behartu gabe. ◆ **borondatearen kontra** (> *borondatĭen kontra*). *Gĭaure borondatĭen kontra gaitza* 'geure borondatearen kontra gabiltza'.

borragoma, borragomia

BORRAGOMA

goma (de borrar)

borragoma iz. Idatzitakoa-edo ezabatzeko erabiltzen den gomazko atala. Ik. **goma**.

borraja, borrajia

BORRAJA

borraja (Borago officinalis)

borraja iz. (Bot.) (Borrago officinalis). *Iletsua ta eskutan latza da borrajĭa, bea agwen, leguna* 'iletsua eta eskuetan latza da borraja, baina ahoan, leuna'.

borraska, borraskia

EKAITZ

ekaitz, trunboi, yutsin

borrasca, tormenta

borraska iz. Ekaitza. *Bizikletan gendazila borraskĭek arrapatu gĭau* 'bizikletan gindoazela borraskak harrapatu gaitu'. Ik. **ekaitz**; **yutsin**; **hodei**; **trunboi**.

borratu, borratzen

BORRATU

2 izena eman, apuntatu

borrar(se)
desapuntar(se)

borratu da/dau ad. *Ezta erraza izanen arrastwoiek borratzĭa* 'ez da erraza izanen arrasto horiek borratzea'. ◆ **(norbait) borratu**. Izena ematearen kontrako eginbidea, elkarte, lantalde, edo egitasmo batetik kanpo gelditzeko. *Borratzak nei* 'borratzak niri'. *Borratu in da* 'borratu egin da'. ▼ Anton. *izena eman*; *apuntatu*.

borro, borrua

BORRO ARDI

oveja merina

borro adj. Ardi borroa.

borrosto, borrostua

ZURIKIN

farfolla, espata
basto, -a; tosco, -a; rudo, -a. Dicho de una persona: tosca, escasa de delicadeza

borrosto **1** iz. Zurikina; maiz buruaren hostoa. *Maĭz txuiketan iruren bat borrosto auzten zezaien maĭz buari, borrostwoiek trenzatuta maĭz porkak iteko* 'arto zuriketan [arto zuritze lanetan] hiruren bat zurikin uzten zitzaien arto buruei, zurikin horiek trentzatuta [txirikordatuta] arto porkak [kordak] egiteko'. *Lastaia iten zan borrostwekin* 'lastaira egiten zen borrostoekin [zurikinarekin]'. **2** adj. (Irain hitz gisa). Arrunta, zakarra dena, fina ez dena.

borta, bortia

BASA, BASATU(A)

beki(a)

asilvestrado, -a; silvestre

borta adj. Bere kabuz jaiotzen den laborea; basa, basatua. Etxe abere izan behar zuena, kanpoan jaiotzeagatik, basabere bihurtu dena. *Patata bortĭa*. | *Txita bortak*. Ik. **bereki** (> *beki*).

bortitz, bortitza

BORTITZ

ahul

fuerte; intenso, -a; duro, -a; firme

bortitz adj. *Ogi masĭa bortitza ata zaizu; ezta ogi onik atako* 'ogi masa bortitza atera zaizu; ez da ogi onik aterako'. *Buztin bortitza, buztin fina eztana* 'buztin bortitza, buztin fina ez dena'. Ik. **fortitz**; **indartsu**. ▼ Anton. *ahul*.

borzegi, borzegia

(MENDIKO) BOTA

botina, bota

borceguí

borzegi iz. pl. *Borzegiek*. Mendiko botak. Ik. **botina**; **bota**[2].

bosgarren, bosgarrena

BOSGARREN

quinto, -a

bosgarren **1** ord. *Bosgarren pisuen bizi da* 'bosgarren pisuan [solairuan] bizi da'. **2** adb. *Bosgarren in dau karreran* 'bosgarren egin du karreran [lasterketan]. ◆ **bosgarrenean** (> *bosgarrenien*).

bosna

BOSNA

cinco cada uno, -a, cinco a cada uno, -a

bosna banatz. Bakoitzari bost. *Bakoitzai bosna* 'bakoitzari bosna'.

bost

BOST

cinco

bost **1** zenbtz. *Bost baserri de* 'bost baserri daude'. **2** (Izen gisa). *Bost eta bost amar* 'bost eta hamar'. **3** (Data adierazteko). *—Zenbat dau gaur ilak? —Gaur, bost* '—Zenbat du gaur hilak? —Gaur, bost'. **4** (Orduak adierazteko). *Goizeko bostetan etorri da*. **5** zenbtz. Asko. ◆ **bost jakin**. Asko jakin. (Ironiazko adieran) Ezer ez jakin. *Bost badakik hik!* (Ond Bak). [¡Qué vas a saber tú!]. Ik. **asko jakin**. Ik. **hamaika**; **hamaikatxo**.

bost jakin

ASKO JAKIN / EZER EZ JAKIN

(en sentido irónico) no saber nada

bost jakin. Asko jakin. (Ironiazko adieran) Ezer ez jakin. *Bost badakik hik!* (Ond Bak). [¡Qué vas a saber tú!]. Ik. **asko jakin**.

bosteko

BOSTEKO

grupo de cinco, que contiene cinco elementos
cinco (juego de cartas)

bosteko **1** iz. Bost gauza berdinek osaturiko gauza. **2** adj./iz. Joko kartez mintzatuz, sail bereko bost irudi dituena. *Bosteko urrĭa* 'bosteko urrea'. *Bosteko ezpatĭa* 'bosteko ezpata'.

bostortz, bostortza

BOSTORTZ

arado de cinco dientes

bostortz iz. Bost hortzeko goldea.

bota, botatzen

BOTA (1)

3 eroi

echar, tirar, arrojar, lanzar; disparar
caer(se)
talar
echar, proferir, lanzar, decir
pasar, dejar transcurrir
proyectar (una película)

bota[1] **1** *dau* ad. Jaurti. *Arria fidirizkan bota* 'harria firurikan bota'. Bota deazu gatza honi? — Bai, bota deat. Bota ziken. Haren gainea botatzen zan gariya. Erresponsua bota apizai (Ond Bak). **2** (Esapideetan). *Aditzerĭa bota* 'aditzera [ziria] bota'. *Puntadĭa bota* 'ziria bota'. *Kulpĭa bota* 'kulpa bota'. *Izardia bota* 'izerdia bota'. *Izotza bota*. *Usaia bota* 'usaina bota'. *Erregĭek opariek bota* 'Erregeek opariak ekarri'. *Ze bota dezai Erregĭek?* 'zer ekarri dizute Erregeek?'. *Pelikulĭa bota* 'pelikula bota'. *Errendaketakwek bota* [goitika egin, botaka egin]. *Juramentuek bota* 'biraoak / juramentuak bota'. *Yauria bota* 'euria bota'. *Umĭa bota* 'umea bota (haurdunak): umea galdu'. *Urde honek umia bota bêr din. Urde honek umiek bota bêr jitun* (Ond Bak). Baswa bota 'basoa [arboladia] bota; *arbolia bota* 'arbola bota'. ▲ Sin. *moztu*. **3** *da* ad. Erori. *Bota in da* 'bota egin da'. Ik. **eroi**. **4** *dau* ad. Bidali. *Etxeti bota*. Ik. **despeditu**; **bialdu**. **5** [Eguna, arratsaldea, astea...] bota. Eman. *Yun guztĭa bota dau ixildu be* 'egun guztia bota du isildu gabe'. ◆ **bota ahala** (> *bota ala*) adb. Bota bezain laster. *Otz onekin, elurra bota ala, lurra zwitu iten dau* 'hotz honekin, elurra bota ahala, lurra zuritu egiten du'. *Azia bota ala, jaio da* 'hazia bota ahala, jaio da'.

bota, botia

BOTA (2)

1 botina

bota [calzado]
bota [recipiente]

bota[2] **1** iz. Batez ere pl. Botak, oinetakoak. Ik. **botina**; **borzegi**. **2** iz. Zahatoa. *Ardo botĭa* 'ardo bota'. *Ezta bate gaizki moldatzen ardwa botati yaten* 'ez da batere gaizki moldatzen ardoa botatik edaten'.

botagale

BOTAGALE

botagura, errendaketako gogo

náusea, ganas de vomitar

botagale iz. (Ond Bak). Ik. **botagura**; **errendaketako gogo**.

botagera, botageria

ERORIKO

caída; porrazo, morrazo

botagera iz. Erorikoa. *Izotzĭen irristatu ta botagera galanta in dot* 'izotzean [izotzetan] irristatu eta eroriko galanta egin dut'. ◆ **botagera egin** (> *botageria in*); **botagera ibili** (> *botageria ibili*). Erorikoa izan. *Bizikletiekin botageria ibil dot* 'bizikletarekin erorikoa ibili dut [izan dut]'.

botagura, botaguria

BOTAGURA

botagale [Bakaiku], errendaketako gogo

ganas de vomitar

botagura iz. Ik. **botagale**; **errendaketako gogo**.

botaketan ibili

BOTAKA IBILI

errendaketan

vomitando

botaketan ibili (Ond Bak). Botaka ibili, okaka aritu. Ik. **errendaketan**.

botatu, botatzen

BOTATU

votar

botatu *dau* ad. Botoa eman.

botazi

BOTARAZI

obligar a echar

botarazi (> *botazi*) *dĭa* ad. Botatzera behartu.

botazio, botaziua

BOTAZIO

sufragio, votación

botazio iz. Botoa ematea, bozketa.

bote, botia

BOTE

bote

bote iz. ◆ **botea egin** (> *botĭa in*). *Bi bote in tu pilotĭek* 'bi bote egin ditu pelotak'. *Bote txarra iten dau balon orrek* 'bote txarra egiten du baloi horrek'.

botella, botellia

BOTILA

botella

botella iz. Botila. *Ustu dau ardo botellĭa* 'hustu du ardo botila'.

botellakazo, botellakazua

BOTILAKADA [KOLPEA]

botellazo

botellakazo iz. Botilakada kolpea.

botellon, botellona

KALE ZURRUTA

botellón

botellon iz. (Hitz berria) Kale zurruta.

botika, botikia
BOTIKA

farmazia; 2 medikamentu

farmacia, botica
fármaco, medicamento

botika **1** iz. Farmazia. Donostiako botikak ibiltzen zituen. ▲ Sin. *farmazia*. **2** iz. Sendagaia. Ik. **medikamentu**. ◆ **botika hartu** (> *botikĭa artu*). ▲ Sin. *medikamentua hartu*.

botikaio, botikaiua
BOTIKARI

farmazeutiko

boticario, -a, farmacéutico, -a

botikario (> *botikaio*) iz. Botikaria. ▲ Sin. *farmazeutiko*.

botila, botilia
BOTILA

botella

botila iz. Ik. **botella**.

botina, botinia
BOTIN

bota; borzegi

zapato botín
botín, borceguí

botina (*a* itsatsia) iz. pl. *Botinak*. Bota, oinetakoa. Ik. **bota**[2]; **borzegi**. ◆ **txatulazko botin(ak)**. Tatxetak dituzten botinak.

boto, botua
BOTO

voto, sufragio

boto iz. *Boto gaio ata tuai gwaiko eleziotan* 'boto gehiago atera dituzte oraingo elekziotan [hauteskundeetan]'. ◆ **botoa bota** (> *botwa bota*). ◆ **botoa eman** (> *botwa eman*). *Noi eman diazu botwa?* 'nori eman diozu botoa?'. ◆ **bototara** (> *botota*). *Asiko balitzake Jangoikua botota, Ifarnuko Diablwek ibazi* 'hasiko balitz Jaungoikoa bototara, Infernuko Deabruak irabazi'.

botona, botonia
BOTOI

botón
botón, pulsador

botona **1** iz. Jantzietan, apaingarri edo lotura gisa josten dena. *Botonak lotu* 'botoiak lotu'. *Botonak askatu* 'botoiak askatu'. **2** iz. Txirrinetan, tresnetan-eta, sakatzen dena. ◆ **botona zulo**. Botoi zuloa. Ik. **ojale**.

boxke, boxkia
IGURAIN

igurai, basozai

guarda forestal, guardabosque

boxke iz. Basozaina (Ond Bak). *Boxkĭa*, *boxkĭenak*... [Urdiain]. Ik. **igurai**; **basozai**.

boz, boza
BOZ, AHOTSA

voz

boz iz. Ahotsa. *Boza gwatu* 'boza goratu'.

bozina, bozinia
BOZINA, TURUTA

bocina

bozina iz. Autoetako turuta. *Bozinĭa jo*.

bozio, boziua GOLO

bocio

bozio iz. Goloa, tiroide guruina handitzea.

braga, bragia KULERO

braga

braga iz. pl. *bragak*. Kuleroa.

brasa, brasia BRASA

txinar

brasa, ascua

brasa iz. Txingarra. *Parriliendako brasa ona prepatu dau elorri egurrakin*. 'parrilarendako brasa ona preparatu du elorri egurrarekin'. Ik. **txinar**.

brea BREA

pikia (?)

brea

brea iz. *Breakin konpondu tuai kalĭek* 'brearekin konpondu dituzte kaleak'. Ik. **pike**. ◆ **brea bota**. Asfaltatu.

brea bota ASFALTATU, BREAZTATU

asfaltar

brea bota. Asfaltatu.

brillante, brillantia DIRDIRATSU; BRILLANTE

dirdirra

brillante

diamante tallado, brillante

brillante **1** adj. Dirdiratsua. Ik. **dirdirra**. **2** iz. Diamante landua.

brillantina, brillantinia BRILLANTINA, (ILE) GANTZU

brillantina

brillantina iz.

brillatu, brillatzen DIRDIRATU, DISTIRATU

brillar

brillatu *dau* ad. Dirdiratu, distiratu.

brillo, brillua DIRDIRA, DISTIRA

dirdirra

brillo

brillo iz. Dirdira, distira. Ik. **dirdirra**. ◆ **brilloa atera** (> *brillwa ata*). Distira atera, distirarazi.

brillotasun, brillotasuna DIRDIRA

dirdirra

brillantez, brillo

brillotasun iz. *Txapĭorren brillotasunak itsutu in juak* 'txapa [xafla] horren dirdirak itsutu egin zidak [nau / naik]. Ik. **dirdirra**.

brinbal, brinbala

ATALASE

atalburu

umbral, escalón de la puerta de entrada

brinbal iz. Brinbela; atalasea, atearen behealdea. Atái brinbalá (Ond Bak). *Arrizko brinbala; zurezko brinbala* 'harrizko brinbela; zurezko brinbela'. Ik. **atalburu**.

brinko, brinkua

BRINKO, JAUZI

salto

salto, brinco

brinko iz. Jauzia. *A ze brinkwa in dik!* 'a zer brinkoa egin dik!'. Ik. **salto**. ◆ **brinkoa egin** (> *brinkwa in*). ◆ **salto eta brinko** (> *salto ta brinko*).

brinkoka(n)

BRINKOKA

saltoka(n)

saltando, dando brincos

brinkoka(n) adb. Brinkoka; jauzika, brinko eginez. ▲ Sin. *saltoka(n)*.

brinkolai, brinkolaia

BRINKOLARI, JAUZILARI

saltokalai

saltador, -a, saltarín

brinkolari (> *brinkolai*) adj./iz. Jauzilaria. ▲ Sin. *saltokalai*.

brixka, brixkia

BRISKA

brisca [juego de cartas]

briska (eta *brixka*) iz. Karta-jokoa.

brixkalai

BRISKALARI

jugador de brisca

briskalari (> *brixkalai*) iz. Briskan jokatzen duena.

brixkaldi, brixkaldia

BRISKALDI

partida de brisca; rato de jugar a la brisca

briskaldi (> *brixkaldi*) iz. Briska partida; briskan eginiko aldia.

broka, brokia

BARAUTS

broca

broka iz. Barautsa.

broma, bromia

BROMA

txantxa; kopla; apropos

broma

broma iz. *Emen, broma gutxi* 'hemen, broma gutxi'. Ik. **txantxa**; **kopla**. ◆ **bromatan**. Broman. Ik. **apropos**.

bromatan

BROMAN

apropos

de/en broma, bromeando

bromatan adb. Broman.

bromazale, bromazalia

BROMAZALE

bromista

bromazale adj.

bronka

LISKAR; ERRIETA

yausi; lotsai

bronca, discusión, riña
reprimenda, bronca

bronka 1 iz. Liskarra. Ik. **yausi**. **2** iz. Errieta. Ik. **lotsai**. ◆ **bronka bota** (> *bronkĭa bota*). Errieta egin. Ik. **sermoi**.

brotxa, brotxia

BROTXA

pinzel

brocha, pincel

brotxa iz. Ik. **pinzel**.

bu, bua

BURU

cabeza

bubeiko, bubeikua

BURUGABE, BURUGABEKO

zogi

sin cabeza, que no tiene cabeza
insensato, -a
alocado, -a

bubeltx, bubeltxa

BURUBELTZ, KASKABELTZ

carbonero común (Parus major)

burubeltz (> *bubeltx*) iz. Kaskabeltza; *Parus* generoko hegaztia, tamaina txikikoa eta burua beltza duena (Parus sp.). *Txoi bubeltxa* 'txori burubeltza'.

budin, budina

BUDIN

flan

flan

budin iz. Flana. *Budina esaten zezaion gwai flana esaten zaionai* 'budina esaten zitzaion orain flana esaten zaionari'. *Budinak eztuka ezurrik, e?* 'budinak ez dauka hezurrik, e?'. ▲ Sin. *flan*.

buelo, buelua

HEGAL, ZABALTASUN

vuelo, amplitud, extensión

buelo iz. Zabaltasuna; hedadura; hegala. *Karga baten bwelwa* 'karga [zama] baten hegala'. *Bwelo aundia artu dau gurdiek* 'zabaltasun handia hartu du gurdiak [gurdiaren zamak]'. *Soinekwen bwelwa* 'soinekoaren hegala'.

buelta eman

BUELTA EMAN

itzuli

dar la vuelta, rodear
dar(se) la vuelta, volver(se), volcar(se)

buelta eman. Biratu; irauli. *Ematen gairu* 'digu' *buelta gurdiek eta akabo. Esku batekin buelta eman dornubei* (Ond Bak). Ik. **itzuli**.

buelta, bueltia

ITZULI, BIRA, BUELTA

paseo, pasialdi

vuelta
vuelta, regreso
vuelta (dinero), cambio, devolución
contorno

buelta **1** iz. Bira, jira, itzulia. **2** iz. Itzulera. *Bueltĭa trenĭen in genduen* 'buelta trenean [trenez] egin genuen'. **3** iz. (Batez ere pl.) Diru bueltak. **4** interj. *Buelta!* Behiari ezker-eskubi egiteko agindua. ◆ **buelta egin** [Desberdindu: *bwelta in* ≠ *bweltĭa in*]. **1** (> *bwelta in*). Buelta hartu. **2** (> *bweltĭa in*). Joan-etorria egin; ibilaldia egin. Ik. **paseo**; **pasealdi** (> *pasĭaldi*). ◆ **buelta eman**. Biratu; irauli. *Ematen gairu* 'digu' *buelta gurdiek eta akabo*. *Esku batekin buelta eman dornubei* (Ond Bak). Ik. **itzuli**. ◆ **buelta erdi**. ◆ **buelta eta buelta** (> *buelta ta buelta*). Azkenean. *Buelta ta buelta, arrebĭek arrazoi* 'buelta eta buelta [azkenean], arrebak arrazoi'. ▲ Sin. *ibili ta ibili*. ◆ **buelta hartu** (> *buelta artu*). Biratu, norabidea aldatu. Ik. **bueltatu**. ◆ **bueltan** **1** adb. Inguruan. *Etxĭen bueltan* 'etxearen bueltan'. *Errien bueltan* 'herriaren bueltan'. **2** adb. Itzultzean. Ik. **etorreran**.

bueltaka(n)

BUELTAKA

dando vueltas

bueltaka (> eta *bueltakan*) adb. Biraka, jiraka. *Bisutsa aizĭek bueltakan ibiltzen dau* '[elur] bisutsa haizeak bueltaka ibiltzen du' (Ond Bak). ◆ **buruari bultaka** (> *buruai bueltakan*). (Gauza bati) buruan buelta eta buelta ibili.

bueltakalai, bueltakalaia [dantza]

BIRAKARI, JIRABIRAKARI [BALTS]

girador, -a; giratorio, -a; rotatorio, -a

bueltakalari (> *bueltakalai*) adj. Birakaria; jirabiraka egiten duena. *Dantza bweltakalaia da balsa* 'dantza birakaria da balsa'.

bueltan

BUELTAN

etorreran

alrededor
de vuelta, al volver

bueltan **1** adb. Inguruan. *Etxĭen bueltan* 'etxearen bueltan'. *Errien bueltan* 'herriaren bueltan'. **2** adb. Itzultzean. Ik. **etorreran**.

bueltatu, bueltatzen

BUELTATU, ITZULI

entreatu

dar(se) la vuelta; volver, regresar; devolver, recuperar

bueltatu *da/dau* ad. Itzuli (adiera guztietan). *Burua bweltatu*. *Errĭá bweltatu* 'herrira bueltatu'. *Libua bweltatu* 'liburua bueltatu'. Ik. **entregatu** (> *entreatu*). || *Urdĭa bueltatu in da: ernai gelditu eztana, ta berriz irausi jarri da* 'urdea [txerria] bueltatu egun da: ernari gelditu ez dena, eta berriz irausi [arreske] jarri da'.

bueltia in

BUELTA EGIN

paseo, pasialdi

volver, regresar
dar alguien una vuelta (paseo)

buelta egin [Desberdindu: *bwelta in* ≠ *bweltĭa in*]. **1** (> *bwelta in*). Buelta hartu. **2** (> *bweltĭa in*). Joan-etorria egin; ibilaldia egin. Ik. **paseo**; **pasealdi** (> *pasĭaldi*).

buesuek
GURASO

aitama(k)

padres (pl.), el padre y la madre

buexa(k)
GURAIZE

tijera(s)

bufanda, bufandia
BUFANDA

tapaboka

bufanda

bufanda iz. lk. **tapaboka**.

bugogor, bugogorra
BURUGOGOR

kaskagogor; kasketoso, -a; terko

cabezón, -ona
terco, -a
obstinado, -a

burugogor (eta *bugogor*) adj. *Ezaio sartzen buruen; burugogorra gĭo!* 'ez zaio sartzen buruan; burugogorra gero!'. lk. **kaskagogor**; **kasketoso**; **terko**.

buhaundi, buhaundia
BURUHANDI

cabezón
terco
cabezudo

buruhandi (> *buruaundi*, *buaundi*). 1 adj. Burua handia duena. 2 adj. Egoskorra dena.

bukaera, bukaeria
BUKAERA

akabera, azken, despaera — *hasiera, hasigera*

fin, final, término, finalización
acabado, remate
desenlace, final

bukaera iz. lk. **akabera**; **azken**; **despaera**. ▼ Anton. *hasiera* (> *asiera*, *asigera*).

bukatu, bukatzen
BUKATU

akabatu, despeitu — *hasi*

acabar(se), terminar(se); dar fin, concluir

bukatu *da/dau* ad. *Bai, bukatu dot lanau* 'bai, bukatu dut lan hau'. *Bukatu jitunu festak* 'bukatu ditinagu festak'. *Asi ta bukatu* 'hasi eta bukatu'. *Garbiketĭa bukatube* fan da* 'garbiketa bukatu gabe joan da'. *Bukatu dugu guk eguna*. lk. **akabatu**; **despeditu** (> *despeitu*). ▼ Anton. *hasi*.

bukatube
BUKATUGABE

inconcluso, -a

bukatube adj. Bukatugabea. *Bukatubeiko lanak dukatzĭu* 'bukatugabeko lanak dauzkagu'.

buki, bukia
BURUKI, BURUALDE

cabezada, carne de cabeza

buruki (> *buki*) iz. Buruko haragia.

buko min, buko mina

BURUKO MIN

dolor de cabeza; jaqueca

buruko min (> *bukomin*). Buruan sentitzen den mina.

buko pañelo, buko pañelua

BURUZAPIA

buko trapu, mantilla

pañuelo [de cabeza]

buruko pañelo (> *buko pañelo*) iz. Buruzapia. Ik. **buruko trapu** (> *buko trapu*); **mantilla**.

buko trapu, buko trapua

BURUZAPI

pañuelo (de cabeza); velo

buruko trapu (> *buko trapu*) iz. Buruzapia.

buko, bukua

BURKO, BURUKO

almohada

buruko (> *buko*) iz. Burkoa; ohean, burua bertan jartzeko ipintzen dena. ◆ **buruko pañelo** (> *buko pañelo*) iz. Buruzapia. Ik. **buruko trapu** (> *buko trapu*); **mantilla**. ◆ **buruko trapu** (> *buko trapu*) iz. Buruzapia.

bukoazal, bukoazala

BURUKOAZAL

2 txurrutxal

funda de almohada

burukoazal (> *bukoazal*, *burukoaxal*, *bukoaxal*) **1** iz. Burko-azala; bururdi-azala. **2** (> *burukoaxal*) iz. (Bot.) (Ond Bak). [OEH. "Burukoaxal, plantita dulce al gusto, llamada txurrutxal por navarros erdaldunes" Ond Bac 116.]. Ik. **txurrutxal**.

bular, bularra

BULAR

bularralde, papar, petxo; 2 titi, erro

pecho, tórax; parte delantera del tórax

pecho(s), mama

colina; pendiente

bular **1** iz. Anatomia. Ik. **bularralde**; **papar**; **petxo**. **2** iz. Ugatza. Ik. **titi**, **erro**. **3** iz. (Orografia) Muinoa; muinoaren malda, aldapa. ◆ **bularretako min**. Bularreko mina.

bularralde, bularraldia

BULARRALDE

bular, petxo; papar

pecho, tórax

bularralde iz. Bularra. Ik. **bular**; **petxo**; **papar**.

bulka

BULKA

bulkakan

empujando

bulka adb. Bultza eginez. *Bulka ta bulka*. Ik. **bulkakan**. ◆ **bulka egin** (> *bulka in*) *dĭa* ad. Bultza egin. Esr. *Urai bulka in* 'urari bulka egin'. Ik. **bulkatu**.

bulkaka(n) BULKAKA

bulka, bulkazokan

empujando, a empujones

bulkakan adb. Bulkaka. *Bulkakan ata zituain kanpwa* 'bulkaka atera zituzten kanpora'. ▲ Sin. *bulka*; *bulkazokan*.

bulkatu, bulkatzen BULKATU, BULTZATU

bulka in

empujar, impulsar, impeler

bulkatu *dau* ad. Zerbait edo norbait higitzera behartzen duen indar baten eraginpean jarri. *Bulkatzan ataioi* 'bulka ezan atari hori'. Ik. **bulka egin** (> *bulka in*).

bulkazo, bulkazua BULKADA

empujón

bulkazo iz. Bulkada.

bulkazoka(n) BULKAKA, BULTZAKA

bulka, bulkakan

empujando, a empujones

bulkazoka(n) adb. Bulkaka, bultzaka, bulka eginez. Ik. **bulka**; **bulkaka(n)**.

bultzurrun, bultzurruna (bulzurrun) GILTZURRUN

riñón

bultzurrun (eta *bulzurrun*) iz. Giltzurruna.

buluntzarri, buluntzarria BURRUNTZALI

kazo

cucharón; cazo

buluntzarri iz. Burruntzalia (Iza Alts). Ik. **kazo**.

bunbatako, bunbatakua DANBATEKO; EZTANDA

estallido, explosión
estruendo

bunbatako iz. Danbatekoa; eztanda. Ik. **punpatako**.

buneko, bunekua BURUTE, SORKI

burkain

rodete

buneko iz. Burutea; Buruan zamaren bat eramateko jartzen den ehunezko edo espartzuzko biribilkia. ▲ Sin. *burkain* [Bakaiku].

buo ISO

voz con que se incita a parar al ganado vacuno

buo (> *bwo, wo*) interj. Abelgorriei geldi daitezen esaten zaien hitza. Ik. **aida**; **esti**; **so**; **arre**.

burbuja, burbujia BURBUILA

burbuja

burbuja iz. Burbuila. Ik. **pits**. *Burbujak iten genduzen giziekin* 'burbuilak egiten genituen giziarekin [lastoa]'.

burkain
BURUTE

buneko

rodete [que se pone en la cabeza para cargar y llevar sobre ella un peso]

burkain iz. Burutea; buruan zamaren bat eramateko jartzen den biribilkia (Ond Bak). Ik. **buneko**.

burla in
BURLA EGIN

burlar(se) de, mofarse

burla egin (> *burla in*). Ik. **burlatu**.

burla, burlia
BURLA

burla, mofa, escarnio

burla iz. *In emen zian burla* 'egin omen zion burla' (Ond Bak). ◆ **burla egin** (> *burla in*). Ik. **burlatu**. ◆ **burlaz** adb. Burlaka. Ik. **burlakan**. ◆ **burlaz ibili** adb. *Orrek eztik balio, burlaz abil* 'horrek ez dik balio; burlaz habil'.

burlaka(n)
BURLAKA

burlaz

burlándose

burlakan adb. Burlaka, burla eginez. Ik. **burlaz**.

burlatu, burlatzen
BURLATU

adarra jo, burla in, tentatu, toriatu

burlarse

burlatu *da* ad. Burla egin. Ik. **adarra jo**; **burla egin**, **tentatu**; **toriatu**.

burlaz
BURLAZ

burlakan

en bromas; burlándose

burlaz adb. Burlaka. Ik. **burlakan**.

burloso, burlosua
BURLATI

burlón, -ona, guasón, -ona

burloso adj. Burlatia.

burni harri
BURDIN HARRI

(mineral de) hierro

burni harri (> *burni arri*). Burdin harria (Ond Bak). [Piedras pequeñas y negruzcas, según el pueblo contienen hierro].

burni, burnia
BURNI, BURDINA

hierro

burni (-*a* berezkorik gabe) iz. Burdina. • Esr. zah. *Abenduko elurra, gailtzerua; ilbeltzekwa, burnia; otsailekwa, egurra; marsukwa, ura* 'abenduko elurra, altzairua; ilbeltzekoa, burdina; otsailekoa, egurra; martxokoa, ura'. ◆ **burni endai** (> *burnindai*). Burdin endaia. Ik. **burnindai**. ◆ **burni harri** (> *burni arri*). Burdin harria (Ond Bak). [Piedras pequeñas y negruzcas, según el pueblo contienen hierro]. ◆ **burni ziri** (> *burnizi*). Burdin ziria, burdinazko ziria. Ik. **burniziri** (> *burnizi*).

burnindai, burnindaia

BURDIN ENDAI

pala de horno (de hierro)

burnindai iz. Burdinazko endaia; ogia labean sartzeko burdinazko pala edo endaia. Ik. **labendai**; **endai**. [Urdiain] [Iza Alts & Ond Bak] Pala de hierro para meter el pan en el horno (zurezkoa: labendai).

burnizi, burnizi

BURDIN ZIRI

cuña de hierro

burniziri, burniziria

BURDIN ZIRI

zi

cuña de hierro

burniziri (eta *burnizi*) iz. Burdin ziria; burdinazko ziria. Ik. **ziri** (> *zi*); **zur ziri** (> *zurzi*); **egur ziri** (> *egurzi*).

burruka

BORROKA

muxinko, peleia, lutxa

pelea, lucha, combate, enfrentamiento

burruka iz. Borroka. Ik. **muxinko**; **peleia**; **lutxa**. [(LM) *borroka*; *borrokan*; *borrokalai* (ez *burruka*). Sebastian Ayerbek-eta *borroka* esaten zutela]. ◆ **burrukan** adb. Borroka; borrokan, borrokatzen. ▲ Sin. *muxinkwen*; *peleien*; *lutxan*. [Oharra. (LM): *borroka*; *borrokan*; *borrokalai* (ez burruka). Sebastian Ayerbek-eta *borroka* esaten zutela].

burrukalai, burrukalaia

BORROKALARI

muxinkolai, lutxadore

luchador, -a, contendiente

burrukalari (> *burrukalai*) iz./adj. Borrokalaria. ▲ Sin. *muxinkolai*, *lutxadore*.

burrukan

BORROKA

muxinkuen, peleien, lutxan

luchando, peleando

burrukan adb. Borroka; borrokan, borrokatzen. ▲ Sin. *muxinkwen*; *peleien*; *lutxan*.

bursoka

GURDI SOKA

soga (para atar la carga del carro)

bursoka [Ziordia] iz. Gurdikadak lotzeko soka sendo eta luzea. Ik. **gursoka**.

buru hezur (?)

BURU HEZUR

kaskozur, kalabera

cráneo; calavera

buru hezur (> *buru ezur*). Burezurra. Ik. **kaskozur**; **kalabera**.

buru, burua

BURU

kasko

cabeza
cabeza, juicio; inteligencia, talento, memoria; sentido común, sensatez
cabeza (contrapuesto a punta)
cabeza, jefe, -a, persona más importante, persona que marcha en cabeza
cabeza, cabecera
cabeza, res; unidad de rebaño

buru (> *bu*) **1** iz. *Buruen artu dau mina* 'buruan hartu du mina'. Ik. **kasko**. **2** iz. (Esapideetan). *Norbaiti buti bĭa kaka in* 'norbaiti burutik behera kaka egin'. *Ez bu ta ez anka ez ibili* 'ez buru eta ez hanka ez ibili [eduki]'. **3** iz. Burua adimenaren eta oroimenaren iturburutzat hartua. *Buru argia*. *Buru gogorra*. Ik. **burugogor**. *Buru txarra*. Ik. **memoria**. **4** iz. Gauzaki baten mutur zabala edo biribila. (*punta*-ren aurrez aurre). *Giltza burua* 'iltze burua'. *Orratz burua*. **5** iz. Buruzagia. Ik. **buruzagi**. **6** iz. *Maiz burua*. *Gari burua*. **6** iz. Aziendaz edo jendeaz mintzatuz, banakoa. *Ganau burua* 'ganadu burua'. *Berreun buru ibilko tu artaldĭorrek* 'berrehun buru ibiliko [edukiko] ditu artalde horrek'. ◆ **(bere...) burua hil** (> *be bua il*) *dau* ad. (Bere...) buruaz beste egin. *Raso akokinatwik ta bildurtwik zukain gizon aua, ta orrengeiti be bua il zen* 'arras kikildurik eta beldurturik zuten gizon hura, eta horregatik bere burua hil zuen'. ◆ **burua galdu**. ◆ **burua hautsi** (> *bua ausi*). **1** Burezurra hautsi. **2** Zerbaiti buruz behin eta berriz pentsatu. ◆ **burua ibili** [eduki]. Burutsua izan. ◆ **burua jaso**. **1** Burua gorantz higitu. *Jasotzak buruoi, kuzkurtwik dĭak-eta* 'jaso ezak buru hori, kuzkurturik daramak eta'. *Ezakela jaso buruoi; uswek izutu bertuk bestela* 'etzakela jaso buru hori; usoak izutu behar dituk bestela'. **2** Beheralditik atera. ◆ **burua joan** (> *burua fan*). Burua fanik do 'burua joanik dago'. ◆ **burua makurtu**. ◆ **burua nahastu(rik)** (> *burua nastu(ik)*). ◆ **burua tente ibili** (> *bua tente ibili*). ◆ **burua zutik ibili**. ◆ **buruan hartu** (> *buruen artu*). Gogoan hartu, memorian hartu. Ik. **gogoan hartu** (> *gogwen artu*). ◆ **buruan sartu** (> *buruen sartu*). *Ez zaio buruen sartzen* 'ez zaio buruan sartzen'. ◆ **buruaren jabe izan** (> *buruen jabe izan*). Oi ezta be buruen jabe 'hori ez da bere buruaren jabe'. ◆ **buruari bueltaka** (> *buruai bueltakan*). Pentsamenduren bat buruan buelta eta buelta ibili. ◆ **buruko min** (> *bukomin*). Buruan sentitzen den mina. ◆ **burura etorri** (> *burwá etorri*). ◆ **burura igo** (> *burwá iyo*). ◆ **burutik (eginik) egon, ibili** (> *burutik (inik) yon*, *ibili*). *Burutik jok* 'burutik zagok'. *Burutik jailek* 'burutik zabilek'. || **burutik ibili**. Deliratu (Ond Bak). Ik. **deliratu**. ◆ **(zerbait) burutik joan**; **joanik ibili [eduki]** (> *buruti fan*, *fanik ibili* [eduki]). Ahaztuta izan. ◆ **burutik jorik** (> *butik joik*). Burutik eginda. *I butik joik ago* 'hi burutik jorik hago'. ◆ **buruti(k) kendu**. *Ezin buruti kendu nail atzo esan zenduana* 'ezin burutik kendu nabil atzo esan zenidana'. ◆ **buruti(k) pasatu**. Bururatu. *Ezaira buruti pasatu're in* 'ez zait burutik pasatu ere egin'. ◆ **buru gabeko** (> *bu beiko*). Ik. **burugabeko**. ◆ **buru gaineti(k)**. Buruz gain. *Buru gaineti pasa zaio uso bandadĭa* 'buru gainetik pasa zaio uso banda'. ◆ **buru handi** (> *buru aundi*, *bu aundi*). ◆ **buru makur**. Ik. **burumakur**. ◆ **(neure, zeure, bere...) buruz** (> (*neaure*, *zĭaure*, *be*...) *buz*). Neure, zeure, bere... artean; neure, zeure, bere... kabuz. *Be buz ikasi dau iraikan* 'bere buruz ikasi du igerikan'. || *Gutxi jaten zen bere burutik* 'gutxi jaten zuen bere burutik [berak nahita]' (Ond Bak). || ◆ **buruz behera** (> *buz bea*, *buz bĭa*) **1** adb. Ahuspez, beherantz begira. Ik. **ahuspez**; **muturrez aurrera** (> *muturrez aurrĭá*). **2** adb. Gorputzaren goialdea beherantz dagoela. *Buz bia, tintilikan* 'buruz behera, zintzilika'. ◆ **buruz ibili** [ari izan]. *Buruz nail(e)* 'buruz nabil'. ◆ **buruz esan**. ◆ **buruz gora**. ◆ **buruz ikasi**. ◆ **buruz jakin**. ◆ **neure buruz egin** (> *nĭaure buz*

buruai bueltakan

BURUAN BUELTA ETA BUELTA IBILI

dar vueltas en la cabeza (a algo)

buruari bueltaka (> *buruai bueltakan*). Pentsamenduren bat buruan buelta eta buelta ibili.

burualde, burualdia BURUALDE
buru *hankalde*
cabecera

burualde iz. *Oian burualdĭa* 'ohearen burualdea'.

buruargi, buruargia BURUARGI
azkar, inteligente; listo, -a
lúcido, -a, listo, -a, ingenioso, -a

buruargi adj.

burubeiko, burubeikua BURUGABE, BURUGABEKO
txoro, txoriburu *zogi*
sin cabeza, que no tiene cabeza
insensato, -a
alocado, -a

burubeiko (eta *bubeiko*) adj. Burugabea, burugabekoa; bururik ez duena; bereziki, zentzurik ez duena. Ik. **txoro**; **txoriburu**. ▼ Anton. *zogi*.

burubide, burubidia BURUBIDE
fundamentu
juicio; fundamento, fuste
fundamento, seriedad, sensatez, formalidad

burubide **1** iz. Gauzak egiteko modua. ◆ **burubidea ibili** [eduki] (> *burubidĭa ibili*). *Loitan irulkan; a ze burubidĭa dukai aur oiek!* 'lohitan iraulka; a zer burubidea daukate haur horiek!'. **2** iz. Fundamentua, ganora. Ik. **fundamentu**. ◆ **burubidea egon** (*burubidĭa yon*). *Etxĭontan ezto burubideik* 'etxe honetan ez dago burubiderik'.

burudun, buruduna BURUDUN
que tiene cabeza

burudun adj. *Aitxur buruduna* 'aitzur buruduna'.

buruen hartu BURUAN HARTU
goguen hartu
tomar en cuenta, considerar; aprender, memorizar

buruan hartu (> *buruen artu*). Gogoan hartu, memorian hartu. Ik. **gogoan hartu** (> *gogwen artu*).

burukada, burukadia BURUKADA
burukazo
cabezada, cabezazo, golpe de cabeza

burukada iz. Buruaz emandako kolpea. ▲ Sin. *burukazo*.

burukazo BURUKADA
burukada
cabezada, cabezazo, golpe de cabeza

burukazo (eta *bukazo*) iz. Burukada. Ik. **burukada**.

buruko txoko GARONDO, GARTZETA
occipucio; nuca, cerviz

buruko txoko iz. Okzipuzioa; garondoa, gartzeta {(Iza Alts): occipucio}. Ik. **zorri ganbela**.

burukoaxal [LANDARE MOTA]

burukoaxal (Ond Bak) iz. (Bot.) [Plantita dulce al gusto, llamada "txurrutxal" por navarros erdaldunes].

burumakur, burumakurra BURUMAKUR

2 kaskamakur, infame, kalabera

cabizbajo, -a, con la cabeza gacha
torcido, -a (dicho de una persona); malo, -a; perverso, -a

burumakur **1** adb. Burua makurturik. **2** adj. Pertsona makurra. Ik. **kaskamakur**.

bururatu BURURATU

okurritu

ocurrirse
recordar; traer a la memoria

bururatu zaio ad. (?). Ik. **okurritu**.

burutik ibili BURUTIK IBILI

deliratu

delirar

burutik ibili. Deliratu (Ond Bak). Ik. **deliratu**.

burutsin BURU HUTSEAN, BURU HUTSIK

con la cabeza descubierta

burutsin [Altsasu] adb. Buru hutsean, buru hutsik, buruan txapelik edo antzekorik gabe.

burutsu, burutsua BURUTSU

talentudun *talentubeiko*

juicioso, -a, de talento

burutsu adj. Ik. **talentudun**. ▼ Anton. *talentubeiko*.

burutu, burutzen BURUTU

espigar, echar espigas, granar

burutu *da* ad. (Gariak-eta) buruxkak eman. *Oneskĭo garia burutu da* 'honezkero garia burutu da'.

buruz BURUZ

con la cabeza; de cabeza
de memoria, de cabeza; de carrerilla, de carretilla; mentalmente

buruz (> *buz*) **1** adb. ◆ **buruz behera** (> *buz bea*, *buz bĭa*) **1** adb. Ahuspez, beherantz begira. Ik. **ahuspez**. **2** adb. Gorputzaren goialdea beherantz dagoela. ◆ **(neure, zeure, bere...) buruz** (> (*neaure*, *zĭaure*, *be*...) *buz*). Neure, zeure, bere... artean; neure, zeure, bere... kabuz. *Be buz ikasi dau iraikan* 'bere buruz ikasi du igerikan'. Ik. **bere**. ◆ **buruz behera** (> *buz bea*, *buz bĭa*) **1** adb. Ahuspez, beherantz begira. Ik. **ahuspez**; **muturrez aurrera** (> *muturrez aurrĭá*). **2** adb. Gorputzaren goialdea beherantz dagoela. *Buz bia, tintilikan* 'buruz behera, zintzilika'. ◆ **buruz ibili** [ari izan]. *Buruz nail(e)* 'buruz nabil'. ◆ **buruz esan**. ◆ **buruz gora**. ◆ **buruz ikasi**. ◆ **buruz jakin**. ◆ **neure buruz egin** (> *nĭaure buz in*). Neure baitarako pentsatu. *Nĭaure buz in in diet: ixiliai jok, onek bajukak zerbeit* 'neure buruz egin diat: isilegi zagok, honek bazeukak zerbait'.

buruzagi, buruzagia

BURUZAGI

buru

jefe, -a, dirigente, caudillo, superior, -a, director, -a; patrono, -a, amo

buruzagi (eta *buruzai*) iz. Ik. **buru**.

buruzai

BURUZAGI

partitzaile

buruzai iz. *Herriko mandatuek eta in, festetakuen ardua partitu plazan jende guziei, jornalik be. Bi gazte ezkonberriek izaten zien. Almienteik etzon Bakaikun, Etxarrin bai. Alkatiek esaten zauena, iten zain* (Ond Bak). Ik. **partitzaile**.

buruzui, buruzuia

BURUZURI

ilezui, kaskazui

cano, -a, de pelo blanco

buruzuri (> *buruzui*) adj. Buruko ileak zuriak dituena. Ik. **ilezuri** (> *ilezui*); **kaskazuri** (> *kaskazwi*).

burzil, burzila

GURTZIL

gurzil

eje de las ruedas del carro

burzil iz. Gurdiaren gurpilen ardatza (Iza Alts). Ik. **gurzil**.

burziri, burziria

BURDIN ZIRI

cuña de hierro

burziri iz. Burdin ziria. Ik. **burniziri** (> *burnizi*). [burziri (G-nav ap. Iz Als; Hb ap. Lh). "Pointe de fer" Lh. Cf. BURDIN-ZIRI. --Eta subandarrak ["el cornejo"] bajukak zuluik barruan? --Ez. --Batere ez? --Ezta baterere. Guaire ala dukat subandarrakin burziriya. Iz Als s.v. subandar].

butazio, butaziua

BURUTAZIO

idea; asmakizun; ateraldi; okurrenzia

ocurrencia, salida

burutazio (> *butazio*) iz. Burura datorren ideia, hausnartzearen ondorio ez dena. *Oi butaziua ibil dena* 'hori burutazioa ibili [izan, eduki] duena'. Ik. **idea**; **asmakizun**; **ateraldi**; **okurrenzia**.

buz bea

BURUZ BEHERA

cabeza abajo; de bruces

buruz behera (> *buz bea*, *buz bĭa*) **1** adb. Ahuspez, beherantz begira. Ik. **ahuspez**; **muturrez aurrera** (> *muturrez aurrĭá*). **2** adb. Gorputzaren goialdea beherantz dagoela. *Buz bia, tintilikan* 'buruz behera, zintzilika'.

buzbia

BURUZ BEHERA

cabeza abajo; de bruces

buzon, buzona

BUZOI, POSTONTZI

buzón

buzon iz. Buzoia, postontzia.

buztalo
BUZTANGABE

buztan motz

rabón, -ona; rabicorto, -a

buztalo adj. Buztangabea, buztan motza; buztanik gabeko oiloa; buztanik gabeko ardia (Ond Bak). [Gallina sin plumas en la cola; oveja sin rabo]. Ik. **buztan motz**.

buztan motz
BUZTAN-MOTZ

buztalo

rabicorto, -a, rabón, -ona

buztan motz adj. Ardi buztan motza. Ik. **buztalo**.

buztan, buztana
BUZTAN; 2 TXORTEN

2 pinpilin, pito

cola, rabo

extremo, parte final, parte opuesta al principio o a la cabeza

polla, chorra, pijo, cipote

pedúnculo

buztan **1** iz. Isatsa. **2** iz. Atzeko muturra edo aldea, hasieraz edo buruaz bestaldekoa. *Puntĭa ta buztana* 'punta eta buztana'. **3** iz. Zakila. Ik. **pinpilin**; **pito**. **4** iz. Txortena. *Sar buztana* 'sagar txortena'. *Txapelĭen buztana* 'txapelaren txortena'. Ik. **txuxtur**; **zuztur**. ◆ **buztan motz** adj. Ardi buztan motza. Ik. **buztalo**.

buztangorri, buztangorria
BUZTANGORRI

colirrojo

buztangorri iz. Txori mota (Phoenicurus sp.). *Aurten'e paeta zulwen in dau buztangorriek kafia* 'aurten ere pareta zuloan egin du buztangorriak habia'.

buztankada, buztankadia
BUZTANKADA

buztankazo

coletazo

buztankada iz. Buztanaz emandako kolpea. ▲ Sin. **buztankazo**.

buztankazo
BUZTANKADA

buztankada

coletazo

buztankazo iz. Buztanaz emandako kolpea. Ik. **buztankada**.

buztanluze, buztanluzia
BUZTANIKARA

apiztxoi, apiz burubeltx

aguzanieves, lavandera blanca (Motacilla alba)

buztanluze iz. Buztanikara (Motacilla alba). ▲ Sin. *apiztxoi*, *apiz burubeltx*.

buztin lur, buztin lurra
BUZTIN-LUR

tierra arcillosa

buztin lur iz. Hondar baino buztin gehiago duen lurra, bertan ereiteko txarra dena.

buztin, buztina

BUZTIN

arcilla

buztin iz. ◆ **buztinezko** adj. Buztinez egina dena. Ik. **lurrezko**. ◆ **buztin lur** iz. Hondar baino buztin gehiago duen lurra, bertan ereiteko txarra dena.

buztinaldi, buztinaldia

BUZTINTZE

embarradura

buztinaldi iz. *Urtien bein, buztinaldi bat ematen zezaion eskatzai lurra berdintzeko* 'urtean behin, buztinaldi bat ematen zitzaion ezkaratzari lurra berdintzeko'. Ik. **buztindu**.

buztindu, buztintzen

BUZTINDU

arcillar [el suelo, echándole arcilla]

buztindu *dau* ad. *Ezkatza buztindu; urtĭen buztinaldi bat eman* 'ezkaratza buztindu; urtean buztinaldi bat eman'. Ik. **arenatu**.

buztintai, buztintaia

BUZTINDEGI*

sitio donde se extrae la arcilla

buztindegi* (> *buztintai*) iz. Buztin tokia; buztina hartzen den lekua.

buztintsu, buztintsua

BUZTINTSU

arcilloso, -a

buztintsu adj. Buztin asko duena.

bĭejun

BEJON

que te/le/os/les... vaya bien
enhorabuena, felicidades; qué suerte, que aproveche

biejun (eta *bĭajun* (?)) lok. Bejon-; norbaiti zerbait onuragarri desiratzeko esaten zaion esapidea. *Bĭéjun déizula* 'bejondeizula', *bĭéjun déikela* 'bejondeiala', *bĭéjun déinela* 'bejondeinala'. Ik. **bejon**.

Corpus; Corpus egun, Corpus eguna

CORPUS; GORPUTZ EGUN

Corpus (Christi), día de Corpus (Christi)

Corpus; **Corpus egun** iz. Eukaristiaren sakramentua ospatzen den eguna.

dado, dadua

DADO

dado

dado iz. *Botatazu dadwa, gwai zuri tokatzen zaizu ta* 'bota ezazu dadoa, orain zuri tokatzen zaizu eta'.

dadokan

DADOETAN JOKATU

jugando a los dados

dadokan adb. Dadoetan ibili, jokatu.

dagoeneko, dagoneko

DAGOENEKO

ya; para entonces

dagoeneko adb. Hitz egiten den unerako. Ik. **danekoz**; **honeskio**; **ordurako** (> *ordwako*); **ia**; **ya**.

daina

ADINA

tanto... como
ser tanto como

daina (eta *deina*) **1** Adina. Erkaketetan, kopuru berdintasuna adierazteko erabiltzen den hitza. **2** Adina. (izan aditzarekin). *Gwe deina dok* 'gure adina duk'. *I deina eztok* 'hire adina ez duk'.

dainatu, dainatzen

KALTETU; KALTE EGIN

estropearse, dañarse; sufrir un daño o perjuicio
dañar, causar daño

dainatu *da/dau* ad. Kaltetu; kalte egin. Ik. **galte egin** (> *galte in*).

dainu, dainua

KALTE

min, galte

perjuicio, daño, mal, pérdida; desperfecto, avería

dainu iz. Kaltea. Ik. **min**; **galte**.

daiteken, daitekena

DAITEKEEN

posible

posible

daiteken (Esapideetan) Daitekeena, litekeena. *Daiteken onena*. *Daiteken txarrena*. *Daiteken txarrena tokatu zaio* 'daitekeen txarrena tokatu zaio'. Ik. **posible**.

daldalada, daldaladia

DALDARA

dildilada

temblor, tembleque

daldalada iz. Daldara, dardara. Ik. **dildilada**.

daldaldal / dal-dal-dal

DAR-DAR

dildildil / dil-dil-dil

temblando, tiritando

daldaldal adb. Dar-dar; hotzak edo ikarak eragindako dardara. ▲ Sin. *dildildil*. ◆ **daldaldal egon** (> *daldaldal yon*). Dardaraz egon.

daldalkan

DARDARKA

daldaldal (yon), dildildil (yon)

temblando, tiritando

daldalkan adb. Dardaraka. ◆ **daldalkan egon** (> *dal-dalkan yon*). ▲ Sin. *dal-dal-dal (yon)*, *dil-dil-dil (yon)*.

dale

JO; FUEGO; EMAN

eman; fuego; jo

kieto

¡y dale!
dale que dale; dale que te pego
dando/golpeando sin parar; dándole sin parar, continuamente

dale interj. *Ta dale!* 'hara berriz ere!'. Ik. **eman**; **fuego**; **jo**. ◆ **dale eta dale** (> *dale ta dale*) adb. Jo eta jo; jo eta ke. *Dale ta dale, ez ixiltzen!* Ik. **eman eta eman** (> *eman da eman*).

dalo, dalua

TALO

torta de maíz delgada y de forma circular

dalo (eta *talo* [Bakaiku]) iz. (Gaur egun *talo* esaten da). Taloa; arto-irinez egindako opila, mehea eta biribila. ◆ **dalo-burni** (> *daloburni*; *talaburni* [Bakaiku]). Talo burdina. ◆ **dalo-esene**. Talo-esnea. *Dalo-eseně a artzen genduen, dalo zopak eseněkin* 'talo-esnea harzen genuen, talo zopak esnearekin'. ◆ **dalo-ohol*** (> dalol; talol [Bakaiku]). *Dalwa zabaltzeko ola* 'taloa zabaltzeko ohola.

daloburni, daloburnia

TALO-BURDINA

pala para poner las tortas de maíz al fuego

dalo-burni (> *daloburni*; *talaburni* [Bakaiku]). Talo burdina.

dalol, dalola

TALO-OHOL

tabla redonda con mango para aplanar las tortas de maíz

dalo-ohol* (> *dalol*; *talol* [Bakaiku]). *Dalwa zabaltzeko ola* 'taloa zabaltzeko ohola.

dama-karakol

BARATZE-BARRASKILO

kakol señoritia

caracol de labio blanco (Cepaea hortensis)

dama-karakol. Baratze-barraskiloa (Cepaea hortensis). Barraskilo nabarra (Ond Bak). ▲ Sin. *kakol señoritĭa*.

damu, damua

DAMU

arrepentimentu

arrepentimiento

damu iz. *Damua jukanat oi esatĭati* 'damua zaukanat hori esateagatik". ▲ Sin. *arrepentimentu*.

damutu, damutzen

DAMUTU

arrepentitu

arrepentirse

damutu *da* ad. *Gwai damutwik no ez esaniá* 'orain damuturik nago ez esana' (Ond Bak). ▲ Sin. *arrepentitu*.

dan, dana

DANGA

ezkila hots(a)

campanada; tañido; voz que expresa el ruido producido por una campanada

dan iz. Danga; kanpai jotzea; kanpai hotsa. Ik. **ezkila hots**. ◆ **dan bakar**. Danga bakarra. Mezatarako azken ezkila hotsa, bakarra; meza hasi aurretik jotzen da. *Dan bakarra jo dai ta gu gwaindo etxeti ata be* 'dan bakarra jo dute eta gu oraino etxetik atera gabe'. ◆ **dan bi(ak)** (> *dan biek*). Mezatarako dei nagusiaren eta dan bakarraren bitartean jotzen den bi ezkila hotseko deia.

dana
DENA

guzti, oso

todo; completo, entero; enteramente, por completo

dana (eta *dena* [Bakaiku]) (Deklinagaia *dan-* da; *den-* [Bakaiku]) 1 izord. Dena, guztia. *Denak: or den gúziek* 'denak: hor dauden guziak' (Ond Bak). *Danak eztau balio* 'denak ez du balio'. *Emen danak igwal segitzen dau* 'hemen denak igual segitzen du'. *Danok fan berko ga* 'denok joan behardo gara [dugu]. *Au da danetan obena* 'hau da denetan hoberena'. *Zenba'da dana?* 'zenbat da dena?' ◆ **dana dala** lok. Dena dela. ◆ **dan-dana**. Den-dena; guztia. ◆ **danetara** (> *daneta*) adb. Denetara, guztira. *Daneta izanko zĭan amar laun* 'denetara izango ziren hamar lagun'. ◆ **danetarako** (> *danetako*) adb. *Danetako jende klasĭa do* 'denetarako jende klasea dago'. ◆ **daneti(k)**; **danetati(k)**. Denetik; denetatik.

dana dala
DENA DELA

sea lo que sea, en cualquier caso, de todos modos, de todas formas/maneras, de cualquier

dana dala lokail. Dena dela.

danba
DANBA

¡pum!, ¡zas!
golpe fuerte; ruido, estruendo

danba onomat. Kolpe gogor baten edo tiro baten onomatopeia. Tiro hotsa, golpe hotsa. Ik. **danbateko**; **zanpa**.

danbateko, danbatekua
DANBATEKO

zanpatako

golpe fuerte; ruido, estruendo

danbateko (eta *danbatako*) iz. Kolpe gogorra; kolpe horren ondoriozko hotsa. Ik. **zanpatako**.

danbolin, danbolina
DANBOLIN

txanbolin, arratz, txuntxun; 2 danbolintero

tamboril
tamborilero, -a

danbolin **1** iz. Txistuaren lagungarri, zotz bakar batez jotzen den danborra. ◆ Ik. **txanbolin**; **arratz**; **txuntxun**. **2** iz. Danbolin-jotzailea. Ik. **danbolintero**.

danbolintero, danbolinterua
DANBOLINTERO, DANBOLIN-JOTZAILE

ttunttunero, danbolin

tamborilero, -a

danbolintero iz. Danbolin-jotzailea. ▲ Sin. *ttunttunero*, *danbolin*.

danbor, danborra
DANBOR

ttunttun(a)

tambor

danbor (eta *tanpor* [Urdiain]). **1** iz. Danborra jo. *Abildade aundia duka tanporra jotzen* 'abilidade handia dauka danborra jotzen'. Ik. **txuntxun**; **ttunttun(a)**. **2** iz. Panderoa (Iza Alts) [pandero; pandereta (Iza Alts)].

danekoz

DAGOENEKO

honeskio, ia (2)

ya; para entonces

danekoz adb. Dagoeneko; hitz egiten den unerako. *In dezu danekoz?* 'egin duzu dagoeneko?'. *Etor za danekoz?* 'etorri zara dagoeneko?'. Ik. **honezkero** (> *oneskĭo*); **ordurako** (> *orduako*); **ia**[2].

daneta (guztira)

GUZTIRA

en total, en conjunto

denetara (> *daneta*) adb. Guztira. *Daneta izanko zĭan amar laun* 'denetara izango ziren hamar lagun'.

danetik

DENETIK

danetatik

de todo

daneti(k); **danetati(k)**. Denetik; denetatik.

dantza in

DANTZA / DANTZAN EGIN

bailar, danzar

dantza egin (> *dantza in*). Dantzan egin, dantzatu. *Intazai dantza* 'egin ezazue dantza'.

dantza, dantzia

DANTZA

baile

baile; danza

dantza iz. *Dántza*. *Giza-dantza*. Ik. **baile**. ◆ **dantzan** adb. Dantzatzen. ◆ **dantzako lagun** (> *dantzako laun*). Nekix kuadrillatan bikoteak izaten ziran dantzarako, bata bestearendako dantzako laguna. ▲ Sin. *baile*. ◆ **dantza egin** (> *dantza in*). Dantzan egin, dantzatu. *Intazai dantza* 'egin ezazue dantza'. ◆ **dantzan ibili**. *Dantzan daile* 'dantzan dabil'. ◆ **dantzan egon** (> *dantzan yon*) adb. Koloka; irmo finkatu gabe. *Maia dantzan do* 'mahaia dantzan dago'. Ik. **maki**; **tikili-takala**; **plean-plean**. ◆ **dantzan patu**. Ik. **airien patu**. ◆ **dantza suelto**.

dantzai, dantzaia

DANTZARI

danzante, danzador, -a; bailarín, -ina

dantzari (> *dantzai*) iz./adj.

dantzaldi, dantzaldia

DANTZALDI

baile, dantza

sesión de baile; baile

dantzaldi iz. *Despeitu dai erromeiako dantzaldia* 'despeditu [amaitu] dute erromeriako dantzaldia'. Ik. **baile**; **dantza**.

dantzaleku, dantzaleku

DANTZALEKU

lugar de baile

dantzaleku iz. *Erromeiatik etortzekwen, izaten zĭan ainbat dantzaleku* 'erromeriatik etortzerakoan, izaten ziren hainbat dantzaleku'.

dantzan ibili

DANTZAN

bailando, danzando
bailando, moviéndose, sin parar

dantzan ibili. *Dantzan daile* 'dantzan daile'.

dantzan yon

KOLOKA, HERREN

tambaleando(se), balanceando(se)

dantzan egon (> *dantzan yon*) adb. Koloka; irmo finkatu gabe. *Maia dantzan do* 'mahaia dantzan dago'. Ik. **maki**; **tikili-takala**; **plean-plean**.

dardar

DAR-DAR, DARDARAKA

taltalkan, daldalkan
temblando

dardar (eta *dardardar*) adb. Dar-dar, dardaraka. *Otzak dardar* 'hotzak dar-dar. ▲ Sin. *taltalkan*, *daldalkan*.

dardarko

dardarko (?) dardarreko (?). Dardarka (?)

datorren

DATORREN

heldu dan
que viene, próximo, -a

datorren adj. *Datorren astĩen asiko da eskolĩa* 'datorren astean hasiko da eskola'. Ik. **heldu dan** (> *eldu dan*).

deabru, deabrua (diablo, diablua?)

DEABRU

demonio, ifarnuko etsai
diablo, demonio

deabru iz. Deabru gorria. ▲ Sin. *demonio*, *ifarnuko etsai*.

deabrukeia (?) (diablokeia)

DEABRUKERIA

diablokeia
cosa del diablo, hechicería
diablura, travesura, barrabasada; fechoría

deabrukeria (> *deabrukeia*) 1 iz. Deabruari dagokion egitea. 2 iz. Bihurrikeria. Ik. **diablokeria** (> *diablokeia*).

debalde

DEBALDE

de balde, gratis

debalde adb. Doan. *Au okasiua: dana debalde!* 'hau okasioa: dena debalde'.

debekatu, debekatzen

DEBEKATU

galazi, iotzi / yotzi, proibitu
prohibir, vedar

debekatu *dau* ad. *Debekatu; iotziazi. Debekatu in diagu; ezta fan*. Ik. **galarazi**; **iotzi**; **proibitu**. [Urdiain: Serafinak ta gue amak esaten zikein (LM)].

debozio, deboziua DEBOZIO

devoción

debozio iz. *Guk duku deboziua santu guztieiri* 'guk daukagu [diegu] debozioa santu guztiei'. *Aitziberri debozio aundia duku, bea juergako* 'Aitziberri [Aitziberko Ama Birjinari] debozio handia daukagu [diogu], baina juergarako [parrandarako]''.

dedikatu, dedikatzen DEDIKATU

eskeini

dedicar(se)

dedikatu da ad. Zerbaitetan ari izan. Ik. **eskeini**.

dedikazio, dedikaziua DEDIKAZIO

dedicación

dedikazio iz.

defenditu, defenditzen DEFENDITU

defender, apoyar

defenditu *da/dau* ad. Ik. **alde**; **-en alde egin** (> *-en alde in*).

defensa, defensia DEFENTSA

protekzio

defensa, protección

defensa iz. Defentsa. Ik. **protekzio**.

dei, deia DEI

llamada, invocación; toque, aviso, anuncio; convocatoria

dei (eta *dai* [Bakaiku]) iz. Deitzea; deitzeko hitza edo hotsa.

deinbat ADINBAT

aina

tanto... como
tan grande, de tal magnitud

deinbat partik. Adinbat, adina. *Orrek deinbat diru ibazten dot* 'horrek adinbat diru irabazten dut'. *Netako deinbat izanko ahal da!* 'neretako adinbat izango ahal da!'. *Betako deinbat ibazten dau* 'beretako adinbat irabazten du'. *Bizitzeko deinbat bauka* 'bizitzeko adinbat badauka'. *Ez tuk etortzen leno deinbat* 'ez dituk etortzen lehen(ago) adinbat. Ik. **adina** (> *aina*). ◆ **deinbateko** adj. Adinbatekoa. *Aize aundia ibil da, teilatuek deseiteko deinbatekwa* 'haize handia ibili da, teilatuak desegiteko adinbatekoa.

deklaratu, deklaratzen DEKLARATU

declarar, prestar declaración
declarar, manifestar; anunciar, proclamar
declarar, manifestar o comunicar el estado o condición de una persona
manifestarse; hacerse patente

deklaratu **1** *dau* ad. Epailearen aurrean adierazi. **2** *dau* ad. Adierazi; aitortu. *Egia deklaratu dau* 'egia deklaratu du'. Ik. **konfesatu**. **3** *dau* ad. *Inutil deklaratu dai* 'ezgai deklaratu dute'. **4** *da* ad. Nabarmendu; ezkutuan edo isilpean dagoena agertu, azaldu. *Gwai deklaratu zaio gaitza; minbizia emen duka* 'orain deklaratu zaio gaitza; minbizia omen dauka'.

deklarazio, deklaraziua

DEKLARAZIO, AITORPEN

declaración; confesión

deklarazio iz. Aitorpena.

delikatu, delikatua

DELIKATU

fino, -a; delicado, -a
enfermizo, -a

delikatu **1** adj. *Ondo jakin ber da nola kasoin azalea plantĭa, delikatua da-ta* 'ondo jakin behar da nola kasu egin azalea landarea, delikatua da eta'. **2** adj. Erikorra, gaixotia. *Beti izan da persona delikatua* 'beti izan da pertsona delikatua'. **3** adj. Kontu bereziz tratatu behar dena. *Delikatuek dĭa, gĭo, kontu oiek* 'delikatuak dira, gero, kontu horiek'.

deliratu, deliratzen

DELIRATU, ELDARNIOAK IZAN

burutik ibili

delirar, desvariar

deliratu *dau* ad. Ik. **burutik ibili**.

delirio, deliriua

DELIRIO

delirio

delirio iz.

delitu, delitua

DELITU

pekatu

delito

delitu iz.

demanda

DEMANDA

disputa, discusión

demanda iz. Eztabaida garratza. ◆ **demandan ibili**. *Demandan ibil zĭan ze izen patu aurrai* 'demandan ibili ziren zer izen paratu haurrari'.

demandan ibili

DEMANDA

disputa, discusión

demandan ibili. *Demandan ibil zĭan ze izen patu aurrai* 'demandan ibili ziren zer izen paratu haurrari'.

demantal, demantala

(AURREKO) MANTAL

mandar

delantal

demantal (eta *denantal*) iz. Mantala; aurreko mantala. Ik. **mandar**.

demonio, demuniua

DEMONIO

diablo, deabru; judu (?); 2 solimen gorri

demonio, diablo
demonio de, del demonio, travieso, -a

demonio **1** iz. ▲ Sin. *diablo*, *deabru*. **2** adj. *Aur demoniuoi!* 'haur demonio hori!'. ◆ **demonio mukirri**. Ume bihurriari esaten zaio. Ik. **solimen gorri**.

demoniokeia

DEMONIOKERIA

deabrukeia, diablokeia

cosa extraña; cosa de brujas, cosa del demonio
barrabasada, barbaridad, disparate

demoniokeria (> *demoniokeia*) iz. (G-nav ap. Iz Als). Deabrukeria. ▲ Sin. *deabrukeia*, *diablokeia*.

demontre, demontria

DEMONTRE

del demonio, demonio (de)

demontre adj. *A ze demontria dok ori!* 'a zer demontrea duk hori!'.

demostratu, demostratzen

DEMOSTRATU

probatu (2)

demostrar, probar
mostrar, poner en evidencia

demostratu *dau* ad. Frogatu. Ik. **probatu**[2].

denbora asko eztala

DENBORA ASKO EZ DELA

hace poco

denbora asko ez dela (> *denbora asko eztala*) adb. Orain dela gutxi. *Emeti pasatu dĭa, bai, denbora asko eztala* 'hemendik pasatu dira, bai, denbora asko ez dela'.

denbora askuen

DENBORA ASKOAN

durante mucho tiempo

denbora askoan (> *denbora askwen*, *denba askwen*) adb. Luzaro. *Denbora askwen yon zĭan etxĭortan bizitzen* 'denbora askoan egon ziren etxe hortan bizitzen'.

denbora-pasa

DENBORA-PASA

pasando el rato, matando el tiempo

denbora-pasa (> eta *denba-pasa*). Denbora igarotzeko, denbora igarotzen. *Emen ge, denba-pasa* 'hemen gaude, denbora-pasa'.

denbora, denboria

DENBORA

garai, sasoi, aldi. 3 egualdi. 4 beta

tiempo (cronológico)
época, temporada, tiempo; tiempo debido/necesario; momento, parte
tiempo (atmosférico)

denbora (eta *denbwa*, *denba*) **1** iz. *Ezazu denboraik galdu* 'ez ezazu denborarik galdu'. **2** iz. Denboraren zati mugatua. *Denbora erdien in tu* 'denbora erdian egin ditu'. *Denbora asko*. *Denbora gutxi*. *Gerra denban* 'gerra denboran'. *Aspaldiko denboraz ezta etorri* 'aspaldiko denboraz ez da etorri'. || pl. *Denbora aik fan zĭan* 'denbora haiek joan ziren'. Ik. **garai**; **sasoi**; **aldi**. **3** iz. Eguraldia. *Denbora txarra eldu da: yauria ta otza* 'denbora txarra heldu da: euria eta hotza'. Ik. **eguraldi** (> *egwaldi*). ◆ **denbora alde bat** (> *denba alde bat*, *denbwa alde bat*) iz. Denbora luzea. *Denba alde bat bota dai izketan!* 'denbora alde bat bota dute hizketan!'. ◆ **denbora askoan** (> *denbora askwen*, *denba askwen*) adb. Luzaro. *Denbora askwen yon zĭan etxĭortan bizitzen* 'denbora askoan egon ziren etxe hortan bizitzen'. ◆ **denbora asko ez dela** (> *denbora asko eztala*) adb. Orain dela gutxi. *Emeti pasatu dĭa, bai, denbora asko eztala* 'hemendik pasatu dira, bai, denbora asko ez dela'. ◆ **denbora batean** (> *denbora batĭen*) adb. Denboraldi batez. ◆ **denbora falso**. Sargoria eta ekaitzaren aurreko giroa. ▲ Sin. *bero falso*. ◆ **denbora gogor**. Eguraldi txarra. ◆ **denbora ibili [eduki]** (> *denborĭa ibili*). *Eztukat denboraik ezertako* 'ez daukat denborarik ezertarako'. Ik. **beta**. ◆ **denbora izan**. *Denbwa dok eztala etorri* 'denbora duk ez dela etorri'. *Denbwa da eztotela piperropilaik jan* 'denbora da ez dudala piper opilik jan'. ▲ Sin. *aspaldi*. ◆ **denbora luze** (> *denba luze*, *denba luzĭa*). *Denbora luzĭa eman dot tabernan* 'denbora luzea eman dut tabernan'. ◆ **denbora-pasa** (> eta *denba-pasa*). Denbora igarotzeko, denbora igarotzen. *Emen ge, denba-pasa* 'hemen gaude, denbora-pasa'. ◆ **denbora zirdil**. Eguraldi zakarra. *Denba zirdila do, e?* 'denbora zirdila dago, e?'. ◆ **(neure, zeure, heure, bere...) denborako** (> *niaure*, *ziaure*, *yaure*, *be... denbako*). *Baduka naikua be denbako* 'badauka nahikoa bere denborako'. *Yaure denbwako garzela fanko daiz* 'heure denborako kartzelara joango haiz [bizi guztirako]'.

denboraldi, denboraldia

DENBORALDI

bolada

espacio de tiempo; temporada
época, estación

denboraldi iz. *Denboraldi bat badiat bukominakin* 'denboraldi bat badaramat burukominarekin'. Ik. **bolada**.

denda, dendia

DENDA

tienda

denda iz. *Denda berria zabaldu dai* 'denda berria zabaldu dute'. *Udan, bakarrik goizĭen zabaltzen dai dendĭa* 'udan, bakarrik goizean zabaltzen dute denda'.

dendai, dendaia

DENDARI

tendero, -a

dendari (> *dendai*) iz.

denunzia

DENUNTZIA

denuncia, acusación

denunzia iz. Denuntzia, salaketa. ◆ **denunzia paratu** (> *denunzia patu*). Ik. **denunziatu**.

denunziatu, denunziatzen
SALATU, DENUNTZIATU

sanzionatu

denunciar, delatar, acusar

denunziatu *dau* ad. Salatu, denuntziatu. Ik. **sanzionatu**; **denunzia paratu** (> *denunzia patu*).

depositaio, depositaiua
GORDAILUZAIN

depositario, -a

depositario (> *depositaio*) iz. Gordailuzaina; diruzaina. Ik. **tesorero**.

depositu, depositua
DEPOSITU

tanke

depósito

depositu iz. Likidoak gordetzeko ontzia edo biltegia. *Ur-depositua berrituko dai* 'ur-depositua berrituko dute'. Ik. **tanke**.

deretxo, deretxua
ESKUBIDE

eskubide

derecho

deretxo iz. Eskubidea. *Ezto deretxoik!* 'ez dago eskubiderik!'. *Deretxwek artu* 'deretxoak hartu'. Ik. **eskubide**.

dermau
DERMIO, BARRUTI

dermio

dermau [Olatzagutia eta Altsasu] iz. Herriko barrutia; kaleak eta basoa ez den udal-lurraldea. Ik. **dermio**.

dermio, dermiua
DERMIO

dermau

porción del territorio municipal que comprende las tierras particulares de labor y pastos
término municipal

dermio (eta *dermau* [Olatzagutia, Altsasu]) iz. Kaleak eta basoa ez den udal-lurraldea. || Landa eremua, hiriguneari kontrajartzen zaion eremua. Ik. **dermau**.

derrepente
DERREPENTE, BAT-BATEAN

de repente, de pronto, súbitamente

derrepente adb. Bat-batean. ◆ **derrepentean** (> *derrepentien*) adb.

derrotxadore, derrotxadoria
XAHUTZAILE

hondatzaile

gastador, -a, derrochador, -a, despilfarrador, -a

derrotxadore adj./iz. Xahutzailea. Ik. **hondatzaile** (> *undatzaile*).

des-
DES- (AURRIZKIA)

des- (prefijo)

des- aurrizkia. *Desagertu*; *desarmatu*; *desberdin*; *desgarai*; *deseroso*; *desegin* (> *desein*); *desordu*...

desafiatu, desafiatzen
DESAFIATU

desafiar, retar; amenazar

desafiatu **1** *dĭa/dau* ad. Erronka jo, desafio egin. **2** *dĭa/dau* ad. Mehatxatu.

desafio, desafiua
DESAFIO

desafío, reto, duelo; amenaza

desafio iz.

desagertu, desagertzen
DESAGERTU

desaparezitu — *agertu*

desaparecer
extinguirse

desagertu *da* ad. ▲ Sin. *desaparezitu*. ▼ Anton. *agertu*.

desaiunatu, desaiunatzen
GOSALDU

desayunar

desaiunatu *dau* ad. Gosaldu. Bereizi egiten dira *desaiunatu* eta *gosaldu*. Ik. **gosaldu**. *Beti korrikan desaiunatzen* 'beti korrika gosaltzen'.

desaiuno, desaiunua
GOSARI

desayuno

desaiuno iz. Bereizi egiten dira *desaiuno* eta *gosari*. Ik. **gosari** (> *gosai*). *Desaiuno txar bat inda no* 'gosari txar bat eginda nago'.

desaparezitu, desaparezitzen
DESAGERTU

desagertu — *agertu*

desaparecer

desaparezitu *da* ad. Ik. **desagertu**. ▼ Anton. *agertu*.

desarmatu, desarmatzen
DESARMATU

2 desmontatu — *armatu; 2 montatu, armatu*

desarmar
desarmar, desmontar

desarmatu **1** *da/dau* ad. Armak kendu, armarik gabe utzi. ▼ Anton. *armatu*. **2** *da/dau* ad. Desmuntatu. Ik. **desmontatu**. ▼ Anton. *armatu*; *montatu*.

desastre, desastre
DESASTRE

2 penagarri

desastre, estrago, devastación

desastre **1** iz. Hondamendia; erabateko porrota. **2** (izan aditzarekin). Oso txarra. *Desastre bat izan zan atzoko ensaiwa* 'desastre bat izan zen atzoko entsegua'. Ik. **penagarri**.

desberdin, desberdina
DESBERDIN

diferente — *berdin, igual*

diferente, distinto, -a; desigual
irregular, desigual
de manera diferente

desberdin **1** adj. *Igwalak ematen dai bea desberdinak dĭa* 'igualak ematen dute baina desberdinak dira'. ▲ Sin. *diferente*. ▼ Anton. *berdin*; *igual*. **2** adj. Irregularra. *Toki arritsua ta desberdina da* 'toki harritsua eta desberdina da'. Ik. **irregular**. **3** adb. *Desberdin pensatzen du* 'desberdin pentsatzen dugu'. ▲ Sin. *diferente*. ▼ Anton. *berdin*; *igual*.

desberdintasun, desberdintasuna DESBERDINTASUN
diferenzia, desigualdade, alde *berdintasun, igualtasun, igualdade*
diferencia, disparidad
irregularidad, relieve, desnivel

desberdintasun **1** iz. ▲ Sin. *diferenzia*; *desigualdade*, *alde*. ▼ Anton. *berdintasun*; *igualtasun*, *igualdade*. **2** iz. Irregulartasuna.

desbiatu, desbiatzen DESBIDERATU
desviar(se)

desbiatu *da/dau* ad. Desbideratu.

deseatu, deseatzen DESEATU, DESIRATU
nahi izan, gogua izan
desear

deseatu (> *desitu* [Iza Alts]; *diesitu*; *desitu*, *desiatzen*) *dau* ad. Desiratu; nahi izan. Ik. **nahi izan**; **gogoa izan** (> *gogwa izan*). ◆ **deseaturik egon** (> *d(i)esituik eon / yon*). *Diesituik no negua despeitzeko* 'deseaturik nago negua despeditzeko [amaitzeko]'.

desein DESEGIN
destruitu; hausi; txikitu *in*
deshacer
destruir; descomponer, desbaratar, demoler; desmantelar

desegin (> *desein*) *da/dau* ad. Ik. **destruitu**; **hausi**; **txikitu**. ▼ Anton. *egin* (> *in*).

deseintzaile, deseintzailia DESEGILE
hondatzaile *intzaile*
que deshace/destruye; destructor, -a

desegintzaile (> *deseintzaile*; *desintzaile* [Bakaiku]) iz./adj. Desegilea; desegiten duena. Ik. **hondatzaile**. ▼ Anton. *egintzaile* (> *intzaile*).

desengaiñatu, desengaiñatzen DESENGAINATU
desilusionatu; dezepzionatu
desengañar(se); decepcionar

desengaiñatu *da/dau* ad. Desengainatu, engainua ezagutu edo ezagutarazi; norbaitek ikusi okerra dela zerbaitez edo norbaitez duen uste positiboa. Ik. **desilusionatu**; **dezepzionatu**.

desengaiño, desengaiñua DESENGAINU
desilusio; dezepzio
desengaño; decepción

desengaiño iz. Desengainua. Ik. **desilusio**; **dezepzio**.

deseo (desio) ? DESIO, DESIRA
deseo

deseo iz. Desioa, desira.

deseroso, deserosua

DESEROSO

eroso, komodo

incómodo, -a

deseroso **1** adj. Erosoa ez dena. *Alki txar deseroso batzuk patu tuai konsultan* 'aulki txar deseroso batzuk paratu dituzte kontsultan [kontsultategian]'. **2** adb. *Emeti Loyolá fateko deserosó do* 'hemendik Loyolara joateko deseroso dago'. ▼ Anton. *eroso*; *komodo*.

desesperatu, desesperatzen

DESESPERATU

desesperar(se)

desesperatu *da* ad.

desesperazio, desesperaziua

DESESPERAZIO

desesperación

desesperazio iz. Etsipena; ernegazioa.

desfasatu, desfasatzen

DESFASATU

desfasar(se)
desfasarse

desfasatu *da* ad. *Desfasatuik dó* 'desfasaturik dago'.

desfilatu, desfilatzen

DESFILATU

desfilar

desfilatu *dau* ad.

desgarai, desgaraia

DESGARAI

desordu

deshora, hora intempestiva

desgarai iz. Garai desegokia, desordua. ▲ Sin. *desordu*. ◆ **desgaraian** (> *desgaraien*). ◆ **desgaraitako ibilera(k)**. ¬

desgastatu

HIGATU, GASTATU

gastatu, saratu

desgastar(se)

desgastatu *da/dau* ad. Higatu, gastatu. Ik. **gastatu**; **saratu**.

desgrazia

DESGRAZIA

zoritxar, nahigabe, zorigaizto, trajedia;

desgracia, infortunio, percance; adversidad

desgrazia iz. Ezbeharra. *Ezta desgraziaik, tokatzen zaizun artĭa* 'ez da desgraziarik, tokatzen zaizun arte'. ▲ Sin. *zoritxar*, *nahigabe*, *zorigaizto*, *trajedia*; *fatalidade*; *inkisizio*. ◆ **desgraziatu** adj. *Desgraziatua ta gorriek ikusitakwa da, bea ezta sekula atzĭátu* 'desgraziatua eta gorriak ikusitakoa da, baina ez da sekula atzeratu [kikildu]. Ik. **zoritxarreko**; **zorigaiztoko**. ▼ Anton. *zorioneko*.

desgraziatu, desgraziatua

ZORIGAIZTOKO

zoritxarreko, zorigaiztoko

zorioneko

desgraciado, -a

desgraziatu adj. *Desgraziatua ta gorriek ikusitakwa da, bea ezta sekula atzĭátu* 'desgraziatua eta gorriak ikusitakoa da. baina ez da sekula atzeratu [kikildu]. Ik. **zoritxarreko**, **zorigaiztoko**. ▼ Anton. *zorioneko*.

desigual, desiguala — DESBERDIN, EZBERDIN
desberdin; 2 irregular — *igual*
desigual
irregular

desigual **1** adj. Desberdina, ezberdina. Ik. **desberdin**. ▼ *igual(a)*. **2** adj. Gorabeheratsua, irregularra. *Desigwal moztu dezai txumĭa* 'irregular moztu dizute txuma [ilea]'. Ik. **irregular**.

desigualdade, desigualdadia — DESBERDINTASUN, EZBERDINTASUN
desberdintasun, diferenzia, alde — *berdintasun, igualtasun, igualdade*
diferencia, disparidad

desigualdade iz. Desberdintasuna, ezberdintasuna. Ik. **desberdintasun**; **alde**; **diferenzia**. ▼ Anton. *berdintasun*, *igualtasun*, *igualdade*.

desilusio, desilusiua — DESILUSIO
desengaiño — *ilusio*
desilusión, decepción

desilusio iz. *Desilusio aundia yan dot* 'desilusio handia eraman [hartu] dut Ik. **desengaiño**. ▼ Anton. *ilusio*.

desilusionatu, desilusionatzen — ILUSIOA GALDU / KENDU
desengaiñatu — *ilusionatu*
desilusionar(se)

desilusionatu *da/dau* ad. Ilusioa galdu; ilusioa kendu. Ik. **desengaiñatu**. ▼ Anton. *ilusionatu*.

desinfektante, desinfektantia — DESINFEKTATZAILE
desinfectante

desinfektante iz./adj. Desinfektatzailea. *Ganauekin, "zotal" ibiltzen dai desinfektantetako* 'ganaduarekin, "zotal" ibiltzen dute desinfektatzailetarako'.

desinfektatu, desinfektatzen — DESINFEKTATU
infektatu; gaiztatu
desinfectar

desinfektatu *dau* ad. ▼ Anton. *infektatu*; *gaiztatu*. *Alkolakin ondo desinfektatazu minoi* 'alkoholarekin ondo desinfekta ezazu min hori'.

desinflatu, desinflatzen — HUSTU, AIREA ATERA
jaitxi, hustu — *puztu*

desinflatu da/dau ad. Airea atera, hustu. *Autwen atzeko txirrikĭa desinflatwik dukan* 'autoaren atzeko txirrika hustuta daukan'. ▲ Sin. *hustu*, *jaitxi*. ▼ Anton. *puztu*.

desintzaile (Ond Bak) — DESEGILE
hondatzaile — *intzaile*
que deshace/destruye; destructor, -a

desitu, desiatzen — DESEATU, DESIRATU
desear

deskansatu, deskansatzen

ATSEDEN HARTU, DESKANTSATU

descansar, reposar

deskantsatu (> *deskansatu*) *dau* ad. Atseden hartu. Ik. **itxan**.

deskanso, deskansua

DESKANTSU

itxan. 2 lasaitasun

descanso
tranquilidad, sosiego

deskanso **1** iz. Deskantsua, atsedena, atseden hartzea. *Deskanso txikin bat in berko diu* 'deskantsu txikiren bat egin beharko diagu'. *Emen ezto deskansoik* 'hemen ez dago deskantsurik'. Ik. **itxan**; **itxanaldi**. **2** iz. Lasaitasuna. *Isildu da? Au deskansua!* 'isildu da? Hau deskantsua!'. Ik. **lasaitasun**. ◆ **deskansua hartu**. Deskantsu hartu, atseden hartu. *Artu deskansua* 'hartu deskantsu'.

deskarga, deskargia

DESKARGA

descarga, vaciado
descarga (eléctrica)

deskarga **1** iz. Karga kentzea. **2** iz. Elektrizidade deskarga. *Transformadorĭa konpontzen zailela, deskargiek jo ta hil in dau* 'transformadorea konpontzen zebilela, deskargak jo eta hil egin du'. ◆ **elektrizitate deskarga**.

deskargadero, deskargaderua

DESKARGALEKU

descargadero

deskargadero iz. Deskargalekua. Ik. **kargadero**.

deskargatu, deskargatzen

DESKARGATU

hustu

kargatu, bete

descargar, aligerar la carga

deskargatu *dau* ad. Ik. **hustu**. ▼ Anton. *kargatu*, *bete*.

deskarrilatu, deskarrilatzen

ERRAILETIK IRTEN

descarrilar

deskarrilatu *da/dau* ad. Erraileti irten.

deskonfianza, deskonfianzia

MESFIDANTZA

konfianza

desconfianza

deskonfianza iz. Mesfidantza, fidagaiztasuna. ▼ Ant. *konfianza*.

deskonfiatu, deskonfiatzen

MESFIDATU

fiatu

desconfiar

deskonfiatu *dau* ad. Fidagaiztu, mesfidatu. ▼ Anton. *fiatu*.

deskontatu, deskontaten

DESKONTATU

kendu

descontar

deskontatu *dau* ad. Ik. **kendu**.

deskontentu

DESKONTENT

kontentu, pozik

descontento, -ta

deskontentu adb. Deskontent, ez pozik. ▼ Anton. *kontentu*, *pozik*.

deskuatu, deskua, deskuatzen

DESKUIDATU

descuidar(se), despistar(se)

deskuidatu (> *deskwatu*) *da* ad. *Deskwatu ta bĭandu jagi naiz gaur* 'deskuidatu eta berandu jagi naiz gaur'. ◆ **deskua zaitez!** (> *deskwa zaitez*) / **deskua hadi!** (> *déskwadi*). Deskuida zaitez!; deskuida hadi. (Gertaeraren arabera): **1** Ez fiatu. **2** Lasai; ez kezkatu.

deskubritu, deskubritzen

AURKITU, DESKUBRITU

descubrir; hallar
destapar (lo que está tapado o cubierto)

deskubritu **1** *dau* ad. Aurkitu. **2** *dau* ad. Agertu, ikusgai bihurtu.

deskuento, deskuentua

DESKONTU

descuento

deskuento iz. Deskontua.

deskuido, deskuidua

DESKUIDU

descuido, despiste

deskuido iz. Deskuidua.

desmaiatu, desmaiatzen

ZORABIATU

zoramaritu

desmayar(se)

desmaiatu *da* ad. Zorabiatu; konortea galdu. Ik. **zoramaritu**.

desmontatu, desmontatzen

DESMUNTATU

desarmatu

desmontar, desarmar

desmontatu *dau* ad. *Desmontatu dai barrakĭa* 'demuntatu dute barraka [txosna]'. Ik. **desarmatu**.

desnibel, desnibela

DESNIBEL

desnivel [diferencia de alturas]

desnibel iz.

desnibelatu, desnibelatzen

DESBERDINDU; DESOREKATU

nibelatu

desnivelar

desnibelatu *da* ad.

desobedezitu, desobedezitzen

DESOBEDITU

desobeditu

obedezitu

desobedecer

desobedezitu *dau* ad. Ik. **desobeditu**.

desobediente, desobedientia DESOBEDITZAILE
obeditzen eztena *obediente*
desobediente

desobediente adj. Desobeditzailea. ▲ Sin. *obeditzen ez duena* (> *obeditzen eztena*). ▼ Anton. *obediente*.

desordu, desordua DESORDU
desgarai
deshora, hora intempestiva

desordu iz. Ordu desegokia. *Beti desordutan bazkaltzen dau* 'beti desordutan bazkaltzen du'. Ik. **desgarai**.

despaera, despaeria AMAIERA, BUKAERA
akabera, bukaera
final, término, fin, finalización

despaera iz. Ik. **despeigera**. Amaiera, bukaera.

despeigera, despeigeria AMAIERA, BUKAERA
azken, akabera, bukaera, fin(a)
final, término, fin, finalización

despeigera (eta *despaera*) iz. Amaiera, bukaera. Ik. **azken**; **akabera**, **bukaera**, **fin(a)**.

despeitu, despeitzen DESPEDITU
2 bukatu, osatu. 4 bialdu, bota *2 hasi*
despedirse, decir adiós
acabar(se), terminar(se); dar fin, concluir; acabar (con)
extinguir(se), perecer, morir
despedir, echar a la calle, expulsar
despachar, comerse completamente una cosa

despeditu (> *despeitu*) **1** *da/dau* ad. Agur egin. **2** *da/dau* ad. Amaitu. Ik. **bukatu**; **osatu**. ▼ Anton. *hasi*. **3** *da* ad. Hil. *Bai, despeitwa* 'bai, despeditu da [hil da]'. Ik. **hil**. **4** *dau* ad. Kaleratu, kalera bota. *Etxeti despeitu dai* 'etxetik despeditu dute'. *Laneti despeitu dai* 'lanetik despeditu dute'. Ik. **bota**; **bialdu**. **5** *dau* ad. Jaten bukatu. Ik. **linpiatu**. [despachar, comerse completamente una cosa]. [*Oharra: *despeditu* [agurtu] eta *despeitu* [bukatu] aldaeren artean esanahia ere aldatzen da].

despeituazi BUKARAZI
obligar a acabar; obligar a terminar

despeituazi *dau/dĭa* ad. Bukarazi; bukatzera behartu.

despejatu, despejatzen BIZKORTU, EGURASTU
zabartu
despejarse, tomar el aire, orearse, pasear

despejatu *da* ad. Bizkortu, egurastu; buruaz mintzatuz, argitu. *Pasĭá ata ga, pixkat despejatzeko* 'paseatzera atera gara, pixka bat egurasteko'. Ik. **zabartu**.

despertadore, despertadoria IRATZARGAILU
despertador (reloj)

despertadore iz. Iratzargailua. *Eman dĭazu kuerdĭa despertadoriai?* 'eman diozu kuerda [giltza] iratzargailuari?'. Ik. **erleju**.

despreziatu, despreziatzen
DESPREZIATU, MESPRETXATU, ARBUIATU

gaitxitxi — *apreziatu, estimatu*

despreciar, menospreciar

despreziatu *dau/dĭa* ad. Ik. **gaitxitxi**. ▼ Anton. *apreziatu*, *estimatu*.

desprezio, despreziua
MESPRETXU, GUTXIESPEN, ARBUIO

aprezio, estimazio

desprecio, menosprecio, desdén

desprezio iz. Mespretxua, gutxiespena. ▼ Anton. *aprezio*, *estimazio*.

destajo, destajua
DESTAJU

destajo
a destajo

destajo iz. Destajua. ◆ **destajuan** (> *destajwen*) adb.

destajuen
DESTAJUAN

a destajo

destajuan (> *destajwen*) adb.

destruitu, destruitzen
SUNTSITU

desein; txiki-txikia in, trillatu — *konstruitu*

destruir, aniquilar

destruitu *da/dau* ad. Ik. **desegin** (> *desein*); **txiki-txikia egin** (> *txiki-txikia in*); **trillatu**. ▼ Anton. *konstruitu*.

detalle, detallia
DETAILE

detalle [muestra de cortesía, de atención]

detalle iz.

dexente
DEZENTE

nahiko, poliki, polikitxo

bastante

dezente, dezentia
DEZENTE

1 onrau. 3 nahiko, poliki, polikitxo — *1 indezente, tresondagarri*

decente, honesto, -a
decente, aceptable
bastante
bastante (adb.)

dezente (eta *dexente*) **1** adj. Ondradua. *Persona dezentĭa*. ▲ Sin. *onrau*. ▼ Anton. *indezente*; *tresondagarri*. **2** adj. Itxurazkoa. *Eztukatzik oiek baindo pantalon dezentekoik?* 'ez dauzkak horiek baino praka dezenteagorik?'. **3** (> *dexente*) zenbtz. Nahiko. Ik. **nahiko**; **poliki**; **polikitxo**. **4** (Adizlagun gisa). *Dezente bizi da*.

dezepzio, dezepziua
DEZEPZIO

desilusio; desengaiño

decepción

dezepzio iz. Desilusioa, desengainua, etsipena. Ik. **desilusio**; **desengaiño**.

dezepzionatu, dezepzionatzen

DEZEPZIONATU, DESENGAINATU; HUTS EGIN

desengañatu

decepcionar

dezepzionatu *da/dau* ad. Dezepzioa hartu edo harrarazi; desengainatu; huts egin. Ik. **desengañatu**.

deziditu, deziditzen

ERABAKI

erabaki, esan

decidir(se)

deziditu *da/dau* ad. Erabaki. Ik. **erabaki**; **esan**.

dezisio, dezisiua

ERABAKI

decisión

dezisio iz. Erabakia. Ik. **esana**.

deztera, dezteria

GEZTERA

zorroztarri

muela de afilar; piedra de afilar

deztera iz. Geztera, zorrozteko erabiltzen den harri biribila. Ik. **zorroztarri**. *Sutaien bertan duka dezteria* 'sutegian bertan dauka geztera'. *Dezteran zorrozten tu aizkorak* 'gezteran zorrozten ditu aizkorak'.

-di

-DI (ATZIZKIA)

-di; sufijo que designa conjunto de plantas o árboles

-di (> *ti*) (atzizkia). Landare eta zuhaitz multzoak adierazteko. Adibideak: *haraizdi*, *padi*, *gaztinaldi*, *pinudi*, *elordi*, *iradi*, *ilardi*, *zapardi* (...). Ik. **-aldi**. | Landareak ez direnetan: *harridi*, *kazkardi*, *malkardi*, *tufadi*.

di-da

DI-DA

ti-ta

onomat. en un santiamén, en el acto; expresión que se utiliza cuando se procede drásticamente,

di-da onomat. Bat-bateko ekintza adierazten duen onomatopeia. *Di-da batien in* 'di-da batean egin'. ▲ Sin. *ti-ta*. Ik. **ri-ra**.

diablo, diablua

DEABRU

diabru, demonio, ifarnuko etsai, satan

diablo, demonio

diablo iz. Ik. **diabru**. *Ifarnuko diablwa* 'infernuko deabrua'. ▲ Sin. *demonio*; *ifarnuko etsai*; *satan*.

diablokeia

DEABRUKERIA

deabrukeia

cosa del diablo, hechicería
diablura, travesura, barrabasada; fechoría

diablokeria (> *diablokeia*) **1** iz. Deabruari dagokion egitea. **2** iz. Bihurrikeria. *Gaztioiek beti diablokeien daitza* 'gazte horiek beti deabrukerian dabiltza'. Ik. **deabrukeria**.

diabru, diabrua

DEABRU

demonio, satan(a). 2 gaizto, mukirri

diablo, demonio
travieso, -a, demonio (de), del demonio

diabru (> *dĭabru* [Altsasu, Urdiain], eta *diablo*) **1** iz. Deabrua. *Ifarnuko dĭabrua* 'infernuko deabrua' [Urdiain]. ▲ Sin. *demonio*, *satan(a)*. **2** (Izenondo gisa). Bihurria, gaiztoa. *Ume dĭabrua* 'ume deabrua'. Ik. **gaizto**; **mukirri**.

diabrukeia

DEABRUKERIA

diablokeia

cosa del diablo, hechicería
diablura, travesura, barrabasada; fechoría

diabrukeria (> *dĭabrukeia*) **1** iz. Deabrukeria. *Ze sorginkei(a) ta ze dĭabrukei(a)!* 'zer sorginkeria eta zer deabrukeria!'. ▲ Sin. *diablokeia*. **2** iz. Bihurrikeria. ▲ Sin. *diablokeia*.

diamun, diamuna

BIHARAMUN

día siguiente

diamun [Urdiain] iz. Ik. **biharamun** (> *biamun* [Bakaiku]).

dianak ta ez dianak

DIRENAK ETA EZ DIRENAK

lo habido y por haber; muchas cosas

direnak eta ez direnak (> *dĭanak ta eztĭanak*) & **zirenak eta ez zirenak** (> *zĭanak ta ez zĭanak*). Dena eta are gehiago. *Dĭanak ta eztĭanak in ber izan zituen gauzak argitzeko* 'direnak eta ez direnak egin behar izan zituen gauzak argitzeko'. Ik. **inon direnak** (> *iyun dianak*).

diario

EGUNERO

egunio

a diario

diario adb. Egunero. Ik. **egunero** (> *egunĭo*). ◆ **diario-diario** adb.

dibersio, dibersiua

DIBERTSIO

diversión, divertimento

dibersio iz. Dibertsioa.

dibertitu, dibertitzen

DIBERTITU

ongi / ondo pasatu

divertirse, entretenerse, recrearse

dibertitu (eta *libertitu*) *da* ad. ▲ Sin. *ongi / ondo pasatu*.

dibiditu, dibiditzen

ZATITU

zatitu

dividir, realizar una división
fraccionar(se), partir(se); separar(se)

dibiditu **1** *dau* ad. Matematikaz ari garela, zatitu, zatiketa egin. **2** *da/dau* ad. Zatietan bereizi. Ik. **zatitu**; **banatu**; **partitu**.

dibisio, dibisiua — ZATIKETA; 2 MAILA; 3 DIBISIO

división (operación matemática)
división (categoría en que compiten los equipos o los deportistas)
división (milicia)

dibisio **1** iz. Zatiketa; aritmetikan, oinarrizko eragiketako bat. *Dibisiua in* 'zatiketa egin'. **2** iz. Kiroletan, maila. *Futbolista ona zan, bigarren dibisiuen'e jokatu zen* 'futbolari ona zen, bigarren mailan ere jokatu zuen'. **3** iz. Armada zati nagusia.

dibujante, dibujantia — MARRAZKILARI, MARRAZKIGILE

dibujante

dibujante iz. Marrazkilaria. *Dibujante txarra da, bea artista aundia* 'marrazkilari txarra da, baina artista handia'.

dibujatu, dibujatzen — MARRAZTU

dibujar

dibujatu *dau* ad. Marraztu. *Ondo daki dibujatzen* 'ondo daki marrazten'.

dibujo, dibujua — MARRAZKI, IRUDI

dibujo

dibujo iz. Marrazkia, irudia.

diburziatu, diburziatua — DIBORTZIATU (2)

divorciado, -a

diburziatu iz. Dibortziatua.

diburziatu, diburziatzen — DIBORTZIATU (1)

separatu, apartatu

divorciar(se)

diburziatu *da* ad. Dibortziatu. Ik. **separatu**; **apartatu**.

diburzio, diburziua — DIBORTZIO

separazio

divorcio

diburzio iz. Dibortzioa. Ik. **separazio**.

dieta, dietia — DIETA

rejimen

dieta, régimen
dieta

dieta iz. **1** iz. Janari jakin batzuk ez hartzea edo neurri jakin batean hartzea. ▲ Sin. *rejimen*. **2** iz. Elikadura, elikatzeko modua.

difente, difentia — DIFERENTE

diferente, distinto, -a

difenzia — DIFERENTZIA

alde

diferencia, desigualdad

diferente, diferentia — DIFERENTE, DESBERDIN

desberdin — *berdin, igual*

diferente, distinto, -a

diferente (eta *difente*) adj. Desberdina, ezberdina. Ik. **desberdin**. ▼ Anton. *berdin*, *igual*.

diferenzia — DIFERENTZIA

alde; desberdintasun, desigualdade

diferencia, desigualdad

diferenzia (eta *difenzia*) iz. Ik. **alde**; **desberdintasun**; **desigualdade**.

diferenziatu, diferenziatzen — DIFERENTZIATU

diferentziatu (> *diferenziatu*) *dau* ad. Bereizi; desberdindu.

difuntu, difuntua — DEFUNTU, HIL(A), ZENDU(A), HILDAKO

hil(a), hildako

muerto, -a, persona muerta, difunto, -a

difuntu iz. Defuntua, hila. *Jose difuntua*. Ik. **hil(a)**; **hildako**.

digestio, digestiua — DIGESTIO

digestión

digestio iz. *Manzandilia ona da digestiua iteko* 'kamamila ona da digestioa egiteko'.

dignidade, dignidadia — DUINTASUN

dignidad

dignidade iz. Duintasuna. *Ebeindako dignidade kontu bat zan* 'eurendako duintasun kontu bat zen'.

dijeritu, dijeritzen — DIGERITU

digerir

dijeritu (eta *dijitu*) *dau* ad.

dijitu, dijitzen — DIGERITU

digerir

dildilada, dildiladia — DARDARA, HOTZIKARA

tiritera

dildilada iz. Hotzak eragindako daldara. Ik. **daldalada**; **hotzikara**.

dildildade, dildildadia — DARDARA, DARDARIZO

tenbleke, taltalkara

temblor, tembleque; vibración, trepidación

dildildade iz. Dardara. ▲ Sin. *tenbleke*. Ik. **taltalkara**.

dildildil / dil-dil-dil — DAR-DAR

daldaldal / dal-dal-dal

tiritando, temblando

dildildil adb. Dar-dar, dardaraz. ▲ Sin. *daldaldal*. ◆ **dildildil egon** (> *dildildil yon*). Dardaraz egon.

dinamita, dinamitia

DINAMITA

dinamita

dinamita iz.

dinbi-danba

DINBI-DANBA

onomatopeya de golpes repetidos

dinbi-danba onomat. Kolpe gogorren edo tiro errepikatuen onomatopeia.

dinbili-danbala

DINBILI-DANBALA

balanceando; expresión para señalar el movimiento pendular

dinbili-danbala onomat. Balantzaka dabilenaren onomatopeia.

dios

DIOS

redios, sandios

rediós

dios interj. Harridura edo haserrea adierazteko erabiltzen den hitza. Ik. **redios**; **sandios**

diosela, dioselia

DIOSAL

saludo

saludo

diosela (*a* itsatsia) iz. Diosala, agurra. ▲ Sin. *saludo*. ◆ **diosela egin** (> *dĭoselĭa in*). Diosala egin, agur egin. Ik. **saludatu**. ◆ **diosela eragotzi*** (> *dioselĭa yotzi*). *Dioselĭa yotzi in dwa* 'diosala eragotzi egin dit [diosala ukatu]', [volver la cara]. *Nik orri dioselĭa yotzi dĭat, gaio ez dĭat inko itzik* 'nik horri diosala eragotzi diot, gehiago ez diot egingo hitzik'.

diote, diotia; diotiek

INAUTE

momoxarro [gaur egun]

carnaval

diote iz. (Singularrean nahiz pluralean) iz. Inautea; Garizuma aurretik egiten diren jai egunak, Burundan Hausterre egun aurreko larunbat, domeka eta asteartea. *Diotĭek* 'inauteak'. Ik. **momoxarro**. [Gaur egun *momoxarro* adierak *diote*-ren esanahia hartu du]. Ik. **mantaguna**. ◆ **diote eguna**. Astearte inautea, momoxarro-haundi eguna. • Esr. zah. [Altsasu]: *Diote, ase ta bete!* 'inaute, ase eta bete!'.

diplomatiko, diplomatikua

DIPLOMATIKO

diplomático, -a

diplomatiko adj.

diputazio, diputaziua

DIPUTAZIO

diputación

diputazio iz.

dirdirra

DIRDIRA, DISTIRA

brillo, brillotasun, lustre; 2 brillante

brillo, resplandor, destello; esplendor
brillante

dirdirra **1** iz. Dirdira, distira. Ik. **brillo**; **brillotasun**; **lustre**. **2** adj. Dirdiratsua, distiratsua. *Bai dirdirra gelditu dala zartaia* 'bai dirdira [dirdiratsu] geratu dela zartagina'. Ik. **brillante**.

direkzio, direkziua

DIREKZIO

2 seña(k); 3 bide

dirección (mecanismo para guiar automóviles)
dirección (señas)
dirección (camino o rumbo)

direkzio **1** iz. Auto bat gidatzeko tresnen multzoa. **2** iz. Helbidea. Ik. **seña(k)**. **3** iz. Norabidea. Ik. **bide**.

diru, dirua

DIRU

dinero

diru iz. *Diruek iyesi iten dau* 'diruak ihesi egiten du'. || *Diru oswa* 'diru osoa' (Ond Bak). *Éman bérko dáu díruba* 'eman beharko diogu dirua'. *Poltsan diruik eztekanák* 'poltsan dirurik ez daukanak' (Ond Bak)||. *Diru haundia*; *diru txikia*. *Diru gutxi*. *Diru asko*. *Diru pilĭa jaso dai etxeik-etxe eskĭen* 'diru piloa jaso dute etxerik-etxe eskean'. *Premia galanta, ta dirwik ez* 'premia galanta, ta dirurik ez'. *Diru gosĭa* 'diru gosea'. • Esr. zah. *Dirua ta osasuna, kasoinda* 'dirua eta osasuna, kasu eginda [zainduta]'. ◆ **dirua balio**. Dirutza balio. ◆ **dirua bota**. Dirua alferrik galdu. ◆ **dirua egin** (> *dirua in*). **1** Fortuna egin. *Diru pixkat in zen Ameiketan* 'diru pixka bat egin zuen Ameriketan'. ▲ Sin. *abeastu*. **2** Produktu batek dirua eman, onura edo etekin ona eman. *Aurten gariek dirua in ber dik* 'aurten gariak dirua egin behar dik'. ◆ **dirua ibili** [eduki]. Dirutza izan, diru kopuru handia eduki. ◆ **dirua kendu**. Dirua prestaturik hartu. ◆ **dirutan** adb. Diru truke. *Errentĭa dirutan patu ordez, gaztai(en) truk iten du* 'errenta dirutan pagatu ordez, gazta truk(e) egiten dugu'.

dirua in

DIRUA EGIN

abeastu

enriquecerse, hacer fortuna

> **dirua egin** (> *dirua in*). **1** Fortuna egin. *Diru pixkat in zen Ameiketan* 'diru pixka bat egin zuen Ameriketan'. ▲ Sin. *abeastu*. **2** Produktu batek dirua eman, onura edo etekin ona eman. *Aurten gariek dirua in ber dik* 'aurten gariak dirua egin behar dik'.

dirudun, diruduna

DIRUDUN

abeats, lezakena

pobre

rico, -a; adinerado, -a

dirudun adj./iz. ▲ Sin. *abeats*, *lezakena*. ▼ Anton. *pobre*.

dirui

IRUDI IZAN, IRUDITU

itxuraz (?)

parecer (parece [3ª persona singular])

dirui (eta *diuri*) ad. (*ba-* baiezko partikulari lotuta; singularreko hirugarren pertsona) Irudi izan, iruditu; norbaiten ikuspegitik eta itxuren arabera, uste izan. Ik. **diuri**.

diruzale, diruzalia

DIRUZALE

pesetero, -a; codicioso, -a; avaricioso, -a

diruzale adj./iz. Diruaren oso zalea dena. ¬

disekatu, disekatzen

DISEKATU

disecar

disekatu *dau* ad.

disfrutatu, disfrutatzen
DISFRUTATU

gozatu; ondo / ongi pasatu

disfrutar

disfrutatu *dau* ad. *Majo disfrutatu du aurtengo festatan* 'majo disfrutatu dugu aurtengo festetan'. ▲ Sin. *gozatu*; *ondo / ongi pasatu*.

disgustatu, disgustatzen
NAHIGABETU, ATSEKABETU

penatu, lastimatu

disgustar(se); desconsolar(se), apenar(se)

disgustatu *da/dau* ad. Nahigabetu, atsekabetu. Ik. **penatu**; **lastimatu**.

disgusto, disgustua
DISGUSTU

nahigabe

disgusto, desagrado

disgusto iz. Disgustua. Ik. **nahigabe**. ◆ **disgustua eman**. ◆ **disgustua hartu** (> *disgustwa artu*).

disimulatu, disimulatzen
DISIMULATU

disimular

disimulatu *dau* ad. *Disumulatube beiratzen zezun* 'disimulatu gabe begiratzen zizun'.

disimulo, disimulua
DISIMULU

disimulo

disimulo iz. Disimulua. ◆ **disimuluan** (> *disimulwen*) adb.

disko, diskua
DISKO

disco (cuerpo cilíndrico)
elur iz. *Abenduko elurrá*. | *Elurra kentzen? Kenduko dik, bai, Santiagok!* | *Elurra kendu? Kenduko dik, bai, in denak!* ▲ Sin. *kaka txuri*. ● Esr. zah. *Elur urte, gari urte*. || elur bildua. Ik. **elurbildu**. | elur-pilo, elur-pilwa. *Alkarri, elur-pilokan*. ◆ **elur arin** iz. Elur hautsa, elur irina (elurtuta, lurrean dela). *Elur arina, elur sekwa* 'elur arina, elur lehorra'. Ik. **bisuts**. ▼ Anton. *elur pisu*. ◆ **elur beazun** iz. Elur beratza. Elur beazuna ta gesala. *Elur beazuna do* 'elur beratza dago'. ▲ Sin. *elur gesal*. Ik. **beazun**. ◆ **elur bisuts** iz. Elur xehea, lehorra eta hauts erakoa, haizeak erraz mugitzen duena. *Aiziekin, telapetik sartzen da elur bisutsa* 'haizearekin, teilapetik sartzen da elur bisutsa'. Ik. **elur arin**. ◆ **elur gesal** iz. Urtzen ari den elurra. *Elur gesalak de ordués (beazuna donien)* 'elur gesalak daude orduan (beazuna dagoenean)' (Ond Bak). ▲ Sin. *elur beazun*. Ik. **gesal**; **beazun**. | – elurra fixti-fixti (deka) [elur gutxi]. | – elurra fara-fara / firi-fara (deka) 'elurra mara-mara' [elur asko]. | – elurrak joik [elur giroak animatuta]. ● // *Elur, elur! e'nauk hiere bildur! Netako txitxia ta papa! Hitako txakurran kaka!* //. ◆ **elur-korritu** iz. Elur-jausia. ◆ **elur lapatx** iz. Elur pikorra; pikor gisako malutetan erortzen den elurra. || Horrelako elur-prezipitazioa. *Elur lapatxa deka* 'elur lapatxa dakar'. ◆ **elur pilo** iz. Elur pilota. ◆ **elur pilokan** adb. *Alkarri, elur pilokan* 'elkarri, elur pilotak botaka'. ◆ **elur pisu** iz. Elur bustia, elur hezea (elurtuta, lurrean dela). ▼ Anton. *elur arin*. ◆ **elur trapatu** iz. Elur trinkotua, elur gogortua. *Elur trapatuen golpekan sartzen dĭa ankak* 'elur trapatuan kolpeka sartzen dira hankak [oinak]'. ◆ **elur txibristin**, **elur txistin** iz. *Elur txistina, elur amukela txikia* 'elur txistina, elur maluta txikia'. ◆ **elur txori** (> *elur txoi*) iz. Gailupa (Pyrrhula pyrrhula). ▲ Sin. *negu txoi*; *klabelin txoi pikomotxa* [krabelin txoi pikomotxa (EHHA)]. ◆ **elur yutsin** iz. Elur erauntsia. *Ordu bat garrengo elur yutsinak zwitu tu baztar guztiek* 'ordu bat garrenerako* elur erauntsiak zuritu ditu bazter guztiak'. ◆ **elurra egin** (> *elurra in*) *dau* ad. *Abenduen eztau elurrik in* 'abenduan ez du elurrik egin'. || **elur egin** (> *elur in*) (Ond Bak): *Esan tazu, alde batia, elurr'itia baindo hobe dala izotza botatzia* 'esan ezazu, alde batera, elur egitea baino hobe dela izotza botatzea'. ▲ Sin. *elurra bota*, *elurra ekarri*; *zuritu* (> *zuitu*). | – elurra [ekarri]: elurra deka. | – elurra bota: Hau da hau elurra botatzia! ◆ **elurra legunaz** (egon...). Erabat elurtuta egon; lurmenik gabe, inguru guztia elurrak leunduta egon. *Ixipuntati Aizkibiliaindo elurra legunaz jok, dana txuri-txuria, lurmenipe* 'Ixipuntatik Aizkibileraino elurra legunaz zegok, dena zuri-zuria, lurmenik gabe'.

elurbildu, elurbildua

ELURBILDU

ventisquero; sitio donde se acumula la nieve por la ventisca

elurbildu iz. Haizearen eraginez, elurra biltzen den lekua.

elurguna

ELUR GUNE

parcela con nieve

elurguna iz. Elurra urtu ez den gunea. Ik. **lurmen**.

elurketa, elurketia

ELURKETA, ELURTE

nevada

elurketa iz. Elurtea, elur jasa. *Elurketa garaia*. ◆ **elurketan** adb. *Elurketan fan da aurtengo negua* 'elurketan joan da aurtengo negua'.

elurmusti, elurmustia

ELURBUSTI

aguanieve

elurmusti iz. Elurbustia. *Eztau zwituko; elurmustia deka* 'ez du zurituko; elurbustia dakar [ari du].

elurpe, elurpia

ELURPE

bajo la nieve

elurpe iz. Elur azpia. ◆ **elurpean** (> *elurpĭen*) adb. Elur azpian.

elurra in

ELURRA EGIN

zuitu

nevar

elurra egin (> *elurra in*) *dau* ad. *Abenduen eztau elurrik in* 'abenduan ez du elurrik egin'. || **elur egin** (> *elur in*) (Ond Bak): *Esan tazu, alde batia, elurr'itia baindo hobe dala izotza botatzia* 'esan ezazu, alde batera, elur egitea baino hobe dela izotza botatzea'. ▲ Sin. *elurra bota*, *elurra ekarri*; *zuritu* (> *zuitu*).

elurra legunaz yon

ELURRAK LEUNDUTA; ERABAT ELURTUTA EGON

totalmente nevado, cubierto de nieve

elurra legunaz (egon...). Erabat elurtuta egon; lurmenik gabe, inguru guztia elurrak leunduta egon. *Ixipuntati Aizkibiliaindo elurra legunaz jok, dana txuri-txuria, lurmenipe* 'Ixipuntatik Aizkibileraino elurra legunaz zegok, dena zuri-zuria, lurmenik gabe'.

elurte, elurtia

ELURTE

nevada

elurte iz. *Elurte aundia bota dau* 'elurte handia bota du'.

emakume, emakumia

EMAKUME

andra *gizaki, gizon*

mujer

emakume iz. *Gizonok alferro zai emakumĭek baindo* 'gizonok alferrago zarete emakumeak baino'. Emakume ta gizaki. ▲ Sin. *andra*. ▼ Anton. *gizaki*, *gizon*.

eman berra

ZOR

zor

deuda; débito

eman beharra (> *eman berra*). Zorra. *Eman berra dukat* 'eman beharra [zor] daukat'. Ik. **zor**.

eman, ematen

EMAN

dar
dar de; dar a
producir, dar fruto
pasar, dedicar (tiempo)
parecer
dar a, estar orientado a

eman **1** *dau* ad. Zerbait norbaiten esku ezarri. *Afaia eman geau* 'afaria eman digu'. || Bakaiku: (Guk hoiek ebeiri) eman bagindatza 'bagenizkie'. Eman natzan 'nizkion', eman zatzan 'zizkidan', eman zan 'zion'. Mezia eman. Indar eman. Nik emain dezait 'dizuet' zeiri. Nik emanko dezait zeiri. Emanko al gairubei 'digute' (Ond Bak). || **2** *dau* ad. (Gauza abstraktuez mintzatuz). *Pena eman*. *Eskerrak eman*. *Gwenziek eman* '*goraintziak eman*'. *Denborĭa eman* 'denbora eman'. *Lotsa eman*. *Gerrĭa eman* 'gerra eman'. *Bildurra eman* 'beldurra eman'. *Gwstua eman* 'gustoa [atsegina] eman'. *Mina eman*. *Emain dwet zaplastakon bat!* 'emanen diat zaplastakoren bat'. *Jatĭa eman* 'jatera eman'. *Mezĭa eman* 'meza eman'. *Bizkarra eman*. **3** *dau* ad. (Lurraz, diruaz eta kidekoez mintzatuz). *Lur orrek eztau asko ematen* 'lur horrek ez du asko ematen'. *Sar orrek eztau asko ematen* 'sagar [arbola] horrek ez du asko ematen'. Ik. **ekarri**. **4** *dau* ad. Denboraz mintzatuz, pasatu, igaro. *Astebete eman du oporretan* 'astebete eman dugu oporretan'. *Yun guztĭa eman dau erdi lotan* 'egun guztia eman du erdi lotan'. **5** *dau* ad. Iruditu. Ematen dau tontua dala 'ematen du tontoa dela'. *Eztau ematen etorri danik* 'ez du ematen etorri denik'. Ik. **apenas**. | *Ondo ematen dik* / *Txarki ematen dik* [tener buen aspecto / tener mal aspecto]. **6** *dau* ad. [emitir, retransmitir]. *Radiuen eman dai berria* 'irratian eman dute berria'. **7** *dĭa* ad. [dar, tener]. *Biotzekwek eman dĭa* 'bihotzekoak eman dio'. **8** *dau* ad. Eraikinez-eta mintzatuz, norabait begira egon. *Laio orrek egoaldĭa ematen dau* 'leiho horrek hegoaldera ematen du'. ◆ **eman beharra** (> *eman berra*). Zorra. *Eman berra dukat* 'eman beharra [zor] daukat'. Ik. **zor**. ◆ **eman eta eman** (> *eman da eman*).

emangarri, emangarria

EMANGARRI

(el, lo) que da (empleado siempre con objeto de referencia)

emangarri adj. (Hitz elkartuetako bigarren osagai gisa) Adierazten dena ematen duena. Ik. **ikara emangarri**; **lotsa emangarri**.

emankan

EMATEN, JOKA

joka(n)

golpeando, a golpes; pegando(se)

emankan adb. Ematen; joka. *Alkarri emankan* 'elkar joka'. *Asarratu ta emankan asi dĭa* 'haserretu eta emanka hasi dira'. Ik. **joka(n)**.

emantzaile, emantzailia

EMAILE; ESKUZABAL

emataile; eskuzabal

zuhur

el que da, la que da; donante
generoso, -a

emantzaile (> *emanzaile* [Urdiain]) **1** iz. Zerbait ematen duen pertsona. (Ond Bak) *Meza emantzailĭa* 'meza-emailea'. Listo emantzaile mezia (?). Ik. **emataile**. **2** (Izenondo gisa). Ematen duena; eskuzabala. Ik. **emataile**; **eskuzabal**. ▼ Anton. *zuhur* (> *zur*).

emataile, emataila EMAILE

emantzaile; partitzaile. 2 eskuzabal *zuhur, autsi (autsia), zimur / ximur,*

dador, -ra, el que da, la que da; donante

generoso, -a

emataile **1** iz. Emailea, zerbait ematen duen pertsona. *Jatĭa emataila*. *Susto emataila*. Ik. **emantzaile**; **partitzaile**. **2** adj. Ematen duena; eskuzabala. Ik. **emantzaile**; **eskuzabal**. ▼ Anton. *zuhur*, *autsi* (*autsia*), *zimur* / *ximur*, *eskuximur*.

emazte, emaztia EMAZTE

andra

esposa

emazte iz. Norbaitentzat, berarekin ezkondua dagoen emakumea. ▲ Sin. *andra*. [Gaur egun *andra* erabiltzen da]. Ik. **senar-emazte**.

eme, emia EME

ar

hembra

eme **1** adj./iz. Animaliez mintzatuz, kumeak egiten dituen sexukoa. ▼ Anton. *ar*. **2** adj. (Landareez mintzatuz).

emen OMEN

según parece, al parecer, por lo visto; parece (que), se dice (que)

emen partik. Omen. Hiztunak, aditzera ematen duenaren berri, entzunez –ez ikusiz– jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula. Ik. **omen**. *Baswa emen zan oi leno* 'basoa omen zen hori lehenago' (Ond Bak).

emereke GAITUN

pimpinela, sanguisorba (Sanguisorba sp.)

emereke iz. (Bot.) Gaituna (Sanguisorba officinalis; Pimpinella officinalis). (Ond Bak) Galsorotako belar txarra, zalkea ez bezala. Pinpilindaria da emerekearen hazia. Ik. **pinpilindara**.

emozio, emoziua EMOZIO

emoción

emozio iz. Zirrara.

emozionatu, emozionatzen HUNKITU

emocionar(se), conmover(se)

emozionatu *da/dau* ad. Hunkitu.

en [ALAEN, HALAKO]

(izenondoa) baindo (izenondoa -ago)

más que, (con adjetivo)

en (Ond Bak) [más que]. *Aul oi en aul oi!; aul ok en aul ok!*: idiota, más que idiota; idiotas, más que idiotas!. Ik. **zera baindo zerago** (> *zea baindo zeo*), **(izenondoa) baindo (izenondoa -ago)**.

-en alde in -EN ALDE EGIN

defender, propugnar

-en alde in '-en alde egin' *dau* ad. Norbaiten edo zerbaiten alde atera, jokatu edo aritu. *Horren alde in dot* 'horren alde egin dut'.

-en alde yon

ALDE EGON

defender, propugnar

-en alde egon (*-en alde yon*). Norbaiten edo zerbaiten alde egin, alde atera.

enamoratu, enamoratzen

MAITEMINDU, ENAMORATU

enamorar(se)

enamoratu *da/dau* ad. Maitemindu. *Amelikin enamoratu da. Raso enamoratwik duka erri orrek* 'arras enamoraturik dauka herri horrek'. ◆ **enamoratuta** / **enamoraturik yon**. Maiteminduta egon.

enbalde

ALFERRIK

alferrik, malamente

en balde, inútilmente, en vano

enbalde adb. Alferrik. *Debalde ta enbalde zaitza* 'debalde eta alferrik zabiltza'. Ik. **alferrik**; **malamente**.

enbasadore, enbasadoria

INBUTU

enbudo

envasadora, embudo

enbasadore iz. Inbutua. Ik. **enbudo**.

enbeleko

SINPLE. 2 DELIKATU

sinple; 2 ahul, delikatu

tonto, -a; simple, fácil de engañar
delicado, -a; débil, endeble
embeleco, fútil [gaztelaniatik (?)]

enbeleko [Ziordia] **1** adj. Pertsona sinplea. Ik. **sinple**. **2** adj. Pertsona delikatua, ahula. Ik. **ahul**; **delikatu**. [Gaztelaniatik (?): embeleco, fútil].

enbenenatu, enbenenatzen

POZOITU

almutia jo

envenenar(se), matar/morir con veneno

enbenenatu *da/dau* ad. Pozoitu. *Jan klasĭokin gwaindo gu enbenenatuko ga* 'jan klase hauekin oraino gu pozoinduko gara'. Ik. **almutea jo** (> *almutĭa jo*).

enbudo, enbudua

INBUTU

enbasadore

embudo

enbudo iz. Inbutua. ▲ Sin. *enbasadore*.

enbusteia

GEZUR, ENBUSTERIA; SINPLEKERIA,

sinplekeia

embustería, embuste, mentira
simpleza, bobada, tontería

enbusteria (> *enbusteia*, *inbusteia*). *Enbusteia gógoti* 'enbusteria gogotik [erruz, ugari]'. *Inbusteia franko*. || Sinplekeria, tontakeria. *Etxukat inbusteietako gogoik* 'ez zaukat enbusteriatarako gogorik'. *Ainbeste inbusteia!* 'hainbeste enbusteria, hainbeste sinplekeria, hainbeste tontakeria', [esate baterako, gehegizko zaintzagatik]. Ik. **sinplekeria** (> *xinplekeia*); **kopla**.

enbustero, enbusterua GEZURTI, ENBUSTERO
gezurti
embustero, -a, mentiroso, -a

enbustero, **-a** (Generoa hartzen du) adj./iz. Gezurtia. Ik. **gezurti**.

endai, endaia ENDAI
pala
pala

endai iz. Pala. *burnindai* eta *labendai* hitz elkartuetan. Ik. **pala**.

endratu, endratzen ENDREDATU
nahastekatu
enredar, liar, confundir

endreatu ENDREDATU
nahastekatu, kakanahastu; nahastu
enredar, liar, confundir

endredatu (> *endreatu*, *endratu*, *endriatu*) *dau* ad. ▲ Sin. *nahastekatu*, *kakanahastu*; *nahastu*. *Ari guztĭa endreatwik* 'hari guztia endredaturik'. Ik. **trabatu**.

endreatzaile, endreatzailia ENDREDATZAILE
nahastekatzaile, nahastekero, -a, salsero, -a
liante; enredador, -a

endredatzaile (> *endreatzaile*, *endrĭatzaile*) adj. ▲ Sin. *nastekatzaile*; *nastekero, -a*; *salsero, -a*.

enemigo, enemigua ETSAI, ARERIO
etsai, kontraio *aixkide, laun*
enemigo, -a; contrario, -a

enemigo iz./adj. Etsaia, arerioa. Ik. **etsai**; **kontrario**. ▼ Anton. *aixkide*, *laun*.

enfatu, enfatzen HASERRETU
hasarratu; koleatu / kollatu
enfadar(se), enojar(se), enfurecer(se)

enfadatu (> *enfatu*) *da/dau* ad. *Zukin enfatwik no* 'zurekin haserreturik nago'. Ik. **hasarratu**; **koleratu**.

enfermedade, enfermedadia GAITZ, ERITASUN
gaitz
enfermedad

enfermedade iz. Gaitza, eritasuna. Ik. **gaitz**. [Desberdindu *gaixotasun*].

enfermera, enfermeria / enfermero, ERIZAIN
enfermero, -a

enfermero, -a (Generoa hartzen du) iz. Erizaina.

enfrentamentu, enfrentamentua ENFRENTAMENDU
peleia
enfrentamiento, escaramuza, contienda, pelea

enfrentamentu iz. Enfrentamendua. *Enfrentamentu aundia ibil dai aitak eta semĭek* 'enfrentamendu handia ibili [eduki] dute aitak eta semeak'. Ik. **peleia**; **muxinko**.

enfrentatu, enfrentatzen
AURRE EGIN

aurre in

hacer frente, afrontar, encarar; enfrentarse

enfrentatu *da* ad. *Alkar enfrentatu*. Ik. **aurre egin** (> *aurre in*).

engantxatu, engantxatzen
LOTU; KATIGATU

lotu; trabatu

enganchar(se)
llegar a las manos

engantxatu **1** *da/dau* ad. *Txuman engantxatwik* 'tximan [ilean] engantxaturik'. *Remolkĭa autwai engantxatuta* 'erremolkea autoari engantxatuta'. Ik. **lotu**; **trabatu**. **2** *dau* ad (irud/hed) Borrokari lotu. *Asarratu ta engantxatu in dĭa* 'haserretu eta engantxatu egin dira'. *Txakurrak engantxatu ta jaraiten ez* 'txakurrak engantxatu eta jaregiten ez'. || Harrapatu. *Lepoti engantxatu* 'lepotik engantxatu'. Ik. **harrapatu**.

engantxe, engantxia
LOTURA

enganche

engantxe iz. Bi gauza elkarrekin lotzen dituen zera. Ik. **lotura**; **lotugera**; **sujezio**.

enkajatu, enkajatzen
SARTU; TXERTATU; AHOKATU

sartu

encajar, casar (una pieza en otra)

enkajatu *da/dau* ad. Sartu; txertatu; ahokatu. Ik. **sartu**. *Bi pĭezok eztaĭ enkajatzen* 'bi piezok ez dira ondo txertatzen'.

enkaje, enkajia
PARPAILA, ENKAJE

encaje; tejido ornamental

enkaje iz. Parpaila; ehunezko zatia, apaingarri gisa arropei eransten zaiena. *Gonĭa, enkaje polit batekin* 'gona, enkaje polit batekin'.

enkajonatu, enkajonatzen
SARTU

encajonar; meter en un sitio angosto

enkajonatu *dau* ad. Zerbait bitarte edo leku estu batean sartu. *Arramaiuen da paetĭen artĭen enkajonatwik* 'armairuaren eta paretaren artean sarturik'. Ik. **sartu**; **estutu**.

enkargatu, enkargatzen
ENKARGATU

agindu

encargar
encargar(se)

enkargatu 1 *dau* ad. Norbaiti lan edo egiteko jakin bat gauzatzeko esan. Ik. **agindu**. 2 *da* ad. Arduratu.

enkargu, enkargua
ENKARGU

mandatu

encargo, mandato, orden

enkargu iz. Mandatua. Ik. **mandatu**.

enkistatu, enkistatzen
ENKISTATU

enquistar(se)

enkistatu *da* ad.

enkomendatu, enkomendatzen

GOMENDATU

encomendar (expresión empleada para dar el pésame).

enkomendatu *dau* ad. (osasuna enkomendatzeko doluzko esapidean). *Osasuna, enkomendatzeko* [Dolumina agertzeko esaten da, eta "osasuna izan dezazun, hildakoaren alde errezatzeko" adierazten dau].

enkontratu, enkontratzen

ELKARTU, TOPO EGIN. 2 SENTITU, EGON

1 topo in, koinziditu. 2 sentitu, yon

encontrar(se)

encontrar(se), sentir(se)

enkontratu **1** *da/dau* ad. *Alkarrekin enkontratu*. Ik. **topo egin** (> *topo in*); **koinziditu**. **2** *da/dau* ad. *Geizki enkontratzen naiz* 'gaizki sentitzen naiz'. Ik. **sentitu**, **egon** (> *yon*).

enkontru, enkontrua

ENKONTRU

encuentro (casual), tropiezo

enkontru iz. *Enkontrwa*.

enpaketatu, enpaketatzen

PAKETATU

empaquetar, empacar

enpaketatu *dau* ad. Paketatu.

enpapatu, enpapatzen

BLAI EGIN, BLAITU

txirriatu

empapar(se), calar(se)

enpapatu *da/dau* ad. Ik. **txirriatu**.

enparejatu, enparejatzen

PAREKATU

emparejar(se)

enparejatu **1** *da/dau* ad. Pareka jarri. **2** *da/dau* ad. Bikotea osatu; arra eta emea batu.

enpatxatu, enpatxatzen

ENPATXATU

empachar, indigestarse

enpatxatu (Ald. enpatu ? LM)

enpatxu, enpatxua

ENPATXU

betekada

empacho, indigestión

enpatxu iz. Ik. **betekada**.

enpeñu, enpeñua

ENPEINU

ahalein, inahala

esfuerzo; empeño; tentativa

enpeinu (> *enpeñu*) iz. *Enpeñu aundia patzen dau ikasten* 'enpeinu handia paratzen du ikasten'. Ik. **ahalegin**; **eginahala**.

enplasto, enplastua
ENPLASTU

2 aspergarri, aborrigarri, berriketontzi, pelma,

emplasto

pelma; pelmazo, -a; pesado, -a; fastidioso, -a

enplasto **1** iz. Enplastua; sendagai nahastura biguna. *Kipulĭa, oliwa, ina... trapu batĭen patutako enplastwa* 'tipula, olioa, irina... trapu batean paratutako enplastua'. **2** adj. (Irud.) Gogaikarria, aspergarria. *Oi enplasto zikina!* 'hori enplastu zikina!'. Ik. **aspergarri**; **aborrigarri**; **berriketontzi**; **pelma**; **peste**.

enpleatu, enpleatzen
ENPLEGATU

ibili, usatu

emplear, usar

enpleatu *dau* ad. (g.g.er.) Enplegatu. ▲ Sin. *ibili*, *usatu*.

enpresa, enpresia
ENPRESA

empresa

enpresa iz. *Enpresa txikiek dĭa geienak* 'enpresa txikiak dira gehienak'. Ik. **fabrika**; **industria**.

enpresaio
ENPRESABURU

empresario, -a

enpresario (> *enpresaio*) iz. Enpresaburua.

enreatzaile
ENDREDATZAILE

nahastekatzaile; nahastekero, -a

liante; enredador, -a

enreatzaile adj. Endredatzailea. Ik. **nahastekatzaile**; **nahastekero, -a**.

ensaiatu, ensaiatzen
ENTSEATU

ensayar

ensaiatu *dau* ad. Entseatu. *Astĭen bein ensaiatzen dai erriko txistulaiek* 'astean behin entseatzen dute herriko txistulariek'.

ensaio, ensaiua
ENTSEGU, ENTSAIO

saio; proba

ensayo; prueba

ensaio iz. Entsegua; proba. *Ostĭaletan, kantaitan ikasteko ensaiwa izaten du* 'ostiraletan, kantaitan ikasteko entsaioa izaten dugu'. Ik. **saio**; **proba**.

ensalada, ensaladia
ENTSALADA, GATZOZPINDU

ensalada

ensalada iz. Entsalada. *Porruek ensaladan gustwa jaten tut* 'porruak entsaladan gustura jaten ditut'. *Ensalada epela nei gaio gustatzen* 'entsalada epela niri gehiago gustatzen'.

ensegida
BEREHALA

bela, belaxe, segidan, segituen

enseguida, inmediatamente, al momento, al instante

ensegida adb. Berehala. Ik. **berehala** (> *bela*); **berehalaxe** (> *belaxe*); **segidan**; **segituan** (> *segituen*).

enteatu, enteatzen / entiatu, entiatu

JABETU, ENTERATU

jakin

enterarse, entender; darse cuenta

entendimentu, entendimentua

ENTENDIMENTU

inteligenzia

entendimiento, inteligencia

entendimentu iz. Adimena. *Entendimentu aundik eztuka* 'entendimentu handirik ez dauka'.

entenditu, entenditzen

ENTENDITU

konprenditu

entender, comprender

entenditu *dau* ad. *Entenditu dezu?* 'entenditu duzu?'. *Oi entenditzeko bi aldiz jaio ber da bat* 'hori entenditzeko bi aldiz jaio behar da bat'. Ik. **konprenditu**.

entenga, entengia

ENTENGA

entenga

entenga iz. Hamalauren bat zentimetroko iltzea. *Puntapatxa aundiek dĭa entengak* 'puntapax handiak dira entengak'. Ik. **giltza**.

enteratu, enteratzen

JABETU, JAKIN, ENTERATU

jakin; errapatu

enterarse, entender; darse cuenta

enteratu ([Bakaiku] eta *enteatu*, *entiatu* [Urdiain]) *da* ad. Jabetu, jakin. *Enteratuko da gauzakin* (Ond Bak). *Ezta enteatzen* 'ez da enteratzen'. *Ezton enteatu´re iten* 'ez dun enteratu ere egiten'. Ik. **jakin**; **erreparatu** (> *errapatu*).

enterradore, enterradoria

LURPERATZAILE

enterratzaile

enterrador, -a, sepulturero, -a

enterradore iz. Lurperatzailea. ▲ Sin. *enterratzaile*.

enterratu, enterratzen

LURPERATU, EHORTZI

lur eman, lurpiatu

enterrar, dar sepultura, sepultar

enterratu *dau* ad. Lurperatu; lur eman. Ik. **lur eman**; **lurperatu** (> *lurpĭatu*).

enterratzaile, enterratzailia

LURPERATZAILE

enterradore

enterrador, -a, sepulturero, -a

enterratzaile iz. Lurperatzailea. ▲ Sin. *enterradore*.

enterro, enterrua

EHORZKETA; HILETA ELIZKIZUN

entierro

enterro (eta *entĭerro*) iz. Enterrua. Hileta; lur ematea. *Gaur enterrwa do* 'gaur enterrua dago'.

entrada, entradia
SARRERA, ENTRADA

sarrera

entrada, acceso
entrada, billete

entrada **1** iz. Sarrera. Sukal entrada. Ik. **sarrera**. **2** iz. Zineko (...) entradia. Takillan hartu dot zineko entradia. **3** iz. Kopetako entradak. ◆ **entrada egin** / **eman** (> *entradĭa in / eman*). Espazio itxi bati sarrera eman: baratzari, soroari, okuluari entradia in / eman).

entreatu, entreatzen
ENTREGATU

eman, bueltatu

entregar
entregarse, darse a; rendirse a las autoridades

entreazi, entreazten
ENTREGA ARAZI

obligar a entregar, hacer entregar

entregarazi* (> *entreazi*) *dau* ad. Entregatzera behartu.

entrebitarte, entrebitartia
BITARTE

bitarte

intervalo, espacio/tiempo intermedio
mientras tanto

entrebitarte iz. Ik. **bitarte**. ◆ **entrebitartean** (> *entrebitartĭen*) adb. Ik. **bitartean** (> *bitartĭen*); **bien bitartean** (> *bien bitartĭen*).

entregatu, entregatzen
ENTREGATU

eman, bueltatu

entregar
entregarse, darse a; rendirse a las autoridades

entregatu (eta *entreatu*) **1** *dau* ad. *Libua entreatzĭa fan naiz* 'liburua entregatzera joan naiz'. *Entregatu be tokĭá* 'entregatu bere tokira'. Ik. **eman**; **bueltatu**. **2** *da* ad. *Be bua entregatu dau* 'bere burua entregatu du'.

entrenadore, entrenadoria
ENTRENATZAILE

entrenador, -a

entrenadore iz. Entrenatzailea.

entrenamentu, entrenamentua
ENTRENAMENDU

entrenamiento

entrenamentu iz. Entrenamendua.

entrenatu, entrenatzen
ENTRENATU

entrenar

entrenatu *da/dau* ad.

entresaka, entresakia
ENTRESAKA

bihestu

entresaca

entresaka iz. Ik. **bihestu**.

entretenigarri

ENTRETENIGARRI

aspergarri, aborrigarri

entretenigarri adj./iz. ▼ Anton. *aspergarri*, *aborrigarri*.

entretenimentu

ENTRETENIMENDU

entretenigarri

entretenimiento, diversión

entretenimentu iz. Entretenimendua. Ik. **entretenigarri**.

entretenitu, entretenitzen

ENTRETENITU

entretenerse, distraerse

entretenitu *da/dau* ad.

entzun, entzutzen (ez *entzuten)

ENTZUN

aitu

oír, escuchar

entzun, **entzutzen** (ez *entzuten) *dau* ad. *Orrek ez dik entzutzen* 'horrek ez dik entzuten'. Ik. **aditu** (> *aitu*). ◆ **meza entzun** (> *mezĭa entzun*).

eo

EDO

eon

EGON

estar

eozein

EDOZEIN

cualquier
cualquiera, quienquiera; cualesquiera, quienesquiera

eozer

EDOZER

cualquier
cualquier cosa

epel, epela

EPEL

2 ezkel

tibio, -a; templado, -a; caliente, cálido, -a
tibio, -a; laxo, -a; sin vigor; apocado, -a; tímido, -a; cobarde; enclenque, enfermizo, -a

epel **1** adj. Bero samarra, ez hotza eta ez beroa. **2** adj. Sutsua ez dena. Ik. **ezkel**.

epelki, epelkia

EPELKI

ambiente templado

epelki adj./iz. Giro epela. *Kanpwen otza do, bea au epelkia dona etxe barruen!* 'kanpoan hotza dago, baina hau epelkia dagoena etxe barruan!'. *Gústwa, etxeko epelkiti elurrai beira* 'gustura, etxeko epelkitik elurrari begira'. Ik. **beroki**.

epeltasun, epeltasuna

EPELTASUN

tibieza, templanza

epeltasun iz.

eper txakur, eper txakurra

EPER-TXAKUR

(perro) perdiguero

eper txakur. Galeper txakurra.

eper, eperra

GALEPER

codorniz (Coturnix coturnix)

eper iz. Galeperra (*Coturnix coturnix*). Ik. **baseper**. ◆ **eper kafi**. Galeper habia. ◆ **eper kuma**. Galeper kumea. ◆ **eper txakur**. Galeper txakurra.

-era

-ERA (ATZIZKIA)

-era; sufijo que significa «manera», «forma»; «acto», «momento de ejecución», «dimensión», etc.

-era (atzizkia). 'Gertaera, ondorioa, egoera' adierazten duten izenak sortzen ditu. Burundako adibideak: *botagera*, *egoera*, *esaera*, *eskaera*, *ezaupera*, *iyogera*, *jagiera*, *jarrera*, *joera*, *jokaera*, *makiera*, *pasaera*, *portaera*, *yonera*, (...). 'Nolakotasuna, izaera' adierazten duten izenak sortzeko. Burundako adibideak: *lodiera*, *luzera*, *makiera*, *zabalera*.

erabaki, erabakia (2)

ERABAKI

dezisio, esana

decisión

erabaki[2] iz. (?) Ik. **dezisio**; **esana**.

erabaki, erabakitzen (1)

ERABAKI

deziditu, esan

decidir, acordar

erabaki[1] *dau* ad. (?) Ik. **deziditu**; **esan**.

erabat

ERABAT

oso, raso

del todo, completamente, enteramente, totalmente

erabat adb. Erabat 'denak batean' hogéi egún ez (Ond Bak). *Andik asita, erabat erre zan baswa* 'handik hasita, erabat erre zen basoa'. Ik. **oso**; **raso**.

erabateko, erabatekua

ERABATEKO

oso (osua)

total, absoluto, -a

erabateko adj. Ik. **oso (osua)**. ¬

erain / yain, yaiten (1)

EREIN

sartu (patatia)

sembrar

erain (eta *eain*, *yain*) *dau* ad. Erein. Ik. **sartu** (patata). *Naguek yain ta ekarri. Patatak sartu ta ata. Erein emen zein garia* (Ond Bak). • (Kantaita) *Elorria loran dago / mirua loka dago / artua eraiteko / a zer giroa dago*.

◆ **eraiteko makina** (> *yaiteko makiñia*). Ik. **senbradora**.

– yaiteko garaia.

– yaiteko lurrak eta larriek.

2 *dau* ad. yaiten, eaiten. Eragiten.

erakustaile, erakustailia

ERAKUSTAILE*, ERAKUSLE

el/la que muestra, el/la que guía
enseñante, profesor, -a

erakustaile ([Bakaiku] eta *yakustaile* [Urdiain]) **1** iz. Zerbait erakusten duen gauza edo pertsona. Ik. **ikastaile**. **2** iz. Irakaslea.

eratu, eratzen

EROTU

txoratu

volver(se) loco, enloquecer, perder el juicio, hacer perder el juicio

eratu *da/dau* ad. Erotu; ero bihurtu. *Eratwik do* 'eroturik dago'. Ik. **txoratu**.

erbi txakur, erbi txakurra

ERBI-TXAKUR

(perro) lebrero, lebrel

erbi txakur. Erbiak harrapatzeko erabiltzen den txakurra.

erbi, erbia

ERBI

liebre (Lepus europaeus)

erbi iz. (Lepus europaeus). ◆ **erbi txakur**. Erbiak harrapatzeko erabiltzen den txakurra.

erdal bobil (?)

ERDARA MORDOILO

castellano mal hablado

erdaldun, erdalduna

ERDALDUN

erdeazdun, belarrimotx (Lgart.)

el/la que no sabe la lengua vasca; castellanoparlante, francófono, -a

erdaldun (> *erdealdun*, *erdĭaldun*, *erdeazdun*, *erdiazdun*) adj./iz. Maistria erdiazduna zaken (LM). Erdiazdundu 'erdaldundu' in da (LM). Ik. **belarrimotx**.

erdeaz

ERDARAZ

en castellano

erderaz (> *erdeaz*, *erdĭaz*) adb. Erdaraz. *Erdeaz yakusten dai eskolan* 'erdaraz erakusten dute eskolan'. *Erdeaz esan*. *Erdeaz izketan* 'erdaraz hizketan'. ◆ **erderaz borobil** (> *erdeaz bobil*, *erdĭaz bobil*) Batez ere pl. *Erdeaz bobilak*. Erdara mordoiloa. *Abuela Juanak erdeaz bobil onak esaten zituen* 'amona Juanak erdaraz borobil [erdara mordoilo] onak esaten zituen'.

erdeaz bobil, erdeaz bobila

ERDARA MORDOILO

castellano macarrónico

erderaz borobil (> *erdeaz bobil*, *erdĭaz bobil*) Batez ere pl. *Erdeaz bobilak*. Erdara [gaztelania] mordoiloa. *Abuela Juanak erdeaz bobil onak esaten zituen* 'amona Juanak erdaraz borobil [erdara mordoilo] onak esaten zituen'.

erdeazdun, erdeazduna

ERDALDUN

erdaldun

el/la que no sabe la lengua vasca; castellanoparlante

erdeazdun (eta *erdĭazdun*) adj./iz. Erdaraduna, erdaraz hitz egiten duena, euskaraz ez dakiena. (LM). Ik. **erdaldun**.

erdera, erderia

ERDARA

kastellano (hizkuntza)

lengua distinta de la vasca [a menudo referida al castellano al sur y al francés al norte]

erdera iz. Gaztelania (burundarrendako). Ik. **kastellano**. ◆ **erderaz** (> *erdeaz*, *erdĭaz*) adb. Erdaraz. *Erdeaz yakusten dai eskolan* 'erdaraz erakusten dute eskolan'. *Erdeaz esan*. *Erdeaz izketan* 'erdaraz hizketan'. ◆ **erderaz borobil** (> *erdeaz bobil*, *erdĭaz bobil*) Batez ere pl. *Erdeaz bobilak*. Erdara [gaztelania] mordoiloa. *Abuela Juanak erdeaz bobil onak esaten zituen* 'amona Juanak erdaraz borobil [erdara mordoilo] onak esaten zituen'.

erdi bana

ERDI BANA

a medias, la mitad para cada uno

erdi bana. Bakoitzari erdi bat, bakoitzak erdi bat. ◆ **erdi bana egin** (> *erdi bana in*). *Intazu erdi bana* 'egin ezazu erdi bana'. Ik. **erdibanatu**.

erdi-preziuen

ERDI-PREZIOAN

a mitad de precio

erdi-prezioan (> *erdi-preziuen*).

erdi, erdia

ERDI

2 erdikalde, erdipatsu; zentro

mitad; medio, -a

medio, mitad; centro

erdi **1** iz. *Bedratzi t'erdiek joik zen*. *Erdien zirritu bat*. *Kilo erdia* (Ond Bak). || *Bierko, ogi erdia naikwa dot* 'biharko, ogi erdia nahikoa dut'. *Emen érdiek'é ezté* 'hemen erdiak ere ez daude'. *Erdi preziuen saldu dau* 'erdi prezioan saldu du'. | *Erdi lo*; *erdi lotan*. **2** iz. Erdialdea. *Bide erdien gelditu zaio autwa* 'bide erdian gelditu zaio autoa'. Ik. **erdikalde**; **erdiparetsu** (> *erdipatsu*); **zentro**. ◆ **erdi bana**. Bakoitzari erdi bat, bakoitzak erdi bat. ◆ **erdi bana egin** (> *erdi bana in*). *Intazu erdi bana* 'egin ezazu erdi bana'. Ik. **erdibanatu**. ◆ **erdi-erdian** (> *erdi-erdien*). *Plaza erdi-erdien jarri dĭa bazkaitan* 'plaza erdi-erdian jarri dira bazkaritan'. ◆ **erdiz erdi** adb. Bete-betean. *Erdiz erdi jo zĭan tirwek* 'erdiz erdi jo zion tiroak'.

erdibanatu, erdibanatzen

ERDIBANATU

dividir por la mitad

erdibanatu *dau* ad. Erdi bana egin edo eman. Ik. **erdi bana egin** (> *erdi bana in*).

erdibitu, erdibitzen

ERDIBITU

partir por la mitad

erdibitu *da/dau* ad. Bi parte berdin edo berdintsutan zatitu.

erdikalde, erdikaldia

ERDIALDE

erdi, erdipatsu

zona central, centro

erdikalde iz. Erdialdea. Ik. **erdi**; **ediparetsu** (> *erdipatsu*).

erdiko bihatz, erdiko bihatza

HATZ LUZE, HATZ ERDIKO

dedo corazón; dedo cordial

erdiko bihatz (> *erdiko biatz*, *erdiko bietz*). Hatz luzea; eskuko hatzik luzeena, erdikoa.

erdipatsu ERDI PARETSU*, ERDIALDE

erdi, erdikalde

zona central, centro

erdiparetsu* (> *erdipatsu*) iz. Erdi parekoa, erdialdea, erdiko ingurua gutxi gorabehera. *Auztan kaja oiek erdipatswortan* 'uztan kutxa horiek erdiparetsu hortan'. Ik. **erdi**; **erdikalde**. ◆ **erdiparetsuan** (> *erdipatsuen*) adb. Erdi parean, erdian gutxi gorabehera. *Sukalde erdipatsuen ibiltzen dai maia* 'sukalde erdiparetsuan [erdialdean] ibiltzen [edukitzen] dute mahaia'.

erdipurdi ERDIPURDI

regular

a medias, medianamente; ni bien ni mal, no muy bien

erdipurdi (eta *erdipordi*) adb. *Lana erdipurdi inda autzi dau* 'lana erdipurdi eginda utzi du'. ▲ Sin. *regular*. ◆ **erdipurdiko** adj.

erdipurdika ERDIPURDIKA

a medias

erdipurdika adb. (Ond Bak). [A medias. "A medio hacer, llenar, etc." (Ond Bak)].

erdipurdiko, erdipurdikua ERDIPURDIKO

tarteko (?)

mediano, -a; mediocre

erdipurdiko adj.

erditu, erditzen / ertitu, ertitzen ERRUN [ARRAINEK ETA ANFIBIOEK]

desovar

erditu (eta *ertitu*) *dau* ad. Errun, arrainek eta anfibioek arrautzak paratu. • Esr. zah. *Intrusak loran, barbuek erditzen* 'intsusak lorean, barboak erruten'.

erdiz erdi ERDIZ ERDI

de lleno, en medio

erdiz erdi adb. Bete-betean. *Erdiz erdi jo zĩan tirwek* 'erdiz erdi jo zion tiroak'.

erein EREIN

sembrar

erein *dau* ad. (Ond Bak): Erein emen zein garia 'erein omen zuten garia'. Ik. **erain** (> *yain*).

ereitzi IRITZI

opinar, parecer
opinión, parecer

ergi ERGI

bigai

ternera?, erala? (novilla de dos años)

ergi iz. (Ond Bak). Txahal emea, bigaia. [Euskara batuan, txahal arra]. Ik. **bigai**.

erginurde ERBINUDE
ergunera
comadreja (Mustela nivalis)

erginurde iz. Erbinudea (Mustela nivalis) (Ond Bak). Ik. **ergunera**.

ergunaria / erbunaria ERBINUDE
comadreja (Mustela nivalis)

ergunera, erguneria (erguneda, ERBINUDE
erginurde
comadreja (Mustela nivalis)

ergunera iz. (eta *erginurde* [Bakaiku]) iz. Erbinudea (Mustela nivalis).

eri, eria ERI; ERIKOR
gaixo
enfermizo, -a; enfermo, -a

eri adj./iz. Osasunik ez duena, gaixotasunen bat duena; erikorra, eri egoteko joera duena. Ik. **gaixo**.

erida, eridia ZAURI
min
herida

erida iz. Zauria. Ik. **min**.

eritu, eritzen ZAURITU, ERITU
herir(se)

eritu *da/dau* ad. Zauritu. *Gerran eritu zain* 'gerran zauritu zuten'. *Eritwik arrapatu dau txoia* 'zauriturik harrapatu du txoria'. Ik. **min(a) hartu**.

erkin, erkina ERKIN
ahul, mengal; mirrin
débil, delicado, -a; raquítico, -a

erkin adj. Ahula (Iza Alts). Ik. **ahul**; **mengal**; **mirrin**.

erlabiar, erlabiarra AMUNTZ (?)
hiedra terrestre (?)

erlaino, erlainua (BEHE) LAINO
laino
niebla; neblina
bruma matinal

erlaino (eta *erleino*) iz. Behe lainoa. [Niebla baja que se posa en los valles]. Ik. **laino**.

erlatai, erlataia ERLATEGI
colmenar

erlategi (> *erlatei*, *erlatai*) iz. *Erlotzak den tokia da erlataia* 'erlauntzak dauden tokia da erlategia'.

erlatu, erlatzen

ERLATU (*)

orear la tierra labrada (después de removida o labrada, orearse sin recibir lluvia)

erlatu *da* ad. (Nekaz.) Lurra erlatu; lurra landu ondoren, euriak hartu gabe, sekatu. *Erlatu be, lur konpondua yauriek harrapatuzkio, kaka-burnia iten da* 'erlatu gabe, lur landua euriak harrapatuz gero, *kaka-burdina* [lur gotorra] egiten da'. Ik. **kaka-burni**. {OEH: **erlatu**. "Blanquear, efecto del sol en plantas y travesaños (V-ger)" A Apend}.

erlauntza (?)

ERLAUNTZ

colmena

erlauntza (?) iz. Ik. **erlotz** [Urdiain]; **erlontzi** (Iza Alts).

erle, erlia

ERLE

2 erlekuma

abeja
enjambre

erle **1** iz. (Apis melifera). *Gĭo ta erle gutxio ikusten da lorĭen* 'gero eta erle gutxiago ikusten da lore(t)an'. *Erlĭek errena sartu dwa* 'erleak eztena sartu dit'. **2** iz. Erle taldea; erlekumea. Ik. **erlekuma**.

erlebelar

AMUNTZ (?)

hiedra terrestre (?)

erlebelar (eta *erlabear*, *erlabĭar* [Urdiain]) iz. (Bot.) *Larreko belár txarrá, beste belarra galdu iten dau* (Ond Bak). Amuntza (Glechoma hederacea) (?).

erleju, erlejua

ERLOJU

reloj

erleju iz. Erlojua. *Erlejua yosi dot, merke-merkĭa* 'erlojua erosi dut, merke-merkea'.

erlekuma, erlekumia

ERLEKUME

enjambre

erlekuma iz. Erlekumea; erle taldea, bereziki bere erreginarekin beste erlauntz bat osatzera doana. ◆ **erlekumea bota** (> *erlekumĭa bota*). Erlekumaldia, erlekumea atera beste erlauntz bat osatzeko.

erlekumia bota

ERLEKUME IRTETE; ERLEKUMALDI

enjambrazón

erlekumea bota (> *erlekumĭa bota*). Erlekumaldia, erlekumea atera beste erlauntz bat osatzeko.

erleztar, erleztarra

ERLASTAR (BOMBUS SP.)

abejorro (Bombus sp.).

erleztar (eta *erlebaztar* [Bakaiku]) iz. Erlastarra (Bombus sp.).

erloju, erlojua

ERLOJU

reloj

erloju iz. Ik. **erleju**.

erlontzi
ERLAUNTZ

erlotz

colmena

erlontzi iz. Erlauntza (Iza Alts). Ik. **erlotz**.

erlotz, erlotza
ERLAUNTZ

erlontzi

colmena

erlotz (eta *erlontzi* [Altsasu]) iz. Erlauntza. *Aspaldi ontan erlotzan erdiek utsik de, erlei[k] pe* 'aspaldi honetan erlauntzen erdiak hutsik daude, erlerik gabe'.

ermandade, ermandadia
ERMANDADE

alkar ume, alkarrume (?)

hermandad

ermandade 1 iz. 2 iz. *Ermandadeko testamentua*. Ermandadeko edo senitarteko testamentua: bi pertsonak edo gehiagok agiri bakarrean egiten duten testamentua. Ik. **alkar ume**.

ermita, ermitia
ERMITA

ermita

ermita iz. *Inguko ermita gaienak botaik de* 'inguruko ermita gehienak botata daude'.

ernai
ERNARI

aurriako yon

estar preñada/encinta

ernai (eta *errenai* [Urdiain]) adb. Ernari. *Urde ori ernai do* 'urde hori ernari dago'. Ik. **aurrerako egon** (> *aurrĭako yon*). ◆ **ernai egon** (> *errenai yon*).

ernaldu, ernaltzen
ERNALDU

azundu

fecundar, preñar

embarazarse, quedarse preñada

ernaldu **1** *dau* ad. Arrak emea. **2** *da* ad. Ernari gelditu. Ik. **azundu**.

ernamuno, ernamunua
ERNAMUIN

erne

germen, embrión (de la semilla); brote

ernamuno (eta *ernemun* [Bakaiku]) iz. Ernamuina. *Patatĭen ernamunwa* 'patataren ernamuina'. Ik. **erne**. ◆ **ernamunoa atera** (> *ernamunwa ata*). Ernatu. Ik. **ernetu**.

erne, ernia
ERNAMUIN

ernamuno

germen, embrión [de la semilla]

erne iz. Ernamuina. *Gariek, ernia; patatak, ernamunwa* 'gariak, ernea; patatak ernamuina' (?). Ik. **ernamuno**. ◆ **ernea atera** (> *ernia ata*). Ernatu. Ik. **ernetu**.

ernemun
ERNAMUIN

erne

germen, embrión [de la semilla]; brote

ernemun iz. Ernamuina (Ond Bak). Ik. **ernamuno**; **erne**.

ernetu, ernetzen

ERNATU

mogitu

germinar; brotar

ernetu *da* ad. Ernatu. *Indiabĭa-ta ernetzeko, uretan patzen dĭa* 'indaba-eta ernatzeko, uretan paratzen dira'. Garia ernetzen; gaztinak ernetu. Ik. **ernea atera** (> *ernia ata*); **ernamunoa atera** (> *ernamunwa ata*). Ik. **mogitu**.

-ero

-ERO (ATZIZKIA)

-ero; sufijo que denota «frecuencia» añadido a nombres que indican período de tiempo

-ero (> *-io, -jo*) (atzizkia). Denbora adierazten duten izenei erantsiz 'maiztasuna' adierazten dute -ero atzizkiarekin osatutako aditzondoek. Burundako adibideak: *aldio* 'aldiro', *astĭo* 'astero'; *atsaldĭo* 'arratsaldero'; *domeko* 'domekero', *egunĭo* 'egunero'; *ilĭo* 'hilero'; *jairo* 'jaiero', *lanbatĭo* 'larunbatero'; *urtĭo* 'urtero' (...).

ero, erua

ERO

zoro

loco, -a, insensato, -a, necio, -a, estúpido, -a
loco, -a, que ha perdido la razón

ero **1** adj./iz. Zentzu edo adimen gutxikoa. *Ero zarra!* 'erotzarra!'. **2** adj. (Gauzengatik esanda). *Ero aizĭa* 'ero haizea' [hego haizea]. Ik. **hego haize**. **3** adj./iz. Zoroa, zentzua galdu duena. ◆ **eroen modura** (> *erwen modwa*). ◆ **eroen pare** (> *erwen pare*). • Esr. zah. Hobe da ero, baindo (?) bero (Ond Bak). [Ero, baia bero]. • Ero don bitarteko gari zaharra bagendu kutxan, zein ondo gendekek (?). ◆ **ero haize** (> *ero aize*) iz. Lgart. Hego haizea Ik. hego haize.

eroetxe, eroetxia [≠ manikomio]

EROETXE

≠ manikomio

casa de locos

eroetxe iz. *Yausiokin, eroetxĭa ematen dau onek* 'erausi [iskanbila] hauekin, eroetxea ematen du honek'. Ik. **manikomio**.

eroi

ERORI

bota

caer(se)

eroi *da* ad. Erori. *Permisoĭpe peskan abil?; eroi ber daiz!* 'permisorik [baimenik] gabe arrantzan habil?; erori behar haiz [duk]!'. *Gaizki jok ta eroi ber dik* 'gaizki zagok eta erori behar duk'. *Musĭen gwaikwen ibazi dwak, bea urrengwen eroikwaiz* 'musean oraingoan irabazi didak, baina hurrengoan eroriko haiz'. *Erori in da* 'erori egin da' (LM). ▲ Sin. *bota*.

erokei, erokeia

EROKERIA

txorakei, zorakeia

locura, acto irreflexivo; necedad, estupidez

erokeria (> *erokeia*) iz. *Erwek, erokeiek* 'eroak, erokeriak'. Ik. **zorakeria** (> *zorakeia*).

eroki, erokia

EGOKI

aproposa, primerako

conveniente, adecuado, -a; apropiado, -a, procedente, oportuno, -a

eroki adj. Egokia. *Iteko gauza erraza, listo iten dana, erokia* 'egiteko gauza erraza, listo egiten dena, egokia'. Ik. **aproposa**; **primerako**.

erori / eroi ERORI

bota

caer(se)

erori *da* ad. *Erori in da* 'erori egin da' (LM). Ik. **eroi**; **bota**.

eroska, eroskia EROXKA

variable, voluble; un tanto loco, -a, algo loco, -a

eroxka (> *eroska*) adj. *Eroska samarra da*.

eroso, erosua EROSO

komodo *deseroso*

fácil, cómodo, -a; confortable
de modo fácil, cómodamente

eroso **1** adj. ▲ Sin. *komodo*. ▼ Anton. *deseroso*. **2** adb. *Egur lotĭa eroso do atatzeko* 'egur lotea [epaitza] eroso dago ateratzeko'.

errabia ERRABIA

amorru. 2 ansia

rabia, ira, furia
pasión, ansia

errabia (*a* itsatsia) **1** iz. Amorrua, haserre bizia. *Errabia haundia* (LM). *Errabiekin lurrĭá bota zen* 'errabiarekin lurrera bota zuen'. Ik. **amorru**. **2** iz. Irrika. *Jateko errabia*. *Gustatzen zaizkio, ta ze errabiekin jaten tuen berrwek* 'gustatzen zaizkio, eta zer errabiarekin jaten dituen berroak'. Ik. **ansia**. ◆ **errabia eman**. Amorrua eman, zerbaitek norbait amorrarazi. *Errabia ematen daĭ xinplekeioiek* 'errabia ematen dute sinplekeria horiek'. Ik. **amorrua eman**.

errai, erraia ERRAI

vísceras, entrañas

errai (eta *errei*) iz. (pl.) Iza & Ond. erraiak. *Erreietako mina deka, zekan atzo. Gaur ezteka, ezekan atzo* (Ond Bak).

errain, erraina ERRAIN

nuera

errain (eta *erreina*) iz. Semearen edo alabaren emaztea.

errainu, errainua ERRAINU

liztura. 2 itzal

rayo; reflejo, destello
sombra proyectada (silueta, espectro)

errainu ([Bakaiku] eta *erreinu* [Urdiain]) **1** iz. Argi izpia. *Yuzkien erreinuek* 'eguzkiaren errainuak'. *Idargien erreinu(b)a* 'ilargiaren errainua'. Ik. **liztura**. **2** iz. Itzala. Ik. **itzal**.

erraja, errajia BURDIN HESI

reja

erraja iz. (Batez ere pl.) *errajak*. Burdin hesia.

erramal, erramala SOKA, HEDE

soga, ramal, ronzal

erramal iz. Soka, hedea. Ik. **soka**; **hede**. *Beia erramalakin lotwik* 'behia erramalarekin loturik'.

erraminta, erramintia

ERREMINTA

2 elemento, apareju, erremendu, alaja, bitxo

herramienta, instrumento

granuja, pájaro, elemento

erraminta (eta *erramita*) **1** iz. Erreminta, lanean erabiltzen den tresna. **2** adj. *A ze erraminti̇a da hoi*. ▲ Sin. *elemento*, *apareju*, *erremendu*, *alaja*, *bitxo*.

erramu-egun, Erramu-eguna

ERRAMU-EGUN

domingo de Ramos

erramu-egun. (maiusk.) Kristau erlijioan, Aste Santu aurreko igandea. • Esr. zah. *Lazaro otzak il, Erramu urak yan* [San Lazaro egunean hotzak hil, Erramu-egunean urak (euriak) eraman].

erramu, erramua

ERRAMU, ZUME

2 sorta

sauce; ramo de sauce

ramo

erramu **1** iz. (Bot.) Sahatsa, zumea (Salix sp.) [Oharra: ez da ereinotza]; sahatsaren adarra. *Erramua listo mogitzen da primaberan* 'erramua listo mugitzen da udaberrian' [*Listo*, laster, goiz]. | *Zumi̇en erramua* 'zumearen erramua'. **2** iz. Sorta. Ik. **sorta**. ◆ **erramu-egun**. (maiusk.) Kristau erlijioan, Aste Santu aurreko igandea. • Esr. zah. *Lazaro otzak il, Erramu urak yan* [San Lazaro egunean hotzak hil, Erramu-egunean urak (euriak) eraman].

errapatu, errapatzen

ERREPARATU, OHARTU

kontuatu

observar, percatarse, fijarse, darse cuenta

errapatu *da* ad. Erreparatu, ohartu. *Errapatu naiz* 'ohartu naiz'. *Errapatu gindan* 'ohartu ginen' (Ond Bak). *Errapatuta nok emakumi̇ek beste itz batzuk ibili ta gordetzen tuaila, gizakiek gutxio ibiltzen tuainak* 'erreparatuta nagok emakumeek beste hitz batzuk ibili eta gordetzen dituztela, gizakiek gutxiago ibiltzen dituztenak'. Ik. **konturatu** (> *kontwatu*).

errape, errapia

ERRAPE

erro

ubre, mama; conjunto de mamas

errape iz. *Errape aundiko esenetako beiek dukatziai* 'errape handiko esnetarako behiak dituzte'. Ik. **erro**. ◆ **errapeko mina**. Mastitisa, ugatzaren hantura.

errasaki, errasakia (?)

ARRADAKI, ARRADA

rasero (utensilio), vara para rasear

errasaki iz. Arradakia; gariaren-eta edukiera neurria arradatzeko erabiltzen zen makila. [Rasero. Vara para rasear las medidas de capacidad, para cereales, etc. (JMS)].

erratu, erratzen

ERRATU

konfunditu

fallar, equivocarse, errar

erratu *dau* ad. (LM) *Erratu ta konfunditu*. Ik. **konfunditu**.

errau erdi, errau erdia

ARROA ERDI / ERREGU-ERDI

media robada

errau erdi. Arroa erdia / Erregu-erdia (?).

errau, erraua

ARROA

robo, arroba (Medida de capacidad para áridos equivalente a 28 l y 13 cl).
robada (Medida agraria equivalente a 8 áreas y 98 centiáreas).

errau **1** iz. Arroa, pisu neurri zaharra; erraua: 22 Kg. **2** iz. 1.000 m^2. Errau haundi: 100 pertika, 1000 metro. Errau txiki: 72 pertika, 900 metro (Ond Bak). Ald. arrua. Arrua bat (Ond Bak) (?). ◆ **errau erdi**. Arroa erdia / Erregu-erdia (?). ([errau → errau erdi → kartal → almute → almute erdi → txirlo]; zehaztu).
{ROBO. Medida tradicional de capacidad para áridos, usada en Navarra desde la Edad Media. Equivale a 1/4 de cahíz*, 2 medios*, 4 cuartales* ó 16 almudes*. Reducido a medidas actuales, el robo supone 28,13 litros, en los que caben 22 kg de trigo, 18 kg de cebada o 16 kg de avena. Recibe también la denominación de arrobo. (Gran Enciclopedia de Navarra)}.

errauts, errautsa

ERRAUTS

suko / su(r)tako hauts

ceniza

errauts iz. Ikatza, egurra eta kidekoak erretzean gertatzen den hauts hondakina. *Errautsez beteïk do su baztarra* 'errautsez beterik dago su bazterra'. ▲ Sin. *suko / su(r)tako hauts*.

erraz, erraza

ERRAZ

aixe

zail

fácil, cómodo, -a
fácilmente, cómodamente

erraz (eta *errax, errez, errex*) **1** adj. *Errazena in dau* 'errazena egin du'. ▼ Anton. *zail*. **2** adb. *Erraz ikasten tu gauzak* 'erraz ikasten ditu gauzak'. Ik. **aixe**.

errazalde

ERRAZENIK; ERRAZKERIAZ

de la forma más fácil
a la ligera (con el menor esfuerzo, por ser más fácil, cómodo, etc.)

errazalde **1** adb. Errazenik, erarik errazenean. **2** adb. Arinki; errazkeriaz. Gauzak azkar eta txarki egiten direnean: *errazalde*. Egitekoak ganorarik gabe egin.

errazio, erraziua

ERRAZIO

ración

errazio (eta *razio*) iz. *Ezpadezu jaten, errazio gaio gutako* 'ez baduzu jaten, errazio gehiago gutako'. *Okela erraziwa* 'okela errazioa'.

erraztasun, erraztasuna

ERRAZTASUN

zailtasun

facilidad, ventaja

erraztasun (> *erreztasun*, *errextasun*) iz. ▼ Anton. *zailtasun*.

erraztu, errazten

ERRAZTU

zaildu

facilitar, hacer más fácil

erraztu *dau* ad. ▼ Anton. **zaildu**.

erre usai, erre usaia

ERRE USAIN

kiskal usai

olor a quemado

erre usai. Erre usaina. *Erre usaia aitzen da kalĭen* 'erre usaina aditzen da kalean'. Ik. **kiskal usai**.

erre, erretzen

ERRE

kaskaldu, kiskali, kiskaldu. 4 fumatu

quemar; arder, abrasar
asar, tostar, freír; [ogia] cocer
quemar, abrasar; irritar, escocer
fumar

erre **1** *da/dau* ad. *Egur gutxi erre du aurtengo neguen* 'egur gutxi erre dugu aurtengo neguan'. Ik. **kaskaldu**; **kiskali**; **kiskaldu**. **2** *da/dau* ad. (Hedaduraz). *Zopiekin mihia erre dinat*. *Patata goiza erre dau izotzak*. Ik. **kaskaldu**. **3** *da/dau* ad. *Ogia labien erre*. *Ogi erre berria*. || *Arrontzia nahi dezu erreta o tortillan? Erre ondorien*. *Talua erretzeko garrakin* (Ond Bak). **4** *dau* ad. *Zigarrua erre*. Ik. **fumatu**. **5** (Era burutua izenondo gisa). *Au egwaizĭen errĭa dailena!* 'hau hego haizearen errea dabilena!'. Persona errea [haserrea]. ◆ **erre usai**. Erre usaina. *Erre usaia aitzen da kalĭen* 'erre usaina aditzen da kalean'. Ik. **kiskal usai**.

errebokatu, errebokatzen

KAREBERRITU

enlucir

errebokatu *dau* ad. Ik. **luzitu**.

errebus, errebusa

ERREUS, ERREFUS

inservible, estropeado, -a; desechado, -a; defectuoso, -a, con tara

errebus adj./iz. Erreusa; balio ez duena, akastuna. *Ardi errebusa* 'ardi erreusa'.

erregadera, erregaderia

UREZTAGAILU

regadera

erregadera iz. Ureztagailua. *Zulatwik do zinazko erregaderĭa* 'zulaturik dago zinkezko erregadera [ureztagailua]'.

erregalatu, erregalatzen

ERREGALATU, OPARI EGIN

regalar, obsequiar, agasajar

erregalatu *dau* ad.

erregalo, erregalua

OPARI, ERREGALU

opari

regalo, presente

erregalo iz. Erregalua. Ik. **opari**.

erregatu, erregatzen

UREZTATU, ERREGADIATU

ureztatu

regar, irrigar

erregatu *dau* ad. Ureztatu, erregadiatu. *Erregatzĭek baindo gaio balio dau yauri urak* 'erregadiatzeak baino gehiago balio du euri urak'. Ik. **ureztatu**.

errege bezpia

ERREGE BEZPERA

víspera de los Reyes

errege bezpera (> *errege bezpĭa*). Errege egunaren bezpera, ilbeltzaren 5a.

errege egun, errege eguna

ERREGE EGUN

día de Reyes, Epifanía

errege egun. (maiusk.) Ilbeltzaren 6a. ◆ **erregetan** adb. (maiusk.) Errege egunean.

errege sar, errege sarra

ERREGE SAGAR ZURI

sar beltz

manzana reineta blanca

errege sagar (> *errege sar*) iz. (Bot.) Azal berdea duen sagar mota gazi-gozoa (bereizi egiten dira azal berdea –*errege sagarra*– eta azal arrea duten sagarrak –*reineta* edo *sagar beltza*–). *Labĭen erreta o konpotĭa iteko, errege sarrak dĭa obenak* 'labean erreta edo konpota egiteko, errege sagarrak dira hoberenak'. Ik. **reineta**; **sagar beltz** (> *sar beltz*).

errege, erregia

ERREGE

rey, monarca
Rey Mago; Reyes Magos
rey (juego de cartas; ajedrez)

errege **1** iz. *Nabarrako erregĭek fwerwek eman zeatzien Burundai 1208en* 'Nabarrako erregeak [Antso VII «Azkarra»] foruak eman zizkion Burundari 1208an'. || *Erregĭa etor da, erregĭek etor dĭa* 'erregea etorri da, erregeak etorri dira' (Ond Bak). **2** iz. (pl.) Errege Magoak. *Aurtengo Erregĭek eztai gauza aundik autzi* 'aurtengo Erregeek ez dute gauza handirik utzi'. **3** iz. Karta jokoan, xakean-eta. *Errege ezpatĭa* 'errege ezpata'. ◆ **errege bezpera** (> *errege bezpĭa*). Errege egunaren bezpera, ilbeltzaren 5a. ◆ **errege egun**. (maiusk.) Ilbeltzaren 6a. ◆ **erregetan** adb. (maiusk.) Errege egunean. ◆ **errege sagar** (> *errege sar*). (Bot.) Azal berdea duen sagar mota gazi-gozoa (bereizi egiten dira azal berdea –*errege sagarra*– eta azal arrea duten sagarrak –*reineta* edo *sagar beltza*–). *Labĭen erreta o konpotĭa iteko, errege sarrak dĭa obenak* 'labean erreta edo konpota egiteko, errege sagarrak dira hoberenak'. Ik. **reineta**; **sagar beltz** (> *sar beltz*). ◆ **erregeek oparia bota** (> *erregĭek oparia bota*). *Ze bota dezai erregĭek?* 'ze bota dizute erregeek?'. *Ikatz kozkorra bota dwai erregĭek* 'ikatz kozkorra bota didate erregeek'. *Erregĭek? Ezta badĭala're!* 'erregeak? Ezta badirela ere!'.

erregina

ERREGINA

reina, monarca
(abeja) reina
reina, dama (juego de ajedrez)

erregina ([Altsasu] eta *erreina* [Urdiain]) iz. Ik. **erreina**.

erreia

ERREA; ERREDURA

quemadura
quemado, -a

erreia iz./adj. Erredura; errea. ¬

erreina

ERREGINA; 2 ERRAIN

reina
(abeja) reina
nuera
reina, dama (juego de ajedrez)

erreina **1** iz. lk. **erregina**. *Erreinia etor da, erreinak etor dia* (Ond Bak). **2** iz. *Erliein erreina* 'erleen erregina'. **3** iz. Erraina. lk. **errain**. **4** iz. Xake-jokoko pieza.

erreinu, erreinua

ERRAINU

liztura. 2 itzal

rayo; reflejo, destello
sombra proyectada, silueta

errejidore, errejidoria

ERREJIDORE

errejidore iz. (Lehen esaten zan). Agintaria.

errejistratu, errejistratzen

MIATU, ARAKATU

+ rejistratu

registrar, rebuscar; cachear

errejistratu *dau* ad. Miatu, arakatu. lk. + **rejistratu**.

erreka baztar, erreka baztarra

ERREKA BAZTER

orilla de un riachuelo, orilla de un arroyo

erreka baztar iz. Erreka bazterra.

erreka zulo, erreka zulua

ERREKA ZULO

barranco
cauce, lecho de regata

erreka zulo **1** iz. Sakan sakona. **2** iz. Errekaren ubidea.

erreka, errekia

ERREKA

riachuelo, arroyo

erreka **1** iz. Etorri txikiko ur-lasterra. **2** *Txisa erreka*. *Yauri errekak* 'euri errekak'. ◆ **erreka baztar**. Erreka bazterra. ◆ **erreka zulo** **1** iz. Sakan sakona. **2** iz. Errekaren ubidea.

errekalde, errekaldia

ERREKALDE

orilla del arroyo, zona cercana al arroyo

errekalde iz. Erreka tokia; erreka ingurua. *Berrauneko errekaldia*. • Esr. zah. *Berrauneko errekaldeko jostaia, berrogei eguneko ekaitza*.

errekeru, errekerua

ERRE-KERU

sabor a quemado; resabio

errekeru iz. Erre zaporea. [gusto a quemado, resabio (de la leche, del arroz)] *Errekerua duka* 'erre kerua dauka'. *Eseniekin indako postretan, jende askoi gustatu iten zaio errekerua* 'esnearekin egindako postreetan, jende askori gustatu egiten zaio erre kerua'.

erremedio, erremediua

ERREMEDIO

soluzio; salbazio

remedio, solución

erremedio (eta *erremeio*) iz. *Orrek bauka erremeiua* 'horrek badauka erremedioa'. *Eztuka erremeioik* 'ez dauka erremediorik'. Ik. **soluzio**; **salbazio**. ◆ **erremediorik gabe** (> *erremedĭope*, *erremeioipe*). ◆ **ze erremedio** interj.

erremeiatu, erremeiatzen

ERREMEDIATU

konpondu, soluzionatu. 2 laundu

remediar, reparar, subsanar
socorrer; ayudar económicamente

erremediatu (> *erremeiatu*) **1** *dau* ad. Konpondu. Zeórrek erremeiatázu. Neonek erremeiatuko dot (Ond Bak). ▲ Sin. *konpondu*, *soluzionatu*. **2** *dau* ad. Laguntza eman; diruz lagundu. *Zorretan do ta erremeiatu berko du* 'zorretan dago eta erremediatu beharko dugu'. *Eskerrak erremeiatu nela nik* 'eskerrak erremediatu [lagundu] nuela nik'. Ik. **lagundu**.

erremeio, erremeiua

ERREMEDIO

salbazio

remedio, solución

erremendo, erremendua

ERREMINTA; ELEMENTU

erraminta, trasto. 2 elemento, trasto, alaja, bitxo

herramienta, instrumento
granuja, pájaro, elemento

erremendo **1** iz. Erreminta, tresna. *Ur goiena erremendu* [tresna] *batekin jasotzen ari da* (JMS). *Erremendo txarra da pikatxona* 'erreminta txarra da pikotxa'. Ik. **erraminta**; **trasto**. **2** iz./adj. Alea, elementua, bihurria. *A ze erremendwa zan gaztetan* 'a ze elementua zen gaztetan'. *Ez zan onezko erremendwa* 'ez zen onezko elementua'. ▲ Sin. *elemento*, *trasto*, *alaja*, *bitxo*.

errementai ointo, errementai ointua

ERREMENTARI ONDDO

boleto(s) no comestible(s) (Boletus badius; Boletus calopus, Boletus satanicus)

errementari ointo (> *errementai ointo*) iz. Jateko onak ez diren onddoei ematen zaien izena; onddo arrea; onddo hankaederra; Satan onddoa (Boletus badius; Boletus calopus; Boletus satanicus). "*Errementai ointua* (Boletus badius; Boletus calopus; Boletus satanicus) *haustien urdindu iten da. Txarra da jateko. Bi klase dia: batek hanka luzetxuo eta metxuo duka eta arrasto ilunak. Txarra da. Bada beste errementai ointo bat, dana puntaduna eta hanka zuria, txarrena (Boletus satanicus)*".

errementai, errementaia

ERREMENTARI

arotz, herrero, sutaile/a.

herrero, -a

errementari (> *errementai*) iz. Metalak lantzen dituen pertsona. ▲ Sin. *arotz*, *herrero*, *sutaile/a*. ◆ **errementari ointo** (> *errementai ointo*) iz. Jateko onak ez diren onddoei ematen zaien izena; onddo arrea; onddo hankaederra; Satan onddoa (Boletus badius; Boletus calopus; Boletus satanicus). "*Errementai ointua* (Boletus badius; Boletus calopus; Boletus satanicus) *haustien urdindu iten da. Txarra da jateko. Bi klase dia: batek hanka luzetxuo eta metxuo duka eta arrasto ilunak. Txarra da. Bada beste errementai ointo bat, dana puntaduna eta hanka zuria, txarrena (Boletus satanicus)*".

erremuneta, erremunetia

erremuneta iz. *Erremunetĭa* (LM). Ik. **errenguletia**.

erren, errena

ERREN, ARANTZA. 2 EZTEN

2 mustaka

espina, púa, pincho
aguijón

erren **1** iz. Arantza. *Errena sartu zait matxurretak artzekwen* 'errena [arantza] sartu zait masustak hartzerakoan'. *Errenez beteĭk do errosĭa* 'errenez beterik dago arrosa'. **2** iz. Eztena. *Erlĭek errena sartu dwa* 'erleak eztena sartu dit'. Ik. **mustaka** [Bakaiku].

errenai

ERNARI

estar preñada/encinta

errendaketa, errendaketia

GORAKO, OKA

errendaketako gogo

vómito; (lo) vomitado

errendaketa iz. Gorakoa, oka. (V-gip, G-nav). ◆ **errendaketako** (eta *errengetako*) iz. Batez ere pl. *Errendaketakwek*. Gorakoa, oka, gonbitoa; oka egitean ahotik botatzen den gauza. ◆ **errendaketako gogo**. Batez ere pl. Botagura, goragalea. *Errendaketako gogwek*. Ik. **botagale**. ◆ **errendaketakoak bota** (> *errendaketakwek bota*) *dau* ad. ▲ Sin. **txahala bota** (> *txala bota*). ◆ **errendaketan egon, ibili** (> *errendaketan yon, ibili*). {"*Errendaketan ibili* (en Iturmendi): con náuseas" (Ond Bak) 392. "*Errendaketan doo*, está vomitando" (Iza Alts). Cf. errendatu (5)}.

errendaketako gogo, errendaketako gogua

GORAGALE, BOTAGALE

botagale

náusea, gana de vomitar

Batez ere pl. errendaketako gogwek (?)

errendaketako gogo iz. Batez ere pl. Botagura, goragalea. *Errendaketako gogwek*. Ik. **botagale**.

errendaketako, errendaketakua

GORAKO, OKA, GONBITO

vómito

errendaketako (eta *errengetako*) iz. Batez ere pl. *Errendaketakwek*. Gorakoa, oka, gonbitoa; oka egitean ahotik botatzen den gauza.

errendaketan ibili / yon

GORAKA, BOTAKA

vomitando

errendaketan ibili, egon (> *errendaketan ibili, yon*) adb. Goraka aritu, botaka egin. *Errendaketan do* 'errendaketan dago'.

errenditu, errenditzen

NEKATU

nekatu

cansar(se), fatigar(se)

errenditu *da/dau* ad. Nekatu; nekarazi. *Raso errenditwik nó* 'arras errenditurik nago'. *Errenditwik, lo gelditu da* 'errenditurik, lo gelditu da'. Ik. **nekatu**.

errengetako

GORAKO, OKA

vómito

errenguletia [?]

errenguletia (errenguleta) iz. [Pequeña cuña de hierro, con corte. Se coloca en el extremo de una vara y sirve para despegar la tierra que se fija a los instrumentos de labranza. JMS]. (LM): **erremunetia**.

errenta, errentia

ERRENTA

alkiler

renta, alquiler

errenta iz. *Majo patzen du etxeko errentĭa* 'majo pagatzen dugu etxeko errenta'. Ik. **alkiler**. ◆ **errentan eman**. Errenta bat kobratuz, eman. Ik. **alkilatu**. ◆ **errentan hartu**. Errenta bat ordainduz, hartu. Ik. **alkilatu**. ◆ **errentan paratu** (> *errentan patu*).

errentan eman

ERRENTAN EMAN

alkilatu

dar en arriendo, arrendar, alquilar

errentan eman. Errenta bat kobratuz, eman. Ik. **alkilatu**.

errentan hartu

ERRENTAN HARTU

alkilatu

tomar en arriendo, arrendar, alquilar

errentan hartu. Errenta bat ordainduz, hartu. Ik. **alkilatu**.

errentan patu

ERRENTAN PARATU

poner en arriendo, poner en alquiler

errentan paratu (> *errentan patu*).

errentero, errenterua

ERRENTERO, ERRENTARI, MAIZTER

maiztar

nagosi

arrendatario, -a

errentero (eta *rentero*) iz. Errentaria, maizterra. Ik. **maiztar**.

errepatu, errepatzen (?)

ERREPARATU

observar, percatarse, fijarse, darse cuenta

errespetatu, errespetatzen

ERRESPETATU

respetar, acatar

errespetatu *dau* ad. *Eztau agindutakwa errespetatzen* 'ez du agindutakoa errespetatzen'.

errespetu, errespetua

ERRESPETU

respeto, consideración

errespetu iz. Begirunea. *Errespetu gutxi*. *Errespetwik ez* 'errespeturik ez'.

erresponso, erresponsua

ERRESPONTSU

responso

erresponso **1** iz. (Erl.) Errespontsua, hilen aldeko otoitza. **2** iz. *Erresponso ondoti ematen dan dirua* 'errespontsu ondotik ematen den dirua'. || Erresponsua bota apizai (Ond Bak).

erreten, erretena ERRETEN

ubarka, presa; parada

presa del río

erreten iz. Uharka, presa {Presa del rio (Iza Alts)}. Ik. **ubarka**; **presa**; **errotain**; **parada**.

erretilu (?) ERRETILU

fuente

bandeja, fuente, plato grande

erretilu iz. Ik. **fuente**.

erretxina, erretxinia ERRETXINA

resina

erretxina iz. *Pinuen erretxiñă* 'pinuaren erretxina'.

erretzaile, erretzailia ERRETZAILE

2 fumatzaile

abrasador, -a, ardiente

fumador, -a

erretzaile **1** adj. Erretzen duena (?). **2** iz. (Tabakoa) erretzen duen pertsona. ▲ Sin. *fumatzaile*.

errezatu, errezatzen ERREZATU

rezar

errezatu *dau* ad. Otoitz egin.

errezatzaile OTOIZLARI, OTOIZGILE

rezador, -a, orante

errezatzaile iz. Otoizlaria. Errezua gidatzen duen pertsona.

errezelatu, errezelatzen ERREZELATU

susmatu

recelar, sospechar

errezelatu *dau* ad. Errezeloa eduki, susmatu. Ik. **susmatu**.

errezelo, errezelua ERREZELO

susmo; bildur

recelo, sospecha; duda

errezelo iz. Susmoa; beldurra. Ik. **susmo**; **bildur**.

errezeta, errezetia ERREZETA

receta

errezeta (LM) (eta *rezeta*) **1** iz. Sendagaien eta janarien osagaien zerrenda eta prestatzeko modua. **2** iz. Irud. Ik. **formula**. **3** iz. Eriak hartu behar duen sendagaia adierazten duen ohar idatzia.

errezetatu, errezetatzen ERREZETATU

(medikuek) agindu

recetar (el médico)

errezetatu (LM) (eta *rezetatu*) *dau* ad. Ik. **medikuak agindu** (> *medikuek agindu*).

errezka, errezkia
ERRESKADA, ERRENKADA

errezkada, ilada

fila, hilera, serie

errezka (> *errezkĭa*) iz. Erreskada, errenkada. Ik. **errezkada**; **ilada**. ◆ **errezka galdu** (> *errezkĭa galdu*). Txanda galdu, aldia galdu. ◆ **errezka tokatu** (> *errezkĭa tokatu*). Txanda izan. ◆ **errezkan** adb. Erreskadan. Ik. **errezkadan**. ◆ **errezkan paratu / jarri / egon** (> *errezkan patu*, *jarri*, *yon*). Errenkadan paratu; errenkadan jarri; errenkadan egon.

errezkada, errezkadia
ERRENKADA, ERRESKADA

ilara, errezka

fila, hilera

errezkada iz. Errenkada, erreskada. *Oi ardi errezkadĭa!* 'hori ardi erreskada!'. *Auto errezkadĭa* 'auto erreskada'. *Errezkada aundia zon dendan* 'erreskada handia zegoen dendan'. Ik. **errezka** (> *errezkĭa*); **ilara**. ◆ **errezkadan** adb. erreskadan, errenkadan. *Bat bestĭen atzeti, errezkadan etor zaizkio gaitz guztĭek* 'bat bestearen atzetik, erreskadan etorri zaizkio gaitz guztiak'.

errezkan patu / jarri / yon
ERRENKADAN PARATU / JARRI / EGON

errezkadan patu / jarri / yon

poner(se) en fila, en hilera; estar en la fila, en la hilera

errezkan paratu / jarri / egon (> *errezkan patu*, *jarri*, *yon*). Errenkadan paratu; errenkadan jarri; errenkadan egon. Ik. **errezkadan**.

erreztasun
ERRAZTASUN

facilidad, ventaja

errezu, errezua
ERREZO, OTOITZ

oración, rezo

errezu ([Urdiain, Altsasu]) iz. Errezoa, otoitza.

errifa, errifia
ZOZKETA

rifa, sorteo

errifa (eta *rifa*) iz. Zozketa. Ik. txosketan.

errifatu, errifatzen
ZOZKATU

rifar, sortear, echar a suertes

errifatu (eta *rifatu*) *dau* ad. Zozkatu.

erro auntzu, erro auntzua
ERRO ANTZU

teticiega

erro antzu (> *erro auntzu*, *erro auntzua*) (LM). ◆ **erroa sekatu** (> *errwa sekatu*) (EHHA).

erro mutur
TITIBURU

titimutur

pezón

erro mutur iz. Titiburua. *Urde orrek amalau erro-mutur dekatza* (*dukatzi* [Urdiain]) 'urde horrek hamalau erro-mutur dauzka' (Ond Bak). *Animaliena, erro-mutur; emakumiena, titi-mutur* 'animaliarena, erro-mutur; emakumearena, titimutur'. Ik. **titimutur**.

erro, errua

ERRO

errape, errosagar, titi; titiriti

pezón, teta

erro (Iza Alts) iz. Errapea, animalia emearen ugatz multzoa. || *Erro haundia deka bahi 'behi' horrek*. Berdin dia erro ta errape (Ond Bak). *Txerriari iten zaio errua estutu* (?) (Ond Bak). Ik. **errape**; **errosagar**; **titi**; **titiriti**. ◆ **erro antzu** (> *erro auntzu*, *erro auntzua*) (LM). ◆ **erroa sekatu** (> *errwa sekatu*) (EHHA). ◆ **erroko min**.

erroi, erroia

ERRETXIN, ERRE(A), HASERRE(A)

erroitu

cascarrabias, irritable

erroi adj. Erretxina; haserretzeko edo marmarka hasteko joera duena. *Persona erroia*: pertsona errea, haserrea; erresumindua. Ik. **erroitu**.

erroitu, erroitua

ERRETXIN

garraxi

perrengue; cascarrabias, irritable

erroitu* **1** adj. Erretxina; haserretzeko edo marmarka hasteko joera duena. *Erroitua*. ◆ **erroitu batean ibili** (> *erroitu batĭen ibili*). Haserre ibili; garrasi batean ibili. *Erroitu batĭen jailek oi* 'erroitu [haserre / garrasi] batean zabilek hori'. Ik. **erroi**.

erroitu, erroitzen (?)

ERRETXINDU

irritar(se), poner(se) de mal genio

erroitu [?] ad. Erretxindu.

Erroma

ERROMA

Roma

Erroma. *Fan emen zien Erromá* 'joan omen ziren Erromara' (Ond Bak). ◆ **Erromako Bidea** (> *erromako bidĭa*). Esne Bidea. *Erromako Bidĭa: gaubĭen zeruen ikusten dan laino txuia* 'Erromako Bidea: gauean ikusten den laino zuria' [Vía Láctea (?)]. ◆ **Erromako Zubia** (> *Erromako zuia*).

Erromako bide, Erromako bidia

ERROMAKO BIDE;

Erromako Bide. Esne bidea (?) Laino zuia; udan, bide bat bekela... [Osa mayor?; Vía lactea?]. Erromako zubi (?) Ik. Erromako zubi.

Erromako zui, Erromako zuia

ERROMAKO ZUBI

Erromako Zubi (> *erromako zwi*). Santio bide ?
laino zuia, udan, bide bat bezela...
Ik. Erromako bide.

erromeia

ERROMERIA

romería, fiesta popular junto a una ermita

erromeria (> *erromeia*) iz. *Erromeia eguna da eldwan domekan* 'erromeria eguna da heldu den domekan'.

erromero, erromerua

ERROMERO (1)

romero (Rosmarinus officinalis)

erromero iz. (Bot.) Landare usainduna (Rosmarinus officinalis). *Gosaitako, erromero ura hartzen dau* 'gosaritarako, erromero ura hartzen du'.

errore, erroria

ERRORE

error

errore iz. *Erroria ibil dau gizajworrek* 'errorea ibili [izan] du gizajo horrek'.

errosa kolore, errosa koloria

ARROSA KOLORE

rosa (color)

errosa kolore. **1** adj. Arrosa kolorekoa. **2** iz. Arrosa kolorea.

errosa, errosia

ARROSA

rosa

errosa **1** iz. (Bot.) Arrosa; arrosa-landarearen lorea. **2** adj./iz. **errosa kolore**. **1** adj. Arrosa kolorekoa; gorri argi kolorekoa. **2** iz. Arrosa kolorea. *Errosa koloria* 'arrosa kolorea'.

errosadi, errosadia

ARROSADI

rosaleda

errosadi iz. Arrosadia. *Oi errosadi ederra dukazuna!* 'hori arrosadi ederra daukazuna!'.

errosagar

ERROSAGAR, ERRAPE

ubre, mama; conjunto de mamas

errosagar (eta *errosar* [Urdiain]) 1 iz. Errapea. Erro-sagar haundia deka urde horrek (ez erro haudia) (Ond Bak). 2 iz. Errosarra: ama berrien erroa [Urdiain]. [Batuaz, errosagar: errapearen gogortzea (Endurecimiento de los pezones de la ubre; endurecimiento de la ubre)].

errosaio, errosaiua

ARROSARIO

rosario (oración)
rosario (objeto)
rosario (acto religioso)

errosario (> *errosaio*) **1** iz. Arrosarioa, katolikoen otoitza. **2** iz. Arrosarioa errezatzeko erabiltzen den katetxo itxi aleduna. **3** iz. Arrosarioa errezatzen den elizkizuna.

erroseta, errosetia

BEGIZTA, TXIBISTA

begita, lazo; txibita

lazo, lazada

erroseta iz. Begizta, txibista. *Erregalwa kajatxuetien sartuta ta zintiekin errosetia inik* 'erregalua kaxatxo batean sartuta eta zintarekin erroseta [begizta] eginik. Ik. **begita**; **lazo**; **txibita**.

errota, errotia

ERROTA

molino

errota iz. *Errota... Ta errotati etxa* 'errotara... Eta errotatik etxera' (Ond Bak). • Esr. zah. *Gu ilda're, zakuek errota fanko dia* 'gu hilda ere, zakuak errotara joango dira' [bizitzak segituko du].

errotain, errotaina
ANTAPARA, ERRETEN

acequia del molino; caz

errotain iz. Antapara, erretena; errotara ura eramaten duen ubidea. Ik. **erreten**.

errotarri, errotarria
ERROTARRI

muela, rueda de molino

errotarri iz. Errotako harri biribila, alea ehotzeko erabiltzen dena.

errotazai, errotazaia
ERROTAZAIN

molinero, -a

errotazai iz. Errotazaina. *Errotazaienak* 'errotazainenak'.

errueda
ARRABIO; UHANDRE

arrikopiko

salamandra (Salamandra salamandra)
salamandra acuática, (tritón)

errueda iz. (Zool.) Arrabioa (Iza Alts). Ik. **arrikopiko**.

erruki, errukia
ERRUKI

errukimentu, miserikordia, konpasio, kupida (?)

compasión, lástima; misericordia, piedad

erruki iz. Ik. **errukimentu**; **miserikordia**; **konpasio**; **kupida** (?).

errukimentu, errukimentua
ERRUKIMENDU

miserikordia, erruki, konpasio, kupida (?)

misericordia, compasión

errukimentu iz. Errukimendua. *Pobriendako errukimentua* 'pobreendako errukimendua'. Ik. **miserikordia**; **erruki**.

errukitsu, errukitsua
ERRUKITSU

compasivo, -a, misericordioso, -a

errukitsu adj.

errukitu, errukitzen
ERRUKITU

kupitu, lastimatu (LM)

compadecerse, apiadarse, tener piedad

errukitu *da* ad. Ik. **kupitu**; **lastimatu**.

ertitz, ertitza
ITZEMIN; ELTUR, ERPURUKO

panadizo; uñero

ertitz iz. Itzemina; elturra, erpurukoa. || *Bihetza materiaz beteik jartzen da* (Ond Bak). *Aproposa da min bearra ertitzak ongitzeko* 'aproposa da min belarra [eritsitona] ertitzak ongitzeko'.

ertz, ertza
ERTZ

borde, margen; arista; esquina, borde, boca de un orificio

ertz iz. Gauza lau bat bukatzen den aldea. ◆ **ertza egin** / **hartu** / **josi** (> *ertza in / artu / josi*) [Josketa]. *Oialan ertza* 'oihalaren ertza'.

eru, erua

ERU

yero, girón

eru (eta *aru*, *arua* [Urdiain]) iz. (Bot.) (Ervilia sativa (?); Vicia ervilia). *Txindilia bekelako pentsua, beieri-ta ematen zaiena* 'txindila [dilista] bezalako pentsua, behiei-eta ematen zaiena'. *Txerrieindako txarra zan erua* 'txerriendako txarra zen erua'.

esaera, esaeria

ESAERA

dicho; refrán, proverbio

esaera iz. Asko erabiltzen den esaldia; bereziki, herriak ontzat ematen duen iritzi edo uste bat. ◆ **esaera izan [da / zen]** (> *esaerĭa da / zan*). *Esaeria dá bi begik baindo laurek gehio ikusten deila* (daila) (Ond Bak).

esan nahi izan

ESAN NAHI IZAN

significar, querer decir

esan nahi izan *dau* ad. Adierazi, halako esanahia izan. *Ze esan nai dau orrek?* 'zer esan nahi du horrek?'.

esan, esana

ESAN (2)

mandato, orden

esan[2] iz. *Aitzan esana!* 'adi ezan esana'. *Keba!, eztau aitzen esana* 'bai zera!, ez du aditzen esana'. ◆ **aditu esana** (> *aitu esana*) interj. Obeditu, esana egin. *Aitu esana!* 'aditu esana'. *Aitazu esana ta yon txintxo-txintxo* 'aditazu esana eta egon txintxo-txintxo'. *Aur orrek eztau aitzen esana* 'haur horrek ez du aditzen esana' [Ez du obeditzen]. ◆ **-en esanetara** (> *-en esanetá*). -en agindura, -en zerbitzura. *Orren esanetá jailek; kaso iten badĭa...!* 'horren esanetara zabilek; kasu egiten badio...!'.

esan, esaten

ESAN (1)

decir; contar, relatar
celebrar/decir misa
dar el nombre de, decir, llamar
decidir, resolver, fallar, dirimir

esan[1] **1** *dau* ad. *Atzo gauza bat esaten zen, gaur bestat* 'atzo gauza bat esaten zuen, gaur beste bat'. *Etortzeko esan duet* 'etortzeko esan diat'. || (Ond Bak): Esan zaken (neri). Esan gindaken (hari). Esantazu. Nik esanko nake. Nik esain nake. Esatia. Esango dezait. Esaniá. • Esr. zah. *Gaizki esanak barkatu, ongi esanak poltsan sartu* (Ond Bak). || **2** *dau* ad. (Esapideetan). *Egia esaten badezut* 'egia esaten badizut'. *Egia esanda*. *Esan berrik ezto* 'esan beharrik ez dago'. *Nok esan ber zen* 'nork esan behar zuen'. *Ez esan! Ezazu esan! Hitzik ez esan*. *Itzik esan be* 'hitzik esan gabe'. *Hobeto esanda*. *Esan bekela*. *Ze esanik ez* 'zer esanik ez'. *Nola esanko duet pa...* 'nola esango diat bada, (...)'. | *Zuk esan ber tuzunak!* 'zuk esan behar dituzunak!' *Ik esan ber tukenak / tunenak!* (ez sinestekoak). | **3** *dau* ad. Mezia esan 'meza esan'. Mezia esanik do, emanik do 'meza esanik dago, emanik dago'. **4** *da/dĭa* ad. Izendatu, deitu. *Nola esaten dĭazai txorizwai?* 'nola esaten diozue txorizoari?'. **4** *dau* ad. Erabaki. *Amak esankoik* 'amak esango dik'. *Ik esanko don* 'hik esango dun'. Ik. **deziditu**; **erabaki**. ◆ **berriz esan**. Errepikatu. Ik. **repetitu**. ◆ **esan nahi izan** *dau* ad. Adierazi, halako esanahia izan. *Ze esan nai dau orrek?* 'zer esan nahi du horrek?'. *Itz orrek eztakit ze esan nai den* 'hitz horrek ez dakit zer esan nahi duen'. ◆ **asko esan nahi izan** *dau* ad. Asko balio. *Etxĭen patatĭa ibiltzĭa, asko esan nai dik* 'etxean patata ibiltzea [etxeko patata edukitzea], asko esan nahi dik'. ◆ **nahikoa esan** (> *náikwa esan*). Nahikoa (argi) esan, zalantzarako biderik utzi gabe; ohartarazi. Ik. **adbertitu**. *Naikwa esan nĭaken* 'nahikoa esan nioan'. ◆ **esantazu** / **esantzak** / **esantzan** (...). (= pensatazu; kontu intazu). Aintzat hartu; kontuan hartu; gogoan hartu. (Argudio edo gogoeta baten abiapuntutzat erabiltzen diren esapideak). *Esantazu gaur naurriek txiki gelditzen dĭala* 'esan ezazu [kontuan har ezazu] gaur neurriak txiki gelditzen direla'. (Ten en cuenta...). *Esantazu udaberria gwaindo gwai asi dala* 'esan ezazu udaberria oraino [oraindik] orain hasi dela. ◆ **esanik ibili** [eduki]. Aldez aurretik agindurik izan. *Esanik dukat*, *esanik duka*, *esanik duku...* ◆ **zer esan** (> *zesan*). *Ya eztaki ze esan e* 'ja (jada) ez daki zer esan ere'. ◆ **zer esanik (ere) ez** (> *zesanik ez*). Esan beharrik ez dago. *Ondo gabitazai jantokia, ta, zesanik ez, sukaldĭa* 'ondo garbi ezazue jantokia, eta, zer esanik ez, sukaldea'. || *Esan berrik ez yon* 'esan beharrik ez egon'.|| *Esan ta in* 'esan eta egin'. || *Esan da (ta) esan* 'esan eta esan'. || Asko esan nahi (asko balio). || esateko orduen, momentuen 'esateko orduan, momentuan'. || *Kristonak esan* 'kristorenak esan'. || *Ezin esan dĭanak* 'ezin esan direnak'.¬

esanazi, esanazten

ESANARAZI

hacer decir

esanarazi (> *esanazi*) *dia* ad. Esatera behartu. *Zakiena esanazi* 'zekiena esanarazi'.

esandako, esandakua

ESAN(A), AGINDU(A) / ESANDAKO,

esanioko

(lo) dicho
mandato, orden

esandako iz. Esana; agindua. ◆ **esandakoa egin** (> *esandakwa in*). Esana egin. *Esandakwa / esaniokwa eztau in* 'esandakoa ez du egin'. Ik. **esanioko**.

esandakua in
ESANDAKOA EGIN, ESANA EGIN

obeditu

obedecer,

esandakoa egin (> *esandakwa in*). Esana egin. *Esandakwa / esaniokwa eztau in* 'esandakoa ez du egin'.

esanioko, esaniokua
ESAN(A)

esandako

(lo) dicho

mandato, orden

esanioko (eta *esaniako*, *esaniakwa*) iz. Esana, esandakoa. *Tio Bizentek esaniakuek berai* (Ond Bak). Ik. **esandako**.

esantazu / esantzak / esantzan
AINTZAT HARTU, KONTUAN HARTU, GOGOAN

tener en cuenta, tomar en consideración

esantazu / **esantzak** / **esantzan** (...). (= pensatazu; kontu intazu). Aintzat hartu; kontuan hartu; gogoan hartu. *Esantazu gaur naurriek txiki gelditzen dĭala* 'esan ezazu [kontuan har ezazu] gaur neurriak txiki gelditzen direla'. (Ten en cuenta...). *Esantazu udaberria gwaindo gwai asi dala* 'esan ezazu udaberria oraino [oraindik] orain hasi dela.

esate batiako
ESATE BATERAKO

esate baterako (> *esate batĭako*) adb. Adibidez.

esate, esatia
ESATE

gonbeztako, adibidez

dicho, decir

esate iz. *Esatĭa yukan* 'esatea heukan [esan hezakeen ?]'. *Esatĭa libre* 'esatea libre'. ◆ **esate baterako** (> *esate batiako*) adb. Adibidez. ◆ **esatea ere** (> *esatĭa're*). *Olakoik esatĭa're!* 'holakorik esatea ere!'.

esateko, esatekua
ESATEKO

lo que se tiene por decir; queja, reproche, crítica

esateko iz. Esaten den edo esan behar den gauza. *Orrek kontu oitan eztuka ezere esatekoik* 'horrek kontu horietan ez dauka ezer ere esatekorik'. *Esateko modu bat don* 'esateko modu bat dun'. ◆ **esateko modu**. Esamoldea, esateko era. *«Bost badakik ik» Urdingo esateko modu bat da «ik eztakik ezerrez» esateko* '«bost badakik hik» Urdiaingo esateko modu bat da «hiz ez dakik ezer ez» esateko'.

esatia re!
ESATEA ERE!

¡qué dices!; pero ¡qué dices!; (...)

esatea ere (> *esatĭa're*). *Olakoik esatĭa're!* 'holakorik esatea ere!'.

esenatu, esenatzen
ESNATU, IRATZARRI

espabilatu

despertar(se); espabilar(se)

esenatu *da/dau* ad. Esnatu, iratzarri. *Esenatzekwen bromatako gogo gutxi ibiltzen dau* 'esnatzerakoan bromatarako gogo gutxi ibiltzen [izaten] du'. Ik. **espabilatu**.

esenatuazi
ESNARAZI

hacer despertar

esenatuazi *dau* ad. Esnarazi, esnatzera behartu.

esene gain, esene gaina
ESNE-GAIN

tela

nata [de la leche]; tela, crema [de la leche]

esene gain. Esne gaina. *Eseněn gaina* 'esnearen gaina'. E*sene lodia, esene gain asko dukana; esene mea, esene gain gutxi dukana* 'esne lodia, esne gain asko daukana; esne mehea, esne gain gutxi daukana'. Ik. **tela**.

esene zopa(k)
ESNE ZOPA(K)

leche con sopas

esene zopa(k) iz. pl. Esne zopa(k).

esene-sulso, esene-sulsua
ESNE SULTSO

lactario, -a (setas lactarias, lechosas)

esene-sulso iz. Esne sultsoa; Lactarius generoko onddoak (Lactarius tormitosus; Lactarius torminosus).

esene, esenia
ESNE

leche

esene (eta *esne* (?) [Bakaiku]) iz. Esnea. Ardieirí eseniá jeixtéko (Ond Bak) ||. *Esene lodia, esene gain asko dukana; esene mea, esene gain gutxi dukana* 'esne lodia, esne gain asko daukana; esne mehea, esne gain gutxi daukana'. • Esr. zah. *Bakaiku, ez esene ta ez kaiku*.

esenetsu, esenetsua
ESNETSU

que tiene leche, que da mucha leche

esenetsu *adj*. Esnetsua.

esenezale, esenezalia
ESNEZALE

que le gusta la leche

esenezale adj. Esnezalea.

esforzatu, esforzatzen
AHALEGINDU

alaindu

empeñarse, esforzarse, hacer lo posible

esforzatu *da* ad. Ik. **ahalegindu** (> *alaindu*).

esfuerzo, esfuerzua
ESFORTZU

alain

esfuerzo

esfuerzo iz. Esfortzua. Ik. **ahalegin** (> *alein*, *alain*)

eskaera, eskaeria
ESKAERA

petición, pedido

eskaera iz. ◆ **eskaera bota** (> *eskaeřia bota*) (?) ◆ **eskaera egin** (> *eskaeřia in*).

eskandalizatu, eskandalizatzen ESKANDALIZATU

escandalizar(se)

eskandalizatu *da/dau* ad. Eskandalua eman; eskandalua hartu.

eskandalo, eskandalua ESKANDALU

istilu, yausi

escándalo, mal ejemplo; acto que choca con las convenciones sociales
estrépito, bulla

eskandalo iz. Eskandalua. Ik. **istilu**; **yausi**[1]. ◆ **eskandalua eman**.

eskandaloso, eskandalosua / eskandalosa, ESKANDALAGARRI

escandaloso, -a, que escandaliza

eskandaloso, -a (Generoa hartzen du) adj. Eskandalagarria, eskandalizatzen duena.

eskapada, eskapadia ESKAPADA

escapada, librada

eskapada iz. (bereziki *egin* aditzarekin). ◆ **eskapada egin** (> *eskapadĭa in*). *Larri ibil(i) da; a ze eskapadĭa in dau!* 'larri ibili da, a ze eskapada egin du'.

eskapatu, eskapatzen ESKAPATU

ihes in

escapar

eskapatu *da* ad. ▲ Sin. *ihes in*, *eskapo in*.

eskapo ESKAPU

alde, fu; ihesi

escapatoria
escaparse, largarse, huir

eskapo iz. (?) Eskapu, ihesaldia. ◆ **eskapo egin** (> *eskapo in*). *Etxeti eskapo in dau* 'etxetik eskapo egin du'. ▲ Sin. *aldein*, *fu in*. Ik. **ihesi**.

eskarabajo, eskarabajua KAKALARDO

escarabajo

eskarabajo iz. Kakalardoa. *Patatĭen eskarabajwa* 'patataren zomorroa'. Ik. **zapo**.

eskardilla, eskardillia / eskardillo, [NEKAZARI TRESNA]

escardilla, almocafre (?)

eskardilla (eta *eskardillo*, *eskardillwa*) iz. Jorrarako eta markatzeko erabiltzen zen nekazari tresna [ez da aitzurra]. Ik. **jorrai**.

eskarmentatu, eskarmentatzen ESKARMENTATU

escarmentar, tomar enseñanza

eskarmentatu *da/dau* ad.

eskarmentu, eskarmentua ESKARMENTU

escarmiento, lección, aviso

eskarmentu iz. ◆ **eskarmentua hartu**. ◆ **eskarmentua eman**.

eskarmentua hartu

ESKARMENTUA HARTU

escarmentar

eskarmentua hartu (> *eskarmentua artu*).

eskarola, eskarolia

ESKAROLA

escarola

eskarola iz. (Bot.) (Cichorium endivia).

eskarpin, eskarpina

ESKARPIN

escarpín; calcetín grueso; zapato ligero

eskarpin (eta *exkarpin*). Batez ere pl. *eskarpinak*.

eskas, eskasa

ESKAS

insuficiente, escaso, -a, poco, -a; corto, -a; parco, -a
malo, -a, defectuoso, -a, de poca calidad
escaso, -a; falto, -a

eskas (eta *exkax*) **1** adj. Urria. **2** adj. Behar bezain on edo egoki ez dena. **3** adb. Eskasian, urritasunez.

eskasia

ESKASIA

falta

escasez; falta, carencia

eskasia iz. *Ur eskasia aundia do* 'ur eskasia handia dago'. *Urte eskasa fan da eta eskasia aundia do* 'urte eskasa joan da eta eskasia handia dago. Ik. **falta**.

eskastu, eskasten

ESKASTU

murritu

faltar; agotarse, acabarse

eskastu *da* ad. ▲ Sin. *murritu*.

eskatima, eskatimia

ESKATIMA

petición

eskatima iz. *Oi eskatimĭa! Beti eskatzen!* 'hori eskatima! Beti eskatzen!'.

eskatu, eskatzen

ESKATU

pedir, rogar, exigir, solicitar
requerir

eskatu **1** *dau* ad. Eskatu zegubein 'ziguten'. Eskatu emen zatzan 'zizkion' (Ond Bak). **2** *dau* ad. Gauzengatik esanda, behar bezalakoak izateko baldintza batzuk behar izan. *Gela ilunak kolore argiekin txwitzĭa eskatzen dau* 'gela ilunak kolore argiekin zuritzea [margotzea] eskatzen du'. ◆ **alferrik eskatu**. Behar ez dena edo jasoko ez dena alferrik eskatu.

eskatzaile, eskatzailia

ESKATZAILE

2 jito

emataile, ematzaile

solicitante
mendigo, -a; pordiosero, -a

eskatzaile **1** iz. Eskaera egiten duena. **2** iz. Eskalea. Ik. **jito**. ▼ Anton. **emataile**; **emantzaile**.

eske

ESKE

bila

petición; solicitud; demanda
cuestación, postulación
pidiendo; mendigando
buscando, en busca (de)

eske **1** adb. Eskatzen. *Libuek eske etor dĭa* 'liburuak eske etorri dira'. *Zure eske fan dia* 'zure eske joan dira'. *Orbel eske... Argitze orduko belar eske ta*. Ik. **bila**. [Oharra: Ez dira sinonimoak '*eske*' eta '*bila*'. Joaten zara *asolbiziua, belar, mugarrak, ur eske*, non lortu ditzakezun edo non dituzun badakizulako; baina joaten zara *ziza bila*, badakizulako non izan ohi diren eta non izan daitezkeen. Larre edo belardira joan zaitezke *belar eske*, baina *ziza bila*]. *Goizeko amarretan ogi eske fan berra dukat* 'goizeko hamarretan ogi eske joan beharra daukat'. **2** iz. Eskatzea. *Esketik bizi zan* (?) 'esketik bizi zen'. ◆ **eskean** (> *eskĭen*) adb. ◆ **eskean ibili** (> *eskĭen ibili*). *Etxeik etxe, eskĭen daitza* 'etxerik etxe, eskean dabiltza'. ◆ **eskera** (> *eskĭa*) adb. *Eskĭa fan da* 'eskera joan da'. || *Honutza eskea etortze zanín* 'honantza [hona] eskera etortzen zenean' (Iza Alts).

eskei, eskeia

AUKERA, EGOKIERA

aukera

oportunidad, ocasión

eskei iz. Eskaida*, aukera, egokiera. *A ze eskeia galdu dik!* 'a zer aukera galdu dik!'. *Gwaixe dukan eskei ona autwa yosteko* 'oraintxe daukan eskei [aukera] ona autoa erosteko'. Ik. **aukera**. [OEH eskaida (H, A), eskai. Oportunidad, ocasión.]

eskeini, eskeinia

ESKAINI (2)

ofrecimiento, oferta

eskeini[2] iz. Eskainia. *Eskeinia gutxi da* 'eskainia gutxi da'.

eskeini, eskeintzen

ESKAINI

2 dedikatu

ofrecer
dedicar

eskeini[1] **1** *dau* ad. Eskaini. *Lana eskeini dĭai* 'lana eskaini diote'. **2** *dau* ad. *Denbora asko eskeini dĭa musikĭai* 'denbora asko eskaini dio musikari'. Ik. **dedikatu**.

esker

ESKER

agradecimiento, gratitud
favor, beneficio

esker iz. pl. ◆ **esker eman** (> *eskerr'eman*) [Bakaiku]. Eskerrak eman. *Eskerr'eman akordatu zaitela*. *Eskerr'eman ni enaizela fan siesta*. *Eskerr'eman Bitor etxien zola* (Ond Bak). ◆ **esker oneko** adj. *Esker oneko jendĭa da* 'esker oneko jendea da'. *Ez zen esker oneko gainuik in* 'ez zuen esker oneko keinurik egin'. ▼ Anton. *esker txarreko*. ◆ **esker txarreko**. *Binapin, esker txarreko hitzik eztau esan* 'behinik behin, esker txarreko hitzik ez du esan'. *Esker txarreko personĭa izan da beti* 'esker txarreko pertsona izan da beti'. ▼ Anton. *esker oneko*. ◆ **eskerrak**. **1** Eskerrak emateko erabiltzen den esapidea. *Eskerrak zuri*. *Eskerrak horri*. **2** (Esaldi konpletibo bat lagun duela). *Eskerrak ez gala fan* 'eskerrak ez garela joan'. *Eskerrak eztala etorri* 'eskerrak ez dela etorri'. *Eskerrak eztekala yaurik* 'eskerrak ez dakarrela euririk'. *Eskerrak...* [menos mal...]. ◆ **eskerrak eman**. Eskertu. *Eskerrak eman ber diatzit* 'eskerrak eman behar dizkiot'. ◆ **eskerrak emataile**. Eskerduna, esker onekoa. ◆ **eskerrik asko**. *Eskerrik asko launtzĭaitik* 'eskerrik asko laguntzeagatik'. *—Eskerrik asko, i! —Ez orrengeitik* 'eskerrik asko, hi! —Ez horregatik'. *Eztot nai; eskerrik asko* 'ez dut nahi; eskerrik asko'. ◆ **-i esker**. *Ari esker ikas(i) genduen eskwaz laitzen* 'hari esker ikasi genuen euskaraz leitzen'. ¬

esker eman

ESKER EMAN

eskerrak eman

dar las gracias, agradecer

esker eman (> *eskerr'eman*) [Bakaiku]. *Eskerr'eman akordatu zaitela*. *Eskerr'eman ni enaizela fan siesta*. *Eskerr'eman Bitor etxien zola* (Ond Bak).

esker oneko, esker onekua

ESKER ONEKO

esker txarreko

agradecido, -a

esker oneko adj. *Esker oneko jendĭa da* 'esker oneko jendea da'. *Ez zen esker oneko gainuik in* 'ez zuen esker oneko keinurik egin'. ▼ Anton. *esker txarreko*.

esker txarreko, esker txarrekua

ESKER TXARREKO

esker oneko

desagradecido, -a, ingrato, -a, malagradecido, -a

esker txarreko. *Binapin, esker txarreko hitzik eztau esan* 'behinik behin, esker txarreko hitzik ez du esan'. *Esker txarreko personĭa izan da beti* 'esker txarreko pertsona izan da beti'. ▼ Anton. *esker oneko*.

eskerrak

ESKERRAK

gracias
menos mal

eskerrak. **1** Eskerrak emateko erabiltzen den esapidea. *Eskerrak zuri*. *Eskerrak horri*. **2** (Esaldi konpletibo bat lagun duela). *Eskerrak ez gala fan* 'eskerrak ez garela joan'. *Eskerrak eztala etorri* 'eskerrak ez dela etorri'. *Eskerrak eztekala yaurik* 'eskerrak ez dakarrela euririk'. *Eskerrak...* [menos mal...].

eskerrak emataile, eskerrak ematailia

ESKERDUN, ESKER ONEKO

agradecido, -a; reconocido, -a

eskerrak emataile. Eskerduna, esker onekoa.

eskerrik asko

ESKERRIK ASKO

muchas gracias

eskerrik asko. *Eskerrik asko launtzĭaitik* 'eskerrik asko laguntzeagatik'. — *Eskerrik asko, i! —Ez orrengeitik* 'eskerrik asko, hi! —Ez horregatik'. *Eztot nai; eskerrik asko* 'ez dut nahi; eskerrik asko'.

eskertu, eskertzen

ESKERTU

dar las gracias (a)
agradecer, dar las gracias (por)

eskertu **1** *dau* ad. *Eskertzen dezut* 'eskertzen dizut'. *Eskertzekwa da dukan portaerĭa* 'eskertzekoa da daukan portaera'. *Eskertzĭa falta zaizu* 'eskertzea falta zaizu'. **2** *dau* ad. *Sargoriekin, ondo eskertzen genduen zerbeza otza* 'sargoriarekin, ondo eskertzen genuen garagardo hotza'. ◆ **eskerturik** (> *eskertuik*) adb. *Eskertwik yon berko zindake* 'eskerturik egon beharko zinateke [zenuke]'.

eskertuik

ESKERTURIK

agradecido, -a

eskerturik (> *eskertuik*) adb. *Eskertwik yon berko zindake* 'eskerturik egon beharko zinateke [zenuke]'.

eskia

ESKERA

a pedir, a mendigar

eskera (> *eskĭa*) adb. *Eskĭa fan da* 'eskera joan da'. || *Honutza eskea etortze zanín* 'honantza [hona] eskera etortzen zenean' (Iza Alts).

eskien ibili

ESKEAN

pidiendo; mendigando

eskean ibili (> *eskĭen ibili*). *Etxeik etxe, eskĭen daitza* 'etxerik etxe, eskean dabiltza'.

eskila-maila, eskila-mailia

ESKAILERA-MAILA

sapalda

peldaño, escalón

eskila-maila **1** iz. Eskailera-maila. *Arrizkwa izaten zan lemizko eskila-mailĭa; zurezkwek, besteinekwek* 'harrizkoa izaten zan lehendabiziko eskailera-maila; zurezkoak, beste gainerakoak. Ik. **maila**; **sapalda**. **2** Irud. **eskailera-maila jaitsi** (> *eskila-mailĭa jaitxi*). Makaldu, osasuna galdu.

eskila, eskilia

ESKAILERA

matxarda

escalera
escalera de mano

eskila iz. (Singularrean nahiz pluralean) *Eskilak*. Eskailera. Ik. **eskilara**; **matxarda**.

eskilabu, eskilabua

ESKAILERA BURU

rellano, descansillo, meseta; parte alta de la escalera

eskila(ra) buru (> *eskilabu*) iz. Eskailera burua, eskaileraren goialdea. *Eskilabua, azken eskilĭa* 'eskailera burua, azken eskailera'. Ik. **ganbara-txiki** (> *ganbatxiki*).

eskilara, eskilaria

ESKAILERA

eskila

escalera
escalera de mano

eskilara, **eskila*** (> *eskilera* [Altsasu]) iz. [*Oharra: *eskilara* eta *eskila*, bi formak ibiltzen dira sinonimo balira bezala]. (Singularrean nahiz pluralean). Eskailera. *Eskilak*; *eskilarak*. ◆ **eskila(ra) azpi** (> *eskilazpi*) iz. Eskaileraren azpian dagoen lekua. *Eia ibiltzen genduen eskilazpien* 'heia [txerritegia] ibiltzen genuen eskailera azpian'. ◆ **eskila(ra) buru** (> *eskilabu*) iz. Eskailera burua, eskaileraren goialdea. *Eskilabua, azken eskilĭa* 'eskailera burua, azken eskailera'. Ik. **ganbara-txiki** (> *ganbatxiki*). ◆ **eskila(ra)-maila 1** iz. Eskailera-maila. *Arrizkwa izaten zan lemizko eskila-mailĭa; zurezkwek, besteinekwek* 'harrizkoa izaten zan lehendabiziko eskailera-maika; zurezkoak, beste gainerakoak. Ik. **maila**; **sapalda**. Ik. **ganbara txiki**. **2** Irud. **eskailera-maila jaitsi** (> *eskila-mailĭa jaitxi*). Makaldu, osasuna galdu. ◆ **eskuko eskilara / eskila**. Ik. **matxarda**.

eskilazpi, eskilazpia

ESKAILERA AZPI

espacio o compartimento que queda bajo la escalera

eskila(ra) azpi (> *eskilazpi*) iz. Eskaileraren azpian dagoen lekua. *Eia ibiltzen genduen eskilazpien* 'heia [txerritegia] ibiltzen genuen eskailera azpian'.

eskilera

ESKAILERA

escalera
escalera de mano

eskina, eskinia

IZKINA

baztar. 2 alde, mutur

esquina, cantón
extremo, límite

eskina (eta *exkina*) **1** iz. Bazterra. Ik. **baztar**. **2** iz. Kantoia. *Fan dok beste eskinaindo*. *Eskina bateti bestia*. Ik. **alde**; **mutur**.

eskinarri, eskinarria

IZKINARRI, KANTOI HARRI

guardacantón

eskinarri (eta *exkinarri*) **1** iz. Izkinarri, kantoi harria. *Laiuen eskinarriek* 'leihoaren izkinarriak'. **2** iz. *Etxe eskinan patzen zĭan eskinarriek, gurdiek-eta etxe eskinĭa ez jotzeko* 'etxe izkinan paratzen ziren izkinarriak, gurdiek-eta etxe izkina ez jotzeko' [guardacantón].

eskoba, eskobia

ESKOBA

yuntzia, ilaryuntzia

escoba

eskoba iz. Erratza. *Pasatuyozu eskobĭa sukaldiai* 'pasa iezaiozu erratza sukaldeari'. Ik. **yuntzia**; **ilaryuntzia**. (*palma*, *palmĭa* [erratza] AG).

eskola, eskolia

ESKOLA

escuela
instrucción, educación, estudios; tablas, desenvoltura
enseñanza, doctrina, ejemplo

eskola **1** iz. Lehen irakaskuntza irakasten den ikastetxea. *Erriko eskolan ikasi genduen erdiaz* 'herriko eskolan ikasi genuen erdaraz'. *Eskolá bidĭen ikasteko gogwa galdu iten da* 'eskolara bidean ikasteko gogoa galdu egiten da'. **2** iz. Eskolan ikasten diren ezagutzen multzoa; irakaskuntza. *Guk eskolaik, apenas; eskola gutxi duku guk* 'guk eskolarik, apenas; eskola gutxi daukagu guk'. **3** iz. Irakaspena; eredua, jarraibidea. *Eskola txarra ematen dĭa anai zarrenak* 'eskola txarra ematen dio anaia zaharrenak'. ◆ **eskola eman** (> *eskolĭa eman*). Eskolatu. *Garai artan ezan erraza seme-alabairi eskolĭa ematĭa* 'garai hartan ez zen erraza seme-alabeei eskola ematea'. ◆ **eskola eskapo egin** (> *eskola eskapo in*). Eskola huts egin, sasieskola egin, piper egin. ◆ **eskola ibili** (> *eskolĭa ibili*). Eskolatua izan. *Eskolaik ez ibili* 'eskolarik ez ibili'. Ik. **eskolabeiko**. *Ez tukak eskolaik* '*ez daukak eskolarik* [ikasketarik]'. *Eskola ederra duka orrek!* 'eskola ederra dauka horrek!'.

eskolabeiko, eskolabeikua

ESKOLAGABE

analfabeto — *eskoladun*

iletrado, -a; inculto, -a

eskolabeiko adj. Eskolagabea. *Eskolabeikwa, sékula eskolan yon eztana* 'eskolagabea, sekula eskolan egon ez dena'. ▲ Sin. *analfabeto*. ▼ Anton. *eskoladun*.

eskoladun

ESKOLADUN

ikasi(a) — *eskolabeiko, analfabeto, ikasi beiko*

instruido, -a

eskoladun adj. Ik. **ikasi(a)**. ▼ Anton. *eskolabeiko*, *analfabeto*, *ikasi beiko*.

eskolano

IKASLE

estudiante

estudiante; escolano, -a

eskolano iz. Ikaslea. *Eskolano txarra izan nok* 'ikasle txarra izan nauk'. ▲ Sin. *estudiante*.

eskonbro, eskonbrua

OBRA HONDAKIN

escombro

eskonbro iz. (Batez ere pl.) Obra hondakinak. *Eskonbruek botatzen tuai parzelaiako bidien* 'eskonbroak [obra hondakinak] botatzen dituzte parzelariako bidean'.

eskopetero, eskopeterua

ESKOPETERO, ESKOPETARI

escopetero, -a

eskopetero iz. Eskopeta daraman pertsona. *Eiztaiek baindo eskopeterwek tut gaienak* 'ehiztariak baino eskopeteroak dituk gehienak'.

eskorta

ESKORTA

aprisco

eskorta [Ziordia] iz. Abereak gordetzeko esparru hesitua eta sabairik gabea; ardiendako itxitura.

eskote, eskotia

ESKOTE

papar

escote

eskote **1** iz. Jantziaren irekidura. *Soinekwen eskotĭa* 'soinekoaren eskotea'. **2** iz. Eskoteak agerian uzten duen aldea. Ik. **papar**.

eskribau, eskribaua

ESKRIBAU

escribano, -na

eskribau (eta *eskrifau*) iz. Administrazioko erakundeetako antzinako enplegatua, oraingo idazkariaren egitekoak betetzen zituena.

eskribiente, eskribientia

IDAZLARI

escribiente, redactor, -a

eskribiente iz. Idazlaria.

eskribitu, eskribitzen

IDATZI, IZKIRIATU

escribir

eskribitu *dau* ad. Idatzi. *Eskribitazu emen zĭaure izena* 'izkiriatu ezazu hemen zeure izena'. ◆ **eskribitzeko makina**.

eskritura

ESKRITURA

escritura

eskritura iz. *Notaiuek firmatu tu eskriturak* 'notarioak sinatu ditu eskriturak'. ◆ **eskritura egin** (> *eskrituriĭa in*). *Gasti ata zaio eskrituriĭa itĭa* 'garesti atera zaio eskritura egitea'.

esku egur

ESKU EGUR, EGUR XEHE

leña menuda

esku egur. Egur xehea.

esku-zuri

ESKU-ZURI

alfer

vago, -a, holgazán, -ana

esku-zuri (> *esku txuri*, *esku txwi*) adj. Lan gutxi egiten duena; alferra. Ik. **alfer**.

esku, eskua

ESKU

3 alde, alderdi

mano
lado, mano
habilidad, destreza, capacidad, mano
capa (de color, barniz, yeso, cal, etc.)

esku **1** iz. *Eskub'au. Esku batekin... ta beste eskuekin* (Ond Bak). **2** iz. Norbaiten esku egon (> *norbaiten esku yon*). Norbaiten kargu egon. Ik. **kargu**; **kontu**; **-en gain**. **3** iz. Aldea, alderdia; noranzko aldea. *Ezkerreko eskuti(k)*; *eskubiko eskuti(k)*. *Makurreko eskutí zailen konduzitzen* 'makurreko [okerreko] eskutik zebilen gidatzen'. *Inglesak ezkerreko eskuti konduzitzen* dai 'ingelesek ezkerreko eskutik gidatzen dute'. Ik. **alde**[1]; **alderdi**. **4** iz. Geruza. *Pintura me orrekin, gutxienez bi esku ber tu paretĭek* 'pintura mehe horrekin, gutxienez bi esku behar ditu paretak'. Ik. **kapa**. | – **esku ona**; **esku txarra**. Trebetasuna. | – **esku bat bota**. Lagundu. | – **bigarren eskuko**. | – **eskua sartu**. | – **eskua eman**. | – **eskua jaso**. Eskua jaso ta guzti in dua! Mehatxu keinua egin. | – **eskuek garbi ibili** [eduki]. | – **eskuek garbitu**. | – **eskua hutsik** (ezer be) (esku-hutsik). | – **eskura eman** (> *eskwá eman*). *Dirua eskwá eman* 'dirua eskura eman'. ◆ **esku batekin egin** (> *esku batekin in*). Erraz egin. *Oi esku batekin iten diet nik* 'hori esku batekin egiten diat nik'. ◆ **esku egur**. Egur xehea. ◆ **esku-zuri** (> *esku txuri*, *esku txwi*) adj. Lan gutxi egiten duena; alferra. Ik. **alfer**. ◆ **(norbaiten) eskutik joan** (> *norbaiten eskutik fan*). Hil, bizia kendu. *Ne eskutik fan ber dok* 'nere eskutik joan behar duk' [hil egin behar haut]. Ik. **garbitu**; **akabatu**; **linpiatu**. ◆ **eskuz** adb. Eskuarekin, eskua edo eskuak erabiliz. *Eskuz garbitu tut arropak* 'eskuz garbitu ditut arropak'. *Eskuz indako jersĭa* 'esku egindako jertsea'. *Eskuz pintatu dau autwa* 'eskuz pintatu du autoa'. ◆ **eskuzko** adj. *Eskuzko eskilarĭa* 'eskuzko eskailera'. *Eskuzko azĭa* 'eskuzko aza [zeio]'. *Eskuzko palĭa* 'eskuzko pala'.

eskual

EUSKAL

vasco, -a (en palabras compuestas)

eskual adj. *eskuara* izenak hitz-elkarketan hartzen duen era. *Eskwal alderdikwa dok* 'euskal alderdikoa [eremukoa] duk'.

Eskual Herri

EUSKAL HERRI

País Vasco

Eskual Herri (*eskwalerri*) iz. Euskal Herria.

eskualdi, eskualdia

ESKUALDI

eskukada; sorta

manojo

eskualdi [Altsasu] iz. Eskukada. Ik. **eskukada**; **sorta**.

eskualdun, eskualduna

EUSKALDUN

vasco, -a, vascoparlante, vascófono, -a

eskualdun (> *eskwaldun*; *auskealdun* [Bakaiku]) adj./iz. *Eskwaldunak ga* 'euskaldunak gara'. *Enakien eskwalduna zindanik* 'ez nekien euskalduna zinenik'.

eskuara, eskueria, eskuria

EUSKARA

lengua vasca, vasco, vascuence, euskera

eskuara (eta *auskea*, *auskera*, *euskia* [Bakaiku]; *eskwara*, *eskweria*, *eskuria* [Urdiain]) iz. *Auskeaz ai dia* 'euskaraz ari dira'. *Auskeria da gure izkeria* 'euskara da gure hizkera'. *Euskiaz ezakielako* 'euskaraz ez zekielako'. *Eskwara au* 'euskara hau'. *Eskweria da Eskwalerriko izkera propiua* 'euskara da Euskal Herriko hizkera propioa'. *Eskwal Herri oswen ibili eta gio, Burundako eskweria bilatu dot apartekwen* 'Euskal Herri osoan ibili eta gero, Burundako euskara bilatu dut apartekoen [berezien]'. *Urdingo eskuria polito da* 'Urdiaingo euskara politago da'. ◆ **eskuaraz** (> *eskwaz*; *euskiaz*; *auskeaz* [Bakaiku]; *eskueaz* [Altsasu]) adb. Euskaraz. *Auskeaz ai dia* 'euskaraz ari dira' (Ond Bak). *Urdinen eskwaz iten dai* 'Urdiainen euskaraz egiten dute'. *Nola esanko zenduke (halako ta halako) eskuaz?* 'nola esango zenuke (halako eta halako) euskaraz?'.

eskuaz

EUSKARAZ

en euskera

eskuaraz (> *eskwaz*; *euskiaz*; *auskeaz* [Bakaiku]; *eskueaz* [Altsasu]) adb. Euskaraz. *Auskeaz ai dia* 'euskaraz ari dira' (Ond Bak). *Urdinen eskwaz iten dai* 'Urdiainen euskaraz egiten dute'. *Nola esanko zenduke (halako ta halako) eskuaz?* 'nola esango zenuke (halako eta halako) euskaraz?'.

eskubera, eskuberia

ESKUARE

rastrillo

eskubera (eta *eskuara* [Ziordia]) iz. Eskuarea. *Bearra, orbela-eta eskuz biltzeko eskuberia bear izaten da* 'belarra, orbela-eta eskuz biltzeko eskuarea behar izaten da'. *Eskubera-hortzak* [Púas de rastrillo].

eskubi, eskubia

ESKUBI, ESKUIN

ezker, zurdo, katxo

derecha, lado derecho
derecha (Pol.)
diestro, -a

eskubi **1** iz. Eskuina. *(Oinetatí) eskubitá* (Ond Bak). *Eskubita fan* 'eskubitara joan'. ▼ Anton. *ezker*. **2** iz. Politikan, eskuindarren multzoa. **3** adj. Eskuinaz ezkerraz baino gehiago baliatzen dena. ▼ Anton. *ezker*, *zurdo*, *katxo*.

eskubide, eskubidia

ESKUBIDE

deretxo

derecho

eskubide iz. ▲ Sin. *deretxo*. ◆ **eskubidea eman** (> *eskubidia eman*). Aukera eman, bide eman; bestei egiteko ahala eman. *Emaion eskubidia nai den oi iteko* 'emaion eskubidea nahi duen hori egiteko'.

eskubiko

ESKUINEKO

ezkertiar

del lado derecho
de derecha(s), derechista

eskubiko **1** adj. Eskuinean dagoena. **2** adj./iz. Eskuindarra. ▼ Anton. *ezkertiar*.

eskudo, eskudua EZKUTU. 2 ARMARRI

escudo, broquel
escudo de armas

eskudo **1** iz. Ezkutua, arma babesgarria. **2** iz. Armarria.

eskuitxi, eskuitxia UKABIL; 2 XUHUR

2 esku-ximur, zuhurra *2 eskuzabal, emantzaile*

puño
cicatero, -a, tacaño, -a

eskuitxi **1** iz. Ukabila. **2** adj. Xuhurra. ▲ Sin. *autsi*, *esku-ximur*, *zuhur*. ▼ Anton. *eskuzabal*, *emantzaile*.

eskukada, eskukadia ESKUKADA

eskualdi

puñado; manojo

eskukada iz. Ik. **eskualdi** [Altsasu]. *Eskukada bat ziza eztot ekarri* 'eskukada bat ziza ez dut ekarri'. *Eskukadatxuet* 'eskukadatxo bat'.

eskulan, eskulana ESKULAN

trabajo manual
artesanía

eskulan **1** iz. Eskuak erabiliz egiten den lana. **2** iz. *Josteko lanak, eskulanak*.

eskumotz, eskumotza ESKUMOTZ

besomotz

manco, -a

eskumotz adj. Esku bat falta zaiona. Ik. **besomotz**.

eskuoihal, eskuoihala ESKUOIHAL

toalla

toalla

eskuoihal (> *eskuoial*) iz. *Sekatu eskuek eta musua eskuoialakin* 'sikatu eskuak eta musua eskuoihakarekin'. ▲ Sin. *toalla*.

eskupeta, eskupetia ESKOPETA

escopeta

eskupeta iz. Eskopeta. *Amabiko eskupetĭa* 'hamabiko eskopeta'. *Bi kainuko eskupetĭa* 'bi hodiko eskopeta'.

eskuria EUSKARA

euskera

eskursio ESKURTSIO, TXANGO, IBILALDI

excursión

eskursio iz. (Iza Alts). Eskurtsioa, txangoa, ibilaldia.

eskusa, eskusia AITZAKIA

pretesto

excusa

eskusa iz. Aitzakia.

eskutoki, eskutokia

ESKUTOKI

asa, asidero, mango; empuñadura

eskutoki iz. Eskuaz erabiltzen diren lanabesetan eta beste zenbait gauzakitan, heltzeko atala. Ik. **girten**.

eskutrapu, eskutrapua

ESKUTRAPU

eskuzatar

paño de cocina, trapo de cocina

eskutrapu iz. Ik. **eskuzatar**.

eskutur, eskuturra

ESKUMUTUR

muñeca

eskutur iz. Eskumuturra. *Irrixtatuta bota ta eskuturra ausi dau* 'irristatuta bota eta eskumuturra hautsi du'.

eskutxi

UKABIL

puño

eskuz

ESKUZ

a mano

eskuz adb. Eskuarekin, eskua edo eskuak erabiliz. *Eskuz garbitu tut arropak* 'eskuz garbitu ditut arropak'. *Eskuz indako jersĭa* 'esku egindako jertsea'. *Eskuz pintatu dau autwa* 'eskuz pintatu du autoa'.

eskuzabal, eskuzabala

ESKUZABAL

emantzaile

autsi, eskuitxi, esku-ximur, zur

generoso, -a; dadivoso, -a; desprendido, -a

eskuzabal adj. *Eskuzabaleko jendĭa da oi* 'eskuzabaleko jendea da hori'. ▲ Sin. *emantzaile*. ▼ Anton. *autsi*, *eskuitxi*, *esku-ximur*, *zur*.

eskuzabaleko, eskuzabalekua

ESKUZABAL

eskuzabal

generoso, -a; dadivoso, -a; desprendido, -a

eskuzabaleko adj. Eskuzabala. Ik. **eskuzabal**.

eskuzar, eskuzar

ESKUTZAR

atzapar, zarpa

manaza; manazas

eskuzar iz. Eskutzarra, esku handia. *A nolako eskuzarrak dukatzik!* 'a nolako ezkutzarrak dauzkak!'. *Alde emendi eskuzar oiekin* 'alde hemendi eskutzar horiekin!'. ▲ Sin. *atzapar*, *zarpa*.

eskuzatar, eskuzatarra

ESKUZATAR

eskutrapu, zamau txiki

paño de cocina, trapo de cocina

eskuzatar iz. Ik. **eskutrapu**; **zamau txiki**.

eskuzerra, eskuzerria

ESKUZERRA

sierra de mano

eskuzerra iz. (?) (EHHA).

eskuzimur, eskuzimurra — XUHUR, ZIKOITZ

autsia, eskuitxi, zimur, zuhur — *eskuzabal, emantzaile*

mezquino, -a, avaro, -a, ruin, tacaño, -a

eskuzimur (eta *eskuximur*) adj. ▲ Sin. *autsi(a)*, *eskuitxi*, *zimur*, *zuhur*. ▼ Anton. *eskuzabal*, *emantzaile*.

eskuzko, eskuzkua — ESKUZKO

de mano, manual

eskuzko adj. *Eskuzko eskilarĭa* 'eskuzko eskailera'. *Eskuzko azĭa* 'eskuzko aza [zeio]'. *Eskuzko palĭa* 'eskuzko pala'.

esmaltatu, esmaltatzen — ESMALTATZEN

esmaltar, cubrir con esmalte

esmaltatu **1** *dau* ad. Esmalte geruza batez estali. **2** adj. *Eltze esmaltatua*.

espabilatu, espabilatzen — BIZKORTU; 2 ESNATU

pixkortu, piztu; 2 esenatu

espabilar(se)

espabilatu **1** *da/dau* ad. Ik. **bizkortu** (> *pixkortu*), **piztu**. **2** *da/dau* ad. Ik. **esenatu**.

espal, espala — ESPAL

manojo, haz; gavilla

espal iz. Ebakitako gariaz eta kideko landareez egiten den sorta. *Gari espalak bilduta balĭa iten zan* 'gari espalak bilduta bala egiten zen'. Ik. **bal**; **sorta**; **zama**.

espaldero, espalderua — BIZKARREKO (JANTZIA)

espaldero (prenda)

espaldero iz. Bizkarrekoa, bizkarra babesteko jantzia. *Narruzko espalderwa, yauritan eta elurretan lanĭen ibiltzeko* 'larruzko espalderoa, euritan eta elurretan lanean ibiltzeko'.

espantatu, espantatzen — IZUTU, ESPANTATU

izutu

espantar(se)

espantatu *da/dau* ad. Izutu. *Espantatu tu txoi guztĭek* 'esapantatu ditu txori guztiak'. Ik. **izutu**.

esparzeta, esparzetia — ASTORKI

esparceta

esparzeta iz. (Bot.) Astorkia (Onobrychis viciifolia). *Ganaueiri emateko yaiten zan; dana arramĭa eta lore granate koloriĭa* 'ganaduari emateko ereiten zen; dena arrama eta lore granate kolorea'.

espea / espĭa — ESPEROAN, ZAIN

esperando

espea (> *espĭa*) adb. Esperoan, zain. ◆ **espia egon** (> *espia yon*). Esperoan egon. *Autobusai espĭa ge* 'autobusari [autobusaren] zain gaude'. *Unibersidadĭen artuko dain espĭa do* 'unibertsitatean hartuko duten zain dago'. ◆ **espia izan** [*edun]. Espero izan. *Aurra espĭa dai* 'haurra espero dute'. *Denba gutxĭako izatĭa espĭa dau* 'denbora gutxirako izatea espero du'.

espeatu

ZAIN EGON, ITXARON

esperar, aguardar

esperatu (> *espeatu*, *espĭatu*) *dau* ad. Zain egon, itxaron. *Espeatu emen pixkat* 'esperatu [itxaron] hemen pixka bat'. *Espiatazu ba!* 'zaude memento batean!' [¡espera un momento!].

espektakulo, espektakulua

ESPEKTAKULU

espectáculo

espektakulo iz. Espektakulua, ikuskizuna. *Espektakulo ederra eman gĭau dánoĭn aurrĭén!* 'espektakulu ederra eman digu denon aurrean!'. Ik. **numero**.

espera

ESPERO (?). 2 ITXARON

zain

esperando

espera (eta *espea*, *espĭa*) adb. Esperoan, zain. *Denbora asko dĭagu espĭa* 'denbora asko daramagu esperoan'. Ik. **zain**[2]. ◆ **espera egon** (> *espea yon*, *espia yon*). Esperoan egon. *Emen ge, espĭa* 'hemen gaude, esperoan'. *Autobusai espĭa ge* 'autobusari [autobusaren] zain gaude'. *Unibersidadĭen artuko dain espĭa do* 'unibertsitatean hartuko duten zain dago'. *Espera aspalditi, ta eztĭa agi* 'itxaroten aspalditik, eta ez dira ageri [agertu]'. ◆ **espera!** interj. Itxaron, itxoin. *Espera pixkat* 'itxaron pixka bat'. Ik. **esperatu** (> *espĭatu*). ◆ **espera izan** (> *espea izan*, *espĭa izan*) *dau* ad. Espero izan, zerbaiten esperantza izan. *Eniken espĭa alakoik* 'ez nian espero halakorik'. *Alako gertaeraik iyork'e (iyorke'ke) ez zen espĭa* 'halako gertaerarik inork ere ez zuen espero'. *Espea genduen bekela ata da operaziua* 'espero genuen bezala atera da operazioa'. ◆ **espea izan** [*edun] (> *espĭa izan*). Espero izan. *Aurra espĭa dai* 'haurra espero dute'. *Denba gutxĭako izatĭa espĭa dau* 'denbora gutxirako izatea espero du'. ¬

espera izan (espea izan / espĭa izan)

ESPERO IZAN

esperar; confiar, tener esperanza

espera izan (> *espea izan*, *espĭa izan*) *dau* ad. Espero izan, zerbaiten esperantza izan. *Eniken espĭa alakoik* 'ez nian espero halakorik'. *Alako gertaeraik iyork'e (iyorke'ke) ez zen espĭa* 'halako gertaerarik inork ere ez zuen espero'. *Espea genduen bekela ata da operaziua* 'espero genuen bezala atera da operazioa'.

espera yon (espea yon / espĭa yon)

ESPEROAN EGON

esperando, con la esperanza (de)

espera egon (> *espea yon*, *espia yon*). Esperoan egon. *Emen ge, espĭa* 'hemen gaude, esperoan'. *Autobusai espĭa ge* 'autobusari [autobusaren] zain gaude'. *Unibersidadĭen artuko dain espĭa do* 'unibertsitatean hartuko duten zain dago'.

esperanza, esperanzia

ESPERANTZA

esperanza

esperanza (eta *espeanza*) iz. Esperantza. *Eztau esperanzaik galtzen* 'ez du esperantzarik galtzen'. *Esperanzaipe* 'esperantzarik gabe'. ◆ **esperanza ibili** [eduki] (> *esperanzĭa ibili*). Esperantza izan, espero izan.

esperimentatu, esperimentatzen ESPERIMENTATU

experimentar; probar

esperimentatu *dau* ad.

esperimentu, esperimentua ESPERIMENTU

experimento

esperimentu iz. *Be esperimentuek iten tu arbolak txertatzen* 'bere esperimentuak egiten ditu arbolak txertatzen'.

espezial, espeziala ESPEZIAL, BEREZI

aparteko; estraordinaio

especial; particular; diferente, peculiar

espezial adj. Ik. **aparteko**; **estraordinario**.

espezialidade, espezialidadia ESPEZIALITATE

especialidad

espezialidade iz. Espezialitatea.

espezialista, espezialistia ESPEZIALISTA

especialista

espezialista iz./adj.

espia ESPIOI

espía

espia iz./adj. Espioia. Ik. **zelatzaile**.

espiatu, espiatzen ESPIATU

espiar

espiatu *dau* ad. Zelatatu. *Guri espiatzen, ze iten genduen ikusteko* 'guri [gu] espiatzen, zer egiten genuen ikusteko'.

espilu, espilua ISPILU

espejo

espilu iz. Ispilua. *Espiluen aurrĕn, bizarra iten* 'ispiluaren aurrean bizarra egiten'. *Mila txiki in dau espilua* 'mila txiki [mila puska] egin du ispilua'.

espiritu, espiritua ESPIRITU

espíritu

espiritu iz.

esplikatu, esplikatzen ESPLIKATU

explicar

esplikatu *dau* ad. Azaldu, ulertzeko eran adierazi. *Esplikatuiok* 'esplika(tu) iezaiok'. *Argi esplikatu dau dana* 'argi esplikatu du dena'.

esplikazio, esplikaziua ESPLIKAZIO

explicación

esplikazio iz.

esponja, esponjia
ESPONJA

esponja (utensilio de limpieza)

esponja iz. Belakia. *Esponja latza obe, gorputzandako* 'esponja latza hobe, gorputzarendako'.

esporta, esportia
BANASTA

jaiski

espuerta

esporta (eta *exporta*) iz. Banasta. Ik. **jaiski**.

esposizio, esposiziua
ESPOSIZIO

exposición

esposizio iz. Erakusketa. *Fotografia zarraĭn esposiziua patu dai errientxĭen* 'fotografia zaharren esposizioa paratu dute herriaren etxean [herriko etxean]'. ◆ **esposiziorako egon** (> *esposiziyuako yon*). Ikusgarria izan, ikustea merezi duena izan. *Esposiziywako gek* 'esposiziorako gaudek'. *Ointwoiek esposiziywako jen* 'onddo horiek esposiziorako zauden'.

espĭatu, espĭatzen
ZAIN EGON, ITXARON

esperar

estaka
PALDO, ASTAMAKILA

zoztaka, musteka (?)

estaca

estaka iz. Makila lodia. Ik. **zoztaka**; **mustaka** / **musteka**.

estakazo, estakazua
ZARTAKO; MAKILAKADA

zartako, golpe zar

estacazo

estakazo iz. Zartakoa. Ik. **zartako**; **golpe zar**.

estaldu, estaltzen
ESTALDU, ESTALI

tapatu

cubrir, tapar
cubrir, proteger, defender, resguardar
cubrir, encubrir, disimular; ocultar, omitir

estaldu (Ald. *estali* [Bakaiku, Urdiain]). Ik. **estali**. **1** *dau* ad. Ik. **tapatu**. **2** *dau* ad. Ezkutatu. **3** *dau* ad. Norbaiten hutsa edo egite makurra gorde; huts baten edo egite makur baten egilea gorde. ¬

estali
ESTALI

tapatu

cubrir, tapar
cubrir, proteger, defender, resguardar
cubrir, encubrir, disimular; ocultar, omitir

estali **1** *da/dau* ad. (eta *estaldu* [Urdiain]). (?) Burundesa estal da. Aurpegia estalik. Lurra estalik (Ond Bak). Ik. **estaldu**; **tapatu**. – *estaldwik* eta *estalik* [Urdiain]. *Etxĭa errejistratu iten zain, zerbeit estalik bazukain ikusteko* 'etxea erregistratu [miatu] egiten zuten, zerbait estalirik bazeukaten ikusteko'. ◆ **estalian** (> *estalien*) adb. Gordean, isilean. *Estalien saldu; ixilien saldu* 'estalian saldu; isilean saldu'. ¬

estalien
ESTALIAN, GORDEAN

en secreto, a escondidas

estalian (> *estalien*) adb. Gordean, isilean. *Estalien saldu; ixilien saldu* 'estalian saldu; isilean saldu'.

estalketan
ESTALKETAN

estalketan adb. **1** adb. Estaltzen. **2** iz. Haur jolasa.

estalpe, estalpia
ESTALPE

teilape, lihor

refugio, abrigo; lugar cubierto, sotechado, soportal, cobertizo

estalpe iz. lk. **teilape**; **lihor**. ◆ **estalpean ibili** (> *estalpĭen ibili*). *Lapurrak estalpien ibiltzen tuk* 'lapurrak estalpean ibiltzen dituk'.

estaltxiki, estaltxikia
ESTALKI

estalzaki, tapa

tapa, tapadera

estaltxiki iz. Estalkia. *Ontzi baten estaltxikia* 'ontzi baten estalkia' lk. **estalzaki**; **tapa**.

estaltzaki, estaltzakia
ESTALKI

tapa

tapa, tapadera (de olla, puchero, etc.)

estaltzaki (eta *estalzaki*) iz. Ontziaren estalkia. *Estaltzaki txikia* (eta *estal txiki*); *estaltzaki haundia*. lk. **tapa**.

estalzaki, estalzakia
ESTALKI

tapa

tapa, tapadera, cubierta

estamago, estamagua
URDAIL

estómago

estanko, estankua
ESTANKO

estanco (tienda)

estanko iz. Tabakoa eta posta-zigiluak saltzen diren denda. *Aspaldi itxi zain estankwa* 'aspaldi itxi zuten estankoa'.

estanpa, estanpia
ESTANPA

lamina

estampa; lámina

estanpa iz. *Ama Birjinĭen estanpĭa* 'Ama Birjinaren estanpa'. lk. **lamina**.

estazio, estaziua
GELTOKI. 2 URTARO

2 urte garai

estación (de tren, autobús)
estación (del año, temporada)

estazio **1** iz. Geltokia. *Trenain estaziua; autobusain estaziua* 'trenen geltokia; autobusen geltokia'. **2** iz. Urtaroa. lk. **urte garai**.

esti

ESTI

aida

¡atrás! Voz con que se incita al ganado vacuno a retroceder

esti interj. Idiei eta behiei atzera egin dezaten esaten zaien hitza. Ik. **aida**.

estilo, estilua

ESTILO

estilo, modo, manera
carácter, índole; forma de ser

estilo **1** iz. Zerbaiten era edo modua. *Estiloipe* 'estilorik gabe'. *Estilo ona duka dantzan* 'estilo ona dauka dantzan'. **2** iz. Tankera; izateko modua. *Estilo ortakwa zan aua're* 'estilo [tankera; izaera] horretakoa zen hura ere'.

estimatu, estimatzen

ESTIMATU

apreziatu, baloratu; eskertu

estimar, apreciar, valorar, agradecer
estimar, sentir afecto/cariño

estimatu *da/dau* ad. Aintzakotzat hartu; eskertu. Ik. **apreziatu**, **baloratu**; **eskertu**.

estimazio, estimaziua

ESTIMAZIO

aprezio

estima, aprecio, afecto; consideración, estimación

estimazio iz. Estimua. Estimazio haundia. Ik. **aprezio**.

estola, estolia

ESTOLA

estola

estola iz. Lepotik behera eramaten den ehunezko zerrenda, apaizek janzten dutena.

estomago, estomagua

URDAIL

biro, barandoi

estómago

estomago (eta *estamago*) iz. Urdaila. Ik. **biro**; **barandoi**.

estorbatu, estorbatzen

DESTORBATU; OZTOPATU, ERAGOTZI, TRABA

traba in

estorbar, molestar, trabar

estorbatu *dau* ad. Destorbatu; oztopatu, eragotzi, traba egin. Ik. **traba egin** (> *traba in*).

estorbo, estorbua

DESTORBU, ESTORBU; OZTOPO, TRABA,

aztapo, traba, molestia; yausgarri*

estorbo

estorbo iz. Destorbua, estorbua; oztopoa, eragozpena. Ik. **aztapo**; **molestia**; **traba**; **yausgarri***. ◆ **estorbu egin** (> *estorbo/estorbwa in*). *Kenadi orti, estorbwa bestejk eztok iten da!* 'ken hadi hortik, estorbu besterik ez duk egiten eta!'.

estra / extra

ESTRA

extra; extraordinario, -a

estra adj. Ohikoa edo arrunta denetik kanpo dagoena; ohikoari gehitzen zaiona. *Paga estrĭa* 'paga estra'. Ik. **gratifikazio**.

estrainako
ESTREINAKO

primer; primero, -a

estrainako adj. Estreinakoa, lehenbizikoa (Iza Alts). {*Eta arrezkeo aurtengo udi don estráinako eta nik-e aituinét "en este siglo" bigerren udi dála séku*}. (Urdiainen ez dot aditu).

estranjei, estranjeia
ATZERRI, ESTRANJERIA

extranjero (país o pueblo)

estranjeri(a) (> *estranjei*, *estranjeia*) iz. Atzerria. *Estranjeia fan da* 'estranjeriara joan da'. *Estranjeien do bizitzen* 'estranjerian dago bizitzen'.

estranjero, estranjerua / estranjera,
ATZERRITAR

extranjero, -a

estranjero, -a (Generoa hartzen du) iz./adj. Atzerritarra, atzerrikoa. *Gwai estranjero asko daile emen lanĭen* 'orain atzerritar asko dabil hemen lanean'.

estraordinaio, estraordinaiua
APARTEKO, OHIZ KANPOKO

extraordinario, -a

estraordinario (> *estraordinaio*) adj. Ohikoa edo arrunta denetik kanpo dagoena; ohikoari gehitzen zaiona. Ik. **aparteko**; **espezial**; **estra**. ¬

estraperlo, estraperlua
ESTRAPERLO

estraperlo

estraperlo iz. g.g.er. Legez kanpoko salerosketa, bereziki oinarrizko produktuekin urritasun garaian egiten dena.

estraza, estrazia
ZATARKI

estraza

estraza iz. Zatarkia. *Estrazazko papĭa* 'zatarki papera'.

estrenatu, estrenatzen
ESTREINATU

estrenar

estrenatu *dau* ad. Estreinatu, zerbait lehen aldiz erabili.

estringa, estringia
ESTRINGA (KATEA)

gata

estringa (cadena para atar leña, etc.)

estringa iz. *Gurdien egurrak-eta lotzeko gatĭa* 'gurdian egurrak-eta lotzeko katea. Ik. **gata**.

estruktura, estrukturia
ESTRUKTURA

estructura; forma, hechura

estruktura iz. *Aparteko estrukturĭa duka Zamarretako zuiek* 'aparteko estruktura dauka Zamarretako zubiak'.

estu
ESTU

medar; 3 larri — *zabal; laso*

estrecho, -a; angosto, -a
prieto, -a; apretado, -a; ajustado, -a; ceñido, -a
angustiado, -a, apurado, -a

estu (eta *extu*) **1** adj. *Kale estu ortan ezin dezu autwa autzi* 'kale estu horretan ezin duzu autoa utzi'. ▲ Sin. *medar*. ▼ Anton. *zabal*; *laso*. **2** adj. Tinkoa, hertsia. *Zapata estuek* 'zapata estuak'. **3** adb. Tinko, ez mugitzeko eran. *Lotu estu-estua*. **4** adb. Larri. *Estu no, botatzeko gogwekin* 'estu nago, botatzeko gogoekin'. Ik. **larri**. ◆ **estu-estua**. **1** adj. Oso meharra. *Pasabide estu-estua*. **2** adb. Oso tinko. *Lotzak estu-estua* 'lotu ezak estu-estua'. ◆ **estu eta larri** (> *estu ta larri*) adb. ◆ **dantza estu(a)** (Ond Bak). Dantza lotua (baile agarrado). ◆ **(norbait) estu hartu**. Gogor egin. ¬

estualdi, estualdia
ESTUALDI, LARRIALDI

estutasun, larrialdi, tranze txar, apuro

aprieto
angustia
apuro (momento de apuro)
mal rato

estualdi iz. ▲ Sin. *estutasun*, *larrialdi*, *tranze txar*, *apuro*. ◆ **estualdia eman**. ◆ **estualdia hartu**.

estudiante
ESTUDIANTE

eskolano

estudiante iz. Ik. **eskolano**.

estudiatu, estudiatzen
ESTUDIATU

ikasi

estudiar

estudiatu *dau* ad. Ik. **ikasi**.

estutasun, estutasuna
ESTUTASUN

larritasun, estualdi, apuro

aprieto, angustia, apuro; opresión
estrechez, angostura

estutasun (> *estuasun*) iz. Larritasuna, estualdia. ▲ Sin. *larritasun*, *estualdi*, *apuro*.

estutu, estutzen
ESTUTU

larritu — *lasatu, zabaldu*

estrechar, contraer
apretar, oprimir
apurar(se), angustiar(se), inquietar(se)

estutu **1** *da/dau* ad. Estu edo estuago bihurtu. *Or bidĭa estutu iten da* 'hor bidea estutu egiten da'. || (n) *Txerriari iten zaio errua estutu* (Ond Bak). **2** *dau* ad. *Zapatok estutu iten dwai* 'zapatok estutu egiten didate'. ▼ Anton. *lasatu*, *zabaldu*. **3** *da/dau* ad. Larritu. Ik. **larritu**; **apuratu** (> *apwatu*). ¬

estutxe, estutxia
ESTUTXE

estuche

estutxe iz. Kutxatila. *Bi pisuko estutxĭa ekar dwai Erregĭek* 'bi pisuko estutxea ekarri didate Erregeek'.

eta

ETA

y; e

eta (eta *ta*, *da*) **1** junt. *Fan da bila* 'joan eta bila'. *Anaia ta biok* 'anaia eta biok'. Ta erresponsua bota (Ond Bak). **2** junt. (Aditz bera elkartuz, ekintzaren, egoeraren edo gertaeraren iraunkortasuna adierazteko). *Yon da yon* 'egon eta egon' [egonean]. *In da in* 'egin eta egin'. *Fan da fan* 'joan eta joan'. *Jan da jan, ta beti gose* 'jan eta jan, eta beti gose'. **3** junt. (Aditz jokatu baten eskuinean, perpausari kausa balioa ematen diola). *Enituen batzako lanak despeitu, yauria asi zan da* 'ez nituen baratzeko lanak despeditu [amaitu], euria hasi zen eta'.

eta piko

ETA PIKO; ETA ZENBAIT

y pico (pico de una cantidad)

eta piko. (Zenbaki baten eskuinean). Eta zenbait; eta koska. *Mila euro ta piko*.

eten, etena

ETEN (2), ETENDURA

zartada

rotura, desgarrón

eten iz. Etena, etendura. Ik. **zartada**.

eten, etentzen

ETEN (1)

moztu

romper(se), rasgar(se), desgarrar(se)
separarse; desprenderse

eten **1** *da/dau* ad. *Sokia eten*, *bihetza eten*.
Eten zazu hoi.

eternidade, eternidadia

ETERNITATE

eternidad

eternidade iz. Eternitatea.

eterno, eternua

ETERNO

betiko

eterno

eterno adj. Ik. **betiko**.

etoli

ETORRI (HAUR HIZKERA)

¡ven! (voc. infant.)

etoli Haur. Etorri.

etorrera, etorreria

ETORRERA

buelta

venida, (viaje de) vuelta

etorrera **1** iz. Etortzea. *Etorrera txarra in dau* 'etorrera txarra egin du'. Ik. **buelta**. **2** iz. Hizketako etorreria. Ik. **etorri(a)** [Urdiain] (LM). ◆ **etorreran** adb. Etortzekoan. *Elizatik etorreran*. ▲ Sin. *bueltan*. Ik. **faneran**.

etorri, etorria

ETORRI

elocuencia, facilidad de palabra

etorri iz. ◆ **etorria ibili** (eduki). Hizketako etorria. *Izketako etorri aundia duka orrek; ezta ixiltzen* 'hizketarako etorri handia dauka horrek; ez da isiltzen'. Ik. **etorrera** (> *etorreria*).

etorri, etortzen

ETORRI

heldu — *fan*

venir
llegar
originarse, surgir, crecer, desarrollarse (plantas, vegetales...)
futuro, -a; venidero, -a
arreglarse, entenderse; concordar, armonizar

etorri **1** *da* ad. *Orduako etorrik zonen*. *Etxá etortzeako*. *Hura neri burua etor zakiten* 'zitzaidan'. *Etor naiz ni*. *Halako etor dala esan dai*. *Eguardien etorko zindala*. *Etorko balitzake* 'balitz' (Ond Bak). ▼ Anton. *fan*. **2** *da* ad. Iritsi, heldu. *Uda etorri artĭa* 'uda etorri arte'. • *Etor ber dena etor berko dau* 'etorri behar dena [duena] etorri beharko du' [datorrena datorrela]. **3** *da* ad. Landareengatik hitz eginez, sortu, hazi. *Emen ezta almendraik etortzen; kiwia, juxto-juxto* 'hemen ez da almendrarik etortzen; kiwia, justu-justu'. Ik. **lekua**, **tokia**. **4** Etortzeko den denbora, etorkizuna. *Etorriko dana* 'etorriko dena'. *Gwaindo emen, ze etor ber dan!* 'oraino hemen, zer etorri behar duen!'. • Esr. *Etortzen dana, artu in ber* 'etortzen dena, hartu egin behar' [etorkizuna, halabeharrez hartu egin behar]. ◆ **ondo etorri**. Elkarrekin ondo konpondu, ondo moldatu. *Ondo etortzen gindan danok* 'ondo etortzen ginen denok. ◆ **etor(ri) berri**. *Erriá bizitzĭa etor berria* 'herrira bizitzera etorri berria'. Ik. **sortu berri**. ◆ **datorren** adj. *Datorren astĭen asiko da eskolĭa* 'datorren astean hasiko da eskola'. Ik. **heldu dan** (> *eldu dan*). [dator (*etorri* aditz trinkoa); Ik. **heldu**]. ¬

etortzeko, etortzekua

ETORTZEKO

ser venidero, -a; estar por venir

etortzeko pred. ◆ **etortzeko(a) izan** / **egon** (> *etortzeko / etortzekwa izan / yon*) *Espĭa ge; etortzeko da* 'esperoan gaude; etortzeko da'.

etsai, etsaia

ETSAI

enemigo, kontraio — *aixkide*

enemigo, -a; contrario, -a, opuesto, -a
demonio

etsai iz. *Nola esaten dai?, launak, aldi batĭako, ta etsaiek, betiko?* 'nola esaten dute?, lagunak, aldi baterako, eta etsaiak, betirako?'. ▲ Sin. *enemigo*, *kontraio*. ▼ Anton. *aixkide*. ◆ **ifarnuko etsaia**. Deabrua. *Ifarnuko etsaia baindo gaiztokwa* 'infernuko etsaia baino gaiztokoagoa'.

etsaki, etsakia

BEGIZTA (LASTOZ EGINA)

tramojo, vencejo

etsaki iz. Gari-azaoa lotzeko lastoz egindako lokarria (Ond Bak). Tramojo para atar haces. [Urdiain]. etxaki, etxakia (?). Ald. **etseiki** iz. (Iza Alts): el vencejo de centeno para atar trigo.

etseiki, etseikia

BEGIZTA (LASTOZ EGINA)

tramojo, vencejo

etseiki iz. Gari-azaoa lotzeko lastoz egindako lokarria. (Iza Alts): el vencejo de centeno para atar trigo. Ik. **etsaki**.

etsi

ETSI

desesperar, desistir, resignarse
acostumbrarse, adaptarse, hallarse bien

etsi **1** *dau* ad. Norbaitek zerbaiten itxaropena galdu, dagoen bezala gelditzea onartu eta amore eman. *Mendi tontorrĭa ailatu artĭa, ez zan etsi* 'mendi tontorrera ailegatu arte, ez zuen etsi'. **2** *dau* ad. Egoera berri batera ohitu, moldatu. *An ezan etsitzen ta alde in zen* 'han ez zuen etsitzen eta alde egin zuen'. ◆ **etsirik** (> *etsik*) adb. ◆ **etsita egon** (> *etsita yon*). ◆ **etsi-etsian** (> *etsi-etsien*) adb. Beste erremediorik gabe. *Etsi-etsien, beste erremeioipe* 'etsi-etsian, beste erremediorik gabe'. *Uran tubwa lertu zaigun ta, gwai bai, etsi-etsien in berko dinu obrĭa* 'uraren hodia lehertu zaigun eta, orain bai, etsi-etsian egin beharko dinagu obra' [*Obra*, konponketa]. ◆ **ezin etsi**. Ezin gelditu, ezin eutsi. *Ezin etsi ta aurrak jan jitunai abwelandako yosi tun pastelak* 'ezin etsi eta haurrek jan ditizten amonarendako erosi ditugun pastelak'. *Birusangeiti etxĭen preso yon berra jukan, bea ezin etsi ta danekoz aldein din kanpwá* 'birusarengatik etxean preso egon beharra zaukan, baina ezin etsi eta dagoeneko alde egin din kanpora'. *Zerbeit yosi artĭa, ezin etsi* 'zerbait erosi arte, ezin etsi'. *Gauza bat in artĭa, ezin etsi* 'gauza bat egin arte, ezin etsi'. *Etxĭen, ezin etsi* 'etxean, ezin etsi. ¬

etsi-etsien

ETSI-ETSIAN

sin otro remedio, a la desesperada

etsi-etsian (> *etsi-etsien*). *Etsi-etsien, beste erremeioipe* 'etsi-etsian, beste erremediorik gabe'.

etsik

ETSIRIK

estar resignado, -a

etsirik (> *etsik*) adb.

etsipen, etsipena

ETSIPEN

resignación

etsipen iz. Itxaropena erabat galdu duenaren egoera; etsi duenaren egoera.

etsitu, etsitzen

ETSITU

etsi

desesperar, desistir, resignarse

etsitu *da* ad. Ik. **etsi**.

etxaju, etxajua

SUZIRI, ETXAFUEGO

cohete

etxaju [Urdiain] (Iza Alts): etxafua. Etxafuegoa, suziria. **etxafuaketa**: "Irrintzíz néska-mutilak eta errómeiyán dánbolina ta jotzén da etxáfuaketa tiatzen dá" (Iza Alts).

etxalde, etxaldia

ETXALDE

familia

caserío, hacienda, propiedad rural [incluyendo las tierras]

etxalde iz. *Etxalde onekua da hura* (Ond Bak). [Urdiain]: *Etxalde onekua, familia onekua*. Ik. **familia**.

Etxarri

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranatz

Etxarri. Etxarri Aranatz. • Esr. zah. *Etxarri Aranatz, arana jan da mihia latz* (Ond Bak). *Etxarri, kunkun belarri*.

etxarriar, etxarriarra

ETXARRIAR, ETXARRIARANAZTAR

etxarriarra, etxarriaranaztarra

etxarriar adj./iz. Etxarriarra, etxarriaranaztarra.

etxarte, etxartia

ETXARTE

callejón; espacio entre casas

etxarte iz. Etxe arteko kalexka edo tartea.

etxe uso, etxe usua

ETXE USO

paloma doméstica

etxe uso iz. Etxekotutako usoa.

etxe, etxia

ETXE

casa
casa, vivienda, hogar
edificio, casa
familia; linaje, tribu, casa

etxe iz. *Etxe bakarra, hotza*. || *Panon etxia*. *Etxi'au*. *Etxien zola*. *Aldeko etxetik*. *Etxá* 'etxera' (Ond Bak)||. *Herrien'txia*. *Etxiazkuen ogia yosiko dot* 'etxerakoan ogia erosiko dut'. *Gazin etxĭá* 'goazen etxera'. Ik. **bestetxe**. • Esr. zah. *Etxeik eztukanak, errik ez* 'etxerik ez daukanak, herririk ez'. • *Nork be etxe pobrĭa, erregĭena baindo obĭa* 'nork bere etxe pobrea, erregena baino hobea'. ◆ **etxea gobernatu** (> *etxĭa gobernatu*). ◆ **etxea zaindu** / **zeindu** (> *etxĭa zeindu*). (= etxea gobernatu). ◆ **aldeko etxe**. Aldameneko etxea. ◆ **etxerik etxe** (> *etxeĭk etxe*). Etxez etxe. *Etxeĭk etxe daitza eskĭen* 'etxerik etxe dabiltza eskean'. *Etxeĭk etxe ibiltzen zan arraia saltzen* 'etxerik etxe ibiltzen zen arraina saltzen'. ◆ **etxerako egin** (> *etxĭako in*). Etxearen alde jardun. (Konnotazio negatiboa ere izan dezake, norbaitek beretako bakarrik egiten duela adieraziz). ◆ **etxe zuloan sartuta egon** (> *etxe zulwen sartuta yon*). ◆ **etxea jan** (> *etxĭa jan*). Porrot egin. Ik. **porrot egin**; **arruinatu**. ◆ **etxe guztietako kontua izan** (> *etxe guztitako kontua izan*). Familia guztietan gertatzen dena izan. ◆ **etxe garbitzaile**. *Etxe garbitzaile daile* 'etxe garbitzaile dabil'. ◆ **etxe uso** iz. Etxekotutako usoa. ¬

etxebu, etxebua

FATXADA (EGUTERA ALDEKOA)

fachada solana

etxeburu* (> *etxebu*) iz. Egutera aldeko fatxada, etxearen aurrealdea.

etxegain, etxegaina

ETXEGAIN

teilatu

tejado

etxegain ([Altsasu, Urdiain]) iz. Teilatua. ▲ Sin. *teilatu*.

etxegalte, etxegaltia

ETXEKALTE

pródigo, -a, despilfarrador, -a, que trae la ruina a la casa

etxegalte adj./iz. Etxekaltea, bere jokaerarekin bere etxearen hondamendia ekartzen duena. ● Esr. zah. *Santagerak, etxegaltĭek* 'santagedak, etxekalteak'. Lehen etxerik etxe egiten zen jaia, etxe bakoitzean jaten eta edaten emanez.

etxejabe, etxejabia

ETXEJABE

propietario, dueño

etxejabe iz. Etxearen jabea.

etxekan

ETXEKA [JOLASA]

juego que consiste en imitar las tareas de casa

etxekan iz. Etxeka [jolasa]. ◆ **etxekan ibili**. Mutxikan. – *Etxekako gauzak: patetako, koilaratako...* 'etxekako gauzak: plateretako, koilaratako...'.

etxeko jaun

ETXEKO JAUN

etxeko nagosi

cabeza de familia

etxeko jaun. Etxearen buru den gizonezkoa, gehienetan familiako aita. ▲ Sin. *etxeko nagosi*.

etxeko nagosi, etxeko nagosia

ETXEKO NAGUSI

etxeko jaun

cabeza de familia

etxeko nagusi (> *etxeko nagosi*)

etxeko, etxekua

ETXEKO

senide, familiako

miembro de la familia, familiar; los de casa

etxeko iz. (Batez ere pl.) *etxekuek*. *Giaure etxekwa* 'geure etxekoa'. Ik. **senide**, **familiako**. ◆ **etxeko nagusi** (> *etxeko nagosi*); ◆ **etxeko jaun**.

etxekoandra, etxekoandria

ETXEKOANDRE

patrona

ama de casa, dueña, señora de la casa, matrona, madre de familia
patrona

etxekoandra **1** iz. Etxekoandrea, etxea zuzentzen duen emakumea, gehienetan familiako ama. **2** iz. Ostatu, taberna edo kideko tokiren bateko jabea den emakumea. *Etxekoandra on-on bat nukan nik* 'etxekoandre on-on bat neukan nik. ▲ Sin. *patrona*.

etxekoandratasun, etxekoandratasuna

ETXEKOANDRETZA

trabajo de ama de casa

etxekoandratasun iz. Etxekoandretza, etxekoandrearen egitekoa edo kargua.

etxeskina, etxeskinia

ETXE IZKINA

esquina de la casa

etxeskina iz. Etxe izkina, etxe kantoia.

etxetxiki, etxetxikia

etxetxiki iz.

etxetxo, etxetxua

ETXETXO

casita

etxetxo iz. Etxe txikia; etxe polita.

etxezulo, etxezulua

ETXEZULO

casero, -a, que sale poco de casa

etxezulo adj. Etxezalea, etxekoia.

etxiamu

ETZIDAMU (?)

etxiamu (?) Etzidamu (?).

etxura on

ITXURA ON

buen aspecto, buena pinta

etxura on iz. (*eduki*, *eman*, *hartu*, *ibili*... aditzekin) Itxura ona. *Itxura ona dukan txuma motx orrekin* 'etxura ona daukan txima motx horrekin'. *Paellĭorrek etxura ona jukan* 'paella horrek itxura ona zaukan'. *Eztĭat etxura onik artu* 'ez diot itxura onik hartu'.

etxura txar

ITXURA TXAR

mal aspecto, mala pinta

etxura txar iz. (*eduki*, *eman*, *hartu*, *ibili*... aditzekin) Itxura txarra. *Aurpegi zwi oi? Etxura txarra dukazu* 'aurpegi zuri hori? Itxura txarra daukazu'. *Etxura txarra ematen dai kontenedorioiek kale erdien* 'itxura txarra ematen dute edukiontzi horiek kale erdian'. *Etxura txarra artzen dĭat nik asuntworri* 'itxura txarra hartzen diot nik asunto horri'.

etxura, etxuria

ITXURA

traza, terraje, presenzia, fatxa, planta, figura

hechura, forma, figura, aspecto, apariencia, traza; presencia, planta, parecer; pinta

etxura (eta *itxura*) iz. Zerbait edo norbait gure begien aurrean aurkezten edo agertzen den era; zerbaitetatik edo norbaitengandik ikusten dena. *Etxura ona*; *etxura txarra*. *Etxura txarra duka; ezaun do eztailela ondo* 'itxura txarra dauka, ezagun dago ez dabilela ondo'. *Etxura txarra artu dau denborĭonek* 'itxura txarra hartu du denbora [eguraldi] honek'. ▲ Sin. *traza*, *terraje*, *presenzia*, *fatxa*, *planta*, *figura*. ◆ **etxura hartu** (> *itxurĭa artu*) **1** *dau* ad. Zerbaitek dagokion edo beharko lukeen forma edo eitea hartu. *Ia-ia jaso daĭ etxĭa; badiywa etxurĭa artzen* 'ia-ia jaso dute etxea; badijoa itxura hartzen'. **2** *dau* ad. Aipatzen denaren antza hartu. *Aman etxura bĭa artu dau* 'amaren itxura bera hartu du'. **3** *dĭa* ad. Zerbaitek aipatzen denaren itxura duela iruditu. *Mutil serio ta zogien etxurĭa artu dĭat* 'mutil serio eta zogiaren [zentzudunaren] itxura hartu diot'. ◆ **etxura on** iz. (*eduki*, *eman*, *hartu*, *ibili*... aditzekin) Itxura ona. *Itxura ona dukan txuma motx orrekin* 'etxura ona daukan txima motx horrekin'. *Paellĭorrek etxura ona jukan* 'paella horrek itxura ona zaukan'. *Eztĭat etxura onik artu* 'ez diot itxura onik hartu'. ◆ **etxura txar** iz. (*eduki*, *eman*, *hartu*, *ibili*... aditzekin) Itxura txarra. *Aurpegi zwi oi? Etxura txarra dukazu* 'aurpegi zuri hori? Itxura txarra daukazu'. *Etxura txarra ematen dai kontenedorioiek kale erdien* 'itxura txarra ematen dute edukiontzi horiek kale erdian'. *Etxura txarra artzen dĭat nik asuntworri* 'itxura txarra hartzen diot nik asunto horri'.

etxurabeiko, etxurabeikua

ITXURAGABEKO

desfigurado, -a; deforme; feo, -a; de mala facha
desmedido, -a; disparatado, -a; absurdo, -a

etxurabeiko **1** adj. Itxuragabea, itxuragabekoa. *Oi etxurabeiko jendĭa da* 'hori itxuragabeko jendea da'. **2** adj. Neurrigabea, eragabekoa. *Buruti nastuta do ta etxurabeiko kontuek esaten tu* 'burutik nahastuta dago eta itxuragabeko kontuak esaten ditu'.

etxuradun, etxuraduna

ITXURADUN, ITXURAZKO

de buena presencia, que tiene buena apariencia
que tiene aspecto de

etxuradun **1** adj. Itxuraduna, itxurazkoa, itxura ona duena. **2** adj. Konparatzean, halakoren itxura duena. [(El) que tiene aspecto de...].

etzi

ETZI

pasado mañana

etzi adb. Biharkoaren hurrengo egunean. ◆ **biher-etziko**. Bihar-etziko. ◆ **etziko** **1** adj. **2** adb. ¬

etziamu

ETZIDAMU

el día siguiente a pasado mañana

etzidamu

ETZIDAMU

el día siguiente a pasado mañana

etzidamu ([Altsasu]; eta *etziamu* [Urdiain]) adb. Etzikoaren hurrengo egunean. *Gaur, bier, etzi eta etziamu* 'gaur, bihar, etzi eta etzidamu'.

etzin

ETZIN, ETZAN

tumbarse, yacer, acostarse
recostar(se); reclinar(se)

etzin (eta *etzindu*) *da/dau* ad. ◆ **etzinda egon** (> *etzinda yon*). *Maien etzinda* 'mahaian etzinda'. ◆ **etzinik** adb. Etzanik.

etzinik

ETZANIK

tumbado, -a; acostado, -a

etzinik adb. Etzanik.

euliki, eulikia

MAILUKI, MARRUBI

fresa

euliki [Iturmendi] iz. (Bot.) Mailukia, marrubia (Fragaria vesca). Ik. **ailubi**.

Euskadi

EUSKADI

País Vasco

Euskadi. Ald. *Auskadi* (Ond Bak).

examen, examena

AZTERKETA

proba

examen, prueba

examen (> *esamen*) iz. Azterketa, etsamina. *Naiko ondo in dot examena* 'nahiko ondo egin dut etsanina'. ▲ Sin. *proba*. ◆ **examena egin** (> *examena in*, *esamena in*) *dau* ad. ▲ Sin. *probĭa in* (≠ *proba in*).

examinatu, examinatzen

ETSAMINATU, AZTERTU

examinar(se), analizar

examinatu (> *esaminatu*) *da/dau* ad. Etsaminatu, aztertu.

exijente, exijentia

ZORROTZ, ESTU

txorrotx

exigente

exijente adj. Ik. **zorrotz**; **txorrotx(a)**.

exijenzia

EXIJENTZIA

exigencia

exijenzia iz. Exijentzia. Ik. **hartzeko**.

exijitu, exijitzen

EXIJITU

exigir

exijitu *dau* ad.

existitu, existitzen

EXISTITU

izan

existir

existitu *da* ad. Ik. **izan**.

exkalu, exkalua

EZKAILU, KASKAILU

txipa

piscardo, foxino

exkixur, exkixurra

ISKINTXO

esquinazo, quiebro, regate

exkixur iz. Iskintxo. ◆ **exkixurra egin** (> *exkixurra in*) *dĭa* ad. Iskin egin, iskintxo egin; higidura egokia eginez, saihestu. *Exkixurra in jwak erbiek* 'iskintxo egin zidak erbiak'.

exkixurra in

ISKIN EGIN, ISKINTXO EGIN

fintar, hacer una finta, driblar, hacer un quiebro; dar esquinazo (a alguien)

exkixurra egin (> *exkixurra in*) *dĭa* ad. Iskin egin, iskintxo egin; higidura egokia eginez, saihestu. *Exkixurra in jwak erbiek* 'iskintxo egin zidak erbiak'.

exkuxo, exkuxua

ESKINOSO

ezkiluso

arrendajo (Garrulus glandarius)

exkuxo (eta *eskuxo* [Bakaiku]; *ezkiluso* [Altsasu]) iz. Eskinosoa (Garrulus glandarius).

exporta, exportia

BANASTA

espuerta

exportaka

SASKITARAKA

a espuertas

exportaka(n) adb. Saskitaraka, saskika.

ez

EZ

keba, kia

bai

no

falta, carencia; penuria, pobreza

ez **1** adb. Galdera bati erantzunez, ezezko esaldi baten ordaina. Ik. **keba**; **kia**. ▼ Anton. *bai*. **2** adb. (Galdera gisa, esaten denaren indargarri). *Bolswau zurĭa da, ez?* 'poltsa hau zurea da, ez?'. **3** iz. **eza**. Gabezia. **4** (Disjuntzioetan, maizenik *edo* (> *o*) juntagailua isilduta, eta aditz errepikatuaren aurrean) Eginkizun baten aurrean duda agertuz norantz makurtu. *Etorri, ez etorri, dudan ibili naiz*. *Yosi, ez yosi; ez dakit ze in* 'erosi, ez erosi; ez dakit zer egin'. ◆ **ez bekela** / **ez bezela**. Ez bezala. ◆ **ez bezalako** (> *ezpezelako*) *Persona diferentĭa dana, normala ez dana, bestĭek ez bekelakwa dana* 'pertsona diferentea, normala ez dena, besteak ez bezalakoa dena'. ◆ **ez eta** (> *ezta*). Ezta. ◆ **ez eta... ere** (> *ezta 're*). Ezta ere. ◆ **ez... ez...** *Ez árdi ta ez axúri*. Enaizela fan. Ezpalege (Ond Bak). ◆ **ez eze**. Ez ezik. ◆ **ez horixe** (> *ez oixe*). ◆ **ez horrengeiti(k)** interj. Eskerrak eman dituenari erantzuteko erabiltzen den esapidea. *—Eskerrikasko! —Ez orrengeiti!* '—Eskerrik asko! —Ez horregatik!'. ◆ **ez zera!** (> *ez zĭa*). ¬

ez bezelako, ez bezelakua

EZ BEZALAKO

diferente, distinto, -a

ez bezelako / **ez bekelako**. Ez bezalakoa. *Persona diferentĭa dana, normala ez dana, bestĭek ez bekelakwa dana* 'pertsona diferentea, normala ez dena, besteak ez bezalakoa dena'.

ez eze

EZ EZE, EZ EZIK

no sólo... sino también

ez eze. Ez ezik.

ez horrengeiti(k)

EZ HORREGATIK

de nada, no hay de qué

ez horrengeiti(k) interj. Eskerrak eman dituenari erantzuteko erabiltzen den esapidea. *—Eskerrikasko! —Ez orrengeiti!* '—Eskerrik asko! —Ez horregatik!'.

ez-

EZ-

ez- (prefijo)

ez- (aurrizkia) ezjakina (?) ezbehar (?)

ez-izan-da-bai-uste

HANDIUSTE, HARRO

jactancioso, -a; fanfarrón, -a

ez-izan-eta-bai-uste (> *ez-izan-da-bai-uste*) adj. Handiustez betea, harroa.

eza

EZ

falta, carencia; penuria, pobreza

eza iz. Gabezia. ¬

ezaien-ezaien

EZARIAN-EZARIAN

poliki

poco a poco; imperceptiblemente, de manera imperceptible

ezarian-ezarian (> *ezaien-ezaien* [Altsasu, Urdiain]) adb. Ik. **poliki**. *Ezaien-ezaien koloria fan zaio atorrĭoni* 'ezarian-ezarian kolorea joan zaio atorra honi'.

ezaun yon

EZAGUN IZAN

ser evidente, estar claro, saltar a la vista; verse, notarse, distinguirse, conocerse

ezagun egon (> *ezaun yon*). Nabaria izan, agerikoa izan. *Ezaun jok eztala emengwa* 'ezagun zagok ez dela hemengoa'. *Ezaun do* (*jok/jon*). *Ezaun do eztela lorik in* 'ezagun dago ez duela lorik egin'. *Ezaun jok arropĭa eztela plantxatzen* 'ezagun zagok arropa ez duela plantxatzen'. ◆ **ezagun-ezaguna egon** (> *ezaun-ezauna yon*).

ezaun, ezauna

EZAGUN

ezezaun

conocido, -a, sabido, -a, evidente
conocido, -a, famoso, -a, ilustre
conocido, -a, persona conocida

ezagun (> *ezaun*) **1** adj. Jende askok ezagutzen duena. *Ixinplwoi ezauna da inguko herrioitan* 'ipuin hori ezaguna da inguruko herri hauetan'. ▼ Anton. *ezezaun*. **2** iz. Elkar ezagutzen duten pertsonen artean, bakoitza besteekiko. *Launak ta ezaunak etor(ri) zezaizkion bisitatzea* 'lagunak eta ezagunak etorri zitzaizkion bisitatzera'. ◆ **ezaguna izan** (> *ezauna izan*). Jakina izan. ◆ **ezagun egon** (> *ezaun yon*). Nabaria izan, agerikoa izan. *Ezaun jok eztala emengwa* 'ezagun zagok ez dela hemengoa'. *Ezaun do* (*jok/jon*). *Ezaun do eztela lorik in* 'ezagun dago ez duela lorik egin'. *Ezaun jok arropĭa eztela plantxatzen* 'ezagun zagok arropa ez duela plantxatzen'. ◆ **ezagun-ezaguna egon** (> *ezaun-ezauna yon*).

ezauna izan

EZAGUNA IZAN

ser conocido, -a; (sabido, -a)

ezaguna izan (> *ezauna izan*). Jakina izan.

ezaupera, ezauperia

EZAGUERA

capacidad de reconocer (la identidad de algo o de alguien)

ezaupera iz. Ezaguera; ezagutzeko gaitasuna edo ahalmena. *Aitak ezaupera ona jukak: aspaldi ikusi beikwek'e ezautu iten jituk* 'aitak ezaguera ona zaukak: aspaldi ikusi gabekoak ere ezagutu egiten ditik'.

ezautu, ezautzen

EZAGUTU

conocer, tener relación con
conocer, saber, tener conocimiento
conocer, reconocer, distinguir, identificar

ezagutu (> *ezautu*) **1** *dau* ad. *Ezautu zenduzen abuela ta abuelo?* 'ezagutu zenituen amona eta aitona?'. *Erriko festatan ezautu gindan alkar* 'herriko festetan ezagutu ginen [genuen] elkar'. | *Baztarrok ondo ezautzen tu* 'bazterrok ondo ezagutzen ditu / ditugu'. **2** *dau* ad. Norbait nor den gogoan izan edo ohartu. *Nola aunditu dan Laiene!, asigeran enen ezautu* 'Nola handitu den Laiene!, hasieran ez nuen ezagutu'. ¬

ezein

EZEIN (EZEREN?)

iyungo

ningún, -una; ninguna clase de (en frase interrogativa o precedido de un elemento negativo)

ezein adj. *Ezeingeiti inportaik ez* 'ezeingatik inportarik ez'. Badukazai ezein berrik? 'badaukazue ezein berririk?'. Ik. **inongo** (> *iyungo*). *[Aztertu: ezein ala ezeren (?)].

ezen ezein?; ezer / ezeren?

EZEIN?; EZER / EZEREN?

ezen adj. Ezein (?); ezeren (?). *Ezen ajeipe* 'ezen ajerik gabe'. *Etxukat gaio ezen dibersioik: oya!* 'ez zeukaat gehiago ezen dibertsiorik: ohea!'. *Erleju berri onek, ezen kuidadoipe, beak iten dau dana* 'erloju berri honek, ezen kuidadorik gabe, berak egiten du dena'. Ik. **ezein**. | *Onek eztuka ezen gustoik* 'honek ez dauka ezein / ezeren gustorik'. [*Oharra: aztertu 'ezein' ordez 'ezer / ezeren' ote den].

ezer

EZER

nada

ezer izord. (-r- bakunarekin nahiz bikunarekin) (ezezkoetan eta konparaziozkoetan; ondoan '*ere*' hartzen dau) *Ezto ezer'e?* 'ez dago ezer ere?' (Ond Bak). *Eztukat ezertako gogoik* 'ez daukat ezertarako gogorik'. ◆ **ezer egitekorik** (> *ezer itekoik*, *eze itekoik*). (Ezezko esaldietan). *Eztukat eze itekoik* 'ez daukat ezer egitekorik'. ◆ **ezer ez** (> *ezerez*, *ezez*). *—Ze esan dau? —Ezerez* '—Zer esan du? —Ezer ez'. ◆ **ezer gabe** (> *ezerbe*). *Ezerbe autzi dai* 'ezer gabe utzi dute'. ◆ **ezer gutxi** adb. Ia ezer ez. *Kontu oietan ezer gutxi dakit nik* 'kontu horietan ezer gutxi dakit nik'. ◆ **ezertarako** (> *ezertako*). ◆ **ezertarako ez izan** (> *ezertako ez izan*) / **ezertarako gauza ez izan** (> *ezertako gauza ez izan*). *Ezertako ez; oi eztok ezertako gauza* 'ezertarako ez; hori ez duk ezertarako gauza'. *Ezertako ez; ez arditako ta ez auntzetako* 'ezertarako ez; ez arditarako eta ez ahuntzetarako'.

ezerbe

EZER GABE

sin nada

ezer gabe (> *ezerbe*).

ezerez

EZEREZ (ALA EZER ERE EZ ?)

batez

insignificante; indigno, -a, miserable; inútil, inepto, -a

ezerez (eta *ezez*) adj. Ezertarako balio ez duena, erabat baztergarria. *Oi dok ezeza, eztik ezertako balio* 'hori duk ezereza, ez dik ezertarako balio'. Ik. **batez(a)**. ◆ **ezerezean** (> *ezerezĭen*, *ezezĭen*) adb. Ezerezien gelditu, autzi.

ezertako

EZERTARAKO

no valer para nada, ser (un) inútil

ezertarako (> *ezertako*). ◆ **ezertarako ez izan** (> *ezertako ez izan*) / **ezertarako gauza ez izan** (> *ezertako gauza ez izan*). *Ezertako ez; oi eztok ezertako gauza* 'ezertarako ez; hori ez duk ezertarako gauza'. *Ezertako ez; ez arditako ta ez auntzetako* 'ezertarako ez; ez arditarako eta ez ahuntzetarako'.

ezertxo

EZERTXO

nada de nada, nada en absoluto

ezertxo izord. Adkor. Ezer. ◆ **ezertxo ere** (> *ezertxore*) adb. (Ezezko esaldietan). *Jateko ezertxore eztukagu* 'jateko ezertxo ere ez daukagu'. Ik. **ezer**.

ezetz

EZETZ

baretz

que no
a que no
negativa, no

ezetz **1** adb. *Ezetz esan dezut* 'ezetz esan dizut'. *Uste dot ezetz* 'uste dut ezetz'. ▼ Anton. *baretz*. **2** adb. Ezezkoa berresan behar denean. —*Nai dezu ensalada gaio?* —*Ez*. —*Ze esan duazu?* —*Ezetz*. '—nahi duzu entsalada gehiago? —Ez. —Zer esan didazu? —Ezetz'. **3** adb. (Apustuaren adierazgarri gisa). *Ezetz asmatu nor etor dan* 'ezetz asmatu nor etorri den'. **4** iz. *Ez daki ezetz esaten*. *Harek eztezu esanko ezetzik* 'hark ez dizu esango ezetzik'. ◆ **ezetz eta ezetz**. *Ezetz ta ezetz esan duet* 'ezetz eta ezetz esan diat'.

ezetz eta ezetz

EZETZ ETA EZETZ

que no y que no

ezetz eta ezetz adb.

ezez, ezere, ezerez

EZER ERE EZ (EZEREZ)

bat'ez, zero

Egun guztia eman dot ezer inbe 'egun guztia eman dut ezer ere egin gabe'.
Ez'tot nahi ezere 'ez dut nahi ezer ere'.
– Ze esan dezu? - Ezerez! / Ezez! / Eztazere!

ezeza

EZEREZ

kakanarru, bateza; inutil

insignificante; inútil, inepto, -a

ezerez (> *ezez*, *ezeza*) adj. Ezertarako balio ez duena, erabat baztergarria. *Oi ezeza* 'hori ezereza'. *Juramentuek botatzen tuen gizona: ezeza* 'juramentuak [biraoak] botatzen dituen gizona: ezereza'. Ik. **kakanarru**; **batere eza** (> *bateza*); **inutil**.

ezezaun, ezezauna

EZEZAGUN

ezaun

desconocido, -a, extraño, -a

ezezagun (> *ezezaun*) adj. ▼ Anton. *ezaun*.

ezezko

EZEZKO

baiezko, barezko

negativa, negación

ezezko iz. ▼ Anton. *barezko*.

ezin

EZIN IZAN

no poder

ezin *da/dau* ad. *Nai ta ezin* 'nahi eta ezin'. ◆ **ezin ...-ago** Ezin hobeto. —*Nola ze?* —*Ezin obeto!* '—nola zaude? —Ezin hobeto!' ◆ **ezinean** (> *eziněn*) adb. Nekez. *Emen naile, eziněn* 'hemen nabil, ezinean'. Ik. **nekez**. ◆ **ezinda** adb. *Saldu ezinda gelditu dĭa etxĭek* 'saldu ezinda gelditu dira etxeak'. ◆ **ezinik** adb. *Arnasĭa artu ezinik* 'harnasa hartu ezinik'. *Yon ezinik* 'egon ezinik'. ◆ **ezin izan**. *Ezin dau in* 'ezindu egin'. *Ezin da fan* 'ezin da joan'. *Ezin genduen izketa in* 'ezin genuen hizketa egin'.

ezin yon EZINEGON

ondoez

inquietud; impaciencia

ezin egon (> *ezin yon*; *ezin yonik*) adb. Ezinegona*. *Ezin yonik no* 'ezin egonik nago'. Ik. **ondoez**.

ezinbestien EZINBESTEAN

nahi ta nahi ez

necesariamente, sin remedio, por necesidad; obligatoriamente

ezinbestean (> *ezinbestĭen*) adb. Ik. **nahi eta nahi ez** (> *nai ta nai ez*).

ezinezko, ezinezkua EZINEZKO

inposible

imposible; imposible de

ezinezko 1 adj. Ezin daitekeena. *Ezinezkwa da esan dezun oi* 'ezinezkoa da esan duzun hori'. Ik. **inposible**. **2** (Aditzaren era burutuaren eskuinean). *Aztu ezinezko egunak pasatu genduzen* 'ahaztu eziznezko egunak pasatu genituen'.

ezinien EZINEAN

nekez

penosamente, con dificultad

ezinean (> *ezinĭen*) adb. Nekez. *Emen naile, ezinĭen* 'hemen nabil, ezinean'. Ik. **nekez**.

ezintasun, ezintasuna EZINTASUN

incapacidad; imposibilidad; impotencia

ezintasun iz. Zerbait egiteko ahal edo gaitasunik eza.

ezkabia EZKABIA

tiña

ezkabia iz. Larruazaleko eritasuna. (Tiña ala envidia?) Ald. *ezkamia* (?) Ik. **hatz**; **sarrena**.

ezkalu, ezkalua EZKAILU

txipa

piscardo, foxino común
bermejuela (Rutilus arcassi)

ezkalu (> *exkalu*) iz. Ezkailua, erreka eta urmaeletan bizi den arraintxoa (Phoxinus phoxinus). || *Ezkalua, arrai txiki bat* (Ond Bak). Ik. **txipa**.

ezkamia EZKABIA

ezkatz, ezkatza EZKARATZ

vestíbulo, zaguán, recibidor

ezkaratz (> *ezkatz*) iz.

ezkel, ezkela

EZKEL (PERTSONENGATIK ESANDA, UZKUR)

epel; ustel

remolón, -ona (que intenta evitar el trabajo o la realización de algo); pusilánime

ezkel adj. Pertsonengatik esanda, uzkurra, atzera egiten duena. *Persona ezkela: launtza ber denĭen, eskatu, bea bestei launtzen eztĭana* 'pertsona ezkela: laguntza behar duenean, eskatu, baina besteei laguntzen ez diena'. Arduretatik ihes egiten duena. Ik. **epel**; **ustel**.

ezker, ezkerra

EZKER

katxo, zurdo; 2 ezkertiar

eskubi

izquierda, lado izquierdo
mano izquierda, izquierda
izquierda (Pol.)
zurdo, -a

ezker **1** iz. Bihotza dagoen aldea. *Ezker aldĭa* 'ezker aldea'. || Oinetatí ezkerretá, Baiza (Ond Bak). ▼ Anton. eskubi. **2** iz. Ezkerreko eskua. *Ezkerrakin eskribitzen dau* 'ezkerrarekin eskribitzen du'. **3** adj. Ezkerrekoa, ezkertiarra. **4** adj. Ezkertia. *Gwe anaia ezkerra da* 'gure anaia ezkerra da'. Ik. **ezkerti**. ▲ Sin. *katxo*, *zurdo*.

ezkerreko, ezkerrekua

EZKERREKO

2 eskubiko

del lado izquierdo
de izquierda(s), izquierdista

ezkerreko **1** adj. Ezkerrean dagoena. **2** adj./iz. Ezkertiarra. ▼ Anton. *eskubiko*.

ezkerti, ezkertia

EZKERTI

ezker, katxo, zurdo

zurdo, -a

ezkerti adj./iz. Ezkerraz eskuinaz baino gehiago baliatzen dena. *Ezkerti bat duku etxĭen* 'ezkerti bat daukagu etxean'. ▲ Sin. *ezker*, *katxo*, *zurdo*.

ezkertiar, ezkertiarra

EZKERTIAR

eskubiko

izquierdista, de izquierda(s)

ezkertiar adj./iz. Ezkerreko alderdi baten aldekoa. ▼ Anton. *eskubiko*.

ezki, ezkia

EZKI

tilo

ezki iz. (Bot.) Zuhaitz garaia eta adaburu-biribila, hosto zabalak eta horzdunak, eta lore usaindunak dituena (Tilia). *Urbasa mendien bada ezkia franko* 'Urbasa mendian bada ezkia franko'. Ik. **tila**.

ezkila dorre, ezkila dorria (?)

EZKILA DORRE

ezkila dorre. (Ez) (Ik. **eliztorre**).

ezkila jotzaile, ezkila jotzaile

EZKILA-JOTZAILE; EZKILAZAIN

campanero, -a; tañedor, -a de campanas

ezkila jotzaile iz. Ezkilak jotzen duen pertsona. *Ezkila jotzaile ibili zan urte askwen* 'ezkila jotzaile ibili zen urte askoan'.

ezkila-hots, ezkila-hotsa

EZKILA-HOTS

repique de campanas; sonido de campana

ezkila-hots. Kanpai-hotsa.

ezkila, ezkilia

EZKILA

campana

ezkila **1** iz. Kanpaia. **2** iz. Ezkila-hotsa. ◆ **ezkila hots(ak)**. Kanpai-hotsa. – ezkila mihi (?). ◆ **ezkila(k) jo** (> *ezkilĭa jo / ezkilak jo*) (Singularrean nahiz pluralean). ◆ **ezkila jotzaile** iz. Ezkilak jotzen duen pertsona. *Ezkila jotzaile ibili zan urte askwen* 'ezkila jotzaile ibili zen urte askoan'. ◆ **hil ezkila**. Norbaiten heriotzaren berri ematen duen ezkila-hotsa. *Il ezkilak jo tuai. Bakizu nor il dan?* 'hil ezkilak jo dituzte. Badakizu nor hil den?'. ◆ **su ezkila**. (Batez ere pl.) *su-ezkilak*. Sutea dagoenean jotzen diren ezkilak.

ezkilak jo

KANPAIA JO

tocar la(s) campana(s)

ezkila(k) jo (> *ezkilĭa jo / ezkilak jo*) (Singularrean nahiz pluralean).

ezkiluso

ESKINOSO

eskuxo

arrendajo (Garrulus glandarius)

ezkiluso [Altsasu] iz. Eskinosoa (Garrulus glandarius). Ik. **eskuxo**.

ezkioz

EZKERO

desde

ezkeroz (> *ezkĭoz*) postpos. -z gero. (Orduekin eta denbora-postposizio gisa erabiltzen da). *Ordu bat ezkioz* (...). *Atzo ezkĭoz ez dot ikusi* 'atzo ezkero ez dut ikusi'.

ezkiza

EZKITZA*

*lugar donde abundan los tilos, tilar**

ezkiza iz. Ezki ugari dagoen eremua.

ezkonbeiko, ezkonbeikua

EZKONGABEKO

soltero, soltera; mutilzahar, neskazahar

soltero, -a, célibe

ezkongabeko (> *ezkonbeiko*) adj. Ezkongabekoa, ezkongabea. *Ezkonbeiko, ezkonbeikwek* 'ezkongabeko, ezkongabekoak'. Ik. **mutilzahar**; **neskazahar**; **soltero, -a**.

ezkonberri, ezkonberria

EZKONBERRI

recién casado, -a

ezkonberri iz./adj. *Ezkonberriek* 'ezkonberriak'.

ezkondu, ezkontzen

EZKONDU

casar(se)
unir(se); coincidir
ir a un lugar, establecerse en un lugar al casarse

ezkondu **1** *da/dau* ad. *Ezkontzeko de* 'ezkontzeko daude'. **2** *da* ad. Irud. Egokitu, bat etorri. *Ez da ezkontzen iyorekin* 'ez da ezkontzen inorekin'. **3** (Era burutua izenondo edo izen gisa). *Gizon eskonduek iten dai Sananton* 'gizon ezkonduek egiten [ospatzen] dute Sananton'. ◆ **norabait(era) ezkondu** (> *nwabaitĭa ezkondu*). *Alabĭa Iturmendĭa ezkondu zaie* 'alaba Iturmendira ezkondu zaie'.

ezkongai (?)

EZKONGAI

novio, -a; prometido, -a

ezkongai (?). Ik. **andragai**; **senargai**.

ezkontza

EZKONTZA

boda, casamiento, enlace (matrimonial)

ezkontza iz.

ezkontzeko

EZKONGAI, EZKONTZEKO

casadero, -a; soltero, -a

ezkontzeko adj. Ezkontzeko dagoena, ezkongaia.

ezkupe / eskupe / exkupe

GERIZPE, ATERPE, HAIZE-BABES

aterpe

abrigo del viento (al)

ezkupe (eta *exkupe*; *eskupe* [Bakaiku]) iz. Gerizpea, aterpea; haize-babesa. (Ond Bak): eskupe. Gue ataien ezkupia do: epela, haizeik ez, hotzik ez. Fan ber ga pareta baztar batia, han eskupia yonko da. Haiziek jotzen ezten lekuben do ezkupia. [Al abrigo del viento EHHA]. Ik. **aterpe**. ◆ **ezkupean egon** (> *ezkupĭen yon*).

ezkur bikorra

EZKUR ALEA

bellota

ezkur bikor. Ezkurra, ezkur alea.

ezkur, ezkurra

EZKUR

bellota

ezkur iz. Haritzaren, ametzaren, artearen eta kideko zuhaitzen fruitua. ◆ **ezkur bikor**. Ezkurra, ezkur alea.*Ezkur bikorra*.

ezpa

IZAN EZIK (EZ BADA)

excepto, salvo

ezpa (< *ez bada*). Izan ezik. *I ezpa beste guztiek agertu tuk* 'hi izan ezik beste guztiak agertu dituk'.

ezpal, ezpala

EZPAL

astilla

ezpal iz. Aizkoraz edo kideko tresnaren batez egurra edo zura ebakitzean gertatzen den zati ziri antzekoa. *Ekartazu ezpalak sua yazteko* 'ekar itzazu ezpalak sua irazekitzeko [pizteko]. ezpal onekua (?). [Bereizi, **espal**]. ◆ **lur ezpal(ak)**. (Batez ere pl.) Hezetasun handiegiarekin landutako lurra lehortzean gertatzen diren lur zati trinko eta gogorrak.

ezpartin

ESPARTIN

alpargata

ezpartina, ezpartinia

ESPARTIN

alpargata

ezpartina (*a* itsatsia) iz. pl. *ezpartinak*. || *Ezpartina* 'ezpartinaren' *gainien*. *Ezpartinak iten tubena ezpartingile* (Ond Bak).

ezpartingile

ESPARTINGILE

alpargatero, -a; que hace alpargatas

ezpartingile iz. Espartingilea. *Ezpartinak iten tubena ezpartingile* (Ond Bak).

ezpartu, ezpartua

ESPARTZU

esparto

ezpartu iz. Espartzua.

ezpata, ezpatia

EZPATA

espada
espadas (juego de cartas)

ezpata 1 iz. Arma zuria. 2 iz. Karta espainoletako lau sailetako bat. *Zazpiko ezpatĭa* 'zazpiko ezpata'.

ezpein, ezpeina

EZPAIN

labio

ezpein iz. Ezpaina. *Arek beti zigarrwa ezpeinetan* 'hark beti zigarroa ezpainetan'.

ezpel, ezpela

EZPEL

boj (Buxus sempervirens)

ezpel **1** iz. (Bot.) (Buxus sempervirens). *Ezta asko ikusten, bea ezpela etortzen da alderdi ontan* 'ez da asko ikusten, baina ezpela etortzen da alderdi honetan'. **2** iz. Ezpelaren zura. *Sukaldĭen ibiltzeko obĭa da ezpelakin indako koilarĭa* 'sukaldean ibiltzeko hobea da ezpelarekin egindako koilara'.

ezpitu, ezpitua

BIZKORTASUN. 2 SUSTANTZIA. [ESPIRITU (?)]

sustanzia

vigor
sustancia, esencia

ezpitu **1** iz. Bizidunen indarra, kemena, adorea. *Zarrak dukain ezpitua* 'zaharrek daukaten ezpitua [indarra]'. **2** iz. Hazkurria, alimentua, sustantzia. *Orrek jukak ezpitua, ezpitu guztia*. Ik. **sustanzia**.

ezta

EZTA

baita

ni, tampoco; ni siquiera
¿no?, ¿no es así?, ¿verdad?

ezta **1** junt. Ik. **ez eta... ere**; **ez eta**. *Orri dĭoselĭa? Ezta mozkorwik'e* 'horri diosala? Ezta mozkorturik ere'. ▼ Anton. *baita*. **2** (Galdera gisa, esaten denaren indargarri). *Fanko za, ezta?* 'joango zara, ezta?'. Ik. **ez**.

eztai, eztaia

EZTEI

boda(s), nupcias

eztai iz. Batez ere pl. *eztaiek*. Ezteia. ◆ **eztaiak egin** (> *eztaiek in*). ◆ **txorien eztai(a)**. *Txorien eztaia, egurrak txispak botatzen denien* 'egurrak [sutan] txinpartak egiten dituenean' (Ond Bak).

eztainu, eztainua

EZTAINU

estaño

eztainu iz. Metal grisaxka (Sn). *Oi eztainuekin soldatzen da* 'hori eztainuarekin soldatzen da'.

eztarri, eztarria

EZTARRI

txintxur

garganta

eztarri iz. Eztarrien jo 'janari puska bat eztarrian trabatu' (Ond Bak). Ik. **zinzur** (eta *txintxur*). *Eztarrĭá jo dwa eztulak* 'eztarrira jo dit eztulak'. ◆ **eztarria garbitu**. Eztarria leundu. ◆ **eztarriko min** iz. *Asigeran eztarriko mina sentitzen da* 'hasieran eztarriko mina sentitzen da'. ◆ **eztarriko zain**. ◆ **eztarriko zulo**. ◆ **eztarriko zuloraino egon** (> *eztarriko zulwaindo yon*). *Okatwik no, eztarriko zuluaindo!* 'okaturik nago, eztarriko zuloraino'. ◆ **kontrako eztarri** iz. Zintzur-hestea aipatzeko erabiltzen den esapidea. *Ito berrĭen, ardwa kontrako eztarritik fanda* 'ito beharrean, ardoa kontrako eztarritik joanda'. *Kontrako eztarritik jana fan* 'kontrako eztarritik jana joan'. ◆ **okerreko eztarri**. (?). Ik. **kontrako eztarri**.

eztarria garbitu

EZTARRIA GARBITU

carraspear

eztarria garbitu. Eztarria leundu.

eztarriko min, eztarriko mina

EZTARRIKO MIN

dolor de garganta

eztarriko min. *Asigeran eztarriko mina sentitzen da* 'hasieran eztarriko mina sentitzen da'.

eztarriko zain, eztarriko zaina

eztarriko zain iz.

eztarriko zulo, eztarriko zulua

EZTARRI ZULO

garganta

eztarriko zulo. ◆ **eztarriko zuloraino egon** (> *eztarriko zulwaindo yon*). *Okatuik nukak, eztarriko zulwaindo!* 'okaturik naukak, eztarriko zuloraino'.

ezten-zulo

EZTEN-ZULO

agujero en la oreja para señalar las ovejas

ezten-zulo (> *ezten-zulu*) iz. Markaz seinalatzeko, ardiei belarrian egindako zuloa {Agujero en la oreja para señalar las ovejas (Iza Alts)}.

ezten, eztena

EZTEN

punzon, puntxon

punzón, lezna

ezten* iz. Metalezko lanabesa, zuloak edo markak egiteko erabiltzen dena. ◆ **ezten-zulo** (> *ezten-zulu*) iz. Markaz seinalatzeko, ardiei belarrian egindako zuloa {Agujero en la oreja para señalar las ovejas (Iza Alts)}. Ik. **punzon**; **puntxon**.

ezti, eztia

EZTI

miel

dulce (?)

ezti iz. *Eztia ur berwekin artzĭa ona da katarrwendako* 'eztia ur beroarekin hartzea ona da katarroarendako'. **2** adj. Pertsona eztia (?). ◆ **eztia kendu**. *Erliari eztia kendu* 'erleei eztia kendu'.

eztul, eztula

EZTUL

tos

eztul **1** iz. *Eztuloi katarrwena da* 'eztul hori katarroarena da'. **2** adj. Ahula. *Jende eztula*. ◆ **eztarrira jo eztulak** (> *eztarrĭá jo eztulak*). *Eztarrĭá jo dwa eztulak* 'eztarrira jo dit eztulak'. ◆ **eztula egin** (> *eztula in*). ◆ **haize eztul**. Axolarik gabeko eztula. *Haize eztula, sugurreko haiziekin* (Ond Bak). ◆ **txakur eztul**. Eztul gogor eta latza, txakurraren zaunkaren antzekoa.

eztula in

EZTUL EGIN

toser

eztula egin (> *eztula in*).

eztulka(n)

EZTULKA

eztulketan

tosiendo

eztulka(n) adb. Eztulka, eztul eginez. *Eztulkan eman dau gau guztĭa* 'eztulka eman du gau guztia'. ▲ Sin. *eztulketan*.

eztulketan

EZTULKA

eztulkan

tosiendo

eztulketan adb. Eztulka. *Eztulketan daile yun guztĭa* 'eztulka dabil egun guztia'. Ik. **eztulkan**.

ezusteko, ezustekua

EZUSTEKO

sorpresa, imprevisto

ezusteko iz. Ustekabea. *Au ezustekwa ekar dwana* 'hau ezustekoa ekarri didana'

faborito, faboritua

FABORITO

favorito, -a
preferido, -a

faborito **1** iz. Irabazteko aukera gehien dituela uste den kirolari edo lehiakidea. **2** adj. Ik. **gustokoen.**

fabrika, fabrikia

FABRIKA

fábrica

fabrika iz. *Fabrikak ixten daitza* 'fabrikak ixten dabiltza'. Ik. **enpresa**; **industria**.

fabrikatu, fabrikatzen

FABRIKATU

in

fabricar

fabrikatu *dau* ad. Ik. **egin** (> *in*).

faena, faenia

FAENA

faena (trabajo)
faena (mala pasada)

faena **1** iz. Egitekoa. **2** iz. Alukeria, putakeria; jokaldi makurra. ◆ **faena egin** (> *faenĭa in*). *A ze faenia in dik!* Ik. **maldade**.

faisan, faisana

FAISAI

faisán (Phasianus colchicus)

faisan iz. Faisaia (Phasianus colchicus).

falanje, falanjia

FALANGE

falange (organización derechista)

falange (> *falanje*) iz. Eskuin muturreko alderdia.

falanjista, falanjistia

FALANGISTA

falangista (seguidor)

falangista (> *falanjista*) adj./iz. Falangismoaren aldekoa.

fallatu, fallatzen

HUTS EGIN

huts egin, fallo in

asmatu, azertatu

fallar

fallatu *dau* ad. Ik. **huts egin**; **fallo egin**. ▼ Anton. *asmatu*, *azertatu*.

fallo, fallua

HUTSEGITE; 2 AKATS

huts

fallo, error

fallo, defecto; falta

fallo **1** iz. Hutsegitea. **2** iz. Hutsa, akatsa; falta duena (*ipurfallo*). Ik. **huts**. ◆ **fallo egin** (> *fallo in*). Ik. **huts egin**; **fallatu**.

falso, falsua

FALTSU

zinaza

falso, -a

falso, -a; con doblez; falaz; fingido, -a; engañoso, -a

falso **1** adj. Faltsua, gezurrezkoa. *Diru falswa* 'diru faltsua'. **2** adj. Pertsona faltsua. *Falswa ta gezurtia izan da beti* 'faltsua eta gezurtia izan da beti'. ▼ Anton. *zinaza*. ◆ **falso egon** (> *falso yon*) adb. Motel egon, ahul egon. Ik. **falsotu**. ◆ **barre falso** (Ond Bak) iz. Barre faltsua, irri zuria. ◆ **bero falso**; **denbora falso** iz. Ekaitzaren aurreko giro sargoria. ◆ **ipar falso** (> *iper falso*) iz. Haizea; hego haizea eta iparra nahasten direnean; ipar-lainoa sortzen du.

falsotu, falsotzen

NEKATU, AHULDU, MAKALDU

nekatu, ahuldu, makaldu

decaer, coger una pájara

falsotu *da* ad. Makaldu, bizitasuna edo indarra galdu; nekatu. *Bero zarronekin lanĭen ibili ta raso falsotwik no* 'berotzar honekin lanean ibili eta arras ahulduta nago'. ▲ Sin. *nekatu*, *ahuldu*, *makaldu*.

falta izan, faltako

FALTA IZAN

faltar; carecer de

falta izan **1** *da* ad. Izan edo egon beharko zuena ez izan edo ez egon. *Zenbat egun falta dĭa?* 'zenbat egun falta dira?'. *Despeitzeko gutxi falta zaie* 'despeditzeko [amaitzeko] gutxi falta zaie'. *Emen jendĭa falta da* 'hemen jendea falta da'. *Gelĭoni argitasuna falta zaio* 'gela honi argitasuna falta zaio'. *Gwaindo asko falta da* 'oraindik asko falta da'. *Alare, dibersio pixkat ezta faltako* 'hala ere, dibertsio pixka bat ez da faltako'. **2** **falta ibili** (eduki). *Txakurrak belarri puntĭa falta duka* 'txakurrak belarri punta falta dauka'. *Bi tornillo falta dukatzi* 'bi torloju falta dauzka'.

falta, faltia

FALTA

eskasia

falta, culpa, error; pecado
error, defecto, fallo, falta
falta, carencia, privación, ausencia
falta (Kir.)

falta **1** iz. Hutsa; errua; akatsa. *Danok dukatziu faltak* 'denok dauzkagu faltak'. **2** iz. Gabezia, eza. Ik. **eskasia**. *Gogo falta*. *Eztukai ezere; dana falta zaie* 'ez daukate ezer ere; dena falta zaie'. **3** iz. Kirol. Arau haustea. Ik. **txar**; **mala**.

◆ **falta gabe** (> *falta be*) adb. Huts egin gabe. *Etor adi falta be* 'etor hadi falta gabe'.

◆ **faltak atera** (> *faltak ata*). *Nei faltak atatzen ematen dezu eguna* 'niri faltak ateratzen ematen duzu eguna'. *I nei beti faltak atatzen* 'hi niri beti faltak ateratzen'.

◆ **faltak atatzaile**, faltak atatzailia.

◆ **faltan** adb. *Egun baten faltan* (...). *Esan faltan*.

◆ **faltan bota**, **faltan egon** (> *faltan yon*).

faltatu, falta, faltatzen

FALTATU

faltar; carecer de
faltar, fallar, cometer una falta; no cumplir
faltar, no acudir

faltatu **1** *da* ad. *Frutĭa yostĭa falta zaigu* 'fruta erostea falta zaigu'. || (Ond Bak): Neri falta zakiten 'zitzaidan', hari falta zakion 'zitzaion'. Ez dok besteik falta hura etortzia eta etxien iyor'e ez yotia (Ond Bak). **2** *dau* ad. Ez kunplitu. *Faltatu in dĭa* '[errespetua] faltatu egin dio'. Ik. **falta egin** (> *faltĭa in*). **3** *da* ad. Huts egin, ez agertu. *Gaur Andrea faltatu da*.

faltsukei, faltsukeia

FALTSUKERIA

falsedad; engaño

faltsukeria (> *faltsukei*, *faltsukeia*) iz.

fama, famia

FAMA

fama; renombre; reputación

fama iz. ◆ **fama ona eman** / **fama txarra eman**. ◆ **fama eraman** (> *famĭa yan*). Fama izan. *Famĭa yaten dik patatĭonek* 'fama eramaten dik patata honek'.

famatu, famatua

FAMATU

famoso

famoso, -a; célebre

famatu[2] adj. Ospetsua. ▲ Sin. *famoso*.

famatu, famatzen

FAMATU

ensalzar, dar fama

famatu[1] *dau* ad. Goraipatu. *Binapin, ebein erria famatzen dai* 'behinik behin, euren herria famatzen dute'.

familia

FAMILIA

familia
familia, hijos, descendencia

familia (eta *famelia*) **1** iz. *Familia mantentzeko, naiko lan* 'familia mantentzeko, nahiko lan'. **2** iz. Seme-alabak. *Eztukai familiaik* 'ez daukate familiarik [seme-alabarik]'. ◆ **familia izan** *dau* ad. Haurrak izan.

famoso, famosua

FAMATU

famatu

famoso, -a; célebre

famoso, -ia (Generoa hartzen du) adj. Ik. **famatu**.

fan da bila

JOAN ETA BILA (EZAK/EZAN/...)

vete tú a saber

joan eta bila! (> *fan da bila*). Auskalo. Ik. **auskolo**.

fan dan / zan urte, urtia

JOAN DEN / ZEN URTE; IAZ

el año pasado

fan dan / **zan urte** iz. Joan den urtean, joan zen urtean; iaz. *Fan zan urtien izan zan* 'joan zen urtean izan zen'. *Fan zan urteko festak onak izan zĭan, bea aurtengwek obĭek* 'joan zen urteko festak onak izan ziren, baina aurtengoak hobeak'. Ik. **heldu dan urte** (> *eldu dan urte*, *eldwan urte*).

fan, faten

JOAN

etorri, heldu

ir(se), dirigirse; salir, partir, marchar(se), ausentarse
pasar, irse; morir(se)
desaparecer; agotarse, acabarse, extinguirse

fan **1** *da* ad. Joan. *Etxĭá fan da* 'etxera joan da'. || (Ond Bak): Fan zieken. Fan zaken. Fan ber dezeila. Egunero meza 'mezara' fan. Fan emen zien Erromá ezkontzeko. Handi beraxo fanda, Aingíbel. Fanko nintzake. Ni niyuá (Ond Bak). | *Nuan oyá* 'noan ohera' [agintera; norberak bere buruari]. **2** *da* ad. (Modua adieraziz). *Oinez fan da* 'oinez joan da'. || Arbolak haundio dozi, haunditzen ai dia. Hura (autobus) batien faten ezpada bestien fan in ber da. (Ond Bak). **3** *da* ad. (Ogibidea-edo adieraziz). *Neskame fan zan Iruña* 'neskame joan zen Iruñera'. **4** *da* ad. Desagertu; hil. *Fan da orrena* 'joan da horrena [horrenak egin du]'. *Fan da; fan zaigu* 'joan da; joan zaigu [hil]'. *Fan zaigu aldameneko Maria* 'joan zaigu aldameneko Maria [hil]'. *Garai aiek fan zĭan* 'garai haiek joan ziren'. *Fan dĭa emengo komediek* 'joan dira hemengo komeriak'. • Esr. *Fania fanik; faniek fanik* 'joana joanik; joanak joanik'. **5** *da* ad. (Denbora adierazten duten hitzekin). ◆ f*an dan / zan astien; fan dan / zan hilien; fan dan / zan urtien*. *Fan zan urtĭen* 'joan zen urtean'. || Marsuba fan emen zan (Ond Bak). ◆ **joan eta bila!** (> *fan da bila*). Auskalo. Ik. **auskolo**. ◆ **joan hadi...** (> fan hadi...). *Fan adi txakurran ipurzulwa!* 'joan hadi txakurraren iputzulora!'. | *Fan adi Tortosa jo artĭa!* 'joan hadi Tortosa jo arte!'. ◆ **joan-etorri** (> *fan-etorri*). ◆ **joan eta etorri** (> *fan da etorri*). ◆ **joanik egon** (> *fanik yon*). *Fanik do* 'joanik dago'. **1** Joan da. **2** Burutik eginda dago. ◆ **zazi** (Esapidea). Zoaz jakitera. ▲ Sin. *auskolo*, *fan da bila*, *batek daki*, *jakintazu*.

fandango, fandangua

FANDANGO

fandango
vulva

fandango **1** iz. Mus. Hiru aldiko dantza bizia; dantza horren doinua. **2** iz. Lgart. Alua.

faneran

JOANERAN

etorreran

al ir, en la partida, en la marcha; en la dirección de marcha

faneran adb. Joaneran. *Faneran, fatekwen* 'joaneran, joatekoan'. *Faneran, alde do aizĭa* 'joaneran, alde dago haizea'. Ik. **etorreran**.

fanfarron, fanfarrona

HARRO, HANDIUSTE

harro, harroputz (?), panparroi

apal, umil

fanfarrón, -a

fanfarron adj. Handiustea, harroa. ▲ Sin. *harro*, *harroputz* (?). ▼ Anton. *apal*, *umil*.

fanfarronkeia

PANPARROIKERIA, HARROKERIA

harrokeia, nor-ga-gu, nor-naiz-ni

fanfarronería, vanidad, orgullo

fanfarronkeria (> *fanfarronkeia*) iz. Panparroikeria, handiustekeria, ahoberokeria. Ik. **harrokeia** (> *arrokeia*); **nor-ga-gu**; **nor-naiz-ni**.

fantasma, fantasmia

FANTASMA

momo (Haur.)

fantasma

envanecido, -a; presuntuoso, -a

fantasma **1** iz. Mamua. Ik. **momo** (Haur.). **2** adj. Handiustea. *Fantasma xamarra don* 'fantasma xamarra dun'.

far-far-far

BAR-BAR

bar-bar-bar, zar-zar-zar

(llover) copiosamente

far-far-far adb. *Yauria deka fár-far-far* 'euria dakar far-far-far'. Ik. **bar-bar-bar**; **zar-zar-zar**.

fara-fara

MARA-MARA

firi-fara

poco a poco, suavemente; en abundancia, copiosamente

fara-fara adb. Mara-mara. *Fara-fara; elurra gustora eta asko ari* (Ond Bak). Ik. **firi-fara**.

fara-mihi, fara-mihia

JOARE MIHI

badajo

fara-mihi iz. Joarearen mihia.

fara, faria

JOARE

cencerro

fara iz. Joarea. *Farĭa ustaiekin lotzen zan lepwen* 'joarea uztaiarekin lotzen zen lepoan'. *Fara txiki*. | *Mandafara*, *mandafarĭa*. ◆ **fara hots**(a). ◆ **fara mihi**(a).

faradun, faraduna

JOALDUN

(animal) que lleva cencerro; cabestro

faradun adj./iz. Joalduna; joarea duen animalia, gehienetan, taldearen gidaria izaten dena. *Animali faraduna* 'animalia joalduna'. || *Momoxarro faraduna*.

fardel, fardela

FARDEL

desaliñado, -a; desaseado, -a; abandonado, -a

fardel adj. Baldarki janzten dena, arlotea. *Jende fardela*. Ik. **tresondagarri**.

fardeldu, fardeltzen

FARDELDU, NARRASTU

descuidar(se), abandonar(se), desasear(se), desaliñar(se), descomponer(se); volverse haragán, -

fardeldu *da* ad. Narrastu, narras bihurtu; janzkeran, itxuran eta kidekoetan behar lukeen apaintasuna, txukuntasuna edo jasotasuna galdu.

fardelina

[PIXOIHALAREN BABESGARRIA]

fajita de los pañales; cubre pañal (paño para cubrir el pañal de los bebés)

fardelina iz. Haur txikiei pixoihalaren gainetik jartzen zaien oihalezko babesgarria. [(Ond Bak) Fajita de los pañales. Es un pedazo de tela de paño que se pone encima de los pañales para taparlos)].

fardo, fardua

FARDO

bala

fardo, lío grande de ropa / forraje

fardo iz. Zerbaitekin, toki batetik bestera garraiatzeko, egiten den fardel handia. *Bear fardwek; agotz fardwek* 'belar fardoak; ahotz fardoak'. Ik. **bal / bala**. ◆ **fardoak egiteko makina** (> *fardwek iteko makiñia*).

farmazeutiko, farmazeutikua

FARMAZIALARI, BOTIKARI

botikaio

farmacéutico, -a

farmazeutiko iz. Botikaria, farmazialaria. Ik. **botikario** (> *botikaio*).

farmazia

FARMAZIA

botika

farmacia, botica

farmazia iz. Botika denda. Ik. **botika**.

farol, farola

FAROL

farol (lámpara)
farola
despreocupado, -a

farol **1** iz. Eskuko argiontzia. **2** iz. Kale-argia. **3** adj. Axolagabea. *Persona farola*. ◆ **farola izan** [viva la virgen].

farrastada, farrastadia

PARRASTADA

chorro; manojo, puñado

farrastada iz. Parrastada; uraz, haizeaz edo aleez mintzatuz, kopuru handia eta bat-batekoa. *Ur farrastadĭa* 'ur parrastada'.

fataile, fatailia

JOALE

viajero, -a; que marcha, que parte

fataile adj./iz. Joalea, joaten dena. *Ezaken Altsua fatailia* 'ez zuan Altsasura joalea'.

fatalidade, fatalidadia

ZORIGAIZTO

zoritxar, desgrazia.

fatalidad, desgracia, desdicha

fatalidade iz. Zoritxarra. *Au fatalidadĭa! Dana txarki ata zaira* 'hau fatalidadea! Dena txarki atera zait'. Ik. **zoritxar**; **desgrazia**.

fatxa, fatxia

PLANTA, ITXURA, TANKERA

itxura, traza, tankera

facha, traza, figura, aspecto

fatxa iz. Planta, itxura, tankera.

fatxada, fatxadia

FATXADA

fachada

fatxada iz. Eraikin baten kanpoaldea, eta bereziki aurrealdea. Ik. **aurrekalde**. *Arrailatwik duka fatxada guztĭa* 'arraildurik dauka fatxada guztia'.

fede, fedia

FEDE

fe
creencia; credo, doctrina
fe, confianza
intención, propósito

fede **1** iz. Erlijioko egiei eta dogmei buruzko sinestea. *Fedĩa galdu* 'fedea galdu'. **2** iz. Sinesgaien multzoa. *Fede zarrekwa* 'fede zaharrekoa'. **3** iz. Konfiantza, uste ona. *Fede aundik ez* 'konfidantza handirik ez'. *Etxuak ematen fede aundik* 'ez zidak ematen fede [konfidantza] handirik'. **4** iz. Asmoa. ◆ **fede on**. Asmo ona. *Fede onekwa* 'fede onekoa, asmo onekoa'. ◆ **fede txar**. Fede gaiztoa, asmo txarra. *Fede txarrekwa* 'asmo txarrekoa'.

fedebeiko, fedebeikua

FEDEGABEKO

fededun

incrédulo, -a; no creyente; infiel

fedebeiko adj. Fedegabekoa, federik ez duena. ▼ Anton. *fededun*.

fededun, fededuna

FEDEDUN

fedebeiko

creyente; fiel

fededun adj./iz. Fedea duena; kristauentzat, bereziki, kristau fedea duena. ▼ Anton. *fedebeiko*.

fei, feia

FERIA, AZOKA

merkau

feria, mercado
feria, fiesta
batiburrillo

fei **1** iz. Feria, azoka. *Feia*; *feiek*. **2** iz. Batez ere pl. Festa. *Altsuko feiek* 'Altsasuko feriak [festak]. **3** iz. (Gutxiespenezkoa) Hedaduraz, gauzen nahaspila, nahaste-borrastea. *Yantzak emendi ezur fei oi* 'eramantzak hemendik hezur feria hori'. *Kentzak orti libu fei oi* 'ken ezak hortik liburu feria hori'.

feliz

ZORIONTSU

zorioneko

feliz

feliz adj. Zoriontsu. Ik. **zorioneko**.

felizidade

ZORION, ZORIONTASUN, FELIZITATE

zorion

felicidad

felizidade iz. Zoriona, zoriontasuna. Ik. **zorion**.

felizitatu, felizitatzen

ZORIONAK EMAN

zorionak! (zorionak eman)

felicitar

felizitatu *dau* ad. Zorionak eman. Ik. **zorionak!** (zorionak eman). *Gaubonak ta Urteberria felizitatzeko postala bialtzen dea* 'Gabonak eta Urteberria zoriontzeko postala bidaltzen dio/die'.

felizitazio, felizitaziua

ZORIONAK EMATE; ZORION IZKRIBU

felicitación
felicitación, tarjeta postal con que se felicita

felizitazio **1** iz. Zorionak ematea. **2** iz. Zorion txartela, zorion izkribua. *Felizitaziua bialdu deat* 'felizitazioa bidali diot'. *Jaso dot Gaubonetako felizitaziua* 'jaso dut Gabonetako zorion txartela'. Ik. **postal**.

ferra, ferria

FERRA

herradura

ferra iz. *Gwai ezta ferra otsik aitzen* 'orain ez da ferra hotsik aditzen'.

ferratoki, ferratokia

FERRATOKI

herradero [lugar]

ferratoki iz. *Sutaien aldamenĭen yoten zan ferratokia* 'sutegiaren aldamenean egoten zen ferratokia'.

ferratu, ferratzen

FERRATU

herrar, poner herraduras

ferratu *dau* ad. Zamariari edo abelgorriari ferrak paratu. *Behia ferratu; idia ferratu*.

ferratzaile, ferratzailia

FERRATZAILE

herrador, -a [oficio]

ferratzaile iz. Zamariak eta abelgorriak ferratzen dituen pertsona. *Errementaia bea zan ferratzailĭa* 'errementaria bera zen ferratzailea'.

ferreteia

BURDINDEGI

ferretería

ferreteria (> *ferreteia*) iz. Burdindegia.

ferri, ferria

URTSU

acuoso, -a; líquido, -a

ferril, ferrila

TRENBIDE, FERROKARRIL

trenbide

ferrocarril; vía (del tren)

ferril iz. Trenbidea. *Ferrileko zwia* 'trenbideko zubia'. Ik. **trenbide**.

ferrobiario

BURDINBIDEETAKO LANGILE

ferroviario, -a, empleado de ferrocarriles

ferrobiario iz. Burdinbideetako langilea.

festa, festia

FESTA

jai

fiesta, festividad, festejo
fiesta, esparcimiento, diversión, entretenimiento

festa (eta *fĭesta*) **1** iz. Jaia, bereziki jostatzeko, alaitzeko edo atsegin hartzeko egiten dena. *Jende asko ibil da aurten erriko festatan* 'jende asko ibili da aurten herriko festetan'. *Yauria!? Akabo festak!* 'euria!? Akabo festak!'. Ik. **jai**; **jaiegun**. **2** iz. Olgeta, jostatze edo jai zaratatsua. *Afalondwen, festa ederra ibil dai!* 'afalondoan, festa ederra ibili dute!'.

fetxa, fetxia
DATA

egun, garai

fecha

fetxa iz. Data. *Ze egun da gaur? Gaur zenbat dau / dik / din hilak?* [Hileko egunaz galdegiteko esapidea]. | *Fetxa txarrak dĭa ok babatxuiek yaiteko* 'data [egun] txarrak dira hauek baratxuriak ereiteko'. ◆ **fetxa paratu** (> *fetxĭa patu*). Data paratu. Ik. **fetxatu**.

fetxatu, fetxatzen
DATATU

datar; fechar

fetxatu *dau* ad. Datatu, data jarri. Noiz jok fetxatuik? 'noiz zagok dataturik?'. Ik. **fetxa paratu** (> *fetxĭa patu*).

fiakaitz, fiakaitza
FIDAGAITZ

desconfiado, -a

fiakaitz adj. Fidagaitza; fidatzen ez dena. *Fiakaitza daiz geo'e!* 'fidagaitza haiz gero e!'.

fiatu, fiatzen
FIDATU

konfiatu — *deskonfiatu*

fiarse de; confiar en

fiatu *da* ad. Fidatu. *Ez fiatu batere orrekin, gezurra besteik eztau esaten da* 'ez fidatu batere horrekin, gezurra besterik ez du esaten eta'. Ik. **konfiatu**. ▼ Anton. *deskonfiatu*.

fideo, fideua
FIDEO

fideo

fideo (eta *fidero*, *fiderua*) iz. Zopako pasta, hari itxurakoa. *Fideo zopĭa* 'fideo zopa'. *Ekatazu fidero zorrwa* 'ekartzazu fideo zorroa'.

fidirika(n)
PIRIRIKA, FIRURIKA (?)

haizkan

(lanzar) dando vueltas, girando, rodando

fidirika(n) (eta *fidirizkan*; *firikan* [Bakaiku]) adb. Piririka (?); firurika (?). *Fidirikan bota arria* 'firikan bota harria'. Ik. **haizkan**.

fidirikan
FIRURIKAN (?)

(lanzar) dando vueltas, girando, rodando

fidirizkan
FIRURIKAN, FIRRINDAN, PIRIRIKA (?)

firikan; haizkan

arrojando, lanzando (al voleo)

fidirizkan (eta *fidirikan*; *firikan* [Bakaiku]) adb. Harrika, harriak jaurtitzen diren bezala; firurika (?); piririka (?). Ik. **firikan**; **haizkan**. ◆ **fidirizkan bota** (eta *fidirikan bota*). Harrika, harriak jaurtitzen diren bezala; firurika, firurikan (?). *Makilĭa fidirizkan bota zen* 'makila fidirizkan bota zuen'. *Fidirizkan bota zituen libuek* 'fidirizka [firurikan, harrika] bota zituen liburuak'. Ik. **firikan bota**; **haizkan bota**. ¬

fidirizkan bota

FIRURIKAN, FIRRINDAN; HARRIKA

arrojar, lanzar con fuerza

fidirizkan bota (eta *fidirikan bota*). Harrika, harriak jaurtitzen diren bezala; firurika, firurikan (?). *Makilĩa fidirizkan bota zen* 'makila fidirizkan bota zuen'. *Fidirizkan bota zituen libuek* 'fidirizka [firurikan, harrika] bota zituen liburuak'. Ik. **firikan bota**; **haizkan bota**.

fiebre, fiebria

SUKAR

sugar, kalentura

fiebre

fiebre iz. Sukarra. Ik. **sugar**; **kalentura**.

fiesta, fiestia

FESTA

jai

fiesta, festividad, festejo
fiesta, esparcimiento, diversión

fiesta (eta *festa*) iz. Festa. Ik. **festa**. *Erriko fĩestak* 'herriko festak'. Ik. **jai**. ◆ **fiesta egun**. Festa eguna; jaieguna. Ik. **jai**; **jaiegun**.

fiestazale, fiestazalia

FESTAZALE

parrandazale

fiestero, -a

figura, figuria

FIGURA

etxura

figura

figura iz.

fijatu, fijatzen

OHARTU; 2 FINKATU

kontuatu, errapatu. 2 heldu, lotu, sujetatu

observar, percatarse, fijarse, darse cuenta
fijar; sujetar

fijatu **1** *da* ad. Ohartu, erreparatu. *Fijadi ze in den* 'fija hadi zer egin duen'. Ik. **konturatu** (> *kontwatu*); **erreparatu** (> *errapatu*). **2** *da/dau* ad. Finkatu. Ik. **heldu**; **lotu**; **sujetatu**.

fijo, fijua

FINKO; 2 ZIUR

2 seguro

fijo, -a; firme; afianzado, -a; inmóvil; invariable
seguro, sin duda, con certeza

fijo **1** adj. Finkoa. **2** adb. Ziur. *Bier elurra, fijo!* 'bihar elurra, fijo!'. Ik. **seguro**[1].

filarmonika, filarmonikia

HARMONIKA

armónica (instrumento)

filarmonika iz. Harmonika, ahoko soinua.

filfur, filfurra

ARIN, FIN, MEHE

fin, mehe, arin

liviano, -a; fino, -a; ligero, -a

filfur 1 adj. Fina, arina, mehea; aukeran mehegia, finegia. *Arropa filfurrak. Gio ta filfurro iten dai reteteko papĭa* 'gero eta filfurrago egiten dute komuneko papera'. *Fumatzeko papĭa baindo filfurro* 'erretzeko papera baino filfurrago'. Ik. **fin**, **mehe**, **arin**. **2** iz. Jostailua. *Arien karretĭai patzen zezaion txapazko elize bat, ta iten zan filfurra* 'hariaren karreteari paratzen zitzaion txapazko helize bat, eta egiten zen filfurra'.

fili-fala

FIRI-FARA

ulular (del viento)

fili-fala onomat. Firi-fara, haize bigunaren higidura adierazteko erabiltzen den onomatopeia. *Haiziek fili-fala ibili* (Ond Bak).

fili-fili biar, fili-fili biarra

fili-fili belar (> *fili-fili biar*) iz. (Bot.).

fili-fili, fili-filia

LERTXUN

basatxipu

álamo temblón (?)

fili-fili iz. (Bot.) Lertxuna. Ik. **basatxipu**.

filtratu, filtratzen

IRAGAZI

pasatu

filtrar

filtratu *da/dau* ad. Iragazi. Ik. **pasatu**.

filtrazio, filtraziua

FILTRAZIO

filtración

filtrazio iz.

filtro, filtrua

IRAGAZKI, IRAZKI

filtro; pasador, colador

filtro iz. Iragazkia. Ik. **pasadore**.

fin, fina (1)

FIN (1)

fin, final

fin[1] iz. Amaiera. ◆ **fina eraman** (> *fina yan*). *A ze fina yan dau orrek!* 'a zer fina eraman du horrek!'. *Katu beltz arek yan din fina; aspaldi don eztala agertzen emeti* 'katu beltz hark eraman din fina; aspaldi dun ez dela agertzen hemendik'. ◆ **fin txar**. *Fin txarra*, *mal-fin*. ◆ **azken finean** (> *azkein finĭen*). Azken batean.

fin, fina (2)

FIN (2)

lirain / lirin; legun

fino, -a; delgado, -a; de poco grosor
agudo
selecto, -a, de buena calidad, sin mezcla; trabajado laboriosamente
diligente, hábil, trabajador, -a

fin[2] **1** adj. Esku finak. Ik. **legun**; **lirain / lirin**.
2 adj. Zorrotza. *Belarri fina*. *Sur fina* 'sudur fina'.
3 adj. Lan fina.
4 adj. Persona fina. ▲ Sin. *zintzo*, *onrau*.

final, finala

FINAL

final

final iz. Lehiaketa bateko azken partida edo norgehiagoka. *Eldu dan domekan jokatuko dai finala* 'heldu den domekan jokatuko dute finala'.

findu, fintzen

FINDU

pulir(se), refinar(se)

findu *da/dau* ad. Fin edo finago bihurtu. *Liyua findu* 'lihoa findu'.

firi-fara / fara-fara

FIRI-FARA; MARA-MARA

fara-fara

poco a poco, suavemente; en abundancia, copiosamente
descuidadamente; sin ton ni son; ganduleando

firi-fara onomat. *Elurra firi-fara deka* 'elurra firi-fara dakar'. *Aizĭa firi-fara daile* 'haizea firi-fara dabil'. Ik. **fara-fara** (Ond Bak). ◆ **firin-faran**. *Firin-faran*; hara eta hona, alde batetik bestera ezer ganorazkorik egin gabe. *Firi-fara dailen jendĭa* 'firi-fara dabilen jendea'.

firikan

PIRRITAN (?)

fidirizkan (?)

por encima del hombro (tirar una piedra, etc.)

firikan adb. *Firikan bota arria* (Ond Bak) ["Por encima del hombro. *Firikan bota arria*, tirar la piedra por encima del hombro" Ond Bac.]. Ik. **fidirizkan**.

firma, firmia

FIRMA, IZENPE, SINADURA

firma; rúbrica

firma iz. Sinadura. *Jakintazu nona dan firmioi!* 'jakin ezazu norena den firma hori!'. ◆ **firma bota** (> *firmĭa bota*). Sinatu. Ik. **firmatu**.

firmatu, firmatzen

IZENPETU, SINATU

firmia bota

firmar, signar

firmatu *dau* ad. Sinatu. *Nun firmatu ber da?* 'non firmatu behar da?'. *Firmatazu emen* 'firmatu ezazu hemen'. Ik. **firma bota** (> *firmĭa bota*).

firri-farra

BARRA-BARRA (AXOLAGABE)

pirri-parra, birri-barra, barra-barra

descuidadamente; sin ton ni son; fuera de orden y medida

firri-farra (eta *birri-barra*; *pirri-parra*) adb. Erruz. ◆ **firri-farra bota**. Erruz eta nolanahi bota.

firri, firria
URTSU (TXIRRIO)

bigun

acuoso, -a; líquido, -a

firri (eta *ferri* [Bakaiku]) adj./iz. Urtsua. Ik. **bigun**. *Zopa firria*. *Kakafirria* 'beherakoa'. *Firria duka* '[kaka] firria [beherakoa] dauka. Ik. **kakafirri**. ◆ **firri-firria**. Oso likidoa.

firrist, firrixt, rist
BRIXT

rist / rixt

firrist, **firrixt** (eta *rist*, *rixt*) onomat. Brixt. Higitze laster eta bat-batekoaren onomatopeia. *Eskuetati, firrixt, in zuan iesi* 'eskuetatik, firrixt, egin zidan ihesi'.

firritu, firritzen
DILUITU, LIKIDOAGO BIHURTU

diluir; hacerse más acuoso; -a; fluido, -a

firritu *da/dau* ad. Diluitu, likidoago edo urtsuago bihurtu. *Loia firritu* 'lohia firritu'.

firu, firua
PIRU (MEHE)

mehe

filamento; hilo; hebra de hilo; brizna de hilo

firu (izenondo gisa). Piru mehea. Hari edo harizpi itxurakoa. *Ari firu bat* 'hari piru bat; hari mehe bat''. *Ekatzu ari firu bat* 'ekar iezadazu hari puska bat'. *Ari firu txistina* 'hari piru ziztrina'. *Aurten, kipula firu batzuk sartu tut batzan* 'aurten, tipula piru batzuk landatu ditut baratzean'. *Oi jende firua* 'hori jende pirua [mehea]'.

fist
BRIXT

onomat. de un movimiento repentino y rápido
onomat. de lo que se escurre o desliza fácilmente

fist onomat. Brixt, higitze laster eta bat-batekoaren onomatopeia. ◆ **fist egin** (> *fist in*). Brixt egin; ihes egin. *Fist in dau iesi* 'brixt egin du ihesi'. *Amurraiek fist in dua iesi* 'amuarrainak brixt egin dit ihesi'.

fist in
BRIXT EGIN; IHES EGIN

(onomat.) de escapar con un movimiento repentino y rápido
onomat. escurrir(se) o deslizar(se) fácilmente

fist egin (> *fist in*). Brixt egin; ihes egin. *Fist in dau iesi* 'brixt egin du ihesi'. *Amurraiek fist in dua iesi* 'amuarrainak brixt egin dit ihesi'.

fistilu, fistilua
FLAUTA, TXILIBITU

txulufita, fistu

flauta

fistilu iz. Flauta, txilibitua. Ik. **txulufita**; **fistu**.

fistu in, fixtu in
TXISTU EGIN

silbar, pitar

fistu egin (> *fistu in*, *fixtu in*). Txistu egin, ahoarekin txistua jo. *Fixtu in, otsein* 'txistu egin, hots egin'. *Norbaitek in dau fixtu* 'norbaitek egin du txistu'. | Deitu. • Esr. zah. *Aguztuek neguai fixtu* 'abuztuak neguari txistu [deitu]'.

fistu, fistua TXISTU
2 txulufita
silbido, silbo
chistu; flauta

fistu (eta *fixtu*) **1** iz. Txistua. *Fixtu ta fixtu daile* 'txistu eta txistu dabil'. • Esr. *Fixtua bekela ibili*. Txistua bezala ibili, arin ibili. • Esr. *Fixtua baindo(re) meo* 'txistua baino meheago'. Oso argal dagoenagatik esaten da. **2** iz. Txistua, musika-tresna; flauta. Ik. **txulufita**; **fistilu**. ◆ **fistu egin** (> *fistu in*, *fixtu in*). Txistu egin, ahoarekin txistua jo. *Fixtu in, otsein* 'txistu egin, hots egin'. *Norbaitek in dau fixtu* 'norbaitek egin du txistu'. | Deitu. • Esr. zah. *Aguztuek neguai fixtu* 'abuztuak neguari txistu [deitu]'. ◆ **fistu hots(a)** (> *fixtu otsa*). *Fixtu otsa aitzen da* 'txistu hotsa aditzen da'.

fiti-fata (TRENAREN HOTSA)
chucu, chucu

fiti-fata Onomat. (Haur.) Abian den trenaren hotsa. *Fiti-fata, makina txata; fiiit!*

fitxa, fitxia FITXA
ficha

fitxa iz. *Partxiseko fitxak galdu tu* 'partxiseko fitxak galdu ditu'.

fixti, fixtia PIZTIA
fiera, bestia salvaje; alimaña

fixti iz. Piztia. *Basoko fixtiek* 'basoko piztiak'. *Mendi fixtiek: beti mendien ai dianak* 'mendi fixtiak: beti mendian ari direnak'.

fixtu, fistua TXISTU
2 txulufita
silbido, silbo

fixtuka(n) TXISTUKA
silbando

fixtuka(n) adb. Txistuka, txistu eginez. *Zu(ri) fixtukan ikusi* (Ond Bak).

flakatu, flakatzen FLAKATU
mehetu
adelgazar, enflaquecer

flakatu *da* ad. Argaldu. Ik. **mehetu**.

flako, flakua ARGAL, MEHE
mehe *lodi*
flaco, -a, delgado, -a

flako adj. Argala, mehea. Ik. **argal**; **mehe**. ▼ Anton. *lodi*, *gizen*, *puztikilo*.

flakoxta ARGALXKA, ARGAL, MEHE
me, flako, argal *lodi, gizen, puztikilo*
delgaducho, -a; flacucho, -a

flakosta (> *flakoxta*) adj. Argalxka, argala. ▲ Sin. *me*, *flako*, *argal*. ▼ Anton. *lodi*, *gizen*, *puztikilo*.

flan, flana FLAN

budin

flan

flan iz. *Gaur flana esaten zaionai leno budina esaten zezaion* 'gaur flana esaten zaionari lehen budina esaten zitzaion'. *Flanak eztau ber ortzik* 'flanak ez du behar hortzik'. Ik. **budin**.

flema, flemia KARKAXA

gargajo, flema

flema iz. Karkaxa.

flemon, flemona FLEMOI

flemón

flemon iz. Flemoia.

fletxa, fletxia GEZI

flecha, saeta
flecha (señal, símbolo)

fletxa **1** iz. Gezia; eskuz edo arkuz jaurtitzen den arma. **2** iz. Gezi itxurako ikurra. *Fletxakin dukatziai mendiko sendak markatuik* 'geziekin dauzkate mendiko sendak markaturik'.

flore, floria LORE

lora

flor
flor (parte mejor y más escogida de algo)

flore **1** iz. Lorea, bereziki apaingarritarako; loreak ematen dituen landarea. Ik. **pitxilita**. **2** iz. Landareren zatia, ernaltze organoak dauzkana. Ik. **lora**. **3** iz. Zerbaiten alde edo zati onena, ederrena. *Irinan floria* (Ond Bak), (flor de harina, irin lore). || *Inan floriă* [Urdiain].

flotadore, flotadoria FLOTAGAILU

flotador

flotadore iz. Flotagailua. *Neumatikwa ibiltzen genduen flotadoretako* 'pneumatikoa ibiltzen genuen flotagailutako'.

flotatu, flotatzen FLOTATU

flotar

flotatu *dau* ad. *Ematen dau gezurra pisu zar orrekin flotatu in ber dela* 'ematen du gezurra pisu tzar horrekin flotatu egin behar duela'.

fogon, fogona SUKALDE

fogón (de las cocinas para hacer fuego y guisar), cocina; hogar

fogon iz. Sukaldea, janaria prestatzeko su tokia. Ik. **su**; **sukalde**; **kozina**.

folklore, folkloria FOLKLORE

folklore

folklore iz. *Negu ta uda, jairo iyotzen zan Urbasá, ta akordiona jotzen arek patzen zen folkloriă* 'negu eta uda, jaiero igotzen zen Urbasara, eta akordeoia jotzen hark paratzen zuen folklorea'.

follon, follona
ISTILU

follón, alboroto

follon iz. Istilua. *Follona armatu zain* 'istilua armatu [sortu] zuten'. Ik. **istilu**; **yausi**.

fonda, fondia
OSTATU

ostatu

fonda, mesón, pensión, hostal

fonda iz. Ostatua. Ik. **ostatu**.

forja, forjia
FORJA

forja, forjado

forja iz. Forja lana, burdina goria mailuaz landuta egindakoa. *Forja lan onak iten zituen* 'forja lan onak egiten zituen'. *Forjan daile sutaien* 'forjan dabil sutegian'. *Forjan indako entengak dĭa* 'forjan egindako entengak dira'.

forjatu, forjatzen
FORJATU

forjar

forjatu *dau* ad. Burdina goria mailuaz landu. *Sutaien aizkorĭa forjatu* 'sutegian aizkora forjatu'.

forma, formia
FORMA

estruktura

forma, figura, aspecto, apariencia

forma iz.

formal, formala
FORMAL

txintxo, zogi

formal; responsable; serio, -a; sensato, -a
formalmente, con formalidad

formal **1** adj. Zintzoa, zentzuzkoa. Ik. **txintxo**; **zogi**. **2** adb. Zintzo. *Gaur formal ibil dĭa* 'gaur formal ibili dira'. *Formal daitza* 'formal dabiltza'. Ik. **txintxo**.

formaldu, formaltzen
FORMALDU

zogitu

volverse formal/serio/responsable, formalizar(se)

formaldu *da/dau* ad. Formal, zintzo bihurtu. Ik. **zogitu**.

formalidade, formalidadia
FORMALIDADE

fundamentu; seriedade

formalidad, seriedad, compostura

formalidade iz. Formal dabilenaren edo gauzak taxuz egiten dituenaren jokaera. *Formalidade aundik eztuka* 'formalidade handirik ez dauka'. Ik. **fundamentu**.

formatu, formatzen
FORMATU, SORTU, ERATU

formar, generar

formatu *da/dau* ad. Sortu, eratu. *Mataia formatu zaio* 'materia [zornea] sortu zaio'.

formazio, formaziua FORMAZIO

formación

formazio iz. Tropa baten edo armadako hegazkin edo itsasontzi talde baten antolaketa mota. *Formaziuen jarrita* 'formazioan jarrita'.

formula, formulia FORMULA

fórmula, modelo; medio práctico propuesto para resolver un asunto controvertido o ejecutar algo
fórmula (matemática, química...)

formula **1** iz. Errezeta. Ik. **errezeta**. **2** iz.

forratu, forratzen (1) FORRATU

forrar, poner forro

forratu[1] *dau* ad. *Libu guztĭek plastikwekin forratzen tu* 'liburu guztiak plastikoarekin forratzen ditu'.

forratu, forratzen (2) JORRATU

escardar, quitar las malas hierbas

forratu[2] *dau* ad. Jorratu [Iturmendi, (Iza Alts), (Ond Bak)]. Ik. **jorratu**.

forru, forrua FORRU

aforru

forro

forru iz. Ik. **aforru**.

fortitz / fortiz, fortitza / fortiza BORTITZ

sendo, indartsu; fuerte *suabe; ahul*

fuerte; intenso, -a

fortitz (eta *fortiz*) adj. Bortitza, sendoa. *Gusto fortiza* 'gustu fortitza'. Ik. **fuerte**; **keru**. ▲ Sin. *sendo*, *indartsu*. ▼ Anton. *suabe*; *ahul*.

fortuna, fortunia FORTUNA

1 suerte

suerte, fortuna, ventura
fortuna (hacienda, capital)

fortuna **1** iz. (g.er.) Zoria. *Zarrak «fortunĭa» esaten zaiken; guai, «suertĭa»* 'zaharrek «fortuna» esaten zitean; orain, «suertea»' (LM). Ik. **suerte**. **2** iz. Ondasunen multzoa.

forzatu, forzatzen BEHARTU, BORTXATU

behartu, obligatu

obligar, forzar, apremiar; violentar

forzatu *dau* ad. Behartu, bortxatu. Ik. **behartu**, **obligatu**.

fosforo POSPOLO

misto

cerilla, fósforo, mixto

fosforo iz. Pospoloa, supiztekoa. Ik. **misto**.

fotografia
FOTOGRAFIA

retrato

fotografía

fotografia iz. *Majokio ata da fotografien!* 'majokiago [zoragarri] atera da fotografian'. Ik. **retrato**. ◆ **fotografia atera** (> *fotografia ata*). *Ondo daki fotografiek atatzen* 'ondo daki fotografiak ateratzen. Ik. **fotografiatu**. ◆ **fotografiak ateratzeko makina** (> *fotografiek atatzeko makiniă*).

fotografiatu, fotografiatzen
FOTOGRAFIATU

retratatu

fotografiar

fotografiatu *dau* ad. Zerbaiten edo norbaiten argazkia egin. *Erriko zarrak fotografiatu tu plazan* 'herriko zaharrak fotografiatu ditu plazan'. Ik. **retratatu**.

fotografo, fotografua
FOTOGRAFO

fotógrafo, -a

fotografo iz. Argazkilaria; argazkilaritzan aritzen den pertsona. *Altsun zon fotografua* 'Altsasun zegoen fotografoa'. *Fotografo ona da*.

fraile txiki, fraile txikia
FRAIDE LEGO (?)

fraile lego (?)

fraile txiki. Fraide legoa (?).

fraile-moja (?)
MITXOLETA

saporrosa

amapola (Papaver rhoeas)

fraile-moja [Bakaiku] (?). (Bot.) Mitxoleta (Papaver rhoeas) Ik. **saporrosa**.

fraile, frailia
FRAIDE

fraile

fraile iz. Fraidea. *Fraile fan zan* 'fraide joan zen'. *Frailetá faten da konfesatziă* 'fraidetara joaten da konfesatzera'. ◆ **fraile-jantzi(a)**. ◆ **fraile-moja** [Bakaiku]. (Bot.) Mitxoleta (Papaver rhoeas) Ik. **saporrosa**. ◆ **fraile txiki**. Fraide legoa (?).

frakasatu, frakasatzen
PORROT EGIN

meko in

fracasar; quebrar

frakasatu *dau* ad. Porrot egin. *Bein da berriz frakasatuta're, eztau etsiko* 'Behin eta berriz porrot eginda ere, ez du etsiko'. Ik. **meko egin** (> *meko in*); **pott egin** (> *pott in*).

frakaso, frakasua
PORROT

meko

fracaso, quiebra

frakaso iz. Porrota. Ik. **meko**. *A ze frakaswa!* 'a zer porrota!'.

frakatoki, frakatokia
BRAGETA

bragueta

frakatoki iz. Brageta. *Frakatokia zabaldwik dukazu* 'frakatokia [brageta] zabaldurik daukazu'.

franko FRANKO

asko, gogoti

mucho(s), mucha(s)

franko zehazgb. *Baduka berriketa franko* 'badauka berriketa franko'. Ik. **asko**; **gogoti(k)**. ¬

frankolin, frankolina FRANKOLIN

francolín (Francolinus sp.)

frankolin iz. (Francolinus sp.).

franzes haize, franzes haizia FRANTSES HAIZE

haize gorri; San Migel haize

viento francés; viento (del) nordeste

franzes haize (> *franzes aize*). Frantses haizea, ipar-ekialdetik datorren haize hotza. Ik. **haize gorri**; **San Migel haize** (> *sanmigel aize*).

franzes, franzesa FRANTSES

francés, -esa

franzes adj./iz. Frantsesa, Frantziakoa; Frantziako herritarra. *Franzesa're ondo itz eiten dau* 'frantsesa ere ondo hitz egiten du'. ◆ **franzes haize** (> *franzes aize*). Frantses haizea, ipar-ekialdetik datorren haize hotza. Ik. **haize gorri**; **San Migel haize**.

Franzia FRANTZIA

Francia

Franzia iz. Frantzia. *Franzien bizi dĭa* 'frantzian bizi dira'.

frasko, fraskua FLASKO

frasko iz. Flaskoa.

frenatu, frenatzen FRENATU

dragatu

frenar

frenatu *dau* ad. *Aurrĭa, bate frenatu be* 'aurrera, batere frenatu gabe'. Ik. **dragatu**.

freno, frenua FRENO

draga

freno

freno iz. Galga, balazta. *Frenoipe do* 'frenorik gabe dago'. *Frenoipe ta goitibĭa gendazin* 'frenorik gabe eta goitik behera gindoazen'. Ik. **draga**.

frente, frentia FRONTE

enfrente

frente (de guerra)

frente **1** iz. Frontea, zerbaiten aurrealdea. *Zĭaure frentĭen dukazu* 'zeure aurrean daukazu'. Ik. **aurre**; **aurrekalde**. **2** iz. Gerra frontea. ◆ **frente egin** (> *frente in*). Aurre egin. ◆ **frente jarri**. Aurrez aurre jarri.

freskagarri (?) FRESKAGARRI

refresco; refrescante

freskagarri adj./iz. Freskatzen duena.

freskatu, freskatzen

FRESKATU

freskatu 1 *da/dau* ad. 2 *dau* ad. (Eguraldiaz). *Atzoti, nola freskatu den* 'atzotik, nola freskatu duen'.

freskera, freskeria

TRANPADURA, HOZTEGI

fresquera

freskera iz. Kaiola moduko gordelekua, janariak eta edariak fresko mantentzeko erabiltzen dena. *Sarĭekin itxita, itzal aldĭa ematen zen laiuen gendukan freskerĭa* 'sarearekin itxita, itzal aldera ematen zuen leihoan geneukan freskera'.

fresko, freskua

FRESKO

fresco, -a; moderadamente frío; más bien frío
fresco, -a (comida)

fresko **1** adj. Hotz samarra. *Aize freskwa* 'haize freskoa'. *Ur frskwa* 'ur freskoa'. *Egun freskwa* 'egun freskoa'. **2** adj. Janari freskoa, berria. *Arrai freskwa* ' arrain freskoa'.

freskotasun, freskotasuna

FRESKOTASUN

freskura

frescor, frescura

freskotasun iz. Ik. **freskura**.

freskura, freskuria

FRESKURA

freskotasun

frescor, frescura

freskura iz. *Goizeko freskuran*. *Atsaldĭen, jende guztĭa atatzen da freskurá* 'arratsaldean, jende guztia ateratzen da freskurara'. Ik. **freskotasun**.

fritatu, fritatzen

FRIJITU

freír [en aceite]

fritatu *dau* ad. Frijitu. *Arrontzak zartaien fritatu* 'arrautzak zartaginean frijitu'. *Oliotan fritatu* 'oliotan frijitu'.

frontal, frontala

FRONTAL

carrera, viga horizontal

frontal iz. (Arkit.) Horma baten luzean, horizontalean jartzen den habea, solairuko solibei eusten diena; haga nagusia *Frontalain gainĭen dazi kwartoiek* 'frontalen gainean doaz kuartoiak'. Ik. **kuartoi**.

fronton, frontona

FRONTOI, PILOTALEKU

pilotaleku

frontón

fronton iz. Frontoia, pilotalekua. Ik. **pilotaleku**.

frunze, frunzia

IZUR

perpiza

frunce, pliegue

frunze iz. Izurra, oihal bateko toles paraleloetako bakoitza. Ik. **perpiza**; **dolostura**.

frunzitu

IZURTU

fruncir, hacer pliegues en la ropa

frunzitu *dau* ad. Izurtu; jantziez edo oihalez mintzatuz, izurrak hartu, tolesak hartu.

fruta, frutia

FRUTA

frutu

fruta

fruta iz. *Gusto beiko frutĭa saltzen dai azkenaldi ontan* 'gustu gabeko fruta saltzen dute azkenaldi honetan'. Ik. **frutu**. ◆ **fruta arbola**. ◆ **fruta denda**. *Fruta dendĭa*. Ik. **fruteria** (> *fruteia*). ◆ **fruta saltzaile**. *Fruta saltzailĭa*.

fruteia

FRUTATEGI, FRUTA-DENDA

frutería

fruteria (> *fruteia*) iz. Frutategia, fruta-denda. Ik. **fruta denda**.

frutu, frutua

FRUITU

fruta

fruto; fruta

frutu iz. Fruitua. *Urrak aurten ezteka frutwik* 'hurrak [hurritzak] aurten ez dakar fruiturik'. *Arbolĭorrek frutua eman dau* 'arbola horrek fruitua eman dau'. Ik. **fruta**.

fu

ospa; ihesi, ihesi in; 2 pusasi

fu **1** interj. Alde. ◆ **fu egin** (> *fu in*) *dau* ad. Ihesi egin, alde egin. **2** *Haur*. Putz egin. Ik. **pusasi**.

fu-fu

PUTZ EGIN (HAUR.)

pusasi / fusasi, pusastu

fu-fu Haur. *In fu-fu* 'egin fu-fu'. Zopa beroari, kandelari... egin fu-fu. ▲ Sin. *pusasi* / *fusasi*, *pusastu*.

fuego

JO ETA JO

leña

¡dale! (al trabajo, etc.); dale que dale; dale que te pego

fuego interj. Etengabe jo, etengabe aritu. *Fwego, berriz-e!* 'fuego, berriz ere'. Ik. **jo eta fuego**; **jo eta jo**; **leña**.

fuente, fuentia

ERRETILU

erretilu; ontzi

bandeja, fuente, plato grande

fuente iz. Erretilua. *Fuente bateti jaten zain danak* 'fuente [erretilu] batetik jaten zuten denek'. Ik. **erretilu**; **ontzi**.

fuentekada, fuentekadia

ERRETILUKADA

contenido de una fuente (plato grande)

fuentekada iz. Erretilukada.

fuera

FUERA

alde; 2 akabo

¡fuera!, ¡afuera!
¡fuera!, ¡abajo!

fuera **1** interj. Norbaiten edo zerbaiten aurkako oihua, alde!, kanpora!-ren baliokidea. *Fuera emendi* ! 'fuera hemendik'. Ik. **alde**. **2** Nahikoa. *In da fuera* 'egin eta kitto'. Ik. **akabo**.

fuerte, fuertia

FUERTE

sendo, indartsu; gogor

makal, pattal, ahul; xingle

fuerte
fuerte, cargado, -a (comida o bebida)
con fuerza
fuerte, recinto fortificado

fuerte **1** adj. *Izatez txikia ta mea da, bea fuertĭa* 'izatez txikia eta mehea da, baina fuertea'. Ik. **sendo**; **indartsu**; **gogor**. ▼ Anton. *makal*, *pattal*, *ahul*, *xingle*. **2** adj. Janariaz edo edariaz ari garela, bortitza. Ik. **fortitz**. **3** (Adizlagun gisa). *Fuerte zaitzai aitxurketan* 'fuerte zabiltzate aitxurketan'. **4** iz. Gotorlekua.

fui in / ji in (?)

ZINTZ EGIN

sonarse (la nariz)

sonarse (la nariz)

fui egin / **ji egin** (> *fwi in / ji in*). [Zehaztu]. Zintz egin, mukiak kentzeko, arnasa sudurretik indarrez egotzi.

fuina, fuinia

LEPAZURI

fuina, garduña (Martes foina)

fuina (> *fwina*) iz. Lepazuria (Martes foina).

fuitter, fuitterra

TXIO HORI (?)

mosquitero musical (Phylloscopus trochilus)

fuitter iz. *Fwitterra*. Txio horia (Phylloscopus trochilus) (?). Txori mota; tamaina txikikoa, hori-berdexka eta intsektujalea; kantuan "fuit" egiten du.

ful, fula

EXKAX, AHUL

de poca calidad; escaso, -a; débil, flojo, -a; endeble
débil, sin fuerza

ful **1** adj. Eskasa; ahula. Ik. **eskas**; **ahul**. **2** adj. Indargabea, indargabekoa. *Persona fula* 'pertsona indargabea'. Ik. **indarbeiko**.

fulu, fulua

ULU

arrantza [Bakaiku]

aullido

fulu iz. Ulua. *Otso fulua* 'otso ulua'. Ik. **arrantza**[2].

fumarro

ZIGARRO

cigarrillo, cigarro (voc. infant.)

fumarro Haur. Zigarroa.

fumatu, fumatzen
ERRE, PIPATU

erre

fumar

fumatu *dau* ad. Ik. **erre**.

fumatzaile, fumatzailia
ERRETZAILE

erretzaile

fumador, -a

fumatzaile iz. (Tabakoa) erretzen duen pertsona. Ik. **erretzaile**.

fundamentu, fundamentua
FUNDAMENTU

burubide; dulabre, formalidade

fundamento, seriedad, sensatez, formalidad

fundamentu iz. Ganora, funtsa. *Fundamentu gutxi*. *Fundamentu aundik ez* 'fundamentu handirik ez. Ik. **burubide**; **dulabre**; **formalidade**. ◆ **fundamentu beiko**. Fundamentu gabea. ◆ **fundamentu dun(a)**. Fundamentua duena. Ik. **fundamentuzko**. ◆ **fundamentuzko** adj. ¬

funditu, funditzen
ERRE; GALDATU (2)

erre (?)

fundir(se) (un aparato eléctrico)
fundir (metales)

funditu **1** *da* ad. Erre. *Bonbillia, fusiblia funditu*. **2** *dau* ad. Galdatu; metalak-eta, urtu.

fundizio, fundiziua
FUNDIZIO

fundición

fundizio **1** iz. Galdategia. **2** iz. Burdinurtua.

funzio, funziua; funtzio / funtziuek
FUNTZIO (BETEKIZUN). 2 FUNTZIO; ELIZKIZUN

función, tarea; cometido, misión
función; ceremonia religiosa

funzio **1** iz. Funtzioa, betekizuna. *Garai artan, atarzulwek ba zukan be funziua* 'garai hartan, atarzuloak [katu zuloak] ba zeukan bere funtzioa'. **2** (eta *funtzio*, *funtziyuek*) iz. (pl.) Elizkizuna. *Elizako funtziuek*. Ik. **hileta(k)**.

funzionatu, funzionatzen
FUNTZIONATU

funcionar

funzionatu *dau* ad. Funtzionatu, ibili. Ik. **ibili**. *Ondo funzionatzen dau eliztorreko erlejuek; ondo daile* 'ondo funtzionatzen du eliza dorreko erlojuak; ondo dabil'.

furgoneta, furgonetia
FURGONETA

furgoneta

furgoneta iz. *Furgonetĭa ber izaten dot lanĭako* 'furgoneta behar izaten dut lanerako'.

furi-furien
PURI-PURIAN

en (el) candelero; de moda

furi-furian (> *furi-furien*) adb. Puri-purian, boladan, modan. *Negu fúri-furien ge* 'negu puri-purian gaude'. *Moda furi-furien* 'moda puri-purian'.

furi, furia / furi-furi, furi-furia

PURI-PURIAN

sasoi

del tiempo, de la época
en (el) candelero; de moda

furi **1** **furiko** / **furieko** adj. Sasoiko. *Furĩeko mutilak*; *furĩeko neskatxak*. *Furĩeko mutilak, orduen mutil furi-furien* 'puriko mutilak; orduan mutil puri-purian'. | *Gwai de tomatak furien* 'orain daude tomateak purian'. Ik. **sasoi**; **sasoiko**. ◆ **furi-furian** (> *furi-furien*) adb. Puri-purian, boladan, modan. *Negu fúri-furien ge* 'negu puri-purian gaude'. *Moda furi-furien* 'moda puri-purian'.

furrakan

HEGAKA

bolakan

volando

furrakan adb. Hegaka. *Txoria furrakán diyuá, bolakán diyuá*. *Txoriek furrakán ibiltzen diá*. *Ikus dot txori bat furrakan*. Ik. **bolakan**.

furratu, furratzen

HEGATU

furrukatu, bolatu

volar, darse al vuelo

furratu *da* ad. *Txori bat furratu da* (Ond Bak). Ik. **furrukatu**; **bolatu**. ◆ **furratu egin** (> *furratu in*) *dau* ad.

furrukatu, furrukatzen

HEGATU, HEGAN EGIN

furratu, bolatu

volar, darse al vuelo

furrukatu *dau* (?) ad. Hegatu, hegan egin; hegan hasi. Ik. **bolatu**. ◆ **furrukatu egin** (> furrukatu egin).

furruntxingalatu

XAHUTU, ERALGI

gastatu, funditu, jorratu (?)

gastar [dinero]; derrochar, despilfarrar

furruntxingalatu *dau* ad. Lgart. *Diru guztiek furruntxingalatuta etorri zaken*.
[*OEH xirringilatu, zirringilatu. Reducir a trocitos. Makila ferratuari giderra kendu dio, eta burdin-gerren zorrotzaz eztiki zirringilatuz harri gogor hotzak, zapartarazi dauzkigu bederazka. JE Ber 70].

furrut

HURRUP, ZURRUT

txurrut, zurrut

sonido del sorbo
sorbo

furrut **1** onomat. Hurrup; hurrupatzean egiten den hotsaren onomatopeia. **2** iz. Zurruta. Ik. **txurrut**; **zurrut**; **zanga**.

furrutada, furrutadia

ZURRUTADA

trago

trago; sorbo

furrutada iz. Zurrutada. Ik. **trago**.

furrutakan
ZURRUTAKA

a sorbos, a tragos, sorbiendo

furrutaka (eta *furrutakan*) adb. Zurrutaka, zurrupaka. *Zopak autzi, ta furrutakan* 'zopak utzi, eta zurrutaka [edan]'. • Esr. zah. *Zopak eta furrutaka* (?) [Dena nahi]. ◆ **furrutakan edan** (> *furrutakan ean / ian*). Ik. **zanga**.

furrutakan ian
ZURRUTAKA

beber a sorbos, a tragos, sorbiendo

furrutakan edan (> *furrutakan ean / ian*).

fusasi, fusasten
PUTZ EGIN

fu-fu; fu in

soplar

fusil, fusila
FUSIL

fusil

fusil iz. Kanoi-bakarreko su arma, balak jaurtitzen dituena. *Soldaua fusilakin* 'soldadua fusilarekin'.

fusilatu, fusilatzen
FUSILATU

fusilar, ejecutar con fusil

fusilatu *dau* ad. *Fusilatu ta lezĭa bota zituain* 'fusilatu eta leizera bota zituzten'.

futbolista, futbolistia
FUTBOLARI

futbolista, jugador de fútbol

futbolista iz. Futbolaria, futbol jokalaria.

gaban, gabana
BEROKI, GABAN

abrigo

gabán, abrigo

gaban iz. Berokia. Ik. **abrigo**.

gabardina, gabardinia
GABARDINA

gabardina

gabardina iz. Beroki arina, euritik babesteko janzten dena.

gabiek

gabiek (?)

gabilan txiki, gabilan txikia
BELATZ GORRI

cernícalo (Falco tinnunculus)

gabilan txiki. Belatz gorria (Falco tinnunculus).

gabilan, gabilana
GABIRAI, MIROTZ

usojantzaile, zagizuri

gavilán

gabilan iz. Gabiraia, mirotza (Accipiter nisus). Ik. **usojantzaile**; **zagizuri** [Bakaiku]. ◆ **gabilan txiki**. Belatz gorria (Falco tinnunculus).

gagar, gagarra

GARAGAR

cebada (Hordeum distichon)

gahiai

GEHIEGI

sobra

gutxiai

demasiado(s), demasiada(s)
excesivo, -a; exagerado, -a; extremado, -a
demasía; exceso

gahiai (> *gaiai*, *gaiei*) adb. zenbtz. zehazgb. Ald. gahiei. Gehiegi. || Gahiái gordetzegaiti (Ond Bak). | *Gaiai jatĭa're ezta ona* 'gehiegi jatea ere ez da ona'. Ik. **sobra**. ▼ Anton. *gutxiegi* (> *gutxiai*). ◆ **gahiaia**. Gehiegizkoa. *—Au bero zarra iten dena. —Bai, gahiaia* '—hau bero tzarra egiten duena. —Bai, gehiegia [gehiegizkoa]. ¬

gahien

GEHIEN

gutxien

más, en mayor medida
la mayoría de, la mayor parte de

gahien **1** adb. Gehiena; dagokion aditzak adierazten duena mailarik handienean. *Orrek arritzen dwa gaiena* 'horrek harritzen dit [nau] gehiena'. ▼ Anton. **gutxien**. **2** zenbtz. Zerbaiten kopuru handiena. *Jende gaiena kontra zon* 'jende gehiena kontra zegoen'. *Erritar gaienak eskwaz dakiai* 'herritar gehienek euskaraz dakite'. *Etxe gaienetan oilwek zukatziain* 'etxe gehienetan oiloak zituzten'. ◆ **gehiene(t)an** adb. (> *gaienetan*). *Gaienetan bizikletan faten da lanĭa* 'gehienetan bizikletan joaten da lanera'. ◆ **gehienez (ere)** (> *gaienez ('e)*) adb. *Pasĭen gaienez'e Urriztĭá fanko ga* 'pasieran gehienez ere Urriztira joango gara'. Ik. **asko jota**. ◆ **gehien parte** (> *gaien parte*). *Gahien parte, jan txarrak iten dai alergia* 'gehien parte, jan txarrak egiten dute alergia'.

gahienbat

GEHIENBAT

batez e(re), gahien parte

sobre todo, mayormente, mayoritariamente, principalmente, preferentemente

gehienbat (> *gaienbat*) adb. ▲ Sin. *batez e(re)*, *gahien parte*.

gahienetan

GEHIENETAN

gahien parte

la mayoría de las veces, por lo general, generalmente

'gehienetan'.

gahienez ('e)

GEHIENEZ (ERE)

asko jota

gahienez ('e) adb. Gehienez (ere). Ik. **asko jota**.

gahio / gehio

GEHIAGO

gutxio

más

gehiago (> *geio*, *gaio*) zenbtz. *Emen ola dok: ik asko, nik gaio* 'hemen hola duk: hik asko, nik gehiago'. *Ekartazu geio* 'ekartzazu gehiago'. ▼ Anton. *gutxiago* (> *gutxio*).

◆ gehiago egin (> *gaio in*).

◆ **gehiagokorik** (> *gaiokoik*) **1** Gehiagorik, gehiago. *Gaiokoik nola ezten in!* 'gehiagokorik nola ez duen egin!'. **2** interj. *Gaiokoik gwaindo!* 'gehiagokorik oraino!'

◆ **gero eta gehiago** (> *gĭo ta geio*, *gĭo ta gaio*). *Gĭo ta gaio ikusten dĭa alakwek* 'gero eta gehiago ikusten dira halakoak'. '*Gĭo ta gaio estimatzen dot* 'gero eta gehiago estimatzen dut'.

◆ **nor gehiago** (> *nor gaio* / *nor geio*) adb. Nor baino nor gehiago; norgehiagoka. *Or daitza, nor gaio* 'hor dabiltza, nor gehiago'. ¬

gahixai

GEHIEGITXO

askotxo

demasiado

gahixai adb. zenbtz. zehazgb. Gehiegitxo. ▲ Sin. *askotxo*.

gahixo

GEHIXEAGO

gutxixo

algo más, un poco más

gehixeago (> *geixo*, *gaixo*) zenbtz. *Botatazu ardo gaixo* 'Bota [atera] ezazu ardo gehixeago'. *Gatz geixo ber dau* 'gatz gehixeago behar du'. ▼ Anton. *gutxixo*.

gai izan

GAI IZAN

gauza izan

ser capaz

gai izan *da* ad. lk. **gauza izan**.

gaildur, gaildurra

GAILUR; 2 GANDOR

gailur

cumbrera; cima, cumbre, cúspide, pico, cresta

cresta; penacho (que tienen sobre la cabeza algunas aves)

gaildur [Altsasu] lk. **gailur**. **1** iz. Gailurra. **2** iz. Gandorra.

gailtzeru

ALTZAIRU

acero

gailur

GAILUR; 2 GANDOR

gaildur [Altsasu]

cumbrera; cima, cumbre, cúspide, pico, cresta

cresta; penacho (que tienen sobre la cabeza algunas aves)

gailur (eta *gallur*; *gaildur* [Altsasu]) **1** iz. Teilatu gailurra, teilatuaren goiko ertza. *Teilatuen gailurra* 'teilatuaren gailurra'. *Etxĭen gailurra* 'etxearen gailurra'. lk. **gain**; **tontor**. **2** iz. Gandorra. *Oilarran gailurra* 'oilarraren gandorra'. ◆ **gailur motxa**. Oiloaren gailurra, *gailur motxa*.

gailurdiru, gailurdirua

[GARAI BATEKO PETXA, ZERGA]

nombre de una antigua pecha

gailurdiru iz. Garai batean ordaintzen zen petxa edo zerga (Urdiain, 1603). [Gailurdirua, oiloen gaineko petxa, ordaintzen zuten Burunda eta Larraungo herriek. *Oharra: Burundan, *gailur:* oilo eta oilarrak buru gainean duten konkor haragitsua; gandorra, gangarra].

gain, gaina

GAIN

goi; tontor. 4 nata — *azpi; be*

alto, parte más alta, superficie superior; altura
cumbre, cima
encima, sobre; a par, a la par
nata, tela; capa que se produce en la superficie del caldo, etc.

gain (eta *gein*) **1** iz. Edozein gauzatan, lurretik urrunen dagoen aldea. Ik. **goi**. *Auztazu mai gainĭen* 'utz ezazu mahai gainean'. || *Ta haren gainea botatzen zan garia... Eta... irinan gainien hartu* (Ond Bak). ▼ Anton. *azpi*; *behe*. **2** iz. Mendi, aldapa eta kidekoetan, gailurra. Ik. **tontor**. **3** iz. Ondoa, parea; ondora, parera. *Gainĭa etor zaira* 'gainera etorri zait'. *Kentazu aurrau ne gaineti!* 'kentzazu haur hau nire gainetik!'. *Beti gainĭen!* 'beti gainean'. || **4** iz. Esne edo saldaren gainean eratzen den koipezko geruza. *Esene gaina* 'esne gaina'. Ik. **tela**. ◆ **-en gain** -en kontura, -en erantzukizunaren azpian. *Be gain artu dau konpontzeko lana* 'bere gain hartu du konpontzeko lana'. Ik. **esku**; **kargu**; **kontu**. ◆ **-en gainean** (> *-en gainien*). *Jakinan gainien patu* 'jakinaren gainean paratu'. *Jakinan gainien yon* 'jakinaren gainean egon'. ◆ **gain behera** (> *gain bĭa*) adb. Goitik behera. Ik. **gainbehera** (> *gainbĭa*). ◆ **esene gain**. Esne gaina. *Esenĭen gaina* 'esnearen gaina'. E*sene lodia, esene gain asko dukana; esene mea, esene gain gutxi dukana* 'esne lodia, esne gain asko daukana; esne mehea, esne gain gutxi daukana'. Ik. **tela**. ◆ **ur gain**. Ur azala. ▼ Anton. *ur azpi*, *urpe*.

gainalde, gainaldia / gainekalde

GAINALDE

superficie, lado superior, parte de arriba

gainalde iz. Zerbaiten gaineko aldea. Ik. **gainekalde**. ◆ **gainaldea hartu** (> *gainaldĭa artu*) **1** Gainetik jarri; aurrea hartu; gainditu. || **2** (Norbaitek) gainak hartu, harropuztu. *Maisuen semĭa zalako, guri gainaldĭa artwik zukaken* 'maisuaren semea zelako, guri gainaldea harturik zeukaan'. Ik. **gaineti jarri**.

gainaldia hartu

GAINALDEA HARTU*, AURREA HARTU; GAINAK

encimar(se); superar, aventajar, tomar la delantera
subirse alguien a la parra

gainaldea hartu (> *gainaldĭa artu*) **1** Gainetik jarri; aurrea hartu; gainditu. || **2** (Norbaitek) gainak hartu, harropuztu. *Maisuen semĭa zalako, guri gainaldĭa artwik zukaken* 'maisuaren semea zelako, guri gainaldea harturik zeukaan'. Ik. **gaineti jarri**.

gainbe / gainbehe

BEHE

behe — *goi*

parte inferior, parte baja; bajo

gainbehe (> *gainbe*) iz. Behea. Ik. **behe** (> *be, pe*). ▼ Anton. *goi*.

gainbeakan / gainbiakan

GAINBEHERAKA, BEHERAKA

hacia abajo

gainbeheraka(n) (> *gainbeakan*, *gainbĭakan*) adb. Beheraka, beherantz.

gainbeatu, gainbeatzen / gainbiatu

GAINBEHERATU, BEHERATU

jaitxi

guatu

bajar, descender, rebajar(se)

gainbeheratu (> *gainbeatu*; *gainbiatu*) *da/dau* ad. Beheratu, beherago joan edo eraman; mailaz jaitsi. ▲ Sin. *jaitxi*. ▼ Anton. *goratu* (> *goatu*, *gwatu*).

gainbeheko alde / gainbeko alde

GAINBEHEKO ALDE, BEHEKO ALDE

goiko alde

parte baja, parte inferior, abajo

gainbeheko alde (> *gainbeko alde*). Beheko aldea, behean dagoen aldea. ▼ Anton. *goiko alde*. Ik. **gainbehekalde** (> *gainbekalde*).

gainbekalde, gainbekaldia / gainbehekalde

BEHEALDE

bekalde, barren, barrenkalde; azpikalde

goikalde

parte baja, parte inferior, abajo

gainbehekalde (> *gainbekalde*) iz. Gainbeheko aldea, beheko aldea. ▼ Anton. *goikalde*. Ik. **behekalde** (> *bekalde*); **barren**; **barrenkalde**; **azpikalde**.

gainbeko / gainbeheko, gainbehekua

BEHEKO

beheko

goiko

inferior, de abajo

gainbeheko (> *gainbeko*) adj. Behekoa, behean dagoena. *Gainbeko baswa* 'gainbeheko basoa'. ▲ Sin. *beheko* (> *beko*). ▼ Anton. *goiko*. ◆ **gainbeheko alde** (> *gainbeko alde*). Beheko aldea, behean dagoen aldea. ▼ Anton. *goiko alde*. Ik. **gainbehekalde** (> *gainbekalde*).

gainbia

GAINBEHERA, BEHERA

behera (> *bea, bĭa*)

gora

abajo, hacia abajo

gainbehera (> *gainbea*, *gainbĭa*) adb. Behera. ▼ Anton. *gora*. ◆ **gainbehera egin** (> *gainbia in*). Behera egin, beheratu, jaitsi. ¬

gainekalde, gainekaldia

GAINALDE

azpikalde

superficie, lado superior, parte de arriba

gainekalde (eta *gainalde*) iz. Gainaldea; zerbaiten gaineko aldea. Ik. **gainalde**. ▼ Anton. *azpikalde*. Ik. **goienkalde**. *Maien gainekaldĭa pintatu dau* 'mahaiaren gainaldea pintatu du'.

gaineko, gainekua

GAINEKO

que está por encima (de), más arriba que; superior
sobretodo; gabán, abrigo

gaineko **1** adj. *Gaineko azala*. **2** iz. *Jantzien gainekwa* 'jantzien gainekoa'. *Gonĭen gainekwa* 'gonaren gainekoa'. (?). ◆ **gaineko eguna**. Funtzio [hileta] egunetik hurrengo jaia (domeka) (Ond Bak).

gaineti

GAINETIK

por encima
de encima, de al lado

gaineti *Jazten zan atorrien gaineti kurpinua* (Ond Bak). Ik. **gain**. ◆ **gaineti jarri**. Aurretik jarri; lehenetsi; aurrea hartu. Ik. **gainaldea hartu** (> *gainaldĭa artu*). ◆ **gaineti kendu**. Ondotik kendu, apartatu. ◆ **gauza guztien gainetik**. adb. Batez ere.

gainez

GAINEZKA

moru

rebosando, desbordando, rebasando; a rebosar

gainez adb. Gainez eginez. Ik. **moru**. ◆ **gainez egin** (> *gainez in*). Gainezka egin; beterik dagoen ontzi edo edukitzailearen goiko ertzetatik irten. Ik. **gainezkan egin** (> *gainezkan in*). *Eseniek gainez in dau* 'esneak gainez egin du'. Pertzak, tapatzen badia, gainez iten dai 'pertzek, tapatzen badira, gainezka egiten dute'. || *Urak gainez iten badau* (Ond Bak).

gainez in

GAINEZ EGIN

rebosar, desbordarse, salirse

gainez egin (> *gainez in*). Gainezka egin; beterik dagoen ontzi edo edukitzailearen goiko ertzetatik irten. Ik. **gainezkan egin** (> *gainezkan in*). *Eseniek gainez in dau* 'esneak gainez egin du'. Pertzak, tapatzen badia, gainez iten dai 'pertzek, tapatzen badira, gainezka egiten dute'. || *Urak gainez iten badau* (Ond Bak).

gainezkan

GAINEZKA

rebosando, desbordando, rebasando; a rebosar; rebosante

gainezkan adb. Gainezka, gainez egiten. ◆ **gainezkan egin** (> *gainezkan in*). Gainez egin. Ik. **gainez egin** (> *gainez in*).

gainia

GAINERA

además, encima

gainera (> *gainea*, *gainĭa*) **1** lokail. Esan berri denari zerbait gehitzeko erabiltzen den hitza. Ik. **aparte**; **halere** (> *ale*). || **2** iz. (Nora kasua). Ik. **gain**. ¬

gaita, gaitia

GAITA

gaita; dulzaina
ruido, estrépito, fragor

gaita **1** iz. Dultzaina. **2** iz. Zalaparta, burrunba. *Leno kunkunak atatzen zaĭn gaitĭa gwai ezta aitzen* 'lehenago [lehen] kunkunek ateratzen zuten gaita orain ez da aditzen'.

gaitasun

GAITASUN

kapazidade, abildade, trebetasun

aptitud, capacidad, habilidad, competencia; idoneidad

gaitasun iz. (Hitz berria) Ik. **kapazidade**, **abildade**, **trebetasun**.

-gaiti / -geiti

-GATIK

(sufijo) por, a causa de

-gaiti (eta *-geiti*). -gatik (motibatiboa; kausazko atzizkia) *Zugaitik in dot*.

gaitxitxi

GAITZETSI

abandonatu; despreziatu

aborrecer; rechazar, un animal doméstico la cría
rechazado; -a

gaitxitxi **1** *dau* ad. Gaitzetsi. Ik. **abandonatu**; **despreziatu**. **2** (Era burutua izenondo gisa). *Txal gaitxitxia guk azi du* 'txahal gaitzetsia guk hazi dugu'. || {"*Gaitzetsiya*, el cordero a quien abandona la madre" (Iza Alts)}.

gaitz erdi

HALA ERE, ESKERRAK

menos mal

gaitz erdi lokail. (Ond Bak). Hala ere.

gaitz, gaitza

GAITZ

mal, daño, perjuicio
enfermedad, dolencia

gaitz **1** iz. Kaltea, mina. *Eldu dok gaitza ta maldadĭa* 'heldu duk gaitza eta maldadea [gaiztakeria]'. Ik. **galte**. **2** iz. Eritasuna. *Gaitz larrin bat zukan* 'gaitz larriren bat zeukan'. || Animalien gaitza (Ond Bak). ◆ **gaitz egin** (> *gaitz in*). Kalte egin. *Jan orrek gaitz iten dwa*. (≠ *jan orrek gaizki in dwa*). Ik. **galte egin**. ◆ **gaitz erdi** lok. (Ond Bak). Hala ere; eskerrak. ◆ **gaitzak jo**.

gaixo yon

GAIXO EGON

eri, geizki

estar enfermo

gaixo egon (> *gaixo yon*). Gaixotasunen bat izan. *Gaur ezta fan eskolá, gaixo do-ta* 'gaur ez da joan eskolara, gaixo dago eta'. Ik. **eri**; **gaizki**; **txarki**.

gaixo, gaixua

GAJO; 2 GAIXO

2 eri

pobre, infeliz, desgraciada
débil, enfermo, -a

gaixo **1** adj. Gajoa, gaixoa [emakumea]. *Andra gaixua* 'andre gaixoa [baina: *Gizon gizajwa* 'gizon gizarajoa / gizagaixoa' (LM)]. *Gaubonetan jende gaixo guztiek eskĭa faten gindan* 'Gabonetan jende gaixo guztiak eskera joaten ginen'. Ik. **gizarajo**; **gizajo**. **2** iz./adj. Gaixoa, eria. Ik. **gaizki**. ▲ Sin. *eri*. ◆ **gaixo egon** (> *gaixo yon*). Gaixotasunen bat izan. *Gaur ezta fan eskolá, gaixo do-ta* 'gaur ez da joan eskolara, gaixo dago eta'. Ik. **eri**; **gaizki**; **txarki**.

gaixotasun, gaixotasuna

GAIXOTASUN

cualidad de pobre / infeliz / desdichado

gaixotasun iz. Gaixoa denaren, errukarria denaren nolakotasuna.

gaizki

GAIZKI

txarki, ondoez; eri, gaixo

sano; ondo, ongi

mal, de mala manera, malamente, defectuosamente
enfermo, -a
mal, daño, perjuicio

gaizki (> eta *geizki*) **1** adb. Behar edo nahi denaren edo egoki denaren kontra. Ik. **txarki**. ▼ Anton. *ongi*, *ondo*. **2** adb. Osasunez gaixo, eri. Gaizki dona (Ond Bak). *Oi beti gaizki; gaizkia da* 'hori beti gaizki; gaizkia da'. ▲ Sin. *txarki*, *ondoez*, *eri*, *gaixo*. ▼ Anton. *sano*, *ondo*, *ongi*. **3** iz./adj. Eria, gaixotasunen bat duena. *Gaizkia da*. Ik. **eri**. **4** (Aditz burutuari enfasia emateko; aditzari dagokion ekintza bukatua dela adierazteko). (*geizki* + *aditz partizipioa -rik* morfemarekin) ...eta! *Lehenoko kantaitak? Geizki, ahaztuik dukatziu!* (= ahaztuik dukatzigu-eta!). *Geizki, salduta de!* (= dagoeneko salduta daude eta!). ◆ **geizkitxo**. (Ironiazko adieran) Ondotxo. *Geizkitxo bizi dĭa oiek!* 'gaizkitxo bizi dira horiek!'. ◆ **gaizki esan** *dau* ad. Eztukak motiboik gaizki esateko 'ez daukak motiborik gaizki esateko'. ◆ **gaizki esaten**. *Bestiengeiti, gaizki esaten* 'besteengatik gaizki esaten'. ◆ **gaizki pensatu**. Susmo txarrak. ◆ **gaizki bizi**. ◆ **gaizki egin** (> *gaizki in*). **1** *dau* ad. Zerbait gaizki egin. **2** *dĭa* ad. Zerbaitek kalte egin. ◆ **gaizki egon** (> *gaizki yon*). **1** (Zerbait) egoki ez egon. **2** (Norbait) gaixo egon. ◆ **gaizki erakutsita** (> *geizki yakusita*). Gaizki hezita. Ik. **gaizkizi**; **gaizkizik**. ◆ **gaizki hartu** *dau* ad. Norbaitek, esan edo egin dioten zerbait, txarrean hartu. ◆ **gaizki hazia** [gaizki hezia] {"*Gaizki aziya*, el mal educado" (Iza Alts)}. Ik. **gaizkizi**; **gaizkizik**.

gaizki hazia

GAIZKI HAZI (GAIZKI HEZI)

malcriado, -a; maleducado, -a

gaizki hazia [gaizki hezia] {"*Gaizki aziya*, el mal educado" (Iza Alts)}. Ik. **gaizkizik**.

gaizki yon

GAIZKI EGON

estar mal
estar enfermo

gaizki egon (> *gaizki yon*). **1** (Zerbait) egoki ez egon. **2** (Norbait) gaixo egon.

gaizkiesana

GAIZKI ESAN

murmurar, maldecir, censurar, criticar, hablar en perjuicio de alguien

gaizkiesana [Altsasu, Urdiain] iz. Gaizki-esana, laidoa, iraina; esamesa, zurrumurrua. (Iza Alts). Ik. **gaizki esaten**.

gaizkile (?)

GAIZKILE

malhechor, -a, maleante, rufián, granuja

gaizkile (?) adj./iz. ¬

gaizkitu, gaizkitzen

GAIZKITU

empeorar; deteriorar(se), agravar(se)
infectar(se), enconar(se)
enfermar, caer enfermo, contraer una enfermedad

gaizkitu (eta *geizkitu*) *da/dau* ad. Gaizki jarri, ondoezik jarri. *Ori gaizkituko balitzake, akabo!* 'hori gaizkituko balitz, akabo'. Ik. **gaixotu**; **gizajotu**.

gaizkizi / gaizkizik

GAIZKI HAZI (GAIZKI HEZI)

lotsabaiko

malcriado, -a; maleducado, -a

gaizkizi adj. Gaizki hazia; gaizki hezia. *Aurrak gaizkizik zukatzien* 'haurrak gaizki hezirik zeuzkan'. Ik. **gaizki hazia** (Iza Alts). ◆ **gaizkizik** adb. Gaizki hazirik; gaizki hezirik.

gaiztakeia

GAIZTAKERIA

gaiztasun, malezia

maldad, malicia

gaiztakeria (> *gaiztakeia*) iz. Ik. **gaiztankeria**.

gaiztankeia

GAIZTAKERIA

gaiztasun, makurkeia, txarkeia, maldade,

maldad, malicia

gaiztankeria (> *gaiztankeri(a)*, *gaiztankei(a)*) iz. Gaiztakeria; gaiztotasuna, gaitzesgarritzat hartua; egintza gaiztoa edo txarra. *Gaiztankei haundia* (Ond Bak). Ik. **gaiztasun**; **makurkeria** (> *makurkeia*); **txarkeria** (> *txarkeia*); **maldade**; **malezia**.

gaiztasun, gaiztasuna

GAIZTOTASUN, GAIZTASUN*

gaiztankeia, makurkeia, txarreia, maldade,

ontasun, ongei, zintzutasun

maldad

gaiztasun iz. Gaiztotasuna, gaiztoa denaren nolakotasuna. *Ontasunien, bai; bea, gaiztasunien ez diazu ibaziko* 'ontasunean, bai; baina, gaiztasunean [gaiztotasunean] ez diozu irabaziko'. Ik. **gaiztankeria** (> *gaiztankeia*); **makurkeria** (> *makurkeia*), **txarreria** (> *txarreia*); **maldade**; **malezia**. ▼ Anton. *ontasun*, *ongei*, *zintzutasun*.

gaiztatu, gaiztatzen

GAIZTOTU, ZORNATU

infektatu

infectar(se), enconar(se)

gaiztatu *da* ad. Gaiztotu, zornatu. Ik. **infektatu**. [Oharra: gaiztatu ≠ gaiztotu].

gaizto, gaiztua

GAIZTO

txar

mal, malo, -a

gaizto (eta *geizto*) adj. *Bajok gaiztuo!* 'bazagok gaiztoago!'. • Esr. zah. *Sagarmina baindo gaiztwo* 'sagarmina baino gaiztoago'. *Etxĭen beti gerra ematen; sagarmina baindo gaiztwo* 'etxean beti gerra ematen; sagarmina baino gaiztoago'. Ik. **txar**. ◆ **aditze gaiztotako(a)** (> *aitze gaiztotakwa*). Aditze gaiztokoa, aditu nahi ez duen pertsona. ◆ **traza gaiztoko(a)**.

gaiztotu, gaiztotzen

GAIZTOTU

txartu

envilecer(se), depravar(se), volver(se) malo

gaiztotu *da/dau* ad. Gaizto bihurtu. *Ematen dĭazun tratuekin gaiztotu in ber dezu txakurroi* 'ematen diozun tratuarekin gaiztotu egin behar duzu txakur hori'. Ik. **txartu**. [Oharra: gaiztotu ≠ gaiztatu].

gala, galak (pl.)

GALA

pl. trajes, joyas y demás artículos de lujo que se poseen y ostentan

gala iz. (pl.) Apaindura. *Galak jantzita*.

galalde [GALSOROEN ALDERDIA]

garialde

campos de cereal; conjunto de campos donde se ha sembrado trigo y cereales

galalde iz. Nekaz. Garia eta zereala erein den herriko eremua. «Artaldea» —artasoroen eremua— da beste alderdia; urtero txandakatu egiten dira. Ik. **artalde**[2]. ▲ Sin. *garialde*.

galaneta

recogida de ramas secas o reviejos (rama o leño muerto del árbol)

galaneta [JMS. Relativo a la recogida de ramas secas]. *Galarreta fan, galarrak biltzĭa* (AG). Ik. **galar**.

galant, galanta GALANT

eder, haundi

grande; enorme, tremendo, -a

galanta adj. Handia, eskerga. *Etxĭek galantak de emen* 'etxeak galantak daude hemen'. *Gezur galanta sartu dezai* 'gezur galanta sartu dizute'. Ik. **eder**; **haundi**. ¬

galar, galarra GALAR

reviejo, rama o leño muerto del árbol

galar iz. Zuhaitzaren adar hila edo iharra. [*Haraitz sekwek bakarrik* (AG)]. **ihar**; **seko**. ◆ **galarretara joan** (> *galarretá fan*). Galarrak biltzera joan. *Galarrak biltzĭa fan*. Ik. **galaneta**.

galarbela, galarbelia / galar bela OKIL BELTZ

pito negro (Dryocopus martius)

galarbela iz. [galar-belea, galarretako belea] Okil beltza (Dryocopus martius). *Arbola zarrak bota iten dĭalako, galarbelak desagertzen ai dĭa* 'arbola zaharrak bota egiten direlako, galarbeleak [okil beltzak] desagertzen ari dira'. Ik. **okil**.

galardi, galardi

sitio poblado de árboles con partes muertas o con ramas resecas

galardi iz. Galarra [zuhaitzaren adar iharra] ugari den baso tokia. Ik. **galar**.

galazi, galazten GALARAZI

debekatu, iotzi, proibitu

prohibir
hacer perder

galarazi (> *galazi*) **1** *da/dau* ad. *Dantza itia galazita zon, ta nei asko gustatzen* 'dantza egitea galarazita zegoen, eta neri asko gustatzen'. || *Hitz itia galazi* 'hitz egitea galarazi' (Ond Bak). Ik. **debekatu**; **iotzi**; **proibitu**. **2** dau ad. Galtzera behartu; eragotzi, oztopatu, molestatu. *Denborĭa galazi jwak* 'denbora galarazi zidak'. || Nik eztezut galaziko (Ond Bak).

galbaia GALBAHE

baia

criba, cedazo, tamiz

galbaia iz. Galbahea. *Baia ta galbaia bat* (Ond Bak). Ik. **baia**.

galbaio

KALBARIO, GURUTZE BIDE

calvario, vía crucis

kalbario (> *kalbaio*, *galbaio*) iz. Kalbarioa, gurutze bidea. [Galbario (G-nav ap. Iza Als). Vía crucis]. ◆ **kalbario gaina** (> *galbaio gaina*). Gurutze bidearen azkena, gainaldean.

galbana, galbania

GALBANA, NAGITASUN

galbana

galbana iz. Zerbaitek eragindako nagitasuna. *Udako berwekin, galbanĭa seguro* 'udako beroarekin, galbana seguru'. Ik. **alfergura**.

galbandu, galbantzen

GALBANA HARTU, NAGITU

emperezarse; entrarle a alguien la galbana

galbandu *da* ad. Galbana hartu. *Galbandu: galbanĭa harrapatu. Raso galbandwik yoten dĭa eskolako aurrak garagarrileko bero aundiko egunetan* 'arras galbandurik egoten dira eskolako haurrak garagarrileko bero handiko egunetan'.

galdamentu, galdamentua

GALDERA, GALDEMODU

galdera

pregunta; cuestión

galdamentu iz. Galdera; zerbait jakin nahi dela adieraziz eta haren berri emateko eskatuz egiten den esaldia. Ik. **galdera**. ◆ **galdamentua egin** (> *galdamentua in*). Galdera egin, galdetu. *—Galdamendu bat in ber dezut. —Ze galdamendu?* '—Galdera bat egin behar dizut. —Zer galdera?'. Ik. **galdetu**; **galdegin** (> *galdein*).

galdamentua in

GALDERA EGIN

galdetu, galdein

preguntar, interrogar

galdamentua egin (> *galdamentua in*). Galdera egin, galdetu. Ik. **galdetu**; **galdegin** (> *galdein*).

galdein

GALDEGIN

galdetu, galdamentua in

preguntar, interrogar

galdegin (> *galdein*) *dau* ad. *Galde'in zan neri* 'galdegin zidan (?) niri' (Ond Bak). Ik. **galdetu**; **galdamentua egin** (> *galdamentua in*).

galdera, galderia

GALDERA

galdamentu

pregunta; cuestión

galdera iz. Ik. **galdamentu**. ◆ **galdera egin** (> *galderĭa in*). Ik. **galdetu**; **galdegin** (> *galdein*); **galdamentua egin** (> *galdamentua in*).

galdetu, galdetzen

GALDETU

galdein, galdamentua in

preguntar, interrogar

galdetu *dau* ad. Galderak egin. Ik. **galdegin** (> *galdein*); **galdamentua egin** (> *galdamentua in*).

galdu, galtzen

GALDU

hundatu

ibazi, bilatu;

perder, extraviar
perder, resultar vencido, no conseguir el triunfo
perder, desaprovechar
perderse, extraviarse, equivocarse de camino, no encontrar el camino; desorientarse
dañarse, estropearse, echarse a perder, pudrir
perderse, desaparecer; extinguirse

galdu **1** *dau* ad. *Galdu tut berriz giltzak* 'galdu ditu berriz giltzak'. *Esperanza guztĭek galtzeko zorien* 'esperantza guztiak galtzeko zorian'. ▼ Anton. *bilatu*. **2** *dau* ad. *Apustua galdu*. *Dirua galdu*. *Partidua galdu* 'partida galdu'. ▼ Anton. *ibazi*. • Esr. zah. *Galdubaz ikasten da bizitzen*. Galtzen (Ond Bak). **3** *dau* ad. Zerbaitez ez baliatu. *Aukerĭa galdu* 'aukera galdu'. *A ze eskeia galdu dezu!* 'a zer aukera galdu duzu!'. *Denborĭa galdu* 'denbora galdu'. **4** *da* ad. Bidetik at, hura ezin aurkituz gertatu. *Bidĭen galdu* 'bidean galdu'. *Mendien galdu* 'mendian galdu'. | Orientazioa galdu. Galdurik egon. *Raso galwik no* 'arras galdurik nago [orientazioa galduta]'. **5** *da/dau* ad. Zerbait edo norbait guztiz hondatu, suntsitu, gaiztotu; usteldu. *Arduek galdu dik oi* 'ardoak galdu dik hori'. *Jendeik bizi eztan etxĭa lixto galtzen da* 'jenderik bizi ez den etxea azkar galtzen da'. ▲ Sin. *hundatu*. | Zentzumena galdu. *Bistĭa galdu* 'bista galdu'. *Begia galdu*. | *Arduau galdwik do* 'ardo hau galdurik dago'. Ik. **usteldu**. **6** *da/dau* ad. Osasunez edo itxuraz mintzatuz, okerrera jo, itxuratxartu. *Itxura txarra duka, azkenaldien asko galdu dau* 'itxura txarra dauka, azkenaldian asko galdu du'. **7** *da* ad. Desagertu, ezereztu. *Altsun bekela, galdu in ber da eskueria Urdinen* 'Altsasun bezala, galdu egin behar da euskara Urdiainen'. *Ziza larrĭa galdu in da* 'ziza larrea galdu egin da'. | *Bistatik galdu*. ◆ (norbait) **ez galdu**. Ondo moldatu. *Yon adi lasai, ez tuk oiek galduko, ez* 'egon hadi lasai, ez dituk horiek galduko, ez'.

galeper, galeperra

GALEPER

codorniz (Coturnix coturnix)

galeper iz. (Hitz berria) Eperra (Coturnix coturnix). Ik. **eper**; **baseper**.

gallur, gallurra

GAILUR

cumbrera
cresta; penacho

galondar, galondarra

GARI HONDAR

ahechadura; residuos de trigo, cascabillo, paja, etc., en la era

galondar iz. (Nekaz.) Gari hondarra (Ond Bak).

galte in

KALTE EGIN

mesede in, on in

dañar, perjudicar, castigar, lastimar

galte egin (> *galte in*). *Artzaiei galte itegaiti* 'artzainei kalte egitegatik' (Ond Bak). ▼ Anton. *mesede in, on in*. Ik. **gaitz egin**.

galte, galtia
KALTE

dainu (aberia, iharria)

perjuicio, daño, mal, pérdida; desperfecto, avería, percance

galte iz. Kaltea. *Galteik, binapin, eztezu inko* 'galterik, behinik behin, ez dizu egingo'. *Galte aundiek in tu aizĭek* 'kalte handiak egin ditu haizeak'. Ik. **dainu**; **aberia**; **iharri(a)**; **gaitz**. ◆ **galte egin** (> *galte in*). *Artzaiei galte itegaiti* 'artzainei kalte egitegatik' (Ond Bak). ▼ Anton. *mesede in, on in*. Ik. **gaitz egin**. ◆ **galtea iharritu** (> *galtĭa iarritu*). Kaltea tasatu. ◆ **galtetako**. Kalterako. ◆ **galterako** (> *galtĭako*). Kalterako. **1** (-en atzizkiaren eskuinean). -en kaltean. *Gure galtĭako* 'gure kalterako'. **2** Kalte egiteko. *Onĭako, ez; galtĭako* 'onerako, ez; kalterako'. Ik. **txarrerako** (> *txarrĭako*). ▼ Anton. *oneako*. ¬

galtegarri, galtegarria
KALTEGARRI

perjudicial, dañino, -a, lesivo, -a, nocivo, -a

galtegarri adj. Kaltegarria. *Ustez ona zalakwen, galtegarria izan* 'ustez ona zelakoan, kaltegarria izan'.

galtiako
KALTERAKO

txarreako / txarriako — *oneako / oniako*

en perjuicio de, en contra de; dañino, -a, perjudicial

galterako (> *galtĭako*). Kalterako. **1** (-en atzizkiaren eskuinean). -en kaltean. *Gure galtĭako* 'gure kalterako'. **2** Kalte egiteko. *Onĭako, ez; galtĭako* 'onerako, ez; kalterako'. Ik. **txarrerako** (> *txarrĭako*). ▼ Anton. *oneako*. ¬

galtza, galtzia
GALTZERDI

calcetín

galtza iz. pl. *galtzak*. Galtzerdia. *Zure galtzok sekatwik de* 'zure galtzerdiok sikaturik daude'. *Galtza beltzak* 'galtzerdi beltzak'. *Kristalezko galtzak* 'kristalezko galtzerdiak'. Ardilazko galtzak 'artilezko galtzerdiak'. ◆ **galtzagorri** (eta *galtxagorri*). Galtzerdi gorriak dituena.

galtzadatu, galtzadatzen
GALTZADATU

adoquinar, pavimentar

galtzadatu *dau* ad. Lauzatu, lauzaz estali. *Galtzadatwik aitzarriekin* 'galtzadaturik haitzarriekin [kareharriekin]'.

galtzagorri
GALTZAGORRI

[hierba de tallo rojo]

galtzagorri (eta *galtxagorri*) (Ond Bak) **1** iz. (Bot.) [hierba de tallo rojo].

galtzaile, galtzailia
GALTZAILE

ibaztaile, ibazle

perdedor, -a; vencido, -a

galtzaile iz./adj. Galtzen duena, bereziki jokoan edo lehiaketa batean. ▼ Anton. *ibaztaile, ibazle*. ¬

galtzairu, galtzairua
ALTZAIRU

acero

galtzairu (> eta *gailtzeru*, *gailtzerubá* [Bakaiku]. [Urdiain]: *gailtzaua*, *galtzailua (?)*) iz. Altzairua; karbono eta burdinazko aleazioa. ◆ **galtzairuzko** adj. Altzairuzkoa.

galtzarpe, galtzarpia

GALTZARBE, BESAPE

besape, besazpi

axila; sobaco

galtzarpe iz. Galtzarbea, besapea. Ik. **besape**, **besazpi**. ◆ galtzarpe azpia (?)

galtzin, galtzina

GALTZINA

kare

cal

galtzin(a) iz. Karea, gisua. Ik. **kare**; **kisu**. ¬

galtzorratz, galtzorratza

GALTZORRATZ

lanorratz

aguja de hacer punto, aguja de media

galtzorratz iz. Puntu egiteko orratza. – Galtzorratz motzak eta luziek. Ik. **lanorratz**. ¬

galzada, galzadia

GALTZADA

calzada

galzada iz. Galtzada, harbidea. *Aizkibilgo galzadĭa garbitu ta agirien autzi dai* 'Aizkibelgo galtzada garbitu eta agerian utzi dute'. *Urriztiko galtzadĭa* 'Hurriztiko [Urdiaingo eremua] galtzada'.

ganafita, ganafitia

GANIBET

kutxilo

cuchillo

ganafita (*a* itsatsia) iz. Ganibeta. *Ekatzak (kutxilo) ganafitĭa* 'ekartzak (kutxillo) ganibeta'. *Fermin, zorroztak ganafitĭa!* 'Fermin, zorroztu ezak ganibeta!'. Ik. **kutxilo**.

ganau, ganaua

GANADU

ganado
res, cabeza de ganado
bribón, -a

ganadu (> *ganau*) **1** iz. *Ganau asko, buru asko dukatzi* 'ganadu asko, buru asko dauzka'. || *Ganauba etzinda don bitartien ongi do; gaizki dona, zuti o tente yoten da* 'ganadua etzinda dagoen bitartean ongi dago; gaizki dagoena, zutik edo tente egoten da' (Ond Bak). (Gaizki denien irulkan ibiltzen dia). **2** adj. (Lgart. Batez ere multzoan). Alea, elementua. *A ze ganaua!* 'a ze ganadua!'.

ganbara zelai

GANBARA ZELAI; GELARTE

distribuidor que da acceso a las habitaciones

ganbara zelai (> eta *ganbazelai*) iz. Gelartea; etxabetik eskailerak igota, logelatara ematen duen zabalgunea. *Ganbazelai zabala izaten dai etxe askok* 'ganbara zelai zabala izaten dute etxe askok'.

ganbara, ganbaria

GANBARA

segunda planta de la casa (inmediatamente superior a la planta baja)

ganbara iz. Burundako etxeetan, etxabearen gaineko solairua; kalearen maila berean dagoenaren hurrengoa. *Ganbaran lau logela dukatzĭu* 'ganbaran lau logela dauzkagu'. Ik. **goiko ganbara**. ◆ **ganbara zelai** (> eta *ganbazelai*) iz. Gelartea; etxabetik eskailerak igota, logelatara ematen duen zabalgunea. *Ganbazelai zabala izaten dai etxe askok* 'ganbara zelai zabala izaten dute etxe askok'. ◆ **goiko ganbara**. **1** iz. Ganbara, sabaia. Ik. **safai**. **2** Irud. Burua. ◆ **goiko ganbaratik egon / ondo ez egon** (> *goikoganbati yon / ondo ez yon*). Burutik egon. ◆ **tximu ganbara**. Goiko ganbarako goitegia, gailurraren azpian eraikitako oholtza.

ganbatxiki, ganbatxikia

GANBARA TXIKI, TRANPAL; ESKAILERA-BURU

rellano, descansillo

ganbara-txiki (> *ganbatxiki*) iz. Tranpala, eskailera batean, bi maila sailen arteko zati laua. *Ganbatxikiko argia funditu in da, ta aldatu berra do* 'ganbara txikiko argia funditu egin da, eta aldatu beharra dago' [*Funditu*, erre]. Ik. **eskila(ra) buru** (> *eskilabu*).

ganbazelai, ganbazelaia

GANBARA ZELAI; GELARTE

distribuidor que da acceso a las habitaciones

ganbela, ganbelia

GANBELA

pesebre, gamella

ganbela iz. Abereei janaria jartzen zaien kutxa moduko ontzia. *Txerri ganbelak*. [Desberdindu egiren dira: *ganbela*, jaten ematekoa; *aska*, edaten ematekoa]. Ik. **sara**. ◆ **zorri ganbela** [Urdiain] Lgart. Lepondoko zuloa; lepoaren atzealdeko ildoa, argaltasunak nabarmenagotzen duena. Ik. **buruko txoko** (Iza Alts).

ganbelatu, ganbelatzen

[OHOLAK AHUR-GANBIL FORMA HARTU]

deformación en que las tablas se curvan por los bordes formando una concavidad o acopamiento

ganbelatu *da* ad. Oholak ahur-ganbil forma hartu. *Olák ganbelátu diá, makurtu* (Ond Bak).

ganbiatu, ganbiatzen

KANBIATU

aldatu

cambiar
cambiar(se), modificar(se)

ganbiatu (eta *kanbiatu*) *da/dau* ad. Ik. **aldatu**. ¬

ganbio, ganbiua, ganbiuek

DIRU XEHE, ATZERAKO(AK), KANBIOAK

buelta(k)

cambio, vuelta (dinero)

ganbio iz. Kanbioa; salerosketetan, itzultzen den diru xehea. pl. *ganbiuek*. Ik. **kanbio**; **buelta (k)**.

gandu, gandua

GANDU; LIGA

viscosidad; poso, sedimento, madre
bruma (?)

gandu **1** iz. Zenbait isurkarik eratzen duten hondar lodia, liga, lirdinga. *Gandua: ozpinai-ta galtzen diainien sortzen zaien likia* 'gandua: ozpinari-eta galtzen direnean sortzen zaien lika [lirdinga]'. **2** iz. Lurrun geruza (?).

ganglio, gangliua

GONGOIL; GURINTXO

ganglio
golondrino, inflamación de los ganglios linfáticos

ganglio iz. Gongoila || pl. Gurintxoak; galtzarbean ateratzen den hantura. || itsumutu (?).

gantz, gantza

GANTZ

manteka, gilborra

grasa; manteca
grasa derretida

gantz iz. *Txerrien gantza* 'txerriaren gantza'. *Kilo bat gantz*. *Gantza urtu*. *Oliua ta gantza nastuta ibiltzen zan* 'olioa eta gantza nahastuta ibiltzen zen'. Ik. **gilborra**; **manteka**; **koipe**.

gar, garra

GAR

sugar

llama

gar iz. *Talua erretzeko garrakin* (Ond Bak). *Garrik eztau atatzen su il orrek* 'garrik ez du ateratzen su hil horrek'. Ik. **sugar**.

garagar, garagarra

GARAGAR

cebada (Hordeum distichon)

garagar (eta *gagar*) iz. (Bot.) Gariaren antzeko laborea (Hordeum distichon). *Garagar bizarra*.

garagarril, garagarrila

EKAIN, GARAGARRIL

junio

garagarril iz. Urteko seigarren hila; ekaina. *Garagarrilĭen eguna bero, goizĭén intza donĭen / danĭen* 'garagarrilean eguna bero, goizean ihintza dagoenean / denean'. ¬

garai bateko, garai batekua

DENBORA BATEKO

antiguo, -a; de otrora

garai bateko. 'Iraganeko garai bateko, lehengo' adierarekin. Ik. **aspaldiko**.

garai, garaia

GARAI

denbora, sasoi; mugaz

momento, hora; época, tiempo

garai iz. Nolabait mugatutako denbora-bitartea; zerbait egiteko une egokia. *Garai txarra*; *garai ona*. *Guai ezta ointo garaia* 'orain ez da onddo garaia'. *—Elur zar bat in dau! —Garaia!* [*elurra iteko guai da garaia-ta*] 'elur tzar [handi] bat egin du! —Garaia! [elurra egiteko orain da garaia-eta]'. ▲ Sin. *denbora*, *sasoi*. || *Bat hiltzen dan garaien* 'hiltzen denean'. *Beák nai dén garaién o egunién* (Ond Bak). **2** iz. (garai batean, garai bateko eta kideko esapideetan). Aspaldi. *Garai batien* 'garai batean'. *Garai bateko, garai batekua*. Ik. **aspaldi**; **lehenago** (> *leno*). ◆ **garaiko**, garaikua. Garaikoa, sasoikoa. *Garaien garaiko frutĭa* 'garaian garaiko fruta. ◆ **bere garaian** (> *be garaien*) adb. *Be garaien in ber dai gauzak* 'bere garaian egin behar dira gauzak' [a su debido tiempo]. ◆ **garai bateko**. 'Iraganeko garai bateko, lehengo' adierarekin. Ik. **aspaldiko**. ◆ **garai ederretan ibili**. Desordutan, desgaraian. ◆ **behar ez den garai** (> *berreztan garai*). Garai edo ordu desegokia. ◆ **garaiz** adb. Behar den unean, ez berandu. *Garaiz etorri, mugaz etorri*. Ik. **mugaz**; **puntual**.

garaiz
GARAIZ

mugaz, puntual

a tiempo, a buena hora; temprano

garaiz adb. Behar den unean, ez berandu. *Garaiz etorri, mugaz etorri*. Ik. **mugaz**; **puntual**.

garaje, garajia
GARAJE

garaje

garaje iz. Autoak zaindu eta konpontzeko lantegia.

garama, garamia
ASKI (2), ASKIMOTZ, ARROSARIO-BELAR

grama

garama iz. (Bot.) Askimotza, arrosario-belarra (Cynodon dactylon). *Garama bearra* 'garama belarra'. *Garamĭa ta mubitĭa don tokien, maiz oria ta buru txikio* 'garama eta mugita dagoen tokian, arto horia eta buru txikiago'.

garantia
GARANTIA

garantía

garantia **1** iz. Bermea. **2** iz. Produktu baten garantia.

garbanzu, garbanzua
GARBANTZU

txitxiyo

garbanzo (Cicer arietinum)
garbanzo (semilla)

garbanzu iz. (Bot.) Garbantzua, txitxirioa (Cicer arietinum); landare horren hazia. Ik. **txitxiyo**. *Garbanzuek, ondo etortzeko, naikua ta sobra duka yaurialdi bat* 'garbantzuak, ondo etortzeko, nahikoa eta sobra dauka eurialdi bat'.

garbi
GARBI

2 raso

zikin

limpio, -a; puro, -a; claro, -a; aseado, -a
limpio, -a; despejado, -a; nítido, -a
idéntico, -a
limpiamente; sinceramente; claramente, con claridad; honestamente; netamente

garbi **1** adj. ▼ Anton. *zikin*. **2** adj. Berez ez dagokion edo oztopo gertatzen zaion gauzarik ez duena. *Zeru garbia*: hodeirik edo lainorik gabekoa. Ik. **raso**. *Bide garbia*. **3** adj. Bezalakoa, antzekoa. *Garbi aita!* 'aita berbera da; bere aita bezalakoxea da; aitaren antz handia du'. Ik. **raso**. **4** adb. Garbiki, garbiro. *Eztau garbi jokatu* 'ez du garbi jokatu'. *Kontuek garbi*. *Zizak garbi ekartu* 'zizak garbi ekarri ditu'. ◆ **argi eta garbi** adb. Erabat garbi, erraz ulertzeko eran; zalantzarako biderik utzi gabe. *Argi ta garbi esan tu gauzak* 'argi eta garbi esan ditu gauzak'. ◆ **garbi-garbia egin** (> *garbi-garbia in*). Ondo garbitu. Ik. **garbitu**.

garbiketa, garbiketia
GARBIKETA

garbitasun

limpieza, limpia, lavado

garbiketa iz. *Arropa garbiketa guztĭa eskuz iten zan* 'arropa garbiketa guztia eskuz egiten zen'. *Sekula eztĭa despeitzen garbiketak* 'sekula ez dira despeditzen [bukatzen] garbiketak'. Ik. **garbitasun**. ◆ **garbiketa egin** (> *garbiketĭa in*). ◆ **garbiketan** adb.

garbitasun, garbitsuna GARBITASUN
garbiketa *zikintasun*
limpieza; lavado, aseo
documentación

garbitasun **1** iz. Garbia denaren nolakotasuna; zikintasunik edo nahasketarik eza. ▼ Anton. *zikintasun*. **2** iz. Garbiketa. *Garbitasuna in* 'garbitasuna egin'. **3** iz. Agiriak (pl.); argibidea, azalpena. *Garbitasunak* [agiriak]. ◆ **garbitasuna egin** (> *garbitasuna in*). Garbitu. Ik. **garbitu**; **garbiketa egin** (> *garbiketĭa in*). ¬

garbitasuna in GARBITASUNA EGIN
limpiar, hacer la limpieza

garbitasuna egin (> *garbitasuna in*). Garbitu. Ik. **garbitu**; **garbiketa egin** (> *garbiketĭa in*). ¬

garbitu, garbitzen GARBITU
zikindu. 2 hil, akabatu, linpiatu, likidatu
limpiar, lavar, asear
despejar; quitar impedimentos, retirar estorbos
matar
rebañar

garbitu **1** *da/dau* ad. *Garbitu tuzu untziek?* 'garbitu dituzu ontziak?'. Ik. **garbitasuna egin** (> *garbitasuna in*). || *Garia garbitu* (Ond Bak). *Patĭa ogiekin garbitu* 'platera ogiarekin garbitu [rebañar]'. ▼ Anton. *zikindu*. **2** *da/dau* ad. Hil. ▲ Sin. *hil*, *akabatu*, *linpiatu*, *likidatu*. **3** *dau* ad. *Bidĭek garbitu* 'bideak garbitu'. | *dau* ad. Oskarbitu. *(Zerua) garbitu*. Ik. **rasatu**. **4** *dau* ad. Ostu. ▲ Sin. *linpĭatu*. Ik. **ostu**; **lapurtu**. ◆ **garbi-garbia egin** / **utzi** (> *garbi-garbia in* / *autzi*). Garbitu.

garbitzaile, garbitzailia GARBITZAILE
limpiador, -a

garbitzaile iz. Aipatzen dena garbitzen duen pertsona. *Etxiek garbitzen ibiltzen da, garbitzaile lanetan* 'etxeak garbitzen ibiltzen da, garbitzaile lanetan'. ◆ **etxe garbitzaile**. *Etxe garbitzaile daile* 'etxe garbitzaile dabil'. ◆ **tximini-garbitzaile**. Tximiniak garbitzen dituen pertsona. *Tximini-garbitzailia*. *Tximini-garbitzaile ta mutur zikina*.

garboso, garbosua GRAZIADUN, BIZI
airoso, bizi
garboso, -a

garboso, -a (Generoa hartzen du) adj. Ik. **airoso**; **bizi**.

gardama, gardamia ALGA (UR GEZETAKOA)
alga de agua dulce (Chlorophyta)

gardama iz. (Bot.) Ur gezatako alga berdea LM. Uraska eta putzuetan sortzen den alga.

garesti GARESTI
merke
caro, -a; de precio elevado; carero, -a
caro, -a; caramente, a un precio alto

garesti (eta *gasti* [Urdiain]) **1** adj. *Bai gastiek pantalon oiek* 'bai garestiak praka horiek'. *Gastia da dendioi* 'garestia da denda hori'. ▼ Anton. *merke*. **2** adb. *Bizia gasti jon* 'bizia garesti zagon'. *Geo ta gastio* 'gero eta garestiago'. | Irud. *Gasti ata zaie asarrealdia* 'garesti atera zaie haserrealdia'.

gargandilla, gargandillia

LEPOKO

gargantilla (collar); cada una de las cuentas que forman un collar
glándulas colgantes, apéndices que tienen las cabras en el cuello

gargandilla **1** iz. Lepokoa, lepoa inguratuz jartzen den apaingarria; lepokoaren alea. **2** (> *gargantila*) iz. Ahuntzek-eta lepoan zintzilik dituzten guruinak (Iza Alts).

gargara

GARGARA

gárgara(s)

gargara iz. pl. Isurkari bat eztarrian erabiltzea irentsi gabe, borborraren antzeko hotsa ateraz. *Gargarak in* 'gargarak egin'.

gari kolore, gari koloria

GARI KOLORE

color trigo

gari kolore. **1** adj. Gari bikorraren kolorekoa. **2** iz. Gari bikorraren kolorea. || *Gari koloriá deka* (Ond Bak).

gari, garia

GARI

trigo

gari iz. (Bot.) (Triticum sp.). Errotan garia (Ond Bak). || *Gwai arte bĭar, emendik aurrĭa gari* 'orain arte belar, hemendik aurrera gari [Sanjoanetan]'. | – gari-bala. | – gari bizar. | – gari-bikor. | – gari-hazi. | – gari-lasto. | – gari-lur. | – gari-kutxa. | – garia yain. | – gari-pila. | – gari-soro. | – gari-ondar; Ik. **galondar** (Bak). | – gariek bildu. | – gariek in. | – gari-jorra. | – gari-urte.
◆ **garia jo**. (Nekaz.) Garia larrainean jo, lastoa eta alea bereizteko. Ik. **yuntzitu**.
◆ **gari kolore**. **1** adj. Gari bikorraren kolorekoa. **2** iz. Gari bikorraren kolorea. || *Gari koloriá deka* (Ond Bak). ◆ **gari zorro**. Galburuan, gari bikorraren estalgarria. • Esr. zah. *Txikia banintzan, haundia banintzan, maiatzien zorruen nitzan*. ¬

garia jo

GARIA JO

yuntzitu

trillar

garia jo. (Nekaz.) Garia larrainean jo, lastoa eta alea bereizteko. Ik. **yuntzitu**.

garialde

GARI EREMU

zona de trigales

garialde iz. Nekaz. Garia ereindako lurrak; gari eremua. *Garialde ta maizalde: dermioko alderdi batien garia yaiten zan ta beste alderdien maiza, ta hurrengo urtien aldatu*. Ik. **maizalde**.

garil, garila

UZTAIL, GARIL

julio

garil iz. Urteko zazpigarren hila; uztaila. *Garai batĭen, garilĭen, naiko lan* 'garai batean, garilean, nahiko lan'. *Fĭestak, garilĭen* 'festak, garilean'.

garitxo, garitxua

GARATXO

verruga

garitxo iz. Garatxoa; azalean, bereziki eskuetan, oinetan eta aurpegian, agertzen den pikorta gogorra. *Garitxuek kentzeko ona da yodo belarra* (?). ¬

garizizpi GARI LASTO
gizi
caña del trigo

garizizpi iz. (Iza Alts). Gariaren lastoa [caña del trigo]. Ik. **gizi**.

garizuma, garizumia GARIZUMA
cuaresma

garizuma (> eta *gaizuma*, *gaizumia*) iz. (*G* larriz). Berrogei eguneko aldia, Hausterre egunaren eta Aste Santuaren artekoa, kristau elizetan pazko misterioaren ospakizuna prestatzeko seinalatua. *Diotĭen ondoti, garizumĭa* 'inauteen ondotik, garizuma'.

garnatxa, garnatxia GARNATXA
garnacha (clase de uva)
garnacha (vino que se hace con garnacha)

garnatxa **1** iz. (Bot.) Mahatsondo mota, batez ere ardo beltza egiteko erabiltzen den mahatsa ematen duena; mahats hori bera. *Mats garnatxa* 'mahats garnatxa'. **2** iz. Garnatxarekin egiten den ardoa. *Ardo garnatxa*.

garrafon, garrafona GARRAFOI
garrafón

garrafon iz. Garrafoia.

garranga, garrangia GARRANGA
izotz garranga, lantxurda
carámbano

garranga [Ziordia, Olatzagutia eta Altsasu] iz. Izotz kandela. *Izotz garranga*. Ik. **lantxurda**.

garrapiñada, garrapiñadia GARRAPIÑATU

garrapiñada adj. Garrapiñatua. Ik. **almendra-garrapiñada**.

garrasi in GARRASI EGIN
gritar, chillar

garrasi egin (> *garrasi in*).

garrasi, garrasia GARRASI
erroitu
grito, chillido

garrasi iz. *Beti garrasiz!* Ik. **erroi**; **erroitu**. ◆ **garrasi egin** (> *garrasi in*). ◆ **garrasiz** adb. Ik. **garrasikan**. Ik. **erroi**; **erroitu**.

garrasika(n) GARRASIKA
gritando, chillando, a gritos, dando gritos

garrasika(n) adb. Garrasiz.

garrasiontzi, garrasiontzia GARRASIZALE
txintxurraundi; arran [Ziordia]
chillón, -ona

garrasiontzi adj. Garrasizalea. *Oi garrasiontzia!* 'hori garrasiontzia!'. Ik. **arran**; **txintxurraundi**.

garratx, garratxa

GARRATZ

ácido, -a; agrio, -a
granulado, -a (?)

garratx **1** adj. Garratza, ahoan halako laztasuna edo mintasuna sentiarazten duena. *Okan garratxa* 'okaran garratza'. **2** adj. Bikorduna, pikorduna (?). *Harrigarratxa*. *Udara garratxa*.

garraxi

GARRASI

erroitu

grito, chillido

-garren

-GARREN

-garren, sufijo (numeral ordinal)

-garren* ord. *Bosgarren*; *hamaikagarren*; *egungarren*... *Jo tuai lemizko ta bigarren deia* 'jo dituzte lehenbiziko eta bigarren deia(k) [elizako ezkila-deiak]. ◆ Urtegarrenak, urteurrenak adierazteko. Bedratzigarrena. *Lemizko urtĭa* 'lehenbiziko urtea [urtegarrena, urteurrena]'; *bigarren urtĭa* 'bigarren urtea'. *Berrogeitamargarren urtĭa* 'berrogeita hamargarren urtea [urtegarrena]'. Ik. **anibersaio**. ◆ **garrengo**. Muga egunak, epemugak adierazteko. *Urte bat garrengo despeituko du lana* 'urte bat garrengo despedituko dugu lana'.

-garrengo

GARRENERAKO*

al cabo de

-garrengo Garrenerako*. Bi urtegarrengo, penak ahaztuik. Hamabost egungarrengo, txumia haundituik. Hilabetegarrengo, ongituik. Astegarrengo, frutia ustelduik. (Aldatu esaldien egitura errepikakorra). *Yauriokin, lau egun garrengo ata ber diai urrizizak* 'euriokin, lau egun garrengo atera behar diate urrizizak'.

-garri

-GARRI (ATZIZKIA)

-garri; sufijo con significados como «productor de», «agente», «causante», etc.

-garri (atzizkia). Balio arazlea ematen dio sortzen dituen izenondoei edo izenei. Adibideak: *barregarri*, *galtegarri*, *izugarri*, *lazkarri*, *okagarri* (...).

garrotillo, garrotillua

DIFTERIA

difteria, garrotillo

garrotillo iz. Difteria (Haur gaitza).

garza, garzia

KOARTZA

garza

garza iz. Koartza (Ardea purpurea etab.).

garzela, garzelia

KARTZELA

cárcel, prisión, centro penitenciario

garzela iz. Kartzela. *Sártu ber lukéi garzelá* 'sartu behar lukete kartzelara' (Ond Bak). *Garzelan yondakwa da* 'kartzelan egondakoa da'. ◆ **betiko garzela(ra)** (> *betiko garzelá*). *Ojala betiko garzela sartuko balikeik!* 'oxala betiko gartzelara sartuko balituzte!'.

gasa, gasia

GAZA

gasa (tela)
gasa (banda que se usa en medicina)

gasa iz. Gaza. **1** iz. Kotoizko edo zetazko ehun mehea. *Gasazko telĭa* 'gazazko tela'. **2** iz. Zauriak garbitzeko eta kidekoetarako erabiltzen den ehun zati sarea.

gasolina

GASOLINA, EZANTZA

gasolina

gasolina iz. Ezantza.

gastakor, gastakorra

GASTATZAILE

gastatzaile

gordetzaile

gastador, -a; derrochador, -a

gastakor adj. Gastatzailea; batez ere diruaz hitz eginez, gehiegi gastatzen duena. ▲ Sin. *gastatzaile*. ▼ Anton. *gordetzaile*. *Asko gastatzen dena, gastakorra* 'asko gastatzen duena, gastakorra'. *Gastakorra da; dirua kobratu ala gastatu iten dau* 'gastakorra da; dirua kobratu ahala gastatu egiten du'.

gastatu, gastatzen

GASTATU

2 saratu, desgastatu

gastar, emplear
gastar(se), desgastar(se), deteriorar(se) con el uso
gastar(se), consumir(se), acabar(se)
morirse poco a poco

gastatu **1** *dau* ad. *Ez gĭo diru guztĭa gastatu!* 'ez gero diru guztia gastatu!'. *Koperatiba orti gastatzen genduen dana* 'kooperatiba hortik gastatzen [erosten] genuen dena'. **2** *da/dau* ad. Higatu. *Ondo gastatwik dukatzizu lanĭako pantalon oiek* 'ondo gastaturik dauzkazu lanerako praka horiek'. Ik. **saratu**; **desgastatu**. || *Dukan adinakin, raso gastatwik do* 'daukan adinarekin, arras gastaturik dago'.

gastatzaile, gastatzailia

GASTATZAILE

gastakor

gordetzaile

gastador, -a; derrochador, -a

gastatzaile adj./iz. Gastatzailea; batez ere diruaz hitz eginez, gehiegi gastatzen duena. ▲ Sin. *gastakor*. ▼ Anton. *gordetzaile*.

gasti

GARESTI

merke

gastitu, gastitzen

GARESTITU

merkatu

encarecer(se), subir el precio

garestitu (> *gastitu*) *da/dau* ad. Garesti edo garestiago bihurtu, prezioa goratu. *Zenbat gastitu dan dana!* 'zenbat garestitu den dena!'. ▼ Anton. *merkatu*.

gata-maila, gata-mailia

KATE-MAILA, KATEBEGI

eslabón (de cadena)

gata-maila. Katearen maila, katebegia.

gata, gatia

KATE

cadena

gata iz. Katea. *Lepoko gatĭa* 'lepoko katea'. *Urrezko gatĭa, zidarrezko gatĭa* 'urrezko katea; zlarrezko katea'. *Lor gatĭa* 'lor katea'. Ik. **estringa**. ◆ **gata-maila**. Katearen maila, katebegia.

gatiatu, gatiatzen

KATEATU

encadenar(se)
atar, unir, enlazar; enganchar(se), enredar(se), trabar(se)

gatiatu *da/dau* ad. Kateatu. *Lurrezko eltzĭek ez austeko iten zĭan alanbrĭekin gatĭatu* 'lurrezko eltzeak ez hausteko egiten ziren alanbrearekin kateatu'.

gatz, gatza

GATZ

sal
sal, gracia, ingenio, viveza

gatz (eta *gaz* [Bakaiku]) iz. *Gatz bikorra*. *Gatzakin* 'gatzarekin'; *gatzipe* 'gatzik gabe'; *gatziai* 'gatziegi'.

◆ **gatz larri(a)**.
◆ **gatz txehe(a)** (> *gatz txea*). Gatz xehea.
◆ **gatz beiko**. Gatzik gabekoa.
◆ **gatza eman**. Gatzitu
◆ **gatza bota**. *Bota gatza eltziai* 'bota gatza eltzeari'.
◆ **gatza kendu**.
◆ **gatzetan paratu** (> *gatzetan patu*). *Urdaiazpikwek gatzetan patu* 'urdaiazpikoak gatzetan paratu'.

gatzarri, gatzarria

GATZARRI

halita, sal gema

gatzarri iz.

gatzbeiko

GATZGABEKO

gatzipe, motela

soso, -a; sosaina; aburrido, -a; anodino, -a; falto de gracia

gatzbeiko adj. Gatzgabekoa, gatzgabea.

gatzi, gatzia

GAZI

soso, motel, gatz beiko; lela

salado, -a

gatzi **1** adj. Gatza duena. **2** adj. Janariez mintzatuz bereziki, gatz gehiegi duena. Ik. **salmorra**. ▼ Anton. *soso*, *motel*, *gatz beiko*; *lela*. ¬

gatzipe

GATZGABE

gatzbeiko, motel

soso, -a; insípido, -a; insulso, -a

gatzipe (Adizlagun gisa). Gatzik gabe, gatzgabe. Ik. **gatzbeiko**; **motel**.

gatzitu, gatzitzen

GAZITU

gatza eman; gatza bota

salar, echar más sal de la necesaria
salar, echar en sal, curar con sal
salar, echar sal, sazonar/condimentar con sal

gatzitu **1** *da/dau* ad. Gazitu, gazi bihurtu. **2** *dau* ad. Jakiez mintzatuz, ez galtzeko, gatzetan edo gatzunetan ezarri. *Urdaia gatzitu* 'urdaia gazitu'. Ik. **gatzetan paratu** (> *gatzetan patu*); **kuratu**. **3** *dau* ad. Gatza eman. Ik. **gatza bota**. **4** (Era burutua izenondo gisa). *Urdai gatzitua* 'urdai gazitua'.

gatzogi, gatzogia

GATZAGI

cuajo

gatzogi (eta *gatzoki*; *gatzai* [Altsasu]; *gatzagi* [Bakaiku]). Gatzagia. || *Axuiak esenia yan ta dijitu ondorien, gatzagia. Honekin gaztaia ta iten dia* (Ond Bak).

gatzontzi, gatzontzia

GATZONTZI

salero, recipiente de la sal

gatzontzi iz. Sukaldean eta mahaian erabiltzen den gatzaren ontzia. *Estaldu berko diagu gatzontzia* 'estaldu beharko diogu gatzontzia'.

gatzura, gatzuria (?)

GAZUR

suero (de leche)

gatzura iz. Ik. **gazura**. (ur > uria ?)

gau on

GAU ON

buenas noches

gau on interj. Gabon. *Gau on deizula*. Ik. **gaubon**. [*gau on*, bea ez *gaubon* (LM)].

gau sarrera

ILUNABAR

ilunabar, iluntze

anochecer, anochecida

gau sarrera. Iluntzen, gaua sartzen hasten deneko garaia. Ik. **ilunabar**; **iluntze**.

gau ta egun

GAU ETA EGUN

noche y día, día y noche, sin cesar

gau eta egun (> *gau ta egun*) adb. Etengabe. *Gau ta egun, ixildube* 'gau eta egun, isildu gabe.

gau, gau(b)a

GAU

noche

gau (> *gau(b)a*) iz. Eguzkiaren sarreratik irteerara hedatzen den denbora-bitartea; ilun dagoen egunaren zatia. *Gau iluna*. *Gau guztĭa*. *Gaubĭen*, *gaubĭako*. *Gaubĭako fan da lanĭa*. *Gaubazko lana*.

◆ **gaubaz** adb. Gauaz. *Gaubaz dail lanĭen* 'gauaz dabil lanean'. || ◆ **gaubez** adb. Gauez. *Gaubez ai da lanien* (Ond Bak).

◆ **gau eta egun** (> *gau ta egun*) adb. Etengabe. *Gau ta egun, ixildube* 'gau eta egun, isildu gabe.

◆ **gaua galdu**. *Oiek gaua galdu dai parrandan* 'horiek gaua galdu dute parrandan'.

◆ **gau sarrera**. Iluntzen, gaua sartzen hasten deneko garaia. Ik. **ilunabar**; **iluntze**.

◆ **gau on** interj. Gabon. *Gau on deizula*. Ik. **gaubon**. [*gau on*, bea ez *gaubon* (LM)].

gaubatz, gaubatza

GAUARO, GAUGIRO

temperatura o tiempo de la noche, generalmente bueno

gaubatz (eta *gauatz (?)*) iz. Gauaroa, gaugiroa, gaueko eguraldia, gehienean ona. *Au gauatza!* 'hau gauaroa'. (Ik. **egonera** (> *yonera*).

gaubeko, gaubekua

GAUEKO

sorgin

nocturno

brujo, -a (de la noche)

gaubeko iz. Gaueko sorgina. (*Katalin, Katalin?*) *Gaubekuek eraman din* 'gauekoak eraman din'. Ik. **sorgin**.

gaubeztu, ganbeztu (?)

GAUPASA EGIN

gaupasa

noche en vela (normalmente de fiesta)

ganbeztu, **gaubeztu** (?).

gaubon

GABON

buenas noches

gaubon interj. Gabon!; gauaz diosala egiteko erabiltzen den esapidea. Ik. **gau on**.

Gaubon-egun, Gaubon-eguna

GABON-EGUN

día de Nochebuena

Gaubon egun. Gabon eguna, abenduaren 24a.

Gaubon-gau, Gaubon-gaua

GABON-GAU

Nochebuena, noche de Navidad

Gaubon gau. Gabon gaua, Gabon eguneko gaua.

Gaubon(ak)

GABON(AK), EGUBERRI(AK)

Eguarri

Navidad(es)

Gaubon iz. pl. (G larriz). Gabonak, Eguberriak. *Gaubon urrengo eguna: Pazko eguna*. 'Gabon hurrengo eguna: Pazko eguna'. Ik. **pazko egun**; **Eguarri**. ◆ **Gaubon egun**. Gabon eguna, abenduaren 24a. ◆ **Gaubon gau**. Gabon gaua, Gabon eguneko gaua. ◆ **Gaubonetako kantaita**.

gauerdi, gauerdia

GAUERDI

medianoche, las doce de la noche

gauerdi iz. Gauaren erdia, gaueko hamabiak. *Jo tu gauerdiko amabiek* 'jo ditu gauerdiko hamabiak'. ◆ **gauerdiko meza**. *Gaubon gaubĭen izaten da gauerdiko mezĭa* 'Gabon gauean izaten da gauerdiko meza'.

gauerdiko meza, gauerdiko mezia

GAUERDIKO MEZA, OILAR-MEZA

misa del gallo

gauerdiko meza. *Gaubon gaubĭen izaten da gauerdiko mezĭa* 'Gabon gauean izaten da gauerdiko meza'.

gauinara, gauinaria

GAUENARA, SAGUZAR

murciélago (Pipistrellus pipistrellus)

gauenara (> *gauinara*, *gaubinara*) iz. Saguzarra (Pipistrellus pipistrellus).

gaup in

AUPATS, KORROKADA EGIN

apats in

eructar, regoldar

gaup egin (> *gaup in*) *dau* ad. ▲ Sin. *apats in*. Ik. **apats**.

gaupasa

GAUPASA

ganbeztu (?)

pasando la noche (Uso adv.)
noche en vela (normalmente de fiesta)

gaupasa iz. Etxetik kanpora olgetan gaua igarotzea; gau guztia irauten duen jaialdia. Sin. *ganbeztu* (?), *gaubeztu* (?).

gaur

GAUR

hoy
hoy, hoy (en) día, actualmente, en la actualidad, ahora

gaur **1** adb. Gauden egunean, egun honetan. *Gaur bertan*. *Gaur zortzi*. *Gaur hamabost*. *Gaur arte*. *Gaurtik aurrĭa* 'gaurtik aurrera'.
◆ **gaur balitz**...
◆ **gaur egun** adb. Garai honetan.
◆ **gaur hamabost** **1** adb. Bi aste barru. *Gaur hamabost hasiko dĭa erriko fiestak* 'gaur hamabost hasiko dira herriko festak'. **2** adb. Bi aste aurretik. *Gaur amabost asi gindan dantzak ensaiatzen* 'gaur hamabost hasi ginen dantzak entseatzen'.
◆ **gaurko** **1** adj. Gaurko lanak. **2** adb. *Gaurko inik ibili ber genduen oi*. Gaurko eginik ibili behar genuen hori.
◆ **gaurko egunean** (> *gaurko egunĭen*) adb. Gaur egun.
◆ **gaurko egunarekin** (> *gaurko egunakin*). adb. Gaur bezalako egun batean, data honetan.
◆ **gaur zortzi** **1** adb. Datorren asteko egun berean. *Gaur zortzi izango da be urteguna* 'gaur zortzi izango da bere urteguna [urtebetetze eguna]'. **2** adb. Joan den asteko egun berean. *Gaur zortzi obeto genden* 'gaur zortzi hobeto geunden'.

gaur egun

GAUR EGUN

hoy, hoy (en) día, actualmente, en la actualidad

gaur egun adb. Garai honetan.

gaur hamabost

GAUR HAMABOST

dentro de dos semana; dentro de quince días
hace dos semana; hace quince días

gaur hamabost 1 adb. Bi aste barru. *Gaur hamabost hasiko dĭa erriko fiestak* 'gaur hamabost hasiko dira herriko festak'. *Amabost egun barru etorriko dala esan dwa* 'hamabost egun barru etorriko dela esan dit'. **2** adb. Bi aste aurretik. *Gaur amabost asi gindan dantzak ensaiatzen* 'gaur hamabost hasi ginen dantzak entseatzen'. *Gaur hamabost fan zan oporretá* 'gaur hamabost joan zen oporretara'.

gaur zortzi

GAUR ZORTZI

dentro de una semana
hace una semana

gaur zortzi 1 adb. Datorren asteko egun berean. *Gaur zortzi izango da be urteguna* 'gaur zortzi izango da bere urteguna [urtebetetze eguna]'. **2** adb. Joan den asteko egun berean. *Gaur zortzi obeto genden* 'gaur zortzi hobeto geunden'.

gaurtik / gaurti

GAURTIK

desde hoy, a partir de hoy, de hoy en adelante

gaurtik (eta *gaurti*) adb. Gaurtik aurrera. Ik. **hemendik aurrera** (> *emetik aurrĭa*); **guati(k)**.

gautxoi, gautxoia

GAUTXORI

juerguista, parrandero, -a, noctámbulo, -a

gautxori (> *gautxoi*) iz./adj. Lgart. Gauaz etxetik kanpora parrandan ibiltzen dena.

gauza izan

GAUZA IZAN

gai izan, kapaz izan

ser capaz (de), estar capacitado (para); ser apto/adecuado; ser digno

gauza izan *da* ad. Gai izan, kapaz izan. *Enok gauza oi iteko* 'ez nauk gauza hori egiteko'. Ik. **gai izan**; **kapaz izan**.

gauza, gauzia

GAUZA

cosa (objeto inanimado)
cosa (asunto, tema)

gauza 1 iz. Objektua. **2** iz. (Batez ere pl.) Gaia, arazoa. || Gauza zailak. Hólako gauzá (Ond Bak). || *Gauzak ondo pensatu ber dia* 'gauzak ondo pentsatu behar dira'. *Ezazula olako gauzaik esan!* 'ez ezazula horrelako gauzarik esan!'.
◆ *gáuzĭa gĭo're!* A zer gauza, gero ere.
◆ **gauza da (...)** (*gáuzĭa da...*). Aldez aurretik jakin beharrekoaz ohartarazteko erabiltzen den esapidea. *Kulpĭa ari bota nai zĭain, bea gáuzĭa da ikusi zaila nor zailen lapurretan* 'kulpa hari bota nahi zioten, baina gauza da ikusi zutela nor zebilen lapurretan'. Ik. **kontua da**.
◆ **gauza izan** *da* ad. Gai izan, kapaz izan. *Enok gauza oi iteko* 'ez nauk gauza hori egiteko'. Ik. **gai izan**; **kapaz izan**.
◆ **gauza jakina izan** (Singularreko hirugarren pertsonan). Esatera goazena jadanik gauza ezaguna dela adierazteko erabiltzen den esapidea. *Gauza jakina da oi* 'gauza jakina da hori'.
◆ **gauza onerako** (> *gauza onĭako*) Gauza onerako izan / ez izan.
◆ **gauza onik ez egin, ibili**. *Gauzonik eztuka* 'gauza [asmo, ideia] onik ez dauka' *Inkotedĭu gauzonik?* 'egingo ote diagu gauza onik?'. ◆ **gauza onik ez!** (> *gauzonik ez*). (Esapidea).

gazin! GOAZEN

vamos

gazin! Goazen!

gaztabatu, gaztabatua GAZTAI BERATU(A)

queso macerado

gaztai, gaztaia GAZTA

queso

gaztai iz. Gazta. Urbasako gaztaia. Mendien indako gaztaia, goxuo beti. || *Abatza're... gaztaiá itéko* (Ond Bak). ◆ **gaztai beratua** (> *gaztai beatua*).

gaztaibeatu, gaztaibeatua GAZTAI BERATU(A)

queso macerado; es un requesón curado, cremoso y de sabor muy fuerte

gaztaiberatu* (> *gaztaibeatu*, *gaztaibĭatu*, *gaztabatu*, *baztabĭatu*) iz. Gazta beratua. *Gaztaia iteko matwa nastuz iten da gaztaĭbeatua* 'gazta egiteko matoia nahastuz egiten da gaztai beratua' [matoia: gazta egiteko gatzatu bildua]. *Gaztaĭbeatua iteko, lemizko ilabetĭen, egunĭo, ondo nastu ber da matwa; bigarren ilabetĭen, bi eguneti beĭn* 'gaztai beratua egiteko, lehendabiziko hilabetean, egunero, ondo nahastu behar da matoia; bigarren hilabetean, bi egunetik behin'.

gaztaibiatu GAZTAI BERATU(A)

queso macerado; es un requesón curado, cremoso y de sabor muy fuerte

gaztaigile (?) GAZTAGILE

quesero, -a; persona que hace quesos

gaztaigile (?) ¬

gaztainale GAZTAINA ALE

castaña, grano de castaña

gaztainale ([Altsasu]; *gaztina ale* [Urdiain]) iz. Gaztaina, gaztainaren alea (Iza Alts).

gaztainzior GAZTAINA ZIGOR

gaztinagai

vara de castaño

gaztainzior iz. (Ond Bak). Ik. **gaztinagai**.

gaztal, gaztala GAZTELA

gaztalaize [hego-mendebalekoa]; mendabal(a)

viento castellano (sudoeste)
sudoeste, suroeste

gaztala **1** iz. Gaztela, hego-mendebaldeko haizea, gaztela-haizea* [desberdindu: *hego haize*]. Ik. **gaztalaize**; **mendabal(a)** (?). **2** iz. Hego-mendebala. *Gaztaletik jekak yauria* 'gaztelatik [mendebaletik] zekarrek euria'. Ik. **mendabal**.

gaztalaize, gaztalaizia GAZTELA-HAIZE*, MENDEBAL-HAIZE

gaztala, arabaize, mendabalaize

viento de poniente, viento (del) oeste

gaztalaize (eta *gaztelaize* [Bakaiku]) iz. Gaztela-haizea, mendebal-haizea. Ik. **gaztala**; **arabaize**; **mendabalaize**.

gaztanbera, gaztanberia

GAZTANBERA, MAMI, GATZATU

cuajada

gaztanbera iz. Mamia, gatzatua. *Sutan ibilitako arriekin ardi esenĭa biotu, ta gatzogia nastuta iten da gaztanberaik onena* 'sutan ibilitako harriarekin ardi esnea berotu, eta gatzagia nahastuta egiten da gaztanberarik onena'. [Oharra: *gaztanbera* [Urdiain]; *mamia*, beste herrietan (?)].

gaztantegi, gaztantegia

GAZTANDEGI

gaztantegi ([Ziordia], *gaztantei* [Urdiain]) iz. gaztandegia, gaztak egiteko edo gordetzeko lekua.

gaztantei, gaztanteia

GAZTANDEGI

lugar donde prensan o guardan los pastores sus quesos

gazte denbora, gazte denboria

GAZTE-DENBORA

juventud, mocedad

gazte denbora iz. Gaztaroa. ◆ **gazte denboran** (eta *gazte denban*).

gazte jende, gazte jendia

GAZTE JENDE

juventud, jóvenes (conjunto de jóvenes)

gazte jende. Gazteria.

gazte, gaztia

GAZTE

zahar

joven

gazte **1** adj./iz. Gaztaroan dagoena. *Gaztiek jen* 'daude' (Ond Bak).|| *Gazte gutxi zon* 'gazte gutxi zegoen'. *Beti gazte*. *Gaztĭek zaĭ gwaindo; ikasko dezai, bai!* 'gazteak zarete oraindik; ikasiko duzue, bai!'. ▼ Anton. *zahar*. **2** adj. (Animaliez eta gauzez mintzatuz). *Arbola gaztĭa do alderdi ortan* 'arbola gaztea dago alderdi horretan'. *Padi gaztĭa* 'pagadi gaztea'. **3** adj. (-ago (> *-o*) eta -en atzizkiak hartzen dituela). Urte gutxiago edo gutxien dituena. Gazteago (> *gaztĭo*). *Gaztio tun* 'Gazteago ditun' (Ond Bak). *I baindo urte bat gaztĭo dok* 'hi baino urte bat gazteagoa duk'. || Gazteena (> *gaztena*). *Alaba gaztena* 'alaba gazteena'. ◆ **gazte denbora**. Gaztaroa. *Gazte denboran iten genduzenak* 'gazte denboran egiten genituenak'. ◆ **gazte jende** (> *gazte jendĭa*). Gazteria. ◆ **gaztetan** adb. Gaztaroan, gazte denboran. ◆ **gazterik** (> *gazteik*) adb. Gazte izanik. *Gazteik il zaken* 'gazterik hil zuan'. *Gazteik asko asi zaken lanĭen* 'gazterik asko hasi zuan lanean'. *Gazteik ezkondu zaken/zanen* 'gazterik ezkondu zuan/zunan'. ◆ **gaztetatik** adb. Gaztarotik, gazte denboratik. *Gazte-gaztetatik asi gindan alkarrekin* 'gazte-gaztetatik hasi ginen elkarrekin'.

gazteik

GAZTERIK

joven, siendo joven

gazterik (> *gazteik*) adb. Gazte izanik. *Gazteik il zaken* 'gazterik hil zuan'. *Gazteik asko asi zaken lanĭen* 'gazterik asko hasi zuan lanean'. *Gazteik ezkondu zaken/zanen* 'gazterik ezkondu zuan/zunan'.

gaztelaize

GAZTELA-HAIZE*, MENDEBAL

arabaize

viento poniente, viento (del) oeste

gaztelaize iz. (Ond Bak) Mendebaldetik datorren haizea. Ik. **arabaize**. Cf. **gaztala**.

gaztelu (?)

gaztelu (?)

gaztetasun, gaztetasuna

GAZTETASUN

juventud (condición)

gaztetasun iz. *Ze ote da gaztetasuna, e?*.

gaztetu, gaztetzen

GAZTETU

rejuvenecer(se)

gaztetu *da/dau* ad. Gazte edo gazteago bihurtu.

gaztiatu, gaztiatzen

GAZTIGATU, OHARTARAZI

hots ein, abisatu

avisar, comunicar, notificar

gaztigatu *dĭa* ad. Abisatu, ohartarazi. *Gaztiatu zuan goinatiek ezin zala etorri* 'gaztigatu zidan koinatak ezin zela etorri'. ▲ Sin. *abisatu*, *hots ein*.

gaztina arbola, gaztina arbolia

GAZTAINA ARBOLA, GAZTAINONDO

castaño (Castanea sativa)

gaztina arbola. (Bot.) Gaztaina arbola, gaztainondoa (Castanea sativa).

gaztina latx, gaztina latxa

(GAZTAINA MOTA)

horitxo-latza

variedad de castaña

gaztina latx. Gaztaina mota. (Ond Bak) (castañas tempranas. V. iñurri y saboi). *Sanmigel gaztinia zan gaztina goiza*.

gaztina-mozte, gaztina-moztia

GAZTAINA BILTZE

recolecta de castaña

gaztina-mozte (eta *gaztaina-mozte* [Bakaiku]). *Gaztainak biltzea*, gaztainak biltzeko sasoia. *Gaztina-mozte eguna*. *Sanpedro eguna baindo obĭa zan Gaztina-mozte eguna* 'Sanpedro eguna baino hobea zen Gaztaina-mozte eguna'.

gaztina, gaztinia

GAZTAINA

castaña
castaño
madera de castaño

gaztina (eta *gaztaina* [Bakaiku]) **1** iz. Gaztaina, gaztainondoaren fruitua. *Gaztinok bajek goxwo!* 'gaztaina hauek bazeudek goxoago!'. **2** iz. (Bot.) Gaztainondoa. **3** iz. Gaztainondoaren zura. | *gaztina txingal*. | *gaztina tximel*. | *gaztina-ipurdi*. | *gaztina-morkots*. | *gaztina-jana*. | *gaztina-ale*. | *gaztina-hagai*. | *gaztinak moztu*. | *gaztinak bildu*. | *gaztina-zartana*. | *gaztina errĭa*. | *gaztina yosia*. ◆ **gaztina arbola**. (Bot.) Gaztaina arbola, gaztainondoa (Castanea sativa). ◆ **gaztina latx**. Gaztaina mota. (Ond Bak) (castañas tempranas. V. iñurri y saboi). *Sanmigel gaztinia zan gaztina goiza*. ◆ **gaztina-mozte** (eta *gaztaina-mozte* [Bakaiku]). *Gaztainak biltzea*, gaztainak biltzeko sasoia. *Gaztina-mozte eguna*. *Sanpedro eguna baindo obĭa zan Gaztina-mozte eguna* 'Sanpedro eguna baino hobea zen Gaztaina-mozte eguna'.

gaztinagai, gaztinagaia

HAGA, GAZTAINA-HAGA

gaztainzior

vara de castaño

gaztinagai iz. Haga, gaztaina-haga. *Gaztinak mozteko ibiltzen dia gaztinagai luzĭek* 'gaztainak mozteko [gaztainak eror daitezen, gaztainondoa jo] erabiltzen dira gaztaina haga luzeak'. Ik. **gaztainzior**.

gaztinaldi, gaztinaldia

GAZTAINADI

castañar, castañal

gaztinaldi (eta *gaztainaldi* [Bakaiku]) iz. Gaztainadia. *[*gaztinalde* (?), gaztainak dauden alderdia (?)].

gazura, gazuria

GAZUR

txiklote

suero de la leche

gazura iz. (*a* itsatsia). Gazura, esnea gatzatzean egiten den ur gazia. *Apartatzen dá gazurĭá ta gelditzen dá matwá* 'apartatzen da gazura eta gelditzen da matoia' (Ond Bak). ▲ Sin. *txiklote*.

geatu, geatzen

GERATU

gelditu

parar(se), detener(se), quedar(se)

geratu (> *geatu*, *gĭatu*) *da/dau* ad. Gelditu. *Gukin geatu zan izketan* 'gurekin geratu zen hizketan'. Ixilik geatu da 'isilik geratu da'. *Aizĭa geatu da* 'haizea geratu da'. *Ortxe geatu zan autwa* 'hortxe geratu zen autoa'. *Pintatuta, ondo geatu da gelĭa* 'pintatuta, ondo geratu da gela'. Ik. **gelditu**.

geinu in

KEINU EGIN

hacer señas, hacer gestos; guiñar, parpadear; fingir, amagar

geinu egin (> *geinu in*, *gainu in*). Keinu egin. *Gainu in dwa etortzeko* 'keinu egin dit etortzeko'.

geinu, geinua

KEINU

seña, mueca, gesto, ademán; guiño
titileo, centelleo

geinu (eta *gainu; ginu* [Olatzagutia]) **1** iz. Keinua. *Arek ne(r)i gainu, nik ari gainu* 'hark niri keinu, nik hari keinu'. **2** iz. Izarrez eta kidekoez mintzatuz, dardarka bezala argi egitea. ◆ **geinu egin** (> *geinu in*, *gainu in*). Keinu egin. *Gainu in dwa etortzeko* 'keinu egin dit etortzeko'.

geinukan

KEINUKA

geinuketan; 2 kukukan

haciendo gestos / señas / muecas; guiñando
titilando, centelleando

geinukan (> eta *gainukan*) **1** adb. Keinuka, keinu eginez. *Eskuekin gainukan, autwa gelditzeko* 'eskuekin keinuka, autoa gelditzeko'. Ik. **geinuketan**. **2** adb. *Yuzkia gainukan, kukukan* 'eguzkia keinuka, kukuka'. Ik. **kukukan**.

geinuketan
KEINUKETAN, KEINUKA

geinukan

haciendo gestos / muecas

geinuketan (eta *gainuketan*) adb. Keinuketan, keinuka; keinu eginez. Ik. **geinukan**.

-geiti(k) / -engeiti(k)
-GATIK, (-EN GAINEAN, -I BURUZ)

acerca de, sobre (hablar, etc.)

-geiti(k) / **-engeiti(k)**. -gatik; -en gainean, -i buruz. *Zerbeitengeiti itz in* 'zerbaitengatik [zerbaiten gainean, zerbaiti buruz] hitz egin'.

geizki
GAIZKI

mal

geizkialdi, geizkialdia
ERIALDI, GAIXOALDI

tiempo durante el que alguien está indispuesto, enfermo

gaizkialdi (> *geizkialdi*) iz. Erialdia, gaixoaldia.

geizkitu, geizkitzen
GAIZKITU

empeorar; deteriorar(se), agravar(se)
enfermar, caer enfermo, contraer una enfermedad

geizkitxo
GAIZKITXO (=ONDOTXO)

primeran, majo

mal
(en sentido irónico) bien, muy bien, perfectamente

geizkitxo **1** adb. Adkor. Gaizki. **2** adb. Gaizkitxo. (Ironiazko adieran) Ondotxo. *Geizkitxo bizi*: majo bizi. *Geizkitxo jan*: ondo jan. *Geizkitxo ibili*: primeran ibili. *Geizkitxo yon*: ondo egon. Lanen bat ondo bukatuta dagoela adierazteko: *Geizkitxo do!* 'gaizkitxo dago!'. Ik. **primeran**, **majo**; **polikitxo**.

geizto
GAIZTO

mal, malo, -a

gela, gelia
GELA; LOGELA

kuarto (g.er.)

habitación, cuarto
dormitorio

gela **1** iz. Gela. Ik. **gelatxiki**; **kuarto**. **2** iz. Logela. ◆ **gela ilun(a)**. Leihorik gabeako gela.

gelatxiki, gelatxikia
SUKALONDO

recocina; trastero

gelatxiki iz. Sukalondoa, sukalde ondoko gela, janariak, sukaldeko tresnak eta kidekoak edukitzeko egokitua izaten dena. *Gelatxikia, labĭen ondoko gelĭa* 'gelatxikia, labearen ondoko gela'. *Sukaldĭen ondwen yoten da gelatxikia* 'sukaldearen ondoan egoten da gelatxikia'.

geldi-geldi

GELDI-GELDI

1 kieto; 2 poliki-poliki

completamente parado, quieto del todo, inmóvil
lentamente, paso a paso, poco a poco

geldi-geldi 1 adb. Erabat geldirik. *Geldi-geldi geatu zan* 'geldi-geldi geratu zen'. Ik. **kieto**. **2** adb. Astiro-astiro. *Geldi-geldi etor zan gugana* 'geldi-geldi etorri zen guregana'. Ik. **poliki-poliki**.

geldi, geldia

GELDI

2 lasai, poliki, manso; 3 kieto — *2 azkar, agudo*

quieto, -a; parado, -a; detenido, -a; estancado, -a
lento, -a; tardo, -a; pausado, -a; reposado, -a; calmoso, -a
quieto, -a; parado, -a
despacio, lentamente; con calma

geldi 1 adj. Geldirik dagoena. **2** adj. Astiro higitzen dena. Ik. **lasai**; **poliki**; **manso**. ▼ Anton. *azkar*, *agudo*, *listo*. **3** adb. Geldirik. *Yon adi geldik* 'egon hadi geldirik'. Ik. **geldirik** (> *geldik*); **kieto**. **4** adb. Astiro, geldiro. *Naiko geldi ziyuen autwa* 'nahiko geldirik zihoan autoa'. Ik. **lasai**. **5** interj. *Geldi ortxe* 'geldi hortxe'. ◆ **geldi egon** (> *geldi yon*). Geldirik egon. ◆ **geldi-geldi 1** adb. Erabat geldirik. *Geldi-geldi geatu zan* 'geldi-geldi geratu zen'. Ik. **kieto**. **2** adb. Astiro-astiro. *Geldi-geldi etor zan gugana* 'geldi-geldi etorri zen guregana'. Ik. **poliki-poliki**. ◆ **geldi-geldia 1** adb. Geldi-geldi. Ik. **geldirik** (> *geldik*). **2** adb. Geldi-geldi, astiro-astiro. Ik. **poliki-poliki**. ¬

geldik

GELDIRIK

kieto

quieto, -a

geldirik (> *geldik*) adb. *Yon geldik!* 'egon geldirik'. *Ago geldik!* 'hago geldirik!'. *Zade geldik!* 'zaude geldirik!'. Ik. **geldi**; **kieto**. ▲ Sin. *geldi-geldi*; *geldi-geldia*.

gelditu, gelditzen

GELDITU

geatu; sobratu

parar(se), detener(se)
quedarse, permanecer
sobrar, quedar de sobra
acordar, quedar

gelditu 1 *da* ad. *Autobusa ezta gelditu* 'autobusa ez da gelditu'. *Erlejua gelditu in da* 'erlojua gelditu egin da'. *Aizĭa gelditu in da* 'haizea gelditu egin da'. Ik. **geratu** (> *geatu*); **geldituazi**. **2** *da* ad. Dagoen tokian edo egoeran jarraitu. *Gelditu zaitez emen* 'gelditu zaitez hemen'. *Astegunetan errien ezta iyor'e gelditzen* 'astegunetan herrian ez da inor ere gelditzen'. *Egwaizĭa gelditu da* 'hego haizea [iraunkor] gelditu da'. *Afaita gelditu* 'afaritara gelditu'. **3** *da* ad. Gertaera edo galeraren baten ondorioz, aipatzen den egoeran gertatu. *Bakarrik gelditu da*. *Lo seko gelditu da*. *Gizentasun orrekin ezin mogitu gelditu ber da* 'gizentasun horrekin ezin mugitu gelditu behar da'. || *Urdia ezta gelditu ernai, bueltatu in da* (Ond Bak). **4** *da* ad. Zati bat kendu ondoren oraindik egon edo iraun. *Gelditzen dá matuá* (Ond Bak). *Zenbat diru gelditzen zaik?* Ik. **sobratu**. **5** da ad. Hitzordua adostu. *Bier mendjá fateko gelditu ga* 'bihar mendira joateko gelditu gara'. *Seietan gelditu gaitun*. | *Gelditzeko eskatu* 'zita eskatu'. ◆ **gelditu gabe** (> *gelditu be*). *Gelditu be daile lanĭen* 'gelditu gabe dabil lanean'. ◆ **txakurra gelditu**. Txakurrak (gelditxakurrak, erakustxakurrak) ehiza seinalatuz egiten duen geldialdia.

gelldituazi

GELDIARAZI

detener, hacer parar

gelldituazi *dau* ad. Geldiarazi, gelditzera behartu.

geliki, gelikia / giliki, gilikia

GEHELI, GEHELIKI

txahalki, behiki

carne de vacuno; carne de vaca

geheliki (> *geliki*, *giliki*) iz. Gehelia, behikia. Ik. **txahalki**; **behiki**. *Gwe etxĭen, domekatan maiz izaten zaken giliki zopĭa; bestela, oilakiena ta, noizĭen bein, arrai zopĭa* 'gure etxean, domekatan maiz izaten zuan geheliki zopa; bestela, oilakiarena eta, noizean behin, arrain zopa'.

geo

GERO

luego, después, más tarde
cuidado que, mira que

gero (eta *geo*, *gĭo*) adb. (Lehenokuek *gero* esaten zain LM). *Geo larruzkuek* (Ond Bak).

- gero gerokoak (> *geo geokwek*). *Gu ilko ga, ta gero gerokwek!* 'gu hilko gara, eta gero gerokoak!'.

– *Haundiya da geo hori!* (Ond Bak).
– *Giore!*

◆ **geroago** (> *gerwo*) adb. *Guai ez, gerwo fanko ga* 'orain ez, geroago joango gara'. *Orduen ezan patzen zanaorĭaik; gerwo asi zĭan patzen* 'orduan ez zen paratzen azenariorik; geroago hasi ziren paratzen'.

◆ **geroago eta ...-ago** (> *gerwo ta... -o*). Gero eta ...-ago. *Gerwo ta sekwo dua udĭa* 'geroago eta sikuago doa uda'.

◆ **gero eta ...-ago** (> *geo ta ...-o*). *Au geo ta makurro dua* 'hau gero eta makurrago doa'.

◆ **geroko** (> *geoko*, *gĭoko*) **1** adj. *Lenoko jendĭek, gwaikwek eta gĭokwek*. **2** adb. *Dana gĭoko auzten dau*. Ik. **biher-etziko**.

◆ **-zkioz**. -z geroz **1** (Aditzaren partizipio burutuari edo aditz laguntzaileari loturik). Aipatzen dena gertatu edo egin eta gero. **2** (Aditzaren partizipio burutuari loturik). Aipatzen dena horrela gertatzen edo egiten delarik, edo horrela egiten edo gertatzen bada. 3 (Denbora-aditzondo gisa). Ik. **ezkeroz** (> *ezkĭoz*).

geoko / gioko

GEROKO

biher-etziko

posterior, próximo, -a
para luego, para después

geroko (> *geoko*, *gĭoko*) **1** adj. *Lenoko jendĭek, gwaikwek eta gĭokwek*. **2** adb. *Dana gĭoko auzten dau*. Ik. **biher-etziko**.

geranio, geraniua

GERANIO

geranio (Geranium sp., Pelargonium sp.)

geranio iz. (Bot.) Belar landare usaintsu eta apaingarria (Geranium sp., Pelargonium sp.).

gerba, gerbia

AMILDEGI

precipicio

gerba iz. Amildegia. Ik. **barga**.

gerbillo (BAHE MOTA)

cedazo, criba (para separar las leguminosas)

gerbillo [Ziordia] iz. Lekadunak pasatu eta bereizteko bahea. Ik. **baia** (> *baĭa*).

gerra, gerria GERRA

guerra, lucha armada
pelea, batalla, combate, lucha, pugna

gerra **1** iz. *Gerrĭa galdu zain* 'gerra galdu zuten'. *Gerra zibila*. *Gerrĭa despeituta*. **2** iz. Borroka, liskarra. ◆ **gerra denbora**. *Gerrako denboran*. *Gerra denban Belgiká fan zan* 'gerra denboran Belgikara joan zen'. ◆ **gerra eman** (> *gerrĭa eman*). *Gerra ona eman duai aginak!* 'gerra ona eman didate haginek!'. *Emen, aurrok gerrĭa emateko besteik ezté* 'hemen, haurrok gerra emateko besterik ez daude'. ◆ **gerrako gogo**. *Gerrako gogwa dukak?* 'gerrarako [liskarrerako] gogoa daukak?'.

gerraondo, gerraondua GERRAONDO

gerraurre

posguerra, postguerra

gerraondo iz. Gerra bukatu ondoko denbora. Ik. **gerraurre**. ¬

gerraurre, gerraurria GERRAURRE

gerraondo

preguerra, anteguerra

gerraurre iz. Gerra piztu aurreko denbora. Ik. **gerraondo**. ¬

gerrero, gerrerua GERRARI

soldau; 2 gerroso

soldado, guerrero, -a

gerrero **1** iz. Gudaria, gerraria, gerlaria. Ik. **soldau**. **2** adj. Bihurria. ▲ Sin. *gerroso*.

gerri, gerria GERRI

cintura; talle
tronco del árbol

gerri **1** iz. *Gerrien pantalonak ezin sartu* 'gerrian prakak ezin sartu'. **2** iz. Zuhaitz enborra. ◆ **gerriko min**.

gerriko, gerrikua GERRIKO

ubal, zintun, korrea

faja
cinto, cinturón, cincho

gerriko iz. *Gerriko beltza jantziko dot* 'gerriko beltza jantziko dut'. ▲ Sin. *ubal*, *zintun*, *korrea*. ◆ **gerrikoa egin** (> *gerrikwa in*). Zuhaitz bati, enborraren bira guztian azala kendu. *Arboliai, iartzeko, gerrikwa in* 'arbolari, ihartzeko, gerrikoa egin'. ◆ **gerrikoa estutu** (> *gerrikwa estutu*). ◆ **jaungoikoaren gerriko(a)** (*jangoikwen gerrikwa*). Ostadarra.

gerrikua in GERRIKOA EGIN

referido a un árbol, cortar la corteza en toda la circunferencia para que se seque

gerrikoa egin (> *gerrikwa in*). Zuhaitz bati, enborraren bira guztian azala kendu. *Arboliai, iartzeko, gerrikwa in* 'arbolari, ihartzeko, gerrikoa egin'.

gerroso, gerrosua

BIHURRI

bihurri, rebelde

baketsu

guerrero, -a; travieso, -a (que incomoda y molesta a los demás)

gerroso adj. Haurrez-eta mintzatuz, gaiztakeriak edo bihurrikeriak egiten dituena. ▲ Sin. *bihurri*, *rebelde*. ▼ Anton. *baketsu*.

gertaera, gertaeria

GERTAERA

suceso, acontecimiento; evento; hecho; incidente

gertaera iz. *Gertaera zelebrĭa izan da gaurkwa* 'gertaera xelebrea izan da gaurkoa'. *Gertaera txar danak eztĭa galtetako izaten* 'gertaera txar denak ez dira kaltetarako izaten'.

gertatu, gertatzen

GERTATU

pasatu

suceder, pasar, ocurrir, acaecer, acontecer

gertatu *da* ad. Egite edo gertaera bat izan, gauzatu edo heldu. *Ze gertatwa?* 'zer gertatu da?'. ▲ Sin. *pasatu*. ¬

gertu

GERTU, HURBIL

hurre

irruti

cerca, a corta distancia

gertu adb. Hurbil. Ik. **hurre**; **hurreko** (*hurrokuek*). ▼ Anton. *irruti*.

Etxia gertu donien (Ond Bak).

– gertu ibili (?) (= larrri ibili). *Gaur yuzkiek erre ber tu baztarrak. —Bai, gertu ibili!* (larri ibili).

◆ **gertuan** (> *gertuen*). *Gertu-gertuen*. Hurbil-hurbilean.

◆ **gertuko** adj. Hurbilekoa.

◆ **gertuti(k)** adb. Hurbiletik.

gertuatu, gertuatzen

GERTURATU

acercarse, aproximarse; arrimarse

gerturatu (> *gertuatu*) *da* ad. Hurbildu.

geruo

GEROAGO

después, más adelante, más tarde, posteriormente, con posterioridad

geroago (> *gerwo*) adb. *Guai ez, gerwo fanko ga* 'orain ez, geroago joango gara'. *Orduen ezan patzen zanaorĭaik; gerwo asi zĭan patzen* 'orduan ez zen paratzen azenariorik; geroago hasi ziren paratzen'.

geruo eta... -o

GEROAGO ETA... -AGO

cada vez más (ref. a cualidad)

geroago eta ...-ago (> *gerwo ta... -o*). Gero eta ...-ago. *Gerwo ta sekwo dua udĭa* 'geroago eta sikuago doa uda'.

gesal, gesala

GESAL, ELUR GESAL

elur gesal, elur beazun

nieve medio derretida

gesal iz. Urtzen ari den elurra. Ik. **elur gesal**; **elur beazun**.

gesaldu, gesaltzen

GESALDU

lurmendu, urtu, beaztu

derretirse / fundirse la nieve (ref. a la nieve o al hielo)

gesaldu *da* ad. Elurragatik hitz eginez, urtu. Ik. **lurmendu**; **urtu**; **beraztu** (> *beaztu*).

geza

GEZA

insulso, -a; falto de sal, que no es salado, dulce

geza [Altsasu] adj. Sagarrez eta kidekoez mintzatuz, garratza ez dena. *Sagar geza*. {*Sagar gezaat* 'sagar geza bat' [una manzana no ácida" (Iza Alts)}.

gezur, gezurra

GEZUR

egi

mentira; embuste, falsedad; trola, bola

gezur iz. Egiaren kontra ohartuki esaten den gauza. *Gwai dana da gezurra ta lapurra* 'orain dena de gezurra eta lapurra'. ▼ Anton. *egi*. ◆ **gezurra esan**. *Gezurrak esan ta egiek ixildu* 'gezurrak esan eta egiak isildu'.
◆ **gezurra sartu** Gezurra esan. *Gezur galanta sartu dezai* 'gezur galanta sartu dizute'. Ik. **engainatu** (> *inginatu*).
◆ **gezurretan** adb. Gezurra esaten, gezurra esanez. *Gezurretan ibili*. *Gezurretan arrapatu zain* 'gezurretan harrapatu zuten'. *Gezurretan esan dezut* 'gezurretan esan dizut'.
◆ **gezurrak erraz bota**. Gezurtia.
◆ **hitz guztia gezurretan**. Gezurtia.
• Esr. zah. *Gezurra egien kolorĩen bota* 'gezurra egiaren kolorean bota'. || • *Gezurrak zutik bota* (?) (Erdozia). ¬

gezurra sartu

GEZURRA SARTU

mentir, engañar

gezurra sartu Gezurra esan. *Gezur galanta sartu dezai* 'gezur galanta sartu dizute'. Ik. **engainatu** (> *inginatu*).

gezurretan

GEZURRETAN

mintiendo; en falso

gezurretan adb. Gezurra esaten, gezurra esanez. *Gezurretan ibili*. *Gezurretan arrapatu zain* 'gezurretan harrapatu zuten'. *Gezurretan esan dezut* 'gezurretan esan dizut'.

gezurrezko, gezurrezkua

GEZURREZKO

falso

falso, -a; fingido, -a

gezurrezko adj. Ik. **falso**.

gezurrontzi, gezurrontzia

GEZURRONTZI

gezurti; enbustero, -ra

mentiroso, -a; embustero, -a; trolero, -a

gezurrontzi adj. Adkor. Gezurtia. ▲ Sin. *gezurti*; *enbustero, -ra*. ▼ Anton. *egiti*. ¬

gezurti, gezurtia GEZURTI

gezurrontzi, enbustero, -ra *egiti*

mentiroso, -a; embustero, -a

gezurti adj./iz. *Gezurti zar oi!* 'gezurtitzar hori'. *Gezurtia da, gezurrak bat bestĭen atzeti esaten tu* 'gezurtia da, gezurrak bat bestearen atzetik esaten ditu'. *Gezurti zikinoi!* 'gezurti zikin hori!'. Ik. **gezurrontzi**; **enbustero, -a**. ▼ Anton. *egiti*.

gia GIDA

guía, guiador, -a
tallo principal; brote, renuevo, vástago, retoño [principal]

gia **1** iz. Gida, gidaria. **2** iz. Kimu nagusia. Ik. **kima**.

giatu, giatzen GIDATU

guiar, orientar, dirigir
conducir, guiar; tripular

giau / geau [?] GEU

nosotros mismos, nosotras mismas

geau (eta *gĭau*) **1** izord. Geu; *gu* izenordainaren era indartua: {giau, giauk, giauri, giaure, giaurekin, giautaz, giauregeti(k), giautako, giaure baitan, giauregana, giaureganaindo, giaureganako, giauregandi(k)}. **2** izord. (*gu*-ren eskuinean, hark hartzen duen kasu atzizki bera hartuz).
◆ **geauk** (eta *gĭauk*) izord. Geuk. *Guk gĭauk etxĭen iten du ogia* 'guk geuk etxean egiten dugu ogia'.
◆ **geautako** (> *gĭautako*). Geuretako.
◆ **giaure** (> *gĭaure*). Geure. ¬

giauk / geauk [?] GEUK

nosotros, -as

geauk (eta *gĭauk*) izord. Geuk. *Guk gĭauk etxĭen iten du ogia* 'guk geuk etxean egiten dugu ogia'.

giaure GEURE

nuestro, -a

giaure (> *gĭaure*) izord. Geure.

giaureganatu, giaureganatzen GEUREGANATU

hacernos con, adueñarnos de, conseguir para nosotros, hacer nuestro, apropiarnos

geureganatu (> *gĭaureganatu*) *dau* ad. Geuregana ekarri, geure egin, geure bihurtu.

gibel-haundi, gibel-haundia GIBEL-HANDI

calmoso, -a; tranquilo, -a; flemático, -a; cachazudo, -a, despreocupado, -a

gibel-haundi (> *gibelaundi*) adj.

gibel, gibela GIBEL

hígado

gibel iz. ◆ **gibel-haundi** (> *gibelaundi*) adj. [*Oharra: Toponimian: gibel[2] iz. Atzea, atzeko aldea. *Aizkibil* (Aitzgibel); *Galarzabil* (Galarzagibel), *Iabil* Eiheragibel)].

gibeleko min, gibeleko mina GIBELEKOA
gibelekua
enfermedad del hígado

gibeleko min. Gibeleko gaitza. Ik. *gibeleko*.

gibeleko, gibelekua GIBELEKOA
enfermedad del hígado

gibeleko iz. Gibeleko gaitza. *Gibelekwa duka* 'gibelekoa dauka'. ▲ Sin. *gibeleko min*. ◆ **gibelekoa ibili [eduki]** (> *gibelekwa ibili*).

gibelgorri, gibelgorria GIBELGORRI
rúsula íntegra

gibelgorri iz. (Russula integra, Russula vesca eta Russula nitida). *Udazkenĭen atatzen da; gorri iluntxwa da* 'udazkenean ateratzen da; gorri iluntxoa da'. *Auntzak eta ardiek geien jaten dain sulswek: gibelurdina, gibelgorria, xixetak eta ointwek* 'ahuntzek eta ardiek gehien jaten duten sulsoak: gibelurdina, gibelgorria, xixetak [zizahoria] eta onddoak.

gibelurdin, gibelurdina GIBELURDIN. 2 URRITX
nombre que reciben algunos hongos del género Russula, en particular la ***seta de cura*** *(Russula carbonera (Russula cyanoxantha)*

gibelurdin 1 iz. (Russula virescens). 2 iz. Urritxa (Russula cyanoxantha).

gidel, gidela GIDAIL*
pata (anejo en forma de pata de una superficie)

gidel iz. *Sorwen gidela* 'soroaren hanka' ("L" formako azalera duena). Gidaila, hanka. *Sorwai gidela jan dĭa aldamenekwek* 'soroari gidela jan dio aldamenekoak'.

gihar, giharra GIHAR
txigar(ra) *gizen, gizenki*
magro, molla, carne magra

gihar iz. Gizenik gabeko haragia edo haragi zatia (Iza Alts) [magra]. Ik. **txigarra**; **magra**. ▼ Anton. *gizen*, *gizenki*.

gihartsu, gihartsua GIHARTSU
musculoso, -a; vigoroso, -a; robusto, -a; fuerte

gihartsu adj. Gihar asko duena.

gilborra, gilborria BILGOR, GILBOR
sebo, grasa animal

gilborra iz. Bilgorra, gantza. *Ekatzu kiloerdi bat gilgorra* 'ekarzu kiloerdi bat bilgor'. Ik. **gantz**; **manteka**.

gilda, gildia GINGA
guinda

gilda [Altsasu] iz. (Bot.) Ginga. {"*Gildí*, la cereza, *bi gilda*" (Iza Alts)}. Ik. **ginda**; **kaixa**.

-gile -GILE (ATZIZKIA)
sufijo -gile*: denota: autor, -a; creador, -a; hacedor, -a*

-gile (atzizkia). '*Ekintza bat egiten duena*' adierazten du, eta *egin* eta *egile*tik dator. [Ez da oso emankorra]. Adibideak: *langile*, *kixibile*, *sugile*, *uztarrigile* (...). ¬

gillama, gillamia (MARRUSKETA MOTA)

cepillo de carpintería

gillama iz. *Zurginan zepilu klase bat* 'zurginaren marrusketa klase bat'. Ik. **zepilu**.

giltza segia

giltza segia (?) ¬

giltza zulo GILTZA ZULO

sarraila zulo

ojo de la cerradura

giltza zulo. (Iza Alts) (cerrojo). [Urdiain]. ▲ Sin. *sarraila zulo*. ¬

giltza, giltzia GILTZA; 2 ILTZE

llave
clavo
articulación (Anat.) (Teknol.)

giltza **1** iz. Gakoa. | – *Giltzia eman*, *giltzia bota* (giltzatu). | – Giltziekin itxi. | – Giltzape. | – giltzazulo, giltzazulua. **2** iz. Iltzea. | – giltzia josi; giltziekin josi. **3** iz. Giltzadura, hezurren arteko lotura. *Hanka giltza*. ◆ **giltza zulo**. (Iza Alts) (cerrojo). [Urdiain]. ▲ Sin. *sarraila zulo*. ¬

giltzape GILTZAPE

lugar cerrado bajo llave; cárcel, prisión

giltzape iz. (Leku atzizkiekin, singularrean). Espetxea. *Giltzapĭen do, garzelan do* 'giltzapean dago, kartzelan dago' (LM).

giltzarri, giltzarria GILTZARRI

clave

giltzarri iz. Arku baten erdian ezartzen den ziri formako harria.

giltzatu, giltzatua GILTZATU (2)

giltzatu (Era burutua izenondo gisa). ◆ **orratz giltzatu**. Kateorratza.

giltzatu, giltzatzen GILTZATU; ILTZATU

giltzia eman

cerrar, echar la llave
clavar, enclavar
impedir la movilidad de una articulación

giltzatu **1** *dau* ad. Giltzaz itxi. *Ataia giltzatu* 'ataria giltzatu'. Ik. **giltza eman** (> *giltzĭa eman*). **2** *dau* ad. Iltzatu, iltzez josi. *Egurra giltzatu* 'egurra iltzatu'. *Giltzakin josi* 'iltzeekin josi. **3** *da/dau* ad. Giltzadura edo juntura baten mugikortasuna galarazi. *Agwa giltzatu* 'ahoa giltzatu'.

-gin -GIN (ATZIZKIA)

-gin; sufijo que se agrega a nombres, y denota «persona agente», «hacedor», o «fabricante».

-gin (atzizkia). '*Ekintza bat egiten duena*' adierazten du, eta *egin* eta *egile*tik dator. Adibideak: *hargin*, *ikazkin*, *joskin*, *perzkin*, *zapatain*, *zurgin*. ¬

ginda arbola, ginda arbolia

GINGA ARBOLA, GINGONDO

guindo

ginda arbola. (Bot.) Ginga arbola, gingondoa (Prunus cerasus var. cerasus).

ginda, gindia

GINGA (GINDA)

guinda
guindo

ginda (eta *gilda*) **1** iz. Ginga, gerezi mota garratza. Ik. **kaixa**. **2** iz. (Bot.) Gingondoa. ◆ **ginda arbola**. (Bot.) Ginga arbola, gingondoa (Prunus cerasus var. cerasus).

gindilla, gindillia

PIPERMIN

pipermin

guindilla (pimiento pequeño)

gindilla iz. (Bot.) Pipermina, piper mehe eta luzea, oso mina (Capsicum annuum). *Gindillak ozpinetan* 'piperminak ozpinetan'. *Gindillok ezte minak, eztai batere pikatzen* 'pilermin hauek ez daude minak, ez dute batere pikatzen [mintzen]'. Ik. **pipermin**.

-gintza

-GINTZA (ATZIZKIA)

-gintza, sufijo que designa oficio o fábrica de un género

-gintza (atzizkia). -gin + -tza atzizkiak elkartuz sortu da. Gauzak egiteari dagokion lanbide edo jardun izenak sortzen ditu. (Ez da oso emankorra). Adibideak: *hargintza*, *ikazkintza*, *zurgintza*. ¬

gio

GERO

gio're

GERO ERE

gero ere (> *gĭo're*). **1** *Ze gauzia, gio're!* 'ze gauza, gero ere!'.

gion, giona

GILOI

guión de codornices, rey de codornices

gion iz. Giloia (Crex crex). *Giona, galeperra baindo aundiokwa* 'giloia, galeperra baino handiagokoa'.

girli, girlia

GERLI

pus, líquido acuoso que supuran las heridas

girli iz. Gerlia; uraren antzeko likidoa, apur bat likatsua.

girlitsu, girlitsua

GERLITSU*

viscoso, -a
purulento, -a

girlitsu adj. Gerlitsua*, *girliz betea* 'gerliz betea'; likatsua. *Girlia dukana* 'gerlia daukana'. Ik. **girli**. || Zornetsua.

girlitu, girlitzen

GERLITU*

podrecerse; pudrirse

girlitu *da* ad. Gerlitu*, gerli bihurtu. *Aragia girlitu in zaigu* 'haragia gerlitu egin zaigu'.

girnalda, girnaldia

GIRLANDA, GIRNALDA

guirnalda

girnalda iz. Girlanda. *Gaubonetan patzen tu papĭekin indako girnaldak* 'Gabonetan paratzen ditugu paperarekin egindako girlandak'.

giro, girua

GIRO

temperatura, tiempo, clima, atmósfera
tempero; ambiente

giro **1** iz. Eguratsaren egoera; eguraldia, ingurunetzat hartua. *Giro txarra gaur, kalĭen yoteko* 'giro txarra gaur, kalean egoteko'. **2** iz. Zerbaitetarako giroa, besterik adierazten ez bada, egokia. *A ze girwa jok yaiteko!* 'a zer giroa zagok ereiteko'. ¬

girten, girtena

KIRTEN

mango, agarradero, asa, asidero

girten iz. Kirtena; lanabes eta tresnetan, eusten zaien zatia edo eskutokia. *Aizkora-girtena*, *kutxiluen girtena*; *pozalan girtena*. *Artu girtenetik* 'hartu kirtenetik'. Ik. **eskutoki**. ¬

gisatu, gisatzen

GISATU

guisar, preparar un guiso [carne]

gisatu *dau* ad. Janaria prestatu. *Haragia gisatu*. ◆ **gisatzeko**. *Gisatzeko haragia*.

gisau, gisaua

GISATU

guiso, guisado

gisau iz. Gisatua. ◆ **gisau txiki**. *Gisau txikia, estĭekin indakua* 'gisatu txikia, hesteekin egindakoa'.

gisipela / isipela

ISIPULA

erisipela

gisipela [Bakaiku] iz. Isipula. Ik. **isipula**.

gitarra, gitarria

GITARRA

guitarra

gitarra (eta *kitarra*) iz. ◆ **gitarra jotzaile**. Gitarra jotzen duen pertsona. • **(txakurra) gitarra jotzen egon** *(> gitarrĭa jotzen yon)*. Txakurra arkakusoak astintzen aritu.

gitarrista, gitarristia

GITARRISTA

guitarrista

gitarrista iz. Gitarra-jotzailea. ¬

giza-dantza

GIZA-DANTZA, SOKADANTZA

aurresku, sokadantza; baile en que los danzantes forman una hilera cogidos de la mano o de un

giza-dantza iz. (*gizon-dantza* adieran) Urdiaingo sokadantza; aurresku mota, eskutik helduta soka antzeko bat eratzen duten dantzari talde bateko kideek egiten dutena.

gizajo, gizajua

GIZAGAIXO, GIZARAJO

infeliz, desgraciado, pobre hombre

gizajotu, gizajotzen

GIZAGAIXOTU

volverse cuitado (un varón)

gizajotu *da* ad.

gizaki, gizakia

GIZAKI, GIZONEZKO

gizon, gizekume

hombre, varón

gizaki iz. Gizona, gizonezkoa. *Bai gizkikiek bai emakumĭek egurra txikitzen ibiltzen dĭa* 'bai gizakiak [gizonezkoak] bai emakumeak egurra txikitzen ibiltzen dira'. *Gizaki asko zon elizan* 'gizonezko asko zegoen elizan'. *Nola gizakia zeran, patata geio patu* 'nola gizakia zaren, patata gehiago paratu'. Ik. **gizon**; **gizekume**. ◆ **gizaki karakol**. Barraskilo arrunta (Helix aspersa).

gizarajo

GIZAGAIXO

infeliz, desgraciado, pobre hombre

gizarajo ([Altsasu] eta *gizajo* [Urdiain]). adj. Gizagaixoa, gaixoa, errukarria. (Gizonezkoei dagokie). *Gizon gizajua ta andra gaixua*. *Gizonak gizajuek, bea andrak gaixuek.* Ik. **gaixo**.

gizekume

GIZAKUME

gizaki, gizon

hombre, varón

gizakume (> *gizekume*) iz. Gizasemea (Iza Alts). Ik. **gizaki**; **gizon**.

gizen, gizena

GIZEN

lodi. 2 gizenki — *mehe. 2 txigarra*

gordo, -a; obeso, -a; graso, -a; cebado, -a

gordo, grasa, sebo

gizen **1** adj. *Txerria baindo gizeno do* 'txerria baino gizenago dago'. ▲ Sin. *lodi*. ▼ Anton. *mehe*. **2** iz. Haragiaren gantza. ▲ Sin. *gizenki*. ▼ Anton. *txigarra*.

gizendu, gizentzen

GIZENDU

loditu — *metu, flakatu*

engordar(se); cebar(se)

gizendu *da/dau* ad. Gizen edo gizenago bihurtu. *Zail gizentzekuek, erraz gizentzekuek* (Ond Bak). *Gizentzen do* 'gizentzen dago'. Ik. **loditu**. ▼ Anton. *mehetu* (> *metu*); *flakatu*. ¬

gizenki, gizenkia

GIZENKI

gizen, gizenkor

gordo, grasa, sebo

gizenki iz. Haragiaren gizena. *Ganauai urdai gizenkia ematen zezaion ausnartzen asteko* 'ganaduari urdai gizenkia ematen zitzaion hausnartzen hasteko'. Ik. **gizen**; **gizenkor**.

gizenkor, gizenkorra

GIZENKOR

2 gizen, gizenki

propenso, -sa a engordar

grasiento, -ta

gizenkor **1** adj. *Erraz gizentzen dana da gizenkorra* 'erraz gizentzen dena da gizenkorra'. **2** adj. Haragi gizenkorra, gizenkia duena. Ik. **gizen**; **gizenki**.

gizentasun, gizentasuna

GIZENTASUN

gordura, obesidad

gizentasun iz. *Gizentasun oiek eztĭa batere onak* 'geizentasun horiek ez dira batere onak'.

gizi, gizia

LASTO

garizizpi

caña del trigo; brizna; paja
paja, pajita (que se utiliza para sorber refrescos u otros líquidos)

gizi **1** iz. Gari lastoa. Ik. **garizizpi**. **2** iz. Edateko lastoa. *Limon ura, otz-otza, giziekin yaten* 'limoi ura, hotz-hotza, giziarekin edaten'. *Sagona urakin ta gizi batekin iten genduzen burbujak* 'saboi urarekin eta gizi batekin egiten genituen burbuilak'. [Berreskuratzeko hitza: edateko lastoa (pajita)].

gizon, gizona

GIZON

1 gizaki; 2 senar

hombre, varón
marido, esposo

gizon **1** iz. Gizaki arra, bereziki heldua dena. Ik. **gizaki**. *Lehenoko gizonak* (Ond Bak). **2** iz. Senarra. Ik. **senar**. ◆ **gizon egin** (> *gizon in*). Gizondu.

goabehera, goabeheria

GORABEHERA

alteración, variación; alteraciones, altibajos, vaivenes, cambio(s)
peripecia, aventura; adversidad, infortunio; trastorno, desorden; discrepancia, disparidad;

goai

ORAIN

ahora, en este momento, en este instante

goai adb. Orain; une honetan, garai honetan. Ik. **guai** (> *gwai*).

gobernatu, gobernatzen

GOBERNATU

zeindu

gobernar, cuidar, organizar, disponer, ordenar
sustentar, alimentar
gobernar, regir, mandar, dirigir

gobernatu **1** *dau* ad. Zaindu, zuzendu, antolatu. *Etxĭa gobernatu* 'etxea gobernatu'. ▲ Sin. *zeindu*. **2** *dau* ad. Abereez mintzatuz, jatekoa eman eta zaindu. *Ganauek gobernatzen* 'ganadua(k) gobernatzen'. ▲ Sin. *zeindu*. Ik. **kasu egin** (> *kasoin*). **3** *dau* ad. Estatu edo lurralde bat zuzendu. Ik. **agindu**.

gogaita, gogaitia

GURARI, APETA

onguramin, ongureia

capricho, antojo, deseo

gogaita iz. Guraria, apeta. Ik. **onguramin**; **ongureia**; **kapritxo**.

gogaitu, gogaitzen

GOGAITU

aspertu

aburrir(se), hastiar(se), hartar(se)

gogaitu *da/dau* ad. Aspertu, gogoa galdu edo galarazi. Ik. **aspertu**. ◆ **gogaiturik** (> *gogaitwik*) adb. *Zerbaiten naien, gogaitwik* 'zerbaiten nahian, gogaiturik'.

gogaituik

GOGAITURIK

aburrido, -a; hastiado, -a, harto, -a

gogaiturik (> *gogaitwik*) adb. *Zerbaiten naien, gogaitwik* 'zerbaiten nahian, gogaiturik'.

gogaltsu, gogaltsua

GOXO, GUSTAGARRI, GOGOTSU

sabroso, -a; apetitoso, -a; gustoso, -a

gogaltsu adj. Goxoa, gustagarria; gogotsua. *Axurkia gogaltsua ata da* 'axurikia gogaltsua [goxoa] atera da'.

gogo, gogua

GOGO

nahi; memoia; buru; dulabre

deseo, voluntad, gana, ánimo
memoria, recuerdo

gogo iz. • Esr. zah. *Nun da naure gogú, han da naure zankú* (Iza Alts).

◆ **gogoa eman** (> *gogwa eman*) *dĭa* ad. Nahi izan. *Gogwa ematen dĭana iten dau* 'gogoak ematen diona egiten du'. *Gogwa ematen dau dana auzteko* 'gogoak ematen du dena uzteko'.

◆ **gogoa izan** (> *gogwa izan*).

◆ **gogoan eraman** (> *goguen yan*). Gogoan hartu, kontuan hartu; gogoratu. *Gogwen yantazu betiko* 'gogoan eraman ezazu betirako'. Ik. **buruan hartu** (> *buruen artu*); **kontuan eraman / hartu** (> *kontuen yan / artu*).

◆ **gogoan hartu** (> *gogwen artu*). Gogoratu; kontuan hartu, buruan hartu. *Artazu ondo gogwen yakusitakua* 'har ezazu ondo gogoan erakutsitakoa'. *Artu gogwen esandakwa* 'hartu gogoan esandakoa'. *Artu gogwen amarrendako dala afaia* 'hartu gogoan hamarrendako dela afaria'. Ik. **kontuan hartu** (> *kontuen artu*); **buruan hartu** (> *buruen artu*); **pensatazu**.

◆ **gogoan ibili [eduki]** (> *gogwen ibili*) *dau* ad. Gogoan izan. *Goguan dekat guaindo* 'oroitzen naiz' (Ond Bak). *Guaindo gogwen dukat nola biltzen gindan Hamarrendaien* 'oraino gogoan daukat nola biltzen ginen «Hamarrendegian» [gazteak biltzen ziren lekua; garai batean «hamarrendegi» izana, hamarrenak gordetzen ziren tokia]'. Ik. **akordatu**; **gogoratu**. || Kontuan hartu.

◆ **gogorik gabe** (> *gogoipe*). *Gogoipe; gogoik ez* 'gogorik gabe; gogorik ez'.

◆ **gogo gutxi (izan)**. *Gogo gutxi orrek lanĭako* 'gogo gutxi horrek lanerako.

◆ **gogo haundia (izan)**. *Eztukat jateko gogo aundik* 'ez daukat jateko gogo handirik'. *Eztukat gogo aundik eskola fateko* 'ez daukat gogo handirik eskola joateko'.

◆ **[zerbaiterako] gogoekin egon** (> *gogwekin yon*). Gogoz. Ik. **larri**. ¬

gogoatu, gogoatzen

GOGORATU

recordar, acordarse
ocurrirse, venirse a la mente

gogoratu (> *gogoatu*) **1** *da/zaio* ad. ¬

gogor in

GOGOR EGIN

oponerse, dar cara, hacer frente, luchar
recriminar, reprochar, corregir, censurar

gogor egin (> *gogor in*) *dĭa* ad. Buru egin; gogortasunez jokatu, estutu. *Gogor in zĭan* 'gogor egin zion'.

gogor, gogorra

GOGOR

indartsu, fuerte

biun; ahul, makal, pattal

duro, -a, sólido, -a, fuerte
duro, -a, riguroso, -a, penoso, -a, fatigoso, -a, dificultoso, -a, desagradable, severo, -a
fuerte, animoso, -a, valiente, esforzado, -a
duramente, con fuerza

gogor (eta *gor*) **1** adj. *Araitzak mateal gogorra duka* 'haritzak material gogorra dauka'. *Arria baindo gogorro do aragi au* 'harria baino gogorrago dago haragi hau'. || *Elur gogor; beatza da kontrariua* (Ond Bak). ▼ Anton. *biun*; *beratz*. **2** adj. (Hedaduraz). *Burua gogorra*. **3** adj. Pairatzeko edo eramateko nekeza. *Negu gogorra dua aurtengwa* 'negu gogorra doa aurtengoa'. **4** adj. Indartsua, sendoa, zaildua. *Mutil gogorra da*. *Zartwik do, bea gogorra da* 'zaharturik dago, baina gogorra da'. Ik. **indartsu**; **fuerte**. ▼ Anton. *ahul*, *makal*, *pattal*. **5** adb. Indarrez, gogortasunez. *Lana gogor in dai* 'lana gogor egin dute'. *Aizĭek gogor jo dau gaubĭen* 'haizeak gogor jo du gauean'. ◆ **gogor egin** (> *gogor in*) *dĭa* ad. Buru egin; gogortasunez jokatu, estutu. *Gogor in zĭan* 'gogor egin zion'.

gogoratu, gogoratzen

GOGORATU

akordatu, goguen ibili; bistan ibili [eduki]. 2

ahaztu

recordar, acordarse

gogoratu **1** *da/dau* ad. Gogora edo oroimenera etorri edo ekarri. Ik. **akordatu**; **gogoan ibili** (> *goguen ibili*); **bistan ibili** [eduki]. ▼ Anton. *ahaztu*. **2** *dau* ad. Gogorarazi. Ik. **akordatuazi**.

gogortasun, gogortasuna

GOGORTASUN

biuntasun

dureza, resistencia; entumecimiento, rigidez; tenacidad, firmeza, severidad, implacabilidad,

gogortasun iz. ▼ Anton. *biuntasun*.

gogortu, gogortzen

GOGORTU

biundu, beatu

endurecer(se), entumecer(se); mantenerse, obstinarse; cuajar(se)
fraguar(se)

gogortu **1** *da/dau* ad. Ik. **gogor egin** (> *gogor in*). **2** *da* ad. *Masĭa gogortu, porlana gogortu* 'masa gogortu, porlana gogortu' [fraguar].

gogortxo, gogortxua

GOGORTXO

biuntxo

bastante duro, -a

gogortxo 1 adj. Adkor. Aukeran gogorregia. ▼ Anton. *biuntxo*.
2 (Adizlagun gisa). (?)

gogoti

GOGOTIK

asko, franko

copiosamente, abundantemente, mucho

gogoti adb. Gogotik, erruz, ugari. *Dirua gogoti in dau* 'Dirua gogotik egin du'. *Yauria gogoti bota dau* 'euria gogotik bota du'. *Lana gogoti*. *Papia gogoti*. Ik. **asko**, **franko**.

gogua eman

GOGOAK EMAN

dar la gana (a alguien), venirle a uno, -a ganas; querer, apetecer, antojarse

gogoa eman (> *gogwa eman*) *dĭa* ad. Nahi izan. *Gogwa ematen dĭana iten dau* 'gogoak ematen diona egiten du'. *Gogwa ematen dau dana auzteko* 'gogoak ematen du dena uzteko'.

goguen hartu

GOGOAN HARTU

kontuen hartu, buruen hartu; pensatazu

tener en cuenta, considerar, recordar

gogoan hartu (> *gogwen artu*). Gogoratu; kontuan hartu, buruan hartu. *Artazu ondo gogwen yakusitakua* 'har ezazu ondo gogoan erakutsitakoa'. *Artu gogwen esandakwa* 'hartu gogoan esandakoa'. *Artu gogwen amarrendako dala afaia* 'hartu gogoan hamarrendako dela afaria'. Ik. **kontuan hartu** (> *kontuen artu*); **buruan hartu** (> *buruen artu*); **pensatazu**.

goguen ibili (eduki)

GOGOAN EDUKI/IZAN

akordatu

tener en cuenta, tener en la memoria, recordar; tomar en cuenta

gogoan ibili [eduki] (> *gogwen ibili*) *dau* ad. Gogoan izan. *Goguan dekat guaindo* 'oroitzen naiz' (Ond Bak). *Guaindo gogwen dukat nola biltzen gindan Hamarrendaien* 'oraino gogoan daukat nola biltzen ginen «Hamarrendegian» [gazteak biltzen ziren lekua; garai batean «hamarrendegi» izana, hamarrenak gordetzen ziren tokia]'. Ik. **akordatu**; **gogoratu**. || Kontuan hartu.

goguen yan

GOGOAN ERAMAN

gogen hartu, buruen hartu, kontuen hartu / yan

tener en cuenta

gogoan eraman (> *goguen yan*). Gogoan hartu, kontuan hartu; gogoratu. *Gogwen yantazu betiko* 'gogoan eraman ezazu betirako'. Ik. **buruan hartu** (> *buruen artu*); **kontuan eraman** / **hartu** (> *kontuen yan / artu*).

goi

GOI

gain — *gainbehe, behe*

parte superior, parte de arriba, lo de arriba
arriba

goi **1** iz. Ik. **gain**. ▼ Anton. *gainbehe*, *behe*.
◆ **goiti** adb. Goitik; goian. *Laihuek behiti ta goiti dekai* 'dute' *harria* (Ond Bak).
– goien
◆ **goitik behera** (> *goiti bera*, *goitibĭa*) **1** adb. Goiko aldetik beheko aldera. Ik. **goitibehera**. ▼ Anton. *azpiti gora*. **2** adb. Alde guztietatik, osorik; burutik burura, hasieratik bukaeraraino.
◆ **goiti jo** *dau* ad. Goitik jo, neurriz gora aritu.
[Osatzeko] ¬

goienkalde, goienkaldia

GOIALDE, GOIKO ALDE

goi, goikalde; gainekalde — *barrenkalde, gainbekalde, bekalde*

parte superior, lugar alto, parte de arriba

goienkalde iz. Goien aldea, goialdea, goiko aldea. ▼ Anton. *barrenkalde*, *gainbekalde*, *bekalde*. Ik. **gainekalde**; **goi**; **goikalde**.

goikalde, goikaldia

GOIALDE

gainbekalde, bekalde, barren; azpikalde

parte superior, lugar alto, parte de arriba; cima, cumbre

goikalde iz. Goialdea. *Auztazu neguko arropak arramaiuen goikaldĭen* 'utz itzazu neguko arropak armairuaren goialdean'. ▼ Anton. *gainbekalde*, *bekalde*, *barren*.

goiko ganbara, goiko ganbaria

GANBARA, SABAI

safai

desván
azotea (cabeza humana) (coloq.)
estar alguien mal de la azotea (coloq.)

goiko ganbara. **1** iz. Ganbara, sabaia. Ik. **safai**. **2** Irud. Burua. ◆ **goiko ganbaratik egon / ondo ez egon** (> *goikoganbati yon / ondo ez yon*). Burutik egon.

goiko-zoru

SABAI

tetxo; zoru (2)

techo

goiko-zoru iz. (Ond Bak), [eta Urdiain]. ▲ Sin. *tetxo*, *zoru (2)*.

goiko, goikua

GOIKO

gainbeheko, beheko

alto, -a; superior
Dios

goiko **1** adj. Goian dagoena. *Laihuén goiko puntĭa* (Ond Bak). ▼ Anton. *gainbeheko*, *beheko*. **2** iz. Jainkoa. *Goikwoi ezta asko akordatzen gaixworrekin* 'Goiko hori ez da asko akordatzen gaixo horrekin'. ◆ **goiko ganbara**. **1** iz. Ganbara, sabaia ▲ Sin *safai*. Ik. ganbara. **2** Irud. Burua. ◆ **goiko ganbaratik egon / ondo ez egon** (> *goikoganbati yon / ondo ez yon*). Burutik egon.

goinata, goinatia

KOINATA

cuñada

goinata iz. Koinata; norbaitendako, bere ezkontidearen arreba edo ahizpa, edo bere anaiaren ezkontidea. ¬

goinatu, goinatua

KOINATU

cuñado

goinatu iz. Koinatua; norbaitendako, bere ezkontidearen anaia edo neba, edo bere ahizpa edo arrebaren ezkontidea. ¬

goiti

GOITIK

arriba, desde arriba, desde lo alto

goiti adb. Goitik; goian. *Laihuek behiti ta goiti dekai* 'dute' *harria* (Ond Bak).

goiti bea

GOITIK BEHERA

de arriba abajo
de arriba abajo, de cabo a rabo

goitik behera (> *goiti bea*, *goiti bĭa*) **1** adb. Goiko aldetik beheko aldera. **2** adb. Alde guztietatik, osorik; burutik burura, hasieratik bukaeraraino. Ik. **goitibehera**.

goiti behera; goitibeheria

GOITIK BEHERA

aldapa behera

azpiti gora

de arriba abajo
de arriba abajo, de cabo a rabo; de pe a pa (col.)

goitik behera (> *goiti bera*, *goitibĭa*) **1** adb. Goiko aldetik beheko aldera. Ik. **goitibehera**. ▼ Anton. *azpiti gora*. **2** adb. Alde guztietatik, osorik; burutik burura, hasieratik bukaeraraino. [Osatzeko] ¬

goiti jo

GOITIK JO

calcular por lo alto

goiti jo *dau* ad. Goitik jo, neurriz gora aritu.

goitibera, goitiberia

GOITIBEHERA (ALDAPA)

berantz, jaitxiera

bajada, cuesta abajo
patín, carrito deslizador con el que juegan los niños

goitibehera (> *goitibera*) **1** iz. Aldapa behera; jaitsiera. *Goitibera ortan ibiltzen dĭa mutxikan* 'goitibehera [aldapa] hortan ibiltzen dira mutxika [jolasean]'. ▲ Sin. *berantz*; *jaitxiera*. Ik. **goitik behera** (> *goti bera*, *goitibĭa*). **2** iz. *Mutxikako goitiberĭa* 'mutxikarako [jostetarako] goitibehera'.

goiz / goize, goiza

GOIZ; GOIZALDE

1 eguardi arte

madrugada; mañana
tempranero, -a, precoz, adelantado, -a

goiz (eta *goize*) 1 (mañana) Ik. **eguardi arte**.
– goiz-goiza. Goiz-goiza etor da.
– goiziako. Goiziako daile lanien 'goizeko txandan'.
Goizeko meza.
2 (madrugada).
Goizeko ordu biek dia.
3 garaiz
– goiztxuai. Goiztxuai etor da.
4 adj. Arbola goiza. – patata goiza. Ik. goizetako.
◆ **goizean goiz** (> *goizĭen goiz*) adb. Goizeko lehen orduan, goizean oso goiz. *Goizien goiz jagitzen da* 'goizean goiz jagiten da'. *Etxeti goizien goiz ata ta afalorduaindo ezta etorriko* 'etxetik goizean goiz atera eta afalorduraino [afalordura arte] ez da etorriko'.
– goizetik gaubia
◆ **goiz gorri**. • Esr. zah. *Goiz gorri, arratseako yauri* / *Goiz gorri, arratsaldiako yauri*.
– goiz nabar. ¬

goiz gorri

GOIZ GORRI

arrebol, amanecer arrebolado

goiz gorri. • Esr. zah. *Goiz gorri, arratseako yauri* / *Goiz gorri, arratsaldiako yauri*.

goiza

GOIZTIAR

temprano, -a; tempranero, -a

goiza adj. Goiztiarra; ohiko zaion garaia baino lehenagokoa. *Patata goiza* 'patata goiztiarra'. *Gaztina goiza* 'gaztaina goiztiarra'.

goizarrats / goiz-arrats

GOIZ-ARRATS

mañana y tarde; (durante) todo el día

goizarrats adb. Goiz-arrats, goiz eta arrats; egun guztia. *Goizarrats sorwen lanĭen* 'goiz-arrats soroan lanean'.

goizetako

GOIZ JATEKO

para el sembrado o plantío de fruto temprano

goizetako adb. *Jendiek eztu patatik sartu ezta goizetako'e* 'goiz jateko' (Ond Bak). || *Patata goiza*.

goizien goiz

GOIZEAN GOIZ

a la mañana temprano

goizean goiz (> *goizĭen goiz*) adb. Goizeko lehen orduan, goizean oso goiz. *Goizien goiz jagitzen da* 'goizean goiz jagiten da'. *Etxeti goizien goiz ata ta afalorduaindo ezta etorriko* 'etxetik goizean goiz atera eta afalorduraino [afalordura arte] ez da etorriko'.

goiztar, goiztarra

GOIZTIAR

madrugador, -a, que se levanta temprano; tempranero, -a

goiztar adj. Goiz jaikitzen dena; goiz dabilena. *Goiztar etor da* 'goiztiar etorri da'. Ik. **goiza** (arbola goiza, patata goiza).

goiztxo, goiztxua

GOIZTXO

muy temprano, -a

goiztxo adb. Adkor. Goiz. ◆ **goiztxuai** adb. Goiztxoegi. *Goiztxwai etorri ga* 'goiztxoegi etorri gara'.

goiztxuai

GOIZTXOEGI

demasiado temprano

goiztxuai adb. Goiztxoegi. *Goiztxwai etorri ga* 'goiztxoegi etorri gara'.

golda, goldia

GOLDE

arado

golda iz. Goldea. ◆ **goldea pasatu** (> *goldĭa pasatu*).

goldatu, goldatzen

GOLDATU

makinatu

arar, surcar, labrar

goldatu *dau* ad. (Lurra) goldeaz irauli. Ik. **laiatu**; **makinatu**.

golde, goldia — GOLDE

arado

golde iz. Lurra iraultzeko lanabesa, burdinazko pieza zorrotz bat edo gehiago dituena eta abereek edo traktore batek herrestan eramaten dutena. ◆ **goldan** adb. Goldean, goldatzen. *Goldan daitza* 'goldean dabiltza'. ¬

goldeburu / golde-buru — GOLDE NABAR

reja del arado

goldeburu iz. Golde nabarra, goldearen hortza. [(Ond Bak). Reja del arado.].

goldiua (?) — GOROLDIO (?)

goldiua (?)

golfeia — ALPROJAKERIA

perdixkeia

golfería

golferia (> *golfeia*) iz. Alprojakeria. Ik. **perdixkeria**. ◆ **golferian** (> *golfeien*) adb.

golpatu, golpatzen — KOLPATU(*), KOLPEKATU, JO

golpear(se), dar golpes

golpatu *da/dau* ad. Kolpatu(*), kolpekatu, jo. *Sarra golpatwik do* 'sagarra kolpaturik dago'. Ik. **jo**. [Oharra: kolpatu-k 'zauritu' esan nahi du euskara batuan].

golpe, golpia — KOLPE

punpatako, zartako

golpe

golpe iz. Kolpea; zerbaitek beste zerbait jotzea; horren ondorioa. *Eman ber duet golpen bat!* (*Emamer duet golpen bat!*)
– golpe batien.
– golpia eman; golpia hartu.
– golpia jo (luzatu, haunditu)
– golpe zar 'kolpetzar'.
– golpeik ez eman.
◆ **golpien** (> *golpĭen*) adb. Kolpean, bat-batean. ¬

golpekan — KOLPEKA

a golpes, a porrazos, dando golpes, golpeando
a golpes, con intermitencias

golpekan **1** adb. Kolpeka, kolpeak joz. **2** adb. Etenka, etenak eginez. *Elur trapatuen golpekan sartzen dĭa ankak* 'elur trapatuan kolpeka sartzen dira hankak [oinak]'.

golpetu, golpetzen — KOLPATU; KOLPEKATU

golpear(se), dar golpes

golpetu *da/dau* ad. *Sarrak golpetuik de* 'sagarrak kolpaturik daude'. **2** (Partizipio burutua izenondo edo izen gisa). *Golpetua* 'kolpatua'.

golpien — KOLPEAN

de golpe, de repente

golpien (> *golpĭen*) adb. Kolpean, bat-batean.

goma, gomia

GOMA

goma, látex

goma iz. | Ik. **borragoma**. ◆ **gomazko** adj. Gomaz egina dena. *Gomazko pilotĭa* 'gomazko pilota'. | *Irud*. Gomaren ezaugarriak dituena. *Gomazkwa ematen dik aur orrek* 'gomazkoa (dela) ematen dik haur horrek'.

gomazko, gomazkua

GOMAZKO

de goma

gomazko adj. Gomaz egina dena. *Gomazko pilotĭa* 'gomazko pilota'. | *Irud*. Gomaren ezaugarriak dituena. *Gomazkwa ematen dik aur orrek* 'gomazkoa (dela) ematen dik haur horrek'.

gona, gonia

GONA

falda; enagua, saya; refajo

gona iz. *Andra gona gorriduna* (Ond Bak). | – gaineko gonia. ◆ **azpiko gona** (> *azpiko gonĭa*). Gonaren edo soinekoaren azpian erabiltzen den azpiko arropa mehea, gerritik beherakoa edo gorputz osokoa. Ik. **gonbinazio**. | – gona motza. | – gona luzia. | *Gaineko gonĭa*.

gonape, gonapia

GONAPE

parte que está debajo de la falda

gonape iz. Gonaren azpia. ◆ **gonapean egon** (> *gonapĭen yon*). *Aur au beti amai segi, gonapien* 'haur hau beti amari segi, gonapean'.

gonazale, gonazalia

GONAZALE

mujeriego, -a, faldero, -a, que le gustan las mujeres

gonazale adj. Lgart. Emakumezalea.

gonbestazio, gonbestaziua

KONBERTSAZIO, HIZKETALDI, SOLASALDI

hizketaldi

conversación, charla

konbertsazio (> *gonbestazio*) iz. *Kontuoi dala-ta, guaixe gendaitzan gonbestaziwen* 'kontu hori dela-eta, oraintxe genbiltzan konbertsazioan'. Ik. **hizketaldi**.

gonbeztako

KONPARAZIO BATERA / BATERAKO

esate batiako, adibidez

por ejemplo

konparazio baterako (> *konparazio batiako, gonbeztako*) adb. Adibidez. Ik. **esate baterako** (> *esate batiako*).

gonbiatu, gonbiatzen

GONBIDATU

invitar, convidar
invitado, -a

gonbidatu (> *gonbĭatu*) **1** *dau* ad. *Eztaietá gonbĭatu tuai* 'ezteietara gonbidatu dituzte'. **2** (Era burutua izen gisa). *Gonbĭatua* 'gonbidatua'. *Gonbĭatutakwek* 'gonbidatutakoak'.

gonbinazio, gonbinaziua

AZPIKO GONA

azpiko gona

combinación (prenda)

gonbinazio iz. Azpiko gona. Ik. **azpiko gona**. ¬

gora

GORA

(n) biba

gainbia

arriba, hacia arriba, a lo alto, en alto

gora (> *gwa*) 1 adb.
Lepotik gora (Ond Bak). ▼ Anton. *gainbia*.
– interj. Norbait edo zerbait goratzeko oihua. Ik. **biba**.
◆ **gora eman**. Nazka eman. *Dulzĭek gora ematen dwa* 'gozoak gora ematen dit'.
◆ **gora-gora** adb. Goraki, ozenki. *Gora-gora kantaitan*.

gorabehera / goraberak

GORABEHERA

alteración, variación; alteraciones, altibajos, vaivenes, cambio(s)
peripecia, aventura; adversidad, infortunio; trastorno, desorden; discrepancia, disparidad;

gorabehera (> *gorabera, goabera*; *goraberak*) **1** iz. Goranzko eta beheranzko, alde baterako eta besterako aldaketa, aldea. **2** iz. Kontua, arazoa; gertaera. Ik. **kontu**; **asunto**. *Ze goaberia, e?* 'ze gorabehera, e? (LZ). *Goraberak* 'gorabeherak'. ◆ **gutxi gorabehera** (> *gutxi goabia*, *gutxi gwabĭa*). Ik. **iritzi batera** (> *yaitzi batĭa*).

gorantz

GORAKO ALDAPA, IGOERA

azpitik gora

beherantz, goitibehera

subida, cuesta arriba

gorantz iz. Gorako aldapa, igoera (Ond Bak) [(sust.) subida, cuesta arriba]. ▲ Sin. *azpitik gora*. ▼ Anton. *beherantz*, *goitibehera*.

gorbeatu, gorbeatzen

ORBERATU, ORBEZTU

makaldu

despearse (dicho de una persona o de un animal: maltratarse los pies por haber caminado
agujeta (pl.)

gorbeatu *da* ad. Orberatu, orbeztu; oinak minberatu, mindu. *Beiek ezin ibili, gorbeatwik, azkazalak gastatwik* 'behiak ezin ibili, orberaturik, azkazalak gastaturik'. Ik. **makaldu**. ◆ **gorbeaturik** (> *gorbeatwik*) / **gorbeatuta** adb. Orberaturik, orbezturik; asko ibiltzeagatik oinak minduta izan; gihar-mina, gogordura(k) [agujetak] izan. *Gorbeatwik no* 'gorbeaturik nago'. *Gorbeatuta dukatzit ankak* 'gorbeatuta dauzkak hankak'. Ik. **agujeta**.

gorbeatuik

ORBERATURIK, ORBEZTURIK (*)

despeado, -a (con los pies maltratados por haber caminado mucho)
agujeta (pl.)

gorbeaturik (> *gorbeatwik*) / **gorbeatuta** adb. Orberaturik, orbezturik; asko ibiltzeagatik oinak minduta izan; gihar-mina, gogordura(k) [agujetak] izan. *Gorbeatwik no* 'gorbeaturik nago'. *Gorbeatuta dukatzit ankak* 'gorbeatuta dauzkak hankak'. Ik. **agujeta**.

gorde, gordetzen

GORDE

guardar, almacenar
esconder(se), ocultar(se), cobijar(se), proteger(se)
reservar, guardar, conservar
guardar, cumplir, observar

gorde **1** *dau* ad. *Ondo gordeta dukatzit fotografia zarrak* 'ondo gordeta dzuakat fotografia zaharrak'. **2** *da/dau* ad. Ezkutatu. Ik. **estaldu**. **3** *da/dau* ad. Mantendu, ez galdu. *Gwe goikoganbaran ondo gordetzen dĭa lukaikak*. 'gure goiko ganbaran ondo gordetzen dira lukainkak'. *Gordetazu pastel puska bat amandako* 'gorde ezazu pastel puska bat amarendako'. Ik. **kontserbatu** (> *konserbatu*). **4** *da/dau* ad. Araua edo legea bete. *Gaur jai gorde ber dot* 'gaur jai gorde behar dut'.

gordekaitz, gordekaitza

GORDEGAITZ*

difícil de conservar

gordekaitz (Ond Bak) adj./iz. Gordetzeko zaila dena, kontserbatzeko erraza ez dena. • Esr. zah. *Gordekaitza, katuendako*. [Non edo nola gorde ez dakigun gauza, edo alferrik galdu edo katuak eramaten duela]. ≠ Esaera da: *Gehiegi gordetzeagatik galdu iten da* (...?).

gordeleku, gordelekua

GORDELEKU

escondite, escondrijo, refugio; madriguera, vivar; guarida

gordeleku iz. Norbait edo zerbait gordetzen den lekua.

gordetzaile, gordetzailia

GORDETZAILE; AURREZTAILE
2 gastakor, gastatzaile

cuidador, -a, guardián, -ana, defensor, -a;
ahorrador, -a

gordetzaile **1** iz./adj. Gordetzen edo zaintzen duena. **2** adj./iz. Aurreztailea, aurrezten duena. *Diru gordetzailia da*. ▼ Anton. *gastakor*, *gastatzaile*.

gordin, gordina

GORDIN

crudo, -a

gordin adj. Egosi edo erre ez dena. *Haragi gordina*. ◆ **gordinik**. adb. Egosi edo erre gabe. Ik. **zuti(k)**.

gorentzi(ek)

GORAINTZI(AK)

recuerdos, saludos

gorentzi(ek) (eta *gwentzi(ek)*) iz. Goraintzi(ak), aurrean ez dagoenari beste baten bidez bidaltzen zaizkion diosalak. *Emaiotzin gwntziek amai ne partetik* 'emazkion goraintziak amari nire partetik'.

gori, goria

GORI

incandescente, ardiente, candente

gori adj. Tenperatura altuen eraginez argitsu bihurtu dena. *Aizkorak-eta iteko, sutaien patzen zan burnia gori-goria* 'aizkorak-eta egiteko, sutegian paratzen zen burdina gori-goria'.

gorputz, gorputza

GORPUTZ

cuerpo

gorputz iz. Gizakien eta animalien materiazko osagarria. *Gorputz guztĭa mindwik* 'gorputz guztia mindurik'.

gorputzaldi, gorputzaldia

GORPUTZALDI

(estado del) cuerpo

gorputzaldi iz. Gorputzaren egoera. *Gorputzaldi txarra autzi dwa atzoko dantzaldiek* 'gorputzaldi txarra utzi dit atzoko dantzaldiak'.

gorri-gorria patu

GORRI-GORRI EGIN

2 lotsatu

enrojecer(se)
enrojecerse, sonrojarse, ruborizarse

gorri-gorria paratu (> *gorri-gorria patu*). **1** Gorri-gorri egin, erabat gorritu. **2** Lotsagorritu, lotsatu. Ik. **lotsatu**.

gorri, gorria

GORRI

rojo; rojo, -a, colorado, -a
rubio, -a, rojizo, -a
cruento, -a, terrible, duro, -a; crudo, -a
rojo, -a, de izquierdas, revolucionario, -a
desnudo, -a, en cueros
rosado; clarete (vino)

gorri **1** adj./iz. *Gorri kolorĭa* 'gorri kolorea'. **2** adj. *Bizar gorria*. *Kaskagorria*. **3** adj. Oso larria edo handia. *Gorriek pasatu genduzen* 'gorriak pasatu genituen'. **4** adj. Ezkertiarra, iritzi aurrerakoiak dituena. *Republikanwa ta gorria zan* 'errepublikanoa eta gorria zen'. **5** adj. Soila, biluzia. *Plixkorri* 'biluzgorri'. **6** adj./iz. Ardo gorria. *Atatazu bi gorri* 'atera itzazu bi gorri'. Ik. **klarete**. ◆ **gorriak ikusi**, **pasatu** (> *gorriek ikusi*, *pasatu*). Oso gaizki edo larri ibili. *Gorriek ikusi genduzen gerra ondorien* 'gorriak ikusi genituen gerra ondoren'. ◆ **gorriak erakutsi** (> *gorriek yakusi*). Oso gaizki edo larri pasarazi. *Gorriek yakusten duatzi belaun onek* 'gorriak erakusten dizkit belaun honek'. *Gorriek yakusi ziatzien senarrak* 'gorriak erakutsi zizkion senarrak'. – gorridun; Andra gona gorriduna (Ond Bak). | plixkorri. ◆ **gorri-gorria paratu** (> *gorri-gorria patu*). **1** Gorri-gorri egin, erabat gorritu. **2** Lotsagorritu, lotsatu. Ik. **lotsatu**. ◆ **haize gorri**. Haize polarra. Ik. **Sanmigel haize**; **franzes haize** (> *franzes aize*).

gorriek ikusi

GORRIAK IKUSI

pasarlas moradas, pasarlas canutas, pasar grandes apuros, ver las de Caín

gorriak ikusi, **pasatu** (> *gorriek ikusi*, *pasatu*). Oso gaizki edo larri ibili. *Gorriek ikusi genduzen gerra ondorien* 'gorriak ikusi genituen gerra ondoren'.

gorriek yakusi

GORRIAK ERAKUTSI

hacer la vida imposible a alguien; molestar o fastidiar continuamente a una persona

gorriek yakusi. Gorriak erakutsi. Oso gaizki edo larri pasarazi.

gorringo, gorringua

GORRINGO

2 ama ointo

yema
oronja, yema del huevo (Amanita caesarea)

gorringo **1** iz. *Arrontza gorringwa* 'arrautza gorringoa'. *Tartĭa iteko, apartatazu arrontzain gorringwek ta zuringwek* 'tarta egiteko, aparta itzazu arrautzen gorringoak eta zuringoak'. **2** iz. (Mikol.) Kuletoa, arrautza perretxikoa (Amanita caesarea). *Ointo gorringo*. Ik. **ama ointo**.

gorritasun, gorritasuna

GORRITASUN

rojez, enrojecimiento

gorritasun iz. Gorria denaren nolakotasuna. *Gorritasun batzuk ata zaizkia musuen* 'gorritasun batzuk atera zaizkit musuan'.

gorritu, gorritzen

GORRITU

poner(se) de color rojo/rojizo, enrojecer(se), bermejear; teñir de rojo
sonrojarse, ruborizarse

gorritu **1** *da/dau* ad. Kolore gorria hartu edo eman, gorri bihurtu. **2** *da* ad. Lotsaz gorritu. Ik. **gorri-gorria paratu** (> *gorri-gorria patu*).

gorritxo, gorritxua

GORRIXKA

rojizo, -a

gorritxo adj./iz. Gorrixka. *Obe kolore gorritxuet emanko bazendĭa* 'hobe kolore gorritxo [gorrixka] bat emango bazenio'.

gorrixka, gorrixkia

GORRIXKA

gorritxo

rojizo, -a

gorrixka adj./iz. (Hitz berria) Gorriaren antzekoa, gorrirantz jotzen duena. – gorri koloria. Ik. **gorritxo**.

gorroto, gorrotua

GORROTO

nazikusi, hintxa

odio, aversión, antipatía

gorroto iz. Ik. **nazikusi**; **hintxa**.

goru, gorua

KORU

coro (de la iglesia)

goru (eta *koru*) iz. Korua; elizetan, esparru goratua. *Elizako gorua*. (Alderatu: **koro**). ◆ **goruazpi**, **goru azpi**. Koruaren azpian dagoen elizaren alderdia. *Goru azpien do bataiatzeko pontĭa* 'koru azpian dago bataiatzeko pontea'.

goruazpi, goruazpia

KORU-AZPI

bajo del coro

goruazpi, **goru azpi**. Koruaren azpian dagoen elizaren alderdia. *Goru azpien do bataiatzeko pontĭa* 'koru azpian dago bataiatzeko pontea'.

gosai, gosaia

GOSARI (HAMAIKETAKO; HAMARRETAKO)

almuerzo

gosari (> *gosai*) iz. Hamaiketakoa; hamarretakoa. Bereizi egiten dira *gosari* eta *desaiuno*.

gosaldu, gosaltzen

GOSALDU (HAMARRETAKOA EGIN)

almorzar

gosaldu *dau* ad. Gosaria hartu; hamarretakoa egin. Ik. **desaiunatu**. *Gosaltzun* 'gosaldu dezagun'. *Amarrak: lana autzi eta gosaltzeko ordua* 'hamarrak: lana utzi eta gosaltzeko ordua'.

gose, gosia

GOSE

tripazorri

hambre; gana de comer
hambruna, hambre, época de hambre
hambriento, -a; ansioso, -a, ambicioso, -a, codicioso, -a
deseo, ansia

gose **1** iz. Jateko beharra edo nahia. *Ez dekai esene-goseik txerrikumok* (Ond Bak). *Basua ezta gose* (Ond Bak). *Gose aundik eztukat* 'gose handirik ez daukat'. *Aurrak eztuka goseik* 'haurrak ez dauka goserik'. Ik. **tripazorri**. • Esr. zah. *Goseik eztukanandako, maia beti pronto* 'goserik ez daukanarendako, mahaia beti pronto'. **2** iz. Gosetea. *Aik izan zĭan gose garaiek* 'haiek izan ziren gose garaiak'. • Esr. zah. *Ostwa etorri, gosĭa etorri; ostwa fan, gosĭa fan* 'hostoa etorri, gosea etorri; hostoa joan, gosea joan' [biltegia nola udaberrian eta udazkenean]. **3** adj. Gose dena. *Oi txakur gosĭa* 'hori txakur gosea'. **4** adj. Diruzalea, ondasunzalea. *Gosĭa* 'gosea'. *Oi gosĭa dok; betako asko nai dena* 'hori gosea duk, beretako asko nahi duena'. ◆ **diru-gose**. Diruzaletasuna; diruzalekeria. ◆ **gosea egin** (> *gosia in*). Gosetu. ◆ **goseak** (> *gosĭek*) adb. (egon (> *yon*), gelditu eta kideko aditzekin). Gosez. *Gosĭek etor da* 'goseak etorri da'. ◆ **gosea ibili** (eduki) (> *gosĭa ibili*). ◆ **goseak egon** (> *gosĭek yon*). Gose izan. ◆ **goseak hil** (> *gosiek il*). ◆ **goseak hila** (> *gosĭek ila*). *Gosekila*, goseak egon eta zer jan ez duena. ◆ **goseak amorratzen**, **hiltzen**, **akabatzen egon** (> *gosĭek amurratzen / iltzen / akabatzen yon*). ◆ **gosea sartu** (> *gosĭa sartu*). Gosetu. Ik. **gosetu**.

gosetu, gosetzen

GOSETU

gosia in, gosia sartu

tener hambre, entrar hambre, ponerse hambriento; dar hambre

gosetu *da* ad. Jateko gogoa sortu. Ik. gosea sartu (> *gosĭa sartu*). *Gosetwik etor da menditi* 'goseturik etorri da menditik'. Ik. **gosea egin** (> *gosia in*); **gosea sartu** (> *gosĭa sartu*).

gosia sartu

GOSEA SARTU, GOSETU

gosea sartu (> *gosĭa sartu*). Gosetu. Ik. **gosetu**.

gosiek hila

GOSEKIL

hambriento, que está muerto de hambre

goseak hila (> *gosĭek ila*). Gosekila, goseak egon eta zer jan ez duena.

gosta

GOSTA(TU)

costar

gostata

KOSTATA

con dificultad, con mucho esfuerzo; a duras penas

gostata adb. *Gostata, bea despeitu tu emengo lanak* 'gostata, baina despeditu [bukatu] ditugu hemengo lanak'. Ik. **kostata**.

gostatu, gostatzen

GOSTA(TU)

costar (trabajo), resultar difícil
costar, valer

gosta(tu) (eta *kostatu*) **1** *da/dau* ad. Kosta(tu); neketsua edo zaila gertatu. *Gostata, bea azkenien konpondu dai aberia*. *Gostakwok andi ekartzĭa* 'gostako duk handik ekartzea'. *Horrenbeste gosta gauzĭa ta*... **2** *da* ad. Kosta(tu). Lortzeko halako diru kopurua ordaintzea beharrezko izan. *Ondo gostatu zaigu / gasti gostatu zaigu*. ◆ **gostata**. *Gostata, bea despeitu tu emengo lanak* 'gostata, baina despeditu [bukatu] ditugu hemengo lanak'.

goxo, goxua

GOXO

apetitoso, sabroso, -a, bueno, -a, rico, -a; sazonado, -a, jugoso, -a
caramelo, golosina, dulce

goxo **1** adj. Adkor. Gozoa. Ardo goxua. **2** iz. Adkor. Gozokia. (pl.) goxuek. Hau goxuen goxua! *Dend'ortan saltzen tuai goxwek* 'denda horretan saltzen dituzte goxoak'. **3** adb. – goxo-goxo. Ik. **gozo**.

goxotasun, goxotasuna

GOXOTASUN

dulzura, suavidad

goxotasun iz. *Adkor*. Gozotasuna. *Negu hotzetan eskertzen da sukaldeko goxotasuna*.

gozada, gozadia

GOZAMEN

deleite, placer, goce, disfrute
gozo, felicidad

gozada iz. Gozamena; atseginezko sentipena; bete-betean dastatzen den atsegina.

gozatu, gozatzen

GOZATU

disfrutatu

gozar, disfrutar; sacar provecho, usufructuar

gozatu *da/dau* ad. *Gozatu naiz* (LM). *Barrez, ze gozatu gindan!* (LM). *Mutxikan ibili ta, guaixe gozatu naiz!* ▲ Sin. *disfrutatu*.

gozo, gozua

GOZO

dulze, gozoki

dulce
sabroso, -a, rico, -a; sazonado, -a, jugoso, -a
agradable, grato, -a, placentero, -a; suave; acogedor, -a
fértil; blando, -a, flexible, de fácil manejo; lento, -a, pausado, -a

gozo **1** adj. Azukrearen edo eztiaren zaporea duena. *Aurten gozwek de gaztinak* 'aurten gozoak daude gaztainak'. Ik. **dulze**; **gozoki**.
– ur gozua; yauri gozuek. Hau haur gozua! Hau umien gozua!
– gozo-gozo. Hor do, yuxkitan, gozo-gozo 'hor dago, eguzkitan, goxo-goxo'.
– gozua / goxua patu, jarri. Ona jarri (ironiazko adieran).

gozoki

GOZOKI, GOZO

goxo, gozo, dulze

dulze

gozoki adj./iz. Gozoa, zapore gozoa duena. *Gozwa, gozokia do moskatel au* 'gozoa, gozokia dago moskatel hau'. ▲ Sin. *gozo*, *dulze*. Ik. **goxo**.

gozotasun, gozotasuna

GOZOTASUN

dulzura, suavidad

gozotasun iz. *Udaberriek ekar dau gozotasuna* 'udaberriak ekarri du gozotasuna'.

gozozale, gozozalia

GOZOZALE

goloso, -a

gozozale adj. Gozoaren edo gozokien zalea dena. *Txokolatezalĭek eta gozozalĭek dĭa* 'txokolatezaleak eta gozozaleak dira'.

graba, grabia
HARRI XEHE, HARTXINTXAR

harri txehe

grava

graba iz. Harri xehea, hartxintxarra. Ik. **harri txehe(a).**

grabatu, grabatzen
GRABATU

grabar, tallar
grabar (ref. a sonidos, imágenes, etc.)

grabatu **1** *dau* ad. Irarri. *Urrezko yaztunien duka be izena grabatwik* 'urrezko eraztunean dauka bere izena grabaturik'. **2** *dau* ad. Disko edo euskarri magnetiko batean hotsak eta irudiak gorde. || Irud. *Grabatuik dukatzit memoien* 'grabaturik dauzkat memorian'.

grada, gradia
ARE (NEKAZARITZA TRESNA)

are; rastra

grada

grada iz. Area, nekazarien lanabesa, lau edo bost ohol horzdunez osatua, lurrazaleko edozein lanetarako balio duena. Ik. **are**; **rastra**.

gramo, gramua
GRAMO

gramo

gramo iz. Pisu neurria.

gramola, gramolia
GRAMOLA

gramola, gramófono

gramola iz. Gramofonoa. *Radiua baindo lenuo ekar zain gramolĭa* 'irratia baino lehenago ekarri zuten gramola'. *Sekula eztot ikusi gramolaik* 'sekula ez dut ikusi gramolarik'.

granate, granatia
GORRI ILUN

granate

granate **1** adj Gorri ilun kolorekoa. **2** iz. Gorri ilun kolorea. *Granete koloriĭa*.

granelien
SOLTEAN

a granel

granelean (> *granelĭen*) adb. Salgaiengatik hitz eginez, soltean, enbalaje edo bilgarririk gabe, garraiatu, merkaturatu, saldu eta abar.

gratifikazio, gratifikaziua
APARTEKO SARI

gratificación; propina

gratifikazio iz. Aparteko saria. Ik. **estra**; **prima**; **propina**.

grazia
GRAZIA

gracia, encanto, afabilidad, humor

grazia iz. Atsegin eragiteko, bereziki barre eragiteko, dohaina. *Grazia beiko txistĭek kontatzen tu* 'graziarik gabeko txisteak kontatzen ditu'. ◆ **grazia gutxi**. (Gauzak modu batean egiterakoan:) *Orrek eztik graziaik* 'horrek ez dik graziarik'. ◆ **grazia egin** (> *grazia ein / in*). Atsegin eman, gustatu; barre eragin. *Urriziza zopĭek eztua iten graziaik* 'urri-ziza zopak ez dit egiten graziarik'. *In zuaken grazia bat; barrez lertu nitzaken* 'egin zidaan grazia bat; barrez lehertu ninduan'.

grazia in

GRAZIA EGIN

hacer gracia

grazia egin (> *grazia in*). Atsegin eman; gustatu; barre eragin. *Urriziza zopĭek eztua iten graziaik* 'urri-ziza zopak ez dit egiten graziarik'.

grazioso, graziosua

GRAZIOSO

barregarri

gracioso, -a

grazioso adj. Grazia duena, barregarria. *E'zaira batere grazioswa yaitzi* 'ez zait batere graziosoa iritzi'. Ik. **barregarri**. ▪ **graziosa** (fem.). *Nesaki alai ta graziosĭa*.

gripe, gripia

GRIPE

gripe

gripe iz. Sukarra, buruko mina, gorputz guztiko ondoeza eta hotzeria ezaugarritzat dituen eritasun kutsakorra. *Gripĭa arrapatu* 'gripea harrapatu'. *Gripe garai gaizto bat etor zan onutza* 'gripe garai gaizto bat etorri zen hona'.

gris, grisa

GRIS

gris, de color gris
gris

gris adj./iz. Beltzaren eta zuriaren arteko kolorekoa; kolore grisa. *Gris argi batekin pintatu dai gelĭa* 'gris argi batekin pintatu dute gela'.

grua

GARABI

druga

grúa

grua iz. Garabia. Ik. **druga**.

gu

GU

nosotros, -as

gu izord. Pluraleko lehen pertsonaren izenordaina. *Biba gu ta gutarrak*.

gua (?)

TXULO

gua (hoyo que se hace en el suelo para jugar a las canicas)

goa iz. (Bolokan jolasteko zuloa).

gua-guau

TXAKURRA

perro (voc. infant.)

gua-guau Haur. Txakurra.

guai

ORAIN

ahora, en este momento, en este instante

orain* (> *goai*, *guai*) Ald. *goai* (EHHA). *Gwai damutuik no* 'orain damuturik nago' (Ond Bak). *Guai bekela ez ga sekula bizi* 'orain bezala ez gara sekula bizi'.
– guai bertan.
– guai dala.
Guai dala hogeitabost urte Zaragoza fan gindan.
– guai dala gutxi.
Guai intazu hau 'orain egin ezazu hau'.
– guaitik aurria (de ahora en adelante; ≠? hemendik aurria).
– guai artia. Guai artia laun onak izan ga.
– guai ta gio.

guaiko

ORAINGO

actual, de ahora, presente, reciente; moderno, -a

guaiko (> *gwaiko*) adj. Oraingoa, une honetakoa, garai honetakoa. *Gwaiko kontua eztá* 'oraingo kontua ez da'. ◆ **guaiko aldian** (> *gwaiko aldien*). Oraingo aldian. *Gwaiko aldien fuerte eman dĭa bizkarreko minak* 'oraingo aldian fuerte eman dio bizkarreko minak'. *Gwaikua dok ori!* 'oraingoa duk hori!'. ◆ **guaikoz** (> *gwaikoz*) adb. Oraingoz; soilik orain artekoa kontuan hartuz. *Gwaikoz autzi in dau* 'oraingoz utzi egin du'. Ik. **guaindokoz**. ◆ **guaikuen** (> *gwaikwen*) adb. Oraingoan, oraingo aldian, orain. *Gwaikwen obeto in dai* 'oraingoan hobeto egin dute'.

guaikoz

ORAINGOZ

por ahora, por el momento, de momento, en el presente

guaikoz (> *gwaikoz*) adb. Oraingoz; soilik orain artekoa kontuan hartuz. *Gwaikoz autzi in dau* 'oraingoz utzi egin du'. Ik. **guaindokoz**.

guaikuen

ORAINGOAN

esta vez, en esta ocasión

guaikuen (> *gwaikwen*) adb. Oraingoan, oraingo aldian, orain. *Gwaikwen obeto in dai* 'oraingoan hobeto egin dute'.

guaindo

ORAINO, ORAINDIK

todavía, aún
¡habrase visto!

guaindo **1** adb. Oraino, oraindik. *Txerriek jan be de guaindo. Guaindo puska'tien* (Ond Bak).
– guaindo're. Oraino ere, oraino-ren indargarria 'oraindik ere'. || 2 interj. Harridura edo ustekabea adierazteko. *Gwaido!* || *Gwaindo ze aitu ber tun!* 'oraindik zer aditu behar ditugun'. *Gwaindo ze ikus ber dun/tun!* 'oraino ze ikusi behar dugun/ditugun!'.
◆ **guaindo holakoik!** Oraino holakorik!; oraindik holakorik!; oraindik horrelakorik!
◆ guaindo holakoik badala-re!
– guaindo holakoik eztiet aitu.
◆ **guaindokoz** adb. Oraingoz. *Guaindokoz eztot ibili aginako minik* 'oraingoz ez dut ibili [eduki] hagineko minik'. Ik. **guaikoz**.

guaindokoz

ORAINGOZ

por ahora, por el momento, de momento, en el presente

guaindokoz adb. Oraingoz. *Guaindokoz eztot ibili aginako minik* 'oraingoz ez dut ibili [eduki] hagineko minik'.

guaindokuen

ORAINOKOAN

hasta ahora, hasta el presente, hasta hoy

guaindokuen (> *gwaindokwen*) adb. Orainokoan; orain arte. *Lanĭen, gwaindoken ondo ibil dĭa* 'lanean, orainokoan / orain arte ondo ibili dira'.

guaitik

ORAITIK*, ORAINDANIK

de ahora en adelante; desde este momento

guaiti(k) (> *gwatik*, *gwati*) adb. Oraitik*, oraindanik; une honetatik aurrera. *Gwaitik asita* 'oraitik hasita'. *Gaurtik asita* 'gaurtik hasita'. Ik. **hemendi(k) aurrera** (> *emendi* / *emetik aurrĭa*); **gaurti(k)**.

guaixe

ORAINTXE

ahora mismo, hace un instante

guaixe adb. Oraintxe; orain bertan. *Gwaixe jo dau telefonwek* 'oraintxe jo du telefonoak'. *Gwaixe dukazu eskeia* 'oraintxe daukazu eskaida [aukera]'. ◆ **guaixe bertan** adb. Oraintxe bertan. *Gwaixe bertan ez dakit ze esan* 'oraintxe bertan ez dakit zer esan'.

guaixkide

GURASKIDE

consuegra, -o

guaixkide iz. Guraskidea, ezkonlagunen gurasoak elkarrekiko.

guarda, guardia

GUARDA

guarda

guarda iz. Zaintzailea. *Gwarda dail(e) Urbasan* 'guarda dabil Urbasan'.

guardia

GUARDIA

guardia, vigilancia
guarda, guardia, vigilante; policía

guardia **1** iz. Zaintza. **2** iz. Zaintzailea. ◆ **guardia egin** (> *gwardĭa in*). Kuarteletan eta kidekoetan zaintza egin; ospitaleetan eta kidekoetan ohiz kanpoko orduetan zerbitzua eskaini. Ik. **bijilatu**. ◆ **guardia zibil**. Espainiako milizia; milizia horretako kidea. Ik. **sardinzar**.

guardia in

GUARDIA EGIN

hacer guardia, vigilar

guardia egin (> *gwardĭa in*). Kuarteletan eta kidekoetan zaintza egin; ospitaleetan eta kidekoetan ohiz kanpoko orduetan zerbitzua eskaini. Ik. **bijilatu**.

guata, guatia

UATA, KOTOI HARRO

guata (lámina de algodón en rama)

guata (> *gwata*) iz. Uata; kotoi harroa, zauriak garbitzeko eta aulki, soineko eta kidekoetan betegarri gisa erabiltzen dena.

guatu, guatzen / goatu

GORATU

iyo, jaso, altxatu

jaitxi

levantar(se), alzar(se), elevar(se), subir, ascender; crecer; izar; [hegazkina] ascender, elevarse; subir (el volumen, la intensidad, etc.)

ensalzar, alabar

crecer (la Luna)

goratu (> *goatu*, *gwatu*) 1 *da/dau* ad. *Goatzak aurroi* 'goratzak haur hori'. Ik. **iyo**; **jaso**; **altxatu**. ▼ Anton. *jaitxi*. *Goatu tuk ibaiek* 'goratu dituk ibaiak'. *Yuzkia, ilĭo-ilĭo, gwatzen dua* 'eguzkia, hilero-hilero, goratzen doa'. **2** *da/dau* ad. Biziagotu. Argia guatu (Iza Alts). [Urdiain] *Boza gwatu* 'boza goratu [ozendu]'. *Goatazu telebisiua* 'gora ezazu telebista [telebistaren soinua goratu]. **3** *da/dau* ad. Irud. Goraipatu, goretsi. *Goatzen dik, bai, orrek be bua!* 'goratzen dik, bai, horrek bere burua'. *Urdintarrak goatzen zituain* 'urdiandarrak goratzen zituzten'. *Kĭa, orrek ez tau guatzen be erria* 'keba, horrek ez du goratzen bere herria'. **4** *da* ad. *Irargia goatu* 'ilargia goratu' [ilargiaren alderdi argitsua handitu].

guatze, guatzia

OHATZE

ohia; kuxa

cama, lecho

guatze iz. g.g.er. Ohatzea, ohea. Ik. **ohia** (> *oia*); **kuxa**.

gue

GURE

nuestro, -a

gure (> *gue*) izord. *Gwe ataien ezkupĭa do* 'gure atarian ezkupea [haize-babesa] dago'. *Gwe etxekwek eztĭa etorri* 'gure etxekoak ez dira etorri'. Ik. **gu**; **giaure**.

guenzi(ek)

GORAINTZI(AK)

saludos, recuerdos, encomiendas que se encargan para un ausente

guenzi(ek) iz. (Batez ere pl.) Goraintziak; aurrean ez dagoenari beste baten bidez bidaltzen zaizkion diosalak. ◆ **guenziek eman**. Goraintziak eman. *Emaniotzizu guenziek amai* 'emaizkiozu goraintziak amari'. || (Aditza ezabaturik). *Guenziek aitai ta amai* 'goraintziak aitari eta amari'. || *Guenziek aitandako ta amandako* 'goraintziak aitarendako eta amarendako'.

guexa, guexia

GURAIZE(AK)

tijera(s)

guexa (> *gwexa*, *bwexa*) iz. Batez ere pl. *gwexak*. Guraizeak.

guexkide

GURASKIDE

consuegra, -o

-guna

-GUNE (ATZIZKIA)

-guna, sufijo que denota espacio

-guna (atzizkia). Ik. **-gune**. '*Zerbait dagoen lekua*' adierazten du, eta *gune*tik dator.

-gune

-GUNE (ATZIZKIA)

-gune, sufijo que denota espacio

-gune (> *-guna*) (atzizkia). '*Zerbait dagoen lekua*' adierazten du, eta *gune*tik dator. Adibideak: *bihurguna*, *elurguna*, *husguna* eta *hutsuna*, *siesguna*, *uguna*, *zuriguna*. ¬

-gura
GURA

gana, apetito

-gura (hitz elkarketan). Gura, nahia. *alfergura*, *azkura*, *barregura*, *bixigura*, *jardungura*, *laungura*, *logura*, *ñargura*, *txargura*, *yongura*... Ik. **kurre**.
Loguriá dekát (Ond Bak).
– *onguramina*.

guraso
GURASO

aitama(k)

padres, el padre y la madre

guraso (eta *bweswek*) iz. pl. Batez ere pl. *guraswek*. *Aurran izena patzekwen, bweswek ez zain agintzen; aitapuntakwek ta amapuntakwek agintzen zain* 'haurraren izena paratzekoan, gorasoek ez zuten agintzen; aita pontekoak eta ama pontekoak agintzen zuten'. Ik. **aitama(k)**.

gurdi, gurdia
GURDI

karro

carro, carreta
carro, carga de un carro

gurdi iz. *Zortzi gurdi gaztaina* (Ond Bak). || *Gurdia bideti ata zaigu* 'gurdia bidetik atera zaigu'. Ik. **karro**. **2** iz. Gurdikada. *Gurdi bat egur*. Ik. **gurdikada**. ◆ **balgurdi** iz. Bala-gurdia; gari balaz betetako gurdia [Carro de mies. JMS]. ▲ Sin. *balkarro*. ◆ **gurdi sare** (> *gurdi sarĭa*). ◆ **gurdi zulo**. Gurdien gurpilek bidean uzten duten arrastoa. Ik. **txirrika zulo**. Zurezko sareta; zursarea. Ik. **gurtol**. ◆ **gurdia itzuli**. Gurdia irauli. *Makina (bat) aldiz itzuli zezaigun gurdia* 'makina bat aldiz irauli zitzaigun gurdia'.

gurdibide, gurdibidia
GURDIBIDE

camino de carretas, camino carretero

gurdibide iz. Gurdiak ibiltzen diren bidea. *Yauriek raso undatu dai erreka ondoko gurdibidĭa* 'euriek arras hondatu dute erreka ondoko gurdibidea'.

gurdikada, gurdikadia
GURDIKADA

karretada

carro, carro lleno, carga de un carro

gurdikada iz. Gurdi betearen zama kopurua. *Gaur bi gurdikada bear ekar tu* 'gaur bi gurdikada belar ekarri ditugu'. Ik. **karretada**.

gurdikama, gurdikamia
GURTETXE

cama; suelo o plano del carro o carreta

gurdikama iz. Gurtetxea; gurdian, gurpilez gaineko egitura.

gurdilafraikan
ZANBULUKA (GURDIAREKIN)

irrinkaxketan, zanbulukan; txintxingoratu

balanceándose en el timón del carro (juego)

gurdilafraikan adb. *Anenaldiko, asezaldiko* (gurdi jokoan erabilitako hitzak) [Ziordia]. Ik. **irrinkaxketan**, **zanbulukan**; **txintxingoratu**.

gurmusu, gurmusua

GURDI MUTUR (?)

trasca, barzón del yugo

gurmusu iz. Endaitza uztarrian ezartzeko uztai malgua, golde lanetan atzera eta aurrera egitea errazten zuena. Ik. **gurtera**; **uztai**; **oa**.

gurmutur

GURDI MUTUR

timón, lanza o pértiga del carro (?)

gurmutur iz. Gurdi muturra (Iza Alts). *"Aitak abandonatu zen gúrdiyá bea salbatzekó eta eskerrik ásko gurmuturrák arrapatu zela arbole bat eta arboliartan geatu zan gurdíya"* Iz Als (s. v. goitibeasten). Ik. **gurmusu** (?)

gurpil, gurpila

[ENDAITZ MOTZA] (*)

lanza; pértiga de la rastra; timón corto (para narria, etc.)

gurpil iz. [Ez da txirringa]. Endaitz motza, katearekin narra-eta lotzeko erabiltzen dena. *Andatz motza, mutur bateti gatiekin narrĭa-ta lotzeko ibiltzen dana* 'endaitz motza, mutur batetik katearekin narra-eta lotzeko erabiltzen dena'. Ik. **narda**.

gursoka, gursokia

GURDI SOKA

soga (para atar la carga del carro)

gursoka (eta *bursoka* [Ziordia]) iz. Gurdikadak lotzeko soka sendo eta luzea.

gurtera, gurteria

GURTEDE

oa

trasca, barzón del yugo; doble aro de cuero donde se mete el timón del carro para sujetarlo al

gurtera iz. Gurtedea; uztarrian endaitza ezartzeko uztaia. *Gurterĭen zulwen sartzen zan andatza*. Ik. **oa**; **uztai**; **gurmusu**.

gurtol, gurtola

GURTOHOL, GURTESI

adral; tabla del carro para sujetar la carga

gurtol iz. (eta *burtol* [Ziordia, Bakaiku]) iz. pl. *gurtolak*. Gurtesia. Ik. **harrol**. | *Gurtolak eta harrolak*. • Esr. zah. *gurtolak eta harrolak bota* (?). | ◆ **gurtoholen sare** (> *gurtolain sarĭa*) (zurezko xareta; zursare). Ik. **gurdi sare**.

gurutze

GURUTZE

cruz, crucifijo

gurutze iz. Ik. **kutza**; **kruzifijo**. ◆ **gurutze santuaren (seinalea) egin** (> *gurutze santuaren in*). (Erl.) Hiru aldiz gurutzearen seinalea egin, lehenengoa bekokian, bigarrena aho inguruan eta hirugarrena bularraldean.

gurutze santuaren in

GURUTZE SANTUAREN (SEINALEA) EGIN

signar(se), hacer la señal de la cruz

> **gurutze santuaren (seinalea) egin** (> *gurutze santuaren in*). (Erl.) Hiru aldiz gurutzearen seinalea egin, lehenengoa bekokian, bigarrena aho inguruan eta hirugarrena bularraldean.

gurzi, gurzia

GURZIRI, GURTZOTZ

espiga que atraviesa la lanza del carro y sirve para fijar el yugo

gurzil, gurzila

GURTZIL

eje de las ruedas del carro

gurzil (eta *burzil* [Altsasu]) iz. Gurdiaren gurpilen ardatza (Ond Bak). [Eje de carro]. [Oharra: Desberdindu *gurzil* eta *gurziri* (> *gurzi*)].

gurziri

GURZIRI, GURTZOTZ

espiga que atraviesa la lanza del carro y sirve para fijar el yugo

gurziri (eta *gurzi*) iz. Gurtzotza; uztarria endaitzean finkatzeko erabiltzen den zurezko ziria. Ik. **ziri** (> *zi*). *Gurzia, kostiekin indakua* 'gurziria, gorostiarekin egindakoa'.

gustatu, gustatzen

GUSTATU

gustar, agradar

gustatu *zaio* ad. ◆ **zerbaitekin edo norbaitekin gustaturik egon** (> *zerbeitekin o norbeitekin gustatwik yon*). (Holakokin) gustatuik yon.

gusto, gustua

GUSTU

gusto, sentido del gusto
gusto, sabor
gusto, placer
gusto, deseo, voluntad

gusto **1** iz. Gustua, atsegina. **2** iz. Nahia, zaletasuna. *Aman gustwa zan* 'amaren gustua zen'. **3** iz. Zaporea. *Apoki gustwa*. ◆ **gustua eman** (> *gustwa eman*). Atsegin eman. *Gustwa ematen dau aurrak nola jaten den ikustĭa* 'gustua ematen du haurrak nola jaten duen ikustea' ◆ **gustura** (> *gustwa*) adb. Gogara.

gustoko, gustokua

GUSTUKO

que gusta, del gusto (de), gustoso, -a, agradable

gustoko adj. ◆ **gustokoen** (> *gustokwen*). Gustukoena. Ik. **faborito**.

gustua

GUSTURA

a gusto, placenteramente

gustura (> *gustwa*) adb. Gogara.

gutar

GUTAR

nuestro, -a, partidario, -a, familiar, paisano, -a, correligionario, -a

gutar iz. Gure familiakoa, artekoa, aldekoa edo alderdikoa den pertsona; gurekin bat datorren pertsona, gure iritziak dituena. *Biba gu ta gutarrak*.

gutun, gutuna

KUTUN

querido, -a; favorito, -a; predilecto, -a

gutun adj./iz. Kutuna; guztiz maitea eta begikoa den pertsona. *Ilobĭa zukan gutunena* 'iloba zeukan kutunena'. *Aua zan be gutuna* 'hura zen bere kutuna'.

gutxi

GUTXI

asko, franko, gogoti

poco, -a
menos [orduetan]
poco, -a, con escasez, menos de lo regular

gutxi **1** zenbtz. Gue denboran ezon holako gauzaik, ta gutxiokoik er'ez. Dan gutxiena dala're zikina, zegatu iten da tubuá. || Gutxí pátu tu 'tugu' péntsu hoiék. Kiluek hiru libera lau ontza gutxi dekatza (Ond Bak). ▼ Anton. *asko*, *franko*, *gogoti*.
2 (Izenordain gisa). *Gutxik jakingo dai arek zakiena* 'gutxik jakingo dute hark zekiena'.
3 (Adizlagun gisa). *Gutxi jaten dau* 'gutxi jaten du'.
4 (Orduak adierazteko). *Amarrak amar gutxi dĭa* 'hamarrak hamar gutxi dira'.
5 (Izen gisa). *Gutxi emanko dau* 'gutxi emango du'.
◆ **gutxi gorabehera** (> *gutxi goabia*, *gutxi gwabĭa*). Ik. **iritzi batera** (> *yaitzi batĭa*).
– ezta gutxioik'e.
– gutxienekua izan.

gutxi goabia

GUTXI GORABEHERA

yaitzi batia

poco más o menos, aproximadamente

gutxi gorabehera (> *gutxi goabia*, *gutxi gwabĭa*). Ik. **iritzi batera** (> *yaitzi batĭa*).

gutxiai

GUTXIEGI

gahiai, gahixai

demasiado poco, insuficiente, escaso, -a

gutxiai adb. zenbtz. zehaztgb. Gutxiegi. ▼ Anton. *gahiai*.

gutxieneko, gutxienekua

GUTXIENEKO

mínimo, -a
ser lo de menos, no tener importancia

gutxieneko adj. ◆ **gutxienekoa izan** (> *gutxienekwa izan*).

gutxienez

GUTXIENEZ

behintzat, beare, binapin

al menos, por lo menos, como mínimo, como poco

gutxienez adb. Ik. **behintzat**; **beare**; **behinik behin** (> *binapin*).

gutxio

GUTXIAGO

gahio

menos

gutxiago (> *gutxio*) adb./ zenbtz. zehaztgb. ▼ Anton. *gahio*.

gutxitan

GUTXITAN

askotan, maiz, sarri

pocas veces

gutxitan adb. ▼ Anton. *askotan*, *maiz*, *sarri*.

gutxitu, gutxitzen GUTXITU
txikitu, murritu *haunditu*
disminuir, reducir(se), haber menos; mermar, menoscabar

gutxitu *da/dau* ad. Zerbaiten kopurua txikiago bihurtu.
Ezta lana gutxituko! *Yuzkien indarra badua gutxitzen* 'eguzkiaren indarra badoa gutxitzen'.
Majo gutxitu da egur montona.
Beti anai txikiena gutxitzen.

gutxitxo GUTXITXO
askotxo
poquillo; muy poco

gutxitxo zenbtz./adb. *Adkor*. Gutxi; aukeran gutxi. ▼ Anton. *askotxo*.

gutxitze, gutxitzia GUTXITZE
disminución; mengua; merma

gutxitze iz. Zerbaiten kopurua txikiago bihurtzea.

gutxixo GUTXIXEAGO
gahixo
un poco menos, algo menos

gutxixeago zenbtz./adb. Zerbait gutxiago. ▼ Anton. *gahixo*.

guzi, guzia GUZI
guzti
todo, -a

guzi zenbtz. Guztia. Ik. **guzti**. *Aiuntamentubák, gizékuei, guzíeirí, sokán deen guzieirí purú máten daue* 'aiuntamentuak, gizakiei, guziei, sokan dauden guziei (zigarro) purua ematen die (Iza Alts).

guzti GUZTI
guzi, dana, oso *batere*
todo, -a; entero, -a
todos, -as

guzti (eta *guzi*) **1** zenbtz. Osoa. Alde guzitati. Guziék: hor dén gauza gúziek (Ond Bak). Ik. **guzi**; **dana**; **oso**. ▼ Anton. **batere**.
– eta guzti. Gurdi eta guzti fan zan erreka.
– Hoi guztia in dok!

haba, habak (pl.) HABE (1)
viga, travesaño

haba(k) iz. (Arkit.) Habea. *Teilatuko abak* 'teilatuko habeak'. Ik. **habazpi**.

habazpi, habazpia HEGATZ, TEILATU HEGAL
teilatu-hegal
alero (del tejado)

habazpi iz. [*habe azpi (?)] Hegatza, teilatuaren hegala, ertza. *Aurten'e, abazpien in dai buztangorriek txoi kafia* 'aurten ere, hegatzaren azpian egin dute buztangorriek habia'. *Balkonak leno abazpien iten zituain* 'balkoiak lehenago habazpian [teilatuaren hegal azpian] egiten zituzten'. ▲ Sin. *teilatu hegal*. Ik. **haba**.

haga

HAGA

vara; tranca; percha
horquilla, horqueta (de sujeción, apoyo, soporte)

haga (eta *hagi* [Altsasu]) **1** iz. Pieza zuzena, luzea eta mehea, gehienetan zurezkoa, eskuz erabil daitekeena. *Sataga*. Ik. **hagai**. **2** [Ziordia] iz. Urkila (euskarria); hildako txerria zintzilikatzeko haga. Ik. **matxarda**; **sardai**. ¬

hagai, hagaia

HAGA

haga; hagi [Altsasu]

vara
tranca

hagai iz. Haga. *Atalaia*. *Gaztinagaia*. *Lukaika-hagaia*. *Langa hagaia*. *Bi agai luze dukatzĭu intxorra mozteko* 'bi haga luze dauzkagu intxaurra mozteko [moztu: arbolako fruitua bildu]'. Ik. **haga**.

hagin, hagina

HAGIN (1)

muela

hagin[1] iz. Hagineko mina. ◆ **hagine(ta)ko min** (> *aginako min*).

hagin, hagina

HAGIN (2)

tejo (Taxus baccata)

hagin[2] iz. (Bot.) (*Taxus baccata*). *Hagina oso gogorra da, oso gogorra* (Iza Alts).

hagineko min, hagineko mina

HAGINE(TA)KO MIN

dolor de muelas

hagine(ta)ko min (> *aginako min*).

haginka

HAGINKA

hozka

a mordiscos, a dentelladas

haginka adb. Hozka, ausikika. Ik. **hozka**; **hozkan**. ◆ **haginka egin** (> *aginka in*). Hozka egin. Ik. **hozka egin** (> *ozka in*). ¬

haginka in

HAGINKA EGIN

hozka in

morder

haginka egin (> *aginka in*). Hozka egin. Ik. **hozka egin** (> *ozka in*). ¬

haginkada

HAGINKADA

hozkada

mordisco, dentellada

haginkada iz. Hozkada. Ik. **hozkada**.

haiek

HAIEK

aquellos, aquellas; los, las
¡qué!, ¡vaya!, ¡aquellos/aquellas sí que!
aquellos, aquellas; ellos, ellas

haiek (eta *aiek*, *aik*) erak. *Aiek biek* 'haiek biak'.

haifel, haifela

HABAILA

honda
desgarbado, -a; esmirriado, -a; enclenque

haifel (eta *arifel* [Bakaiku]) **1** iz. Habaila; eskuaz birarazten den larruzko uhala, harriak jaurtitzeko arma gisa erabiltzen dena. **2** adj. (Lgart.) Pertsonengatik esanda, mengela, sendotasunik gabea. *Oi mutilan aifela!* 'hori mutilaren *haifela* [mengela]!'.

haik / haiek

HAIEK

aquellos, aquellas; los, las
aquéllos, aquéllas; ellos, ellas

haik / haiek erak. *Etxe aiek erre zian* 'etxe haiek erre ziren'.
2 erak. (Harridurazko esaldien hasieran; atzetik *bai* har dezake; esaldi-amaieran errepikatuta ager daiteke). *Aiek garaiek!* 'haiek garaiak!'. *Aik bai indarra!* 'haiek bai indarra!'. *Aik yausiek aik!* 'haiek erausiak [iskanbilak] haiek!'.

haik eta

HARIK ETA

hasta que; en tanto que no

harik eta (> *aik eta*). *Oinez aik eta Oñatiando* 'oinez harik eta Oinatiraino'. *Eman diatzi aik eta il artĭa!* 'eman dizkio harik eta hil arte'. *Atzĭa lanĭa, aik eta despeitu artien* 'atzera (berriz) lanera, harik eta despeditu [bukatu] artean'.

hain

HAIN

tan

hain **1** Halako mailan. *E'nen uste erri au ain polita zanik* 'ez nuen uste herri hau hain polita zenik'. Ik. **hoin**. ¬

hainbat

HAINBAT

tanto(s), tanta(s); tanto

hainbat zenbtz. *Haundi bezain on bazaa guetxeako hainbat baza* (Iza Alts).
◆ **hainbateko**. *Akura hainbatekua bada guria* (Ond Bak).

hainbateko, hainbatekua

HAINBATEKO

tan grande, de tal magnitud

hainbateko adj. *Akura hainbatekua bada guria* 'hura hainbatekoa bada gurea' (Ond Bak). ¬

hainbeste

HAINBESTE

tanto(s), tanta(s); tanto

hainbeste **1** zenbtz. Halako kopuruan.
◆ **hainbestean** (> *ainbestĭen*) **1** (?) adb. Kopuru edo zenbaki ezezagun edo ezin zehaztuzkoan. *Ainbestien, lanoi iteko pres* 'hainbestean, lan hori egiteko prest. **2** adb. Ez oso ongi eta ez oso gaizki. *Ainbestĭen yon* 'hainbestean egon'. *—Nola ze? —Ainbestĭen no* '—Nola zaude? —Hainbestean nago'.
Ik. **hoinbeste**; **horrenbeste**. ¬

hainbesteko

HAINBESTEKO

tal cantidad; una determinada cantidad
de tal magnitud/tamaño/valor

hainbesteko **1** iz. Halako kopurua. *Ainbesteko bat emaniozu* 'hainbesteko bat emaiozu'. Ik. **hoinbesteko**. **2** adj. *Ainbestekoik ez da emen pasatu* 'hainbestekorik ez da hemen pasatu'. ¬

hainbestien

HAINBESTEAN

tanto, en tal medida
medianamente, regular, ni bien ni mal; tirando

hainbestean (> *ainbestĭen*) **1** (?) adb. Kopuru edo zenbaki ezezagun edo ezin zehaztuzkoan. *Ainbestien, lanoi iteko pres* 'hainbestean, lan hori egiteko prest. **2** adb. Ez oso ongi eta ez oso gaizki. *Ainbestĭen yon* 'hainbestean egon'. *—Nola ze? —Ainbestĭen no* '—Nola zaude? —Hainbestean nago'.

haitz txabal, haitz txabala

LABAR (?)

escarpa vertical, despeñadero; acantilado

haitz zabal (> *aitz txabal*) iz. Labarra; amildegia. Ik. **gerba**.

haitz, haitza

HAITZ

peña, peñón, peñasco

haitz iz. iz. Harrizko masa handia. *Haitz ondo*. ◆ **haitz zabal** (> *aitz txabal*) iz. Labarra; amildegia. Ik. **gerba**. ¬

haitzarri, haitzarria

KARE HAITZ

kareharri

piedra caliza

haitzarri iz. Kaltzita duen harria, karegai nagusia dena. *Galtzadatwik aitzarriekin* 'galtzadaturik haitzarriekin [kareharriekin]'. Ik. **kareharri**.

haixebu, haixebua

BURUARIN, KASKARIN

kaskarin *zogi*

ligero de cascos, casquivano, -a; vanidoso, -a, presumido, -a

haizeburu, **haize-buru** (> *aixebu*) adj. Buruarina; pertsonengatik hitz eginez, burua arina duena, zentzu gutxikoa dena. Ik. **kaskarin**. ▼ Anton. *zogi*.

haize bildu, haize bildua

BISUTS-LEKU. 2 ZIRIMOLA, HAIZE ZURRUNBILO

1 elurbildu

ventisquero (masa de nieve reunida en un ventisquero), conchesta
remolino de aire

haize bildu 1 iz. Bisuts-lekua. *Aize bilduek*. Ik. **elurbildu**. **2** iz. Zirimola, haize zurrunbiloa.

haize eztul

HAIZE EZTUL / EZTUL HAIZE

tos sin flema; tos que se hace por picor de garganta, sin catarro; tos nerviosa

haize eztul. Axolarik gabeko eztula. *Haize eztula, sugurreko haiziekin* (Ond Bak).

haize gorri, haize gorria

HAIZE GORRI, HAIZE POLAR

sanmigel haize, franzes haize; matakabras

viento muy frío del NE; viento polar

haize gorri iz. Haize polarra. (Iza Alts) [viento que viene de Francia. El más frío]. | (Ond Bak) [viento muy frío del NE]. | Haize gorria: haize polarra [Urdiain] (AG). Ik. **Sanmigel haize** (> *sanmigel aize*); **franzes haize** (> *franzes aize*); **matakabras**.

haize ufada, haize ufadia

HAIZE UFADA

golpe de viento

haize ufada iz. Haize ufakoa, haize bolada. Ik. **haize bolada**.

haize, haizia

HAIZE

viento; aire
gases, flato (pl.)

haize **1** iz. Mugitzen den airea. *Haizia do guai* 'haizea dago orain' (Ond Bak). || *Haize fina* (hotza). *Haize gogorra*. *Haize mehea* (hotza). **2** iz. pl. Sabelean gertatzen den gas pilaketa. ◆ **(norbait) haizeak mugitu** (> *aizĭek mogitu*). Haizeak eraginda ibili. *Halako haizĭek mogitzen dau*. ◆ **haize bildu 1** iz. Bisuts-lekua. *Aize bilduek*. Ik. **elurbildu**. **2** iz. Zirimola, haize zurrunbiloa. ◆ **haize bolada**. Haize kolpea. ◆ **haize eztul**. Axolarik gabeko eztula. *Haize eztula, sugurreko haiziekin* (Ond Bak). ◆ **haize gorri** iz. Haize polarra. (Iza Alts) [viento que viene de Francia. El más frío]. | (Ond Bak) [viento muy frío del NE]. | Haize gorria: haize polarra [Urdiain] (AG). Ik. **franzes haize**; **San Migel haize** (> *sanmigel aize*). ◆ **haizea hasi** (> *aizĭa asi*). ◆ **haizea ibili**. *Aizĭa daile* 'haizea dabil'. ◆ **haizea mugitu** (> *aizĭa mogitu*). Haizea hasi. ◆ **haize ufada** iz. Haize ufakoa, haize bolada. Ik. **haize bolada**. ◆ **ipar haize** (> *ipar aize*, *iper aize*). ◆ **sorgin haize** [Altsasu, Urdiain, Bakaiku]. Haize zirimola, haize zurrunbiloa. ¬

haizetsu, haizetsua

HAIZETSU

ventoso, -a

haizetsu adj. *Leku aizetsua da Ixipuntĭa* 'leku haizetsua da Ixipunta [Urbasa mendiaren punta]'. *Egun aizetsua do* 'egun haizetsua dago'.

haizetu

HAIZEZTATU, HAIZEBERRITU

airiatu, ipertu

ventilar(se)

haizetu *da/dau* ad. Haizeztatu, haizea berritu, egurastu. *Gaur eztu (etxia) haizetu* (Ond Bak). Ik. **ipertu** (Ond Bak); **aireatu*** (> *airĭatu*).

haiziatu, haiziatzen

HAIZATU

aventar
ventilar, orear, airear

Indiabak haiziatu, garia haiziatu.
Gelia haiziatu. Ik. airiatu.

haizkan

HARRIKA

harrikan; fidirizkan

a pedradas; arrojando, lanzando

haizka(n) adb. Harrika, harriak jaurtiz. *Arriek aizkan bota* 'harriak haizka bota'. Ik. **harrikan**; **fidirizkan**. ◆ **haizkan bota**. Harriak jaurtitzen diren bezala. *Aizkan bota zen mailua* 'harrika bota zuen mailua'. Ik. **fidirizkan bota**. ◆ **haizkan ibili**. Harrika ibili, harriak jaurtiz aritu. *Aizkan dailtzá* 'haizka [harrika] dabiltza (Iza Alts).

haizkan bota

HARRIKA BOTA

tirar, arrojar, lanzar

haizkan bota. Harriak jaurtitzen diren bezala. *Aizkan bota zen mailua* 'harrika bota zuen mailua'. Ik. **fidirizkan bota**.

haizkan ibili

HARRIKA IBILI, HARRIKA ARITU

harrikan

andar lanzando piedras

haizkan ibili. Harrika ibili, harriak jaurtiz aritu. *Aizkan dailtzá* 'haizka [harrika] dabiltza (Iza Alts).

hala

HALA

así

eso, así

hala adb. Era hartan. *Hala da, bai*.

- hala bazan, ezpazan...
- hala behar (> *ala ber*)
- **hala beharko** (> *ala berko*). *Ala berko ziken/zinen* 'hala beharko zian/zinan'.
- **hala egin** (> *ala in*) Hala-moduz. *Bai, hala in dau lana* (gaizki, hala-moduz).
- **hala moduz** adb. *Ala moduz in dau lana* 'hala moduz egin du lana'.

hala berko

HALA BEHARKO; HALABIZ

así sea

hala beharko (> *ala berko*). *Ala berko ziken/zinen* 'hala beharko zian/zinan'.

hala moduz

HALA MODUZ

a la ligera, de cualquier forma/manera/modo

hala moduz adb. *Ala moduz in dau lana* 'hala moduz egin du lana'.

halabait

(NOLABAIT)

de algún modo, de cierta manera; de una u otra manera

halabait adb. *nolabait halabait* esapidean. Ik. **nolabait**.

halako batien

HALAKO BATEAN

en una de esas, en eso

halako batean (> *alako batĭen*). Orduan, une jakin batean; azkenean. (Bereziki, kontakizunetan erabiltzen da).

halako, halakua

HALAKO

tal como aquél; así, de ese tipo
tal, semejante
mengano, -a
tantas veces más que

halako 1 adj.
Halakoik badala're!
– guaindo holakoik! 'oraindik horrelakorik!' (¡habráse visto!)
– halaxeko.
– holako eta halako (eta bestelako).
Halako etor dala esan dai. Halakok esan dau. Holako eta halako eta bestelako etor dia (Ond Bak).
– halakua ta bestelakua (urlia eta sandia).
– halakua izan [berezia]. Hua're halakua zaken!
◆ **halako batean** (> *alako batĭen*). Orduan, une jakin batean; azkenean. (Bereziki, kontakizunetan erabiltzen da).
– halako moduen.
– halako bi / bi halako [bikoitza]. Ik. doble; halako hiru [hirukoitza] (...).

halare

HALA ERE

sin embargo, a pesar de todo, aun y todo

hala ere (> *alare*; *ale*) lokail. [Ik. **halere** (> *ale*) sarreara]. Ik. **eskerrak**; **gaitzerdi**. Lehengo fabrikan iten dau sobre lan. Hala're guaikuen irauten dau.

halaxe

HALAXE

así, de esa misma manera, del mismo modo; exactamente así, precisamente así

halaxe adb. Era hartan berean. *Alaxe esan zuan* 'halaxe esan zidan'.

halaxeko, halaxekua

HALAXEKO, HALAKO

tal como aquel; así, de ese tipo
tal, semejante
vaya; menudo, -a

halaxeko **1** adj. Hura bezalakoa, aipatu den gisakoa. *Alaxekoik ikusi be genden* 'halaxekorik ikusi gabe geunden'. Ik. **halako**. **2** (nolako edo halako-rekin korrelazioan). *Alaxekwa bota dau elurra!* 'halaxekoa bota du elurra [nolako elurra bota du!]'.

hale / ale

HALERE, GAINERA

gainia

además, encima
desde luego, ¡por supuesto!

halere (> *ale*) lokail. Halere, gainera. [Ik. **hala ere** sarrera]. Harginak Iturmendin, onak hale! 'harginak Iturmendin, onak, halere [gainera]!'. Harginak Iturmendin? Onak hale! Ik. **gainera** (> *gainĭa*). *Atorrĭa yosi dau; pintxwa ale!* 'atorra erosi du; pintxoa [dotorea] halere!'. *Botikĭek ongitu?, ta ondo ale!* 'botikak ongitu?, eta ondo halere!'. *—Nai dezu gukin afaltzĭa? —Bai, ta gustwa, ale* '—nahi duzu gurekin afaltzea? —Bai, eta gustura, halere / hala ere'. ◆ **ondo halere** (> *ondo ale*) 'bai horixe' esanahiarekin. *Bai, ondo ale. —Mea do. —Bai, ondo mea ale!* '—mehea dago. —Bai, ondo mehea halere!' [desde luego, ¡por supuesto!]. Ik. **bai konto**.

haltz, haltza

HALTZ

aliso

haltz iz. (Bot.) (Alnus sp.). *Altzez beteik de erreka baztarrak* 'haltzez beterik daude erreka bazterrak'.

hamabost

HAMABOST

quince

hamabost **1** zenbtz. Hamalau eta bat, 15. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan hamabosgarrena. **3** (Data adierazteko). *Gaur ilak amabost dukatzi* 'gaur hilak hamabost dauzka'. *Aguztuen amabostĭen* 'abuztuaren hamabostean'. **4** (Artikulurik eta kasu markarik gabe, *gaur*, *bihar* eta kidekoekin, 'bi aste aurreko —aditza lehenaldian izanik— edo bi aste barruko —aditza geroaldian bada— egun berean' adierazteko). Ik. **gaur hamabost** (**1**, **2**). ◆ **gaur hamabost** **1** adb. Bi aste barru. *Gaur hamabost hasiko dĭa erriko fiestak* 'gaur hamabost hasiko dira herriko festak'. *Amabost egun barru etorriko dala esan dwa* 'hamabost egun barru etorriko dela esan dit'. **2** adb. Bi aste aurretik. *Gaur amabost asi gindan dantzak ensaiatzen* 'gaur hamabost hasi ginen dantzak entseatzen'. *Gaur hamabost fan zan oporretá* 'gaur hamabost joan zen oporretara'. ◆ **hamabostean behin** (> *amabostĭen béin*) adb. Bi astean behin. *Amabostĭen béin etortzen da arropa saltzailĭa* 'hamabostean behin etortzen da arropa saltzailea'.

hamabostien behin

HAMABOSTEAN BEHIN

cada quince días, quincenalmente

hamabostean behin (> *amabostĭen béin*) adb. Bi astean behin. *Amabostĭen béin etortzen da arropa saltzailĭa* 'hamabostean behin etortzen da arropa saltzailea'.

hamaika

HAMAIKA

2 hamaikatxo, makina bat, makinatxo

once

muchos, -as; infinidad; tantos, -as

hamaika **1** kardinala.

2 Ugaritsuna. *Amaika aldiz esan dĭagu* 'hamaika aldiz esan diogu'. *Amaikatxo ikusteko jaio ga!* 'hamaikatxo ikusteko jaio gara'. Ik. **hamaikatxo**; **makina bat**; **makinatxo**.

3 Ordua. Hamaikak jo dai.

hamaikagarren, hamaikagarrena

HAMAIKAGARREN

undécimo, -a; decimoprimero, -a

hamaikagarren **1** ord. Zerrenda batean aurretik hamar dituena (11.). **2** (Adizlagun gisa).

hamaikatxo

HAMAIKATXO

makina bat, makinatxo; hamaika; bost

muchos, -as; infinidad, tantos, -as

hamaikatxo (> *amaikatxo*) zenbtz. Adkor. Hamaika, asko. *Amaikatxo ikusteko jaio ga!* 'hamaikatxo ikusteko jaio gara!'.

hamar

HAMAR

diez

hamar **1** zenbtz. Bederatzi eta bat, 10. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan hamargarrena.
3 (Data adierazteko). *Gaur amar dukatzi ilak* 'gaur hamar dauzka hilak'.
4 (Orduak adierazteko). *Hamarrák... joik dé* (Ond Bak). *Amarretan, gosaitá* 'hamarretan, gosaritara'.

hamarrendai, hamarrendaia

HAMARRENDEGI

tercia, casa en que se depositan los diezmos

hamarrendegi (> *hamarrendai*) iz. Hamarrena [zerga] gordetzen zen tokia. *Apizan etxeko amarrendaia autzi zen apizak gaztiek biltzeko* 'apaiz-etxeko hamarrendegia utzi zuen apaizak gazteak biltzeko'.

han

HAN

allí

han (> *an*) adb. Toki hartan. Ik. **hemen**; **hor**.
handi ta hemendi
Handi 'handik' borrostua sartzeko. Handi beraxó fanda, Aingíbel (do) (Ond Bak).
– handik aurria
– handikaldien
– handiko (hango). Hemeti hasi ta handiko baztarriaindo.
◆ **hango** **1** adj. Toki hartako. Ik. **bertako**. 2 (Harridurazko esaldietan). *Ango istiluek ta garrasiek!* 'hango istiluak eta garrasiak!'.

handik aurria

HANDIK AURRERA

desde entonces
desde allí

handik aurrera (> *andik aurrĭa*).

handikalde, handikaldia

HANDIKO ALDE

handikalde - handikaldien. Hemetikaldetik eta handikaldetik.

hango

HANGO

de allí

baba; espumarajo

herde (> *erde*) iz. Lerdea. Ik. **lerde**. ◆ **herdea dariola** (> *erdĭa daiola*). Lerdea dariola.

herdezu, herdezua / erdezu

LERDETSU

lerdetsu

baboso, -a

herdezu (> *erdezu*) adj. Lerdetsua, lerdea dariona (KZ). Ik. **lerdetsu**. [OEH. herdetsu (G-nav), herdezu (AN-ulz, B). Ref.: A; Iz Ulz, Als. "Baboso" A. Cf. herde].

herdoi, herdoia

HERDOIL

roña, herrumbre, óxido
roya, sarro (roya de los vegetales)

herdoi (> *erdoi*) **1** iz. Herdoila, burdin oxido gorrixka. *Erdoia ondo lijatu ber da* 'herdoila ondo lixatu behar da'. **2** iz. (Bot.) Landareen eritasuna, onddo bizkarroiek eragina, zurtoin eta hostoetan gertatzen diren orban herdoil antzekoak ezaugarri dituena. *Porruek erdoia dukai* 'porruek herdoila daukate'. *Sanjuanetako lainuek gariai erdoia iten (sortzen) zian* 'sanjoanetako lainoak gariari herdoila egiten (sortzen) zion'. ◆ **herdoiak jan** (> *erdoiek jan*). Herdoilak jan, herdoildu. *Erdoiek janik duka autwen karrozeia* 'herdoilak janik dauka autoaren karrozeria'.

herdoitu, herdoitzen

HERDOILDU

oxidar(se), roñar(se); aherrumbrar(se)

herdoitu (> *erdoitu*) **1** *da/dau* ad. Herdoildu. *Raso erdoitwik ta akestwik zukan aizkorĭa* 'arras herdoildurik eta akesturik zeukan aizkora'. **2** (Era burutua izenondo gisa). *Giltza erdoitua sartu dau ankati* 'iltze herdoildua sartu du hankatik'.

heredatu, heredatzen

HEREDATU

heredar, tomar en herencia

heredatu *dau* ad. Oinordekotzan hartu. ¬

heredero, herederua

OINORDEKO

heredero, -a

heredero adj./iz. Oinordekoa; pertsona bat hiltzean, legez haren ondasunen jabe bihurtzen den pertsona; pertsona batek bere ondarearen jasotzaile izendatzen duen pertsona. *Eredero asko zukatziein, ta emateko, gutxi* 'heredero [oinordeko] asko zituzten, eta emateko, gutxi'.

herenzia

HERENTZIA

herencia (Biol.)
herencia, legado

herentzia (> *erenzia*) **1** iz. Ondoretasuna, ondorengoei biologia-ezaugarriak transmititzea. *Erenzien eztok etorri mozkorrik* 'herentzian ez duk etorri mozkorrik'. **2** iz. Oinordekotza.

heriotza

HERIOTZA

hiltze — *bizitza*

muerte, expiración

heriotza (> *eriotza*) iz. Ik. **hiltze**. ▼ Anton. *bizitza*. ◆ **heriotzean egon** (> *eriotzĭen yon*). *Eriotzien do* 'heriotzean dago'. ◆ **heriotzako ordu** (> *eriotzeko ordu*). **1** Bizitzaren bukaera. *Heriotzeko ordua noiz etorriko*. **2** Azken unea. ◆ **heriotzako orduan** (> *eriotzeko orduen*) adb. Heriotzako orduan; azken unean. *Beti eriotzeko orduen ibiltzen da, lanak ezin despeitu* 'beti heriotzako orduan aritzen da, lanak ezin bukatu'. *Neska!, beti korrikan eta eriotzeko orduen* 'neska!, beti korrika eta heriotzeko orduan'. ¬

herrero, herrerua

ERREMENTARI, AROTZ

errementari; arotz; sutaile/a.

herrero, -a

herrero (> *errero*) iz. Errementaria, arotza. Ik. **errementari**; **arotz**; **sutaile/a**.

herri, herria

HERRI

pueblo; país
pueblo, población, habitantes
popular, del pueblo

herri **1** iz. *Erri pobrĭa da oi* 'herri pobrea da hori'. *Aldapatsua da gwe erria* 'aldapatsua da gure herria'.
2 iz. Herritarrak. *Erriek esan berko dau zeozer* 'herriak esan beharko du zeozer'.
3 Herriari dagokiona. *Herriko festak*; *herriko dantzak*.
◆ **herriko baso**. pl. *herriko baswek*. Herri basoak. Ik. **herriko lur**; **komunal**.
◆ **herriko etxe** (Iza Alts) iz. Udaletxea. Ik. **herrientxe** [Urdiain].
◆ **herriko lur**. (Batez ere pl.) *herriko lurrak*. Herri-lurra, komunala. Ik. **herriko baso**; **komunal**.

herrientxe, herrientxia

UDALETXE, HERRIKO ETXE

herriko etxe [Altsasu]; aiuntamentu

casa consistorial, ayuntamiento

herrientxe iz. Udaletxea, herriko etxea. Urdiainen erabiltzen da; beste herrietan *aiuntamentua*. *Errientxeko auzwen inko da batzarra* 'Herrientxeko auzoan [batzar gela] egingo da batzarra'. Ik. **herriko etxe** [Altsasu]; **aiuntamentu**.

herriko baso, herriko basuek

HERRI BASO(AK)

herriko lur, komunal

monte comunal

herriko baso. pl. *herriko baswek*. Herri basoak. Ik. **herriko lur**; **komunal**.

herriko etxe

HERRIKO ETXE

herrientxe

ayuntamiento, casa consistorial

herriko etxe (Iza Alts) iz. Udaletxea. Ik. **herrientxe** [Urdiain].

herriko lur, herriko lurra

HERRI LUR

herriko baso, komunal

terreno comunal

herriko lur iz. (Batez ere pl.) *herriko lurrak*. Herri-lurra, komunala. Ik. **herriko baso**; **komunal**.

herritar, herritarra

HERRITAR

paisano, -a; conciudadano, -a; compatriota, coterráneo, -a

herritar iz. Norbaitendako, herri berekoa den pertsona. ¬

herritxoi, herritxoia

HERRITXORI, TXOLARRE

eliztxoi

gorrión (Passer domesticus)

herritxori, herritxoria

HERRITXORI, TXOLARRE

eliztxoi

gorrión (Passer domesticus)

herritxori [Altsasu] iz. Txolarrea, etxetxoria (Passer domesticus). Ik. **eliztxori** (> *eliztxoi*) [Urdiain].

hesi, hesia

HESI

seto
valla

hesi iz.

hesitu, hesitzen

HESITU

akotatu

acotar, cercar

hesitu (> *esitu*) *dau* ad. Ik. **akotatu**.

hesola, hesolia

HESOLA*

valla con tablas, vallado de tablas

hesola iz. Oholez egindako hesia. *Hesolak*. *Esitzeko ola* 'hesitzeko ohola'.

hespil, hespila

HESPIL

cercado

hespil iz. Lursail hesitua, esparrua. *Espilĭen ibiltzen dau batzĭa* 'hespilean ibiltzen [edukitzen] du baratzea'.

hestarteko

MESENTERIO, ENTRESILU

intrintxilu, intrisilu

redaño, mesenterio, entresijo

hestarteko iz. Mesenterioa (axuri eta ardiena) (Ond Bak). Ik. **intrintxilu**, **intrisilu**.

heste, hestia

HESTE

intestino

heste iz. Batez ere pl. *hestĭek*. ◆ **heste lodi** (> *este lodi*). ◆ **heste mehe** (> este me). Heste meharra.

hestegorri, hestegorria

HESTEGORRI (?)

esófago (?)

hestegorri iz. (?)

heze, hezia (1)

HEZE

húmedo, -a

heze[1] (> *eze*) adj. Mustia.

heze, hezia (2) / hexe, hexia

SAMUR

samur; 2 samur, erraz

blando, -a, tierno, -a
fácil

heze[2] (> *eze, exe*) **1** adj. Samurra. *Aragi exĭa* 'haragi hezea [samurra]. Ik. **samur**. **2** adj. Erraza, samurra. *Bizimodu ezĭa* 'bizimodu hezea [erraza, samurra]'. *Bizi, ézĭo, errázo* 'bizi, hezeago, errazago. Ik. **erraz**.

hezetasun, hezetasuna

HEZETASUN

umedade

humedad

hezetasun iz. Hezea denaren edo dagoenaren nolakotasuna. *Gelatxikien ezetasun aundia do* 'gelatxikian [sukalondoan] hezetasun handia dago'. Ik. **umedade**. ¬

hezetu, hezetzen

HEZETU

humedecer(se), mojar(se), refrescar(se)

hezetu *da/dau* ad. *Arropĭa plantxatzeko ezetu* 'arropa lisatzeko hezetu'. *Musti ez, bea arropĭa ezetu in zaira yauripĭen* 'busti ez, baina arropa hezetu egin zait euripean' (LM).

hezi, hezitzen

HEZI

edukatu; domestikatu

hezi ad. *Animalioi ezi'be do* 'animalia hori hezi gabe dago. • Esr. zah. *Umĭek azitzen eta ganawek ezitzen ikasten da bizitzen / Aurrak azitzen ta behiek ezitzen ikasten da bizitzen* 'umeak hazten eta ganaduak hezten ikasten da bizitzen / Aurrak hazten ta behiak hezten ikasten da bizitzen'. Ik. **edukatu**; **domestikatu**.

hezia / hezio

HEZE(A) / HEZEAGO (SAMUR)

blando, -a, tierno, -a
fácil

hezitzaile, hezitzailia

HEZITZAILE

domatzaile

educador, -a; instructor, -a
domador, -a; adiestrador, -a

hezitzaile (Ond Bak). **1** iz. Gizakiak hezten dituen pertsona. **2** iz. Hezlea. Ik. **domatzaile**.

hezur-huts; hezur ta azal

HEZUR-HUTS; HEZUR ETA AZAL

en los huesos; enflaquecer, no tener más que huesos y pellejo

hezur-huts (gelditu, yon... aditzekin)

hezur, hezurra

HEZUR

hueso
espina
hueso, cuesco

hezur iz. *Ezurra ausi zen* 'hezurra hautsi zuen'. *Otza ta ezetasuna ezurretaindo sartzen dĭa* 'hotza eta hezetasuna hezurretaraino sartzen dira'.
– hezur-huts. – hezur hutsien.
– hezur ta azal.
– hezurretan yon.
◆ **hezurra atera** (> *hezurra ata*). Hezurrez eta kidekoez mintzatuz, bere tokitik atera. Ik. **dislokatu**.
◆ **soin hezur** iz. Soineko hezurra, sorbalda hezurra; akromiona (?). *Soin(eko) ezurra ata* 'soin hezurra atera'.

hezurki, hezurkia

HEZURKI

hezurki (> *ezurki*) iz. Hezurdun haragia, normalean bizkarrezurrarena.

hezurra ata

HEZURRA ATERA, DISLOKATU

dislokatu

dislocar(se), luxar(se)

hezurra atera (> *hezurra ata*). Hezurrez eta kidekoez mintzatuz, bere tokitik atera. Ik. **dislokatu**.

hi

HI

tú

hi izord. Singularreko bigarren pertsonaren izenordaina, hitz egiten ari denak aurrean duen entzulea adierazten duena. (Lagunarteko hizkeran baizik ez da erabiltzen). Ik. **zu**; **hiau**. [Intensiboa: *hiau*]. ¬

hiau

HEU

tú mismo, tú misma

hiau (> eta *yau*) **1** izord. Heu; *hi* izenordainaren era indartua. **2** izord. (hi-ren eskuinean, hark hartzen duen kasu atzizki bera hartuz). ¬

hibrido, hibridua

HIBRIDO

híbrido, -a

hibrido adj./iz. *Maiz hibridwa* 'arto hibridoa'.

hikan

HIKA (2)

hiketan

tuteando; hablar o escribir utilizando las formas verbales correspondientes al pronombre

hikan adb. Hika; *hi* izenordaina eta dagozkion aditz formak erabiliz. Ik. **nokan** / **noketan**; **tokan**. ▲ Sin. **hiketan**.

hiketa, hiketia

HIKETA

tuteo, tratamiento familiar

hiketa iz. Hika hitz egitea, hitanoa. Ik. **noketa**. ◆ **hiketan** adb. Hika. Ik. **hikan**. ¬

hiketan

HIKETAN

hikan

tuteando; hablar o escribir utilizando las formas verbales correspondientes al pronombre

hiketan adb. Hika. Ik. **hikan**. ¬

hil ezkila, hil ezkilia

HIL EZKILA

campanas que tocan a muerto

hil ezkila. Norbaiten heriotzaren berri ematen duen ezkila-hotsa. *Il ezkilak jo tuai. Bakizu nor il dan?* 'hil ezkilak jo dituzte. Badakizu nor hil den?'.

hil izara

HIL OIHAL

sudario

hil izara. Hil oihala; hila biltzeko edo estaltzeko erabiltzen den izara. *Yaten zubein ilia kajaipe, il izaran bilduta* 'eramaten zuten hila kajarik gabe, hil izaran bilduta'.

hil kaja, hil kajia

HILKUTXA

kaja

ataúd, féretro

hil kaja iz. Hilkutxa. *Korona ta lora-sortaz estalik zon il-kajĭa* 'koroa eta lore-sortaz estalirik zegoen hilkutxa'. Ik. **kaja**.

hil o bizi

HIL EDO BIZI

a vida o muerte
cueste lo que cueste, a toda costa, a todo trance

hil edo bizi (> *il o bizi*) **1** adb. *Il o bizi opiatu dai biotzeti* 'hil edo bizi operatu dute bihotzetik'. **2** adb. *Il o bizi, despeitu berra de lan oiek* 'hil edo bizi, despeditu [bukatu] beharra daude lan horiek'.

hil ohia, hil ohia

HIL OHE, ANDA(K)

andas

hil ohia (*a* itsatsia). Hil ohea; andak. *Ilia yaten zan il oian, il izaran bilduta* 'hila eramaten zuten hil ohean, hil izaran bilduta'.

hil, hila

HIL (3)

hilabete

mes

hil (> *il*) iz. Urtea banatzen den hamabi zatietako bakoitza. *Ilain izenak aztuta dukatziai* 'hilen izenak ahaztuta dauzkate'. *Ilien bein* 'hilean behin'. *Lastailien ge* 'lastailean [urria] gaude'. Gaur *zenbat dau / dik / din ilak?* 'Gaur zenbat du / dik / din hilak'. *Ilan asi(g)eran* 'hilaren hasieran'. *Ilan azkeinĭen* 'hilaren azkenean'. || *Ilbeltza, hil txúri* (Ond Bak). Ik. **hilabete**.

hil, hila / hila, hilia

HIL (2)

hildako, difuntu

muerto, -a, difunto, -a

apagado, -a, tenue, sin vida, sin fuerza, manso, -a, tranquilo, -a

hil(a) (*a* itsatsia –batzuetan hartzen du– *hil*, *hila* / *hila*, *hilia*) **1** iz. Pertsona hila. *Mezia eman hilandako* (Ond Bak). Ik. **hildako**; **difuntu**. **2** adj. *Agi hila*. *Kolore hila*. | *Araitz egurra, sutako, pagwa baindo ilokwa* 'haritz egurra, sutarako, pagoa baino hilagoa'. ◆ **hil ezkila**. Norbaiten heriotzaren berri ematen duen ezkila-hotsa. *Il ezkilak jo tuai. Bakizu nor il dan?* 'hil ezkilak jo dituzte. Badakizu nor hil den?'. ◆ **hil izara**. Hil oihala; hila biltzeko edo estaltzeko erabiltzen den izara. *Yaten zubein ilia kajaipe, il izaran bilduta* 'eramaten zuten hila kajarik gabe, hil izaran bilduta'. ◆ **hil kaja** iz. Hilkutxa. *Korona ta lora-sortaz estalik zon il-kajĭa* 'koroa eta lore-sortaz estalirik zegoen hilkutxa'. Ik. **kaja**. ◆ **hil ohia** (*a* itsatsia). Hil ohea; andak. *Ilia yaten zan il oian, il izaran bilduta* 'hila eramaten zuten hil ohean, hil izaran bilduta'.

hil, hiltzen

HIL (1)

(radiua, telebisiua...) kendu

1 bizi, piztu; 3 yazi

morir, fallecer

matar, asesinar, quitar la vida

apagar, extinguir

hil **1** *da* ad. Bizia galdu, bizitzeari utzi. *Atzo hil zan* 'atzo hil zen'. Bat hiltzen dan garaien. Hilko al daiz 'haiz' bertan! (Ond Bak). *Ze inko du, ba?, hil artia bizi* 'zer egingo dugu, bada: hil arte, bizi'. • Esr. zah. *Gu ilda're, zakuek errotá fanko dĭa* 'gu hilda ere, zakuak errotara joango dira'. || • *Guzien zorra eta ez jakin noiz da* [eta] *nola* [hil beharra] (Ond Bak). ▼ Anton. *bizi*, *piztu*. **2** *dau* ad. Bizia kendu. *Il artĭa eman zĭan* 'hil arte eman zion'. **3** *da/dau* ad. Itzali. ▼ Anton. *yazi*. *Radiua hil*; *telebisiua hil*. Ik. **kendu**. *Sua hil*; *argia hil*. ◆ **hil edo bizi** (> *il o bizi*) **1** adb. *Il o bizi opiatu dai biotzeti* 'hil edo bizi operatu dute bihotzetik'. **2** adb. *Il o bizi, despeitu berra de lan oiek* 'hil edo bizi, despeditu [bukatu] beharra daude lan horiek'.

hilabete, hilabetia

HILABETE

hil

mes (conjunto de días consecutivos desde una fecha hasta la misma del mes siguiente)

mes (cada una de las doce partes en que se divide el año)

hilabete **1** iz. Hilaren hasieratik amaiera arteko denbora. *Juxtu-juxtua pasatu dot ilabetĭa* 'justu-justu pasatu dut hilabetea'. **2** iz. Hila. Hauek dira hilen izenak Urdiainen: *Ilbeltza*, *otsaila*, *marsua*, *apibila*, *maiatza* / *maietza*, *garagarrila*, *garila*, *aguztua*, *urria*, *lastaila*, *azarwa*, *abendua*.

hilabetio

HILABETERO

hilio

mensualmente, todos los meses

hilabetero (> *ilabetĭo*) adb. Ik. **hilero** (> *ilĭo*).

hiletak

HILETA

funeral(es), honras fúnebres; entierro

hileta iz. pl. *Hiletak*. Ik. **funtzio**.

hilio

HILERO

hilabetio

mensualmente, todos los meses

hilero (> *ilĭo*) adb. Ik. **hilabetero** (> *ilabetĭo*).

hiltzaile, hiltzailia

HILTZAILE

que mata, asesino, -a; matador, -a; exterminador, -a; matarife

hiltzaile adj./iz. Pertsonez edo animaliez mintzatuz, hiltzen duena. *Txerri iltzailĭa* 'txerri hiltzailea'.

hiltze, hiltzia

HILTZE

heriotza

muerte
matanza

hiltze (> *iltze*) **1** iz. Heriotza. *Iltzĭa ezta txarrena* 'hiltzea ez da txarrena'. Ik. **heriotza**. **2** iz. Hilketa. *Etorri da txerri iltze garaia* 'etorri da txerri hiltze garaia'.

hilzori, hilzoria

HILZORI

agonio

agonía, estado que precede a la muerte

hilzori iz. Agonia. Ik. **agonio**. ◆ **hilzorian** (> *ilzorien*) adb. Hiltzeko zorian. *Ilzorien yon* 'hilzorian egon'.

hintxa, hintxia

EZINIKUSI

nazikusi

hincha

hintxa iz. Ik. **nazikusi**.

hiru

HIRU

tres

hiru **1** zenbtz. Bi eta bat, 3. *hiru*, *hiruk*, *hiruek*, *hiruroindako*. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan hirugarrena. **3** (Data adierazteko). *Gaur ilak iru dukatzi* 'gaur hilak hiru dauzka'. **4** (Ordua adierazteko). *Atsaldeko iruetan* 'arratsaldeko hiruretan'. ◆ **hiru aldiz egun**. Hiru aldiz ehun, hirurehun. Ik. **hiruregun**.

hirubide (?)

BIDEBANATZE, HIRUBIDE

bifurcación, trivio

hirubide (?) iz. Bidegurutzea, bidebanatzea. Ik. **kruze**.

hirugarren azkeineko, hirugarren

AZKEN-HIRUGARREN

antepenúltimo, -a

hirugarren azkeneko (> *irugarren azkeineko*) ord. Azken-hirugarrena, azken-aurrenaren aurre-aurretik dagoena. *Botagera galanta in dau karreran ta, alare, despeitu ta irugarren azkeineko in dau* 'botaera [eroriko] galanta egin du lasterketan eta, hala ere, despeditu [bukatu] eta azken hirugarren egin du'.

hirugarren, hirugarrena

HIRUGARREN

tercero, -a

hirugarren **1** ord. Zerrenda batean aurretik bi dituena. **2** (Adizlagun gisa). *Korrikan irugarren in ziken / zinen* 'korrika hirugarren egin zian / zinan'. ◆ **hirugarrenean** (> *irugarrenĭen*) adb. Hirugarren aldian. ◆ **hirugarren azkeneko** (> *irugarren azkeineko*) ord. Azken-hirugarrena, azken-aurrenaren aurre-aurretik dagoena. *Botagera galanta in dau karreran ta, alare, despeitu ta irugarren azkeineko in dau* 'botaera [eroriko] galanta egin du lasterketan eta, hala ere, despeditu [bukatu] eta azken hirugarren egin du'.

hirugihar (?)

HIRUGIHAR

tocino entreverado

hirugihar (?) Ik. **urdai betadun**.

hiruki, hirukia

HIRUKI

trillizo, -a

hiruki adj./iz. Senideez edo umeez mintzatuz, hiruko sabelaldi berean jaiotakoa. (*hirukide*, *hirukidiek* (?) LM).

hiruko morroxila

BASOETAKO MINGOTS, BARRABAS-BELAR (?)

aleluya ((Oxalis acetosella L.).

hiruko morroxila. (Bot.) Basoetako mingotsa; landare jangarria (Oxalis acetosella L.). *Iruko morroxilak, jateko goxuek eta minkarrak dĭa* 'hiruko morroxilak, jateko goxoak eta minkarrak dira'.

hiruko pitxilita, hiruko pitxilitia

SANJOSE LORE

prímula, primavera (Primula veris)

hirukopitxilita iz. Bot. (Primula veris) Sanjose-lore usainduna. *Marsuen atatzen dĭa irukopitxilitak* 'martxoan ateratzen dira hirukopitxilitak'.

hiruko, hirukua

HIRUKO

trío, tríada, que tiene tres elementos
tres; trío (en naipes)

hiruko **1** iz. Hiruk osaturiko gauza. **2** adj./iz. Joko kartez mintzatuz, sail bereko hiru irudi dituena. *Iruko ezpatĭa nukaken* 'hiruko ezpata neukaan'.

hirunsube

HERENSUGE

dragón, -a (animal fabuloso)

hirunsube ([Bakaiku] eta *irainsube* [Urdiain]) iz. Herensugea; alegiazko piztia izugarria, hegoak, atzaparrak eta narrasti gorputza dituena. Ik. **irainsube**.

hiruorri belar

HIRUSTA

trévol silvestre

hiruorri belar iz. (Bot.) Hirusta (Trifolium sp.). [Trévol silvestre (Ond Bak)]. Ik. **trebol**.

hiruregun

HIRUREHUN

trescientos, -as

hiruregun **1** zenbtz. Hirurehun, hiru bider ehun, 300. 2 iz. Zenbaki arrunten segidan hirurehungarrena. *OEH irutan eun G-nav; irutenaun G-nav). Ref.: Bon-Ond. Ik. **hiru aldiz egun**.

hiruri biar, hiruri biarra

HIRUSTA GORRI, SEKULA BELAR

trébol rojo (Trifolium pratense)

hiruri belar (> *iruri biar*) iz. (Bot.) Hirusta gorria; belar landare lekaduna, lore arrosa-moreak ematen dituena (Trifolium pratense). *Iruri bĭarra, pinpilindarien modukwa* (AG).

hirurogei

HIRUROGEI

sesenta

hirurogei zenbtz. Sei bider hamar, 60.

hitz ein, hitz eiten

HITZ EGIN

hablar; conversar

hitz egin (> *itz ein*, *itz in*). *Hitz itia galazi* 'hitz egitea galarazi' (Ond Bak). *Ez tau itzik iten* 'ez du hitzik egiten'.

hitz erdi

HITZ ERDI

media palabra, alusión
ni palabra

hitz erdi **1** *Naikwa itz erdi bat entenditzeko* 'nahikoa hitz erdi bat entenditzeko'. *Orrengeiti itz erdi bat esaten bajwan, majwek aitu ber jitun* 'horregatik hitz erdi bat esaten bazidan, majoak [ederrak] aditu behar ditin'. **2** (Ezezko esaldietan). *Itz erdi bat esan be fan da* 'hitz erdi bat esan gabe joan da'.

hitz eta putz

HITZ ETA PITZ

charlando, cotorreando

hitz eta putz adb. Hitz eta pitz; berriketan.

hitz inazi

HITZ EGINARAZI

hitz eginarazi (> *itz inazi*). Hitz egitera behartu. *Itz inazi nai zian, kontu zarrak atazi* 'hitz eginarazi nahi zion, kontu zaharrak aterarazi'.

hitz legun, hitz leguna

HITZ LEUN

hitz zakar

modo de habla apacible, dulce
palabra melosa

hitz legun. Hizkera leuna, suabea. ▼ Anton. *hitz zakar*.

hitz zakar

HITZ ZAKAR

hitz legun

modo de habla tosco
palabra malsonante

hitz zakar. Hizkera zakarra. ▼ Anton. *hitz legun*.

hitz, hitza

HITZ

palabra
palabra, promesa

hitz **1** iz. • Esr. zah. *Poltsán diruík eztekanák, aguén hitzík ez* 'poltsan dirurik ez daukanak, ahoan hitzik ez' (Ond Bak). • Esr. zah. *Hitzak finak eta putzak minak* [aurrez, hitz politak; atzetik, gaizki esaka. Hitzak ederrak, bihotza faltsu]. Ik. **hitzaldi**. **2** iz. Agintzen den gauza. *Emandako itza bete berko dau* 'emandako hitza bete beharko du'. ◆ **ahoan hitzik ez** (> *agwen hitzik ez*). Isila. ◆ **bi hitz (ez) esan**. Hitz gutxi egin. *Bi itz ez duatzi esan* 'bi hitz ez dizkit esan'. ◆ **hitza!** interj. Kaka zaharra! [hitza besterik ez]. ◆ **[hitza] agoti(k) kendu**. ◆ **hitza bete**. Agindu dena egin. ◆ **hitza eman**. Hitzeman. *Itza eman dik, bea ez kunplitu* 'hitza eman dik, baina ez konplitu'. Ik. **agindu**. ◆ **hitza franko!** Berriketa, hitz egin eta hitz egin. ◆ **hitza gogoti(k)!** Hitz asko baina fundamentuzko ezer ez. ◆ **hitza justo egin** (> *itza juxto in*) **1** Harremana saihesteko, hitz gutxi egin. **2** Norbait oso gaizki dagoela adierazteko, ezertarako indarrik gabe dagoela adierazteko. ◆ **hitz egin** (> *itz ein*, *itz in*). *Hitz itia galazi* 'hitz egitea galarazi' (Ond Bak). *Ez tau itzik iten* 'ez du hitzik egiten'. ◆ **hitz eginarazi** (> *itz inazi*). Hitz egitera behartu. *Itz inazi nai zian, kontu zarrak atazi* 'hitz eginarazi nahi zion, kontu zaharrak aterarazi'. ◆ **hitz erdi** **1** *Naikwa itz erdi bat entenditzeko* 'nahikoa hitz erdi bat entenditzeko'. *Orrengeiti itz erdi bat esaten bajwan, majwek aitu ber jitun* 'horregatik hitz erdi bat esaten bazidan, majoak [ederrak] aditu behar ditin'. **2** (Ezezko esaldietan). *Itz erdi bat esan be fan da* 'hitz erdi bat esan gabe joan da'. ◆ **hitz eta putz** adb. Hitz eta pitz; berriketan. ◆ **hitz legun**. Hizkera leuna, suabea. ▼ Anton. *hitz zakar*. ◆ **hitz zakar**. Hizkera zakarra. ▼ Anton. *hitz legun*.

hitza bete

HITZA BETE

cumplir lo prometido, cumplir la palabra

hitza bete. Agindu dena egin.

hitza eman

HITZEMAN

agindu

prometer, comprometerse, empeñar, dar (alguien) su palabra

hitza eman. *Itza eman dik, bea ez kunplitu* 'hitza eman dik, baina ez konplitu'. Ik. **agindu**.

hitzaldi, hitzaldia

ESALDI, ESAMOLDE, ESAPIDE, HITZ

hitz, hizketa

locución; frase

hitzaldi iz. Esaldia, esamoldea, esapidea; hitza. *Itzaldi oiek galdwik de* 'hitzaldi horiek galdurik daude'. ▲ Sin. *hitz*, *hizketa*. Cf. txarla.

hitzontzi, hitzontzia

HITZONTZI

berriketalai, karraka

hablador, -a, parlanchín, -ina

hitzontzi adj. Asko hitz egiten duena. Ik. **berriketalari** (> *berriketalai*); **karraka**.

hitzontzikeia

HITZONTZIKERIA

alkahueteia

charlatanería

hitzontzikeria (> *itzontzikeia*) iz. Ik. **alkahueteria**.

hitzots, hitzotsa

HITZOTS

ruido / murmullo de voces

hitzots iz. Hitzen hotsa. *Gelortan itzotsa aitzen da* 'gela horretan hitzotsa aditzen da'.

hizkera

HIZKERA

modo/forma de hablar, modo de expresión
modo de hablar la lengua, modalidad/variedad lingüística

hizkera **1** iz. Hitz egiteko era. **2** iz. Pertsona baten edo gizatalde baten hitz egiteko era. *Beste izkera bat dukai* 'beste hizkera bat daukate'.

hizketa, hizketia

HIZKETA

habla, conversación, charla

hizketa iz. *Jendĭa daile or, izketa otsak aitzen dĭa* 'jendea dabil hor, hizketa hotsak aditzen dira'. ◆ **hizketan** adb. Hitz egiten. *Izketan, ixildube* 'hizketan, isildu gabe'. *Izketan gendaitzala an agertu zanen/zaken* 'hizketan genbiltzala han agertu zunan/zuan'. ◆ **hizketarako bidea paratu** (> *hizketako bidĭa patu*). Hizpidea paratu [dar que hablar]. *Independenzia dala-ta, katalanak hizketako bidĭa patu dai* 'independentzia dela-eta, katalanek hizketarako bidea paratu dute'. *Izketa garrasiz iten dau* 'hizketa garrasiz egiten du'.

hizketaldi, hizketaldia

HIZKETALDI

gonbestazio

conversación, charla

hizketaldi iz. Hizketa; norbaitekin egiten den hizketa. ▲ Sin. *gonbestazio*.

hizketan

HIZKETAN

hablando, conversando

> **hizketan** adb. Hitz egiten. *Izketan, ixildube* 'hizketan, isildu gabe'. *Izketan gendaitzala an agertu zanen/zaken* 'hizketan genbiltzala han agertu zunan/zuan'.

hizlai, hizlaia

HIZLARI

orador, -a; hablante

hizlari (> *izlai*) iz. ¬

hiztun, hiztuna

HIZTUN

hablador, -a, charlatán, -ana, locuaz, parlanchín, -ina; orador, -a

hiztun iz. (Trebetasunez, nekez...) mintzatzen den pertsona.

hobe

HOBE

mejor

hobe adj. *Hobe bêrréz uzten gindán lo-itén. Baindo hobe. Apiribila hobe izango zalakuen* (Ond Bak).
Hobe ez fatia. *Urtĭaiek, obe fanik* 'urte haiek, hobe joanik'.
Hobe da ero, baindo (?) bero (Ond Bak).
◆ **hobe beharrean** (> *obe berrĭen*). Hobe beharrez, asmorik onenaz, hobe delakoan.
◆ **hobe izan**, *hobe izaten*, *hobe izanko/hobeko da/dau* ad. Hobe dezu..., hobe dok/don...
◆ **hobe (izan) aparte**. (Esapidea) Edozein asmo burutik kentzeko esaten da. *Obĭok aparte* 'hobe dok aparte'.
hobioxo.
◆ **hobe du hutsa** (*obe dau utsa*). Mehatxuzko abisua, norbaiti duen asmoa eragozteko egiten zaiona, 'halakorik egitea, ezta pentsatu ere!' adierazten duena. *Gaur ilobĭek esan jwak estudiatzeti autzi in ber dela; obe dik utsa!* 'gaur ilobak esan zidak estudiatzetik utzi egin behar duela; hobe dik hutsa!'. *Mukizu oiek sanferminetá enzierrwá korritzĭá fan ber dĭala?* Obe dai utsa! 'mukizu horiek sanferminetara entzierroa korritzera joan behar direla? Hobe dute hutsa!'.

hobe berrien

HOBE BEHARREZ

de buena fe, con el mejor deseo, por el bien de

hobe beharrean (> *obe berrĭen*). Hobe beharrez, asmorik onenaz, hobe delakoan.

hobe dau hutsa

HOBE DU HUTSA

ni pensarlo; ni hablar; de ninguna manera

hobe du hutsa (*obe dau utsa*). Mehatxuzko abisua, norbaiti duen asmoa eragozteko egiten zaiona, 'halakorik egitea, ezta pentsatu ere!' adierazten duena. *Gaur ilobĭek esan jwak estudiatzeti autzi in ber dela; obe dik utsa!* 'gaur ilobak esan zidak estudiatzetik utzi egin behar duela; hobe dik hutsa!'. *Mukizu oiek sanferminetá enzierrwá korritzĭá fan ber dĭala?* Obe dai utsa! 'mukizu horiek sanferminetara entzierroa korritzera joan behar direla? Hobe dute hutsa!'.

hobeki (*)

HOBEKI

hobeto

mejor

hobeki (*) adb. [Erabiltzen dira *hobekio*, *hobekixo*, *hobekien(a)*, baina ez da aditzen «*hobeki*» konparatibozko era.]. Ik. **hobeto**. ◆ **hobekien(a)**. Era onenean. *Bier fatĭa izango da obekiena* 'bihar joatea izango da hobekiena'. || *Orrek daki obekiena* 'horrek daki hobekien'. ◆ **hobekien-hobekiena**. Hobekien.

hobekien, hobekiena

HOBEKIEN

mejor, de la mejor manera; lo mejor posible

hobekien(a). Era onenean. *Bier fatĭa izango da obekiena* 'bihar joatea izango da hobekiena'. || *Orrek daki obekiena* 'horrek daki hobekien'. ◆ **hobekien-hobekiena**. Hobekien. ¬

hobekio

HOBEKIAGO

hobeto

mejor

hobekiago (> *obekio*) adb. Hobeki (*hobeki* adberbioak konparazioan hartzen duen forma). [Erabiltzen dira *hobekio*, *hobekixo*, *hobekien(a)*, baina ez da aditzen «*hobeki*» konparatibozko era.]. Ik. **hobeto**. ¬

hobekixo

HOBEKIXEAGO

hobetoxo

algo mejor, un poquito mejor

hobekixeago (> *obekixo*) adb. Adkor. Zertxobait hobekiago. Ik. **hobekiago** (> *obekio*). ▲ Sin. *hobetoxeago* (> *obetoxo*). ¬

hoben, hobena

HOBEREN

(el, la, lo) mejor, óptimo, -a

hoberen (> *oben*, *obena*) adj. Onena. *Gauzaik obena, osasuna* 'gauzarik hoberena, osasuna'. – hobenak emanik 'onenak / hoberenak emanik'.

◆ **hoberen-hoberena** (> *oben-obena*). Onen-onena. *Oben-obena izango da launtasuna eskatzĭa* 'hoberen-hoberena izango da laguntasuna eskatzea'. ◆ **hoberenik hoberen** (> *obenik oben*) adb. Onenetik onenera. *Atatzak porruek obenik oben* 'atera ezak porruak hoberenik hoberen'.

hobenien

HOBERENEAN*, BEHARBADA, ONENEAN

berba, igual, igualien

a lo mejor; quizá, tal vez

hoberenean (> *obenien*) adb. Beharbada, agian, onenean. Ik. **beharbada** (> *berba*); **igual**. *Eztakigu, bea obenien etorku'a* 'ez dakigu, baina hoberenean [beharbada] etorriko da'. ¬

hobenik hoben

HOBERENIK HOBEREN

del mejor al mejor

hoberenik hoberen (> *obenik oben*) adb. Onenetik onenera. *Atatzak porruek obenik oben* 'atera ezak porruak hoberenik hoberen'.

hobeto

HOBETO

hobekio

mejor

hobeto adb. *ondo* adizlagunari dagokion konparatibozko era. Ik. **hobe**; **hobeki** (*); **hobekiago** (> *obekio*).

◆ **askoz hobeto**. *Askoz obeto bizi dĭa* 'askoz hobeto bizi dira'.

◆ **ezin hobeto**.

◆ **hobeto beharrean** (> *obeto berrĭen*) adb. Hobe beharrez, asmorik onenaz, hobe delakoan. *Obeto berrĭen esan diat, bea txarki artu dau* 'hobeto beharrean esan diot, baina txarki hartu du'.

◆ **hobeto egin** (> *obeto in*). *Hobeto inko hikek fanko bahitzake*. *Hobeto inko hike bizarroi kenduko bahike*.

◆ **hobeto egon** (> *obeto yon*). **1** Egoeraz hobeto aurkitu. **2** Asko, gehiegi. *Autwa obeto do emen ointua baindo* 'autoa hobeto dago hemen onddoa baino'.

◆ **hobeto eritzi** (> *obeto yaitzi*). *Hobeto yaizten zaira bestaldia inko bazenduke*.

◆ **hobeto esateko**. Esandakoa zuzentzeko edo egokiago esateko erabiltzen den esapidea.

◆ **ondo baino hobeto (egon, egin, ikusi...)** (> *ondo baindo obeto yon, in, ikusi...*).

• Esr. zah. Apaiza infernuan baino hobeto (egon) (> *apiza ifarnuen baindo obeto yon*). — *Ondo ze? —Apiza ifarnuen baindo obeto!* '—Ondo zaude? —Apaiza infernuan baino hobeto!'. || • *Ne baindo obeto dona, jodia dailela! (Jan onduen esaten dana)*. 'ni baino hobeto dagoena, izorra dadila! (jan ondoan esaten dena)'. ¬

hobeto berrien

HOBETO BEHARREAN, HOBE BEHARREZ

de buena fe, con el mejor deseo, creyendo que es lo mejor

hobeto beharrean (> *obeto berrĭen*) adb. Hobe beharrez, asmorik onenaz, hobe delakoan. *Obeto berrĭen esan diat, bea txarki artu dau* 'hobeto beharrean esan diot, baina txarki hartu du'.

hobetoxo

HOBETOXEAGO

hobekixo

algo mejor, un poco mejor

hobetoxeago (> *obetoxo*) adb. Adkor. Zertxobait hobeto. Ik. **hobeto**. ▲ Sin. *hobekixeago* (> *obekixo*). ¬

hobetu, hobetzen

HOBETU

mejoratu

mejorar, hacer mejoras; hacerse mejor; corregir, enmendar; restablecerse

hobetu *da/dau* ad. Hobe bihurtu, hobera aldatu; zerbaitetan hobekuntzak egin. Ik. **mejoratu**. ¬

hodei, hodeia

EKAITZ, HODEI*

ekaitz, trunboi

tormenta; tempestad, temporal; borrasca

hodei iz. (Batez ere sing.) Ekaitza. *Odeia sartu da Arabati* 'hodeia [ekaitza] sartu da Arabatik'. Ik. **ekaitz**; **trunboi**.

hogei

HOGEI

veinte

hogei **1** zenbtz. Bi bider hamar, 20. *Hogéi egunekuá da bakaziua* (Ond Bak). **2** iz. Zenbaki arrunten segidan hogeigarrena. **3** (Data adierazteko). **4** (Orduak adierazteko).

hogeita bost

HOGEITA BOST

veinticinco

hogeita bost **1** zenbtz. Hogei eta bost, 25. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan hogeita bosgarrena. **3** (Data adierazteko). *Marsuben hogeita bostien* (Ond Bak). **4** (Orduak adierazteko). ¬

hogi, hogia

HOBI, HILOBI

fosa, sepultura

hogi iz. Hobia, hilobia; lurrean egindako zulo edo barrunbea, bereziki hilak lurperatzeko erabiltzen dena. *Elizako hogiek*. Aurrizaria da hogien 'hobian' patzen dan oihala argizaiekin eta bi kandelero ziriuekin, bat hiltzen dan garaien bedratziurrena iteko ta arimasaiokuen [aniversario] ere (Ond Bak).

hoi

HORI (1)

ese, esa
ése, ésa, eso
¡qué!, ¡vaya!, ¡ése/ésa/eso sí que!

hoiek

HORIEK

esos, esas
¡qué!, ¡vaya!, ¡ésos/ésas sí que!
ésos, ésas

hoiek (> *oiek*) erak./izord. Horiek. *Ondoko bi etxe oiek saltzeko de* 'ondoko bi etxe horiek saltzeko daude'. *Oiek tun artzekwek, oiek, dukatzienak!* 'horiek ditun hartzekoak [exijentziak], horiek, dauzkanak!'. *Oiek danak gaur jaso berra jek* 'horiek denak gaur jaso beharra zaudek'.

hoin

HONEN

tan

hoin (> *oin*) Honen; honelako mailan. (Erkaketaren oinarria agerian adierazten ez denean erabiltzen da, eta lehen pertsonari edo lehen mailako hurbiltasunari dagokio). Ik. **hain**. *Oin tuntuna're e'naun* 'honen tuntuna ere ez naun'.

hoinbeste

HONENBESTE

tanto(s), tanta(s); tanto
otro tanto (como esto)

hoinbeste zenbtz. Honenbeste; honelako kopuruan. Ik. **horrenbeste**; **hainbeste**. ◆ **beste hoinbeste** **1** Beste honenbeste; aipatu den kopuru edo ekintza bera. **2** Harridura adierazteko esapidea. *Beste oinbeste!; goaindo zer ikus ber tun!* 'beste honenbeste!; oraino zer ikusi behar ditugun!'.

hoinbesteko

HONENBESTEKO

tal cantidad; una determinada cantidad
de esta magnitud; tan ... como este/esta/esto

hoinbesteko **1** iz. Honenbestekoa, honelako kopurua. Ik. **hainbesteko**. *Oinbesteko bat patu ber zenduen* 'honenbeste bat pagatu behar zenuen'. **2** adj. *Enakien oinbesteko mina artu zenduenik* 'ez nekien honenbesteko mina hartu zenuenik'.

hoixe / hoixen

HORIXE

jakina!, honbré!

ese/esa/eso... mismo; eso... precisamente
por supuesto, claro, naturalmente, desde luego, sin duda; ya lo creo

horixe (> *oixe, oixen*) **1** *hori* erakuslearen era indartua. **2** (Erantzunetan, erabateko adostasuna edo baiezko biribila adierazteko). Jakina. ▲ Sin. *jakina*; *honbré*. Ik. **bai horixe**; **ez horixe**.

hok

HAUEK

estos, estas
éstos, éstas

hok **1** erak. Hauek. **2** (Izenordain gisa). Hauek. *Hok erreik de oneskió, áta ín ber tut* (Ond Bak).

hola

HOLA, HONELA

así, de este modo, de esta manera

hola adb. Honela; horrela. Ik. **hala**. *Oi ola ibil da beti* 'hori hola ibili da beti'. *Ola esan dau* 'hola esan du'. *Ola aitu dot nik* 'hola aditu dut nik'. ◆ **hola-hola** adb. Justu-justu, ozta-ozta. *Ola-ola do* 'hola-hola [justu-justu] dago'.

holako

HOLAKO

así, como este/ese, tal que este/ese, parecido a esto/eso, de este/ese tipo
fulano, -a

holako **1** adj. Honelakoa; horrelakoa. *Hólako gauzá* (Ond Bak). ◆ **oraino holakorik!** (> *guaindo olakoik!*). *Guaindo olakoik! Ze ikus ber dun!* 'oraindik holakorik! Zer ikusi behar dugun!'. ◆ **holakoik badala-re!** *Guaindo holakoik badala-re!* ◆ **holakotan** (...) [Horrelako egoeretan]. Aholkuaren azalpena eman aurretik. *Olakotan obe don isilik yotia* 'horrelakoetan hobe dun isilik egotea'. **2** iz. Urlia. *Olakwek bizikletia ekar dau* 'holakok bizikleta ekarri du'.

holaxe

HOLAXE; HONELAXE, HORRELAXE

así, de esta misma manera, del mismo modo; exactamente así, precisamente así

holaxe adb. Honelaxe; horrelaxe. *Ze esanko du ba?, mundua olaxe dala* 'zer esango dugu ba?, mundua holaxe dela'.

hona

HONA

he aquí

hona (> *ona*) adb. (Adierazten dena aurkeztuz). *Ona pañelwa* 'hona pañelua'. ◆ **hona non** (> *ona nun*). (Zehar-galdera baten ezkerrean). Hemen*. *—Hartu tuzu pantalonak? —Hona nun jukatziet*. ◆ **hona hemen** (> *ona emen*).

honatx

HONA!

he aquí

honatx interj. Hona! Ik. **haratx**; **horratx**.

honbeste

HONENBESTE

tanto(s), tanta(s); tanto
otro tanto (como esto)

2 honbeste-honbeste're

honbre

JAKINA; 2 HARA!

1 bai konto!, hoixe!

por supuesto, claro, naturalmente, desde luego, sin duda
¡anda!

honbre **1** (> *onbré*) adb. (Azentua, azken silaban). Jakina, horixe! *Onbré oi ola dala* 'jakina hori hola dela'. ▲ Sin. *jakina*; *bai konto*; *hoixe*; *yalokreo*. **2** (> *ónbre*) interj. (Azentua, lehenengo silaban). Hara! *Ónbre!, emen ago-ta!* 'hara! hemen hago eta!'. ▲ Sin. *ba!*.

hondamendi, hondamendia (?)

HONDAMENDI

destrucción; ruina, perdición; hecatombe

hondamendi iz. (?)

hondar, hondarra

HONDAR

apur; sobra(k)

resto, residuo, despojo

hondar 1 iz. (residuo, resto)
2 iz. Jan hondarrak. Jaten edo erabiltzen den zerbaitetatik gelditzen den gauza. Ik. **sobra**[1]. *Gutako ondarrak besteik eztĭa gelditzen* 'guretako hondarrak besterik ez dira gelditzen'.

hondatu, hondatzen

HONDATU. 2 HONDORATU

1 galdu

estropear(se), echar(se) a perder
hundir(se), sumergir(se)

hondatu (eta *undatu* [Urdiain]) **1** *da/dau* ad. Erabat kaltetu. *Bi egunĭen undatu dau atorra berria* 'bi egunean hondatu du atorra berria'. *Raso ondatwik do aldameneko etxĭa* 'erabat hondaturik dago aldameneko etxea'. Ik. **galdu**. **2** *da/dau* ad. Hondoratu. *Ibaiko uretan undatu, ta ia ito da txakurra* 'ibaiko uretan hondatu, eta ia ito da txakurra'.

hondatzaile

HONDATZAILE

desintzaile; derrotxadore

destructor, -a, devastador, -a
derrochador, -a, despilfarrador, -a, arruinador, -a

hondatzaile (eta *undatzaile*) **1** adj. Hondatzen edo desegiten duena. Ik. **desegintzaile** (> *desintzaile*). **2** adj. Bere ondasunak, familiaren ondarea edo kidekoak hondatzen dituena. Ik. **derrotxadore**.

hondo, hondua

HONDO

fondo

hondo iz. Sakontasuna duen zerbaiten beheko aldea. *Putzuen ondwa* 'putzuaren hondoa'.
◆ **hondoa jo** (> *ondwa jo*) *dau* ad. *Ondwa jo artĭen bado gwaindo tartĭa* 'hondoa jo arte badago oraindik tartea'. | *Larri ibil zan fabrikĭa, ia ondwa jota, bea aurrĭá ata zan* 'larri ibili zen fabrika, ia hondoa jota, baina aurrera atera zen'.
◆ **hondora joan** (> *ondwa fan*). *Ondwa fan, azpĭa fan* 'hondora joan, azpira joan'.
◆ **hondoraino** (> *ondwaindo*). *Ibaien ondwaindo fan da* 'ibaiaren hondoraino joan da'.

hondua jo

HONDOA JO

tocar fondo, arruinarse, hundirse

hondoa jo (> *ondwa jo*) *dau* ad. *Ondwa jo artĭen bado gwaindo tartĭa* 'hondoa jo arte badago oraindik tartea'. | *Larri ibil zan fabrikĭa, ia ondwa jota, bea aurrĭá ata zan* 'larri ibili zen fabrika, ia hondoa jota, baina aurrera atera zen'.

honengeiti(k) / honengaiti(k)

HONENGATIK

por esto; por este, -ta
por estos; por estas

honengeiti(k); hoiengeiti(k). Honengatik; horiengatik. *Onengeiti gelditu berra izan du etxĭen* 'honengatik gelditu beharra ozan dugu etxean'.

honeskio

HONEZKERO

para ahora, seguramente ya, para este momento, ya

honeskio (> *oneskĭo*) adb. Honezkero; hitz egiten den unerako. *Hok erreik de honeskió. Oneskio, zozai* 'zoazte' (Ond Bak). Ik. **danekoz**.

honezkio

HONEZKERO

para ahora, seguramente ya, para este momento, ya

hontz belarridun, hontz belarriduna

HONTZ ERTAIN

búho chico (Asio otus)

hontz belarridun. Hontz ertaina (Asio otus). *Ontz belarridun klase asko de* 'hontz belarridun klase asko daude'.

hontz haundi, hontz haundia

HONTZ HANDI

búho real (Bubo bubo)

hontz haundi iz. Hontz handia; gau hegazti harrapari handiena den hontz mota, lumaje arrea, laranja koloreko begiak eta buruaren alde bakoitzean lumazko xerlo moduko bat duena (Bubo bubo). *Gaur ata dĭa kafitik ontz aundien bos kumak, ta beira gelditu zaizkĭa dukain naranja koloreko begi oiekin* 'gaur atera dira habiatik hontz handiaren bost kumeak, eta begira gelditu zaizkit daukaten laranja koloreko begi horiekin'.

hontz, hontza

HONTZ (*)

búho; lechuza; autillo; mochuelo

hontz iz. Burua zabala eta begiak handiak eta aurrerantz begiratzen dutenak dituzten gau hegazti harrapari batzuen izen arrunta. Ik. **letxuza**; **motxuelo**; **ttauttau**. ◆ **hontz belarridun**. Hontz ertaina (Asio otus). *Ontz belarridun klase asko de* 'hontz belarridun klase asko daude'. ◆ **hontz haundi** iz. Hontz handia; gau hegazti harrapari handiena den hontz mota, lumaje arrea, laranja koloreko begiak eta buruaren alde bakoitzean lumazko xerlo moduko bat duena (Bubo bubo). *Gaur ata dĭa kafitik ontz aundien bos kumak, ta beira gelditu zaizkĭa dukain naranja koloreko begi oiekin* 'gaur atera dira habiatik hontz handiaren bost kumeak, eta begira gelditu zaizkit daukaten laranja koloreko begi horiekin'.

honutza

HONA

aquí, acá, a este lugar, hasta este lugar

honutza **1** adb. (Honuntza*, honantza*) Hona, toki honetara. *Etorri honutza* 'etorri hona'. *Emetik autza ta andik onutza ibil ga goiz gúztĭa* 'hemendik haruntza [hara] eta handik honuntza [hona] ibili gara goiz guztia'. Ik. **honutz aldera** (> *onutzaldea*, *onutzaldĭa*); **horrutza**; **hautza**. | *Honutzakwen* 'hona etortzerakoan'. | *honutzo* 'honago'. | *honutzoxo* 'honaxeago'. **2** (Denboraz mintzatuz). *Ordutik onutza, asko aldatu dĭa gauzak* 'ordutik hona, asko aldatu dira gauzak'. ◆ **honutza bertara** (> *onutza berta*). *Bier etor zaitez onutza berta* 'bihar etorri zaitez hona bertara'. ◆ **honutzaindo** adb. Honaino, toki honetaraino. ◆ **honutzaldera*** (> *onutzaldea*, *onutzaldĭa*) adb. Honantz, alde honetarantz. Ik. **honutza**. ◆ **honutzaldean*** (> *onutzaldĭen*). Honanzko aldean. ◆ **honutzexaindo** adb. Honaxeraino*. *Maioi obeto onutzexaindo ekarko bazendu* 'mahai hori hobeto honaxeraino ekarriko bazenu'.

◆ **honutzago** (> *onutzo*). Honantzago.

◆ **honutzegi** (> *onutzai*). Honantzegi. ¬

honutzaindo

HONAINO

hasta aquí, hasta este lugar

honutzaindo adb. Honaino, toki honetaraino.

honutzaldea / honutz aldera

HONANTZ

hacia aquí

honutz aldera* (> *onutzaldea*, *onutzaldĭa*) adb. Honantz, alde honetarantz. Ik. **honutza**. ◆ **honutzaldean*** (> *onutzaldĭen*). Honanzko aldean.

honutzaldien

HONANZKO ALDEAN

a este lado; hacia este lado

honutz aldean* (> *onutzaldĭen*). Honanzko aldean.

honutzexaindo

HONAXERAINO, HONAINOXE (*)

hasta aquí mismo, hasta este mismo lugar

honutzexaindo adb. Honaxeraino*. *Maioi obeto onutzexaindo ekarko bazendu* 'mahai hori hobeto honaxeraino ekarriko bazenu'.

hor

HOR

ahí, en ese lugar

hor adb. Toki horretan. Ik. **han**; **hemen**. *Hor bertan*. Ik. **hortxe**.

Orti fan da 'hortik joan da'.

◆ hor-hor (hortxe bertan)

◆ **hor nunbait** **1** Tokiren batean. *Hor nunbait daile* 'hor nonbait dabil'. **2** Gutxi gorabehera. *Bi kilo hor nunbait* —gutxi goabia—. Ik. hortxe-hortxe.

◆ **hor ez dago!** (> *or ezto!*). Hala da [ez dago eztabaidarik; hala da].

- horti(k)
- hortik aurria

◆ **horko** adj. Toki horretakoa. Ik. **bertako**. ¬

hor konpon

HOR KONPON

allá te (se,...) las arregles/compongas; allá tú (él,...)

hor konpon (> *or konpon*) interj.

hordago, hordagua

HORDAGO

órdago (envite del resto en el juego del mus)

hordago iz. Musean, partida jokatzen den apustua; apustu hori egiteko erabiltzen den hitza. ◆ **hordagoa jo** (> *ordagwa jo*). Hordagoa bota.

hordik / hordin

HOA. 2 BATEK DAKI, AUSKALO

¡vete!
a saber, quién sabe, vete a saber, cualquiera sabe, Dios sabe

hordik / hordin **1** (Agintaldia; hitanoa) Hoa, joan hadi. *Ordik taberná ta ekartzak tabakwa* 'hoa tabernara eta ekartzak tabakoa'. Ik. **fan**; **zazi**. **2** interj. Ik. Hitz egiten duenak zerbait inondik ere ez dakiela adierazteko erabiltzen duen hitza. (Bera bakarrik, erantzunetan erabil daiteke). Batek daki. *Ordik nola zan!* 'hordik [hoa] nola zen!'. | *Zazi nola zan!* 'zoaz nola zen!' [Zuka].| Ik. **fan da bila**; **auskolo**; **jakintazu**; **batek daki**.

hori

HORI (1)

ese, esa
ése, ésa, eso
¡qué!, ¡vaya!, ¡ése/ésa/eso sí que!

hori[1] (eta *oi*) **1** erak.
Autzi hori pakien. Haundia da geo hori! Horrek eman zatzan (Ond Bak).
hoi da!
hoi dok hoi!
hoi dok itekua!
hoi bekelakoik
|| (Ond Bak): Hori jan zuk, hoztu baindo lenuó. Sekula baindo garbio do urde'ói. Bi ordaiz-egun hoitan ||.
Hoi guztia in dok!
◆ **hoiek** (> *oiek*) erak./izord. Horiek. *Ondoko bi etxe oiek saltzeko de* 'ondoko bi etxe horiek saltzeko daude'. *Oiek tun artzekwek, oiek, dukatzienak!* 'horiek ditun hartzekoak [exijentziak], horiek, dauzkanak!'. *Oiek danak gaur jaso berra jek* 'horiek denak gaur jaso beharra zaudek'.
◆ **horrengeiti(k)** junt. Horregatik; zerbaiten zergatia adierazteko esapidea. *Lan orrengaiti eman jĭanai premiua* 'lan horrengatik eman zioten saria'. Ik. **harengeiti(k)**. **ez horrengeiti (k)**. | *Asko ez dĭet patu autworrengaiti* 'asko ez diat pagatu auto horrengatik'. ¬

hori, horia

HORI (2)

amarillo
rubio, -a

hori **1** adj./iz. Hori kolorekoa; kolore horia. **2** adj./iz. Horaila. Ik. **rubio** (> *rubĭo*). ◆ **horitxo**. *Horitxwa; gaztina horitxwa* 'horitxoa; gaztaina horitxoa [gaztaina mota]'.

horitasun, horitasuna

HORITASUN

amarillez

horitasun iz. Horiaren nolakotasuna. *Bietzetako oritasunĭen nabaitzen zezaion erretzailĭa zala* 'behatzetako [hatzetako] horitasunean nabaritzen zitzaion erretzailea zela'.

horitu, horitzen

HORITU

poner(se) amarillo, amarillear; dorar(se); palidecer

horitu (> *oritu*) 1 *da/dau* ad.
Hostuek horitu.
Papia horitu.
Aurpegia horitu.

horitxo, horitxua

HORITXO, HORIXKA

horixka

amarillento, -a
una clase de castaña

horitxo **1** iz./adj. Horixka, horiaren antzekoa. Ik. **horixka**. **2** iz. Gaztaina mota. "Gaztain goizterra oritxua deitzen da, eta berdia esaten zaio berandukoari" Satr Ahaid 648. Ik. **sanmigel gaztina**.

horixka, horixkia

HORIXKA

horitxo

amarillento, -a

horixka adj. (Hitz berria) Ik. **horitxo**.

horko

HORKO

de ahí, de ese lugar

horko adj. Toki horretakoa. Ik. **bertako**.

horma belar, horma belarra

HORMA-BELAR

parietaria

horma belar iz. (Bot.) (Parietaria sp.).

horma, hormia

HORMA

pareta

pared, muro, muralla; tabique

horma iz. G.g.e. Gaur *pareta*. Ik. **pareta**. ◆ **horma belar** iz. (Parietaria sp.). ◆ **horma karakol***. [Altsasu] Gaztelaniaz, (pl.) *hormas*: hormetan egoten direlako).

hormigon, hormigona

HORMIGOI

hormigón

hormigon iz. Hormigoia; eraikuntzarako materiala, morteroz eta hartxintxarrez edo kideko gaiez egiten dena. *Ormigona're zartatu iten da* 'hormigoia ere zartatu egiten da'.

hornillo, hornillua

SU TXIKI

hornillo, infiernillo

hornillo iz. Janaria prestatzeko edo berotzeko erabiltzen den tresna elektriko eramangarria. *Noizbeinka, zerbeit beotzeko, ibiltzen genduen ornillwaura* 'noizbehinka, zerbait berotzeko, ibiltzen genuen hornillo hura'.

horratx

HORRA!

he ahí

horratx interj. Horra! Ik. **honatx**; **haratx**.

horrenbeste

HORRENBESTE

tanto(s), tanta(s); tanto
otro tanto (como eso)

horrenbeste 1 zenbtz. Horrelako kopuruan.

- **beste horrenbeste**.
- **horrenbestean** (> *orrenbestĭen*).
- **horrenbesteko**. *Orrenbesteko bat pagatu* 'horrenbesteko bat pagatu'. *Orrenbesteko bat eskatu zĭan* 'horrenbesteko bat eskatu zion'. *Orrenbesteko bat patzen zain* 'horrenbesteko bat pagatzen zuten'. ¬

horrenbesteko, horrenbestekua

HORRENBESTEKO

tal cantidad; una determinada cantidad

horrenbesteko. *Orrenbesteko bat pagatu* 'horrenbesteko bat pagatu'. *Orrenbesteko bat eskatu zĭan* 'horrenbesteko bat eskatu zion'. *Orrenbesteko bat patzen zain* 'horrenbesteko bat pagatzen zuten'. ¬

horrengaiti(k)

HORREGATIK

por eso, a causa de eso, por ese motivo

horrengaiti(k) (eta *orrengeiti*) junt. Zerbaiten zergatia adierazteko esapidea. *Horrengaiti Axerkoi paliza bat eman zain* (Ond Bak). Ik. **horrengeiti(k)**.

horrengaiti(k) / horrengeiti(k)

HORREGATIK / HORRENGATIK

por eso, por esa razón

horrengeiti(k) junt. Horregatik; zerbaiten zergatia adierazteko esapidea. *Lan orrengaiti eman jĭanai premiua* 'lan horrengatik eman zioten saria'. Ik. **harengeiti(k)**. **ez horrengeiti(k)**. | *Asko ez dĭet patu autworrengaiti* 'asko ez diat pagatu auto horrengatik'. ¬

horrengeiti(k)

HORREGATIK

por eso, a causa de eso, por ese motivo

horrengeiti(k) junt. Horregatik; zerbaiten zergatia adierazteko esapidea. Ik. **harengeiti(k)**. Ik. **ez horrengeiti(k)**. ¬

horrutza

HORRA

ahí, a ese lugar

horrutza adb. (Horruntza*, horrantza*), horra, toki horretara. Ik. **honutza**; **hautza**.

- **horrutzaindo**. Horraino, toki horretaraino.
- **horrutzaldera*** (> *orrutzaldĭa*) adb. Horrantz, alde horretarantz, toki horretarantz.
- **horrutzago** (> *orrutzo*). Horrantzago.
- **horrutzegi** (> *orrutzai*). Horrantzegi. ¬

horrutzaindo

HORRAINO

hasta ahí

horrutzaindo. Horraino, toki horretaraino. ¬

horrutzaldea, horrutzaldia

HORRANTZ

hacia ahí

horrutzaldera (> *orrutzaldĭa*) adb. Horrantz, alde horretarantz. Ik. **horrutza**.

hortaz aparte

HORREZ APARTE

fuera de eso, aparte de eso, además de eso

hortaz lokail. Horrez. ◆ **hortaz aparte** lokail. Horrez aparte, horrez gain. *Ortaz aparte, ez dakigu gauza aundirik* 'hortaz aparte, ez dakigu gauza handirik'.

hortik aurria

HORTIK AURRERA

hortik aurrera (> *ortik aurrĭa*).

hortxe

HORTXE

ahí mismo
más o menos, aproximadamente; muy cerca; casi (casi)
muy igualados, muy parejos

hortxe (> *ortxe*) adb. Hor bertan. ◆ **hortxe-hortxe** (> *ortxe-ortxe*). Hor nonbait, gutxi gorabehera.

hortz zulo, hortz zulua

HORTZ ZULO, HORTZ-ALBEOLO

alvéolo dental

hortz zulo

hortz, hortza

HORTZ

(n) biturri

diente; (pl.) dentadura

hortz **1** iz. *Hortzak zortzi dia, mataginak lau dia, haginak hogei dia* (Ond Bak). Ik. **hagin**; **matagin**. **2** iz. Hainbat gauzakiren zati edo atal puntaduna eta irtena. Ik. **biturri**.
◆ **hortzak**. (pl.) Hortz-haginak [dentadura].
◆ **(hortzen) oi**. Hortz-haginak inguratzen eta finkatzen dituen haragi sendo gorrixka. *Ortzain oia* 'hortzen oia'.
◆ **hortzetako aire** (> *ortzetako airĭa*). Hozkia, ortzetako sentipen ezatsegina, garraztasunak, gustuko ez diren zarata edo hotsek, zenbait gauza ukitzeak edo horietakoren bat gogoratze hutsak eragina dena. (≠hozkia)
• Esr. zah. Agotik hortzia bota (Erdozia) (?). ¬

hortzetako aire, hortzetako airia

HOZKI

dentera

hortzetako aire (> *ortzetako airĭa*) iz. Hozkia, ortzetako sentipen ezatsegina, garraztasunak, gustuko ez diren zarata edo hotsek, zenbait gauza ukitzeak edo horietakoren bat gogoratze hutsak eragina dena. (≠hozkia).

hosto, hostua

HOSTO

orri; borrosto

hoja
follaje; frondosidad

hosto **1** iz. *Hosto zabala; hosto medarra*. Ik. **orri**; **borrosto**. **2** iz. Hostotza. • Esr. zah. *Ostwa etorri, gosĭa etorri; ostwa fan, gosĭa fan* 'hostoa etorri, gosea etorri; hostoa joan, gosea joan' [biltegia nola udaberrian eta udazkenean]. • *Apibilan azkeinien, ostwa aitz gainĭen* 'apirilaren azkenean, hostoa haitz gainean'. ◆ **hostoa atera** (> *ostwa ata*). *Apibilan azkenĭako atatzen da ostwa aitz gainĭen* 'apirilaren azkenerako ateratzen da hostoa haitz gainean'. ◆ **hostoa bota** (> *ostwa bota*). Hostoa erori.

hostotsu, hostotsua

HOSTOTSU

frondoso, -a, que tiene muchas hojas

hostotsu adj. Hosto asko duena. *Sar au ez da ostotsua ta eztau batzan itzal aundik iten* 'sagar [arbola] hau ez da hostotsua eta ez du baratzean itzal handirik egiten'.

hostozui, hostozuia / hostozuria

HOSTAZURI (?)

mostajo, mostellar (Sorbus aria)

hostozuri (> *ostozwi*) iz. (Bot.) Hostazuria (Sorbus aria). (?)

hots ein

HOTS EGIN

gaztiatu

llamar

hots egin (> *otsein*). Deitu. *Ez fatiaz hots einko du.* || *Hots ein dat etortzeko. Zortzitan hots ein* (Ond Bak). Ik. **gaztigatu** (> *gaztiatu*).

hots, hotsa

HOTS

ruido, estruendo, estrépito; sonido, son

hots **1** iz. *Ezta otsik aitzen* 'ez da hotsik aditzen'.
2 iz. (Hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa). *Ezkila hotsak*. *Jende hotsa*.
◆ **hotsa(k) atera** (> *otsa(k) ata*). *Ots aundia atatzen dau trafikwek* 'hots handia ateratzen du trafikoak'.
◆ **hots egin** (> *otsein*). Deitu. Ez fatiaz hots einko du. || Hots ein dat etortzeko. Zortzitan hots ein (Ond Bak). Ik. **gaztigatu** (> *gaztiatu*).
◆ **hotsak diranez**. (Iza Alts) [rumor]. [Urdiain]: *Otsa daile gaizki dola* 'hotsa dabil gaizki dagoela'. Ik. **zirrinburrun / zurrunburrun**.
(n) hots txarrak (adibidez, norbaitek gaitz larriren bat duela zabaltzen denean)
Hots ona! Hura hotsa! Hots ona in zena! (Ond Bak). ¬

hotsak diranez

ZURRUMURRU

zirrinburrun / zurrunburrun

rumor (se rumorea)

hotsak diranez. (Iza Alts) [rumor]. [Urdiain]: *Otsa daile gaizki dola* 'hotsa dabil gaizki dagoela'. Ik. **zirrinburrun / zurrunburrun**.

hotz, hotza

HOTZ

frío
frío, -a

hotz **1** iz. Berorik eza; bero gabeziak eragiten duen sentipena. *Otz aundia iten dau* 'hotz handia egiten du'. **2** adj. *Haize hotza*. *Ur otzakin garbitu* 'ur hotzarekin garbitu'.
◆ **hotzak** adb. Hotzez.
◆ **hotzak garbitzen**. Hotzak hilik, guztiz hoztuta egon.
◆ **hotzak hilik egon** (> *otzak ilik yon*). Hotzak akabatzen egon.
ilariuntza *Ilar-yuntzi* (?) ¬

ilarraldi

TXILARDI

ilardi

brezal

ilarraldi iz. Txilardia. Ik. **ilardi**.

ilarre

TXILAR

brezo

ilarre [Altsasu] iz. (Bot.) Txilarra (Fam. Ericaceae). Ik. **ilar**.

ilarre-sulso, ilarre-sulsua

LARRE-SULSO

champiñon de bernardo (Agaricus bernardii)

ilarre-sulso (eta *ilarrazunzo* [Ziordia]) iz. (Mikol.) Larre sulsoa, barrengorria; larreetan hazten den perretxiko zuria, *azpibeltx*aren familiakoa, baina handiagoa; jateko ona da (Agaricus bernardii). *Udatzenién / Udazkenieén jaiotzen diá, zuri xamarrak* (Ond Bak). Ik. **azpibeltx**.

ilarre, ilarria

TXILAR

brezo (Calluna vulgaris, Daboecia cantabrica, Erica sp.)

ilarreyuntzi, ilarreyuntzi

INUNTZI, (TXILARREZKO) ERRATZ

escobón hecho de brezo

ilarrondoko, ilarrondokua

SUGE-BELAR (TUBERKULUA)

sube-mahats

raíz tuberculosa y feculenta del aro (Arum sp.)

ilarrondoko iz. (Bot.) Suge-belarrraren tuberkulua (Arum sp., Arum maculatum, Arum italicum). Ik. **sube-mahats**.

ilarrosa
OSTARGI-BELAR, LIRIO

lili; lili zuri

lirio

ilarrosa [Bakaiku] iz. (Bot.) Lirioa, ostargi-belarra (Iris sp.). Ik. **lili**; **lili zuri**.

ilasar arbola, ilasar arbolia
IRASAGAR-ARBOLA, IRASAGARRONDO

membrillo, membrillero (Cydonia oblonga)

ilasagar arbola (> *ilasar arbola*). (Bot.) Irasagar arbola, irasagarrondoa (Cydonia oblonga).

ilasar, ilasarra
IRASAGAR

membrillo [fruto]
membrillo (Cydonia oblonga)

ilasagar (> *ilasar* [Urdiain], *ilesagar* [Bakaiku]) **1** iz. Irasagarra; fruitua. *Ilasarran dulzĭa* 'irasagarraren konfitura'. **2** iz. (Bot.) Irasagarrondoa (Cydonia oblonga). ◆ **ilasagar arbola** (> *ilasar arbola*). (Bot.) Irasagar arbola, irasagarrondoa (Cydonia oblonga).

ilati, ilatia
ILINTI

tizón

ilati (eta *ileti*) iz. Ilintia. Ik. **iliti**.

ilbandu, ilbantzen
ALBAINDU

hilvanar

ilbandu *dau* ad. Albaindu; behin-behineko jostea egin. *Makinan josi aurreti, obe dezu lemizi azpilzanak ilbandu* 'makinan josi aurretik, hobe duzu lehendabizi azpildurak albaindu'.

ilbeltz, ilbeltza
ILBELTZ, URTARRIL

enero

ilbeltz iz. Urtarrila, urteko lehen hila. *Aurten'e eztau in elurrik ilbeltzĭen* 'aurten ere ez du egin elurrik ilbeltzean'. || *Ilbéltza balin báda hil txúri...* (Ond Bak). • Esr. zah. *Ilbéltza balin báda hil txúri, ardiék haziko dau axúri. Ilbéltza ezpalin báda hil txúri, ez árdi ta ez axúri*. (*Zengaiti elurrakin etxien mantenatzen dia ta indarra hartzen dai etxeko janakin*). (Ond Bak) ||. • Esr. zah.: *Abenduko elurra gailtzerua / ilbeltzekua burnia / otsailekua egurra / martxokoa ura*.

ilberri, ilberria
ILBERRI

novilunio, luna nueva

ilberri iz. Ilargi berria. *Ilberri: idargia jaio ta osatu bitartien* (Ond Bak). • Esr. zah. *Ilberriko ostiala, ilondo*.

ilbete, ilbetia
ILBETE

irargi oso

plenilunio, luna llena

ilbete iz. Ilargi betea. ▲ Sin. *irargi oso*.

ile, ilia
ILE

txuma

vello
pelo, cabellera; cabello
lana

ile **1** iz. Azalean edo larruan sortzen dena. **2** iz. Ileen multzoa. Ik. **txuma**. *Ilezwia* 'ilezuria'. **3** iz. Abereen ilea. Ik. **ardila**. ◆ **ile moztaile** (> *ile-moztailĭa*) iz. Ilea mozten duen pertsona.

ilegun, ileguna
ILAUN

pelusa

pelusa, tamo (pelusilla que se cría debajo de las camas y otros muebles por falta de aseo).

ilegun iz. Batez ere pl. *ilegunak*. Sin. *pelusa*.

ileti, iletia
ILINTI

tizón

iletsu, iletsua
ILETSU

peludo, -a; de pelo abundante

iletsu adj. Ile asko duena.

ilezui, ilezuia
ILEZURI

buruzui, kaskazui

cano, -a; canoso, -a; peliblanco, -a

ilezuri (> *ilezui*) adj. Ik. **buruzuri** (> *buruzwi*); **kaskazuri** (> *kaskazwi*).

ilgora
ILGORA

cuarto creciente, luna creciente

ilgora iz. Ilargiaren goraldia, ilargi berritik ilargi betera doan 14 eguneko aldia.

iliti, ilitia
ILINTI

tizón

iliti (> eta *ilati*, *ileti*) iz. Ilintia, egur zati erdi errea. *Ilitiekin segitu dĭa ataiaindo* 'ilintiarekin segitu dio ateraino'.

iloba
ILOBA; LOBA

sobrino, -a
nieto, -a

iloba **1** iz. Senide baten semea edo alaba. **2** iz. Biloba, seme-alaben semea edo alaba. ¬

ilondo, ilondua
ILONDO, ILBEHERA

cuarto menguante, luna menguante; luna descendente

ilondo iz. Ilbehera, ilargiaren beheraldia, ilargi betetik ilargi berrira doan 14 eguneko aldia. *Ilondo: idargia akabatu bitartien* (Ond Bak). • Esr. zah. *Ilondoko ostiala, ilberri* 'ilondoko ostirala, ilberri'.

ilun, iluna
ILUN

argi

oscuro, -a

ilun adj. Argirik edo argitasunik gabea; argi edo argitasun gutxi duena. *Au denborien iluna!* 'hau denboraren [eguraldiaren] iluna!'. *Kolore ilunak*. *Begi ilunak*. ▼ Anton. *argi*.

ilunabar, ilunabarra

ILUNABAR

iluntze, arras, gau sarrera

anochecer

ilunabar iz. Ilunabarra: eguna iluntzen hasten danién. Iluntzen dan garaia (Ond Bak). ▲ Sin. *iluntze*, *arras*, *gau sarrera*.

ilundu, iluntzen

ILUNDU

argitu, aklaratu

oscurecer; anochecer
oscurecer(se); nublar(se)
apagar(se) el color, palidecer, bajar de tono

ilundu **1** ad. Egunagatik hitz eginez, gauera hurbildu. *Neguen, atsaldeko seietako ilundwik* 'neguan, arratsaldeko seietarako ilundurik'. ▼ Anton. *argitu*, *aklaratu*. **2** *da/dau* ad. Eguraldiaz hitz eginez, goibeldu. Ik. **itzaldu**. **3** *da* ad. Kolorea edo bizitasuna ahuldu edo galdu. *Ondo ilundwik de izara oiek* 'ondo ilundurik daude izara horiek'.

ilunpe, ilunpia

ILUNPE

iluntasun

argipe, argipien

tinieblas, oscuridad
a oscuras, en la oscuridad, en tinieblas

ilunpe iz. Argirik edo argitasunik eza. Ik. **iluntasun**. *Ilunpĭartan ez zon ikusteik* 'ilunpe hartan ez zegoen ikusterik'. ▼ Anton. *argipe*.
◆ **ilunpean** (> *ilunpĭen*) adb. ▼ Anton. *argipean* (> *argipĭen*).
◆ **ilunpeko** adj. *Ilunpeko lana*.
◆ **ilunpetan** adb. *Ilunpetan ibili, yon*. *Argia fan daneti ilunpetan do erri guztĭa* 'argia joan denetik ilunpetan dago herri guztia'. ¬

ilunpeko

ILUNPEKO

de la oscuridad, de las tinieblas

ilunpeko adj. *Ilunpeko lana*. ¬

ilunpetan

ILUNPETAN

a oscuras, en la oscuridad, en tinieblas

ilunpetan adb. *Ilunpetan ibili, yon*. *Argia fan daneti ilunpetan do erri guztĭa* 'argia joan denetik ilunpetan dago herri guztia'. ¬

ilunpien

ILUNPEAN

argipien

a oscuras, en la oscuridad, en tinieblas

ilunpean (> *ilunpĭen*) adb. ▼ Anton. *argipean* (> *argipĭen*).

iluntasun, iluntasuna

ILUNTASUN

ilun

argitasun

oscuridad

iluntasun iz. Iluna denaren nolakotasuna; argirik edo argitasunik eza; iluna den edo dagoenaren egoera. Ik. **ilun**; **ilunpe**. ▼ Anton. *argitasun*.

iluntxo, iluntxua

ILUNTXO; 2 ILUNXKO

argitxo, klarotxo

algo oscuro
(color) que tiende a oscuro

iluntxo **1** adj. Ilun samarra. Ik. **ilun**. **2** adj. Ilunxko, ilunera jotzen duen kolorea. *Iluntxwa, naio* 'iluntxoa, nahaigo'. ▼ Anton. *argitxo*, *klarotxo*.

iluntze, iluntzia

ILUNTZE

ilunabar, arras

atardecer, anochecer, anochecida

iluntze iz. Gauaren hasiera. Ik. **ilunabar**; **arras**. *Iluntzien faten oiluek oilateira*. *Iluntze orduko etorr'adí* (Ond Bak). ◆ **iluntzean** (> *iluntzĭen*) adb.

iluntzien

ILUNTZEAN

al anochecer

iluntzean (> *iluntzĭen*) adb.

iluntzio

ILUNTZERO

cada anochecer, todos los anocheceres

iluntzero (> *iluntzĭo*) adb. *Iluntzĭo-iluntzĭo faten da pasĭa* 'iluntzero-iluntzero joaten da pasiera'.

ilusio, ilusiua

ILUSIO

poz, gogo

desilusio

ilusión; esperanza
ilusión; alegría, satisfacción

ilusio iz. Poza; gogoa, itxaropen bizia. *Jairako ilusiua*. Ik. **poz**; **gogo**.

- ◆ **ilusioa egin** (> *ilusiua in*). Ik. **poza hartu**.
- ◆ **ilusioa ibili** (> *ilusiua ibili*). Ilusioa izan.
- ◆ **ilusioa kendu** (> *ilusiua kendu*). ◆ **ilusioa galdu** (> *ilusiua galdu*).
- ◆ **ilusioipe**. Ilusiorik gabe.

ilusionatu, ilusionatzen

ILUSIOA EGIN; ILUSIOA IZAN

poztu; motibatu

desilusionatu

ilusionar(se)

ilusionatu *da/dau* ad. Ik. **ilusioa egin**. ▲ Sin. *poztu*; *motibatu*. ▼ Anton. *desilusionatu*.

imajen, imajena

IRUDIA, IMAJINA

imagen; figura; ilustración

imajen iz. Irudia, imajina. Ik. **santu**.

imajinatu, imajinatzen

IMAJINATU

imaginar

imajinatu *dau* ad.

imajinazio, imajinaziua

IRUDIMEN; IRUDIPEN, BEGITAZIO

iduipena

imaginación; ilusión, figuración
sospecha, recelo

imajinazio **1** iz. Irudimena. **2** iz. Irudimenak sorturiko ustea. Ik. **iduipena**.

imirrimau sara, imirrimau saria

ARMIARMA SARE

amegun

red de araña, telaraña

imirrimau sara. Armiarma sarea. Ik. **amegun**.

imirrimau, imirrimaua

ARMIARMA

amarratz [Ziordia, Olatzagutia]; armimau

araña

imirrimau (eta *irrimau*) iz. Armiarma. Ald. *armimau* [Altsasu]; *mirrimarrau* eta *irrimarrau* [Bakaiku]. *Eskua deĭnbateko imirrimaua do gelako paretan* 'eskua adinbateko armiarma dago gelako paretan'. ▲ Sin. *amarratz* [Ziordia, Olatzagutia]. ◆ **imirrimau sara**. Armiarma sarea. Ik. **amegun**.

imitatu, imitatzen

IMITATU

imitar, remedar

imitatu *dau/dĭa* ad. Beste norbaiten edo zerbaiten antzera egin, jardun edo jokatu. Ik. **kopiatu**. *Txarloti ondo imitatzen dĭa* 'Txarloti ondo imitatzen dio'

imitazio, imitaziua

IMITAZIO

imitación

imitazio iz. Imitatzea. *Narruen imitaziua da* 'larruaren imitazioa da'. Ik. **antzeko**.

in, ina

IRIN

harina

irin (> eta *in*, *ina* [Urdiain]) iz. *Irinakin zakuba*. *Irina ta zahia* (Ond Bak). *Garien ina* 'gariaren irina'. *Garagar ina* 'garagar irina'. *Maizan ina* 'maizaren [artoaren] irina'. Ik. **artirin** (> *artin*).

◆ **irin(aren) flore** (> *inan floriĭa*). Irin lorea, irin zuri bikainena.

◆ **irina bota** (> *ina bota*). Irina gehitu, janaria prestatzen.

◆ **irinakin pasatu** (> *inakin pasatu*). Irinetan pasatu, janaria prestatzen. ¬

in, inia

EGINA

hecho, acto, obra, realización

- inia inik
- etxien inia, indakua.
- tomate inia
- inik yon. Ondo inik, gutxi inik: Txuletia ondo jok inik.

in, iten

EGIN

fabrikatu, elaboratu

egin (> *ein*, *in*) ad. Ik. ein. *Danoin artia inen du* 'denon artean eginen dugu'.
|| Haiekin aide iten (in?) dia (Ond Bak).
– (hoi) iteko txarra! Bazkalonduen, pasiá? Iteko txarra! (¡Vaya ganas!)
– beste itekoik ez ibili. Etxukat beste itekoik!
– iteko erraza 'eginerraz'.
– Itia duka nahi dena 'egitea dauka [egin dezala] nahi duena'. Itia jukak / jukan nahi dena. Itia jukai / jukanai nahi daina.
– egin du. Bukatu. *Labadoŕiek in dau*.
◆ *Ze in ber dĭazu ba!* 'zer egin behar diozu ba!' [hala behar].
◆ **egin eta paratu** (> *in da patu*). Bi pertsonen arteko antzekotasuna adierazteko [Altsasu].
¬

inahala

EGINAHALA (?)

con todas las fuerzas

eginahala* (> *inala*, *indala*) adb. *Inahala guztia* (?). *Indalaguztia korrikan* 'eginahala guztia korrika' [a más correr; a toda caña]. Ik. **ahalegin**.

inaldi

EGINALDI*

momento de hacer
esfuerzo

eginaldi (> *inaldi*) iz. In aldia.

inara beltz, inara beltza

SORBELTZ ARRUNT

vencejo común (Apus apus)

inara beltz. Sorbeltz arrunta (Apus apus).

inara paparzui

ENARA AZPIZURI

golondrina (común) (Hirundo rustica)
avión común (Delichon urbica)

inara paparzuri (> *inara paparzui*). **1** Enara arrunta (Hirundo rustica). **2** Enara azpizuria (Delichon urbica).

inara, inaria

ENARA

golondrina; avión

inara iz. Enara. • Esr. zah. *Inarak etorri, gosĭa etorri; inarak fan, gosia fan* 'enarak etorri, gosea etorri; enarak joan, gosea joan'. ◆ **inara beltz**. Sorbeltz arrunta (Apus apus). ◆ **inara paparzuri** (> *inara paparzui*). **1** Enara arrunta (Hirundo rustica). **2** Enara azpizuria (Delichon urbica).

inazi, inazten

EGINARAZI

hacer hacer
como segundo miembro de compuestos del tipo hitz eginarazi, kalte eginarazi, etc.; v. s.v. hitz,

eginarazi (> *inazi*) **1** *dau* ad. Egitera behartu. **2** (aditzei dagozkienak). *Barre inazi* 'barre eginarazi'. *Salto inazi* 'salto eginarazi'. *Near inazi* 'negar eginarazi, negar eragin'. *Alde inazi* 'alde eginarazi'. *Itz inazi* 'hitz eginarazi'. *Izketa inazi* 'hizketa eginarazi'.

inazizaile, inazizailia

EGINARAZLE

quien obliga a hacer

eginarazitzaile* (> *inazizaile*) iz. Eginarazlea, eginarazten duen pertsona. *Inzailia ta inazizailia* 'eginzalea [egilea] eta eginarazlea'.

inaztaile, inaztailia

EGINARAZLE

quien obliga a hacer

eginaraztaile (> *inaztaile*) iz. Eginarazlea. *Barre inaztailĭa* 'barre eginarazlea'.

inbentatu, inbentatzen

ASMATU

asmatu, sortu

inventar, crear
imaginar, idear, ocurrirse, inventarse
ocurrirse; antojarse; mencionar

inbentatu **1** *dau* ad. Tresna berri bat sortu. Ik. **asmatu**; **sortu**. **2** dau ad. Buruan, irudimenean sortu. Asmatu. Ik. **asmatu**. **3** *dau* ad. Bururatu, okurritu; aipatu. *Bijilia in ber dun?; ezta inbentatu're alakoik* 'bijilia egin behar dugun?; ezta bururatu ere halakorik. Ik. **okurritu**.

inbento, inbentua

ASMAKIZUN, ASMAKARI

invento; invención

inbento iz. Asmakizuna, asmakaria. *A ze inbentwa!* 'a ze asmakizuna!'.

inbertitu, inbertitzen

INBERTITU

invertir (colocar un caudal)

inbertitu *dau* ad. Diru kopuru bat negozio edo proiektu batean erabili edo ezarri. Ik. **sartu**.

inbia

INBIDIA, BEKAIZKERIA

envidia

inbidia (> *inbia*) iz. *Nik ibil nen inbia!* 'nik izan nuen inbidia'. ◆ **inbidia eman** (> *inbia eman*) *dia*. ◆ **inbidia ibili** [izan] (> *inbia ibili*) *dau/dia*. ◆ **inbidiaz** (> *inbiez*) adb.

inbiagarri, inbiagarria

INBIDIAGARRI, BEKAIZGARRI

envidiable

inbidiagarri (> *inbiagarri*) adj. Inbidia ematen duena. *Prepatu tu patata batzuk inbiagarriek* 'preparatu ditu [ditu / ditugu] patata batzuk inbidiagarriak'.

inbioso, inbiosua / inbiosa, inbiosia

INBIDIOSO, BEKAIZTI

envidioso, -a

inbidioso, -a (eta *inbioso / inbiosa*) adj. (Generoa hartzen du) Bekaiztia. *Inbioswa izan da beti* 'inbidiosoa izan da beti'. ¬

inbuluzkan

IRAULKA, IHALOZKA

irulkan (?)

dando volteretas; revolcándose (?)
caer rodando

inbuluzkan (> *inbuluska* [Ond Bak]). adb.
– inbuluzkan ibili.
– inbuzluzkan bota. Inbuluzkan bota da.

inbusteia
ENBUSTERIA

sinplekeia

embuste, mentira

indabatze
INDABA SAIL

alubiar; campo sembrado de alubias

indabatze iz. (Ond Bak). *Indiabaz yaindako saila* 'indabaz ereindako saila'.

indabaxal
LEKA

leka

judía verde, vaina

indabaxal iz. (Ond Bak). Leka. [Alubias verdes. Se comen con la vaina].

indar, indarra
INDAR

fuerza; vigor, ímpetu; fortaleza, resistencia
fuerza, potencia; efectividad
fuerza, energía, luz (eléctrica)

indar **1** iz. Izaki baten egiteko edo aritzeko gaitasun edo ahalmen fisikoa. || *Idien indarra. Háu dok háu! Jangoikuék beák indar emán eta beak kéndu!* (*záhartuik zon baték esánia*). *Indarra hartzen dai* (Ond Bak) || *Indarripe gelditu* 'indarrik gabe gelditu'. *Indarripe yon* 'indarrik gabe egon'. *Indarripe autzi* 'indarrik gabe utzi'. **2** iz. (Gauzengatik esanda). Zerbaiten egite edo eragite ahalmena, edo eragite horren bizkortasuna. *Aizĭen indarra* 'haizearen indarra'. **3** iz. Elektrizitate indarra, bereziki motorrak-eta higiarazten dituena. *Entxufiontan ezto indarrik* 'entxufe honetan ez dago indarrik'. Ik. **argi indar**. ◆ **indarra galdu**. Indargabetu; ahuldu. ◆ **indarra hartu**. Indarberritu; sendotu. ◆ **indarra naurritu** (*probakan*). Indarra neurtu, lehiaketan-eta. ¬

indarbeiko, indarbeikua
INDARGABEKO

falto de fuerza(s), débil, flojo, -a

indarbeiko adj. Indargabekoa, indargabea. *Yuzki txuria, indarbeikwa, bĭotzen eztena* 'eguzki txuria, indargabekoa, berotzen ez duena'.

indargale, indargalia
INDARGABETASUN

desfallecimiento; debilidad; flojera

indargale iz. Indargabetasuna, indarrik gabe dagoenaren egoera. Ik. **ahultasun**; **ahuldade**; **ahuleria** (> *auleia*). *Indargalĭa, kaka iteko indarrik'e ez* 'indargalea, kaka egiteko indarrik ere ez'.

indarketan
INDARKA

haciendo fuerza

indarketan adb. Indarka, indar eginez. ¬

indarripe
INDARGE, INDARRIK GABE

débil, sin fuerzas

indarripe adb. Indarrik gabe, indarge. *Indarripe no* 'indarrik gabe nago'. ¬

indartsu, indartsua INDARTSU

fuerte, sendo; fortitz *ahul, makal, pattal, xingle*

fuerte, forzudo, -a; que tiene mucha fuerza

indartsu adj. Indar handia duena, indar handikoa. *Otxoatarrak jende indartsuek zĭan* 'Otxoatarrak jende indartsuak ziren'. ▲ Sin. *fuerte*, *sendo*; *fortitz*. ▼ Anton. *ahul*, *makal*, *pattal*, *xingle*.

indartu, indartzen INDARTU

fortalecer(se), robustecer(se), hacer(se) fuerte; reforzar(se)

indartu *da/dau* ad. Indarra hartu edo eman, indartsuago bihurtu. Ik. **sendotu**. ¬

independiente, independientia INDEPENDENTE

independiente

independiente adj.

indezente, indezentia LOTSAGARRI

lotsagarri, tresondagarri

indecente, indecoroso

indezente adj. Ik. lotsagarri.

indiaba, indiabia INDABA

judía, alubia (Phaseolus vulgaris)

indiaba (> eta *indaba*, *indibaba*) iz. (Bot.) Indaba. *Nahiko gatza bota dazu indabairi?* (Ond Bak). *Indiaba bikorra* 'indaba pikorra'. Ik. **babarrun**. ◆ **indiabak jo**. Indaba hazia lekatik bereizteko irabiurrekin jo. *Gwaindo indiabĭa iabiurrakin jotzen dai* 'oraino [oraindik] indaba irabiurrakin jotzen dute'. ◆ **indiabak lekatu**. Indaba lekak aletu.

indibaba, indibabia INDABA

judía, alubia (Phaseolus vulgaris)

indio, iindiua INDIAR, INDIO

indio, -a (de América)

indio iz. Indiarra; Ameriketako jatorrizko herrietako bateko pertsona. *Mutxikan da, gu beti indiuen alde* 'mutxikan [jolasean] eta, gu beti indioen alde'.

indizio, indiziua INJEKZIO

inyección

indizio iz. Injekzioa; xiringa baten bidez, sendagaia gorputzean barneratzea.

industria INDUSTRIA

industria

industria iz. Industria-alorreko enpresa edo fabrika. Ik. **enpresa**; **fabrika**. *Altsun biltzen dĭa industria gaienak* 'Altsasun biltzen dira industria gehienak'.

infame, infamia DOILOR, ZITAL

gaizto, kaskamakur, terko

infame adj. Oso gaiztoa. Ik. gaizto, kaskamakur, terko.

infektatu, infektatzen

INFEKTATU

gaiztatu

desinfektatu

infectar(se) [un órgano u organismo]

infektatu *da* ad. Ik. **gaiztatu**. ▼ Anton. *desinfektatu*.

infekzio, infekziua

INFEKZIO

infección

infekzio iz. *Infekziua duka; bai, gaztatwik duka mina* 'infekzioa dauka; bai, gaiztoturik dauka mina [zauria]'.

informatika, informatikia

INFORMATIKA

informática

informatika iz. Informazioa automatikoki erabili ahal izateko tekniken eta jakintzen multzoa.

infusio, infusiua

INFUSIO

infusión (bebida)

infusio iz. Egoskina. *Menta infusiua* 'menda infusioa'.

inginatu, inginatzen

ENGAINATU

engañar
engañar, ser infiel al cónyuge

engainatu (> *inginatu*) *dau* ad. *Erraza da jendĭa inginatzia* 'erraza da jendea engainatzea'.

ingles, inglesa

INGELES

inglés, -esa
inglés (lengua)

ingles **1** iz./adj. Ingelesa, Ingalaterrakoa, Ingalaterrari dagokiona. **2** iz. Ingeles hizkuntza.

ingresatu, ingresatzen

OSPITALERATU, INGRESATU

ingresar, hospitalizar

ingresatu *da/dau* ad. Ospitaleratu, erietxe batera eraman. *Ingresatu in dai opeatzeko* 'ingresatu egin dute operatzeko'. *Badĭatzi bi aste ingresatwik* 'badaramatza bi aste ingresaturik'.

inguatu, inguatzen

INGURATU

bildu, juntatu; arrimatu

reunirse, juntarse
reunir, recolectar, recoger, recopilar
acercarse, aproximarse; arrimarse

inguratu (> *ingwatu*) **1** *da/dau* ad. Bildu. *Sanpedron jende asko inguatu'a* 'Sanpedron jende asko inguratu da'. *Kwadrillak ingwatzen zĭan* 'kuadrillak inguratzen ziren'. *Ingwatzen da zaburreia franko* 'inguratzen da zaburreria franko'. *Afaitako, betikwek ingwatzen ga* 'afaritako, betikoak inguratzen gara'. || *Bi erriek ingwatu; alkartu* 'bi herriak inguratu, elkartu'. ▲ Sin. *bildu*; *juntatu*. **2** *dau* ad. Lortu, eskuratu. *Nunbaiteti ingwatu tu ber zituenak* 'nonbaitetik inguratu ditu behar zituenak'. **3** *da* ad. Hurbildu. *Gwegana ingwatu zĭan* 'guregana inguratu ziren'. ▲ Sin. *arrimatu*.

inguru, ingurua

INGURU

alderdi

inguru (> *ingu*, *ingua*) 1 iz. *Ingu au polita da* 'inguru hau polita da'. ▲ Sin. *alderdi* ◆ **ingukek izan**. *Ingukuek ga* '[adin] ingurukoak gara' (adin berekuek).
– 2 iz. (Leku atzizkiekin). *Emen inguen bizi da* 'hemen inguruan bizi da'.
– 3 iz. (Denborazko hitzekin). *Seiek inguen bendatzen dau* 'seiak inguruan merendatzen du'. Ik. **aldera**.
– 4 iz. Ingurunea. *Urbasako inguru dana do protejitwik do* 'Urbasako inguru dana dago babesturik dago'.

injinio

traza; señal

injinio (eta *ijinio*) iz. Itxura; traza; susmo [?]. «*Mal injinio*» esapidean. Ik. **itxura**; **susmo**; **traza**. *«Mal injinio» artu jiat nik orri* 'itxura / susmo txarra hartu zioat nik horri'.

inkan

KINKINKA

kinketan

hinque (juego en que se clava de golpe en la tierra húmeda un palo puntiagudo)

inkan adb. (*ibili* aditzarekin). Haur jolasa, makila puntaduna lur hezean sartuz besteen makila jo eta botatzean datzana. Ik. **kinketan**.

inkatu, inkatzen

SARTU, ILTZATU, INKATU

hincar

inkatu *dau* ad. Lurrean inkatu, sartu; iltzatu.

inkisizio, inkisiziua

INKISIZIO

2 desgrazia

Inquisición
desgracia, infortunio

inkisizio **1** iz. Antzinako eliz auzitegia. **2** iz. Desgrazia; egoera jasanezina. *Au inkisiziua dukatena yekin* 'hau inkisizioa daukadana hirekin'. Ik. **desgrazia**.

inozentatu, inozentatzen

INUZENTETU

sinpletu

hacerse o volverse ingenuo/necio/simple
(hacer) perder la razón, el juicio

inozente egun, inozente eguna

INOZENTE EGUN

día de los Inocentes

inozente egun (eta *inuxente egun*) Abenduaren 28a; Hego Euskal Herrian txantxak egiteko eguna izaten dena. *Ezta abenduko 28a urteko inuxente egun bakarra*. 'ez da abenduko 28a urteko inozente egun bakarra'. Ik. **santinuxente**.

inozente, inozentia

INOZENTE

inocente, no culpable
inocente, ingenuo, -a

inozente (> *inoxente, inuxente*) **1** adj./iz. Errugabea. **2** adj./iz. Tolesgabea. ◆ **inozente egun** (eta *inuxente egun*) Abenduaren 28a; Hego Euskal Herrian txantxak egiteko eguna izaten dena. *Ezta abenduko 28a urteko inuxente egun bakarra.* 'ez da abenduko 28a urteko inozente egun bakarra'. Ik. **inuzente**; **santinuxente**. ● *Santi inuxente, buru-buru tente, txerri buztana tente*. [Inozentada egindakoari kantatzen zaiona].

inozentekeia

INUZENTEKERIA; INOZOKERIA

simpleza, necedad, bobada

inozentekeia (> *inozentekeia*) iz. Inuzentekeria; inozokeria. *Txikitako inozentekeia batengeiti asarratwik de gwaindo* 'txikitako inuzentekeria batengatik haserreturik daude oraino'.

inozenzia

INOZENTZIA

inocencia; ingenuidad

inozenzia iz. Inozentzia.

inporta

INPORTA IZAN

ajola izan

importar, preocupar, interesar
cuidado, preocupación, interés

inporta izan **1** *dau/zaio* ad. *Ez bazaizu inporta, zue onduen jarriko naiz* 'ez bazaizu inporta zure ondoan jarriko naiz'. *Ze inporta dau?*
Ezaiguk inporta. *(Ze) inporta dik, ba!*
2 (Izen gisa). Axola. *Inportĭa, e?* 'axola, e?'.

inportabeiko, inportabeikua

AXOLAGABE, INPORTAGABE

ajolabeiko

despreocupado, -a; indiferente; negligente

inportabeiko adj. Axolagabea. Ik. **ajolabeiko**. ¬

inportante, inportantia

INPORTANTE

importante

inportante adj. Garrantzitsua. ◆ **inportantea izan** (inpertsonalean). ¬

inportanzia

GARRANTZI, INPORTANTZIA

importancia

inportantzia (> *inportanzia*) iz. Garrantzia. ◆ **inportanzia eman**. ◆ **inportanzia hartu** [= eman] (?). Etzazula hoinbeste inportanziaik hartu (?) (LM). ¬

inposible, inposiblia

EZINEZKO

ezinezko

posible, daiteken

imposible

inposible adj. Ik. **ezinezko**.

inpresio, inpresiua

ZIRRARA, INPRESIO

arrako; sensazio

impresión; sensación

inpresio **1** iz. Zirrara. Ik. **arrako**. **2** iz. Irudipena, ustea. Ik. **sensazio**.

instante, instantia — ISTANT

momento, instante

instante iz. Ik. **istante**.

instrukzio, instrukziua — INSTRUKZIO

instrucción
instrucciones, reglas (pl.)

instrukzio **1** iz. Beren zereginetan trebatzeko, armadako kideek jasotzen duten prestakuntza. *Soldautzan, instrukziua ikastĭa* 'soldadutzan, instrukzioa ikastea'. **2** iz. pl. Jarraibidea; zerbait lortzeko edo gauzatzeko jarraitu beharreko bide edo arau orokorrak. *Instrukziuek eman* 'jarraibideak eman'.

insurrekto, insurrektua — MATXINO, INTSUMISO

insurrecto, -a

insurrekto (> *insurreto*) adj./iz. Matxinatua.

inteligente, inteligentia — INTELIGENTE

azkar; buruargi, listo, -a

inteligente (> *intelijente*) adj.

inteligenzia — INTELIGENTZIA

entendimentu

inteligencia

inteligenzia (> *intelijenzia*) iz. Inteligentzia. Ik. **entendimentu**.

intenzio, intenziua — INTENTZIO

asmo

intención, propósito, fin

intenzio iz. Intentzioa, asmoa. *Intenziuek* (Ond Bak). || *Intenzio txarrak zukatzien* 'intentzio txarrak zeuzkan'. Ik. **asmo**.

interes, interesa — INTERES

interés

interes iz. Ald. intesia, interesia (?)

interesante, interesantia — INTERESGARRI

interesante

interesante adj. Interesgarria.

interesatu, interesatzen — INTERESATU

interesar

interesatu *da/zaio* ad. ◆ **interesaturik egon** (> *interesatwik yon*).

intirrintxilu, intirrintxilu (?) — MESENTERIO, ENTRESILU

estarteko

mesenterio, entresijo, redaño

intoxikatu, intoxikatzen — INTOXIKATU

intoxicar(se)

intoxikatu *da/dau* ad.

intoxikazio, intoxikaziua

INTOXIKAZIO

intoxicación

intoxikazio iz. (Hitz berria) (?).

intrintxilu, intrintxilua

MESENTERIO, ENTRESILU

hestarteko

mesenterio, entresijo, redaño

intrintxilu (eta *intrisilu* [Bakaiku]) iz. Mesenterioa; peritoneoaren tolestura, erraiei dagokien lekuan eusten diena. ▲ Sin. *hestarteko*. Ik. **lora** (?).

intrisilu

MESENTERIO

estarteko

mesenterio, entresijo, redaño

intrisilu [Bakaiku] iz. Mesenterioa. Ik. **intrintxilu**.

intrusa, intrusia

INTSUSA

saúco

intrusa (eta *intsusi* [Bakaiku]) iz. (Bot.) Intsusa, Caprifoliaceae familiako zuhaixka. • Esr. zah. *Intrusak loran, barbuek erditzen* 'intsusak lorean, barboak erditzen [erruten]'. ◆ **intrusa-lora**. ¬

intxor arbola, intxor arbolia

INTXAUR ARBOLA, INTXAURRONDO

nogal (común) (Juglans regia)

intxor arbola. (Bot.) Intxaur arbola, intxaurrondoa (Juglans regia).

intxor, intxorra

INTXAUR

2 intxor arbola

nuez

nogal (Juglans regia)

intxor **1** iz. Intxaurra, intxaurrondoaren fruitua. *Intxor kaskala* 'intxaur oskola'. *Intxorran kaskal berdĭa* 'intxaurraren azal berdea'. **2** iz. (Bot.) Intxaurrondoa (Juglans regia). Ik. **intxor arbola**. ◆ **intxor arbola**. (Bot.) Intxaur arbola, intxaurrondoa.

intxordi, intxordia

INTXAURDI

nocedal, nogueral, bosque de nogales

intxordi iz. Intxaurdia, intxaurrondo saila.

intzaile, intzailia

EGILE, EGINTZAILE

itaile

deseintzaile

autor, -a; creador, -a; hacedor, -a

egintzaile (> *intzaile*) iz. Aipatzen dena egiten duen pertsona. Ik. **egitaile** (> *itaile*). ▼ Anton. *deseintzaile*.

intzentsu, intzentsua

INTSENTSU

incienso

intzentsu (> *inzensu*) iz. Intsentsua.

inude

INUDE

nodriza, ama de cría, ama de leche

inude iz. Inoren haurrari bularra ematen dion edo hura zaintzen duen emakumea. (Garai batekoa?).

inundatu, inundatzen

UREZ BETE, UREZ ESTALI

urez bete

inundar(se) (de agua)

inundatu *da/dau* ad. Urak gainezka egin, urez bete. *Sorwek urez bete, inundatu* 'soroak urez bete, inundatu' (LM). Ik. **urak atera** (> *urak ata*).

inundazio, inundaziua

UHOLDE, URALDE

ubalde

inundación, anegamiento

inundazio iz. Uholdea. Ik. **ubalde**.

inurri

(GAZTAINA MOTA)

variedad de castaña

inurri iz. Gaztaina mota. *Gaztain inurria, morkots latzekua* (Inurri, castaña ni tardía, ni temprana, de erizo muy áspero) (Ond Bak). Ik. **latx**; **saboi**.

inutil, inutila

GAUZAEZ. 2 EZINDU

ezeza, bateza

inútil
impedido, -a, incapacitado, -a
persona no apta para el servicio militar
perezoso, -a; dejado, -a; vago, -a

inutil **1** adj. Gauzaeza, ezdeusa. Ik. **ezereza** (> *ezeza*); **batere eza*** (> *batez*, *bateza*). **2** adj. Ezindua; elbarria. *Inutil gelditu da, silan* 'elbarri gelditu da, [gurpil] aulkian'. Ik. **paralitiko**; **perlesidun**. **3** adj. Ezgaia. *Inutil deklaratu ta enen in soldautzaik* 'ezgai deklaratu eta ez nuen egin soldadutzarik'. **4** adj. Alproja.

inutilidade, inutilidadia

GAITASUNIK EZ(A), HUTSALTASUN

inutilidad [ineficacia]
inutilidad [incapacidad]

inutilidade **1** iz. Eraginkortasunik eza. **2** iz. Gaitasunik eza, hutsaltasuna. *Au da inutilidadĭa dukatena* 'hau da inutilidadea [ahalmenik eza] daukadana'.

inutilkei, inutilkeia

ALFERREKO ZEREGIN

inutilidad; cosa vana, inútil

inutilkeria (> *inutilkei*, *inutilkeia*) iz. Alferreko zeregina. *Inutilkeietan daitza* 'inutilkeriatan [alferrikako zereginetan] dabiltza'.

inuzentada, inuzentadia

INOZENTADA, INUZENTEKERIA

inocentada

inuzentada (eta *inuxentada*) iz. Inozentada, inuzentekeria. ◆ **inuzentada egin** (> *inuzentadĭa in*).

inuzentatu, inuzentatzen

INUZENTETU, BURUTIK JOAN

sinpletu

hacerse o volverse ingenuo/necio/simple
(hacer) perder la razón, el juicio

inuzentatu (eta *inuxentatu*, *inozentatu*) *da/dau* ad. Inuzentetu, lelotu; burutik egin, burutik joan, zentzua galdu. *Inuzentatwik do oi, eztakiela zer iten den* 'inozenteturik dago hori, ez dakiela zer egiten duen'. *Inuzentatu in dai oi* 'inozentetu egin dute hori'. *Inuzentatwik dukai erri au* 'inozenteturik daukate herri hau'. *Ze uste dok, inozentatwik nola-o?* 'zer uste duk, inuzenteturik nagoela-edo?'. Ik. **sinpletu**.

inuzente, inuzentia

INUZENTE

inocente, ingenuo, -a

inuzente (> *inuxente*) adj./iz. *Inuzentia dala ematen dau, bea alaja ederra da* 'inuzentea dela ematen du, baina alaja [ale] ederra da'. Ik. **inozente**.

inzaile, inzailia

EGINZALE, EGILE

hacedor, -a

egintzaile (> *inzaile*) iz. Eginzalea, egilea. *Inzailia ta inazizailia* 'eginzalea [egilea] eta eginarazlea'. *Inzailia da oi* 'eginzalea [egilea] da hori'.

inzensionaio, inzensionaio

INTSENTSU ONTZI

incensario

inzensionario (> *inzensionaio*) iz. Intsentsu ontzia; intsentsua erretzeko erabiltzen den ontzi estalkiduna, kate batzuetatik zintzilik egoten dena.

iortzi

IGURTZI

frotar, restregar, estregar, friccionar; secar frotando

iotzi, yotzi

ERAGOTZI

galazi, debekatu, proibitu

impedir, no dejar

iotzi *dau* ad. gge. Eragotzi. Ik. **galarazi**. Yotzi in ber dezut kanpua atatzia 'eragotzi egin behar dizut kanpora ateratzea'. *Pareja izatĭa yotzi* 'bikotea izatea eragotzi'.
◆ **dioselia yotzi** (egotzi 'rechazar'). Diosala [agurra] eragotzi, diosala ukatu.
– eotzi 'eragozi' (destetar) (EHHA)

ipar falso, ipar falsua

IPAR-LAINO (?) (HAIZEA)

niebla / neblina del norte, que se forma cuando se juntan el viento sur y el viento norte

ipar falso (> *iper falso*) iz. Haizea; hego haizea eta iparra nahasten direnean; ipar-lainoa sortzen du. Ik. **ipar-laino**.

ipar haize, ipar haizia

IPAR HAIZE

viento (del) norte, norte

ipar haize (> *ipar aize*, *iper aize*).

ipar, iparra

IPAR

hego

norte
viento (del) norte

ipar (eta *iper*) **1** iz. Puntu kardinala. **2** iz. Iparraldea. **3** iz. Ipar haizea. ◆ **ipar falso** (> *iper falso*). Haizea; hego haizea eta iparra nahasten direnean. ◆ **ipar haize** (> *ipar aize*, *iper aize*). ◆ **ipar-laino** (> *iper laino*). Iparretik sartzen den lainoa, eguraldi hotza dakarrena.

iper falso

IPAR-LAINO (?) (HAIZEA)

niebla / neblina del norte, que se forma cuando se juntan el viento sur y el viento norte

iper-laino, iper-lainua

IPAR LAINO

iper falso

niebla que viene del norte; nubes precursoras del viento norte

iper-laino. Iparretik sartzen den lainoa, eguraldi hotza dakarrena.

iper, iperra

IPAR; IPAR(-HAIZE)

norte
viento norte

iper **1** iz. Iparra, iparraldea. **2** iz. Iparraldetik datorren haize hotza. *Iperra, aize otza* 'iparra, haize hotza'. Ik. **ipar**.

ipertu

IPARTU*, HAIZEZTATU; 2 IPARRAK JO

ventilar(se), airear(se)
soplar viento norte

ipertu **1** *dau* ad. Haizeztatu, haizeberritu, egurastu. *Gaur eztu ipertu* (Ond Bak). Ik. **haizetu**; **airiatu**. **2** *dau* ad. Haizeak iparretik jo [?]. *Aizĭa ipertu* 'haizea ipartu'.

ipua

IPURU (?)

enebro, jinebro (?)

ipua (?). Ipurua (?). Ik. **ipuruko**; **otaipuruko**.

ipuko, ipukua

IPURU. 2 IPURUKO

enebro (Juniperus communis); sabina negra (Juniperus phoenicea)
frontil, frontalera

ipurbeltz

IPURBELTZ

culinegro, -a

ipurbeltz adj. Ipurdi beltza duena. (LM). • Esr. zah. *Bera dena bestei; zartagi zarrak pertzari: ipur-beltz*.

ipurdi masaila, ipurdi masailia

IPURMASAIL

nalga

ipurdi masaila (*a* itsatsia). Ipurmasaila, ipurdiko bi alde mamitsuetako bakoitza.

ipurdi, ipurdia

IPURDI. 2 NATURA, BULBA

culo, nalgas, trasero
fondo, base, culo
pie [de árbol]; cepa, tocón
natura, vulva

ipurdi **1** iz. Giza enborraren behe eta atzeko aldea. *Ipurdi lodi*. *Ipurdi haundi*. Ik. **ipurraundi**. *Ipurdi mehe / flako*. Ik. **ipurfallo**. **2** iz. Abere eta animalia batzuetan, uzkiaren aldea. **3** iz. Ontziez eta kidekoez mintzatuz, hondoa. **4** iz. Oina; arboletan eta, lurra ukitzen duen zatia; motzondoa. Arbola-ipurdia. **5** iz. Natura, bulba. ◆ **ipurdi masaila** (*a* itsatsia). Ipurmasaila, ipurdiko bi alde mamitsuetako bakoitza. ◆ **ipurdia miezkatu**. ◆ **ipurdi miezkatzaile**. Lgart. Ipurdi-miazkatzailea. *Ipurdi miezkatzailia*. ◆ **ipurditi(k)** (*bota*, *moztu* aditzekin) adb. Sustraitik atera, bota; errotik. *Aize bolada zakar orrek ipurditi bota dau orko arbolĩoi* 'hazie bolada zakar horrek ipurditik bota du horko arbola hori'. Ik. **ondoti(k)**. ◆ **ipurdi zikin**. ◆ **ipurdiz** adb. *Ipurdiz bota da*.¬

ipurdiko zulo, ipurdiko zulua

IPURDIKO ZULO

ano, esfínter

ipurdiko zulo. Ik. **ipurzulo**.

ipurdiko, ipurdikua

IPURDIKO

culada; azote [en las nalgas]

ipurdiko iz. Ipurdian hartzen edo ematen den kolpea. *Ezpadaiz ixilik yoten, ipurdiko bat artu ber dok* 'ez bahaiz isilik egoten, ipurdiko bat hartu behar duk'.

ipurditi(k)

IPURDITIK, ERROTIK

ondoti(k)

de cuajo, de raíz

ipurditi(k) (*bota*, *moztu* aditzekin) adb. Sustraitik atera, bota; errotik. *Aize bolada zakar orrek ipurditi bota dau orko arbolĩoi* 'hazie bolada zakar horrek ipurditik bota du horko arbola hori'. Ik. **ondoti(k)**.

ipurdiz

IPURDIZ

de culo (caer, etc.)

ipurdiz adb. *Ipurdiz bota da*.

ipurfallo

IPURDI MEHE

ipurraundi

culo flaco

ipurfallo adj. Ipurdi mehea duena; ipurdia praketan antzematen ez zaiona. ▼ Anton. *ipurraundi*.

ipurraundi

IPURTANDI

ipurfallo

culón, -ona

ipurraundi adj. Ipurtandia, ipurdi handia duena. ▼ Anton. *ipurfallo*.

ipurtargi, ipurtargia

IPURTARGI

luciérnaga (Lamprys noctiluca)
luz insuficiente

ipurtargi (eta *iputargi*) **1** iz. Lampyridae familiako intsektu gorputz-biguna, ipurtaldean argi ahul berdexka bat ematen duen organo bat duena (Lampirys noctiluca). *Udako gaubatz ederretan ikusten dĭa ipurtargiek* 'udako gauaro ederretan ikusten dira ipurtargiak'. **2** iz. (Argi iturri batek ematen duen argia oso motela dela adierazteko). *Oi ipurtargia! Ia noiz aldatzen doken bonbilla kaxkarroi* 'hori ipurtargia! Ea noiz aldatzen duan bonbilla kaxkar hori'.

ipurtats, ipurtatsa

IPURTATS

turón (Mustela putorius)

ipurtats iz. (Putorius putorius).

ipurteste, ipurtestia

IPURTESTE

intestino recto

ipurteste iz. Heste lodiaren azken zatia, uzkian bukatzen dena. *Odolkiek iten dĭa txerrien ipurtestiekin* 'odolkiak egiten dira txerriaren ipurtestearekin'.

ipuruko

IPURU. 2 IPURUKO

otaipuruko

enebro, jinebro
frontil, frontalera

ipuruko ([Altsasu, Bakaiku], eta *ipuko* [Urdiain]) **1** iz. (Bot.) Ipurua; nekostaren familiako zuhaixka (Juniperus communis; Juniperus phoenicea). ▲ Sin. *otaipuruko*. **2** iz. Kopetakoa, idiei eta behiei, uztartzean, kopetan jartzen zaiena. frontil, frontalera (idiena, behiena).

ipurzulo, ipurzulua

IPURTZULO

ipurdiko zulo

ano, esfínter

ipurzulo iz. Ipurtzuloa, ipurdiko zuloa.

ira, iria

IRA, GARO, IRATZE

iyostor [Bakaiku]

helecho

ira iz. (Bot.) Iratzea, garoa (Pteridium aquilinum). *Ira berde*; *ira seko*. *Manta-ira*; *mantakada ira*. *Txerria erretzeko irak ekartut* 'txerria erretzeko irak ekarri ditut'. ▲ Sin. *iyostor* [Bakaiku].

iradi, iradia

IRALEKU

helechal

iradi iz. Ira saila, iratze-lekua.

iraika / iraikan

IGERIKAN, IGERIKA, IGERI

ibaika

nadando, a nado

iraika(n) adb. Igerika, igeri. ▲ Sin. *ibaika(n)* [Altsasu, Bakaiku]. *Iraikan ondo daki* 'igerikan ondo daki'. *Ubarka gainĭa faten gindan iraika itĭa* 'uharka gainera joaten ginen igeri egitera'. ◆ **iraikan egin** (> *iraikan in*) *dau* ad. Igeri egin. ▲ Sin. *ibaikan egin* (> *ibaikan in*) [Altsasu, Bakaiku].

iraikalai, iraikalaia

IGERILARI

ibaikalai

nadador, -a

iraikalari (> *iraikalai*) adj./iz. Igerilaria. ▲ Sin. *ibaikalari* [Altsasu, Bakaiku].

iraikan in

IGERI EGIN

ibaikan in

nadar

iraikan egin (> *iraikan in*) *dau* ad. Igeri egin. ▲ Sin. *ibaikan egin* (> *ibaikan in*) [Altsasu, Bakaiku].

irainsube, irainsubia

HERENSUGE

dragón, -a (animal fabuloso)

irainsube (eta *ireinsube* [Urdiain], *iransube* [Altsasu (*)]; *irunsube* [Bakaiku]) iz. Herensugea; alegiazko piztia izugarria, hegoak, atzaparrak eta narrasti gorputza dituena. Ik. **hirunsube**; **dragon**. *Aztuik dukatziu iraunsubĭen ixinpluek* 'ahazturik duzkagu herensugeen *ixinpluak* [kontuak, ipuinak]'. *«Irainsubĭa Mendarteko lezĭen eoten emen zan, eta gaubĭo erriko neskatxa majena jateko atatzen emen zan lezetik»* 'herensugea Mendarteko leizean egoten omen zen, eta gauero herriko neskatxa ederrena jateko ateratzen omen zen leizetik'.

iraketa

IRA MOZTE

en busca de helechos; a por helechos

iraketa **1** adb. Ira bila. *Iraketá, irak ebaitzia Prointzĭá* 'iraketara, irak ebakitzera Probintziara [Gipuzkoara]'. **2** iz. Ira moztea.

irar, irarra

ILAR

idar zuri

guisante (Pisum sativum)

guisante (semilla)

irar (eta *idar* [Altsasu, Bakaiku]) iz. (Bot.) Ilarra, baratzeko landare lekaduna (Pisum sativum). ▲ Sin. *idar zuri*. Ik. **idar**.

irargi erdi, irargi erdia

ILARGI ERDI, ILARGIALDI(AREN) ERDI

semilunio

irargi erdi. Ilargi erdia, ilargialdiaren erdia; ilgoran eta ilondon (ilbeheran) ilargiak erakusten duen irudia, igitai-ahoaren antza duena.

irargi oso, irargi osua

ILARGI BETE, ILBETE

ilbete

plenilunio, luna llena

irargi oso. Ilargi betea. Ik. **ilbete**.

irargi, irargia

ILARGI

luna

irargi ([Urdiain] eta *idargi* [Bakaiku]); *idergi* [Altsasu]) iz. Ilargia. || *Idargi* 'ilargi' *osua*. • Esr. zah. *Idargien argia, yuzkien berotasuna, idien indarra* (Ond Bak). || *Irargiaren aldiek: ilberri, ilgora, ilondo, ilbete / irargi osua* 'ilargiaren aldiak: ilberri, ilgora, ilondo, ilbete / ilargi osoa'. [– *irargi osua, ilondo, ilberri, ilgora*]. *Irargia osatzen jok* 'ilargia osatzen zagok'.

◆ **irargi erdi**. Ilargi erdia, ilargialdiaren erdia; ilgoran eta ilondon (ilbeheran) ilargiak erakusten duen irudia, igitai-ahoaren antza duena.

◆ **irargi oso**. Ilargi betea. Ik. **ilbete**.

◆ **irargitan**. Ilargitan. *Idergitan fan da* (Iza Alts).

irasar, irasarra

IRASAGAR (?)

membrillo [fruto] (?)

irasar Ik. ilasar (?). ¬

iraun

IRAUN

permanecer, seguir
perdurar, persistir; subsistir

iraun dau ad. (LM) {egiaztatu}. Egoera berean jarraitu, egoera jakin bati eutsi; hondatu, ahitu edo desagertu gabe jarraitu.

irausi

IRAUSI

en celo [la hembra del cerdo]

irausi (Iza Alts), (Ond Bak) (eta *yausi*[2] [Urdiain]) adb. Txerri ahardiaz mintzatuz, arreske. *Urdĭa irausi do, fa ber da apwengana, apwekin ibiltzeko* 'urdea irausi dago, joan behar da apoarengana, apoarekin ibiltzeko'.

irei

IREKI

iriki, zabaldu

abrir

irei [Altsasu] *da/dau* ad. Ireki. Ik. **iriki** [Urdiain]; **zabaldu**.

iri

IREKI

zabaldu

abrir

iri *dau* ad. Ireki. —Iri zan atai'oi. —Iri dot. —Zabal zan atai'oi. —Zabaldu dot. —Iri zazu. —Iri dot. —Zabal zazu. —Zabaldu dot. (Ond Bak). Ik. **zabaldu**.

iriki, irikitzen

IREKI

irei, zabaldu

abrir

iriki [Urdiain] *da/dau* ad. Ireki. *«Iriki ataia» esaten zan* (LM). Ik. **irei**; **zabaldu**.

irregular, irregularra

IRREGULAR

regular

irregular

irregular adj. Gorabeheratsua; koskatsua. ▼ Anton. *regular*.

irrietu, irrietzen
LURRA HIGITU

narratu

correrse, deslizarse la tierra

irrietu *da* ad. Lurra higitu. {(Ond Bak): correrse, deslizarse la tierra}. Ik. **narratu**.

irrinkaxketan ari, ibili
ZABUAN KULUNKATU, ⌈ENDAITZEAN

zanbulukan ibili, gurdilafraikan, txintxingoratu,

columpiar(se) (en el carro)

irrinkaxketan ari, ibili. Gurdia zanbulu moduan ibiliz egiten zen jolasa (Ond Bak). Neska-mutiko bat gurdiaren endaitzaren (andaitza, Bakaikun) puntan jarrita, beste batzuek gurdiari atzetik eragiten diote, endaitzari gora eta behera eginez. ▲ Sin. *zanbulukan ibili*, *gurdilafraikan*, *txintxingoratu*, *askotaldiako*.

irrintza, irrintzia
IRRINTZI

relincho
grito mantenido lanzado en fiestas y bailes populares vascos

irrintza **1** iz. Zaldiaren oihua [Altsasu]. **2** iz. Oihua, garrasia. *Irrintzia in dau* 'irrintzia egin du'.

irrintzakan
IRRINTZIKA

relinchando
lanzando un irrintzi

irrintzakan **1** adb. (Zaldia) irrintzika, irrintzi eginez. **2** adb. Irrintzi oihuak eginez.

irrintzi, irrintzia
IRRINTZI

relincho

irripa, irripia
ERRIPA

aldapa

escarpa, cuesta escarpada, pendiente

irripa iz. Erripa, aldapa pikoa. Ik. **aldapa**.

irrist
IRRIST

onomatopeya del resbalón

irrist (eta *irrixt*) onomat. Irristadaren onomatopeia. *Irrixt!, ta ankazgwá* 'irrist!, eta hankaz gora'. ◆ **irrist egin** (> *irrist in*, *irrixt in*). Irristatu. Ik. **irristatu**. ¬

irrist in
IRRIST EGIN

resbalar(se), deslizar(se)

irrist egin (> *irrist in*, *irrixt in*). Irristatu. Ik. **irristatu**. ¬

irristada, irristadia
IRRISTADA

resbaladero, lugar resbaladizo
resbalón

irristada (eta *irrixtada*, *irrixtadĭa*) **1** iz. Leku irristakoarra. *Kontuz or; irrixtadĭa do ta* 'kontuz hor; irristada dago eta'. *Bado irrixtada bat!* 'badago irristada bat!'. **2** iz. Irristatzea. *A ze irristadĭa in dau!* 'a zer irristada egin du!'. ◆ **irristada egon** (> *irristadia yon*). Bertan irristatzea erraza gertatzen denean.

irristakan

IRRISTAKA

resbalando, deslizando, patinando

irristakan (eta *irrixtakan*) adb. Irristaka, irrist eginez. *Izoztutako elurretan, irristakan* 'izoztutako elurretan, irristaka'. ◆ **irristakan ibili**.

irristatu, irristatzen

IRRISTATU

resbalar(se), deslizar(se); escurrirse; patinar

irristatu (eta *irrixtatu*) *da* ad. Gainalde leun batean herrestan joan. *Irrixtatu ta ankaz gwa fan da* 'irristatu eta hankaz gora joan da'. Ik. **irrist egin** (> *irrist in*, *irrixt in*).

irrixt in

IRRIST EGIN

resbalar(se), deslizar(se)

irrixtada, irrixtadia

IRRISTADA

resbaladero, lugar resbaladizo
resbalón

irrixtatu

IRRISTATU

resbalar(se), deslizar(se); escurrirse; patinar

irruti

URRUTI

gertu

lejos, en lugar apartado

irruti adb. Urruti. Anton. *gertu*.
irrutira (> irrutĭa). *Irrutĭa fateko, ibili poliki* 'urrutira joateko, ibili poliki'.
- irrutia fan 'urrutira joan'.
- irrutio fan 'urrutirago joan'.
- irrutioko.
- irrutien.
- irrutiti.
- irrutiena.
- irruti in. Guai, zahartuta, irruti iten zaira Gainbeheko basua.
- irrutiaindo.
- irrutia / irrutio fan be.

◆ **irrutiko** adj. Urrutikoa, urruti dagoena. *Antejuek ber, gertuko ta irrutiko gauzak ikusteko* 'antiojoak behar, gertuko eta urrutiko gauzak ikusteko'. Ik. **aparteko**.

- irruti samar.
- irrutixo 'urrutixeago'.
- ezta irrutiti're (?) (Ni por asomo).
- irruti in. Fan ga basua, bea nei irruti in zaira.

• Esr. zah. *Urrutio ta ederro* 'urrutiago eta ederrago' (Zenbat urrutiago, hainbat nahiago) [Bakaiku].

irrutiko, irrutikua

URRUTIKO

aparteko

lejano, -a, remoto, -a, apartado, -a

irrutiko adj. Urrutikoa, urruti dagoena. *Antejuek ber, gertuko ta irrutiko gauzak ikusteko* 'antiojoak behar, gertuko eta urrutiko gauzak ikusteko'. Ik. **aparteko**.

irrutitu, irrutitzen
URRUTIRATU, URRUNDU

alejar(se), distanciar(se)

irrutitu *da/dau* ad. Urrutiratu, urrundu. *Jostaiek badazi irrutitzen* 'ostotsak badoaz urrutiratzen'.

irrutitxo
URRUTITXO

algo lejos, bastante lejos

irrutitxo adb. Urrutitxo, urruti samar. *Irrutitxo do pausokan fateko* 'urrutitxo dago pausoka joateko'.

irugei, irugeia
IGURAIN, BASOZAIN

guardabosque; guarda

irugei iz. Iguraina; zaintzailea, zentzu zabalean. *Guarda irugeia, atwai kasoiten ibiltzen zana*. lk. **igurai**.

irui / idui
IDURI, IRUDI

imagen; figura

irui / **iduri** (> *idui*) [irudi / iruditu] iz. Iduria, irudia. / iduri izan (?).

iruitu
IRUDITU

parecer(se), aparentar; asemejar(se)
imaginar, concebir

iruditu (> *iruitu*) **1** *dau* ad. Aipatzen denaren itxura izan, hura izango balitz bezala azaldu. **2** *dau* ad. Irudimenean eratu edo sortu. ¬

irulka(n)
IRAULKA

inbuluzkan (?)

revolcándose, dando vueltas

irulka(n) adb. Iraulka, iraulkatuz; norbait etzanik dagoela, alde batera eta bestera jiratuz. *Astwa irulkan daile* 'astoa iraulka dabil'.

irun, iruten
IRUN

hilar, reducir a hilo

irun *dau* ad. Ehuntzeko gaia hari bihurtu. *Haria irun* (Iza Alts).

Iruña
IRUÑEA

Iruñea / Pamplona

Iruña iz. Iruñea. lk. **Panplona**. *Leno beti "Iruña" esaten zan, geruo "Panplona"* 'lehenago "Iruña" esaten zen, geroago "Panplona"'.

isabelantxapel
? ABERE SABELAREN ZATIA

un intestino de cabras y ovejas

isabelantxapel iz. {(Ond Bak): un intestino de cabras y ovejas}. *{"Biziaren hiztegiaz" Txomin Peillen. Isabelantxapel: abere sabelaren zatia. Abereen isabelantxapel, agian, karlistek Isabel erreginaz egin hitz jokoa liteke. Sabel zorro: panza}.

isai, isaitu, isaitzen
? EGURASTU

isai, isaitu *dau* ad. *Baniua trastiok 'arropok' isaitzia. Isai ber tu.*
(? sekatzen paratu; banatu; zabaldu [?]; aireberritu, egurastu [?])

isasi, isasia (?)

jaral (?)

isasi iz.

isegi

ESEKI

txintxilikatu

colgar, tender

isegi *da/dau* ad. (Iza Alts). [Olaztiko grabazioetan. Egun arrotza Urdiain eta Bakaiku artean]. Ik. **txintxilikatu**.

isipela, isipelia

ISIPULA

erisipela

isipela [Urdiain] iz. Isipula. Ik. **isipula**.

isipu, isipua

ISIPU. 2 ZURDAKI

hisopo, aspersorio
brocha

isipu (eta *ixipu*) **1** iz. Elizetan ur bedeinkatuaz ihinztatzeko erabiltzen den tresna. **2** iz. Zurdakia, pintzel lodia, paretak-eta margotzeko erabiltzen dena. *Txuitzeko ixipua* 'zuritzeko [margotzeko] isipua'.

isipula

ISIPULA

erisipela

isipula (eta *gisipela* [Bakaiku], *isipela* [Urdiain]) iz. Eritasun kutsakorra, azala gorri eta distiratsu ipintzen duena. *Isipelĭa, narruazaleko gaitza* 'isipula, larruazaleko gaitza'.

istante, istantia

ISTANT

momento, instante

istante (eta *instante*, *ixtante*) iz. Istantea, unea ["istant" da euskara batuko forma]. ◆ **istante batean** (> *istante batĭen*) adb. Istant batean, laster batean. ◆ **istantean** (> *istantĭen*) adb. Bat-batean, berehala.

istikatu, istikatzen

(BARREZ) LEHERTU / LEHERRARAZI

desternillarse

istikatu (Ald. ?istekatu) *da/dau* ad. (*) Barrez lehertu, ito. *Arek istikatzen zen barrez jendĭa* 'hark istikatzen zuen barrez jendea'.

istilu, istilua

ISTILU

eskandalo, yausi, follon

alboroto, jaleo, estrépito, bulla, jarana
embrollo, enredo, lío, incidente, follón
apuro, trance (?)

istilu **1** iz. Iskanbila. *Istiluek*. ▲ Sin. *eskandalo*, *yausi*, *follon*. **2** iz. Arazo edo auzi eztabaidatsua. ◆ **istiluketan**.

istiluketan

ISTILUKA

alborotando

istiluketan adb. Istiluka. *Mozkortuta denĭen beti asten dĭa istiluketan* 'mozkortuta daudenean beti hasten dira istiluka'.

isui punta

ISURI PUNTA [BANALERRO]

divisoria de vertientes (?)

isuri punta (> *isui punta*). Mendiko punta, isurialdeen banalerroa dena (?).

isui, isuia

ISURI, ISURIALDE (2)

vertido, derramamiento, flujo
vertiente, pendiente

isuri[2] (> *isui*, *ixui*) **1** iz. *Odol isuia* 'odol isuria'. **2** iz. Isurialdea. *Teilatuen ixuia* 'teilatuaren isuria'. ◆ **isuri punta** (> *isui punta*, *ixi punta*). Mendiko punta, isurialdeen banalerroa dena (?). *Isui Punta*, *Ixi Punta* [mendiko banalerroa].

isui, isuitzen

ISURI (1)

manar, fluir

isuri[1] (> *isui*, *ixui; isuitzen*) *da/dau* ad. Odola isui; odol isuia 'odola isuri; odol isuria'. *Odola isuitzen etor zan, odola daiola* 'odola isurtzen etorri zen, odola dariola [zeriola]'.

isun, isuna

ISUN

multa

isun (eta *ixun*) iz. Lege edo aginduren baten hausleari ezartzen zaion diruzko zigorra. *Aspaldiko isunik aundiena* 'aspaldiko isunik handiena'. *Isuna ososwa patu ber izan dau* 'isuna oso-osoa pagatu behar izan du'. ◆ **isuna bota**. Isuna ezarri. *Isuna bota duai* 'isuna bota [ezarri] didate. Ik. **isundu**; **(norbaiti) porrua sartu**.

isundu, isuntzen

ISUNDU

isuna bota, porrua sartu

multar

isundu *dau* ad. Isuna jarri. *Orri isundu in ber zaio* 'horri isundu egin behar zaio'. Ik. **isuna bota**.

isus-zuin

ISUS-ZUIN [(HAZIA) BARREIATZEKO ZUIN]

surco para la siembra

isus-zuin iz. (Ond Bak), (Iza Alts). Hazia isusteko zuina, ildoa. {"Señales: hoyos, surcos, ramitas... para echar simiente en un campo" (Ond Bak)}.

isusi, isusten

ISUTSI, (HAZIA) BARREIATU

hazia banatu

esparcir; echar a voleo la semilla

isusi *dau* ad. Ik. **isutsi**.

isustaile, isustailia

(HAZI) BARREIATZAILE; EREILE

hazimilera, yaintzaile

esparcidor, -a (en la siembra); sembrador, -a

isustaile adj. Ereilea; ereintzan, hazia banatzen duena. *Azia isusten dena da isustailĭa* 'hazia *isusten* [barreiatzen] duena da *isustailea*'. Ik. **isutsi*** (> *isusi*). Ik. **hazimilera**; **yaintzaile**.

isutsi, isusten

ISUTSI, (HAZIA) BARREIATU

hazia banatu

esparcir; echar a voleo la semilla

isutsi ([Altsasu] eta *isusi* [Urdiain, Bakaiku] *dau* ad. Isutsi; hazia bota, hazia barreiatu. [Urdiain]: *hazia isusi*, *garia isusi*, *maiza isusi*. *Yaiteko garia isusi* 'ereiteko garia isutsi [barreiatu]'. ▲ Sin. *hazia banatu*. Ik. **isustaile**; **hazimilera**; **yaintzaile**.

ita

IGITA

siega

igita (> *itá*) iz. Igita, igitatzea. (Batez ere leku atzizkiekin erabiltzen da, singularrean). *Banua itá* 'banoa igitara'. *Itaia eskutan, banua itá* 'igitaia eskuetan, banoa igitara'.

itai, itaia

IGITAI

hoz

itailari, itailaria

IGITARI

igitaidun

segador, -a de hoz

itailari iz. Igitaria, igitatzen duen langilea. Ik. **igitaidun**.

itaile, itailia

EGILE

intzaile

autor, -a; creador, -a; hacedor, -a

egitaile (> *itaile*) iz. Egilea. *Asko iten dena da itailia* 'asko egiten duena da egitailea'. Ik. **egintzaile** (> *intzaile*).

itain, itaina

IZAIN

sanguijuela (Hirudo medicinalis)

itain iz. Izaina; zizare mota xurgatzailea, ur gezetan bizi dena eta gorputzetik odola ateratzeko erabiltzen zena (Hirudo medicinalis).

itaindun, itainduna

sanguijuelero, -a

itaindun iz. Izainak hartzen, saltzen edo odola xurgatzeko gaixoei jartzen aritzen zen pertsona.

itaitu, itaitzen

IGITATU

segar (con la hoz)

itaitu (eta *itatu*) *dau* ad. Igitatu, igitaiaz ebaki. *Gariek itaitu* 'gariak igitatu'. *Itan ibili* 'igitan ibili'. *Itan daile* 'igitan dabil'. ◆ **itaitzera** (> *itaitzĭa*). *Gariek itaitzia, banua itá* 'gariak itaitzera, banoa igitara'. Ik. **igita** (> *itá*).

itajun, itajuna / itajuna, itajunia

ITAXUR, ITOGIN

gotera

itajun, itajuna / itajuna, itajunia Ald. itojin (Iza Alts); itajura, itujara, itufara (Ond Bak); itofin (Olatzagutia). iz. Itaxura, itogina.

italdiko, italdikua ITALDIKO

ayudante del boyero

italdiko iz. Aldia egokituta, idiak eta behiak zaintzen dituena. *Ferrileko langĭa kasoiten zen italdiko zonak, ganauein atua pasatzeko, egun osuen iluntziartĭa* 'ferrokarrileko [trenbideko] langa kasu egiten zuen italdiko zegoenak, ganaduen hatua [saldoa] pasatzeko, egun osoan iluntze arte'. [Udan, herriko etxe bakoitzari aldika egokitzen zitzaion «italdiko» izatea].

itauli, itaulia ITEULI

tábano bovino (Tabanus bovinus)

itauli (> *itauliya* [Altsasu]) iz. Iteulia, behiei eta kidekoei erasotzen dien ezpara (Tabanus bovinus). Ik. **mandaiauli**; **zamailu**.

itaurreko, itaurrekua ITAURREKO

boyero, guía de bueyes

itaurreko (eta *iturreko* [Ziordia]) iz. Idiak edo behiak gidatzen dituen pertsona. Ik. **itzai**.

iteko, itekua EGITEKO

lan, tarea / taria

quehacer, ocupación, tarea; función
acción, acto, hecho, obra

egiteko (> *iteko*) iz. *Oi dok itekwa, hoi!* 'hori duk egitekoa, hori!'. ◆ **beste egitekorik ez izan** (> *beste itekoik ez izan*). Zerbaitetan denbora alferrik galdu nahi ez dela adierazteko. *Ez tukat beste itekoik!* 'ez daukat beste egitekorik!'. ◆ **egiteko txarra** (> *iteko txarra*) interj. *Ilunduta fan ber daiz pasĭa? Iteko txarra!* 'ilunduta joan behar haiz [duk] paseatzera? Egiteko txarra!'. ◆ **ezer egitekorik** (> *ezer itekoik*, *eze itekoik*). (Ezezko esaldietan). *Eztukat eze itekoik* 'ez daukat ezer egitekorik'.

itirio ITARIO (*)

maleza del trigo (planta espinosa)

itirio iz. (Bot.) Itarioa; gari soroetan ateratzen den belar txarra, lore urdinak ditu eta arantzak heldua denean (*). {(Ond Bak): una hierba que nace en el trigo, maleza}.

ito, itotzen ITO

ahogar(se), asfixiar(se)
agobiar(se), fatigar(se), abrumar(se)

ito **1** *da/dau* ad. ◆ **ito beharrean** (> *ito berrĭen*). *Korrika ta prisaka, ito berrĭen* 'korrika eta presaka, ito beharrean'.

ito, itua ITO

itogarri

asfixiante, sofocante; agobiante

ito (> *itwa*) adj. ▲ Sin. *itogarri*. *Egun itwa* 'egun itogarria, hezea eta beroa'. *Giro itwa* 'giro itoa'. *Toki itwa* 'toki itoa [beroa, eta aireak korritzen ez duen tokia]'.

itogarri, itogarria ITOGARRI

itua

asfixiante, sofocante, irrespirable

itogarri adj. Arnasa hartzea eragozten duena. *Usai itogarria* 'usain itogarria'. ▲ Sin. *itoa(a)* (> *ituá*, *itwa*). ¬

itolarri, itolarria

ITOLARRI

ahogo, sofoco; asfixia; agobio, apuro

itolarri iz. Itobeharra, larritasun itogarria. ◆ **itolarrian** (> *itolarrien*) adb.

itongarri, itongarria

IDI ONGARRI*

excremento del ganado

itongarri iz. Idien ongarria (Ond Bak) (excremento del ganado).

itsasi, itsasten

ITSATSI

pegar(se), adherir(se), unir(se)
contagiar
arraigar, enraizar
agarrar, prender

itsasi Ald. itxasi; Ald. itsetsi (Iza Alts); itsasi (Ond Bak). Gripe garbi pasatu be zekan batekin lo in zela, eta etzakiola itsasi. || Porruek itxas dia. Txertuek itsas dau.

itsu, itsua (1)

ITSU

3 amorratu

ciego, -a, invidente
aficionado, -a; fanático, -a; empedernido, -a

itsu[1] **1** adj./iz. Ikusmenaz gabetua. **2** adj. Zerbaiten oso zalea dena. *Oi itsua da gozwendako* 'hori itsua da gozoarendako [gozozalea]'. Ik. **amorratu**. ◆ **itsu-itsuan** (> *itsu-itsuen*) adb. *Itsu-itsuen ekar ber diet sekadoria*. 'itsu-itsuan ekarri behar diat sekadora [arropa lehorgailua]'.

itsu, itsua (2)

ERLAKIZTEN, ZALDAR

forúnculo, furúnculo, divieso

itsu[2] iz. Zaldarra, erlakiztena. *Itsua, pitor gaiztatua* 'itsua, pikor [handitu] gaiztotua'. Ik. **itsumutu**; **zuldur**.

itsumutu, itsumutua

ERLAKIZTEN, ZALDAR

itsu

divieso; forúnculo

itsumutu iz. Erlakiztena, zaldarra. [ganglio (?); divieso] Ik. **itsu**.

itsusi, itsusia

ITSUSI

feo, -a
feo, -a, reprobable, infame
feo, -a, malsonante; obsceno, -a

itsusi
2. Egun itsusia (eguraldia). Hoi jantzi itsusia!
3. konportamentu itsusia ibil dau (ekintza).
4. hitz itsusiek.

itsutu, itsutzen

ITSUTU

quedarse ciego, perder la vista; dejar ciego; cegar
deslumbrar(se)
cegar(se), ofuscar(se), obcecar(se)

itsutu **1** *da/dau* ad. Ikusmenaz gabetua utzi edo gertatu, itsu bihurtu. **2** *da/dau* ad. Argi gehiegiak liluratu. *Autwen argiek itsututa* 'autoaren argiak itsututa'. Ik. **begietan jo** (> *begitan jo*). **3** *da* ad. Itsuki zaletu. *Raso itsutwik de futbolakin* 'arras itsuturik daude futbolarekin'. Ik. **sinpletu**.

iturkeitz, iturkeitza

ITURKAITZ

ojo de agua que brota con facilidad en un fontanal o sitio que abunda en manantiales

iturkeitz iz. Iturkaitza. [Ojo de agua que brota con facilidad en un fontanal o sitio que abunda en manantiales]. Ur gune eta siets leku diren eremuetan ateratzen diren iturriak. *Mantxika-gaztinaldien yoten da iturkeitza* [Urdiain]. *Iturria sortzen dan lekua, ura jaiotzen dan tokia da iturkeitza* 'iturria sortzen den lekua, ura jaiotzen den tokia da iturkaitza'. *Iturkeitzak, ugunetan atatzen dĭan iturribegiek* 'iturkaitzak, ur guneetan ateratzen diren iturbegiak'. {manantial que brota con facilidad cuando se cava en un fontanal}.

iturmendiar, iturmendiarra

ITURMENDIAR

natural de Iturmendi; habitante de Iturmendi

iturmendiar **1** adj. Iturmendikoa, Iturmendiri dagokiona. **2** iz. Iturmendiko herritarra.

iturri, iturria

ITURRI

manantial
fuente

iturri **1** iz. Lur azpitik azaleratzen den ura; ur hori ateratzen den lekua. *Arratatako iturria*; *Eztiturri*. Ik. **iturkeitz**. **2** iz. Ubidez ekarririko urei aterabidea emateko antolatzen den eraikuntza, gehienetan uraskaz hornitua. *Plazako iturria*; *Iturri zarra*.

iturribegi, iturribegia

ITURBURU, ITURBEGI

iturrien ama, ur-begi

nacedero, manantial, fuente, ojo de agua

iturribegi iz. Iturbegia, iturburua. *Ezaun do aurtengo sekurĭa; iturri begiek sekatwik o raso murritwik de* 'ezagun dago aurtengo sikura; iturri begiak sikaturik edo arras murrizturik daude'. ▲ Sin. *iturrien ama* (Ond Bak); *ur-begi*. Ik. **iturkeitz**.

iturrien ama

ITURBURU

iturribegi, ur-begi

nacedero, manantial, fuente

iturriaren ama (> *iturrien ama*) [Bakaiku] iz. ▲ Sin. *iturribegi*, *ur-begi*.

itxan, itxana

ITXOIN*, ATSEDEN, ATSEDENALDI, GELDIALDI,

itxanaldi, deskanso

espera; descanso, reposo, pausa

itxan iz. Atsedena [itxoin*; etxon*]. Deskansatzeko itxana. *Alabĭek esan zian jentilai zer zan «itxana»* 'alabak esan zion jentilari zer zen atsedenaldia'. Ik **itxanaldi**; **deskanso**.

itxanaldi, itxanaldia

ITXOINALDI*, ATSEDENALDI, GELDIALDI,

itxan(a)

pausa; (tiempo de) descanso, (tiempo de) reposo

itxanaldi iz. Atsedenaldia [itxoinaldi*]. Ik. **itxan(a)**.

itxartina, itxartinia

MIHIKO PIKOR / PIKORTA

grano (que sale en la lengua)

itxartina (eta *itzartina*) (*a* itsatsia) iz. Mihian agertzen den pikor gisakoa (*papilitis lingual*). *Itxartinak, miyen atatzen dĭan pikorrak* 'mihian ateratzen diren pikorrak'.

itxaso, itxasua

ITSASO

mar, océano

itxasu, itxasua

ITSASO

mar, océano

itxasu (eta *itxaso*; *itsesu* (?) [Altsasu]) iz. Itsasoa. ¬

itxi, itxia (2)

ITXI, ITXITURA

zerratu, hespil

zabala

cerrado, -a
introvertido, -a; cerrado, -a; huraño, -a
cerrado, -a, tupido, -a, espeso, -a
cercado, vallado

itxi[2] **1** adj. Sarrera edo irteera eragotzia duena. *Toki itxia*. **2** adj. Jendearen lagunarteari ihes egiten diona. *Persona itxia*. **3** adj. Sarria edo trinkoa dena. *Baso itxia*. Ik. **sarri**. ▼ Anton. (1, 2, 3) *zabal(a)*. **4** iz. Itxitura, eremu edo barruti itxia. Ik. **hespil**; **zerratu**.

itxi, ixten (1)

ITXI (1)

zabaldu

cerrar(se)
encerrarse

itxi[1] **1** *da/dau* ad. *Ataia murriluekin itxi* 'atea morroiloarekin itxi'. *Laiua itxi* 'leihoa itxi'. *Tranpĭa ta atarzulwa itxik* 'tranpa [atearen leihoa] eta artarzuloa [katazuloa] itxirik'. *Langĭa giltzĭekin itxi* 'langa giltzarekin itzi'. ▼ Anton. *zabaldu*.
Fabrikĭa itxi in dai 'fabrika itxi egin dute'. *Astelenetan tabernĭa itxik do* 'astelehenetan taberna itxirik dago'.
Autuendako, kaliek itxi in tuai. Belarriek itxi (belarri zuloa itxi). *Surrak itxi*. *Begiek itxi*. *Zulwa itxi*. *Paswa itxi* 'pasoa [pasabidea] itxi'. *Eskua itxi*. *Paragosa itxi* 'aterkia itxi'. *Larrĭa alanbre-esiekin itxi* 'larrea alanbre-hesiarekin itxi'. ¬

itxo / itxoik

(GAINEAN) JARRI, (GAINEAN) IGO

montar

itxo *da* ad. Gainean jarri, gainean igo. Itxota. *Ganauen gainien itxota* 'ganaduaren gainean, itxota'. *Indiua zaldien itxo* 'indioa zaldian itxo'.

itxura, itxuria

ITXURA

traza, fatxa, planta, figura

forma, figura, aspecto, apariencia, traza; presencia, planta, parecer; pinta

itxura iz. Ik. **etxura**. *Itxura txarra deka* 'itxura txarra dakar / dauka'. Sin. traza, fatxa, planta, figura.

itzai, itzaia

ITZAIN; 2. GURDIZAIN

boyero, guía de bueyes
carretero

itzai iz. Itzaina; idiak zaintzen eta gidatzen dituen pertsona; gurdiak gidatzen dituen pertsona. {(Iza Alts): carretero}. [Urdiain]: *Itaurrekua idiein aurreti, itzaia atzeti* 'itaurrekoa idien aurretik, itzaina atzetik'. Ik. **itaurreko**.

itzal, itzala

ITZAL, LAIOTZ

errainu

yuzkialde

sombra
umbría, paraje sombrío
sombrío, -a; umbrío, -a

itzal iz. *Lastima udan basuen galtzen dien itzalak. Soruen erretzen yuzkiekin eta basuen itzala galtzen* (Ond Bak). ▲ Sin. *errainu*. ▼ Anton. *yuzkialde*. Ik. **itzalalde**. ◆ **itzala egin** (> *itzala in*). ◆ **toki itzala**. Laiotza. ¬

itzalalde, itzalaldia

ITZALALDE

itzal

yuzkialde

umbría, sombría, lugar donde hay sombra
norte, lugar orientado al norte

itzalalde iz. Itzala den alderdia; iparrera ematen duen aldea. *Itzalaldĭa duka sarreri̇a etxĭek* 'itzalaldera dauka sarrera etxeak'. ▲ Sin. *itzal*. ▼ Anton. *yuzkialde*. Ik. **egutera**.

itzaldu, itzaltzen

ITZALDU, ITZALI

ilundu

ensombrecer(se); oscurecer(se); nublar(se)
eclipsar(se)

itzaldu *da/dau* ad. Itzaleztatu, itzalak hartu; zerbaiten bizitasuna edo karra gutxitu edo desagertu. *Yuzkia itzaldu lainopĭen* 'eguzkia itzaldu lainopean'. Ik. **ilundu**; **lainatu**.

itzalpe, itzalpia

ITZALPE

yuzkipe; argipe

sombra

itzalpe iz. Zuhaitz batek edo kideko zerbaitek eratzen duen itzala, itzalean dagoen tokia. ▼ Anton. *yuzkipe*.

itzartina

MIHIKO PIKOR / PIKORTA

grano (que sale en la lengua)

itzartina (*a* itsatsia) iz. Ik. **itxartina**.

itzuldu

ITZULI, IRAULI

itzuli, bolkatu

volcar(se)

itzuldu [Altsasu] *da* ad. Irauli, itzuli. {"*Gurdiya itzuldu gáinéa*"(Iza Alts)}. Ik. **itzuli**; **yaili**.

itzuli, itzultzen

IRAULI

itzuldu, bolkatu

volcar(se)

itzuli *da* ad. Irauli; azpikoz gora jarri. *Gurdia itzuli* 'gurdia irauli'. *Zelaien ezta gurdia itzultzen* 'zelaian ez da gurdia iraultzen'. ▲ Sin. *itzuldu* [Altsasu], *bolkatu*. Ik. **yaili**.

iuntz, iuntza (?)

iuntz (?)

iuntzi, iuntzia EULTZI. 2 INUNTZI, (TXILARREZKO) ERRATZ

parva, trilla
escobón de brezo

iuntzi **1** iz. Eultzia. Ik. **yuntzi**[1]. **2** iz. Txilarrez egindako erratza. Ik. **ilar yuntzi**; **yuntzi**[2].

iutsin, iutsina ERAUNTSI

borraska

tormenta, tempestad [de viento, lluvia, nieve]; chaparrón

iuzki, iuzkia EGUZKI

Sol
sol

ixe UX, UXA

ixo, ox, oxe *purra (oiloei deitzeko)*

ox, os

ixe (eta *ixo* [Urdiain]) interj. Ux, uxa; etxeko hegaztiak uxatzeko erabiltzen den hitza. [*Ixe!* "Exclamación para ahuyentar aves domésticas" (Ond Bak)]. ▲ Sin. *ox*, *oxe*; *ixo*. ▼ Anton. *purra*.

ixil-ixilik ISIL-ISILIK

totalmente callado, -a, en silencio, silenciosamente

isil-isilik (> *ixil-ixilik*). adb. Guztiz isilik. *Obena da ixil-ixilik yotĭa* 'hoberena da isil-isilik egotea'. *Serio ta ixil-ixilik gelditu zan jendĭa* 'serio eta isil-isilik gelditu zen jendea'.

ixil, ixila ISIL

silencioso, -a
callado, -a;

isil (> *ixil*) **1** adj. *Leku ixila*. **2** adj. *Jende ixila*. **3** adb. *Itz intazu ixilo* 'hitz egin ezazu isilago. ◆ **isilean gorde** (> *ixilien gorde*). ◆ **isilik gorde** (> *ixilik gorde*). ◆ **isil-isila** (> *ixil-ixila*). adb. Guztiz isilik. *Zade ixil-ixila* 'zaude isil-isila'. ◆ **isil-isilik** (> *ixil-ixilik*). adb. Guztiz isilik. *Serio ta ixil-ixilik gelditu zan jendĭa* 'serio eta isil-isilik gelditu zen jendea'.

ixildu, ixiltzen ISILDU

callar(se)
terminar(se)
acallar, hacer callar

isildu (> *ixildu*) **1** *da/dau* ad. *Txakurra ixildube yon da gau guztĭa* 'txakurra isildu gabe egon da gau guztia' **2** *da* ad. Irud. Amaitu, bukatu. *Ixildu tuk kontuek, bai* 'isildu dituk kontuak, bai [bukatu dira kontuak]'. **3** *da/dau* ad. Norbait isilik gelditu, isilarazi. *Ta nik arrazoi; ixildu dok, bai, ixildu!* 'eta nik arrazoi; isildu duk, bai, isildu!'. *Danak ixildu jitun* 'denak isildu ditin'. Ik. **isilduazi** (> *ixilduazi*). ¬

ixilduazi, ixilduazten ISILARAZI

acallar, hacer callar

isilduazi (> *ixilduazi*) *dau* ad. Isilarazi, isiltzera behartu.

ixilien ISILEAN

ixilkan, ixilpien; sekretuen

en silencio
en secreto, secretamente, a escondidas

isilean (> *ixilien*) adb. Ezkutuan, gordean. *Ixilien daitza hizketan*. ▲ Sin. *ixilkan*; *ixilpien*. Ik. **sekretuan** (> *sekretwen*). ◆ **isilean gorde** (> *ixilien gorde*). Ixilik gorde. Ik. **isilik gorde**.

ixilik ISILIK

en silencio, callado, -a
en secreto, secretamente, a escondidas

isilik (> *ixilik*) **1** adb. *Ixilik yoten dakienai aitu ber zaio* 'isilik egoten dakienari aditu behar zaio'. **2** adb. Isilean. *Aua ixilik; ez esaten!* 'hura isilik; ez esaten!'. *Ixilik gordetazu esandakwa* 'isilik gorde ezazu esandakoa'. ◆ **isil-isilik** (> *ixil-ixilik*). adb. Guztiz isilik. *Obena da ixil-ixilik yotĭa* 'hoberena da isil-isilik egotea'. *Serio ta ixil-ixilik gelditu zan jendĭa* 'serio eta isil-isilik gelditu zen jendea'. ◆ **isilik egon** (> *ixilik yon*) (jokatutako esapidea). Harridura adierazteko: **zaude / hago isilik!** (> *zade / ago ixilik*) [ez esan!]. —*Maria ta Jose banatu in emen dĭa*. —*Zade ixilik!* 'Maria eta Jose banatu egin omen dira. —Zaude isilik!'. || ◆ **zaude / hago isilik ba!** (> *zade / ago ixilik ba*). (Emango den berria indartzeko). ◆ **isilik gorde** (> *ixilik gorde*). Isilean gorde. *Orrek eztau ixilik gordeko, ez*. 'horrek ez du isilik gordeko, ez'. Ik. **isilean** (> *ixilien*). ¬

ixilkan ISILKA

ixilien

en silencio; en voz muy baja
en secreto, secretamente, a escondidas

isilkan (> *ixilkan*) adb. Isilka, isilean, gordean. *Kontu bat esan ber dunat ixilkan* 'kontu bat esan behar dinat isilka'. ▲ Sin. *ixilien*.

ixilpe, ixilpien ISILPEAN

agopien [?]

en silencio
en secreto, secretamente, a escondidas

isilpean (> *ixilpien*) adb. Isilean, ezkutuan; sekretupean.

ixiltasun, ixiltasuna ISILTASUN

silencio

isiltasun (> *ixiltasun*) iz. *Au ixiltasuna dona etxĭontan* 'hau isiltasuna dagoena etxe honetan'.

ixinplo, ixinplua IPUIN, KONTU; 2 GEZUR HUTS

kontu; 2 sinplekeia, tonteia, enbusteia

cuento, fábula, relato
embuste

ixinplo **1** iz. Etsenplua*, ipuina, alegia, elezaharra. *Afalonduen, abuelak ixinpluek kontatzen tu* 'afalondoan, amonak ixinploak kontatzen ditu'. *Kontatazu ixinpluek* 'konta ezazu ipuinak'. ▲ Sin. *kontu*. **2** iz. Batez ere pl. *ixinpluek* (gutxiespen zentzua). Gezurrezko kontuak; gezur hutsak. *Oiek ixinpluek tun!* 'horiek ixinploak [kontuak; gezur hutsak] ditun!'. ▲ Sin. *sinplekeia*, *tonteia*, *enbusteia*. ◆ **ixinpluak kontatu** (> *ixinpluek kontatu*). Ipuinak kontatu. *Kontuketalai ona zan ta ixinpluek kontatzen zezkiun* 'kontuketalari ona zen eta ixinpluak kontatzen zizkigun'.

ixo

IXO. 2 UX

2 ixe, ox, oxe

2 purra

¡silencio!, ¡chitón!, ¡calla!

ox, os

ixo **1** interj. Norbaiti isil dadin eskatzeko erabiltzen den hitza. *Ixo!, orrenbeste yausi!* 'ixo!, horrenbeste erausi [zalaparta]'. **2** interj. Ux, uxa; etxeko hegaztiak uxatzeko erabiltzen den hitza. Ik. **ox**, **oxe**; **ixe** [Bakaiku]. ▼ Anton. *purra*.

ixur

IZUR

kuzkur

rizado, -a

ixur adj. Izurra, kizkurra. *Laino ixur*. {"*Laino ixur*, nube o cielo rizado" (Ond Bak)}. Ik. **kuzkur**.

iyelki, iyelkitzen

ERALKI, BAHETU

cerner, cribar, tamizar

iyelki (eta *yelki*) *dau* ad. Eralki, bahetu. *Ina iyelkitzen dail* 'irina eralkitzen dabil'. Ik. **baiatik pasatu**.

iyendura, iyenduria

IRAINDURA (*), IRAIN [ESNE ETORRERA]

subida (o bajada) de la leche materna; golpe de leche

iyendura iz. Iraindura, iraina; erditzean emeen titietan esnea agertzea. ◆ **iendura jaitsi** (> *iyenduria jaitxi*). Iraindura jaitsi, esnea etorri. {*OEH iraindura, ereindura (AN-5vill, B, BN-arb-lab, Sal, R), irindura (G-nav). Ref.: A (ereindura); Gte Erd 107. "Chorro, circulación de la leche cuando se ordeña una vaca. [...] Behi hunek ereindurarik eztu emaiten egun (BN-lab). [...] Ereindura xin zik korai (R-vid)" A. "Ereindura jautsi zaio (B) [...]; urdama ereindura ematen ari zaie (AN-5vill, BN-arb), irindura ematen ari da (G-nav)" Gte Erd 107}.

iyo

EHO

moler, triturar, machacar

iyo *dau* ad. (Iza Alts). Eho; aleak eta kidekoak birrindu edo haustu. *Errotan garia iten zan harrien íyo* (Ond Bak). Ik. **iho**. Ik. **txehetu**; **txikitu**; **matxakatu**.

iyo, iyotzen (1)

IGO

3 jaso, goatu

jaitxi

subir

iyo (eta *io*) **1** *da* ad. Igo. ▼ Anton. *jaitxi*. 2 *dau* ad. Eskilak iyo. Aldapĭa iyo. 3 *dau* ad. Ik. **jaso**.

iyogera, iyogeria

IGOERA

subida, ascenso, ascensión

iyogera iz. Ik. **igoera**.

iyola

INOLA

de ninguna manera, de ningún modo; en ningún caso

iyola adb. Inola; ezezko testuinguruetan, bakarrik nahiz *ere* eskuinean duela, 'ez modu batera ez bestera' esanahiaz, edo ezetzaren indargarri gisa. *Eztĭagu autziko maldadĭoi iten, ezta iyola're!* 'ez diogu utziko kalte hori egiten, ezta inola ere!'. ◆ **inola ere ez** (> *iyola're ez*). *—Nola in dezu, ba? —Iyolare ez!* '—Nola egin duzu, bada? —Inola ere ez!'. *Iyolare ezin dezu orduko garai aiekin konparatu* 'inola ere ezin duzu orduko garai haiekin konparatu'.

iyon

INOREN

ajeno, -a; de otro, -a

iyon ([Altsasu]; *iyuen* [Urdiain]). Inoren [ajeno]. *Hiru etxe iyonak* 'hiru etxe inorenak'.

iyor

INOR

norbait

alguien, alguna persona

iyor izord. Inor. *Intxorra eztau iyork'e mozten* 'intxaurra ez du inork mozten'. ◆ **iyore**. Inor ere. (Izen ordainak beti 'ere' partikularekin ibiltzen dira). *Ikus dezu iyor'e?* 'ikus duzu inor ere?'. *Bajok iyore?* 'bazagok inor ere?' || *Ez dok besteik falta, ura etortzia eta etxien iyor'e ez yotia* (Ond Bak). *Iyorek eztaki* 'inork ere ez daki'. Ik. **norbait**. ◆ **iyorez**. Inor (ere) ez. *—Ezta etorri iyor'e? —Ez, iyor'ez* '—ez da etorri inor ere? —Ez, inor ere ez'.

iyore

INOR ERE

norbait

alguien, alguna persona
nadie, ninguna persona

iyore. Inor ere. (Izen ordainak beti 'ere' partikularekin ibiltzen dira). *Bajok iyore?* 'bazagok inor ere?' || *Ez dok besteik falta, ura etortzia eta etxien iyor'e ez yotia* (Ond Bak). *Iyorek eztaki* 'inork ere ez daki'. Ik. **norbait**.

iyortzi

IGURTZI

frotar, restregar, estregar, friccionar
secar frotando

iyortzi ([Altsasu]; *iortzi*, *iyortzi*, *iyurtzi* [Urdiain]) **1** *dau* ad. Igurtzi [frotar]. *Iyortzi zapatak ezkatzien zikina kentzeko*. *Iyortzi eskuek / paterak oihal batekin, sekatzeko*. **2** (> *iortzi* [Urdiain]) *dau* ad. Bihurritu. *Arropa mustia iortzi* (bihurrituz) 'arropa bustia igurtzi [bihurritu]'.

iyostor

IRA, GARO, IRATZE

ira

helecho

iyostor [Bakaiku] iz. (Bot.) Iratzea. Ik. **ira**.

iyua

INORA

a ninguna parte (en oraciones negativas)

iyua adb. (Baiezko ez diren testuinguruetan). Inora; tokiren batera, norabait. ◆ **iyua're** (> *iyuare*). (Ezezko esaldietan). Inora ere, inora ez. *Enaiz fanko iyua're* 'ez naiz joango inora ere'. ◆ **iyua're ez** (> *iyuarez*). (Erantzunetan, aditza ezabaturik). Inora ere ez *—Nwa zazi? —Iyua're ez* '—Nora zoaz? —Inora ere ez'.

iyua're

INORA ERE

a ninguna parte

iyua're (> *iyuare*). (Ezezko esaldietan). Inora ere, inora ez. *Enaiz fanko iyua're* 'ez naiz joango inora ere'. ◆ **iyua're ez** (> *iyuarez*). (Erantzunetan, aditza ezabaturik). Inora ere ez *—Nwa zazi? —Iyua're ez* '—Nora zoaz? —Inora ere ez'.

iyubiur, iyubiurrak (pl.)

IRABIUR

mayal (instrumento para desgranar)

iyun

INON

en ningún lugar/sitio

inon (> *iyun*) adb. (Baiezko ez diren testuinguruetan). *—Nun ibil za? —Iyun ez!* '—non ibili zara? —Inon ez!'. ◆ **inon direnak esan / bota / aditu / egin** (> *iyun dianak esan / bota / aitu / in*) Egundokoak, berebizikoak. *Iyun dĭanak esan zituen apizan aurrĭen* 'inon direnak esan zituen apizaren aurrean'. ▲ Sin. *kristonak*. ◆ **inon ere** (> *iyun'e*). (Ezezko esaldietan). *Iyun'e eztezu ikusiko alakoik* 'inon ere ez duzu ikusiko halakorik'. ◆ **inon ez** (> *iyun ez*). (Erantzunetan, aditza ezabaturik). *—Nun do? —Iyun ez* '—Non dago? —Inon ere ez'.

iyun dianak esan / bota / aitu / in

INON DIRENAK ESAN / BOTA / ADITU / EGIN

kristonak

decir/cantar/oír... las cuarenta
decir cosas tremendas; echar la bronca; armarla buena
decir pestes, poner a parir
oír cosas tremendas; oír las de Dios
hacer cosas tremendas; hacer las de Dios

inon direnak esan / bota / aditu / egin (> *iyun dianak esan / bota / aitu / in*) Egundokoak, berebizikoak. *Iyun dĭanak esan zituen apizan aurrĭen* 'inon direnak esan zituen apizaren aurrean'. ▲ Sin. *kristonak*.

iyundik

INONDIK

de ningún modo, de ninguna manera

inondik (> *iyundik*) adb. (Baiezko ez diren testuinguruetan).
◆ **inondik inora ere** (> *iyundik iywa're*). Inola ere ez. ¬

iyungo

INONGO

de ningún lugar/sitio
ningún, -una; ninguna clase de

inongo (> *iyungo*) **1** adj. (Ezezko testuinguruetan). Ezein tokitakoa. *Enauk iyungwa* 'ez nauk inongoa'. 2 adj. (Ezezko testuinguruetan). *Ameiketako familien iyungo berrik eztuku* 'Ameriketako familiaren inongo berririk ez daukagu'. Ik. **ezein**.

iyurtzi

IGURTZI

frotar, restregar, estregar, friccionar; secar frotando

iyurtzi *dau* ad. Igurtzi. *Arropak iyurtzi, sekatzeko* (LM). Ik. **iyortzi**.

iyutu, iyutua (?)

iyutu iz. pulmonia (?)

iza-karakol

BARRASKILO ARRUNT

caracol común de jardín; burgajo (Helix aspersa)

iza-karakol. Barraskilo arrunta (Helix aspersa). ["Caracoles grandes y negruzcos. Se comen" (Ond Bak)]. Ik. **gizaki karakol**. (Oharra. [Altsasu] Gaztelaniaz, (pl.) *hormas*: *horma karakol*. Hormetan egoten direlako).

izaera, izaeria

IZAERA

naturaleza

carácter, naturaleza, forma de ser

izaera iz. ▲ Sin. *naturaleza*.

izaitu / izeitu; itzaitu

quitar la capa de césped

izaitu (eta *izeitu* [Altsasu]; *itzaitu* [Urdiain]) *dau* ad. Lurrari soropilaren geruza kendu [quitar la capa de césped]. *Gazin larri hura izaitzea* [vamos a quitar la capa de cesed a aquel campo]. [Urdiain]: *itzaitu; aitxurrakin bĭarra kendu* 'itzaitu; aitzurrarekin belarra kendu'. *Emen gaitza lurra itzaitzen* 'hemen gabiltza lurra itzaitzen'.
*{OEH. izaitu (G-nav), izeitu (G-nav), izatu (G-goi (+ izau)). Ref.: JMB At (izatu); JMB EJ 7, 17 y EJ 3, 339; Iz Als (izaitu, izeitu). "Roturar un terreno erial para cultivarlo" JMB At. "*Gazin larriura izaitzea*, vamos a quitar la capa de césped a aquel campo; *gaurok izeituko dau larrain*, nosotros mismos descortezaremos la era; *izai, izei ber da*, hay que descortezarla" Iz Als. v. ixarratu}.

izan, izaten

IZAN

existitu

ser
estar
haber
suceder, ocurrir, pasar

izan ad. *Berak esan izan dau*. *Haiekin aide dia*. *Izaten da zaila* (Ond Bak). *Ezta badanik'e* 'ezta badenik ere'.
izanko da.
◆ **direnak eta ez direnak** (> *dĭanak ta eztĭanak*) & **zirenak eta ez zirenak** (> *zĭanak ta ez zĭanak*). Dena eta are gehiago. *Dĭanak ta eztĭanak in ber izan zituen gauzak argitzeko* 'direnak eta ez direnak egin behar izan zituen gauzak argitzeko'. Ik. **inon direnak** (> *iyun dianak*).
– ezta izango!
– izan'e
– zana. Gue ama zana (hildakoa).
– Guaindo holakoik badala-re!
– izania 'izana', izandakua. Maisu izania da.
– *Ua zala-ta autzi dĭet* 'hura zela eta utzi diat (hura zelakoan, hura zen ustean).
– izateko modua. Ik. **izaera**.
◆ izatekotan.
◆ **balaike** / **baleike**. Baliteke, badaiteke, litekeena da.¬

izankai, izankaia

izankai iz. Jende makurra; difentia (AG). Jende nabarra. *Etxiortan'e ba de izankaia franko*. *Bado hor izankairik asko*. *A zer izankaiek hoiek*.

izar, izarra

IZAR

estrella

izar iz. Zeruan distiratzen ikusten den zernahi argizagi, Eguzkia edo Ilargia izan ezik. *Zeruen, izarrak* 'zeruan, izarrak'. *Izarrik ikusten eztan gau iluna* 'izarrik ikusten ez den gau iluna'. *Izar zuri-zuri bat*.

izara, izaria

IZARA

sábana

izara iz. *Izara zuriek* 'izara zuriak'. *Misazko izarak* 'mihisezko izarak [liho hariz eginak]'.

izardi hotz, izardi hotza

IZERDI HOTZ

sudor frío

izardi hotz. Izerdi hotza. *Otzikarak ta izardi otza* 'hotzikarak eta izerdi hotza'. *Izardi otzak zukatziela-ta, biotzekwek eman zijan* 'izerdi hotzak zeuzkala-eta, bihotzekoak eman zion'.

izardi paltsetan

IZERDI PATSETAN

sudando la gota gorda

izardi paltsetan. adb. Izerdi patsetan, izerdi asko dariola.

izardi, izardia

IZERDI

sudor
savia
gotas de humedad, condensación

izardi (eta *izerdi*) **1** iz. Gorputzari dariona. **2** iz. Landareen isurkaria. **3** iz. Hormetan-eta sortzen den kondentsazioa. *Paretan sortzen dan izardia*. ◆ **izardi hotz**. Izerdi hotza. *Otzikarak ta izardi otza* 'hotzikarak eta izerdi hotza'. *Izardi otzak zukatziela-ta, biotzekwek eman zijan* 'izerdi hotzak zeuzkala-eta, bihotzekoak eman zion'. ◆ **izardi paltsetan**. adb. Izerdi patsetan, izerdi asko dariola. ◆ **izarditan**. adb. Izerditan, izerdia dariola. ◆ **izarditan egon** (> *izarditan eon / yon*). Izerditan izan, izerdia jariatuz egon.

izarditan yon

IZERDITAN EGON

sudar, estar sudando

izarditan egon (> *izarditan eon / yon*). Izerditan izan, izerdia jariatuz egon.

izarditu, izarditzen

IZERDITU

sudar, transpirar
sudar, exudar, rezumar

izarditu **1** *dau* ad. Izerditu, izerdia isuri, izerditan egon. **2** dau ad. Landareez mintzatuz, izerdiz bete. **3** *dau* ad. (Paretak eta kidekoak) kondentsatzearen ondorioz busti. ¬

izarratu, izarratua

IZARRATU, IZARTSU

estrellado, lleno de estrellas

izarratu adj. (Iza Alts). *Nola don zerua izarratuik!* 'nola dagoen zerua izarraturik!'. [Urdiain].

izatez

IZATEZ

por naturaleza, de por sí

izatez adb. Izaeraz; berez. *Izatez da alegrĭa* 'izatez da alaia'.

izazi, izazia

ITZASI [OEH]; ERROITZ [ELHUYAR]

grieta de la piel; grietas de las manos

izazi iz. Larruazaleko pitzadura. *Izaziek: otzak narruazalĭen sortzen tuenak* 'izaziak: hotzak larruazalean sortzen dituenak'.

izazitu, izazitzen

ITZASITU [OEH]

agrietarse la piel

izazitu *da* ad. Azalean izaziak atera. *Izazitu: izaziek ata*. [OEH: itzasitu].

izeba

IZEBA

izeko, izko; tia

tía

izeba [Iturmendi, Bakaiku] iz. Iturmendin eta Bakaikun, eta orain Urdiainen (lehen *izko*), baina gehien bat '*tia*' ibiltzen da. Ik. **izeko**; **izko**.

izeko

IZEKO

izeba

tía

izeko ([Olatzagutia, Altsasu]; *izko* [Urdiain]) iz. Izeba; aitaren arreba edo amaren ahizpa; osabaren edo izebaren emaztea. Ald. **izko** [Urdiain]. ▲ Sin. *izeba* [Iturmendi, Bakaiku].

izen baiko

IZEN GABEKO

sin nombre

izen baiko. Izen gabekoa. *Etxĭen yoten dĭa izen baiko lan asko* 'etxean egoten dira izen gabeko lan asko' (Ond Bak).

izen, izena

IZEN

nombre

izen 1 iz. Ze izen dau? Nola zaizkizu? Nola zaizkio? —*Nola zaizkizu?* —*Garazi zaizkĭa*.
Personiek iten dau izena, ez izenak jendia.
Izen zakarra.
Izena bekin ekar dau.
Leheno aitapuntakuek ta amapuntakuek agintzen zain izenakin, ta ez gurasuek.
– izena patu
◆ **izen baiko**. Izen gabekoa*, izengabekoa. *Etxĭen yoten dĭa izen baiko lan asko* 'etxean egoten dira izen gabeko lan asko' (Ond Bak).
◆ **izenez** adb. *Izenez Maria zaizkĭá* 'izenez Maria zaizkit'.
◆ **izenipe**. Izenik gabe.
◆ **izena eman**. ▲ Sin. *apuntatu*. ▼ Anton. *borratu*. ¬

izenguti, izengutia

IZENGOITI, EZIZEN

sobrenombre, apodo, mote, seudónimo

izenguti (eta *izenkuti* [Bakaiku] (Ond Bak)) iz. Izengoitia.

izerdi, izerdia

IZERDI

sudor

izerdi [Altsasu] iz. Ik. **izardi**.

izko

IZEKO, IZEBA

izeba, tia

tía

izko [eta *iziko* (?) Urdiain] iz. Izeko; aitaren arreba edo amaren ahizpa; osabaren edo izebaren emaztea. *Izko Margarita etor da bisitan* 'izeko Margarita etorri da bisitan'. Ik. **izeba**; **osaba**.

izkon

OLES

agurmaria

ah de la casa (se usa para llamar en casa ajena)

izkon interj. Olesa, deia; besteren etxean hots egiteko erabiltzen den hitza. (Eskean) *Izkon, ganbaztar / baztar y baztar*. Ik. **agurmaria**.

izotz beltz, izotz beltza

IZOTZ BELTZ

helada negra

izotz beltz. Izótz beltzá: zuritasuník eztonién, lúrra gogórtu ta urién kristalá donién. Azak eta beltz jartzen dia (Ond Bak).

izotz garranga

IZOTZ BURRUNTZI, IZOTZ KANDELA

lantxurda, garranga

carámbano, canelón

izotz garranga. (Iza Alts). Garranga, izotz burruntzia, izotz kandela. Ik. **lantxurda**.

izotz zui, izotz zuia

IZOTZ ZURI

lantxurda

helada blanca; escarcha

Izótz zuriá: larriék etá zuriék járritzen dienién, járritzen dien garaién (Ond Bak).

izotz zuia. Izótz zuriá: larriék etá zuriék járritzen dienién, járritzen dien garaién (Ond Bak). Ik. **lantxurda**.

izotz, izotza

IZOTZ

hielo

hielo; helada, escarcha

izotz **1** iz. *Aurten izotz aundiek in tu* 'aurten izotz handiak egin ditu. **2** iz. *Patxarana izotzakin artzen dau* 'patxarana izotzarekin hatzen du'. ◆ **izotza bota** *dau* ad. Izotza egin. *Raso do ta gaur gaubĭen izotza bota ber dau* 'raso [oskarbi] dago eta gaur gauean izotza bota behar du'. ◆ **izotz beltz**. *Izótz beltzá: zuritasuník eztonién, lúrra gogórtu ta urién kristalá donién. Azak eta beltz jartzen dia* (Ond Bak). ◆ **izotz zuri** (> *izotz zwi*). *Izótz zuriá: larriék etá zuriék járritzen dienién, járritzen dien garaién* (Ond Bak). Ik. **lantxurda**. ◆ **izotz garranga**. (Iza Alts). Garranga, izotz burruntzia, izotz kandela. Ik. **lantxurda**.

izotza bota

IZOTZA BOTA, IZOTZA EGIN

izoztu

escarchar, helar, echar una helada

izotza bota *dau* ad. Izotza egin. *Raso do ta gaur gaubĭen izotza bota ber dau* 'raso [oskarbi] dago eta gaur gauean izotza bota behar du'.

izozketa, izozketia

IZOZTE, IZOTZALDI

helada
helando

izozketa iz. Izoztea, izotzaldia. *Aurten ezta izozketaik yon* 'aurten ez da izozketarik egon'. ◆ **izozketan** adb. ◆ **izozketan egon** (> *izozketan yon*). *Izozketan do*.

izozketan

IZOZKETAN

helando

izozketan adb. ◆ **izozketan egon** (> *izozketan yon*). *Izozketan do*.

izoztu, izozten

IZOZTU

3 hotzak garbitu; hotzak hil

congelar(se), helar(se)
congelar(se) (alimentos)
congelar(se), helar(se), enfriar(se)

izoztu **1** *da/dau* ad. Ura izoztu; ibaiek izoztu. **2** *da/dau* ad. Axuia kongeladoran izoztu. Patatak izoztu in dĭa. **3** *da/dau* ad. Erabat hoztu. *Kanpwen, geldik yonda, izoztu in naiz* 'kanpoan, geldirik egonda, izoztu egin naiz'. Ik. **hotzak garbitu**; **hotzak hil**.

iztar-lehengusu, iztar-lehengusua

IZTER-LEHENGUSU

bestengusu; primo, -a txiki

primo segundo; prima segunda

iztar, iztarra

IZTER

muslo
pierna, pata

iztar iz. Izterra, zangoaren edo hankaren zatia, belaunaren eta enborraren artekoa. ◆ **izter lehengusu** (> *izter lengusu*, *iztar lenguso*) iz. g.er. Lehengusu txikia. ▲ Sin. *bestengusu*; *primo, -a txiki*. ¬

iztarrarte, iztarrartia

IZTARTE, HANKARTE

zankarte

entrepierna, horcajadura

iztarrarte iz. Iztartea, hankartea; izterren arteko bitartea. Ik. **zankarte**.

iztarrezur, iztarrezurra

IZTERREZUR, FEMUR

fémur

iztarrezur iz. Izterrezurra, femurra.

iztarzabal, iztarzabala

IZTERZABAL

(?) zambo, -a; patizambo, -a

iztarzabal adj. Izterzabala.

izter lehengusu / izter lehenguso

IZTER LEHENGUSU

bestengusu; primo, -a txiki

primo segundo, prima segunda

izter lehengusu (> *izter lengusu*, *iztar lenguso*) iz. g.er. Lehengusu txikia. ▲ Sin. *bestengusu*; *primo, -a txiki*.

izu, izua IZU

(bildur, ikara)?; bildurti, ikati

asustadizo, -a, huidizo, -a; indómito, -a; cerril

izu (1 iz.)? 2 adj. *Animali izua* 'animalia izua'. ▲ Sin. *bildurti*, *ikati*.

izugarri, izugarria IZUGARRI

bildurgarri, ikeagarri; sekulako, kriston; terrible

aterrador, -a; terrible

tremendo, -a; enorme; descomunal

muy; tremendamente, enormemente; mucho, muchísimo

izugarri **1** adj. ▲ Sin. *bildurgarri*, *ikeagarri*; *sekulako*, *kriston*. **2** (Adizlagun gisa). Ik. **oso**. ◆ **izugarria egin** (> *izugarria in*). ◆ **izugarrizko** adj.

izugarrikeia IZUGARRIKERIA

ikagarrikeia, salbajeia; astakeia, animalikeia,

atrocidad, monstruosidad

barbaridad; muchos, -as; mucho; infinidad

izugarrikeria (> *izugarrikeia*) **1** iz. Gauza edo egite izugarria. **2** zenbtz. (Kopuru handi zehaztugabea adierazko). Kopuru izugarria. ¬

izurratu, izurratzen IZORRATU

ajetu, jibatu; joditu

fastidiar(se); estropear(se); joder(se)

izurratu *da/dau* ad. Izorratu; gogaitarazi; kalte egin, hondatu. Ik. **ajetu**; **jibatu**; **joditu**. ◆ **izurraturik** (> *izurratwik*). Izorraturik. *Izurratwik do* 'izorraturik dago'. ¬

izurratuik IZORRATURIK

jodituik

fastidiado, -a; estropeado, -a; jodido, -a

izurraturik (> *izurratwik*). Izorraturik. *Izurratwik do* 'izorraturik dago'. ¬

izurratzaile, izurratzailia IZORRATZAILE

persona que fastidia; causante de una mala jugada

izurratzaile iz. Izorratzailea; gogaitarazten duen pertsona; kalte egiten, zerbait hondatzen duen pertsona. *Akabo gwe asmwek; beti agertzen dok izurratzailen bat!* 'akabo gure asmoak; beti agertzen duk izorratzaileren bat!'.

izuti, izutia IZUTI

bildurti, ikati

miedoso, -a, cobarde; asustadizo, -a, huidizo, -a; temeroso, -a; pusilánime

izuti adj. Erraz izutzen dena. ▲ Sin. *bildurti*, *ikati*.

izutu, izutzen IZUTU

bildurtu, ikatu, espantatu

atemorizar(se), asustar(se), alarmar(se); espantar(se), ahuyentar(se)

izutu *da/dau* ad. *Txoiek mutxitarrwekin izutzen dĭa* 'txoriak mutxitarroarekin [txori-izugarriarekin; txorimaloarekin] izutzen dira'. Ik. **bildurtu**; **ikaratu** (> *ikatu*); **espantatu**.

ja jai, jai jai

KAR-KAR

¡ja, ja!; ja (para indicar la risa, la burla)

ja jai, jai jai interj. (onomat.) Barrearen adierazgarri, burla edo ironiaz.

jabe in

JABE EGIN

nagusi in

adueñarse, hacerse dueño, -a, apoderarse de

jabe egin (> *jabe ein / in*). Etxien jabe in da. Ik. **nagusi egin**.

jabe, jabia

JABE

dueño, -a, señor, -a, propietario, -a

jabe iz. ◆ **jabe egin** (> *jabe ein / in*). Etxien jabe in da. Ik. **nagusi egin**.

jagi, jagitzen

JAGI

(oyati) mogitu

levantarse

jagi *da* ad. *Gaur yon nauk batere jagi naien* 'gaur egon nauk batere jagi nahian'. *Jagitzĭen* 'jagitzean'. • Esr. zah. *Goiz jagia, goiz gose; beandu jagia, loz ase* 'goiz jagia, goiz gose; berandu jagia loz ase'. Ik. **mogitu**.

jagiazi, jagiazten

JAIKIARAZI

hacer levantar

jagiarazi (> *jagiazi*) *dĭa* ad.

jagiera, jagieria

JAIKIERA

levantada, acción de levantarse

jagiera iz. ◆ **jagieran** adb. *Jagieran bota in naiz* 'jagieran bota egin naiz'.

jai saila, jai sailia

[SEGIDAKO JAIEGUNAK]

serie de días festivos

jai saila (*a* itsatsia) iz. Segidan datozen jaiegunak. *Gaubonetako jai sailĭa* 'gabonetako jai saila [segidako jaiegunak]'.

jai, jaia

JAI

jaiegun, fiesta; domeka

lanegun, astegun

fiesta, día festivo; fiesta, vacación
fiesta, celebración, festejo
fiesta(s), festividad
domingo

jai **1** iz. Batez ere pl. *Jaiek*. Zerbait ospatzeko egiten diren ekitaldi eta jostetak. Ik. **fiesta**. **2** iz. Lan egiten ez den eguna, jaieguna; domeka. Ik. **domeka**; **jaiegun**. ▼ Anton. *lanegun*, *astegun*. *Beti lanĭen, eta jairako ilusiua* 'beti lanean, eta jairako ilusioa'. • Esr. zah. *Biher jai, etzi jai; neska-mutilak hala nahi* (Iza Alts). || • *Abendua: gau uts, jai uts* 'Abendua: gau huts, jai huts'.
– jai dukak (alferrik dok).
– jai gorde.
– jai hartu.
– jai eman.
– jai ibili. Gaur jai dukat. 2 Ukoa.
– jai haundi.
– jai-bezperia.
– jai-erdi.
– jai ta aste. Jai ta aste, beti tabernan do.
– jai-goiza, jai-atsaldia, jai-gau(b)a.
– beti-jai.
◆ **jai saila** (*a* itsatsia) iz. Segidan datozen jaiegunak. *Gaubonetako jai sailĭa* 'gabonetako jai saila [segidako jaiegunak]'.

jaialdi, jaialdia

JAIALDI

jai

festival, festejo

jaialdi iz. Zerbait ospatzeko egiten den ekitaldia edo ekitaldien multzoa. Ik. **jai**.

jaiegun, jaieguna

JAIEGUN

jai, fiesta

día festivo, día de fiesta, día de fiesta, festividad; descanso, vacación

jaiegun iz. Ik. **jai**; **fiesta**.

jaiero / jairo

JAIERO

todos los días festivos; todos los domingos

jaiero (> *jairo*) adb. Jaiegun guztietan, jaiegun oroz. || Domeka guztietan. Ik. **domekero** (> *domeko*, *donbeko*).

jaiezko arropa

JAIETAKO ARROPA

ropa de festivo

jaiezko arropa. Jai egunetan janzten den arropa. Ik. **lanezko arropa**; **jaitako**.

jainko, jainkua

JAINKO

jangoiko

Dios

dios, deidad

jainko **1** iz. Erlijio monoteistetan, izaki gorena eta munduaren sortzailetzat hartzen dena. Ik. **jangoiko**. **2** iz. Erlijio politeistetan, gizakiaz gaineko izakia, ahalmen eta botere bereziz hornitua dena. ¬

jaio, jaiotzen

JAIO

sortu

nacer, salir

jaio **1** *da* ad. Mundura etorri, amaren sabeletik atera. Ik. **sortu**[1]. **2** *da* ad. Arrautzatik atera. *Txitak jaio dĭa* 'txitak jaio dira'. **3** *da* ad. Landareak eta, sortu. *Bearra jaio* 'belara jaio'. *Maiza jaio* 'artoa jaio'.

◆ **bi aldiz jaio**. Zerbait ezinezkoa dela adierazteko. *Bi aldiz jaio ber daiz orri entenditzeko* 'bi aldiz jaio behar haiz [duk] horri entenditzeko'.

◆ (zerbeitekin) jaio; katarruekin jaio: betiko katarrua.

Haurra jaiotzeko yon. Haurra jaiotzeko zon ba.

Jaio nitzan, zindan, zan... eguna.

jaio, jaiua

JAIO(A)

nacido, -a

jaio(a) (> *jaiua*) adj. Jaioa, sortua. *Emen jaiua* 'hemen jaioa'.

jaioberri, jaioberria

JAIOBERRI

recién nacido

jaioberri adj./iz. Sortu berri dena. *Haur jaioberria*.

jaiotza

JAIOTZA

nacimiento

nacimiento, belén

jaiotza **1** iz. Jaiotzea, mundura etortzea. Ik. **jaiotze**. **2** iz. Jesu Kristoren jaiotzaren irudikatzea. Ik. **nazimentu**.

jaiotze, jaiotzia

JAIOTZE

nacimiento, acto de nacer

jaiotze iz. Jaiotza, jaiotzea, mundura etortzea. Ik. **jaiotza**. ◆ **jaiotze herria**. Norbait jaio den herria; sorterria, jaioterria. ◆ **jaiotzeti(k)** adb. *Jaiotzeti duka oristĭa* 'jaiotzetik / jaiotzatik dauka orezta'. ◆ **jaiotzez** adb. Jaiotzez / jaiotzaz Bakaikukua da 'jaiotzez Bakaikukoa da'.

jaiotzetxe, jaiotzetxia

JAIOTETXE

casa natal

jaiotzetxe iz. Jaiotetxea; norbait jaio den etxea.

jaiski, jaiskia

SASKI

esporta, saski

cesta, cesto, canasta

jaiski iz. Ald. jeski txiki. Jeski txikitan ibili: gauza pisubak yateko (Ond Bak). (Iza Alts): *jaiskiya*.
"Jaiskiek iten zituain. Behin batez, ongarritako jaiski haundi bat agindu ziain Altsun. Su onduen jarri ta in zain jaiski hoi; ederra in-e! Handik atatzen hasi gio ta, ezin ata. Ez hartzen ataiek. Berriz askatu, ezkatzia ean ta hantxe bigarren aldien in ber izan zain jaiskia". LZ.

jaitako, jaitakua

JAIETAKO

de festivo

jaitako adj./iz. Jaietakoa, jaiegunetakoa. Ik. **jaiezko**. *Jaitako arropakin* 'jaietako arropekin'. Ik. **laneko**.

jaitaldi, jaitaldia

ERRIETALDI, AGIRAKALDI

lotsaialdi

reprimenda, bronca

jaitaldi iz. Errietaldia, agirakaldia. *In dĭa jaitaldi bat!* 'egin dio jaitaldi [errietaldi] bat!'. Ik. **lotsaialdi**.

jaitxi, jaixten (1)

JAITSI

gainbeatu; desinflatu (?) (n) rebajatu — *1 iyo, jaso, goatu*

bajar(se), descender; apearse

decaer

jaitxi[1] **1** *da/dau* ad. Behera ekarri / etorri. Ik. **gainbeheratu** (> *gainbeatu*); **desinflatu**; **rebajatu**. ▼ Anton. *iyo*, *jaso*, *goatu*. || *Tartĭa jaitxi*.|| – *Ibaiek jaitxi* (ur maila). **2** *da* ad. Ahuldu, makaldu. ◆ **(norbait) jaitxi egin** (> *jaitxi in*) da ad. Makaldu, osasuna galdu, normalean, zahartzaroan. *Asko jaitxi da aurtengo neguen abuelo* 'asko makaldu da aurtengo neguan aitona'.

jaitxi, jaixten (2)

JETZI

ordeñar

jaitxi[2] (eta *jeitxi*) *dau* ad. Jetzi; behiei, ardiei-eta erroak estutuz esnea atera. *Behiak jeitxi. Ardieirí eseniá jeixtéko* (Ond Bak). Ik. **jaix**.

jaitxiera, jaitxieria

JAITSIERA

berantz, goitibera — *iyo(g)era*

bajada, descenso

jaitsiera (> *jaitxiera*, *jaitxigera*, *jaitxibera*) **1** iz. Jaistea. Ik. **beherantz** (> *berantz*). **2** iz. Beheranzko aldapa. ▼ Anton. *igoera*.

jaix

JETZI

ordeñar (U. en palabras compuestas)

jaix (Hitz elkartuetan, lehen osagai gisa). Jetzi, zenbait etxe-abereri, erroak estutuz esnea atera. Ik. **jaitxi**[2]. ◆ **jaix korral** iz. Abereak jezteko korralea, artegia. *Jaix korrala*. Ik. **korrala**. ◆ **jaix porron**. Jezteko porroia, ontzia. *Jaix porrona*. ◆ **jaixtesi**. Ardiak-eta jezteko hesiturik dagoen lekua.

jaix korral, jaix korrala

KORRALE

redil, aprisco, corral para ordeño

jaix korral iz. Abereak jezteko korralea, artegia. *Jaix korrala*. Ik. **korrala**.

jaix porron, jaix porrona

JEZTEKO PORROI

porrón, recipiente para ordeñar

jaix porron. Jezteko porroia, ontzia. *Jaix porrona*.

jaixte, jaixtia

JAISTE

bajada

jaiste (> *jaixte*) iz. Beherago dagoen toki batera joatea edo eramatea.

jaixtesi

JEZTEKO HESI

vallado para ordeñar; redil

jaixtesi iz. *Jaistesiek, ardiek-eta jaixteko esitwik don lekua* '*jaixtesiak*, ardiak-eta jezteko hesiturik dagoen lekua'. ¬

jaki, jakia

JAKI

jan, janai, jateko, alimentu

comida, alimento, cosa de comer

jaki (eta *janki*, *jankia*) iz. Janaria. *Elorri-jakia*. Ik. **jan**; **janari** (> *janai*); **jateko**; **alimentu**.

jakin-behar, jakin-beharra

JAKIN-BEHAR

de conocimiento imprescindible
curiosidad, ansia de saber

jakin-behar (> *jakin-ber*, *jakin-berra*) **1** iz. Jakin behar den gauza. *Gauzoiek jakin-berra do* 'gauza horiek jakin-beharra dago'. *Jakin-berrekwa* 'jakin-beharrekoa'. **2** iz. Jakiteko gogo bizia; bereziki, besteren gauzak jakiteko irrika. *Ik dana jakin-ber!* 'hik dena jakin-behar!'.

jakin, jakiten

JAKIN

(n) enteratu

saber, tener conocimiento
saber, conocer, dominar

jakin **1** *dau* ad.

Jakin balai 'izan balute'. - Aitutá dakít: - Nóla dakizú? Badekiai 'badakite'. Badekiau 'badakigu'. Enakien. Etxekinat. Jakínko zen-da, jakin inko zen-da (Ond Bak). || *Ez jakin iyorke'ke* 'ez jakin inork ere'.

– *Jakin dot nor izan dan* 'jakin dut nor izan den'. Ik. **enteratu**.

2 Hirugarren pertsona erabiltzen denean ohikotasuna adierazten du, edo ohitura adierazteko erabiltzen da:

Maietzien badaki elurra iten 'maiatzean elurra egin ohi du'. *Iruñean bizi dian senidiek badakiai San Pedrotan etortzen* 'Iruñean bizi diren senideak San Pedroetan etorri ohi dira'. (Ond Bak): *Merkio're badaki yoten peskadillak* 'merkeago ere egon ohi da merlenka'. *Errĭa etortzen dĭanĭen, badakiai taberna faten* 'herrira etortzen direnean, tabernara joan ohi dira [*badakiai taberna faten* = suelen ir a la taberna / acostumbran a ir a la taberna].

◆ **ez dakit ba** (*eztakit ba & eztakitpa / etxakiet'pa / etxakinat ba*). Zalantza, erreparoa, errezeloa, zuhurtzia adierazten duen interjekzioa. *Mutiloi izan dala? Eztakit pa!* 'mutil hori izan dela? Ez dakit ba!'.

◆ **jakin-behar** (> *jakin-ber*, *jakin-berra*) **1** iz. Jakin behar den gauza. *Gauzoiek jakin-berra do* 'gauza horiek jakin-beharra dago'. *Jakin-berrekwa* 'jakin-beharrekoa'. **2** iz. Jakiteko gogo bizia; bereziki, besteren gauzak jakiteko irrika. *Ik dana jakin-ber!* 'hik dena jakin-behar!'.

◆ **jakinaren gainean egon** (> *jakinan gainien yon*) adb. Dagokionak zerbaiten berri izan. *Jakinan gainien do* 'jakinaren gainean dago'.

◆ **jakinaren gainean paratu (jarri)** (> *jakinan gainien patu / jarri*) adb. Dagokionari zerbaiten berri eman. *Jakinan gainien patu zain* 'jakinaren gainean paratu zuten'. *Jakinan gainien patzeko esan* 'jakinaren gainean paratzeko esan'.

– asko jakin. Asko dakit ba nik! (zer dakit nik!), (ezer ez jakin).

– jakintazu! (fan da bila; auskolo; batek daki).

– asko jakin (jokatuta). Norbaitek zerbaitetaz ezer ez dakiela adierazteko: Asko jakiet, ba, nun don! Asko daki horrek!, Asko dakik/n hik! Asko dakizu zuk! Asko dakigu ba... 'auskalo'.

◆ **jakina** adb. Jakina zan, zaken/zanen, zoken/zonen. ▲ Sin. *hoixe*, *honbré*. Ik. **beti**. ¬

jakina

JAKINA

hoixe!, honbré!; beti

por supuesto, claro, naturalmente, desde luego, sin duda; ya lo creo

jakina adb. Jakina zan, zaken/zanen, zoken/zonen. ▲ Sin. *hoixe*, *honbré*. Ik. **beti**. ¬

jakinan gainien patu / jarri

JAKINAREN GAINEAN PARATU / JARRI

poner al corriente, informar, poner sobre aviso

jakinaren gainean paratu (jarri) (> *jakinan gainien patu / jarri*) adb. Dagokionari zerbaiten berri eman. *Jakinan gainien patu zain* 'jakinaren gainean paratu zuten'. *Jakinan gainien patzeko esan* 'jakinaren gainean paratzeko esan'.

jakinan gainien yon

JAKINAREN GAINEAN EGON

conocer, saber, estar bien informado, estar al corriente, estar enterado

jakinaren gainean egon (> *jakinan gainien yon*) adb. Dagokionak zerbaiten berri izan. *Jakinan gainien do* 'jakinaren gainean dago'.

jakinazi, jakinazten (?)

JAKINARAZI

hacer saber, notificar, dar a conocer, comunicar, informar

jakinazi dau ad. Jakinarazi; dagokionari, jakin dezan, zerbaiten berri eman; norbait zerbaiten jakitun egin.

jakindui, jakinduia

JAKINDURIA

sabiduría, erudición

jakinduria

JAKINDURIA

sabiduría, erudición

jakinduria (eta *jakindui*) iz. Jakitea, norbaitek dakizkien gauzen multzoa. *Jakindui laurribaikua* (Ond Bak).

jakintazu

JAKIZU

fan da bila; batek daki; auskolo; zazi

a saber, quién sabe, vete a saber, cualquiera sabe, Dios sabe

jakintazu interj. Jakizu! ▲ Sin. *fan da bila*; *batek daki*; *auskolo*; *zazi*.

jakintsu, jakintsua

JAKINTSU

sabio, -a, erudito, -a

jakintsu adj./iz. Jakintza-gaiez edo gai jakin batez asko dakiena.

jale, jalia

JALE

comedor, -a, que come bien; comilón, -ona

jale adj./iz. Jaten duena; jan zalea dena. *Jale ona*. *Jale txarra*. *Aragi jalĭa* 'haragi jalea'. *Txitxi jalĭa* 'txitxi jalea'. *Jale kaxkarra izan da txikitati* 'jale kaxkarra izan da txikitatik'.

jalki

JAULKI, ITZURI [?]

desgranarse; salírsele, escapársele

jalki (Iza Alts) *zaio* ad. Jaulki, itzuri [?]. (desgranarse).

jama in

MARRAKA EGIN

balar

jama egin (> *jama in*). Marraka egin.

jama, jamia

BEE, MARRAKA

balido

jama iz. Bee, marraka, ardien eta ahuntzen marraka. ◆ **jama egin** (> *jama in*). Marraka egin. ◆ **jamaz** adb. Marrakaz, marraka eginez. {"*Jamaz doo ardiya*, está balando la oveja" (Iza Alts)}.

jamaz

MARRAKAZ

balando

jamaz adb. Marrakaz, marraka eginez. {"*Jamaz doo ardiya*, está balando la oveja" (Iza Alts)}.

jamon, jamona

URDAIAZPIKO

urdaiazpiko, pernil

jamón

jamon iz. Urdaiazpikoa. Ik. **urdaiazpiko**; **pernil**.

jan, jana

JAN (2)

jateko, janai, jaki

alimento, comida, sustento

jan iz. Janaria. *Gusto gutxiko jana*. *Etxeko jana*. || *Etxeko janakin* 'etxeko janarekin' (Ond Bak). Ik. **janari** (> *janai*); **jateko**; **jaki**. || *Elorri jana*. *Txerri jana*. *Baba jana*. *Zuku jana*.

jan, jaten

JAN (1)

comer, alimentarse; tomar la comida principal
pacer

jan **1** *dau* ad. Horrek eztáu ogík jatén. Dagola, Maria Kruzek jain dau. Txerriek jan be de, txerriek janik de. Janko zinduzke zuk biek? (Ond Bak).
Jan ber du zila tente jarri artia 'jan behar dugu zila tente jarri arte'.
– beti jaten.
– jateko ona, txarra. Ziza hoiek jateko onak dia.
– Janko nike (zenduke, like, genduke, zendukei, likei) baita, baita...!
2 *dau* ad. Bazkatu, larratu.
3 *dau* ad. Ird. Pipiek jan. Herdoiek janik. Ibaiek soruai jan.
◆ **jateko gogo**. Ik. **apetitu**; **gose**.
◆ **jatera eman** (> *jatea eman, jatia eman*). *Txerrieri jatea emateko* 'txerriei jatera emateko'. ◆ **jan eman**. *Ganaduei okuluen jan eman* (Ond Bak).
– jan da lo 'jan eta lo'.
◆ **etxea jan** (> *etxĭa jan*). Porrot egin. Ik. **porrot egin**; **arruinatu**.

janai, janaia

JANARI

jan, jateko, alimentu

comida, alimento, vianda, manjar

janari (> *janai*) iz. *Gaur baukagu janai bat!* 'gaur badaukagu janari bat!'. Ik. **jan**; **jateko**; **alimentu**.

janazi, janazten

JANARAZI

hacer comer, obligar a comer

janarazi (> *janazi*) *dia* ad. Jatera behartu. *Beiek larrien janazi* 'behiak larrean janarazi'. *Ezin janazik* 'ezin janarazirik'.

jangai, jangaia

JANGAI

jangarri

alimento, comestible, sustento

jangai iz. Janaria, jatekoa. Ik. **jangarri**.

jangarri, jangarria

JANGARRI

jangai

alimento, comida, sustento

comestible

jangarri **1** iz. Janaria, jatekoa. Ik. **jangai**. **2** adj. Jan daitekeena, jateko ona.

jangoiko, jangoikua

JAUNGOIKO, JAINKO

jainko

Dios

jangoiko iz. Jaungoikoa, jainkoa. • Esr. zah. *Jangoikuek ematen dau nola hotz hala arropa. Jangoikua bakarra, bai, herri bakoitzien bat.*

– jangoikuai eskerrak!

◆ **Jangoinkuengeiti** interj. Jainkoagatik; zerbait eskatzen denean erabiltzen den esapidea. *Zade ixilik, Jangoinkuengeiti!* 'zaude isilik, Jainkoagatik!'. Ik. **mesedez**.

– jangoikuek daki.

– jangoikuai eskerrak.

– Ai Jangoiku! (Alts). ¬

◆ **jaungoikoaren gerriko(a)** (> *jangoikwen gerrikwa*) iz. Ostadarra. *Yauria ta yuzkia aldi berĭen, jangoikwen gerrikwa agerien* 'euria eta eguzkia aldi berean, jaungoikoaren gerrikoa [ostadarra] agerian'.

◆ **jaungoikoaren harri** (> *jaungoikwen arri*, *jangoikwen arri*). Fosila. *Jangoikuen arriek biltzen tu* 'jaungoikoaren harriak [fosilak] biltzen ditu'. Ik. **santio-harri** [Bakaiku].

◆ **jaungoikoaren txakur** (> *jangoikwen txakur*) iz. Beldar iletsua(k). Ik. **har**. ¬

jangoikuen gerriko, jangoikuen gerrikua

OSTADAR

arco iris

jaungoikoaren gerriko(a) (> *jangoikwen gerrikwa*) iz. Ostadarra. *Yauria ta yuzkia aldi berĭen, jangoikwen gerrikwa agerien* 'euria eta eguzkia aldi berean, jaungoikoaren gerrikoa [ostadarra] agerian'.

jangoikuen harri / jaungoikuen harri

FOSIL

santio-harri

fósil (concha fósil, fósil de erizo de mar, etc.)

jaungoikoaren harri (> *jaungoikwen arri*, *jangoikwen arri*). Fosila. *Jangoikuen arriek biltzen tu* 'jaungoikoaren harriak [fosilak] biltzen ditu'. Ik. **santio-harri** [Bakaiku].

jangoikuen txakur, jangoikuen txakurra

BELDAR

oruga (peluda)

jaungoikoaren txakur (> *jangoikwen txakur*) iz. Beldar iletsua(k). Ik. **har**. ¬

Jangoinkuengeiti

JAINKOAGATIK

mesedez

¡por Dios!, ¡por (el) amor de Dios!

Jangoinkuengeiti interj. Jainkoagatik; zerbait eskatzen denean erabiltzen den esapidea. *Zade ixilik, Jangoinkuengeiti!* 'zaude isilik, Jainkoagatik!'. Ik. **mesedez**.

jansua
JATORDU, OTORDU

comida (en general)

jansua iz. Jatordua, otordua (Iza Alts). Ik. **jatordu**.

jantzi, jantzia
JANTZI (2)

arropa

ropa, vestido, traje, prenda de vestir

katxarro **1** iz. (pl.) Ontziak. Ik. **ontzi**; **eltze**. *Lurrezkwek zĭanak, eltzĭek; bestĭek, katxarrwek* 'lurrezkoak [zeramikazkoak] zirenak, eltzeak; besteak, katxarroak'. *Katxarro guztĭek garbitu be dukatzi gwaindo* 'katxarro [ontzi] guztiak garbitu gabe dauzka oraino'. **2** iz. Aparatua, tresna. Ik. **aparato**. **3** iz. Traste zaharra. *Katxarro zarroi* 'katxarro zahar hori'. Ik. **traste**; **hato**. **4** iz. Lgart. Bakaikuko herritarra, bakaikuarra. Ik. **bakaikuar**.

katxo, katxua

EZKERTI

ezker, ezkerti, zurdo

zurdo, -a

katxo adj./iz. Ezkertia; ezkerraz eskuinaz baino gehiago baliatzen dena. *Aurroi katxwa da* 'haur hori katxoa [ezkertia] da'. Ik. **ezker**; **ezkerti**; **zurdo**.

kaudillo, kaudillua

KAUDILLO

caudillo; dictador político, déspota

kaudillo iz. Agintea edo boterea gehiegikeriaz erabiltzen duen pertsona.

kaxeta, kaxetia

KASETA

caseta; caserna

kaxeta iz. Eraikin txikia, lanabesak eta kidekoak gordetzeko erabiltzen dena; zaintzarako erabiltzen den kaserna. *Ferrileko kaxetĭa* 'ferrikeko [trenbideko] kaxeta'. *Kapatazan kasetĭa* 'kapatazaren kaseta'. *Guarda bat yoten zan kaxetan* 'guarda bat egoten zen kasetan'.

kaxetero, kaxeterua

KASETA ZAIN*

*guarda, encargado (de la caseta)**

kaxetero iz. Kaseta zaina, kasetaren ardura duena. *Kaxeteruek ezteka aztuik* 'kaseteroak ez dauka ahazturik' (Ond Bak).

kaxkal, kaxkala

AZAL, OSKOL

azal

cáscara, corteza, cascarón

kaxkar, kaxkarra

KAXKAR

txarra; 2 mehe, koxkor

malo -a; inferior; mediocre; escaso, -a
pequeño -a; desmedrado -a; esmirriado, -a

kaxkar **1** adj. *Adkor*. Kaskarra, txarra. Ik. **kazkar**. *Astelen ortan in zen egwaldi kaxkarra zala ta, urrengo egunĭa arte autzi ber izan zaĭn lana* 'astelehen horretan egin zuen eguraldi kaxkarra zela eta, hurrengo egunera arte utzi behar izan zuten lana'. ▲ Sin. *txar*.
2 adj. Maskala, argala. *Emakume kaxkarra* (mehea). [Oharra. Hitz adierazkorrak esanahia aldatzen du: *persona kazkarra* ≠ *persona kaxkarra*]. ▲ Sin. *mehe*, *koxkor*.

kaxkartu, kaxkartzen

KASKARTU +

mengaldu

empeorar, perder calidad, hacer perder calidad, degenerar; empequeñecer; decaer, desfallecer;

kaxkartu (Bereizi 'kaxkartu' / 'kazkartu')
2 + kaxkartu (V-gip), kaizkartu. Empequeñecer, disminuir; degradar(se), rebajar(se), degenerar. "Desmedrarse" Iz ArOñ.
+ Empeorar. *Eguraldia kaxkartu*. (Urdiain). Sin. txartu.

kaxketa, kaxketia

BISERA

visera

kaxketa iz. Bisera.

kaz-kaz

KARRASKA (HORTZENA)

onomatopeya del castañeteo de los dientes

kaz-kaz onomat. Hortz karraskaren onomatopeia. *Eskolako patiwen, hotzak kaz-kaz* 'eskolako patioan, hotzak kaz-kaz [karraska]'.

kazkar yutsin, kazkar yutsina

KAZKABAR ERAUNTSI

granizada, tormenta de granizo

kazkar yutsin. Kazkabar erauntsia.

kazkar, kazkarra (1)

KAZKABAR

harria

granizo

kazkar[1] iz. Kazkabarra. ▲ Sin. *harri*. • Esr. zah. *Kazkarra botatzen denĭen, bedratzi eguneko lutua ondorĭen* 'kazkabarra botatzen duenean, bederatzi eguneko lutoa ondorenean'. ◆ **kazkar-hots(a)**. ◆ **kazkar yutsin**. Kazkabar erauntsia. *Kazkar yutsina*.

kazkar, kazkarra (2)

KASKAR

eskas

mediocre, no muy bueno; malo, -a; de poco valor, insignificante, escaso, -a, pequeño, -a

kazkar[2] (eta *kaxkar*) [Oharra. Hitz adierazkorrak esanahia aldatzen du]. **1** adj. Behar adinako balioa edo ontasuna ez duena. *Pertsona kazkarra ≠ pertsona kaxkarra*. ▲ Sin. *eskas*. Ik. **kaxkar**. **2** adj. Lur kazkarra: lur trinkoa, opildua. ▼ Anton. *lur txehe*. Ik. **kaskajo**.

kazkardi, kazkardia

HARRITZA; LEGARTZA

pedregal, terreno pedregoso

kazkardi iz. Harri kaskar ugari duen lur eremua. Ik. **harridi**. *Kazkardiko matsakin indako ardua, obĭa* 'kazkardiko mahatsarekin egindako ardoa, hobea'.

kazkartu, kazkartzen

KASKARTU +

empeorar, perder calidad, hacer perder calidad, degenerar; empequeñecer; decaer, desfallecer;

kazkartu Ald. *kaxkartu da/dau* ad. Kaskar edo kaskarrago bihurtu. - gaiztotu
+ 1. (A, que cita a Lard), kazkartu Endurecer(se); encallecer(se),
+ 3. "Ponerse de mal talante, mal carácter, pendenciero. Gizon orrek ez dezake ardorik edan; gutxi aski du, dena kaskartzeko " Asp Leiz2.
+ " Kaxkartu [...] contraer peor costumbre" Iz ArOñ.
+ 3. Volver(se) grosero. " Larregi eran ezkero, mozkorrak zatartzia dakar " Etxba Eib. .

kazo, kazua
BURRUNTZALI

buluntzarri; 3 zokete

cucharón; cazo
persona torpe

kazo **1** iz. Burruntzalia. Ik. **buluntzarri**. **2** iz. Janariak berotzeko edo egosteko ontzi kirten-luzea. **3** adj./iz. *Lgart*. Kaikua, ergela. Ik. **zokete**.

kazula, kazulia
KAZOLA

cazuela

kazula iz. Kazola. *Burnizko kazulĭa* 'burdinazko kazola'.

kazulakada, kazulakadia
KAZOLAKADA

cazolada; cazuela (cantidad)

kazulakada iz. Kazolakada, kazola baten edukia. *Kazulakadĭa galanta prepatu dau* 'kazolakada galanta preparatu du'. *Kazulakada patata dukat trebedĭen iten* 'kazolakada patata daukat treberan egiten'.

keba!
BAI ZERA!

ez; kia!

¡qué va! (expresión negativa); quia

keba! (Esapidea). Bai zera! Ik. **bai zera**; **ez**; **kia**.

kedar, kedarra / kedarra, kedarria
KEDAR

hollín, tizne

kedar / **kedarra** (*kedar*, eta *kedarra*, *kedarrĭa*; hiru formak aditzen dira) iz. Kedarra; osorik erretzen ez den zerbaitek sortzen duen gai beltza, zatiki txikiz osatua. *Tximinia kedarrez beteik do* 'tximinia kedarrez beterik dago'. *Kedarrak su artu dau* 'kedarrak su hartu du'.

-keia / -kaia
-KERIA (ATZIZKIA)

-keria; sufijo de cualidades abstractas que se consideran viciosas o malas

-keria (> *-(k)eia* / *-(k)aia*) (atzizkia). Kualitate gaitzesgarriak adierazten ditu. Adibideak: *gaiztakeia*, *txerrikeia*, *zikinkeia* (...).

keixa, keixia
GEREZI

cereza
cerezo

keja, kejia
KEXA

queja, lamento

keja iz. Kexa. *Eldu dok, dana kejĭa* 'heldu duk [bazetorrek], dena kexa'.

kejatu, kejatzen
KEXATU

protestatu

quejarse, enojarse, irritarse

kejatu *da* ad. Kexatu, kexa adierazi. Ik. **protestatu**.

kemen, kemena

KEMEN

dulabre, animo, indar

vigor, brío, fuerza, energía; ímpetu, impulso; valor, arrojo

kemen iz. Aritzeko, jarduteko edo ekiteko gorputz edo gogo indarra. Ik. **dulabre**; **animo**; **indar**.

kendu, kentzen

KENDU, KENTZEN

patu

quitar
sacar
cobrar
dejar a un lado, exceptuar
restar

kendu Ald. gendu (Ond Bak). Anton. patu.

Urai kentzea etorriko da. Bahiai kendu larre hortatik. Oso esene gutxi zekan eta ezin ken zakion gehio. Kendu zatzan 'zizkion'. Eta beak kendu. (Ond Bak).

Radiua kendu (Ond Bak)

– ezin kendu

– kentzen eztana. Kentzen eztan mina jukat. (Ezabatu ezin dena).

– kendu pareti(k)

– kendu hemendi(k)

– kendu gaineti(k)

1 Egarria kendu

2 Bi minuto kendu jiak bigarrenai.

3 kobratu. Zenbat kentzen diai bazkaiengeiti?

4 (exceptuar) Urdintarrak kenduta han ezeken lau katu.

5 (restar)

6 Karguti kendu diai.

7 Tapia kendu, azala kendu...

– kentzeko, kentzekua (etxeko animalia, haragitako) Txahal hoiek kentzeko dia.

8 Kendu hadi horti!

9 (itzali). Radiua, telebisiua kendu.

10 dirua kendu (dirua, maileguz, prestaturik hartu). Anaiai kendu zian dirua, etxia iteko 'anaiari kendu zion dirua, etxea egiteko'.

– zorrak kendu

– mukiek kendu (Lag) 'zaplastakoa eman'

– radiua kendu

– begiek kendube

– buruti kendube

– dirua kendu (dirua, maileguz, prestaturik hartu)

– kentzen eztana.

kenduazi

KENARAZI

hacer quitar

kenduazi *dau* ad. Kenarazi. *Banderĭa kendwazi dai Herrientxeko balkonati* 'bandera kenarazi dute Herriaren Etxeko balkoitik'.

kentzaile, kentzailia

KENTZAILE

que quita; desposeedor, -a

kentzaile iz. Zerbait kentzen duen pertsona.

keru, kerua

KERU

resabio, sabor; gustillo

keru iz. Gustua, zaporea; janariaren gustu bortitza. *Arrotz esenĭonek erre kerua duka* 'arroz esne honek erre kerua dauka'.

-keta

-KETA (ATZIZKIA)

-keta; se emplea como sufijo colectivo, denotando idea de montón o grupo
-keta; sufijo con significados de «acción» u «ocupación»; de «rebusca»

-keta (atzizkia). Multzoa adierazteko erabiltzen da; baita ere 'ondorioa, gertaera, egoera' adierazten duten izenak sortzen ditu. Adibideak: *arrantzaketa*, *berriketa*, *hizketa*, *lapurreta*...

ketoki

[GELA ILUN]

cuarto oscuro

ketoki iz. Gela iluna eta zaharra. {Cuarto viejo y oscuro [Ziordia]}.

kexkeena

[LABEA EGOKITZEKO EGITEN DEN OPILA]

opilki

pan de prueba para la primera hornada; torta de panadero

kexkeena iz. Ogi labealdia egin aurretik, labearen berotasuna egokitzeko egiten den opila. {Bollo hueco, que se hace al principio de la hornada (JMS)}. Ik. **opilki**.
{Ik. EH & OEH. ogia erre arterainoko opil (?)}. [pamitxa ?].

-ki

-KI (ATZIZKIA)

-ki; sufijo que unido a temas verbales, designa instrumento. Con un nombre como tema, denota
con un nombre como tema, denota objeto material, fragmento, especie, clase
valor adverbial con un adjetivo, equivalente al castellano -mente.

-ki (atzizkia). **1** 'Tresna, baliabidea' adierako izenak sortzeko. **2** 'Objektua, produktua' adierako izenak sortzeko. **3** Aditzondoak sortzeko. Ik. **-to** (atzikia).
Adibideak: *odolki*, *txerriki*, *txitxiki*, *ederki*, *gaizki*, *epelki*, *beroki*...

ki, kia

KE

humo

ki iz. Kea. Ki beltza. Ki usaia. Ik. **jito usai**.
– ki haundia. Ki haundiek de dermiuen.
– kien lainua, ki-lainua
– kipien.
– kia ata; kia in. *Sukaldiontan kia iten da*.

kia!

EZ; BAI ZERA! 2 ZER DIOZU?

keba, ez

quia, no; ¡ni hablar!
¿qué dices?; ¡no me digas!

kia (> *kĭa*) **1** interj. Ezezkoa. *Kĭa; ezta etorri* 'kia; ez da etorri'. *—Emango duazu matxo bat? —Kĭa!* 'emango didazu musu bat? —Bai zera!'. Ik. **keba**; **ez**. **2** interj. Zer diozu? Harridura. *Kĭa!; enakien!* 'ez esan!; ez nekien!'.

kibila

KILIKA, KILIMA

cosquillas, cosquilleo

kibila iz. Batez ere pl. Kilika, kilima. *Eztuka kibilaik* 'ez dauka kilimarik [ez da kilikorra]'. ◆ **kibilak egin** (> *kibilak in*) (?). Ik. **kibilatu**. ◆ **kibilak ibili** [eduki]. Kilikorra izan, kilikei sentibera izan.

kibilatu, kibilatzen

KILIKATU, KILIMATU

bixi-bixi in

hacer cosquillas, cosquillear

kibilatu *dau* ad. Kilikatu, kilimatu. *Ezakela nei kibilatu!* 'etzakela niri [ni] kilimatu!'. Ik. **bixi-bixi egin** (> *bixi-bixi in*).

kiebra in

KIEBRA EGIN

meko in

hacer quiebra, quebrar

kiebra egin (> *kiebra in*). Kiebra jo, porrot egin. *Bakoitza be alde; laister kiebra inko dĭu* 'bakoitza bere alde; laster kiebra egingo dugu'. Ik. **porrot egin**; **meko egin**.

kiebra, kiebria

KIEBRA, PORROT

meko

quiebra, fracaso

kiebra iz. Ik. **porrot**; **meko**. ◆ **kiebra egin** (> *kiebra in*). Kiebra jo, porrot egin. *Bakoitza be alde; laister kiebra inko dĭu* 'bakoitza bere alde; laster kiebra egingo dugu'. Ik. **porrot egin**; **meko egin**.

kieto

GELDI

geldi; alto

eman, dale

quieto; alto ahí
quieto, -a; parado, -a

kieto **1** interj. ▲ Sin. *geldi(k)*; *alto*. ▼ Anton. *eman*; *dale*. **2** adb. *Or do, kieto, mogitzen eztala* 'hor dago, kieto, mugitzen ez dela'. Ik. **geldi**; **geldirik**.

kika, kikiá

PIPITA, AHOLEGAR, KIO

kirika

pepita (tumor que las gallinas suelen tener en la lengua)
hipo de la gallina

kika **1** iz. Pipita, hegaztien aholegarra, kioa. Ik. **kirika**. *Kikĭa jostarratzakin kentzen zĭain oilweiri* 'kika jostorratzarekin kentzen zioten oiloei'. **2** iz. Kika hotsa, oiloen zotina. *Kikĭa duka oilworrek* 'kika dauka oilo horrek'.

kikara, kikaria

KIKARA

taza (pequeña); jícara
jícara (contenido)
aislador de porcelana o vidrio (elemento de línea eléctrica aérea)

kikara (eta *jikara*, *jikera* [Bakaiku]) **1** iz. Katilua baino txikiagoa den ontzia, kirten bakarra duena. *Kikaratan ata daĭ kafĭa* 'kikaretan atera dute kafea'. **2** iz. Ontzi horren edukia. *Botaiozu kikara bat arrotz* 'Botaiozu kikara bat arroz'. **3** iz. Portzelanazko edo beirazko isolagailua, linea elektrikoetan erabilia. *Arrikan austen genduzen poste zarretako kikarak* 'harrika hausten genituen zutoin zaharretako kikarak'.

kikarakada, kikarakadia

KIKARAKADA

taza, jícara (contenido)

kikarakada iz. Kikara baten edukia. *Naikwa dau kikarakada bat arrotz, ez geio* 'nahikoa du kikarakada bat arroz, ez gehiago'.

kikaratxo, kikaratxua

KIKARAKADATXO; KIKARA (EDUKIA)

kikarakada

taza (pequeña); jícara (contenido)

kikaratxo **1** iz. Kikara txikia. **2** iz. Kikara horren edukia, kikarakadatxoa. *Kikaratxuet* 'kikaratxo bat'. *Ekatzu kikaratzuet* 'ekartzazu kikaratxo bat' [*gutxi*, *pixka* adierarekin]. Ik. **kikarakada**.

kilixkoloxka, kilixkoloxkia

TXINTXIRRIN

sonajero

kilixkoloxka iz. Txintxirrina; kaskabiloz edo kriskitinez osaturiko jostailua, bularreko haurrak jostarazteko erabiltzen dena.

kilo, kilua

KILO, KILOGRAMO

kilo, kilogramo

kilo iz. Kilogramoa. *Bi kiloko hurra, intxorra* (?) (Ond Bak). || *Kilo erdi. Berrogeitamar kilo eztu pisatuko* 'berrogeita hamar kilo ez ditu pisatuko' ◆ **kiloko pisu(ak)** (> *kiloko pisuek*). Pisatzeko pisu sorta.

kiloko pisu(ek)

PISU SORTA

juego de pesas para pesar

kiloko pisu(ak) (> *kiloko pisuek*). Pisatzeko pisu sorta.

kilometro, kilometrua

KILOMETRO

kilómetro

kilometro iz. Distantzia-neurria, mila metroren baliokidea (km). *Emetik autza kilometro asko ezté* 'hemendik harutza [hara] kilometro asko ez daude'.

kima, kimia

KIMA; KIMU

aldakaitz

brote, renuevo, vástago, retoño
punta de la rama

kima iz. Landare bati ateratzen zaion abartxo berria. *Kima asko dekatza* (Ond Bak). || Ik. **aldakaitz**.

kimatu, kimatzen

KIMATU

(arbolia) moztu

podar; cortar las puntas de las ramas
brotar, apuntar

kimatu **1** *dau* ad. Landare bati adarrak eta abarrak moztu, inausi. Ik. (arbola) **moztu**. **2** *da* ad. Kimuak erne.

kimu

KIMU, KIMA

brote, renuevo, vástago, retoño

kimu (?). Ik. **kima**.

kimuka, kimukia (HEZUR) MUIN

mimuka

tuétano, médula

kimuka [Altsasu] iz. Muina, animalien hezur gehienen barnealdea betetzen duen gai bigun eta zurixka. {"*Kimuki*, el tuétano de los huesos; *kimuka guziya*" (Iza Alts)}. Ik. **mimuka**.

kinkallero, kinkallerua KINKILA-SALTZAILE

quincallero, -a

kinkallero, -a iz. Kinkila saltzailea. *Mandwekin ibiltzen zan saltzailia; danetik saltzen zain: guexak, antejuek, bizarlabinak, galtzak..., ta udazkenien, matsa* 'mandoekin ibiltzen zen saltzailea; denetik saltzen zuten: guraizeak, antiojoak, bizar-labainak [bizar-xaflak], galtzak [galtzerdiak]..., eta udazkenean, mahatsa'.

kinkaze, kinkazia HINKA (?)

queja; ruido; (en oraciones negativas) no hacer ruido; no decir ni mu; no quejarse

kinkaze iz. (*) Hotsa; kexa hotsa. (Ezezko perpausetan). Txintik ez atera, tutik ez esan. [Lotan aparte dagoen haurragatik] *Aur orrek etxukan kinkazeik; hotsik* 'haur horrek ez zaukan kinkazerik; hotsik'. (*Zehaztu).

kinketan; inkan KINKINKA

inkan

hinque (juego en que se clava de golpe en la tierra húmeda un palo puntiagudo)

kinketan adb. (*ibili* aditzarekin). Haur jolasa, makila puntaduna lur hezean sartuz besteen makila jo eta botatzean datzana. ▲ Sin. *inkan*.

kinta, kintia KINTA

quinta; reemplazo anual para el servicio militar
quinta; conjunto de personas que nacieron en el mismo año

kinta **1** iz. Soldadutza egiteko urteroko txanda. **2** iz. Adinkideak. *Gue kintakua da* 'gure kintakoa da'.

kinto, kintua KINTO

quinto (recluta)
quinta; conjunto de personas que nacieron en el mismo año

kinto [generoa: *kinto*, *kinta*?] **1** iz. Kinta [soldadutza egiteko urteroko txanda] bateko kidea. *Sei kintotati lauri Afriká fatĭa tokatu zezaien* 'sei kintoetatik lauri Afrikara joatea tokatu zitzaien'. **2** iz. Adinkidea. *Santagedatan, kintwek jai* 'santagedatan, kintoak jai'.

kinzena, kinzenia KINTZENA

quincena [paga], sueldo quincenal

kinzena iz. Kintzena, hamabost eguneko lansaria; soldata.

kiosko, kioskua KIOSKO

quiosco, kiosco

kiosko iz. *Plazako kioskwa* 'plazako kioskoa'.

kipula bear, kipula bearra TIPULA BELAR, HARTZ-BARATXURI (?)

ajo de oso (Allium ursinum) (?)

kipula belar (> *kipula bear*) iz. (Bot.). Hartz-baratxuria (Allium ursinum) (?).

kipula, kipulia
TIPULA

cebolla (Allium cepa)

kipula (eta *tipula* [Bakaiku, Iturmendi]) iz. (Bot.) Tipula; baratze landarea (Allium cepa), eta landare horren erraboila. Ik. **tipula**. ◆ **kipula belar** (> *kipula bear*) iz. (Bot.). Hartz-baratxuria (Allium ursinum) (?). ◆ **kipula salda** (> *kipula saldĭa*). *Kipulĭa erre, ta zopakin saldĭa in* 'tipula erre, eta zopekin salda egin'.

kirika
PIPITA, AHOLEGAR, KIO

kika

pepita (tumor que las gallinas suelen tener en la lengua)

kirika [Bakaiku] iz. Pipita, hegaztien aholegarra, kioa. Ik. **kika**.

kirkir, kirkirra
(NEKAZARITZAKO TRESNA)

(apero agrícola)

kirkir iz. Nekazaritzako tresna.

kirri-karra
KARRA-KARRA

onomat. del crujido; onomat. de roer
onomat. del croar

kirri-karra **1** onomat. Karraskatzearen onomatopeia. *Kirri-karra jan*. *Harra kirri-karra jaten*. Ik. **riki-raka**; **karra-karra**. **2** onomat. Igelaren oihuaren hotsa, korrokaren onomatopeia. *Ubaxak kirri-karra daitza kaitaitan* 'ugaraxoak kirri-karra dabiltza kantaitan'. Ik. **kirri**.

kirri, kirria
KROAK, KORROKA

croar de la rana

kirri iz. onomat. Igelaren oihua. *Ubaxain kirria* 'ugaraxoen [igelen] kirria'. Ik. **kirri-karra**.

kirris-karras
KRIS-KRAS; KRAS-KRAS

ruido de crujido

kirris-karras onomat. Karraskaren edo krakatekoaren onomatopeia. *Izotz plakĭa kirris-karras austen* 'izotz plaka kris-kras hausten'. || *Zorroko patata fritak kirris-karras jaten* 'zorroko patata frijituak kras-kras jaten'.

kirris-korros
KURRUSKARI, KURRUSKATSU

onomat. de crujiente

kirris-korros (eta *kirrix-korrox*) onomat. Kurruska egiten duenaren onomatopeia. ◆ **kirris-korros egin**; **egon** (> *kirris-korros in; yon*). *Jantazu belaxe pastela, ojaldrĭa kirris-korros do ta* 'jan ezazu berehalaxe pastela, hostorea kurruskatsu dago eta'.

kisa
GISA

modu; lera

manera, modo, forma, guisa
a modo de, como, en calidad de

kisa **1** iz. Gisa. *Kis'orta* (kisa hortá) 'gisa hortara'. Ik. **modu**; **lera**[1].
– *be kisa*, *ne kisa*, *neaure kisa*, *giaure kisa*... **2** postp. Mutiloi ero kisa da.

kisako, kisakua
GISAKO

antzeko, moduko, pareko

kisako adj. Gisakoa, antzekoa. Horren kisakua.

kiskal usai, kiskal usaia

KISKAL USAIN, ERRE USAIN

erre usai

olor a quemado

kiskal usai iz. Kiskal usaina, erre usaina. *Emendik aitzen da kiskal usaia* 'hemendik aditzen da kiskal usaina'. Ik. **erre usai**.

kiskal-kiskala

KISKAL-KISKAL

kaskal-kaskala, erre-erria

completamente abrasado, -a; achicharrado, -a; calcinado, -a

kiskal-kiskala (eta *kixkal-kixkala*) adb. Erabat kiskalita, guztiz erreta. *Mendiko alderdi oi kiskal-kiskala autzi zen suek* 'mendiko alderdi hori kiskal-kiskala utzi zuen suak'. Ik. **kaskal-kaskala**; **erre-errea** (> *erre-errĭa*). ◆ **kiskal-kiskala egin** (> *kiskal-kiskala in*) *da/dau* ad. Erabat kiskaldu. *Labĭen kiskal-kiskala in dau oilaskwa* 'labean kiskal-kiskala egin du oilaskoa'.

kiskal, kiskala

KISKAL

erre(a)

quemado, -a; requemado, -a; achicharrado, -a; abrasado, -a; calcinado, -a

kiskal (eta *kixkal*) adj./iz. Errea, txigortua. *Azal kiskala kenduiozu ogiai* 'azal kiskala kendu egiozu ogiari'. ◆ **kiskal-kiskala** (eta *kixkal-kixkala*) adb. Erabat kiskalita, guztiz erreta. *Mendiko alderdi oi kiskal-kiskala autzi zen suek* 'mendiko alderdi hori kiskal-kiskala utzi zuen suak'. Ik. **kaskal-kaskala**; **erre-errea** (> *erre-errĭa*). ◆ **kiskal-kiskala egin** (> *kiskal-kiskala in*) *da/dau* ad. Erabat kiskaldu. *Labĭen kiskal-kiskala in dau oilaskwa* 'labean kiskal-kiskala egin du oilaskoa'. ◆ **kiskal usai** iz. Kiskal usaina, erre usaina. *Emendik aitzen da kiskal usaia* 'hemendik aditzen da kiskal usaina'. Ik. **erre usai**.

kiskaldu, kiskaltzen

KISKALDU

kaskaldu, kiskali, erre

abrasar(se), quemar(se), requemar(se); tostar(se); calcinar(se)

kiskaldu *da/dau* ad. Ik. **kiskali**; **kaskaldu**; **erre**.

kiskali, kiskaltzen

KISKALI

kiskaldu, kaskaldu, erre

abrasar(se), quemar(se), requemar(se); tostar(se); calcinar(se)

kiskali *da/dau* ad. *Patatak urakin, aragia kiskalik (janarekin ez konforme)* 'patatak urarekin, haragia kiskalirik (janarekin ez konfome)'. ▲ Sin. *kiskaldu*, *kaskaldu*, *erre*.

kiskata, kiskatia

KISKETA [MARATILA]. 2 ARGI GILTZA. 3 PINTZA

tarabilla, aldabilla

interruptor

pinza de tender la ropa

kiskata (eta *kixkata*). Ik. **kisketa**. **1** iz. Maratila. *Ataien kiskatĭa* 'atearen kisketa'. **2** iz. Argi giltza, etengailua. *Argien kiskatĭa, agia yazi ta iltzekwa* 'argiaren kisketa, argia irazeki eta hiltzekoa'. **3** iz. Pintza, arropak esekitzeko erabiltzen dena. *Arropĭa tintilikan patzeko kiskatak* 'arropa zintzilik paratzeko kisketak [pintzak]'. Ibili ta ibili, zurezko kixkatak dĭa, gwaindo, obenak 'ibili eta ibili, zurezko kiskatak [pintzak] dira, oraino, hoberenak'.

kiskero, kiskerua

TXISKERO, PIZGAILU

mechero; encendedor

kiskero (eta *kixkero*) iz. Sakelako pizgailua. Ik. **txiskero**.

kisketa, kisketia

KISKETA [MARATILA]. 2 ARGI GILTZA. 3 PINTZA

tarabilla, aldabilla
interruptor
pinza de tender la ropa

kisketa (eta *krisketa* [Ziordia]; *kixketa*; *kiskata*, *kixkata*) **1** iz. Kisketa, maratila; zurezko edo metalezko pieza, biratuz ateak eta leihoak ixteko erabiltzen dena. Ik. **murrilo**. **2** iz. Argi giltza, etengailua. *Kisketati iten da argia yazi ta il* 'kisketatik egiten da argia irazeki [piztu] eta hil [itzali]'. **3** iz. Pintza; bi besoz osatutako tresna, gauzei heltzeko erabiltzen dena. *Arropĭa txintxilikatzeko kixketak* 'arropa zintzilikatzeko kisketak [pintzak].

kiski-kaska

KISKI-KASKA

onomat. del ruido producido por golpes repetidos, de choque de objetos...

kiski-kaska onomat. Behin eta berriz jotako kolpeek edo bi gauzen arteko elkar jotzeak ateratzen duten hotsaren onomatopeia. *Kazkar yutsina bota dau; bolo zarronak, kiski-kaska!* 'kazkabar erauntsia bota du; bola tzar onak, kiski-kaska!'.

kiste, kistia

KISTE

quiste

kiste iz. *Gibel guztĭa kistez beteik zukan* 'gibel guztia kistez beterik zuen'.

kisu, kisua

GISU, IGELTSU

yeso

kisu iz. Gisua, karea. ◆ **kisua eman**. Gisua eman, gisuztatu. *Kisua eman dĭa paretairi* 'gisua eman dio paretei'. Ik. **kisutu**.

kisugile, kisugilia

GISUGILE, IGELTSERO

albañil

kisugile (eta *kisubile*, *kisibile* [Urdiain]) iz. Gisugilea, igeltseroa. • Esr. zah. *Artzaiek-e naio ikusi otsua artaldien, kisibilia etxien baindo* 'artzainak ere nahiago ikusi otsoa artaldean, gisugilea [igeltseroa] etxean baino'.

kisutu, kisutzen

GISUZTATU

enyesar

kisutu *dau* ad. Gisuztatu, gisua eman. Ik. **kisua eman**. *Paretak kisutu* 'paretak gisuztatu'.

kitarra, kitarria

GITARRA

guitarra

kitarra iz. Gitarra. Ik. **gitarra**.

kito (?)

KITO

en paz, sin deudas, saldado, -a; libre, exento, -a

kito (?) Kitatuik. Kieto (?)

kixmi

KIXMI*

2 apiz

nombre con que designaban a Cristo los gentiles
cura, párroco (coloq.)

kixmi **1** iz. Jesukristori jentilek ematen dioten izena. **2** iz. Lgart. Apaiza. Ik. **apaiz** (> *apiz*).

-kizun

-KIZUN (ATZIZKIA). 2 ORDUKO, BEZAIN LASTER

-kizun; sufijo que forma sustantivos que indican objeto final; y adjetivos que denotan acciones

-kizun (atzizkia). Aditzoina hartzen du oinarri izenak sortzen dituen atzizki honek. Burundako adibideak: *asmakizun*, *elizkizun*, *ikuskizun*. || 'Orduko, bezain laster' esanahiarekin; aipatzen dena gertatu eta berehala: *afaldukizun*, *gosaldukizun*, *desayunatukizun*... | *Bazkaldukizun ata da korrikan* 'bazkaldu orduko atera da korrika'.

klabel, klabela

KRABELIN

clavel (Dianthus caryophyllus)

klabel iz. (Bot.) Krabelina, Caryophyllaceae familiako landarea; landare horren lorea (Dianthus sp.).

klabelin txoi pikomotx, klabelin txoi

GAILUPA

elur txoi, negu txoi

camachuelo (Pyrrhula pyrrhula)

klabelin txori pikomotx (> *klabelin txoi pikomotxa*) iz. Gailupa (Pyrrhula pyrrhula). [krabelin txoi pikomotxa (EHHA)]. Ik. **elur txori** (> *elur txoi*); **negu txori** (> *negu txoi*).

klabelin txoi, klabelin txoia

KARNABA, KARDANTXILO

kapritxo polita

jilguero (Carduelis carduelis)

klabelin txori (> *klabelin txoi*) iz. Karnaba, kardantxiloa (Carduelis carduelis). *Klabelin txoi polita*. ▲ Sin. *kapritxo polita*. || [* krabelin txoi polit (EHHA). *{OEH kardelina (G-nav, B, Sal, R; -lin Ae; A Apend), kardalin (AN-egüés-ilzarb-olza). Ref.: VocPir 448; Bon-Ond 144; Garbiz Lezo 45; Izeta BHizt (kardelina). Jilguero. "Kardelinek zein ongi kantatzen duten. Kardeline xori ona" Izeta BHizt. v. kardantxilo. — KRABELIN POLIT. "Krabelin politta (G-nav), jilguero (pájaro)" A.}.

klabelina, klabelinia (?)

ILEN, BALTSAMO-BELAR

caléndula, maravilla (Calendula officinalis)

klabelina iz. (Bot.) Ilena, baltsamo-belarra (Calendula officinalis) LM. ebagi-belar [ebaki belarra (Julia Begiristain)].

klabikula, klabikulĭa

LEPAUZTAI

clavícula

klabikula iz. Lepauztaia. *Bigarren aldia don klabikulĭa austen dela* 'bigarren aldia dun lepauztaia hausten duela'.

klarete, klaretia

KLARETE, GORRI; ARDO GORRI

gorri (ardo gorri)

vino clarete

klarete adj./iz. Ardo gorria. Ik. **gorri**.

klaridade, klaridadia
ARGITASUN

claridad, luminosidad, resplandor

klaridade iz. Ik. **argitasun**.

klaro, klarua
ARGI, KLARU

argi, garbi — *ilun*

claro, -a
claro, -a, despejado, -a
claramente
claro, por supuesto, por descontado

klaro **1** adj. *Klaro esaten dezut* 'argi esaten dizut'. Ik. **argi**; **garbi**. || *Klaro do gaur eguna* 'argi dago gaur eguna'. ▼ Anton. **ilun**. **2** adb. Ozen. *Patzak telebisiwa klárwo* 'paratzak telebista klaroago [ozenago]. **3** adb. Noski. Ik. **jakina**; **konto**.

klarotxo, klarotxua
KLARO

claro, -a; (demasiado claro)

klarotxo adj. Adkor. Klaro, aukeran klaroegia. Ik. **klaro**; **argitxo**.

klase, klasia
MOTA, KLASE, KASTA

bariedade, jenero, tipo

clase, categoría
clase (social)
clase; lección

klase **1** iz. *Oi jende klasĭa!* 'hori jende klasea!'. *Gĭaure garaia ala jiagu: ze denba klase, alako min klase* 'Geure garaia horrela zaramaagu: zer eguraldi klase, halako min klase. *Zade ixilik kontu klase oiekin!* 'zaude isilik kontu klase horiekin!'. | *Indiaba klase asko de* 'indaba klase asko daude'. Ik. **bariedade**; **jenero**; **tipo**. **2** iz. Gizarte maila bereko edo antzeko ezaugarriak dituzten pertsonen multzoa. *Obrero klasĭa*. **3** iz. Irakaskuntza-saioa. Ik. **eskola**.

klasifikatu, klasifikatzen
SAILKATU, KLASIFIKATU

clasificar, ordenar, disponer
clasificarse (en un puesto de una competición; poder continuar en un torneo)

klasifikatu **1** *dau* ad. Sailkatu; multzo edo talde bat, arau edo irizpideren baten arabera, sailetan banatu. *Naurria nolakwa, alaxe klasifikatzen tuai* 'neurria nolakoa, halaxe klasifikatzen dituzte'. Ik. **ordenatu**. **2** *da* ad. Lehiaketa batean leku jakin bat lortu; lehiaketa batean jarraitzeko aukera lortu. *Biek klasifikatu dĭa mus txapelketan* 'biak klasifikatu dira mus txapelketan'. Ik. **zenbatgarren egin**.

klasifikazio, klasifikaziua
KLASIFIKAZIO, SAILKAPEN

clasificación; relación de los clasificados en una determinada prueba

klasifikazio iz. Sailkapena.

klaudia okan, klaudia okana
KLAUDIA OKARAN

ciruela claudia

klaudia okaran (> *klaudĭa okan*) iz. Klaudia arana.

kliente, klientia
BEZERO

cliente, -a; vecero, -a; parroquiano, -a

kliente iz. Bezeroa. Ik. **parrokiano, -a**.

klin, klina

ZURDA, KIMA

zurda

crin

klin iz. Kima; zaldiek eta beste zenbait aberek lepogainean duten zurden multzoa. *Zaldien klina* 'zaldiaren kima'. *Basurdien klina* 'basurdearen kima'. *Basurdĭek, klina zuti-zutia zukala, txakurrai aurre in zĭan* 'basurdeak, kima zuti-zutia zeukala, txakurrari aurre egin zion'. Ik. **zurda**.

klinika, klinikia

KLINIKA

clínica

klinika iz. Arlo berezi bateko edo batzuetako sendagileak aritzen diren eritegia, batez ere pribatua. *Aitatu dezun klinika ortan bertan opĭatu zain* 'aipatu duzun klinika horretan bertan operatu zuten'.

klu, klua

KLUB

elkarte

club

klu(b) iz. Kluba; hainbat jolas edo kirol elkarteri ematen zaien izena. *Aitzibergo klua*. Ik. **soziedade**; **elkarte**.

koajutore, koajutoria

KOADJUTORE, APAIZ LAGUN

vicario coadjutor

koajutore (eta *kwajutore*) **1** iz. Koadjutorea. *Errien fijo ez zon apiza zan koajutorĭa* 'herrian finko ez zegoen apaiza zen koajutorea'. Ik. **parroko**. **2** iz. (Lgart.) Izengoitiak paratzailea. *Izengutiek patzen zenai're kwajutorĭa esaten zĭain* 'izengoitiak paratzen zituenari ere koadjutore esaten zioten.

koatxiki, koatxikia

OTA-JOIKI

otajaiki, otafaki

pala con boca fuerte de hierro para majar árgoma

koatxiki iz. Ald. *akoatxiki*, *akuatxiki* | *kortxiki* [Ziordia].

koba, kobia

HAITZULO, KOBA

zulo

cueva, caverna, gruta

koba iz. Ik. **zulo**.

kobarde, kobardia

KOLDAR. 2 LOTSATI

2 lotsati

cobarde, miedoso, -a
tímido, -a

kobarde **1** adj. Koldarra. Ik. **bildurti**. **2** adj. Herabea, lotsatia. Ik. **lotsati**.

kobazulo, kobazulua

KOBAZULO

cueva, caverna, gruta

kobazulo iz. Haitzuloa, harpea. || Koba sarrera.

kobradore, kobradoria KOBRATZAILE

kobratzaile

cobrador, -a

kobradore iz. Kobratzen duen pertsona. Ik. **kobratzaile**. *Burundesako kobradore ibiltzen zan* 'Burundesako [autobus enpresa] kobratzaile ibiltzen zen'.

kobrantza (?) KOBRANTZA

cobranza, cobro

kobrantza (?) iz. Ik. **kobru**.

kobratu, kobratzen KOBRATU

2 hartu, jaso

cobrar

recibir un castigo

kobratu **1** *dau* ad. Norbaitek zor zitzaiona edo hartzeko duena eskuratu. *Gwaindo eztai kobratu azkeneko lau ilabetĭek* 'oraindik ez dute kobratu azkeneko lau hilabeteak'. *Auskolo zer kobratuko dáin!* 'auskalo zer kobratuko duten!'. **2** *dau* ad. Zigorra jaso, hartu. *Kobratu ber dok!* 'hartu behar duk!'. ▲ Sin. *hartu*; *jaso*.

kobratzaile KOBRATZAILE

kobradore

cobrador, -a

kobratzaile iz. Kobratzen duen pertsona. ▲ Sin. *kobradore*.

kobre, kobria KOBRE

cobre

kobre iz. Metal gorria eta malgua (Cu). *Adornutako dukatzi kobrezko kazwek* 'adornutarako dauzka kobrezko kazoak'.

kobru, kobrua KOBRU

cobranza, cobro

kobru iz. Kobratzea. *Kobrua ta pagua*. Ik. **pagu**.

kofrade, kofradia KOFRADE

cofrade

kofrade iz. Kofradia bateko kidea.

kofradia KOFRADIA

cofradía

kofradia iz. Anaidia. *Sanantongo kofradia*.

kohete, kohetia SUZIRI, KOHETE

cohete (artefacto que se mueve en el espacio por propulsión)

kohete (> *koete*, *kwete*) 1 iz. *Ruswek bota dai koetĭa* 'errusiarrek borta dute suziria'. 2 iz. Ik. **etxaju**.

koilakada, koilakadia KOILARAKADA

cucharada, cuchara

koilakada iz. Koilarakada; koilara baten edukia.

koilara, koilaria

KOILARA

cuchara

koilara **1** iz. Janari saldatsu eta bigunak ahoratzeko erabiltzen den tresna. *Zurezko koilaraik eztau ikusi nai* 'zurezko koilararik ez du ikusi nahi'. **2** iz. Koilara baten edukia, koilarakada. *Koilara erdia*, *koila erdia*. Ik. **koilakada**.

koilaratxo

KOILARATXO

koilatxiki

cucharilla

koilaratxo **1** iz. Koilara txikia. Ik. **koilatxiki** [Urdiain]. **2** iz. Koilara horren edukia. *Bi o híru koilaratxo emán datzát* (Ond Bak).

koilatxiki, koilatxikia

KOILARATXO

koilaratxo

cucharilla

koilatxiki **1** iz. Koilara txikia, koilaratxoa. Ik. **koilaratxo**. **2** iz. Koilara horren edukia.

koinziditu, koinziditzen

KOINTZIDITU

2 enkontratu, topo in

coincidir

koinziditu **1** *da/dau* ad. Kointziditu; bi gauza edo gehiago aldi berean gertatu, batera gertatu. **2** *dau* ad. Kointziditu; pertsonengatik esanda, leku berean gertatu. Ik. **topo egin** (> *topo in*); **enkontratu**.

koipe, koipia

KOIPE

grasa, manteca; aceite

koipe iz. *Koipe gaiei duka jatekuonek* 'koipe gehiegi dauka jateko honek'. Ik. **gantz**; **olio**.

koipetsu, koipetsua

KOIPETSU

oliotsu

graso, -a; grasiento, -a; pringoso, -a; mugriento, -a

koipetsu adj. Koipe asko duena. Ik. **oliotsu**. ¬

koipetu, koipetzen

KOIPETU

ensuciar(se) de grasa, llenar(se) de grasa, pringar(se)
engrasar; untar de aceite o grasa

koipetu **1** *da/dau* ad. Koipez bete. **2** *dau* ad. Koipeztatu.

koipeztu, koipezten

KOIPEZTATU, KOIPETU

engrasar; llenar(se) de grasa, ensuciar(se) de grasa

koipeztu *da/dau* ad. Koipeztatu, koipetu. Ik. **olioztatu**.

koko (2)

KOKO

golosina, dulce (voc. infant.)

koko[2] iz. Haur. Gozokia. *Oizu koko, maitĭa* 'oizu koko, maitea'.

koko, kokua (1)

KOKO

coco (fruto)

koko[1] iz. Kokondoaren fruitua. *Zanaorĭakin ta kokwekin indako pastela* 'azenarioekin eta kokoarekin egindako pastela'.

kol-kol-kol
BOR-BOR

onomat. borbotear

kol-kol-kol onomat. Likido isuriaren onomatopeia. *Ardwa botellatik, kol-kol-kol, ustu* 'ardoa botilatik, kol-kol-kol, hustu'.

kolarre, kolarria
KORRALE

redil, aprisco

kolarre [Altsasu] iz. Korralea, artegia. Ik. **korrala**.

koleatu, koleatzen
KOLERATU

hasarratu, sutu, sutan patu, iekiten patu, iekinazi

encolerizar(se)

koleratu (> *koleatu*, *kollatu*) *da/dau* ad. ▲ Sin. *hasarratu*, *sutu*, *sutan patu*, *iekiten patu*, *iekinazi*.

kolekzio, kolekziua
BILDUMA

colección

kolekzio (eta *kolezio*) iz. Bilduma.

kolekzionatu, kolekzionatzen
BILDUMATU, BILDUMA EGIN

coleccionar

kolekzionatu (eta *kolezionatu*) *dau* ad. Bildumatu, bilduma egin. Ik. **bildu**; **jaso**.

kolera, koleria (2)
KOLERA

cólera

kolera[2] iz. Med. Eritasun larria eta kutsakorra

koliko biar, koliko biarra
EGUR-BELAR (?)

salicaria, arroyuela (Lythrum salicaria)

koliko belar (> *koliko bĭar*) iz. (Bot.) Egur-belarra (?) (Lythrum salicaria L.).

koliko, kolikua
KOLIKO

kakafirri

cólico intestinal
diarrea, descomposición

koliko **1** iz. Sabelaldeko errai bateko min zorrotza, barne hodiren bat ixtearen ondorio dena. **2** iz. Beherakoa. Ik. **kakafirri**; **firri**. ◆ **koliko belar** (> *koliko bĭar*) iz. Egur-belarra (?) (Lythrum salicaria L.).

kolko, kolkua
KOLKO

seno, regazo, pecho

kolko iz. Jantziaren eta bularraren arteko hutsunea. *Kolkuen, atorra azpien, dekatzi sarrak* 'kolkoan, atorra azpian, dakarzki [dakartza] sagarrak'. *Kolkwa bete diru* 'kolkoa bete diru'.

kolkokada, kolkokadia
KOLKOKADA

senada, porción de cosas que se pueden llevar en el pecho

kolkokada iz. Kolkoak har dezakeen kopurua. ¬

kolla hartu

KOLERA HARTU, KOLERATU

encolerizarse

kolla hartu *dau* ad. Kolera hartu; erabat haserretu, koleraz bete. *Erriko dendak kolla artuko diai frutia kalien saltzen dailako* 'herriko dendak kolera hartu ditek fruta kalean saltzen dutelako'. Ik. **koleratu** (> *koleatu*, *kollatu*).

kolla, kollia

KOLERA

hasarria, amorru, errabia

cólera; ira, furia, rabia

kolla iz. Kolera, haserre bizia, amorrua. *Baukat kolla bat!* 'badaukat kolera bat'. *Ixo!, naiko kólla jukat eta* 'ixo!, nahiko kolera zaukaat eta'. Ik. **hasarria**; **amorru**; **errabia**. ◆ **kolla hartu** *dau* ad. Kolera hartu; erabat haserretu, koleraz bete. *Erriko dendak kolla artuko diai frutia kalien saltzen dailako* 'herriko dendak kolera hartu ditek fruta kalean saltzen dutelako'. Ik. **koleratu** (> *koleatu*, *kollatu*).

kollaldi, kollaldia

KOLERA ALDI

acceso de cólera / ira / enojo / enfado

kollaldi iz. Kolera aldia; norbait koleratuta, erabat haserretuta den une edo denbora igarokorra. ¬

kollar, kollarra

LEPOKO, IDUNEKO

collar

kollar iz. Lepokoa, idunekoa; lepoa inguratuz jartzen den apaingarria. *Perlazko kollarra* 'perlazko lepokoa'.

kollatu, kollatzen

KOLERATU

sutu, iekinazi

encolerizar(se)

koloma

KOLOMA, ZUTABE (*)

tipo de pared (entramado de mampostería y postes de madera); columna

koloma iz. Horma mota; harlangaitzezkoa, zurezko habeak tartean dituena. || *Zurakín da iník don paretiá, paretién erdién o léku askotán zurák nastutá dekatzaná* (Ond Bak). (*) Koloma; habea, zutabea.

kolonia

KOLONIA

colonia, agua de Colonia

kolonia iz. Kolonia-ura. *Kolonĭa usaia* 'kolonia usaina'.

kolore, koloria

KOLORE

color
colorido, colores

kolore iz. ◆ **kolore txar**. Zurbila. *Kolore txarreko*. Ik. **kolorebeiko**. ◆ **kolore putz(a)**. Zurbila. Ik. **berdotz**. ◆ **koloretako**. Koloretako telebisiua. ¬

kolorebeiko, kolorebeikua

KOLOREGABE

koloredun

incoloro, -a
pálido, -a, lívido, -a

kolorebeiko **1** adj. Koloregabea. ▼ Anton. *koloredun*. **2** adj. Zurbila. Ik. **kolore txar**.

koloredun, koloreduna

KOLOREDUN

kolorebeiko

coloreado, -a; de color

koloredun adj. Kolorea duena, kolorezkoa. *Eztau nai izara koloredunik* 'ez du nahi izara koloredunik'. ▼ Anton. *kolorebeiko*.

kolorezko, kolorezkua

KOLORE(Z)KO

de color, de colores

kolorezko adj. *Kolorezko arropĭa* 'kolorezko arropa'. Ik. **koloretako**.

koltxa, koltxia

OHE ESTALKI

colcha

koltxa iz. Ohe estalkia, ohazala. Ik. **ohazal**; **ohiazal**.

koltxon, koltxona

KOLTXOI, LASTAIRA

lastai

colchón

koltxon iz. Koltxoia, lastaira. *Gainien 'lastaiaren gainean', koltxona* (Ond Bak). Ik. **lastai**; **jergon**. *Ardilazko koltxona arrotu* 'artilezko koltxoia harrotu'.

komedi, komedia (?)

KOMEDIA; 2 KOMERIA

situación ridícula/curiosa; enredo, lío, trance
problema, dificultad

komedia (> *komedi*) **1** iz. Ikus-entzuleak jostaraztea helburu duen antzezlana. *Komedia politak iten zituain belada* [gau jaialdi] *aitan* 'komedia politak egiten zituzten gau jaialdi haietan'. **2** iz. Komeria (Batez ere pl.) *komediek*. Bizitzako gertaera barregarria. *Guk iten tun komediek, ta gwaindo in ber tunak* 'guk egiten ditugun komeriak, eta oraindik egin behar ditugunak'. *Haik komediek ta komedixak!* (LM). *Nunbaiteko komediek!* Ik. **abentura**. **3** iz. Arazo, komeria. *Autwendako elurretako gataĭk eztot artu, ta gwai komediek!* 'autoarendako elurretarako katerik ez dut [ditut] hartu, eta orain komeriak'. ◆ **komediak egin** (> *komediek ein / in*).

komediante, komediantia

KOMEDIANTE, ANTZEZLE

comediante; actor o actriz de comedias
comediante; hipócrita, falso, -a

komediante **1** iz. Antzerkilaria, bereziki komediak jokatzen dituena. *Orrek komediantetako're balio dau* 'horrek komediantetarako ere balio du'. **2** iz. Itxuragilea, itxurak egiten dituen pertsona. *I?, komediante galanta ago inik i!* 'hi?, komediante galanta hago eginik hi!'.

komenenzia

KOMENENTZIA

conveniencia; provecho; ventaja

komenenzia (eta *konbenenzia*) iz. Komenentzia, onura, interesa, komeni izatea. *Be komenenzia iten dau* 'bere komenentzia egiten du'. Ik. **beria**.

komoda, komodia
KOMODA

cómoda

komoda iz. Altzari mota. *Komodako erdiko kajonan dukatzizu kamisetak* 'komodako erdiko tiraderan dauzkazu kamisetak'.

komodidade, komodidadia
EROSOTASUN, AISETASUN

comodidad, facilidad

komodidade iz. Erosotasun, aisetasuna.

komodin, komodina
KOMODIN

cómoda pequeña (mueble)
comodín [de la baraja]

komodin **1** iz. Komoda txikia (altzaria). **2** iz. Joko kartetan, jokalariari komeni zaion balioa hartzen duen karta.

komodo, komodua
EROSO

eroso

cómodo, -a; confortable
cómodamente

komodo **1** adj. Erosoa. **2** adb. Erosotasunez. Ik. **eroso**.

komulgatu, komulgatzen
KOMULGATU

Jauna hartu, komuniua hartu

comulgar

komulgatu *da* ad. *Komulgatu naiz* (Ond Bak). Ik. **Jauna hartu**; **komunioa hartu** (> *komuniua artu*).

komulgazio, komulgaziua
KOMULGAZIO, KOMUNIO

comunión; sacramento; acto de comulgar

komulgazio iz. Komunioa, jaunartzea. pl. *komulgaziuek*. Ik. **komunio**; **jaunartze**.

komun, komuna
KOMUN

bater, ret(r)ete

váter, retrete; (cuarto de) aseo; cuarto de baño

komun **1** iz. Gernu egiteko eta gorputza libratzeko gela. (Iza Alts): (retrete). *Herrientxeko eskolako komunak* [Urdiain] {Maistrari eskaera: Me hará el favor de ir (sic) al común (LM)}. **2** iz. Komun ontzia. ▲ Sin. *bater*, *ret(r)ete*.

komunal, komunala
KOMUNAL

comunal

komunal adj./iz. Lur komunalak, herriko lurrak.
– herriko baso

komunio, komuniua
JAUNARTZE, KOMUNIO

jaunartze, komulgazio

comunión; sacramento; acto de comulgar

komunio iz. Jaunartzea. Ik. **jaunartze**; **komulgazio**. ◆ **komunioa hartu** (> *komuniua artu*). Jauna hartu, eukaristiako sakramentua hartu. Ik. **komulgatu**; **Jauna hartu**.

komunista, komunistia KOMUNISTA

comunista

komunista adj./iz. Komunismoaren aldekoa; alderdi komunista bateko kidea. *Komunistĭa zalako, estalien ibil ber* 'komunista zelako, estalian ibili behar'.

konbeni izan, konbeni izaten KOMENI IZAN

convenir, ser conveniente

komeni izan (> *konbeni izan*) **1** *zaio* ad. Norbaitendako edo zerbaitendako ona edo onuragarria izan. *Ez zaio konbeni azukarĭa jatĭa* 'ez zaio komeni azukrea jatea'. **2** *da* ad. (3. pertsona singularrean). *Ez ton konbeni...* (Iza Alts).

konbenigarri, konbenigarria KOMENIGARRI

conveniente

konbenigarri adj. Komenigarria, komeni dena, onuragarria. *Konbenigarria da gauza oiek txikitati ikastĭa* 'komenigarria da gauza horiek txikitatik ikastea'. Ik. **konbeni izan**.

konbentu, konbentua KOMENTU

convento

konbentu iz. Komentua, erlijiosoen ordena bateko kideak bizi diren etxea.

konbenzitu, konbenzitzen KONBENTZITU

convencer(se)

konbenzitu *da/dau* ad. Konbentzitu. *Eztiazu konbenzituko gripĭen kontrako txertua artzeko* 'ez diozu konbentzituko gripearen kontrako txertoa hartzeko'.

konbertitu, konbertitzen KONBERTITU

convertir(se)

konbertitu *da/dau* ad. Egiazkotzat hartzen den fede edo erlijiokoa egin.

konbinatu, konbinatzen KONBINATU

combinar
combinado (bebida)

konbinatu **1** *dau* ad. Arropia; koloriek konbinatu. **2** *dau* ad. Gaiak, substantziak konbinatu. **3** iz. Edaria.

konbinazio, konbinaziua KONBINAZIO

combinación
combinación (de números, etc.; para mecanismos como cajas fuertes, etc.)
combinación (prenda de vestir que usan las mujeres)

konbinazio **1** iz. Konbinatzea. *Gaur Bilbaura fateko autobus konbinazio onik eztukazu* 'Gaur Bilbora joateko autobus konbinazio onik ez daukazu'. **2** iz. *Lapurrak kaja fuertĭa zabaltzeko konbinazio berrik eztai izan* 'lapurrek kutxa gotorra zabaltzeko konbinazio beharrik ez dute izan'. **3** iz. Jantzia. Ik. **azpiko gona**.

konde, kondia KONDE

conde

konde iz. • Esr. zah. *Markes de Ahalbanike eta Konde de Ahalbanuke*.

kondenatu, kondenatua

KONDENATU(A)

maldarikatu(a)

condenado, -a; maldito, -a

kondenatu(a) (Partizipio burutu edo izen gisa). | Madarikatua. Ik. **maldarikatu(a)**.

kondenatu, kondenatzen

KONDENATU

4 maldarikatu(a)

condenar, sentenciar
condenar(se)
condenar, desaprobar, reprobar

kondenatu **1** *dau* ad. Epaitu ondoan, norbaiti zigor jakin bat ezarri. **2** *da/dau* ad. Erl. Jainkoaren zigorrez, infernura kondenatu. **3** *dau* ad. Gaitzetsi. **4** (Partizipio burutu edo izen gisa). Ik. **maldarikatu(a)**.

kondezio, kondeziua

KONDIZIO

2 ohitura

condición, requisito
condición, estado, situación
costumbre, hábito

kondezio **1** iz. Kondizioa, baldintza (?). **2** iz. Kondizioa, egoera. *Etxĭoi kondezio txarretan do* 'etxe hori kondizio txarretan dago'. **3** iz. Ohitura. *Oi dok kondezio txarra dukana* 'hori duk ohitura txarra daukana'. *Kafĭa zopakin hartzeko kondeziua duka* 'kafea zopekin hartzeko ohitura dauka'. ◆ **kondiziopean** (> *kondeziopĭen*) adb. Baldintzapean.

kondeziopien

KONDIZIOPEAN, BALDINTZAPEAN

a condición de (que)

kondiziopean (> *kondeziopĭen*) adb. Baldintzapean.

kondimentu, kondimentua

ONGAILU

untagarri

condimento, aderezo

kondimentu iz. Ongailua; janariak ontzeko gaia. Ik. **untagarri**.

kondon, kondona

KONDOI

condón, preservativo

kondon iz. Kondoia, preserbatiboa.

konduzitu, konduzitzen

GIDATU

conducir

konduzitu *dau* ad. Gidatu. *Iyuerek baindo obeto konduzitzen dau autobusa* 'inork baino hobeto gidatzen du autobusa'.

konejo, konejua

UNTXI

conejo

koneju, konejua

UNTXI

conejo

koneju iz. Untxia (Oryctolagus cuniculus). *Koneju emĭa* 'untxi emea'. ◆ **koneju belar** (> *koneju bear*). (Bot.) Plantaina, zain-belarra (Plantago sp.). Ik. **llanten**.

konexio
KONEXIO

konfesatu, konfesatzen
KONFESATU, AITORTU

confesar, declarar
confesar(se); confesar, oír en confesión

konfesatu **1** *dau* ad. Huts bat edo gorde nahi den zerbait adierazi, aitortu. *Azkeinĭen, konfesatu dau beak in zela* 'azkenean, aitortu du berak egin zuela'. **2** *da/dau* ad. (Erl.) Bekatuak aitortzan adierazi; bekatuak aitortzan entzun. *Konfesatzĭa fan da* 'konfesatzera joan da'. ◆ **konfesatzeko lagun** (> *konfesatzeko laun*). Ezkontzeko elizkizunean ezkongaiek izaten duten laguna.

konfesio, konfesiua
KONFESIO

confesión, declaración
confesión (sacramento)

konfesio **1** iz. Deklarazioa. **2** iz. (Erl.) Bekatuen aitortza. ¬

konfesonaio, konfesonaiua
AITORLEKU

confesonario

konfesonario (> *konfesionaio*) iz. Elizetan, aitortzeko erabiltzen den esparru txikia.

konfianza, konfianzia
KONFIANTZA
deskonfianza

confianza

konfianza iz. Konfiantza. *Bein bakarrik galtzen emen da konfianzĭa* 'behin bakarrik galtzen omen da konfiantza'. *Arrebĭekin baukat konfianzĭa, bea anaiekin e'naiz fiatzen* 'arrebarekin badaukat konfiantza, baina anaiarekin ez naiz fidatzen'. ▼ Ant. *deskonfianza*.

konfiatu, konfiatzen
FIDATU
fiatu
deskonfiatu

fiarse de; confiar en

konfiatu *da* ad. Fidatu. *Raso konfiatwik zon jendĭa bankuekin* 'arras konfiaturik zegoen jendea banku(ar)ekin'. Ik. **fiatu**. ▼ Anton. *deskonfiatu*.

konfirmatu, konfirmatzen
KONFIRMATU

confirmar, corroborar

konfirmatu *dau* ad. Berretsi.

konfiteia
GOZOTEGI
pasteleia

confitería, pastelería

konfiteria (> *konfiteia*) iz. G.g.er. Gozotegia. *Etxeko eztia konfiteien saltzen zain* 'etxeko eztia konfiterian saltzen zuten'. ▲ Sin. *pasteleia*.

konformatu, konformatzen
KONFORMATU

conformarse, contentarse; acceder

konformatu *da* ad. *Batzuk badĭa sekula konformatzen eztĭanak* 'batzuk badira sekula konformatzen ez direnak'.

konforme
KONFORME

bale, ondo do

conforme, de acuerdo

konforme **1** adb. **2** interj. Ik. **ondo dago** (> *ondo do*); **bale**. ◆ **konforme egon** (> *konforme yon*). Ados egon. *Ni konforme nengon* 'ni konforme nengoen'. ◆ **konforme gelditu**. Aski iritzi. Ik. **pozik gelditu**.

konformidade, konformidadia
KONFORMIDADE

conformidad, avenencia

konformidade iz. konformidade batia heldu (?) → akuerdo batia heldu (?)

konfunditu, konfunditzen
NAHASI, KONFUNDITU

erratu, nahastu; trastornatu

confundir(se), equivocar(se)
confundir, no distinguir

konfunditu **1** *da/dau* ad. Nahasi. Ik. **erratu**; **nahastu**; **trastornatu**. **2** *dau* ad. Nahasarazi. *Ik konfunditzen duak!* 'hik konfunditzen didak!' Ik. **nahastuazi** (> *nastuazi*). **3** *dau* ad. Nahastu; ez bereizi, desberdintasunez ez jabetu. *Bi lengusuek konfunditu iten tut* 'bi lehengusuak konfunditu egiten ditut'.

kongelatu, kongelatzen
IZOZTU

izoztu

congelar(se), helar(se)

kongelatu *da/dau* ad. Izoztu. Ik. **izoztu**.

konortatu, konortatzen
KONORTERATU

onea / onia etorri

volver en sí, recobrar el sentido; hacer volver en sí, hacer recobrar el sentido

konortatu *da* ad. Konorteratu. *Konortatu da, konozimentua etorri zaio* 'konorteratu da, konortea etorri zaio'. Ik. **onera etorri** (> *onea etorri*, *oñĭa etorri*).

konorte, konortia
KONORTE

tentu

consciencia

konorte iz. Ik. tento / tentu. ◆ konortea galdu (> *konortĭa galdu*). *Konortĭa galdu zen* 'konortea galdu zuen'. ▼ Anton. **konortatu**.

konozimentu, konozimentua
EZAGUMEN; 2 KONORTE

juicio, entendimiento, mente, inteligencia
sentido, conocimiento, consciencia, conciencia

konozimentu **1** iz. Ezagumena. *Orrek eztuka konozimentuik* 'horrek ez dauka ezagumenik'. **2** iz. Konortea. Ik. **sentido**; **tento**. ◆ **konozimentua galdu**. Konortea galdu. Ik. **konortatu**.

konpañia
KONPAINIA

laguntasun

compañía; acompañamiento

konpañia iz. Konpainia. Ik. **laguntasun**.

konparatu, konparatzen

KONPARATU

comparar

konparatu *dau* ad. Erkatu, alderatu. *Iyolare ezin dezu orduko garai aiekin konparatu* 'inola ere ezin duzu orduko garai haiekin konparatu'.

konparazio batiako

KONPARAZIO BATERAKO

por ejemplo

Ald. gonbeztako (?)

◆ **konparazio baterako** (> *konparazio batiako*, *gonbeztako*) adb.

konparazio, konparaziua

KONPARAZIO

comparación

konparazio iz. *Konparazio ederra in dezu* 'konparazio ederra egin duzu'. ◆ **konparaziorik ez egon** (> *konparazioik ez yon*). *Artzaiek indako gaztaia o fabrikan indakwa, ezto konparazioik* 'artzainak egindako gazta edo fabrikan egindakoa, ez dago konparaziorik'. ◆ **konparazio baterako** (> *konparazio batiako*, *gonbeztako*) adb. Adibidez. Ik. **esate baterako** (> *esate batiako*).

konpasio, konpasiua

KONPASIO

compasión

konpasio iz. Errukia. Ik. **erruki**. *Konpasio pixkat ibil(i) berko zenduke* 'konpasio pixka bat ibili [eduki] beharko zenuke'.

konpensazio, konpensaziua

KONPENTSAZIO

compensación

konpensazio iz. Konpentsazioa; konpentsatzea; konpentsatzearen ondorioa. *Galtĭek aundio konpensaziua baindo* 'kalteak handiago konpentsazioa baino'. Ik. **iharri**. ¬

konpleju, konplejua

KONPLEXU

complejo (Psicol.)

konpleju iz. Psikol. Konplexua, gizabanakoaren nortasunean eragina duen sentimena. *Konplejuz beteta do* 'konplexuz beteta dago'. *Konplejua, eskualduna izatĭaitik* 'konplexua, euskalduna izateagatik'.

konpleta, konpletak (pl.)

KONPLETA

completas (último rezo del día, con el que se terminan las horas canónicas)

konpleta iz. (pl.) Erl. Orduen liturgiako otoitza, eguneko azkena.

konpleto, konpletua

OSO, BETE

completo, -a; íntegro, -a; entero, -a

konpleto adj. Osoa; betea. | *Kafe konpletwa*.

konplikatu, konplikatzen

KONPLIKATU

zaildu

complicar(se), dificultar

konplikatu **1** *da/dau* ad. Ik. **zaildu**. **2** (Era burutua izenondo gisa). *Uste baindo konplikatuo da* 'uste baino konplikatuago da'.

konponbide, konponbidia
KONPONBIDE

soluzio, konponketa

solución, componenda

konponbide iz. Arazo edo auzi bat konpontzeko edo antolatzeko bidea. *Asarratu dĭa ta ezto konponbideik* 'haserretu dira eta ez dago konponbiderik' (LM). *Lanipe no, bea baukat konponbidĭa* 'lanik gabe nago, baina badaukat konponbidea [zerekin konpondu]. Ik. **soluzio**; **konponketa**.

konpondu, konpontzen
KONPONDU

obratu; arreglatu, moldatu

arreglar, reparar, componer; resolver, aclarar
arreglarse, llevarse, congeniar
arreglarse, apañarse

konpondu **1** *dau* ad. *Zuk ausitakwa ziauk konpondu berko dezu* 'zuk hautsitakoa zeuk konpondu beharko duzu'. ▲ Sin. *obratu*; *arreglatu*, *moldatu*. **2** *da* ad. Ados jarri. *Akenien, konpondu ga* 'azkenean, konpondu gara'. Sin. arreglatu. **3** *da* ad. Moldatu. ▲ Sin. *moldatu*. ◆ **hor konpon** (> *or konpon*) interj. (Esapidea) *Hor konpon!* ◆ **Hor konpon, marianton!** ◆ konpon hadi!; konpon zaitezai! ¬

konponketa, konponketia
KONPONKETA

konpontze, arreglu, konpostura, konponbide

arreglo, reparación

konponketa iz. *Arropak konpontzen, badukat konponketia!* Sin. *arreglu*, *konpostura*, *konponbide*. Ik. **konpontze**.

konpontzaile, konpontzailia
KONPONTZAILE

arreglatzaile

reparador, -a; restaurador, -a; el, la que arregla

konpontzaile iz. Aipatzen dena konpontzen duen pertsona. ▲ Sin. *arreglatzaile*. ¬

konpontze, konpontzia
KONPONTZE

arreglu, konponketa, konpostura, konponbide

reparación, arreglo

konpontze iz. Hautsia, hondatua edo erabili ezin zela zegoena erabiltzeko eran jartzea. *Gostako zaik konpontĭa* 'kostako zaik konpontzea'. *A ze konpontzĭa in dau!* 'a ze konpontzea egin du!'. Ik. **konponketa**. ▲ Sin. *arreglu*, *konponketa*, *konpostura*, *konponbide*.

konportamentu, konportamentua
JOKABIDE

ibilera, portaera

conducta, proceder, comportamiento, actitud

konportamentu iz. Ik. **ibilera**; **portaera**; **jokatu**.

konportatu, konportatzen
PORTATU, JOKATU

portatu

comportar(se), portar(se)

konportatu *da* ad. Ik. **portatu**.

konpostura, konposturia

KONPONTZE, KONPONKETA

arreglu, konponketa

compostura, arreglo

konpostura iz. Konpontzeko lana. Ik. **arreglu**; **konponketa**. ◆ **konpostura egin** (> *konposturĭa in*); pl. **konposturak egin** (> *konposturak in*). Konponketa(k) egin.

konpota, konpotia

KONPOTA

compota

konpota iz. Fruitu zatiak ur eta azukretan egosiz egiten den janaria. *Gaubonetan, konpotĭa faltabe* 'Gabonetan, konpota falta gabe'.

konpra, konpria

EROSTE; EROSKETA

yoste

compra (acción y efecto de comprar)
compra (objeto comprado)

konpra **1** iz. Erostea, erosketa. *Konprak itĭa nua* 'erosketak egitera noa'. Ik. **yoste** (> *yostĭa*). **2** iz. Erosketa; erositakoa. *Konpra ona in dau* 'erosketa ona egin du'

konprenditu, konprenditzen

KONPRENITU

entenditu

comprender, entender

konprenditu *dau* ad. Konprenitu, ulertu. Ik. **entenditu**. ¬

konprimitu, konprimitzen

KONPRIMATU

comprimir

konprimitu **1** *da/dau* ad. Konprimatu. **2** (Era burutua izenondo gisa). *Aire konprimitua* 'aire konprimatua'.

konpromiso, konpromisua

KONPROMISO

compromiso; obligación contraída
aprieto, brete

konpromiso **1** iz. **2** iz. Estutasun. *Konpromiswen patu* 'konpromisoan paratu' [estutasunean jarri].

konsagratu, konsagratzen

AMORRATU. 2 KONTSAKRATU*

1 amorratu

irritar(se), enfurecer(se); dar rabia
consagrar

konsagratu **1** *da/dau* ad. Amorratu, norbait bere onetik atera; amorrarazi. *Konsagratwik nok* 'amorraturik nagok'. *Konsagratzen dik bat* 'amorrarazten dik bat'. Ik. **amorratu**. **2** *dau* ad. Erl. Kontsakratu, sagaratu.

konsegitu, konsegitzen

LORTU

lortu

conseguir, lograr, obtener

konsegitu *dau* ad. Ik. **lortu**. *Gaztai obena itiaiti urrezko medallĭa konsegitu dau* 'gazta hoberena egiteagatik urrezko domina lortu du'.

konseju, konsejua
KONTSEILU, AHOLKU

consejo, aviso, advertencia

konseju iz. Kontseilua, aholkua; egin behar denari buruz ematen edo hartzen den iritzia. *Orrendako eztai konsejuek balio* 'horrendako ez dute kontseiluak balio'. ◆ **konsejua eman**. Aholku eman. *Beti konseju onak ematen duatzi* 'beti aholku onak ematen dizkit'. Ik. **akonsejatu**.

konsejua eman
AHOLKU EMAN

aconsejar, asesorar

konsejua eman. Aholku eman. *Beti konseju onak ematen duatzi* 'beti aholku onak ematen dizkit'. Ik. **akonsejatu**.

konserba, konserbia
KONTSERBA

conserva

kontserba (> *konserba*) iz. Luzaroan irauteko prestaturiko janaria; bereziki, tankan itxiriko ontzi batean gordea. *Tomatĭa konserban* 'tomatea konserban'.

konserbatu, konserbatzen
KONTSERBATU

gorde

conservar(se); preservar(se), mantener(se)

kontserbatu (> *konserbatu*) *da/dau* ad. Zerbait egoera jakin batean aldakuntzarik gabe mantendu. Ik. **gorde**.

konserbazio, konserbaziua
KONTSERBAZIO

conservación

konserbazio iz. Kontserbazioa; kontserbatzea.

konsolatu, konsolatzen
KONTSOLATU

consolar(se)

kontsolatu (> *konsolatu*) *da/dau* ad. Norbaiten atsekabea arindu, (atsekabetua) poztu. *Ñar da ñar zailen ta guk ezin genduen konsolatu* 'negar eta negar zebilen eta guk ezin genuen kontsolatu'.

konstruitu, konstruitzen
ERAIKI

in, jaso

destruitu

construir

konstruitu *dau* ad. Eraiki. Ik. **egin** (> *in*); **jaso**. ▼ Anton. *destruitu*.

konstrukzio, konstrukziua
ERAIKITZE, ERAIKUNTZA. 2 ETXEGINTZA

construcción (acción y efecto)
construcción, edificio

konstrukzio **1** iz. Eraikitzea; eraikitze lana. || Etxegintza, etxe eraikuntza. **2** iz. Eraikitzen den gauza; eraikina.

konsuelo, konsuelua
KONTSOLAZIOA, KONTSOLAMENDUA

alibio

consuelo, consolación

konsuelo iz. Kontsolazioa, kontsolamendua. *Konsuelo berra bauka gaixworrek* 'kontsolamendu beharra dauka gaixo horrek'.

konsulta, konsultia

KONTSULTA

consulta (médica)
consulta (acción y efecto de consultar)
consultorio

konsulta **1** iz. Kontsulta; medikuak eriak hartzea eta aztertzea. **2** iz. Argibide eskaera. **3** iz. Kontsultategia.

konsultatu, konsultatzen

KONTSULTATU

consultar; asesorarse, pedir consejo u opinión
consultar; buscar, investigar

konsultatu **1** *dau* ad. Kontsultatu; kontsulta egin. **2** *dau* ad. Liburu edo kidekoetan informazioa bilatu.

konsumitu, konsumitzen

KONTSUMITU

consumir(se), gastar(se), acabar(se)
desazonar(se), apurar(se), afligir(se)

konsumitu *da/dau* ad. Ahitu, higatu, ihartu, jan; gastatu. ◆ **(norbait) konsumiturik egon** (> *konsumitwik yon*). Ahituta egon, *erreta* egon; artega egon, ondoezik egon. *Asarrĭek konsumitwik do* 'haserreak kontsumiturik dago'. ¬

kontadore, kontadoria

KONTAGAILU

contador (aparato)

kontadore iz. Kontagailua. *Uran kontadorĭa* 'uraren kontagailua'. *Argien kontadorĭek ikusten daile* 'argiaren kontadoreak ikusten dabil'.

kontajiatu, kontajiatzen

ERANTSI; KUTSATU

yantzi (1)

contagiar, trasmitir

kontajiatu *da/dau* ad. Kutsatu; erantsi. lk. **yantzi**[1].

kontakatilu (?)

KONTAKATILU

soplón, -ona; acusica, acusón, -ona; correveidile

kontakatilu (?) adj. Lgart. Salataria.

kontatu, kontatzen

KONTATU

contar, narrar, relatar, referir
contar, computar; numerar
decir; contar
tomar en consideración, tomar en cuenta

kontatu **1** *dau* ad. Gertatu den zerbait, edo norberak edo bestek asmatu duen zerbait, esan edo aditzera eman. *Bakaikuko zaharrak kontatzen zeina* (Ond Bak). *Ixinpluek kontatu* 'ipuinak kontatu'. **2** *dau* ad. Multzo bateko osagaien kopurua mugatu edo zehaztu, zenbatu. *Dirua kontatu*. **3** *dau* ad. Esan; hitzen bidez, ahoz nahiz izkribuz, gogoan dena adierazi. *Kontatazu; ze pasatzen zaizu?* 'konta ezazu; zer pasatzen zaizu?'. **4** *da/dau* ad. Kontuan eduki, aintzat eduki; kontuan hartu, aintzat hartu. *Kontatuik do* 'kontaturik [aintzat hartuta] dago'. *Kontuen artuik* 'kontuan harturik'. *Oi kontatwik beti, trilladoria iteko* 'hori kontaturik beti, eultziak egiteko'. *Afaitako, kontatazai nekin* 'afaritarako, konta ezazue nirekin'. *Orrekin ez kontatu auzalanĭako* 'horrekin ez kontatu auzolanerako'.

kontentu

KONTENTU

pozik, alegre

deskontentu

alegre, feliz, contento, -a; satisfecho, -a

kontentu adb. Pozez, atseginez. *Gaur kontentu no* 'gaur kontentu nago'. *Kontentu patu da berria eman diainien* 'kontentu paratu da berria eman diotenean'. *Kontentu yon ber zindake* 'kontentu egon behar zenuke' ▲ Sin. *pozik, alegre*. ▼ Anton. *deskontentu*. ◆ **kontentu egon** (> *kontentu yon*). ◆ **kontentu gelditu**.

kontestatu, kontestatzen

ERANTZUN, IHARDETSI

yantzun / eantzun

contestar, responder

responder de malos modos, dar una mala contestación, replicar

kontestatu **1** *dau/dĭa* ad. Erantzun. Ik. **eantzun**[1] (eta *yantzun*). **2** *dĭa* ad. Ihardetsi, iharduki; aurre eginez erantzun. *Akokinatu be, zirti-zarta kontestatzen dĭa zarrokuei* 'akokinatu [kikildu] gabe, zirti-zarta ihardesten die zaharragoei'.

kontestazio, kontestaziua

KONTESTAZIO

eantzun

contestación

kontestazio **1** iz. Erantzuna. *Gwaindo eztot jaso aren kontestazioik* 'oraindik ez dut jaso haren erantzunik'. Ik. **eantzun**. **2** iz. Erantzun txarra, batez ere gazteek adinekoei emandakoa. *Oiek tuk oiek kontestaziuek ematekwek!* 'horiek dituk horiek kontestazioak ematekoak!'.

konto

konto Ik. kuanto
konto.
Bai konto! 'bai horixe'. Ik. ondo hale.
Ez konto! 'ez horixe'.
– konto / kontoke... (?) Kontoke eztakiela / konto eztakiela.

kontra

KONTRA

alde

en contra (de)

contra; apoyado en

kontra **1** adb. Aurka. *Danak kontra zukatzien* 'denak kontra zeuzkan'. ▼ Anton. *alde*. **2** **-en kontra**. Kontran, ondo-ondoan. *Etxĭen kontra gordetzen dĭa egurrak* 'etxearen kontra gordetzen dira egurrak' [ondoan]. ◆ **kontra egin** (> *kontra in*). Buru egin, aurre egin. *Amai're kontra iten dĭa* 'amari ere kontra egiten dio'. *Kontra iten, naiko lan* 'kontra egiten, nahiko lan'. Ik. **jarki**; **enfrentatu**; **aurre egin** (> *aure in*).

kontra in

KONTRA EGIN

hacer frente, enfrentarse, estar contra

kontra egin (> *kontra in*). Buru egin, aurre egin. *Amai're kontra iten dĭa* 'amari ere kontra egiten dio'. *Kontra iten, naiko lan* 'kontra egiten, nahiko lan'. Ik. **jarki**; **enfrentatu**; **aurre egin** (> *aure in*).

kontrabando, kontrabandua

KONTRABANDO

contrabando

kontrabando iz. Debekaturik dauden edo aduana-zerga ordaindu ez duten salgaiak herrialde batean sartzea; horrela sartu den salgaia. ◆ **kontrabandoan** (> *kontrabandwen*) adb. *Kontrabandwen ekarritako tabakwa saltzen dau* 'kontrabandoan ekarritako tabakoa saltzen du'.

kontraio, kontraiua

KONTRARIO

enemigo, etsai

contrario, -a

contrario, -a, oponente, adversario, -a; enemigo, -a

kontrario (> *kontraio*) iz./adj. Aurkaria. Ik. **etsai**; **enemigo**.

kontrako eztarri, kontrako eztarria

KONTRAKO EZTARRI, ZINTZUR-HESTE, TRAKEA

okerreko eztarri

tráquea

kontrako eztarri iz. Zintzur-hestea aipatzeko erabiltzen den esapidea. *Ito berrĭen, ardwa kontrako eztarritik fanda* 'ito beharrean, ardoa kontrako eztarritik joanda'. *Kontrako eztarritik jana fan* 'kontrako eztarritik jana joan'. ▲ Sin. *okerreko eztarri*.

kontramaisu kontramaisua

KONTRAMAISU

kapataz

contramaestre

kontramaisu iz. Langile talde baten ardura duen pertsona. Ik. **kapataz**.

kontrastatu, kontrastatzen

KONTRASTATU

contrastar

kontrastatu *dau* ad. Zerbaiten zehaztasuna edo balioa egiaztatu.

kontribuzio, kontribuziua

KONTRIBUZIO

contribución

kontribuzio iz. *Aurten'e kontribuziua iyo in dai* 'aurten ere kontribuzioa igo egin dute'.

kontrol, kontrola

KONTROL

control; inspección; comprobación; verificación

control; dirección, mando

puesto de control

kontrol **1** iz. Zerbait zaintzeko edo egiaztatzeko azterketa. (*Odoleko) azukarĭen kontrol zorrotza yan berra duka* '(odoleko) azukrearen kontrol zorrotza eraman beharra dauka'. **2** iz. Zuzentzea, menderatzea. *Eta kuidau ze esaten zenduen; kontrol aundia zon orduen* 'eta kontuz zer esaten zenuen; kontrol handia zegoen orduan'. **3** iz. Kontrolgunea. *Kontrola do erri sarreran* 'kontrola dago herri sarreran'.

kontrolatu, kontrolatzen

KONTROLATU

controlar; comprobar, vigilar
controlar; dirigir, dominar

kontrolatu **1** *dau* ad. Kontrolpean jarri, zerbait zaintzeko edo egiaztatzeko azterketa egin. *Ospitalĭen egunio kontrolatzen ziain odola* 'ospitalean egunero kontrolatzen zioten odola'. **2** *dau* ad. Zuzendu, menderatu. *Izotz plakan autwa ezin kontrolatu* 'izotz plakan autoa ezin kontrolatu'.

kontu, kontua

KONTU

ixinplu; 2 berri

cuento, relato, narración
cosa de; asunto, cuestión, tema
cómputo, cuenta, cálculo
responsabilidad

kontu **1** iz. Ipuina. —*Ze kontu?* —*Tio Bizentek esaniakuek berai* (Ond Bak). Ik. **ixinplu**. **2** iz. *Radiuen kontuek ez tuk despeitzen* 'irratian kontuak ez dituk despeditzen [amaitzen]'. Ik. **berri**. | *Alako kontwik ezakela esan nei* 'halako konturik ez iezadak esan niri'. **3** iz. Kopuru bat zenbatzea edo mugatzea. *Diru kontuek* 'diru kontuak. *Ondo dĭatzizu kontuek?* 'ondo daramatzazu kontuak?'. *Kontuek, garbi* 'kontuak, garbi. **4** iz. Ardura. *Ie kontu* (*ie kargu*) 'hire kontu (hire kargu)'. Ik. **esku**; **kargu**; **-en gain**. **5** iz. Arazoa, auzia, egitekoa. *Erraza dok esatia, itia dok kontua* 'erraza duk esatea, egitea duk kontua'. *Kontu txarra*. *Kontu orrekin badĭa ia urte bat* 'kontu [egiteko] horrekin badarama ia urte bat'. Ik. **asunto**. ◆ **kontua da (...)**. Aldez aurretik jakin beharrekoaz ohartarazteko erabiltzen den esapidea. Asuntoa da... *Orduen ointwek gógoti, bai; bea kontua dok gĭo olioik ez gendukala ointwek iteko* 'orduan onddoak gogotik, bai; baina, kontua duk gero oliorik ez geneukala onddoak egiteko'. Ik. **gauza da** (*gáuzĭa da*). ◆ **kontuak atera** (> *kontuek ata*) **1** *dau* ad. Kalkulatu. *Saldutakwek zenbat balio den jakiteko, kontuek ata* 'saldutakoak zenbat balio duen jakiteko, kontuak atera'. **2** *dau* ad. Zerbaitetatik halako ondorioa atera. *Atatazu kontua orduen garia segiekin eta itaiekin ebaitzen zala* 'atera ezazu kontua orduan garia segarekin eta igitaiarekin ebakitzen zela'. ◆ **kontuak egin** (> *kontuek in*). *Zenbat zor dezuten jakiteko, kontuek in ber tu* 'zenbat zor dizudan jakiteko, kontuak egin behar ditugu'. ◆ **kontuak eman** (> *kontuek eman*). *Aiuntamentuek kontuek eman ber tu* 'aiuntamentuak kontuak eman behar ditu'. ◆ **ez dago konturik!** (> *ez to kontwik*) [ez dau merezi]: *Gaur egun lihua ereitiak ez to konturik!* [Olatzagutia]. ◆ (norbaiten) **kontura bizi** (> *norbaiten kontua bizi*). Aitaman kontua bizi dok. ◆ **kontua franko!** Hitzontzikeria. ◆ **horren kontua!** (Jakina da horren kontua [norbaitek egiten duena]: ezer gutxi; ardura gutxi...). ◆ **kontuz** **1** adb. Arretaz, ardurarekin. *Kontuz ibili*. *Kontuz zaitzai!* 'kontuz zabiltzate!'. Ik. **kontuz ibili**. **2** interj. Norbaiti erne ibiltzeko adierazteko erabiltzen den hitza. *Kontuz, gĭo!* 'kontuz, gero!'. ◆ **kontuz ibili**. Argi ibili, erne ibili. *Kontuz ibili, irrixtadĭa do ta* 'kontuz ibili, irristada dago eta'. ¬

kontuatu, kontuatzen

KONTURATU, OHARTU

errapatu, fijatu

darse cuenta, percatarse

konturatu (> *kontwatu*) *da* ad. *E'naiz kontwatu emen zendela* 'ez naiz konturatu hemen zeundela'. Ik. **erreparatu** (> errapatu); **fijatu**.

kontuek ata

KONTUAK ATERA

hacer la cuenta, echar la cuenta, calcular
deducir, concluir, inferir, colegir; extraer consecuencias; sacar conclusiones

kontuak atera (> *kontuek ata*) *dau* ad. **1** Kalkulatu. *Saldutakwek zenbat balio den jakiteko, kontuek ata* 'saldutakoak zenbat balio duen jakiteko, kontuak atera'. **2** *dau* ad. Zerbaitetatik halako ondorioa atera. *Atatazu kontua orduen garia segiekin eta itaiekin ebaitzen zala* 'atera ezazu kontua orduan garia segarekin eta igitaiarekin ebakitzen zela'.

kontuketa, kontuketia

BERRIKETA, HIZKETALDI

berriketa

charla, conversación larga y tranquila
charlando

kontuketa iz. Berriketa, hizketaldia. *Kontuketá* 'kontuketara, berriketara'. Ik. **berriketa**. ◆ **kontuketan** adb. Berriketan, hizketan. Ik. **berriketan**; **hizketan**. ◆ **kontuketan ibili**. Hizketan jardun, berriketan ibili.

kontuketalai, kontuketalaia

KONTU KONTALARI

cuentista

kontuketalari (> *kontuketalai*) adj./iz. Kontu kontalaria. *Gaxin Migel kontuketalaia* 'Garazin Migel kontu kontalaria'. Ik. **kontulari** (> *kontulai*).

kontuketan

BERRIKETAN, HIZKETAN [KONTAKETAN (?)]

berriketan, hizketan

charlando

kontuketan adb. Berriketan, hizketan. Ik. **berriketan**; **hizketan**. ◆ **kontuketan ibili**. Hizketan jardun, berriketan ibili.

kontulai, kontulaia

KONTULARI

kontuketalai

cuentista

kontulari (> *kontulai*) iz. Ik. **kontuketalari**. ¬

kontuz

KONTUZ

con cuidado, con atención, con esmero
¡cuidado!, ¡ojo!, ¡atención!

kontuz **1** adb. Arretaz, ardurarekin. *Kontuz ibili*. *Kontuz zaitzai!* 'kontuz zabiltzate!'. Ik. **kontuz ibili**. **2** interj. Norbaiti erne ibiltzeko adierazteko erabiltzen den hitza. *Kontuz, gĭo!* 'kontuz, gero!'.

kontuz ibili

KONTUZ IBILI

andar(se) con cuidado, tener cuidado

kontuz ibili. Argi ibili, erne ibili. *Kontuz ibili, irrixtadĭa do ta* 'kontuz ibili, irristada dago eta'.

koño

KOÑO

¡coño!; ¡rayos!, ¡diablos!, ¡caramba!

koño interj. Harridura edo ustekabea adierazten duen hitza. Ik. **arraio**.

koperatiba, koperatibia

KOOPERATIBA

cooperativa

kooperatiba (> *koperatiba*) iz. *Koperatibĭa sortu zain errien* 'kooperatiba sortu zuten herrian'.

kopeta beltz, kopeta beltza

KOPETA BELTZ

cara de enfado, ceño, semblante triste

kopeta beltz iz. Haserrea edo tristura adierazten duen aurpegia. *Kopeta beltz orrekin ezaun do asarre dola* 'kopeta beltz horrekin ezagun dago haserre dagoela'.

kopeta ilun

KOPETA ILUN

kopeta beltz

semblante triste, ceño, cara de enfado

kopeta ilun iz. Haserrea edo tristura adierazten duen aurpegia. *Kopeta iluna ekar dau, eztakiela ze in* 'kopeta iluna ekar du, ez dakiela zer egin'. *Oi da kopetĭa dĭana orrek!* [kopeta iluna] 'hori da kopeta [iluna] darama horrek!'. Ik. **kopeta beltz**.

kopeta, kopetia

KOPETA

bekain, bekoki [Olatzagutia eta Ziordia]

frente

kopeta iz. *Kopetako izardia* 'kopetako izerdia'. Ik. **bekain**; **bekoki**. || *Kopetĭa gaztanberĭekin untatu zen* 'zuen' (Ond Bak). ◆ **kopeta beltz** iz. Haserrea edo tristura adierazten duen aurpegia. *Kopeta beltz orrekin ezaun do asarre dola* 'kopeta beltz horrekin ezagun dago haserre dagoela'. ◆ **kopeta ilun** iz. Haserrea edo tristura adierazten duen aurpegia. *Kopeta iluna ekar dau, eztakiela ze in* 'kopeta iluna ekar du, ez dakiela zer egin'. *Oi da kopetĭa dĭana orrek!* [kopeta iluna] 'hori da kopeta [iluna] darama horrek!'. ◆ **kopetaraino egon** (> *kopetaĭndo yon*) adb. Kokoteraino egon, asper-asper eginda, nazkatua. Ik. **lepo-hezurriaindo egon**. ◆ **kopeta zimur(ra)** (persona). *Listo zimurtzen dik orrek kopetĭa* 'listo [azkar] zimurtzen dik horrek kopeta'. ◆ **kopeta zimurtu** (> *kopetĭa zimurtu*). Kopeta belztu.

kopetaindo yon

KOPETARAINO EGON, KOKOTERAINO EGON

lepo-hezurriaindo yon

tener a alguien hasta las narices, tener a alguien hasta el cogote

kopetaraino egon (> *kopetaindo yon*) adb. Kokoteraino egon, asper-asper eginda, nazkatua. Ik. **lepo-hezurriaindo egon**.

kopia

KOPIA

copia; reproducción, duplicado; imitación

kopia iz. Idazki, irudi edo kideko batetik, hura bezalakoxea egiten den alea. *Etxeko giltzĭen kopĭa in berra do* 'etxeko giltzaren kopia egin beharra dago'. *Aitziberko Ama Birjinien kopia bat do bertako ermitan* 'Aitziberko Ama Birjinaren kopia bat dago bertako ermitan'.

kopiatu, kopiatzen

KOPIATU

copiar
imitar

kopiatu **1** *dau* ad. Kopia egin. *Kastigwa zan agindua egun aldiz kopĭatzĭa* 'kastigua zen agindua ehun aldiz kopiatzea'. *Examena kopĭatzen arrapatu dai* 'etsamina kopiatzen harrapatu dute'. **2** *dau* ad. Imitatu, antzera jokatu. *Dana guri kopĭatzen geauei* 'dena guri kopiatzen digute'. Ik. **imitatu**.

kopla, koplia

KOPLA

2 tontei, broma; berriketa; enbusteia

coplas, versos

copla, cuento, embuste, excusa, pretexto; broma

kopla **1** iz. *Koplak kantatzen zituein* 'koplak kantatzen zituzten'. **2** iz. Txantxa, broma; enbusteria; aitzakia. *Nei, kopla gutxi!* 'niri, kopla gutxi!'. *Orrek, koplĭa franko!* 'horrek, kopla franko!'. Ik. **berriketa**; **broma**; **tonteia**; **enbusteria** (> *enbusteia*, *inbusteia*).

◆ **kopletarako gogorik ez izan** (> *koplatako gogoĭk ez izan*). Bromatarako gogorik ez izan.

◆ **kopletarako gogo gutxi ibili** (> *koplatako gogo gutxi ibili*). Bromatarako gogo gutxi ibili.

koplai, koplaia

KOPLARI

coplero, -a; cuentista

koplari (> *koplai*) iz. *Koplaia zan aua* 'koplaria zen hura'.

koplaketa, koplaketia

KOPLA

kopla, berriketa

copla, cuento, historia; broma, comedia, ficción

koplaketa iz. Kopla. *Koplaketako gogo gutxi dukat* 'kopletarako gogo gutxi daukat'. Ik. **kopla**; **berriketa**. ◆ **koplaketan** adb. Kopletan, txantxetan. ◆ **koplaketan ibili** adb. Kopletan ibili, txantxetan ibili.

koplaketan

KOPLAKA, KOPLETAN

con excusas, con miramientos

andar de bromas, con cuentos, excusas, remilgos

koplaketan adb. Kopletan, txantxetan. ◆ **koplaketan ibili** adb. Kopletan ibili, txantxetan ibili.

koraje, korajia

KURAIA

balore

coraje, valor; ánimo

koraje iz. Adorea, kemena. *Korajeĭpe eztai ezertxore aldatuko* 'korajerik gabe ez dute ezertxo ere aldatuko'. Ik. **balore**.

korajedun, korajeduna

ADORETSU, KURAIOS

valeroso, -a; valiente, corajudo, -a

korajedun adj. Adoretsua, kuraia duena. *Ezta lotsatzen o belaxeti akokinatzen dĭan oietakwa; korajeduna da* 'ez da lotsatzen edo berehalaxe kikiltzen diren horietakoa; adoretsua da'.

koral, korala

ABESBATZA

coral (agrupación musical)

koral iz. Abesbatza. Ik. **koro**. *Erriko koralak eldu dan domekan emanko dau kantaldia* 'herriko koralak heldu den domekan emango du kantaldia'.

korbata, korbatia

GORBATA

corbata

korbata iz. Gorbata. *Aztwik dukat nola iten dan korbatĭen tapilua* 'ahazturik daukat nola egiten den gorbataren korapiloa'.

kordel, kordela

KORDEL

cordel, cuerda delgada

kordel iz. Soka mehea.

kordion, kordiona

AKORDEOI

acordeón

kordion iz. Akordeoia. Ik. **akordion**.

kordionista, kordionistia

AKORDEOILARI

acordeonista

kordeonista (> *kordionista*) iz. Akordeoilaria. Ik. **akordeonista** (> *akordionista*).

kordon, kordona

KORDOI

cordón

kordon iz. Kordoia, hariz eginiko lokarria. Ik. **listeria**.

korla, korlia

KORRALE

redil, aprisco

koro, korua

KORU, ABESBATZA

koral

coro

koro iz. Korua, abesbatza. (Alderatu: **goru**). Ik. **koral**. ¬

korona, koronia

KOROA

corona (insignia)
corona (funeraria)
corona (cosa de forma circular; arandela...)

korona **1** iz. Koroa; eraztun formako apaingarria, agintaritzaren ezaugarri dena. *Erreiniĭa bekela, koroniĭa jantzita* 'erregina bezala, koroa jantzita'. **2** iz. Zirkulu formako gauzakia. *Launak koroniĭa ta erramuek yan deatziai* 'lagunek koroa eta erramuak [lore sortak] eraman dizkote'.

koroso

SAPELAR (?)

sapi

(?) álsine, picagallina, pamplina (Stellaria media)

koroso iz. *Koroso: lurrán zikina, yoten da lurra estalik eta izaten da zaila harrotzeko. Lurra iten da zapaldu* (Ond Bak). *[Koroso belarra. Sapelarra; belar-landarea, hosto txikiak eta lore zuriak dituena (Stellaria media).] (?) Ik. **sapi**; **sapiar**. ¬

korosti, korostia

GOROSTI

acebo (Ilex aquifolium)

korosti ([Altsasu] eta *kosti* [Urdiain]) iz. (Bot.) Gorostia (Ilex aquifolium). ◆ **korosti(aren) bikor** (> *kostien bikorrak*). Gorosti-alea, gorostiaren baia.

korotz

GOROTZ

excremento; estiércol

korotz [Altsasu] iz. Gorotza. Ik. **kozpiltza**.

korral(a), korrala

KORRALE

redil, aprisco

korrala (eta *kolarre* [Altsasu]; *korral*; *korla*; *korrela*) iz. Korralea, artegia. Ik. **jaix korral**.

korrea

LASTERTASUN. 2 UHAL, HEDE

ubal, gerriko, zintun

agilidad, rapidez

correa

korrea **1** iz. Lastertasuna, bizkortasuna, zalutasuna. **2** (?) iz. Uhala, hedea. Ik. **ubal**; **gerriko**; **hede**; **zintun**. ◆ **korrea ibili**. Zalutasuna izan. *Korrea ona jukak orrek!* 'zalutasun ona zaukak horrek!'. Ik. **ajilidadea ibili** (> *ajilidadĭa ibili*).

korrea ibili

ZALUTASUNA IZAN

tener agilidad; ser correoso, -a

korrea ibili. Zalutasuna izan. *Korrea ona jukak orrek!* 'zalutasun ona zaukak horrek!'. Ik. **ajilidadea ibili** (> *ajilidadĭa ibili*).

korriazi, korriazten

KORRIARAZI

hacer correr

korriarazi (> *korrĭazi*) *dau* ad. Korritzera behartu. *Momoxarro aundi orrek korriazten dau jendĭa* 'momoxarro handi horrek korriarazten du jendea' [*Momoxarro*, inauterietan mozorrotzen dena].

korriente, korrientia

KORRIENTE. 2 KORRONTE

corriente, normal; común, no especial, regular, no extraordinario

corriente de aire, corriente de agua; corriente eléctrica

korriente **1** adj. Arrunta. *Soineko korrientia zukan* 'soineko korrientea zeukan'. *Anis korrientĭa* 'anis korrientea'. **2** iz. Korrontea. *Aize korrientĭa* 'haize korrontea'. *Ur korrientĭa* 'ur korrontea'. | **korrientea** (> *korrientia*) (Elektr.). Korronte elektrikoa.

korrika(n)

KORRIKA

laisterkan

corriendo

rápidamente, con rapidez, rápido, a toda prisa

korrika(n) adb. Korrikan ziyuela (Ond Bak).
Beti korrikan ta sekula ez ailatzen 'beti korrika eta sekula ez ailegatzen'.
– korrika ta prisaka 'korrika eta presaka'.
– korrika batien 'korrika batean'.
– korrika apustua. Korrika apustuen iyuek ibazten ez ziana.
Sin. laisterkan.

korrikalai, korrikalaia

KORRIKALARI

corredor, -a

korrikalari (> *korrikalai*) iz. Lasterkaria. ¬

korritu, korritua

LUIZI, LUR JAUZI

narratu

desprendimiento [de tierra]; corrimiento de tierras

korritu iz. *Lur-korritua*; *elur-korritua*. Ik. **narratu**.

korritu, korritzen

KORRITU

correr
recorrer
desplazar(se), mover(se)

korritu **1** *dau* ad. Laster egin. **2** *dau* ad. *Bide luzĭa korritu dau* 'bide luzea korritu du'. *Erri guztĭa korritu dot* 'herri guztia korritu dut'. **3** *da/dau* ad. Mugitu; higitu, lekualdatu. *Korritazu pixkat alkia* 'mugi ezazu pixka bat aulkia'. || *Lurrak korritu in dau* 'lurrak korritu egin du'. Ik. **narratu**. *Ziza larrĭek korritu in dau* 'ziza larreak korritu egin du'. *Elurrak korritu*. ◆ **korritu behar dau** [*edun] (> *korritu ber dau*) interj. Mehatxua ohartarazteko edo egoera larriaz abertitzeko esapidea. *Korritu ber dok!* 'korritu behar duk!'. *Korritu ber dĭu!* 'korritu behar dĭagu!'.

korro, korrua

KORRO

corro; (hacer) corro; (estar, ponerse) en corro

korro **1** iz. Pertsona talde batek edo gauzen multzo batek osatzen duen biribilkia. **2** iz. Biribil forma duen espazioa. **3** iz. Haur jolasa.
◆ **korroa egin** (> *korrwa in*).
◆ **korroan** (> *korrwen*). *Korrwen patu* 'korroan paratu'. Ik. **korrokan**.

korroka(n)

KORROAN, BIRIBILEAN

en corros, en círculos

korroka(n) adb. Korroak eratuz; korroan, biribilean paratuz. *Jarri zaitezai korrokan* 'jarri zaitezte korroka'. Ik. **korroan** (> *korrwen*). *Korrokan eldu da yaindako maiza* 'korroka heldu da [dator] ereindako artoa'.

korronpitu, korronpitzen

KORRONPITU, GALDU; 2 HASERRETU,

corromper(se), pudrir(se)
reconcomer(se), irritar(se), incomodar(se), fastidiar(se) (coloq. Ar. y Nav.)

korronpitu **1** *da/dau* ad. Usteldu, galdu; izorratu, hondatu, kaltetu; kalte egin. **2** *da/dau* ad. Amorratu, sutu, haserreak hartu. ◆ **korronpiturik egon** (> *korronpitwik yon*). Amorratzen jarri, haserre bizian egon. *Auztak bakĭen, korronpitwik nok-eta* 'uztak bakean, korronpiturik [amorraturik, haserreturik] nagok-eta.

korroska, korroskia

KARTILAGO, KURRUSKA

ternilla, cartílago (de la nariz y de la oreja)

korroska (eta *korroxka*) iz. Kartilagoa, bereziki sudur eta belarrietakoa.

korse, korsia

KORTSE, GERRUNTZE

corsé

korse iz. Kortsea, gerruntzea; bular eta gerrialdea lotzen dituen jantzi mahukarik gabea, bereziki emakumezkoena eta azpikoa. *Korsĭa zukan, estu-estua jantzita* 'kortsea zuen, estu-estu jantzita'.

kortin

TXERRI KORTA

hei [Urdiain], haia [Altsasu], urdetei, txerritei;
pocilga, cochinera

kortin [Ziordia] iz. Txerri tokia. Ik. **hei(a)** (eta *haia*); **urdetei**, **txerritei**; **tegi**.

kortxete, kortxetĭa

KORTXETE, KRISKET

corchete (para abrochar)

kortxete iz. Krisketa; jantzi baten bi zati elkarri atxikitzeko lotura, bi atal, bata kakoduna (arra) eta bestea zuloduna (emea), dituena.

kortxo, kortxua

KORTXO

corcho (corteza del alcornoque; material elaborado de corcho)
tapón que se hace de corcho

kortxo (eta *kortxu*) **1** iz. Artelazkia; artelatzaren (Quercus suber) azala, irazgaitza, malgua eta oso arina. *Aislatzeko ona da kortxua* 'isolatzeko ona da kortxoa'. *Kortxozko plakak*. **2** iz. Artelazkiz egindako tapoia. *Patuiozu kortxua txanpan botelliai* 'paratu egiozu kortxoa xanpain botilari'.

kortxu, kortxua

ARTELAZKI, KORTXO

corcho
corcho (tapón)

kortxu **1** iz. Kortxoa, artelazkia; artelatzaren azala, harroa eta oso arina. *Kortxuzkwa dala ematen dau* 'kortxozkoa dela ematen du'. **2** iz. Artelazkiz egindako tapoia. *Ataion kortxua botella oni* 'atera egion kortxoa botila honi'.

korzo, korzua

ORKATZ

basahuntz

corzo (Capreolus capreolus)

korzo iz. Orkatza (Capreolus capreolus). Ik. **basahuntz**.

kosetxa, kosetxia

UZTA, LABORE

labore

cosecha; mies
recolección, cosecha

kosetxa iz. Uzta, laborea. Ik. **labore**.

kosetxatu, kosetxatzen

UZTA BILDU, UZTATU

laboria bildu / jaso

cosechar

kosetxatu *dau* ad. Uzta bildu, uztatu. Ik. **laborea bildu** (> *laborĭa bildu*).

koska, koskia

KOSKA

saliente, resalte; abultamiento, protuberancia
muesca; rebajo; entrante, hendidura
escalón, peldaño
dificultad; quid, clave (de una cuestión)

koska (eta *koxka*) **1** iz. Irtengunea. **2** iz. Akatsa, sargunea. **3** iz. Maila. *Herriko koskak* [kaleko harrizko mailak]. || *Txuman koskak*. *Koska onak in diatzi txuman gwexiekin!* 'koska onak egin dizkio guraizearekin ilean!'. **4** iz. Gauza edo arazo baten giltza. *Or do koxkĭa!* 'hor dago koxka!'. ◆ **koska egin** (> *koskĭa in*) *dau* ad. Mailatu; zerbaiti kolpeak emanez, sakonuneak egin. *Koskĭa in jĭanat kutxilwai* 'koska egin zionat ganibetari'. Ik. **koskatu**.

koskabilo, koskabilua

KASKABILO. 2 KOSKABILO

barrabil, potro

cascabel
huevo, cojón (pl.)

koskabilo **1** iz. pl. Kaskabiloa; metalezko bolatxo barne-hutsa eta zuloduna, higitzen denean hotsa ateratzen duen metal zatitxo bat barnean duena. *Dantazien koskabilwek* 'dantzariaren kaskabiloak'. **2** iz. (Batez ere pl.) Lgart. Barrabila. Ik. **barrabil**; **potro**. ¬

koskadun, koskaduna

KOSKADUN

irregular, con entrantes y/o salientes, con agujeros y/o bultos

koskadun adj. Koska edo koskak dituena. *Kutxilo koskaduna* 'ganibet koskaduna'.

koskamailu, koskamailua

KALAKA

matraca (instrumento de madera compuesto de un tablero y una o más aldabas o mazos, que, al

koskamailu iz. Kalaka. *Aste Santuen karraka eta koskamailuekin ematen zezaion erriai bueltĭa* 'Aste Santuan karraka eta koskamailuekin ematen zitzaion herriari buelta'. Ik. **karraka**. (Alderatu: **kaskamailu**).

koskatu, koskatzen

KOSKATU, 2 MAILATU

2 koskia in

dentar, mellar, descantillar; hacer desperfectos en algo

koskatu **1** *da/dau* ad. Koska edo koskak egin. *Zartanan erretzeko, gaztinak koskatu* 'zartanan [danbolinean] erretzeko, gaztainak koskatu [leher ez daitezen]'. **2** *da/dau* ad. Mailatu; zerbaiti kolpeak emanez, sakonuneak egin. Ik. **koska egin** (> *koskĭa in*).

koskia in

MAILATU

koskatu

abollar, hundir

koska egin (> *koskĭa in*) *dau* ad. Mailatu; zerbaiti kolpeak emanez, sakonuneak egin. *Koskĭa in jĭanat kutxilwai* 'koska egin zionat ganibetari'. Ik. **koskatu**.

koskol, koskola

OSKOL, TXOKOR, LOKOTX

artakozkor (Ond Bak)

zuro, corazón de la mazorca del maíz después de desgranada

koskol iz. Oskola, txokorra; aleak kendu zaizkion artaburua. *Maiz koskola*. *Maiz bua yakurrita* 'maiz [arto] burua irakurrita [aletuta]'. Sin. *artakozkor*.

kospamailu, kospamailua

KALAKA (?)

matraca (instrumento de madera compuesto de un tablero y una o más aldabas o mazos, que, al

kospamailu iz. Koskamailua (?). Ik. **koskamailu**; **karraka**.

kosta

KOSTA(TU)

costar (trabajo), resultar difícil
costar, valer

kosta *da* ad. Ik. **gosta(tu)** (eta *kosta(tu)*).

kostata
KOSTATA

con dificultad, con mucho esfuerzo; a duras penas

kostata (> *gostata*) adb. *Gostata, bea despeitu du* 'kostata, baina despeditu [bukatu] dugu'. Ik. **nekez asko**.

kostatu
KOSTA(TU)

costar (trabajo), resultar difícil
costar, valer

kostatu *da* ad. Ik. **gostatu**.

kosti bikor, kostien bikor
GOROSTI-ALE

baya de acebo

korosti(aren) bikor (> *kostien bikor(rak)*). Gorosti-alea, gorostiaren baia.

kosti, kostia
GOROSTI

acebo (Ilex aquifolium)

kostilla, kostillia
SAIHETS HEZUR

saihets, saihets hezur

costilla

kostilla iz. Ik. **saihets**.

kostra, kostria
ZARAKAR

tortika

costra (capa dura)

kostra iz. Ik. **tortika**.

kostunbre, kostunbria
OHITURA; USADIO

ohitura, kondezio; tradizio, usaio

costumbre, uso, hábito
tradición, usanza

kostunbre **1** iz. Ik. **ohitura**; **kondezio**. **2** iz. Ik. **tradizio**; **usaio**. ¬

kotrina
BIHOTZERRE

acidez / ardor de estómago, acedía

kotrina iz. Bihotzerrea; jan ondoren, batzuetan, urdailean edo hestegorrian nabaritzen den mingostasun edo garraztasuna. *Kotriñа dukat* 'kotrina [bihotzerrea] daukat'.

kotrinatu, kotrinatzen
BIHOTZERREA EMAN; BIHOTZERREA SORTU

ozpindu

producir acidez / ardor de estómago; agriar(se) / acidificar(se) el estómago

kotrinatu ad. Bihotzerrea eman; bihotzerrea sortu; urdailean edo hestegorrian mingostasuna edo garraztasuna sentitu. Ik. **ozpindu**; **kotrina**. *Eseñа artu dot eta kotrinatu in zaira bazkaia* 'esnea hartu dut eta kotrinatu egin zait bazkaria'. *Kotrinatu in zaira bazkaia* 'kotrinatu egin zait bazkaria [bihotzerrea eman dit bazkariak]'. *Eseniek kotrinatu iten dwa* 'esneak bihotzerrea ematen / eragiten dit'. *Azkenaldiontan dana kotrinatzen zaira* 'azkenaldi honetan dena *kotrinatzen* zait [denak bihotzerrea eragiten dit]'.

kotxe, kotxia

KOTXE

auto, automobil

coche

coche (de niño)

kotxe **1** iz. Autoa; automobila. Ik. **auto**; **automobil**. **3** iz. Haurrak eramateko orga modukoa. *Aurrain kotxĭa, kotxe txikia* 'haurren kotxea, kotxe txikia'.

kotxera, kotxeria

GARAJE, ORGATEGI

cochera, garaje

kotxera iz. Garajea, orgategia. *Benta ondwen zon kotxerĭa* 'benta ondoan zegoen kotxera'.

kotxino / kotxina, kotxinua, kotxinia

TXERRI, ZIKIN; NAZKAGARRI

txerri, zikin, lazkarri

cochino, -a, sucio, -a

kotxino, -a (Generoa hartzen du) adj. Ik. **txerri**; **zikin**; **lazkagarri** (> *lazkarri*).

koxkor, koxkorra

KOSKOR, TXIKI, XEHE

txiki, xaburreia

kozkor

menudo, -a, diminuto, -a, pequeño, -a

menudo, -a; dicho de una persona: pequeña y delgada

koxkor **1** iz. Puska txikia. *Harri koxkorra* 'harri xehea'. **2** adj. Tamaina txikikoa. || Txikia eta argala dena. *Mutiki koxkor bat* 'mutilki koxkor bat'. Ik. **txiki**; **xaburreria** (> xaburreia). ▼ Anton. *kozkor*. [koxkor ≠ kozkor].

koxkortu, koxkortzen

KOXKORTU*, TXIKITU

txikitu

kozkortu

menguar, empequeñecer(se), reducir(se), disminuir(se), mermar(se)

koxkortu *da* ad. Txikiago bihurtu. Ik. **txikitu**. ▼ Anton. *kozkortu*. [koxkortu ≠ kozkortu].

kozina, kozinia

SUKALDE [APARATUA]

ekonomikia

cocina económica

kozina iz. *kozina ekonomikĭa* forman. Ik. **sukalde**; **ekonomika**; **fogon(a)**.

kozinatu, kozinatzen

KOZINATU

jana prepatu, jatekuek prepatu

cocinar

kozinatu *dau* ad. *Oso ondo kozinatzen dau* 'oso ondo kozinatzen du'.▲ Sin. *jana prepatu*, *jatekwek prepatu*.

kozinero, -a; kozinerua, -ia

SUKALDARI

sukaldai

cocinero, -a

kozinero, -a (Generoa hartzen du) iz. Sukaldaria. *Kozinero txarra duku: banketĭa berrĭen rantxwa prepatzen gĭau aldio* 'Sukaldari txarra daukagu: banketea beharrean arrantxoa preparatzen digu aldiro'.

kozkor, kozkorra (*)

KOSKOR (*)

koxkor

bulto, abultamiento; chichón, bollo
pedazo; extremo
grande; amplio, -a
crecido, -a; fornido, -a

kozkor (*) (eta *koskor*) **1** iz. Puska handitxoa*. ▼ Anton. *koxkor* (kozkor ≠ koxkor).
2 iz. Zatia, puska, muturra. *Ogi kozkorra*. | Trozo [Ziordia].
3 adj. Handia; handitxoa. *Mutiko kozkorra* [▼ Anton. *Mutiko koxkorra*]. *Gela kozkorrona in dai!* 'gela kozkor ona egin dute!'. *Gizon kozkor bat*.
◆ **belaun kozkor**. Belaunburua; belauneko hezurra (?).
◆ **kozkorrak jo**. (Nekaz.) Zokorrak jo, mokorrak jo; apurtzeko, lur zati trinkoak jo. {(Iza Alts): destripar terrones}. ¬

kozkorrak jo

ZOKORRAK JO, MOKORRAK JO

destripar terrones, despachurrar terrones

kozkorrak jo. (Nekaz.) Zokorrak jo, mokorrak jo; apurtzeko, lur zati trinkoak jo. {(Iza Alts): destripar terrones}.

kozkortu, kozkortzen

KOSKORTU

koxkortu (?)

crecer, agrandar(se); desarrollarse

kozkortu *da* ad. Haurrez mintzatuz, zertxobait hazi. Ik. (≠) **koxkortu**.

kozpiltza, kozpiltzia

GOROTZ BILTZA (?)

cúmulo de residuos orgánicos (astillas, cenizas de hogar, residuos de cosecha...)

kozpiltza iz. [gorotz biltza ?]. Zaburreriaz osatutako pila; herriko bazterretan pilatzen ziren *kozpiltzak*. [Egur ezpalak, surtako hautsa, eultziak eginda edo laborea bilduta gelditzen diren zaburrak biltzen ziren kozpiltzetan; pilatutakoa usteldu eta lur bihurtuta ongarritarako erabiltzen da]. Ik. **korotz**.

krema, kremia

KREMA

crema

krema iz. Ik. **natilla**; **ahi**.

kremallera, kremalleria

KREMAILERA

cremallera

kremallera iz. Kremailera. *Frakatokien kremalleria naio botonak baindo* 'frakatokian [bragetan] kremailera nahiago botoiak baino'.

kremasu, kremasua

KREMATSU

cremoso, -a

krematsu (> *kremasu*) adj.

kriada, kriadia

NESKAME

neskame

sirvienta, criada

kriada iz. Neskamea, emakumezko zerbitzaria. *Leno 'neskame' esaten zan; guai, 'kriada'* 'lehenago 'neskame' esaten zan; orain 'kriada'. Ik. **neskame**.

kriau, kriaua [kriadu]
MIRABE, MORROI

morroi

criado

kriau [kriadu] iz. Mirabea, morroia; gizonezko zerbitzaria. Ik. **morroi**.

krimen, krimena
KRIMEN

crimen

krimen **1** iz. Lege hauste larria. **2** *Irud.* Basakeria.

kriminal, kriminala
KRIMINAL

criminal

kriminal **1** iz. Krimen bat egin duen pertsona. **2** adj. Txarra, gaiztoa. *Au dok/don egun kriminala!* 'hau duk/dun egun kriminala!'.

krisantemo, krisantemua
KRISANTEMO, URRELILI

crisantemo

krisantemo iz. (Bot.) Landare apaingarria (Chrysanthemum sp.); landare horren lorea.

kriselu, kriselua
KRISEILU

kandil; lanpara

candil

kriselu ([Urdiain]; eta *krisilu* [Altsasu]) iz. Oliozko argiontzi metxaduna, zintzilikatzeko kako bat duena. Ik. **kandil**; **karburo ontzi**; **lanpara**.

krisilu
KRISEILU

kandil; lanpara

candil

krisilu ([Altsasu]; eta *kriselu* [Urdiain]).

krisketa
KISKETA

tarabilla, aldabilla

krisketa [Ziordia] iz. Kisketa, maratila. Ik. **kisketa**.

kristal, kristala
KRISTAL; BEIRA

cristal; vidrio

kristal iz. Beira; kristala. *Laioko kristalak* 'leihoko kristalak'. *Kristalezko*, *kristalezkwa*. ◆ **kristalezko galtza(k)**. Galtzerdi gardenak. *Kristalezko galtza luzĭek, ordinaiuek baindo fino ta fwertĭo* 'kristalezko galtza luzeak [galtzerdiak], ordinarioak [arruntak] baino finago eta fuerteago'.

kristalera, kristaleria
BEIRATE

cristalera

kristalera iz. Beiratea; beirazko egitura batez osaturiko itxitura. *Arramaiwen kristalerĭa ausi dau* 'armairuaren kristalera [beiratea] hautsi du'. Ik. **bidriera**.

kristalezko galtza(k)
KRISTALEZKO GALTZERDI

calcetín de cristal, calcetín transparente

kristalezko galtza(k). Galtzerdi gardenak. *Kristalezko galtza luzĭek, ordinaiuek baindo fino ta fwertĭo* 'kristalezko galtza luzeak [galtzerdiak], ordinarioak [arruntak] baino finago eta fuerteago'.

kristau, kristaua

KRISTAU

cristiano, -a
persona; alma

kristau **1** iz. Kristok erakutsi zuen erlijioaren jarraitzailea. *Elizá arrimatu're iten eztan kristau asko do* 'elizara arrimatu ere egiten ez den kristau asko dago'. **2** iz. Pertsona, gizabanakoa. *Ezto kristaurik oi entendituko denik* 'ez dago kristaurik hori entendituko duenik'.

kristautasun, kristautasuna

KRISTAUTASUN

cualidad de cristiano
cristianismo

kristautasun **1** iz. Kristaua denaren nolakotasuna. **2** iz. Erlijio kristaua.

kristo

KRISTO

Cristo
diantre(s); qué diablos
persona (en oraciones negativas)

kristo **1** iz. (maiusk.) Jesukristo. Ik. **kixmi**. **2** interj. Harridura edo haserrea adierazteko hitza. *Ze kristo esan dik!* **3** iz. (Ezezko esaldietan) Pertsona. *Iyuerez; kristoik ez* 'inor ez; kristorik ez'. *Etxok kristoik emen aginduko* denik 'ez zagok kristorik hemen aginduko duenik'.

kriston, kristona

KRISTOREN

izugarrizko, ikagarrizko

muy grande, tremendo, -a, impresionante, terrible, imponente, bestial; estupendo, -a, muy bueno,

kristoren (> *kriston*) adj. *Lgart*. Egundokoa, ikaragarria. *Kriston etxĭa in dai* 'kristoren etxea egin dute'. ▲ Sin. *izugarrizko*, *ikagarrizko*. ◆ **kristorenak (esan, egin, entzun / aditu...)** (> *kristonak esan, in, entzun / aitu...*). *Kristonak esan dĭatzi* 'kristorenak esan dizkio'. Ik. **inon direnak** (> *iyun dĭanak*).

kristonak esan, in, entzun / aitu...

KRISTORENAK (ESAN, EGIN, ENTZUN...)

iyun dianak

decir cosas tremendas; echar la bronca; armarla buena
decir pestes, poner a parir
oír cosas tremendas; oír las de Dios
hacer cosas tremendas; hacer las de Dios

kristorenak (esan, egin, entzun / aditu...) (> *kristonak esan, in, entzun / aitu...*). Ik. **inon direnak** (> *iyun dĭanak*).

kromo, kromua

KROMO

cromo (cromolitografía), estampa

kromo iz. Koroletako irudia; bereziki, tamaina txikikoa, haurrek bildumatzen edo jolasetan erabiltzen dutena. *Futbolistain kromo kolekziua iten dail(e)* 'futbolarien kromo bilduma egiten dabil'.

kruzatu, kruzatzen

GURUTZATU

cruzar, poner en forma de cruz
cruzar(se), pasar por el mismo punto en dirección opuesta; entrecruzar(se)
cruzar, pasar de una parte a otra, atravesar
cruzar (animales o plantas)

kruzatu **1** *dau* ad. Gurutzatu; bi gauza gurutze modura jarri. **2** *da/dau* ad. Gurutzatu; albotik igaro, aurkako norabidean joanez. **3** *da/dau* ad. Gurutzatu; alderik alde igaro. **4** *da/dau* ad. Gurutzatu; arraza edo aldaera desberdinetako animaliak edo landareak nahasi.

kruze, kruzia

BIDEGURUTZE

cruce (de caminos)

kruze iz. Bidegurutzea. Ik. **hirubide**.

kruzifijo, kruzifijua

GURUTZE, GURUTZEFIKA

kruzifijo iz. Jesu Kristo gurutziltzatuaren irudia duen gurutzea. Ik. **kutza**.

kruzifikatu, kruzifikatzen

GURUTZEFIKATU, GURUTZILTZATU

crucificar

kruzifikatu *dau* ad. Gurutzefikatu, gurutziltzatu.

kuaderno, kuadernua

KOADERNO, KAIER

cuaderno

koaderno (> *kuaderno*) iz. Kaiera; paperezko orri josiz osatutako liburu modukoa, bertan idazteko erabiltzen dena. *Kwaderno batien yaten tut laneko kontuek* 'koaderno batean eramaten ditut laneko kontuak'. Ik. **blok**.

kuadradillo, kuadradillua

AZUKRE-OGI

cuadradillo; azúcar de pilón (partido en piezas pequeñas cuadradas)

kuadradillo iz. Azukre-ogia; azukre findua lauki txikitan zatitua. {Azúcar de pilón, partido en piezas pequeñas cuadradas}.

kuadrila, kuadrilia

kuadrila Ald. kuadrilla, kuadrillia

kuadrilla, kuadrillia

LAGUN(AK), KUADRILLA

talde

cuadrilla, pandilla

kuadrilla iz. Lagun taldea, lagunak. *Oi gwe kuadrillakwa don* 'hori gure kuadrillakoa dun'. Ik. **talde**.

kuagulatu, kuagulatzen

KOAGULATU

coagular(se)

koagulatu (> *kwagulatu*) da/dau ad. Ik. **odolbildu**.

kuajatu, kuajatzen

GATZATU

cuajar(se)

kuajatu (> *kwajatu*) *da/dau* ad. Gatzatu, mamitu. *Gatzokiekin kwajatzen da ardi esenĭa* 'gatzagiarekin kuajatzen [gatzatzen] da ardi esnea'.

kuanto (?)

kuanto (?) Ik. konto.
– bai konto! 'bai horixe'. Ik. ondo hale.
– ez konto! 'ez horixe'.

kuartel, kuartela

KUARTEL

cuartel, acuartelamiento

kuartel iz. Militar edo polizia taldeen egonleku edo bizileku den eraikina. *Soldau kuartela* 'soldadu kuartela'. *Guardia zibilain kuartela* 'guardia zibilen kuartela'.

kuartizo, kuartizua

ATAL

cuarto; trozo, pedazo; porción, parte; gajo

kuartizo iz. Atala, zatia; zerbaitetatik bereiz daitekeen laurdena. *Naranjĭen, sarran..., kwartizua* 'laranjaren, sagarraren..., atala / zatia'. *Egurran kuartizua* 'egurraren kuartizoa. *Emantazu naranja kuartizo bat* 'emaidazu laranja atal bat'.

kuarto (1)

LAURDEN

laurden

cuarto; cuarta parte

kuarto[1] iz. Laurdena [azken aldian asko zabaldu den hitza]. Ik. **laurden**. *Orduek eta pisuek: kilo kuarto, hiruek eta kuarto* (?). *Iru ordu kuarto dukatzigu emetik ondartzá* 'hiru ordu laurden dauzkagu hemendik hondartzara'.

kuarto (2)

GELA

laurden

cuarto; habitación; dormitorio

kuarto[2] iz. g.er. Gela. Ik. **gela**. ◆ **kuarto-sokorro**. Sorospen etxea. *Altsun yoten zan kuarto-sokorrua* 'Altsasun egoten zen kuarto-sokorroa [sorospen etxea]'.

kuarto-sokorro, kuarto-sokorrua

SOROSPEN ETXE

cuarto de socorro, casa de socorro

kuarto-sokorro. Sorospen etxea. *Altsun yoten zan kuarto-sokorrua* 'Altsasun egoten zen kuarto-sokorroa [sorospen etxea]'.

kuartoi, kuartoia

SOLIBA

cuartón (madero); vigueta, solivo

kuartoi iz. Soliba; haga nagusietan bermatzen den haga txikiagoa, solairuari edo sabaiari eusten diona. *Frontalain gainĭen dazi kwartoiek* 'frontalen gainean doaz kuartoiak'. (Maderos que sostienen los pisos de las casas. Se apoyan en los "frontal"). (Ond Bak). Ik. **frontal**; **solibo**; **kapio**.

kuatxiki, kuatxikia / akuatxiki, akuatxikia

OTA-JOIKI [OEH]

otajaiki, otafaki

pala con boca fuerte de hierro para majar árgoma

kuatxiki (eta *akwatxiki*) iz. Ik. **otajaiki**; **otafaki**.

kubano, kubanua

KUBATAR

cubano, -a

kubano adj./iz. Kubari dagokiona; kubatarra. *Kubanwenak* 'kubanoarenak [horren familiakoak]'. *Kubanwen'txĭa* 'kubanoaren etxea'.

kubritu, kubritzen
ESTALI

estaldu, estali

cubrir

kubritu *da/dau* ad. Estali. Ik. **estaldu**; **estali**.

kuello, kuellua
LEPO (JANTZIENA)

cuello (de prendas de vestir)

kuello iz. Jantzien lepoa. *Atorrĭen kwellwa zikin-zikina dukazu* 'atorraren lepoa zikin-zikina daukazu'. Ik. **lepo**.

kuerda, kuerdia
MALGUKI (ERLOJUARENA)

cuerda (mecanismo del reloj)

kuerda iz. Malgukia; erlojuaren mekanismoa. ◆ **kuerda eman** (> *kwerdĭa eman*). Giltza eman. *Emaiozu kwerdĭa erlejuai* 'emaiozu *giltza erlojuari'.

kui, kuia
SEHASKA, KUMA

kuna

cuna

kui (> *kwi*) iz. Sehaska, kuma. Ik. **kuna** (hitz berria).

kuidado, kuidadua
KUIDADO,

atenzio

cuidado (acción de cuidar), atención, interés; precaución
cuidado, preocupación, intranquilidad

kuidado **1** iz. *Kwidado guztĭek ematen diatzi txakurkumairi* 'kuidado guztiak ematen dizkie txakurkumeei'. Ik. **atenzio**. **2** iz. *Kuidado pixkat ibil(i) berko zenduke* 'kuidado pixka bat ibili [eduki] beharko zenuke'. ◆ **kuidadoipe**. Kuidadorik gabe. *Erleju berri onek, ezen kuidadoipe, beak iten dau dana* 'erloju berri honek, ezen kuidadorik gabe, berak egiten du dena'. ¬

kuidau
KONTUZ

kontuz

¡cuidado!, ¡ojo!, ¡atención!

kuidau interj. Ik. **kontuz**. *Kwidau orrekin* 'kontuz horrekin'. *Kwidau gio!* 'kontuz gero!'. ¬

kukaratxa, kukaratxia
LABEZOMORRO

cucaracha

kukaratxa iz. Labezomorroa (Blattaria sp.).

kuku gelditu / geatu
KUKU GELDITU / GERATU

quedar un árbol talado apoyado o enganchado en otro

kuku gelditu / geratu ad. Ipurditik moztutako arbola beste baten gainean erori ezinik geratu. [Quedarse un árbol cortado apoyado en otro, evitando así la caída]. *Peligru aundia duka kuku gelditutako arboliek* 'peligro [arrisku] handia dauka kuku gelditutako arbolak'.

kuku, kukua

KUKU

cuclillo, cuco (Cuculus canorus)

kuku **1** iz. (Cuculus canorus) **2** iz. Kukuaren kantua. ◆ **kukuek jo** [kantatu]. *Kukua! Zenbat urteko bizia dukat? – Zenbat aldiz jotzen zen, hainbeste urteko bizia*. || Aitu emen zein kukua jotzen (Ond Bak). ◆ **kuku gelditu** / **geratu** ad. Ipurditik moztutako arbola beste baten gainean erori ezinik geratu. [Quedarse un árbol cortado apoyado en otro, evitando así la caída]. *Peligru aundia duka kuku gelditutako arboliek* 'peligro [arrisku] handia dauka kuku gelditutako arbolak'.

kukubiko jarri, yon, patu

KUKUBILKO

en cuclillas

kukubiko adb. Kukubilko, kokoriko; orkatilen gainean eseririk. ◆ **kukubiko jarri, egon, paratu** (> *kukubiko jarri, yon, patu*).

kukuka(n)

KUKUKA

al escondite

kukuka(n) adb. Kuku eginez, kuku-gordeka. *Yuzkia kukuka* 'eguzkia kukuka'. Ik. **estalketan** (jolasa).

kukul

KUKULA (?)

ápice

kukul iz. Kukula; zerbaiten goialdea, gailurra {kukul (Iza Alts)}.

kukur, kukurra

KALITXA; KUKU SAGAR

excrecencia; agalla

kukur **1** iz. Kalitxa. *Patata kukurrak*. *Aza kukurrak*. Ik. **txilkor**. **2** iz. (Bot.) Kuku sagarra; haritzetan eta haritzaren familiako zuhaitz batzuetan intsektuen eraginez hazten den koskor biribila. {Agalla de roble, una bolita con que juegan los niños (Ond Bak)}. Ik. **kurkur** [Ziordia].

kukurruku

KUKURRUKU

quiquiriquí, canto del gallo

kukurruku iz. Oilarraren oihua edo kantua. Ik. «*Kukurruku mailarena*» kantaita. ◆ **kukurruku jo**. Kukurruku egin. *Oilarrak kukurruku jo dau goizeko lauetan* 'oilarrak kukurruku jo du goizeko lauretan'.

kukurruku jo

KUKURRUKU JO

cantar el gallo

kukurruku jo. Kukurruku egin. *Oilarrak kukurruku jo dau goizeko lauetan* 'oilarrak kukurruku jo du goizeko lauretan'.

kukurutxo sonbela

LILIPA ARRUNT

zorroko pitxilita

narciso de los prados

kukurutxo sonbela iz. (Bot.) Lilipa arrunta (Narcissus pseudonarcissus). Ik. **zorroko pitxilita**.

kukurutxo, kukurutxua

KUKURUTXO (KONO; 2 TXANO PUNTADUN)

cucurucho (Papel, cartón, barquillo, etc., arrollado en forma cónica)
cucurucho, capirote

kukurutxo **1** iz. Kono forman biribildutako papera, kartoia, olata eta abar. *Patazu bi elau klase kukurutxo bakarrĭen* 'para ezazu bi helatu [izozki] klase kukurutxo bakarrean'. **2** iz. Txano puntaduna. *Kukurutxwa iten daile momoxarro jazteko* 'kukurutxoa egiten dabil *momoxarro* [inauteko mozorro] janzteko'. ◆ **kukurutxo sonbela** iz. (Bot.) Lilipa arrunta (Narcissus pseudonarcissus). Ik. **zorroko pitxilita**.

kulata, kulatia

KULATA

culata (de armas)

kulata iz. Fusilen eta kidekoen ipurdia.

kuleka

LOKA, OILALOKA

loka

clueco, -a; llueca

kuleka [Altsasu] **1** adj. Loka, oilaloka; oiloez eta hegazti emeez mintzatuz, txitatzeko egoeran dagoena. {"*Kuleka gutxi*, pocas cluecas" (Iza Alts)}. Ik. **loka**. **2** adb. *Oilua kuleka jarri da* 'oiloa loka jarri da'.

kulpa, kulpia

KULPA

culpa

kulpa iz. *Yauk dukatzik/n kulpak* 'heuk dauzkak/n kulpak'.
◆ **kulpa bota** (> *kulpĭa bota*). Errua bota, errua egotzi. ◆ **kulpa egin** (> *kulpa in*). Errua egotzi. *Guri kulpa inko diai / geaueik* 'guri kulpa egingo ditek / zigutek'. ◆ **kulpa ibili** [eduki] (> *kulpĭa ibili*).

kulpabeiko, kulpabeikua

KULPAGABE, ERRUGABE

inocente, sin culpa

kulpabeiko adj. Kulpagabea, errugabea. ¬

kulpable, kulpablia

KULPADUN, ERRUDUN

culpable

kulpable adj. Kulpaduna, erruduna. ¬

kuma, kumia

KUME

cría; cachorro

kuma iz. Kumea, animalien umea. *Bi txakurkuma dukatzi* 'bi txakurkume dauzka'. *Katakuma nabarrak in tu etxeko katuek* 'katakume nabarrak egin ditu etxeko katuak'. *Txoikumakin do kafia* 'txorikumeekin dago habia'. Ik. **arkuma**; **astakuma**; **basurdakuma**; **belakuma**...

kuna, kunia

SEHASKA, KUMA

kui

cuna

kuna iz. (Hitz berria) Sehaska, kuma. Ik. **kui**.

kunka

MOZKOR, EDANDA

bebido, -a; borracho, -a
choque, cabezada (golpe)

kunka **1** adb. Lgart. Edanda egon, mozkorturik egon. **2** onomat. Kolpe edo elkar jotze baten onomatopeia.

kunkun, kunkuna

APO

2 ardana

sapo (Bufo bufo; Alytes obstetricans, etc.)
sopa(s) de vino
lento, -a

kunkun **1** iz. (Zool.) Zapoa, apoa (Bufo bufo, etab.). || **kunkun txikia** iz. Txantxikua; tamaina txikiko zapoa (Alytes obstetricans). **2** iz. Ardo zopa. ▲ Sin. *ardana*. (zurrukutun?). **3** iz. Ogiarekin egindako tortilla (?). **4** adj. Pertsonengatik hitz eginez, oso motel mugitzen dena. *Oi kunkuna!* 'hori kunkuna!'.

kunplimentu, kunplimentua

KONPLIMENDU

cumplido(s); atenciones
cumplimiento

kunplimentu 1 iz. 2 iz. Konplimendua; betetzea, konplitzea.

kunplitu, kunplitzen

KONPLITU

bete

cumplir(se)
cumplir con alguien

kunplitu 1 *da/dau* ad. Bete. *Denboria kunplitu* 'denbora konplitu'. *Kunplitwik zukan denboria* 'konpliturik zeukan denbora'. *Epia kunplitu* 'epea konplitu'. Ik. **bete**. **2** *dau* ad. Norbaitek hartu duen eginbidea edo zerbaitek eskatzen duena egin; bete, gorde. *Agindutakwa ez'tau kunplitu* 'agindutakoa ez du konplitu'. Ik. **bete**.

kupela, kupelia (?)

UPEL

cuba, tonel

kupela (*a* itsatsia) iz. Upela. Ik. **barrika** [Urdiain]. *Kupela: barrikako ondarrak jasotzekua* (?).

kupitu, kupitzen

KUPITU, GUPIDATU, ERRUKITU

errukitu

conmoverse
conmover

kupitu *da/dau* ad. Gupidatu, errukitu. Ik. **errukitu**.

kupitze, kupitzia

KUPITZE

compasión, piedad (acción del verbo 'kupitu')

kupitze iz. *kupitu* aditzari dagokion ekintza.

kur-kur / kurru-kurru

GUR-GUR; GURGUR (TRIPAZORRIAK)

onomatopeya del ruido de tripas; borborigmo

kur-kur / **kurru-kurru** onomat. Gur-gur; gurgurra, sabelaren hotsaren onomatopeia, normalean gosearen ondorenak direnak; tripazorriak. *Tripa otsak, kurru-kurru* 'tripa hotsak, gur-gur'. Ik. **tripazorri**.

kura, kuria

SENDATZE, SENDAKETA; SENDABIDE

cura, curación

kura iz. Sendatzea, sendaketa; sendabidea. *Gaitz orrek eztuka kuraĭk* 'gaitz horrek ez dauka sendabiderik'. ◆ **kura egin** (> *kurĭa in*). Sendaketa egin.

kuratu, kuratzen

ONTZUTU, ONDU

curar (carnes, embutidos, etc., para que se conserven por mucho tiempo)

kuratu **1** *dau* ad. Ontzutu, okelaz eta kidekoez mintzatuz, luzaz irauteko eran ondu. Ik. **gatzitu**; **gatzetan paratu** (> *gatzetan patu*); **sekatu**. **2** (Era burutua izenondo gisa). *Urdai kuratua* 'urdai ontzutua'.

kurba, kurbia

KURBA; BIHURGUNE

2 bihorguna, rebuelta

curva; línea curva

tramo curvo de una carretera, de un camino, de una línea férrea, etc.

kurba **1** iz. Zati zuzenik ez duen lerroa. **2** iz. Bihurgunea, bidea norabidez aldatzen den lekua. Ik. **bihorguna**; **rebuelta**.

kurbatu, kurbatzen

KURBATU

curvar(se)

kurbatu *da/dau* ad. Angelurik osatu gabe, norabide zuzenetik aldendu.

kuria in

SENDAKETA EGIN, KURA EGIN

hacer la cura

kura egin (> *kurĭa in*). Sendaketa egin.

kuriketan

KIRIKETAN IBILI, EZKUTAKETAN JOLASTU

escondite (juego); jugar a escondites

kuriketan adb. Kiriketan, ezkutaketan; haur jolasa, batzuk ezkutatzean eta beste batek ezkutuan daudenak aurkitzean datzana. ◆ **kuriketan ibili**. Kiriketan aritu, ezkutaketan aritu (haur jolasa). {Juego de niños: uno se pone de espaldas, mientras los demás se esconden. Tiene que pillar a otro, que hace sus veces (Ond Bak)}.

kurioso, kuriosua

KURIOSO, TXUKUN

txukun, garbi

zakar

aseado, -a, limpio, -a, ordenado, -a; elegante

aseadamente, pulcramente; bien; con arte, hábilmente, con elegancia

kurioso **1** adj. Txukuna, garbia. *Kuriosua da* 'kuriosoa [txukuna] da'. Ik. **garbi**; **txukun**. ▼ Anton. *zakar*. **2** adb. Txukun; gaitasunez, trebetasunez. *Kurioso iten dau lana* 'kurioso egiten du lana'.

kurkufita

KURKUBITA, KUIA

kalabaza

calabaza, cucúrbita

kurkufita iz. (Bot.) Kurkubita, kuia (Ond Bak) [calabaza]. Ik. **kalabaza**.

kurkur, kurkurra

KUKU SAGAR

agalla, lobanillo (de roble); nuez de agalla

kurkur (*kurkurra* [Ziordia]) iz. (Bot.) Kuku sagarra; haritzetan eta haritzaren familiako zuhaitz batzuetan intsektuen eraginez hazten den koskor biribila. Ik. **kukur**. *Araitz ostotan atatzen dĭan bolak, garai batĭen mutxikako ibiltzen zĭanak* 'haritz hostoetan ateratzen diren bolak, garai batean jolasteko erabiltzen zirenak'.

kurpino, kurpinua

GERRUNTZE, GORONTZ

corpiño, justillo, faja

kurpino (Bustidura gabe) iz. Gerruntzea. *Jazten zan atorrien gaineti kurpinua, lokarriekin lotzen zan* (Ond Bak).

-kurre

-KURRE [-GURA] (ATZIZKIA)

-kurre; sufijo que denota necesidad de..., ganas de...

-kurre (atzizkia). *gura* edo *gogoa* adierazten du. Adibideak: *kakakurre*, *txixakurre*... {necesidad de..., ganas de... (Ond Bak)}. Ik. **-gura** / **-kura**.

kurrilo, kurrilua

KURRILO

grulla

kurrilo (eta *kurrilu* [Bakaiku]) iz. Paseko hegaztia (Grus sp.). *Gaubĭen kurrilo asko pasatu dĭa* 'gauean kurrilo asko pasatu dira'. *Kurrilo otsak; negua ezto irruti* 'kurrilo hotsak, negua ez dago urruti'. *Kurrilo bandadĭa, uve forman* 'kurrilo taldea, uve forman'.

kurrin-kurrin

KURRINKA

txo

gruñido del cerdo
cochi; cuino; voz usada para llamar al cerdo

kurrin-kurrin **1** onomat. Txerriek, basurdeek eta kidekoek egiten duten hotsa. **2** interj. Txerriari hots egiteko erabiltzen den hitza. Ik. **txo**.

kurrukutu

SALBIA (?)

kurrukutu iz. (Bot.) (Planta cuyo tallo está rizado de la mitad para arriba; flor azul-morada). (Ond Bak).

kurtina, kurtinia

ERREZEL, GORTINA

cortina

kurtina iz. Gortina, errezela. *Kurtinak*. *Kurtina argiek, obeto* 'gortina argiak, hobeto'.

kurtitu, kurtitzen

ONDU (LARRUA)

curtir, curar

kurtitu *dau* ad. Larrua ondu, erabilgarri izan dadin prestatu. *Narrua kurtitu* 'larrua ondu'.

kutxa, kutxia

KUTXA

arca; caja; cofre

kutxa iz. Zurezko altzari sarrailaduna, estalkia jasoz irekitzen dena. *Aspaldi indakwek dĭa emengo kutxa gaienak* 'aspaldi egindakoak dira hemengo kutxa gehienak'.

kutxatila, kutxatilia

arkatila

cajita; estuche

kutxatila iz. *Kutxa barruen don kaja txiki bat* 'kutxa barruan dagoen kaxa txiki bat'. ▲ Sin. *arkatila*.

kutxilo txiki, kutxilo txikia

LABANA

navaja (de bolsillo)

kutxilo txiki. Poltsikoan eramateko labana, bereziki ahoa kirtenaren barnean toles daitekeen ganibeta.

kutxilo, kutxilua

GANIBET, AIZTO; LABANA

ganafita

cuchillo

navaja

kutxilo (Bustidura gabe) iz. Aiztoa, ganibeta; labana. Ik. **ganafita**. ◆ **kutxilo txiki**. Poltsikoan eramateko labana, bereziki ahoa kirtenaren barnean toles daitekeen ganibeta.

kutza, kutzia

GURUTZE

2 kruzifijo

cruz

cruz, crucifijo

cruz, aspa

kutza **1** iz. Gurutzea. **2** iz. Ik. **kruzifijo**. **3** iz. Bi marra elkarzutek elkar ebakitzen dutelarik osatzen duten irudia. *Labĭen sartu aurreti, ogiai kutzĭa iten dĭa* 'labean sartu aurretik, ogiari gurutzea egiten dio'. *Kutza bat iten zen firmatzeko* 'gurutze bat egiten zuen sinatzeko'. ◆ **kutzako haize**. Gurutzeko haizea (gaztala?).

kutzako haize, kutzako haizia

[KUTZATIK DATORREN HAIZEA]

kutzako haize. Gurutzeko haizea (gaztala?).

kuxa

OHE; OHERA

ohia, guatze

catre, cama; irse al catre; a la cama (coloq.) [cuja: (desus.) armadura de la cama]

kuxa (*) iz. Lgart. Ohea; (nora adieran) ohera [Oharra. ohe-kuxa: ohazura, ohearen egitura]. *Kuxá*. *Guai, kuxá; bagazi kuxá* 'orain, ohera; bagoaz ohera'. Ik. **ohia** (> *oia*); **guatze**.
(*) Oharrak. {OEH. 1 kuxa. (V-ple-arr-oroz ap. A), kuja (V-ger ap. A). "Cuja <-x-> de cama, (c.) oe kuxa, oe zula, zura " Añ. "Catre" A. Cf. VocNav s.v. cusha.}. // {DLE. cuja[2] Del fr. couche. 1. f. Arg., Bol., Col., C. Rica, Ec., Méx., Nic., Perú y Ur. Cama de distintos tipos y materiales. 2. f. desus. Armadura de la cama.}.

kuzka, kuzkia

(IKUSKA DABILENA); KUXKUXERO (*)

rebuscador, -a; husmeador, -a; fisgón, -ona

kuzka adj. Ikuska dabilena*. Isilean eta zerbaiten bila, etxeko gauza gordeen artean nahastekatzen dabilena; kuxkuxeroa*. *Kuzkan ibiltzen dana: kuzkĭa* 'kuxkuxean ibiltzen dena: kuxkuxeroa'.

kuzkan

ZOKOMIRAN, IKUSKA; KUXKUXEAN (?)

husmeando, curioseando, rastreando, hurgando; mirando

kuzkan adb. Isilean eta zerbaiten bila, etxeko gauza gordeen artean nahastekatzen ibili; kuxkuxean; zokomiran, ikusmiran; ikuska. *Aurra kuzkan daile gelako arramaiuen* 'haurra kuzkan dabil gelako armairuan'. ◆ **kuzkan ibili** *da* ad. Zer bila, etxeko gauza gordeen artean nahastekatzen ibili. *Gwaire aurra kuzkan daile arramaiwen* 'orain ere haurra kuzkan dabil armairuan'. *Ze abil emen kuzkan?* 'zer habil hemen kuzkan' [kuxkuxean?; ikuska?].

kuzkan ibili

ZOKOMIRAN; KUXKUXEAN IBILI

andar rebuscando, andar husmeando

kuzkan ibili *da* ad. Zer bila, etxeko gauza gordeen artean nahastekatzen ibili. *Gwaire aurra kuzkan daile arramaiwen* 'orain ere haurra kuzkan dabil armairuan'. *Ze abil emen kuzkan?* 'zer habil hemen kuzkan' [kuxkuxean?; ikuska?].

kuzkatu, kuzkatzen

KUXKUXEATU*

husmear, hurgar, rastrear; escudriñar

kuzkatu *dau* ad. Kuxkuxeatu*. Isilean eta zerbaiten bila, etxeko gauza gordeen artean nahastekatu.

kuzkur, kuzkurra

KUZKUR. 2 KIZKUR

ixur

liso

rizado, -a, ondulado, -a; arrugado, -a
rizo, onda; arruga, frunce, pliegue
encogido, -a; acurrucado, -a; agachado, -a

kuzkur (eta *kuxkur*) **1** adj./iz. Kizkurra. Ik. **ixur**. || *Ile kuzkurra*; *txuma kuzkurra*. ▼ Anton. *txuma liso*. **2** adb. Kuzkurturik, makurturik. *Kuzkur-kuzkur inda* 'kuzkur-kuzkur eginda'. Ik. **makur**.

kuzkurtu, kuzkurtzen

KUZKURTU. 2 KIZKURTU

makurtu

encoger(se); acurrucarse; agachar(se)
rizar(se)

kuzkurtu (eta *kuxkurtu*) **1** *da/dau* ad. Uzkurtu, makurtu. *Kuzkurtwik iten dau lo* 'kuzkurturik egiten du lo'. – *Zapatak kuzkurtu*. Ik. **makurtu**. **2** *da/dau* ad. Kizkurtu, kizkur bihurtu, ile kizkurraren itxura hartu edo eman. *Pelukeia nua txumĭa kuzkurtzĭa* 'pelukeriara [ile apaindegira] noa txima [ilea] kizkurtzera'.

kuzkurtuazi

KUZKURRARAZI*, MAKURRARAZI

makurtuazi

obligar a encoger(se), obligar a acurrucar(se), obligar a agachar(se)

kuzkurtuazi (eta *kuxkurtuazi*) *dau* ad. Makurrarazi, makurtzera behartu. Ik. **makurtuazi**.

labadero, labaderua

GARBITEGI

lavadero

labadero iz. Garbitegia; eraikitako garbitzeko lekua. *Iturrizarreko labaderwa* 'Iturri Zaharreko labaderoa'.

labadora, labadoria

GARBIGAILU

lavadora

labadora iz. Garbigailua. *Oneskĭo labadorĭek in dau* 'honezkero garbigailuak egin du [bukatu du]'.

labaina, labainia

(BIZAR) LABANA

navaja; navaja de afeitar

labaina iz. Labana, bereziki bizarra egiteko labana [(Iza Alts) (navaja de afeitar)]. Ik. **labana**; **bizar labana** ([Bakaiku]; **bizar labaina** (eta *bizar labina*) [Urdiain]).

labana

LABANA

kutxilo

navaja
navaja de afeitar

labana (eta *labaina* [Altsasu, Urdiain], *labina* [Urdiain]) iz. *bizar labana* forman agertzen da. Ik. **kutxilo**. ◆ **bizar labana** ([Bakaiku], eta *bizar labaina*, *bizar labina* [Urdiain]) *Bizarrá kentzekó kutxiluá da bizar-labaná* (Ond Bak).

labatiba, labatibia

AIUTA

lavativa, enema, clister

labatiba iz. Aiuta; hesteak libratzeko uzkitik sartzen den isurkaria. *Labatibĭa eman, purgatzeko* 'aiuta eman, purgatzeko'.

labe, labia

LABE

horno

labe iz. *Bakaltzeko, labĭen prepatutako txitxarrwa* 'bazkaltzeko, labean preparatutako txitxarroa'. *Labĭen erreta* 'labean erreta'. *Labĭen in* 'labean egin'. ◆ **labearen aho** (> *labĭen ago*, *labĭen agwa*). Labearen sarrera.

labegur, labegurra

LABE EGUR

chamiza, encendaja (para encender el fuego de los hornos)

labegur iz. Labeko sua egiteko egurra. *Labegurra, egurrik obena!* 'labe egurra, egurrik hoberena!'.

labekada, labekadia

LABEKADA

hornada

labekada iz. Labealdiaren edukia.

labeko, labekua

LABEALDI

hornada

labeko iz. Labealdia, labe batean ogia erretzen den aldietako bakoitza; labe batean batera erretzen den ogi kopurua. ◆ **labekoa egin** (> *labekwa in*). *Astĭen bein iten zen labekwa* 'astean behin egiten zuen labekoa'. ▲ Sin. *ogia in*.

labekua in

LABEALDIA EGIN

ogia in

hornada (hacer la)

labekoa egin (> *labekwa in*). *Astĭen bein iten zen labekwa* 'astean behin egiten zuen labekoa'. ▲ Sin. *ogia in*.

labendai, labendaia

LABENDAI

pala de horno

labendai iz. Ogia labean sartzeko erabiltzen den pala edo endaia. Ik. **endai**; **burnindai**; **otohol**.

labezai, labezaia

LABEZAIN

hornero, -a

labezai iz. Labezaina, labeaz arduratzen dena. *Labezaia*.

labezatar, labezatarra

LABE ZATAR

barredero de horno

labezatar iz. Mutur batean zatarra duen haga edo endaia, labea garbitzeko erabiltzen dena. [Barredero, varal con trapos para barrer el horno (Ond Bak)].

labore / labora, laboria

LABORE, UZTA

kosetxa

cosecha
cultivo

labore (eta *labora*) iz. Laborea, uzta. *Sorotik jasotzen dana da laborĭa* 'sorotik jasotzen dena da laborea'. *Ongarritutako sorwek doble labora ematen dau* 'ongarritutako soroak labore bikoitza ematen du'. ▲ Sin. *kosetxa*. ◆ **laborea bildu / jaso** (> *laborĭa bildu / jaso*). Ik. **kosetxatu**. ◆ **labore-lur**. Laborantzarako lurra, soroa. Ik. **soro**. ◆ **labore-urte**. *Labore urte ona; labore urte txarra*.

labore-lur, labore-lurra

LABORE-LUR

soro

tierra de labor

labore-lur iz. Soroa. Ik. **soro**.

labranza

LABORANTZA

nekazantza

agricultura

labranza iz. Laborantza. Ik. **nekazantza**.

ladrilu, ladrilua

ADREILU

ladrillo

ladrilu (eta *adrilua*) iz. Adreilua. *Ladriluekin indako paetĭa* 'adreiluekin egindako pareta'.

lafuxe, lafuxia (?)

[ESKOPETA MOTA (LEFAUCHEUX)]

arma de fuego [de sistema lefaucheux (?)]

lafuxe iz. Eskopeta mota [Lefaucheux eskopeta (?)].

lagundu, laguntzen

LAGUNDU

ayudar, colaborar; socorrer
acompañar

lagundu (eta *laundu*) **1** *dau/dĭa* ad. Norbaitekin zerbaitetan aritu; jardunaren zati edo pisu nagusia bestearen gain dagoelarik, laguntza eman. **2** *dau/dĭa* ad. Norbaitekin batera norabait joan; norbaiten aldean hari laguntza emanez egon. **3** *dau/dĭa* ad. Norbaiten beharrak edo premiak betetzeko zerbait egin.

lagungarri (?) LAGUNGARRI

ayuda; que ayuda; que sirve de ayuda

lagungarri (?) iz. Norbaiti edo zerbaiti laguntzen dion gauza.

laguntasun, laguntasuna LAGUNTASUN

1 laguntza. 2 konpañia

ayuda, auxilio
compañía

laguntasun (eta *launtasun*) **1** iz. Laguntza. (Ond Bak): *laguntasun*. *Laguntasunik* 'laguntzarik' *bêr den?* || *Laguntasunik eztuka* 'laguntasunik ez dauka'. ▲ Sin. *laguntza*. **2** iz. Konpainia. *Zazi amangana; launtasunik eztuka, bakarrik do* 'zoaz amarengana; laguntasunik ez dauka, bakarrik dago'. ◆ **laguntasuna eman**. **1** Laguntza eman. **2** Konpainia egin. ◆ **laguntasuna egin** (> *launtsuna in*). Konpainia egin. *Txakurrak iten dĩa (ematen dĩa) laguntasunik aundiena* 'txakurrak egiten dio (ematen dio) laguntasunik haundiena'.

laguntza LAGUNTZA

ayuda, auxilio, asistencia, colaboración, apoyo; patrocinio
compañía

laguntza (eta *launtza*) **1** iz. Norbaitek beste norbaiten alde egitea, bere ahaleginak haren ahaleginei batuz edo haren premia edo beharrei erantzunez; laguntzeko egiten edo ematen den gauza. **2** iz. Lagunartea. Ik. **laguntasun**; **konpañia**.

lahar, laharra LAHAR

zarza (Rubus sp.)

lahar (> *lar*) iz. (Bot.) Arrosaren familiako landarea (Rubus sp.). *Larrez bete(ta)* 'laharrez bete (ta)'. Ik. **sasi**. ◆ **laharrak hartu** (> *larrak artu*). Laharrez bete, laharrak jana gertatu.

lahardi, lahardia LAHARDI

zarzal

lahardi (> *lardi*) iz. Laharrez beteriko tokia. Ik. **sasidi**.

laia LAIA

laya

laia iz. Lurra iraultzeko lanabesa. *Laien eman dau goize guztia* 'laian eman du goiz guztia'. ◆ **laian ibili** (> *laien ibili*). Laian aritu, laian egin.

laiatu, laiatzen LAIATU

layar

laiatu *dau* ad. Laiaz lurra irauli. *Lurrandako, izozketan laiatzia da hobena; izotzak txehetxen dau lurra*. Ik. **goldatu**; **makinatu**. ● Esr. zah. *San Migel Maiatzeko, gure sorua laiatzeko*.

laien ibili LAIAN ARITU, EGIN

estar layando; labrando con laya

laian ibili (> *laien ibili*). Laian aritu, laian egin.

laiho sapalda

LEIHO ZAPALDA, BARLASAI

lailarri

alféizar (de la ventana)

laiho sapalda iz. Leiho zapalda, barlasaia; leihoaren azpiko aldean pareta estaltzen duen pieza horizontala, gehienetan kanpoaldera irtena dena. Ik. **lailarri**.

laiho tapa(k)

LEIHO TAPA, KONTRALEIHO

laihotila

contraventana

laiho tapa(k) iz. (Batez ere pluralean) Leihoari, normalean kanpoko aldean, babesteko edo argia sartzea eragozteko jartzen zaiona. Ik. **laihotila**.

laiho, laihua

LEIHO

ventana

laiho iz. Leihoa. *Laiho harriek*. *Laihuén* 'leihoaren' *exkin harriek*. *Laihu horren exkin harriek*. *Laihu hau, hoi, hok*. *Laihuén goiko puntia*. *Laihuén beheko barrena*. *Laihuéin* 'leihoen' *goiko puntak*. Oharra. Exkin harriek leihoaren lau aldeetako harriak dira, eta goiko eta barrengo puntak leihoaren goiko eta barrengo aldeak (Ond Bak). Ik. **balaio**.
◆ **laiho tapa(k)** iz. (Batez ere pluralean) Leihoari, normalean kanpoko aldean, babesteko edo argia sartzea eragozteko jartzen zaiona. Ik. **laihotila**.
◆ **laiho sapalda** iz. Leiho zapalda, barlasaia; leihoaren azpiko aldean pareta estaltzen duen pieza horizontala, gehienetan kanpoaldera irtena dena. Ik. **lailarri**.

laihotila, laihotilia

LEIHATILA, SAIETERA

ventanillo, postigo; saetera, ventanilla
contraventana

laihotila (> *laiotila*) **1** iz. Saietera, leihatila; hormako leiho meharra; ate eta leihoek dituzten lehiatila txikiagoak. *Etxe zarra konpondu dai ta zukatzien laiotila gúztĭek mantendu tuai* 'etxe zaharra konpondu dute eta zeuzkan leihatila guztiak mantendu dituzte'. **2** iz. Leiho tapa. *{OEH. *laiotila* (G-nav ap. Iza Alts). Contraventana. "La tabla de la ventana" (Iza Alts)}. Ik. **laiho tapa(k)**.

lailarri, lailarria

LEIHO HARRI, LEIHO KOSKA, BARLASAI

laiho-sapalda

alféizar (de la ventana)

lailarri iz. Leiho-harria, barlasaia; leihoaren azpiko aldean pareta estaltzen duen pieza horizontala, gehienetan kanpoaldera irtena dena. Ik. **laiho-sapalda**.
{OEH — LEIHO-HARRI. Antepecho, repisa de la ventana. Leio-arrian yausi zan [txoria]. Ldi BB 38}.

lainatu, lainatzen

LAINOTU

nabartu; itzaldu

aparecer la niebla, cubrir(se) de niebla
nublar(se)

lainatu **1** *da/dau* ad. Lainotu, lainoa sartu. Ik. **lainoa bota** (> *lainwa bota*). **2** *da/dau* ad. Zerua lainoz bete. Ik. **nabartu**; **itzaldu**. **3** *da/dau* ad. ? Dainatu. –{OEH. ***lainatu** (G-nav ap. A Apend). "Dañar" A Apend. v. **dainatu**. *Alkar genduen penatzen eta / arima ere lainatzen* (Urdiain). Balad 53 (tbn. en A EY IV 194)}.

laindura, lainduria

GANDU

neblina

laindura iz. Gandua; laino mehea. *Aitz azpien laindurĭa do* 'haitz azpian laindura [gandua] dago. Ik. Oharra.

laino arrastada

laino arrastada iz. (pl.) *Laino arrastadak*.

laino atzapar

ZIRRU, HODEI-LAUSO

cirro (Meteorol.)
nube baja (en formación)

laino atzapar. **1** Zirrua, hodei-lausoa. **2** Euria egin ondotik edo hezetasunagatik, basoan-eta sortzen diren laino txiki iheskorrak.

laino ixur, laino ixurra

LAINO IZUR; ZERU LAIATU, TRIPAKI-ZERU

nube o cielo rizado; cielo aborregado

laino ixur iz. Laino izurra; zeru laiatua, tripaki-zerua.

laino mehe

LAINO MEHE, HODEITXO, GANDU

laino zakar (Iza: nubarrón)

nube tenue

laino mehe. Hodeitxoa, hodei arina, gandua (Iza Alts) [nube tenue]. ▼ Anton. *laino zakar*.

laino torre, laino torria

KUMULU,

cúmulo (Meteorol.)

laino-torre / **torre-laino** iz. Kumulua, hodei zurien multzo handia, mendi itxurakoa. | Bero hodeia, udan sortzen den hodei ekaiztsua. *Oiek laino-torrĭek eldu dĭanak!* 'horiek laino-torreak heldu direnak [datozenak]'.

laino zakar

HODEITZAR

laino mehe

nubarrón

laino zakar. Hodeitzarra [nubarrón (Iza)]. ▼ Anton. *laino mehe*.

laino, lainua

LAINO; (BEHE) LAINO

erlaino

niebla; neblina
nube

laino [Singularra edo plurala izan, adiera aldatzen da] **1** iz. (Batez ere pluralean) *lainwek*. Hodeiak. **2** iz. (Singularrean) Behe lainoa, lurretik gertu dagoena; Ik. **erlaino**.

◆ **lainoa bota** (> *lainwa bota*). Lainotu. Ik. **lainatu**.

◆ **laino atzapar**. **1** Zirrua, hodei-lausoa. **2** Euria egin ondotik edo hezetasunagatik, basoan-eta sortzen diren laino txiki iheskorrak.

◆ **laino ixur** iz. Laino izurra; zeru laiatua, tripaki-zerua.

◆ **laino mehe**. Hodeitxoa, hodei arina, gandua [nube tenue (Iza Alts)]. ▼ Anton. *laino zakar*.

◆ **lainopean** (> *lainopĭen*).

◆ **lainorik gabe** (> *lainoipe*). Oskarbi, garbi, hodeirik gabe. Ik. **garbi**; **raso**.

◆ **lainoa sartu** (> *lainwa sartu*). Behe lainoa sartu.

◆**laino-torre / torre-laino**. Kumulua, hodei zurien multzo handia, mendi itxurakoa. | Bero hodeia, udan sortzen den hodei ekaiztsua. *Oiek laino-torrĭek eldu dĭanak!* 'horiek laino-torreak heldu direnak [datozenak]'.

◆ **laino zakar**. Hodeitzarra [nubarrón (Iza)]. ▼ Anton. *laino mehe*.

◆ **iper-laino**. Iparretik sartzen den lainoa, eguraldi hotza dakarrena.

lainope

LAINOPE

niebla, lugar cubierto de niebla
bajo niebla; nublado, -a

lainope **1** iz. *Ezta lainopeti atako yuzkioi!* 'ez da lainopetik aterako eguzki hori!'. ◆ **lainopean** (> *lainopĭen*) adb. 2 adb. *Irud. Burua, lainopĭen* [galduta].

lainosu, lainosua

LAINOTSU

nebuloso, -a
nublado

lainosu (ez *lainotsu*) adj. Lainotsua; laino asko duena. *Egun lainosuek* 'egun lainotsuak'.

laister

LASTER

listo, aurki

enseguida, pronto
rápido, -a; deprisa

laister adb. *Laister etorko da* 'laster etorriko da' (LM). *Gitarrĭa jotzen laister ikas dau* 'gitarra jotzen laster ikasi du'. *Laister pauso ezin inik gelditu ber da/dau* 'laster pauso ezin eginik gelditu behar da/du'. Ik. **listo**; **aurki**.

laisterkan

LASTERKA

korrika(n)

deprisa, corriendo, con prisa, rápido, rápidamente, a la carrera

laisterkan adb. Lasterka, laster eginez. *Zazi laisterkan* 'zoaz lasterka' (LM). Ik. **korrika(n)**.

laitu

IRAKURRI, LEITU

leer

laka, lakia
LAKA (1)

maquila; porción de grano o harina que corresponde al molinero por la molienda

laka iz. Errotariak, ehotze lanagatik, gehienetan gari edo artotan, hartzen zuen saria.

lakats, lakatsa
[ZIKIN]

porkeia

sucio, -a
suciedad, porquería

lakats adj./iz. Zikina. (Alderatu: **lakatz**). ▲ Sin. *zikin*; *porkeia*. [Zehaztu].

lakatz, lakatza
LAKATZ (1)

latz — *legun*

áspero, -a; rugoso, -a

lakatz adj. Latza. *Lakatza jok jatekuau* 'lakatza zagok jateko hau'. Ik. **latz**. ▼ Anton. *legun*.

lamia
[HITZ ETORRI; HITZ JARIO]

labia (Verbosidad persuasiva y gracia en el hablar)

lamia (> *lamĭa*) iz. Hitz etorria, hitz jarioa. *Orrek jukan lamĭa, orrek!* 'horrek zaukan lamia [hitz jarioa], horrek!'.

lamina, laminia
XAFLA; 2 IRUDI ORRI

oja. 2 estanpa

lámina; plancha
lámina (ilustración)

lamina **1** iz. Xafla. Ik. **oja**. **2** iz. Irudi orria. Ik. **estanpa**.

lan, lana
LAN

trabajo; labor
penalidad, molestia, trabajo; dificultad

lan **1** iz. Lan errazák békin deká nékia. Lanak in gindutzen 'genituen'. Lanak iten tunien, fan ber dezeila dio Maria Kruzek (Ond Bak). Aspertuik no lanez 'asperturik nago lanaz'. **2** iz. Arazoa, buruhaustea, zailtasuna. *Naiko lan jendĭa konbenzitzen* 'nahiko lan jendea konbentzitzen'. *Lana besteik eztó* 'lana besterik ez dago'. ◆ **lan egin** (*lan(a) in*). ◆ **lana eman** **1** Enplegua eman. **2** **lana(k) eman**. Buruhausteak eman, zailtasunak izan. *Lana besteik eztau ematen orrek* 'lana besterik ez du ematen horrek'. *Urtetxwek dukatzi, bea gwaindo lanik eztau ematen* 'urtetxoak dauzka, baina oraindik lanik ez du ematen'. ◆ **lan eta lan** (> *lan da lan*). *Or zaitzai, lan da lan?* 'hor zabiltzate, lan eta lan?'. ◆ **lan(ak) eginarazi** (> *lan(ak) inazi*). ◆ **lanean** (> *lanĭen*) adb. ◆ **lanean ibili** (> *lanĭen ibili*) adb.

lana, lania
ARTILE

ardila

lana

lana iz. Artilea. *Lanazko jersĭa* 'artilezko jertsea'. *Lanorratza, lanarekin lan iteko* 'lanorratza, artilearekin lan egiteko' (Ond Bak). Ik. **ardila**.

lanbat, lanbata
LARUNBAT

sábado

larunbat (> *lanbat*) iz. Asteko seigarren eguna. *Elduan lanbatien asi ta domekan despeituko tuai zelebraziuek* 'heldu den larunbatean hasi, eta domekan despedituko [amaituko] dituzte ospakizunak'.

lanbatio

LARUNBATERO

todos los sábados

larunbatero (> *lanbatĭo*) adb.

lanbide, lanbidia

LANBIDE

lan, ofizio, ogibide, profesio

profesión, trabajo, oficio
trabajo, labor, tarea

lanbide **1** iz. Bizibidea ateratzeko balio duen jarduera. ▲ Sin. *lan*, *ofizio*, *ogibide*, *profesio*. **2** iz. Egitekoa. *Lanbide asko do etxe batĭen* 'lanbide asko dago etxe batean' (Ond Bak). *A ze lanbidĭa!* 'a zer lanbidea!'. ◆ **lanbide ona** (> *lanbidĭona*). (Ironiazko adieran) Lan asko; lan nekeza. *Txixa iten dau; ta egunĭo oia aldatzen, lanbide ona!* 'txiza egiten du; eta egunero ohea aldatzen, lanbide ona!'.

lanbro, lanbrua

LANBRO

lanbroketa; lanbur, lanburketa; langar

llovizna

lanbro (eta *lanbru*) iz. (Iza Alts). Tanta guztiz xeheetan erortzen den euria. ▲ Sin. *lanbroketa*. Ik. **lanbur**; **langar**.

lanbroketa, lanbroketia

LANBRO

lanburketa, lanbur

llovizna, lluvia menuda

lanbroketa (> *lanbroketí* [Altsasu]) iz. (Iza Alts). Ik. **lanbro** (> *lanbru*); **lanbur**, **lanburketa**.

lanbroketan

(EURI) LANBROA ARI

lanburketan, langarketan

lloviznando

lanbroketan adb. Euri lanbroa ekarri. {*Lanbroketan doo* 'lanbroketan dago' [está lloviznando] (Iza Alts)}. ▲ Sin. *lanburketan*; *langarketan*.

lanbroketi

LANBRO

lanbro / lanbru; lanburketa; langarketa

llovizna, llovizneo; lluvia menuda
lloviznando

lanbroketa (> *lanbroketí*) iz. (Iza Alts). ▲ Sin. *lanbro*. Ik. **lanburketa**. ◆ **lanbroketan** adb. Euri lanbroa ekarri. {*Lanbroketan doo* 'lanbroketan dago' [está lloviznando] (Iza Alts)}. ▲ Sin. *lanburketan*; *langarketan*.

lanbru

LANBRO

lanbur

llovizna

lanbur, lanburra

LANDUR, LANBRO

lanburketa, lanbru, langar

niebla meona, calabobos

lanbur iz. Landurra, lanbroa; tanta guztiz xeheetan erortzen den euria. ▲ Sin. *lanbro* (> *lanbru*) [Altsasu]; *lanburketa*. Ik. **langar**.

lanburketa, lanburketia

LANBRO

lanbur; lanbru, lanbroketa; langar, langarketa

llovizna, lluvia menuda
lloviznando

lanburketa iz. Euri lanbroa, landurra. *Lanburketĭa ona da patatĭa yaiteko* 'lanburketa ona da patata ereiteko'. Ik. **lanbroketa** (> *lanbroketí*). ▲ Sin. *lanbur*; *lanbru*; *langar*, *langarketa*. ◆ **lanburketan** adb. ▲ Sin. *lanbroketan*; *langarketan*.

lanburketan

LANDURRETAN*

langarketan

lloviznando

lanburketan adb. ▲ Sin. *lanbroketan*; *langarketan*.

landara, landaria

LANDARE

planta

planta, vegetal
planta, plantón

landara iz. Landarea. ▲ Sin. *planta*.

landatu, landatzen

LANDATU

plantatu

plantar

landatu *dau* ad. (?) ▲ Sin. *plantatu*.

landu, lantzen

LANDU

cultivar, labrar, trabajar
labrar, trabajar; tallar

landu **1** *dau* ad. *Lurra landu*. *Bostortza pasatuta, sorwek landu* 'bostortza pasatuta, soroak landu'. **2** *dau* ad. Harria, egurra landu. **3** (Era burutua izenondo gisa). *Lur landua*. *Harri landua* (?).

lanegun, laneguna

LANEGUN

astegun

jaiegun, jai

día laborable, día de labor

lanegun (eta *llanegun*). iz. Ik. **astegun**. ▼ Anton. *jaiegun*, *jai*.

lanezko arropa, lanezkua / llanezko arropa

LANEKO ARROPA, EGUNEROKO ARROPA

ropa de diario, ropa de entre semana

lanezko arropa (eta *llanezko arropa*). Lan eguneko arropa, astegunetako arropa. [Desberdindu egiten dira *llanezko arropa* eta *laneko arropa*]. *Llanezko arropĭa*. Ik. **laneko arropa**; **jaiezko arropa**.

langa hagai, langa hagai

LANGA HAGA, LANGARA

travesaño de la cancilla; barra de quita y pon de un paso del cerco

langa hagai iz. Langa ixteko zeharraga, langara.

langa, langia
LANGA

cancilla; verja, barrera

langa iz. Esparru edo bide bateko sarbidea eragozteko barrera, ireki eta itxi egin daitekeena; garai batean, zeharka jartzen zen haga multzoz egina zegoena. *Langien trabesañuek* 'langaren langetak'. ◆ **langa hagai** iz. Langa ixteko zeharraga, langara.

langar, langarra
LANGAR

lanbur, lanburketa, lanbru, lanbroketa

llovizna

langar iz. Euri lanbroa. Ik. **lanbur**, **lanbro** (> *lanbru*); **lanbroketa**; **lanburketa**.

langarketa, langarketia
LANGAR

langar; lanbroketa, lanburketa

langarketa iz. Langarra, euri xehea. ▲ Sin. *langar*. Ik. **lanbroketa**, **lanburketa**. ◆ **langarketan** adb. Ik. **lanbroketan**, **lanburketan**.

langarketan
LANGAR

lanbroketan, lanburketan

langarketan adb. Ik. **lanbroketan**, **lanburketan**.

langile, langilia
LANGILE

obrero

trabajador, -a; operario, -a; empleado, -a; obrero, -a
trabajador, -a; hacendoso, -a; activo, -a

langile **1** iz. *Beste bi langile artu tuai fabrikan* 'beste bi langile hartu dituzte fabrikan'. *Langile klasĭa* 'langile klasea'. Ik. **obrero**. **2** adj. Lan egitera emana, lan asko egiten duena, lanerako zaletasuna duena. *Langile txarra*. *Ez ta gelditzen; langilia da* 'ez da gelditzen; langilea da'

langusta
KARRAMARRO

kangreju, ibaiko kangreju

cangrejo de río

langusta [Bakaiku] iz. Ibai karramarroa (Ond Bak). Ik. **kangreju**.

lanleku, lanlekua
LANLEKU

puesto de trabajo

lanleku iz. *Ez zukain lanlekwik* 'ez zuten lanlekurik'.

lanordu, lanordua
LANORDU

hora (de trabajo)

lanordu iz. (?) *Laneko ordua*; *lanĭako ordua* 'lanerako ordua'.

lanorratz
ORRATZ ⌈ARTILEZ JOSI EDO EHUNTZEKO

galtzorratz (?)

aguja lanera

lanorratz iz. Orratz mota, artilearekin josteko edo ehuntzeko erabiltzen dena. {Aguja para tejer lana. *Lanarekin lan iteko* (Ond Bak)}. Ik. **galtzorratz**.

lanpara, lanparia

LANPARA

lámpara

lanpara **1** iz. Argiontzia. Ik. **kriselu** / **krisilu**; **kandil**; **karburo ontzi**. **2** iz. Bonbilla edo kandela baten edo gehiagoren euskarri den tresna.

lantai, lantaia

LANTEGI

lugar de trabajo (principalmente en el monte); explotación forestal
lugar en que se hace el lote de leña

lantei, lanteia

LANTEGI; LANTOKI

lugar de trabajo (principalmente en el monte); explotación forestal
lugar en que se hace el lote de leña

lantegi (eta *lantei*, *lantai*) **1** iz. Lan egiteko tokia, batez ere basoan egiten dena. **2** iz. Lantegi (Ond Bak) (lote de leña; lugar en que cada año se señala a cada familia ese lote de leña).

lantxurda, lantxurdia

LANTXURDA; 2 IZOTZ BURRUNTZI, IZOTZ

2 izotz garranga

escarcha; hielo; helada
carámbano

lantxurda [Singularra edo plurala izan, adiera aldatzen da]. **1** iz. (sing.) [(Iza Alts), Urdiain]. Lantzurda, antzigarra, izotz zuria. ◆ **lantxurda bota** (> *lantxurdĭa bota*). Lantxurda egin. Ik. **izotz zuri** (> *izotz zwi*). **2** iz. (pl.) Izotz burruntzia, izotz kandela. *Lantxurdak*. ▲ Sin. *izotz garranga*.

lantxurdia bota

LANTXURDA EGIN

escarchar

lantxurdia bota. Lantxurda egin.

lapa latx, lapa latxa

USO-BELAR

agrimonia (?)

lapa latx. iz. (Bot.) Uso-belarra (Agrimonia eupatoria) (?) LM.

lapa, lapia (haundiek eta txikiek)

LAPA-BELAR

lampazo, bardana (Arctium lappa); lampazo menor (Arctium minus)

lapa iz. (Bot.) Lapa belarra (Arctium lappa; Arctium minus). *Lapa haundiek eta txikiek*. ◆ **lapa latx**. iz. (Bot.) Uso-belarra (Agrimonia eupatoria) (?) LM.

lapaintz, lapaintza

MINGARRATZ ARRUNT

acedera común, vinagrera

lapaintz iz. (Bot.) Mingarratz arrunta, *Polygonaceae* familiako landarea, hosto garratzak eta jateko onak dituena (Rumex acetosa).

lapatx, lapatxa

LAPATX*, (ELUR) PIKOR

gránulo (de nieve), copo de nieve pequeño

lapatx iz./adj. Elur pikorra, elur maluta txikia eta borobila; pikor gisako malutetan erortzen den elurra. Ik. **elur lapatx**.

lapiko, lapikua

LAPIKO

olla, puchero
cocido, olla
hucha, alcancía

lapiko **1** iz. G.g.er. Eltzea. **2** iz. Lapikokoa. **3** iz. Dirua gordetzeko itsulapikoa. Ik. **eltzemutu**. ◆ **lapikoa egin** (> *lapikwa in*). Lapikokoa prestatu, egosi.

lapiz, lapiza

LAPITZ

lápiz

lapiz iz. Lapitza, arkatza. *Ataiozu lapizai puntĭa* 'atera egiozu [iezaiozu] lapitzari punta'.

lapur, lapurra

LAPUR

ladrón, -ona

lapur iz. Lapurtzen duena. *Danak lapurrak* 'denak lapurrak'. *Arrapatu dai lapurra* 'harrapatu dute lapurra'.

lapurreia

LAPURRERIA

lapurreta

robo, hurto; latrocinio

lapurreria (> *lapurreia*) iz. Lapurreta. *Lapurreia gogoti yon da gwai're* 'lapurreria gogotik egon da orain ere'. Ik. **lapurreta**. ◆ **lapurrerian** (> *lapurreien*) adb. *Lapurreien jaitzak oiek biek* 'lapurrerian zabiltzak horiek biak'. Ik. **lapurretan**.

lapurreta, lapurretia

LAPURRETA

lapurreia

robo, hurto; atraco

lapurreta iz. Lapurtzea. *Aldameneko etxĭen lapurretĭa in emen dai* 'aldameneko etxean lapurreta egin omen dute'. Ik. **lapurreria** (> *lapurreia*). ◆ **lapurretan** adb. Lapurtzen. *Lapurretan arrapatu dai* 'lapurretan harrapatu dute'. Ik. **lapurrerian** (> *lapurreien*). ◆ **lapurretan ibili**. Lapurretan aritu. *Gwai're lapurretan daitza* 'orain ere lapurretan dabiltza'.

lapurretan

LAPURRETAN

lapurreien

robando

lapurretan adb. Lapurtzen. *Lapurretan arrapatu dai* 'lapurretan harrapatu dute'. Ik. **lapurrerian** (> *lapurreien*). ◆ **lapurretan ibili**. Lapurretan aritu. *Gwai're lapurretan daitza* 'orain ere lapurretan dabiltza'.

lapurtu, lapurtzen

LAPURTU

ostu

robar, hurtar

lapurtu *dau* ad. Norberarena ez den zerbaitez jabetu, indarrez, ezkutuan edo iruzurrez. *Oilwek lapurtu dĭatziai* 'oiloak lapurtu dizkiote'. Ik. **ostu**.

lar, larra

LAHAR

zarza (Rubus sp.)

lahar (> *lar*) iz. (Bot.) Arrosaren familiako landarea (Rubus sp.). ◆ **larrak hartu**. Utzitako edo zaindu gabeko lursailagatik esaten da. *Sorwa larrak hartu* 'soroa laharrak hartu'.

larba, larbia

LARBA

larva

larba iz. Intsektuen kumea, har itxurakoa. Ik. **har**.

lardi, lardia

LAHARDI

zarzal

lardi iz. Ik. **lahardi**.

larogei

LAUROGEI

ochenta

laurogei (> *larogei*) zenbtz. Zortzi bider hamar, 80.

larogeigarren

LAUROGEIGARREN

octogésimo, ma

laurogeigarren (> *larogeigarren*) ord. Zerrenda batean aurretik hirurogeita hemeretzi dituena (80.).

larogeita hamar

LAUROGEITA HAMAR

noventa

larogeita hamar (> *larogeitamar*) **1** zenbtz. Laurogeita hamar; bederatzi bider hamar, 90. *Yainun bete zituen larogeitamar urte* 'herenegun bete zituen laurogeita hamar urte'. *Larogeitamargarren* 'laurogeita hamargarren'. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan laurogeita hamargarrena.

larrain, larraina

LARRAIN

era

larrain (eta *larreina*) iz. Garia eta gainerako laboreak eultzitzen diren leku zelaia. *Yuntziek iteko larrainan* (Ond Bak). *Larraina ongarritu: yuntziek iteko, behi kaka ta urakin indako masia ematen zezaion larrainai*. *Larrain ongarria*. ◆ **larrain toki**. *Larrain tokia*, larraina egiteko lekua.

larre pago, larre pagua

LARRE PAGO

haya (de pradera); haya solitaria; haya que crece en campo abierto, de copa abierta y gran

larre pago. (Bot.) Larreko pagoa, basoa osatzen ez duena; zabalgunean hazi izanagatik, normalean abartsua.

larre, larria

LARRE

beardi, bear-soro

pastizal, prado, pradera

larre iz. *San Mielgo larre luzien* (Ond Bak). *Larrĭa moztu dai* 'larrea moztu dute [belarra egin]. Ik. **belar-sor** (> *bear-soro*, *bĭar-soro*); **belardi** (> *beardi*) ◆ **larre autzi**. *Larre autzi dai sorwa* 'larre utzi dute soroa'. Ik. **alfer autzi**. ◆ **larre pago**. Larreko pagoa, basoa osatzen ez duena; zabalgunean hazi izanagatik, normalean abartsua. ◆ **larrera bota** (> *larrĭá bota*). *Animaliek larrĭa bota, jateko*. ◆ **larre-soro**, larre-sorua. ¬

larrein, larreina

LARRAIN

era

larresoro

LARRE SORO; LARRE

bear-soro, beardi, larre

pastizal, prado, pradera

larresoro iz. Larre soroa, larrea; belarra hazten den landa; abereak bazkatzen diren belardia. Ik. **belar soro** (> *bear soro*); **belardi** (> *beardi*); **larre**.

larri ibili

LARRI IBILI

seguramente que...; casi seguro que...; apostaría a que...
seguramente que sí, casi seguro que sí, apostaría a que sí

larri ibili **1** Norbaitek zerbaitez duen susmoa edo ustea adierazteko erabiltzen den esapidea; zerbait posible izan daitekeela adierazteko erabiltzen den esapidea. *Larri ibili orrek ibazten!* 'larri ibili horrek irabazten!'. *Larri ibili gaur kazkarra botatzen!* 'larri ibili gaur kazkabarra botatzen!'. **2** (Erantzunetan, solaskideak agertu duen susmoarekin bat gatozela adierazteko). —*Moxkor talde orrek maldaden bat in ber dik.* —*Bai, larri ibili!* '—mozkor talde horrek maldaderen bat egin behar dik. —Bai, larri ibili!'.

larri yon

LARRI EGON

estar apurado, -a; estar apremiado, -a; estar apretado, -a.
estar indispuesto, -a; estar de mal cuerpo; estar grave
estar deseando, anhelando, ardiendo en deseos

larri egon (> *larri yon*). **1** adb. Estutasunean; ondoezik edo kezka biziko egoera batean egon. *Txixakurriek larri yon* 'txizagurak larri egon'. *Kakakurriek larri yon* 'kakagurak larri egon'. || *Larri yon da, ilzorien* 'larri egon da, hilzorian'. **2** adb. Gogoz; irrikan. *Au larri jok afal ordua dala ta* 'hau larri zagok afal ordua dela eta [afaritarako gogoz]. *Au larri jok pasĭa fateko* 'hau larri zagok [gogoz zagok] paseatzera joateko'. Ik. **gogo**; **deseatu**.

larri, larria

LARRI (1)

txehe

grueso, -a
angustioso, -a; apremiante; grave
apuradamente; con apuros; con dificultad; a duras penas; angustiado, -a; angustiosamente
deseando, anhelando, ardiendo en deseos

larri[1] **1** adj. Handia. *Gatz larria*. ▼ Anton. **txehe**. **2** adj. Ondoeza edo kezka bizia sortzen duena. *Problema larria da*. *Gaitz larria duka* 'gaitz larria dauka'. **3** adb. Estutasunean. *Larri daile* 'larri dabil'. *Estu ta larri*. Ik. **estu**. **4** adb. Gogoz; irrikan. Ik. **larri egon** (> *larri yon*). *Larri, mutxika fateko* 'larri [gogoz] jolastera joateko'. ◆ **larri egon** (> *larri yon*). **1** adb. Estutasunean; ondoezik edo kezka biziko egoera batean egon. *Txixakurriek larri yon* 'txizagurak larri egon'. *Kakakurriek larri yon* 'kakagurak larri egon'. || *Larri yon da, ilzorien* 'larri egon da, hilzorian'. **2** adb. Gogoz; irrikan. *Au larri jok afal ordua dala ta* 'hau larri zagok afal ordua dela eta [afaritarako gogoz]. *Au larri jok pasĭa fateko* 'hau larri zagok [gogoz zagok] paseatzera joateko'. Ik. **gogo**; **deseatu**. ◆ **larri ibili** adb. Estutasunean; ondoezetik edo kezka biziko egoera batetik irten ezinik. *Larri naile; larri zaitza; larri daile* (...). ◆ **larri ibili** (esapidea) **1** Norbaitek zerbaitez duen susmoa edo ustea adierazteko erabiltzen den esapidea; zerbait posible izan daitekeela adierazteko erabiltzen den esapidea. *Larri ibili orrek ibazten!* 'larri ibili horrek irabazten!'. *Larri ibili gaur kazkarra botatzen!* 'larri ibili gaur kazkabarra botatzen!'. **2** (Erantzunetan, solaskideak agertu duen susmoarekin bat gatozela adierazteko). *—Moxkor talde orrek maldaden bat in ber dik*. *—Bai, larri ibili!* '—mozkor talde horrek maldaderen bat egin behar dik. —Bai, larri ibili!'.

larri, larria

LARRI (2)

larritasun, estu

apuro; angustia; estrechez; congoja; gravedad, importancia

larri[2] iz. Larritasuna. *Larria dukat* 'larria daukat'. *Estu ta larri*. Ik. **estu**; **larritasun**.

larrialdi, larrialdia

LARRIALDI

estualdi

momento crítico; crisis; aprieto; urgencia; mal rato

larrialdi iz. Larritasunezko unea edo denbora. Ik. **estualdi**. ¬

larritasun, larritasuna

LARRITASUN

larri(a), estutasun, apuro

angustia, inquietud, aflicción; malestar, mala disposición del cuerpo
gravedad, importancia

larritasun **1** iz. Larri dagoenaren egoera. Ik. **larri(a)**; **estutasun**; **apuro**. **2** iz. Larria denaren nolakotasuna.

larritu, larritzen

LARRITU

apuatu, estutu

acongojar(se), apurarse

larritu *da/dau* ad. Larritasunak hartu, egoera larrian jarri. Ik. **apuratu** (> *apwatu*); **estutu**.

lasai, lasaia
LASAI

geldi, bare, trankilo, manso

tranquilo, -a; calmado, -a; sosegado, -a; reposado, -a
tranquilo, -a; quieto, -a; calmo, -a; con tranquilidad; tranquilamente, relajadamente; con calma;

lasai **1** adj. Estutasunik, kezkarik edo larritasunik gabea. Ik. **geldi**, **trankilo**; **manso**. **2** adb. Estutasunik, kezkarik edo larritasunik gabe. ▲ Sin. *geldi*, *bare*, *trankilo*.

lasaialdi, lasaialdia
LASAIALDI

descanso, desahogo, alivio

lasaialdi iz. Lasaitua; lasaitasunezko denbora. *Lasaialdi ederra artu dot lanok despeitu tunĭen* 'lasaialdi ederra hartu dut lanok despeditu [bukatu] ditugunean'.

lasaigarri (?)
LASAIGARRI

calmante, tranquilizante, tranquilizador, -a; apaciguador, -a

lasaigarri (?) adj./iz.

lasaitasun, lasaitasuna
LASAITASUN

trankilidade; alibio; deskanso

tranquilidad, calma, sosiego
alivio, desahogo, consuelo

lasaitasun iz. Estutasunik, kezkarik edo larritasunik eza. Ik. **trankilidade**; **alibio**; **deskanso**. ¬

lasaitu, lasaitzen
LASAITU

trankilizatu — *larritu*

tranquilizar(se), calmar(se), sosegar(se), apaciguar(se), aliviar(se); relajar(se)
desahogar(se), desfogar(se)

lasaitu *da/dau* ad. Larritasuna, kezka edo urduritasuna galdu edo kendu. ▲ Sin. *trankilizatu*, *soseatu*. ▼ Anton. *larritu*. [Oharra: lasaitu ≠ lasatu].

lasatu, lasatzen
LASAITU, LAXATU

zabaldu — *estutu*

aflojar(se)

lasatu da/dau ad. Lasaitu, laxatu. (Iza Alts): (aflojar). Zapatak denborarekin iten dia lasatu (Ond Bak). *Tapilua lasatwik* 'korapiloa laxaturik'. Ik. **zabaldu**. ▼ Anton. *estutu*. [Oharra: lasatu ≠ lasaitu].

laso, lasua
LASAI, NASAI

zabal — *estu, medar*

ancho, -a, holgado, -a; suelto; -a; flojo, -a
laso, -a

laso (eta *lasu* [Altsasu]) adj. Lasaia, nasaia. *Laso dukatzizu pantalon oiek* 'lasai dauzkazu praka horiek'. ◆ **laso egon, ibili [eduki]** (> *laso yon, ibili*). *Aitxurrak laso duka girtena* 'aitzurrak laso dauka kirtena'. Ik. **olgura**.
◆ **ogi laso** [Altsasu]. Ogi harroa, arola; trinkotasun gutxiko ogia (pan fofo).
◆ **urde laso**. *Urde laso 'flojo' bat. Urdia da lasuó. Bestiék dia estuó, eztia haunditzen* (Ond Bak).

lastai, lastaia

LASTAIRA

colchón; jerga o jergón de perfolla, paja, etc.

lastai iz. Lastaira; ehunezko zaku modukoa, handia, gai bigun edo malguz betea dena, gehienetan somierraren gainean jarriz, lo egiteko erabiltzen dena. *Leno borrostoz betetakwek izaten zĭanen lastaiek, gwai Arkupen latexezkwek saltzen jitunai* 'lehenago borrostoz betetakoak izaten zitunan lastairak, orain Arkupen latexezkoak saltzen ditizten'. [*Borrosto*, artaburuaren hostoa. *Arkupe*, Altsasuko altzari denda bat]. *Borrostwekin iten zan lastaia* 'borrostoekin [(artoaren) zurikinarekin] egiten zen lastaira'. *Ardilazkwa izaten zan koltxona ta borrostweikin indakua, lastaia* 'artilezkoa izaten zen koltxoia eta borrostoekin [zurikinarekin] egindakoa, lastaira'. || *Lastaia: artuen borrostua oihal batien sartu (ta joskura bat autzi zabalik), alde guzitati josi ta erdien zirritu bat autzi zabalik, josi be, handi borrostua sartzeko ta geo eskuekin zirritu hartati harrotzeko, lo iteko. Lastaia zan muellen partez; gainien, koltxona* (Ond Bak).

lastail, lastaila

URRI

octubre

lastail iz. Urteko hamargarren hila; urria. [Oharra: Burundan, *urria* urteko bederatzigarren hila da]. ¬

lastalazaro, lastalazarua

[INAUTEETAKO MOZORRO BEREZIA]

personaje del carnaval (embutido en un grueso disfraz de arpillera, relleno de heno)

lastalazaro iz. Inauteetako jantzia; gorputza eta gorputz adarrak, besoak eta zangoak ere, belar idorrez beteriko zakuekin estaliz jantzitako «momoxarroa». *Lastalazaro lodi-lodi batzuk* (AG). Ik. **lastarozahar** (> *lastarozar*).

lastarozar, lastarozarra / lastarozahar

[INAUTEETAKO MOZORRO BEREZIA]

personaje del carnaval (vestido con piel de oveja, lleva cencerros y capirote con cintas de

lastarozahar (> *lastarozar*) iz. Inauteetako «momoxarro» jantzi berezia. *Lastarozarra; soin-bizkarĭen ardi narrua dukana, kukurutxwa kolorezko zintakin ta, otsa atatzeko, farak gerrien o bizkarrĭen* 'lastarozaharra; soin-bizkarrean ardi larrua daukana, kukurutxoa [txano puntaduna] kolorezko zintekin eta, hotsa ateratzeko, joareak gerrian edo bizkarrean'. Ik. **lastalazaro**.

lastatei, lastateia

LASTATEGI

agoztai [Urdiain]

pajar

lastategi (> *lastatei*) [Altsasu] iz. Lastoa gordetzen den tokia. Ik. **ahoztegi** (> *agoztai*).

lastima

LASTIMA

pena

lástima, compasión

interj. usada para expresar pesar ante algo que no sucede como se esperaba

lastima iz. Nahigabea edo atsekabea sortzen duen gauza. *Lastima ematen dau* 'lastima ematen du'. Ik. **pena**. **2** interj. *Lastima ibili ga ibili gan moduen!* 'lastima ibili gara ibili garen moduan!'.

lastimagarri, lastimagarria

LASTIMAGARRI

digno de lástima; digno de compasión; que causa compasión

lastimagarri adj. Lastima ematen duena. *Lastimagarri do gaixuoi!* 'lastimagarri dago gaixo hori!'.

lastimatu, lastimatzen

PENATU

errukitu, kupitu; penatu

compadecer(se), tener lastima

lastimatu *da* ad. Penatu. *Raso lastimatu naiz emakumioi ola ikusita* 'arras lastimatu naiz emakume hori horrela ikusita' (LM). *Lastimatwik no taberně itxi ber daila ta* 'penaturik nago taberna itxi behar dutela eta'. Ik. **errukitu**, **kupitu**; **penatu**.

lasto, lastua

LASTO

caña (del maíz); mata seca (de patata, tomate, judía, etc), tallo herbáceo seco

lasto iz. Hainbat landareren zurtoina, bereziki ihartua. *Maizlasto, babalasto, patatalasto, indiabalasto, bea gariena, agotza da* 'maiz lasto, patata lasto, indaba lasto, baina gariarena *agotza* [ahotza] da'. || *Lastu'áu yantzan* 'eraman ezan' (Ond Bak). (Oharra: Gariaren, garagarraren eta kideko landareen zurtoin ihartuari *agotz* 'ahotz' esaten zaio). Ik. **agotz**.

lata, latia

LATA (1)

lata; tabla delgada sobre la cual se aseguran las tejas.

lata iz. Teilatuetan, teilen euskarri, ezartzen den ohola. *Teilatuko latĭa*. Ik. **baztar**.

latx, latxa

latx **1** iz. (Bot.) Ik. **otalatx** (≠).
2 iz. Gaztina latxak "Latx, castañas tempranas" (Ond Bak).

latxa

ERRATZ

rusco, brusco (Ruscus aculeatus)

latxa iz. (Bot.) Erratza, ezkata moduko hostoak dituen zuhaixka erraboilduna, hostoen gainean bola gorritxoak ematen dituena (Ruscus aculeatus). *Latxa ibiltzen da amegunak kentzekwa iteko* 'latxa ibiltzen da amaraunak kentzekoa egiteko'.

latz, latza

LATZ

lakatz — *legun*

áspero, -a; rugoso, -a; basto, -a
duro, -a; difícil; desapacible; rudo, -a; severo, -a; austero, -a

latz **1** adj. *Ile latza*. Ik. **lakatz**. ▼ Anton. *legun*. **2** adj. Atsegina edo gozoa ez dena, gogorra, nekagarria. *Aldapa latza*. ◆ **latzak aditu** (> *latzak aĭtu*). ◆ **latzak esan**. Ik. **sauzatarrak atera** (> *sauzatarrak* / *saustarrak ata*); **sakatsak atera**, **esan**. ◆ **narru latza**. (esap.)

lau

LAU

cuatro

lau zenbtz. *lau*, *lauk*, *lauek*, *lautan*. *Lau egun garrengo* [en cuatro días]. ◆ **lau aldiz ehun** (> *lau aldiz egun*). Laurehun. ◆ **lau hankako** iz. Lau hanka dituen animalia. *Astakeia aundiokwek iten jitunai bi ankakwok lau ankakwek baindo* 'astakeria handiagokoak egiten ditizten bi hankakook lau hankakoak baino' [*Bi hankako*, gizakia]. ◆ **lautan** adb. Lau aldiz.

lau hankako, lau hankakua

LAUOINEKO

cuadrúpedo, -a

lau hankako iz. Lau hanka dituen animalia. *Astakeia aundiokwek iten jitunai bi ankakwok lau ankakwek baindo* 'astakeria handiagokoak egiten ditizten bi hankakook lau hankakoak baino' [*Bi hankako*, gizakia].

laugarren, laugarrena

LAUGARREN

cuarto, -a

laugarren **1** ord. Zerrenda batean aurretik hiru dituena (4.). *Laugarren pisuen bizi da* 'laugarren pisuan bizi da'. **2** adb. *Laugarren in dau korrikan* 'laugarren egin du korrikan'. ◆ **laugarrenean** (> *laugarrenĭen*) **1** adb. Laugarren lekuan. *Laugarrenĭen ezta iyuere bizi* 'laugarrenean ez da inor ere bizi'. **2** adb. Laugarren aldiz. *Laugarrenĭen aprobatu dot esamena* 'laugarrenean aprobatu [gainditu] dut etsamina [azterketa]'.

lauki, laukia

LAUKI

cuatrillizo, -a
camada de cuatro crías

lauki iz./adj. Senideez edo umeez mintzatuz, lauko sabelaldi berean jaiotakoa. {"*Laukiyak*, [...] cuatrillizos" (Iza Alts)}.

lauko, laukua

LAUKO

cuarto (moneda de cobre española cuyo valor era el de cuatro maravedís de vellón)
cuatro (juego de cartas); de cuatro

lauko **1** iz. Lau marabediko diru zaharra. || *Laukuék, lau madi: 5 zentimo* (Ond Bak). || • *Laukweten ganbioik ez balio* 'lauko baten kanbiorik ez balio'. *Laukweten ganbioik eztĭet balio* 'lauko baten kanbiorik ez diat balio'. || **2** adj./iz. *Aurreti lauko talde bat zuen* 'aurretik lauko talde bat zihoan'. | Joko kartez mintzatuz, sail bereko lau irudi dituena. *Lauko kopĭa* 'lauko kopa'. ◆ **lauko bat ez balio**. *Osasunez juxto daile, lauko bat eztau balio* 'osasunez justu-justu dabil'. || OEH. "Iru arruntza. Arruntzií? Laukuna; eta geore paratzen éeéz. [...]. Arróntzií; láukuú, arrontzik, el huevo valía 5 cént. y aun así no nos ponían. Arrontzatek-e zortzíku balíyo eta bí, biperríz-e irú laukó, eta dirúba yon balítz zortzíku etzínen balíoko arróntzik eta guaái?" Iz Als (s.v. arrontzi).

laun, launa

LAGUN

aixkide

compañero, -a, acompañante; camarada; amigo, -a
persona, individuo
pareja (referido a cosas que forman pareja como calcetines, zapatos, guantes, etc)

lagun (> eta *láun*) **1** iz. Adiskidea. Ik. **aixkide**. || (Ond Bak): lagun. Ezkontzeko lagunak.
2 hainbat lagun.
3 iz. Parea osatzen duten gauzei gagozkiela: *Galtzĭen launa* 'galtzerdiaren laguna'. *Eztot bilatzen galtzĭonen launa* 'ez dut bilatzen [aurkitzen] galtzerdi honen laguna.
◆ **lagun egin** (> *laun in*). Adiskide egin.
◆ **lagun handi** (> *laun aundi*). *Laun aundiek gindan biok* 'lagun handiak ginen biok'. ¬

launarte, launartia

LAGUNARTE

compañía; grupo de amigos, -as; amistades; ambiente (de amistad)

lagunarte (> *launarte*) **1** iz. Lagunekin izatea, laguntzea. **2** iz. Toki batean gertatzen diren lagunen multzoa.

laundu, launtzen dia
LAGUNDU

3 erremeiatu, sokorritu

acompañar
ayudar, contribuir
ayudar, socorrer

lagundu (> *laundu*) **1** *dĭa* ad. Norbaitekin batera norabait joan; norbaiten aldean hari laguntza emanez egon. *Laundu iozu etxĭaindo* 'lagundu egiozu etxeraino'.
2 *dau/dĭa* ad. Norbaitekin zerbaitetan aritu; jardunaren zati edo pisu nagusia bestearen gain dagoelarik, laguntza eman. *Zerbeitetan laundu nai dot* 'zerbaitetan lagundu nahi dut'.
3 *dau/dĭa* ad. Norbaiten beharrak edo premiak betetzeko zerbait egin. Ik. **erremeiatu**; **sokorritu**; **karidadea egin** (> *karidadĭa in*).

laungura
LAGUNGURA

deseo de compañía

lagungura (> *laungura*) iz. • Esr. zah. *Artzai txarra, laungura* 'artzain txarra, lagungura'.

launtasun, launtasuna
LAGUNTASUN

ayuda, auxilio
compañía

launtza
LAGUNTZA

ayuda, auxilio, asistencia, colaboración, apoyo; patrocinio
compañía

launtzaile, launtzailia
LAGUNTZAILE

ayudante, asistente; auxiliador, -a

laguntzaile (> *launtzaile*) adj./iz. Norbaiti zerbaitetan laguntzen diona; norbaiti bere premiak betetzen laguntzen diona.

laurden, laurdena
LAURDEN

kuarto

cuarto; cuarta parte

laurden iz. Lau zati berdinetan banatu den zerbaiten zati bakoitza.

lauregun
LAUREHUN

alu aldiz egun

cuatrocientos, -as

lauregun **1** zenbtz. Laurehun; lau bider ehun, 400. *Ayeko etxĭek badukatzi lauregun urte* 'Ayeko etxeak badauzka laurehun urte [Ayeko: Urdiaingo etxe baten izena]'. ▲ Sin. *lau aldiz egun* 'lau aldiz ehun'. **2** iz. Laurehun; zenbaki arrunten segidan laurehungarrena.

laurela, laurelia
EREINOTZ, ERRAMU

laurel (Laurus nobilis)

laurela (*a* itsatsia) iz. (Bot.) Ereinotza (*Laurus nobilis*).

laurri, laurria
NEURRI

medida; tamaño, dimensión

laurri [Bakaiku] iz. Neurria. Ik. **naurri**.

laurritu, laurritzen

NEURTU, NEURRITU

medir

laurritu [Bakaiku] *dau* ad. Neurtu, neurritu. Ik. **naurritu**.

lauso

IKARA (?)

repeluzno (?) | aturdimiento?
repelús (?)

lauso iz. Ikara (?). *Lauso bat eman dua* (repeluzno?; aturdimiento?). || Lauso pixkat badia (repelús).

lazaro (eguna)

NEKALDI IGANDE, PASIO IGANDE

Domingo de Lázaro, Domingo de Pasión (quinto domingo de Cuaresma)

lazaro egun iz. Erl. *Lazaro eguna*, Pasio igandea. • Esr. zah. *Lazaro hotzak hil, Erramu urak yan* [San Lazaro egunean hotzak hil, Erramu-egunean urak eraman]. {*OEH: "*Lazaro* llaman en Urdiain al domingo de Pasión" CEEN 1969, 79.}.

lazka

NAZKA

oka

asco, repugnancia, náuseas

lazka iz. Nazka, higuina. Ik. **oka**. ◆ **lazka eman**. Nazka eman. *Lazka ematen duai kunkunak* 'nazka ematen didate apoek'. ◆ **lazka-lazka egin** / **lazka-lazka eginda egon** (> *lazka-lazkĭa (inda) yon*). Nazka-nazka eginda egon. *Lazka-lazkia inda no* 'nazka-nazka eginda nago'.

lazkagarri, lazkagarria

NAZKAGARRI

txerri, zikin, kotxino, -a

asqueroso, -a, repugnante
aborrecible, detestable, odioso, -a

lazkagarri (eta *lazkarri* [Urdiain]) adj. Nazkagarria, nazka ematen duena, higuingarria. *Txerri lazkagarri'oi!* (Ond Bak). ▲ Sin. *txerri*, *zikin*, *kotxino, -a*.

lazkarri, lazkarria

NAZKAGARRI

txerri, zikin, kotxino, -a

asqueroso, -a, repugnante
aborrecible, detestable, odioso, -a

lazkarrikeia

NAZKAGARRIKERIA

asquerosidad, cochinada, porquería

lazkagarrikeria (> *lazkarrikeia*) iz. Nazkagarrikeria, egite edo gauza nazkagarria. *Jateko toki klase oitan lazkarrikeia gogoti ematen dai* 'jateko toki klase horietan nazkagarrikeria gogotik ematen dute'. *A ze lazkerrikeia in dau!* 'a ze nazkagarrikeria egin du!'.

lazkatu, lazkatzen

NAZKATU

okatu, aspertu, nazkatu, aborritu

dar o sentir asco, asquear(se), repugnar, aborrecer
hartar(se), hastiar(se), cansar(se) de

lazkatu **1** *da/dau* ad. Nazkatu; nazka hartu edo eman. *Nei lazkatu iten dua* 'ni(ri) nazkatu egiten dit [nau]'. ▲ Sin. *okatu*, *nazkatu*. **2** *da/dau* ad. Biziki gogaitu. ▲ Sin. *okatu*, *aspertu*, *nazkatu*, *aborritu*.

lazo, lazua
LAZO, LAKIO

begita

lazo

lazo iz. *Lazwen arrapatu* 'lazoan harrapatu'. Ik. **begita**.

laztan, laztana
LAZTAN

abrazo

laztan iz. Besarkada.

laztu, lazten
LAZTU

2 ikaratu

volver(se) áspero/rudo/rugoso
horrorizar(se), estremecer(se), aterrorizar(se)

laztu **1** *da/dau* ad. Latz bihurtu. *Txumĭa laztu* 'txima laztu'. **2** *da/dau* ad. Zirrara bizi batek jo; izutu. *Laztu iten naun kanposantwa sartzĭen* 'laztu egiten naun kanposantura sartzean'.

-le
-LE (ATZIZKIA)

-le, sufijo que sirve para formar el nombre agente de los verbos transitivos

-le (atzizkia). 'Egile' adierako izenak sortzen ditu. Adibideak: *ibazle*, *jale*, *yakusle*...

leal, leala
LEIAL

zintzo, legal (?)

leal, fiel

leal adj. Leiala. ▲ Sin. *zintzo*, *legal* (?).

legal, legala
LEGAL

2 zintzo, leal

legal
honesto, -a, honrado, -a; leal, fiel

legal **1** adj. Legezkoa. **2** adj. Zintzoa. Ik. **zintzo**; **leal**.

lege, legia
LEGE

ley
regla, reglamento
refacción, colación, comida ligera (en relación al almuerzo, la comida o la cena)

lege **1** iz. *Lenoko legĭa* 'lehengoko legea'. **2** iz. Araua. Ik. **norma**. **3** iz. Jatordua egiteko betebeharra. *Afai legia in* 'afari legea egin [afari arina egin]'. *Bendu-afai lege bat in zein: ahal dan bezelakua, izena bakarrik dekana* (Ond Bak).

legor, legorra
LEHOR

seko, idor; elkor

seco, -a; árido, -a

legor adj. Lehorra. Seko ta legor. Lur legorra.

legorte (EHHA)
LEHORTE

sekura

sequía

legorte (EHHA) iz. Lehortea, euririk eza. Ik. **sekura**.

legortu, legortzen
LEHORTU

idortu

secar(se), desecar(se)

legortu *da/dau* ad. Lehortu; ura edo bustitasuna galdu edo kendu. *Lurra legortu eta gogortu in da* 'lurra lehortu eta gogortu egin da'. Ik. **idortu**.

legun, leguna
LEUN

liso; fin *latz*

suave, liso, -a; terso, -a
suave, agradable, grato, -a

legun **1** adj. Leuna. ▲ Sin. *fin*[1]. Ik. **liso**. ▼ Anton. *latz*. **2** adj. *Hitz leguna*. *Mutur leguna*. ◆ **elurra legunaz** (egon...). Erabat elurtuta egon; lurmenik gabe, inguru guztia elurrak leunduta egon. *Ixipuntati Aizkibiliaindo elurra legunaz jok, dana txuri-txuria, lurmenipe* 'Ixipuntatik Aizkibileraino elurra legunaz zegok, dena zuri-zuria, lurmenik gabe'. ◆ **hitz legun**. Hizkera leuna, suabea. ▼ Anton. *hitz zakar*. ◆ **mutur leun** (> *mutur legun*). Mokofina, muturzuria.

legundu, leguntzen
LEUNDU

suavizar(se), ablandar(se), alisar(se)

legundu *da/dau* ad. Leundu; leun edo leunago bihurtu. *Aizkoriorren girtena ondo legundwik do* 'aizkora horren kirtena ondo leundurik dago'. ◆ **lurra legundu**. Lurra leundu; lurra berdindu, zelaitu {aplanar, allanar}.

leguntasun, leguntasuna
LEUNTASUN

suavidad, tersura, lisura

leguntasun iz. Leuntasuna; leuna denaren nolakotasuna, laztasun edo gogortasunik eza.

lehen
LEHEN

antes
primero, -a
pasado

lehen 1 adb. antes (leheno)
Hori jan zuk, hoztu baindo lehenuó (Ond Bak).
2 ord. primero, -a (lehemizko)
3 iz. pasado (leheno)
◆ **lehen baino lehen** (> *len baindo len*). Lehenbailehen. Ik. **lehenbailehen**.
(leno≠lenuo)

lehen baindo lehen
LEHEN BAINO LEHEN

lehenbailehen

lehen baino lehen (> *len baindo len*). Lehenbailehen. Ik. **lehenbailehen**.

lehenbailehen
LEHENBAILEHEN

lehen baindo lehen

cuanto antes, lo más rápidamente posible

lehenbailehen (> *lenbailen*) [(Iza Alts), Urdiain. ▲ Sin. *lehen baindo lehen*.

lehenbizi

LEHENBIZI

antes; primero, -a
en primer lugar, primeramente; primero

lehenbizi (> *lenbizi*, *lemizi*) **1** adb. Gainerakoak baino lehen, besteen aurretik. **2** adb. Lehenik. ◆ **lehenbizian** (> *lenbizien*, *lemizien*) adb. Hasieran; lehenik, aurrenik. ¬

lehenbiziko, lehenbizikua

LEHENBIZIKO

azkeneko

primero, -a

lehenbiziko (> *lenbiziko*, *lemizko*, *lepizko*) adj. Gainerakoak baino lehen dagoena, besteen aurretik dagoena. *Lehenbiziko bi egunak* (Ond Bak). Ik. **lehendabiziko**.
◆ **lehenbizikoan** (> *lenbizikwen*, *lemizkwen*, *lepizkwen*).
◆ **lehenbizikoti** (> *lenbizikoti*, *lemizkoti*, *lepizkoti*). ¬

lehenbizko

LEHENBIZIKO

primero, -a

lehendabizi

LEHENDABIZI

antes; primero, -a
en primer lugar, primeramente, primero

lehendabizi (> *lendabizi*) adb. Lehenbizi. Ik. **lehenbizi**. ◆ **lehendabiziko** (> *lehenbizko*, *lemizko*, *lepizko*) adj. Lehenbiziko. *OEH "Lemizko eskuek eta gero musuba / San Juango iturriaren freskua (G-nav)" Satr CEEN 1969, 102. ▲ Sin. *lehenbiziko*. ▼ Anton. *azkeineko*. ¬

lehendabiziko, lehedabizikua

LEHENDABIZIKO

lehenbiziko

azkeineko

primero, -a

lehendabiziko (> *lehenbizko*, *lemizko*, *lepizko*) adj. Lehenbiziko. *OEH "Lemizko eskuek eta gero musuba / San Juango iturriaren freskua (G-nav)" Satr CEEN 1969, 102. ▲ Sin. *lehenbiziko*. ▼ Anton. *azkeineko*.

lehendi

LEHENDIK

de antes; anteriormente, con anterioridad

lehendi(k) adb. Igaro den denboratik.

leheneko

LEHENEKO, LEHENGO

lehengo

de antes, anterior; pasado, -a

leheneko adj. Lehengoa. *Leheneko kostunbria da* (Ond Bak). Ik. **lehengo**; **lehengoko**; **lehenoko**.

lehengo

LEHENGO

de antes, anterior; pasado, -a

lehengo (> *lengo*) adj. Aurrekoa, igarotako aldi edo denborakoa. *Lehengo legia* (Ond Bak). || *Lengo urte batĭen* 'lehengo urte batean'. *Lengo urte batĭen, patata asko bildu genduen* 'lehengo urte batean, patata asko bildu genuen'. ◆ **lehengoko** adj./iz. Lehengokoak, lehenagokoak, arbasoak. *Lengokwek bazakiain* 'lehengokoak bazekiten'.
◆ **lehengoan** (> *lengwen*) **1** adb. Igaro berri den egun batean. Ik. **lehengo batean** (> *lengo batĭen*); **lehengo egunean** (> *lengo (e)gunĭen*). **2** adb. (*yon*, *segitu* eta kideko aditzekin). Lehen bezala, lehengo egoeran. *Lengwen jok oi* 'lehengoan zagok hori'.
◆ **lehengo batean** (> *lengo batĭen*). Igaro berri den egun batean. Ik. **lehengoan** (> *lenguen*); **lehengo egunean** (> *lengo (e)gunĭen*).
◆ **lehengo denboretan / garaietan** (> *lengo denboratan / garaietan*). Garai batean.
◆ **lehengo egunean** (> *lengo egunĭen*, *lengo'gunĭen*) Igaro berri den egun batean.

lehengoko, lehengokua

LEHENAGOKO; ARBASO

anterior (referido a tiempo)
antepasado

lehengoko (*lengoko*, eta *lenoko*). Ik. **lehenoko** (> *lenoko*). **1** adj. Lehenagokoa, garai batekoa. Ik. **aspaldiko**. **2** iz. (Batez ere pl.) *lengokwek*. Lehenagokoa; arbasoa, aurrekoa, antzinakoa.

lehenguso, lehengusua

LEHENGUSU

primo, prima

primo, -a

lehenguso (> *lenguso*) [Urdiain, Bakaiku] iz. Lehengusua. *Lehenguso asko dekatzat*. Ik. **primo, -a**. ◆ **lehenguso propio**. Lehengusua. ◆ **lehenguso txiki; primo txiki**. Gurasoen lehengusuen semea edo alaba.

leheno / leno

LEHENAGO (1), LEHEN

lehen; garai batien

antes
pasado

lehenago[1] (> *lenó*) adb. Lehen, garai batean. (Alderatu: **lehenago**[2] (> *lénwo*); [*lenó* ≠ *lénwo*]). Ik. **lehen**; **garai batean** (> *garai batĭen*). ¬

lehenoko / lehengoko

LEHENAGOKO

2 aurreko

anterior (referido a tiempo)
antepasado

lehenoko (> *lenoko,* eta *lengoko*) **1** adj. Lehenagokoa, garai batekoa. *Lehenoko legia, zopak eskubekin ausita, kutxiluekin ebagi berrien ogia* (Ond Bak). Ik. **leheneko**; **aspaldiko**. **2** iz. (Batez ere pl.) Lehenagokoa; arbasoa, aurrekoa, antzinakoa. *Lenoko jendĭek, gwaikwek eta gĭokwek* 'lehenagoko jendeak, oraingoak eta gerokoak'. ◆ **lehenoko denboratan** adb. Lehenagoko denboretan. *Lengoko / lenoko denboratan, aspaldiko denboratan* 'lehenagoko denboretan, aspaldiko denboretan'.

lehenoko denboratan

ASPALDIKO DENBORETAN

antiguamente

lehenoko denboratan adb. Lehenagoko denboretan. *Lengoko / lenoko denboratan, aspaldiko denboratan* 'lehenagoko denboretan, aspaldiko denboretan'.

lehenuo / lenuo

LEHENAGO (2)

antes, anteriormente, con anterioridad

lehenago[2] (> *lénwo*) adb. Aipatzen den unearen edo, eskuarki, mintzatzen den unearen aurreko denboran. (Alderatu: **lehenago**[1] (> *lenó*); [*lénwo* ≠ *lenó*]). *Lehenuo hasi bazindain* 'bazineten' (Ond Bak). ◆ **lehenago izan** (> *lénuo izan*). Garrantzitsuagoa izan. Prinzipalena ◆ **lehenagoko** (> *lenoko*) adj. *Lehenoko gizonak* (Ond Bak). ◆ **lehenagotik** (> *lenuoti*) adb. ¬

lehenxuo

LEHENTXEAGO

un poco antes, un momento antes

lehenxuo (> *lenxuo*) adb. Lehentxeago, apur bat lehenago.

leher ein

LEHER EGIN

estallar, reventar, explotar, explosionar
quedar(se) rendido, extenuarse

leher egin (> *ler ein*) ad. *Leher einda*, *leher einik*.
◆ **leher eginik egon** (> *ler einik yon*). Ik. **elbarrikaturik egon** (> e*lbarrikatuĭk yon*).

lehertu, lehertzen

LEHERTU

zartatu

reventar(se), estallar, explotar, explosionar
quedar(se) rendido, -a
desatarse, desencadenarse, levantarse
partir (leña)

lehertu (> *lertu*) **1** *da/dau* ad. Babia lehertu zait. Lehertuko al daiz! 'haiz' (Ond Bak).
– oinazturia lehertu (?)
2 *da/dau* ad. Erabat nekatu. Ik. leher egin.
◆ **lehertu artera** (> *lertu artĭa*). Asko, ugari, mukuru. Lehertu artia jan dot. Aurten sarra dukai lehertu artia / Lehertu artia dukai sarra 'lehertu arte dute sagarra'.
◆ **lehertzea dauka**. Izorratzea dauka; izorra dadila. *Lértzĭa jukak!* 'lehertzea zaukak!'.
(n) Zartatu. ◆ **egurra lehertu**. Ik. zartatu.

leiko, leikua

LAIKO

laico, -a

leiko adj./iz. Laikoa.

leitu, leitzen

LEITU, IRAKURRI

leer

leitu (eta *laitu*) *dau* ad. *Leituta dakit hori* (Ond Bak).

lejia

LIXIBA

lejía
bebida de cerveza con limón

lejia **1** iz. Sodio hipokloritoaren ur disoluzioa, desinfektatzeko edo garbitzeko erabiltzen dena. *Lejiatan patu tut izarak* 'lixibatan paratu ditut izarak'. Ik. **lixiba**. **2** iz. Garagardoarekin eta limoizko freskagarriarekin egiten den edaria. *Patzazu bi lejia* 'paratu itzazu bi lejia'.

leka, lekia

LEKA (1)

indabaxal, baina

vaina

leka iz. Babarrunen, ilarren eta kideko landareen haziak gordetzen dituen estalkia. *Baba leka, indiaba leka-ta sekwek denĭen; bainĭa, berdĭa dana*. Ik. **baina**; **indabaxal**.

lekatu, lekatzen

LEKATU

desgranar (legumbres)

lekatu **1** *da* ad. Lekak handitu. **2** *dau* ad. Lekak aletu. *Indiabak lekatzen eman dot atsaldĭa* 'indabak lekatzen eman dut arratsaldea'. Ik. **yakurri**.

leku

LEKU

toki. 3 postu

lugar, sitio, paraje
sitio, espacio
posición, lugar, puesto
lejos

leku **1** iz. Tokia, espazioaren gune jakina. *Esanko duazu ze lekutan autzi dezun* 'esango didazu ze lekutan utzi duzun'. Ik. **toki**. **2** iz. Zerbait edo norbait koka daitekeen leku hutsa. *Gordetazu nei lekua* 'gorde iezadazu niri lekua'. **3** iz. Multzo, segida edo hierarkia batean, norbaiti edo zerbaiti dagokion lekua, norbait edo zerbait dagoen lekua. Ik. **postu**. *Oi ezta zue lekua* 'hori ez da zure lekua'.

◆ betiko leku.

– lekuz aldatu.

◆ **lekua egin** (> *lekua in*).

◆ **ez dagoen lekuti** (*ez don lekuti*). —*Gaur angulak jan ber tu*. —*Bai, ez tukun lekuti* '—Gaur angulak jan behar ditugu. —Bai, ez daukagun lekutik'.

◆ **leku ederrean egon / ibili** (> *leku ederrĭen yon / ibili*). (egon, ibili eta kideko aditzekin, ironiaz). Okerreko lekuan egon, egora bihurrian ibili. *Leku ederrĭen daile ura bilan* 'leku ederrean dabil ura bilan'. | Urrun egon; aparte egon (= *irruti yon*). *Leku ederrĭen jok Tudela* 'leku ederrean [urrun] zagok Tutera'. Ik. **lekutan egon** (> *lekutan yon*).

◆ **lekutan** adb. Tokitan. ▲ Sin. *tokitan*. ◆ **lekutan egon** (> *lekutan yon*). Urrun egon. *Lekutan do!* 'lekutan dago!'. Ik. **leku ederrean egon** (> *leku ederrĭen yon*). ◆ **lekutan ibili**. Galduta ibili. *Lekutan habil!* [galduta dagoenari].

◆ norbaiten lekuen yon 'egoera' (?) Horren lekuen ez yotiaiti ez'takit ze emango nen (?) Ik. bekela / bezela.

◆ (n) (zerbaiten) lekua izan. Landareengatik eta piztiengatik hitz eginez, bertara ondo egokitzen direla adierazteko. *Au aza lekua da* 'hau aza lekua da'. Ik. **toki**; **etorri** (n).

leku ederrien
LEKU EDERREAN

en buen lugar (en sentido irónico: en mal lugar)
estar lejos

leku ederrean egon / ibili (> *leku ederrĭen yon / ibili*). (egon, ibili eta kideko aditzekin, ironiaz). Okerreko lekuan egon, egora bihurrian ibili. *Leku ederrĭen daile ura bilan* 'leku ederrean dabil ura bilan'. | Urrun egon; aparte egon (= *irruti yon*). *Leku ederrĭen jok Tudela* 'leku ederrean [urrun] zagok Tutera'. Ik. **lekutan egon** (> *lekutan yon*).

lekutan
LEKUTAN

tokitan

¡cuán lejos!

lekutan adb. Tokitan. ▲ Sin. *tokitan*. ◆ **lekutan egon** (> *lekutan yon*). Urrun egon. *Lekutan do!* 'lekutan dago!'. Ik. **leku ederrean egon** (> *leku ederrĭen yon*). ◆ **lekutan ibili**. Galduta ibili. *Lekutan habil!* [galduta dagoenari].

lela
LELA

motel — *gatzi*

insípido, -a; insulso, -a; soso, -a (referido a la comida)

lela adj. Gustu gabekoa; motela. *Hau zopa lela!* ▲ Sin. *motel*. ▼ Anton. *gatzi*.

lelo, lelua
LELO (2)

atontado, -a, alelado, -a, lelo, -a, turulato, -a, lerdo, -a, embobado, -a, tonto, -a

lelo adj. Ergela, tentela, adimen gutxikoa.

lemizko, lemizkua
LEHENBIZIKO

primero, -a

lenguaje, lenguajia
LENGOAIA

lengua; lenguaje

lenguaje iz. Lengoaia, hizkuntza. *An'e ibilko dai ebein lengwajĭa* 'han ere ibiliko [edukiko] dute euren lengoaia'.

leña
JO ETA JO

fuego

¡dale! (al trabajo, etc.); dale que dale; dale que te pego

leña interj. *Bein da berriz, leña!* 'behin eta berriz, leña [eman]'. Ik. **fuego**; **jo eta jo**; **jo eta fuego**.

leon, leona
LEHOI

león (Panthera leo)

leon iz. Lehoia (Panthera (leo) leo).

lepatu, lepatzen
LEPATU

desmochar, trasmochar; cortar la rama principal de un árbol

lepatu *dau* ad. Zuhaitzez mintzatuz, erdiko adar nagusia moztu. Ik. **kimatu**; **moztu**.

lepizko, lepizkua
LEHENBIZIKO

primero, -a

lepo-hezur, lepo-hezurra

LEPO-HEZUR

nuca

lepo-hezur. Lepoko hezurra. ◆ **lepo-hezurriaindo** adb. Leporaino egin; kokoteraino egon.

lepo-hezurriaindo

LEPO-HEZURRERAINO

hasta las narices; estar hasta el cogote; estar hasta la coronilla

lepo-hezurriaindo. Leporaino egin; kokoteraino egon.

lepo, lepua

LEPO

kuello (jantziena)

cuello, pescuezo

lepo **1** iz. *Lepo lodia, mea, luzĭa, motza* 'lepo lodia, mehea, luzea, motza'. *Lepoko gatĭa* 'lepoko katea'. *Lepoti lotuta yaten dau txakurrra* 'lepotik lotuta eramaten du txakurra'. **2** iz. Jantziaren lepoa. Ik. **kuello**. ◆ **arbola(ren) lepoa** (> *arbolĭen lepwa*). Adarren aurreko enborraren zatia. *Arbolan lepwa: lepotik gora arramak* (Ond Bak). ◆ **lepoa eten** (> *lepwa eten*). *Oiluai lepwa eten* 'oiloari lepo eten'. ◆ **lepoa jokatu** (> *lepwa jokatu*). *Jokatuko nikek lepwa egia dala* 'jokatuko nikek lepoa egia dela'. ◆ **lepoa moztu** (> *lepwa moztu*). Lepomoztu; akabatu. *Ez ta gauza oilo bati lepwa mozteko* 'ez da gauza oilo bati lepoa mozteko'. ◆ **lepo-hezur**. Lepoko hezurra. ◆ **lepo-hezurreraino egon** (> *lepo-ezurrĭaindo yon*) adb. Leporaino egin; kokoteraino egon.

lepobeiko

lepomotz (?)

lepofalda, lepofaldia

LEPAMAGAL

papada [de los animales]

lepofalda iz. Lepamagala. *Ganauen faldĭa, lepofaldĭa*.

lepoki, lepokia

LEPOKO HARAGI

carne del cuello; aguja [?]

lepoki iz. Lepoko haragia. Ik. **papaki**.

lepoko min, lepoko mina

LEPOKO MIN

dolor de cuello; cervicalgia

lepoko min. Zerbikalgia. *Postura txarrĭen jarrita yotiaiti dukazu lepoko mina* 'postura [jarrera] txarrean jarrita [eserita] egoteagatik daukazu lepoko mina'.

lepoko, lepokua

LEPOKO

de cuello, del cuello

lepoko adj. Lepoan dagoena. *Lepoko gatĭa* 'lepoko katea'. *Lepoko zainak*. ◆ **lepoko min**. Zerbikalgia. *Postura txarrĭen jarrita yotiaiti dukazu lepoko mina* 'postura [jarrera] txarrean jarrita [eserita] egoteagatik daukazu lepoko mina'.

lepolodi, lepolodia

LEPOLODI (*)

lepomehe

pescozudo, -a

lepolodi adj. Lepoa lodia duena. ▼ Anton. *lepomehe*.

lepoluze, lepoluzia

LEPOLUZE

lepomotz

cuellilargo, -a

lepoluze adj. Lepoa luzea duena. ▼ Anton. *lepomotz*.

lepomehe, lepomehea

LEPOMEHE

lepolodi

de cuello estrecho

lepomehe (> *lepome*) adj. Lepoa mehea duena. ▼ Anton. *lepolodi*.

lepomotz, lepomotza

LEPOMOTZ

lepoluze

cuellicorto, -a

lepomotz adj. Lepo motza duena. ▼ Anton. *lepoluze*.

lepondo, lepondua

LEPONDO. 2 ALTSUMA

cerviz, occipucio
renuevo, vástago que echa el árbol después de podado o cortado

lepondo **1** iz. Garondoa. **2** iz. Altsuma; arbola bati lepotik moztuz gero ateratzen zaizkion adar berriak [*arbola lepoa*: adarren aurreko enborraren zatia].

lepotxuri

lepotxuri iz. fuina (?). Katua baindo txikixokuek dia.

lepozain, lepozaina

LEPO ZAIN. 2 LEPOKO TENDOI

vena del cuello; (vena) yugular; carótida
tendón del cuello; tendón cervical

lepozain (eta *lepozein*) **1** iz. Lepo-zaina, lepoko zaina [karotida]. **2** iz. Lepoko zaina, lepoko tendoia [tendón cervical].

lepra

ASKO, IZUGARRI ASKO

barbaridad (cantidad grande o excesiva)

lepra **1** iz. Konparatzeko hitza, kopuru ikaragarria adierazten duena. *Pago plantĭa lepri̇a baindo sarrio do* 'pago landarea lepra baino sarriago dago'. **2** adb. Izugarri asko. *Aurten yaulia lepra do* 'aurten eulia lepra [izugarri asko] dago'. Ik. **ikagarrikeria** (> *ikagarrikeia*); **barbaridade**.

lepua jokatu

LEPOA JOKATU

jugarse el cuello, apostar

lepoa jokatu (> *lepwa jokatu*). *Jokatuko nikek lepwa egia dala* 'jokatuko nikek lepoa egia dela'.

lepua moztu

LEPOA MOZTU, LEPOMOZTU

cortar el cuello, degollar; matar

lepoa moztu (> *lepwa moztu*). Lepomoztu; akabatu. *Ez ta gauza oilo bati lepwa mozteko* 'ez da gauza oilo bati lepoa mozteko'.

lera, leria (1) ERA, MODU

modu

modo, manera, forma

lera[1] iz. Era, modua; zerbait agertzen, gertatzen edo gauzatzen den itxura berezi edo jakina. Ik. **modu**; **kisa**.

lera, leria (2) LERA

trineo

lera[2] iz. Gurpilik gabeko orga, bi albo oholen bidez irristatzen dena, elur gainean ibiltzeko, edo toki aldapatsuetan zerbait garraiatzeko erabiltzen dena.

lerde, lerdia LERDE

(h)erde, pits

baba; espumarajo

lerde (eta *erde*) iz. *Agoti lerdĭa daiola do attuna* 'ahotik lerdea dariola dago aitona'. Ik. **pits**. ◆ **lerdea dariola egon** (> *lerdĭa daiola yon*).

lerdetsu, lerdetsua LERDETSU

(h)erdezu

baboso, -a

lerdetsu (eta *lerdetxu*) adj. Lerdea dariona. Ald. *(h)erdezu* (KZ). [*OEH. lerdetsu (G-nav ap. Iza Alts; H). Baboso].

lerdetxu LERDETSU

baboso, -a

lerdia daiola LERDEA DARIOLA/ZERIOLA/... EGON

(h)erdia daiola

babear, estar babeando

lerdea dariola egon (> *lerdĭa daiola yon*). ▲ Sin. *herdĭa daiola*.

lerin, lerina LIRAIN

esbelto, -a; elegante; fino, -a

lerin adj. Liraina. Ik. **lirain**. *Jende lerina: fina, zuzena*.

letania LETANIA

2 marmarreia; retolika. 3 maldeziokan,

letanía

palabrería, retahíla; insistencia larga y reiterada

sarta de maldiciones

letania **1** iz. Liturgia-otoitza. **2** iz. *Irud*. Marmarra, erretolika. || Maldeziokan, juramentukan.

letra, letria

LETRA, HIZKI

letra
letra, escritura, caligrafía
letra (de canción)
dale; dale que te pego (seguir insistiendo sin parar)

letra **1** iz. Hizkia. *Bistĭa galdu'ot, ezin dot leitu periodikwen letrĭa* 'bista galdu dut, ezin dut irakurri egunkariaren letra'. **2** iz. Idazkera. *Letra txarra dukat* 'letra txarra daukat'. **3** iz. *Kantaitĭen letrĭa* 'kantaren hitzak'. ◆ **letra!** interj. [behin eta berriz gauza bera esaten denean]. *Dale, dale; letra!* [Seguir insistiendo sin parar].

letxon, letxona

TXERRAMA

cerda madre

letxon iz. Txerrama; txerri ama, umeak izan dituen txerri emea.

letxuga, letxugia

URAZA, LETXUGA

lechuga (Lactuca sativa)

letxuga iz. (Bot.) Uraza (Lactuca sativa).

letxuza, letxuzia

HONTZ ZURI

lechuza común (Tyto alba)

letxuza iz. Hontz zuria; aurrealde zuria duen hontza, bihotz formako aurpegia eta hego motz eta biribilduak dituena (Tyto alba).). *Leno sentitzen zĭan letxuzak eliztorrĭen inguen* 'lehenago sentitzen ziren hontz zuriak elizdorrearen inguruan'. Ik. **hontz**.

lezaken(a)

IZANDUN, DIRUDUN, DEZAKEEN(A)

dirudun, abeats — *pobre*

pudiente

lezaken(a) adj. Ahalmena duena, dirua duena, dezakeena.
[ahaldun: los poderosos del pueblo, dezaketenak, herriko ahaldunak.]. ▲ Sin. *abeats*, *dirudun*. ▼ Anton. *pobre*.

leze zulo, leze zulua

LEIZE ZULO

sima

leze zulo iz. Leize zuloa, leizea. *Bide ondo-ondwen do leze zulwa* 'bide ondo-ondoan dago leize zuloa'. Ik. **leze**.

leze, lezia

LEIZE

sima

leze iz. Leizea, haitzulo guztiz sakona. *Lezĭa bota zituain fusilatuta* 'leizera bota zituzten fusilatuta'.
◆ **leze zulo** iz. Leize zuloa, leizea. *Bide ondo-ondwen do leze zulwa* 'bide ondo-ondoan dago leize zuloa'. Ik. **leze**.

lezio, leziua

LEZIO, IKASGAI. 2 IRAKASPEN

lección, tema de estudio
lección, correctivo

lezio **1** iz. Ikasgaia; ikasliburu edo ikasbide bat banatzen den zati edo gai bakoitza. *Gramatika leziua asteleñako ikasteko agindu gĭau maisuek* 'gramatika lezioa astelehenerako ikasteko agindu digu maisuak'. **2** iz. Irakaspena, zentzabidea. *A ze leziua eman dĭa; bazukan premia!* 'a zer lezioa eman dio; bazeukan premia!'.

liatu, liatzen
BILDU (TABAKOA)

bildu

liar (un cigarrillo)

liatu *dau* ad. *Tabakwa liatu* 'tabakoa bildu'. Ik. **bildu**.

libea
LIBERA, LIBRA

libra (medida de peso)

libea iz. Libera, libra; pisu neurria. Ik. **libra**; **libera**. ◆ **liberako pisuak** (> *libeako pisuek*). pl. Pisu neurriak.

libeako pisuek
LIBERA(KO) PISUAK

fracciones de la libra (medidas de peso)

liberako pisuak (> *libeako pisuek*). pl. Pisu neurriak.

libera, liberia
LIBRA

libra (medida de peso)

libera (eta *libea* [Urdain]) iz. *Liberiak hamabi ontza dekatza* (Ond Bak). Ik. **libra**.

liberdi, liberdia
LIBERDI

media libra (medida)

liberdi iz. Libra-erdia (pisu neurria). Ik. **libra**.

libertade, libertadia
LIBERTATE

libertad

libertade iz. Libertatea, askatasuna. *Alare, libertade gaio dukazai* 'hala ere, libertate gehiago daukazue'. *Bagendukan ortako libertadia* 'bageneukan horretarako libertatea'.

libertitu, libertitzen
LIBERTITU

dibertitu

divertirse

libertitu *da* ad. *Mutiltxo ta neskix inik, gwai da garaia libertitzeko* 'mutiltxo eta neskisa eginik, orain da garaia libertitzeko'. Ik. **dibertitu**.

libra
LIBRA

2 tableta

libra (peso antiguo)
libra (de chocolate); tableta (de chocolate)

libra (eta *libera*, libea) **1** iz. Pisu neurria, Euskal Herrian hamazazpi ontza, hau da, kilo erdia baino zerbait gutxiago, balio zuena; gaur egun, kilo erdia. *Libra bat ta ontza bat*. Ik. **libera**; **libea**. **2** iz. Txokolate tableta. *Amak bialtzen zuan libra bat txokolate yostia*. gge. Ik. **tableta**. ◆ **libra erdi** iz. Pisu neurria, libraren erdia. Ik. **liberdi**.

libratu, libratzen
LIBRATU

salbatu

librar(se), liberar(se)

libratu **1** *da/dau* ad. Egoera gaizto, larri edo ezatsegin batetik atera. *Txiripaz libratu da; ia-ia jo dau autwek* 'txiripaz libratu da; ia-ia jo du autoak'. Ik. **salbatu**. **2** *da* ad. Lanpostuez, lekuez eta kidekoez mintzatuz, libre gelditu. *Soldautzatik libratu zan* 'soldadutzatik libratu zen'.

libre

LIBRE

libre
en libertad
libre (Suelto, no sujeto)
libre, transitable
libre; desocupado, -a

libre **1** adj. Askea, lokabea. **2** (Adizlagun gisa). *Libre autzi dai* 'libre utzi dute'. *Oilwek libre dukatziai* 'oiloak libre dauzkate'. Ik. **suelto**. **3** adb. Traba edo oztoporik gabe. *Bidĭa libre do* 'bidea libre dago'. **4** adb. Egitekorik ez izan, astia izan. *Gaur, atsaldĭa libre dukat* 'gaur, arratsaldea libre daukat'.
◆ **-gatik libre izan**. Ezaguna beharko duena ezagutzen ez denean: *Nengaiti, libre dok* 'negatik, libre duk. {(halako berri edo zerbaiten ezagutza) *norbaitendako / norbaitengeitik libre izan ...netako / nengaitik libre zaken / dok* [ez izan horren ezagumendurik]}.
◆ **-ti(k) libre**. Salbuetsirik {exento de; libre de} (aztertu). ¬

libu

LIBURU

libro

liburu (> *libu*) iz. *Libua laitzen* 'liburua leitzen'. *Libuen ata tuai erriko ixinpluek* 'liburuan atera dituzte herriko etsenpluak* [ipuinak]'.

liga, ligia

LIGETA. 2 LIKA

liga (cinta elástica para sujetar las medias o los calcetines)
liga, liria (para cazar pájaros)

liga **1** iz. Ligeta; galtzerdiari eusteko zinta edo xingola elastikoa. *Galtzairi austeko ligĭa* 'galtzei [galtzerdiei] eusteko liga'. **2** iz. Lika; txoriak harrapatzeko gai likatsua. *Txoiek arrapatzeko ligĭa* 'txoriak harrapatzeko lika'.

ligatu, ligatzen

LIGATU, POLINIZATU

ligar, cuajar (dicho del fruto: granar, nacer y formarse en árboles y plantas)

ligatu *da/dau* ad. Polinizatu. ◆ **loreak ligatu** (> *lorĭek ligatu*).

liho biar, liho biarra

LIHO BELAR

planta de lino

liho belar (> *lio biar*). (Bot.).

liho-hari, liho-haria

LIHO-HARI

hilo de lino

liho-hari (> *lio ari*).

liho, lihua

LIHO

lino (Linum sp.)

liho (> *lio*, *liywa*) iz. (Bot.) (Linum sp.). Ik. **agor**; **barbasku**.
liho-jotze.
liho loria.
liho putzua.
(Altsasu: gabia, tranga, txarrantxa, lilaia).
◆ **liho belar** (> *lio biar*).
◆ **liho-hari** (> *lio ari*). Liho-haria.

lihoazi, lihoazia

LINAZI

azkorra (JMS)?

linaza

lihoazi iz. (Bot.) Linazia, lihoaren hazia.

lihor, lihorra

ATERPE, LEHOR

estalpe, teilape

refugio; lugar cubierto, al abrigo de la lluvia

lihor (> *lior*) iz. Aterpea, euritik begiratzeko babeslekua. Ik. **estalpe**; **teilape**.

lihorpe, lihorpia

LEHORPE

refugio; lugar cubierto, al abrigo de la lluvia

lihorpe iz. Lehorpea, aterpea. Ik. **aterpe**; **lihor**.

lija, lijia

LIXA, LIZPAPER

lija

lija iz. Lixa, lizpapera. *Girtena leun-leuna autzi dau lijiekin* 'kirtena leun-leuna utzi du lixarekin'.

lijatu, lijatzen

LIXATU

lijar, alisar

lijatu *dau* ad. Lixatu.

lijito, lijitua

LEGITIMO, ZILEGI. 2 BENETAKO, EGIAZKO

propio

lícito, -a, legítimo, -a
auténtico, -a

lijito **1** adj. Legitimoa, legearen araberakoa. **2** adj. Benetakoa, egiazkoa. *Eiztai lijito gutxi ta eskopetero asko jailek inguen* 'benetako ehiztari gutxi eta *eskopetero* asko zebilek inguruan' [*Eskopetero*, ehiza arauak betetzen ez dituen ehiztariagatik esan ohi da]. || *Ama lijitwa* 'ama legitimoa'. *Ezan be ama lijitwa* 'ez zen bere ama legitimoa'. Ik. **propio**. ¬

lika, likia

LIKA, LIKIN

viscosidad
pegajoso, -a; viscoso, -a

lika **1** iz. Likina, gai likatsua. *Likĭa*. **2** adj. Likatsua. *Likĭa jok janai au* 'lika zagok janari hau'.

likatu, likatzen

LIKATU

hacerse pegajoso, -a

likatu *da/dau* ad. Itsaskor bihurtu, lika bezala. *Likatu: lika biurtu* 'likatu: lika bihurtu'.

likidatu, likidatzen

LIKIDATU

2 hil, akabatu, garbitu

liquidar, saldar
liquidar, hacer desaparecer, destruir; matar

likidatu **1** *dau* ad. *Zorrak likidatu*. **2** *dau* ad. Irud. Garbitu, akabatu. *Norbait likidatu*. Ik. **hil**; **akabatu**; **garbitu**.

likits, likitsa

LIKITS

zikin

asqueroso, -a; sucio, -a; cochino, -a; inmundo, -a; puerco, -a
pringoso, -a; viscoso, -a; manchado, -a

likits adj. Zikina, lizuna. Ik. **zikin**. *Au da umĭen likitsa!* 'hau da umearen likitsa!'.

lila

LILA

lila (color)

lila adj./iz. Kolore more argia. Ik. **bioleta**. ◆ **lila kolore** iz. Kolore more argia, lila.

lilai, lilaia

LINAI, GORU

rueca

lilai iz. Linaia, gorua; iruteko erabiltzen den tresna, makila gisakoa, goian iruteko gaia jartzeko atal bat duena. *Amukwa biltzeko makilĭa* [rueca]. • Kantaita: *Iruten ari duzu, lilaia gerrian / askotan dutalari, askotan dutalari / negarra begian*. Ik. **ardatz**; **santagera**.

lildu, liltzen

MORETU

adquirir o dar color lila; amoratar(se)

lildu *da/dau* ad. Lila kolorea hartu edo eman; moretu. *Lildu iten da ointo klasĭoi* 'lildu [moretu] egiten da onddo klase hori'.

lili, lilia

LILI

ilarrosa

lirio
azucena

lili **1** iz. (Bot.) Lirioa. Ik. **ilarrosa**. **2** iz. (Bot.) Zitoria. ◆ **lili zuri** (> *lili zwi*; *lili txwi*) iz. (Bot.) Lirio zuria, ostargi-belarra (Lilium candidum). ◆ **sanjose lili**.

lilizui, lilizuia

LILI ZURI, LIRIO ZURI, ZITORI

lirio blanco, azucena

lili zuri (> *lili zwi*; *lili txwi*) iz. (Bot.) Lirio zuria, ostargi-belarra (Lilium candidum).

lima, limia

LIMA (1)

lima (instrumento para desgastar y alisar)

lima iz. Karraka, altzairuzko lanabesa.

limatu, limatzen

LIMATU

limar, lijar, pulir

limatu *dau* ad. Limaz jan edo leundu.

limon, limona

LIMOI

limón

limon iz. (Bot.) Limoia, limoiondoaren fruitua. ◆ **limon ur**. Limoi ura.

limosna, limosnia

LIMOSNA

limosna

limosna iz. Karitatez ematen den dirua edo gauza. *Erriai buelta, limosna eske* 'herriari buelta, limosna eske'. ◆ **limosna eman** (> *limosnĭa eman*). *Beti ematen dĭa limosnan bat* 'beti ematen dio limosnaren bat'. ◆ **limosna eskatu** (> *limosnĭa eskatu*). *Jangoikuengeiti limosnatxuet eskatzen* 'jaungoikoagatik limosnatxo bat eskatzen'.

linbo, linbua

LINBO

limbo

linia

LINEA

línea, raya
línea (telefónica, eléctrica, etc.)
línea (servicio regular de vehículos que recorren un itinerario determinado)

linia (> *linĭa*) **1** iz. Marra, lerroa, arrastoa. *Linĭa baldar bat dibujatu dau* 'lerro baldar bat dibujatu [marraztu] du'. Ik. **arrasto**. **2** iz. Energia elektrikoa edo seinale elektrikoa garraiatzen duen kable sistema. *Argien linĭa* 'argiaren [argindarraren] linea'. **3** iz. Bi tokiren arteko garraio zerbitzu baten ibilbidea; zerbitzu hori bera. *Autobus linĭa* 'autobus linea'.

linpiatu, linpiatzen

OSTU; 2 BUKATU

ostu. 2 bukatu, despeitu; ziplatu. 3 akabatu,
robar, hurtar
devorar, zampar
matar

linpiatu **1** *dau* ad. Ostu. Ik. **ostu**. **2** *dau* ad. (Jatekoa edo) Erabat bukatu. Ik. **bukatu**; **despeitu**; **ziplatu**. **3** *dau* ad. Hil. Ik. **akabatu**; **garbitu**.

linpio

ziplo, raso, garbi

linpio ◆ **linpio egin** (> *linpĭo in*) 1 Dána jan dau, línpio in dau. Ik. **bukatu**; **despeditu** (> *despeitu*). 2 Lapurtu.
2 linpio aita (= garbi aita, raso aita) Aitaren antz handia.

linterna, linternia

ESKU-ARGI, LINTERNA

linterna

linterna iz. Esku-argia. *Ezpada yazten, pilaipe do linternĭa* 'ez bada irazekitzen, pilarik gabe dago linterna'. Ik. **farol**.

lirain, liraina / lirin, lirina

LIRAIN

fin (2)
esbelto, -a; fino, -a; elegante, airoso, -a

lirain (eta *lirin*, *lerin*) adj. Lerdena eta, gehienetan, arina. *Lirain-liraina* (AG). Ik. **fin**. *Jende lerina: fina, zuzena*.

lirdia

LERDE, LIRDINGA

baba, viscosidad

lirdia iz. Lirdinga, lerde edo gai likatsua. Ik. **lerde**.

lisatu, lisatzen
LISATU

plantxatu

planchar, alisar

lisatu *dau* ad. *Arropĭa lisatu* 'arropa lisatu'. *Leno, tĭakan lisatzen zĭaken arropak ta izarak, plantxaipe* 'lehenago, tiraka lisatzen zituan arropak eta izarak, plantxarik gabe'.

liso, lisua
LISO, LEUN

legun — *kuzkur (ilea)*

liso, -a (sin desigualdades, asperezas, adornos, realces o arrugas)
liso (dicho del pelo: Que no tiene rizos)
liso, -a (dicho de una tela: Que no es labrada)
liso, -a (dicho de una tela o de una prenda de vestir: De un solo color)

liso adj. Liso; leun. Ik. **legun**. *Paeta liswa* 'pareta lisoa'. *Liso-liswa; eztuka zimurrik* 'liso-lisoa; ez dauka zimurrik'. || *Txuma liswa* 'ile lisoa'. ▼ Anton. *txuma kuzkur*.

lista, listia (1)
LISTA, ZERRENDA

lista, relación

lista iz. Zerrenda.

lista, listia (2)
ARGI, AZKAR, BIZKOR

argi, azkar, pixkor, inteligente

lista, inteligente

lista adj. Ik. **listo**.

listeria
LISTARI (LARRUZKO LIZTA)

cordón, bramante

listeria iz. Larruzko lizta; listaria*. Ik. **lizteria**.

listero, listerua
ZERRENDA-ARDURADUN

listero

listero iz. Zerrenda-arduraduna. *Listerwenak*.

listo
AZKAR, AGUDO. 2 LISTO

azkar, agudo

rápidamente, de prisa, con facilidad
¡listo!

listo (eta *lixto*) **1** adb. Ik. **azkar**; **agudo**. (Hemen 'azkar' esaten zan). *Aurrak listo ikas dau pausokan* 'haurrak azkar ikasi dau hizketan'. Ik. **azkar**; **agudo**. **2** interj. *Abrigwa jantzi ta lixto!* 'berokia jantzi eta listo!'. Ik. **bale**; **nahiko**. ◆ **listo ibili**. Azkar ibili.

listo, listua
(BURU)ARGI, AZKAR, BIZKOR

azkar, pizkor / pixkor, inteligente

listo, -a, inteligente, ingenioso, -a

listo, -a (eta *lixto, -a*) adj. Buruargia, azkarra. ▲ Sin. *azkar*, *pizkor / pixkor*, *inteligente*.

liston, listona
LISTOI, ESTRABE

listón

liston iz. Listoia, estrabea; zurezko zerrenda mehea.

lixiba, lixibia (lixubia)

LIXIBA, GOBADA

colada

lixiba (eta *lixuba*, *lixubĭa*) iz. Lixiba, gobada. *Lixibien ura*; *lixiba ondokua*. *Lixiba hautsa*. ◆ **lixiba egin** (> *lixibia in*, *lixubia in*). Lixibatu, gobada egin; arropak lixibaz garbitu edo zuritu. ◆ **lixiba hauts** (> *lixuba autsa*). ◆ **lixiba jo** (> *lixibĭa jo*). (aclarar).

lixibarri, lixibarria

LIXIBARRI

cuba de piedra para hacer la colada

lixibarri (?) iz. Ik. **lixiberri**.

lixiberri, lixiberria

LIXIBARRI

cuba (de piedra) para hacer la colada

lixiberri (eta *lisiberri* [Ziordia]; *lixuberri*) iz. Lixibarria, lixiba egiteko erabiltzen zen ontzia. || *Traste pila lixiberrian garbitu* (Ond Bak).

lixibia in (lixubia in)

LIXIBA EGIN

hacer la colada

lixiba egin (> *lixibia in*, *lixubia in*). Lixibatu, gobada egin; arropak lixibaz garbitu edo zuritu.

lixibondoko

LIXIBA ONDO(KO)

lejía

lixibondoko (eta *lixuba ondokwa*) iz. Lixiba egin ondoko ura, beste arropa batzuk edo ontziak garbitzeko erabiltzen zena.

lixuba, lixubia

LIXIBA

colada

lixubaondokua

LIXIBA ONDO(KO)

lejía

lizar, lizarra

LIZAR

fresno

lizar iz. (Bot.) (Fraxinus sp.).

lizardi, lizardia

LIZARDI

fresneda

lizardi iz. Lizar asko dagoen tokia.

lizta, liztia

LIZTA, LISTARI

cordel, bramante

lizta iz. Listaria, gauzak lotzeko erabiltzen den hari sendoa. *Liztĭekin lotu* 'listariarekin lotu'. Ik. **liztari**; **listeria / lizteria**; **kordon**.

liztari, liztaria

LISTARI

bramante, hilo de bala

liztari iz. Listaria; gauzak lotzeko erabiltzen den hari sendoa. {hilo fuerte (Ond Bak)}. Ik. **lizteria / listeria**; **lizta**.

lizteria

LISTARI (*)

cordón (de cuero)

lizteria (eta *listeria*) iz. Larruzko lizta, larru finezko lokarria; listaria*. *Narruzko liztĭa, oinetakuendako lokarria* 'larruzko lizta, oinetakoendako lokarria'. Ik. **kordon**; **lizta**; **liztari** [Bakaiku].

liztura, lizturia

IZPI; DISTIRA (LISTRURA, LISTURA)

1 errainu (> erreinu); 2 ziorri, oinaza

rayo (de luz); brillo; resplandor, (vislumbre, atisbo)

rayada, dolor penetrante

liztura **1** iz. Errainua, izpia; distira. *Yuzkien lizturia, lainopeti* 'eguzkiaren liztura, lainopetik'. ▲ Sin. *errainu*. **2** iz. ◆ **liztura min(ak)**. ▲ Sin. *ziorri*, *ziorguna* (?); *oinaza*.

lizun, lizuna

LIZUN

moho, enmohecimiento

lizun (eta *luzin* [Bakaiku]) iz. Usteltzen-edo hasi diren gai organikoen azalean sortzen den geruza edo orban urdin-zurixka eta harroa, onddoek eragina; onddo horiek berak. *Gaineko lizuna kenduzkio, ona do gwaindo* 'gaineko lizuna kenduz gero, ona dago oraino [oraindik]'. *Lizun gustwa duka ogi onek* 'lizun gustua [zaporea] dauka ogi honek'. *Lizun usaia do gela itxi ontan* 'lizun usaina dago gela itxi honetan'.

lizundu, lizuntzen da

LIZUNDU

enmohecer(se)

lizundu (eta *luzindu* [Bakaiku]) *da* ad. Lizuna hartu edo sorrarazi. *Lizundu inko zaizkik txindilak patĭen* 'lizundu egingo zaizkik txindilak [dilistak] platerean'.

llabe, llabia

GILTZA

llave (herramienta para apretar o aflojar tuercas)

llabe iz. Giltza; torlojuak eta kidekoak tinkatzeko, lasaitzeko edo askatzeko lanabesa. *Llabe fijĭa* 'giltza finkoa'. *Llabe inglesa* 'giltza zabalgarria'.

llaga, llagia

ZAURI, ULTZERA

llaga

llaga iz. Larruazaleko zauria; ultzera. *Llagaz beteta do* 'llagaz [zauriz] beteta dago'. ◆ **llagak egin** (> *llagak in*). Ik. **llagatu**.

llagatu, llagatzen

ZAURIAK EGIN, ZAURITU

llagar(se)

llagatu *da* ad. Zauriak eragin; zauriak egin. *Ilabetĭek diatzi oian, ta gorputz guztĭa llagatu zaio* 'hilabeteak daramatza ohean, eta gorputz guztia llagatu [zauritu] zaio'.

llalla

APATX, ESERI (HAUR HIZKERA)

voz que se emplea al sentarse los niños o para ordenar que se sienten (voc. infant.)

llalla Haur. Jarri, eseri; umeak eseraraztean edo eserarazteko esaten den hitza.

llanegun, llaneguna

LANEGUN

día laborable, día de labor

llanten, llantena

PLANTAIN

koneju bear

llantén (Plantago sp.)

llanten iz. (Bot.) Plantaina, zain-belarra (Plantago sp.). *Llanten bearra* 'plantain belarra'. ▲ Sin. *koneju bear*.

-lo

-LO (ATZIZKIA)

-lo; sufijo que se agrega a sustantivos y adjetivos; denota un valor despectivo

-lo (atzizkia). Izenei eta izenondoei eransten zaien atzizkia da, eta askotan gutxiespenezko kutsua hartzen dute eratorritako hitzek. Burundako adibideak: *buztalo*, *kaskalo*, *koskabilo*, *hozkilo*? (Ond Bak); *petrikillo* (?), *potolo*, *potroskilo*, *potzolo*, *puztikilo*, *tontolo* [Urdiain], *txotxolo*.

lo in

LO EGIN

dormir

lo egin (> *lo in*) ad. *Intazu lo* 'egizu lo'. *Egwaize berwekin ezin da loĭk in* 'hego-haize beroarekin ezin da lorik egin'.

lo-lo

LO-LO

ño-ño

dormir; sueño (voc. infant.)

lo-lo Haur. Lo; lo egin. ▲ Sin. *ño-ño*.

lo-zurrunga, lo-zurrungia

(LO) ZURRUNGA

zurrunka / zurrunga

ronquido

lo-zurrunga iz. *Lo-zurrunga bat: jendiék, lo donién, lo íten den garaien íten den hotsa* (Ond Bak). Ik. **zurrunka**.

lo, lua

LO

sueño

dormido, -a

lo **1** iz. *Lua galazi* 'loa galarazi'. **2** adb. Lotan. *Lo gelditu da aurra* 'lo gelditu da haurra'.

◆ **lo egin** (> *lo in*) ad. *Intazu lo* 'egizu lo'. *Egwaize berwekin ezin da loĭk in* 'hego-haize beroarekin ezin da lorik egin'.

◆ **lotan** adb. *Egun guztĭa lotan eman dau* 'egun guztia lotan eman du'. ◆ **erdi lo**.

◆ **lotara fan** (> *lota fan*) adb. Lotara joan. *Loguriĭek zola-ta, gaur goiz fan da lota* 'logurak zegoela eta, gaur goiz joan da lotara'.

◆ **lo eta lo** (> *lo ta lo*) adb.

lo yon

lo seko

lo iteko zakua.

loaldi, loaldia

LOALDI

sueño (tiempo en el que se duerme)

loaldi iz. Lo egiten den denbora; lo egitea. *Etxeko gwe txakur zarrak loaldi luzĭek iten tu* 'etxeko gure txakur zaharrak loaldi luzeak egiten ditu'.

lodi, lodia

LODI

gizen, puztikilo

mehe, flako; lirain, fin

grueso, -a; gordo, -a; obeso, -a
espeso, -a; denso, -a

lodi **1** adj. *Gizon lodia*. *Beso ta iztar lodiek* 'beso eta izter lodiak'. | *Orma lodiek* 'horma lodiak'. ▲ Sin. *gizen*, *puztikilo*. ▼ Anton. *mehe*, *flako*; *lirain*, *fin*. • Esr. zah. *San Bartolome, burua lodi ta hanka me*. **2** adj. Isurkariez mintzatuz, trinkoa. *Esene lodia* 'esne lodia'. *Txokolate inia, obe lodia firria baindo* 'txokolate egina, hobe lodia *firria* [urtsua, mehea] baino'.

lodiera

LODIERA

grosor

lodiera (eta *lodigera*) iz. Loditasunaren neurria; hirugarren dimentsioaren neurria. *Lodigera aundia dukai arrizko paretak* 'lodiera handia daukate harrizko paretek'.

lodigera, lodigeria

LODIERA

grosor

loditu, loditzen

LODITU

gizendu

mehetu, flakatu, argaldu (?)

engordar(se); espesar(se); cuajar(se)

loditu *da/dau* ad. Lodi bihurtu, loditasuna hartu edo eman. Ik. **gizendu**. ▼ Anton. *mehetu*, *flakatu*, *argaldu* (?). *Ezpadezu jaten e'za lodituko* 'ez baduzu jaten ez zara lodituko'. *Elurra loditu don* 'elurra loditu dun'.

logela, logelia

LOGELA

alkoba, gela

dormitorio

logela iz. *Eztot ikusi nai laio beiko logelaik* 'ez dut ikusi nahi leiho gabeko logelarik'. ▲ Sin. *gela*, *alkoba*.

logure, loguria

LOGURA

zaldi zuri (Haur.)

sueño, ganas de dormir, somnolencia

logure iz. Logura, lo egiteko gogoa. *Loguriá dekát* (Ond Bak). Ik. **zaldi zuri** (Haur.). ◆ **logura ibili** [eduki] (> *loguřia ibili*). *Logure aundia jukanat* 'logura handia zaukanat'. ◆ **logurak egon** (> *loguřiek yon*) adb. Loguraz egon. *Loguřiek nok; bainiyuek etxiá* 'logurak nagok; banoak etxera'. ◆ **logurak hilik** (> *loguřiek ilik*). Logale handiak hartuta egon. ◆ **logurak tximurturik** (> *loguřiek tximurtwik*). Logurak jota egon.

lohi beltz

IZOTZ LOHI

barro en deshielo

lohi beltz. Izotz lohia; izotza beratu ondoren sortzen den lohi itsaskorra. *Naiko lan ankatakotati loi beltza kentzen* 'nahiko lan oinekoetatik lohi beltza kentzen'. ¬

lohi, lohia

LOHI

lokatz(a)

barro, lodo, fango

lohi (> *loĭ*) iz. Urezko eta hauts edo lurrezko nahastura, leku jakin batean, euria egitean, esaterako, eratzen dena. *Loĭrez beteĭk etorri da umĭa* 'lohiz beterik etorri da umea'. *Loĭrez beteĭk dukatzizu ankatakwek* 'lohiz beterik dauzkazu oinetakoak'. Ik. **lohizadi**; **lohizaka**; **lokatz(a)**. • *Etxok astua lohien, ez!* [beste egitekorik gabe, jendea ijili-ajala dabilenean]. ◆ **lohi beltz**. Izotz lohia; izotza beratu ondoren sortzen den lohi itsaskorra. *Naiko lan ankatakwotati loĭ beltza kentzen* 'nahiko lan oinekoetatik lohi beltza kentzen'. ¬

lohizadi, lohizadia

LOKAZTI, LOHITZA*

lohizaka, lokatza

lodazal, barrizal, fangal

lohizadi iz. Lokaztia, lohiz betetako tokia. *Baswa atatzen aurtengo neguen, loizadi biortu daĭ orbelzadi ederra zana* 'basoa aterartzen aurtengo neguan, lokazti bihurtu dute orbeldi ederra zena' [*basoa atera*: basoko zuhaitzak bota eta eraman]. Ik. **lohizaka**; **lokatza**.

lohizaka, lohizakia

LOHITZA. 2 LOHI ZETAKA (?)

lokatza, lohizadi

barrizal, lodazal, fangal, fangar
pella de barro

lohizaka (> *loizaka*) **1** iz. Lokatza, lokaztia. Ik. **lokatza**; **lohizadi**. **2** iz. Itsatsirik geratzen den lohia, lohi zetaka (?). *Oiek loizakak dekatzikenak ankatakotan* 'horiek lohizakak dakartzakenak oinetakoetan'.

lohiztatu, lohiztatzen (?)

LOHIZTATU, LOHITU, LOKAZTU

enlodar(se), embarrar(se)

lohiztatu (> *loiztatu*) [?] *da/dau* ad. Lokaztu, lokatzez bete, lokatzez zikindu.

loina, loinia

LOINA

boga, madrilla

loina iz. Ibaiko arrain txikia, mutur-irtena, arrea eta jateko ona (Chondrostoma sp.).

loka

LOKA, OILALOKA

kuleka

clueco, -a; llueca
clueca; llueca

loka **1** adj. Oiloez eta hegazti emeez mintzatuz, txitatzeko egoeran dagoena. *Oilo loka*. Ik. **kuleka**. **2** adb. *Oilwa loka patu da*. Oilua loka do 'piloa loka dago'. • (Kantaita) *Elorria loran dago / mirua loka dago / artua eraiteko / a zer giroa dago*.

lokarri, lokarria

LOKARRI

atadura, cordón, correa, cuerda, ligadura

lokarri iz. Zerbait lotzeko erabiltzen den gauza, bereziki soka itxurakoa. *Kurpinua lokarriekin lotzen zan* (Ond Bak). *Zapatĭen lokarria askatwik dukazu* 'zapataren lokarria askaturik daukazu'.

lokartu, lokartzen

LOKARTU

2 txindurritu

dormirse, adormecerse

entumecer(se)

lokartu **1** *da* ad. Lo hartu. **2** *da* ad. Inurritu. *Ankĭa lokartu zaira* 'hanka lokartu zait'. Ik. **txindurritu**.

lokatza

LOKATZA, LOKAZTI

lohizaka, lohizadi

lodazal, barrizal, fangal

lokatza iz. [*Oharra: erabiltzen da 'lokatza', baina 'lokatz'?]. Lokaztia. *Lokatzĭen sartu dot ankĭa* 'lokatzean sartu dut hanka. Ik. **lohizaka**; **lohizadi**; **tortika**.

lokaztu (?)

LOKAZTU

embarrar(se)

lokaztu (?) *da/dau* ad. Lokatzez bete, lokatzez zikindu. ¬

loki, lokia (?)

LOKI, LOTOKI

lotoki

sien

loki iz. Ik. **lotoki**.

lomo, lomua

SOLOMO

lomo iz. Solomoa. Ik. **azpizun**.

lona, lonia

OLANA

lona

lona iz. Olana, oihal gogor eta sendoa. *Lonazko botak*. Ik. **toldo**.

lope, lopia

LOPE, BUZKANTZ

morcón, morcillón, morcilla gruesa

lope iz. Buzkantza, heste zati lodienaz egiten den odolkia. Ik. **odolki**.

lor gata, lor gatia / lorgata, lorgatia

LOR KATE

cadena para arrastrar troncos

lor gata (eta *lorgate* [Altsasu]) iz. Lor katea; enborrak irristatuz garraiatzeko erabiltzen den katea. *Lor gatĭa, bi lor lotzeko bata bestĭen atzeti* 'lor katea, bi lor lotzeko bata bestearen atzetik'.

lor, lorra

LOR

tronco o leño que se acarrea arrastrando
acarreo, arrastre, transporte

lor iz. Irristatuz garraiatzen den enborra. Txara (Ond Bak).
Lorra ekartzeko patzen zan txingia.
◆ **lor gata** (eta *lorgate* [Altsasu]) iz. Lor katea; enborrak irristatuz garraiatzeko erabiltzen den katea. *Lor gatĭa, bi lor lotzeko bata bestĭen atzeti* 'lor katea, bi lor lotzeko bata bestearen atzetik'.
◆ **lorrean** (> *lorrĭen*) adb. Garraioan; arrastaka. *Lorrĭen ekarri, jaitxi* 'lorrean ekarri, jaitsi'. || *Lorrién egurra ekartzéko* (Ond Bak). || *Txarak jaisten zian lorrĭen* 'txarak [enbor luze eta zuzena] jaisten ziren lorrean'. *Lorrĭako idiek* 'lorrerako idiak'. [OHE — LORREAN (V-gip, G-nav). Ref.: Ond Bac; Iz ArOñ. Acarreando, arrastrando. "Lorrien ekarri, acarrear arrastrando troncos, etc." (Ond Bak)].

lora, loria

LORE. 2 LORAUTS

flore

flor
polen

lora **1** iz. Lorea. *Aranan loria* (Ond Bak). Ik. **flore**; **lili**; **pitxilita**. **2** iz. Lore hautsa, polena. *Erliek lorĭa dĭai* 'erleak lorea [lore hautsa] daramate. ◆ **lora-sorta** (> *lora sortĭa*). ◆ **loriek ligatu** (> *lorĭek ligatu*). ◆ **loran egon** (> *loran yon*) adb. Lorean, loretan. *Sarra loran do* 'sagarra lorean dago'.

lora, loria, lorak (2)

[HARAGIA]

lora iz. Axuriaren lepoko haragia. | Intrintxiluaren zatia. Intrintxiluen bolak (?) [Zehaztu]. [Bereizi '*lorak*', '*andarraiek*'].
[OEH. 7. (AN-araq-ulz), lora (G-nav). Ref.: Satr VocP; Iz Ulz; Ond Bac (lora). "Carne del papo de los animales" Satr VocP. "Lória, la carne muy estimada que tiene el cordero en el cuello" Iz Ulz. "Lorak, cierta parte del intrisilu. Debe de ser plural" Ond Bac. Cf. VocNav s.v. flor].

loratu, loratzen

LORATU

florecer

loratu da ad. Loreak eman, loretan jarri. *Izotzak undatu tu goiz loratu dĭan arbolak* 'izotzak hondatu ditu goiz loratu diren arbolak'.

lorgate

LOR KATE

cadena para arrastrar troncos

lorgate [Altsasu] iz. Lor katea; enborrak irristatuz garraiatzeko erabiltzen den katea. Ik. **lor gata**.

lorrien ekarri, jaitxi

LORREAN

acarreo, arrastre, transporte

lorrean (> *lorrĭen*) adb. Garraioan; arrastaka. *Lorrĭen ekarri, jaitxi* 'lorrean ekarri, jaitsi'. *Txarak jaisten zian lorrĭen* 'txarak [enbor luze eta zuzena] jaisten ziren lorrean'. *Lorrĭako idiek* 'lorrerako idiak'. [OHE — LORREAN (V-gip, G-nav). Ref.: Ond Bac; Iz ArOñ. Acarreando, arrastrando. "Lorrien ekarri, acarrear arrastrando troncos, etc." (Ond Bak)].

lortu, lortzen
LORTU

konsegitu

conseguir, lograr, obtener

lortu *dau* ad. ▲ Sin. *konsegitu*.

losa, losia
LAUZA

loseta, harlosa

losa

losa iz. Lauza, harri aski handia, mehea eta laua. Ik. **harlosa**; **loseta**; **losatak**.

losaja, losajia
LOSINTXA

lisonja

losatak
LAUZA(K), LAUZATU(A)

enlosado (Suelo cubierto de losas)

losata(k) iz. Lauzak, lauzatua; *losetaz* –harlauzaz– estalitako lur eremua. *Goiko losatak* [Urdiaingo kale lauzatua]. Ik. **loseta**.

loseja, losejia
LOSINTXA, LAUSENGU

mimo

lisonja

loseja (eta *losaja*) iz. Losintxa, lausengua. Ik. **mimo**. ◆ **loseja(k) egin** (> *loseja(k) in*) *dau* ad. Losintxak egin.

loseta
LAUZA, HARLAUZA

losa, harlosa

loseta, losa; baldosa

loseta iz. Lauza, harlauza; harri aski handia, mehea eta laua. Ik. **harlosa**; **losa**; **losatak**.

lota fan
LOTARA JOAN

ir(se) a dormir

lotara fan (> *lota fan*) adb. Lotara joan. *Logurĭek zola-ta, gaur goiz fan da lota* 'logurak zegoela eta, gaur goiz joan da lotara'.

lotan
LOTAN

durmiendo

lotan adb. *Egun guztĭa lotan eman dau* 'egun guztia lotan eman du'. ◆ **erdi lo**.

lote, lotia
PARTE, ZATI, SORTA, SAIL

lote
lote (de leña)

lote iz. *Egur lotĭa* [epaitza]. Ik. **partizio**; **sorta**.

loteia
LOTERIA

lotería

loteria (> *loteia*) iz. *Loteia tokatu emen zaie* 'loteria egokitu omen zaie'. *Loteien jokatu* 'loterian jokatu'.

lotoki, lotokia
LOKI

pulsu(ak) [Altsasu]

sien

lotoki iz. Lokia, buruaren alboko aldea, bekokiaren, belarriaren eta masailaren artekoa. Ik. **pulsu(ak)**.

lotsa, lotsia
LOTSA

vergüenza, bochorno

lotsa iz. *Au lotsĭa!* 'hau lotsa!'. *Lotsĭa ber dau!* 'lotsa behar du! [lotsagabekeriaren aurrean; esan edo egindakoagatik, norbaitek lotsa gutxi erakutsi duela adierazteko]'. ◆ **lotsa eman** (> *lotsa / lotsĭa eman*). Lotsa sentiarazi. ◆ **lotsa-lotsia** adb. Lotsaturik.

lotsabeiko, lotsabeikua
LOTSAGABE

gaizkizi, azala izan

sinvergüenza; desvergonzado, -a; insolente; descarado, -a

lotsabeiko (eta *lotsabaiko*) adj. Lotsagabea. Ik. **gaizkizi**; **azala izan**.

lotsagarri, lotsagarria
LOTSAGARRI

indezente

vergonzoso, -a; deshonroso, -a; bochornoso, -a; indecente
vergonzosamente, desvergonzadamente; en ridículo

lotsagarri adj. Ik. indezente.
– lotsagarri gelditu.

lotsagarrikeia
LOTSAGARRIKERIA

sinvergüencería, cosa vergonzosa

lotsagarrikeria (> *lotsagarrikeia*) iz. Gauza edo egite lotsagarria. *Au lotsagarrikeia!* 'hau lotsagarrikeria'. *Lotsagarrikeia franko aguantatzen* 'lotsagarrikeria franko aguantatzen'.

lotsai, lotsaia
ERRIETA, AGIRAKA

bronka

reprimenda, riña; regañina, bronca

lotsai iz. Errieta, agiraka. ▲ Sin. *bronka*. ◆ **lotsaia egin** (> *lotsaia in*). Lotsageria egin, errieta egin. *Lotsaia itiá fan nintzan* (Ond Bak).

lotsaia in
LOTSAGERIA EGIN, ERRIETA EGIN

reprender, regañar, echar la bronca

lotsaia egin (> *lotsaia in*). Lotsageria egin, errieta egin. *Lotsaia itiá fan nintzan* (Ond Bak).

lotsaialdi, lotsaialdia
ERRIETALDI, AGIRAKALDI

jaitaldi

reprimenda, bronca

lotsaialdi iz. Errietaldia, agirakaldia. Ik. **jaitaldi**.

lotsati, lotsatia
LOTSATI

kobarde

vergonzoso, -a; tímido, -a

lotsati adj. Erraz lotsatzen dena, zenbait pertsonaren aurrean lotsatzeko joera duena. Ik. **kobarde**.

lotsatu, lotsatzen LOTSATU

gorri-gorria patu

avergonzar(se), ruborizar(se)

lotsatu *da/dau* ad. Lotsa sentitu edo sentiarazi. Ik. **gorri-gorria paratu** (> *gorri-gorria patu*).

lotsatuazi LOTSARAZI

avergonzar, humillar

lotsatuazi *dau* ad. Lotsarazi, norbaiti lotsa sentiarazi. *Danoi lotsatuaziko geau tresondagarri orrek* 'denoi lotsaraziko gaitu desondragarri horrek'.

lotu, lotzen LOTU

engantxatu *askatu, jarein*

atar, anudar, liar

abrochar

obligar, comprometer

lotu ad. Txistazaia lotzeko. Kurpinua lokarriekin lotzen zan (Ond Bak). Sin. engantxatu. Anton. askatu, jarein.

Abrigua lotu; zapatak lotu;

– alkar lotu. Alkar lotuta.

– lotu, lotua. Lan lotua da hoi.

lotugera, lotugeria LOTURA

atadura, ligadura, junta, juntura; unión, conexión, vínculo

lotura, loturia LOTURA

lotugera; sujezio; engantxe

junta, juntura, atadura, ligadura; unión, conexión, vínculo

lotura (eta *lotugera*) iz.

lotxa, lotxia LOTXA

brótola (Phycis sp.)

lotxa iz. Itsas arraina (Phycis sp.).

lozorro, lozorrua LOZORRO, AMETS TXAR

pesadilla

lozorro iz. *Lo estua; amets gaiztwa*. (= gaixorik zaudenean egiten duzun lo astun, gaiztoa). *Lozorrwek estutu iten zen jendia* 'lozorroak estutu [larritu] egiten zuen jendea'. ◆ **lozorroan egon** (> *lozorruen yon*).

luberritu, luberritzen LUBERRITU

desbrozar, roturar, rozar, artigar

luberritu *dau* ad. Lur eremu bat luberri bihurtu {roturar (Iza Alts)}. Ik. **lur berritu** [Urdiain].

lubila / lurbide LURBIDE*

camino terrero (carente de piedras)

lubila iz. Lur gozoko bidea, harri eta harri koskorrik gabea. *Lubilĩen, arrik eta kaskajoik ez* 'lubilean, harririk eta harri koskorrik ez. *Lubila eroswo da beiendako ta gurdiendako* 'lubila erosoago da behiendako eta gurdiendako'.

lugarre

LUR ERRE

tierra quemada; lugar donde ha habido fuego

lugarre iz. Lur errea. {Lugarre, tierra quemada. Lugar donde ha habido fuego. JMS}. Ik. **lur erre** (> *lur errĭa*).

lujo, lujua

LUXU

lujo

lujo iz. Luxua. *Lujo aundik ezan izaten* 'luxu handirik ez zen izaten'.

lukaika-hagai, lukaika-hagaia

LUKAINKA-HAGA

vara; percha (colgadero que sirve para secar chorizos)

lukaika hagai iz. Lukainka-haga, lukaikak lehortzen jartzen diren haga.

lukaika, lukaikia

LUKAINKA

longaniza, chorizo

lukaika iz. Lukainka; txerri haragiz egiten den hestebetea. *Lukaika zuzturra*. *Lukaika muturra*. ◆ **lukaika hagai** iz. Lukainka-haga, lukaikak lehortzen jartzen diren haga.

lulu, lulua

LULU, LELO, MEMELO

lelo, -a; tonto, -a; insustancial

lulu adj. Leloa, ergela. *Oi lulua!* 'hori lulua!' (LM).

luma txakur, luma txakurra

LUMADUNEN EHIZARAKO TXAKUR

perro de caza para aves (perdiguero, etc)

luma txakur iz. Lumadunen, hegaztien ehizarako txakurra. *Luma eizĭako txakurra* 'luma ehizarako txakurra'.

luma, lumia

LUMA

pluma (de ave)

luma iz. *Txoi-luma*. ◆ **luma txakur**. Lumadunen, hegaztien ehizarako txakurra. *Luma eizĭako txakurra* 'luma ehizarako txakurra'.

lumaberritu, lumaberritzen

LUMABERRITU

lumaiatu [Bakaiku]

pelechar (un ave); mudar (cambiar de pluma)

lumaberritu *da* ad. Hegaztiez mintzatuz, lumak aldatu. *Oilwa lumaberritu da* 'oiloa lumaberritu da'. Ik. **lumaiatu** [Bakaiku].

lumaiatu, lumaiatzen

LUMABERRITU

lumaberritu [Urdiain]

pelechar (un ave); mudar (cambiar de pluma)

lumaiatu *da* ad. Lumaberritu; hegaztiez mintzatuz, lumak aldatu. {Emplumecer, cubrirse de plumas. «Pelechar las gallinas, etc.» (Ond Bak)}. Ik. **lumaberritu**.

lumatu, lumatzen

LUMATU

emplumecer, emplumar(se)
desplumar

lumatu **1** *da* ad. Hegazti bati lumak irten; lumaz hornitu. *Zortzi egun garrengo lumatuik de txoikumak* 'zortzi egun garrenerako lumaturik daude txorikumeak'. **2** *dau* ad. Hegazti bati lumak kendu; lumaz gabetu. *Uswek lumatzen daile, bier salasan patzeko* 'usoak lumatzen dabil, bihar saltsan paratzeko'.

lumea

[KOIPEA, GURDIA KOIPEZTATZEKOA]

grasa para carros

lumea [eta *humea* (sic)] iz. Gurdiarendako koipea. ◆ **lumea untzi**. *Lumea* [koipea] gordetzeko ontzia. {humea, grasa para carros. Lumea untzi, recipiente para grasa. JMS}.

lur alfer, lur alferra

LUGORRI, ALFER LUR

barbecho, terreno baldío

lur alfer. *Lur alferrak urrengo urtĭen gaio ematen dau* 'lur alferrak hurrengo urtean gehiago ematen du'.

lur beltz, lur beltza

LUR BELTZ

tierra negra, mantillo; tierra rica en nutrientes (Agr.)

lur beltz. Humus asko duen lur geruza.

lur berri, lur berria

LUBERRI

artiga, tierra noval

lur berri iz. Luberria; zuhaitzak, zuhaixkak, otea, iratzea eta sasiak kenduz, lantzeko prestatu den lurra. *Errien bado lur berri dan parajĭa* 'herrian [Urdiainen] badago lur berri den parajea'.

lur berritu, lur berritzen

LUBERRITU

desbrozar, roturar, rozar, artigar

lur berritu [Urdiain] *dau* ad. Luberritu; lur eremu bat luberri bihurtu. *Lur berritu iten dĭa soruek alfer autzi ondoti* 'luberritu egiten dira soroak alfer utzi [lugorri utzi] ondotik'. Ik. **luberritu** [Altsasu].

lur erre, lur erria

LUR ERRE

lugarre

tierra quemada

lur erre (> *lur errĭa*) Sua edo sutea izan duen lurra. Ik. **lugarre** (JMS).

lur jabe, lur jabia / lurjabe, lurjabia

LUR JABE

propietario, -a de tierras; terrateniente

lur jabe iz. Lurrak dituen pertsona, bereziki nekazaritza-lurren jabe dena. *Emen lur jabe aundik ezto; bea lurrik eztukainak, bai* 'hemen lur jabe handirik ez dago; baina lurrik ez daukatenak, bai'.

lur jota

LUR JO

albarrikatuik yon

tocar fondo, decaer; arruinarse
estar abatido, estar hecho polvo

lur jota. Lur jo, hondoa jo, behea jo, erabat hondatua gertatu. *Lur jota yon* 'lur jota egon'. *Lur jota do, ez tau jasotzen burwik* 'lur jota dago, ez du jasotzen bururik'. Ik. **albarrikatuik yon**. (1 arruinatuik; 2 osasuna hondatuta). ¬

lur mehe, lur mehea

LUR ARGAL, LUR ELKOR

suelo pobre en nutrientes (Agr.)

lur mehe. Lur argala, lur elkorra; emankorra ez den lurra. Ik. **lur zuri** (> *lurzwi*).

lur narratu, lur naratua

LURTADURA, LUIZI

lur korritu

corrimiento de tierra(s), desprendimiento de tierra(s)

lur narratu iz. Lurtadura, luizia (Iza Alts), [Urdiain] (corrimiento de tierras). ▲ Sin. **lur korritu**.

lur txoi, lur txoia

UDA-TXIRTA

bisbita arbóreo (Anthus trivialis)

lur txori (> *lur txoi*) iz. Uda-txirta (Anthus trivialis). *Lur txoiek lurrĭen iten dau txoi kafia* 'lur txoriak lurrean egiten du txori habia'.

lur txui, lur txuia / lur zuri

LUR ZURI

tierra o terreno con abundante marga

lur zuri (> *lur txui*) iz. Tufa [tupa] ugari duen lurra. Ik. **lur mehe**; **otsalur**.

lur-korritu, lur-korritua

LUIZI

lur narratu

desprendimiento [de tierra]; corrimiento de tierras

lur-korritu. Luizia. Ik. **narratu**; **lur narratu**.

lur-matxurreta, lur-matxurretia

MASUSTA, MARTXUKA (RUBUS CAESIUS)

mora; zarza pajarera, zarza terreña, zarzeta de los rastrojos (Rubus caesius)

lur-matxurreta [Urdiain] iz. (Bot.) Masusta mota, *Rubus caesius* lahar herrestariaren fruitua, beltz morantza koloreko pikorrak ditu, *sasi-matxurreta*renak baino handiagoak, eta urtsuagoa da. ▲ Sin. *uso-maxurta*.

lur, lurra

LUR

tierra; Tierra
suelo, tierra
barro, arcilla
tierras; paraje, territorio

lur iz. *Koroso: lurrán zikina* (Ond Bak). ¬
lur pila. || lur ustel. || lur-usai. || lur zohi. ◆ **labore-lur** iz. Soroa. Ik. **soro**. ◆ **lur alfer** iz. *Lur alferrak urrengo urtĭen gaio ematen dau* 'lur alferrak hurrengo urtean gehiago ematen du'. ◆ **lur berri** iz. Luberria; zuhaitzak, zuhaixkak, otea, iratzea eta sasiak kenduz, lantzeko prestatu den lurra. *Errien bado lur berri dan parajĭa* 'herrian [Urdiainen] badago lur berri den parajea'. ◆ **lur berritu** [Urdiain] *dau* ad. Luberritu; lur eremu bat luberri bihurtu. Ik. **luberritu** [Altsasu]. ◆ **lur erre** (> *lur errĭa*) Sua edo sutea izan duen lurra. Ik. **lugarre** (JMS). ◆ **lur ezpal(ak)** iz. (Batez ere pl.) Hezetasun handiegiarekin landutako lurra lehortzean gertatzen diren lur zati trinko eta gogorrak. ◆ **lur jabe** iz. Lurrak dituen pertsona, bereziki nekazaritza-lurren jabe dena. *Emen lur jabe aundik ezto; bea lurrik eztukainak, bai* 'hemen lur jabe handirik ez dago; baina lurrik ez daukatenak, bai'. ◆ **lur-korritu** iz. Luizia. Ik. **narratu**; **lur narratu**. ◆ **lur narratu** iz. Lurtadura, luizia (Iza Alts), [Urdiain] (corrimiento de tierras). ▲ Sin. **lur korritu**. ◆ **lurra narratu** *da* ad. Lurra higitu. Ik. **korritu**. ◆ **lurra egiteko aitxur** (> *lurra iteko aitxur*) iz. Aitzur luzea, hondeaitzurra. ◆ **lurra eman 1** *dĭa* ad. Ehortzi, lurperatu. *Lurra eman ildakwai* 'lurra eman hildakoari'. **2** Ondoztatu, lurreztatu. *Lurra eman patatĭai* 'lurra eman patatari'. ◆ **lurra legundu**. Lurra leundu; lurra berdindu, zelaitu {aplanar, allanar}. ◆ **lurrera bota** (> *lurrĭa bota*). **1** Lurrera bota. **2** Lurrera erori. ◆ **lur jota**. Lur jo, hondoa jo, behea jo, erabat hondatua gertatu. *Lur jota yon* 'lur jota egon'. *Lur jota do, ez tau jasotzen burwik* 'lur jota dago, ez du jasotzen bururik'. Ik. **albarrikatuik yon**. (**1** Arruinatuik; **2** Osasuna hondatuta). ◆ **lurrezko** adj. Buztinezkoa, zeramikazkoa; lurrez egina. *Lurrezko ontziek* 'lurrezko ontziak'. Ik. **buztinezko**. ◆ **lur-matxurreta** [Urdiain] iz. (Bot.) Masusta mota, *Rubus caesius* lahar herrestariaren fruitua, beltz morantza koloreko pikorrak ditu, *sasi-matxurreta*renak baino handiagoak, eta urtsuagoa da. ▲ Sin. *uso-maxurta*. ◆ **lur txori** (> *lur txoi*) iz. Uda-txirta (Anthus trivialis). *Lur txoiek lurrĭen iten dau txoi kafia* 'lur txoriak lurrean egiten du txori habia'. ◆ **lur-zuri** (> *lur-txui*). Tufa [tupa] ugari duen lurra. Ik. **otsalur**.

lurmen, lurmena

LURMEN

tierra desnevada; desnevado, -a

lurmen iz. Elurra urtu den lurzatia. *Elurra urtzen danĭen, elur artĭen ageri dian lur puskak* 'elurra urtzen denean, elur artean ageri diren lur puskak'.

lurmendu, lurmentzen

LURMENDU

gesaldu

desnevar, derretirse la nieve

lurmendu *da/dau* ad. Elurra urtu, lurmenak azaldu. *Lurmentzen ai da* (Ond Bak). Ik. **gesaldu**.

lurpe

LURPE

subsuelo, subterráneo, bajo tierra

lurpe (Leku-denborazko atzizkiekin, singularrean). *Lurpĭen* 'lurpean'.

lurpeatu, lurpeatzen

LURPERATU

lurpetu, enterratu

poner bajo tierra, soterrar, enterrar(se)
enterrar, dar sepultura, sepultar

lurperatu (> *lurpeatu*, *lurpĭatu*) **1** *da/dau* ad. Lurpera sartu. **2** *dau* ad. Hilotza lurpean edo hobi batean ezarri.lk. **lurpetu**; **enterratu**.

lurpeko, lurpekua

LURPEKO

2 sator

subterráneo, -a
topo (Talpa sp.)

lurpeko **1** adj. Lur azpikoa. *Lurpeko urak*. **2** iz. Satorra; lurpeko xaua (?). lk. **sator**.

lurpetu, lurpetzen

LURPETU

lurpeatu, enterratu

poner bajo tierra, soterrar, enterrar(se
enterrar, dar sepultura

lurpetu *da/dau* ad. Lurperatu. lk. **lurperatu** (> *lurpeatu*, *lurpĭatu*); **enterratu**.

lurra eman

LURRA EMAN

enterrar, inhumar
aporcar (remover la tierra para amontonarla en torno a los troncos o los tallos de cualquier

lurra eman **1** *dĭa* ad. Ehortzi, lurperatu. *Lurra eman ildakwai* 'lurra eman hildakoari'. **2** Ondoztatu, lurreztatu. *Lurra eman patatĭai* 'lurra eman patatari'.

lurra iteko aitxur, lurra iteko aitxurra

AITZUR LUZE, HONDEAITZUR

azadón

lurra egiteko aitxur (> *lurra iteko aitxur*). Aitzur luzea, hondeaitzurra.

lurra narratu, lurra narratzen

LURRA HIGITU, LURRA HIGITZEN

correr la tierra, desprenderse la tierra

(Iza Alts). **lurra narratu** *da* ad. Lurra higitu. lk. **korritu**.

lurrezko, lurrezkua

LURREZKO

de tierra; de arcilla; cerámico

lurrezko adj. Buztinezkoa, zeramikazkoa; lurrez egina. *Lurrezko ontziek* 'lurrezko ontziak'. lk. **buztinezko**.

lurrun, lurruna

LURRUN

lurrin

vapor
vaho

lurrun (eta *lurrin* [Bakaiku]) iz.

lurrundu, lurruntzen

LURRUNDU

evaporar(se)
empañar(se)

lurrundu **1** *da/dau* ad. Lurrun bihurtu. *Yauria lurrundu* 'euria lurrundu'. **2** *da/dau* ad. Lurrunez estali. *Antejuek lurrundu* 'antiojoak lurrundu'.

lustre, lustria

LUSTRE, DIRDIRA

lustre, brillo

lustre iz. Betuna, ziraia. Ik. **betun**. ◆ **lustrea eman** (> *lustrĭa eman*). *Zapatairi lustrĭa eman* 'zapatei lustrea eman'. Ik. **dirdirra**.

luto, lutua

DOLU, LUTO

luto, duelo

luto iz. Dolua.
◆ **lutoa eraman** (> *lutua yan*). *Lutua dĭa* 'lutoa darama'.

lutxa, lutxia

BORROKA; BORROKALDI

burruka, peleia

lucha; competición de lucha, combate

lutxa iz. Borroka; borrokaldia. Ik. **burruka**; **peleia**. ◆ **lutxan** adb. Borrokan.

lutxadore, lutxadoria

BORROKALARI

burrukalai

luchador, -a

lutxadore iz./adj. Borrokalaria.

luze, luzia

LUZE

altu

motz

largo, -a
prolongado, -a
extensamente, prolijamente, largamente, largo y tendido
por largo / mucho tiempo, durante mucho tiempo, largamente

luze (eta *luxe*) **1** adj. *Bide luzĭa artu dau* 'bide luzea hartu du'. ▼ Anton. *motz*. **2** adj. Pertsonengatik edo behetik gora hedatzen diren gauzengatik esanda, garaia, altua. Ik. **altu**. *Mutil luze bat*. *Pago luze bat*. *Anka luzĭa* 'hanka luzea'. **3** adj. Hasieratik bukaera arte iraupen handia duena. *Meza luzĭa* 'meza luzea'. *Pelikula luzĭa* 'pelikula [film] luzea'. **4** adb. *Luze-luze etzinda*. | *Luze yon da espĭa* 'luze egon da esperoan'. ◆ **luzean** (> *luzĭen*) adb. Luzeran. ◆ **luze-luze** adb. *Luze-luzĭa botata*. ◆ **luzetara** (> *luzetá*) adb.

luzegera, luzegeria

LUZERA

longitud, largura; altura

luzera

LUZERA

longitud, largura; altura

luzera (eta *luzegera*) iz. Luzetasunaren neurria; lehen dimentsioaren neurria. *Lauren bat metro izanko tu luzeran* 'lauren bat metro izango ditu luzeran'. *Luzeran ezta sartzen* 'luzeran ez da sartzen'.

luzetu, luzetzen

LUZATU

alargar(se), prolongar(se); crecer
extender(se), alargar(se), estirar(se)

luzetu **1** *da/dau* ad. Luzatu; luzeago bihurtu, luzera handitu. **2** da/dau ad. (Denbora-bitarteez mintzatuz). *Egunak luzetu* 'egunak luzatu'. ● Esr. zah. *Santa Luzia egunezkioz oiluen atxaparra luzetzen da eguna*.

luzifer
LUZIFER

diabru, ifarnuko etsai, satan

Lucifer

luzifer iz. (*L* larriz). Deabrua. Ik. **diabru**; **ifarnuko etsai**; **satan**. «*Luzifer ibiltzen zan airĭen; su ta gar pasatzen zan*» 'Luzifer ibiltzen zen airean; su eta gar pasatzen zen'.

luzin
LIZUN

moho, enmohecimiento

luzindu, luzintzen
LIZUNDU

enmohecer(se)

luzitu, luzitzen
LUZITU, IGELTSUZTATU

enlucir, lucir
lucir; relucir; lucirse

luzitu **1** *dau* ad. (Eraik.) Zarpiaturiko pareta leunagotu. **2** *da/dau* ad. Nabarmendu, harro erakutsi. *Gu(k) botatzen dounák eztín batére luzítzen* (Iza Alts). *Ondo luzitu dau soineko berria*.

mabilezko, mabilezkua
HALA-HOLAKO; GANORAGABEKO

fundamentu beiko, moldakaitz (?) *fundamentuzko*

mediocre; de mala calidad
desmañado, -a; flojo, -a; sin fundamento; dejado, -a; descuidado -a

mabilezko (eta *mabilazko*) **1** adj. Ahalmen fisiko eta intelektual gutxikoa, ganoragabekoa. **2** adj. Hala-holakoa, erdipurdikoa. *Mabilezko eskila batzuk jukatzik inik* 'mabilazko eskailera batzuk zauzkak eginik'. ▲ Sin. *fundamentu beiko*, *moldakaitz* (?). ▼ Anton. *fundamentuzko*.

madalena, madalenia
MADALENA

magdalena (bollo pequeño)

madalena iz. Irin, azukre eta arrautzez eginiko opiltxo bigun biribila, paper kizkurreko moldeetan erretzen eta gordetzen dena.

madi, madia
MARABEDI, MARAI

maravedí

madi iz. Marabedia, maraia. *Altsun yoten zan "Amai madi"ko dendĭa* 'Altsasun egoten zen "hamabi madiko"ko denda'. Hogei madi: sueldo bat; hogeita bi madi, sueldo ta bi madi (: bikua); hogeita lau madi, hiru zortziko; hogeita sei madi, hiru zortziko ta bikua. • Esr. zah. *Zortzi madi pupu, hamabi madi trapu*.

madura
MADURA

ribera, tierra cercana a los ríos

madura iz. Ibai bazterretako lurrak [Toponimian gorde da]. Ik. **siets**.

magal, magala
MAGAL

regazo, falda
enfaldo; seno o cavidad que hacen las ropas enfaldadas para llevar algunas cosas

magal (eta *mala*) **1** iz. Altzoa. *Aurra aman malĭen* 'haurra amaren magalean'. **2** iz. Mantala edo gona gorantz tolestean gertatzen den poltsa modukoa. *Malĭen yakurri dau maiza* 'magalean irakurri [aletu] du artoa'.

magia MAGIA

magia

magia (> *májia*) iz. Azti lana, isileko edo ezkutuko bidez gertakari miragarriak edo itxuraz miragarriak sortzeko antzea; antze horri dagokion jakintza. *Badirwi majĭa kontua dala* 'badirudi magia kontua dela'.

magiko, magikua MAGIKO

mágico, -a

magiko (> *majiko*) adj. Magiazkoa. *Esantzazu itz májikuek* 'esan itzazu hitz magikoak'.

mago, magua MAGO

mago, -a
Rey Mago

mago **1** iz. Magia egiten duen pertsona, bereziki magia-saioak egiten dituen artista. lk. **azti**; **adibinadora**. **2** iz. Batez ere pl. *Errege máguek* 'Errege Magoak'.

magra, magria URDAIAZPIKO XERRA

txigarra (?)

magra, carne magra del cerdo

magra iz. Urdaiazpiko xerra. *Magrak tomatĭekin* 'magrak [urdaiazpiko xerrak] tomatearekin'. lk. **urdaiazpiko**; **txigarra**.

mahai, mahaia MAHAI

mesa

mahai (> *mai*) iz. *Mai gaina* 'mahai gaina'. *Mai azpia* 'mahai azpia'. ◆ **mahaia paratu** (> *maia patu*). *Patazu maia* 'para(tu) ezazu mahaia'. ◆ **mahaia atera** (> *maia ata*) (?). Mahaia paratu. ◆ **mahaia kendu** (> *maia kendu*). Otordua egin ondoren, plater, koilara, edalontzi eta kidekoak jaso. ¬

mahaiko, mahaikua MAHAIKO

comensal, compañero, -a de mesa
componente de una mesa, miembro de un jurado, miembro de un comité
pintar (Dicho de un palo de la baraja)

mahaiko (> *maiko*, *maikwa*) **1** iz. Mahaikidea; mahai batean jatera biltzen diren lagunetako bakoitza. **2** iz. Mahai batean zerbait kudeatzeko, erabakitzeko edo eztabaidatzeko biltzen diren lagunetako bakoitza. *Eleziotan maiko yon naiz* 'elekziotan [hauteskundeetan] mahaiko egon naiz'. **3** iz. Kartetan, agintzen duen saila edo paloa. *Urrĭa do maiko* 'urrea dago mahaiko'.

mahasdi, mahasdia MAHASTI

viña, viñedo

mahasdi (> *masdi*) iz. Mahastia, mahatsondoak landaturik dauden saila. *Masdiek ondo kasoinik dukatziai* 'mahastiak ondo kasu eginik dauzkate'. ¬

mahaskilo, mahaskilua MAHATS MORDO

mahats-mordo

racimo de uvas

mahats-mordo, mahats-mordua (?) MAHATS-MORDO

mahatskilo

racimo de uvas

mahats-mordo. Mahatsa (fruitua). Ik. **maha(t)skilo**.

mahats, mahatsa MAHATS

2 parra

uva

parra; vid

mahats (> *mats*) **1** iz. Mahatsondoaren fruitua. *Mats beltza* 'mahats beltza'. *Mats zwia* 'mahats zuria'. **2** iz. (Bot.) Mahats landarea, mahatsondoa; mahats parra. Ik. **mahasdi**; **parra**. ◆ **mahats-bikor**. *Mats bikorra* 'mahats alea'. ◆ **maha(t)skilo**. Mahats mordoa. ◆ **mahats-mordo**. Mahatsa (fruitua). ◆ **sube-mahats** (> *sube matsa*). Suge-belarra (Arum sp.). Ik. **ilarrondoko**.

mahatspats, mahatspatsa MAHASPASA

pasa

pasa de uva

mahatspats iz. Mahaspasa.

mahon, mahona MAHON

mahón (tela)

mahon (> *maon*) iz. Kotoizko oihal sendoa, batez ere lan-jantziak egiteko erabiltzen dena. *Beti urdina, mahona*. *Maonezko pantalonak* 'mahonezko prakak'.

mahonezko, mahonezkua MAHONEZKO

de tela de mahón

mahonezko (> *maonezko*, *maonezkwa*) adj. *Lanĭako, mahonezko pantalonak jantziko tut* 'lanerako, mahonezko prakak jantziko ditut'.

mahuka mutur MAHUKABURU, ESKUMUTUR (ARROPENA)

bocamanga, puño (de prendas de vestir)

mahuka mutur (> *mauka mutur*) iz. Mahukaburua; alkandoraren, atorraren, jertsearen eta kidekoen eskumutur aldeko zatia. [Oharra: ez *eskumutur*]. *Zikindwik dukatzizu mauka muturrak* 'zikindurik dauzkazu mahuka muturrak'.

mahuka, mahukia MAHUKA

manga

mahuka (> *mauka*) iz. Beso osoa edo besoaren goiko aldea estaltzen duen jantzi zatia. *Atorra mauka motza* 'atorra mahuka motza'. *Kamiseta mauka luzĭa* 'kamiseta mahuka luzea'. ◆ **mahuka hutsean** (> *mauka utsien*, *mankustan*). ◆ **mahukak jaso** (> *maukak jaso*) *dau* ad. *Atorrĭen maukak jasotazu okolondoti gora* 'atorraren mahukak jaso itzazu ukondotik gora'. Ik. **remangatu**. ◆ **mahuka mutur** (> *mauka mutur*) iz. Mahukaburua; alkandoraren, atorraren, jertsearen eta kidekoen eskumutur aldeko zatia. [Oharra: ez *eskumutur*]. *Zikindwik dukatzizu mauka muturrak* 'zikindurik dauzkazu mahuka muturrak'. ◆ **txipa-mahuka** (> *txipa mauka*, *txipamauka*) iz. Jantzi baten mahuka, eskumuturretik lotuta, zorro edo zakuto moduan erabiltzen dena. ◆ **txipa-mahukan** (> *txipa maukan*). *Txipa maukan ekartut zizak* 'txipa mahukan ekarri ditut zizak'. [bajo manga?].

mahukak jaso

MAHUKAK JASO

remangatu

remangar(se)

mahukak jaso (> *maukak jaso*) *dau* ad. *Atorrĭen maukak jasotazu okolondoti gora* 'atorraren mahukak jaso itzazu ukondotik gora'. Ik. **remangatu**.

maietz, maietza

MAIATZ

mayo

maietz **1** iz. Maiatza, hilabetea. *Maietzĭen berdetzen dĭa emengo baztar gúztĭek* 'maiatzean berdetzen dira hemengo baztar guztiak'. **2** iz. *Maietza*, maiatzean paratzen den arbola. {Ohitura zaharra da; Burundako herrietan, Etxarri-Aranatzen eta Ameskoan ere gorde da usadio hau: maiatzaren hasieran Urbasa mendiko puntan eta ondo ikusteko moduan, txara bat [arbola luze eta zuzena, pagoa gehienetan] jasotzen dute. Negua joan dela eta Urbasako belardiak ardiendako eta abereendako neguko arriskuetatik libre direla adieraziko luke}.

• Esr. zah. *San Migel maietzeko, gue sorua laiatzeko* [eguraldi txarragatik oraindik laiatu gabe]. San Migel maiatzeko: maiatzaren 8an].

• Esr. zah. *Txíki nítzan, háundi nítzan, maiatzián búru nítzan* (*esaten da gariengaiti*). (Ond Bak). [Urdiain]: *Txikia banintzan, haundia banintzan, maiatzien zorruen nitzan*. (Garizorro 'galburu' [?]).

[Oharra: Maiatz kantuak Ama Birjinaren hilabeteko festak aipatzen ditu. Sabas Agirreri hartuak ditugu (Satr)]. Ik. KANTAITAK.

◆ **maietzeko ziza**. Maiatzeko ziza, udaberriko zizazuria (Tricholoma georgii). *Zizak maietza baindo lenwo asten dĭa atatzen. Alare, maietz aldĭa ematen dau geiena. Ziza larre berezitan atatzen dia, eta batzutan korritu iten dai* 'zizak maiatza baino lehenago hasten dira ateratzen. Hala ere, maiatz aldera ematen du gehiena. Ziza larre berezietan ateratzen dira, eta batzutan korritu egiten dute [mugitu egiten dira]'.

◆ **Pazko Maietzeko**. Mendekoste eguna.

maietzeko ziza, maietzeko zizia

MAIATZEKO ZIZA, (UDABERRIKO) ZIZAZURI

seta de San Jorge (Lyophyllum georgii)

maietzeko ziza. Maiatzeko ziza, udaberriko zizazuria (Tricholoma georgii). *Zizak maietza baindo lenwo asten dĭa atatzen. Alare, maietz aldĭa ematen dau geiena. Ziza larre berezitan atatzen dia, eta batzutan korritu iten dai* 'zizak maiatza baino lehenago hasten dira ateratzen. Hala ere, maiatz aldera ematen du gehiena. Ziza larre berezietan ateratzen dira, eta batzutan korritu egiten dute [mugitu egiten dira]'.

maila, mailia

MAILA

peldaño, escalón
eslabón

maila **1** iz. Eskila mailia. Lehenoko etxetan, eskilain lemizko mailia harrizkua zan. **2** iz. Gata mailia 'kate maila'.

mailu, mailua

MAILU

martillo (herramienta)

mailu iz. Kolpeak emateko lanabesa. *Zurginan mailua, giltzak atatzekwa* 'zurginaren mailua, iltzeak ateratzekoa'. *Zurezko mailua*.

mailukada, mailukadia

MAILUKADA

martillazo

mailukada iz. Mailu kolpea.

mailukan

MAILUKA

dando golpes de martillo, dando martillazos

mailukan adb. Mailuka, mailuaz joz. *Txinguran, mailukan* 'ingudean, mailuka'.

maina, mainia

MAINA (?)

manera, modo (?)

maina iz. (?)

◆ **alfer maina**. *Alfer mainĭa*. *Hor jek alfer mainan* 'hor zeudek alfer mainan'.

lk. **maña**.

maiorazgo, maiorazgua

MAIORAZKO

mayorazgo, primogénito, -a

maiorazgo iz. Maiorazkoa; seme nagusia; oinordekoa, premua. || Lehenjaioaren lehentasuna; oinordekotza. *Burundan ez zan izaten maiorazgoik* 'Burundan ez zan izaten maiorazkorik'. *Maiorazgo ez zana, sobrante* 'maiorazko ez zena, *sobrante* [sobra egon]'. lk. **heredero**.

maistra, maistria

MAISTRA

maestra; profesora

maistra iz. Lehen irakaskuntzako irakasle emakumezkoa. *Eskolako maistrĭa* 'eskolako maistra'. *Maistra daile* 'maistra dabil'.

maisu, maisua

MAISU

maestro, profesor
maestro, -a; habilidoso, -a

maisu **1** iz. Lehen irakaskuntzako irakasle gizonezkoa. *Eskolako maisua*. *Maisutako balio dau* 'maisutarako balio du'. **2** adj. Gaitasun handikoa, trebea. *Maisua da ortan* 'maisua da horretan'. || *Oi maisua! (jakin ez eta yakusten ibiltzen dana)* 'hori maisua! (jakin ez eta erakusten aritzen dena)'.

maitasun, maitasuna

MAITASUN

amor, gusto, simpatía

maitasun iz. *Maitasun aundia zĭan* 'maitasun handia zion'.

maitatu, maitatzen

MAITATU

amar, querer
gustar, agradar

maitatu **1** *dau* ad. Maite izan. **2** *dau* ad. Atsegin izan. ¬

maite (izan)

MAITE IZAN

nahi izan

querer, amar
gustar, agradar

maite izan *dĭa/dau* ad. Norbaiti edo zerbaiti maitasuna izan. *Maite dot oi* 'maite dut hori'. lk. **nahi izan**; **deseatu**.

maite, maitia

MAITE

querido, -a, amado, -a

maite adj./iz. Maitatua dena. *Nola ze, maitĭa?* 'nola zaude, maitea?'.

maiz

MAIZ

sarri, askotan

frecuentemente, a menudo

maiz[2] adb. Asko aldiz. Ik. **sarri**; **askotan**. || Maiz falta dia (Ond Bak). ◆ **maiz-maiza** adb. ◆ **maiztxo** adb. Maiztxo etortzen da herria.

maiz bikor, maiz bikorra

ARTALE, ARTO BIHI

grano de maíz; maíz [en grano]

maiz bikor. Maiz pikorra.

maiz bizar, maiz bizarra

ARTO-BIZAR

arto bizar

barba del maíz

maiz bizar. Arto bizarra. ▲ Sin. *arto bizar*.

maiz bu, maiz bua

ARTO BURU, ARTABURU

mazorca (de maíz)

maiz buru (> *maiz bu*). Arto burua. Ik. **koskol**.

maiz lasto, maiz lastua

ARTO LASTO

caña del maíz
maíz forrajero

maiz lasto 1 iz. Arto lastoa. **2** iz. Bazka-artoa, artaberdea [maíz forrajero]. **3** adj./iz. Tentela, inozoa. Ik. **maizlasto**.

maiz-porka, maiz-porkia

ARTO-KORDA

arta-porka

ristra de maíz

maiz-porka iz. ▲ Sin. *arta-porka*. Ik. **porka**.

maiz, maiza

ARTO

arto

maíz (planta)
maíz (grano)

maiz[1] iz. (Bot.) Artoa; arto landarea (Zea mays); landare horren alea. Ik. **arto**. *Etxeko maiza*. *Maiz jorra*. *Maiz sorwa* 'artasoroa, arto saila'. *Maiz txwitzen* 'artoa zuritzen, artazuritzea'. ◆ **maiz bikor(ra)**. Maiz pikorra, artalea. ◆ **maiz bizar**. Arto bizarra. ▲ Sin. *arto bizar*. ◆ **maiz buru** (> *maiz bu*). Arto burua. Ik. **koskol**. ◆ **maiz lasto 1** iz. Arto lastoa. **2** iz. Bazka-artoa, artaberdea [maíz forrajero]. **3** adj./iz. Tentela, inozoa. Ik. **maizlasto**. ◆ **maiz moltxo**. Artalorea, artoaren lore arra. Ik. **zinzirri** (?). ◆ **maiz planta**. Arto landarea. ◆ **maiz-porka** iz. ▲ Sin. *arta-porka*. Ik. **porka**.

maizalde
ARTO EREMU

artalde

zona de maizales

maizalde iz. Nekaz. Maiza ereindako lurraldea; arto eremua. *Maizalde ta garialde: dermioko alderdi batien maiza yaiten zan ta beste alderdien garaia, ta hurrengo urtien aldatu*. ▲ Sin. *artalde*. Ik. **garialde**.

maizdi, maizdia
ARTADI, ARTASORO

campo de maíz, maizal

maizdi iz. Artadia, artasoroa.

maizlasto, maizlastua
TENTEL

2 babalasto

atontado, -a, alelado, -a, lelo, -a

maizlasto, maiz-lasto **1** adj./iz. Tentela, inozoa. ▲ Sin. *babalasto*. **2** iz. Ik. **maiz lasto**.

maizpel (?)

maizpel (?). Maizpil (?)

maizpila, maizpilia
MAZPIL. 2 MAZPIL-ELORRI

sorbo silvestre (Sorbus torminalis)
acerolo (Crataegus azarolus)

maizpila (*a* itsatsia) **1** iz. (Bot.) Mazpila, aizpila (Sorbus torminalis). **2** iz. (Bot.) Mazpil elorria (Crataegus azarolus). *Bi klase dĭa: bat, frutu marronak ematen tuena, ta, bestĭa, frutu gorriek ematen tuena* 'bi klase dira: bat, fruitu marroiak ematen dituena, eta, bestea, fruitu gorriak ematen dituena'. [Zehaztu bigarrena].

maiztar, maiztarra
MAIZTER

errentero — *nagosi*

inquilino, -a, rentero, -a, arrendatario, -a

maiztar iz. Maizterra, errentaria. ▲ Sin. *errentero*. ▼ Anton. *nagosi*.

maiztxo
MAIZTXO

sarritxo

con demasiada frecuencia

maiztxo adb. Adkor. Maiz samar. Ik. **maiz-maiza**. ▲ Sin. *sarritxo*.

maja, majia
POLIT, EDER. 2 JATOR, ATSEGIN

1 polit, eder

bella, hermosa
maja, agradable

maja (Generoa hartzen du: *majo*, *majwa*; *maja*, *majĭa*) **1** adj. Polita, ederra. Ik. **polit**; **eder**. **2** adj. Jatorra, atsegina. ¬

majadero, majaderua
LOTSAGABEKO

majadero, -a; sinvergüenza; desvergonzado, -a; insolente; descarado, -a

majadero adj. Lotsagabea, lotsagabekoa. Ik. **lotsabeiko**; **perdix**.

majo (2)

MAJO

primeran, geizkitxo [adiera ironikoan]

estupendamente, bien, mucho, abundantemente, cumplidamente

majo[2] **1** adb. Bapo, ederki. *Kafiék mustík ibílko tubéi májo* (txoriek) (Ond Bak). || *Majo in dau yauria* 'majo egin du euria'. Ik. **poliki**; **ederki**; **primeran**; **geizkitxo** (ironiazko adieran). **2** interj. *Majo!, dana zutako?* 'majo!, dena zuretako?'. ◆ **majo egon** (> *majo yon*). Primeran egon. ◆ **zein majo**. Bai ondo. ◆ **majokiago** (> *majokio*). Hobeto. ¬

majo, majua (1)

POLIT, EDER. 2 JATOR, ATSEGIN

1 polita, eder. 2 jator

guapo,-a, majo,-a
majo, agradable

majo[1] (Generoa hartzen du: *majo*, *majwa*; *maja*, *majĭa*) **1** adj. Polita, ederra. Ik. **polit**; **eder**. **2** adj. Jatorra, atsegina. Ik. **jator**.

majokio

MAJOKIAGO

estupendamente

majokiago (> *majokio*) adb. {majoki + -ago (> *-o*) konparazio-atzizkiarekin. Esanahiari dagokionez, «oso», «izugarri», «ikaragarri» moduko adberbioen antzeko balioa izaten du, harridura adieraziz}. *Majokio bado!* 'majokiago badago!'. *Bage majokio! Obeto ezta posible* 'bagaude majokiago! Hobeto ez da posible'. *Majokio ata da fotografien!* 'majokiago [zoragarri] atera da fotografian!'. *Majokio pasatu genduen!* 'majokiago [zoragarri] pasatu genuen!'. *Majokio ezta posible* 'hobeto ez da posible'. *Majokio in dau!* 'majokiago egin du!'. Ik. **majo**.

maka-maka

MAUKA-MAUKA

mauka-mauka

vorazmente, a dos carrillos, devorando (con el verbo comer)

maka-maka adb. Mauka-mauka; jateko moduaz mintzatuz, jan eta jan. *Maka-maka jan* 'mauka-mauka jan'. Ik. **mauka-mauka**.

makakarro, makakarrua

MAKAKORRO

bramido, rugido
chillido, alarido, clamor

makakarro **1** iz. Makakorroa, marrua; abere nagusien orroa. **2** iz. Irud. Marraska, oihu ozena. *Larrialdien iten dan garrasia*. || *Egwaizĭa ata ber danĭen jendĭek atatzen tuen makakarrwek, ots batzuk izugarriek!* 'hego haizea atera behar denean [duenean] jendeak ateratzen dituen makakarroak, hots batzuk izugarriak'. Ik. **yausi** [erausi].

makakarrokan

MAKAKORROKA

rugiendo; haciendo ruido

makakarrokan adb. Makakorroka, makakorro eginez, marruka. *Gwe beia makakarroakan jailek* 'gure behia makakorroka zebilek'.

makal, makala

MAKAL (2)

pattal, ahul, maskal

sendo, indartsu, gogor, fuerte

débil, flojo, -a, abúlico, -a, delicado, -a
enfermo, -a, pachucho, -a
torpe, inhábil, rudo, -a

makal **1** adj. Ahula. Ik. **ahul**; **maskal**; **pattal**. ▼ Anton. *sendo*, *indartsu*, *gogor*, *fuerte*. **2** (Adizlagun gisa). *Azkenaldien makal samar dail(e)* 'azkenaldian makal samar dabil'. **3** adj. Moldakaitza. Ik. **moldakaitz**. ¬

makaldu, makaltzen

MAKALDU

maskaldu; gorbeatu

enfermar, decaer, debilitar, empeorar, ir a menos

makaldu *da/dau* ad. Ahuldu. Ik. **maskaldu**; **gorbeatu**.

makar, makarra

MAKAR

legaña

makar iz. Betazal ertzetan pilatzen den malko lehortua. *Begitako makarrak*.

makarron

MAKARROI

macarrón

makarron iz. (pl.) Makarroia, jateko pasta. *Makarronak yosten jukatzinak* 'makarroiak egosten zauzkanat'.

makartsu, makartsua

MAKARTSU

legañoso, -a

makartsu adj. Makar asko dituena, makarrez betea.

maki in

HERREN EGIN

cojear, renquear

maki egin (> *maki in*). Herren egin. *Eztau maki iten* 'ez du maki egiten' (Ond Bak).

maki jarri / patu

MAKITU, HERRENDU

makitu

quedarse cojo, -a

maki jarri / **patu** *da* ad. Herren bihurtu; aldi batez, herren ibili. Ik. **makitu**.

maki, makia

MAKI, HERREN

4 makiera

cojo, -a
cojera, renquera
cojeando; cojo, -a

maki **1** adj./iz. Herrena. **2** (Adizlagun gisa). *Maki ibili*. *Maki gelditu*. **3** adj. Oinen gainean orekan ez dagoena. *Maia maki do* 'mahaia maki dago'. Ik. **dantzan egon** (> *dantzan yon*); **tikili-takala**. **4** iz. Herrentasuna. *Makia duka aundia* 'herrentasuna dauka handia'. Ik. **makiera**. ◆ **maki ibili**. *Maki jailek / jailen*. ◆ **makia ibili** [eduki] (> ibili). *Makia jukak / jukan*. ◆ **maki egin** (> *maki in*). Herren egin. *Eztau maki iten* 'ez du maki egiten' (Ond Bak). ◆ **maki jarri** / **patu** *da* ad. Aldi batez, herren bihurtu. Ik. **makitu**.

makiera, makieria
HERRENTASUN

maki(a)

cojera

makiera iz. Herrentasuna. *Makieria gio ta aundio duka ardi orrek* 'makiera gero eta handiago dauka ardi horrek'. Ik. **maki**.

makila, makilia
MAKILA

pertika; baston, mangulu

bastón, báculo; vara, estaca

makila **1** iz. Zurezko pieza zuzena, luzea eta zilindrikoa, bereziki ibiltzean euskarri edo lagungarri gisa, edo jotzeko erabiltzen dena. Ik. **pertika**; **baston**; **mangulu**. • Igarkizuna: *Baswen jaio, baswen hazi, etxia etorri ta nagosi* [makila]. **2** interj. (Irud.) Diziplina, zigorra. *Makilia, makilia horri!* 'makila, makila [zigorra] horri!'. Ik. **makilakada**; **disziplina**; **egur**.
– makiliekin eman.
– makilatxar.
– makilatxo.
– makilia dantzatu.

makilakada, makilakadia
MAKILAKADA

makilazo; egur, makila

varazo, bastonazo

makilakada iz. Makila kolpea. ▲ Sin. *makilazo*. Ik. **egur**; **makila**.

makilakazo, makilakazua
MAKILAZO

makilakada

varazo, bastonazo

makilakazokan
MAKILAKA

a palos

makilazo, makilazua
MAKILAZO

makilakada

varazo, bastonazo, paliza

makilazo (eta *makilakazo*) iz. Makilakada. Ik. **makilakada**.

makilazokan
MAKILAKA

a palos

makilazokan (eta *makilakazokan*) adb. Makilaka, makila kolpeka. ¬

makilintzaile, makilintzailia
MAKILA EGILE

bastonero, -a (fabricante)

makilintzaile iz. Makilak egiten dituen pertsona. *Sekulako makilintzailia zan aita* 'sekulako makila egilea zen aita'.

makina bat
MAKINA BAT

ederrik, asko, franko, makinatxo; hamaikatxo

muchos, -as, infinidad, multitud

makina bat zenbtz. Asko, franko. *Makina bat denbora yon da Iruñan akura* 'makina bat denbora egon da Iruñean hura'. *Makina aldiz fan ga Ataunia astwekin* 'makina (bat) aldiz joan gara Ataunera astoarekin'. Ik. **ederrik**; **asko**; **franko**; **makinatxo**; **hamaikatxo**.

makina, makinia

MAKINA

máquina

arado reversible; arado de doble vertedera giratorio "Brabant"

makina **1** iz. Tresna ez-bakun batzuei ematen zaien izena. *Josteko makiňa* 'josteko makina'. *Yantazu fotografiek atatzeko makiňa* 'eraman ezazu fotografiak ateratzeko makina'. **2** iz. Golde itzulgarria; «brabanta».

makinatu, makinatzen

GOLDATU

goldatu (?)

arar

makinatu *dau* ad. Lurra traktore makinaz irauli. Ik. **goldatu**; **laiatu**.

makinatxo

MAKINATXO

makina bat; hamaika; hamaikatxo; bost

muchísimos, -as, muchos, -as, infinidad, multitud

makinatxo zenbtz. Adkor. Makina bat.

makinei, makineia

MAKINERIA

maquinaria

makineria (> *makinei*, *makineia*) iz. Lan jakin baterako erabiltzen diren makinen multzoa.

makinista, makinistia

MAKINISTA

maquinista

makinista iz. Tren makina bat gobernatzen duen pertsona.

makitu, makitzen

MAKITU, MAINGUTU, HERRENDU

maki jarri

quedarse cojo, -a

makitu *da* ad. Maki jarri, maingutu, herrendu. *Maki jarri da, makitu in da* 'maki jarri da, makitu egin da'. Txerrikumia makitu in zan 'txerrikumea makitu egin zen' (Ond Bak). "*Ganau gaixuk askotan ferra galdu eta makituik*" (Iza Alts). Ik. **maki jarri**.

makur, makurra

MAKUR

baldar

onez onien

torcido, -a, arqueado, -a, encorvado, -a
equivocado, -a, contrario, -a

makur 1 adj. Okerra.
– makurrena in 'zailena egin'.
– gauza makurrokoik ezta yonko.
2 gaizki
*{*Makurria hasi ezkió* 'a las malas' (Ond Bak)}.
Gio ta makurro ge 'gero eta makurrago gaude'.
3 Jende makurra; gaiztoa. Ik. **burumakur**; **kaskamakur**; **kasko makur**.
4 Makurreko bidia hartu du.
Makurreko eskutí zailen konduzitzen 'makurreko eskutik zebilen gidatzen'.
– bizkar-makur
*{(Con suf. de comparación). Peor. "*Makurro zan ikezakuba suartuta urik ez iltzeko*" (Iza Alts)}.
– adar-makur
– begi-makur
– lepo-makur
– hanka-makur
– makurreko bidia. Makurreko bidetik jailek.
– makur jantzi. {"*Makur jantzi zai*, os habéis vestido al revés" (Iza Alts)}. (LM [Urdiain]).
(n) adb. *Makur-makurra*. Ik. **kuzkur**.

makurkeia

MAKURKERIA

gaiztankeia, txarkeia, baldarkeia

perversidad, engaño, falsedad; injusticia (?)

makurkeria (> *makurkeia*) iz. *Makurkeien eztaitzan bitartĭen autziezu bakĭen* 'makurkerian ez dabiltzan bitartean utz iezaiezu bakean'. Ik. **gaiztankeria**; **txarkeria**; **baldarkeria**.

makurria

MAKURRERA*, TXARREAN

txarrien

onez onien, onien-onien

por las malas

makurrera (> *makurrĭa*) [Bakaiku] adb. Txarrean; indarra erabilita, borondatearen kontra (?). [Urdiain]: *makurrĭen* (?). Ik. **txarrean** (> *txarrĭen*). ▼ Anton. *onean-onean* (> *onĭen-onĭen*); *onez onean* (> *onez onĭen*).

makurtu, makurtzen

MAKURTU

kuzkurtu, baldartu

encorvar(se), torcer(se), inclinar(se), curvar(se), agacharse
desviar(se)

makurtu 1 *da/dau* ad. Okertu. *Zartu ta makurtu* 'zahartu eta makurtu'. Ik. **kuzkurtu**; **baldartu**. 2 *da* ad. *Gauzak makurtu in dĭa azken aldi ontan* 'gauzak makurtu egin dira azken aldi honetan'.

makurtuazi

MAKURRARAZI

kuzkurtuazi

hacer inclinar, hacer torcer.

makurtuazi *dau* ad. Makurrarazi, makurtzera behartu. Ik. **kuzkurtuazi**.

makuto, makutua

MAKUTO, ZAKUTO

zakuto

macuto

makuto iz. Zakutoa. *Soldau jantzien etor da, makuto ta guzti* 'soldadu jantzian etorri da, makuto ta guzti'. Ik. **zakuto**. ¬

mala (1)

MAGAL

regazo, enfaldo, falda

mala[1] iz. Ik. **magal**. *Aurra malĭen* 'haurra magalean'.

mala (2)

FALTA; TXAR

mala (infracción de las reglas de un juego o deporte)

mala[2] iz. Kirol. Huts egitea; arau haustea. *Mala in dok sakĭen* 'mala [huts] egin duk sakean'. Ik. **falta**; **txar**. ◆ **mala manera** (> *malamanea*, *malamanĭá*). Ik. **modu txarrean** (> *modu txarrĭen*). *Mala manera daile* 'modu txarrean dabil'. [de mala manera].

mala manera

MANERA TXARREAN

modu txarrien

de mala manera

mala manera (> *malamanea*, *malamanĭá*). Ik. **modu txarrean** (> *modu txarrĭen*). *Mala manera daile* 'modu txarrean dabil'. [de mala manera].

malamente

ALFERRIK

alferrik

inútilmente, en vano

malamente adb. Alferrik, inolako fruitu edo ondoriorik gabe. *Malamente abil* 'alferrik habil'. Ik. **alferrik**.

malaskatu, malaskatzen

MALASKATU*, LARDASKATU

revolver, embrollar; estropear
echar a perder la comida, comer de mala manera

malaskatu *dau* ad. Malaskatu*, lardaskatu. Jatekoa malaskatu 'jatekoa lardaskatu'. *Erdi jan, erdi malaskatu* 'erdi jan, erdi lardaskatu'.

malatxa

MALATS (2)

batidor para remover la leche y hacer queso

malatxa [Ziordia] iz. Malatsa; gaztagintzan, esnea irabiatzeko erabiltzen den tresna, eskuarki gorosti adar baten puntako adaxkak bihurrituz egiten dena.

malda, maldia

MALDA

cuesta, pendiente, rampa, declive

malda **1** iz. Aldapa. **2** (gora eta behera-ren ezkerrean, adizlagun gisako esapideak osatuz). (?) ¬

maldade, maldadia

KALTE. 2 GAIZTAKERIA

galte; gaiztankeia

perjuicio, daño, mal, pérdida; desperfecto, avería, percance
maldad

maldade **1** iz. Kaltea. *Maldadĭa iteko denbwa gutxi ber da* 'gaitza sortzeko denbora gutxi behar da' [hanka hautsi-edo, sendatzeko ez bezala]. *Ikagarria da malarĭek ta gosiek Afrikan iten dain maldadĭa* 'ikarragarria da malariak eta goseak Afrikan egiten duten kaltea'. Ik. **galte**. **2** iz. Gaiztakeria, txarkeria. Ik. **gaiztankeia**. || *{OEH Maldad; mala acción. "*Aitú tuben kontu guziek beak ixíxil atzea, be iyoi maldédeik etxuon ematen* (pero a nadie causa daño)" (Iza Alts)}.

maldan behera

MALDAN BEHERA

cuesta abajo

maldan behera (> *maldan bera*) adb. ¬

maldan gora

MALDAN GORA

cuesta arriba

maldan gora adb. ¬

maldarikatu, maldarikatua

MADARIKATU

kondenatu(a)

maldito, -a

maldarikatu (Partizipio burutua izenondo edo izen gisa). Madarikatua. Ik. **kondenatu**.

maldarikatu, maldarikatzen

MADARIKATU

3 kondenatu

maldecir, blasfemar
maldito, -a

maldarikatu **1** *dau* ad. Madarikatu; Jainkoaren gaitzespena edo haserrea norbaitentzat edo zerbaitentzat eskatu. **2** *dau* ad. madarikatu; norbait edo zerbait, harekiko gorrotoa edo ezinikusia adierazteko, gaitzetsi. **3** (Partizipio burutua izenondo edo izen gisa). Madarikatua. Ik. **kondenatu**.

maldezio, maldeziua

MADARIKAZIO, MALDIZIO

maldición

maldezio iz. Maldizioa. ◆ **maldeziua bota**.

maldeziokan

MALDIZIOKA

juramentukan

maldeziokan adb. Maldizioka.

maleta, maletia

MALETA, BALIZA

maleta

maleta iz. Arropak eta gainerako gauzak gordetzeko edo garraiatzeko kutxa modukoa, eskuan eramaten dena eta, batez ere, bidaietan erabiltzen dena. *Maletĭa beti pres ibiltzen dau* 'maleta beti prest ibiltzen [edukitzen] du'.

malezia MALEZIA

gaiztankeia, gaiztasun

malicia, astucia, maldad

malezia iz. Gaiztotasuna; gaiztakeria. *Malezia haundia*. *Horrek etxukak maleziaik*. *Horrek malezia gahiai jukak*. *Malezia asko*; *malezia gutxi*. ◆ **maleziaipe**. Maleziagabe, maleziarik gabe.

maleziabeiko, maleziabeikua MALEZIAGABE

sin malicia, inocente, simple

maleziabeiko adj. Maleziagabea.

maleziaipe MALEZIAGABE

sin malicia, inocente, simple

maleziaipe adj. Maleziarik gabea, maleziagabea.

malflorita, malfloritia HERMAFRODITA

hermafrodita

malflorita adj./iz. Hermafrodita; bi sexuen ezaugarriak edo organoak dituena.

malkar, malkarra MALKAR

caña o paja trillada de las habas y alubias; paja (de veza y gerón)

malkar iz. *Indibaba malkarrak, baba malkarrak: yuntziek in ondoko lastwa* 'indaba malkarrak, baba malkarrak: eultziek egin ondoko lastoa'.

malkardi, malkardia (?) MALKARDI

terreno escabroso

malkardi iz. Leku malkarra.

malkor, malkorra MALKAR; MAZELA

terreno escarpado y escabroso

malkor iz. Malkarra, aldapa zorrotza eta latza; toki aldapatsua. *Uzalamunwa da malkorra* (Uzalamuno: Urdiaingo basoan dagoen tontorra). [Oharra: Burundako *malkar* hitzaren esanahia ≠ *malkor* (Alderatu: **malkar**)].

maltzur (?) MALTZUR

maltzur (?) ¬

maluta, malutia ASTALAR

cardencha, cardón, cardo de cardadores (Dipsacus fullonum)

maluta iz. (Bot.) Astalarra; karduaren antzeko landare belarkara, zurtoin arantzatsua eta lore more-arrosak dituena (Dipsacus fullonum). *Malutĭá jende askok adornutako ekartzen dik etxĭá* 'maluta jende askok adornutarako ekartzen dik etxera'.

mama MAMA

agua, bebida (voc. infant.)

mama iz. Haur. Ura, edaria. ◆ **mama goxo**. Edari alkoholduna.

mama goxo, mama goxua

MAMA GOZO

vino, sidra; bebida alcohólica

mama goxo. Edari alkoholduna.

mameluko, mamelukua

MAMELUKO, KIRTEN, KAIKU

hombre necio y bobo

mameluko iz./adj. Ergela, kirtena, kaikua. Ik. **argulu**; **babo**; **zokete**.

mami, mamia

MAMI

carne, miga, molledo, pulpa
cuajada, leche coagulada

mami **1** iz. Ogiaren, fruituen edo aleen barrualdea osatzen duen gai biguna, azalak estaltzen duena. *Ogi mamia*. *Intxorran mamia* 'intxaurraren mamia'. *Urran mamia* 'hurraren mamia'. **2** iz. Haragia (batez ere, hezur-en aurrez aurre). *Mamia ta ezurra* 'mamia eta hezurra'. *Mami gutxi ta ezur asko* 'mami gutxi eta hezur asko'. **3** iz. Gatzatua; gaztanbera. [Gazta egiteko esne gatzatua. (Urdiainen, ez. Burundako beste herrietan?)]. Ik. **gaztanbera**.

mamitsu, mamitsua

MAMITSU

de mucha miga, pulposo, -a

mamitsu adj. Mami asko duena. Ik. **haragitsu**.

mamusti, mamustia

pelusa de las flores

mamusti iz. *Mamustiya*. Pelusa de las flores. JMS.

manda-kamio, manda-kamiua

MANDABIDE

camino de mulos; camino abrupto

manda-kamio iz. Mandabidea, mandazainek erabiltzen duten bidea.

mandabiar, mandabiarra

MANDABELAR (*) (CAREX BREVICOLLIS)

Carex brevicollis

mandabelar (> *mandabear*, *mandabĭar*) iz. (Bot.) (Carex brevicollis). *Mendien, moltxokan atatzen da mandabĭarra, ta animaliek janezkĭo umĭa botatzen daĭ* 'mendian, moltsoka [multzoka] ateratzen da manda-belarra, eta animaliek janez gero umea botatzen dute'. {OEH. 2. (G-goi, AN-araq, B; Arzdi Plant1 278). Ref.: A; AEF 1955, 118; Satr VocP. "Hierba dura y gruesa como la paja" A. "Con este nombre parece que hay otra en Urbasa y que hace estornudar a las caballerías y abortar las yeguas, según dicen" Arzdi Plant1 278. "Para provocar el aborto. Le dan de comer la hierba llamada manda-belar o también le dan de beber agua de cocción de dicha hierba" AEF 1955, 118. "El único pasto considerado como insano lo forma la hierba llamada mandabelarra. Existe en la parte alta de Aizkorri. Provoca el aborto en las ovejas no acostumbradas a comerla, pero no en las otras" Ib. 164}.

mandabide, mandabidea

MANDABIDE

camino de mulos

mandabide iz. Mandazainek erabiltzen duten bidea.

mandabutx

mandabutx iz. (Bot.) Basoko landarea, txerriendako ona (Ond Bak). {*OEH mandabutx (G-nav). "Planta que se da en el monte, buena para los cerdos" Ond Bak.}.

mandafara, mandafaria

MANDA JOARE

cencerro grande; cencerro zumbón

mandafara iz. Manda joarea (EHHA). *Mando farĭa* 'mando joarea' (LM). *Mandafarĭa, fara aundiokua, beieiri-ta patzen zezaiena* 'joare handiagokoa, behiei-eta paratzen zitzaiena'. Ik. **arran**.

mandaiauli, mandaiaulia

MANDEULI

zamailu

mosca borriquera, mosca de burro, mosca de caballo (Hippobosca equina)

mandaiauli (eta *mandauli*) iz. (Zool.) Mandeulia (Hippobosca equina). Ik. **itauli** [Altsasu]; **zamailu** [Ziordia].

mandamentu, mandamentua

MANDAMENTU

agindu

mandamiento, precepto, orden

mandamentu iz. (pl.) Agindua. Ik. **agindu**. *Betetzen ez genduzen mandamentuek konfesatu in ber* 'betetzen ez genituen mandamentuak konfesatu egin behar'.

mandar, mandarra

MANDAR (2), MANTAL

demantal

delantal, mandil

mandar iz. Mantala. *Sutaien mandarra jantzita ibiltzen zan errementaia* 'sutegian mandarra jantzita ibiltzen zen errementaria'. *Jaztazu mandarra* 'jantzi ezazu mandarra'. Ik. **demantal**.

mandarina, mandarinia

MANDARINA

mandarina

mandarina iz. Mandarinondoaren fruitua. *Ok mandarinan minkarrak!* 'hauek mandarinaren mingarrak!'.

mandatu, mandatua

MEZU. 2 MANDATU, EROSKETA

enkargu

mensaje, misiva
recado, encargo; misión, comisión, embajada; mandato, orden
compra, recado

mandatu **1** iz. Mezua; norbaiti igortzen zaion idazkia edo gauza. *Launai mandatua eman dĭat* 'lagunari mandatua eman diot'. **2** iz. Enkargua, agindua. Ik. **enkargu**. **3** iz. (Batez ere pl.) Etxeko erosketak. ◆ **mandatuak egin** (> *mandatuek in*). Erosketak egin. (Batez ere pl.) *Goizĭen goiz faten da mandatuek itĭa* 'goizean goiz joaten da mandatuak egitera'. Ik. **yosi**[2]. ¬

mandatua(ek) in

MANDATUA(K) EGIN

hacer la compra, hacer los recados

mandatuak egin (> *mandatuek in*). Erosketak egin. (Batez ere pl.) *Goizĭen goiz faten da mandatuek itĭa* 'goizean goiz joaten da mandatuak egitera'. Ik. **yosi**[2]. ¬

mandatuketa

MANDATUKETA, MANDATU

recado, encargo

mandatuketa iz. Mandatua; mandatuak egitea. ◆ **mandatuketan** adb. *Azken aldi ontan izkondako mandatuketan daile* 'azken aldi honetan izekorendako mandatuketan dabil'.

mandatulai, mandatulaia

MANDATARI

mensajero, -a, recadero, -a, recadista

mandatulari (> *mandatulai*) [*mandatalai* (?)] iz. Mandataria, mandatu bat daraman pertsona.

mandauli, mandaulia

MANDEULI

mosca borriquera, mosca de burro, mosca de caballo (Hippobosca equina)

mandazai, mandazaia

MANDAZAIN

arriero, mulero, -a

mandazai iz. Mandazaina, mandoak gidatzea lanbidetzat duen pertsona.

mando, mandua

MANDO

mulo

mando iz. Asto ar eta behorraren edo zaldi eta asto emearen umea.

manejatu, manejatzen

MANEIATU

manejar, utilizar, manipular
manejarse, apañarse, arreglarse
dirigir

manejatu **1** *dau* ad. Maneiatu, erabili. **2** *da* ad. Bakarrik do, bea ondo manejatzen da. Ik. **arreglatu**, **konpondu**. **3** *dau* ad. Gobernatu, zuzendu. *Aurrak ondo manejatzen tu* 'haurrak ondo manejatzen ditu'.

maneju, manejua

MANEIU

manejo, manipulación, empleo

maneju iz. Maneiua; maneiatzea, erabilera. *Kontuz ibili binapin eskupetĭen manejuekin* 'kontuz ibili behinik behin eskopetaren maneiuarekin'. *Gaztĭek ondo ikasita dukai telefonwen manejua* 'gazteek ondo ikasita daukate telefonoaren maneiua'.

manera

MANERA

manera, modo, forma, traza

manera iz. Moldea, modua, era [esapide bakarrean jaso da: *mala manera*]. Ik. **modu**; **lera**. ◆ **mala manera** (> *malamanea*, *malamanĭá*). Ik. **modu txarrean** (> *modu txarrĭen*). *Mala manera daile* 'modu txarrean dabil'. [de mala manera].

manga, mangia

MAHUKA, HODI MALGU

mangera

manga, manguera

manga iz. Mahuka, mangera; tutu luze eta malgua, askotan gomazkoa, isurkari bat eramateko erabiltzen dena. Ik. **mangera**.
*{OEH Manga, manguera. "Gualdekuku jukazkinaier porrubak onnnak: baia mangiekin urasko botatzen juenei eta mangioi leku gutxitan joon, mangioi bagenduka... Porrubak urasko ber din da mangiarrek artzen din putzuti urasko" (Iza Alts)}.

mangera, mangeria

MANGERA

manga

manguera

mangera iz. Tutu luze eta malgua. *Iturriti mangerĭa patuta erregatzen dau batzĭa* 'iturritik mangera paratuta erregadiatzen [ureztatzen] du baratzea'. Ik. **manga**.

mangulu, mangulua

MAKULU

muleta

mangulu iz. Makulua. Pl. *manguluek*. *Mangulu bat deka* (Ond Bak). *Ankĭa biortuta, manguluekin daile* 'hanka bihurtuta, makuluekin dabil'. Ik. **makila**; **baston**.

mania

MANIA

manía

mania iz. Apeta edo ohitura obsesiboa. ◆ **mania hartu**. Ik. begitan hartu.

maniatiko, maniatikua

MANIADUN, MANIATIKO

maniático, -a

maniatiko iz./adj. Maniaduna.

manikomio, manikomiua

ZOROETXE, EROETXE

sekadero (Lgart.)

manicomio

manikomio iz. Zoroetxea, eroetxea ▲ Sin. (Lgart.) *sekadero*. Ik. **eroetxe**.

mankustan

MAHUKA HUTSEAN, MAHUKA HUTSIK

en mangas de camisa

mankustan adb. Mahuka hutsean, mahuka hutsik. *Mankustan ibiltzen da uda ta negu* 'mahuka hutsean ibiltzen da uda eta negu'.

manso, mansua

MANTSO

3 geldi

azkar (1), listo

manso, -a, lento, -a
domado, -a, domesticado, -a
despacio, lentamente

manso **1** adj. Mantsoa, otzana, barea. **2** adj. Abereez mintzatuz, hezia, eskurakoia dena, izua ez dena. **3** adb. Mantsotasunez; astiro, geldiro. Ik. **geldi**. ▼ Anton. *azkar*[1], *listo*.

manta, mantia

MANTA

manta
manta (de cañamazo)

manta **1** iz. Burusia, tapakia. *Mantapĭen* 'mantapean'. **2** iz. Kalamuki oihala, formaz laukia, nekazaritzan zama biltzeko erabiltzen dena. *Orbela biltzeko mantĭa* 'orbela biltzeko manta'.

mantaguna, mantagunia (INAUTEKO MOZORRO; INAUTEKO EGUN)

disfraz o personaje del carnaval con un saco o manta de arpillera
día de carnaval en el que se disfraza de «mantaguna»

mantaguna **1** iz. Inaute jaietako mozorroa; inork ezagutu ez dezan, zaku oihalez mozorrotua; *mantagunak* mozorro gabe dagoena harrapatu eta makilaz zirikatu edo jo egiten du. **2** iz. pl. *Mantagunak* egiten diren eguna, inautetako larunbatean egiten den jaia. *Noiz dĭa mantagunak?* 'noiz dira mantagunak?'. *Leno mantagunak izaten zĭan udazkenĭen, urri aldea* 'lehenago [lehen] *mantagunak* izaten ziren udazkenean, urri [irail] aldera'. Ik. **diote**.

manteka, mantekia GANTZ

gantz

manteca
grasa derretida

manteka iz. Gantza. Ik. **gantz**; **gilborra**.

mantekilla, mantekillia GURIN

mantequilla

mantekilla iz. Gurina. *Mantekillĭa iteko, esene gaina batitu* 'gurina egiteko, esne-gaina irabiatu'.

mantel, mantela ZAMAU, MAHAI ZAPI

zajau

mantel

mantel iz. Zamaua, mahai zapia. Ik. **zajau**.

mantelin

Buruen jazten dana, eliza fateko (Ond Bak).
mantilla (Urd).

mantenatu, mantenatzen MANTENDU

alimentatu

mantener(se), alimentar(se), sostener(se), sustentar(se)

mantenatu (eta *mantendu*, *mantenitu*) **1** *da/dau* ad. Elikatu. *Etxien mantenatzen dia* 'etxean mantentzen dira' (Ond Bak). Ezin mantenatu dian jendiek. **2** *da/dau* ad. Zerbaitek bere izateari edo egoerari eutsi; irauten utzi edo iraunarazi. *Sua yazita mantenatzeko egurra bota ber zaio* 'sua irazekita mantentzeko egurra bota behar zaio'.

mantendu, mantentzen MANTENDU

alimentatu

mantener(se), alimentar(se), sostener(se), sustentar(se)

mantendu (eta *mantenatu*; *mantenitu*) **1** *da/dau* ad. Elikatu. Ik. **alimentatu**. **2** *da/dau* ad. Zerbaitek bere izateari edo egoerari eutsi; irauten utzi edo iraunarazi.

mantenimentu, mantenimentua

MANTENU. 2 MANTENTZE LAN

mantenimiento, manutención, sustento, alimento
mantenimiento; labores de mantenimiento de instalaciones, etc.

mantenimentu **1** iz. Mantenua, jatekoa. **2** iz. Mantentze lana; instalazio, eraikin, makina edo kidekoren bat egoera onean iraunarazteko eta behar bezala funtzionarazteko egin behar diren lanak. *Mantenimentuen ibiltzen da fabrikan* 'mantentze lanetan ibiltzen da fabrikan'.

mantenitu, mantenitzen

MANTENDU

mantener(se), alimentar(se), sostener(se), sustentar(se)

mantenitu *da/dau* ad. Ik. **mantendu**.

mantilla, mantillia

MANTELINA

mantilla, mantellina

mantilla iz. Mantelina; burua estaltzeko zapia, batez ere emakumeek elizara joateko eramaten dutena. Ik. **buruko pañelo**; **buruko trapu**.

manton, mantona

MANTOI, XAL

mantón

manton iz. Mantoi, xala; sorbalden eta besoen gainean jartzen den zapi handia, berogarri edo apaingarri gisa erabiltzen dena.

mantu, mantua

MANTU

manto, capa

mantu iz. *Mantua jazten zain leno emakumiek* 'mantua janzten zuten lehenago emakumeek'.

mantxa, mantxia

MANTXA, ORBAN

mancha

mantxa iz. Orbana. Ik. **motezto**; **zikin**; **txoltxa**.

manzandila, manzandilia

KAMAMILA, MANTZANILLA

manzanilla, camomila
manzanilla (infusión)

manzandila iz. (Bot.) Kamamila, mantzanilla. Ik. **manzanilla**.

manzanilla, manzanillia

KAMAMILA, MANTZANILLA

manzanilla, camomila
manzanilla (infusión)

manzanilla (eta *manzandila* [Urdiain]; *manzelina* [Bakaiku]). **1** iz. (Bot.) Kamamila, mantzanilla (Matricaria chamomilla). **2** iz. Kamamila-loreekin egiten den egoskin sendagarria.

manzelina

KAMAMILA, MANTZANILLA

manzanilla, camomila
manzanilla (infusión)

manzelina iz. (Bot.) Kamamila, mantzanilla. Ik. **manzanilla**. *Manzelina* 'kamamila' *biltzia fan da*. *Manzelina asko ekar dau* (Ond Bak).

maña
MAINA

lloriqueo, puchero
destreza, capacidad, habilidad, maña

maña **1** iz. *Aurran mañak* 'haurraren mainak'. Ik. **maina** (alfer maina). **2** iz. Abildade, arte.

mañoso, mañosua
TREBE

tebe

diestro, -a, capaz, hábil, mañoso, -a

mañoso adj. Ik. **trebe**.

mapa, mapia
MAPA

mapa

mapa iz. *Gustwa ibiltzen nitzan eskolan mapĭekin* 'gustura ibiltzen nintzen eskolan maparekin'.

mar-mar-mar
MAR-MAR-MAR

murmurando, cuchicheando; quejándose, protestando, refunfuñando
llorando

mar-mar-mar **1** adb. Marmarka, marmarrean. **2** adb. Negarrez. *Mar-mar-mar ñearrez*. Atzo aitu nian, mar-mar-mar ñearrez.

maratika
MARATIL [?]

carrete para hilar la lana

maratika [Ziordia] iz. Artilea iruteko txirrika. {Carrete para hilar la lana [Ziordia]}. {[?] OEH. maratil (V-gip). Ref.: A. Péndulo. "Péndulo de madera, que hacen girar las hilanderas para retorcer el hilo" A. "Irulaak, ardi-ulia maratillan iruten dutenai bakarrik [...] esaten zaie Oiñatin" Iz LinOñ 181.}.

mardul, mardula
MARDUL

zimel

lozano, -a, sano, -a, vigoroso, -a; rollizo, -a, robusto, -a, corpulento, -a

mardul (Iza Alts) adj. [Lozano]. [Urdiain] *Oi jende mardula* 'hori jende mardula'. *Au txerrien mardula!* 'hau txerriaren mardula!'. ▼ Anton. *zimel*.

mardultasun, mardultasuna
MARDULTASUN

lozanía, vigor; robustez, corpulencia

mardultasun iz. *Nolako mardultasuna duka emakumiorrek!* 'nolako mardultasuna dauka emakume horrek!'.

mareatu, mareatzen
MAREATU

zoramaritu, zoratu

marear(se)

mareatu *da/dau* ad. Zorabiatu. *Autobus zar artan ia danok mareatzen gindan* 'autobus zahar hartan ia denok mareatzen ginen'. Ik. **zoramaritu**; **zoratu**.

mareo, mareua
ZORABIO

zoramari

mareo

mareo iz. Zorabioa. Ik. **zoramari**.

margarita, margaritia
MARGARITA

pitxilinta

margarita, vellorita, chiribita (Bellis sp.)

margarita iz. (Bot.) Bitxilorea, belar landarea (Bellis sp.). Ik. **pitxilinta**.

mari
MARI

término que antepuesto a nombres o adjetivos sirve para formar peyorativos femeninos

mari Zenbait izenen edo izenondoren aurrean ezarririk, emakumezkoak erdeinuz izendatzeko erabiltzen den hitza.
- **mari-mutiki**. Mari-mutilkia, mari-mutila; mutilen itxura eta keinuak dituen neska.
- **mari-zikin**. Emakume zikina. *Marizikinoi!* 'mari-zikin hori!'.

mari-mutiki, mari-mutikia
MARI-MUTIL

marimacho

mari-mutiki. Mari-mutilkia, mari-mutila; mutilen itxura eta keinuak dituen neska.

mari-zikin, mari-zikina
MARI-ZIKIN

mujer sucia, pazpuerca

mari-zikin. Emakume zikina. *Marizikinoi!* 'mari-zikin hori!'.

marigorri, marigorria
MARIGORRI

maritxogorritxo

mariquita (Coccinelidae)

marigorri iz. (Coccinelidae). *Marigorriek onak dĭa batzako* 'marigorriak onak dira baratzerako'. ▲ Sin. *maritxogorritxo* [Altsasu].

marinero, marinerua; marinera, marineria
MARINEL

marinero; marino, -a

marinero, -a (Generoa hartzen du) iz. Marinela.

marioneta, marionetia
TXOTXONGILO

marioneta, títere

marioneta iz. Txotxongiloa. *Marĭonetĭa bekela manejatzen dai* 'marioneta bezala maneiatzen dute'.

mariposa, mariposia
TXIMELETA

atxitamutxitari, atxitamustai

mariposa (Lepidoptera)
palomilla, tuerca de mariposa

mariposa **1** iz. Tximeleta (Lepidoptera). Ik. **atxitamutxitari**; **atxitamustai**. **2** iz. Tximeleta-azkoina, azkoin belarriduna. *Biziketĭen txirrikak ondo fijatuta mariposakin* 'bizikletaren txirrikak ondo finkatuta tximeleta azkoinekin'.

marisko, mariskua
ITSASKI (1)

marisco

marisko iz. Itsaskia. Ik. **kaskalak jan**.

maritxogorritxo MARIGORRI

marigorri

mariquita (Coccinelidae)

maritxogorritxo [Altsasu] iz. Amona mantangorria. (Coccinelidae). Ik. **marigorri**.

maritxogorritzo (?) MARIGORRI

mariquita (Coccinelidae)

marka, markia MARKA

seinale, arrasto

marca; señal; huella

marka **1** iz. Seinalea, aztarna, ezaugarria. **2** iz. Gauza batean edo abere batengan egiten den seinalea. ◆ **txirrika marka** (EHHA) {Zehazki: rodada: gurpil marka}. Ik. **txirrika zulo**.

markadore, markadoria [ILDASKAK IREKITZEKO NEKAZARITZA TRESNA]

surcadora (máquina agrícola)

markadore iz. (Nekaz.) Nekazaritzako tresna; ereiteko ildaskak irekitzen dituena. *Patatĭa sartzeko, markatu iten da markadorĭekin* 'patata sartzeko, markatu egiten da [ildaskak ireki] markadorearekin'.

markatu, markatzen MARKATU

seinalatu

marcar, señalar

markatu **1** *dau* ad. Markaz seinalatu, marka ezarri edo egin. Ik. **seinalatu**. **2** *dau* ad. (Nekaz.) Lurrean ildoa zabaldu, hazia botatzeko. *Markatu in du patatĭa sartzeko* 'markatu egin dugu patata sartzeko [ereiteko]. Ik. **markadore**.

markes, markesa MARKES

marqués

markes iz. *Markesanak* 'markesarenak' [izengoitia]. • Esr. zah. *Markes de Ahalbanike eta Konde de Ahalbanuke*.

marku, markua MARKO

marco, moldura

marku iz. Markoa; ispiluak, margolanak, leihoak eta kidekoak inguratzen dituen egitura finkoa. *Ataien markua* 'atearen markoa'.

marmar, marmarra MARMAR

letania

murmullo, susurro
enfado, queja, refunfuño

marmar **1** iz. Hots jarraitua, arina eta isila. *Sortwik no raso; marmarra besteik eztot aitzen* 'sorturik nago arras; marmarra besterik ez dut aditzen'. Ik. **zurrunburrun**. **2** iz. Ahopeko mintzoa, batez ere haserrea edo kexua adierazten duena. Ik. **letania**; **marmarkeria** (> *marmarkeia*); **marmarreria** (> *marmarreia*).

marmarkei, marmarkeia

MARMARIO, MARMARIZA, MARMAR

parloteo; habladuría

marmarkeria (> *marmarkei*, *marmarkeia*) iz. Marmariza gaitzesgarria. Ik. **marmarreria** (> *marmarreia*, *marmarrei*). ◆ **marmarkerian ibili** (> *marmarkeien ibili*). Marmarrean aritu. Ik. **marmarrerian** (> *marmarreien*).

marmarkeien ibili

MARMARREAN ARITU

marmarreien

parloteando; murmurando, cuchicheando

marmarkerian ibili (> *marmarkeien ibili*). Marmarrean aritu. Ik. **marmarrerian** (> *marmarreien*).

marmarrei, marmarreia

MARMAR, MARMARIO

berriketa; letania; marmarkeia; tartarreia

charla, parloteo, murmuración, charlatanería, cotorreo, habladurías

marmarreria (> *marmarreia*, *marmarrei*) iz. Marmarioa, marmarra. Ik. **berriketa**; **letania**; **tartarreria** (> *tartarreia*). ◆ **marmarrerian** (> *marmarreien*) adb. Marmarrean, marmar eginez, marmarka. Ik. **marmarkerian** (> Ik. **marmarkerian** (> *marmarkeien*).*en*).

marmarreien

MARMARREAN

marmarkeien

murmurando, cuchicheando; quejándose, protestando, refunfuñando

marmarrerian (> *marmarreien*) adb. Marmarrean, marmar eginez, marmarka. Ik. **marmarkerian** (> *marmarkeien*).

marmol, marmola

MARMOL

mármol

marmol iz. *Marmola atatzen zain Urbasati* 'marmola ateratzen zuten Urbasatik'. ◆ marmolezko. ◆ **marmol harri**. ◆ marmol harrubia, marmol kanteria.

marraxko

MARRUSKETA, GARLOPA MOTZ

garlopín, garlopa (cepillo de carpintería)

marraxko iz. Marrusketa, garlopa motza; zurginaren lanabesa, zura marruskatzeko eta leuntzeko erabiltzen dena. {garlopín (Ond Bak)}.

marrokan

MARROKA

marro (al juego de marro)

marrokan adb. Marroka jolasten.

marron, marrona

MARROI

marrón

marron adj./iz. Marroi kolorekoa. Kolore marroia. *Begi marronak dukatzizu* 'begi marroiak dauzkazu'.

marrondu

(MARROI KOLOREA HARTU)

poner(se) marrón

marrondu *da/dau* ad. Kolore marroia hartu edo eman; marroi bihurtu.

marsu, marsua

MARTXO

marzo

marsu (eta *marsuba*) iz. Martxoa, urteko hirugarren hila.
Marsuben hogeitabostien. Marsuba fan emen zan. Marsubei. Marsuek. Ik. Marsuba fan Kontua. Marsukuá (elurra), urá (Ond Bak).
• Esr. zah.: Marsuko lainua nuaindo, elurra haraindo.
*OEH Martxoan lainoa noraindo, apirilan elurra a(r)untzaindo (G-nav). Inza NaEsZarr

marta, martia

LEPAHORI

marta (Martes martes)

marta iz. Lepahoria; ugaztun haragijalea, buru-txikia, gorputz-mehea eta buztan-luzea, ilea leuna eta sarria duena (Martes martes).

martin peskadore, martin peskadoria

MARTIN ARRANTZALE

martín pescador (Alcedo atthis)

martin peskadore iz. Martin arrantzalea; ibaien eta aintziren ondoan bizi den hegaztia (Alcedo atthis).

martingala, martingalia

TRIKIMAILU, AMARRU

tranpa

martingala, artimaña

martingala iz. Trikimailua, amarrua. Ik. **tranpa**[2].

martinsaltalagai

MATXINSALTO

martinsaltokalai, martinsaltalaiya

saltamontes (Caelifera)

martinsaltalagai [Bakaiku] iz. Matxinsaltoa. Ik. **martinsaltokalari**.

martinsaltalai, martinsaltalaia

MATXINSALTO

martinsaltokalai, martinsaltalagai

saltamontes (Caelifera)

martinsaltalari (> *martinsaltalai*, *martinsaltalaiya* [Altsasu]) iz. Matxinsaltoa. Ik. **martinsaltokalari**.

martinsaltokalai, martinsaltokalaia

MATXINSALTO

martinsaltalagai, martinsaltalaiya

saltamontes (Caelifera)

martinsaltokalari (> *martinsaltokalai*) iz. Matxinsaltoa, zelai eta belardietako intsektu jauzkaria (Subord. Caelifera). Ald. *martinsaltalagai* [Bakaiku]; *martinsaltalai(ya)* [Altsasu].

martirio, martiriua

MARTIRIO

martirio

martirio, tormento, sufrimiento

martirio **1** iz. Eliza katolikoarenak. *Martiretan zazpi sueldo patzen genduben mezi* (Iza Alts). **2** iz. Irud. Sufrimendu handia.

martxa, martxia

MARTXA

marcha, velocidad; paso
comportamiento, conducta, proceder
marcha; cambio de velocidades

martxa **1** iz. Urratsa, ibilera; gertakari edo egiteko baten abiadura. *Ik yantzak yaure martxĭa* 'hik eramantzak heure martxa'. **2** iz. Ibiltzeko eta, hedaduraz, jokatzeko modua. **3** iz. Ibilgailuetan, abiadura-aldagailua. Ik. **kanbio**.
◆ **martxa hartu** (> *martxĭa artu*). Lan edo egiteko batera egoki moldatu.
◆ **(halakoren) martxa hartu** (> *alakwen martxĭa artu*). *(Alakwen) martxĭa artu dau orrek* '(halakoren) martxa hartu du horrek'. (*Aniceton martxia hartu dau horrek, moxkor martxia*). *Martxa txarra dĭa* 'martxa txarra darama'. || Ohitura [?]. *Tokien tokiko martxak* [ohiturak].
◆ **martxa honetan** (> *martxontan*). Honela jarraituz gero, bide honetatik jarraituz gero.
◆ **martxan** **1** adb. (jarri, paratu (> *patu*) eta kideko aditzekin). Abian. **2** adb. (izan, egon (> *yon*), ibili eta kideko aditzekin). Arituz, lanean. ¬

martxan patu

MARTXAN PARATU / IPINI / JARRI

arrankatu

poner(se) en marcha

martxan paratu (> *martxan patu*) *da/dau* ad.

masa, masia

MASA

ora, pasta; mortero

masa, pasta
masa, argamasa

masa **1** iz. Orea. Ik. **ora**; **pasta**. **2** iz. Morteroa, eraikuntzarako materiala. Ik. **mortero**. ◆ **masa egin** (> *masĭa in*). *Masĭa ondo in ber da bizkotxwa ona atatzeko* 'masa ondo egin behar da bizkotxoa ona ateratzeko'.

masaila, masailia

MASAIL

mejilla, carrillo; carrillera

masaila (*a* itsatsia) iz. *Masail gorri*. *Masail gorriek*. Ik. **musu-masaila**; **ipurdi-masaila**.

masailezur, masailezurra

MASAILEZUR

mandíbula, quijada
(hueso) maxilar (maxilar inferior; maxilar superior)

masailezur iz. Hortz-haginak kokaturik dauden hezurra.

masakratu, masakratzen

MASAKRATU

masacrar

masakratu *dau* ad. Sarraskitu; basatiki eta kopuru handietan hil, sarraski handia egin; norbaiti zauri eta urratu larriak egin. ¬

masakre, masakria

MASAKRE

masacre, matanza, carnicería

masakre iz. Sarraskia. Ik. **karnizeia**.

masatu, masatzen

ORATU

oratu, masia in

amasar, hacer la masa

masatu *dau* ad. Orea egin. Ik. **oratu**; **masa egin** (> *masĭa in*). *Masatu: masĭa in* '*masatu*: masa [orea] egin'. *Masatu ogia ta gĭo puskatu* 'masatu [oratu] ogia eta gero puskatu' (LM). [Ez da '*amasatu*' esaten. LM].

maskal, maskala

MASKAL

makal

débil

maskal adj. Ahula (LM). Ik. **makal**.

maskaldu, maskaltzen

MASKALDU

debilitar(se)

maskaldu *da/dau* ad. Ahuldu, indarra edo adorea galdu edo galarazi (LM). Ik. **makaldu**.

maskilo, maskilua / matskilo, matskilua

MAHATS MORDO, MAHATSOKO

mahats-mordo

racimo de uvas

mahatskilo (> *matskilo*, *maskilo*) iz. Mahats mordoa, mahatsokoa. *Uretan ondo garbitu matskilwa* 'uretan ondo garbitu mahatsokoa'. ▲ Sin. *mahats-mordo*.

maskubi, maskubia

MASKURI

vejiga
globo, bochincha, zambomba (vejiga de cerdo inflada)

maskubi **1** iz. Maskuria, giltzurrinei darien pixa biltzen duen mintzezko zorroa. **2** iz. Puxika, bixika; txerriaren maskuriarekin egindako globoa; lokarriarekin makilatxo bati lotuta, inauteetan jendea jotzeko erabiltzen da.

mastikatu, mastikatzen

MASTEKATU

masticar, mascar

mastikatu *dau* ad. Mastekatu, ahoan txikitu.

masurta, masurtia

MASUSTA

matxurreta

zarzamora
mora

masurta (eta *maxurta* [Altsasu, Bakaiku]) iz. (Bot.) Masusta, lahar edo sasiaren fruitua, jateko ona. Bi mota bereizten dira, *sasi-masurta* (Rubus ulmifolius) eta *uso-masurta* (Rubus caesius). || *Masurta ta bat eta beste* (Ond Bak). Ik. **matxurreta** [Urdiain].

matagin, matagina

LETAGIN, BETORTZ

colmillo

matagin (eta *matain* [Urdiain]; *matein* [Altsasu]) iz. Letagina. *Mataginak lau dia* (Ond Bak). Ik. **hortz**.

matai, mataia

MATERIA, ZORNE

pus

mataiatu, mataiatzen
MATERIATU, ZORNATU

formar(se) pus

materiatu (> *mataiatu*) *da* ad. Zornatu, zauri edo zaldar batean materia edo zornea egin. *Mataiatu in zaio mina* 'materiatu egin zaio mina [zauria]'.

matain, mataina
LETAGIN

colmillo

matakabras
HAIZE GORRI

haize gorri

matacabras (Viento norte fuerte)

matakabras iz. Haize gorria; haize oso hotza. Ik. **haize gorri**.

mataza
MATAZA

madeja, ovillo

mataza ([Altsasu], eta *mateza* [Urdiain]) iz. *Zortzi lixiba ero ber zituben zuritzeko matazak* (Iza Alts). Ik. **mateza**; **haril**.

mateal, mateala
MATERIAL; ZURGAI

zur

material (maderable)

mateal (eta *matĭal*) iz. *Matealetako arbolak: egurretako ez dĭanak* 'materialetarako arbolak: egurretarako ez direnak [zurgintzan erabiltzen direnak]'. *Arboliorrek eztuka matĭalik* 'arbola horrek ez dauka materialik'. *Egurretako o matĭaletako* 'egurretarako edo materialetarako'. Ik. **zur**.

materia
MATERIA, ZORNE

pus

materia (eta *matai*) iz. Zornea, zauri eta handitu gaizkoatuetan sortzen den isurkari lodi zuri-horixka.

material, materiala
MATERIAL

2 zur

material
material (maderable)

material **1** iz. Zerbait egiteko behar den gai, tresneria edo baliabideen multzoa. **2** (> *mateal*, *matĭal*) iz. *Matealetako arbolak: egurretako ez dĭanak* 'materialetarako arbolak: egurretarako ez direnak [zurgintzan erabiltzen direnak]'. *Arboliorrek eztuka matĭalik* 'arbola horrek ez dauka materialik'. *Egurretako o matĭaletako* 'egurretarako edo materialetarako'. Ik. **zur**.

mateza, matezia
MATAZA

madeja, ovillo

mateza ([Urdiain], eta *mataza* [Altsasu]) iz. Mataza; euskarririk gabe bira handietan bildurik dagoen haria. Ik. **haril**. *Ari matezĭa* 'hari mataza'.

matezatu, matezatzen
MATAZATU

aspar, ovillar, devanar, enmadejar

matezatu *dau* ad. Matazatu; mataza eginez bildu.

mato, matua

MATOI, GAZTANBERA

rekeson

leche cuajada (separada del suero); requesón

mato iz. Matoia, gazta egiteko gatzatu bildua, zumitzean sakatu ez dena. *Mato asko* 'matoi asko'. || *Matwekín iten dá gaztaiá: apartatzen dá gazurĭá ta gelditzen dá matwá* 'matoiarekin egiten da gazta: apartatzen da gazura eta gelditzen da matoia' (Ond Bak). *Matwa nastuz iten da gaztaĭbeatua* 'matoia nahastuz egiten da gaztai beratua'. Ik. **rekeson**; **gaztanbera**.

matraila, matrailia

BARAILA

mandíbula, quijada

matrailezur, matrailezurra

MATRAILEZUR

mandíbula, quijada, maxilar; hueso maxilar

matrailezur iz. Hortz-haginak kokaturik dauden hezurra. ¬

matraka, matrakia

MATRAKA

revoltosa, traviesa, caracoleta

matraka adj. Neskez mintzatuz, ausarta eta bihurri samarra. *Emakume matrakĭa* 'emakume matraka'.

matrikula, matrikulia

MATRIKULA

matrícula (placa identificativa que llevan los vehículos)

matrikula iz. Ibilgailuetan, erregistro zenbakia adierazten duen plaka. Ik. **patente**.

matxakatu, matxakatzen

BIRRINDU, TXIKITU, ZEHATU

txetu, txikitu; iyo / iho

machacar

matxakatu *dau* ad. Birrindu, txikitu, zehatu. Ik. **txehetu** (> *txetu*); **txikitu**; **iho** / **iyo**.

matxarda, matxardia

MATXARDA

1 pinza; 3 haga

pinza; tenaza de palo para coger el erizo de la castaña
escalera de mano rudimentaria (tronco delgado de árbol como único larguero; las horquetas de horquilla, horqueta, puntal (de sujeción, apoyo, soporte)

matxarda **1** iz. Gaztaina-morkotsak hartzeko erabiltzen den pintza. *Gaztina morkotsak jasotzeko matxardĭa*. *Gaztina morkotsak artzekwen ez pikatzeko, matxardĭa iten zan makilatxwetekin* 'gaztaina morkotsak hartzekoan ez pikatzeko, matxarda egiten zen makilatxo batekin' [*Pikatu*, ziztatu]. Ik. **pinza**. **2** iz. Eskailera modukoa; zuhaitz enbor adartsua, meharra eta zuzena ardatz dela, haren behetik gorako adarren urkilak (adarren eta enborraren elkarguneak) erabiltzen dira eskailera mailatarako.
[*OEH matxarda (G-nav). "Tronco con muescas para subir a árboles" Ond Bac. Cf. VocNav: "Macharda: escalera rústica hecha con un tronco delgado y clavijas laterales. Se usa comúnmente para subir a los árboles y colocar los cimbeles en la caza de palomas (Barranca)"].
3 iz. Urkila (euskarria). Ik. **haga**. *Ildako txerria txitxilikatzeko matxardĭa* 'hildako txerria zintzilikatzeko matxarda'.

matxeta, matxetia

MATXETE, AIHOTZ

machete, podadera

matxeta iz. Matxetea, aihotza; inausteko eta sasiak mozteko erabiltzen den lanabesa, igitaiaren antzekoa.

matxete, matxetia

MATXETE, AIHOTZ

machete, podadera
cuchillo grande

matxete **1** iz. Aihotza; inausteko eta sasiak mozteko erabiltzen den lanabesa, igitaiaren antzekoa. *Esiek austeko matxetĭa* 'hesiak hausteko matxetea'. **2** iz. Ganibet modukoa, astuna, xafla-zabala eta aho bakarrekoa.

matxo eman

MUSU EMAN

besar

matxo eman. Musu eman. Ik. **mun eman**.

matxo, matxua

MA, MUSU

musu, pa

beso

matxo iz. Ma; musua. Ik. **musu**; **pa**. ◆ **matxo eman**. Musu eman. Ik. **mun eman**; **pa eman**.

matxon, matxona

HABE (1)

machón; pilar adosado
madero de escuadría

matxon iz. (Arkit.) Habea.

matxor, matxorra

ANTZU

horro, -a; machorra (Dicho de una yegua, de una burra, de una oveja, etc.: Que no quedan

matxor (< *matxorra*) adj. Behorrez, astemez, ardiez eta hitz eginez, ernari gelditzen ez direla. [*matxor eta auntzu* hitzek ez dute esanahi bera]. Ik. **auntzu**.

matxura, matxuria

MATXURA

aberia

avería

matxura iz. Akatsa, kaltea; bereziki, tresna, makina edo motor bati ibiltzea eragozten diona. *Matxurĭa duku etxeko argien* 'matxura daukagu etxeko argian'. Ik. **aberia**.

matxuratu, matxuratzen

MATXURATU

aberiatu

averiar(se), estropear(se)

matxuratu *da/dau* ad. Tresna, makina edo motor batek matxura izan. Ik. **aberiatu**.

matxurreta, matxurretia

MASUSTA, MARTXUKA

masurta (maxurta)

zarzamora (Rubus ulmifolius); || zarza pajarera (Rubus caesius)
mora

matxurreta iz. (Bot.) Masusta, martxuka; lahar edo sasiaren fruitua, jateko ona. Burundan bi masusta mota bereizten dira, *sasi-matxurreta* (Rubus ulmifolius) eta *lur-matxurreta* edo *uso-maxurta* (Rubus caesius). Ik. **maxurta** [Bakaiku]. ◆ **matxurreta sasi**. *Matxurreta sasia*. ◆ **matxurreta lora**. *Matxurreta loriă*. ◆ **sasi-matxurreta**; **sasi-maxurta**. iz. (Bot.) Lahar edo sasiaren (Rubus ulmifolius) fruitua, jateko ona, lehenik berde, gero gorri eta umotzean beltz diren pikor hazidun askoren multzoak osatua. ◆ **lur-matxurreta** [Urdiain] iz. (Bot.) Masusta mota, *Rubus caesius* lahar herrestariaren fruitua, beltz morantza koloreko pikorrak ditu, *sasi-matxurreta*renak baino handiagoak, eta urtsuagoa da. ▲ Sin. *uso-maxurta*. ◆ **uso-maxurta** iz. *Rubus caesius* lahar herrestariaren fruitua. ▲ Sin. *lur-matxurreta*.

mau, maua

BALDAR, MOLDAKAITZ

torpe, inhábil; torcido, -a

mau adj. Trebetasunik ez duena. *Maua dok lan bat iteko garaien torpĭa dana; esate bateako, sorwen minĭala botatzeko orduen, ondo eztenak botatzen maua dok* 'maua duk lan bat egiteko garaian dorpea [moldakaitza] dena; esate baterako, soroan minerala botatzeko orduan, ondo ez duenak botatzen maua duk'. Ik. **baldar**; **moldakaitz**.

mauka-mauka

MAUKA-MAUKA

maka-maka

vorazmente, a dos carrillos, devorando (con el verbo comer)

mauka-mauka (eta *maka-maka*) adb. Jateko moduaz mintzatuz, jan eta jan. *Ogia, besteipe, mauka-mauka jaten* 'ogia, besterik gabe, mauka-mauka jaten'.

mautu, mautzen

SORGORTU; HOZMINDU

entumecer(se), adormecer(se), hacer(se) insensible

mautu (mahutu* [?]) *da/dau* ad. Sorgortu, sentiberatasuna kendu edo galdu; hozmindu, hotzak igaro edo zurrundu, hotzak igaroa edo zurrundua gertatu. *Otzakin, eskuek mautu* 'hotzarekin, eskuak mautu [sorgortu, hozmindu]'.

maxurta, maxurtia

MASUSTA, MARTXUKA

zarzamora, mora
mora

maxurta [Bakaiku] iz. (Bot.) Masusta, martxuka; lahar edo sasiaren fruitua. Ik. **matxurreta**. ◆ **sasi-maxurta** [Bakaiku]. (Bot.) Sasiko (Rubus ulmifolius) masustaren fruitua. {*sasimaxurta* "Mora que se da en las cercas, etc., en matas más grandes que uso-maxurta" (Ond Bak)}. ▲ Sin. *sasi-matxurreta* [Urdiain]. ◆ **uso-maxurta** [Bakaiku] iz. (Bot.) Masusta mota, *Rubus caesius* lahar herrestariaren fruitua, beltz morantza koloreko pikorrak ditu, sasi-matxurretarenak baino handiagoak, eta urtsuagoa da. ▲ Sin. *lur-matxurreta*, *uso-matxurreta*.

mazeta, mazetia

LOREONTZI

tiesto

maceta, tiesto

mazeta iz. Loreontzia, loreak eta landareak landaturik edukitzeko ontzia. ▲ Sin *tiesto*. Ik. **jardinera**.

mazo, mazua

MAZO

mazo, maza, martillo

mazo iz. Zurezko mailu handia; soro eta baratzean, lur zati trinkoak (kozkorrak) jotzeko erabiltzen den mailu handia.

mazpila (?) {maizpila (?)}

MAZPIL (?)

sorbo silvestre (Sorbus torminalis) (?)
acerolo (Crataegus azarolus) (?)

mazpila iz. Ald. (?) Ik. **maizpila** (?).

medar, medarra

MEHAR

estu

estrecho, -a, angosto, -a

medartu, medartzen

MEHARTU

estutu

estrechar(se), adelgazar

medikamentu, medikamentua

MEDIKAMENTU

botika

medicamento; fármaco

medikamentu iz. Sendagaia. Ik. **botika**. ◆ **medikamentua hartu** (> *medikamentua artu*). Botika hartu.

mediku, medikua

MEDIKU

médico, -a [persona]

mediku (fem. *medikĭá*) iz. *Mediku berria etor da* 'mediku berria etorri da'. *Medikuengana fan berra dukat* 'medikuarengana joan beharra daukat'. *Medikutan dail(e)* 'medikutan dabil'. • Esr. zah. *Mediku aundia dok/don Santon!* 'mediku handia duk/dun San Anton!'. *Sananton festatako danak ongitwik* 'sananton festetarako denak ongiturik'. ◆ **idi-mediku**. Abelgorri jabeen elkarteko ardurak zituztenak ziren *idi-medikuak*. ◆ **medikuak agindu** (> *medikuek agindu*). Ik. **errezetatu**.

mehar, meharra

MEHAR

estu; mehe

zabal

estrecho, -a, angosto, -a

mehar ([Altsasu] eta *medar* [Urdiain]) adj. Meharra, zabalera txikia duena. *Mutur meharra* (Iza Alts). Ik. **estu**; **mehe**. ▼ Anton. *zabal*.

mehartu, mehartzen

MEHARTU

estutu

estrechar(se), adelgazar

mehartu (> *medartu*) *da/dau* ad. Mehar edo meharrago bihurtu. *Bidĭa ortxe medartzen da* 'bidea hortxe mehartzen da'. Ik. **estutu**. | *Soinekwau medartu berra do* 'soineko hau mehartu beharra dago'.

mehe, mehea

MEHE

flako, firu, medar

lodi

delgado, -a, flaco, -a
fino, -a, delicado, -a
ligero, -a, poco denso, -a

mehe (> *me*) **1** adj. *Ondo mea zan, ba, gaztetan* 'ondo mehea zen, bada, gaztetan'. Ik. flako; firu; medar. ▼ Anton. *lodi*, *gizen*, *puztikilo*. **2** adj. *Arropa mea* 'arropa mehea'. *Aize mea* 'haize mehea [haize hotza]'. **3** adj. *Salda mea* 'salda mehea'. *Esene mea* 'esne mehea'.

mehetu

ARGALDU, MEHETU

flakatu, argaldu (?)

gizendu, loditu

adelgazar(se)

mehetu (> *metu*) *da/dau* ad. Mehe edo meheago bihurtu. ▲ Sin. *flakatu*. ▼ Anton. *gizendu*, *loditu*. ¬

mejillon, mejillona

MUSKUILU

mejillón (Mytilus sp.)

mejillon iz. Muskuilua; itsas moluskua (Mytilus edulis).

mejoratu, mejoratzen

MEJORATU

hobetu

mejorar, restablecerse

mejoratu *da/dau* ad. Ik. **hobetu**.

mejoria

HOBETZE, HOBEALDI

mejoría, mejora; alivio de un enfermo

mejoria iz. Hobetzea, hobealdia; hobera egitea. *Denborĭek eztuka mejoriaik* 'denborak [eguraldiak] ez dauka mejoriarik [hobekuntzarik]'. *Mejoria aundia izan dau operatu zainetik* 'mejoria [hobekuntza] handia izan du operatu zutenetik'.

meko

PORROT, KIEBRA

pott; kiebra

fracaso, quiebra

meko iz. Porrota, kiebra. ◆ **meko egin** (> *meko in*) *dau* ad. Pot egin, huts egin, porrot egin; ahaleginak edo ahaleginean, huts egin. *Lorrĭen tĭakan, ganauek meko in dai* 'lorrean tiraka, ganaduek meko egin dute'. *Sokatiran meko in dai* 'sokatiran meko egin dute'. Ik. **porrot egin** (> *porrot in*); **pott egin** (> *pott in*); **kiebra egin** (> *kiebra in*).

meko in

PORROT EGIN

porrot in, pott in; kiebra in

hacer quiebra, detenerse en medio de un trabajo, negocio, etc., faltándole fuerzas para continuar

meko egin (> *meko in*) *dau* ad. Pot egin, huts egin, porrot egin; ahaleginak edo ahaleginean, huts egin. *Lorrĭen tĭakan, ganauek meko in dai* 'lorrean tiraka, ganaduek meko egin dute'. *Sokatiran meko in dai* 'sokatiran meko egin dute'. *Trator zar orrekin asi dok portuen góra ta ezin iyo gelditu dok; méko in dik lémizko aldapan* 'traktore zahar horrekin hasi duk portuan gora eta ezin igo gelditu duk; meko egin dik lehenbiziko aldapan [*Portu*, mendatea]. Ik. **porrot egin** (> *porrot in*); **pott egin** (> *pott in*); **kiebra egin** (> *kiebra in*).

melatu, melatzen

ZIMELDU, MELATU

timeldu; ikatu [Bakaiku]

mustiar(se), languidecer (una planta, una flor o una hoja); marchitar(se)

melatu *da/dau* ad. *Beruekin letxugak melatu in dĭa* 'beroarekin letxugak melatu egin dira'. Ik. **ikaratu** [Bakaiku]; **timeldu**.

melokoton, melokotona

MERTXIKA, MELOKOTOI

melocotón [fruto]

melokoton iz. (Bot.) Mertxika, melokotoia.

melon, melona

MELOI

melón (Cucumis melo)

melon iz. (Bot.) Meloia; landare herrestaria (Cucumis melo); landare horren fruitua. *Ondubé, berde do gwaindo melonau* 'ondu gabe, berde dago oraino [oraindik] meloi hau'.

memoia

MEMORIA

buru

memoria
recuerdo

memoria (> *memoia*) iz.
memoia haundikua, memoia gutxikua.
memoien hartu, buruen hartu. Ik. **buru**; **gogo**.

mendabal haize

MENDEBAL-HAIZE

gaztala; gaztalaize

viento de poniente, viento (del) oeste

mendabal haize iz. Mendebal-haizea, mendebaldetik datorren haizea. *Yauria ekartzen dau mendabal aizĭek* 'euria ekartzen du mendebal haizeak'. Ik. **gaztala**; **gaztalaize**.

mendabal, mendabala

MENDEBAL

gaztala

oeste, occidente, poniente
viento poniente, viento (del) oeste

mendabal **1** iz. Mendebala, mendebaldea. *Mendabaleti deka yauria* 'mendebaletik dakar euria'. **2** iz. Mendebal-haizea. *Mendabalak badaki yauria gogoti ekartzen* 'mendebal [haizeak] badaki euria gogotik ekartzen'. Ik. **gaztala**; **gaztalaize**. ◆ **mendabal haize** iz. Mendebal-haizea, mendebaldetik datorren haizea. *Yauria ekartzen dau mendabal aizĭek* 'euria ekartzen du mendebal haizeak'.

mende

MENDE

bajo el dominio / poder / mando; bajo la autoridad

mende adb. (-en atzizkiaren eskuinean). Mendean. *Besten mendĭen* 'besteren mendean' (mendeko). Ik. **mendepe**. ◆ **mendean hartu** (> *mendĭen artu*). Menderatu. *Anaia mendĭen artwik jukak orrek* 'anaia mendean harturik zaukak horrek'. Ik. **azpian hartu** (> *azpien artu*); **hankazpien ibili**.

mendekatu, mendekatzen

MENDERATU, AZPIRATU

dominatu, azpien hartu, mendien hartu

dominar, someter

mendekatu *dau* ad. Menderatu, azpiratu. Ik. **azpian hartu** (> *azpien artu*); **mendean hartu** (> *mendĭen artu*); **dominatu**.

mendeko, mendekua

MENDEKO

dependiente, súbdito, -a, subordinado, -a, subalterno, -a; criado, -a, vasallo, -a, esclavo, -a;

mendeko iz./adj. *Aulena izaten da méndekwa* 'ahulena izaten da mendekoa'. Ik. **azpiko**.

mendepe

MENDE; MENPE

mende

bajo el dominio / poder / mando; bajo la autoridad

mendepe adb. Ik. **mende**. ◆ **mendepean** (> *mendepĭen*).

mendi kardu, mendi kardua

EGUZKI-LORE, KARLINA

carlina (Carlina acanthifolia)

mendi kardu iz. (Bot.) Eguzki-lorea, karlina (Carlina acanthifolia). *Jende askok etxeko ataien patzen dau mendi karduen lorĭa, etxĭa gaitzetati ta ekaitzetati gordetzeko* 'jende askok etxeko atarian paratzen du mendi karduaren lorea, etxea gaitzetatik eta ekaitzetatik gordetzeko'.

mendi, mendia

MONTE, MONTAÑA

monte, montaña
montaña, zona de montañas

mendi **1** iz. Inguruko eremutik nabarmen goratzen den lur zatia. Urbasa mendien 'Urbasa mendian'. *Mendi asko do inguen* 'mendi asko dago inguruan'. **2** iz. (Mugatu singularrean). Mendialdea. *Baizan parien, mendien 'Urbasan' barru(r)ó* (Ond Bak).

◆ **mendi bide**. Mendiko bidea.
◆ **(mendi) bizkar** (eta *bixkar*). Mendi baten gainaldea.
◆ **mendi gailur**. Mendi baten gailurra.
◆ **mendi gain**. Mendi baten gaina, gailurra. *Mendi gaina*.
◆ **mendi kardu** iz. (Bot.) Eguzki-lorea, karlina (Carlina acanthifolia). *Jende askok etxeko ataien patzen dau mendi karduen lorĭa, etxĭa gaitzetati ta ekaitzetati gordetzeko* 'jende askok etxeko atarian paratzen du mendi karduaren lorea, etxea gaitzetatik eta ekaitzetatik gordetzeko'.
◆ **mendi punta**. Mendi gailurra. *Mendi puntĭa*.
◆ **mendi tontor**. Mendi gailurra.

mendien hartu

MENDEAN HARTU

azpien artu; hankazpien ibili

dominar, someter, vencer, meter en cintura

mendean hartu (> *mendĭen artu*). Menderatu. *Anaia mendĭen artwik jukak orrek* 'anaia mendean harturik zaukak horrek'. Ik. **azpian hartu** (> *azpien artu*); **hankazpien ibili**.

menditsu, menditsua

MENDITSU

montañoso, -a

menditsu adj. Mendi ugari duena. *Hau leku menditsua da*.

mendizale, mendizalia

MENDIZALE

montañero, -a, aficionado al monte

mendizale iz./adj. *Mendizale talde bat, bide baztarrĭen itxana iten* 'mendizale talde bat, bide bazterrean [itxoin*] atseden egiten'.

mendizaletasun, mendizaletasuna

MENDIZALETASUN

montañismo, afición al monte

mendizaletasun iz. Mendira joateko zaletasuna. *Aspaldikwa da Altsun don mendizaletasuna* 'aspaldikoa da Altsasun dagoen mendizaletasuna'.

mendizelai, mendizelaia

MENDIKO ZELAI, LAUGUNE

monte raso

mendizelai iz. Mendiko zelaia, laugunea (Iza Alts). [monte raso].

menestra, menestria

MENESTRA

menestra

menestra iz. Egosiriko zenbait barazkiz eginiko jakia, askotan haragi edo urdaiazpiko zatiak gehitzen zaizkiona. *Kardua menestran prepatuta* '(baratze-) kardua menestran preparatuta'.

mengal, mengala

MENGEL

ahul, erkin; mirrin; xingle

fuerte, indartsu, sendo

débil, enclenque; flaco, -a, esmirriado, -a

mengal adj. Mengela, ahula, erkina. *Oi jende mengala, aula* 'hori jende mengela, ahula'. Ik. **ahul**; **erkin**; **mirrin**; **xingle**. ▼ Anton. *fuerte*, *indartsu*, *sendo*.

mengaldu, mengaltzen

MENGELDU

ahuldu

debilitar(se), extenuar(se), enflaquecer
ajarse, perder tersura

mengaldu *da/dau* ad. Mengeldu, ahuldu, erkindu, sendotasuna galdu edo kendu. Ik. **ahuldu**; **mirrindu**.

menta-bear, menta-bearra

MENDA-BELAR, MENDA

menta (Mentha sp.)

menta-bear (eta *menta-bĭar*). (Bot.) Menda-belar; menda (Mentha sp.).

menta, mentia

MENDA

menta (Mentha sp.)
infusión de menta

menta **1** iz. Menda (Mentha sp.). Ik. **menta-bear**. **2** iz. Menda infusioa. ◆ **menta-bear** (eta *menta-bĭar*). (Bot.) Menda-belar; menda.

mentzagi

BERANTZAGI, LEGAMIA

levadura
cobarde, pusilánime

mentzagi ([Bakaiku] eta *mentzai* [Urdiain]) **1** iz. Berantzagia, legamia; orea altxatzeko edo harrotzeko erabiltzen den gaia. **2** adj. Adoregabea. *Persona mentzaia* 'pertsona mentzagia'. *Balore gutxikwa danangeiti: A ze mentzai kozkorra dan oi!* 'balore [adore, kemen] gutxikoa denarengatik: A zer mentzagi kozkorra den hori!'.

mentzai, mentzaia

BERANTZAGI, LEGAMIA

levadura
cobarde, pusilánime

merezi izan

MEREZI IZAN

merecer
merecer/valer la pena

merezi izan [Bakaiku] (eta *mezi* [Urdiain]) **1** dau ad. *Merezi dau* 'merezi du' (Ond Bak). *Mezitakwa jaso dau* 'merezitakoa jaso du'. *Ondo mezita* 'ondo merezita'.

meritu, meritua

MERITU

mérito, merecimiento

meritu iz. *Meritu aundia duka in denak* 'meritu handia dauka egin duenak'.

merkadeia

MERKANTZIA, SALGAI, MARXANDIZA

mercadería

merkaderia (> *merkadeia*) iz. Merkantzia, salgaia.

merkantzia

MERKANTZIA

mercancía
mercancías (tren)

merkantzia (> *merkanzia*) iz. Salgaia. *Merkanzia ona duka* 'merkantzia ona dauka'. ◆ **merkantzia tren** (> *merkanzia trena*). Salgaiak garraiatzen dituen trena.

merkatu, merkatzen

MERKATU (2)
gastitu

abaratar(se), rebajar el precio, bajar de precio

merkatu (eta *merketu*) [Adinekoek '*merkatu*' erabiltzen dute] *da/dau* ad. Zerbaiten prezioa beheratu, merkeago bihurtu. ▼ Anton. *gastitu*. (Alderatu: **merkau** [erosteko eta saltzeko tokia]).

merkau, merkaua

MERKATU (1)

fei

mercado; feria; lonja, plaza de abastos

merkau iz. Merkatua, erosteko eta saltzeko tokia. Ik. **fei**. (Alderatu: **merkatu**).

merke

MERKE
gasti

barato, -a, de bajo precio

merke **1** adj. Prezio apalekoa. *Merluzĭek badaki merkĭo're yoten* 'legatza merkeago ere egon ohi da' [*badaki merkĭo yoten* = merkeago (ere) egon ohi da (suele estar más barato/a)]. ▼ Anton. *gasti*. **2** adj. Zerbitzuak edo salgaiak merke eskaintzen dituena. *Denda merke batĭen yosi genduzen* 'denda merke batean erosi genituen'. **3** adb. Prezio apalean. • Esr. zah. *Jakan beia merke, bea ekartzĭa neke* 'Jakan [Aragoiko herria] behia merke, baina ekartzea neke'.

merketu, merketzen

MERKATU (2)
gastitu

abaratar(se), rebajar el precio, bajar de precio

merkatu

merketxo

MERKETXO

bastante barato, -a

merketxo **1** adj. Merke samarra. *Merketxwa* 'merketxoa'. *Auto merketxwet yosiko nike* 'auto merketxo bat erosiko nuke'. **2** adb. Merke samar. *Merketxo saldu dezu* 'merketxo saldu duzu'.

merluza, merluzia

LEGATZ

merluza (Merluccius merluccius)

merluza iz. (Zool.) Legatza; itsas arraina (Merluccius merluccius). *Bixigarria ber dau merluzĭek, bestela motela da-ta* 'bizigarria behar du legatzak, bestela motela da eta'. *Merkĭo're badaki yoten merluzĭek* 'merkeago ere egon ohi da legatza'. Ik. **peskadilla**.

mermelada, mermeladia

MARMELADA

dulze

mermelada

mermelada iz. Marmelada. *Dendan yositakwek, mermeladak; etxĭen indakwek, dulzĭek* 'dendan erositakoak, marmeladak; etxean egindakoak, dultzeak [konfiturak]'. Ik. **dulze**.

mesede, mesedia

MESEDE

galte

merced, favor, servicio, ayuda, beneficio

mesede iz. Norbaiten edo zerbaiten aldeko egite onuragarria. *Alkarri mesede iteko ge* (Ond Bak). ▼ Anton. *galte*. ◆ **mesede egin** (> *mesede in*) On egin. ◆ **mesedea egin** (> *mesedia in*) On egin. Ik. **on egin** (> *on in*). ◆ **mesedez** Zerbait eskatzean erabiltzen den esapidea. *Zade isilik, mesedez!* 'zaude isilik, mesedez!'. Ik. **jangoinkuengeiti**.

mesedez

MESEDEZ

jangoinkuengeiti

por favor

mesedez Zerbait eskatzean erabiltzen den esapidea. *Zade isilik, mesedez!* 'zaude isilik, mesedez!'. Ik. **jangoinkuengeiti**.

metal iturri, metal iturria

METAL ITURRI

fuente de agua ferruginosa

metal iturri iz. Metal ura ematen duen iturria.

metal ur, metal ura

METAL UR

agua ferruginosa

metal ur iz. Burdina duen ura.

metal, metala

METAL

metal

metal iz. Elementu kimikoa, beroaren eta elektrizitatearen eroale ona, distira berezia duena. ◆ **metalezko** adj. *Metalezko kaja batĭen sartuta* 'metalezko kaxa batean sartuta'. ◆ **metal iturri** iz. Metal ura ematen duen iturria. ◆ **metal ur** iz. Burdina duen ura.

metalezko, metalezkua

METALEZKO

metálico, -a, de metal

metalezko adj. *Metalezko kaja batĭen sartuta* 'metalezko kaxa batean sartuta'.

metaliko, metalikua

METALIKO

metálico, -a

metaliko adj. Metalezkoa. *Estruktura metaliko guztia undatu dau suek* 'estruktura metaliko guztia hondatu du suak'. Ik. **metalezko**.

metatu

INAUSI, (ADARRAK) MOZTU

moztu

podar

metatu *dau* ad. Inausi, adarrak moztu (Iza Alts). Ik. **moztu**.

meza ata

MEZA ATERA

encargar misa

meza ata (> *mezĭa ata*). Meza atera, norbaiten aldeko meza emateko eskaria egin. *Aitan aldeko mezĭa atatzeko diura eman dĭa* 'aitaren aldeko meza ateratzeko dirua eman dio'.

meza entzun

MEZA ENTZUN

oír misa

meza entzun (> *mezĭa entzun*). (Iza Alts); *Mezĭa entzun* [Urdiain].

meza, mezia

MEZA

misa

meza iz. Elizkizuna. *Mezĭa eskwaz ta erdĭaz, bita eman dau* 'meza euskaraz eta erdaraz, bietara eman du'. | meza fan. | mezako denbora(n). | mezĭa esan. *Mezĭa esanik do*. | mezan laundu. *Mezan launtzen dai monagilluek*. | meza launtzailĭa. | meza libua 'meza liburua'. | mezĭa eman. *Apizak mezĭa eman dau*. || meza sartu. *Beneki meza sartuik dela* (Ond Bak). (meza sartwik, mezĭa hasik). || *meza nagosia*, *meza txikia* (Ond Bak), goizeko mezĭa. | mezakwen: mezako denboran. ◆ **meza ata** (> *mezĭa ata*). Meza atera, norbaiten aldeko meza emateko eskaria egin. *Aitan aldeko mezĭa atatzeko dirua eman dĭa* 'aitaren aldeko meza ateratzeko dirua eman dio'. ◆ **meza entzun** (> *mezĭa entzun*). (Iza Alts); *Mezĭa entzun* [Urdiain]. ¬

mezi (izan)

MEREZI IZAN

merecer
merecer/valer la pena

mezkla, mezklia

NAHASKETA

nahasteka, nahastua

mezcla

mezkla iz. Ik. **nahasteka**.

mezklatu, mezklatzen

NAHASI

nahasi, nahastu

mezclar(se)

mezklatu *da/dau* ad. Ik. **nahasi**; **nahastu**.

mi, mia (mihi, mihia) MIHI

lengua
badajo
lengüeta

mihi (> *mi*) **1** iz. Ahoko organo gihartsua. **2** iz. Ezkilen eta joareen barnean dilindan dagoen atala. *Farien mihia* (> *farĭen mia*) 'joarearen mihia'. **3** iz. Mihi forma duen material malguzko pieza. *Zapatillien mia* 'zapatilaren mihia'. ◆ **katuak mihia jan** (> *katuek mia jan*). [Hitzegiteko gogorik ez duen umeari] *Katuek mia jan dezu?* 'katuak mihia jan dizu?'. ◆ **mihi gaizto** (> *mi gaizto*). Ik. **mihigaizto**. ◆ **mihia mitilik** (> *mia mitilik*) adb. Hitzontzikerian. ● (Esaera) *Mihia mitilik, ixilik egon ezinik*. || *Emen ibili ga, mia mitilik* 'hemen ibili gara, mihia mitilik' (Maritxu Galarza). ◆ **mihi punta**. Mihiaren muturra. ◆ **mihi puntan ibili**. Gogoratzeko zorian egon, baina gogoratu ezin dela. ◆ **mihi zikin** (> *mi zikin*). Ik. **mihizikin**.

miau MIAU

maullido, miau

miau **1** iz. Katuaren oihua. **2** onomat. Katuaren oihuaren onomatopeia. ◆ **miau egin** (> *mĭau in*). *Katuek mĭau in dau* 'katuak miau egin du'.

miau in MIAU EGIN

maullar

miau egin (> *mĭau in*). *Katuek mĭau in dau* 'katuak miau egin du'.

miaukan MIAUKA

maullando

miaukan adb. Miauka, miau eginez. *Katu ila, katuek miaukan daitza* 'katu hila [otsaila], katuak miauka dabiltza'.

miazkatu, miazkatzen MIAZKATU

txupatu

lamer, chupar

miezkatu, miezkatzen MIAZKATU

txupatu

lamer, chupar

miezkatu (eta *miazkatu (?)*) *dau* ad. Miazkatu; mihia zerbaiten gainetik igaro. *Patĭa miezkatu* 'platera miazkatu'. Ik. **txupatu**.
◆ **(norbaiti) ipurdia miezkatu**. Lgart. Koipea eman.

miezkatzaile, miezkatzailia MIAZKATZAILE

txupatzaile

lamedor, -a, chupador, -a, chupón, -ona

miezkatzaile iz. Miazkatzailea. ◆ **ipurdi miezkatzaile**. Lgart. Ipurdi-miazkatzailea. *Ipurdi miezkatzailia*.

mihi puntan ibili MIHI PUNTAN IBILI

tener alguien algo en la punta de la lengua

mihi puntan ibili. Gogoratzeko zorian egon, baina gogoratu ezin dela.

mihia mitilik

MIHIA MITILIK, HITZONTZIKERIAN

charlataneando

mihia mitilik (> *mia mitilik*) adb. Hitzontzikerian. • (Esaera) *Mihia mitilik, ixilik egon ezinik*. || *Emen ibili ga, mia mitilik* 'hemen ibili gara, mihia mitilik' (Maritxu Galarza). [*OEH mitilik. Nere muie mitilik (= itzontzikerian), ixilik ezin egonik (G-nav). Inza NaEsZarr 176].

mihigaizto, mihigaiztua

MIHIGAIZTO

criticón, -ona; maldiciente, malhablado, -a

mihigaizto, mihi-gaizto adj./iz. Gaizki esalea, gaizki esaka aritzen dena.

mihiluze, mihiluzia

MIHURA

muérdago (Viscum album)

mihiluze (> *miluze*) iz. (Bot.) Mihura; zenbait zuhaitzen enbor-adarretan hazten den landare bizkarroia, fruitutzat ur likatsu batez beteriko aleak ematen dituena (Viscum album).

mihisa, mihisia

MIHISE

lienzo, tela que se fabrica de lino

mihisa (> *misa*) iz. Mihisea, liho hariz egindako oihala. ◆ **mihisazko** (> *misazko*). *Misazko izarak* 'mihisezko izarak'.

mihisazko, mihisazkua

MIHISEZKO

de lienzo; de lino

mihisazko (> *misazko*). *Misazko izarak* 'mihisezko izarak'.

mihizikin, mihizikina

MIHIZIKIN, MIHIGAIZTO

agozikin

agogarbi

maldiciente, malhablado, -a; criticón, -ona

mihizikin, mihi-zikin adj./iz. Gaizki esalea, gaizki esaka aritzen dena; birao egiten duena, hitz itsusiak esaten dituena. ▲ Sin. *agozikin*. ▼ Anton. *agogarbi*.

miko, mikua

MIZKIN

mirrin, mizkin

melindroso, -a, de mal comer

miko adj. Mizkina; gutxi jaten duena; janari askori muzin egiten diona. *Gutxi ta gogo txarrakin jaten dena da mikwa* 'gutxi eta gogo txarrarekin jaten duena da mikoa'. Ik. **mirrin**; **mizkin**.

mila

MILA

mil
mil, muchos, -as

mila **1** zenbtz. 1000. *Mila pezta irabazko banuke* (Ond Bak). **2** zenbtz. Kopuru handia; asko. *Mila aldiz aitu dot gauza bĭa* 'mila aldiz aditu dut gauza bera'. ◆ **mila aldiz esan**. *Mila aldiz esan diat gauzok eztĭala ola iten* 'mila aldiz esan diot gauzok ez direla hola egiten'. ◆ **mila puska egin** (> *mila puska in*) *dau* ad. Puska askotan zatitu; suntsitu. *Amorratuta, alkia mila puska in dau lurran kontra emankan* 'amorratuta, aulkia mila puska egin du lurran kontra emanka'. ▲ Sin. *milatxiki in*. Ik. **apur-apurra egin**. ◆ **mila puska egin behar** (> *mila puska in ber*). Zerbait apurtzeko edo suntsitzeko gogoa adierazten duen esapidea. *Pazĭenziaik ez, ta belaxeti do dana mila puska in ber!* 'pazientziarik ez, eta berehalaxetik dago dena mila puska egin behar!'. ◆ **mila txiki egin** (> *milatxiki in*) **1** *dau* ad. Txiki-txiki egin, txikitu, puska txiki-txikietan zatitu; suntsitu. *Milatxiki in dau autwa, bea bĭak eztau minik artu* 'mila txiki egin du autoa, baina berak ez du minik hartu'. Ik. **apur-apurra egin**. ▲ Sin. *mila puska in*. **2** *dau* ad. Galantak eman, ederrak eman, jipoia eman. *Muxinkwen serio asi zaio, ta mila txiki in dau* 'muxinkoan [borrokan] serio hasi zaio, eta mila txiki egin du'.

mila puska in

MILA PUSKA EGIN

mila txiki in

destrozar, destruir, hacer pedazos, hacer añicos

mila puska egin (> *mila puska in*) *dau* ad. Puska askotan zatitu; suntsitu. *Amorratuta, alkia mila puska in dau lurran kontra emankan* 'amorratuta, aulkia mila puska egin du lurran kontra emanka'. ▲ Sin. *milatxiki in*. Ik. **apur-apurra egin**. ◆ **mila puska egin behar** (> *mila puska in ber*). Zerbait apurtzeko edo suntsitzeko gogoa adierazten duen esapidea. *Pazĭenziaik ez, ta belaxeti do dana mila puska in ber!* 'pazientziarik ez, eta berehalaxetik dago dena mila puska egin behar!'.

mila txiki in

MILA TXIKI EGIN; TXIKI-TXIKI EGIN

mila puska in

destrozar, destruir, hacer pedazos, hacer añicos
zurrar, dar una tunda

mila txiki egin (> *milatxiki in*) **1** *dau* ad. Txiki-txiki egin, txikitu, puska txiki-txikietan zatitu; suntsitu. *Milatxiki in dau autwa, bea bĭak eztau minik artu* 'mila txiki egin du autoa, baina berak ez du minik hartu'. Ik. **apur-apurra egin**. ▲ Sin. *mila puska in*. **2** *dau* ad. Galantak eman, ederrak eman, jipoia eman. *Muxinkwen serio asi zaio, ta mila txiki in dau* 'muxinkoan [borrokan] serio hasi zaio, eta mila txiki egin du'.

milagro, milagrua

MIRARI, MIRAKULU, MILAGRO

milagro

milagro iz. Miraria, mirakulua. *Ezazu milagroik espĭatu* 'ez ezazu milagrorik esperatu'.

milaka(n)

MILAKA

a miles, miles; a montones

milaka (eta *milakan*) adb. Hainbat milako dituen kopuruan, kopuru oso handian. *Orduen bai uso bandadak; uswek milakan etortzen zĭan* 'orduan bai uso bandak; usoak milaka etortzen ziren'. Ik. **zientoka(n)**.

millon, millona

MILIOI

millón

millon iz. Milioia. *Millon bat irabazko banuke* (Ond Bak).

millonaio, millonaiua

MILIONARIO

millonario

millonario (> *millonaio*) adj./iz. Milioiduna, milionarioa. Ik. **aberats** (> *abeats*, *abiats*); **dirudun**; **lezakena**. ¬

mimatu, mimatzen

MIMATU, MAINATU

mimar (consentir)
mimar (tratar algo con especial cuidado)

mimatu **1** *dau* ad. Norbaiti maina edo txera gehiegi egin. *Raso mimatwik dukatziai aur oiek* 'arras mimaturik dauzkate haur horiek'. **2** *dau* ad. Ondo tratatu. *Izko ondo kasoinik ta mimatwik ibiltzen dai* 'izeko ondo kasu eginik eta mimaturik ibiltzen [izaten] dute'.

mimo, mimua

MIMO

kuidado

mimo, cariño
cuidado, esmero

mimo **1** iz. Maina, txera. Ik. **loseja**. *Mimo batzuk in berko dĭatzizu* 'losintxa batzuk egin beharko dizkiozu'. **2** iz. Arreta, arta. *Mimo aundiekin tratatzen dau* 'mimo handiarekin tratatzen du'. Ik. **kuidado**.

mimoso, -a, mimosua, -ia

MAINATSU, MAINATI

mimoso, -a

mimoso, -a (Generoa hartzen du: *mimoso*, *mimoswa*; *mimosa*, *mimosĭa*) adj. Mainatia; mainak eta txerak oso atsegin dituena. *Aur mimoswa da; losaja ta mimo batzuk in berko dĭatzizu* 'haur mainatia da; losintxa eta txera batzuk egin beharko dizkiozu'.

mimuka, mimukia

(HEZUR) MUIN, 2 (LANDAREEN) BIHOTZ

kimuka

tuétano, médula (de los huesos)
médula (de las raíces y tallos de las plantas)

mimuka **1** iz. Hezur muina. ▲ Sin. *kimuka* [Altsasu]. **2** iz. Landare mota batzuen gihar edo bihotza. *Intrusĭek mimukĭa duka* 'intsusak mimuka [bihotza] dauka'.

min bear

ERITSITONA

sanalotodo, hierba callera

min belar (> *min bear*). (Bot.) Eritsitona (Sedum telephium). Materia edo zornea duten zauriak ongitzeko erabiltzen da. *Ertizak ongitzeko patzen da min bearra* 'ertitzak [itzeminak] ongitzeko paratzen da min belarra'.

min egin

MIN EGIN

hacerse daño, lastimarse, sufrir un accidente
hacer daño, causar dolor

min(a) egin (> *mina in*). **1** Min hartu. **2** Min eman.

min eman

MIN EMAN

causar dolor, herir, hacer daño

min(a) eman. *Mina ematen dwai zapata berriok* 'min ematen didate zapata berriok'.

min orri, min orria

ERITSITONA (ORRIA)

hierba callera, orpina, hierva de sanalotodo

min orri. (Bot.) Eritsitona (Sedum telephium). Gaiztatutako [gaiztotutako] minak sendatzeko erabiltzen den min belarraren orria (hosto mamitsua). Ik. **min belar** (> *min bear*).

min, mina

MIN

sumina, oinaza. 2 ebagia. 3 pikante

dolor, daño, dolencia, molestia, mal, achaque, indisposición
corte, herida
picante, amargo, -a, agrio, -a
deseo, anhelo, ansia

min **1** iz. *Buko mina dukat* 'buruko mina daukat'. *Minakin do* 'minarekin [minez] dago'. Ik. **sumin**; **oinaza**; **minsor**. • Esr. zah. *Besten mina, begien lua* 'besteren mina, begien (begiaren) loa'. **2** iz. Zauria, ebakia. Ik. **ebagi**. **3** adj. Janariez eta edariez mintzatuz, mikatza, garratza. Ik. **pikante**. **4** iz. Irrika, gogo bizia. *Ongura mina*. ◆ **min(a) egin** (> *mina in*). **1** Min hartu. **2** Min eman. ◆ **mina egon** (> *mina eon*, *mina yon*). Janariez-eta mintzatuz, mihian edo ahoan halako erredura edo berotasun sentipena sortu. *Minak de piperrok* 'minak daude piper hauek'. Ik. **pikante**. ◆ **min(a) eman**. *Mina ematen dwai zapata berriok* 'min ematen didate zapata berriok'. ◆ **min(a) hartu**. *Eztot artu minik* 'ez dut hartu minik'. Ik. **eritu**. ◆ **mina hartzen**. Min izan, min eman. *Mina artzen dot bizkarrĭen* 'mina (hartzen) dut bizkarrean'. ◆ **minak egon** (> *minak eon/yon*) adb. Minez egon, min duela, mina jasaten. *Minak no; badĭat yun guztĭa* 'minez nago; badaramat egun guztia'. ◆ **min belar** (> *min bear*). (Bot.) Eritsitona (Sedum telephium). Materia edo zornea duten zauriak ongitzeko erabiltzen da. *Ertizak ongitzeko patzen da min bearra* 'ertitzak [itzeminak] ongitzeko paratzen da min belarra'. ◆ **min orri**. (Bot.) Eritsitona (Sedum telephium). Gaiztatutako [gaiztotutako] minak sendatzeko erabiltzen den min belarraren orria (hosto mamitsua). Ik. **min belar** (> *min bear*).

min(a) hartu

MIN HARTU

eritu

hacerse daño, lastimarse, sufrir un accidente, sentir dolor

min(a) hartu. *Eztot artu minik* 'ez dut hartu minik. Ik. **eritu**.

minak yon

MINAK EGON / MINEZ EGON

tener dolor; estar dolorido, -a

minak egon (> *minak eon/yon*) adb. Minez egon, min duela, mina jasaten. *Minak no; badĭat yun guztĭa* 'minez nago; badaramat egun guztia'.

minbera (?)

MINBERA

sensible (al dolor); delicado, -a; dolorido, -a

minbera [?] adj. Mina erraz sentitzen duena; zirrara txikiei sentibera dena.

minbizi, minbizia

MINBIZI

ale (2)

cáncer

minbizi iz. Gorputz ehun bateko zelulak eragabeki ugaritzea eragiten duen eritasuna, inguruko ehunetara hedatzeko joera duena. *Gĭo ta jende gaio do minbiziekin* 'gero eta jende gehiago dago minbiziarekin'. Ik. **ale**[2].

mindu, mintzen

MINDU

sumindu; ozpindu, pikatu

agriar(se), avinagrar(se), ranciar(se), fermentar(se), amargar(se), picar(se), acedarse (Ref. a la doler(se), disgustar(se), resentir(se); molestar(se), enfadar(se)

mindu **1** *da* ad. *Esenia mindu*, *ardua mindu*, *jana mindu*. *Janá iten da mindú* (Ond Bak). Ik. **ozpindu**; **pikatu**. **2** *da/dau* ad. Haserrea, nahigabea edo samina sentitu edo sentiarazi. *Mindwik yon* 'mindurik [saminduta] egon'. Ik. **sumindu**.

mineal, mineala

MINERAL

mineral

abono, fertilizante

mineral (> *mineal*, *minĭal*) **1** iz. Mea. **2** iz. Ongarri minerala. *Oi gizonan maua; eztaki sorwen minĭala ondo botatzen!* 'hori gizonaren *maua* [moldakaitza]; ez daki soroan minerala ondo botatzen!'.

mingarri, mingarria

MINGARRI

que causa dolor / disgusto; hiriente; doloroso, -a, penoso, -a, triste

mingarri adj. Min ematen edo egiten duena. *Mingarria izaten da erlĭen pikadĭa* 'mingarria izaten da erlearen pikada' [*Pikada*, ziztada]. | *Mingarria da launak olako burla bat itĭa* 'mingarria da lagunek holako burla bat egitea'.

minkar, minkarra

MINGAR, MIKATZ, GARRATZ

agrio, -a, ácido, -a, amargo, -a

minkar adj. Mingarra; mikatza; garratza. *Okan garratxak lepizi minkarrak yoten dĭa* 'okaran garratxak [okaran mota] lehendabizi minkarrak egoten dira'.

minsor, minsorra

MINSOR

min bizia

dolor sordo (que no es agudo, pero molesta sin interrupción)

minsor iz. Min edo oinaze arin iraunkorra. ▼ Anton. *min bizi*.

mintei, minteia

MINTEGI

hazileku

semillero, vivero

mintegi (> *mintei*) iz. Lursaila, beste toki batean birlandatuko diren landareen haziak ereiteko prestatzen dena. Ik. **hazileku**.

mintz, mintza

MINTZ

membrana, película

fárfara de huevo

mintz **1** iz. – Ik. **tela**. ¬

minuto, minutua

MINUTU

minuto

minuto iz. Minutua; orduaren hirurogeirena. *Bi minuto aurrĭatwik do eliztorreko erlejua* 'bi minutu aurreraturik dago eliz dorreko erlojua'. Minuto bat garrengo bizia aldatu laikek 'minutu bat garrenerako bizia alda daiteke'. *Minuto txar bar ezin espĭatu!* 'minutu txar bat ezin esperatu'.

miñigi, miñigia

miñigi iz. Uztarriko babesa (?) ¬

mirri, mirria

URRI, ESKAS

escaso, -a, poco, -a, exiguo, -a, parco, -a

mirri adj. Urria, eskasa, gauza gutxia; txikia. *Yauri mirria* 'euri mirria [eskasa]'. [Bereizi *mirrin*].

mirrimarrau

ARMIARMA

araña

mirrimarrau [Bakaiku] iz. Armiarma. Ik. **imirrimau**.

mirrin, mirrina

MIRRIN

mizkin, mizkino (?), miko

melindroso, -a, de mal comer, de poco apetito
esmirriado, -a, canijo, -a, enclenque

mirrin (Generoa hartzen du: *mirrina*, *mirrinwa*) **1** adj. Gutxi jaten duena; janari askori muzin egiten diona. Ik. **mizkin**; **miko**. **2** adj. Mardula ez dena, txikia, argala. *Mirrina, kaxkarra* (LM). [Bereizi *mirri*].

mirrindu, mirrintzen

MIRRINDU

kaxkartu

adelgazar, volverse esmirriado, desmedrarse

mirrindu *da* ad. Koxkortu, kaxkartu; mardultasuna galdu, mirrin bihurtu. Ik. **kaxkartu**.

mirrinkan

mirrinkan adb. Mirrinkan jaten dau.

mirrinkeia

Gauza gutxi, eskasa. Hoi da mirrinkeia eman duaina.

miru buztan, miru buztana

MIRU BUZTAN

cola de milano (corte en forma de)

miru buztan **1** Ardiei belarrian egiten zaien marka, belarri puntako zati bat kenduz miruaren buztanaren forma hartzen duena. **2** Miruaren buztanaren antzeko forma duten pieza ar batez eta pieza eme batez eginiko mihiztatzea; era horretan mihiztatzeko mihia. *{OEH (Iza Alts) (*mirabuztena*), ArOñ; Izeta BHizt2 (*miru-puxten*). "La señal que se hace a las ovejas quitando un pedazo en la punta de la oreja y dejándola en forma de horquilla como la cola del milano" (Iza Alts)}.

miru, mirua

MIRU

milano (Milvus milvus)

miru iz. Hegazti harraparia (Milvus milvus). *Gora ta behera ibiltzen dana* (Ond Bak). *Mirua loka dago*. • (Kantaita) *Elorria loran dago / mirua loka dago / artua eraiteko / a zer giroa dago*. ◆ **miru buztan 1** Ardiei belarrian egiten zaien marka, belarri puntako zati bat kenduz miruaren buztanaren forma hartzen duena. **2** Miruaren buztanaren antzeko forma duten pieza ar batez eta pieza eme batez eginiko mihiztatzea; era horretan mihiztatzeko mihia. *{OEH (Iza Alts) (*mirabuztena*), ArOñ; Izeta BHizt2 (*miru-puxten*). "La señal que se hace a las ovejas quitando un pedazo en la punta de la oreja y dejándola en forma de horquilla como la cola del milano" (Iza Alts)}.

mis / mix

zapi

voz para llamar a los gatos

mis (eta *mix*) interj. Katuari hots egiteko erabiltzen den hitza. Ik. **mitxina**. ▼ Anton. *zapi*.

misei, miseia

MISERIA

zoritxar

miseria, pobreza extrema
miseria, desgracia, infortunio

miseria (> *misei*, *miseia*) **1** iz. Behartasun gorria. *Miseia zon ba garai artan* 'miseria zegoen bada garai hartan'. *Miseia gorria ikusitakwek ga gu* 'miseria gorria ikusitakoak gara gu'. **2** iz. Ezbeharra, zoritxarra. Zoritxarreko gertaera baten ondotik: *Au miseia!* 'hau miseria!'. *Miseia zan gĩo, e?* 'miseria zen gero, e?'. Ik. **zoritxar**.

miserable, miserablia

MISERABLE

miserable, canalla, perverso, -a
miserable, pobre; desdichado, -a, infeliz

miserable (eta *mixable*, *mixablĩa*) **1** adj. Doilorra, zitala. **2** adj. Miseriazkoa, oso behartsua; zorigaiztokoa, gupidagarria. *Bizi modu mixablĩa* 'bizi modu miserablea'.

miserikordia

MISERIKORDIA

erruki, errukimentu

misericordia; compasión, lástima
casa de misericordia

miserikordia 1 iz. Errukia. Ik. **erruki**; **errukimentu**. 2 iz. Erruki etxea.

misteio, misteiua

MISTERIO

misterio (cosa incomprensible, inexplicable)
misterio (Rel.)

misterio (> *misteio*) 1 iz. Giza ezaguerari edo norbaiti ulergaitz gertatzen zaion gauza. 2 iz. Erl.

mistela

MISTELA

mistela, licor suave

mistela iz. Ardo gozoa; zenbait edari bizi gozori ematen zaien izena. *Yateko, emantazu mistela* 'edateko, emaidazu mistela'.

misto kaja, misto kajia

MISTO KAXA, POSPOLO ONTZI

caja de cerillas

misto kaja iz. Misto kaxa, pospolo ontzia. *Misto kajĭa*. *Bazpare, artu misto kajĭa morralĭen* 'badaezpada ere, hartu misto kaxa morralean [ehiza-zorroan]'. *Misto kajĭa ta tabako paketĭa* 'misto kaxa eta tabako paketea'.

misto, mistua

MISTO, POSPOLO

fosforo

cerilla, fósforo, mixto

misto iz. pl. *mistwek*. Pospoloa. Ik. **fosforo**. ◆ **misto kaja** iz. Misto kaxa, pospolo ontzia. *Misto kajĭa*. *Bazpare, artu misto kajĭa morralĭen* 'badaezpada ere, hartu misto kaxa morralean [ehiza-zorroan]'. *Misto kajĭa ta tabako paketĭa* 'misto kaxa eta tabako paketea'.

mistu

MIZTO, EZTEN

aguijón (de culebras y víboras)

mistu [Bakaiku] iz. Miztoa; sugeen eta sugegorrien eztena. {Aguijón de culebras y víboras. De abejas y avispas es *mustaka* (Ond Bak)}.

mitilik

MUTIRI (?)

*OEH mitilik. Nere muie mitilik (= itzontzikerian), ixilik ezin egonik (G-nav). Inza NaEsZarr 176.

(Maritxu Galarza)

mitin, mitina

MITIN

mitin

mitin iz. Gizarte- edo politika-arazoez hitz egiteko bilera ageria edo jendaurrekoa. *Leno, gerra aurreti, mitinak yoten zĭan* 'lehenago, gerra aurretik, mitinak egoten ziren'. Ik. **batzar**.

mitxina

MITXINA

katu

minino, gato (voc. infant.)

mitxina iz. Haur. Katua.

mixable, mixablia

MISERABLE

miserable, canalla, perverso, -a
miserable, pobre; desdichado, -a, infeliz

mizkin, mizkina

MIZKIN

mirrin

melindroso, -a, de mal comer

mizkin (Generoa hartzen du: *mizkina, -ia*; *mizkino, -ua*) adj. Gutxi jaten duena; janari askori muzin egiten diona. Ik. **mirrin**.

mizkinkeia

MIZKINKERIA

melindrería en el comer; actitud del melindroso, -a; del mal comedor, de la mala comedora

mizkinkeria (> *mizkinkeia*) iz. Pertsona mizkinari dagokion jarrera edo egitea. *Mizkinkeia gogoti duka orrek* 'mizkinkeria gogotik dauka horrek' [gutxi jaten duenagatik edo janari askori muzin egiten dionagatik esaten da].

mizkino, mizkinua / mizkina, mizkinia

MIZKIN

miko

melindroso, -a; de mal comer; que gusta de manjares delicados

mizkino, -a (Generoa hartzen du: *mizkina, -ia*; *mizkino, -ua*) adj. Ik. **mizkin**; **miko**.

mizpera arbola, mizpera arbolia

MIZPIRA, MIZPIRONDO

mizpero

níspero (Mespilus germanica)

mizpera arbola iz. Mizpira (arbola), mizpirondoa (Mespilus germanica). Ik. **mizpero**.

mizpera, mizperia

MIZPIRA

2 mizpero

níspero (fruto)
níspero (Mespilus germanica)

mizpera **1** iz. Mizpira, mizpirondoaren fruitua. **2** iz. Mizpirondoa (Mespilus germanica). ◆ **mizpera arbola** iz. Mizpira (arbola), mizpirondoa (Mespilus germanica). Ik. **mizpero**.

mizpero, mizperua

MIZPIRA

2 mizpera arbola

níspero (fruto)
níspero (Mespilus germanica)

mizpero **1** iz. Mizpirondoaren fruitua. **2** iz. Mizpirondoa. ◆ **mizpera arbola**. (Bot.) *Mizpera arbolĭa* (Mespilus germanica).

moda, modia

MODA

moda

moda iz. Leku, denbora edo talde jakin batean harrera oso ona duen ohitura edo joera; bereziki, janzteko molde igarokorra. ◆ **modan egon** (> *modan yon*). Boladan egon. ◆ **modan jarri, paratu** (> *modan patu*). Boladan jarri.

modernidade, modernidadia

MODERNITATE

modernidad

modernidade iz. Modernitatea.

modernizatu, modernizatzen

MODERNIZATU

modernizar(se)

modernizatu *da/dau* ad.

moderno, modernua

MODERNO

moderno, -a

moderno, -a (Generoa hartzen du) adj. *Ezautuko bazendukei; adinekwa da, bea, beti izan dan bekela, moderně* 'ezagutuko bazenute; adinekoa da, baina, beti izan den bezala, moderna'.

modu beiko, modu beikua

MODU GABEKO

modu beiko. Modu gabekoa. Ik. **moldakaitz**; **torpe**.

modu, modua

MODU

lera, kisa

modo, manera, forma, estilo; especie de

modu iz. Ik. **lera**; **kisa**.

◆ **modu onean** (> *modu onĭen*). Modu onien hitzegin; modu txarrien hitzegin.
Bizi modu ona dia.
Be moduen 'bere moduan'
modu = egoera (?) Modu horretan zen.
◆ **modu batean** (> *modu batĭen*). ◆ **modu batera** (> *modu batĭa*).
◆ **modu beiko**. Modu gabekoa. Ik. **moldakaitz**; **torpe**.
– modu batera (> *modu batĭa*). Antzera.
◆ **zer moduz?** **1** *Zer moduz zaitza?* 'zer moduz zabiltza?'. **2** (Norbait ikustean, diosal esapide gisa). *Zer moduz, Pilar?*

moduko, modukua

MODUKO

antzeko, kisako

parecido -a, semejante; especie de, algo parecido a

moduko adj. Antzekoa, gisakoa. Ik. **antzeko**; **kisako**. *ĭe modukwa dok oi're* 'hire modukoa duk hori ere'. *Ikusteko moduko pelikulĭa bota dai* 'kusteko moduko pelikula [filma] bota dute'. *Betako moduko pantalonik eztau bilatzen* 'beretako moduko prakarik ez du bilatzen [aurkitzen]'. *Alkarren modukwek dĭa* 'elkarren modukoak dira'.

mogimentu, mogimentua

MUGIMENDU

movimiento (acción y efecto de mover)
movimiento (desarrollo de la actividad humana)

mogimentu **1** iz. Mugimendua; mugitzea; zerbaiten egongune aldaketa. *Mogimentua da gorputzandako botikaĭk obena* 'mugimendua da gorputzarendako botikarik hoberena'. **2** iz. Mugimendua; jarduera, aldaketa..., gizatalde edo erakunde batek eragina. *Mogimentu aundia yon zan urtĭaitan errien* 'mugimendu handia egon zen urte haietan herrian'.

mogitu, mogitzen

MUGITU

korritu; 3 jagi

mover(se), desplazar(se), movilizar(se); agitar
mover(se), menear(se)
levantar(se)

mogitu **1** *da/dau* ad. Mugitu. *Mogitu alkia pixkat* 'mugitu aulkia pixka bat'. Ik. **korritu**. **2** *da/dau* ad. Aritu; aritzera bultzatu. *Mogi hadi!* 'mugi hadi!'. **3** da ad. Jagi. *Oyati mogitu. Gaur bĭandu mogitu nauk* 'gaur berandu mugitu nauk'. Ik. **jagi**. **4** *da* ad. Ernatu, natura mugitu, esnatu. *Danekoz irukopitxilitak mogitu dĭa* 'dagoeneko hirukopitxilitak [sanjose lore] mugitu dira'. *Arbolĭa mogitwik do* 'arbola mugiturik dago'. Ik. **ernetu**. ◆ **ezin mogitu**. Ezin mugitu.

mogitzaile, mogitzailea

MUGITZAILE

movedor, -a; movilizador, -a; motor, -a

mogitzaile adj./iz. Mugitzailea; mugitzen dena; mugitzen duena. *Urdinen ezto jende mogitzailĭa* 'Urdiainen ez dago jende mugitzailea.

mogollon, mogollona

PILA

pila (1)

mogollón (gran cantidad o gran número)

mogollon iz. (Hitz berria) Pila, kopuru handia. Ik. **pila**[1].

mokau (?)

MOKADU

bocado

mokau (?) iz. Ik. **bokau**.

moko, mokua

IPURTXUNTXUR

mokor

obispillo, rabadilla de las aves
trasero, culo

moko iz. Ipurtxuntxurra; hegaztietan, atzealdeko muturreko atal dortsal edo sakroa, buztanaren oinarria. [Oharra: ez nahastu 'moko' hitzak euskara batuan duen esanahiarekin. (Alderatu: **piko**)]. *Mokwa: egaztien atzekaldĭa* 'mokoa: hegaztien atzealdea'. || Ik. **mokor**. ¬

mokor, mokorra

MOKOR

kadera

cadera; nalgas, posaderas

mokor iz. Aldaka. *Emakume mokor-zabala*. || *Mokorrán atzetík: aimalién atzekaldiá* (Ond Bak). Ik. **kadera**.

mokordo, mokordua

MOKORDO

kaka-mokordo, kaka-pustilo; mordo; 2 kakazu

mojón, excremento
petardo, cargante

mokordo **1** iz. Gorotz lodi gogorra. Ik. **mordo**. ▲ Sin. *kaka-mokordo*, *kaka-pustilo*. **2** adj. (Irain hitz gisa). ▲ Sin. *kakazu*. ◆ **kaka-mokordo** **1** iz. Kaka mordoa. ▲ Sin. *mokordo*, *kaka-pustilo*. **2** adj. [Urdiain, Bakaiku] (Irain hitz gisa). Pertsona kakazua. Ik. **kakazu**.

moldakaitz, moldakaitza

MOLDAKAITZ

mabilezko (?), baldar, torpe, makal, kalamidade

torpe, desmañado, -a; inhábil, rudo, -a

moldakaitz adj. Trebetasunik ez duena. ▲ Sin. *mabilezko* (?), *baldar*, *makal*, *torpe*, *kalamidade*.

moldatu, moldatzen

MOLDATU

konpondu, arreglatu

amañarse, darse traza para algo; arreglar(se), adaptar(se)
llevarse bien

moldatu **1** *da* ad. Aritzeko edo zerbait egiteko, aipatzen diren bideei askietsirik jardun. *Ondo / ongi moldatzen da lanĭen* 'ondo / ongi moldatzen da lanean'. [abildadia, mañia ibili]. **2** *da* ad. Konpondu, bat etorri. *Ongi / ondo moldatu*; *gaizki moldatu* (hurkoarekin). Ik. **konpondu**; **arreglatu**. ¬

molde, moldia

MOLDE

zumitz

molde (pieza hueca); modelo
forma, aspecto

molde **1** iz. Gauzaki barne-hustua, bertara isurtzen den oreari edo gai urtuari bere forma ematen diona. **2** iz. Itxura, tankera.

molestatu, molestatzen

MOLESTATU

galazi

molestar

molestatu *dau* ad. (Norbaiten lasaitasuna) eragotzi. Ik. **galarazi**.

molestia

MOLESTIA

molestia, traba, estorbo
molestia, desazón

molestia iz. **1** iz. Eragozpena; traba. **2** iz. Mina, ondoeza.

molitu, molitzen

EHO

iho / iyo

moler

molitu *dau* ad. Ik. **iho / iyo**; **txehe-txehea egin** (> *txe-txea in*).

moltso, moltsua

MOLTSO

2 borla

grupo, conjunto, cúmulo; montón desordenado
borla

moltso (eta *moltxo*) **1** iz. Multzoa; multzo nahasia. || *Maĭz moltsua, maĭz bizarra* 'maiz moltsoa, maiz bizarra'. **2** iz. Borla; mutur batekik edo erditik lotzen diren sokatxoen multzoa, apaingarri gisa erabiltzen dena. *Moltso: elastikuen borla* (Ond Bak). Ik. **borla**.

moltxo, moltxua

MOLTSO

2 borla

grupo, conjunto, cúmulo; montón desordenado
borla

moltxo (eta *moltso*) Ik. **moltso**. **1** iz. Moltsoa; multzoa, multzo nahasia. *Maĭzan moltxwa, maĭzan bizarra* 'maizaren moltsoa, maizaren bizarra'. **2** iz. Borla. Ik. **borla**.

momentu, momentua

MOMENTU, MEMENTO

momento, instante

momentu iz. Mementoa; denbora-bitarte guztiz laburra. *Yozeĭn momentutan* 'edozein momentutan'. ◆ **momentuan** (> *momentuen*) adb. Berehala, segituan. ◆ **momentu honetan** (> *momentu ontan*) adb. Orain, une honetan.

momo

MAMU

fantasma; coco (voc. infant.)

momo iz. Haur. Mamua; izutzen duena. Ik. **fantasma**.

momotxorro

MOZORRO

personaje disfrazado del carnaval; enmascarado, -a

momotxorro [Altsasu] iz. Inauteetan mozorrotzen dena. Ik. **momoxarro**.

momoxarro haundi eguna

MOMOXARRO HANDI EGUNA

diote egun

día de los momoxarros mayores (martes de carnaval)

momoxarro haundi egun. Inauteetako asteartea; neskixak eta mutilak janzten dira *momoxarro*. Ik. **diote egun**.

momoxarro txiki eguna

MOMOXARRO TXIKI EGUN

día de los momoxarros *pequeños (domingo de carnaval)*

momoxarro txiki egun. Inauteetako domeka; adin txikiko nesaki eta mutikiak janzten dira *momoxarro*.

momoxarro, momoxarrua

MOZORRO, MOZORRODUN

personaje disfrazado del carnaval; enmascarado, -a
carnaval

momoxarro **1** iz. Inauteetan mozorrotzen dena. *Momoxarro jantzi*. **2** iz. Inaute. ◆ **momoxarroak** (> *momoxarrwek*). Inauteak. [Oharra: *momoxarro* adierak *diote*-ren adiera hartu du]. Ik. **diote**, **diotiek**. ◆ **momoxarro txiki egun**. Inauteetako domeka; adin txikiko nesaki eta mutikiak janzten dira *momoxarro*. ◆ **momoxarro haundi egun**. Inauteetako asteartea; neskixak eta mutilak janzten dira *momoxarro*. Ik. **diote egun**.

monagillo, monagillua

MEZA MUTIL

monaguillo

monagillo iz. Meza mutila, meza-garaian apaizari laguntzen dion mutila. *Urte askotan izan da monagillo*.

monigote, monigotia

TXOTXONGILO; ESKUMAKILA

monigote

monigote **1** iz. Txingotea, taxurik gabeko irudia. **2** adj. Irmotasun gabeko pertsona, besteek erabil dezaten uzten dena [eskumakila, morroi baten gisa erabilia den pertsona]. Ik. **pelele**.

monja, monjia

MOJA

monja iz. – monja-jantzia

montatu, montatzen

MUNTATU

armatu

montar, armar

montatu **1** *dau*. Muntatu, armatu; tresnez, egiturez eta kidekoez mintzatuz, osatzen duten zatiak eta atalak elkarri lotu eta aritzeko edo erabiltzeko eran utzi. *Motorra ondo montatu dau* 'motorra ondo muntatu du'. *Despeitu dai pabellona montatzeti* 'despeditu [bukatu] dute pabiloia muntatzetik'. **2** *dau* ad. Ikuskariez mintzatuz, emanaldia antolatu; sortu. *Espektakulo ederra montatu daĭ* 'espektakulu ederra muntatu dute'. *A ze numerwa montatu dau!* 'a zer ikuskizuna muntatu du [duen]!'. Ik. **armatu**.

monton, montona

PILA, MORDO, META

pila, samalda, alde (3)

montón

monton iz. Pila, mordoa, meta. Ik. **pila**; **samalda**; **alde**[3].

montondu, montontzen

METATU, PILATU

pilatu

amontonar, apilar, acumular

montondu *da/dau* ad. Dirua montondu. Ik. **pilatu**.

mordo, mordua
MORDO

monton, pila

montón, grupo, tropel; gran cantidad
enredo, embrollo, revoltijo

mordo 1 iz. mordo haundia. Sin. monton, pila.
– kaka mordua (= kaka-mokordua)
– bear mordua.

mordoska, mordoskia
MORDOXKA

mordotxo

conjunto pequeño
cantidad no pequeña, bastante, número considerable

mordoska iz. Mordoxka, mordo txikia; (Adkor.) mordoa. Ik. **mordotxo**.

mordotxo, mordotxua
MORDOTXO

montoncito, puñadito; montón bastante grande, montón considerable

mordotxo iz. Mordo txikia; (Adkor.) mordoa. Ik. **mordoska**. *Diru mordotxo bat jasoko dau* 'diru mordotxo bat jasoko du'.

morkots, morkotsa
MORKOTS

erizo [de la castaña]

morkots iz. Gaztainaren oskol arantzatsua. *Morkotsak matxardĭekin artzen dĭa* 'morkotsak matxardarekin hartzen dira'.

moro, morua
MORO, MAIRU

moro, -a

moro iz. Mairua; Ipar Afrikako herritarra. *Abwelak esaten zwan «ai aurra, gizonak morwek dĭa danak»* 'abuelak esaten zidan «ai haurra, gizonak moroak dira denak».

morokil, morokila
MOROKIL

gacha, farinetas (papilla, gachas de harina de maíz)

morokil iz. Arto irinarekin egiten den ahi lodia. *Artinakin indako aia da morokila* 'arto irinarekin egindako ahia da morokila'.

morral, morrala
(EHIZA) ZORRO

morral

morral iz. Zorroa; ehiza zorroa. *Morrala bizkarrĭen artuta* 'morralea bizkarrean hartuta'.

morroi, morroia
MORROI

kriau

criado, sirviente

morroi iz. Baserri batean edo etxe batean zerbitzari dagoen gizonezkoa. *Morroi lanetan ibilik do* 'morroi lanetan ibilirik dago'. *Artzai lanetan launtzeko artu zain morroi* 'artzain lanetan laguntzeko hartu zuten morroi'. Ik. **kriau**.

morron, morrona
PIPERMORRO

pipermorro

pimiento morrón

morron adj./iz. (Bot.) Pipermorroa, piper mota mamitsu eta gozoa (Capsicum annuum). *Piper morrona*. Ik. **pipermorro**; **piper morron**.

morroska, morroskia

NESKA PUSKA

mocetona; joven alta, corpulenta y fornida

morroska adj./iz. Neska galanta eta indartsua; neska puska. Ik. **morrosko** (Generoa hartzen du).

morrosko, morroskua / morroska,

MORROSKO; NESKA PUSKA

mocetón; mocetona; persona joven, alta, corpulenta y fornida

morrosko, -a (Generoa hartzen du) adj./iz. Neska edo mutil galanta eta indartsua. ¬

morroxila, morroxilia

MINGOTS; BASOETAKO MINGOTS

2 alu

aleluya, acederilla (Oxalis acetosella)
vulva

morroxila **1** iz. (Bot.) Belar jangarria (Oxalis acetosella) | *Txikitan, munotan yoten zian morroxilak jatia faten gindaken.* | *Morroxilia, gahien parte, munotan etortzen zan. Gordinik jateko goxuek dia.* **2** iz. Lgart. Alua. ◆ **hiruko morroxila**. (Bot.) Basoetako mingotsa; landare jangarria (Oxalis acetosella L.). *Iruko morroxilak, jateko goxuek eta minkarrak dĭa* 'hiruko morroxilak, jateko goxoak eta minkarrak dira'.

mortal, mortala

MORTAL

mortal

mortal **1** adj. Hilgarria, hiltzen duena. *Pekatu mortala. Salto mortala.* **2** adj. Hilkorra, hilko dena. ¬

mortero, morterua

MORTERO

masa

mortero

mortero iz. *Morteruba iten da hariakin, porlanakin ta urakin: pila patzen da lurrien, ta han iten da erdien sakan bat* (Ond Bak). Ik. **masa**.

moru

MUKURU, GAINEZKA

gainez

repleto, -a, rebosante

moru adb. Mukuru, gainezka; neurriaren ertzetatik gora beterik, gainezka. Ik. **gainez**. [(Ond Bak) moru: rebosante, derramándose. JMS. moru: llenar un recipiente sobradamente].

moskatel, moskatela

MOSKATEL

moscatel (uva)
moscatel (vino)

moskatel **1** iz. (Bot.) Ale gozo eta urrintsua duen mahats mota. *Moskatel matsa* 'moskatel mahatsa'. *Gustwa jan dot moskatel maskilwa; ondo onduta ta gozo-gozwa zon* 'gustura jan dut moskatel mahatsokoa [mahats mordoa]; ondo onduta eta gozo-gozoa zegoen'. **2** iz. Moskatel mahatsez eginiko ardoa. *Etxĭen inioko piper opilakin ta moskatelakin zelebratu du urteguna* 'etxean egindako piper opilekin eta moskatelarekin zelebratu [ospatu] dugu urteguna'.

moskol, moskola

MARDO, MARDUL

rechoncho, -a; lozano, -a; compacto, -a, firme (referido a los hongos, frutos, etc.)

moskol adj. Onddoez, fruituez-eta mintzatuz, trinkoa eta mardula. *Ointo moskolak.*

mostillo

mostillo iz. (Iza Alts). *Gorotza zabaltzen genduen mostillue bezela* (Iza Alts). *"Perz batin txokolatie bezela eín eta ilarriguntziyekin-e zabaltzen gendubén mostillue bezelá"*
Ald. mustilo?, krema?

mosto, mostua

MUZTIO

mosto

mosto iz. Muztioa. Ik. **mustilo**.

mostradore, mostradoria

MOSTRADORE

barra

mostraza, mostrazia

ZIAPE, MOSTAZA, BASAZIAPE (?)

mostaza, jenabe (Brassica juncea) (?)
mostaza silvestre (Sinapis arvensis) (?)

mostraza iz. (Bot.) (Lepidium latifolium), (Brassica juncea), (Sinapis arvensis) (?). *Mostrazĭek aragien eta esenĭen gusto txarra ematen zĭan ganauai* 'mostazak haragian eta esnean gusto txarra ematen zion ganaduari'.

mota

mota Ez da erabiltzen 'motia' absolutibo singularrian (?)

motel, motela

MOTEL

2 soso, gatzbeiko

gatzi

lento, -a, flojo, -a; apagado, -a; apático, -a, abatido, -a, desanimado, -a; soso, -a, insípido, -a; soso, -a
despacio, lentamente, sin vida

motel **1** adj. adj. Edozein eratako bizitasuna edo indarra falta zaiona. *Izaera motela*. **2** adj. Gatzgabea. Motel samarra do 'motel samarra dago'. ▲ Sin. *soso*, *gatzbeiko*. ▼ Anton. *gatzi*. **3** adb. *Motel daile* 'motel dabil'. || Ik. **mutel**. ◆ **sargar motel** (> *sar motel*). Sagar geza.

moteldu, moteltzen

MOTELDU

3 nagitu, tontotu

[abiadura] hacer(se) lento, aminorar, reducir; debilitar(se); amortiguar(se); [edaria] rebajar
entumecer(se) por el frío

moteldu **1** *da/dau* ad. Gelditu. **2** *da/dau* ad. Janariaren zaporea moteldu. **3** *da* ad. Eskua moteldu; burua moteldu. ▲ Sin. *nagitu*, *tontotu*.

motezto, moteztua

ORBAN, MANTXA

mancha; lamparón (mancha en la ropa)

motezto iz. Orbana, mantxa. *Moteztwa dukazu atorran* 'orbana daukazu atorran'. *Plazan bazkaltzen yon dĭalako, lurreko losetak moteztoz beteĭk de* 'plazan bazkaltzen egon direlako, lurreko lauzak orbanez beterik daude'. Ik. **mantxa**; **zikin**.

motibatu, motibatzen

MOTIBATU

ilusionatu

motivar

motibatu da/*dau* ad. (Hitz berria) *Motibatwik jok* 'motibaturik zagok'. Ik. **ilusionatu**.

motibo, motibua

MOTIBO

arrazoi

motivo, causa, razón

motibo iz. Zergatikoa, zioa. Ik. **arrazoi**.

moto, motua

MOTO, MOTOTS

moño

moto (eta *motto*, *mottwa*) iz. Mototsa; ile multzoa, bereziki buruaren atzealdean bildutakoa. *Gaienetan, txumĭa mottwen biltzen dau* 'gehienetan, txuma [buruko ilea] motoan biltzen du'. *Mottwa yaten dau* 'motoa eramaten du'.

motodun, motoduna

MOTOTS-, MOTODUN

que tiene moño
que tiene penacho

motodun **1** adj. Motoa edo mototsa duena. **2** adj. Hegazti motots duna. *Buruan ile mordo dun oilua* (Ond Bak).

motor, motorra

MOTOR

motor
motocicleta, moto

motor **1** iz. Ibilgailu edo makina bat higiarazten duen tresna. *Matxura aundia duka autwen motorrak* 'matxura handia dauka autoaren motorrak' **2** iz. Motozikleta. *Motorrakin ibiltzen da* 'motorrarekin ibiltzen da'.

motordun (?)

MOTORDUN

que tiene motor

motordun (?) adj. Motorra duena.

motorista, motoristia

MOTORISTA, MOTOZIKLISTA

motorista

motorista iz. Motoziklista, motorzalea.

motortxo, motortxua

MOTORTXO

diminutivo de motor; motor pequeño
motor de características peculiares, no necesariamente pequeño

motortxo **1** iz. Motor txikia. *Motortxwet duka jugetĭek* 'motortxo bat dauka jostailuak'. || Motozikleta txikia. *Olako motortxwet, udan ibiltzeko* 'holako motortxo bat, udan ibiltzeko'. Ik. **motor**. **2** Irud. Aparteko ezaugarriak dituen motorra, ez bereziki txikia. *A ze motortxwa yosi dau!* 'a zer motortxoa erosi du!'.

motto, mottua

MOTO, MOTOTS

moño

motxeila mutur, motxeila muturra

MOTXAILE MUTUR (?)

dicho de una persona: Que no saluda ni corresponde a la salutación

Dioselia iten eztuenai esaten zaio 'motxeila muturra'.
A ze motxeila muturra jukan horrek! dioselaik in be pasatzen baldin bazan. Gaur motxeila muturrrak mundu guztiek dukatzi, eztai iten dioselaik eta.

Dioselia iten eztuenai esaten zaio "motxeila muturra". A ze motxeila muturra jukan orrek!, dioselaik in be pasatzen baldin bazan 'a ze motxeila muturra zaukan horrek!, diosalik egin gabe pasatzen baldin bazen'. *Gaur motxeila muturrrak mundu guztiek dukatzi, eztai iten dioselaik eta* 'gaur motxeila muturrak mundu guztiak dauzka, ez dute egiten diosalik eta'.

motxila, motxilia

MOTXILA

mochila

motxila (eta *mutxila*) iz. Bizkar-zorroa. *Motxila zarra bizkarrĭen artuta* 'motxilatzarra bizkarrean hartuta'.

motxillero, motxillerua / mutxillero,

MOTXILERO

mochilero, -a
cazador, -a que caza al salto

mutxillero (eta *motxillero*) iz. *Eizĭen, mutxillero: txakurripe eizai segi ibiltzen dana; pwesto fijwen eztona* 'ehizean, mutxillero: txakurrik gabe ehizari segi ibiltzen dena; postu finkoan ez dagoena' [erdaraz, «cazar al salto»].

motxuelo, motxuelua

MOZOLO

mochuelo común (Athene noctua)

motxuelo iz. Mozoloa; gau hegazti harraparia, hontzaren familiakoa, hura baino txikiagoa (Athene noctua). Ik. **hontz**.

motz, motza

MOTZ

luze

corto, -a
corto, -a, breve, conciso, -a; escaso, -a
corto, -a, tonto, -a, de escaso talento; seco, -a, de pocas palabras
desmochado, -a; trasmochado, -a

motz (eta *motx*) **1** adj. Neurriz, behar den bezain luzea ez dena. • *Gonia luzia, denantala motza, ederki dantzatzen da Dominika motza*. (?). **2** adj. (Denboraz edo iraupenaz mintzatuz). *Ezazu meza motzik espĭatu* 'ez ezazu meza motzik esperatu'. ▼ Anton. *luze*. **3** adj. Adimen urrikoa. **4** adj. Punta moztu zaiona. *Ariko adar motza* 'ahariko adar motza'. *Pago motza*. ◆ **motz gelditu**.

moxal, moxala

MOXAL

potro -tra; caballo o yegua joven

moxal iz. (Hitz berria) Urtebete arteko behorkumea, arra nahiz emea.

mozkor, mozkorra

MOZKOR

bapo yon, aje

borracho, -a
borrachera

mozkor 1 adj./iz. Ald. moxkor. Ik. **bapo egon**; **aje**. ◆ **mozkorra harrapatu**.

mozkorkeia
MOZKORKERIA

mozkorreia

embriaguez; vicio de la bebida

mozkorkeria (> mozkorkeia) iz. Sin. *mozkorreia*.

mozkorraldi, mozkorraldia
MOZKORRALDI

borrachera

mozkorreia
MOZKORRERIA, MOZKORKERIA

mozkorkeia

vicio de la bebida, embriaguez

mozkorreria (> *mozkorreia*, *moxkorreia*) iz. Mozkorkeria.

mozkortu, mozkortzen
MOZKORTU

emborrachar(se), embriagar(se

mozkortu (eta *moxkortu*) *da* ad.

moztaile, moztailia
MOZTAILE

esquilador, -a, trasquilador, -a

moztaile iz. Aipatzen dena mozten duen pertsona; bereziki, ardiei eta kidekoei, ilea mozten diena. ◆ **ile moztaile** (> *ile-moztailĭa*) iz. Ilea mozten duen pertsona.

moztu, mozten
MOZTU

3 metatu

cortar
interrumpir
recolectar (el fruto del árbol)
podar
esquilar
café cortado

moztu **1** *dau* ad. *Moztazu azkazal oiek* 'moztu itzazu azkazal horiek'. **2** *dau* ad. Eten. *Bidĭa moztu dai* 'bidea moztu dute'. *Bier goizĭen ura moztuko dai* 'bihar goizean ura moztuko dute'. **3** *dau* ad. Arbolako fruitua bildu. *Gaztinak moztu, bildu* (recoger, recolectar, cosechar del árbol las castañas, nueces, etc.). || *Intxorra eztau iyork mozten* (Ond Bak). **4** *dau* ad. Inausi, adarrak) moztu. Ik. **metatu** [Altsasu]. **5** dau ad. *Txumĭa moztu dau* 'txuma [ilea] moztu du'. Ardiek moztu 'ardiak moztu' [esquilar]. **6** iz. Ebakia, kafeari esne pixka bat nahasiz eginiko edaria.

mu
MU

orro

mugido

mu iz. Behiaren oihua; behiaren oihuaren onomatopeia. Ik. **orro**. *Beiek mu in dau* 'behiak mu egin du'.

muber, muberra

MUGER, SUHARRI

pedernal
grava, guija, piedrecilla

muber [Altsasu] iz. Mugerra; suharria. (Iza Alts): (piedra de chispa, pedernal). Ik. **mugar** [Urdiain]. *Muberra da mediti ekartzen dan harri fin bet*. {"*Muber batzuk*, unos pedernales. *Muberra dá menditi ekarzen dan arri fin bet, eta urá kutxilo bezela afilatuik patú ber, ez llanóre, éz; ura púntiakin patú ber*" (Iza Alts). "*Txisteraziyoiyek muberratzen aita-ta osaba-ta mailubakin txisteraziyen zuloiten, muber aik sartzén. Ori dá, muberrura dá, guai esaten duei* 'piedra de chispa'" Ib.}.

muberratu / mubertu

MUGERRATU, (NARRA) MUGERTU

poner pedazos de pedernal en el trillo

muberratu / **mubertu** ([Altsasu] eta *mugarratu* [Urdiain]) *dau* ad. Narrari mugerrak [suharriak] paratu. {(Iza Alts): (poner los pedernales en los trillos). "*Ataiyen iten zien goizian txisteraziyek muberratú, txisteraziyek muberraú arriya menditikarrita; eta goizién gizonák, bi gizón sei txisterazi muberratzén pasatzen zein zazpitati zortziya bitartín gosaitartia*" (Iza Alts). "*Mubertu tuu txisterraziyak ontzitako*" Ib.}.

mubita, mubitia

MUGITA

tortero (Arrhenatherum elatius)

mubita iz. (Bot.) Mugita (Arrhenaterum elatius). *Mubita bĭarra* 'mugita belarra'.

muda, mudia

MUDA

muda (ropa interior)
muda (de plumas o de piel de ciertos animales)

muda **1** iz. Barruko arropa; arropa zuria. **2** iz. Animaliez mintzatuz, ilea, lumak, azala edo oskola aldatzea.

mudanza, mudanzia

MUDANTZA

aldaketa

cambio, variación, mudanza

mudanza iz. Mudantza. *Mudanzĭa duka denborĭek* 'mudantza dauka denborak [eguraldiak]. Ik. **aldaketa**.

mudatu, mudatzen

MUDATU

aldatu

mudar (plumas, piel, etc)

mudatu *da/dau* ad. Aldatu; berritu. *Subĭek narrua mudatu* [azalberritu]. *Kangrejuek azala mudatu*. Ik. **aldatu**; **lumatu**.

muelle, muellia

MALGUKI (2)

muelle, resorte

muelle iz. Malgukia; gorputz edo gailu elastikoa, gehienetan espiral itxurakoa, indar batek okertu, tenkatu edo sakatu ondoren, bere jatorrizko formara bere kasa itzultzen dena. || {Somier de muelles}. *Egos genduben geliura lau oéakin eta gelartan patu genduben, kendu muéllia oea bakoitzai ta zórtzioeá*. (Iza Alts) s.v. oea.

muestra, muestria

MOSTRA, LAGIN

muestra

muestra iz. Lagina; zerbaiten zati edo kopuru txikia, hura erakusteko edo haren ezaugarriak aztertzeko erabiltzen dena. ¬

muga in

ATERTU

cesar la lluvia intensa; cesar la nevada intensa; escampar

muga egin (> *muga in*) *dau* ad. Atertu; euri erauntsia edo elur erauntsia geldiagotzen denean *muga egiten du*. *Yauriek in dau muga; atertu dau* 'euriak egin du muga; atertu du'. Ik. **atertu**.

muga, mugia

MUGA

límite, frontera, linde
límite, término, fin
momento, hora, tiempo

muga **1** iz. Bi lurralde bereizten dituen marra. *Erriko mugĭa* 'herriko muga'. *Altsuko mugĭa* 'Altsasuko muga'. *Muga-mugan*. Ik. **kaba**. **2** iz. Zerbait amaitzen den tokia edo unea. **3** iz. Garaia, denbora, ordua. ◆ **muga egin** (> *muga in*) *dau* ad. Atertu; euri erauntsia edo elur erauntsia geldiagotzen denean *muga egiten du*. *Yauriek in dau muga; atertu dau* 'euriak egin du muga; atertu du'. Ik. **atertu**. ◆ **mugaz** adb. Garaiz. *Mugaz etorri, garaiz etorri*.

mugante, mugantia

MUGAKIDE

zuinkide

limítrofe, fronterizo, -a, colindante

mugante (G-nav ap. Iz Als). Fronterizo, limítrofe. "Ziordi, Naparruko lenbiziko erriya, Arabakin mugante" Iza Als. Ik. **zuinkide**.

mugar, mugarra

MUGER, SUHARRI, SILEX

pedernal, sílex
grava, guija, piedrecilla

mugar (eta *muger*; *muber* [Altsasu]) **1** iz. Mugerra; suharria, silexa; kuartzo mota trinkoa, gris horixka, sua pizteko erabiltzen zena. Ik. **muber**.
Mugar harriek, txistaziai patzen zezaizkionak. Ik. **mugardi**. **2** iz. [?] Legarra. [Muger, mendebaleko euskaraz: grava, guija, piedrecilla].

mugardi, mugardia

mugardi iz. Mugar [suharri] asko dagoen lekua. *Mugardira, Urbasan, faten zien lehenoko gizonak mugarrak eske* (Ond Bak). ¬

mugarratu, mugarratzen

MUGERRATU, MUGERTU

poner pedazos de pedernal en el trillo

mugarratu (eta *muberratu* [Altsasu]) dau ad. Narrari mugerrak [suharriak] paratu. *Txistaziek mugarratu*. Ik. **muberratu**.

mugarri, mugarria

MUGARRI

mojón, jalón, hito, piedra divisoria
límite, frontera, linde

mugarri **1** iz. Lurralde edo jabetza baten muga adierazteko ipintzen den harri edo seinalea. **2** iz. Muga. • Esr. zah. *Zangitu giauria, San Pedro giauria; Margarita Arresen sukaldian daukagu guk mugarria* 'Zangitu geurea, San Pedro geurea; Margarita Arreseren sukaldean daukagu guk mugarria [Urdiaingo eremuak]. Ik. **muga**. ◆ **mugarriak paratu** (> *mugarriek patu*). ◆ **mugarriak ikusi** (> *mugarriek ikusi*). *Sanjuanetan mugarriek ikusten zian, erriko larrainain mugak* 'sanjoanetan mugarriak ikusten ziren, herriko larrainen mugak'.

mugiera, mugieria

MUGIDA, MUGIMENDU

movimiento

mugiera (eta *mogiera*), (Ald. *mugikera* [?]) iz. Mugitzea, mugimendua. ◆ **mugieran** (eta *mogieran*) adb. Mugitzean; mugitzeko momentuan.

mugita, mugitia

MUGITA (?)

mugita / mubita (?)

muki, mukia

MUKI

moco; mucosidad

muki iz. Sudurrak jariatzen duen gai likatsua. ◆ **(norbaiti) mukiak kendu** (> *mukiek kendu*). Lgart. Norbaiti zaplazteko bat eman. *Ezpago ixilik mukiek kenduko dezkiet!* 'ez bahago isilik mukiak kenduko dizkiat'.

mukirri

MUKIZU (?). 2 BIHURRI (?)

diabru, demonio

mocoso, -a (?)
travieso, -a; revoltoso, -a

mukirri **1** adj. Mukizua (?). Ik. **mukizu**. **2** adj. Bihurria. *Demonio mukirri* (ume bihurriari). *Maina mukirri*. Ik. **diabru**; **demonio**.

mukizu, mukizua

MUKIZU

zorrizu, kakazu

mocoso, -a (de muchos mocos)
mocoso, -a; maleducado, -a

mukizu **1** adj. Mukia dariona. **2** adj./iz. (Umeez edo gaztetxoez gutxiespenez mintzatzeko). ▲ Sin. *zorrizu*, *kakazu*.

mulu

MUILO, AMELU, IZTUPA

estopa (?)

mulu iz. Muiloa, amelua, iztupa; lihoa jotzen denean bereizten den zati larria, sokak eta ehun latzak egiteko erabiltzen dena. {*Estupazko haria iteko lihua* (lino de mediana calidad) (Ond Bak)}. {*OEH. muilo (G, B, BN-baig; Lar, Añ (G, AN), Dv, H, VocB; -uillo O-SP 231, SP, H), mulo (Lar, H, A Apend), mulu (V-m, G-nav). Ref.: A (mullo, muillo, mulhu); Iz IzG (amukoa); Ond Bac (mulu); Izeta BHizt2 (mullo). Estopa; copo de lino}.

mun eman (matxo eman) (?)

mun eman (matxo eman) (?) ¬

mun, muna

MUIN, GARUN

seso(s)

mun iz. Muina, burmuina, garuna. Batez ere pl. *munak*. *Esan zian* 'zion' *Axerkoi munak ata zatzaila* 'zizkiotela' (Ond Bak). ◆ **harrek munak jan** (> *arrak munak jan*). Memoria galdu.

mundu, mundua

MUNDU

mundo, universo
mundo, sociedad
mundo, (grupo de) gente
mucho, mucha

mundu **1** iz. *Mundu au in zenak* 'mundu hau egin zuenak'. **2** iz. Lurrean bizi diren gizakien multzoa. *Gu ta mundu guzia salbatzeko* (Ond Bak). *Oi mundu guztiek daki* 'hori mundu guztiak daki'. **3** iz. Gizartea. *Au mundu klasĭa jarri dana* 'hau mundu klasea jarri dena'. **4** zenbtz. Kopuru handi zehaztugabea; asko. *Mundu bat jorra in du* 'mundu bat jorra egin dugu'. Ik. **munduko**. ◆ **beste munduko gauza (ez) izan** (> *beste munduko gauzĭa*). Gauza berezi edo aipagarria, ohiz kanpoko gauza. (Batez ere ezezko esaldietan erabiltzen da). *Oi eztok beste munduko gauzĭa* 'hori ez duk beste munduko gauza'. ◆ **munduko** zenbtz. (Dagokion izen sintagmaren ezkerrean; aditzarekiko komunztadura pluralean egiten da). Kopuru handi zehaztugabea; asko, ugari. *Múnduko egurrak ekar tuai* 'munduko egurrak ekarri dituzte [egur asko]'. *Múnduko lanak in tut gaur goizĭen* 'munduko lanak egin ditut gaur goizean'. *Múnduko jorrak intu* 'munduko jorrak egin ditugu'. ◆ **munduti(k) fan** / **mundu honetati(k) fan**. Mundutik joan, hil. *Fan da mundu ontati* 'joan da mundu honetatik'. ¬

munduko, mundukuek

[ASKO, UGARI]
gutxi

muchos, -as

munduko zenbtz. (Dagokion izen sintagmaren ezkerrean; aditzarekiko komunztadura pluralean egiten da). Kopuru handi zehaztugabea; asko, ugari. *Múnduko egurrak ekar tuai* 'munduko egurrak ekarri dituzte [egur asko]'. *Múnduko lanak in tut gaur goizĭen* 'munduko lanak egin ditut gaur goizean'. *Múnduko jorrak intu* 'munduko jorrak egin ditugu'.

muno, munua

EZPONDA; MUINO

talud, ribazo
altozano, cerro, colina

muno **1** iz. Ezponda. *Bide ondwen, munwa duka sorwek* 'bide ondoan, ezponda dauka soroak'. **2** iz. Muino, mendixka. *Uzalango munwa*. ◆ **ibai muno** iz. Ibairen bazterreko muinoa; ibairen mazela.

muñeka, muñekia

PANPINA, ANDRAKILA

muñeco, muñeca

muñeka (> *muñekĭa*) iz. Panpina, andrakila. *Muñekiekin mutxikan* 'panpinarekin jolasean'.

muñeko, muñekua

PANPINA

muñeco

muñeko (> *muñekwa*) iz. Panpina. ◆ **ogi muñeko**. *Ogi muñekwa, muñeko etxuran indako ogia* 'ogi muñekoa, muñeko itxuran egindako ogia'.

murri, murria

URRI, MURRITZ (?)

mermado, -a; menguado, -a
escaso, -a, poco, -a, exiguo, -a, falto, -a, parco, -a

murri adj. Urria, behar edo egoki den edo eskatzen den neurrira edo kopurura heltzen ez dena. *Iturri murria*.

murrilo, murrilua

MORROILO

pasadore

cerrojo, pestillo

murrilo iz. Morroiloa, ateak ixteko erabiltzen den burdinazko barratxoa, bi eraztunen barnean ezker-eskuin higitzen dena. ▲ Sin. *pasadore*. Ik. **kisketa**. ◆ **murriloa eman** (> *murrilwa eman*). Morroiloaz itxi.

murritu

URRITU, MURRIZTU (?)

eskastu

mermar, agotar, menguar; secar, desecar (el caudal de una fuente, etc.)
disminuir, reducir(se), escasear

murritu *da/dau* **1** ad. *Aurten iturriek murritu in dĭa* 'aurten iturriak murritu egin dira'. *Putzua murritu zaie*. *Au iturri murria!* 'hau iturri murria!'. **2** da ad. Soildu. *Txumĭa murritu* 'ilea murritu' (LM. Zaharrak).

murritz (?)

MURRITZ

murritz (?) ¬

murriztu, murrizten

MURRIZTU

murriztu (?) Ik. **murritu** (?)

mus, musa

MUS

mus

mus **1** iz. Bi bikoteren artean jokatzen den karta-jokoa, jatorriz Euskal Herrikoa. *Atsaldĭo, mus partidĭa* 'arratsaldero, mus partida'. **2** Joko horretan, lagun bakoitzak dituen lau kartetako bat edo batzuk aldatu nahi dituela adierazteko hitza. ◆ **mus eman**. Musean jokalariek lau kartetako bat edo batzuk aldatzeko eskatu.

musaldi, musaldia

MUSALDI

partida de mus; rato de jugar al mus

musaldi iz. Mus partida; musean eginiko aldia.

musika, musikia

MUSIKA

música

musika iz. *Musika otsa aitzen da plazaldĭen* 'musika hotsa aditzen da plaza aldean'. *Txikitati, musikĭa ikasten* 'txikitatik, musika ikasten'.

musikazale, musikazalia

MUSIKAZALE

aficionado, -a a la música

musikazale adj./iz. *Musikazale amorratua*.

musiko, musikua

MUSIKO, MUSIKARI

músico, -a (persona)

musiko iz. Musikaria; ogibidez musika egiten eta, bereziki, musika jotzen duen pertsona.

muskar, muskarra

MUSKER

lagarto

muskar iz. Muskerra. • Esr. zah. *Muskarra baindo berdio* 'muskerra baino berdeago'. *Frutĭau muskarra baindo berdĭo do* 'fruta hau muskerra baino berdeago dago'.

muslai, muslaia

MUSLARI

jugador de mus

muslari (> *muslai*) iz. *Muslai ona da; aurten onena ata da* 'muslari ona da; aurten onena atera da'.

mustaka, mustakia

HESOLA, PALDO. 2 EZTEN

pikete, poste. 2 erren

estaca, várgano
aguijón (de abeja; de avispa)

mustaka **1** iz. (eta *musteka*) Alanbre-hesia egiteko zutoina. Ik. **pikete**; **poste**. **2** iz. Intsektuen eztena (Ond Bak). Ik. **erren**.

musti-mustia in

BUSTI-BUSTI EGIN

txelatu, txirriatu, txirria-txirria in, txita-txitia in

calar(se), empapar(se); calarse/empaparse/mojarse hasta los huesos

musti-mustia egin (> *musti-mustia in*). Busti-busti egin. ▲ Sin. *txelatu*, *txirriatu*, *txirria-txirria in*, *txita-txitia in*.

musti, musten

BUSTI (1)

sekatu

mojar(se), empapar(se)

musti *da/dau* ad. Busti. ▼ Anton. *sekatu*. • San Agustin, larraina musti (Ond Bak). || • Esr. *Txitĭa bekela musti*. Txita bezala busti; erabat busti, blai egin. ◆ **musti-mustia egin** (> *musti-mustia in*). Busti-busti egin. ▲ Sin. *txelatu*, *txirriatu*, *txirria-txirria in*, *txita-txitia in*. Ik. **txelatu**; **txirriatu**; **txita-txita egin / egon**.

musti, mustia

BUSTI (2)

idor, seko

mojado, -a; húmedo, -a
humedad, sitio mojado, líquido

musti adj. Bustirik dagoena, bustia. ▼ Anton. *idor*, *seko*. ◆ **mustirik** (> *mustik*) adb. Bustirik.

mustiazi, mustiazten

BUSTIARAZI

hacer mojar, hacer humedecer

mustiazi *dau* ad. Bustiarazi; bustitzera behartu.

mustilo, mustilua

MUZTIO (EZTI UR MUZTIO, AHI)

mostillo de miel (postre de miel y harina)

mustilo iz. Eztiarekin egindako postrea. Abaraskak urtu ondoren, ezti-urarekin eta irinarekin egiten den ahia.

musu-masaila, musu-masailia

MASAIL [AURPEGIKOA]

mejilla, carrillo

musu-masaila iz. (pl.) Aurpegiaren alboko aldea, sudurraren eta belarriaren artean dagoena. *Musu-masailak*.

musu, musua

MUSU

aurpegi 2 matxo (eman), pa

cara, rostro, faz
beso

musu **1** iz. Aurpegia. *Emain duet musuen blastakon bat!* 'emanen diat musuan blastakoren bat'. Ik. **aurpegi**. **2** iz. Norbait edo zerbait ezpainez ukitzea. Ik. **matxo**; **pa**.
– musua ekarri/eman. Ekatzu musutxuet!
– musugorri
◆ **musu-masaila** iz. (pl.) Aurpegiaren alboko aldea, sudurraren eta belarriaren artean dagoena. *Musu-masailak*.
– musu-zabal.

musugorri, musugorria

MUSUGORRI

(de) cara sonrosada
variedad de manzana muy roja

musugorri, musu-gorri **1** adj. Musua gorria duena. **2** adj./iz. Sagar mota gorri kolorekoa [variedad de manzana muy roja] (Ond Bak).

mutel

MOTEL

¡hombre!, ¡tío!, ¡muchacho!

mutel interj. Motel. Gizonezkoekin jardutean erabiltzen den lagunarteko bokatiboa. *Ez, mutel! Bai, mutel!*

mutiki, mutikia

MUTILKI, MUTIKO

muchacho, chiquillo, chico; niño

mutiki iz. Mutilkia, mutikoa. *Inguátzen ginan ba nesakiyak; ta geo arutza mutikiyak* (Iza Alts).

mutiko, mutikua

MUTIKO

muchacho, chiquillo, chico; niño

mutiko **1** iz. Haur ar aski hazia; mutil koskorra. **2** (Deitzaile gisa) *Mútikwa!, beiratzak nun zapaltzen doken* 'mutikoa!, begira ezak non zapaltzen duan'. Ik. **txikito**.

mutil, mutila

MUTIL

2 morroi

chico, muchacho, mozo, chaval
sirviente, mozo, criado; aprendiz

mutil **1** iz. *Altsuko mutil batek ibaz(i) dau apustua* 'Altsasuko mutil batek irabazi du apustua'. Mutil kozkorrona! ◆ **mutil egin** (> *mutil in*). *Danekoz mutil inik do Haran* 'dagoeneko mutil eginik dago Haran'. Ik. **mutildu**. **2** iz. Morroia. Ik. **morroi**. ◆ **mutiletan** adb. Mutil denboran. ◆ **mutiletara** (> *mutiletá*) adb. Mutiletan egin. *Neskixetá ta mutiletá* 'neskisetara eta mutiletara'.

mutildu, mutiltzen

MUTILDU (1)

mutil in

hacerse mozo, llegar a muchacho

mutildu *da* ad. Mutil bihurtu. *Zogi ta serio daile mutildu danetik* 'zogi eta serio dabil mutildu denetik'. Ik. **mutil egin** (> *mutil in*).

mutileta

MUTILETARA, MUTILETAN EGIN

a ligar con chicos

mutiletara (> *mutiletá*) adb. Mutiletan egin. *Neskixetá ta mutiletá* 'neskisetara eta mutiletara'.

mutillek

HAU DA HAU!; HALAKORIK!; HARA BESTEA!

¡fíjate! ¡otro tanto!, ¡no te fastidia!, ¡no fastidies!

mutillek interj. Harridura edo haserrea adierazteko erabiltzen den esapidea, *halakorik!; hau da hau!, hara bestea!* edo kideko esapideen baliokidea. *ĭo, mutillek!, au're badĭu!* Io, mutillek, hau ere badiagu!'.

mutillona ibili / yon / patu / jarri / etorri /

OSO POZIK. 2 OSO HASERRE

txikitxo

muy contento, -a; muy satisfecho, -a
muy enfadado, -a; muy enojado; -a; muy furioso, -a

mutillona adb. Egoeraren arabera: **1** Oso pozik, izugarri kontentu. **2** Oso haserre, koleraturik. Ik. **txikitxo**. ◆ **mutillona ibili / fan / etorri**. *Mutillona daile biziketa berriekin!* 'mutillona dabil bizikleta berriarekin! [oso kontentu, oso pozik egon]. *Mutillona fan da pantalon berriekin* 'mutillona joan da praka berriekin! [oso harro, oso pozik]. ◆ **mutillona yon / patu / jarri / fan / etorri**. *Mutillona jok!* 'mutillona zagok! [oso hasarre egon]. *Mutillona patu zairak!* 'mutillona paratu zaidak!' [oso hasarre jarri].

mutilzahar, mutilzaharra

MUTILZAHAR

soltero, ezkonbeiko

solterón
quedarse solterón

mutilzahar (> *mutilzar*) **1** iz./adj. Gaztaroa igaro eta ezkondu gabe dagoen gizona. **2** (Adizlagun gisa). *Mutilzar gelditu* 'mutilzahar gelditu'.

mutrilu, mutrilua

BUTROI

buitrón, butrino

mutrilu (eta *butrinu*) iz. Ibaiko arrantzan erabiltzen den tresna. *Paradĭa iten zan mutrilua patzeko* 'parada egiten zen butroia paratzeko' [parada: butroira arrainak bideratzeko moldatzen den harresia]. • Esr. zah. *Zarran mutriluen, arraia seguro* 'zaharraren butroian, arraina seguru'.

mutu, mutua

MUTU

mudo, -a
mudo, -a, callado, -a

mutu **1** adj./iz. Hitz egiteko ahalmenik edo gaitasunik ez duena. **2** adb. Muturik, hitzik esan gabe. *Mutu gelditu da*. • Esr. zah. *Kukua, San Pedrotan mutu* (Ond Bak).

mutur haundi, mutur haundia

BEKOZKODUN

antipatiko

hosco, -a; antipático, -a

mutur handi (> *mutur aundi*). Bekozkoduna. ▲ Sin. *antipatiko*.

mutur joka(n) ?

MUTUR JOKA

a puñetazos, a tortas, a torta limpia

mutur joka(n) [?] adb. ¬

mutur legun, mutur leguna

MUTURZURI, MOKOFIN

de paladar fino, sibarita; remilgado, -a

mutur leun (> *mutur legun*). Mokofina, muturzuria.

mutur meharra

MUTUR MEHAR

morro estrecho

mutur meharra. {(Iza Alts): morro estrecho}.

mutur, muturra

MUTUR

2 musu. 3 aurpegi

hocico, morro (de los animales)
morro, cara, labio(s) (de las personas)
cara, jeta (desfachatez)
punta, cabo, extremo
pedazo, trozo

mutur **1** iz. Ugaztunetan, aurpegiaren zati irtena, ahoa eta sudurra dauzkana. *Txerri muturra*. **2** iz. Giza aurpegiaren ezpain aldea. *Garbitzak mutur zikinoi!* 'garbi ezak mutur zikin hori'. Ik. **musu**. *Muturrak ausi artĭa eman dĭatzi* 'muturrak hautsi arte eman dizkio'. **3** iz. Lotsagabekeria. *A ze muturra! Oi dok muturra!* 'hori duk muturra!' [jeta]. Ik. **aurpegi**. **4** iz. Zerbait amaitzen den zatia; ertzeko zatia. *Mauka muturra* 'mahuka muturra, eskumuturra'. **5** iz. Zati txikia. *Hari mutur*. *Lukaika mutur*. **6** iz. Zenbait gauzatan, elkarrengandik urrutien dauden bi puntuetako bakoitza. *Fan da mutur bateti bestĭaindo* 'joan da mutur batetik besteraino'. Ik. **alde**; **eskina**; **punta**.

◆ muturra sartu.
◆ muturrien ibili (eta ez konturatzen). Mutur-muturrien dukak-eta!
◆ **muturrak hausi**. Muturrak hausi artien eman diatzi.
◆ **mutur handi** (> *mutur aundi*). Bekozkoduna. ▲ Sin. *antipatiko*.
◆ muturrien ibili. Mutur-muturrien dukazu.
◆ **mutur leun** (> *mutur legun*). Mokofina, muturzuria.
◆ **mutur meharra**. {(Iza Alts): morro estrecho}.
◆ **muturrez aurrera** (> *muturrez aurrea*, *muturrez aurrĭá*). *Muturrez aurrĭá fan* 'muturrez aurrera joan'; *muturrez aurrĭá bota* 'muturrez aurrera erori'. Ik. **ahuspez**, **buruz behera** (> *buz bia*).
◆ **mutur-zikin**. Ik. **muturzikin**.
cuándo; en qué momento

noiz **1** adb. (Galdetzailea). Zer unetan, zer denboratan? *Noiz etor za?* 'noiz etorri zara?'. **2** adb. (Zehar-galderetan). *Enaiz akordatzen noiz izan zan* 'ez naiz akordatzen noiz izan zen'.
◆ **noizez gero** (> *noizezkĭo*) adb. (Galdetzailea). Noiztik. *Noizezkĭo Urbasan yonbe?* 'noizez gero Urbasan egon gabe? *Noizezkĭo daiz i begetarĭanwa?* 'noizez gero haiz hi begetarianoa? Ik. **noizti**.
◆ **noizean behin** (> *noizĭen bein*) adb. ▲ Sin. *aldien behin*; *tarteka(n)*.

noizbait

NOIZBAIT

alguna vez, en algún momento

noizbait (eta *noizbeit*), Ald. **noizbaitean** (> *noizbeĭtĭen*) adb. *Noizbait ikus ber gindan* 'noizbait ikusi behar ginen [genuen]'. ◆ **noizbait ere** (> *noizbeĭt'e*) adb. Noizbait, azkenean. *Noizbait'e despeĭtuko tu lano*k 'noizbait ere despedituko [bukatuko] ditugu lanok'.

noizbehinka

NOIZBEHINKA

aldien behin, tarteka(n)

a veces, algunas veces, de vez en cuando

noizbehinka (> *noizbeinka*) adb. Noizean behin. Ik. **aldien-aldien**; **aldien behin**; **tarteka(n)**.

noizezkio

NOIZEZ GERO

noizti

desde cuándo

noizez gero (> *noizezkĭo*) adb. (Galdetzailea). Noiztik. *Noizezkĭo Urbasan yonbe?* 'noizez gero Urbasan egon gabe? *Noizezkĭo daiz hi begetarĭanwa?* 'noizez gero haiz hi begetarianoa? Ik. **noizti**.

noizezko, noizezkua

NOIZDANIKO, NOIZDANIKAKO

de cuándo, de qué época o momento

noizezko adj. Noizdanikoa, noizdanikakoa. *Noizezkwa izango zanen ua?* 'noizdanikoa izango zunan hura?'. *Noizezkwek izanko dĭa kantaita oiek?* 'noizdanikoak izango dira kantaita [kanta] horiek?'. Ik. **noizko**.

noizien behin

NOIZEAN BEHIN

aldien behin, tarteka(n)

a veces, algunas veces, de vez en cuando; pocas veces, raras veces

noizean behin (> *noizĭen beĭn*) adb. ▲ Sin. *aldien behin*; *tarteka(n)*.

noizko, noizkua

NOIZKO

para cuándo
de cuándo; de qué época/tiempo/momento

noizko **1** adb. (Galdetzailea). Zer denboratarako, zer unetarako? *Jakintazu noizko inko tuain!* 'jakizu [auskalo] noizko egingo dituzten!'. **2** adj. Zer denboratakoa? *Noizko kontuek dĭa oiek?* 'noizko kontuak dira horiek?'. Ik. **noizezko** (> *noizezkwa*).

noiznahi

NOIZNAHI

en cualquier momento, cuando quiera

noiznahi (> *noiznaĭ*) adb. Nahi den aldian, edozein alditan. *Etor zaitez noiznaĭ* 'etor zaitez noiznahi'.

noizti(k)

NOIZTIK

noizezkio

desde cuándo

noizti(k) **1** adb. (Galdetzailea). Noiz ezkero? *Noizti zaitzai alkarrekin* 'noiztik zabiltzate elkarrekin?'. *Noiztik erretzen don?* 'noiztik erretzen dun?'. Ik. **noizezkio**. **2** adb. (Galdera erretorikoetan, harridura adieraziz). *Bea, noizti jon galazita emen erretzĭa* 'baina, noiztik zagon galarazita hemen erretzea?'.

nokan

NOKA

noketan

tuteando a una mujer; empleando con una mujer el tratamiento de familiaridad

noka(n) adb. Emakume bati hika. Ik. **noketan**; **tokan**. ◆ **nokan** adb. ¬

noketa, noketia

NOKETA

tuteo con una mujer; tratamiento familiar con una mujer

noketa iz. Emakumearekiko hitanoa. Ik. **hiketa**; **noka**. ◆ **noketan** adb. Noka. Ik. **nokan**. ¬

noketan

NOKETAN

nokan

tuteando con una mujer

noketan adb. Noka. Ik. **nokan**.

nola

NOLA

cómo, de qué manera, de qué modo

nola **1** adb. (Galdetzailea). *Nóla dakizú?* (Ond Bak).
2 adb. (Zehar-galderetan).
3 adb. Zer dela eta?
4 adb. (Harridura-edo adieraziz).
5 (Kausazko perpaus txertatu baten hasieran).
◆ **nola edo hala** (> *nola o ala*). Moduren batean, eraren batean. *Nola o hala konponduko al da!*
◆ **nola ailegatu** (> *nola ailatu*). Nolako egoeran izan, zein egoerara heldu. *Batek daki nola ailatu ber gan* 'batek daki nola ailegatu [nolako egoeran izan] behar garen'. *Yauk eztakik nola ailatu ber daizen* 'heuk ez dakik nola ailegatu [zein egoeratan izan] behar haizen'.
◆ **nola... hala...** **1** Berdintasunezko konparazioa adierazteko egitura. • Esr. zah. *Nola etorri hala fan, Mari Juan* [dirua]. • *Nola bizi, hala hil*. • *Nola lan, hala bizi*. **2** Bai... bai... • Esr. zah. *Jangoikuek ematen dau nola hotz hala arropa*.
◆ **nola hala**. Nola edo hala. *Nola ala etor nitzan* 'nola hala etor nintzen'. ¬

nolabait

NOLABAIT

de algún modo, de cierta manera; de una u otra manera; en cierto modo

nolabait (eta *nolapait*) **1** adb. Moduren batean, eraren batean. **2 nolabait** + **aditza** + **-en** (eta *nolapait* + *aditza* + *-en*) (kausasko esaldiak eratuz. Asko erabiltzen da azalpenak emateko orduan). *Urdingo baswá, nolabait ointo asko atatzen dan, egunio etortzen dia Probintziti* 'Urdiaingo basora, nolabait onddo asko ateratzen den, egunero etortzen dira Gipuzkoatik'. || *Nolapáit ez gindubén eréin, eztáu (?) bildú* (Ond Bak). ◆ **nolabait ere** (> *nolabait'e*). *Nolabait-e, inko al du!* 'nolabait ere, egingo al dugu!'. ◆ **nolabait halabait** Moduren batean, eraren batean; nola edo hala. Ik. **nolabait**. *Nolabait alabait in berko du* 'nolabait halabait [nola edo hala] egin beharko dugu'. *Nolabait alabait, in du* 'nola edo hala, egin dugu'.

nolabait halabait

NOLA EDO HALA

de alguna forma, de algún modo

nolabait halabait Moduren batean, eraren batean; nola edo hala. Ik. **nolabait**. *Nolabait alabait in berko du* 'nolabait halabait [nola edo hala] egin beharko dugu'. *Nolabait alabait, in du* 'nola edo hala, egin dugu'.

nolabaiteko, nolabaitekua

NOLABAITEKO

de alguna clase; de algún tipo; cierto, -a
mediocre, regular; escaso, -a, de escasa calidad, no bueno

nolabaiteko 1 adj. Moduren batekoa, eraren batekoa. **2** adj. Ez onegia, ez oso fidagarria.

nolako, nolakua

NOLAKO

cómo; de qué estilo, de qué clase, de qué calidad
menudo, -a, vaya, que

nolako 1 adj. (Galdetzailea). **2** adj. (Zehar-galderetan). **3** adj. (Harridura adieraziz). *A nolako izotza bota dik!*
◆ **nolako... halako...** ¬

nolanahi

NOLANAHI

de cualquier forma, de cualquier modo, de cualquier manera

nolanahi adb. *Etxĕn nolanai jantzita ibiltzen naiz* 'etxean nolanahi jantzita ibiltzen naiz'.
– nolanahi're (?)

nolanahiko, nolanahikua

NOLANAHIKO; LAÑO

llano, -a; afable; natural; sencillo, -a

nolanahiko adj. Pertsona laua, naturala (?). Hoi ezta batere esijentia, nolanahikua da.

nor

NOR

quién, quiénes; qué persona(s)

nor izord. (Galdetzailea). Zer pertsona? (Pertsona bat edo pertsona bat baino gehiago adierazteko erabiltzen da). Ik. **zein**. ◆ **nor gehiago** (> *nor gaio* / *nor geio*) adb. Nor baino nor gehiago; norgehiagoka. *Or daitza, nor gaio* 'hor dabiltza, nor gehiago'.

nor gahio

NOR GEHIAGO

compitiendo, a ver quién es más

nor gehiago (> *nor gaio* / *nor geio*) adb. Nor baino nor gehiago; norgehiagoka. *Or daitza, nor gaio* 'hor dabiltza, nor gehiago'.

nor-ga-gu
NOR-GARA-GU

harro, nor-naiz-ni

interjección que denota fanfarronería, vanidad, orgullo (del grupo)

nor-gara-gu (> *nor-ga-gu*) interj. lokuzioa. (Normalean, besteei egotzita) ([taldearen]; «gure») harrokeria adierazten duen interjekzioa. Ik. **harro**; **nor-naiz-ni**.

nor-naiz-ni
NOR-NAIZ-NI

harro, nor-ga-gu

interjección que denota fanfarronería, vanidad, orgullo (de una persona)
presumido, -a; fanfarrón, -ona, arrogante, soberbio, -a

nor-naiz-ni interj. lokuzioa. (Normalean, besteari egotzita) ([bestearen]; «nire») harrokeria adierazten duen interjekzioa. Ik. **harro**; **nor-gara-gu** (> *nor-ga-gu*).

norbait / norbeit
NORBAIT

iyor, bakarren bat, baten bat

alguien; alguna persona

norbait (eta *norbeit*) **1** izord. (Ezezkoak ez diren esaldietan). *Norbaitek inia* (Ond Bak). *Beste norbaitekin fan berko za*. **2** izord. (Ezezko esaldietan). *Norbaitek ez dau patu* 'Norbaitek ez du pagatu'. Ik. **iyor**; **bakarren bat**; **baten bat**.
– norbaitendako.
◆ **norbait izan**. Nolabaiteko maila, itzala edo izena duen pertsona izan. *Oi're badok norbait!* 'hori ere baduk norbait!'.

norbia
NORBERA, BATBEDERA

bakoitza bia

cada uno, cada cual, uno mismo

norbera (> *norbea*, *norbĭa*) izord. Ik. **bakoitza bera** (> *bakoitza bea*, *bakoitza bĭa*). *Norbĭan etxĭen, gustwena* 'norberaren etxean, gusturena'.

norma, normia
ARAU, NORMA

norma, regla

norma iz. Araua. Ik. **lege**. ¬

normal, normala
NORMAL

normal

normal **1** adj. – oso normal ez yon. ◆ **normalean** (> *normalĭen*) adb. Ik. **jeneralean** (> *jeneralĭen*). ¬

normaldu, normaltzen
NORMALDU

normalizar(se)

normaldu *da/dau* ad. Normalizatu.

normalien
NORMALEAN

jeneralien

normalmente, habitualmente, generalmente, por lo general

normalean (> *normalĭen*) adb. Gehienetan. Ik. **jeneralean** (> *jeneralĭen*).

notaio, notaiua

NOTARIO

notario, -a

notario (> *notaio*) iz. Administrazioko enplegatua, hilburukoen, hitzarmen agirien, saleroste idazkien eta kidekoen fede ematen duena.

notizia

NOTIZIA

berri

noticia

notizia (eta *notizi*, *notezi*) iz. *Notizia txarrak ibil tuzai* 'notizia txarrak ibili [eduki] dituzue'. Ik. **berri**.

nua

NORA

adónde; a qué lugar

nua (eta *noa*) adb. Ik. **noa**. *Nwa fan za?* 'nora joan zara?'.

nuabait

NORABAIT

nuadera / nuadara

a alguna parte, a algún lugar

nuabait (eta *noabait*) adb. Norabait; tokiren batera. *Nwabaitĭa fan dok* 'norabaitera joan duk'. *Beste nwabaitĭa yan daĭ* 'beste norabaitera eraman dute'. Ik. **nuadara** / **nuadera**.

nuadara

NORA EDO HARA, NORABAIT

nuabait(ia)

a alguna parte, a algún lugar

nuadara (eta *nwadera*) adb. Nora edo hara, norabait. *Beste nwadera faten dĭa bakaziotá* 'Beste nora edo hara / norabait joaten dira oporretara'. *Nwadera fan da bazkaitá; Etxarrĭá-o* 'nora edo hara joan da bazkaritara; Etxarrira edo'. *Zengeiti eztok yan autwa beste nwadera konpontzĭa?* Zerengatik ez duk eraman autoa beste nora edo hara konpontzera?'. *Txakurra kasoiteko auzten dwa nwadera fan berra dukanĭen* 'txakurra kasu egiteko [zaintzeko] uzten dit nora edo hara joan beharra daukanean'. ▲ Sin. *nwabait(ĭa)*.

nuadera

NORA EDO HARA, NORABAIT

nuabait(ia)

a alguna parte, a algún lugar

nuaindo

NORAINO

hasta dónde; hasta qué lugar
hasta dónde; en qué medida, hasta qué punto

nuaindo (eta *noaindo*) adb. (Galdetzailea). Noraino; zer tokitaraino?, zer puntutaraino? • Esr. zah. *Marsuko lainua nuaindo, elurra haraindo* 'martxoko lainoa noraino, elurra haraino'.

nuako

NORAKO

para/a/hacia dónde

nuako (eta *noako*) adb. Norako. *Noako bidĭa artu dau?* 'norako bidea hartu du?'. *Nwako yosi tuzu kurtina oiek?* 'norako erosi dituzu gortina horiek?'.

nuanahi

NORANAHI

a cualquier parte, a dondequiera

nuanahi (eta *noanaĭ*) adb. Noranahi; edozein tokitara. *Nwanaĭ fanda're, jendez beteĭk zen tabernak* 'noranahi joanda ere, jendez beterik zeuden tabernak'. ◆ **nuanahiko** (eta *noanaĭko*) adj. Noranahikoa. *Noanaĭko da au (noanaĭko trebe da)* 'noranahiko da hau (noranahiko trebe da)'.

numerazio, numeraziua

NUMERAZIO; ZENBAKI(AK)

numeración

numerazio iz. *Kaleko numeraziwa berritu dai* 'kaleko numerazioa berritu dute'.

numero, numerua

NUMERO, ZENBAKI

número
cifra
espectáculo

numero **1** iz. Zenbakia. *Ze numero dukazu ankatako?* 'zein zenbaki daukazu hanketarako? [zer neurritako oinetakoa daukazu?]'. *Emantazu zwe telefonwen numerwa* 'emaidazu zure telefonoaren zenbakia'. *Númerwortá tokatu da loteia* 'zenbaki horretara tokatu da loteria'. *Zen etxĭen kaleko numerwa eman ber dwazu* 'zuen etxearen kaleko zenbakia eman behar didazu'. **2** iz. Zifra. *Lau numero ta iru letra ibiltzen tuai autwen gwaiko matrikulak* 'lau zenbaki [zifra] eta hiru letra ibiltzen dituzte oraingo autoen matrikulek'. **3** iz. Espektakulua, ikuskizuna. Ik. **espektakulo**.

nun

NON

dónde, en qué lugar

nun **1** adb. (Galdetzailea). Non; zer tokitan? *Nun autzi dezu autwa* 'non utzi duzu autoa?'. **2** adb. (Zehar-galderetan). *Eztakit nun autzi tuten etxeko giltzak* 'ez dakit non utzi ditudan etxeko giltzak'.
◆ **nun bizi diran** (> *nun bizi dĭan*). "Non bizi diren" jolasa. Jolaskide batek buruan duen herriko familia ezezagun baten kideak zein diren azalduko du; beste jolaskideek asmatu egin behar dute zein familia den. Asmatzen duenak egingo du hurrengo galdera: *"nun bizi dian, nun bizi dian: ama, aita, bi alaba eta mutil zahar bat"*.

nun bizi dian

NON BIZI DIREN

juego que consiste en dar los convivientes de una familia y adivinar cuál es

nun bizi diran (> *nun bizi dĭan*). "Non bizi diren" jolasa. Jolaskide batek buruan duen herriko familia ezezagun baten kideak zein diren azalduko du; beste jolaskideek asmatu egin behar dute zein familia den. Asmatzen duenak egingo du hurrengo galdera: *"nun bizi dian, nun bizi dian: ama, aita, bi alaba eta mutil zahar bat"*.

nun-nahi; nunahi

NON-NAHI, NONAHI

dondequiera, en cualquier parte; en todas partes

nun-nahi (eta *nunai*) adb. Non-nahi, nonahi. *Gauzioi nunai ikusko dezu* 'gauza hori nonahi ikusiko duzu'.

nunbait

NONBAIT

en alguna parte, en algún lugar
al parecer, por lo visto

nunbait **1** adb. Nonbait, tokiren batean. *Nunbait, nunbaiteko, nunbaitien, nunbaitet(ik)*. **2** adb. Dirudienez, antza denez. *Nunbait, ezakien jai eguna zala* 'nonbait, ez zekien jai eguna zela'. Ik. **sobre**. ◆ **hor nunbait**. Ik. **hor nunbait**. ◆ **nonbaiten** (> *nunbaitĭen*) adb. Nonbait. *Nunbaitĭen yonen da* 'nonbaiten egonen da'. ◆ **nunbaiteko**. *Nunbaiteko burlak iten duatzizai* 'zenbat(eko) burla(k) egiten dizkidazue'. *Nunbaitekwa esan niken nik!* (ederra esan niken nik). ◆ **nunbaitekoa egin** (> *nunbaitekwa in*). Ederra egin, sekulakoa egin (kaltegarritzat jota; gertaera negatibo moduan). *Nunbaitekwa in diet* 'nonbaitekoa egin diat'. ¬

nundi handi

NONDIK EDO HANDIK

por algún sitio; de alguna parte, de aquí o de allí; desde algún lugar

nundi handi (> *nundi andi*). Nondik edo handik, nonbaitetik; nola edo hala. *Nundi handi, ata dau* 'nondik edo handik, atera du'.

nundi nua

NONDIK NORA

de dónde a dónde; por dónde; dónde
cómo, por qué, a cuento de qué

nundi nua (> *nundi nwa*). Nondik nora **1** Zer tokitatik zer tokitara? **2** Nola?

nundi(k)

NONDIK

de dónde; desde dónde; por dónde

nundi(k) **1** adb. (Galdetzailea). Nondik; zer lekutatik? *Nundi ekartuzu flore oiek?* 'nondik ekar dituzu lore horiek?'. **2** adb. (Zehar-galderetan). *Aztu zaira bidĭa nundi dan* 'ahaztu zait bidea nondik den'.
◆ **nundi handi** (> *nundi andi*). Nondik edo handik, nonbaitetik; nola edo hala. *Nundi handi, ata dau* 'nondik edo handik, atera du'.
◆ **nundi nua** (> *nundi nwa*). Nondik nora **1** Zer tokitatik zer tokitara? **2** Nola?

nungo, nungua

NONGO

de dónde, de qué lugar

nungo **1** adj. (Galdetzailea). Nongoa; zer tokitakoa? *Ta zu, nungwa za?* 'eta zu, nongoa zara?'. **2** (Zehar-galderetan). *Jakintazu nungwek zĭan* 'jakizu nongoak ziren'.

nuntar, nuntarra

NONDAR

de dónde; oriundo de, habitante o natural de [personas]

nuntar adj. (Galdetzailea). Nondarra; nongoa?, non jaioa? Ik. **nungo**.

ñan, ñan-ñan

ÑAÑAN EGIN

comer (voc. infant.)

ñan / ñan-ñan Haur. Jan. ◆ **ñan-ñan egin** (> *ñan-ñan in*) (?).

ñaño, ñañua

ÑAÑO

enano, -a, diminuto, -a; retaco, -a, canijo, -a

ñaño iz./adj. Adkor. Nanoa. Ik. **nano**. *Nañwa ematen dau mutil txara orren ondwen* 'ñañoa ematen du mutil txara [txara: enbor luze eta zuzena] horren ondoan'.

ñañorro, ñañorrua
ÑAÑARRO, ÑAÑAR

desmedrado, -a; pequeño, -a, bajito, -a, enano, -a, canijo, -a

ñañorro adj. Ñañarroa, ñañarra; pertsonez hitz eginez, txikia eta kaskarra. *Kaso in beĭko gizajwa, ñañorrwa* 'kasu egin gabeko gizajoa, ñañarroa'. Ik. **nano**.

ñar hots, ñar hotsa
NEGAR HOTS

llanto, sollozo, lamento

ñar hots iz. Lantua. Ik. **negar hots** (> *near hots*). (Batez ere pl.) *ñar hotsak*.

ñar in
NEGAR EGIN

llorar
quejarse, lamentar

ñar inazi
NEGAR EGINARAZI, NEGAR ERAGIN

hacer llorar, provocar el llanto

ñar iteko gogo, ñar iteko gogua
NEGARGURA

neargura

ganas de llorar

ñar iteko gogo. Ik. **near iteko gogo**; **neargura**.

ñar, ñarra
NEGAR

2 jaraio

lloro, llanto
goteo

ñargura, ñarguria
NEGARGURA

near iteko gogo
barregura, barre iteko gogo

ganas de llorar

ñargura iz. Ik. **negargura**.

ñarrai eman
NEGARRARI EMAN

echarse a llorar, romper a llorar

ñarraldi, ñarraldia
NEGARRALDI

llorar; cada vez que se llora, llorera

ñarraldi iz. Negarraldia. Ik. **negarraldi**.

ñarregarri, ñarregarria
NEGARGARRI
barregarri

lamentable, triste, lastimoso, -a, deplorable; lacrimoso, -a [que incita a llorar]

ñarregarri adj. Ik. **negargarri**. *Mundu au da aldi berĭen ñarregarria ta barregarria* 'mundu hau da aldi berean negargarria eta barregarria'.

ñarrontzi, ñarrontzia
NEGARRONTZI

nearti

llorón, -ona, llorica

ñarrontzi adj. Adkor. Negartia. Ik. **negarrontzi** (Ond Bak).

ñarti, ñartia NEGARTI
ñarrontzi
llorón, -ona, llorica

ñear NEGAR
lloro, llanto
goteo

ñear iteko gogo, ñear iteko gogua NEGARGURA
ganas de llorar

ñeargarri, ñeargarri NEGARGARRI
barregarri
lamentable, triste, lastimoso, -a, deplorable; lacrimoso, -a

negargarri (> *neargarri*, *ñarregarri* [Urdiain]; *ñeargarri*) adj. Atsekabea ematen duelako negar eragiten duena. (Maiz irudizko adieran erabiltzen da). *Mundu au da aldi berĭen ñarregarria ta barregarria* 'mundu hau da aldi berean negargarria eta barregarria'. ▼ Anton. *barregarri*.

ñeñe NENE
leche (voc. infant

ñeñe iz. Haur. Nene, esnea.

ñiki-ñaka ÑIKI-ÑAKA
incordiando, molestando continuamente; discutiendo sin fundamento
conspirando; tramando jugarretas, engaños, fraudes

ñiki-ñaka adb. Gogaitarazten, izorratzen. | Funsgabeko eztabaidan.

ño ARRAIO
¡caramba!, ¡joder! (con asombro)

ño interj. Harridura edo ustekabea adierazten duen hitza. Ño, nolako otza iten den! 'kristo, nolako hotza egiten duen!'. Ik. **ostra**; **ostia**.

ñoño (1) LO EGIN
lo-lo
dormir (voc. infant.)

ñoño[1] Haur. Lo; lo egin. ▲ Sin. *lo-lo*.

ñoño, ñoñua (2) TXEPEL
ñoño, -a; alelado, -a, lelo, -a, insustancial

ñoño[2] adj. Txepela.

o (1) EDO
o; u
o así, o algo así; aproximadamente

o[1] (eta *eo*) junt. Edo. *Erreta o tortillan? Egun bat o bi* (Ond Bak). ◆ **o dala... o dala**. Edo dela... edo dela. *O dala au, o dala bestĭa...* 'edo dela hau, edo dela bestea'.

o (2) O

oi, ai

¡oh!

o[2] interj. Ustekabea, harridura edo mirespena adierazteko erabiltzen den hitza. Ik. **oi**; **ai**.

oa UZTAI

argolla, aro, anilla

oa iz. Zurezko uztaia, «O» baten forma duena. Ik. **gurtera**; **uztai**; **gurmusu**.

oazal, oazala OHAZAL

funda de almohada

ohazal (> *oazal*) iz. Tapakien gainetik jartzen den estalkia; tapakia biltzen duen azala. Oazalĭen koltxĭa sartzen zan (Ond Bak). [funda de almohada]. Ik. **ohiazal** [Urdiain].

obea / obea ion OHARA

celo de la perra; en celo (la perra)

obea adb. Ohara, txakurrez ari garela, arreske. ◆ **obea egon** (> *obea ion*). Ohara egon. *Txakura obea do* 'txakurra obea [ohara] dago'.

obedezitu, obedezitzen OBEDITU

obeditu *desobedezitu*

obedecer; acatar

obedezitu *dau* ad. Ik. **obeditu**.

obediente, obedientia OBEDITZAILE, ESANEKO, OBEDIENTE

desobediente

obediente

obediente (eta *obedinte* (?)) adj. Obeditzen duena. ▼ Anton. *desobediente*.

obeditu, obeditzen OBEDITU

obedezitu *desobeditu*

obedecer; acatar

obeditu (eta *obedezitu*) *dau/dĭa* ad. ▼ Anton. *desobeditu*; *desobedezitu*. ◆ **obeditzen ez duena** (> *obeditzen eztena*). Ik. **desobediente**.

obispo, obispua APEZPIKU, GOTZAIN

obispo

obispo iz. Apezpikua, gotzaina.

obligatu, obligatzen OBLIGATU

behartu, obligazi, premiatu, forzatu

obligar(se)

obligatu *da/dau* ad. Behartu. ▲ Sin. *behartu*, *obligazi*, *premiatu*, *forzatu*.

obligazi, obligazten OBLIGARAZI

behartu

obligar, forzar

obligarazi (> *obligazi*) dau ad.

obligazio, obligaziua

OBLIGAZIO

obligación; deber

obligazio iz.

◆ **obligazioz**. Obligazioz faten da pasia. Zuk obligaziu'oi zendukan iteko ta ez dezu in 'zuk obligazio hori zeneukan egiteko eta ez duzu egin'.

obra, obria

OBRA, ERAIKUNTZA-LAN

obra, trabajo de construcción

obra iz. Eraikuntza lana; eraberritze lana. *Obran daĭtza* 'obran [eraikuntza lanetan] dabiltza'.
◆ **obra egin** (> *obrĭa in*). ◆ **obratan egon** (> *obratan yon*).

obratu, obratzen

OBRATU*, (ETXEA) KONPONDU

konpondu

obrar, construir, edificar

obratu *dau* ad. Eraikin edo etxeez ari garela, konpondu. *Etxĭa obratzen daitza* 'etxea obratzen [konpontzen] dabiltza'. *Etxeik ez to obratu be autzik* 'etxerik ez dago obratu gabe utzirik'. *Etxĭa obratwau* 'etxea obratu du'.

obrero, obrerua

FABRIKA-LANGILE

langile

obrero, -a

obrero iz. Fabrikako langilea. *Obrero klase guztia zan emen ezkerra* 'obrero klase guztia zen hemen ezkerra'. Ik. **langile**.

odol bear, odol bearra

ODOL-BELAR

txistabiar

hierba de las siete sangrías (?)

odol-belar (> *odol bear*, *odol bĭar*). (Bot.) | txistabear, txistabiarra. ¬

odol yosi, odol yosia

ODOL EGOSI

*sangre cocida, sangrecilla**

odol yosi. Odol egosia. *Axuien odol yosiekin prepatzen dĭa tripotx zuiek* 'axuriaren odol egosiarekin preparatzen dira tripotx zuriak'.

odol, odola

ODOL

sangre

odol iz.

– odol txarra in. Disgustatuta, odol txarra in dot.
– odol golpe (sudurreko hemorragia) ?.
– odolez hustu 'odolustu'. *Zeinak moztu ta odolez ustu emen da* 'zainak moztu eta odolez hustu omen da'.
– odola eman.
◆ **odola dariola** (> *odola daiola*) adb. *Surreti odola daiola fan da medikuengana* 'sudurretik odola dariola [zeriola] joan da medikuarengana'. *Bizikletatik bota ta odola daiola fan da etxĭá* 'bizikletatik bota eta odola dariola [zeriola] joan da etxera'.
◆ **odol-belar** (> *odol bear*, *odol bĭar*). (Bot.) | txistabear, txistabiarra. ¬
◆ **odol yosi**. Odol egosia. *Axuien odol yosiekin prepatzen dĭa tripotx zuiek* 'axuriaren odol egosiarekin preparatzen dira tripotx zuriak'.

odola daiola

ODOLA DARIOLA

derramando sagre, sangrando; con hemorragia

odola dariola (> *odola daiola*) adb. *Surreti odola daiola fan da medikuengana* 'sudurretik odola dariola joan da medikuarengana'.

odola daiola (odol jaraio)

ODOLA DARIOLA

sangrando

odola dariola (> *odola daiola*) adb. *Surreti odola daiola fan da medikuengana* 'sudurretik odola dariola [zeriola] joan da medikuarengana'. *Bizikletatik bota ta odola daiola fan da etxĭá* 'bizikletatik bota eta odola dariola [zeriola] joan da etxera'.

odolbildu, odolbildua

ODOLBILDU

coágulo [de sangre]

odolbildu iz. Gorputzean gertatzen den odol biltzea.

odoldi, odoldia

GOROLDIO, ODOLDI

musgo

odoldi iz. (Bot.) Goroldioa (Kl. Musci). *Itzalpĭen dukai untzak ta odoldiek bizilekua* 'itzalpean daukate untzak eta goroldioak bizilekua'. *Odoldi xamurrak, arrizko biotza* 'goroldio xamurrak, harrizko bihotza'.

odolki zuri, odolki zuria

ODOLKI

mocilla de oveja

odolki zuri(a) iz. {(Iza Alts): mocilla de oveja}. Ik. **tripotx zuri** (> *tripotx zui*).

odolki, odolkia

ODOLKI

morcilla

odolki iz. Txerri odol egosiz eta beste zenbait osagaiz egiten den hestebetea. *Odolkiek, normalĭen, yosita jaten tu* 'odolkiak, normalean, egosita jaten ditugu'. Ik. **lope**. ◆ **odolki zuri(a)**. {(Iza Alts): mocilla de oveja}. Ik. **tripotx zuri** (> *tripotx zui*).

odoltsu, odoltsua

ODOLTSU

sangrante, sangriento, -a

odoltsu adj. Odolez betea, odoldua. *Haragi odoltsua*. *Txerri odoltsua* (LM).

ofenditu, ofenditzen

OFENDITU

ofender, agraviar, injuriar
ofender(se)

ofenditu **1** *dau* ad. Iraindu. *Ezta erraza errespetwekin ta iyuere ofenditu be ibiltzĭa* 'ez da erraza errespetoarekin eta inor ofenditu gabe ibiltzea'. **2** *da/dau* ad. Gaitzitu, mindu; norbait, gogoko ez duena edo iraingarritzat hartzen duena gertatzean, mindu edo haserretu; gaizki hartu, gaizki eraman. *Eskwaz in dĭatelako ofenditu in zaĭra* 'euskaraz egin diodalako ofenditu egin zait'.

ofizial, ofiziala

OFIZIAL. 2 OFIZIALE

oficial
oficial [en oficios, profesiones]

ofizial **1** adj. Legezko aginpidea gauzatzen duten erakundeetatik datorrena, edo horiei dagokiena. **2** iz. Ofizialea; eskulanetan, aprendizaren eta maisuaren mailen arteko pertsona.

ofizina, ofizinia

BULEGO

oficina; despacho

ofizina iz. Bulegoa. *Ofizinatan sartzĭaiti, pwesto ona arrapatzĭaiti, auskolo ze inko zaĭn* 'ofizinetan sartzeagatik, postu ona harrapatzeagatik, auskalo zer egingo zuten'.

ofizio, ofiziua

OFIZIO

lanbide, profesio

oficio, profesión
oficio (Rel.)

ofizio **1** iz. Lanbidea, ogibidea. *Ezta ofizio txarra* 'ez da ofizio txarra'. *Ez tukat ez afizioik, ez ofizioik* 'ez daukat ez afiziorik, ez ofiziorik'. *Obena da afiziua ofizio biurtzĭa* 'hoberena da afizioa ofizio bihurtzea'. Ik. **lanbide**; **profesio**. **2** iz. Elizkizuna. *Meza ta ofiziotan* 'meza eta ofizioetan' (?).

ofrenda, ofrendia

OFRENDA, ESKAINTZA

ofrenda

ofrenda iz. (Erl.) *Elizan botatzen zan ofrendĭa 'elizan botatzen zen ofrenda'. Zortziko bat ofrenda* [*zortziko*: txanpon zaharra].

ogi apur, ogi apurra

OGI APUR

migaja (de pan)

ogi apur iz. Batez ere pl. Ogiaren, zati txikia. *Ogi apurrak.*

ogi azal, ogi azala

OGI AZAL

corteza del pan

ogi azal iz. Ogiaren kanpoaldeko zatia, barrualdeko mamia estaltzen duena. *Agoko minangeiti ezin dau ogi azalik jan* 'ahoko minarengatik ezin du ogi azalik jan'.

ogi bedeinkatu, ogi bedeinkatua

OGI BEDEINKATU

pan bendito

ogi bedeinkatu iz. (Erl.) Ogi bedeinkatua; domekako meza nagusian hartzen zen ogi bedeinkatua, herriko etxe bakoitzetik aldizka eramaten zena.

ogi beltz, ogi beltza

OGI BELTZ

pan negro / moreno

ogi beltz iz. Zahi ogia; osoko irinez eginiko ogia. *Makina bat ogi beltz jandakwek gaituk* 'makina bat ogi beltz jandakoak gaituk'. *Orduen ogi beltza besteik ez gendukan* 'orduan ogi beltza besterik ez geneukan'.

ogi harro, ogi harrua

OGI HARRO

ogi laso

pan fofo, pan esponjado

ogi harro (> *ogi arro*) iz. Trinkotasunik ez duen ogia. (Iza Alts). Ik. **ogi laso**.

ogi koxkor, ogi koxkorra

OGI KOSKOR, OGI MUTUR

cuscurro, cantero de pan

ogi koxkor iz. Ogi koskorra; ogiaren muturra (ogi koxkor ≠ ogi kozkor). *Ogi berrien ogi koxkorra, listo janik; aurreko eguneko ogien ogi koxkorra, bestendako autzik* 'ogi berriaren ogi koskorra, listo [azkar] janik; aurreko eguneko ogiaren ogi koskorra besterendako utzirik'.

ogi kozkor, ogi kozkorra

OGI KOSKOR, OGI PUSKA

pedazo de pan; mendrugo de pan

ogi kozkor iz. Ogi koskorra; ogi puska. *Ogi kozkorra* (ogi kozkor ≠ ogi koxkor). Ik. **ogi puska**.

ogi kurrusko, ogi kurruskua

OGI TXIGORTU

pan tostado

ogi kurrusko (eta *ogi kurruxko*, *ogi kurruxkwa*) iz. Ogi txigortua.

ogi laso, ogi lasua

OGI LASO

pan esponjoso y de poca consistencia

ogi laso iz. Ogi harroa, arola; trinkotasun gutxiko ogia (pan fofo). Ik. **ogi harro**.

ogi mami, ogi mamia

OGI MAMI

miga

ogi mami iz. Ogiaren barrualde biguna. *Albondigak ezĭo iteko, esenetan patutako ogi mamia nasten zaio aragiai* 'albondigak [haragi bolak] hezeago [samurrago] egiteko, esnetan paratutako ogi mamia nahasten zaio haragiari'.

ogi puska bat izan

OGI PUSKA BAT IZAN

ser un buenazo, ser una buenaza ; ser un pedazo de pan

ogi puska bat izan (> *ogi puskĭa izan*). (norbaiten ontasuna nabarmentzeko). On hutsa izan. *Ori ogi puska bat da; onaia* 'hori ogi puska bat da; onegia'.

ogi puska, ogi puskia

OGI-PUSKA; 2 ON HUTS

ogi kozkor

pedazo de pan

ser un buenazo, ser una buenaza ; ser un pedazo de pan

ogi puska 1 Ogi zatia. Ik. **ogi kozkor**. **2 ogi puska bat izan** (> *ogi puskĭa izan*). (norbaiten ontasuna nabarmentzeko). On hutsa izan. *Ori ogi puska bat da; onaia* 'hori ogi puska bat da; onegia'.

ogi zuri, ogi zuria

OGI ZURI

pan blanco, pan de flor

ogi zuri (eta *ogi txui*) iz. Irin zuri eta finez eginiko ogia. *Naio dai ogi zuia* 'nahiago dute ogi zuria'.

ogi, ogia

OGI

pan

ogi iz. *Ogi txuria* 'ogi zuria'. *Ogia oratu* (Ond Bak). | *Au ogien zuria!* 'hau ogiaren zuria!'. *Basoko Marien ogia* 'Basoko Mariaren ogia'. **2** iz. ogi / hogi. Hobia. Ik. **hogi**.

◆ **ogia egin** (> *ogia in*). Ik. **labekoa egin** (> *labekwa in*).

◆ **ogi apur** iz. Batez ere pl. Ogiaren, zati txikia. *Ogi apurrak*.

◆ **ogi azal** iz. Ogiaren kanpoaldeko zatia, barrualdeko mamia estaltzen duena. *Agoko minangeiti ezin dau ogi azalik jan* 'ahoko minarengatik ezin du ogi azalik jan'.

◆ **ogi bedeinkatu** iz. (Erl.) Ogi bedeinkatua; domekako meza nagusian hartzen zen ogi bedeinkatua, herriko etxe bakoitzetik aldizka eramaten zena.

◆ **ogi beltz** iz. Zahi ogia; osoko irinez eginiko ogia. *Makina bat ogi beltz jandakwek gaituk* 'makina bat ogi beltz jandakoak gaituk'. *Orduen ogi beltza besteik ez gendukan* 'orduan ogi beltza besterik ez geneukan'.

◆ **ogi eske fan**. Ogia erostera joan. *Banua ogi eske* 'banoa ogi eske [ogia erostera]'.

◆ **ogi harro** (> *ogi arro*) iz. Trinkotasunik ez duen ogia. (Iza Alts). Ik. **ogi laso**.

◆ **ogi koxkor** iz. Ogi koskorra; ogiaren muturra (ogi koxkor ≠ ogi kozkor). *Ogi berrien ogi koxkorra, listo janik; aurreko eguneko ogien ogi koxkorra, bestendako autzik* 'ogi berriaren ogi koskorra, listo [azkar] janik; aurreko eguneko ogiaren ogi koskorra besterendako utzirik'.

◆ **ogi kozkor** iz. Ogi koskorra; ogi puska. *Ogi kozkorra* (ogi kozkor ≠ ogi koxkor). Ik. **ogi puska**.

◆ **ogi kurrusko** (eta *ogi kurruxko*, *ogi kurruxkwa*) iz. Ogi txigortua.

◆ **ogi laso** [Altsasu] iz. Ogi harroa, arola; trinkotasun gutxiko ogia (pan fofo). Ik. **ogi harro**.

◆ **ogi mami** iz. Ogiaren barrualde biguna. *Albondigak ezĭo iteko, esenetan patutako ogi mamia nasten zaio aragiai* 'albondigak [haragi bolak] hezeago [samurrago] egiteko, esnetan paratutako ogi mamia nahasten zaio haragiari'.

◆ **ogi muñeko** iz. *Ogi muñekwa, muñeko etxuran indako ogia* 'ogi muñekoa, muñeko itxuran egindako ogia'.

◆ **ogi puska 1** Ogi zatia. Ik. **ogi kozkor**. **2 ogi puska bat izan** (> *ogi puskĭa izan*). (norbaiten ontasuna nabarmentzeko). On hutsa izan. *Ori ogi puska bat da; onaia* 'hori ogi puska bat da; onegia'.

◆ **ogi zuri** (eta *ogi txui*) iz. Irin zuri eta finez eginiko ogia. *Naio dai ogi zuia* 'nahiago dute ogi zuria'.

ogibide, ogibidia

OGIBIDE

lan, lanbide, ofizio, profesio

profesión, oficio, trabajo

ogibide iz. Lanbidea, bizibidea ateratzeko balio duen jarduera. ▲ Sin. *lan*, *lanbide*, *ofizio*, *profesio*.

ogijale, ogijalia

OGIZALE

ogizale

panero, -a; paniego, -a

ogijale adj./iz. Ogiaren oso zalea dena; ogizalea. ▲ Sin. *ogizale*.

ogizale, ogizalia

OGIZALE

ogijale

panero, -a; paniego, -a

ogizale adj. Ogiaren oso zalea dena; ogizalea. ▲ Sin. *ogijale*.

ogro, ogrua

OGRO

ogro

ogro iz. Ixinpluetako erraldoia, giza haragiz elikatzen dena.

ohia

OHE

guatze; kuxa

cama
lecho, yacija

ohia (> *oia*) (*a* itsatsia dauka) **1** iz. Ohea. Ohia bat... || Apostu inko nuke ohiati aitu zeila; ohia berria. Hainbeste ohien azala (Ond Bak). ▲ Sin. *guatze*, *kuxa*. **2** iz. Ik. **oi**. | – ohiabarrena. Ohiabarrenak estalduta. | – ohia azpia. | – ohia fan 'ohera joan'. | – ohia in 'ohea egin'. ¬

ohiatu

OHERATU

encamar(se); [encamado, -a]

ohiatu (> *oiatu*) *da/dau* ad. Oheratu [*oiatuik yon* 'oheraturik egon' esapidean]. ◆ **oheraturik egon** (> *oiatwik yon*). *Oiatwik emen do, oiati jagitzen eztala* 'oheraturik omen dago, ohetik jagitzen ez dela'. Ik. **ohera fan** (> *oia fan*).

ohiazal, ohiazala

OHAZAL

izara

colcha, sobrecama
funda de almohada

ohiazal **1** [Urdiain] iz. Izara zatia, izara. *Uazala*, *ubazala* (?) (*Uazala*, sábana encimera en forma de funda para colcha). **2** iz. Ohazala. *Oazalĭen koltxĭa sartzen zan* (Ond Bak) [funda de almohada]. Ik. **ohazal** (> *oazal*); **koltxa**.

ohitu, ohitzen

OHITU

jarri

habituar(se), acostumbrar(se), hacerse a

ohitu da/dau ad. Ohitu naiz gatzipe jaten 'ohitu naiz gatzik gabe jaten'. Ik. jarri.
– ohitube 'ohitu gabe'. Ohitube no gatzipe jaten 'ohitu gabe nago gatzik gabe jaten'.

ohitura, ohituria

OHITURA

kostunbre, kondezio, tradizio, usaio

costumbre, uso, hábito
tradición

ohitura iz. Ik. **kostunbre**; **kondezio**; **tradizio**; **usaio**. Ohitura txar. Ohitura txarrak dukatzi 'ohitura txarrak dauzka'. Ohiturak aldatzia ez ta erraza izaten 'ohiturak aldatzea ez da erraza izaten'. Ik. **bizio**.

ohol, ohola

OHOL

tabla

tabla

ohol (> *ol*) [baina, *hesolia*] iz. Zurezko pieza luzea, laua eta mehea. *Pinu-ola pipiek listo jaten dau* 'pinu-ohola pipiak azkar jaten du'. *Pago-ohola*; *haraitz-ohola*. ◆ **ohola pasatu** (> *ola pasatu*). (Nekazaritza) Hazia ereiteko, ohola pasatu; lur kozkorrak [zokorrak] txikitzeko eta lurra trinkotzeko. [Gaur egun (?): 'alperra pasatu; trunkoa pasatu'].

ohola pasatu

OHOLA PASATU [G.: ALPERRA PASATU]

(lit.): pasar la tabla [para desterronar]; (acte.): pasar el rodillo, pasar el rulo

ohola pasatu (> *ola pasatu*). (Nekazaritza) Hazia ereiteko, ohola pasatu; lur kozkorrak [zokorrak] txikitzeko eta lurra trinkotzeko. [Gaur egun (?): 'alperra pasatu; trunkoa pasatu'].

oholtxo, oholtxua

OHOLTXO

tablilla

oholtxo (> *oltxo*) iz. Tamaina txikiko ohola. *Oltxwet ber dot atarzulwa ixteko* 'oholtxo bat behar dut *atari zuloa* [katu zuloa] ixteko'.

oi (2)

TORI, TO

toma (algo), ten

oi[2] interj. Tori, to. (*oizu* eta *oizai* formatan agertzen da) ◆ **oizu** interj. Tori, to (zuri; singularreko bigarren pertsonari zuzenduta); norbaiti zerbait ematean esaten zaion hitza. || *Oi'zu ogia!* (nik emana) (Ond Bak). *Oizu ordekwa!* 'tori ordezkoa'. *Oizu periodikwa* 'tori periodikoa [egunkaria]'. Ik. **otso**. ◆ **oizai** interj. Tori, to (zuei; pluraleko bigarren pertsonari zuzenduta); norbaitzuei zerbait ematean esaten zaion hitza. *Oizai bendua!* 'torizue merienda (nik zuei)'.

oi (3)

OI, AI

o

¡oh!; ¡ay!

oi[3] interj. Ai, ui; ustekabea, harrimena, mirespena edo oinazea adierazteko erabiltzen den hitza. *Oi, oi, oi! Ze in dezu?* [harridurazkoa]. Ik. **o**; **ai**.

oi, oia (1)

OI (1)

encía

oi[1] iz. Hortz-haginak inguratzen eta finkatzen dituen haragi sendo gorrixka. *Oia da hortzen goiti ta beiti don mamia* (Ond Bak). *Ortzain oia* 'hortzen oia'.

oihal, oihala

OIHAL

egun, mihisa, tela

tela, tejido, paño, lienzo

oihal **1** iz.

2 iz. Izara. *Gazin oialak biltzĭa* 'goazen izarak biltzera'.

|| *Hogien patzen dan oihala* (Ond Bak).

3 iz. pl. Haur jaioberriaren zapiak; pixoihala, maiola. *Aurraindako oiala* 'haurrendako oihala'.

◆ **ozpin-oihal**. *Ozpin-oihala*, *minak sendatzeko patzen zana* 'ozpin-oihala, minak sendatzeko paratzen zena'.

oihu, oihua
OIHU

garrasi

grito, clamor, chillido, relincho

oihu iz. Ahoaren bitartez egiten den hots ozena. ▲ Sin. *garrasi*.

oihukan
OIHUKA

garrasikan

a gritos, gritando, clamando, a voces

oihukan adb. Oihuka. ▲ Sin. *garrasikan*.

oilagor, oilagor
OILAGOR

chocha, chochaperdiz, becada, sorda

oilagor (eta *ollaor* [Bakaiku]). (Scolopax rusticola). *Ollaorrá (-ll-) da hegázti bat* (Ond Bak). Ik. **bekada**.

oilaki salda, oilaki saldia
OILAKI SALDA

caldo de carne de gallina

oilaki salda. Oilo okelaz egindako salda.

oilaki, oilakia
OILAKI

carne de gallina

oilaki iz. Oilo okela. ◆ **oilaki salda**. Oilo okelaz egindako salda. – oilaki zopa. ¬

oilan, oilana [oilana, oilania?]
ZUHANDOR

subandar

cornejo (Cornus sanguinea)

oilan iz. (Bot.) Zuhandorra, zuhaixka abartsua, lore-horia, oso zur idorra duena eta jateko on diren fruituak ematen dituena (Cornus mas). "Arbusto delgado, parecido al avellano en su corteza" (Ond Bak). ▲ Sin. *subandar* [Altsasu].

oilanda, oilandia
OILANDA

polla (gallina)

oilanda iz. Oilo eme gaztea. *Oilandan arrontzĭa, arrontza txikia* 'oilandaren arrautza, arrautza txikia'.

oilar, oilarra
OILAR

gallo

oilar iz. Oiloaren arra. ◆ **oilarrarena** iz. Arrautza umekiduna. *Arrontza horrek oilarrarena deka*. (embrión fecundado del huevo, huevo fértil).

oilarrarena
ARRAUTZA UMEKIDUN

embrión fecundado del huevo; huevo fértil

oilarrarena iz. Arrautza umekiduna. *Arrontza horrek oilarrarena deka*. (embrión fecundado del huevo, huevo fértil).

oilasko, oilaskua
OILASKO

pollo

oilasko iz. Oilar gaztea. *Oilasko iztarrak*. *Oilasko haragia*. *Oilasko hezurrak*. Ik. **kapon**.

oilatai, oilataia OILATEGI
oilatesi, oilotoki
gallinero

oilatai iz. Oilategia. ▲ Sin. *oilatesi* (Ond Bak); *oilotoki*.

oilatei, oilateia OILATEGI
gallinero

oilatesi, oilatesia OILATEGI
oilatai, oilotoki.
gallinero

oilatesi iz. Oilategia. Sin. oilatai; oilotoki.

oilo zulo OILO ZULO; KATAZULO; ATETILA
gatera (agujero hecho en la puerta para que puedan entrar o salir los gatos y otros animales

oilo zulo [Iturmendi]. Atetila, katazuloa; oiloak-eta sartu eta ateratzeko, ateak duen zuloa. Ik. **atarzulo**.

oilo, oilua OILO
gallina (Gallus gallus)

oilo iz. Etxeko hegaztia (Gallus gallus). ◆ **oiloa loka egon** (> *oilwa loka yon*). *Oilwa loka do* 'oiloa loka dago'. Ik. **loka**. ◆ **oilo zulo** [Iturmendi]. Atetila, katazuloa; oiloak-eta sartu eta ateratzeko, ateak duen zuloa. Ik. **atarzulo**.

oiloetxe, oiloetxia OILATEGI
gallinero; cobertizo donde se guardan gallinas

oiloetxe iz. Oilategia (?). Ik. **oilatai**; **oilotoki**; **oilatesi** [Bakaiku].

oilojale, oilojalia OILO-JALE
cernícalo; gavilán (?)

oilojale iz. Hegazti harraparia. Ik. **txitajale**.

oilotoki, oilotokia OILOTOKI
oilatai
gallinero

oilotoki iz. ▲ Sin. *oilatesi* (Ond Bak); *oilatai*.

oin, oina OIN
hanka
pie

oin iz. *Oinetako mina dukat* (zah.) 'oinetako mina daukat'. Ik. **hanka**.

oinala, oinalia ORINAL, PIXONTZI
orinal

oinala (*a* itsatsia) iz. Orinala, pixontzia. Ik. **txisontzi**. *Oinalĭa*.

oinaza, oinazia

OINAZE

min; liztura

dolor (agudo), mal

oinaza iz. Oinazea; mina, bereziki bizia. *Oinazĭa dukat; eman dwa min bat!* 'oinazea daukat; eman dit min bat!'. Ik. **min**; **liztura**. ◆ **oinaza eman**. Oinazeak eman. *Eman dwa oinaza bat!* 'eman dit oinaze bat'.

oinazaldi, oinazaldia

OINAZEALDI

periodo de dolor / aflicción

oinazaldi iz. Oinazealdia, oinazez beteriko aldia. *Mina, oinazaldiekin izaten dok* 'mina, oinazealdiekin izaten duk'.

oinaztura, oinazturia

OINAZTURA, OINAZTARRI, TXIMISTA

tximista (LM)

rayo, relámpago

oinaztura iz. Tximista; ekaitzetan, argialdi bizi eta laburra, elektrizitate deskarga batek eragina; hodei biren artean edo hodei baten eta lurraren artean gertatzen den elektrizitate deskarga. Ik. **ozpingarri**. ◆ **oinazturak jo** (> *oinazturĭek jo*). ◆ **oinaztura lehertu** (> *oinazturĭa lertu*).

oinazturaketan

OINAZTURAKA (OEH); TXIMISTAKA

tximistaketan (LM)

relampagueo; relampagueando

oinazturaketan adb. Oinazturaka, tximistaka. *Oinazturaketan donien, elorri azpiá* 'oinazturaka dagoenean, elorri azpira'. Ik. **tximistaketan**.

oinetako, oinetakua

OINETAKO

hankatako

calzado

oinetako iz. (Batez ere pl.) Oinak estaltzeko eta babesteko erabiltzen den edozein jantzi. Ik. **hankatako**.

oinez

OINEZ

pausokan

a pie, andando

oinez adb. *Oinez faten naiz lanĭa* 'oinez joaten naiz lanera'. Ik. **pausokan**.

ointo beltz, ointo beltza

ONDDOBELTZ

ointo burubeltz

boleto negro (Boletus aereus)

ointo beltz. Onddobeltza (Boletus aereus). ▲ Sin. *ointo burubeltz*.

ointo burubeltz

ONDDOBELTZ

boleto negro (Boletus aereus)

ointo burubeltz. Onddobeltza. Ik. **ointo beltz**.

ointo buruzuri

ONDDOZURI

boleto reticulado

ointo buruzuri. Onddozuria. Ik. **ointo zuri**.

ointo gorringo

KULETO, ARRAUTZA PERRETXIKO

gorringo, ama ointo

oronja, yema del huevo (Amanita caesarea)

ointo gorringo. Kuletoa, arrautza perretxikoa (Amanita caesarea). ▲ Sin. *gorringo*, *ama ointo*.

ointo zui, ointo zuia

ONDDOZURI

ointo buruzuri

boleto reticulado

ointo zuri (> *ointo zwi*). Onddozuria (Boletus edulis). ▲ Sin. *ointo buruzuri*.

ointo, ointua

ONDDO

hongo, boleto
zopenco, -a; lerdo, -a; embobado, -a; tonto, -a

ointo **1** iz. Onddoa (Boletus). **2** adj. Lgart. Lerdoa. ◆ **ointoak bekela** (> *ointwek bekela*) adb. Ugari. | Ointo urtia. Ointo errezkadia. | – ointo-leku. | – ointo-toki. | – ointotan. ◆ **ointo beltz**. Onddobeltza (Boletus aereus). ▲ Sin. *ointo burubeltz*. ◆ **ointo burubeltz**. Onddobeltza. Ik. **ointo beltz**. ◆ **ointo buruzuri**. Onddozuria. Ik. **ointo zuri**. ◆ **ointo gorringo**. Kuletoa, arrautza perretxikoa (Amanita caesarea). ▲ Sin. *gorringo*, *ama ointo*. ◆ **ointo zuri** (> *ointo zwi*). Onddozuria (Boletus edulis). ▲ Sin. *ointo buruzuri*. ◆ **pinu ointo** iz. Pinudietan eta baita pagadi eta txilardietan ere sortzen den onddoa; hanka sendoa eta txapela ardo kolore nabarrarekoak ditu (Boletus pinophilus).

ointto-mointto

expresión usada cuando se han comido hongos malos

ointto-mointto [Bakaiku] Onddo txarrak jan direnean erabiltzen den esapidea [(Ond Bak): fórmula usada cuando se han comido hongos malos]. Ik. **almutea jo** (> *almutĭa jo*).

oizai

TORI, TO (ZUEI) [TORIZUE]

toma, ten; tome, tenga

oizai interj. Tori, to (zuei; pluraleko bigarren pertsonari zuzenduta); norbaitzuei zerbait ematean esaten zaion hitza. Ik. **oizu**; **otso**.

oizu

TORI, TO (ZURI) (TORIZU)

otso

toma, ten; tome, tenga

oizu interj. Tori, to (zuri; singularreko bigarren pertsonari zuzenduta); norbaiti zerbait ematean esaten zaion hitza. Ik. **oizai**; **otso**.

oja, ojia

ORRI. 2 XAFLA

hoja, página
hoja, lámina, chapa

oja **1** iz. Orria; papera. **2** iz. Xafla. Ik. **lamina**. | *Urdai ojak*.

ojala

OXALA

sikia

ojalá

ojala interj. Oxala. Ik. **ahal**; **sikia**.

ojalata, ojalatia
LATORRI

hojalata

ojalata iz. Latorria. *Ojalatazko sega potwa* 'latorrizko sega potoa'.

ojale, ojalia
BOTOI ZULO, BEGITE

botona zulo

ojal

ojale iz. Botoi zuloa, begitea. *Ojalĭontati erraz askatzen da botonĭa* 'botoi zulo honetatik erraz askatzen da botoia'. ▲ Sin. *botona zulo*. Ik. **txibita**.

oka
OKA, NAZKA

lazka

vómito

empacho, hastío, hartazgo

oka iz. Nazka; iguina, bereziki goragalea eragiten duena. ◆ **oka eman**. Nazka eman; atzerakuntza-sentipen bizia eragin. Ik. **lazka eman**. ◆ **oka-oka egin(ik)** (> *oka-oka in(ik)*). Nazka-nazka eginda, erabat nazkatuta. Ik. **lazka-lazka egin** / **lazka-lazka eginda**.

oka eman
NAZKA EMAN

lazka eman

dar asco, repugnar

oka eman. Nazka eman; atzerakuntza-sentipen bizia eragin. Ik. **lazka eman**.

oka-oka in(ik), oka-okia
NAZKA-NAZKA EGIN

lazka-lazka in(ik)

estar harto, estar asqueado; morirse de asco, estar muerto de asco

oka-oka egin(ik) (> *oka-oka in(ik)*). Nazka-nazka eginda, erabat nazkatuta. Ik. **lazka-lazka egin** / **lazka-lazka eginda**.

okagarri, okagarria
OKAGARRI

lazkarri

asqueroso, -a; nauseabundo, -a; repugnante

okagarri adj. Ik. **lazkarri**.

okan arbola, okan arbolia
OKARAN ARBOLA, ARANONDO

ciruelo, pruno (Prunus domestica)

okaran arbola (> *okan arbola*). (Bot.) Aranondoa (Prunus domestica).

okan beltz, okan beltza
OKARAN BELTZ, ARAN BELTZ

ciruela negra

okaran beltz (> *okan beltz*). Aran beltza.

okan garratx, okan garratxa
OKARAN GARRATZ

ciruela de sabor ácido, agrio

okan garratx. (Bot.) Okaran garratza.

okan gorri, okan gorria
OKARAN GORRI

ciruela roja

okaran gorri (> *okan gorri*). Aran gorria, aran morea.

okan, okana

OKARAN, ARAN. 2 ARANONDO

ciruelo
ciruela

okaran (> *okan*) **1** iz. (Bot.) Okaran arbola, aranondoa. (Prunus domestica). **2** iz. Fruta. | – okanan loria. | – okan hezurra. | – okan patsa. ◆ **asto okaran** (> *asto okan*). **1** iz. Okaran mota, berde kolorekoa eta zapore gutxikoa. **2** iz. Asto okaran arbola. ◆ **okaran arbola** (> *okan arbola*). (Bot.) Aranondoa (Prunus domestica). *Okan arbolĭa*. ◆ **okaran beltz** (> *okan beltz*). Aran beltza. ◆ **okaran garratx** (> *okan garratx*). (Bot.) Okaran garratza. ◆ **okaran gorri** (> *okan gorri*). Aran gorria, aran morea.

okanpats, okanpatsa

OKARANPASA, ARANPASA

ciruela pasa

okaranpasa (> *okanpats*; *okanpatsa*) iz. Aranpasa, okaran idor gozoa. *Konpotĭa iteko, artazu okanpatsak* 'konpota egiteko, har itzazu okaranpasak'.

okasio, okasiua

OKASIO

ocasión, oportunidad
disputa, discusión, bronca, follón

okasio **1** iz. Aukera, era. *Izan dezu okasiua errien bertan gaztai ona yosteko* 'izan duzu okasioa herrian bertan gazta ona erosteko'. **2** iz. Liskarra. ◆ **okasio bila ibili**. Sesio bila, istilu bila aritu. *Oi beti okasio bila jailek* 'hori beti okasio bila zabilek'. ◆ **okasioa paratu** (> *okasiua patu*) *dau* ad. Okasioa atera [armar la bronca]. *Kamelwek kendu dĭatzi ta okasiua patu dau* 'karameluak kendu dizkio eta okasioa paratu du'. Ik. **haserrea paratu** (> *asarrĭa patu*).

okatu, okatzen

OKATU, NAZKATU

lazkatu, aspertu

asquear(se), repugnar

okatu *da/dau* ad. Nazkatu; ase-ase egin. Ik. **lazkatu**; **aspertu**. ◆ **okaturik egon** (> *okatuik yon*). Nazkatuta egon, biziki gogaituta egon. Okaituik naukak! 'okaturik naukak'. Okatuik no 'okaturik [nazkaturik] nago'. *Okatzen dau bat* 'okatzen du bat'.

okela, okelia

OKELA

haragi

carne; ración de carne

okela iz. ◆ **okeletan sartu** *da* ad. *Beia okeletan sartwik jok* 'behia okeletan sarturik zagok' [Haragitarako gizenduta dagoela esan nahi du]. ◆ **okela errazio** iz. *Okelĭa, aragi erraziua da* 'okela, haragi errazioa da'. *Oizu okela bat*. Ik. **haragi**.

oker, okerra

BEGIBAKAR

begibakar

tuerto, -a

oker adj./iz. Begibakarra. Begi okerra. [Oharra: Ez da 'makur' esanahiarekin ibiltzen. Adiera hori berria da]. ▲ Sin. *begibakar*. ¬

okerreko eztarri, okerreko eztarria

KONTRAKO EZTARRI

tráquea (coloq.)

okerreko eztarri. Ik. **kontrako eztarri**. ¬

okertu, okertzen

volver(se) tuerto, -a

okertu *da* ad. Begia galdu.

okia (?)

okia (?) oka, okia (?). Ik. **oka**. ¬

okil burugorri, okil burugorria

OKIL BERDE

pito real (Picus viridis)

okil burugorri iz. Okil berdea (Picus viridis).

okil txiki, okil txikia

OKIL TXIKI

pico menor (Dendrocopos minor)

okil txiki iz. (Dendrocopos minor). *Okil txikia eliztxoi baten tamañukwa izankwa* 'okil txikia eliz txori [txolarre] baten tamainakoa izango da'.

okil, okila

OKIL

pico; pito; pájaro carpintero

okil iz. Hegazti igokari moko-gogorra, zuhaitzen zuloetan habia egiten duena, eta arboletan harrapatzen dituen intsektuez elikatzen dena (Picus sp., Dryocopus sp. eta Dendrocopos sp.). *Seiren bat okil klase ezautu tu emen: okil txikia —eliztxoi baten tamañukwa—, okil aundia, okil pinttoduna, okil grisa —garai batĭen asko yoten zĭan—, okil burugorria ta galarbelĭa* 'seiren bat okil klase ezagutu ditugu hemen: okil txikia —*eliz txori* [txolarre] baten tamainakoa—, okil handia, okil pintoduna, okil grisa —garai batean asko egoten ziren—, okil burugorria [okil berdea] eta *galar belea* [okil beltza]'. Ik. **galarbela**.
◆ **okil burugorri** iz. Okil berdea (Picus viridis).
◆ **okil txiki** iz. (Dendrocopos minor). *Okil txikia eliztxoi baten tamañukwa izankwa* 'okil txikia eliz txori [txolarre] baten tamainakoa izango da'.

okin, okina

OKIN

panadero, -a

okin iz. Lanbidez ogia egin edo saltzen duen pertsona. ◆ **okinetik jan**. Okinari erositako ogitik jan (Ond Bak) {comprar al panadero, comer del panadero}.

okindei, okindeia (?)

OKINDEGI

panadería

okindegi (> *okindei*) iz. Ogia egiten den etxea; ogia saltzen den denda. Ik. **panaderia** (> *panadeia*). [Leheno, zaharrak '*okindeia*' esaten zaiken (LM)?].

okolondo, okolondua

UKALONDO, UKONDO

codo (parte posterior de la articulación del brazo con el antebrazo)
codo (parte de una prenda de vestir que cubre el codo)

okolondo (eta *ukulondo* [Altsasu]) **1** iz. Ukalondoa, ukondoa; besaurrea besondoari lotzen zaion giltzaren atzeko aldea. *Zartako ederrak ematen tu okolondwekin* 'zartako ederrak ematen ditu ukalondoarekin'. **2** iz. Ukondoei dagokien jantzi zatia. *Danekoz jersĭorrek saratwik dukatzi okolondwek* 'dagoenko jertse horrek sareturik dauzka ukalondoak'.

okolu, okolua
UKUILU

establo, cuadra

okolu (eta *okulu*) iz. Ukuilua; abere handiak gordetzen diren tokia, batez ere etxe barrenekoa. Ik. **hei(a)**. *Porlanezko lau ganbela zen okulu artan* 'porlanezko lau ganbela zeuden ukuilu hartan.

okotz azpi, okotz azpia
KOKOSPE

okotz-ondo, papo

papada, papo

okotz azpi. Kokospea. ▲ Sin. *okotz ondo*, *papo*.

okotz ondo, okotz ondua
KOKOSPE

okotz azpi, papo

papada, papo

okotz ondo. Kokospea. ▲ Sin. *okotz azpi*; *papo*.

okotz, okotza
OKOTZ, KOKOTS

barbilla; mentón

okotz iz. Kokotsa. – okotz luxe
◆ **okotz azpi**. Kokospea. ▲ Sin. *okotz ondo*, *papo*.
◆ **okotz ondo**. Kokospea. ▲ Sin. *okotz azpi*; *papo*.

okulista, okulistia
OKULISTA

oculista, oftalmólogo, -a

okulista iz. Begietako eritasunetan espezialista den sendagilea. *Okulistĭengana fan berra dukan, tutik ezton ikusten da* 'okulistarengana joan beharra daukan, tutik ez dun ikusten eta'.

okulu, okulua
UKUILU

establo, cuadra

okulu (eta *okolu*) iz. Ukuilua. *Fixtukan ibiltzen zan okuluen* (Ond Bak). *Okuluko lanak ezĭan sekula despeitzen* 'ukuiluko lanak ez ziren sekula bukatzen'. *Ezkatzetik sartuta, etxe gaienetan okulua yoten zan* 'ezkaratzetik sartuta, etxe gehienetan ukuilua egoten zen'. *Okuluek ta sukaldĭek ematen zĭain etxĭai epeltasuna* 'ukuiluak eta sukaldeak ematen zioten etxeari epeltasuna'.

okupatu, okupatzen
OKUPATU

ocupar, tomar, emplear
ocupar(se); encargarse, hacerse cargo de, responsabilizarse
estar ocupado / atareado

okupatu **1** *dau* ad. Toki jakin bat hartu. *Mai guztĭa okupatu dau* 'mahai guztia okupatu dau'. Ik. **hartu**. || *Komuna okupatwik do* 'komuna okupaturik dago'. *Ezto nun jarri; alki guztĭek okupatwik de* 'ez dago non jarri; aulki guztiak okupaturik daude'. **2** *da* ad. Denbora eginkizun batean eman; ardura hartu. *Gwaixe okupatwik no; otsaintazu atsaldĭen* 'oraintxe okupaturik nago; hots egin ezazu arratsaldean'. *I okupatwadi yaurĭekin* 'hi okupatu [arduratu] hadi heurearekin'. Ik. **preokupatu**. ◆ **okupaturik egon** (> *okupatwik yon*). *Lan orrekin raso okupatwik no* 'lan horrekin arras okupaturik nago'.

okurrenzia
ATERALDI; BURUTAZIO

butazio; idea; asmakizun; ateraldi

pensamiento, idea
ocurrencia, salida

okurrenzia **1** iz. Burutazioa. Ik. **burutazio** (> *butazio*); **idea**; **asmakizun**. **2** iz. Ateraldia. Ik. **ateraldi**.

okurritu, okurritzen
OKURRITU, BURURATU

bururatu (?); inbentatu

ocurrirse

okurritu *zaio* ad. Bururatu, burutik pasatu. Ik. **inbentatu**.

olamahai, olamahaia
ORAMAHAI

artesa

olamahai (> *olamai* [Urdiain, Bakaiku]) iz. Oramahaia. Ik. **oremahai**. *Ogia oratu olamahaien* (Ond Bak).

olata, olatia
OLATA

oblata, oblea, pan ofrecido de ofrenda en la iglesia

olata iz. Opil mehea. Elizan, familiako hilaren alde eskaintzen zen ogia edo opila. *Olata: ogi txuria, irinan floria* (Ond Bak). [Panecillo para ofrenda en la misa JMS]. Ik. **olataki**.

olataki, olatakia
OLATA ZATI

oblea (porción)

olataki iz. Olata puska (Ond Bak). Ik. **olata**.

olaztiar
OLATZAGUTIAR

olatzagutiarra / olaztiarra

olaztiar **1** adj. Olatzagutiarra, Olatzagutikoa, Olatzagutiari dagokiona. **2** iz. Olatzagutiko herritarra.

olgura, olguria
LASAIERA

holgura

olgura iz. Lasaiera. *Mailuen girtenak olgurĭa duka* 'mailuaren kirtenak lasaiera dauka'. Ik. **laso**.

oliazio, oliaziua
OLEAZIO

extremaunción

oliazio iz. Oleazioa, oliadura; elizaren sakramentua, hilzorian daudenak olio santuaz gantzutzean datzana.

olibardi, olibardia
OLIBADI

olivar

olibardi iz. Olibadia, olibondoz landaturiko saila. *Masdi ta olibardi ederrak de alderdi ortan* 'mahasti eta olibadi ederrak daude alderdi horretan'.

olio erre, olio erria
OLIO ERRE, OLIO FRIJITU

refrito; sofrito

olio erre (> *olio errĭa*) iz. Olio frijitua. *Babatxwi ta perrejilĭekin inioko / indako olio errĭa batatzen dĭat berdelai* 'baratxuri eta perrexilarekin egindako olio errea [olio frijitua] botatzen diot berdelari'.

olio, oliua

OLIO

aceite

olio iz. Zenbait animaliaren gantzetatik edo landareetatik ateratzen den gai likatsua. ◆ **olioa bota** (> *oliua bota*). *Bota dĭazu oliua ensaladĭai?* 'bota diozu olioa entsaladari?'. ◆ **olioa eman** (> *oliua eman*). Koipeztatu. Ik. **koipeztu**; **olioztatu**. ◆ **olioarekin untatu** (> *oliuekin untatu*). Olioarekin gantzutu. ◆ **olio erre** (> *olio errĭa*) iz. Olio frijitua. *Babatxwi ta perrejilĭekin inioko / indako olio errĭa batatzen dĭat berdelai* 'baratxuri eta perrexilarekin egindako olio errea [olio frijitua] botatzen diot berdelari'.

oliontzi, oliontzia

OLIONTZI

aceitera

oliontzi iz. Olioa edukitzeko ontzia. *Ezta konbeni oliontzia gainezkan ibiltzĭa* 'ez da komeni oliontzia gainezka ibiltzea [edukitzea]'.

oliota, oliotia

OTABERA

aulaga (Genista hispanica L. subsp. occidentalis Rouy)

oliota iz. (Bot.) Otabera; otearen antzeko landare arantzatsua, ganaduari jaten emateko ona (Genista hispanica L. subsp. occidentalis Rouy). *Oliotĭa ganauai jateko ematen zezaion* 'oliotea [otabera] ganaduari jateko ematen zitzaion'. *Gurdikan ekartzen zan oliotĭa* 'gurdika ekartzen zen oliotea'.

oliotai, oliotaia

OLIOTETEGI* (OTABERA OTADIA)

aulagar

oliotai iz. *Oliota* edo otabera (Genista hispanica L. subsp. occidentalis Rouy) dagoen eremua.

oliotsu, oliotsua

OLIOTSU

koipetsu

aceitoso, -a

oliotsu adj. Olio asko duena. *Oliotsua patu dai ensaladĭa* 'oliotsua paratu dute entsalada'. Ik. **koipetsu**.

olioztatu, olioztatzen

OLIOZTATU

aceitar, engrasar, enaceitar

olioztatu *dau* ad. Olioz igurtzi edo gantzutu. Ik. **koipeztu**; **olioa eman** (> *oliua eman*)

olo, olua

OLO

avena (Avena sativa)

olo iz. (Bot.) (Avena sativa).

omen

OMEN

según parece, al parecer, por lo visto

omen (eta *emen*) partik. • *Askón astwá otswék jan emen zen* '[jabe] askoren astoa otsoak jan omen zuen'.

on in / ondo in

ON EGIN

ser (algo) de provecho; sentar bien; ser (algo) útil

on egin (> *on in*). *On in dwa manzandilĭek* 'on egin dit mantzanillak [mantzanillak]. *On in jwak unturĭek* 'on egin zidak pomadak'. *Etxwak iten onik* 'ez zidak egiten onik'. Ik. **ondo egin**.

on, ona

ON

txar

bueno, -a
bueno, -a, provechoso, -a; útil, conveniente
bien, beneficio, favor, merced
menudo (sent. ponderativo, enfático)

on **1** adj. Etxalde onekua da hura. Poz onakin ibiltzen zien kanpuen. Karga oná deká honék (Ond Bak).
On asko in zaĭn 'on asko egin zuten'.
2 adj. Handia, ederra. *Hotz ona iten dau!* (handia) [¡menudo frio!]. *Alaja ona*. Elemento ona.
◆ **(neure, bere...) onetati / oneti atera** (> *ne, be... onetati ata*). (Neure, bere...) onetik atera; senetik atera; dagokion edo berezkoa zaion egoeratik atera. *Orrek neĭ onetati ata dwa* 'horrek niri onetik atera dit [atera nau]'. *Be oneti ata da* 'bere onetik atera da'.
◆ **on egin** (> *on in*). *On in dwa manzandilĭek* 'on egin dit mantzanillak [mantzanillak]. *On in jwak unturĭek* 'on egin zidak pomadak'. *Etxwak iten onik* 'ez zidak egiten onik'. Ik. **ondo egin**.
◆ **onenak eman** *dau* ad. Zahartu; gainbehera egin. *Onenak emanik ge* 'onenak emanik gaude'.
◆ **onenean** (> *onenien*) **1** adb. *Momentuik onenien* 'momenturik onenean'. **2** adb. Kasurik onenean.
◆ **onera etorri** (> *onea etorri*, *onĭa etorri*). Senera etorri, konortea berreskuratu. *Bere onea etor da* 'bere onera etorri da'. Ik. **konortatu**.
◆ **onerako** (> *oneako*, *onĭako*) adb. Ondorio onerako. *Oneako, berdura gutxi jaten dezu* 'onerako, berdura gutxi jaten duzu'. *Onĭako ta txarrĭako* 'onerako eta txarrerako'. ▼ Anton. *galtĭako*, *txarrĭako*.
◆ **onez** adb. Onean, borondatez, indarra erabili gabe. *Esaiozu onez*. *Onez esan dĭat* 'onez esan diot'.
◆ **onez onean** (> *onez onĭen*) **1** Asmo onez, fede onez; liskarrik gabe. *Onez onĭen esaten deatzit gauzak, bea eztot karreraĭk iten* 'onez onean esaten dizkiot gauzak, baina ez dut karrerarik egiten [*karrerarik ezin egin*: ezin gauza onik egin]. *Onez onĭen esan dĭa, bea eztau ondo artu* 'onez onean esan dio, baina ez du ondo hartu'. ▼ Anton. *makurrĭá*. **2** Borondatez, indarra erabili gabe. *Txakurrai otseiok onez onĭen, bestela iyesi inko duk* 'txakurrari hots egiok onez onean, bestela ihesi egingo dik'. Ik. **onean-onean** (> *onĭen-onĭen*); **onkan**.

onbeiko, onbeikua

ONGABEKO*, GAIZTO

que carece de bondad; persona que no es de bien

onbeiko adj. Ontasunik ez duena, gaiztoa.

ondasun, ondasuna

ONDASUN

abeastasun, azienda, fortuna

bien; hacienda, riqueza, fortuna

ondasun iz. (Iza Alts). [Urdiain]. (Batez ere pl.). *Zukatziain ondasun guztiek banatu tuai* 'zeuzkaten ondasun guztiak banatu dituzte'. Ik. **aberastasun**; **azienda**; **fortuna**.

ondeste, ondestia

BIRIKA, BIRIKI (TXERRIKI HESTEBETEA)

birika (txerriki hestebetea)

sabadeño, embutido de cerdo (embutido que se hace con la asadura –pulmones, etc.– y carne de

ondeste iz. [Oharra: ez da euskara batuko 'ondestea'] Txerrikiz egindako hestebetea, birikiz-eta egiten dena. *Birikĭa duku jateko, ondestĭa* 'birika daukaugu jateko, ondestea'. Ik. **birika**.

ondo (1)

ONDO

1 ongi, ondokan; bapo

1 gaizki, txarki, ondoez. 3 oso

bien, buenamente

muy, bien

ondo[1] **1** adb. Era onean, egokitasunez. ederki

Giltzia ondo kolokatuta're, ez satzen!

– ondokuen. Ondokuen, hilabete honetan yainik.

Nola non? Ondo baindo hobeto.

◆ **ondokan** adb. Ondokan partitu: bakoitzai bosna..., ondo partitu (Ond Bak). ▲ Sin. *ondo*, *ongi*.

2 Oso. Ik. **oso**.

Garai batien ondo fuertiek izan gindan.

Gutako ondo santu politak zian haik.

Ondo gizajuek jaio gindan gu.

Ondo polita da. Ik. **asko**.

Ondoeza dukat.

– ondo hale! Bai, ondo hale! —Politikuek dukatziu lapurrik haundienak eta gezurti haundienak. —Ondo hale!

◆ **ondo do**, **ondo jok/jon** (oniritzia emateko) Ondo da. Adostasuna adierazteko erabiltzen den esapidea. Ik. **konforme**.

– ondo in. Ondo in juak botikiek.

– ondo ibili.

◆ **ondo asko** / **ongi asko** adb. *Ondo asko daziku zuk emen ze pasatzen dan* 'ondo asko dakizu zuk hemen zer pasatzen den'. *Ondo asko dakin ik oi eztala ola* 'ondo asko dakin hik hori ez dela horrela'.

– ondotxo. Holakotan, ondotxo dakizu ze in ber dan.

◆ **ondokoz** adb. Ondo bidean, orain...; dena ondo joan bada, ezeren okerrik ez dela, okerrik ez bada izan, dagoeneko... *Ondokoz lana despeituik izanko dau*.

▲ Sin. 1 ongi, ondokan; bapo. ▼ Anton. 1 gaizki, txarki, ondoez. 3 oso.

(Esapideak):

– ondo eza

– oso ondo

– ondo hale! Bai, ondo hale! (bai konto!)

– ondo baindo hobeto yon

– ondo in

– ondo ibili

◆ **ondo** / **ongi pasatu** *dau* ad. Atsegin hartu. *Ondo pasatu genduen atzo atsaldĭen* 'ondo pasatu genuen atzo arratsaldean'. Ik. **dibertitu**.

– ondo hale! Bai, ondo hale!

ondo / ongi pasatu, ondo / ongi pasatzen

ONGI PASATU

dibertitu

divertirse

ondo / **ongi pasatu** *dau* ad. Atsegin hartu. *Ondo pasatu genduen atzo atsaldĭen* 'ondo pasatu genuen atzo arratsaldean'. Ik. **dibertitu**.

ondo asko / ongi asko

ONDO ASKO

muy bien

ondo asko / **ongi asko** adb. *Ondo asko daziku zuk emen ze pasatzen dan* 'ondo asko dakizu zuk hemen zer pasatzen den'. *Ondo asko dakin ik oi eztala ola* 'ondo asko dakin hik hori ez dela horrela'.

ondo etorri

ONDO KONPONDU

ondo konpondu

llevarse bien; arreglarse, entenderse; concordar, armonizar

ondo etorri. Ondo konpondu, elkarrekin ondo eraman. *Ondo etortzen ga aldamenekuekin*. Ik. konpondu.

ondo in

ONDO EGIN

ongi in; on in

hacer (el) bien, obrar bien

ondo egin (> *ondo in*) *dau* ad. ▲ Sin. *ongi egin*. Ik. **on egin**.

ondo, ondua (2)

ONDO (2)

zona contigua
momento posterior
en comparación a, comparado con, junto a, al lado de

ondo[2] **1** iz. Zerbaitentzat edo norbaitentzat, hura ukitzen duen edo hurbil dagoen aldea. *Ondotik kendu hadi!* | *Kendu zaitez orren ondoti* 'ken zaitez horren ondotik'. *Alde intzan ne ondoti!* 'alde egin ezan nire ondotik!'.
◆ **ondoan** (> *ondwen*) **1** adb. (Lekuzko testuinguruan). *Gwe etxĭen, alkarren ondwen yoten dĭa txakurra ta katua* 'gure etxean, elkarren ondoan egoten dira txakurra eta katua'. *Alkarren ondwen yon gaituk pilota partidwa ikusten* 'elkarren ondoan egon gaituk pilota partida ikusten'. **2** adb. (Denborazko testuinguruan). Ondoren. *Meza ondwen* 'meza ondoan'. Ik. **ondoren** (> *ondorĭen*). **3** adb. (Erkaketetan). Aldean. Konparazioak egiteko partikula: *ne*, *zue*, *haren*, *gwe*, *zen*, *haien ondwen*... *Ie ondwen gizena ematen dĭet* 'hire ondoan gizena ematen diat'. *Anjelen ondwen igwaleko majwa don Jabier* 'Anjelen ondoan igualeko majoa dun Jabier'. ◆ **ondo-ondoan** (> *ondo-ondwen*). *Ondo-ondwen ibil dot kattagorria* 'ondo-ondoan ibili [eduki] dut katagorria'.
◆ **ondora** (> *ondwá*).
◆ **ondoti(k)**.

ondo, ondua (3)

ONDO, IPURDI

azpi, ipurdi

fondo, base; pie [de árbol]; cepa, tocón

ondo[3] (eta *ondu* [Bakaiku]) iz. *Arbolan ondwa, azpia*. || *Zain eta ondua*. *Hiru gaztaina, kaixa, udara, sagar ondo* (Ond Bak). Ik. **arbola-ondo**; **azpi**[1]; **ipurdi**; **ondu** [Bakaiku]. ◆ **ondoti(k)**[3] adb. Azpitik, barrenetik. ◆ **(ondo-)ondoti(k) atera, bota**. adb. *Ezin izan dai arbolĭa ondo-ondoti bota* 'ezin izan dute arbola ondo-ondotik bota' [de cuajo]. Ik. **ipurditi(k)**.

ondoez, ondoeza

ONDOEZ

aje; kalamokano [Ziordia]; txarraldi

malestar, indisposición, molestia; enfermedad

mareo, desmayo, desfallecimiento

ondoez iz. Zernahi arrazoirengatik ongi ez dagoen pertsonaren egoera; bereziki, makalaldi arina. *Ondoeza dukat* 'ondoeza daukat'. Ik. **aje**; **kalamokano**; **txarraldi**.

ondokan

ONDO

ongi, ondo

correctamente, adecuadamente

ondokan adb. *Ondokan partitu: bakoitzai bosna..., ondo partitu* (Ond Bak). ▲ Sin. *ondo*, *ongi*.

ondoko, ondokua

ONDOKO

aldeko, inguko, pareko

sucesor, -a; descendiente

contiguo, -a, inmediato, -a, lindante, adyacente

siguiente, posterior

ondoko **1** iz. Ondoan edo ondotik datorren pertsona; ondorengoa. *Abuelan ondokuek* 'amoanaren ondorengoak'. **2** adj. *Etxe ondoko*... Ik. **aldeko**; **inguruko** (> *inguko*); **pareko**.

ondokoz

ONDO BIDEAN (ORAIN)

si todo ha transcurrido bien; si no ha ocurrido ningún percance; salvo imprevisto(s)

ondokoz adb. Ondo bidean (orain...). Dena ondo joan bada, ezeren okerrik ez dela, okerrik ez bada izan, dagoeneko... *Ondokoz lana despeituik izanko dau*.

ondorien

ONDOREN

después de, tras, detrás de, a continuación

ondoren (> *ondorĭen*) postpos. Ahaleina in ondorien. Erre ondorien (Ond Bak). *Gerra ondorien gauz'asko aldatu zian* 'Gerra ondoren gauza asko aldatu ziren'. Ik. **ondoan** (> *ondwen*).

ondoti(k)

ONDOTIK, ERROTIK

ipurditi(k)

de cuajo, de raíz

ondoti(k)[3] adb. Azpitik, barrenetik. ◆ **(ondo-)ondoti(k) atera, bota**. adb. *Ezin izan dai arbolĭa ondo-ondoti bota* 'ezin izan dute arbola ondo-ondotik bota'. Ik. **ipurditi(k)**.

ondotxo (1)

ONDOTXO

ondo asko

bien, muy bien, perfectamente (en sentido irónico)

ondotxo[1] adb. *Adkor*. Nahikoa ondo. *Ondotxo daki orrek ze in ber dan* 'ondotxo daki horrek zer egin behar den'. *Ondotxo oitwa* 'ondotxo ohitu da'. *Ondotxo dakizu zuk oi* 'ondotxo dakizu zuk hori'. Ik. **ondo asko**.

ondotxo (2)

ONDOTXO

cerquita de

ondotxo[2] postpos. *ondo* postposizioaren txikigarria. *Aman ondo-ondotxwen jarritzen da bazkaitan* 'amaren ondo-ondotxoan jartzen da bazkaritan'. Ik. **ondo**; **ondoan**.

ondu, ondua

ONDO, ENBOR. 2 MOTZONDO

tronco
pie (de árbol); cepa, tocón

ondu [Bakaiku] iz. (Ond Bak): **1** iz. Enborra. *Arramatik behera ta zainetik gorakua*. **2** iz. Motzondoa, enborra moztu ondoren, lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia. *Arbola bota ta zainetik gorakua*. Ik. **ondo**[3]; **ipurdi**.

ondu, ontzen

ONDU

zogitu (?) *txartu*

mejorar
madurarse, fermentarse

ondu **1** *da/dau* ad. Zintzotu, on bihurtu. *Oi're norbaitek onduko dik* 'hori ere norbaitek onduko dik'. ▼ Anton. *txartu*. **2** *da* ad. Fruituez, belarraz edo ardoaz mintzatuz, heldu, umotu. *Aurten goiz ondu dia gariek* 'aurten gozi ondu dira gariak'. *Sarrak, udarak..., ondu dia* 'sagarrak, udareak..., ondu dira'.

ondube

ONDUGABE

verde, no maduro

ondube adj. *Sarrak berde de, ondube* 'sagarrak berde daude, ondugabe'. ◆ **ondubeiko**. Ondugabekoa. *Ondubeĭko frutĭa saltzen dai gwai* 'ondugabeko fruta saltzen dute orain'.

onduen

ONDOAN

junto a, detrás, a continuación (lugar)
después de, luego que, a continuación (tiempo)
en comparación a, comparado con, junto a, al lado de

ondoan (> *ondwen*) **1** adb. (Lekuzko testuinguruan). *Gwe etxĭen, alkarren ondwen yoten dĭa txakurra ta katua* 'gure etxean, elkarren ondoan egoten dira txakurra eta katua'. *Alkarren ondwen yon gaituk pilota partidwa ikusten* 'elkarren ondoan egon gaituk pilota partida ikusten'. **2** adb. (Denborazko testuinguruan). Ondoren. *Meza ondwen* 'meza ondoan'. Ik. **ondoren** (> *ondorĭen*). **3** adb. (Erkaketetan). Aldean. Konparazioak egiteko partikula: *ne*, *zue*, *haren*, *gwe*, *zen*, *haien ondwen*... *Ie ondwen gizena ematen dĭet* 'hire ondoan gizena ematen diat'. *Anjelen ondwen igwaleko majwa don Jabier* 'Anjelen ondoan igualeko majoa dun Jabier'.

onea / onia etorri

ONERA ETORRI

konortatu

volver en sí, recobrar el sentido
mejorar, pasar la crisis

onera etorri (> *onea etorri*, *onĭa etorri*). Senera etorri, konortea berreskuratu. *Bere onea etor da* 'bere onera etorri da'. Ik. **konortatu**.

oneako / oniako

ONERAKO

galtiako, txarriako

en beneficio de; beneficioso, -a;

onerako (> *oneako*, *oniako*) adb. Ondorio onerako. *Oneako, berdura gutxi jaten dezu* 'onerako, berdura gutxi jaten duzu'. *Oniako ta txarriako* 'onerako eta txarrerako'. ▼ Anton. *galtiako*, *txarriako*.

onenak eman

ONENAK EMAN

estar / ir de capa caída; hacerse viejo, llegar al declive

onenak eman *dau* ad. Zahartu; gainbehera egin. *Onenak emanik ge* 'onenak emanik gaude'.

onenien

ONENEAN

en el mejor momento, en lo mejor
en el mejor de los casos

onenean (> *onenien*) **1** adb. *Momentuik onenien* 'momenturik onenean'. **2** adb. Kasurik onenean.

onentxuen

ONENTXOEN

de lo mejorcito; uno, -a de los, -as mejores

onentxoen (> *onentxuen*, *onentxuena*) adj. Adkor. Onena-edo. *Biltazu sarrik onentxuenak* 'bil itzazu sagarrik onentxoenak'.

onez

ONEZ

por las buenas

onez adb. Onean, borondatez, indarra erabili gabe. *Esaiozu onez*. *Onez esan diat* 'onez esan diot'. ◆ **onez onean** (> *onez onien*). *Onez onien esaten deatzit gauzak, bea eztot karreraik iten* 'onez onean esaten dizkiot gauzak, baina ez dut karrerarik egiten [*karrerarik ezin egin*: ezin gauza onik egin]. ▼ Anton. *makurria*.

onez onien

ONEZ ONEAN

onien-onien

txarrien, makurriá

con buena intención; de buena fe
a buenas, por las buenas

onez onean (> *onez onien*) **1** Asmo onez, fede onez; liskarrik gabe. *Onez onien esaten deatzit gauzak, bea eztot karreraik iten* 'onez onean esaten dizkiot gauzak, baina ez dut karrerarik egiten [*karrerarik ezin egin*: ezin gauza onik egin]. *Onez onien esan dia, bea eztau ondo artu* 'onez onean esan dio, baina ez du ondo hartu'. ▼ Anton. *makurriá*. **2** Borondatez, indarra erabili gabe. *Txakurrai otseiok onez onien, bestela iyesi inko duk* 'txakurrari hots egiok onez onean, bestela ihesi egingo dik'. Ik. **onean-onean** (> *onien-onien*).

onezko, onezkua

ONEZKO

(en oraciones negativas) lo que (no) es para bien
(en oraciones negativas) ser de lo que no hay; no tener igual (usados más en sentido peyorativo)

onezko adj. (Ezezko esaldietan). *Ez da onezkua katu hoi* (Ond Bak).
◆ **onezkoa ez izan** (> *onezkwa ez izan*). Ohi ez bezalakoa. *Hau eztok / ezton onezkua*. *Hoi ezta onezkua*.

ongarri monton, ongarri montona
SIMAUR PILA

ongarri pila

montón de estiércol

ongarri monton. Ongarri meta. ▲ Sin. *ongarri pila*.

ongarri pila, ongarri pilia
SIMAUR PILA

ongarri monton

montón de estiércol

ongarri pila. Simaur pila. ▲ Sin. *ongarri monton*.

ongarri, ongarria
ONGARRI

ciemo, estiércol; abono, fertilizante

ongarri iz. Lurrak emankorrago bihurtzeko erabiltzen den gaia. *Lur onek ongarria eskatzen dau* 'lur honek ongarria eskatzen du'. *Ilondon ata ber dĭa ongarriek* 'hilondon atera behar dira ongarriak'. Ik. **altxerri**. ◆ **larrain ongarri**. *Larrain ongarria: larrainak berdintzeko ibiltzen zan ongarria*. ◆ **ongarria(k) atera** (> *ongarriek ata*). ◆ **ongarria(k) banatu** (> *ongarriek banatu*). ◆ **ongarri monton**. Ongarri meta. ▲ Sin. *ongarri pila*. ◆ **ongarri pila**. Simaur pila. ▲ Sin. *ongarri monton*. Ik. **kozpiltza**. ¬

ongarritu, ongarritzen
ONGARRITU

abonar, fertilizar

ongarritu *dau* ad. Lurrari ongarria eman. *Ongarriek ata ta lurra ongarritzeko ilondo da garairik obena* 'ongarriak atera eta lurra ongarritzeko, ilondo [ilbehera] da garairik hoberena'.

ongei, ongeia
ONTASUN

gaiztankeia, makurkeia, txarkeia

bondad, benevolencia

ongei iz. Ontasuna. *Orrek mintzat bauka ongeia* 'horrek behintzat badauka ontasuna' (LM). Ik. **zintzutasun**. ▼ Anton. *gaiztankeia*, *makurkeia*, *txarkeia*.

ongi
ONGI

ondo, ondokan

txarki, gaizki

bien, buenamente

ongi adb. Ongi jantzik zon. Ajetuik do: eztola ongi. Dantzan ongi dakizuna (Ond Bak). Ik. **ondo**; **ondokan**. ▼ Anton. txarki, gaizki. ◆ **ondo asko** / **ongi asko** adb. *Ondo asko daziku zuk emen ze pasatzen dan* 'ondo asko dakizu zuk hemen zer pasatzen den'. *Ondo asko dakin ik oi eztala ola* 'ondo asko dakin hik hori ez dela horrela'. ◆ **ondo** / **ongi pasatu** *dau* ad. Atsegin hartu. *Ondo pasatu genduen atzo atsaldĭen* 'ondo pasatu genuen atzo arratsaldean'. Ik. **dibertitu**.

ongitu, ongitzen
ONGITU

sendatu; sanatu

gaizkitu

mejorar, restablecerse

ongitu *da/dau* ad. Onera egin, oneratu. *Ongitu da* (> *ongitwá*). Ik. **sendatu**; **sanatu**. ▼ Anton. *gaizkitu*. *Gostata, bea ongitu zaio belauneko mina* 'kostata, baina ongitu zaio belauneko mina'.

ongitxo
ONGITXO

ondotxo, ongi asko

bien, muy bien, perfectamente (en sentido irónico)
bastante bien, bien; bastante

ongitxo **1** adb. Nahikoa ongi. *Ongitxo dakizu zuk zĭauk* 'ongitxo dakizu zik zeuk'. **2** adb. Adkor. Asko. *Ongitxwai* 'ongitxoegi'. Ik. **polikitxo**; **gezkitxo**.

onguramin, onguramina
GURARI, APETA

gogaita, ongureia

antojo, deseo; anhelo

onguramin iz. Gustagarri denaren irrika; guraria, apeta. *Zeozer goxwa jateko onguramina dukat* 'zer edo zer goxoa jatego onguramina daukat'. Ik. **gogaita**; **ongureia**.

ongureia
ON GURARI

onguramin, gogaita

antojo, deseo

ongureia iz. On guraria; on gura; on nahia. Ik. **onguramin**; **gogaita**.

onien-onien
ONEZ ONEAN

onez onien, onkan — *txarrien, makurria*

con buena intención; de buena fe; por las buenas

onean-onean (> *onĭen-onĭen*) adb. Onez onean, modu onean, adeitasunez. Ik. **onez onean** (> *onez onĭen*); **onkan**. ▼ Anton. *txarrĭen*, *makurrĭa*.

onikuti, onikutia
ESKER TXARREKO; MUKER

desagradecido, -a, ingrato, -a, malagradecido, -a; arisco, -a

onikuti adj./iz. Esker txarrekoa; pertsona mukerra, gozakaitza [Onik ematen ez duena]. ¬

onkan
ONEAN

con buena intención; de buena fe; por las buenas

onkan adb. Onean. Ik. **onez onean** (> *onez onĭen*); **onean-onean** (> *onĭen-onĭen*).

onra, onria
ONDRA

honra, honor

onra iz. Ondra, ohorea. *Gutxi ber dau onra guztia galtzeko* 'gutxi behar du ondra guztia galtzeko'.

onrau, onraua
ONDRADU

zintzo, fin, zinaza, noble, dezente, prestu

honrado, -a

onrau adj. Ondradua. *Persona onraua* 'pertsona ondradua'. ▲ Sin. *zintzo*, *fin*, *zinaza*, *noble*, *prestu*.

ontasun, ontasuna
ONTASUN

ongei, zintzutasun — *gaiztasun, maldade*

bondad, benevolencia

ontasun iz. Ona denaren nolakotasuna. Ik. **ongei**; **zintzutasun**. ▼ Anton. *gaiztasun*; *maldade*.

ontza, ontzia

ONTZA

pastila

onza (cada una de las 16 partes en que se divide la libra, equivalente a 28,75 g.)
onza (cada una de las porciones en que se divide una tableta de chocolate)
onza de oro

ontza **1** iz. Pisu neurri zaharra, erromatar libraren hamabirena eta libra arruntaren hamaseirena balio zuena. *Liberiak hamabi ontza dekatza, kilo erdiek hamasei ontza, kiluek hiru libera lau ontza gutxi* (Ond Bak). || *Libra bat ta ontza bat*. **2** iz. Txokolate tableta osatzen duten ataletako bakoitza. *Txokolate-ontza bat, txokolate pastilia*. *Ontza bat txokolate*. Ik. **pastila**. ◆ **ontzako urre**. Diru zaharra, urrezkoa, hogei edo hamasei ogerleko balio zuena. ◆ **txokolate ontza**. Txokolate pastilla.

ontzi, ontzia

ONTZI

recipiente, receptáculo; vaso, vasija
vajilla
nave, navío, embarcación, barco

ontzi Ald. *untzi*. **1** iz. Gauzaki barneduna, isurkariak eta kidekoak edukitzeko edo biltzeko erabiltzen dena; (pl.) bereziki, sukaldean erabiltzen direnak. **2** iz. (pl.) Ontziteria.
– Ontziek garbitzeko sagonia.
– Kamákazkó (?) óntziék (Ond Bak).
– Ontzi lekua.
3 iz. Itsasontzia (?). Ik. barku.
◆ **ontziak garbitu** (> *ontziek garbitu*, *untziek garbitu*) *dau* ad. Baxera garbitu, harrikoa egin. *Banua ontziek garbitzĭá* 'banoa ontziak garbitzera'. *Ontziek garbitzen nendailela aitu dot berria radiwen* 'baxera garbitzen nenbilela aditu dut berria irratian'.

ontzi, ontzia (2)

EULTZI

parva, trilla

ontzi iz. (Iza Alts) [trilla]. Eultzia. Ik. **yuntzi**[1]. {"*Ontziya,* la trilla; *ontzitan dailtza*, están trillando. *Eta ontziya in ber eta denboriai beira*. *Zennnbat kostatzen zaigun ontziyeik eiti*. *Ataiyan iten zan ontziya*" (Iza Alts)}.

ontziek garbitu

BAXERA GARBITU, HARRIKOA EGIN

fregar la vajilla

ontziak garbitu (> *ontziek garbitu*, *untziek garbitu*) *dau* ad. Baxera garbitu, harrikoa egin. *Banua ontziek garbitzĭá* 'banoa ontziak garbitzera'. *Ontziek garbitzen nendailela aitu dot berria radiwen* 'baxera garbitzen nenbilela aditu dut berria irratian'.

ontzikada, ontzikadia

ONTZIKADA

cantidad contenida en un recipiente

ontzikada iz. Ontzi baten edukia. Ik. **ontzi**. *Ontzikada bat txitxiyo eztu bildu aurten* 'ontzikada bat txitxirio ez dugu bildu aurten'.

opari, oparia

OPARI

erregalo

regalo, obsequio, agasajo, presente
ofrenda

opari iz. Norbaiti, maitasun, adiskidetasun edo esker onaren erakusgarri ematen zaion gauza (LM). Ik. **erregalo**. ◆ **oparia bota**. Opari egin.

operatu, operatzen

OPERATU

operar, intervenir

operatu (> *opeatu*, *opĭatu*) *dau* ad. Ebakuntza egin. *Operatzeko rekomendatu dĭai* 'operatzeko gomendatu diote'.

operazio, operaziua

OPERAZIO

operación (Med.)

operazio iz. Ebakuntza. ¬

opil, opila

OPIL

torta; panecillo

opil iz. *Oneskĭo inik de, ta atatazu opilak labeti* 'honezkero eginik daude, eta atera itzazu opilak labetik'. ◆ **hauts opil 1** iz. Sutopila; txingar-hautsetan erreta egiten den gari irinezko opila. **2** adj. Irain hitza, gutxiespena adierazten duena. ◆ **pazko opil**. Ama pontekoak besoetakoari urte berri egunean opari egiten dion opil berezia [(Bollo que ofrecía la madrina a su ahijado, por Año Nuevo, hasta los siete años. JMS]. ◆ **piper opil**. Opil-gozo mota. *Anisa dĭai piper opilak* 'anisa daramate piper opilek'. *Neskixak mutilairi eskeintzen zĭain piper opilak* 'neskixek [neskatxek] mutilei eskaintzen zieten piper opilak'. ◆ **txantxigor opil**. Gantxigorrarekin, txerriaren gantza frijitu eta txigortuarekin egiten den opil gozoa.

opilki, opilkia

OPILKI [PAMITXA ?]

kexkeena

pan de prueba para la primera hornada; torta de panadero

opilki iz. Ogi labealdia egin aurretik, labearen berotasuna egokitzeko egiten den opila. *Labekwen iten zan lenbizko ogia zan opilkia* 'labekoan [labealdian] egiten zen lehendabiziko ogia zen *opilkia*'. || {"*Opilki bat*, un pan más delgado" (Iza Alts)}. Ik. **kexkeena** (JMS). {Ik. EH & OEH. ogia erre arterainoko opil (?)}. [pamitxa ?].

opinio, opiniua

OPINIO

yaitzi

opinión

opinio iz. Iritzia. *Danok ez ga opinio berekwek* 'denok ez gara opinio berekoak'. Ik. **yaitzi**.

opo zulo, opo zulua

ORPO, ATE-ORPOA

quicio

(Ond Bak): opil. Opilak zulua deka ta lurrien do. (quicio).

opo-aztal, opo-aztala

ORPO-AZTAL

talón, calcañar

'orpo-aztal'.

opo, opua

ORPO; ORKATILA (?)

talón
quicio
tobillo (?)

opo 1 iz Orpoa. Opo hezurra. – opo-aztal. Ik. **aztal**. 2 iz. Ateak-eta finkatzen diren euskarria. Ataien opua. Opuak burnizko punta deka ta atian do (Ond Bak). Ataia opotik ata dai momoxarruek 'atea opotik atera dute momoxarroek'. 3 iz. Orkatila (?). Opua bihurtu. Ik. **hanka-koxkor**.

opor in

OPOR EGIN

día asueto; hacer vacación / fiesta; hacer novillos

opor egin (> *opor in*). Lanera edo eskolara huts egin. *Opor itĭa, lanik ez itĭa* 'opor egitea, lanik ez egitea'.

opor, oporra (1)

OPOR

bakazio

día asueto; vacación
cuenco pequeño de madera, escudilla; tazón

opor[1] iz. Opor, lanik gabeko eguna. *Gĭo asi zĭan 'bakaziuek' esaten* 'gero hasi ziren 'bakazioak' esaten'. *Gaur trenak iesi in dwa ta opor in dot* 'gaur trenak ihesi egin dit eta opor egin dut'. Ik. **bakazio**. ◆ **opor egin** (> *opor in*). Lanera edo eskolara huts egin. *Opor itĭa, lanik ez itĭa* 'opor egitea, lanik ez egitea'.
◆ oporrak hartu (?).
◆ oporretan (?). ¬

opor, oporra (2)

OPOR, GOPOR

cuenco pequeño de madera, escudilla; tazón

opor[2] iz. Zurezko ontzia, abatza eta kaikua baino txikiagoa eta kirten-bakarra, taloa eta esnea hartzeko eta mamia egiteko erabiltzen dena; ontzi horren edukia. Ik. **abatz**; **kaiku**. {*oporra*, jarrita de madera JMS}.

opotxo

OIN-PUNTETAN, HANKA-PUNTETAN

hanka-puntatan

de puntillas

opotxo adb. Oin puntetan. *Anka puntatan jarri, gora yusteko* 'hanka puntetan jarri, gora iristeko'. Ik. **hanka-puntatan**.

ora, oria

ORE

masa

masa, pasta

ora iz. Orea. Ik. **masa**; **pasta**. *Dalwa iteko orĭa, masĭa* 'taloa egiteko orea, masa'. *Au ora gogorra* 'hau ore gogorra'. *Ora txarra ata zaira* 'ore txarra atera zait'.

oraitz, oraitza

ORITZ

calostro

oraitz iz. Oritza, erditu berriaren lehen esnea. *Oraitz lodia* (Ond Bak). *Esenĭa baindo gustorwo artzen dot oraitza* 'esnea baino gusturago hartzen dut oritza'.

orangutan, orangutana

ORANGUTAN

orangután

orangutan iz. Giza itxurako tximino handia, iletsua, zango-motza eta beso-luzea, Borneo eta Sumatrako oihanetan bizi dena (Pongo pygmaeus).

oratu, oratzen

ORATU (2)

nahastu, masatu

amasar, hacer la masa

oratu *dau* ad. Orea egin. *Ogia oratu*. *Irina ta ura ta mentzagia nahastu ta oratu ogia* (Ond Bak). *Patata kozkorrak tenedoriekin oratu* (LM). Ik. **nahastu**; **masatu**; **masa egin** (> *masĭa in*).

orbel zama, orbel zamia

ORBEL AZAO, ORBEL SORTA

manojo, haz (de hojarasca)

orbel zama. Orbel azaoa, orbel sorta.

orbel, orbela

ORBEL

hojarasca

orbel iz. Zuhaitzetatik eroritako hosto ihartuen multzoa. *Orbel azpien zen ointwek* 'orbel azpian zeuden onddoak'. Ik. **orbelzadi**. *Orbela ekartzen zan okuluko ganauen azpitako* 'orbela ekartzen zen ukuiluko ganaduaren azpitarako'. ◆ **orbela bildu**. Orbela ekartzeko, bildu. ◆ **orbeletara** (> *orbeletá*). Orbela ekartzera. *Orbeletá fan dĭa* 'orbeletara joan dira'. ◆ **orbel zama**. Orbel azaoa, orbel sorta.

orbelzadi, orbelzadia

ORBELTZA, ORBELDI

lugar lleno de hojarasca

orbelzadi iz. Orbelez betetako lekua. *Padiko orbelzadiek* 'pagadiko orbelzadiak'. [*-za* eta *-di* atzizkiak hartzen ditu]. [OEH. orbeltza, orbeldi.]

ordaindu, ordaintzen

ORDAINDU

patu

pagar; devolver

ordaindu *dau* ad. Erosi, hartu edo zor denari dagokion saria eman. Ik. **pagatu** (> *patu*). *Zorrak ordaindu* (LM). *Zorra ordaindu dĭat* 'zorra ordaindu diot'.

ordaiz-egun, ordaiz-eguna

ZOZOMIKOTE EGUN(AK)

nombre dado a los últimos días de marzo y primeros de abril (su duración varía según el lugar)

ordaiz-egun pl. Zozomikote egunak, martxoko azken bi egunak eta apirileko bi lehenengoak. *Ordaiz-egunak: ordezkuéz emandako egunak. Marsuek eskatu emen zatzan apiribilei ordaiz-egun lehenbiziko bi egunak* (Ond Bak). Ik. **ordiz egun**.

orde

ORDE (2)

pago, compensación, sustitución

orde iz. Ordaina. *Ordea eman*. Ik. **ordeko**; **ordezko**.

ordea

ORDEA

berriz

pero, mas, empero, en cambio, sin embargo
equivalencia; equivalente [Ziordia]

ordea (eta *ordĭa*) **1** lokail. Baina. **2** lokail. Berriz, aldiz, ostera. *Mikel zalakuen, Aitor zan, ordĭa* 'Mikel zelakoan, Aitor zen, ordea. *Aik gĭo ta abĭatso; gu, ordĭa, gĭo ta póbrĭo* 'haiek gero eta aberatsago; gu, ordea, gero eta pobreago'. Ik. **berriz**. **3** iz. [Ziordia]. Ordaina esanahiarekin.

ordeko, ordekua

ORDEKO

como pago, en compensación, en sustitución
sustitutivo, -a; recambio

ordeko iz. Beste zerbaiten ordez dagoen edo ari den gauza; ordaina, trukean ibiltzen dena. Ik. **ordezko**; **orde**. ◆ **ordekoa eraman** (> *ordekua yan*). *Ogia aldamenekwai artu, ta, zor dan ori, ordekua yan* 'ogia aldamenekoari hartu, eta, zor den hori, odekoa eraman'. ◆ **ordekoz** adb. *Fanko naiz ordekoz* 'joango naiz ordekoz'.

ordekoz

ORDEKO, ORDEZKO

en sustitución, en representación

ordekoz adb. *Fanko naiz ordekoz* 'joango naiz ordekoz'. Ik. **ordeko**.

ordena, ordenia

ORDENA

2 agindu

orden
sucesión, serie, orden
orden, mandato

ordena (*a* itsatsia: *ordena*, *ordenĭa*) **1** iz. Arau baten araberako antolamendua; antolamendu horren ondoriozko egoera. **2** iz. Hurrenkera. 3 iz. Agindua. *Sorwen nagosiek eman dwa ordenĭa karduek biltzeko* 'soroaren nagusiak eman dit ordena karduak biltzeko'. ◆ **ordenan** (> *ordenĭen*) **1** adb. Egoki antolaturik. 2 adb. Hurrenkeraren arabera antolaturik. ¬

ordenatu, ordenatzen

ORDENATU

ordenar, arreglar

ordenatu *dau* ad. *Etxia ordenatu*; *gelia ordenatu*.
– ordenatuik 'ordenaturik'. *Ondo ordenatuik duka tximini-sapaldia* 'ondo ordenaturik dauka tximinia-zapalda'. Ik. **klasifikatu**. ¬

ordez

ORDEZ

partez, portez; 2 beharrien

en vez de, en lugar de

ordez **1** adb. (-en atzizkiaren eskuinean). Aipatzen denaren lekuan, ordainetan edo haren truke. *Gwe ordez oi fan da* 'gure ordez hori joan da'. Ik. **partez**; **portez**. **2** adb. Ik. **beharrean** (> *bearrĭen*). ¬

ordezko, ordezkua

ORDEZKO

equivalente; (el, lo) que sustituye, representa, compensa, se da en pago
sustituto -a; representante, suplente

ordezko adj./iz. Norbaiten edo zerbaiten ordez jartzen dena edo aritzen dena. || *Aldeko etxetik ordezkuez ekarri ogia* (Ond Bak). *Orren ordezkwa* 'horren ordezkoa'. Ik. **orde**; **ordeko**; **ordekoz**.

ordinaio, ordinaiua

ORDINARIO, OIES, ARRUNT

basto, zakar

fin

ordinario, -a; bajo, basto, vulgar

ordinario (> *ordinaio*) adj. Arrunta; oiesa. Ik. **basto**; **zakar**.

ordiz egun, ordiz eguna

ZOZOMIKOTE EGUN(AK)

nombre dado a los últimos días de marzo y primeros de abril (su duración varía según el lugar)

ordiz egun (eta *ordaiz-egun* [Bakaiku]) pl. Zozomikote egunak, martxoko azken bi egunak eta apirileko bi lehenengoak. [Días que se consideran lluviosos. El último día de marzo y los dos primeros de abril. Existe una curiosa fábula JMS].

ordots, ordotsa

ORDOTS, OROTS

apo

ahardi, eme

macho; verraco, cerdo macho

ordots iz./adj. *Txerrikuma ordotsa (apua're ordotsa da); baita're osatua, kapatua. Arrak dienak denak* (Ond Bak). *Txerri ordotsa*. Ik. **apo**. ▼ Anton. *ahardi*; *eme*.

ordu artia

ORDU(RA) ARTE

orduaindo

hasta entonces; hasta aquel momento

ordu artia adb. Ordu(ra) arte, une edo garai hura arte; une edo garai hori arte. *—Juntatuko ga biyer atsaldeko bostetan gwetxĭen? —Bai, konforme; ordu artĭa, ba*. '—Juntatuko gara bihar arratsaldeko bostetan gure etxean? —Bai, konforme; ordu arte, bada'. Ik. **orduaindo**.

ordu artien

ORDU(RA) ARTEAN, ORDU ARTE

hasta entonces; hasta aquel momento

ordu artien adb. Ordu(ra) artean, ordu arte. *Ordu artĭen ezakiain ezertxore* 'ordura artean ez zekiten ezertxo ere'. *Ordu artĭen espĭatu berko dezu* 'ordura artean esperatu beharko duzu'.

ordu, ordua

ORDU

hora

ordu **1** iz. Eguna banatzen den hogeita lau zati berdinetako bakoitza. *Bi ordu eman tu bĭajĭen* 'bi ordu eman ditugu / ditu bidaian'. **2** iz. (Orduak adierazteko, bat eta bi zenbatzaileekin). *Ordu bata da*. *Ordu biek dĭa* 'ordu biak dira'. **3** iz. Eguneko une jakina, bereziki zerbait egiten edo gertatzen dena; garaia, unea. *Ez tuka orduik etortzeko* 'ez dauka ordurik etortzeko'.

◆ **heriotzako ordu** (> *eriotzeko ordu*). **1** Bizitzaren bukaera. *Heriotzeko ordua noiz etorriko*. **2** Azken unea. ◆ **heriotzako orduan** (> *eriotzeko orduen*) adb. Heriotzako orduan; azken unean. *Beti eriotzeko orduen ibiltzen da, lanak ezin despeitu* 'beti heriotzako orduan aritzen da, lanak ezin bukatu'. *Neska!, beti korrikan eta eriotzeko orduen* 'neska!, beti korrika eta heriotzeko orduan'.

◆ **ordua hartu**. Hitzordua hartu.

◆ **ordua izan**. *da* ad. (Hirugarren pertsonan erabiltzen da). Garaia izan.

◆ **ordu artia** adb. Ordu(ra) arte, une edo garai hura arte; une edo garai hori arte. *—Juntatuko ga biyer atsaldeko bostetan gwetxĭen? —Bai, konforme; ordu artĭa, ba*. '—Juntatuko gara bihar arratsaldeko bostetan gure etxean? —Bai, konforme; ordu arte, bada'. Ik. **orduaindo**.

◆ **ordu artien** adb. Ordu(ra) artean, ordu arte. *Ordu artĭen ezakiain ezertxore* 'ordura artean ez zekiten ezertxo ere'. *Ordu artĭen espĭatu berko dezu* 'ordura artean esperatu beharko duzu'.

◆ **ordu onean** (> *ordu onĭen*) adb. Aipatzen den egoera ontzat emateko erabiltzen den esapidea.

◆ **ordu txarrean** (> *ordu txarrĭen*) adb. Ordu gaiztoan.

◆ **orduz gero(z)** (> *orduzkĭoz*) adb. *Orduzkioz eztau bizikletaik artu* 'orduz gero ez du bizikletarik hartu'. Ik. **harrezkero(z)** (> *arrezkio(z)*); **orduti(k)**. ¬

orduaindo

ORDURAINO

hasta entonces, hasta aquel momento

orduaindo adb. Orduraino, ordu arte. *Egwardien eman dĭai indiziyua; ordwaindo minak yon da* 'eguerdian eman diote injekzioa; orduraino minak [minez] egon da'. Ik. **ordu artia**; **ordu artien**.

orduako

ORDURAKO; ORDUKO

para entonces; para aquel momento
para cuando; antes de

orduako adb. Ordurako; orduko; une hartarako. Orduako 'une hartarako' etorrik zonen (Ond Bak). Hilik zon orduako. *Gu hautza orduako nekatuik genden*. 2 fatorduako, esenatu orduako... Ik. **danekoz**; **honeskio**; **-kizun**. ◆ **azken ordurako** (> *azkein orduako*) adb.

orduen

ORDUAN

artian / artean

entonces; en aquel tiempo; a la sazón, en aquella ocasión
entonces, por consiguiente, en tal caso, según eso

orduan (> *orduen*) **1** adb. Une hartan. *Abisatu ta orduen etor zan* 'abisatu eta orduan etorri zen'. *Orduen segan iten zan dana* 'orduan segan egiten zen dena'. Ik. **orduantxe** (> *orduentxe*). Ik. **artean** (> *artian*). **2** lok. Kasu horretan, hortaz. *Orduen, bier fanen ga* 'orduan, bihar joanen gara'. ◆ **orduan eta ...-ago** (> *orduen da ...-eio*). *Ardwa yan da orduen da egarri gaio* 'ardoa edan eta orduan eta egarri gehiago'.

orduentxe

ORDUANTXE

en aquel mismo momento

orduantxe (> *orduentxe*) adb. Orduan bertan. *Orduentxe ailatu nitzan* 'orduantxe ailegatu nintzen'.

orduko, ordukua

ORDUKO

de entonces; de aquel tiempo

orduko **1** adj. Une edo garai hartakoa. *Orduko jendĭek bazakien sua iten* 'orduko jendeak bazekien sua egiten'. *Orduko jendi'aik ondo zakiain eskwaz* 'orduko jende haiek ondo zekiten euskaraz'. Ik. **lehengoko**. [**2** adb. "Une hartarako" adierazteko, "*ordwako*" erabiltzen da. Ik. **ordurako** (> *ordwako*)].

orduti(k)

ORDUTIK

desde entonces; desde aquel momento

orduti(k) adb. Ordutik; une hartatik; une horretatik. Ik. **harrezkero** (> *harrezkĭo*, *arrezkioz*); **orduz gero(z)** (> *orduzkĭoz*).

orduzkioz

ORDUZ GERO(Z)

harrezkio(z), orduti(k)

desde entonces

orduz gero(z) (> *orduzkĭoz*) adb. *Orduzkioz eztau bizikletaik artu* 'orduz gero ez du bizikletarik hartu'. Ik. **harrezkero(z)** (> *arrezkio(z)*); **orduti(k)**.

ore, oria

ORE

masa, pasta

masa

ore iz. Hauts eginiko gai gotor bati isurkari bat gehituz eratzen den nahastura aski trinkoa baina biguna; bereziki, irinez eta urez egiten dena. *Ogia iteko oria* 'ogia egiteko orea'. *Dalwa iteko oria* 'taloa egiteko orea'. Ik. **masa**; **pasta**.

oregano, oreganua

OREGANO

orégano (Origanum vulgare)

oregano iz. (Bot.) (Origanum vulgare). *Katarrua kentzeko ta odolkiek iteko ibiltzen da. Odolkien masia iteko beti botatzen zezaion oreganwa* 'odolkien orea egiteko beti botatzen zitzaion oreganoa'.

oremahai

ORAMAHAI

artesa

oremahai (> *oremai* [Altsasu]; *olamai* [Urdiain, Bakaiku]) iz. Oramahaia; irina oratzeko, eta inoiz ogiak gordetzeko, erabiltzen den azpila.

orepazulo, orepazulua

hueco entre los cabrios del alero y la pared

orepazulo ([Altsasu]; *orapazulo* [Ziordia]) iz. Teilatu hegalean, gapirioen eta hormaren tartean sortzen den zuloa [?]. {«*Orepazuluk*, los huecos del alero» (Iza Alts)}.

orgadera, orgaderia

ORGADERA

cimbel, cimillo

orgadera iz. Usoak erakartzeko edo jaitsarazteko lurrean finkatzen den apeua. Ik. **zinbel**.

organista, organistia

ORGANISTA

organista

organista iz. Organo-jotzailea. *Organista dail(e) Altsuko elizan* 'organista dabil Altsasuko elizan'.

organizatu, organizatzen

ORGANIZATU

organizar
organizado, -a

organizatu **1** *dau* ad. Antolatu. *Bezpiako jaiegun oi gaztiek organizatu dai* 'bezperako jaiegun hori gateek organizatu dute'. *Dana organizatuta zukain* 'dena organizatuta zuten'. Ik. **prepatu**. **2** (Partizipio burutua izenondo gisa). *Txukuna ta organizatua da* 'txukuna eta organizatua da'.

organizazio, organizaziua

ORGANIZAZIO

organización (asociación)
organización (acción y efecto de organizar u organizarse)

organizazio **1** iz. Erakundea. *Organizazio bat dukai launtasuna emateko* 'organizazio bat dute laguntasuna emateko'. **2** iz. Organizatzea, antolaketa. *Organizazio gutxi emen!* 'organizazio gutxi hemen!'.

organo, organua

ORGANO (2)

órgano (Mus.)

organo iz. Musika-tresna handia, hauspoen bidez haize ematen zaien hodiez osatua, teklatu baten edo gehiagoren laguntzaz jotzen dena. ◆ **organo jotzaile** iz. Organoa jotzen duen musikaria.

orgulloso, orgullosua; orgullosa, orgullosia

HARRO, URGUILUTSU

orgulloso, -a

orgulloso, -a (Generoa hartzen du) adj. Urguilutsua; harrotasunez, harrokeriaz edo hantustez betea, harroa. Ik. **harro**; **harroputz**.

orgullu, orgullua

URGUILU

orgullo, soberbia, altivez

orgullu iz. Urguilua, harrotasuna, harrokeria.

orientatu, orientatzen

ORIENTATU

orientar(se)

orientatu *da/dau* ad. Norabide jakin batekiko kokatu; norabideratu. *Lainopĭen ezin mendien ondo orientatu* '[behe] lainopean ezin mendian ondo orientatu'. *Eskolan ondo orientatu balai* 'eskolan ondo orientatu balute'.

orientazio, orientaziua

ORIENTAZIO

orientación

orientazio iz. Orientatzea. *Orientaziua raso galdwik* 'orientazioa arras galdurik'.

original, originala

ORIGINAL

original

original (> *orijinal*) adj./iz. Jatorrizkoa, benetakoa; kopia edo imitazioa ez dena. *Libu au da orijinala* 'liburu hau da originala'. *Dokumentuen kopĭek eztau balio, orijinala yan ber dezu* 'dokumentuaren kopiak ez du balio, originala eraman behar duzu'.

orista, oristia

OREZTA

peka

peca, lunar

orista (eta *orixta*) iz. Orezta. *Orixtaz betéik duka aurpegia* 'oreztaz bererik dauka aurpegia'. Ik. **peka**.

oristadun, oristaduna

OREZTADUN

pekatsu

pecoso, -a

oristadun (eta *orixtadun*) adj. Oreztaz betea. *Rubia ta oristaduna da Miren* 'ilehoria eta oreztaduna da Miren'. Ik. **pekatsu**.

orkesta, orkestia

ORKESTRA

orquesta

orkesta iz. Orkestra. *Festa egun guztitako etortzen zan orkestĭa* 'festa egun guztietarako etortzen zan okestra'.

orkila, orkilia

URKILA; ILE-ORRATZ

horquilla; horquilla de pelo

orkila (eta *orkilla*, *orkillia*) iz. Urkila, ile-orratza.

orratz, orratza

ORRATZ

aguja
alfiler; alfiler de pecho
aguja, manecilla

orratz **1** iz. Ik. **galtzorratz**; **jostorratz**; **kaporratz**; **orrazgiltzatu**. **2** iz. Orratz buruduna, iskilinba. **3** iz. Orratz buruduna, lepoko zapiak-eta lotzeko erabiltzen dena. *Orratz bu beltxa* 'orratz buru beltza'. **4** iz. Pieza mehe luzea, gehienetan metalezkoa, mutur bat puntaduna edo zorrotza duena. *Erlejuen orratzak* 'erlojuaren orratzak'. ◆ **orratz buru** (> *orratz bua*). ◆ **orratz giltzatu**, **orrazgiltzatu**. Kateorratza. ◆ **orratz zulo**. *Orratzan zulwa* 'orratzaren zuloa'. ¬

orrazgiltzatu, orrazgiltzatua / orratz giltzatu

KATEORRATZ

imperdible (alfiler)

orrazgiltzatu, **orratz giltzatu** iz. Kateorratza.

orrazi, orrazia

ORRAZI

peine
travesaña; travesaño de madera que une los varales del carro

orrazi iz. Ileak bereizteko eta apaintzeko erabiltzen den tresna, ilaran jarritako hortz mehe ugariz osatua dena. *Orrazia mustita, txumĭa orraztu* 'orrazia bustita, txima [ilea] orraztu'. **2** iz. *Gurdien orrazia* 'gurdiaren orrazia' [travesaña]. ◆ **hanka orrazi(a)**. Oinbularra, oinaren gainaldea.

orrazte

ORRAZKERA

peinado (forma de peinarse)

orrazte iz. *orraztu* aditzari dagokion ekintza; orrazkera. *Orrazte modernwa duka mutiki orrek* 'orrazte modernoa dauka mutilki horrek'.

orraztu, orrazten

ORRAZTU

peinar(se)

orraztu *da/dau* ad. Ilea orraziarekin bereizi, leundu edo apaindu; norberaren edo beste norbaiten edo zerbaiten ilea orraztu. *Apain jantzik ta ondo orraztuta* 'apain jantzirik eta ondo orraztuta'. *Báte orraztube ibiltzen da* 'batere orraztu gabe ibiltzen da'.

orri, orria

ORRI

hosto

hoja
página

orri **1** iz. Hostoa. *Pago orria*. Ik. **hosto**; **borrosto**. • Esr. zah. *Andramaria urriko, agorra bi orriko*. **2** iz. Lauki formako paper zatia. Ik. **pape**. *Emantazu blokan orri bat* 'emadazu blokaren orri bat'. *Zenbat orri dukatzi libu orrek?* 'zenbat orri [orrialde] dauzka liburu horrek?'.

orro, orrua

ORRO, MARRU

mu

mugido, bramido

orro iz. Marrua; hainbat abereren oihua. Ik. **mu**. *Beien orrua* 'behiaren orroa'.

orru, orrua ORRO

mugido, bramido (?)

orru iz. Orroa.

ortu, ortua ORTU

batza

huerta

ortu iz. Baratzea. Ik. **batza**.

orube, orubia ORUBE

solar; suelo de la era

orube iz. Etxeak eraikitzeko lur eremua; etxe batek hartzen duen lur eremua. *Larrain au gwe orubĭa da* 'larrain hau gure orubea da'.

osaba OSABA

tio

tío

osaba iz. Aitaren edo amaren anaia; izebaren edo osabaren senarra. *Osaba xahar bat etor zezaien* 'osaba zahar bat etorri zitzaien'. ▲ Sin. *tio*. Ik. **izko**.

osasun, osasuna OSASUN

salud
sanidad

osasun iz. *Osasun ona, zoriona*.
– osasunbeiko, osasunbeikua.
– osasuna, enkomendatzeko (Dolumina agertzeko esaten da, eta "osasuna izan dezazun, hildakoaren alde errezatzeko" adierazten dau).

osasunbeiko, osasunbeikua OSASUN GABEKO

osasuntsu

enfermo; que no goza de buena salud

osasunbeiko adj. Osasun gabekoa; osasun onik ez duena. ▼ Anton. *osasuntsu*.

osasuntsu, osasuntsua OSASUNTSU

sano *osasunbeiko*

sano, -a; saludable

osasuntsu **1** adj. Osasungarria. *Alimentu osasuntsua*. *Mendiko haize osasuntsua*. *Bainu fresko bea osasuntsua* 'bainu fresko baina osasuntsua'. **2** adj. Osasunez betea. *Osasuntsu azi tu txakurkuma danak* 'osasuntsu hazi ditu txakurkume denak'. ▲ Sin. *sano*. ▼ Anton. *osasunbeiko*.

osatu, osatzen ZIKIRATU, IRENDU

kapatu

castrar, capar

osatu [Bakaiku] *dau* ad. (Naf. eta Zub.) Zikiratu. Ik. **kapatu**.

osatu, osatzen

OSATU

2 bukatu, despeitu. 3 kapatu

completar
terminar, concluir
castrar, capar

osatu **1** *dau* ad. Osotasun edo banako bat eratu. *Ilberri: (idargia) jaio ta osatu bitartien* (Ond Bak). *Dozena bat arrontza osatu* 'dozena bat arrautza osatu'. *Betetzak pitxarrekua osatu artien* 'bete ezak pitxerra osatu arte'.
2 *dau* ad. Osotu; amaitu, bukatu. *Osatu du batzĭa / sorwa* 'osatu dugu baratzea / soroa'. *Asizkĭo in ber dau osatu* 'hasiz gero egin behar da osatu'. ▲ Sin. *bukatu*, *despeitu*.
3 [Bakaiku] *dau* ad. (Naf. eta Zub.) Zikiratu. Ik. **kapatu**.

osatubeiko, osatubeikua

OSATUGABE

incompleto, -a

osatubeiko adj. Osatugabea; osatu gabe dagoena. *Osatube dona, osatubeĭkwa* 'osatu gabe dagoena, osatugabea'.

oskildar, oskildarra

HAUSKALDAR, ERRAUTS

sutako hauts

cernada; ceniza que ha servido para hacer de lejía en la colada

oso

OSO (2)

erabat, raso

muy, asaz, harto; mucho, -a

oso (2) adb. Guztiz, erabat. *Oso ondo*, *oso ongi*. *Oso txarki*, *oso gaizki*. *Oso txarra*. *Oso polita da*. Ik. **erabat**; **raso**.

oso, osua

OSO (1)

ososua

todo, -a; entero, -a; completo, -a; íntegro, -a

oso (1) adj. Ogi osua. Naranja osua. Ixiltasun osua. Diru osua, 500 pzta. (erdaraz, "número redondo") (Ond Bak). ◆ **ososua** (> *ososwa*) adb. Oso-osoa, oso-osorik. *Beak bakarrik, kazula ososwa jan dau* 'berak bakarrik, kazola oso-osoa jan du'. *Periodikwa ososwa laitu dau* 'periodikoa oso-osoa leitu du'. Ik. **osorik** (> *osoĭk*). ¬

osoik

OSORIK

ososua

entero, -a; completo, -a; íntegro, -a; íntegramente, completamente, enteramente

osorik (> *osoĭk*) adb. Hautsi edo puskatu gabe; zatirik falta ez zaiola. *Ogia osoĭk do, gwaindo ezta asi* 'ogia osorik dago, oraindik ez da hasi'. Ik. **ososua** (> *ososwa*).

ososua

OSO-OSOA, OSO-OSORIK

entero, -a; completo, -a; íntegro, -a; íntegramente, completamente, enteramente, totalmente

ososua (> *ososwa*) adb. Oso-osoa, oso-osorik. *Beak bakarrik, kazula ososwa jan dau* 'berak bakarrik, kazola oso-osoa jan du'. *Periodikwa ososwa laitu dau* 'periodikoa oso-osoa leitu du'. Ik. **osorik** (> *osoĭk*).

ospa
OSPA

alde; aire / airo; fu

fuera, largo

ospa interj. *Lgart*. Ik. **alde**; **aire** / **airo**; **fu**. ◆ **ospa egin** (> *ospa in*). Lgart. Alde egin. ▲ Sin. *aldein*, *fu in*.

ospel, ospela
OSPEL, AZKORDIN

sabañón

ospel iz. (Batez ere pl.) Hotzak eraginda gertatzen den handitu mingarria, bereziki esku eta oinetakoa. *Opwen, ospelak* 'orpoan, ospelak'. *Ospelak dukatzit* 'ospelak dauzkat'. ◆ **ospelak atera** (> *ospelak ata*). *Ospelak ata zaizkio elurretan ibilita* 'ospelak atera zaizkio elurretan ibilita'. Ik. **ospeldu**.

ospelak ata
OSPELAK ATERA

ospeldu

salir sabañones

ospelak atera (> *ospelak ata*). *Ospelak ata zaizkio* 'ospelak atera zaizkio'. Ik. **ospeldu**.

ospeldu, ospeltzen
OSPELDU

ospelak ata

salir sabañones

ospeldu *da* ad. Ospelak atera. *Opwa ospeldu* 'orpoa ospeldu'. Ik. **ospelak atera** (> *ospelak ata*). – *Ospeldwik* 'ospeldurik'.

ospital, ospitala
OSPITALE

hospital

ospital iz. Ospitalea, erietxea. *Ospitalĩen ingresatu dai* 'ospitalean ingresatu dute'.

ospizio, ospiziua
UMEZURZTEGI

hospicio

ospizio iz. Umezurztegia, umezurtzak jasotzen dituen etxea. *Umĩa zala ekar zain ospiziotik* 'umea zela ekarri zuten ospiziotik'. Ik. **umezurtz** (> *umezurz* [Altsasu]; *umezur* [Urdiain]).

ostalai, ostalaia
OSTALARI

hospedero, -a; patrón, -ona; posadero, -a; mesonero, -a; tabernero, -a

ostalari (> *ostalai* [Bakaiku]) iz. Ostatu bat zaintzen duen pertsona, ostatuaren buru edo arduraduna.

ostatu, ostatua
OSTATU

alojamentu, fonda

posada, fonda, pensión, hostal, hospedería, albergue

ostatu iz. Diru truke jan eta lo egiten den etxea. *Lo iteko tokia da ostatua* 'lo egiteko tokia da ostatua'. Ik. **alojamentu**; **fonda**; **benta**. ◆ **ostatua eman**. Ostatu eman. *Jitwari bestetxĩen ostatua eman* 'ijitoei beste etxean ostatua eman'.

Ostegun Santu, Ostegun Santua
OSTEGUN SANTU

Jueves Santo

Ostegun Santu iz. Aste Santuko osteguna.

ostegun, osteguna

OSTEGUN

jueves

ostegun iz. Asteko laugarren eguna. *Bakarrik ostegunetan etortzen da saltzailĭa* 'bakarrik ostegunetan etortzen da saltzailea'. *Ostegunŏ biltzen dĭa* 'ostegunero biltzen dira'. *Ostegunŏako despeitwik do* 'ostegunerako despediturik [bukaturik] dago'. ◆ **Ostegun santu** iz. Aste Santuko osteguna.

ostia

OSTIA

2 zartako

hostia (Erl.)
hostia, golpe
hostia (velocidad)
¡hostia(s)!

ostia 1 iz. Erl. Ostia Santua, eukaristiako ogia. **2** iz. Lgart. Zartakoa, kolpea. *Bota ta nolako ostia artu den* 'bota eta nolako ostia hartu duen'. **3** iz. Juramentua, biraoa. **4** iz. Abiadura handia. *Oi ostia dĭana* 'hori ostia [abiadura] daramana'. **5** interj. Ostia! Ik. **ño**; **ostra**; **arraioa**. ◆ (pl.) **ostiek!** Baita zera ere; ezta pentsatu ere. ◆ **ostia txarra ibili**. Jenio txarra izan; umore txarra ibili.

ostial, ostiala

OSTIRAL

viernes

ostial (eta *ostiele*) iz. Ostirala, asteko bosgarren eguna *Ostielĭen / ostialĭen* 'ostiralean'. *Ostĭala noiz etorriko, diesitwik* 'ostirala noiz etorriko, desiraturik'. • Esr. zah. *Astien ostiela ez faltatu* 'astean ostirala ez faltatu'. *Faltako zaik hiri astien ostiala! Ostiala, egun txarra; beti zerbeit!* ◆ **ostiale santu** [Urdiain]; **ostiele santu** [Bakaiku] iz. Ostiral santua, Aste Santuko ostirala.

Ostiale Santu, Ostiale Santua

OSTIRAL SANTU

Viernes Santo

Ostiral Santu (> *Ostĭale Santu* [Urdiain]; *Ostĭele Santu* [Bakaiku]) iz. Aste Santuko ostirala.

ostiele

OSTIRAL

viernes

ostikada, ostikadia

OSTIKADA

ostiko

patada, puntapié, coz

ostikada iz. Ostikoa. *Ostikada asko artu tu* 'ostikada asko hartu ditugu / ditu'. Ik. **ostiko**. ◆ **ostikada eman** (> *ostikadĭa eman*). *Ostikadĭa eman zĭan astwek* 'ostikada eman zion astoak'.

ostikalai, ostikalaia

OSTIKOLARI

pateador, -a; coceador, -a

ostikolari (> *ostikalai*) adj. Ostikoak ematen dituena.

ostikeia

PUTAKERIA

putakeia

contratiempo; putada, faena, mala pasada

ostiakeria* (> *ostikeia*) iz. Lgart. Ezustekoa, ustekabea; putakeria. Ik. **putakeria** (> *putakeia*).

ostiko, ostikua (1) OSTIKO (1)

ostikada

patada, puntapié, coz

ostiko[1] iz. Oinaz ematen den ukaldia. Ik. **ostikada**. ◆ **ostikoa eman** (> *ostikwa eman*). Ostiko egin.

ostiko, ostikua (2) OSTIKO (2)

machón, contrafuerte, puntal

ostiko[2] iz. Zutik dagoen zerbaiti eusteko jartzen den euskarria. *Ostikwa, piketez itxitako esitan, kontrako indarra iteko patzen dana* 'ostikoa, piketez itxitako hesietan, kontrako indarra egiteko paratzen dena'. Ik. **tente**; **puntal**. ◆ **ostikoa paratu** (> *ostikwa patu*). Zerbaiti eusteko ostikoa jarri.

ostikoka(n) OSTIKOKA

dando patadas, a patadas; dando coces

ostikoka(n) adb. Ostikoak emanez, ostiko eginez. *Ostikokan daitza* 'ostikoka dabiltza'.

ostopo, ostopua OZTOPO

aztapo, traba, yausgarri*

estorbo, impedimento, obstáculo, traba

ostopo iz. Bidea ixten duen gauza; zerbait egiteko eragozgarria. *Ostopo* (sic) (LM). Ik. **aztapo**; **traba**; **yausgarri***.

ostra(s) ARRAIOA

arraio, ño, ostia

ostras

ostra(s) interj. Arraioa. Ik. **arraio**; **ño**; **ostia**.

ostu, osten OSTU

lapurtu

robar, hurtar

ostu *dau* ad. Lapurtu. *Osten abeastu da* 'osten aberastu da'. ▲ Sin. *lapurtu*.

osun, osuna OSIN

pozo profundo

osun iz. Osina; sakontasun handia duen putzua. {(Iza Alts): "*Osuna*, el pozo profundo"}.

ota, otia OTE

árgoma, tojo (Ulex sp.)

ota iz. (Bot.) Otea (Ulex sp.).

otadi, otadia OTADI

argomal, tojal

otadi iz. iz. Otea hazten den tokia.

otafaki, otafaki OTA-JOIKI [OEH]

kuatxiki (akuatxiki)

pala con boca fuerte de hierro para majar árgoma

otafaki [Bakaiku] iz. Ota-joikia. Ik. **otajaiki**. ▲ Sin. *kuatxiki*.

otaganbela, otaganbelia

OTAGANBELA, GANBELA, OTALAKO

pesebre, gamella [comedero de madera que sirve para triturar el alimento (aulaga, etc.) para el

otaganbela iz. Otea (Ulex sp.) tikitzeko ganbela; abereei janaria txikitu eta jaten emateko jartzen zaien zurezko ganbela. *Otaganbelĭa, zurezko ganbelĭa; animalieri bertan jaten emateko, akwatxikiekin otĭa, nagwek, remolatxak-eta txikitzen dĭa* 'otaganbela, zurezko ganbela; animaliei bertan jaten emateko, akuatxikiarekin [xehatzeko pala] otea, naboak, erremolatxak-eta txikitzen dira'. Ik. **ganbela**.

otaipuko, otaipukua

IPURU

ipuruko (> *ipuko*)

enebro, jinebro

otaipuruko (> *otaipuko*) iz. (Bot.) Ipurua (Juniperus communis; Juniperus phoenicea). Ik. **ipuruko** (> *ipuko*).

otajaiki, otajaikia

OTA-JOIKI, TRAGAZA

kuatxiki, akuatxiki

pala con boca fuerte de hierro para majar árgoma

otajaiki [Altsasu]; Jotzeko tresna. [Bakaiku]: otafaki; ▲ Sin. *akuatxiki*, *kuatxiki*, *kuatxi* [Urdiain]; *kortxiki* [Ziordia].
[*OEH ota-joiki (V-gip, G-azp), otajaki (G-goi; Izt C 232 (en una lista de aperos), H), otajoki (-th- L, BN, S), otajaiki (V-gip), otajeki (V-gip), otajauki (G-goi), otafaki (G-nav). Ref.: A (ota-jaki); Lh (othajoki); J. Etxeberria EEs 1931, 39; Iz ArOñ (otá-jaikixa), LinOñ 176; Ond Bac (otafaki). 1. "Pala con boca fuerte de hierro para majar árgoma" A. "Trabaza, llaman en Oyarzun a la cuchilla con que se corta la árgoma. En la parte alta de Guipúzcoa le llaman ota-jakie" SMuj EEs 1921, 141. "Instrumeto para desmenuzar ciertos alimentos (nabos, ortigas) que se dan al ganado" Ond Bac. 2. "Othajoki (L, BN, S), [...] ajonc hâché" Lh.].

otalatx, otalatxa

OTE LATZ

árgoma punzante (?)

otalatx iz. (Bot.) (≠ latxa).

otalora, otaloria

OTALORE

flor de la argoma

otalora iz. Otalorea, otearen lorea.

otasa, otasia

OTASA, OGI BELTZ

pan bazo

otasa iz. Ogi beltza; zahia erabat bereizi gabeko irinez egindako ogia. [pan con bastante salvado (Iza Alts)].
Ogi beltxokua 'beltzagokoa' (olatia baindo), zai pixkat dekana. Otasien boltsa (Ond Bak).
– *Otasia ta opila, gari inakin. Otasia menudilluekin* [salvado menudo, moyuelo]. *Artinakin indakuek, dalua ta naskia*.

ote

OTE (2)

acaso; quizás, tal vez; si

ote Hizkl. Hiztunak, galderetan, zalantza adierazteko edo azpimarratzeko erabiltzen duen partikula. *Etor ote da?* 'etorri ote da?'
—ba ote?
Ola ote da? 'hola ote da?'
Ze ote jailek / jailen aurroi, e? 'zer ote zabilek / zabilen haur hori, e?'.

otohol, otohola (otol, otola)

LABENDAI (OGIA LABERATZEKO OHOL)

labendai

pala de madera para hornear pan

otohol (> *otol*) iz. Ogia labean sartzeko erabiltzen den oholezko endai luzea. {"*Otola*, la pala larga de madera para meter el pan en el horno" (Iza Alts)}. Ik. **labendai**.

otordu (?)

OTORDU

jatordu

comida, tiempo destinado a la comida

otordu (?) iz. Eguneko janaldi nagusietako bakoitza, gehienetan, mahaian eserita egiten dena. Ik. **jatordu**.

otsail, otsaila

OTSAIL

katuil(a)

febrero

otsail iz. Urteko bigarren hila. *Otsailekuá* (Ond Bak). Ik. **katuil**. • Esr. zah. *Otsail txiki hasarria, (hi) eraiz bestenekuen baindo hobia! / beste guztiek baindo're hobia* 'otsail txiki haserrea, ez haiz beste gainerakoen baino hobea / beste guztiak baino ere hobea'.

otsalur, otsalurra

TUPA LUR

tierra o terreno con abundante marga suelta

otsalur iz. Tufa [tupa] ugari eta harroa duen lurra. | Harea lur pobrea. Ik. **lur mehe**; **lur zuri**.

otso luma, otso lumia

LUMATXA

plumón

otso luma. Lumatxa; hegazti lumatu berriaren luma txiki eta leuna. Otso-luma, txorikumen lehenbiziko luma o ilia (Ond Bak).

otso, otsua

OTSO

lobo (Canis lupus)

otso iz. (Canis lupus). • Esr. zah. *Kanpwen uso ta etxĩen otso* 'kanpoan uso eta etxean otso'. ◆ **otso fulu**. Otsoaren ulua.

otso! (hartzak / hartzan)

EUTSO (HAR EZAK / EZAN)

oizu

toma (algo), ten

otso interj. Eutso; hikan ari garela, norbaiti zerbait ematean esaten zaion hitza. *Tori* edo *to* esanahiarekin. Ik. **oi**; **oizu**; **oizai**.

otsobaba

ERABELAR (?)

otsobaba iz. (Bot.) (Ond Bak) (una planta).
[OEH Ref.: A; Arzdi Plant1 278; Ond Bac. "Haba de lobo" Mdg 151. "Hierba buena para alimento de cerdos" A. "Heléboro (AN-larr)", "(Hyoscyamus niger), beleño (Aralar navarro)" Arzdi Plant1 278].

otsokuma, otsokumia

OTSOKUME

lobezno, lobato

otsokuma iz. Otsokumea, otsoaren kumea.

otsolizar, otsolizarra

OTSALIZAR

serbal de los cazadores (Sorbus aucuparia)

otsolizar iz. (Bot.) Otsalizarra (*Sorbus aucuparia*).

otsoputz, otsoputza

ASTAPUTZ, OTSOPUTZ

astoputz

cuesco de lobo (hongos cuyo cuerpo fructífero es un receptáculo casi esférico, como el bejín y el

otsoputz iz. (Mikol.) Scioderma denak edo gehienak dira, baina batez ere Lycoperdon piriforme eta Bovista plumbea, astaputza eta otsoputza. ▲ Sin. *astoputz*.

Otxoko

OTSOKO

lobezno, lobato

Otxoko iz. Ixinpluetan, otsoa nortzen duen izena.

otxokon, otxokona

BETEKADA, ASEALDI

asealdi, betekada, tripakada

atracón, panzada, hartazgo, tripada

otxokon iz. Ase arteko jan-edana. *A ze otxokona in genduen Gaubon gau(b)eko afaien!* 'a zer otxokona egin genuen Gabon gaueko afarian!'. Ik. **asealdi**; **betekada**; **tripakada**.

ox!, oxe!

UX

ixe, ixo

ox, os

ox (eta *oxe*) interj. Ux, uxa; etxeko hegaztiak uxatzeko erabiltzen den hitza. ["Exclamación para ahuyentar aves domésticas" (Ond Bak)]. Ik. **ixe**; **ixo** [Urdiain].

ozpin, ozpina

OZPIN

vinagre

ozpin iz. Ardoaren, sagardoaren eta kidekoen hartzitzetik sortzen den isurkari mingotsa, janari batzuk prestatzeko, edo barazkiak-eta ontzeko erabiltzen dena. *Ozpin gaixai duka ensaladiek* 'ozpin gehiegitxo dauka entsaladak'. *Ozpinetan patu* 'ozpinetan paratu'. ◆ **ozpina bota**. Ozpinarekin maneatu. *Botaiozu ozpin gutxixo* 'bota iezaiozu ozpin gutxixeago'. ◆ **ozpin-oihal(a)**. *Ozpin oiala: minak kentzeko, ozpinakin patzen zan oiala* 'minak kentzeko, ozpinarekin paratzen zen oihala'.

ozpindu, ozpintzen

OZPINDU

mindu, pikatu. 2 kotrinatu

avinagrar(se)
agriar(se) / acidificar(se) el estómago

ozpindu **1** *da/dau* ad. Ozpin bihurtu. *Ardoa ozpindu*, *jatekoa ozpindu*. Ik. **mindu**, **pikatu**. **2** *da* ad. Jan ondoren, nabarmen urdailekoa garraztu. Ik. **kotrinatu**. **3** (Partizipio burutua izenondo gisa). *Persona ozpindua*.

ozpingarri, ozpingarria

OINAZTARRI

rayo que descarga en la tierra
ceraunia, piedra de rayo (piedra que se creía procedente de la caída de un rayo)

ozpingarri iz. Oinaztarria; lurra jotzen duen tximista. Ik. **oinaztura**. ◆ **ozpingarriak jo** (> *ozpingarriek jo*). Oinaztarriak jo, oinaztarria lehertu. ◆ **ozpingarria lehertu**. (Ik. oharra).

ozpingarriek jo

OINAZTARRIAK JO

caer un rayo

ozpingarriak jo (> *ozpingarriek jo*). Oinaztarriak jo, oinaztarria lehertu.

pa

PA

apatxo, matxo

beso (voc. infant.)

pa iz. Haur. Musua. *Ekatzu pa, maitĭa* 'ekar ezazu pa, maitea'. Ik. **apatxo**; **matxo**. ◆ **pa eman** (Haur.). Musu eman.

pa eman

PA EMAN

besar (voc. infant.)

pa eman Haur. Musu eman.

pabellon, pabellona

PABILOI

pabellón, nave

pabellon iz. Pabiloia; eraikin berezia, eraikuntza handiago baten edo eraikuntza multzo egituratu baten zatia dena. *Pabellon aundi bat in dai txatarrĭa biltzeko* 'pabiloi handi bat egin [eraiki] dute txatarra biltzeko'.

padi, padia

PAGADI

hayedo

pagadi (> *padi*) iz. Pago basoa. *Padiko orbelzadiek* 'pagadiko orbelzadiak'. ◆ **pagadi hartu** (> *padi artu*). Pagadia zabaldu, pagadiak larreak hartu.

paella, paellia

PAELLA

paella

paella iz. Arrozez, okelaz, arrainez eta abarrez prestatzen den jakia, jatorriz Valentziakoa. *Oilwa paellan patu* 'oiloa paellan paratu'.

paga, pagia

PAGA

soldata

paga, salario
paga (dinero que se da a los niños)

paga **1** iz. Lansaria. *Paga estrĭa* 'paga estra'. **2** iz. Haur edo gaztetxo bati bere gastuetarako ematen zaion dirua. *Domekan ematen zwain pagĭekin-da diru pixkat aurrĭatu, ta ola yosi nen gitarrĭa* 'domekan ematen zidaten pagarekin-eta diru pixka bat aurreratu [aurreztu], eta hola erosi nuen gitarra'. Ik. **soldata**.

pagamentu, pagamentua

PAGAMENDU

pagu

pago

pagamentu iz. Pagamendua, ordainketa. Ik. **pagu**.

pagano, paganua

PAGANO

jentil

gentil; pagano, -a

pagano iz./adj. Kristautasunaz kanpoko erlijio batean, bereziki erlijio politeista batean, sinesten duen pertsona. Ik. **jentil**. *Eliza faten eztanangaiti, paganwa dala esaten dai* 'elizara joaten ez denarengatik, paganoa dela esaten dute'.

pagatu, pagatzen

PAGATU

pagatu (eta *patu*) *dau* ad. *Patube autzi dot* 'pagatu gabe utzi dut'. *Zorrak patu* 'zorrak pagatu'.

pagatx, pagatxa

PAGOTXA

trébol encarnado (Trifolium incarnatum)

pagatx (eta *patx* [Urdiain]) iz. (Bot.) Pagotxa (Trifolium incarnatum). *Pagatx, belar bat* (Ond Bak), 'clase de trébol de flor roja y de hoja más grande'. (Trifolium incarnatum) (?). *Ubari etortzen zan patxa* 'ugari etortzen zen pagotxa'. *Ganaueindako yaiten zan patxa* 'ganaduendako ereiten zen pagotxa'. *Patxa janda txixa asko iten zain ganauek* 'pagotxa janda txiza asko egiten zuten ganaduek' (AG).

pagaxi

PAGAZI, PAGATXA

hayuco

pagaxi (Iza Alts) (eta *paxi*, *patxi* [Urdiain]). iz. Pagazia, pagatxa, pago ezkurra. ◆ **pagaxi bikor** iz. Pagazi pikorra, pagatxa, pago ezkurra. {(hayuco). "*Pagaxibikorrak*, los hayucos" (Iza Alts)}.

pagaxi bikor

PAGAZI-BIKOR

hayuco

pagaxi bikor iz. Pagazi pikorra, pagatxa, pago ezkurra. {(hayuco). "*Pagaxibikorrak*, los hayucos" (Iza Alts)}.

pago tximu, pago tximua

PAGO MOTZ

haya trasmocha, haya desmochada

pago tximu. Pago motza.

pago ziza, pago zizia

BELARRI LANDU

gírgola, seta de ostra; pleuroto en forma de ostra (Pleurotus ostreatus)

pago ziza. Belarri landua (Pleurotus ostreatus). *Pago egurra usteltzen asten danĭen atatzen da pago zizĭa* 'pago egurra usteltzen hasten denean ateratzen da pago ziza'.

pago-uso (?)

PAGAUSO

paloma torcaz (Columba palumbus)

pago-uso. iz. Pagausoa. Ik. **basuso**.

pago, pagua

PAGO

haya (Fagus sylvatica)

pago **1** iz. (Bot.) (Fagus sylvatica). *Larre pagwa* 'larre pagoa'. **2** iz. Pagoaren zura. | Pago-arbola. Pago-arrama. Pago atorratxanbela. Ik. **atorratxanbela**. Pago-azpi. Pago-egur. Pago-gerri. Pago-hosto. Pago-ipurdi. Pago-itzal. Pago-lur. Pago-ohol. Pago-orbel. Pago-punta. Pago-trunku. Pago-txara. Pago-zain. ◆ **pagoaren piperbeltx** (> *pagwen piperbeltx*). Pagoaren gaitza (Ascodichaena rugosa) (?); pagoari azalean piperbeltzaren moduko bolatxo batzuk agertzen zaizkio. ◆ **pago tximu**. Pago motza. ◆ **pago-uso**. (?) iz. Pagausoa. Ik. **basuso**. ◆ **pago ziza**. Belarri landua (Pleurotus ostreatus). *Pago egurra usteltzen asten danĭen atatzen da pago zizĭa* 'pago egurra usteltzen hasten denean ateratzen da pago ziza'. ◆ **pagozko**. ¬

pagu, pagua

PAGU, ORDAINKETA

pagamentu

pago
retribución, remuneración, pago

pagu iz. Ordainketa. *Bi pagu zor diat / diatzit*. Ik. **pagamentu**; **kobru**. ¬

paguen piperbeltx, piperbeltxa

(PAGOAREN GAITZA)

pagoaren piperbeltx (> *pagwen piperbeltx*). Pagoaren gaitza (?); pagoari azalean piperbeltzaren moduko bolatxo batzuk agertzen zaizkio.

paiaso, paiasua

PAILAZO

payaso

paiaso iz./adj. Pailazoa. *Oi paiaswa!* 'hori pailazoa!'.

paisaje, paisajia

PAISAIA

paisaje

paisaje iz. Ikuslearen aurrean agertzen den lurralde eremua. *Oi paisajĭen polita!* 'hori paisaiaren polita!'.

pakete, paketia

PAKETE

paquete

pakete iz.

pala, palia

PALA

endai

pala
pala (Dep.)

pala **1** iz. Erreminta. *Pala redondwa* 'pala biribila'. *Pala puntaduna*. *Pala zabala*. Ik. **endai**. **2** iz. Pala baten edukia. Ik. **palakada**. **3** iz. Pilotan jokatzeko zurezko tresna; tresna hori baliatuz egiten den kirola.

palakada, palakadia

PALAKADA

palada

palakada iz. Pala baten edukia. Ik. **palakazo**.

palakazo, palakazua

PALA KOLPE

palazo

palakazo iz. Pala kolpea. Ik. **palakada**.

palangana, palangania

PALANKANA, GARBIONTZI, KONKETA

palangana

palangana iz. Palankana; garbiontzi biribila, ez oso sakona, garbitzeko erabiltzen dena. *Palangana bat ezen ajeĭpe, medikuendako* 'palankana bat ezein ajerik [akatsik] gabe, medikuarendako'.

palanka, palankia

PALANKA

palanca
apalancar

palanka iz. ◆ **palanka egin** (> *palankĭa in*).

palazio, palaziua

PALAZIO

palacio

palazio iz. Jauregia. *Urrako palaziua* 'Urrako palazioa' [Ameskoako Urran]. *Erabat undatwik do Urbasako palaziua* 'erabat hondaturik dago Urbasako palazioa'.

paleta, paletia

PALETA

paleta (de albañil)

paleta iz. Igeltseroen lanabesa, kareorea hedatzeko erabiltzen dena, metalezko xafla batez eta kirten batez osatua. *Kisugilĭen paletĭa* 'kisuskilearen paleta'.

palina (?)

paliza, palizia

JIPOI, ZIGORRALDI, PASADA

pasada, somanta

paliza

paliza iz. Jipoia. *Paliza bat eman zĭain* 'pasada bat eman zioten'. Ik. **pasada**; **somanta**.

palma, palmia (?)

ERRATZA

escoba

palma iz. Erratza (?) (AG).

paltsa, paltsia
PUTZU, ISTIL

idoi; balsa; putzu

charco

paltsa iz. Kaleko edo bideko paltsia. Ik. **balsa**; **idoi**; **putzu**.

pana, pania
PANA

pana (tela)

pana iz. Jantziak egiteko erabiltzen den ehuna. *Pantalon panazkwek* 'praka panazkoak'.

panadeia
PANADERIA, OKINDEGI

panadería

panaderia (> *panadeia*) iz. Okindegia. *Ogi ona iten dai erriko panadeien* 'ogi ona egiten dute herriko panaderian [okindegian]'. Ik. **okindegi** (> *okindei*).

paneka, panekia
PANEKA

faneca (Gadiculus sp., Trisopterus sp.)

paneka iz. Itsas arraina (Gadiculus sp. eta Trisopterus sp.). *Itxasuko arraia da panekĭa* 'itsasoko arraina da paneka'.

panilla, panillia
[PANA MOTA]

panilla (tela)

panilla iz. Jantziak egiteko erabiltzen den ehun mota; belus ildaskatuko ehuna. *Gona gorriek panilliekin*. *Panillazko gona gorria*.

panorama, panoramia
PANORAMA

bista

panorama
situación, circunstancia

panorama **1** iz. Toki baten ikuspegi zabala. Ik. **bista**. **2** iz. Egoera. *A ze panoramĭa dukai etxijortan!* 'a zer panorama daukate etxe horretan!'. *Oi panoramĭa dukaina etxĭortan!* 'hori panorama daukatena etxe horretan!'.

panparroi, panparroia
PANPARROI, FANFARROI

fanfarrón, -ona
muy bien; de primera

panparroi **1** adj. Fanfarroia; harroa, harroputza; handiustea, ahoberoa. **2** (adizlagun gisa). Bapo, primeran, besterik behar ez dela. *Emen nok, panparroi* 'hemen nagok, panparroi'. Ik. **primeran**.

Panplona
IRUÑEA

Pamplona / Iruñea

Panplona iz. Iruñea. Ik. **Iruña**. *Medikuta-ta, Panploná* 'medikuetara eta, Panplonara'.

panpoxa, panpoxia
PANPOXA

bonita, elegante; de punta en blanco

panpoxa adj. Emakumezkoez mintzatuz, polita, ederki apaindua. *Au aur panpoxĭa!* 'hau haur panpoxa!'.

pantalon motzak / pantalon motxak

PRAKA-MOTZ, GALTZA-MOTZ

pantalón corto, pantalones cortos

pantalon motz(ak) (eta *pantalon motx(ak)*). Galtza-motzak; bernak estaltzen ez dituzten prakak.

pantalon, pantalona / pantalonak

GALTZA(K), PRAKA(K)

pantalón, pantalones

pantalon iz. Batez ere pl. *Pantalonak*. Prakak. *Pantalon luzĭek* 'praka luzeak'. ◆ **pantalon motz(ak)** (eta *pantalon motx(ak)*). Galtza-motzak; bernak estaltzen ez dituzten prakak.

panteon, panteona

PANTEOI

panteón (monumento funerario)

panteon iz. Panteoia; pertsona bat baino gehiago ehorzteko egindako eraikina. Ik. **hogi**.

pañelo, pañelua

PAÑELU, MUSUZAPI

pañuelo

pañelo iz. Pañelua, musuzapia. ◆ **buruko pañelo** (> *buko pañelo*) iz. Buruzapia. Ik. **buruko trapu** (> *buko trapu*); **mantilla**.

papa

PAPA

pan (voc. infant.)

papa iz. Haur. Ogia.

papada, papadia

KOKOSPE

papada

papada iz. Kokospea, kokotsaren azpiko alde haragitsua. Ik. **papaki**.

papaki, papakia

KOKOSPEKO HARAGI

carne de la papada; papada

papaki iz. Kokospeko haragia; lepapeko urdaia. Ik. **lepoki**.

papar, paparra

PAPAR

pecho, tórax, escote; pechuga
pechera, parte de la camisa y otras prendas de vestir, que cubre el pecho

papar **1** iz. Bularraren goialdea. *Paparra agirik* 'paparra ageririk'. **2** iz. Jantzietan, papar aldeko zatia. *Papar zikina*. ◆ **papar zulo** iz. Bularrezurraren gaina.

papargorri, papargorria

PAPARGORRI, TXANTXANGORRI

ttattalangorri (Ond Bak)

petirrojo (Erithacus rubecula)

papargorri iz. Txantxangorria (Erithacus rubecula). ▲ Sin. *ttattalangorri* [Bakaiku].

pape, papia

PAPER

papel

pape iz. Papera. *Fumatzeko papĭa* 'erretzeko papera'. *Pape puskĭa* 'paper puska'. *Dana papez beteik* 'dena paperez beterik'. *Papĭa gogoti!* 'papera gogotik [erruz]!'. ◆ **papezko** (> *papezkwa*) adj. Paperezkoa, paperez egina.

papelera, papeleria

PAPER FABRIKA. 2 PAPERONTZI

papelera (fábrica)
papelera (recipiente)

papelera **1** iz. Paper fabrika. **2** iz. Paperontzia.

papelino, papelinua

KONFETI

confeti

papelino iz. (Batez ere pl.) *papelinuek*. Konfetia. *Momoxarrwek bete-betĭa iten zituain papelinoz* 'momoxarroak bete-betea egiten zituzten papelinoz'. *Kolorezko papelinwek* 'kolorezko papelinoak'.

papera / papera(k)

PAPERA, HAZIZURRI

paperas

papera iz. pl. Hazizurria. *Kalenturĭekin ta jana ezin ietsi zailen, ta paperak dukatziela esan dĭa medikuek* 'kalenturarekin eta jana ezin irentsi zebilen, eta paperak dauzkala esan dio medikuak'.

papilla, papillia

AHI, ORE

ahi

papilla

papilla iz. Ahia. Ik. **ahi**; **ora**.

papo, papua

PAPO, KOKOSPE

okotz azpi, okotz ondo

papada
buche

papo **1** iz. Kokospea. Ik. **okotz azpi**; **okotz ondo**. **2** iz. Hegaztien paparoa.

papos

PAPO, AKABO

voz infantil que indica terminación o ausencia de algo

papos interj. Haur. Papo, zerbait bukatu dela adierazteko erabiltzen den esapidea.

parabris, parabrisa

HAIZETAKO, PARABRIS

parabrisas

parabris iz. Haizetakoa, automobilaren aurreko kristala. *Belaxeti zikintzen da prabrisa* 'berehalaxetik zikintzen da parabrisa [haizetakoa]'. *Autwen parabrisa arrailatu zaira* 'autoaren parabrisa [haizetakoa] arraildu zait'.

parada, paradia

GERALEKU

parada, apeadero
parada (Dep.)
presa de un río

parada **1** iz. Geralekua. *Autobusan paradĭa* 'autobusaren geralekua'. **2** iz. Futbolean, atezainaren geldiketa. *A ze paradĭa in dik!* 'a ze geldiketa egin dik!. **3** iz. Butroira arrainak bideratzeko moldatzen den harresia [(Gaztelaniaz) parada: presa de un río]. *Paradĭa iten zan mutrilua patzeko* 'parada egiten zen butroia paratzeko'. ◆ **parada egin** (> *paradĭa in*). 1 (Kir.) Atezainak baloia gelditzea. 2 Ehiza txakurrak ehizagaiaren aurrean egiten duen geldialdia.

paragos, paragosa

EURITAKO

paraguas

paragos iz. Euritakoa. *Falta be ber dau emen paragosa* 'falta gabe behar du hemen euritakoa'.

paraiso, paraisua

PARADISU

zeru

paraíso, edén
paraíso, lugar agradable

paraiso 1 iz. Erl. Leku zerutarra. Ik. **zeru**. 2 iz. Toki edo egoera zoragarria, atseginez betea. *Au paraisua!* 'hau paradisua!'.

paraje, parajia

PARAJE

alderdi

paraje, lugar, sitio

paraje iz. *Paraje ederra da au maietzĭen* 'paraje ederra da hau maiatzean'. Ik. **alderdi**.

paralitiko, paralitikua

PARALITIKO

paralítico, -a

paralitiko adj./iz.

pare

PARE

pareja

par, pareja
lado, altura; enfrente, al otro lado

pare **1** iz. Batera doazen kideko izaki edo gauza biren multzoa. *Txokle pare bat* (Ond Bak). *Pantalon paria*.
2 (*pare bat* esapidean, kopuru txiki zehaztugabe bat adierazteko) *Gauza pare bat artu ta aldein zen* 'gauza pare bat hartu eta alde egin zuen'.
3 bekela. tontuen pare.
◆ **-en pareko**; *Horren parekoik eztok*.
4 Maila (a la par). *Neaure parĭen*.
Bota zuluen parea. Manon saboya, Baizan parien do (Ond Bak).
◆ **parean** / **-en parean** (> *parĭen* / *-en parĭen*) **1** adb. Lerro, garaiera edo maila berean. *Eskola parĭen bota da ankaz gwa* 'eskola parean bota da hankaz gora'. **2** (Konparaziotan). *Ixilo dok anaia ye paríen* 'isilago duk anaia hire parean'. Ik. **aldean** (> *aldĭen*).
◆ **pare-parean** (> *pare-parĭen*).
◆ **parez pare**. *Parez pare yon, jarri*. Ik. **aurrez aurre**.
◆ **parera** (> *parĭa*) adb. Lerro, garaiera edo maila berera. *Gostata, bea ailatu gindan ebeĭn parĭa* 'kostata, baina ailegatu ginen euren parera'.
◆ **pareti(k)** (> *pareti*). *Kendu pereti(k)*. ¬

paregabe, paregabia

PAREGABE

sin igual, sin par, único -a; excepcional, extraordinario, -a

paregabe adj. Parerik, berdinik ez duena.

pareja, parejia

BIKOTE; PARE

pare

pareja; dúo

pareja iz. Parea; bikotea. *A ze parejĭa!* 'a zer pareja!'. Ik. **pare**; **biko**.

parejakan
BIKOTEKA, PAREJAKA

binakan

por parejas, a parejas

parejakan adb. Bikoteka, parejaka. *Musĭen, parejakan* 'musean, parejaka'. Ik. **binakan**.

pareko, parekua
PAREKO

antzeko, kisako, moduko. 2 ondoko

semejante, análogo, -a, idéntico, -a, igual, comparable
contiguo, -a, inmediato, -a, lindante

pareko **1** adj. Kidekoa; maila berekoa. *Oiek parekwek dĭa, alkarren modukwek* 'horiek parekoak dira, elkarren modukoak'. ▲ Sin. *antzeko*, *kisako*, *moduko*. **2** adj. Parean dagoena. Ik. **ondoko**.

parentela, parentelia
SENIDE(AK), SENITARTE

senide, ahaide

parentela

parentela iz. Senide(ak), senitartea. ◆ **parentelakoak izan** (> *parentelakwek izan*). Ik. **senide**; **ahaide**.

pareta, paretia
PARETA

horma

pared

pareta (> *paeta*) iz. Ik. **horma**.

pareti
PARETIK

paretik (> *pareti*)

paretsu
PARETSU

igualtsu, berdintsu

más o menos igual; parecido, -a
en, hacia

paretsu **1** adb. Berdintsua, kidetsua. Ik. **igualtsu**; **berdintsu**. **2** pospos. (Lekuzko testuinguruetan). Pare. ◆ **paretsuan** (> *patsuen*) adb. *Erdi patsuen* 'erdialdean'. Ik. **pare**.

parez pare
PAREZ PARE

aurrez aurre

enfrente; frente a frente, cara a cara; de par en par

parez pare. Ik. **aurrez aurre**.

parezko, parezkua
PAREKO

semejante, análogo, -a; idéntico, -a; igual, comparable

parezko adj. Parekoa, kidekoa, maila berekoa. *Ezto orren parezkoĭk* 'ez dago horren parekorik'. *Oi langilĭa dok, orren parezkoĭk etxok* 'hori langilea duk, horren parekorik ez zagok'.

paria
PARERA

a la par de; a la altura de

parera (> *parĭa*) adb. Lerro, garaiera edo maila berera. *Gostata, bea ailatu gindan ebeĭn parĭa* 'kostata, baina ailegatu ginen euren parera'.

parien, -en parien

-EN PAREAN

a la par, a la misma altura (sentidos prop. y fig.)
en comparación con

parean / -en parean (> *parĭen / -en parĭen*) **1** adb. Lerro, garaiera edo maila berean. *Eskola parĭen bota da ankaz gwa* 'eskola parean bota da hankaz gora'. **2** (Konparaziotan). *Ixilo dok anaia ye parĭen* 'isilago duk anaia hire parean'. Ik. **aldean** (> *aldĭen*).

parke, parkia

PARKE

parque

parke iz. Aisiarako lekua. *Leno, jendiek ezakien parkĭa zer zanik-e* 'lehen, jendeak ez zekien parkea zer zenik ere'.

parra-parra

PARRA-PARRA

barra-barra

en abundancia, abundantemente; copiosamente

parra-parra adb. Ugari, ugaritasunez. Ik. **barra-barra**.

parra, parria

PARRA

mahats

parra (vid levantada y extendida)

parra iz. (Bot.) Hazten uzten den mahatsondoa. *Mats parrĭa* 'mahats parra'. *Etxeko balkona guztĭa artu dau parrĭek* 'etxeko balkoi guztia hartu du parrak. Ik. **mahats**.

parranda, parrandia

PARRANDA

juerga

parranda, juerga, diversión

parranda iz.

parrandazale, parrandazalia

PARRANDAZALE

fiestazale, juergista, parrandero, -a

juerguista

parrandazale adj./iz.

parrandero, parranderua; parrandera,

PARRANDERO; PARRANDERA

juergista

parrandero, -ra (Generoa hartzen du) adj./iz. Ik. **parrandazale**; **juergista**.

parrast

onomat. de descomposición, desmoronamiento, esparcimiento; del líquido al verterse

parrast onomat. Desegitearen, barreiatzearen, edo sakabanatzearen onomatopeia. ◆ **parrast egin** (> *parrast in*) *dau* ad. Barreiatu; desegin. Ik. **parrastatu**; **parrat**.

parrast in

desparramar(se); descomponer(se); desmoronar(se)

parrast egin (> *parrast in*) *dau* ad. Barreiatu; desegin. Ik. **parrastatu**; **parrat**.

parrastada, parrastadia

PARRASTADA

puñado; chorro; cantidad de líquido (tierra, grano, etc.) arrojada o derramada

parrastada iz. *Pintura parrastadia*. Ik. **parrastako**.

parrastako, parrastakua

TURRUSTA

chorro; cantidad de líquido (tierra, grano, etc.) arrojada o derramada

parrastako iz. *Bota dai laioti ur parrastako bat* 'bota dute leihotik ur turrusta bat.

parrastatu, parrastatzen

SAKABANATU

parrast in

desparramar(se); descomponer(se); desmoronar(se)

parrastatu *da* ad. Zerbaiten egitura desegin, desegituratu. *Egurra parrastatwik do* 'egurra parrastaturik dago'. *Yauria ber dau batzako lur kozkor oiek parrastatzeko* 'euria behar du baratzeko luz kozkor horiek parrastatzeko'. Ik. **parrast egin**.

parrat

PURRUT

tirarse un pedo
onomat. de rotura, quiebra, ruptura; fractura

parrat **1** onomat. Uzkerraren onomatopeia. *Uzkarra parrat* (eta *purrut*). **2** onomat. Hausturaren onomatopeia; suntsitzearen onomatopeia. *Paetiek parrat in dau* (*paetia bota in da*). Ik. **parrast**.

parrila, parrilia

ARRANPARRILA

parrilla

parrila (Bustidura gabe) iz. Parrila, arranparrila. Ik. **trebede**.

parroki, parrokia

PARROKIA

parroquia
clientela

parroki(a) **1** iz. Parrokia; erretore baten ardurapean dagoen eliza eta eliztarren multzoa. **2** iz. Bezeria; denda bateko, jatetxe bateko-edo erosleak, bezeroak; maiztasunez joan ohi direnak. *Leala da, gio, ferreteia orren parrokia* 'leiala da, gero, ferreteria [burdindegi] horren parrokia'.

parrokiano, parrokianua; parrokiana,

BEZERO

parroquiano, -a, cliente, -a de una tienda o establecimiento

parrokiano, -a (Generoa hartzen du) iz. Bezeroa. Ik. **kliente**. *Gu koperatibako parrokianuek gindan* 'gu kooperatibako parrokianoak ginen'.

parroko, parrokua

PARROKO

apiz

párroco; cura párroco

parroko iz. Erretorea. *Fijo don apiza da parrokwa* 'finko dagoen apaiza da parrokoa'. *Urdingo parroko in zaĭn* 'Urdiaingo parroko egin zuten'. Ik. **koajutore**.

parte

PARTE

1 zati, puska, porzio

parte, pedazo, porción
paraje, zona, sitio, parte
tiempo, temporada
notificación, informe, comunicación || noticiario, diario hablado

parte **1** iz. Zatia. *Zorran parte bat...* 'zorraren parte bat'.
Bi partetan, bi aldetan. Ik. **zati**; **puska**; **porzio**.
2 iz. Senipartea. *Partĭa eman* 'partea eman'. *Etxeko erenzien partĭa eman* 'etxeko herentziaren partea eman'.
3 iz. Alderdia, aldea. Paraje
4 Uda partien...
5 iz. Albistegia. *Partĭá*. *Radĭoko partĭen esan dai Franco il dala* 'irratiko partean [albistegian] esan dute Franco hil dela'.
◆ **parte eman** *dau* ad. Berri eman, jakinarazi, gehienbat agintariei.
◆ **parte hartu** *dau* ad. Egiteko baten zereginetan besterekin batean aritu. *Gue etxekuek eztai artu parteik* 'gure etxekoek ez dute hartu parterik'.
◆ **-en parteti(k)**. **1** -en aldetik. *Ne partetik, e'nĭan emanko* 'nire partetik, ez nion emango'. **2** -en izenean. *Emaiotzin gwntziek amai ne partetik* 'emazkion goraintziak amari nire partetik'.
◆ **-en partez** (eta *-en portez*) -en ordez. *Ardwen partez, ura yaten dot nik* 'ardoaren partez, ura edaten dut nik'. Ik. **ordez**.

parte eman

PARTE EMAN

notificar, comunicar, anunciar, dar parte; dar aviso a la autoridad

parte eman *dau* ad. Berri eman, jakinarazi, gehienbat agintariei.

parte hartu

PARTE HARTU

tomar parte, intervenir, participar

parte hartu *dau* ad. Egiteko baten zereginetan besterekin batean aritu. *Gue etxekuek eztai artu parteik* 'gure etxekoek ez dute hartu parterik'.

partez

-EN PARTEZ

ordez

en vez de, en lugar de
de parte de, en nombre de

-en partez (eta *-en portez*) -en ordez. *Ardwen partez, ura yaten dot nik* 'ardoaren partez, ura edaten dut nik'. Ik. **ordez**.

partida, partidia

PARTIDA

partida (juego, deporte, competición)

partida iz. *Jokatu ber du partidĭa* 'jokatu behar dugu partida'. *Mus partidĭa* 'mus partida'. Ik. **partido**.

partido, partidua

PARTIDU

1 apustu. 2 alderdi

partido, competición
partido

partido **1** iz. Partido; partida, apustua; bi lagunen edo bi talderen arteko kirol norgehiagoka. *Pilota partidwek* 'pilota partidak'. Ik. **apustu**; **partida**. **2** iz. Partidua, alderdia. *Partido politikwek* 'partidu politikoak'. Ik. **alderdi**.

partikular, partikularra

PARTIKULAR

clases particulares
(pertsona) particular

partikular **1** adj./iz. Publikoa ez dena; era pribatuan erabiltzen dena. *Eskola partikularrak. Klase partikularrak ematen zeaun maisuek eskola orduek despeituta* 'klase partikularrak ematen zigun maisuak eskola orduak despedituta'. Ik. **pribatu**. **2** iz. Pertsona partikularra. *Partikular batek eman zen dirua ermitĭen teilatua konpontzeko* 'partikular batek eman zuen dirua ermitaren teilatua konpontzeko'.

partitu, partitzen

PARTITU

banatu

partir, dividir
repartir, distribuir, dar

partitu *dau* ad. Banatu. Ardua partitu; jana partitu, ogia partitu. Ondokan partitu (Ond Bak). Mundu hau izan ber zaken: danoindako partitu igual-iguala. Ik. **banatu**; **zatitu**; **dibiditu**.

partitzaile, partitzailia

PARTITZAILE

banatzaile; emataile

repartidor, -a

partitzaile 1 iz. Banatzailea. *Ardo partitzaile, banatzaile* Ik. **buruzai** (Bakaiku). *Odolki partitzaile ibil nitzan* 'odolki partitzaile ibili nintzen'. ▲ Sin. *banatzaile*. 2 adj. *Partitzailĭa da, ezta batere gordetzailĭa* 'partitzailea da, ez da batere gordetzailea'. ▲ Sin. *emataile*.

partizio, partiziua

PARTIZIO, BANATZE, BANAKETA

banatze

partición, reparto

partizio iz. Banaketa. partiziuek in (ondasunak banatu).
– (banaketa)

partxe, partxia

PARTXE

abadeki

parche, remiendo; petacho
emplasto, cataplasma, vendaje

partxe **1** iz. Adabakia. *Bizikletĭen pintxazwek konpontzeko partxĭek yosi tut* 'bizikletaren zulatuak konpontzeko partxeak erosi ditut'. Ik. **adabaki**. **2** iz. Enplastua, mantarra.

partz, partza

BARTZ

liendre, huevo de piojo

partz iz. Bartza, zorriaren arrautza. *Txumĭa partzez beteta duka* 'txima [ilea] bartzez beteta dauka'.

parzela, parzelia

PARTZELA, LURZATI

parcela

partzela (> *parzela*) iz. Lurzatia, lursaila. *Katastruen ondo jasota de parzela oiek* 'katastroan ondo jasota daude partzela horiek'. ◆ **partzelak egin** (> *parzelak in*). Patzelatu, sailetan zatitu. *«Parzelaria» iteko garaien in zian parzelak* '«partzelaria» [partzelak biltzeko lanak] egiteko garaian egin ziren partzelak'.

parzelak in

PARTZELAK EGIN, PARTZELATU

parcelar

partzelak egin (> *parzelak in*). Patzelatu, sailetan zatitu. *«Parzelaria» iteko garaien in zian parzelak* '«partzelaria» [partzelak biltzeko lanak] egiteko garaian egin ziren partzelak'.

parzelaria / parzelaia

LUR BILTZE, PARTZELAK BILTZE

parcelaria, concentración parcelaria

parzelaria (> *parzelaia*) iz. Lur biltzea; lursail txikiak biltzea, laborantza errazteko asmoarekin. *Urdinen, 1965ien in zan parzelaia* 'Urdiainen, 1965ean egin zen «parzelaria» [lur biltzea]'. [concentración parcelaria]. ◆ **parzelariako bide** (> *parzelaiako bide*). Herriko dermioan, «parzelaria» eremuko bidea. *Zabaleran, parzelaiako bidĭa gurdibidĭen bi alako izankwa* 'zabaleran, parzelariako bidea gurdibidearen bi halako izango da'.

pasa (2)

PASA

pasado, -a; largo, -a; (poco) más de

pasa[2] adb. (Kopuru bat edo denbora-tarte bat adierazten duen sintagma baten eskuinean). Baino gehiago. *Mila euro pasa zor duatzi* 'mila euro pasa zor dizkit'. *Bi ilabete pasa diatzi agertube* 'bi hilabete pasa daramazki agertu gabe'. *Seiek pasa izango zĭan* 'seiak pasa izango ziren'. Ik. **pasatu**; **pasatxo**.

pasa / pase, pasia (3)

PASE

pase (de aves migratorias)
pase (permiso)

pasa[3] / **pase** (> *pasĭa*) **1** iz. Hegaztiak, negua igaro behar duten lekura bidean, toki jakin batetik igarotzea. *Uso pasĭa* 'uso pasea'. **2** iz. Pasea; zenbait lekutan sartzeko aurkeztu behar den agiria. **3** iz. Pasa, mahaspasa. Ik. **pats**; **mahatspats**. ◆ **pasako** adj. Paseko hegaztia. *Pasako uswa* 'paseko usoa'.

pasabide, pasabidia

PASABIDE

paso; 2 bizibide, bizimodu

pasaje, tránsito, (camino de) paso
sustento, modo de ganarse el sustento

pasabide **1** iz. Igarobidea. *Ementxe yoten zan lenó errekako pasabidĭa* 'hementxe egoten zen lehenago errekako pasabidea'. Ik. **paso**. **2** iz. Bizi ahal izateko bidea. Bizitzen segitzeko, dirua edo baliabideak izan. *Bizitzeko pasabidĭa*. Ik. **bizibide**; **bizimodu**.

pasada, pasadia

PASADA. 2 PASALDI

paliza, somanta

paliza, zurra, somanta
pasada (limpieza, lavado, de pintura); repaso

pasada **1** iz. Jipoia, astinaldia. Ik. **paliza**; **somanta**. **2** iz. Pasaldia.

pasadizo, pasadizua

PASADIZOAN [?] / PASABIDE [?]

de paso / pasadizo [?]

pasadizo (AG) [adb. Pasadizoan, pasaeran?] / [iz. Pasabidea?].

pasadore, pasadoria

IRAZTONTZI. 2 MORROILO

2 murrilo. 3 zi

colador, pasador
cerrojo
perno; clavija

pasadore **1** iz. Iragazkia, iraztontzia. *Esenĭa pasatzeko pasadorĭa* 'esnea pasatzeko pasadorea [iragazteko ontzia]'. **2** iz. Morroiloa. Ik. **murrilo**. **3** iz. Kabila, ziria. Ik. **ziri** (> *zi*).

pasaera, pasaeria

PASAERA

pasaje, tránsito, (camino de) paso

pasaera (eta *pasagera*) iz. Pasatzea, igarotzea. ◆ **pasaeran** (eta *pasageran*) adb. Pasatzean, igarotzean. *Paseran, aldio, dioselia iten geau* 'paseran, aldiro, diosala egiten digu'.

pasagarri

PASAGARRI

pasable, aceptable, mediocre

pasagarri adj. Neurri batean onar daitekeena. *Pasagarri do* 'pasagarri dago'. *In dezun lana pasagarri do* 'egin duzun lana pasagarri dago'. *Zopĭa epeltxo do, bea pasagarri* 'zopa epeltxo dago, baina pasagarri'.

pasaje (2)

PASAERAN

de paso; al pasar

pasaje[2] adb. Pasaeran, pasatzean. *Ni pasaje ta han ikus nituen biek hizketan (banendiyuala). Etxe eskinati pasaje aitwot sukaldeko usaia.*

pasaje, pasajia (1)

IBI, PASABIDE; 2 PASARTE

paso

vado (de río)
pasaje, fragmento; párrafo

pasaje[1] iz. Ibia, ibaiko pasabidea. *San Pedroko pasajĭa: San Pedro bidĭen, ibaia pasatzeko pasajĭa zon, aitzarrizko kwadrwekin indakwa* (*ibaiko arriek*) 'San Pedroko pasajea: San Pedro bidean, ibaia pasatzeko pasajea zegoen, kareharrizko koadroekin egindakoa (ibaiko harriak). Ik. **paso**[1]. **2** iz. Pasartea; idazlan baten zatia, halako batasuna agertzen duena. *Libuen pasaje batzuk laĭtu zituen* 'liburuaren pasarte batzuk leitu zituen'.

pasako, pasakua

PASEKO

de paso, migratorio, -a; ave migratoria

pasako adj. *Pasako uswa* 'paseko usoa'.

pasakor, pasakorra

PASAKOR

transitorio, -a; pasajero, -a

pasakor adj. Igarokorra. *Minok pasakorrak dĭa* 'min hauek pasakorrak dira'.

pasaporte, pasaportia

PASAPORTE

pasaporte

pasaporte iz. *Emendi Bizkaia fateko pasaportĭa ber ziken* 'hemendik Bizkaira joateko pasaportea behar zuan'.

pasapure, pasapuria

PUREGAILU, PURE-EGITEKO

pasapurés

pasapure iz. Puregailua, pure egiteko tresna. *Patata puria iteko obia da pasapuria batidoria baindo* 'patata purea egiteko hobea da puregailua batidora [irabiagailua] baino'.

pasatu, pasatzen

PASATU

gertatu

pasar; cruzar, atravesar; transitar
pasar; colar, filtrar; cerner
pasar ; sufrir, soportar
suceder, ocurrir, pasar
engañar

pasatu **1** *da/dau* ad. Igaro, iragan. *Trena pasatu zakiten (neri), bi tren pasatu zakitzaten (neri). Zuri trena pastu zakizun*. (Ond Bak). *Obe dezu orti ez pasatu* 'hobe duzu hortik ez pasatu'. *Denboria pasatu* 'denbora pasatu'. *Negua pasatu da. Emen ge, denbora pasa* 'hemen gaude, denbora pasa'. Ik. **denbora pasa**. **2** *dau* ad. Pasarazi, igaroarazi; zerbait toki batetik bestera eraman. *Autsa kentzeko trapua pasatu* 'hautsa kentzeko trapua pasatu'. *Txapelia pasatu* 'txapela pasatu'. *Pasa balona!* 'pasa baloia!'. || Iragazi; bahetu. *Ina pasatu* 'irina pasatu'. Ik. **filtratu**. **3** *dau* ad. Igaro, jasan. *Ondo pasatu du eguna* 'ondo pasatu dugu eguna'. *Gorriek pasatu zituain* 'gorriak pasatu zituzten'. *Portugalen pasatu tu aurtengo oporrak* 'Portugalen pasatu ditu aurtengo oporrak'. **4** *da* ad. Gertatu, jazo. *Zer pasatu zaizu? Májo pasatu zaik!* [Aurrez ikus zitekeen ondorioa kontuan ez hartzeagatik]. Ik. **gertatu**. **5** *dia* ad. Ziria sartu. Ik. **sartu**. *Ederra pasatu jiak* 'ederra pasatu ziok'.

pasatxo

PASATXO

pasado, -a; largo, -a; (poco) más de

pasatxo adb. Adkor. Baino gehiago. *Kilo bat ziza pasatxo ekar dau* 'kilo bat ziza pasatxo ekarri du'. *Ilabete pasatxo yon dia kanpwen* 'hilabete pasatxo egon dira kanpoan'. Ik. **pasa**.

pasazi

PASARAZI

hacer pasar

pasazi *dau* ad. Pasarazi. *Nolakwek pasazi diatzien! (gorriek yakusi)* 'nolakoak pasarazi dizkion! (gorriak erakutsi)'. *Sukaldia pasazi jwanai ta* 'sukaldera pasarazi zidatek [naitek] eta'.

paseatu, paseatzen

PASEATU

pasien ibili

paseatu (eta *pasiatu*) *da/dau* ad. – pasien 'paseatzen'. Hemen gaitza, pasien. Leheno ezaken pasiatzen.
– pasia yan, ata. Txakurra pasia ata.

paseo, paseua

PASEO

pasialdi, buelta

paseo, caminata

paseo iz. Paseatzea, ibilaldia. Ik. **pasealdi** (> *pasialdi*); **buelta**.

pasia

PASIERA*; PASEATZERA

a pasear

pasia (aditz lokuzioetan) Paseatzera. *Pasĭa fan*. ◆ **pasiera*** **eraman**; **atera** (> *pasĭa yan; ata*). *Txakurra pasia ata*. ◆ **pasien (ibili, fan, etorri...)** adb. Pasieran, paseatzen, paseatzera, paseatuz. *Pasien-pasien*.
Ik. **paseatu**; **pasien ibili**. ¬

pasialdi, pasialdia

PASEALDI

paseo, buelta

paseo, caminata

pasealdi (> *pasĭaldi*) iz. Paseatzea, pasiera. *Pasĭaldi ona in du* 'pasealdi ona egin dugu'. *Pasĭaldi luzĭa in du* 'pasealdi luzea egin dugu'. Ik. **paseo**; **buelta**.

pasialditxo, pasialditxua

PASEALDITXO

paseo corto, paseíto

pasealditxo (> *pasialditxo*) iz. Pasealdi motza. *Pasialditxo bat iten dai gosaldu aurreti* 'pasealditxo bat egiten dute gosaldu [hamarretako / hamaiketako otordua] aurretik'.

pasiatu, pasiatzen

PASEATU

pasear

pasien

PASEAN

paseando

pasien adb. Pasean, paseatzen. *Inguen leku ederrak de pasien ibiltzeko* 'inguruan leku ederrak daude pasean ibiltzeko'. ◆ **pasien ibili**. Pasean ibili. *Pasĭen ibiltzen dĭa basoti* 'pasean ibiltzen dira basotik'. Ik. **paseatu**.

pasien ibili

PASEOAN IBILI, PASEATU

paseatu

andar paseando

pasien ibili. Pasean ibili. *Pasĭen ibiltzen dĭa basoti* 'pasean ibiltzen dira basotik'. Ik. **paseatu**.

pasillo, pasillua

KORRIDORE, PASILLO

pasillo

pasillo iz. Korridorea. *Ezkatzeko pasillwa* 'ezkaratzeko pasilloa'. *Ganbako pasillwa* 'ganbarako pasilloa'. *Ganbazelaiko pasillwa* 'ganbarazelaiko pasilloa'. Ik. **ezkaratz** (> *ezkatz*); **ganbarazelai** (> *ganbazelai*).

pasio, pasiua

PASIO

2 gogo

pasión de Jesucristo
pasión, ansia

pasio **1** iz. Jesu Kristoren nekaldia. *Jesu Kriston pasiua* 'Jesu Kristoren pasioa'. **2** iz. Irrika, grina. *Abĭasteko pasiua* 'aberasteko pasioa'. *Orrek duka, orrek, abĭasteko pasiua!* 'horrek dauka, horrek, aberasteko pasioa!'. Ik. **gogo**.

pasmatu, pasmatua
USTEL (ZURA, EGURRA)

podrido, -a, putrefacto, -a, descompuesto, -a (madera, leña, etc.)

pasmatu adj. Ustela. *Egur pasmatua. Aria galdwik izaten dau egur pasmatuek* 'haria galdurik izaten du egur pasmatuak'.

pasmatu, pasmatzen
USTELDU (ZURA, EGURRA)

pudrirse, descomponerse (la leña, la madera)
podrido, -a, putrefacto, -a, descompuesto, -a (madera, leña, etc.)

pasmatu **1** *da* ad. Zura edo egurraz ari garela, usteldu. **2** adj. Ustela. *Egur pasmatua. Aria galdwik izaten dau egur pasmatuek* 'haria galdurik izaten du egur pasmatuak'.

pasmo-belar, pasmo-belarra
PASMO-BELAR

murajes

pasmo-belar iz. (Bot.) (Anagallis arvensis). *Mataia kentzeko ibiltzen dan bĭarra.*

paso
PASO

¡paso!
pasar, no mostrar interés; no hacer caso, renunciar

paso[2] interj. Karta-jokoan erabiltzen den hitza. ◆ **paso egin** (> *paso in*).

paso, pasua
IGAROBIDE, PASABIDE

pasaje

pasaje, tránsito, (camino de) paso
vado

paso[1] iz. Pasabidea. Ik. **pasaje**[1]. ◆ **pasoa itxi** (> *paswa itxi*). **1** Norbaiti edo zerbaiti igarotzea eragotzi. **2** Buxatu. Ik. **zegatu**.

pasodoble, pasodoblia
PASODOBLE

pasodoble

pasodoble iz. Martxa-musikaren erritmoan egiten den dantza, jatorriz Espainiakoa.

pasonibel, pasonibela
TRENBIDE PASAGUNE, PASONIBEL

paso a nivel

pasonibel iz. Trenbide pasagunea; trenbideak bide edo errepide bat sestra berean gurutzatzen duen gunea. *Peligru aundia yoten da pasonibeletan* 'peligru handia egoten da trenbide pasagunetan'.

pasta, pastia
PASTA, ORE

masa, ora

pasta, masa
pasta (dulce)

pasta **1** iz. Ik. **masa**; **ora**. **2** iz. (pl.) iz. Tamaina txikiko jaki gozoa. *Pasta kajĭa* 'pasta-kaxa'.

pastarrotz, pastarrotza
BASTA ORRATZ

aguja saquera; aguja colchonera

pastarrotz iz. Basta orratza, zakuak-eta josteko edo ehuntzeko erabiltzen den orratza. {(Iza Alts). "Aguja para coser sacos"}. Ik. **kaporratz**.

pastel, pastela

PASTEL

pastel

pastel iz. Ik. **opil**.

pasteleia

GOZOTEGI, GOZO DENDA

konfiteia

pastelería, confitería

pasteleria (> *pasteleia*) iz. ▲ Sin. *konfiteia*.

pastila, pastilia / pastilla, pastillia

PASTILLA

ontza; 2 pildora (botika)

pastilla (porción)
pastilla, píldora (medicinal)

pastila (eta *pastilla*; [*pastila*, *pastilĭa*] busti gabeko aldaera ere) **1** iz Ore gotor baten zati txikia. *Txokolate pastilĭa / pastillĭa, txokolate-ontza*. Ik. **ontza**. **2** iz. Sendagaia edo kidekoa daukan ale txikia. *Medikuek ata dwatzi patillak* 'medikuak atera dizkit pastillak'. *Tensiuendako pastilla erdi bat artzen dau* 'tentsioarendako pastilla erdi bat hartzen du'. Ik. **pildora**.

patata lasto, patata lastua

PATATA LANDARE (IHARTUA)

planta seca de patata

patata lasto. Patataren landarea, bereziki ihartua. *Gwaindo berde do patata lastwa* 'oraindik berde dago patata lastoa'. Ik. **patata-planta** [patata-planta (EHHA)].

patata planta

PATATA LANDARE

planta, mata de patata

patata planta. Patataren landarea. Ik. **patata-lasto**.

patata, patatia

PATATA

patata (Solanum tuberosum)
patata (tubérculo)

patata **1** iz. (Bot.) Landare urterokoa (Solanum tuberosum). *Patata lastwa* 'patata lastoa'. *Patatĭen eskarabajwa* 'patataren zomorroa'. **2** iz. Landare horren tuberkulua. *Lur zuriko patatĭa, hobena* 'lur zuriko [tupa ugari duen lurreko] patata, hoberena'. || pl. Janari gisa prestatzen dena. *Porru-patatak asko gustatzen zaizkio*. ◆ **patata lasto**. Patataren landarea, bereziki ihartua. *Gwaindo berde do patata lastwa* 'oraindik berde dago patata lastoa'. [patata-planta (EHHA)]. ◆ **patata planta**. Patataren landarea. ◆ **patata-tortilla**. *Patata-tortillĭa*.

patatatze, patatatzia

PATATA SAIL, PATATA SORO

patatal, patatar (campo donde se ha cosechado patata)

patatatze [Bakaiku, Urdiain] iz. Patata uzta bilu den soroa. {"Campo donde se ha cosechado patata" (Ond Bak)}.

patatero, pataterua

PATATA-SALTZAILE

patatero, -a

patatero iz./adj. Patata-saltzailea.

pate hondo, pate hondua

PLATER SAKON

plato hondo

pate hondo (> *pate ondo*) iz. Plater sakona.

pate liso

PLATER ZAPAL

plato llano

pate liso iz. Plater zapala.

pate, patia

PLATER

plato

pate (eta *pater* [Bakaiku]) iz. Platera. *Garbitzen ibiltzen danak austen tu patĭek* 'garbitzen ibiltzen denak hausten ditu platerak'. • Esr. zah. *Santageda, urdaia patera*. ◆ **pate liso** iz. Plater zapala. ◆ **pate hondo** (> *pate ondo*) iz. Plater sakona. ◆ **pate txiki** iz. *Pate txikia, postreko patĭa, platillwa*.

patekada, patekadia

PLATERKADA

plato, contenido de un plato lleno

patekada (eta *paterkara* [Altsasu]); *paterkada* [Bakaiku]) iz. Platerkada. *Paterkáda majuá dekazú* (Ond Bak).

patena, patenia

PATENA

patena

patena iz. Urrezko, zilarrezko edo metal urreztatuzko platertxoa, ostia jartzeko erabiltzen dena. *Patenĭa baindo're garbio* 'patena baino (ere) garbiago'.

patente, patentia

PATENTE

patente; matrícula (placa identificativa de un vehículo)

patente iz. Garai bateko ibilgailuetan, erregistro zenbakia adierazten zuen plaka. *Biziketĭendako patentĭa; gurdien patentĭa* 'bizikletarendako patentea; gurdiaren patentea'. *Leheno, biziketia zukanak preziso ata ber zen patentia* 'lehen, bizikleta zeukanak preziso atera behar zuen patentea'. Ik. **matrikula**.

pater

PLATER

pater [Bakaiku] iz. Platera. Ik. **pate**.

patera, pateria

ARDIEN ITZEMIN; BEHIEN HANKAKO MIN

patera (enfermedad de la pezuña de los ovinos y bovinos)

patera iz. Ardien itzemina; behien hankako mina. Animalien apatxetan, behatz arteko gunean, sortzen den infekzioa. *Zotalekin tratatzen tuai ardiek pateraĭk ez sortzeko* 'zotalekin [desinfektatzaile baten marka] tratatzen dituzte ardiak paterarik ez sortzeko'. Ik. **hankako min**.

patin, patina

IRRISTAILU, PATIN

patineta

patín, patines

patin iz. pl. Irristailua. *Patinak*. Ik. **patineta(k)**.

patinatu, patinatzen

PATINATU

patinar, deslizarse

patinatu *dau* ad.

patineta, patinetia

IRRISTAILU, PATIN

patín, patines

patineta iz. pl. *Patinetak*. ▲ Sin. *patina(k)*.

patio, patiua

PATIO (ESKOLARENA)

patio (de recreo; de la escuela)

patio (> *patĭo*, *patiua*) iz. Eskolako jolastokia. *Rekreo garaia ematen genduen eskolako patiuen* 'errekreo garaia [eskola ordutako jolas-ordua] ematen genuen eskolako patioan'. || *Emen etxok patioik* 'hemen ez zegok patiorik'. Ik. **etxarte**.

pato haundi, pato haundia

AHATE HANDI, BASAHATE

ánade real, azulón (Anas platyrhynchos) (?)

pato haundi. Ahate handia, basahatea (Anas platyrhynchos) (?).

pato txiki, pato txikia

AHATE (MOTA)

uata

pato (de río)

pato txiki. Ahate txikia. Ik. **uhata**.

pato, patua

AHATE

ata

pato, ánade

pato 1 iz. Ahatea (Anas sp.). *Ur-pato bat* (Ond Bak). 2 adj. Pertsona traketsa, baldarra. *Pertsona patwa* [ibileragatik]. ◆ **pato haundi**. Ahate handia, basahatea (Anas platyrhynchos). ◆ **pato txiki**. Ahate txikia. Ik. **uhata**.

patron, patrona

PATROI

1 txantillon, plantilla

patrón, plantilla, modelo
jefe, amo, señor

patron **1** iz. Eredua. *Soinekwen patrona* 'soinekoaren patroia'. Ik. **txantillon**; **plantilla**. **2** iz. Nagusia, ugazaba.

patrona, patronia

UGAZABANDRE; PATROI

etxekoandra

patrona (f. Dueña de la casa donde alguien se aloja u hospeda)
patrón, -ona (Santo elegido como protector de un pueblo)
patrón (Modelo que sirve de muestra para sacar otra cosa igual)

patrona **1** iz. Ugazabandrea, emakumezko ugazaba. Ik. **etxekoandra**. **2** iz. (Erl.) Patroia; santuez mintzatuz, zaindaria. *Patronĭa*. *Herriko patrona eguna* (EHHA). Ik. **herriko fiestak**. **3** iz. Patroia, eredua. *Seinekwen patronĭa* 'soinekoaren patroia'.

patrulla, patrullia

PATRUILA

patrulla

patrulla iz. Patruila. *Soldau patrullĭa* 'soldadu patruila'.

patrullatu, patrullatzen

PATRUILATU

patrullar

patrullatu *dau* ad. Patruilatu, patruila-lanak egin.

pats, patsa / pasa

PASA

paso, -a (de fruta: higo paso; uva pasa, ciruela pasa, etc.)

pats (eta *pasa*) adj. *Fruta patsak: maspatsak, okanpatsak, pikupatsak* 'fruta pasak: mahaspasak, okaranpasak, pikupasak'.

pattal

PATTAL

makal, ahul — *sendo, fuerte, indartsu*

enfermo, -a, débil, indispuesto, -a

pattal **1** adj. Ahula, makala, indargabea. **2** adb. Ahul, makal. ▲ Sin. *makal*, *ahul*. ▼ Anton. *sendo*, *fuerte*, *indartsu*.

pattaldu, pattaltzen

PATTALDU

ahuldu, makaldu — *sendotu, fuertetu*

caer enfermo, debilitarse, decaer

pattaldu *da* ad. Ahuldu, makaldu. ▲ Sin. *ahuldu*, *makaldu*. ▼ Anton. *sendotu*, *fuertetu*.

pattar, pattarra

PATTAR

aguardiente

pattar (eta *patxar*) iz. *Atatazu patxar pixkat* 'atera ezazu pattar pixka bat'.

patu, patzen

PARATU; PAGATU; PRESTATU, PREPARATU

2 pagatu, ordaindu (?). 3 prepatu — *1 kendu*

poner(se), colocar(se), situar(se)
pagar, abonar
preparar, elaborar
plantar

patu **1** *da/dau* ad. Paratu, jarri. Ik. jarri.▼ Anton. *kendu*.
Eztau patu beatzén. Hogien patzen dan oihala (Ond Bak).
Arropak sekatzen patzeko denbwa txarra do 'arropak lehortzen paratzeko eguraldi txarra dago'.
2 *dau* ad. Ordaindu. Ik. **pagatu**.
Patu bér lakéi 'liokete'. Patu bér lake 'lioke' (Ond Bak).
3 *dau* ad. Prestatu. *Bazkaia patu* 'bazkaria paratu'. Ik. **preparatu** (> *prepatu*).
4 *dau* ad. (Landareengatik esanda). Landatu. *Ziento bat porru patu tu* 'ziento bat porru paratu [landatu] ditu'.

patuazi

PAGARAZI. 2 IPINARAZI

hacer pagar, obligar a pagar
obligar a poner; obligar a colocar

patuazi (> *patwazi*) **1** *dau* ad. Pagarazi, ordainarazi, ordaintzera behartu. *Zorra patwazi* 'zorra pagarazi'. **2** *dau* ad. Paratu arazi, ipinarazi, paratzera behartu. *Mugarria be tokien patwazi dĭai* 'mugarria bere tokian paratu arazi diote'.

patx, patxa

PAGOTXA

trébol encarnado (Trifolium incarnatum)

patxada, patxadia

PATXADA

cachaza, pachorra
calma, tranquilidad

patxada **1** iz. Ezergatik larritzen ez den pertsonaren tasuna. *Patxada aundiko mutila da* 'patxada handiko mutila da'. **2** iz. Lasaitasunezko egoera. *Emen ge, patxada ederrĭen* 'hemen gaude, patxada ederrean'. - patxadaz (?)

patxaran, patxarana

PATXARAN

pacharán

patxaran iz. *Patxarana iteko, an onduek ta anis korrientĭa besteik ezta ber* 'patxarana egiteko, aran [basaran] onduak eta anis korrientea besterik ez da behar'. *Igualekwa da etxĭen inioko / indako patxarana* 'igualekoa da etxean egindako patxarana'.

patxi, patxia / paxi, paxia

PAGAZI, PAGATXA

hayuco

patzaile, patzailia

PAGATZAILE

pagador, -a

patzaile iz. Pagatzailea, pagatzen duen pertsona.

patzeko

PAGATZEKO, PAGAKIZUN

pagu

cantidad que se debe, deuda

pagatzeko (> *patzeko*) iz. Pagakizun, ordainkizun; ordaintzekoa, ordaintzeko dagoen gauza. Ik. **pagu**.

pauso, pausua

PAUSO

paso

pauso iz. *Ezta gauza bi pauso emateko're* 'ez da gauza bi pauso emateko ere'. Ik. **zankada**.

pausokan

PAUSOKA

oinez

caminando, dando pasos, paso a paso

pausokan adb. Pausoka. *Pausokan fan berrĭen, gwai autwen faten dĭa* 'pausoka joan beharrean, orain autoan joaten dira'. ◆ **pausoka ikasi** (> *pausokan ikasi*). *Aurrak pausokan ikas dau* 'haurrak pausoka ikasi du'. Ik. **oinez**.

paxa, paxia

FAXA, GERRIKO, GERRUNTZE

faja (prenda)

paxa iz. Haurrairi patzen zezaion paxiá. (Fajita con amuletos y símbolos religiosos. Se ponía antiguamente a los niños para llevarlos a bautizar. Se conservan algunos ejemplares en Urdiáin. JMS).

paxo, paxua

SORTA

sorta

manojo, fajo, ramo, ramillete

paxo iz. Sorta. *Abar paxua, ezpartuekin lotuta*. ▲ Sin. *sorta*.

pazienzia

PAZIENTZIA

paciencia, aguante

pazientzia (> *pazĭenzia*) iz. Eragozpenak eramateko bertutea; patxadaz itxaroteko edo eginkizun neketsu batean irauteko gaitasuna. *Pazĭenzia gutxi*; *pazĭenzia haundia / asko*. *Nerbĭoswa da, ta pazĭenzia gutxi duka* 'urduria da, eta pazientzia gutxi dauka'.

pazko egun, pazko eguna

EGUBERRI

Gaubon, Eguarri

día de Navidad

pazko egun. Eguberri eguna, abenduaren 25a. *Gaubonetako pazkua* 'Gabonetako pazkoa'. Ik. **Gaubon**; **Eguarri**.

Pazko Maietzeko, Pazko Maietzekua

PAZKO MAIATZEKO

Pascua de Pentecostés

Pazko Maietzeko. Mendekoste eguna.

pazko opil, pazko opila

PAZKO OPIL

panecillo o torta especial que las madrinas regalaban a sus ahijados o ahijadas por Año Nuevo

pazko opil. Ama pontekoak besoetakoari urte berri egunean opari egiten dion opil berezia [(Bollo que ofrecía la madrina a su ahijado, por Año Nuevo, hasta los siete años. JMS].

pazko, pazkua

PAZKO

Pascua

pazko iz.

◆ **Aste Santuko Pazko**. Pazko Garizumako.

◆ **pazko egun**. Eguberri eguna, abenduaren 25a. *Gaubonetako pazkua* 'Gabonetako pazkoa'. Ik. **Gaubon**; **Eguarri**.

◆ **Pazko Maietzeko**. Mendekoste eguna.

◆ **pazko opil**. Ama pontekoak besoetakoari urte berri egunean opari egiten dion opil berezia [(Bollo que ofrecía la madrina a su ahijado, por Año Nuevo, hasta los siete años. JMS].

-pe

-PE (ATZIZKIA)

-pe, sufijo que denota «debajo de, bajo; parte de abajo»

-pe (atzizkia). 'Zerbaiten azpia, beheko aldea' adierazten duten izenak sortzen ditu. Adibideak: *aterpe*, *elurpe*, *galtzarpe*, *ilunpe*, *lainope*, *hankape*. Ik. **-be**. *Losa azpien eta losapien* 'lauza azpian eta lauza pean'.

pedal, pedala

PEDAL

pedal

pedal iz. Oinaz eragiten zaion palanka edo bestelako atala. Biziketien pedalak 'bizikletaren pedalak'. *Eman fuerte pedalairi* 'eman fuerte [indartsu] pedalei'. *Josteko makinĭen pedala* (=korrea) 'josteko makinaren pedala'. ◆ **pedalairi eman** ad. lok. Pedalei eman, pedalei eragin. *Sillineti ez yusten, ta pedalairi ematen biziketĭen barra azpiti ibiltzen gindan* 'aulkitik ez iristen, eta pedalei ematen bizikletaren barra azpitik ibiltzen ginen'.

pedalairi eman

PEDALEI EMAN, PEDALEI ERAGIN

pedalear

pedalairi eman ad. lok. Pedalei eman, pedalei eragin. *Sillineti ez yusten, ta pedalairi ematen biziketĭen barra azpiti ibiltzen gindan* 'aulkitik ez iristen, eta pedalei ematen bizikletaren barra azpitik ibiltzen ginen'.

peka, pekia

PEKA

orista

peca, lunar

peka iz. Ik. **orista**.

pekatai, pekataia

BEKATARI

pecador, -a

pekatari (> *pekatai*) iz./adj. Bekataria; bekatuan dagoena edo bekatu egin ohi duena.

pekatsu, pekatsua

PEKATSU

oristadun

pecoso, -a

pekatsu adj. Oreztaz betea. *Emakumĭoi, bai pekatsua dana!* 'emakume hori, bai pekatsua dena!'. Ik. **oristadun**.

pekatu, pekatua

BEKATU

pecado

pekatu [Urdiain] iz. Ik. **bekatu**. **1** iz. Jainkoaren legearen edo Elizaren aginduen ohartuzko haustea. **2** iz. Hutsegitea.

◆ **pekatua egin** (> *pekatua in*). Bekatu egin. *Pekatua in da ez konfesatu* 'bekatu egin eta ez konfesatu'.

◆ **pekatua ibili** [eduki]. *Pekatua jukak* 'bekatua zaukak' (zerbait gaizki egin duenagatik).

◆ **pekatu larria**.

◆ **pekatu mortala**.

◆ **pekatu txikia**. Bekatu arina, larria ez den bekatua.

pekatua in

BEKATU EGIN

pecar

pekatua egin (> *pekatua in*) *dau* ad. Bekatu egin. *Pekatua in da ez konfesatu* 'bekatu egin eta ez konfesatu'.

pelatu, pelatzen

PELATU

quitar o perder el pelo, pelar(se), quedarse o dejar calvo, desplumar(se)

pelatu *da/dau* ad. Soildu.

peleia

PELEA, BORROKA

muxinko

pelea, lucha, combate, enfrentamiento

peleia (eta *pelaia*) iz. Pelea, borroka. Ik. **muxinko**. ◆ **peleien** (eta *pelaien*) adb. Pelean. Ik. **burrukan**; **muxinkoan** (> *muxinkuen*). ¬

peleien PELEAN, BORROKAN
muxinkan / muxinkuen
peleando, luchando

peleien (eta *pelaien*) adb. Pelean. Ik. **burrukan**; **muxinkoan** (> *muxinkuen*).

pelele, pelelia SINPLE
sinple; monigote
pelele (persona simple o inútil)

pelele adj. Ik. **sinple**; **monigote**.

peligroso, peligrosua ARRISKUTSU
peligroso, -a

peligroso adj. Arriskutsua.

peligru, peligrua ARRISKU
peligro, riesgo

peligru iz. Arriskua. *Peligru aundia do gaur egun bideberrien* 'peligro [arrisku] haundia dago gaur egun bideberrian'. ◆ **peligruan** ([Altsasu], eta *peligruen*) adb. Arriskuan.

pelikula, pelikulia FILM, PELIKULA
2 mintz
película, filme
película

pelikula iz. Filma, zinema-lana.

pella, pellia PELLA, AZALORE
coliflor

pella iz. (Bot.) Azalorea (Brassica oleracea var. botrytis subvar. cauliflora).

pelma, pelmia ASPERGARRI, GOGAIKARRI
aspergarri, aborrigarri, berriketontzi, enplasto,
pelma

pelma adj. Aspergarria, gogaikarria. Ik. **aspergarri**; **berriketontzi**; **aborrigarri**; **enplasto**; **peste**.

pelmada KALAKA
asperraldi
pelmada

pelmada iz. Kalaka; berriketa aspergarria. Ik. **asperraldi**. ◆ **pelmada eman** (> *pelmadĭa eman*).

peluka, pelukia ILEORDE
peluca

peluka iz. Ileordea.

pelukeia ILE APAINDEGI
peluquería (establecimiento)

pelukeria (> *pelukeia*) iz. Ile apaindegia. Ik. **barberia**; **bizartegi** (> *bizartai*).

pelukero, -a; pelukerua, -ia
ILE-APAINTZAILE

barbero

peluquero, -a

pelukero, -a (Generoa hartzen du) iz. Ile apaintzailea. Ik. **barbero**.

pelusa
ILAUN, BILO

pelusa

pelusa iz. Ik. **ilegun**; **bixar**.

pena, penia
PENA

lastima

pesar, disgusto

pena **1** iz. Nahigabea. *Au penĭa! Ai, au penĭa!* 'hau pena! Ai, hau pena!'. *Akabo gure penak!* Ik. **lastima**; **dolore**. **2** iz. Zigorra; isuna. *Ogei durwen penan* 'hogei duroren penan'.

◆ **pena eman** (> *penĭa eman*). Pena sentiarazi. *Pena ematen dwa* 'pena ematen dit'.

◆ **pena hartu** (> *penĭa artu*). Pena sentitu. *Pena aundia artu genduen il egin zala jakin genduenien* 'pena handia hartu genuen hil egin zela jakin genuenean'.

◆ **pena ibili** [eduki] (> *penĭa ibili*).

◆ **pena izan** (> *penĭa izan*).

◆ **penaz** (egon, gelditu) adb.

penagarri, penagarria
PENAGARRI

desastre

triste, penoso, -a, doloroso, -a, lamentable, deplorable, lastimoso, -a

penagarri **1** adj. Pena ematen duena, deitoragarria, negargarria. || adj. Ik. **desastre**.

penako erreka, penako errekia
[SORO MUGAKO ERRETEN]

regata (para canalizar las aguas de lluvia en los campos)

penako erreka iz. Soro ertzeko erretena; euri urak bideratzeko, soroen arteko mugan egiten den zanga.

penatu, penatzen
PENATU

lastimatu, disgustatu

apenar(se), afligir(se); disgustar(se); desconsolar(se)

penatu *da* ad. Nahigabetu, atsekabetu. ◆ **penaturik egon** (> *penatwik yon*). *Penatwik no* 'penaturik nago'. *Penatu'a* 'penatu da'. Ik. **lastimatu**; **disgustatu**.

pendulo, pendulua
PENDULU

péndulo

pendulo iz. Pendulua.

penitente, penitentia
PENITENTE

penitente

penitente iz./adj. Konfesatzen den pertsona; penitentzia egiten duen pertsona; penitentzia egiteko, prozesio batean ateratzen den pertsona. *San Migelĭa oinez, penitentĭek* 'San Migelera oinez, penitenteak'.

penitenzia PENITENTZIA

penitencia
sufrimiento, padecimiento

penitenzia **1** iz. Penitentzia (Erl.). **2** iz. Sufrimendua; pairatu beharra. *Au penitenzia dukatena!* 'hau penitenzia daukadana!'. ◆ **penitentzia egin** (> *penitenzia in*).

penizilina, penizilinia PENIZILINA

penicilina

penizilina iz. *Penicillium* onddotik ateratako antibiotikoa.

pensakor PENTSAKOR

pensando, pensativamente, meditando

pentsakor adb. Gogoetatsu, gogoetak egiteko jarreran. ◆ **pentsakor egon** (> *pensakor yon*). Pentsatzeko jarreran egon.

pensamentu, pensamentua PENTSAMENDU

pensamiento

pensamentu iz. Pentsamendua. *Janan pensamentuen do beti* 'janaren pentsamentuan dago beti'. *Pensamentu txarrak* 'pentsamendu ilunak'. *Kentazu buruti pensamentu klasioiek* 'ken ezazu / itzazu burutik pentsamendu klase horiek'.

pensatu, pensatzen PENTSATU

pensar, considerar
reflexionar, meditar
opinar, creer, pensar
pensar, imaginar

pensatu **1** *dau* ad. Pentsatu. **2** *dau* ad. Zerbaitez halako iritzia izan.
◆ gaizki pensatu.
◆ pensatzen ez dana [imprevisible].
◆ pensatazu... (= goguen ibiltazu; goguen hartu). *Pensatazu amar gala afaitako* 'kontuan har ezazu hamar garela afaritarako'
◆ ez pensa 'ez pentsa ... -(e)la. Ez pensa ondo bizi dan.
◆ pensatzen jarrita. *Pensatzen jarrita, azkenĭen suertĭa izan dau* 'pentsatzen jarrita, azkenean suertea izan du'. ¬

pensatzaile, pensatzailia PENTSATZAILE

pensador, -a

pensatzaile adj. Pentsatzailea, pentsalaria, pentsatzen duena. *Beti pensatzen do; hoi pensatzailia da* 'beti pentsatzen dago; hori pentsatzailea da'.

pensazi, pensazten PENTSARAZI

hacer pensar

pentsarazi (> *pensazi*) *dau/dĭa* ad. Pentsatzera behartu. ¬

pensio, pensiua PENTSIO

pensión, retribución, renta
pensión, hospedería

pensio **1** iz. Pentsioa; pertsona batek, laguntza gisa, jasotzen duen diru saria. *Alargun pensiua kobratzen dau* 'alargun pentsioa kobratzen du'. **2** iz. Pentsioa, apopilo etxea. *Pensio merke batĭen yon da bakaziotan* 'pentsio merke batean egon da bakazioetan'.

pensu, pensua
PENTSU

zandale

pienso, forraje

pensu iz. Pentsua; abereei ematen zaien bazka lehorra, gehienetan laborez osatua. *Pensu-maiza, pensutako dan maiza* 'pentsu-maiza, pentsutarako den artoa'. Ik. **zandale**.

peperrepe; peperrepia / peperretia (?)
GELDIGAITZ

inquieto, -a; intranquilo, -a; que no para quieto

peperrepe (?) adj. Geldigaitza, zazpikia. *Aur peperrepĭa, gelditzen eztana* 'haur peperrepea [egongaitza], gelditzen ez dena'.

pepino, pepinua
LUZOKER, PEPINO

pepino (Cucumis sativus)

pepino iz. (Bot.) Luzokerra (Cucumis sativus); landare horren fruitua, jateko ona.

pepita, pepitia
PIPITA, HAZI, BIHI

hazi (2)

pepita, simiente de algunas frutas

pepita iz. Pipita, fruitu baten hazi txikia. *Sarran pepitak, naranjĭen pepitak...* 'sagarraren pipitak, laranjaren pipitak...'. Ik. **hazi**[2].

perdigon, perdigona
PERDIGOI

perdigón, balín

perdigon iz. Perdigoia. ◆ **perdigonada**. Perdigoikada. ◆ **perdigonazo**. Perdigoikada. Ik. **posta**.

perdigonada, perdigonadia
PERDIGOIKADA

perdigonada

perdigonada iz. Perdigoikada. ▲ Sin. **perdigonazo**.

perdix, perdixa
BIHURRI

perrejila; majadero, -a

travieso, -a, revoltoso, -a

perdix adj. Bihurria. ▲ Sin. *perrejila*; *majadero, -a*.

perdixkei, perdixkeia
OLGETA

golfeia

tunantería, golfería

perdixkeia (> *perdixkeia*) iz. Olgeta, bihurrikeria. Ik. **golferia** (> *golfeia*). ◆ **perdixkerian** (> *perdixkeien*) adb. Olgetan.

peregrino, peregrinua / peregrina,
PELEGRIN, ERROMES

peregrino, -a

peregrino (Generoa hartzen du: *peregrino*, *peregrinwa*; *peregrina, peregrinĭa*) iz. Pelegrina, erromesa.

pereza, perezia

NAGITASUN, ALFERTASUN; NAGIKERIA,

nagi; alferreia, alferkeia, alfergura; nagikeia

pereza

pereza iz. Nagitasuna, alfertasuna, nagia. *Gĭo ta pereza aundiokwa ematen dwa etxeti atatzĭa / atatzĭek* 'gero eta pereza handiagokoa ematen dit etxetik ateratzeak'. Ik. **nagi**; **alferreria**, **alferkeria**, **alfergura**; **nagikeria**.

perfume, perfumia

PERFUME

perfume

perfume iz. Usain gozoa. *Kolonĭa ibiltzen dot perfumetako, asko gustatzen zaira ta botatzen den usaia* 'kolonia ibiltzen dut perfumetarako, asko gustatzen zait eta botatzen duen usaina'. *Patxulia baindo perfume txarrokwek'e bade* 'patxulia baino perfume txarragokoak ere badaude'.

pergamino, pergaminua

PERGAMINO

pergamino

pergamino iz. Abere larrua, bertan idazteko edo liburuak josteko prestatu dena.

periodiko, periodikua

PERIODIKO, EGUNKARI

diario, periódico

periodiko iz. Egunkaria. *Domekatan laitzen dau periodikwa* 'domeketan leitzen du periodikoa'.

perkal, perkala

PERKAL

percal (tela de algodón)
elemento, prenda, pieza

perkal **1** iz. Kotoizko ehuna, fina eta sarria. *Arropa pobrĭa da perkala* 'arropa pobrea da perkala'. **2** iz. Irud. (Balioespen adierazpenetan, hainbat arrazoirengatik egokia ez den pertsona adierazteko). *A ze perkala!* 'a zer perkala!'. Ik. **elementu**.

perla, perlia

PERLA

perla

perla iz. Ostretan eta beste molusku batzuen maskorraren barnean eratzen den nakarrezko ale modukoa, gehienetan biribila, bitxi gisa erabiltzen dena. ◆ **perlazkoa** (> *perlazkua*). Perlaz egindakoa. *Perlazko kollarra* 'perlazko lepokoa'.

perlesi, perlesia

PERLESIA, GIHARREN AHULTASUN

parálisis, invalidez
perlesía (debilidad muscular)

perlesia (> *perlesi*) iz. Elbarritasuna, higikortasunaren edo sentiberatasunaren galera. || Giharren ahultasuna. ◆ **perlesiak jo** (> *perlesiek jo*) *dau* ad. *Perlesiek jota* 'perlesiak jota'. || *Hori perlesiek jo dau. Gue amandriai perlesiek jo zan* (Ond Bak).

perlesidun, perlesiduna

PERLESIADUN

paralitiko

paralítico, -a, impedido, -a, inválido, -a

perlesidun adj./iz. Perlesiaduna, elbarria. Ik. **paralitiko**; **inutil**.

permiso, permisua

BAIMEN

permiso, autorización, consentimiento, aprobación

permiso iz. Baimena. *Alkatĭai eskatu ber zaio permisua* 'alkateari eskatu behar zaio baimena'. *Permisoĭpe daile arrantzan* 'pemisorik gabe dabil arrantzan'. ◆ **permisoa eman** (> *permiswa eman*). Baimena eman.

permititu, permititzen

PERMITITU, BAIMENDU

autzi

permitir, autorizar, consentir, aprobar

permititu *da/dau* ad. Ik. **autzi**.

pernil, pernila

PERNIL

urdaiazpiko, jamon

jamón

pernil iz. Urdaiazpikoa. Ik. **urdaiazpiko**; **jamon**.

perol gorri, perol gorria

LAPIKO GORRI

perol (esmaltado en rojo, azul, negro...)

perol gorri. Gorriz esmaltatutako perola [lapikoa]; *perol urdina; perol beltza (esmaltatuek)*. Ik. **eltze**; **lapiko**.

perol, perola

ELTZE

eltze

perol

perol iz. Eltzea. *Perol gorria, gorriz esmaltatutako perola* [lapikoa]; *perol urdina; perol beltza (esmaltatuek)*. Ik. **eltze**; **lapiko**.

perolkada, perolkadia

ELTZEKADA

perol (cantidad que cabe en él)

perolkada iz. Perol [lapiko] baten edukia. Ik. **eltzekada**.

perpiza

ALOZ, IZUR, TOLES

lorza, alforza; frunce, pliegue

perpiza iz. Aloza, izurra, tolesa. (Ond Bak) [Pliegue cosido; lorza, alhorza, alforza]. Ik. **frunze**.

perrejila, perrejilia

PERREXIL

perejil
(niña) revoltosa, traviesa

perrejila **1** iz. (Bot.) (Petroselinum crispum). Perrejila berriá (Ond Bak). **2** adj. Nesaki bihurria. Ik. **perdix**.

perreta, perretia

FERRETA, EDARRA

edarra

herrada

perreta iz. Ferreta. *Perreta bat: perretĭá zurezkwá da, ardieirí esenĭá jeixtéko* 'perreta zurezkoa da, ardiei esnea jezteko' (Ond Bak). Ik. **edarra**.

perro, perrua
PERRU

perro, persona despreciable (U. t. c. insulto).

perro (> *perrua*) adj. (adkor) Pei. Gutxiespenezko hitza; txakurraren kidekoa. *Sortu da jende txiki perrua, ta akabo gure jende umanua*.

persegitu, persegitzen
PERTSEGITU

segitu

perseguir

persegitu dau ad. Pertsegitu; ihesi doanari jarraitu. Ik. **segitu**.

persegitzaile, persegitzailia
PERTSEGITZAILE

perseguidor, -a

persegitzaile iz./adj. Pertsegitzailea; esesten duen pertsona.

persiana, persiania
PERTSIANA

persiana, celosía

persiana iz. Pertsiana, sareta.

persona, personia
PERTSONA

persona, ser humano

persona iz. Pertsona. *Persona bakoitza, mundu bat* 'pertsona bakoitza, mundu bat'.

personaje, personajia
PERTSONAIA

personaje (persona singular)

personaje iz. Pertsonaia, morroia, tipoa. *Oi tipwa, oi personajĭa!* 'hori tipoa, hori pertsonaia'. *Olako personaje asko ezautu tu* 'holako pertsonaia asko ezagutu ditugu'.

pertika, pertikia (1)
PERTIKA, AKUILU

pértiga, vara larga, aguijada

pertika[1] iz. Makila luze eta buru-eztenduna, gurdi abereei eragiteko erabiltzen dena. *Pertikĭen patzen zan akulua* 'pertikan paratzen zen akuilua'. Ik. **akulu**.

pertika, pertikia (12 m^2) (2)
PERTIKA

pértica (antigua medida agraria de longitud)

pertika[2] iz. Lur neurria. (Hamar o hamabi metro.) ¬

pertikazo, pertikazua
MAKILAKADA

makilakada, makilazo

varazo

pertikazo iz. Pertikaz jotako kolpea; makilakada. Ik. **makilakada**; **makilazo**.

pertz gorri, pertz gorria
PERTZ

caldero esmaltado de rojo

pertz gorri. Gorriz esmaltatutako pertza. (?) ¬

pertz konpontzaile, pertz konpontzailia

PERTZ KONPONTZAILE, PERZKIN

perzkin

calderero, -a; reparador de calderos

pertz konpontzaile. Pertzak konpontzen dituen eskulangilea. *Pertz konpontzailia*. Ik. **perzkin**.

pertz txiki, pertz txikia

PERTZ TXIKI

caldero pequeño; olla pequeña (para cocer leche)

pertz txiki (eta *pertxiki* [Ziordia]). *Esenĭa yosteko pertz txikia* 'esnea egosteko pertz txikia'.

pertz, pertza

PERTZ

kaldera

caldero, olla

pertz iz. Ura berotzeko edo zerbait egosteko erabiltzen den ontzia; bereziki, gelatzuan [laratzean] zintzilik egoten dena. *Pertz gorria, gorriz esmaltatutako pertza*. Ik. **kaldera**. ◆ **pertz gorri**. Gorriz esmaltatutako pertza. (?). ◆ **pertz konpontzaile**. Pertzak konpontzen dituen eskulangilea. *Pertz konpontzailia*. Ik. **perzkin**. ◆ **pertz txiki** (eta *pertxiki* [Ziordia]). *Esenĭa yosteko pertz txikia* 'esnea egosteko pertz txikia'. ● Esr. zah. *Nork nori, zartagi zarrak pertzari*. ¬

pertzkada, pertzkadia

PERTZAKADA

calderada

perzkada, perzkadia

PERZKADA, PERTZAKADA

calderada

perzkada iz. Pertzakada, pertz betearen edukia. || Gehiegizko janari kantitatea.

perzkin, perzkina

PERZKIN, GALDARAGILE

pertz konpontzaile

calderero, -a; reparador de calderos

perzkin (eta *pezkin*, *pezkina* [Bakaiku]) iz. Pertzak egiten edo konpontzen dituen eskulangilea. *Pezkina, pertzak eta zartagiek eta konpontzen zituben* (Ond Bak). Ik. **pertz konpontzaile**.

pesame, pesamia

DOLUMIN

pésame, condolencia

pesame iz. Dolumina(k). *Amangeiti pesamĭa eman diat* 'amagatik pesamea eman diot [doluminak eman dizkiot]'. ● **osasuna, enkomendatzeko** [Dolumina agertzeko esaten da, eta "osasuna izan dezazun, hildakoaren alde errezatzeko" adierazten dau].

peska, peskia

ARRANTZA (1)

arrantza

pesca

peska iz. Arrantza. *Fan zĭan orko peskak* 'joan ziren horko arrantzak'. Ik. **arrantza**[1]. ◆ **peskan** adb. Arrantzan. *Ibaien ibiltzen zĭan peskan* 'ibaian ibiltzen ziren arrantzan'. Ik. **arrantzan**.

peskadilla, peskadillia

MERLENKA

pescadilla

peskadilla iz. (Zool.) Merlenka; itsas arraina (Merluccius merluccius). *Merkio're badaki yoten peskadillak* 'merkeago ere egon ohi da merlenka' (Ond Bak). Ik. **merluza**.

peskatero, peskaterua

ARRAINDUN, ARRAIN-SALTZAILE

arrai saltzaile, sardina-saltzaile

pescadero, -a

peskatero, -a (Generoa hartzen du: *peskatero*, *peskaterwa*; *peskatera*, *peskateřa*) iz. Arrain saltzailea. *Peskatera daile lanĭen* 'arrain-saltzaile dabil lanean'. Ik. **arrai saltzaile**; **sardina-saltzaile**.

peskau, peskaua

ARRAIN

arrai

pescado

peskau iz. Janaritako erabiltzen den arraina. *Arraia, ibaikwa; peskaua, itxasoti ekarritakwa* 'arraina, ibaikoa; peskaua itsasotik ekarritakoa'. Ik. **arrai**. ◆ **peskau urdina**. Arain urdina. *Koipe gaio duka arrai urdinak zwiek baindo* 'koipe gehiago dauka arrain urdinak zuriak baino'. ◆ **peskau zuria** (> *peskau zwia*). Arrain zuria. *Merluzĭa ta dĭa arrai zwiek* 'merluza [legatza] eta dira arrain zuriak'.

peste, pestia

PESTE; IZURRI

2 enplasto

epidemia, peste

peste; molesto, -a, fastidioso, -a

peste **1** iz. Izurria. *Ekar ber diai peste zarren bat!* 'ekarri behar diate pestetzarren bat!'. **2** adj. Pertsona gogaikarria. Ik. **enplasto**.

petaka, petakia

TOXA, TABAKONTZI

petaca, tabaquera, pitillera

petaka iz. Toxa, tabakoa gordetzeko zorroa. Tabakua gordetzeko petakia. *Narruzko petakĭa ibiltzen zen tabakwa gordetzeko* 'larruzko toxa ibiltzen zuen tabakoa gordetzeko'.

petardo, petardua

PETARDO

petardo, explosivo, traca

petardo iz. *Galazi in dai petardwek saltzĭa* 'galarazi egin dute petardoak saltzea'.

petatxo, petatxua

PETATXU

adabaki

remiendo, petacho, parche

petatxo iz. Petatxua, adabakia. Ik. **adabaki**. ◆ **petatxua bota**. Adabakia ipini, adabatu. *Petatxwa bota ber izan dĭat pantalonairi belaunaĭn parĭen* 'petxua bota [ipini] behar izan diet prakei belaunen parean'. Ik. **adabakia eman**.

pete

TXUPETE

chupete (voc. infant.)

pete (eta *pette*) iz. Haur. Txupetea.

peto, petua

PETO (BULARREKO; PRAKA PETODUN)

peto (prenda suelta que cubre el pecho)
peto (pantalón con peto)

peto iz. Bularreko jantzia. || Galtzamantala; praka petoduna.

petral, petrala

PETRAL (1)

insustancial, negligente, sin fundamento
palabra insultante sin ningún significado concreto

petral adj. Ganoragabea; traketsa. || Pertsonez ari garela, esanahi zehatzik gabeko irain hitza. *Petrala, fundamentu beikwa* 'petrala, fundamentu gabekoa'. *Jende petrala: petralki jantzik, txarki jantzik* 'jende petrala, petralki jantzirik, txarki jantzirik (LM).

petraldu, petraltzen

PETRALDU

gizajotu (?)

empeorar(se), degradar(se), degenerar(se)

petraldu *da* ad. Makaldu, kaskartu. *Petraldwik do* 'petraldurik dago'. (Gizajotu LM). Ahul eta errukarri bihurtu. ¬

petralki; petralkia (LM)

AXOLAGABEKI, PETRALKI

descuidadamente
desaliñado, -a

petralki **1** adb. Modu petralean. *Jende petrala: petralki jantzik, txarki jantzik* 'jende petrala, petralki jantzirik, txarki jantzirik (LM). **2** adj. Petralkia, fardela. *Jende petralkia* (gaizki jantzirik).

petresto, petrestua

ENPLASTU

pelma, enplasto (2)

metomentodo, entrometido, -a,

petresto adj. Aldeintzak emeti, petrestuoi! (?). Ik. **pelma**; **enplasto** (**2**).

petrikillo, petrikillua

PETRIKILO

curandero, -a

petrikillo iz. Petrikiloa, sasimedikua.

petril, petrila (?)

PETRIL

pretil

petril iz. Ik. **baranda**.

pette

TXUPETE

chupete (voc. infant.)

petunia

PETUNIA

petunia

petunia iz. (Bot.) Belar landare apaingarria (Petunia sp.).

petxo hezur, petxo hezurra

BULARREZUR

esternón

petxo hezur (> *petxo ezur*) iz. Bularrezurra.

petxo, petxua
PETXU

bular, bularralde, papar

pecho, tórax; parte delantera del tórax

petxo iz. Petxua. Ik. **bular**; **bularralde**; **papar**; **kaja**. ◆ **petxo hezur** (> *petxo ezur*) iz. Bularrezurra.

pexkix, pexkixa
ZIKIN

sucio, -a, manchado, -a

pexkix adj. Zikina. *Jende pexkixa* 'jende zikina'. ◆ **pexkix egon** (> *pexkix yon*). Zikin egon. *Pexkix jok Ander* 'zikin zagok Ander'.

pezkin, pezkina
PERZKIN

pertz konpontzaile

calderero, -a; reparador de calderos

pezta, peztia
PEZETA

peseta

pezta iz. Pezeta; Espainiako diru unitatea, euroa ezarri zen arte. *Mila pezta irabazko banuke. Bi mila pezta irabazko banituzke* (Ond Bak). *Galdu zaken peztĭa're* 'galdu zuan pezeta ere'. *Pezta erdik'e ez polsan* 'pezeta erdirik ere ez poltsikoan'. ◆ **pezterdi** (eta *pezta erdia*) iz. Pezeta erdia.

pezterdi, pezterdia
PEZETA-ERDI

media peseta

pezterdi (eta *pezta erdia*) iz. Pezeta erdia.

pianista, pianistia
PIANISTA, PIANO-JOTZAILE

pianista

pianista iz. Piano-jotzailea.

piano, pianua
PIANO

piano

piano iz. Musika-tresna handi tekladuna.

pieza, piezia
PIEZA

pieza
elemento, pieza

pieza iz. Bizikletien piezak. Piezain uniwa.
(n) - A ze piezia 'a ze alea; ale ederra' (menuda pieza Esp.). Ik. alaja.

pijama, pijamia
PIJAMA

pijama

pijama iz. Lo egiteko jantzia, jakak eta galtzek osatua. *Pijaman ibiltzen da kaleti* 'pijaman ibiltzen da kaletik'.

pika-mailu, pika-mailua
SEGA MAILU ETA INGUDE

conjunto de yunque y martillo, usado para afilar la guadaña

pika-mailu iz. Sega-mailua eta ingudea batera, segaren ahoa pikatzeko erabiltzen direnak. *Segia, pika-mailuekin pikatu; segarriekin zorroztu* 'sega, pika-mailuarekin pikatu; segarriarekin zorroztu'. Ik. **txingura**.

pikada, pikadia

ZIZTADA; HOZKADA

picadura, aguijonazo (de insecto; de abeja, avispa)
mordedura, picadura (de serpiente)

pikada **1** iz. Ziztada. *Erlĭek pikatu dĭai* 'erleek pikatu diote [ziztatu dute]'. Ik. **zaztada**; **ziztada**. **2** iz. Hozkada. *Sube pikadĭa* 'suge pikada [hozkada]. Ik. **hozkada**.

pikadore, pikadoria

XEHATZEKO MAKINA, XEHAGAILU

picadora (aparato que se utiliza para picar carne)

pikadore iz. Xehagailua; haragia txikitzeko makina. *Aragia txikitzekwa da pikadorĭa* 'haragia txikitzekoa da pikadora'. *Txitxikia prepatzeko ibiltzen da pikadorĭa* '*txitxikia* [hestekiak egiteko haragi txikitua] preparatzeko ibiltzen da pikadora [xehagailua]'.

pikakan

MOKOKA

a picotazos, picoteando

pikakan adb. Mokoka, mokoaz kolpeka. *Oilwa pikakan daile* 'oiloa mokoka dabil'.

pikante, pikantia

MIN, PIKANTE

min, bixi

picante

pikante adj. Mina, bizia. *Pikantĭa do salsĭau* 'pikantea dago saltsa hau'. Ik. **min**; **bixi**.

pikaratz, pikaratza

MIKA

txorinabar

urraca, picaza (Pica pica)

pikaratz iz. Mika (Pica pica). *Pikaratzaina da orko txipu orren puntan don kafia* 'mikena da horko makal horren puntan dagoen habia'. Ik. **txorinabar** [Bakaiku].

pikardia

PIKARDIA

picardía, malicia

pikardia iz. Egite edo esate lotsagabea edo gaitzesgarria, maltzurkeria.

pikaro, pikarua

PIKARO

pícaro, -a, bribón, -ona

pikaro adj. Maleziatsua. *A ze pikarwa dok!* 'a zer pikaroa duk!'. *Pikaro galanta ago inik!* 'pikaro galanta hago eginik!'. Ik. **pillo**; **tunante**.

pikarokeia

PIKAROKERIA

picaresca, bribonería

pikarokeria (> *pikarokeia*) iz. *Tranpĭa ta pikarokeia besteik eztuka saltzailĭorrek* 'tranpa eta pikarokeria besterik ez dauka saltzaile horrek

pikatu, pikatzen

PIKATU

picar, pinchar
picar(se), agriar(se) (Ref. a la comida, bebida, etc.)
cortar, dividir (en trozos muy menudos)
afilar
resentir(se), disgustar(se), desazonar, enojar (por una disputa)
picar (irritar el paladar)

pikatu **1** *dau* ad. *Subiek, erliek, eltxuek pikatu*. **2** da ad. *Jana pikatu.* Ik. **mindu**; **ozpindu**; **galdu**. **3** *dau* ad. *Egurra pikatu* (eta *egurra txikitu*). || Haragia-eta pikatu, txikitu. *Jateko, dana pikatwik eman ber zaio* 'jateko, dena pikaturik eman behar zaio'. Ik. **txehetu** (> *txetu*); **txikitu**. **4** *dau* ad. Zorroztu. *Segia pikatu* 'sega pikatu'. *Pika-mailua* [sega mailua eta ingude txikia]. **5** *da* ad. Jende artean 'pikea': *Pikatuik jek hoiek*. Ik. **hasarratu**; **sumindu**. **6** *dau* ad. Janariez-eta mintzatuz, mihian edo ahoan halako erredura edo berotasun sentipena sortu. Ik. **mina egon** (> *mina eon*, *mina yon*). ¬

pikatxon, pikatxona

PIKOTX, PIKATXOI

pico, zapapico

pikatxon iz. Pikotxa, pikatxoia. *Aitxurra, palĭa ta pikatxona* 'aitzurra, pala eta pikotxa'.

pikatzaile, pikatzailia

PIKATZAILE

picador, -a; picapedrero, -a

pikatzaile iz. Pikatzen duen pertsona. *Arri-pikatzailĭek* 'harri pikatzaileak'. *Arria pikatzen ibiltzen gindan* 'harria pikatzen ibiltzen ginen'.

pike, pikia

BIKE

brea

pez [substancia]
pique

pike **1** iz. Bikea. *Bidiberriti, brea beltz aura hartzen genduken* 'bideberritik, brea beltz hura hartzen genian'. Ik. **brea**. ◆ **bikea baino beltzago (izan, egon)** (> *pikĭa baindo béltzo*). **2** iz. Lehia. Bi pertsona edo herriren arteko pikea.

pikete, piketia

HESOLA. 2 MAILU-PIKOTX

1 mustaka, poste

estaca (para setos)
piqueta, alcotana (herramienta de albañilería)

pikete **1** iz. Hesola; alanbre hesiak eusteko zutoina. Ik. **mustaka**; **poste**; **hesola***. **2** iz. Mailu-pikotxa.

piko, pikua

MOKO

pico, parte saliente de la cabeza de las aves
pico (de una cantidad)

piko **1** iz. Hegaztien mokoa. (Alderatu: **moko**). **2** iz. *Piko: diru osua bialtzegaiti, pikua ez bialtzegaiti* (Ond Bak). ◆ **eta piko**. (Zenbaki baten eskuinean). Eta zenbait; eta koska. *Mila euro ta piko*. ¬

pikomotx, pikomotxa

TXIRRISKILA ARRUNT

verdecillo (Serinus serinus)

pikomotz, pikomotza

TXIRRISKILA ARRUNT

verdecillo (Serinus serinus)

pikomotz (eta *pikomotx*) iz. Txirriskila; txori txikia, mokoa motza eta lodia eta lumak berdehorixkak marra beltzez apainduak dituena (Serinus serinus). *Txoi pikomotxa*. || *Krabelintxoi pikomotxa* (?).

piku arbola, piku arbolia

PIKONDO

piku

higuera (Ficus carica)

piku arbola. (Bot.) Pikua, pikondoa. Ik. **piku**.

piku, pikua

PIKU

2 piku arbola

higo (fruto)
higuera (Ficus carica)

piku **1** iz. Pikondoaren fruitua. *Piku pixkatzuk dia* (Ond Bak). **2** iz. (Bot.) Pikondoa (Ficus carica). ▲ Sin. *piku arbola*. ◆ **piku arbola**. (Bot.) Pikua, pikondoa. ◆ **pikupatsa**. Pikupasa.

pikupats, pikupatsa

PIKUPASA, PIKU MELATU

pasa de higo, higo seco

pikupats iz. Pikupasa, piku melatua. *Konpotĭai pikupatsak botatzen dĭatzit* 'konpotari pikupasak botatzen dizkiot'.

pikuta bialdu

PIKUTARA BIDALI

mandar a paseo, mandar a freír buñuelos, mandar a hacer gárgaras, mandar a la picota, mandar

pikutara (> *pikutá*) ◆ **pikutara bialdu** (> *pikuta bialdu*) *Lgart*. Pikutara bidali; norbait modu txarrean joanarazi; norbaiti haserrea edo gaitzespena modu txarrean adierazi. *Ordik pikuta!* 'hordik pikutara!'. ◆ **pikutara jo arte bialdu** (> *pikuta jo artia bialdu*). *Ordik emendi pikuta jo artĭa!* 'hordik hemendik pikutara jo arte!'.

pil-pil

PIL-PIL

onomatopeya de la ebullición; hirviendo

pil-pil adb. Borborka, irakiten mantso. *Pil-pil iyekiten* 'pil-pil irakiten'. Ik. **pol-pol**.

pila, pilia (1)

PILA (1)

monton

montón, cúmulo, pila
abundancia, gran cantidad

pila[1] **1** iz. Gauzak elkarren gainean edo ondoan ipinita egiten den multzoa. Egur pilia; bear pilia 'belar meta'; agoz pilia. Ik. **monton**. **2** iz. Kopuru handia. [Desberdindu *pila* eta *pilo*].

pila, pilia (2)

PILA (2)

bateia

pila (eléctrica)

pila[2] iz. Energia kimikoa energia elektriko bihurtzen duen tresna. Ik. **bateria**.

pilara / pilare, pilaria

PILARE

poste

pilar [columna]

pilare iz. *Zurezko pilare ederrak dukatzi Bentako etxiek. Bi pilare*. ▲ Sin. *poste*.

pilatu, pilatzen
PILATU

montondu

amontonar, apilar, acumular

pilatu *da/dau* ad. Orbela bildu ta pilatu. ▲ Sin. *montondu*.

pildora, pildoria
PILULA

pastilla (botika)

píldora, pastilla (medicamento)

pildora iz. Pilula; ahotik hartzen den sendagaia. Ik. **pastila** (eta *pastilla*).

piliskorri
BILUZGORRI

desnudo, -a; en cueros

piliskorriko
BILUZGORRIAN

desnudo, -a

pilixgorri
BILUZGORRI

desnudo, -a

pillo, pillua
MAKUR; MALTZUR, IRUZURTI

pillo, -a; pillastre (persona pícara y hábil para engañar a los demás)
pillo, -a; (persona sagaz o astuta)

pillo adj. Makurra, bihurria; maltzurra, iruzurtia. *Pillo ona dok oi!* 'maltzur ona duk hori!'. *Laister despeĭtukwa jende umanwa ta etorko da jende txiki pillwa* 'laster despedituko [desagertuko] da jende humanoa eta etorriko da jende txiki *pilloa* [makurra]'. Ik. **pikaro**; **tunante**.

pilo, pilua
PILO

bola

bola

pilo iz. Bola. *Elur pilwa bota dwa* 'elur piloa [bola] bota dit'. [Desberdindu *pilo* eta *pila*].

pilokan

tirando, arrojando, lanzando bolas

pilokan adb. *Elur pilokan* 'elur pilotak botaka'.

pilota apustu, pilota apustua
PILOTA PARTIDA

pilota partido

partido de pelota

pilota apustu. Pilota-partida. ▲ Sin. *pilota partido*.

pilota partido
PILOTA PARTIDA

pilota apustu

partido de pelota

pilota partido. Pilota partida. ▲ Sin. *pilota apustu*.

pilota-joku, pilota-jokua

PILOTA JOKO

pelota; juego que se hace con la pelota

pilota-joku. Pilota jokoa; bi jokalariren edo bi talderen artean, pilotaz jokatzen den kirola. *Oinetati berá Pilota-jokubá. Pilotako-jokuba* (Ond Bak).

pilota, pilotia

PILOTA

3 bola; pilo

pelota
pelota, juego de la pelota
pelota, bola

pilota **1** iz. Jolasean ibiltzeko erabiltzen den bola; bereziki, euskal pilota-jokoan erabiltzen dena. **2** iz. Pilota-jokoa. **3** iz. Bola; esfera-formako gauzakia. *Elur-pilotĭa* 'elur pilota'. Ik. **bola**; **pilo**.

◆ **pilota apustu**. Pilota-partida. ▲ Sin. *pilota partido*.

◆ **pilota-joku**. Pilota jokoa; bi jokalariren edo bi talderen artean, pilotaz jokatzen den kirola. *Oinetati berá Pilota-jokubá. Pilotako-jokuba* (Ond Bak).

◆ **pilotan** adb. (ibili, jokatu). Pilota-jokoan. Ik. **pilotakan**.

◆ **pilota partido**. Pilota partida. ▲ Sin. *pilota apustu*. ¬

pilotai, pilotaia

PILOTARI

jugador de pelota, pelotari

pilotari (> *pilotai*) iz. Pilotan jokatzen duen pertsona, bereziki, pilota-jokoa ogibide duena. *Pilotan jokatzen dain hoiek, pilotaiek* 'pilotan jokatzen duten horiek, pilotariak'. *Pilotan jokatzailĭek* 'pilotan jokatzaileak'.

pilotaka(n)

PILOTAN

a pelota; al juego de la pelota

pilotaka(n) adb. (ibili, jokatu) Pilotan, pilota-jokoan. Ik. **pilotan**.

pilotaleku, pilotalekua

PILOTALEKU

fronton

frontón [de pelota]

pilotaleku iz. Pilota-jokoan aritzeko lekua. *Frontona in bitartien, emen elizataia zan pilotalekua* 'frontoia egin bitartean, hemen eliz ataria zen pilotalekua'. *Zazai pilotalekuá* 'zoazte pilotalekura'. *Leno elizataien zon pilotalekua* 'lehenago eliz atarian zegoen pilotalekua'. Ik. **fronton**.

pilotazale, pilotazalia

PILOTAZALE

aficionado, -a a la pelota

pilotazale iz. Pilota-jokoaren zalea den pertsona. *Pilotazale amorratuek dĭa* 'pilotazale amorratuak dira'.

piloto, pilotua

PILOTU. 2 ATZEKO ARGI

piloto (conductor)
piloto (señal luminosa)

piloto **1** iz. Pilotua, gidaria; itsasontzi bat edo hegazkin bat gidatzen duen pertsona; auto eta motor lasterketetan, ibilgailua gidatzen duen pertsona. **2** iz. Ibilgailu baten atzeko agia. *Bizikitĭen pilotwa* 'bizikletaren *pilotua* [atzeko argia]'.

pilpilkan PILPILKA

hirviendo

pilpilkan adb. Pilpilka, irakiten.

pinpilin, pinpilina PITILIN

pito, buztan

pene

pinpilin iz. Pitilina, zakila. Ik. **pito**; **buztan**.

pinpilindara, pinpilindaria GAITUN

pimpinela, sanguisorba (Sanguisorba sp.)

pinpilindara ([Urdiain] eta *pipilindare* [Bakaiku]) iz. (Bot.) Gaituna (Sanguisorba officinalis; Pimpinella officinalis) "Semilla del *emereke*, aplastada, negra o abigarrada" (Ond Bak). *pinpilindare* [Urdiain]. Ik. **txorijan** (> *txoijan*).

pinpintxoi, pinpintxoia TXONTA

pinzón (Fringilla coelebs)

pinpintxori (> *pinpintxoi*) iz. Txonta (Fringilla coelebs).

pinta, pintia PINTA

pinta (unidad de volumen)

pinta iz. Edukiera neurria. *Pinta bat ardo*. Ik. **pitxerdi**. ◆ **pinta-erdi**.

pintatu, pintatzen PINTATU

txuitu

pintar

pintatu *dau* ad. Pinturaz estali edo koloratu. Ik. **zuritu** (> *txuritu*, *txwitu*).

pintatuazi, pintatuazten PINTARAZI

hacer pintar

pintatuazi dĭa ad. Pintarazi, pintatzera behartu. *Bazan garaia, pintatwazi dĭa ataia* 'bazen garaia, pintarazi diote atea'.

pinto, pintua ORBAN

pinto, mancha, mácula

pinto iz. Orbana. *Pintwek ata zaizkio azalĭen* 'pintoak [orbanak] atera zaizkio azalean'.

pintore, pintoria PINTORE

txuitzaile

pintor, -a

pintore **1** iz. Margotzailea. Ik. **txuitzaile**. **2** iz. Margolaria.

pintotu, pintotzen ORBANDU

llenar(se) de manchas

pintotu *da/dau* ad. Orbandu. *Pintotu: pintoz bete*.

pintura, pinturia

PINTURA

pintura

pintura iz. Pintatzeko erabiltzen den gaia. *Pintura-potwa* 'pintura potoa'. *Pintura gorria yosi dau ataiai emateko* 'pintura gorria erosi du ateari emateko'.

pintxatu, pintxatzen

ZULATU

pinchar; tener un pinchazo

pintxatu *da/dau* ad. Zulatu, airez beteriko gauza baten azalean irekidura egin. *Autwen txirrikĭa pintxatu zaĭra* 'autoaren gurpila zulatu zait'.

pintxazo, pintxazua

ZULATU, ZULAKETA. 2 ZIZTADA

pinchazo
punzada (dolor agudo)

pintxazo **1** iz. Zulatua. K*onpondu dĭat pintxazwa bizikletĭai* 'konpondu diot zulatua bizikletari'. **2** iz. Ziztada, sastada. Ik. **zaztada**; **ziztada**.

pintxo

DOTORE; APAIN

dotore, elegante

precioso, -a; adornado, -a; arreglado, -a; elegante
elegantemente

pintxo **1** adj. Polita, dotorea. *Pelikula pintxwa ikus du* 'pelikula [filma] polita ikusi dugu'. **2** adb. *Pintxuo ibiltzen da hori, pintxuo!* 'dotoreago ibiltzen da hori, dotoreago!' (Ond Bak). ◆ **pintxo-pintxoa** (> *pintxo-pintxwa*) adb. *Pintxo-pintxwa jantzita agertu da* 'dotore-dotore jantzita agertu da'. Ik. **dotore**; **elegante**.

pinu alerze, pinu alerzia

ALERTZE, LARITZ

alerce, lárice (Larix sp.)

pinu alerze. (Bot.) Alertzea, laritza.

pinu ointo

ONDDO BELTZ KASKAGORRI, ONDDO PINU

hongo de pino (Boletus pinophilus)

pinu ointo iz. Pinudietan eta baita pagadi eta txilardietan ere sortzen den onddoa; hanka sendoa eta txapela ardo kolore nabarrarekoak ditu (Boletus pinophilus).

pinu, pinua

PINU

pino

pinu **1** iz. (Bot.) (Pinus sp.). **2** iz. Zuhaitz horren zura. ◆ **pinu alerze**. (Bot.) Alertzea, laritza.

pinudi, pinudia

PINUDI

pinar, bosque de pinos

pinudi iz. *Pinudi guztĭa kaltetuĭk duka arrak* 'pinudi guztia kalteturik dauka harrak'. ◆ **pinudiko ziza**. Pinu-perretxiko, esnegorria. *Pinudiko zizĭa, nikalwa* 'pinudiko ziza, esnegorria'. Ik. **nikalo**. ◆ **pinu ointo** iz. Pinudietan eta baita pagadi eta txilardietan ere sortzen den onddoa; hanka sendoa eta txapela ardo kolore nabarrarekoak ditu (Boletus pinophilus).

pinudiko ziza, pinudiko zizia

PINU-PERRETXIKO, ESNEGORRI

nikalo

mízcalo, robellón (Lactarius deliciosus)

pinudiko ziza. Pinu-perretxiko, esnegorria. *Pinudiko zizĭa, nikalwa* 'pinudiko ziza, esnegorria'. Ik. **nikalo**.

pinza, pinzia

PINTZA

matxarda

pinza

pinza iz. Pintza. *Errenoi atatzeko pinzĭa berko da* 'erren [arantza] hori ateratzeko pintza beharko da'. Ik. **matxarda**.

pinzel, pinzela

PINTZEL

brotxa

pincel

pinzel iz. Pintzela. Ik. **brotxa**.

pinzelada, pinzeladia

PINTZELKADA

pincelada, trazo

pinzelada iz. Pintzelada, pintzelkada; gainazal batean pintzelez eginiko marra, pintzel kolpea.

piña, piñia

PINABURU. 2 ANANA

piña (estróbilo)
piña, fruto del ananás

piña **1** iz. (Bot.) Pinaburua, pinuaren ordenako zuhaitzen fruitua. **2** iz. (Bot.) Anana (Ananas sp.); ananaren fruitua.

pion, piona

PEOI

peón, operario, -a, asalariado, -a, jornalero, -a, bracero, -a

pion iz. Peoia, maila apaleko langilea, trebetasun berezirik eskatzen ez duten lan neketsuetan aritzen dena. *Pionetako artu dai obran* 'peoitarako hartu dute obran'. *Pion lanetan ibil da bizi guztĭa* 'peoi lanetan ibili da bizi guztia'.

pipa, pipia

PIPA

pipa (de fumar)
pipa (semilla de girasol) U. m. en pl.

pipa **1** iz. Tabakoa eta antzeko gaiak erretzeko erabiltzen den tresna. *Pipan fumatu* 'pipan erre'. **2** iz. (Batez ere pl.) Hazia, pipita. *Kalabaza pipak* 'kalabaza haziak'. *Pipak jaten* '[ekilore] pipitak jaten'. Ik. **hazi**; **pepita**.

piper berde, piper berdia

PIPER BERDE

pimiento verde

piper berde. (Bot.) *Pipermorrua baindo obeto etortzen da emen piper berdĭa* 'pipermorroa baino hobeto etortzen da hemen piper berdea'.

piper gorri, piper gorria

PIPER GORRI

pimiento rojo (fruto)
pimentón

piper gorri 1 iz. Piperraren fruitu gorria. *Piper gorriek labĭen inda* 'piper gorriak labean eginda'. **2** iz. Piperrautsa, piper gorri lehorrak ehoz eginiko hautsa, janariak ontzeko erabiltzen dena. *Botaiozu piper gorri pixkat babatxui zopĭai* 'botaiozu piperrauts pixka bat baratxuri zopari'.

piper morron, piper morrona

PIPERMORRO

pipermorro

piper morron. (Bot.) Pipermorroa, piper mota mamitsu eta gozoa (Capsicum annuum). Ik. **pipermorro**.

piper opil, piper opila

PIPER OPIL

torta dulce

piper opil. Opil-gozo mota. *Anisa dĭai piper opilak* 'anisa daramate piper opilek'. *Neskixak mutilairi eskeintzen zĭain piper opilak* 'neskixek [neskatxek] mutilei eskaintzen zieten piper opilak'.

piper seko, piper sekua

PIPER LEHOR

pimiento seco; pimiento choricero

piper seko. Piper lehorra; lukainka piperra, piper txorizeroa.

piper, piperra

PIPER

pimiento (Capsicum annuum)
pimiento (fruto)

piper 1 iz. (Bot.) Solanazeoen familiako baratze landarea, hosto luzangak eta lore zuri txikiak dituena, fruituagatik landatzen dena (Capsicum annuum). *Piper plantĭa* 'piper landarea'. **2** iz. Landare horren fruitua. *Gernikako piperrak*. *Pikillo piperrak*. **3** iz. (Ezezko esaldietan). *Piperrik ez!*: ezer ez. *Piperrik ez dau balio*: ez du ezer balio. *Piperrik ez entenditu*: ezer ez entenditu. ◆ **piper berde**. *Pipermorrua baindo obeto etortzen da emen piper berdĭa* 'pipermorroa baino hobeto etortzen da hemen piper berdea'. ◆ **piper gorri 1** iz. Piperraren fruitu gorria. *Piper gorriek labĭen inda* 'piper gorriak labean eginda'. **2** iz. Piperrautsa, piper gorri lehorrak ehoz eginiko hautsa, janariak ontzeko erabiltzen dena. *Botaiozu piper gorri pixkat babatxui zopĭai* 'botaiozu piperrauts pixka bat baratxuri zopari'. ◆ **piper morron**. (Bot.) Pipermorroa, piper mota mamitsu eta gozoa (Capsicum annuum). Ik. **pipermorro**. ◆ **piper opil**. Opil-gozo mota. *Anisa dĭai piper opilak* 'anisa daramate piper opilek'. *Neskixak mutilairi eskeintzen zĭain piper opilak* 'neskixek [neskatxek] mutilei eskaintzen zieten piper opilak'. ◆ **piper poto**. **1** Piper kontserba ontzia. **2** Espainiako bandera. ◆ **piper seko**. Piper lehorra; lukainka piperra, piper txorizeroa.

piperbeltx, piperbeltxa

PIPERBELTZ

pimienta
ascodichaena rugosa (del haya)

piperbeltz, piperbeltza

PIPERBELTZ

pimienta (Piper nigrum)
ascodichaena rugosa (del haya)

piperbeltz (eta *piperbeltx*) **1** iz. Janarien bizigarri gisa erabiltzen dena (Piper nigrum). **2** iz. Pagoaren gaitza (?); pagoari azalean piperbeltzaren moduko bolatxo batzuk agertzen zaizkio. (Ascodichaena rugosa). Ik. **pagoaren piperbeltx** (> *pagwen piperbeltx*).

pipermin, pipermina

PIPERMIN. 2 PIPERRAUTS MIN (?)

gindilla

guindilla
pimentón picante (?)

pipermin **1** iz. (Bot.) Piper mehe eta luzea, oso mina (Capsicum annuum). ▲ Sin. *gindilla*. **2** iz. Piperrauts mina (?).

pipermorro, pipermorrua

PIPERMORRO

piper morron

pimiento morrón

pipermorro iz. (Bot.) Piper mota mamitsu eta gozoa (Capsicum annuum). ▲ Sin. *piper morron*.

piperpoto, piperpotua

PIPERPOTO, PIPERRONTZI

bote de pimientos
bandera española (con sentido despectivo)

piperpoto **1** iz. Piperrez beteriko kontserba-ontzia. **2** iz. Lgart. Euskal abertzaleen artean, Espainiako bandera hori-gorria.

piperrada, piperradia

PIPERRADA

piperrada, fritada de pimientos

piperrada iz. Piper frijituz prestatzen den janaria. *Piperradĭa in du; a ze piper aldĭa jan dun!* 'piperrada egin dugu; a zer piper aldea jan dugun!'.

pipi hauts, pipi hautsa

PIPI HAUTS, ZUHIRIN

polvillo de la carcoma

pipi hauts. Pipiak jotako zuretik ateratzen den hauts modukoa. *Pipien hautsa*.

pipi, pipia (1)

PIPI

carcoma
parásito, bichito pl. (coloq.)

pipi[1] iz. Kakalardoaren ordenako intsektua, beldar egoeran dagoenean zura eta egurra jaten dituena (Fam. anobiidae). ◆ **pipiak jan** (> *pipiek jan*). *Ola pipiek janik do* 'ohola pipiak janik dago'. ◆ **pipi hauts**. Pipiak jotako zuretik ateratzen den hauts modukoa. *Pipien hautsa*. ◆ **pipiak ibili** [eduki] (> *pipiek ibili*). Lgart. Zorriak, arkakusoak-eta eduki.

pipi, pipia (2)

PIPI

pájaro, ave en general (voc. infant.)

pipi[2] iz. Haur. Txoria, hegaztia.

pipita, pipitia

PINPORTA, PIPIL, BEGI

brote, botón o yema de las plantas; yema floral

pipita iz. (Bot.) Pinporta, pipila, begia; landareetan, kimua edo lorea sortzera doan pikor modukoa {Brote de los árboles; yema floral}. *Floriă, pipitan* 'lorea, pinportan'. *Okanak pipitan de* 'okaranak pinportan daude'. *Anak pipitan de* 'basaranak pinportan daude'.

pipohol, pipohola (pipol / pipola)

UPEL OHOL, TABILA

duela, tablilla (de una pipa, de un barril, de una cuba)

pipohol (> *pipol*, *pipola*) iz. *Pipa* ohola, upel ohola; upelaren egitura eratzen duen ohola. *Pipolak iten zĭan arbola xamurrakin, asentuek-eta iteko. Denunzĭatu iten zain pipolak itĭa* '*pipa* [upel] oholak egiten ziren arbola samurrekin, asentuak [jarlekuak] eta egiteko. Denuntziatu egiten zuten *pipa* [upel] oholak egitea'. {Tablilla. Servía para hacer cubas, etc. (JMS)}.

pipori

LILIPA, NARTZISO

narciso

(Ond Bak) (narciso).

pirri-parra

BARRA-BARRA

firri-farra, barra-barra

en abundancia, abundantemente; copiosamente

pirri-parra adb. Erruz, ugari, ugaritasunez. *Dirua pirri-parra*. Ik. **firri-farra**; **barra-barra**.

pisatu, pisatzen

PISATU

pesar

pisatu **1** *dau* ad. Zerbaiten pisua neurtu. *Baskulan pisatu dai txekorra* 'baskulan pisatu dute txekorra'. **2** *dau* ad. Pisu jakin bat izan. *Gizon orrek egunen bat kilo pisatuko jituk* 'gizon horrek ehun bat kilo pisatuko ditik'.

pista, pistia

PISTA; MENDI BIDE

bide

pista forestal, camino

pista iz. Mendian edo basoan eginiko bide zabala. *Mendiko pista oietan ezin za autwekin ibili* 'mendiko pista horietan ezin zara autoarekin ibili'.

pistola, pistolia

PISTOLA

pistola (arma de fuego)

pistola (eta *pixtola*) iz. Su arma motza, esku bakar batez erabiltzen dena. *Jugetezko pistolĭekin ibiltzen gindan mutxikan* 'jostaizluzko pistolarekin ibiltzen ginen jostatzen'.

pisu, pisua
PISU

karga *arina*

peso
pesa, balanza
pesado, -a
piso, planta
piso, apartamento

pisu **1** iz. Zama. *Bai gutxi pisatzen dela!* 'bai gutxi pisatzen duela!'. Ik. **karga**. **2** iz. Pisatzeko erabiltzen den tresna. Ik. **baskula**; **balanza**. *Eztakit, ba, pisuau ondo dailen* 'ez dakit, bada, pisu hau ondo dabilen'. **3** adj. Astuna, pisu handikoa. ▼ Anton. *arin*. | Irud. Jateko pisua 'jateko astuna'. Ik. **betegarri**. **4** iz. Solairua, oina. Ik. **planta**. **5** iz. Etxebizitza. ◆ **pisua hartu**. Gizendu, loditu. *Adinakin pisua artu dau* 'adinarekin pisua hartu du'.

pisutasun, pisutasuna
PISUTASUN

pesadez; peso, carga

pisutasun iz. Pisua; astuntasuna. *Au pisutasuna dukatena estomagwen* 'hau pisutasuna daukadana estomagoan'.

pisutsu, pisutsua
PISUTSU

pesado, -a; de mucho peso

pisutsu adj. Pisu handikoa. *Mea bea pisutsua da* 'mehea baina pisutsua da.

piszina, piszinia
IGERILEKU, PISZINA

piscina

piszina (eta *pistina*) iz. *Igerilekua. Iraikan Urriztiko piszinatan ikasitakwek dĭa erriko gaienak; bea zarrenak ibaien ikasi zain* 'igerika Urriztiko [Urdiango basoko eremua] igerilekuetan ikasitakoak dira herriko gehienak; baina zaharrenek ibaian ikasi zuten'.

piti-poto, piti-potua / piti-potuek
TRIKIMAKO(AK), AKUILU-MAKUILU(AK)

zanco(s); botes de conserva utilizados como zancos

piti-poto iz. pl. *pitipotwek*. Haur jolasa. Kontserba potoekin egindako akuilu-makuluak. Potoak eskuetara doan soka edo listariarekin eusten dira, potoen gainean ibiltzeko.

pitilin, pitilina
PITILIN

pinpilin, pito, buztan

pene

pitilin iz. Zakila. Ik. **pinpilin**; **pito**; **buztan**.

pito, pitua
PITO

pinpilin, pitilin, buztan

nada
pene

pito **1** iz. (Ezezko esaldietan). Batere ez, ezer ez. *Eztot pitoik balio* 'ez dut pitorik balio'. **2** iz. Zakila. Ik. **pinpilin**; **pitilin**; **buztan**.

pitor, pitorra
PIKORTA, PIKOR

grano, barro, barrillo

pitor iz. Larruazalean agertzen den pikor gisakoa; pikorta. *Pitorrez beteik duka musua* 'pitorrez beterik dauka musua'.

pits, pitsa
BITS

burbuja; lerde

espuma
espumarajo

pits iz. Bitsa. *Sagonurakin prepatuko du pitsa* 'xaboi urarekin preparatuko dugu bitsa'. Ik. **burbuja**; **apar**; **lerde**. ◆ **pitsa dariola** (> *bitsa daiola*). *Agotik pitsa daiola eldu da* 'ahotik bitsa dariola heldu da'.

pittin (?)
PITTIN

pixka

poco, poquito, pizca

pittin (?) iz. Adkor. Pitina, apurra, zati guztiz txikia. Ik. **pixka**. ◆ **pittin bat** Adkor. Pitin bat, pixka bat.

pitxa, pitxia
PITXER

pitxarreko

jarra, jarro

pitxa iz. Pitxerra. Ik. **pitxarreko**. ◆ **pitxerdi**.

pitxar, pitxarra
PITXARTXAR

txitrat (?) [Bakaiku]

tarabilla (Saxicola sp.)

pitxar iz. Pitxartxarra; txori intsektujalea, lumadi beltz eta arrea duena (Saxicola sp.). *Kantatzĭen, "fi-txar-txar" iten dau pitxarrak, ta mustaka ta sasiaĭn gainekaldĭen gelditzen da* 'kantatzean, "fi-txar-txar" egiten du pitxartxarrak, eta hesola [paldo, zutoin] eta sasien gainaldean gelditzen da'. Ik. **txitrat** [Bakaiku].

pitxarkada, pitxarkadia
PITXERKADA

contenido de una jarra

pitxarkada (eta *pitxerkada*) iz. Pitxerkada; pitxerraren edukia.

pitxarreko, pitxarrekua
PITXER

pitxa

jarra, jarro

pitxarreko iz. Pitxerra. Ik. **pitxa**.

pitxerdi, pitxerdia
PITXER-ERDI; PITXERDI (?)

pinta (?)

pinta, media azumbre

pitxerdi iz. Pitxer erdia; pinta (?). *Ekatzak pitxerdi bat ur*. Ik. **pitxa**; **pinta**.

pitxerkada, pitxerkadia
PITXERKADA

jarra (contenido de una jarra)

pitxi, pitxia
BITXI

1 alaja, joia

joya, adorno; perla
juguete (voc. infant.)

pitxi **1** iz. Bitxia. Pl. *pitxiek*. ▲ Sin. *alaja*, *joia*. **2** iz. (Haur.) Jostailua.

pitxikan (HAUR JOLASA)

pitxikitan

juego infantil (se juega con fragmentos de porcelana)

pitxikan (eta *pitxikitan*) **1** iz. Haur jolasa. *Pitxikiekin* mutxikan, jolasean. Pitxikiak: portzelanazko baxera –plater edo edalontzi– puskatuen zati txikiak; haurrek jolasteko erabiltzen zituzten. Ik. **pitxi**; **pitxiki**. **2** (Adizlagun gisa). *Pitxikan ibili*.

pitxiki, pitxikia PORTZELANA; ZERAMIKA ZATIKI

porcelana; fragmento de cerámica

pitxiki iz. pl. *Pitxikiek*. Portzelanazko baxera –plater edo edalontzi– puskatuen zati txikiak, haurrek jolasteko erabiltzen zituztenak. Ik. **pitxi**. ◆ **pitxikiek egin** (> *pitxikiek in*). Baxera puskatzen denean: *pitxikiek in dĭa*. Portzelanazko baxera –plater edo edalontzi– hautsiak, *pitxikan* jolasteko neurri egokian puskatu. ◆ **pitxikizko** adj. Portzelana, portzelanazkoa; pitxikiz egina dena.

pitxikiek in

fragmentar la porcelana rota para usarla en los juegos

pitxikiak egin (> *pitxikiek in*). Portzelanazko baxera –plater edo edalontzi– hautsiak, *pitxikan* jolasteko neurri egokian puskatu.

pitxikitan / pitxikan (HAUR JOLASA)

pitxikan

juego infantil (se juega con fragmentos de porcelana)

pitxikitan adb. (*ibili*, *mutxikan ibili* eta kideko aditzekin). *Pitxikiekin pitxikan ibili* (haur jolasa). Ik. **pitxikan**; **pitxiki**.

pitxilinta TXIRIBITA, MARGARITA

margarita

margarita (Bellis sp.)

pitxilinta [Bakaiku] iz. (Bot.) Txiribita, margarita (Bellis sp.). ["Margarita, una flor" Ond Bak]. Ik. **margarita**; **pitxilita**.

pitxilita, pitxilitia LORE, LARRE LORE

flore

flor (de pradera); flor silvestre; planta que tiene flores

pitxilita (eta *pitxilinta* [Bakaiku]) iz. Larre lorea; belardietan-eta sortzen diren loreei esaten zaie *pitxilitak*, ez arbolaren loreari. Ik. **flore**; **lora**; **pitxilinta**. *Hiruko pitxilitak*. *Kamantxila pitxilitak*. *Zapo pitxilitak*. *Zorroko pitxilitak*.

pixka

PIXKA

gutxi, pittin (?)

asko

poco, -a, poquito, -a, cantidad pequeña; pedacito, pizca
momento, rato, poco tiempo, algo de tiempo

pixka iz. Kopuru txikia, apurra. *Pixka ibazten zain* 'pixka irabazten zuten'. *Espiatazu pixkatĭen* 'espera ezazu pixkatean'. *Zade pixkatĭen* 'zaude pixkatean'.
[Ald. pizka (?) (LM). *Ekatazu pizkat*. *Emantazu pizkat*].
– pixkatzuk 'pixka batzuk'. Ata dia pitxilita pixkatzuk. **2** iz. (denbora). *Pixkatĭako* 'pixka baterako'. *An yon gindan pixkatĭen* 'han egon ginen pixka batean'.
◆ **pixka bat** (> *pixkat*) **1** zenbtz. zehazgb. *Zai pixkat* 'zahi pixka bat' (Ond Bak). *Emaniozu ogi pixkat* 'emaiozu ogi pixka bat'. **2** adb. *Jar zaitez pixkat orrutzo* 'jar zaitez pixka bat horrantzago'. *Garbitazu sukaldĭoi pixkat* 'garbi ezazu sukalde hori pixka bat'. **3** adb. Denbora pixka bat, une bat. *Espĭatazu pixkat* 'itxoin ezazu pixka bat'. ◆ **pixka batean** (> *pixkatĭen*) adb. Denbora apur batean. *Zade pixkatĭen* 'zaude pixka batean [itxoin ezazu pixka batean]'.
◆ **pixka baterako** (> *pixkatĭako*). *Baduku pixkatĭako* 'badaukagu [denbora] pixka baterako'.
◆ **pixkaren bat** (> *pixkan bat*) **1** zenbtz. zehaztgb. *Fama pixkan bat ba emen zukan orduen* 'fama pixkaren bat ba omen zeukan orduan'. **2** adb. *Pixkan bat lasaio gelditu da* 'pixkaren bat lasaiago gelditu da'. *Or ez; pixkan bat goroxo zon* 'hor ez; pixkaren bat goraxeago zegoen'.

pixkaka(n)

PIXKAKA

poco a poco

pixkaka(n) adb. Apurka, gutxika-gutxika. Ik. **pixkanaka(n)**. ◆ **pixkakan-pixkakan** adb. Pixkaka-pixkaka. *Pixkakan-pixkakan, sartu tuai egur guztĭek* 'pixkaka-pixkaka, sartu dituzte egur guztiak'.

pixkan bat

PIXKAREN BAT

un poco (de), algo (de)
un poco, algo

pixkaren bat (> *pixkan bat*) **1** zenbtz. zehaztgb. *Fama pixkan bat ba emen zukan orduen* 'fama pixkaren bat ba omen zeukan orduan'. **2** adb. *Pixkan bat lasaio gelditu da* 'pixkaren bat lasaiago gelditu da'. *Or ez; pixkan bat goroxo zon* 'hor ez; pixkaren bat goraxeago zegoen'.

pixkana

PIXKANA*

un poco a cada uno, -a

pixkana banatz. Bakoitzari pixka bat.

pixkanaka(n)

PIXKANAKA

poco a poco

pixkanaka(n) adb. ◆ **pixkanaka-pixkanaka**. Pixkanaka, pixkaka. *Pixkanakan-pixkanakan padia artzen diywa leno gaztinaldia zana* 'pixkanaka-pixkanaka pagadia hartzen dihoa lehenago gaztainadia zena'.

pixkat

PIXKA BAT

un poco (de), una pizca
un poco
un momento; durante un momento

pixka bat (> *pixkat*) **1** zenbtz. zehazgb. *Zai pixkat* 'zahi pixka bat' (Ond Bak). *Emaniozu ogi pixkat* 'emaiozu ogi pixka bat'. **2** adb. *Jar zaitez pixkat orrutzo* 'jar zaitez pixka bat horrantzago'. *Garbitazu sukaldĭoi pixkat* 'garbi ezazu sukalde hori pixka bat'. **3** adb. Denbora pixka bat, une bat. *Espĭatazu pixkat* 'itxoin ezazu pixka bat'. ◆ **pixka batean** (> *pixkatĭen*) adb. Denbora apur batean. *Zade pixkatĭen* 'zaude pixka batean [itxoin ezazu pixka batean]'.

pixkatxo

PIXKATXO

poquito, -a; algo

pixkatxo iz. Adkor. Pixka. ◆ **pixkatxo bat** (> *pixkatxwet*) Adkor. Pixka bat. *Pixkatxwet emanko bazendwa* 'pixkatxo bat emango bazenit'.

pixkatxuet

PIXKATXO BAT

un poquito, algo

pixkatxo bat (> *pixkatxwet*) Adkor. Pixka bat. *Pixkatxwet emanko bazendwa* 'pixkatxo bat emango bazenit'.

pixkor, pixkorra

BIZKOR

bizi, azkar, ajil — *motel, nagi*

ágil, rápido, -a; listo, -a, despierto, -a, vivo, -a

bizkor (> *pizkor* [Altsasu], *pixkor*) adj. Ald. *pizkor* (Iza Alts). || Lán askó, eta náiko lana emen zukan mutilairi agintzén; pizkórra emén zan, pizkorrá 'lan asko, eta nahiko lan omen zuen mutilei agintzen; bizkorra omen zen, bizkorra' (Iza Alts). ▲ Sin. *bizi*, *azkar*, *ajil*. ▼ Anton. *motel*, *nagi*.

pixkortu, pixkortzen

BIZKORTU

piztu, espabilatu, suspertu, zabartu

fortalecer(se), reanimar(se), (hacer) recobrar la salud

bizkortu (> *pixkortu*) *da/dau* ad. Bizkortasuna hartu edo eman. *Makal yon da, bea gwai pixkortwik do* 'makal egon da, baina orain bizkorturik dago'. Ik. **piztu**; **espabilatu**; **suspertu**; **zabartu**.

pizarra, pizarria

ARBEL

1 txapaharri (?)

pizarra; encerado

pizarra **1** iz. Arbela; harri ia beltza, orri gisako zatietan puskatzen dena eta hezetasunari igarotzen uzten ez diona. **2** iz. Bertan idazteko, lehen arbelez eta gaur egun beste gai batzuez egiten den xafla.

pizkor, pizkorra

BIZKOR

ágil, rápido, -a; listo, -a, despierto, -a, vivo, -a

piztu, pizten

PIZTU

1 pixkortu, suspertu; 2 yazi

hil

reanimar, revivir
encender(se)
ponerse alegrillo, -a; estar piripi; achispar(se)

piztu **1** *da* ad. Jendia piztu. Ik. **pixkortu**; **suspertu**. ▼ Anton. *hil*. **2** *da/dau* ad. Ik. **yazi**. **3** Irud. Adkor. *pixtu*. Txolindu; edanak pixka bat eragin. *Yandik nunbaitĩen; pixtwik jok* 'edan dik nonbaiten; pixturik zagok'.

plaia

PLAIA

plaia iz. Hondartza. *Obeto gendekek plaian bagende* 'hobeto geundekek plaian bageunde'.

plaka, plakia

PLAKA

placa

plaka iz. Xafla. *Iten den otzakin, izotz plakĩa do ibaien* 'egiten duen hotzarekin, izotz plaka dago ibaian'.

plan, plana

PLAN

plan, proyecto

plan iz. *In du plana* 'egin dugu plana'. *Oi da plana itia, oi!* 'hori da plana egitea, hori!'. *Gaurko eztukagu planik* 'gaurko ez daukagu planik'. Ik. **asmo**.

plano, planua

PLANO

plano (representación a escala de un terreno, una población, una máquina, una construcción,
plano, llano, liso, sin relieves

plano **1** iz. *Etxia iteko planwa ber dik* 'etxea egiteko planoa behar dik'. **2** adj. Laua; gorabeherarik edo garaiera-desberdintasunik ez duena, aldaparik ez duena. *Plano-planwa* 'lau-laua'. Ik. **zelai**; **liso**.

planta (2)

AGERTU

aparecerse

planta[2] interj. Agertu. *Antxe, planta!* 'hantxe agertu!'.

planta saltzaile, planta saltzailia

LANDARE SALTZAILE

plantero

vendedor, -ra de plantas (para trasplantar)

planta saltzaile. Landare saltzailea; aldatzeko landarea saltzen duena. Ik. **plantero**.

planta, plantia (1)

LANDARE; 2 ITXURA, PLANTA; 3 SOLAIRU

2 itxura

planta, vegetal
planta, plantón
aspecto, facha, traza
planta, piso

planta[1] 1 iz. Landarea.
2 iz. Aldaxka.
3 iz. Tankera. Planta ona, itxura ona.
4 iz. Solairua, oina.
◆ **planta saltzaile**. Landare saltzailea; aldatzeko landarea saltzen duena. Ik. **plantero**. ¬

plantatu, plantatzen (1) LANDATU

landatu

plantar

plantatu[1] *dau* ad. Landatu. Ik. **landatu**.

plantatu, plantatzen (2) EZARRI, JARRI; AGERTU

plantar(se), poner(se) [de pie firme ocupando un lugar o sitio]

plantatu[2] *da* ad. Ezarri, jarri; agertu. *Antxe plantatu zezairan* 'hantxe plantatu zitzaidan'.

plantazio, plantaziua SAIL LANDATU

plantación (de árboles)

plantazio iz. Sail landatua.

plantero, planterua LANDARE SALTZAILE

planta saltzaile

vendedor, -ra de plantas (para trasplantar)

plantero iz. Orturako landare saltzailea; aldatzeko baratze-landarea saltzen duena. *Bi ziento porru agindu diatzit planterwai* 'bi ziento porru agindu dizkiot planteroari [landare saltzaileari]'. Ik. **planta saltzaile**.

plantilla, plantillia PLANTILLA, TXANTILOI

plantilla, escantillón, patrón

plantilla iz Txantiloia. Ik. **txantillon**; **patron**.

planton, plantona (NORBAITI) KALE EGIN

plantón; dar alguien plantón, o un plantón; no presentarse

planton iz. (Hitz berria) Norbaiti huts egin; ez etorri, kale egin. *Plantona eman*.

plantxa, plantxia (1) XAFLA, PLANTXA

plancha, chapa, hoja, lámina

plantxa[1] iz. Xafla.

plantxa, plantxia (2) LISABURDINA, PLANTXA

plancha

plantxa[2] iz. Lisaburdina.

plantxatu, plantxatzen PLANTXATU

lisatu

planchar

plantxatu *dau* ad. Ik. **lisatu**.

plastiko, plastikua PLASTIKO

plástico (material)

plastiko iz. *Plastikozko bolsĭa* 'plastikozko boltsan'.

plataforma, plataformia PLATAFORMA

plataforma

plataforma iz. *Plataforma baten gainĭen* 'plataforma baten gainean'.

platano, platanua (1) PLATANO

plátano (Platanus hybrida)

platano[1] (eta *platanero*) iz. (Bot.) Platano arbola, zuhaitz sendo eta itzaltsua (Platanus hybrida). *Erriko kaleko intxorrak bota ta platanwek patu zituain* 'herriko kaleko intxaurrak [intxaurrondoak] bota eta platanoak paratu zituzten'.

platano, platanua (2) PLATANO, BANANA

plátano, banana (fruto)

platano[2] iz. Banana, bananondoaren fruitua.

plato, platua PLATER (BIZIKLETARENA)

plato (de bicicleta)

plato iz. Bizikletaren platera; bizikleta baten katearekin engranatzen duen gurpil horzdun handia. *Bizikletien platwa* 'bizikletaren platera'. *Berrogeitamairu ortz dukatzi bizikletĭorren platwek* 'berrogeita hamahiru hortz dauzka bizikleta horren platerak'.

plaza, plazia PLAZA

plaza

plaza iz. *Herriko plazan*. *Plazako iturria*. *Plazan, mutxikan* 'plazan, jolasean'. *Umore ona jok plazan* 'umore ona zagok plazan'.

plazer, plazerra (?) PLAZER

placer, contento

plazer iz. (-r- bikunarekin). Atsegina.

plean-plean FINKATU GABE, SOLTE, KOLOKA

suelto

suelto, -a; sin afianzar, sin fijar; bailando; en desequilibrio

plean-plean adb. Xafla formako gauzez ari garela, irmo finkatu gabe kokatu; solte paratu. Ik. **dantzan**. *Txapak plean-plean autzi tuai josi be* 'xaflak *plean-plean* utzi dituzte josi gabe'. *Gailurreko teilak plean-plean de* 'gailurreko teilak *plean-plean* daude'.

plegatu, plegatzen PLEGATU

dolostatu

doblar, plegar

plegatu *da/dau* ad. Ik. **dolostatu**.

pleuresia PLEURESIA

pleuresía

pleuresia iz. Pleuraren hantura. *Pleuresiekin, arnasĭek mina ematen dau bularraldĭen ta bizkarraldĭen* 'pleuresiarekin, arnasak mina ematen du bularraldean eta bizkarraldean'.

plisti-plasta PLISTI-PLASTA

onomatopeya del chapoteo

plisti-plasta onomat. Ura jotzearen onomatopeia. ◆ **plisti-plasta ibili**. *Uretan plisti-plasta ibili*. *Bai gustwa ibiltzen dala uretan plisti-plasta* 'bai gustura ibiltzen dela uretan plisti-plasta'.

plisti-plasta ibili

PLISTI-PLASTA IBILI

chapotear

plisti-plasta ibili. *Uretan plisti-plasta ibili. Bai gustwa ibiltzen dala uretan plisti-plasta* 'bai gustura ibiltzen dela uretan plisti-plasta'.

plomada, plomadia

PLOMU (1)

plomada, plomo

plomada iz. Plomua; hari batez eta haren muturrean lotzen den metalezko (berez berunezko) pieza batez osatutako tresna, zerbait zut jartzeko erabiltzen dena. *Plomadĭa bota* 'plomua bota'. *Plomadia patu* 'plomua paratu'. *Plomadan yon, plomadan patu* 'plomuan egon, plomuan ezarri'.

plomu, plomua

BERUN, PLOMU. 2 FUSIBLE

plomo
fusible

plomu **1** iz. Beruna. **2** iz. (Batez ere pl.) Fusiblea. ◆ **plomuak erre** (> *plomuek erre*). Korronte elektrikoa handiegia denean, fusiblea urtu.

plost

PLAUST

¡cataplum!, ¡pumba! (onomatopeya de la caída de un objeto)

plost onomat. Zerbait erortzearen hotsa irudikatzen duen onomatopeia.

pluma, plumia

LUMA, IDAZLUMA

pluma (de escribir)

pluma iz. Luma, idazluma. lk. **taju**.

pobre, pobria

POBRE

beharsu; 2 eskas — *abeats*

pobre, mísero, -a
pobre, escaso, -a, insuficiente

pobre **1** adj./iz. Jende pobria. ▲ Sin. *beharsu*. ▼ Anton. *abeats*. **2** adj. Gauzengatik esanda, balio gutxikoa, baliozko gauza gutxi duena. *Lur pobrĭa* 'lur pobrea'. ▲ Sin. *eskas*.

pobretasun, pobretasuna

POBRETASUN

abeastasun

pobreza

pobretasun iz. Pobrea denaren egoera edo nolakotasuna. ▼ Anton. *abeastasun*.

pobretu, pobretzen

POBRETU

abeastu

empobrecer(se)

pobretu *da/dau* ad. Pobre bihurtu. *Diruz juxto-juxtwa daile jende asko, pobretzeko zorien* 'diruz justu-justu dabil jende asko, pobretzeko zorian'. *Ongarritzen ezpada, lurra pobretu iten da* 'ongarritzen ez bada, lurra pobretu egiten da'. ▼ Anton. *abeastu*.

poderez

PODERIOZ

a fuerza de

poderez postpos. Poderioz. ◆ **-en poderez** '-en poderioz'. *Ibilien poderez* 'ibilien poderioz'.

pol-pol
BOR-BOR

onomat. del hervor; en ebullición

pol-pol adb. Bor-bor, irakiten bizi; borborrean. Ik. **pil-pil**. [Olatzagutian, Polpoliturri (?)]

polaina
POLAINA, AZPANTAR, MANTAR

zatamantar

polaina(s)

polaina iz. (Batez ere pl.) *polainak*. Azpantarra, mantarra; orkatilatik belaunerako zango zatia estaltzen duen jantzia. Ik. **zatamantar**. • Esr. zah. *San Martin ubarretakin, San Andres polainakin* [San Martin, azaroaren 11a; San Andres, azaroaren 30a].

polbora, polboria
BOLBORA

pólvora

polbora iz. Bolbora; hauts-nahastura lehergaia. *Etxajua botatzĭekin batĭa, polbora usaia aitzen da festatan* 'etxafuegoa botatzearekin batera, bolbora usaina aditzen da festetan'.

polea
POLEA

polera

polea

polea (eta *polera*, *polerĭa*; *pollera*) iz. Ardatz batean kokaturiko gurpila, uztaiaren ildoan soka, kate edo uhal bat daramana, eta zamak jasotzeko edo indarra transmititzeko erabiltzen dena.

polera, poleria
POLEA

polea

polea

polera iz. Polea. *Polerĭa*. Ik. **polea**. *Zakuek goiko ganbará poleran iyo* 'zakuak goiko ganbarara polean igo'.

poliki
POLIKI

1, 3 majo, ederki; 2 suabe

muy bien; hermosamente, bellamente
despacio, sin prisa; suavemente
de forma bastante adecuada/aceptable; bastante bien; bastante; generosamente, en abundancia

poliki **1** adb. Era politez, aski egoki edo ederki. **2** adb. Astiro. Ik. **polikitxo**; **suabe**. **3** adb. Nahikotxo. *Poliki in dau yauria* 'majo egin du euria'. {**1**, **3**} Ik. **majo**; **ederki**. ◆ **poliki-poliki** adb. Poliki, astiro. Ik. **geldi-geldi**.

polikitxo
POLIKI

despacio, sin prisa
bien, muy bien

polikitxo **1** adb. *poliki*ren txikigarria. *Ibil zaitez polikitxo*. Ik. **poliki**. **2** adb. (Ironiazko adieran) *Polikitxo ibil dok!* 'polikitxo [oso ongi] ibili duk!]. Ik. **majo**; **ondotxo**; **ongitxo**; **geizkitxo**.

polio
POLIO, POLIOMIELITIS

poliomielitis; polio

polio iz. Poliomielitisa; eritasun kutsakorra, bizkar muinean kokatzen den birus batek sortua, ezaugarritzat giharrak endurtzea eta elbarritasuna dituena.

polit, polita
POLIT

eder, majo, -a

bonito, -a, bello, -a, hermoso, -a
(cantidad) bastante grande, considerable

polit **1** adj. *Bi neska polit ikus tut* 'bi neska polit ikusi ditut'. Ik. **eder**; **majo, -a**. **2** adj. Aski handia. *Kantidade polita* 'kantitate polita'. ◆ **polita jarri**. (Ironiazkoa). Haserreturik.

politasun, politasuna (?)
POLITASUN

edertasun

preciosidad, hermosura, belleza

politasun iz. Polita denaren nolakotasuna. *Oi politasuna dukana aurtxu'orrek* 'hori politasuna daukana haurtxo horrek' (LM). Ik. **edertasun**.

politika, politikia
POLITIKA

política

politika iz. *Politikĭengeiti asarratwik de* 'politikarengatik haserreturik daude'.

politiko, politikua
POLITIKARI

político, -a (persona)

politiko iz. Politikaria.

poliza, polizia
POLIZA ZIGILU

póliza (sello)

poliza iz. Poliza zigilua.

polizia
POLIZIA

policía

polizia iz. *Poliziaz beteĭk zen kalĭek* 'poliziaz beterik zeuden kaleak'.

pollera, polleria
POLEA, TXIRRIKA

polea

polea

pollera (eta *polera*) iz. Polea. *Kargĭa goikoganbara iyotzeko ibiltzen da poleria* 'karga goiko ganbarara igotzeko erabiltzen da polea'. *Ardazketako dornuekin in genduen polleria* 'ardazketarako tornuarekin egin genuen polea'. Ik. **polea**.

poltsa, poltsia
SAKELA, POLTSIKO

bolsillo

poltsa (eta *polsa*) **1** iz. Sakela. *Atzeko poltsan* 'atzeko poltsikoan'. *Pantalonaĭn poltsĭa* 'praken poltsikoa'. *Poltsa txikien* 'poltsiko txikian'. || *Poltsán diruik eztekanák* (Ond Bak). **2** iz. Poltsa. Ik. **bolsa**. [Desberdindu: *poltsa* (eta *polsa*) ≠ *bolsa* (eta *boltsa*)].

poltsatxo, poltsatxua
SAKELATXO, POLTSIKO TXIKI

bolsillo pequeño

poltsatxo (eta *polsatxo*) iz. Sakelatxoa, poltsiko txikia. *Polsatxwet* 'poltsatxo [sakelatxo] bat'.

pomada, pomadia
POMADA

untura, unguentu

pomada

pomada iz. Gantzetan edo baselinatan gai eraginkorrak disolbatuz prestatzen den nahastura, larruazala igurtziz sendagai edo kosmetiko gisa erabiltzen dena. *Nai badezu, botikan bertan prepatzen dezai pomadĭoi* 'nahi baduzu, botikan bertan preparatzen dizute pomada hori'. Ik. **untura**; **unguentu**.

ponpa
PILOTA, BALOI

pelota, balón (voc. infant.)

ponpa Haur. Haur hizkeran, pilota edo baloia.

pontarron, pontarrona
ZUBI TXIKI

puente pequeño

pontarron iz. Zubi txikia. *Bi errien arteko mugan do pontarrona* 'bi herrien arteko mugan dago pontarrona'.

ponte, pontia
PONTE; HARRASKA

pila bautismal
pila de agua bendita
fregadero
arqueta

ponte **1** iz. Bataiarria. *Bataiatzeko pontĭa* 'bataiatzeko pontea'. **2** iz. Ur bedeinkatu ontzia. *Ur-bedeinkatuen pontĭa* 'ur-bedeinkatuaren pontea'. **3** iz. Harrizko harraska. **4** iz. Eraikuntzako kutxatila. [Arketa (Ond Bak): Ponte 'arqueta', erdaraz. Lur azpitik eramaten diren ura, elektrizitatea etab. kontrolatzeko da pontea, erdaraz arqueta esaten diotena, eta orain –2005 urtean– metalezkoa izaten dena].

porka, porkia
KORDA

ristra

porka iz. Korda; baratxuriez, tipulez eta kidekoez mintzatuz, bata bestearen ondotik loturiko multzoa. *Maiz porkĭa*. *Arta porkĭa*. *Babatxui porkĭa*.

porlan-zaku, porlan-zakua
PORLAN-ZAKU

saco de cemento

porlan-zaku. Zementu zakua. *Orrek bi porlan-zakukin inko dezu etxĭa* 'horrek bi porlan-zakurekin egingo dizu etxea'.

porlan, porlana
PORLAN, ZEMENTU

cemento

porlan iz. Zementua. *Porlana iten dai Olaztiko fabrikan* 'porlana egiten dute Olaztiko fabrikan. ◆ **porlan-zaku**. Zementu zakua. *Orrek bi porlan-zakukin inko dezu etxĭa* 'horrek bi porlan-zakurekin egingo dizu etxea'.

porlandu, porlantzen
ZEMENTATU

cementar, encementar

porlandu *dau* ad. Zementatu. *Kale guztia porlandu dai* 'kale guztia zementatu dute'.

porra, porria

BORRA

maza, porra

porra iz. Borra, mailu handia.

porraketan

BORRAZ JOKA

martillando, aporreando con una porra; a porrazos

porraketan adb. Borraz joka. *Porraketan lertu tu pago atxiek* 'porraketan [burdin ziria erabiliz] lehertu ditu pago atxiak [trangaderak]'.

porrokatu, porrokatzen

PORROKATU

destrozar, deshacer; devastar
derrengarse, rendirse de cansancio, fatigarse en exceso

porrokatu **1** *da/dau* ad. Hautsi, xehatu; suntsitu, desegin. *Egwaize zakar onek dana porrokatuko dau* 'hego haize zakar honek dena porrokatuko du'. **2** *da* ad. Erabat nekatu. *Lan da lan, raso porrokatwik no* 'lan eta lan, arras porrokaturik nago'. *Porrokatwik despeĭtu dau festa eguna* 'porrokaturik bukatu du festa eguna'.

porron, porrona

PORROI, ONTZI

porrón, recipiente

porron iz. Porroia, ontzia. Ik. **ontzi**. *Jaix porrona*.

porrot

PORROT

meko; arruinatu

quiebra, fracaso, infortunio
quiebra, bancarrota

porrot iz. Ik. **kiebra**. ◆ **porrot egin** (> porrot in). *Oiek porrot in dai, ezerbe gelditu dĭa* 'horiek porrot egin dute, ezer gabe gelditu dira'. Ik. **arruinatu**; **kiebra egin**; **meko egin**.

porru planta, porru plantia

PORRU LANDARE

planta de puerro

porru planta. Porru landarea.

porru-patatak

PORRU-PATATAK

patatas con puerros

porru-patata(k) pl. Porruak eta patatak uretan egosiz prestatzen den janaria. *Gaur porru-patatak bazkaitako* 'gaur porru-patatak bazkaritarako'.

porru, porrua (1)

PORRU

puerro (Allium porrum)

porru[1] iz. (Bot.) (Allium porrum). ◆ **porru planta**. Porru landarea. ◆ **porru-patata(k)** pl. Porruak eta patatak uretan egosiz prestatzen den janaria. *Gaur porru-patatak bazkaitako* 'gaur porru-patatak bazkaritarako'. ◆ **(norbaiti) porrua sartu**. Lgart. Zigorra ezarri, zigortu. [meterle un puro a alguien]. Ik. **isundu**; **isuna bota**. ¬

porru, porrua (2)

PORRU

porro, canuto, peta

porru[2] iz. Marihuana edo haxixa tabakoarekin nahasiz eginiko zigarreta.

porrua sartu
ZIGORRA JARRI

isuna bota, isundu

meterle un puro (a alguien)

(norbaiti) porrua sartu. Lgart. Zigorra ezarri, zigortu. [meterle un puro a alguien]. Ik. **isundu**; **isuna bota**. ¬

porrusalda, porrusaldia
PORRUSALDA

caldo de puerros

porrusalda iz. Porruz egindako salda. (Alderatu: **porru-patata(k)**).

portaera, portaeria
PORTAERA

konportamentu, ibilera

conducta, comportamiento

portaera iz. Portatzeko modua. *Portaera txarra ibili dau eskolan txikitati* 'portaera txarra ibili [izan, eduki] du eskolan txikitatik'. Ik. **konportamentu**; **ibilera**.

portatu, portatzen
PORTATU

konportatu

portar(se), comportar(se); portarse bien

portatu *da* ad. Jokatu, aipatzen den moduan aritu edo jardun. *Txarki portatu*. *Gaizki portatu*. *Ondo / ongi portatu*. *Ber dan bekela portatzen badaiz domekan fanko gaituk zinĭá* 'behar den bezala portatzen bahaiz domekan joango gaituk zinera'. ▲ Sin. *konportatu*.

portez
PARTEZ, ORDEZ

en vez de, en lugar de
a cambio de, en compensación de

portez (ordez & partez) adb. (-en atzizkiaren eskuinean). Aipatzen denaren lekuan, ordainetan edo haren truke. Ik. **ordez**; **(-en) partez**.

portilu, portilua
MENDATE

portillo, cañada

portilu iz. Mendi arteko pasabidea, bidezidorretik egiten dena. *Odolkiko portilua*. Ik. **portu**.

portu, portua
MENDATE

puerto (de montaña)
puerto (de mar)

portu iz. Mendatea. *Portuko bidĭa* 'mendateko bidea'. *Portuko liorra* 'mendateko aterpea'. Ik. **portilu**. [**2** iz. Itsasoko portua.]

portuges, portugesa
PORTUGES

portugués, -esa
portugués (lengua)

portuges **1** iz./adj. Portugaldarra. *Jose ta Marijose senar-emaztĭek portugesak dĭa, ta urte asko dĭatziai Urdinen bizitzen* 'Jose eta Marijose senar-emazteak portugesak dira, eta urte asko daramatzate Urdiainen bizitzen'. **2** iz. Portuges hizkuntza, portugalera. *Emengo eskolatan franzesa ta inglesa, bai, bea portugesa eztai yakusten* 'hemengo eskoletan frantsesa eta ingelesa, bai, baina portugesa ez dute erakusten'.

porzelana, porzelania PORTZELANA

porcelana

porzelana iz. Portzelana; gai zeharrargia, irazgaitza, buztingintza finean erabiltzen dena. *Porzelanazkwa da* 'portzelanazkoa da'. *Porzelanazko kikarak ta pate txikiek* 'portzelanazko kikarak eta plater txikiak'.

porzio, porziua ZATI, PUSKA

zati, parte, puska

porción

porzio iz. Ik. **zati**; **parte**; **puska**.

posible POSIBLE

daiteken *ezinezko, inposible*

posible, que puede ser

posible adj. Ik. daiteken. ▼ Anton. *ezinezko*, *inposible*. ◆ **posible izan**. Ezta posibel 'ez da posble'. *Majokio, ezta posible* 'majokiago, ez da posible'.

posizio, posiziua POSIZIO

leku, toki

posición, emplazamiento, situación

posizio iz. Egongunea, kokagunea. Ik. **leku**; **toki**.

posta, postia POSTA

posta (bala pequeña de plomo, mayor que los perdigones)

posta iz. Perdigoi handia. Balak eta postak. Ik. **perdigon**; **bala**. ◆ **postazo**. Poztaz jotako tiroa.

postal, postala POSTAL

postal, tarjeta postal

postal iz. Posta-txartela. *Bakaziota faten dan aldio postala bialtzen dwa* 'bakaziotara joaten den aldiro postala bidaltzen dit'. *Ar(r)en postala jaso du Gaubonak ta Urteberria felizitatzen* 'haren postala jaso dugu Gabonak eta Urteberria zoriontzen'. Ik. **felizitazio**.

poste, postia PILARE, ZUTABE. 2 ZUTOIN; HESOLA

pilare. 2 pikete, mustaka

poste, pilar, columna
poste; estaca, várgano

poste **1** iz. Zutabea. *Etxĩen postĩek* 'etxearen zutabeak'. Ik. **pilare**. **2** iz. Zutoina; hesola. *Telefono postĩek* 'telefono posteak'. Ik. **pikete**; **mustaka**.

postilla, postillia ZARAKAR

postilla; costra

postilla iz. Zarakarra; larruazalean, zauriak edo urratuak lehortzean, sortzen den gainalde gogortua. Ik. **kostra**; **tortika**.

postre, postria POSTRE, AZKENBURU(KO)

postre [de las comidas]

postre iz. *Postretako, ze artu ber dezai?* 'postretako, zer hartu behar duzue?'.

postu, postua

POSTU

puesto, lugar, sitio
puesto, empleo, cargo

postu **1** iz. iz. Erabilera jakin baterako gunea. *Txozako postuek* 'txozako postuak [ehiza postuak]. Ik. **leku**; **toki**. **2** iz. Kargua; lanpostua.

postura, posturia

JARRERA

postura, modo de estar
postura, actitud

postura **1** iz. Gorputz jarrera; jartzeko era, norbait edo zerbait jarrita dagoen era. *Bizkarreko mina, postura txarrĭen iten dezulako lo* 'bizkarreko mina, postura txarrean egiten duzulako lo'. **2** iz. Jarrera, egoera; pentsateko edo aritzeko jarrera. *Postura hartan ez yotiaiti* (huelgan).

pota, potia

POTA

pota (Ommastrephes sagittatus)

pota iz. Txibiaren antzeko moluskua, ez hain fina (Ommastrephes sagittatus). Pl. *potak*. *Gaur potak jan tu* 'gaur potak jan ditugu'. *Potak arrotzakin prepatuta* 'potak arrozarekin preparatuta'.

potaje, potajia

POTAJE

eltzari, eltzeko

potaje

potaje iz. Eltzekaria, lapikokoa. Ik. **eltzari**; **eltzeko**.

potente, potentia

POTENTE

potente

potente adj. Ahalmen handikoa, potentzia handikoa. ◆ **tente-potente** adb. Tente, geldirik. ● Esr. *Tente-potente, txerri(a) buztana tente*.

poto, potua

POTO

bote (recipiente)

poto iz. Ontzia; bereziki, kontserba ontzia. *Tomate potwa* 'tomate potoa'. *Konserba potwek* 'kontserba potoak'. ◆ **sega poto** (eta *sega pote* [Ziordia]). Segalariak gerrian eramaten duen ontzixka, segarria heze izateko erabiltzen dena.

potolo, potolua

POTOLO

gizen, lodi, potzolo, puztikilo

gordinflón, -ona, regordete, -a

potolo adj. Gizena, lodia. *Aur potolwa* 'haur potoloa' (LM). Ik. **gizen**; **lodi**; **potzolo**; **puztikilo**.

potorro, potorrua

ALU

alu, fandango, ipurdi

vulva

potorro iz. Lgart. Alua; emakumearen sexu organoa. Ik. **alu**; **ipurdi**; **fandango**.

potro, potrua
POTRO

barrabil, koskabilo, arrontza(k)

testículo, huevo, cojón

potro iz. Lgart. Barrabila. Ik. **barrabil**; **koskabilo**; **arrontza(k)**. ◆ **potrotaraino egon** (> *potrotaindo yon*). Kokoteraino egon, nazkatua egon.

potrobakar, potrobakarra
ARAKOIL, MONORKIDIKO

barrabil-bakarreko

ciclán, monorquídico (persona o animal de un sólo testículo)

potrobakar adj./iz. Arakoila, barrabil bakarra duena. ▲ Sin. *barrabil bakarreko*. *Potrobakarrekwa* 'potrobakarrekoa'.

potroskilo, potroskilua
SENDOKOTE

fortachón, -ona

potroskilo adj. (Gutxiespen balioarekin). Lgart. Sendokotea. *Jende indartsua, potroskilwa*.

potroso, potrosua
POTROSO

cachazudo, huevazos

potroso adj. Gibel-handia.

potrozorri, potrozorria (?)
POTROZORRI

ladilla
fastidioso, -a; chinche

potrozorri **1** iz. Zorrien ordenako intsektu bizkarroia, giza gorputzaren alderdi iletsuetan, batez ere pubisean, bizi ohi dena. **2** adj. (Irain hitz gisa). Petrala, gogaikarria.

pott
POT, PORROT

rendimiento de cansancio, agotamiento

pott ◆ **pott egin** (> *pott in*). Akituta, indarra galduta, ahaleginean huts egin. Ik. **meko**.

pottoko, pottokua
POTTOKO

zaldikuma

potro, caballito

pottoko iz. Behorraren kume arra. Ik. **zaldikuma**; **behoka** (> *bioka*).

potxokan
BOTXOKA / POTXOKA

meter en el boche (boche, hoyo para ciertos juegos de niños)

potxokan adb. Haur jolasa, bola zuloan [botxoan / potxoan] sartzean datzana.

potzolo, potzolua
POTZOLO

puztikilo, zanpatorta / zanpatorto, potolo (LM)

regordete, -a

potzolo adj. Lodia, gizena. ▲ Sin. *puztikilo*, *potolo*, *zanpatorta / zanpatorto*.

poz-pozik
POZ-POZIK

muy contento, -a, contentísimo, -a, lleno, -a de alegría, encantado, -a; muy satisfecho, -a

poz-pozik adb. *pozik*-en indargarria; oso pozik. *Poz-pozik do erregaluekin* 'poz-pozik dago erregaluarekin'.

poz, poza

POZ

tristura

alegría, júbilo, regocijo

poz iz. *Poz aundia* 'poz handia'. ▼ Anton. *tristura*. ◆ **bizitzeko poz**. Bizitzeko poza ematen duen gauza. *Eztuka bizitzeko poz aundik* 'ez dauka bizitzeko poz handirik'. Ik. **bizipoz**; **satisfazio**. ◆ **poza hartu** *dau* ad. Poza sentitu. *Nolako poza artu dau ikus dezunĭen* 'nolako poza hartu du ikusi dizunean [zaituenean]'. Ik. **ilusioa egin** (> *ilusiua in*). ◆ **poza eman**. Poza sorrarazi.

poza hartu

POZ(A) HARTU

alegrarse, congratularse

poza hartu *dau* ad. Poza sentitu. *Nolako poza artu dau ikus dezunĭen* 'nolako poza hartu du ikusi dizunean [zaituenean]'.

pozal, pozala

BALDE, BOZAL

balde

pozal

pozal iz. Bozala, baldea. Ik. **balde**.

pozalkada

BALDEKADA

baldekada

pozal, contenido de un pozal lleno

pozalkada iz. Baldekada. *Pozalk'at ur bota zĭan buti bĭa* 'pozalkada bat ur bota zion burutik behera'. Ik. **baldekada**.

pozalkan

BALDEKA

baldekan

a pozales, a cubos

pozalkan adb. Pozala [baldea] neurri erabiliz. *Ura pozalkan ekarri* 'ura baldeka ekarri'. ▲ Sin. *baldekan*.

pozik

POZIK

alai (?), alegere, alegre, kontentu. 2 konforme

triste

contento, -a, alegre; de buena gana, con gusto

satisfecho, -a, conforme

pozik **1** adb. Pozez beterik, poztasunez. ▲ Sin. *alai* (?), *alegere*, *alegre*, *kontentu*. ▼ Anton. *triste*. **2** adb. Askietsirik, gogobeterik. Ik. **konforme**.

◆ pozik egon (> *pozik yon*)

◆ pozik fan. Pozik joan.

◆ pozik hartu.

◆ pozik gelditu (konforme gelditu).

◆ **poz-pozik** adb. *pozik*-en indargarria; oso pozik. *Poz-pozik do erregaluekin* 'poz-pozik dago erregaluarekin'.

poztasun, poztasuna

POZTASUN

alaitasun, poz

tristetasun

alegría, satisfacción, gozo

poztasun iz. Poza, pozezko egoera. *Notiziorrek poztasun aundia eman dwa* 'notizia horrek poztasun handia eman dit. ▲ Sin. *alaitasun*, *poz*. ▼ Anton. *tristetasun*.

poztu, pozten POZTU

alaitu, alegratu

alegrar(se)

poztu *da/dau* ad. Poz hartu, poz eman, pozez bete. *Poztu in berko zindake* 'poztu egin beharko (zinateke) zenuke'. Ik. **alaitu**; **alegratu**.

praktika, praktikia PRAKTIKA

práctica, experiencia, habilidad, destreza

praktika (eta *pratika*) iz. *Teoria ta praktikĭa* 'teoria eta praktika'. *Praktika pixkatekin, trebe za* 'praktika pixka batekin, trebe zara'. *Praktika pixkat artu artĭa, juxto moldatzen naiz lanĭen* 'praktika pixka bat hartu arte, justu moldatzen naiz lanean. *Praktika gaio ber dau* 'praktika gehiago behar du'. *Pratika aundia duka txofer lanetan* 'praktika handia dauka txofer [gidari] lanetan'.

praktikatu, praktikatzen PRAKTIKATU

practicar

praktikatu (eta *pratikatu*) *dau* ad. *Aspaldi praktikatu be, ia-ia aztu zaio pianwa jotzen* 'aspaldi praktikatu gabe, ia-ia ahaztu zaio pianoa jotzen'.

praktiko, praktikua PRAKTIKO

práctico, -a; útil, provechoso, -a

praktiko adj. Helburuari ongi egokitzen zaiona. *Erramintĭau ezta bátere praktikwa* 'erreminta hau ez da batere praktikoa'.

pratika, pratikia PRAKTIKA

práctica, experiencia, habilidad, destreza

pratu, pratzen PROBATU

probar, catar, gustar

pratzaile, pratzailia DASTATZAILE

degustador, -a, catador, -a

pratzaile iz. Dastatzailea. *Pratzaile txarra ibil du; dana gatzi do* 'dastatzaile txarra ibili dugu; dena gazi dago'.

prebenitu, prebenitzen PREBENITU

prevenir
prevenirse, proveerse
prevenir, evitar

prebenitu **1** *da* ad. Neurriak hartu.

predikatu, predikatzen PREDIKATU

predicar

predikatu *dau* ad. *Sermoia galanta predikatu dau* 'sermoi galanta predikatu du'. || *Eztau ejenpluekin predikatzen* 'ez du etsenpluarekin predikatzen'. *Bakoitzak betako baindo-re errazo da bestendako predikatzĭa* 'bakoitzak beretako baino errazago da besterendako predikatzea'.

predikatzaile, predikatzailia

PREDIKATZAILE

predicador, -a

predikatzaile iz. Predikaria; predikatzen duen pertsona; egiteko nagusitzat eliz hitzaldiak ematea duen elizgizona.

predikazio, predikaziua

PREDIKAZIO, PREDIKU

sermoi / sermon

predicación; sermón

predikazio iz. Predikua, sermoia. *Bota zen predikazio bat!* 'bota zuen predikazio bat!'. Ik. **sermoi**.

pregonatu, pregonatzen

PREGONATU, ALDARRIKATU

pregonar; hacer notorio en voz alta algo para que llegue a conocimiento de todos
pregonar; publicar lo que estaba oculto o lo que debía callarse

pregonatu *dau* ad. Aldarrikatu. || Pregoia jo, isilpekoa zabaldu. *Etxitun (ez jitun) kontuok ixilik gordeko, ez; listo pregonatuko jitun danok entĭatzeko moduen* 'ez ditin kontuok isilik gordeko, ez; azkar pregonatuko ditin denok enteratzeko moduan'.

pregonero, pregonerua

PREGOILARI, ALDARRIKARI

pregonero, -a

pregonero iz. Pregoilaria, aldarrikaria; pregoia jotzen duen pertsona.

pregu, pregua

DEI(AK), ELIZ DEI(AK); PREGOI

amonestaciones (de casamiento)

pregu (eta *prego* [?], *pregwek*) iz. Batez ere pl. *preguek*. Eliz deia; ezkontza baten berri ematen duena dena eta meza nagusian adierazten dena. *Ezkondu aurreti(k) izaten dĭa pregwek* 'ezkondu aurretik izaten dira pregoiak'. ◆ **preguak hasi** (> *pregwek asi*) [Urdiain] *Preguek hasi dia* (Ond Bak). ◆ **pregutan egon** (> *pregotan yon*). *Pregotan do* 'pregutan dago'.

premia

PREMIA

berra (beharra), nezesidade

necesidad, apremio, urgencia, premura

premia iz. Ik. **beharra** (> *berra*); **nezesidade**. ◆ **premia ibili**. Premia izan. *Premia aundia duka* 'premia handia dauka'. *Etxi'onek bauka premia txwitzeko* 'etxe honek badauka premia zuritzeko'. *E'zukan premiaik* 'ez zeukan premiarik'. ◆ **premian egon** (> *premien yon*). *Oi premien do* 'hori premian dago'. ◆ **premia(rik) gabe** (> *premieipe*).

premiatu, premiatzen

PREMIATU

behartu, obligatu, forzatu

forzar, obligar (forzar la puerta, etc.); desquiciar, desencajar
dislocar(s)e, torcer(se) algún miembro, luxar(se); sobrecarga muscular

premiatu **1** *dau* ad. Behartu, hertsatu. *Ataia premiatuik do: ezin zabaldu, ezin itxi* (Ond Bak). *Ataia premĭatu* 'atea behartu, atea orpotik atera'{forzar la puerta}. **2** *dau* ad. Behartu, trokatu, bihuritu. *Belauna premiatu*. *Ezurren bat dukat premiatwik* 'hezurren bat daukat premiaturik'. Ik. **bihortu**.

premiazko, premiazkua

PREMIAZKO

beharrezko

necesario, -a, indispensable

premiazko adj. Ik. **beharrezko**; **berdan(a)**. ◆ **premiazkoa izan** (> *premiazkwa izan*).

premio, premiua

SARI

premio

premio iz. Saria. – premiua patu. – premiua eman. – premiua hartu, jaso. – premiua ailatu. *Suertĭa! Premiua ailatu!* 'suertea! Saria ailegatu!'.

prenda, prendia

PRENDA

alaja

prenda, alhaja (se emplea irónicamente)

prenda iz. Pertsonengatik esanda, balio handikoa. (Batez ere, ironiaz erabiltzen da). *A ze prendĭa!* 'a zer prenda'. Ik. **alaja**.

prensa, prensia

PRENTSA

prensa (máquina que sirve para comprimir)

prensa iz. Tresna zapaltzailea, konprimatzeko makina.

prensatu, prensatzen

PRENTSATU

prensar

prensatu *dau* ad. Prentsatu, prentsan zapaldu. Ik. **zapaldu**.

preokupatu, preokupatzen

PREOKUPATU, KEZKATU

preocupar(se), inquietar(se)
responsabilizarse, encargarse

preokupatu (eta *prekupatu*) **1** *da* ad. Kezkatu. *Emaztĭa medikutan dail da preokupatwik do* 'emaztea medikutan dabil eta preokupaturik dago'. *Bĭandutwik ta etxĭa bueltatzen ez zala ikusita, preokupatzen asi gindan* 'beranduturik eta etxera bueltatzen ez zela ikusita, preokupatzen hasi ginen'. Ik. **apuratu** (> *apwatu*); **larritu**. **2** *da* ad. Arduratu. *Bestĭoingeiti ezaitez oinbeste preokupatu ta artazu zĭautako denborĭa* 'besteongatik ez zaitez honenbeste preokupatu eta har ezazu zeuretako denbora'. Ik. **okupatu**.

prepatu, prepatzen

PREPARATU, PRESTATU

preparar(se), disponer(se)

prepatu *da/dau* ad. Preparatu, prestatu. – *Prepatuik ze?* 'preparaturik / prest zaude?'. || Afaia prepatu 'afaria preparatu'. Ik. **organizatu**.

pres

PREST

pronto, listo

listo, -a, dispuesto, -a, preparado, -a

pres adb. Prest, prestaturik. *Pres no launtzeko* 'prest nago laguntzeko'. Ik. **pronto**; **listo**. ◆ **pres egon** (> *pres yon*). Prest egon. *Asi nai dezunĭen; gu pres ge ta* 'hasi nahi duzunean; gu prest gaude eta'. ◆ **pres ibili** (eduki). Prest eduki. *Pres dukat maletĭa* 'prest daukat maleta'. *Pres dukatzit arropak* 'prest dauzkat arropak'.

presa, presia

PRESA (2)

ubarka, erreten; parada

presa, dique
represa

presa iz. **1** iz. Ibai edo kideko baten ibilbidean eraikitzen den horma, ura pilatzeko edo desbideratzeko erabiltzen dena. Ik. **ubarka**; **erreten**; **parada**. **2** iz. Urtegia.

presentatu, presentatzen

PRESENTATU

presentar(se), dar a conocer(se)

presentatu *da/dau* ad. ¬

presente

PRESENTE

presente, que está delante

presente pred. Aurrean dena edo dagoena. *Oi leku guzitan presente do* 'hori leku guzietan presente dago'.

presenzia

PRESENTZIA, ITXURA

etxura

presencia, aspecto, forma; talle, figura y disposición del cuerpo

presenzia iz. Presentzia, itxura. *Presenzĭa ona duka; etxuraduna da* 'presentzia ona dauka; itxuraduna da'. Ik. **etxura**.

presidente, presidentia

PRESIDENTE

presidente, -a

presidente **1** iz. Gobernuburua; Errepublika bateko estatuburua. **2** iz. Erakunde, biltzar edo elkarte baten burua.

presio, presiua

PRESIO

presión
presión, fuerza, coacción

presio **1** iz. *Presio gutxi duka txorroko urak* 'presio gutxi dauka txorrotako urak'. **2** iz. Norbaiten ekintzetan edo jokaeran eragina duen indarra. *Karrerista ona da, bea presio aundiai sartu dĭai* 'karrerista ona da, baina presio handiegia sartu diote'. ◆ **presioa egin** (> *presiyua in*) *dau* ad. *Tensiyua artzeko aparatwek presio aundia iten dau beswen* 'tentsioa hartzeko aparatuak presio handia egiten du besoan'. *Presio ikaragarria in zaĭn ikurriña kendu ta Españako banderĭa patzeko* 'presio ikaragarria egin zuten ikurriña kendu eta Espainiako bandera paratzeko'. Ik. **presionatu**.

presionatu, presionatzen

PRESIOA EGIN

presionar, ejercer presión sobre alguien o algo

presionatu **1** *dau* ad. Zerbaiti presioa egin. Ik. **kalkatu**; **presioa egin** (> *presiyua in*). **2** *dau* ad. Norbaiten ekintzetan edo jokaeran eragin. Ik. **behartu**; **presioa egin** (> *presiyua in*).

preso yan

PRESO ERAMAN

detener, apresar, capturar

preso yan. Preso eraman; preso hartu, atxilotu. *Preso yan dai* 'preso eraman dute'.

preso, presua

PRESO

preso, -a
preso, -a

preso **1** adb. *Preso yon* 'preso egon'. *Txakurra preso dukai* 'txakurra preso dute'. **2** iz. Preso dagoen pertsona. ◆ **preso yan**. Preso eraman; preso hartu, atxilotu. *Preso yan dai* 'preso eraman dute'.

prestatu, prestatzen

PRESTATU

prestar, hacer un préstamo

prestatu *dau* ad. – dirua prestatu. Erremitia prestatu. Ik. **kendu**; **dirua kendu**.

prestatzaile, prestatzailia

PRESTATZAILE, MAILEGU EMAILE

prestamista

prestatzaile iz. Mailegu emaile; diru kopuru bat edo gauza bat maileguz ematen duen pertsona. *Dirua prestatzen dena da prestatzailĩa* 'dirua prestatzen duena da *prestatzailea*'.

prestu, prestua

PRESTU

zinaza (?)

formal, serio, -a; honrado, -a, recto, -a; noble; juicioso, -a

prestu adj. *Persona prestua* 'pertsona prestua'. (?)

pretesto, pretestua

AITZAKIA

1 eskusa. 2 enplasto

pretexto, excusa, pega

pretesto **1** iz. Aitzakia. **2** adj. *Aldeintzak emeti, petrestuoi!* (?). Ik. enplasto.

prezio, preziua

PREZIO

balio

precio
precio, costo

prezio iz.
◆ **erdi-prezioan** (> *erdi-preziuen*).

preziosidade, preziosidadia

EDERTASUN

edertasun

preciosidad, belleza, hermosura

preziosidade iz. Edertasuna. Ik. **edertasun**.

preziso

BEHARREZKO IZAN

ser preciso

preziso adb. Beharrezko izan nahitaez Preziso ber dau. ◆ **preziso izan**.

preziso, prezisua

BEHARREZKO, NAHITAEZKO

beharrezko

necesario, -a; indispensable; a la fuerza, necesariamente, sin otro remedio

preziso adj. Beharrezkoa izan. *Sagona trozua preziso ber dik*. Ik. **beharrezko**.

pribatu, pribatua PRIBATU
partikular *publiko; komunal*
privado, -a; particular

pribatu 1 adj. Herri erakundeek parte hartzen ez dutena; estatuari ez dagokiona eta haren mende ez dagoena. *Emengo dermiua pribatua da; baswa, komunala* 'hemengo dermioa pribatua da; basoa, komunala'. *Klinika oiek danak pribatuek dĭa* 'klinika horiek denak pribatuak dira'. ▼ Anton. *publiko*; *komunal*. **2** adj. Partikularra, norberarena. Ik. **partikular**.

pribilejio, pribilejiua PRIBILEGIO
bentaja
privilegio, ventaja

pribilejio iz. Pribilegioa. *Indartsuendako dĭa pribilejio aundiek* 'indartsu(ar)endako dira pribilegio handiak'. Ik. **bentaja**.

prima, primia PRIMA (2)
prima (cantidad extra de dinero)

prima iz. Lorpen berezi batengatik egiten den ordainketa-gehigarria. *Sweldotik aparte, bi prima jaso tuai* 'soldatatik aparte, bi prima jaso dituzte'. Ik. **estra**; **gratifikazio**.

primabera, primaberĭa UDABERRI
udaberri
primavera

primabera iz. Udaberria. "*San Benito primabera, kaka txuria goitik behera*" (*Udaberri ataien, elurra firi-fara*). Ik. **udaberri**.

primal, primala URTE BETEKO (BILDOTS); TXERRI GAZTE
primal, -a

primal adj./iz. Urte betetik gorako arkumea. | Txerri gaztea. ¬

primerako, primerakua PRIMERAKO
aproposa, eroki
muy bueno, -a, de primera (clase)

primerako adj. Egokia, bikaina. Ik. **apropos(a)**; **eroki**.

primeran PRIMERAN
geizkitxo, majo (2)
estupendamente, muy bien

primeran adb. Bikain, oso ongi. Ik. **geizkitxo**; **majo**[2]; **panparroi**.

primitibo, primitibua PRIMITIBO
primitivo, -a

primitibo adj. Gizataldeez mintzatuz, idazkera eta industria eta teknika aurreratuak ezagutzen ez dituena.

primo, -a txiki; primo, -a txikia LEHENGUSU TXIKI; LEHENGUSINA TXIKI
primo segundo; prima segunda

primo, -a txiki. Lehengusu txikia; lehengusina txikia, gurasoen lehengusuen semea edo alaba.

primo, primua / prima, primia

LEHENGUSU

lehengusu

primo; prima

primo, -a (Generoa hartzen du) iz. Lehengusua. Ik. **lehengusu**. ◆ **primo, -a txiki**. Lehengusu txikia; lehengusina txikia, gurasoen lehengusuen semea edo alaba.

printza, printzia

PRINTZA

fragmento; brizna, cosa menuda; astilla de leña; pedazo pequeño
rayo (de luz)

printza **1** iz. Gauza edo gai baten zatiki txiki. *Ezpal printzĭa* 'ezpal printza'. *Egur printzia* 'egur printza'. Ik. **ezpal**. *Burni printzĭa* 'burdin printza'. *Burni printzĭa sartu zait bietzĭen* 'burdin printza sartu zait behatzean [hatzean]'. || Puska txikia. *Ogi printzĭa* 'ogi printza'. *Emantzak ogi printza bat* 'emaidak ogi printza bat'. **2** iz. (Argi) izpia. *Argitasun printza bat sartzen da laioko zirrituti* 'argitasun printza bat sartzen da leihoko zirritutik'. ◆ **printzak atera** (> *printzak ata*) *dau* ad. Printzatu. *Porraketan, burniziai printzak atartĭa* 'porraketan [borraz joka], burdin ziriari printzak atera arte'.

printzatu, printzatzen

PRINTZATU

fragmentar(se); rajar(se), agrietar(se); cascar(se), romper(se), quebrar(se)

printzatu *da/dau* ad. Printzak egin; arrakalatu, pitzatu. *Azkazalak printzatu*. *Sutako egurra printzatu* [egur printzak egin]. Ik. **kaskatu**.

prinzesa, prinzesia

PRINTZESA

princesa

prinzesa iz. Printzesa.

prinzipal, prinzipala

PRINTZIPAL

nagusi / nagosi; jeneral

principal, (el...) más importante

printzipal (> *prinzipal*) adj. *Arrama prinzipala*. *Prinzipalena osasuna dok*. *Hoi da prinzipalena*. *Jende prinzipalak*. Ik. **nagusi / nagosi**; **jeneral**.

prinzipe, prinzipia

PRINTZE

príncipe

prinzipe iz. Printzea.

prisa, prisia

PRESA

prisa, urgencia, premura

prisa iz. Presa; zerbait azkar eta astirik galdu gabe egiteko premia. *Prisa aundia dukazu?* 'presa handia daukazu?'. ◆ **prisa eman** (> *prisĭa eman*) *dau* ad. Presa eman. *Bestei prisĭa eman, bai, bea bĭa lasai baindo lasaio ibiltzen da* 'bestei presa eman, bai, baina bera lasai baino lasaiago ibiltzen da'. ◆ **prisa ibili** (> *prisĭa ibili* [eduki]). Presa eduki, presa izan. *Prisĭa dukat ta banua* 'presa daukat eta banoa'. *Ez emen duka prisa aundik* 'ez omen dauka presa handirik'.

prisaka(n)

PRESAKA

deprisa

prisaka(n) (eta *presaka*) adb. Presaz. *Hain presaka jaten dau, belaxe jaten dau dena* (Ond Bak). *Beti prisakan, garaiz sekula ez ailatzeko* 'beti presaka, garaiz sekula ez ailegatzeko'. *Ezaun do prisakan indako lana dala* 'ezagun dago presaka egindako lana dela'. *Gwai prisakan naile ta beste egunen batĭen yonen ga* 'orain presaka nabil eta beste egunen batean egonen gara'.

prisia eman

PRESA EMAN

apresurar, dar prisa; meterle prisa (a alguien)

prisa eman (> *prisĭa eman*) *dau* ad. Presa eman. *Bestei prisĭa eman, bai, bea bĭa lasai baindo lasaio ibiltzen da* 'bestei presa eman, bai, baina bera lasai baino lasaiago ibiltzen da'.

prisia ibili

PRESA IZAN

tener prisa, tener urgencia

prisa ibili (> *prisĭa ibili* [eduki]). Presa eduki, presa izan. *Prisĭa dukat ta banua* 'presa daukat eta banoa'. *Ez emen duka prisa aundik* 'ez omen dauka presa handirik'.

proba in

PROBA EGIN

hacer la prueba, probar, intentar
mejorar, progresar

proba egin (> *proba in*, *prueba in; proga in*). **1** *Intzan proba*. *Proba bat in ber du*. *Proga in* (AG). **2** *probĭa in*. Aurrera egin, aurreratu. *Yauriokin porruek probĭa in dai* 'euri hauekin porruek aurrera egin dute'. [proba in ≠ probĭa in; *proba in*: saiatu; *probĭa in*: examena in].

proba, probia

PROBA, FROGA

(n) ensaio

prueba
prueba, intento
prueba, examen
prueba, competición

proba (eta *prueba*) iz. Ald. *proga*.

◆ **proba egin** (> *proba in*, *prueba in; proga in*). **1** *Intzan proba*. *Proba bat in ber du*. *Proga in* (AG). **2** *probĭa in*. Aurrera egin, aurreratu. *Yauriokin porruek probĭa in dai* 'euri hauekin porruek aurrera egin dute'. [proba in ≠ probĭa in; *proba in*: saiatu; *probĭa in*: examena in]. ◆ **probakan** adb. Probatuz, proba eginez. lk. **probaketa(n)**. ¬

probakan

PROBATUZ, PROBA EGINEZ

probando; ensayando

probakan adb. Probatuz, proba eginez. lk. **probaketa(n)**.

probaketan

PROBAKETA / PROBAKETAN*

probando; ensayando

probaketa iz. ◆ **probaketan** adb. Probatzen, saiatzen. lk. **probaka(n)**.

probatu, probatzen (1) PROBATU

probar, examinar; poner a prueba
probar(se)
probar, catar, gustar

probatu[1] (eta *pratu*) **1** *dau* ad. Zerbait edo norbait omen den bezalakoa ote den egiaztatu, saio edo azterketa bidez. *Ondo dailen probatu dezu?* 'ondo dabilen probatu duzu?'. **2** (eta *pratu*) *dau* ad. Dastatu. *Zopĭa pratazu* 'zopa proba ezazu'. **3** (eta *pratu*) *dau* ad. Jantziak eta kidekoak probatu.
◆ **(norbait) probatu, proban patu**. Tentatu, zirikatu.

probatu, probatzen (2) FROGATU

demostratu
probar, demostrar; justificar

probatu[2] *da/dau* ad. Frogatu, froga bidez zerbait egiatzat edo ziurtzat agerrarazi edo ezagutarazi. *Bĭa izan zanik ezta sekula probatu* 'bera izan zenik ez da sekula frogatu'. Ik. **demostratu**.

probetxu, probetxua PROBETXU

aprobetxamentu
provecho

probetxu iz. Onura. *Abil, abil; eztok probetxu asko atako orti* 'habil, habil; ez duk probetxu asko aterako hortik'. Ik. **aprobetxamentu**. ◆ **probetxuzko** adj. Onurazkoa. *Eztuka probetxuzko gauza aundik* 'ez dauka probetxuzko gauza handirik'. *Inko balau probetxuzko zeozer* 'egingo balu probetxuzko zer edo zer'. Ik. **probetxugarri**.

probetxubeiko, probetxubeikua PROBETXUGABE

que no es provechoso, que no es aprovechable

probetxubeiko adj. Probetxugabea; probetxurik ez duena, probetxurik ateratzen ez zaiona. *Probetxwik eztukana, probetxubeikuwa* 'probetxurik ez daukana, probetxugabea'.

probetxugarri, probetxugarria PROBETXUGARRI

provechoso, -a

probetxugarri adj. Probetxuzkoa (LM).

probetxuzko, probetxuzkua PROBETXUZKO

provechoso, -a, de provecho

probetxuzko adj. Onurazkoa. *Eztuka probetxuzko gauza aundik* 'ez dauka probetxuzko gauza handirik'. *Inko balau probetxuzko zeozer* 'egingo balu probetxuzko zer edo zer'. Ik. **probetxugarri**.

probintzi PROBINTZIA. 2 GIPUZKOA

2 Gipuzkua
provincia
Guipúzcoa

probintzi **1** iz. Probintzia, herrialdea. **2** Probintzi (eta *Prointzi*) (P larriarekin) iz. Gipuzkoa.

probintziano GIPUZKOAR

gipuzkoano
guipuzcoano, -a; de Guipúzcoa

probintziano (eta *prontziano*) adj./iz. Gipuzkoakoa; Gipuzkoako herritarra.

problema, problemia PROBLEMA

problema, dificultad
problema (de matemáticas)

problema (eta *prolema*) **1** iz. Arazoa, erabakitzeko edo konpontzeko edozein eratako eragozpenak agertzen dituen egitekoa. *Ez gendukan, ba, problema gutxi!* 'ez geneukan, ba, problema gutxi!'. **2** iz. Matematiketan, argitu edo ebatzi behar den arazoa. *Bat ezpa, problema guztiek ondo in tu* 'bat izan ezik, problema guztiak ondo egin ditu'.

problematiko, problematikua PROBLEMATIKO

problemático, -a

problematiko adj. Arazotsua, arazoak sortzen dituena. *Problematikwa izan da beti* 'problematikoa izan da beti'.

produkto, produktua PRODUKTU

producto, cosa producida

produkto iz. Produktua. *Produkto txarra ata zaira* 'produktu txarra atera zait'.

produkzio, produkziua PRODUKZIO

producción

produkzio (eta *produzio*) iz. Ekoizpena. *Estranjeĭra yaten daĭ fabrikako produkzio gaiena* 'estranjeriara [atzerrira] eramaten dute frabrikako produkzio gehiena'.

produzitu, produzitzen PRODUZITU

producir, dar; fabricar, crear

produzitu *dau* ad.

profesio, profesiua PROFESIO

lanbide, ofizio

profesión

profesio iz. Lanbidea. Ik. **lanbide**; **ofizio**.

profesional, profesionala PROFESIONAL

profesional

profesional adj./iz. Jarduera jakin bat lanbide duena; amateur ez dena.

profeta, profetia PROFETA

profeta

profeta iz. Jainkoak argiturik eta haren izenean, egia ezkutuen edo etorkizuneko gertaeren berri ematen omen duen pertsona.

proga, progia FROGA

prueba

proga iz. Froga, zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio duen gauza. Ik. **proba**. ◆ **proga egin** (> *proga in*). Proba egin, saioa egin. [Oharra: 'proga' adineko jendeak esaten du].

programa, programia PROGRAMA

programa (de fiestas); impreso que contiene el programa
programa (de estudios)

programa **1** iz. Egitaraua. *Programĭa pintxo jok inik; bakarren batzuk oitwik jek olako gauzak iten* 'programa pintxo [dotore] zagok eginik; bakarren batzuk ohiturik zaudek holako gauzak egiten'. **2** iz. *Eskolako programĭa* 'eskolako programa' (LM).

proibitu, proibitzen DEBEKATU, GALARAZI

galarazi, debekatu, iotzi

prohibir, vedar

proibitu *dau* ad. Debekatu, galarazi. Ik. **galarazi**; **debekatu**; **eragotzi** (> *iotzi*).

Prointzi GIPUZKOA

Gipuzkua

Gipuzkoa (nombre que suele darse a la provincia de Guipúzcoa)

Probintzi (eta *Prointzi*) iz. Gipuzkoa.

promesa, promesia PROMES

agindu, mandamentu

promesa

promesa (*a* itsatsia) iz. Promesa. Ik. **agindu**; **mandamentu**. ◆ **promesa egin** (> *promesĭa in*). Promes egin. Ik. **prometitu**.

prometitu, prometitzen PROMESTU, PROMETATU

agindu, hitza eman, promesia in

prometer

prometitu *dau* ad. Ik. **agindu**; **hitza eman**; **promesa egin** (> *promesĭa in*).

pronto PRONTO, PREST

listo, pres

preparado, -a, dispuesto, -a, listo, -a

pronto adb. Prest. *Dana jateko pronto* 'dena jateko pronto'. *Bazkaia pronto do* 'bazkaria pronto dago'. *Maia pronto do* 'mahaia pronto dago'. *Pronto ago?* 'pronto hago?'. Ik. **listo**; **pres**.

propaganda, propagandia PROPAGANDA

propaganda

propaganda iz. Zerbait ezagutaraztea, jarraitzaileak edo erosleak lortzeko. *Ixilien bota daĭ propagandĭa* 'isilean bota dute propaganda'. *Kaso iniozu propagandĭai!* 'kasu egiozu propagandari!'.

propina, propinia ESKUPEKO, PROPINA

propina

propina iz. Eskupekoa (saria). *Ondo portatuzkio, pagĭekin propinĭa ematen zwain* 'ondo portatuz gero, pagarekin propina ematen zidaten'. Ik. **gratifikazio**. ◆ **propina eman** (> *propinĭa eman*). *Ze gosta zaizu propinatxuet ematĭa?* 'Zer gosta zaizu propinatxo bat ematea?'.

propio, propiua PROPIO

lijito

carnal, directo, -a
propio, -a; peculiar

propio **1** adj. Odolekoa, propioa. *Ama propiua*. Ik. **lijito**. **2** adj. Berezkoa. *Soro propiua da, nĭaurĭa* 'soro propioa da, neurea'. *Eskuerĭa da Eskualerriko izkera propiua* 'euskara da Euskal Herriko hizkera propioa'.

proponitu, proponitzen PROPOSATU

2 saiatu

proponer
proponer(se)

proponitu **1** *dau* ad. Proposatu. **2** *da* ad. Saiatu.

proporzio, proporziua PROPORTZIO

proporción

proporzio iz. Proportzioa. *Partitzeko garaien, gaizki in tu proporziuek* 'partitzeko [banatzeko] garaian, gaizki egin ditu proportzioak'.

protejitu, protejitzen BABESTU

proteger(se)

protejitu *da/dau* ad. Babestu.

protekzio, protekziua BABES

defensa

protección, amparo, defensa

protekzio iz. Babesa.

protesta, protestia PROTESTA

protesta

protesta iz. Adostasun ezaren edo arbuioaren adierazpena. *Welga egunĭen protesta aundiek yon dĭa* 'huelga [greba] egunean protesta handiak egon dira'.

protestatu, protestatzen PROTESTATU

kejatu

protestar

protestatu *dau* ad. Ik. **kejatu**.

prozesio, prozesiua PROZESIO

procesión (religiosa)
hilera de personas o animales que van de un lugar a otro

prozesio **1** iz. Erlijiozko ibilaldia, pertsona multzo batek abestuz edo otoiztuz egiten duena. *Erriai buelta eman dĭai, prozesiuen* 'herriari buelta eman diote, prozesioan'. **2** iz. Irud. Jende andana joan-etorrian. *Ezaun do ointwek ata dĭala; or daile jendĭa prozesiuen* 'ezagun dago onddoak atera direla; hor dabil jendea prozesioan'.

publikatu, publikatzen

PUBLIKATU

difundir, propalar, hacer público
publicar

publikatu **1** *dau* ad. Argira atera, argitara eman. *Bandwa publikatu dai* 'bandoa publikatu dute'. **2** *dau* ad. Argitaratu. *Publikatu dai libua* 'publikatu dute liburua'.

publiko, publikua

PUBLIKO

pribatu

público, -a (relativo a la Administración)
público, -a (accesible a todos)

publiko **1** adj. Herriko erakundeei dagokiena; herritarren multzoarena edo multzoarentzat dena. *Eskola publikwá faten da* 'eskola publikora joaten da'. ▼ Anton. *pribatu*. **2** adj. Agerikoa, jendaurrekoa. *Nai denak fan, publikwa da reuniuoi* 'nahi duenak joan, publikoa da bilkura hori'.

puerkeia / porkeia

ZIKINKERIA

zikinkeia

porquería, suciedad, basura

puerkeria (> *puerkeia*, *porkeia*) iz. Zikinkeria. Ik. **zikinkeria** (> *zikinkeia*); **lakats**.

pulmon

BIRIKA

birika

pulmón

pulmon iz. (Batez ere pl.) *Pulmonetakuá* (Ond Bak). Ik. **birika**.

pulmonetako, pulmonetakua

BIRIKETAKO, BIRIKERI

biriketako

pulmonía, neumonía; tuberculosis

pulmonetako iz. Biriketakoa, birikeria. *Pulmonetakuá* (Ond Bak). Ik. **biriketako**.

pulmonia

BIRIKERI, BIRIKETAKO

pulmonía

pulmonia iz. Birikeria, biriketako gaitza. ◆ **pulmonia belar** (> *pulmonia bear*) iz. (Bot.).

pulmonia bear, pulmonia bearra

pulmonia belar (> *pulmonia bear*) iz. (Bot.).

pulpa, pulpia

ERREMOLATXA OREA

pulpa de remolacha

pulpa iz. Erremolatxa orea, pentsutarako abereei ematen zaien bazka. *Remolatxan kaskalata da pulpĭa; pertzĭen yosita ematen zezaion ganauai* 'erremolatxaren azala-eta da pulpa; pertzean egosita ematen zitzaion ganaduari'.

pulpitu, pulpitua

PULPITU

púlpito

pulpitu iz. Predikurako plataforma. *Arek pulpituti esaten zituenak* 'hark pulpitutik esaten zituenak'.

pulsera, pulseria
ESKUMUTURREKO

pulsera

pulsera iz. Pultsera, eskumuturrekoa; eskumuturrean eramaten den eraztun moduko apaingarria edo babesgarria.

pulsu / pulsuak (2)
LOKI

lotoki

sien; sienes

pulsu(ak) [Altsasu] iz. (Batez ere pl.) Lokia. {"*Púlsubák*, las sienes" (Iza Alts)}. Ik. **lotoki**.

pulsu, pulsua (1)
PULTSU

pulso

pulsu iz. Pultsua. *Pulsua artu* 'pultsua hartu'. *Eskuturrien hartzen dai medikuek pulsua* 'eskumuturrean hartzen dute medikuek pultsua'.

punpala
ERORI

caer(se) (voc. infant.)

punpala Haur. Erori.

punpatako, punpatakua
DANBATEKO

golpe

golpe fuerte; ruido, estruendo

punpatako iz. Danbatekoa. ▲ Sin. *golpe*. Ik. **bunbatako**.

punta ihar, punta iharra / punta seko
(ZUHAITZ) ADAR IHAR

puntiseco, -a (Dicho de un vegetal: Seco por las puntas)

punta ihar / **punta seko**. Zuhaitzez hitz eginez, adar puntak iharturik dituena. Ik. **galar**.

punta, puntia
PUNTA

2 mutur

punta (extremo agudo de algo)

extremo

punta **1** iz. *Igitaiek puntiekin* (Ond Bak). *Punta txorrotxa* 'punta zorrotza'. **2** iz. Irud. *Zuldurra ata zaio sur puntan* 'zaldarra atera zaio sudur puntan'. *Mendi puntan yon ga* 'mendi puntan egon gara'. Ik. **isuri punta** (> *isui punta*). *Txuma puntan*. **3** iz. *Punta bateti bestĭa* 'punta batetik bestera'. *Munduen azkeineko puntan* 'munduaren azkeneko puntan'. Ik. **mutur**; **eskina**. ◆ **punta atera** (> *puntĭa ata*). *Zarbairi puntak ata*. ◆ **punta ihar** / **punta seko**. Zuhaitzengatik hitz eginez, adar puntak iharturik dituena. Ik. **galar**.

puntabeiko, puntabeikua
PUNTA GABEKO

puntadun

romo, -a

puntabeiko adj. Punta gabea, punta gabekoa. *Puntabeĭko kutxilwa* 'punta gabeko kutxiloa'.

puntada, puntadia

PUNTADA

2 aditzeria bota

puntada
pulla

puntada iz. *Josteko puntadia; puntada haundiek eta puntada txikiek.* ◆ **puntadia bota**. Eztenkada, zirikada. Ik. **aditzeria bota**.

puntadun, puntaduna

PUNTADUN

puntabeiko

que tiene punta

puntadun adj. Punta duena. *Makila puntaduna*. ▼ Anton. *puntabeiko*.

puntal, puntala

EUSKARRI, IROZGARRI

puntal, apoyo

puntal iz. Euskarria, irozgarria. Ik. **tente**; **ostiko**.

puntapatx, puntapatxa

PUNTAPAX, ILTZE

giltza

clavo pequeño; punta / alfiler de París

puntapatx iz. Puntapaxa, iltze mota txikia. *Ola, bi puntapatxekin josita* 'ohola, bi puntapaxekin josita'. Ik. **giltza**.

punteia

TIRO TREBETASUN, PUNTERIA

puntería

punteria (> *punteia*) iz. Ald. *apuntei*. Tiro trebetasuna. Ik. **apunteria** (> *apuntei*).

puntero, punterua

ERAKUSTEKO ZOTZ. 2 PUNTA-ZIZEL

puntero (vara o palo fino con que se señala algo)
puntero (cincel de boca puntiaguda y cabeza plana)

puntero **1** iz. Erakusteko zotza; seinalatzeko erabiltzen den zotza edo ziria. *Berta maistrĭek punterwekin seinalatzen zen laitu ber genduena* 'Berta maistrak *punteroa*rekin seinalatzen zuen leitu behar genuena'. **2** iz. Punta-zizela; harria lantzeko altzairuzko esku lanabesa, punta konikoa edo piramidala duena eta mailuaz joz erabiltzen dena. Ik. **zinzel**.

puntilla, puntillia

PUNTILLA, PARPAILA

puntilla; encaje; bordado de malla fina

puntilla iz. Parpaila; zapi, eskuoihal, soineko eta kidekoen ertzetan josten den ehun sarezko zerrenda apaingarria, eskuz edo makinaz eginiko irudi tapituagoak eta ertz ondulatu edo puntadunak dituena.

puntu, puntua

PUNTU

punto, señal
punto, lugar, sitio
signo ortográfico; punto gráfico
punto, puntuación; unidad en una valoración o tanteo
punto, calceta
(Med.) punto, puntada

puntu **1** iz. Marka edo seinale guztiz txikia. **2** iz. Lekua, tokia, gunea. *Aitatzen dezun puntu ortati txabolaindo bi kilometro onak yonko dĭa* 'aipatzen duzun puntu hortatik txabolaraino bi kilometro onak egongo dira'. **3** iz. Puntuazio-marka. || i eta j letren gainean jartzen den marka. **4** iz. Joko, kirol, azterketa eta kidekoetan, parte-hartzaile bakoitzaren emaitzak mailakatzeko erabiltzen den eskalako unitate bakoitza. *Irugarren ekipwen baindo sei puntu gaio dukatziai* 'hirugarren ekipoaren [taldearen] baino sei puntu gehiago dauzkate'. **5** iz. Jertseen, galtzerdien eta kidekoen ehuna osatzen duten begizta edo korapilo txikietako bakoitza. *Ogeita emezortzi puntukin iten dot galtzaĭn bweltĭa* 'hogeita hemezortzi punturekin egiten dut galtzerdiaren buelta'. **6** iz. Zauria ixteko ematen den puntada. *Lau puntu eman dĭatziai buruen, in den ebaia ixteko* 'lau puntu eman dizkiote buruan, egin duen ebakia ixteko'. ◆ **puntua egin** (> *puntua in*) *dau* ad. Eskuz, orratzak erabiliz, edo makinaz puntuzko ehuna egin. *Puntua iten ordu asko pasatzen dau* 'puntua egiten ordu asko pasatzen du'. ◆ **puntu(-puntu)an** (> *puntu(-puntu)en*) **1** adb. Aipatzen den orduan zehatz. *Goizeko zortzietan puntu-puntuen jo dau mezĭa* 'goizeko zortzietan puntu-puntuan jo du meza'. **2** adb. Neurri-neurrian. *Gatz puntu-puntuen do zukua* 'gatz puntu-puntuan dago zukua [babarrun eltzekaria]'.

puntu(-puntu)en

PUNTU(-PUNTU)AN

en punto
a punto, en su punto

puntu(-puntu)an (> *puntu(-puntu)en*) **1** adb. Aipatzen den orduan zehatz. *Goizeko zortzietan puntu-puntuen jo dau mezĭa* 'goizeko zortzietan puntu-puntuan jo du meza'. **2** adb. Neurri-neurrian. *Gatz puntu-puntuen do zukua* 'gatz puntu-puntuan dago zukua [babarrun eltzekaria]'.

puntua in

PUNTUA EGIN

tejer, hacer punto

puntua egin (> *puntua in*) *dau* ad. Eskuz, orratzak erabiliz, edo makinaz puntuzko ehuna egin. *Puntua iten ordu asko pasatzen dau* 'puntua egiten ordu asko pasatzen du'.

puntual, puntuala

PUNTUAL

puntual

puntual adj. *Badaki puntual-puntwala etortzen* 'badaki puntual-puntual etortzen'. Ik. **garaiz**; **mugaz**.

puntualidade, puntualidadia

PUNTUALTASUN, PUNTUALITATE

puntualidad

puntualidade iz. Puntualitatea, puntualtasuna. *Puntwalidade gutxiko jendĭa* 'puntualidade gutxiko jendea'.

puntxon, puntxona PUNTZOI

ezten

punzón

puntxon iz. Zulo txikiak egiteko erabiltzen den lanabes punta-zorrotza. *Puntxona, zatak zulatzeko* (Ond Bak). Ik. **punzon**; **ezten**.

punzon, punzona PUNTZOI

puntxon; ezten [ezten-zulo]

punzón

punzon (eta *puntxon* [Bakaiku]) iz. Puntzoia; zulo txikiak egiteko erabiltzen den lanabes punta-zorrotza. *Punzonakin in dĭa ubalai zulwa* 'puntzoiarekin egin dio uhalari zuloa'. Ik. **ezten** [*ezten-zulo*].

pupu, pupua PUPU

min

dolor, daño, pupa (voc. infant.)

pupu iz. Haur. Mina. *Pupua in dezu?* 'pupua egin duzu?'. *Pupua duka* 'pupua dauka'. Ik. **min**. • Esr. zah. *Zortzi madi pupu, hamabi madi trapu*.

pure, puria PURE

puré

pure iz. Zenbait elikagai egosiz eta birrinduz prestatzen den janaria. *Patata purĭa* 'patata purea'. ◆ **purea egin** (> *púrĭa in*) *dau* ad. Pure egin. *Patatak yosi tuk púrĭa iteko* 'patatak egosi ditut pure(a) egiteko'.

purgatoio, purgatoiua PURGATORIO

purgatorio

purgatorio (> *purgatoio*) iz. (Erl.) Infernuratzen ez diren arimak, zerura joan baino lehen, beren bekatuekin egin duten zor guztia ordaindu arte egoten diren toki oinazezkoa. *Purgatoiuen den animain alde* 'purgatorioan dauden arimen alde'.

purgatu, purgatzen PURGATU

purgar
purgar, limpiar

purgatu **1** *da/dau* ad. Hesteak arindu; purga hartu edo eman. *Labatibĭa eman, purgatzeko* 'aiuta eman, purgatzeko'. **2** *dau* ad. Hoditeria batetik airea edo funtzionamendu egokia oztopatzen duen hondakinen bat kanporatu.

purgazio biar, purgazio biarra (SENDABELARRA)

purgazio belar (> *purgazio bear*, *purgazio bĭar*). (Bot.) Zornatzen diren zauriak purgatzeko eta infekzioak garbitzeko erabiltzen den sendabelarra. *Mataia sendatzekwa* 'materia [zornea] sendatzekoa'. ¬

purgazio, purgaziua GARBITZE

purgación

purgazio iz. *purgatu* aditzari dagokion ekintza; garbitzea. ◆ **purgazio belar** (> *purgazio bear*, *purgazio bĭar*). (Bot.) Zornatzen diren zauriak purgatzeko eta infekzioak garbitzeko erabiltzen den sendabelarra. *Mataia sendatzekwa* 'materia [zornea] sendatzekoa'. ¬

puria in

PURE EGIN

hacer puré

purea egin (> *púrĭa in*) *dau* ad. Pure egin. *Patatak yosi tuk púrĭa iteko* 'patatak egosi ditut pure(a) egiteko'.

puro, purua

PURU (1)

puro, -a; mero, -a; sin mezcla, no alterado, -a

puro[1] adj. Purua, hutsa, garbia, nahasgabea. *Ur purwa, garbia* 'ur purua, garbia'. *Miseia purwa* 'miseria purua [hutsa]'. ◆ **puro-purua** (> *puro-purwa*) adj. Erabat garbia, aratza.

puro, purua (2)

PURU (2), ZIGARRO

cigarro (puro)

puru[2] iz. Zigarroa. *«Farias» purwek erretzen tu* '«Farias» puruak erretzen ditu'. Ik. **zigarro**.

purra

PURRA

ixe [Bakaiku]

¡pita! (voz para llamar a las gallinas)

purra interj. Oiloei hots egiteko erabiltzen den hitza. purra, purra! ▼ Anton. *ixe* [Bakaiku].

purrun-purrun

PURRUN-PURRUN

vehículo; ruido de motor (voc. infant.)

purrun-purrun Onomat. (Haur.) Ibilgailu hotsa; autoa.

purrut

PURRUT

(onomat.) pedo

purrut. onomat. Uzkerraren onomatopeia. ◆ **purrut egin** (> *purrut in*). Haur. Ik. **parrat**.

purrut in

PURRUT

tirarse un pedo

purrut egin (> *purrut in*). Haur. Ik. **parrat**.

pusasi, pusasten

PUTZ EGIN

fu-fu, fu in

soplar

pusasi (eta *fusasi*; *fusasten*) *dau* ad. Putz egin.

pusaska(n)

PUTZ EGINEZ

soplando

pusaska(n) (eta *fusaskan*) adb. Putz eginez. *Zopa berwai pusaskan* 'zopa beroari putz eginez'.

pusastu, pusasten

PUTZ EGIN

pusasi; fu in

pusastu *dau* ad. Putz egin; airea ahotik halako indarrez irtenarazi. ▲ Sin. *pusasi*; *fu in*.

puska, puskia

PUSKA

trozo, pedazo
momento, rato
grande, enorme, imponente (ref. a personas que destacan por sus cualidades físicas)

puska **1** iz. Gauza edo gauzaki batetik bereizia izan den zatia. *Bi ogi puska eman dwatzi* 'bi ogi puska eman dizkit'. *Banatu tu txerri puskak* 'banatu ditugu txerri puskak'. *Egur puska bat*. *Puska'na* 'puska bana'. **2** iz. Denbora zatia, denbora-puska. *Puska'tĭen* 'puska batien'. || *Guaindo puska'tien ezta hasiko irakiten eltzia* (Ond Bak). *Puskatĭako baduku gwaindo* '[denbora] puska baterako badaukagu oraindik'. *Puska'teko* 'puska bate(ra)ko'. *Puska'teko artu dai lanĭen* 'puska baterako hartu dute lanean'. **3** iz. (Hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa, lehen osagaia neurriz gainekoa dela adierazteko). Ederra. *Mutil puska*, *neska puska*. ◆ **puska bat** (> *puskat*, *puxkat*) **1** (Izen bati dagokiola). Pixka bat; pixka bat baino gehiago. *Lan puskat falta da gwaindo* 'lan puska bat falta da oraino / oraindik'. **2** iz. Denbora pixka bat, une bat. *Puskateko* 'puska bateko'. *Aurra puskateko ondo do lo* 'haurra puska bate(ra) ko ondo dago lo'. || Aldi baterako. *Puskatĭako de elurrak mendien* 'puska baterako daude elurrak mendian'. ◆ **mila puska egin** (> *mila puska in*) *dau* ad. Puska askotan zatitu; suntsitu. *Amorratuta, alkia mila puska in dau lurran kontra emankan* 'amorratuta, aulkia mila puska egin du lurran kontra emanka'. ▲ Sin. *milatxiki in*. Ik. **apur-apurra egin**. ◆ **mila puska egin behar** (> *mila puska in ber*). Zerbait apurtzeko edo suntsitzeko gogoa adierazten duen esapidea. *Pazĭenziaik ez, ta belaxeti do dana mila puska in ber!* 'pazientziarik ez, eta berehalaxetik dago dena mila puska egin behar!'. ◆ **puska-puska egin** (> *puska-puskĭa in*) *dau* ad. Erabat txikitu.

puskakan

PUSKAKA

zatikan

a pedazos, a trozos, por partes; poco a poco; a plazos

puskakan adb. Puskaka, hainbat puskatan, zatika. *Zorra puskakan patu dau* 'zorra puskaka [epeka] ordaindu du'. Ik. **zatikan**.

puskat

PUSKA BAT

un poco (de), algo de
un momento, un rato

> **puska bat** (> *puskat*, *puxkat*) **1** (Izen bati dagokiola). Pixka bat; pixka bat baino gehiago. *Lan puskat falta da gwaindo* 'lan puska bat falta da oraino / oraindik'. **2** iz. Denbora pixka bat, une bat. *Puskateko* 'puska bateko'. *Aurra puskateko ondo do lo* 'haurra puska bate(ra)ko ondo dago lo'. || Aldi baterako. *Puskatĭako de elurrak mendien* 'puska baterako daude elurrak mendian'.

puskatu, puskatzen

PUSKATU

zatitu, txikitu

romper(se), quebrar(se); partir(se), despedazar(se), trocear, desmenuzar(se)

puskatu *da/dau* ad. Hautsi; zatitu, puskak egin. *Ogia puskatu*. *Puskatazu ogia* 'puskatu ezazu ogia'. *Txerria puskatu*. *Txerri hiltzailĭek gaur puskatwau txerria* 'txerri hiltzaileak gaur puskatu du txerria'. Ik. **zatitu**; **txikitu**.

puskatxo, puskatxua

PUSKATXO

pedacito, trocito, pedazo pequeño

puskatxo iz. Puska txikia; (Adkor.) puska. *Puskatxwet* 'puskatxo bat'. *Emanko dwazu puskatxwet?* 'emango didazu puskatxo bat?'.

puskatzaile, puskatzailia PUSKATZAILE

despedazador, -a, destrozón, -ona

puskatzaile adj./iz. Puskatzen duena. ◆ **txerri puskatzaile** iz. Txerria hil ondoren, zatitan puskatzen duen pertsona. *Txerri puskatzailĭa*. *Txerri iltzailĭa bĭa izaten da puskatzailĭa* 'txerri hiltzailea bera izaten da puskatzailea'.

puskazar, puskazarra PUSKATZAR

pedazo grande, trozo grande

puskazar iz. Adkor. Puskatzarra, puska handia.

pusketa, pusketia PUSKETA

puska, zati

trozo, pedazo

pusketa iz. Puska, zatia. Ik. **puska**; **zati**.

puta, putia PUTA

puta, fulana, ramera
pícaro, malicioso, tramposo
malo, difícil, dificultoso

puta **1** iz. Prostituta. **2** adj. (Gizonezkoengatik esanda) Maltzurra, azeria. *Putĭa dok, gĭo, Anjel pilota jokuen!* 'puta duk, gero, Anjel pilota jokoan!'. **3** adj. Txarra, zaila, arazotsua. *Biorguna putĭortan azidente asko yon tuk* 'bihurgune puta hortan istripu asko egon dituk'. ◆ **putatara** (> *putatá*). *Putatá faten don* 'putatara joaten dun'.

putada, putadia PUTAKERIA

ostia

putada, faena, mala pasada

putada iz. Putakeria.

putakeia PUTAKERIA

putada, faena; ostikeia

putada

putakeria (> *putakeia*) iz. ▲ Sin. *putada*; *faena*; *ostikeia*.

putakume, putakumia PUTAKUME

hijo de puta

putakume iz. Pertsonak iraintzeko erabiltzen den hitza. *Oi putakumĭa!* 'hori putakumea!'. *Putakume galanta jon inik* 'putakume galanta zagon eginik'.

putetxe, putetxia PUTETXE

casa de putas, burdel, casa de citas

putetxe iz. Prostituzio etxea. *Ostatua zalakwen, putetxĭa izan* 'ostatua zelakoan, putetxea izan'.

putusai, putusaia PUTZ-USAIN

olor a pedo

putusai iz. Putz usaina. *Putusaia ta uzkar usaia* 'putz usaina eta puzker usaina'.

putz, putza

PUTZ, PUZKER 2 ZURBIL, MARGUL

pedo, ventosidad, cuesco
pálido, -a, lívido, -a; blanquecino, -a; descolorido, -a, apagado, -a

putz **1** iz. Puzker isila. Ik. **uzkar**. • Esr. zah. *Hitzak finak eta putzak minak* [aurrez, hitz politak; atzetik, gaizki esaka]. **2** adj. Zurbila, margula. *Kolore putzak* 'kolore zurbilak'. *Kolore putzak dukatzik; e'ago ondo* '[aurpegi zurbila] kolore putzak dauzkak, ez hago ondo'. *Argi putza* 'argi zurbila'. Ik. **argi hila**; **berdotz**. ◆ **hitz eta putz (ibili)**. ◆ **putusai(a)**. Putz usaina. ◆ **putzik ez balio / putz bat ez balio**. Gutxi balio. ¬

putzu, putzua

PUTZU

putzutai

charco, poza
pozo artesiano

putzu **1** iz. Sakonunea, zulogunea; *paltsa*. **2** iz. Lurpeko urak ateratzeko eraikuntza. *Putzua murritu zaie*. Ik. **putzutai**.

putzutai, putzutaia

PUTZU, POZADERA

putzu

pozo artesiano

putzutai iz. Putzua, pozadera; lurpeko urak ateratzeko lurrean egiten den zulo sakon, estu eta biribila, ertzak harriz edo adreiluz jantzirik dituena. Ik. **putzu**.

puztikilo, puztikilua

LODIKOTE, POTOLO

lodi, potzolo, zanpatorta / zanpatorto

gordinflón, -ona

puztikilo adj. Lodikotea, potoloa. ▲ Sin. *lodi*, *potzolo*, *zanpatorta* / *zanpatorto*.

puztu, puzten

PUZTU

jaitxi, desinflatu

inflar, hinchar, llenar de aire
hincharse

puztu 1 *da/dau* ad. *Globwa puztu*. *Txirrikĭa puztu*. ▼ Anton. *desinflatu*, *jaitxi*. **2** da/dau ad. Handitu, hanpatu. Belauna puztu in zaira. Ebaia puztu in zaio.

◆ **puztuta** / **purturik egon** (> *puztuta / puztwik yon*) ▲ Sin. *beteta yon*. Puztuik non; gaiai jan dinat.

◆ **tripa puzturik** (> *tripĭa puztwik*). haiziek ibili. Med. (meteorismo).

radio, radiua

IRRATI. 2 ERRADIO, IZPI

radio (radiodifusión; aparato)
radio (de rueda)

radio **1** iz. Irratia. *Radioti esan dai* 'irratitik esan dute'. *A ze nolako egiek esan jitun Maialen Lujanbiok radiwen!* 'A zer nolako egiak esan ditin Maialen Lujanbiok irratian!'. **2** iz. Izpia; gurpil barne-huts bateko ardatza eta uztaia lotzen dituen hagatxoetako bakoitza. *Bizikletien txirrikĭen radiuek* 'bizikletaren txirrikaren [gurpilaren] izpiak'.

raketa, raketia

ERRAKETA

raqueta

raketa iz. Erraketa.

rakitiko, rakitikua ERRAKITIKO

erkin

raquítico, -a

rakitiko adj./iz. Errakitikoa. Ik. **erkin**.

ranpla, ranplia ARRAPALA

rampa

ranpla iz. Arrapala.

rantxo, rantxua ARRANTXO

rancho; comida

rancho, granja

rantxo **1** iz. Arrantxoa. Ik. **arrantxo**. **2** iz. *Lgart.* Etxaldea.

raro, rarua ARRARO

raro, -a; extraño, -a; poco frecuente

raro adj. Arraroa, ohikoa ez dena; bestelakoa. ◆ **raro jarri**. Arrarotu, bestelakotu. Ik. **rarotu**.

rarotu, rarotzen ARRAROTU

hacerse raro, enrarecerse; volver(se) extraño, -a

rarotu da ad. Arrarotu, bestelakotu. ▲ Sin. *raro jarri*.

rasatu, rasatzen OSKARBITU, GARBITU

garbitu

despejar(se) el cielo

rasatu *da/dau* ad. Oskarbitu, zerua garbitu. *Rasatu dau denboria* 'oskarbitu da eguraldia'. *Zerua rasatu* 'zerua garbitu'. Ik. **garbitu**.

raseatu, raseatzen ZARPIATU

rasear [una superficie]

raseatu *dau* ad. Zarpiatu; (pareta) kareorez estali eta berdindu. Ik. **errebokatu**; **zarpeatu**. [Ez dute esanahi bera '*raseatu*' eta '*zarpeatu*' hitzek].

rasien ARRASEAN; ARRAS (2)

a ras (de), al ras (del)

rasien adb. Arras, arrasean; aipatzen den gainazalaren garaiera berean; aipatzen den gainazala ukituz. *Rasien patu* 'arrasean paratu'.

raso, rasua ARRAS; 2 GARBI, OSKARBI; ARRASO, LAU

erabat. 2 (zeru) garbi; (zeru) urdin

totalmente, completamente, absolutamente; muy

(cielo) raso, despejado, sereno

desarbolado, -a

campo raso

idéntico, -a

raso **1** adb. Arras, guztiz, erabat. Ik. **erabat**. **2** adb. Oskarbi, hodeirik gabe. Ik. **garbi**; **zeru garbi**; **zeru urdin**. **3** adb. Arbola gabe. **4** iz. Arbola gabeko eremua. ◆ **raso [halako]**. *Raso ama!* [Amaren antz handia izan]. Ik. **garbi**. ¬

rastra, rastria — ARE

are

rastra; grada

rastra iz. Nekazaritzako lanabesa. Ik. **are**.

rato — TARTE, UNE, ALDI

aldi; denbora

rato, momento

rato iz. Tartea, unea, aldia. *Rato ona pasatu du* 'aldi ona pasatu dugu'. *Rato txar asko pasatu genduzen* 'une txar asko pasatu genituen'. Ik. **aldi**; **denbora**.

ratokan — TARTEKA

a ratos

ratokan adb. Tarteka. Ik. **tartekan**.

rau — RAU

onomat. en el instante preciso; de golpe, súbitamente, en un santiamén

rau onomat. Bat-bateko ekintza adierazten duen onomatopeia. *Rau! jaso zakua gora*.

raza, razia — ARRAZA

kasta

raza
casta, ascendencia

raza 1 iz. Halako arrazakua (JB).

razionamentu, razionamentua — ERRAZIONAMENDU

racionamiento

razionamentu iz. Errazionamendua. *Razionamentu kartillĭa* 'errazionamendu kartilla'.

razionatu, razionatzen — ERRAZIONATU

racionar

razionatu *dau* ad. Errazionatu, gauzen banaketa edo salmenta, bereziki janari, erregai eta kidekoena, murriztu eta kontrolatu.

razonamentu, razonamentua — ARRAZOINAMENDU, ARRAZOIBIDE. 2

razonamiento, argumentación, razón; motivo, fundamento
raciocinio, razón, entendimiento

razonamentu 1 iz. Arrazoinamendua, arrazoibidea; zerbaiten arrazoia emateko modua; horretan segitzen den haria. *Bea serĭo zaitza razonamentu baldar orrekin?* 'baina serio zabiltza arrazoinamendu baldar horrekin?'. **2** iz. Arrazoimena; arrazoiketak gauzatzeko ahalmena. *Itsu-itsuen baindo, razonamentu pixkatekin obeto iten dĭa gauzak* 'itsu-itsuan baino, arrazoinamendu pixka batekin hobeto egiten dira gauzak'.

re — ERE

re [erre biguna] (eta *e*) adb. Ere. Ik. **e**. Askotan esan dot eta berriz ere esanko dot, danok askotan hitz bat esaten degunien, ez baginduke esanko, askoz hobe litzakela. Zerbait ikus don? Eztok ikusi ezer'e.

rebaja, rebajia
BEHERAPEN; DESKONTU

deskuento

rebaja
descuento

rebaja iz. Beherapena; deskontua. Ik. **deskuento**.

rebajatu, rebajatzen
BEHERATU

jaitxi; merketu; makurtu

rebajar(se)

rebajatu 1 *da/dau* ad. Beheratu. Prezioak rebajatu. Ik. jaitxi; merketu. 2 da/dau ad. Gutxietsi. Ik. makurtu. 3 dau ad. Ardoa rebajatu; salsa rebajatu.

rebantxa, rebantxia
ERREBANTXA

revancha; desquite

rebantxa **1** iz. Errebantxa, mendekua. **2** iz. Errebantxa; lehiaketa edo jokoetan, lehenengo saioan galdu ondoren, galtzaileari bigarren saioa jokatzeko ematen zaion aukera.

rebelde, rebeldia
ERREBELDE

gerroso

rebelde

rebelde adj. Errebeldea, bihurria, menderakaitza; matxinoa. *Gaztetan'e rebeldĭa zan* 'gaztetan ere errebeldea zen'. Ik. **gerroso**.

reberenzia
ERREBERENTZIA

reverencia

reberenzia iz. Erreberentzia; gurtzea, begirunearen erakusgarri egiten den gorputz makurtzea. ◆ **reberenzia egin** (> *reberenzia in*). Erreberentzia egin; norbaiten aurrean, begirunearen erakusgarri, gorputza makurtu.

rebidatu, rebidatzen
ERREBIDATU*, BIRATU

revirar; torcer (desviar algo de su posición o dirección habitual)
reenvidar (en el juego, envidar sobre lo envidado)

rebidatu **1** *dau* ad. Errebidatu*; biratu, norabidea aldatu. *Arriek rebidatu dau gurdia* 'harriak biratu du gurdia'. *Katuek, ataiti korrikan ata ala, rebidatu in dau* 'katuak, ataritik korrika atera ahala, biratu egin du'. **2** *dau* ad. Musean, *rebido* jo.

rebotatu, rebotatzen
ERREBOTATU

rebotar

rebotatu *dau* ad. Errebotatu. *Pilotĭek, balĭek... rebotatu*.

rebote, rebotia
ERREBOTE

rebote

rebote 1 iz. Errebotea. Ik. **bote**.

rebozatu, rebozatzen
ARRAUTZA-IRINETAN PASATU

albardatu

rebozar (bañar un alimento en huevo batido, harina, etc)

rebozatu *dau* ad. Arrautza-irinetan pasatu; arrautzeztatu. Ik. **albardatu**.

rebuelta, rebueltia
BIHURGUNE, ERREBUELTA

bihorguna, kurba

curva, revuelta, recodo

rebuelta iz. Errebuelta, bihurgunea. Ik. **bihorguna**; **kurba**.

redios
ERREDIOS

dios, sandios

rediós

redios interj. Erredios; harridura edo haserrea adierazteko erabiltzen den hitza. Ik. **dios**; **sandios**.

regla, reglia
ERREGELA

regla, principio, norma
regla (instrumento)

regla **1** iz. Erregela, araua. **2** iz. Erregela, neurtzeko erabiltzen den tresna.

reglamentu, reglamentua
ERREGELAMENDU

reglamento

reglamentu iz. Erregelamendu, araudia.

regular, regularra
ERREGULAR

2 erdipurdi

regular
medianamente

regular **1** adj. Erregularra. *Ziklista regularra da* 'ziklista erregularra da'. **2** adb. Erdipurdi. *Regular in dot esamena* 'erdipurdi egin dut etsamina'. Ik. **erdipurdi**.

regulatu, regulatzen
ERREGULATU

regular, reglamentar; normalizar
regular, ajustar, adecuar, precisar

regulatu *dau* ad. Erregulatu; arautu; doitu.

reineta, reinetia
ERREGE SAGAR GRIS

sar beltz

manzana reineta gris

reineta iz. (Bot.) Azal arrea duen errege sagarra (bereizi egiten dira azal berdea –*errege sagarra*– eta azal arrea duten sagarrak –*reineta* edo *sagar beltza*–). ▲ Sin. *sar beltz*. Ik. **errege sagar** (> *errege sar*).

rejimen, rejimena
ERREGIMEN; DIETA

dieta

régimen, dieta

rejimen iz. Dieta. *Rejimena duka*. *Rejimenĭen do*.

rejistratu, rejistratzen
ARAKATU. 2 ERREGISTRATU

1 + errejistratu

registrar, rebuscar, escudriñar; cachear
inscribir(se) (en un registro)

rejistratu **1** *dau* ad. Arakatu; miatu, gorderik edo ezkutaturik egon daitekeen zerbaiten bila. Ik. **errejistratu**. **2** *da/dau* ad. Izena eman. [etxĭa rejistratu –jabetza–]

rejistro, rejistrua
MIAKETA

registro, inspección
registro, inscripción

rejistro iz.

rekeson, rekesona
MATOI, ZENBERA, GAZTANBERA

mato

requesón

rekeson iz. Matoia. Ik. **mato** (> *matwa*).

rekete, reketia
ERREKETE

txapelgorri

requeté

rekete iz. Erreketea; alderdi karlistaren erakunde militarreko soldadua. ▲ Sin. *txapelgorri*.

rekogimendu, rekojimendu, rekojimendua
[ZAHAR ETXE]

recogimiento, casa de recogidas

rekogimendu iz. Zaharrak edota ezinduak zaintzeko eta artatzeko etxea. *Rekogimendua: zarrak artzen tuain etxĭa* '*errekojimentua*: zaharrak hartzen dituzten etxea'.

rekogimentu, rekogimentua
BABES ETXE

asilo

casa de recogidas, casa de acogida

rekogimentu iz. Babes etxea.

rekojitu, rekojitzen
JASO; BILDU

recoger; guardar

rekojitu *dau* ad. Jaso; bildu. *Galdutako paragosa Herrientxien rekojitu dai* 'galdutako aterkia *herriaren etxean* [udaletxean] jaso dute'. Ik. **jaso**; **bildu**; **gorde**.

rekomendatu, rekomendatzen
GOMENDATU

recomendar, aconsejar, encomendar

rekomendatu *dau* ad. Gomendatu. *Xabier Montoian libua rekomendatzen dezut laitzeko* 'Xabier Montoiaren liburua rekomendatzen dizut irakurtzeko'.

rekomendazio, rekomendaziua
GOMENDIO

recomendación

rekomendazio iz. Gomendioa. ◆ **rekomendazio ona(k) / txarra(k) eman** (norbeitengeiti o zerbeitengeiti).

rekonozitu, rekonozitzen
AITORTU, ERREKONOZITU

reconocer, admitir como cierto algo

rekonozitu *dau* ad. Aitortu, errekonozitu. *Eztau rekonozitu nai bestĭek arrazoi zukala* 'ez du errekonozitu nahi besteak arrazoi zeukala'.

rekonpensa, rekonpensia
SARI, ORDAINSARI

recompensa

rekonpensa iz. Saria, ordainsaria. ¬

rekonpensatu, rekonpensatzen

SARITU

recompensar

rekonpensatu *dau* ad. Saritu. ¬

rekreo, rekreua

ERREKREO

recreo (escolar)

rekreo iz. Errekreoa; jolas ordua eskolan. *Bolokan, inkekan o marrokan emanko genduen rekreo garaia* 'puxtarritan, hinkeka edo marroka [harrapaketan] emango genuen errekreo garaia'.

rekuperatu, rekuperatzen

ERREKUPERATU

recuperar (volver a tomar o adquirir)
recuperar (volver a un estado de normalidad)
recuperar (aprobar una materia)

rekuperatu **1** *dau* ad. Errekuperatu, berreskuratu. **2** *da* ad. Errekuperatu, suspertu, bizkortu, indarberritu; lehengoratu. **3** *dau* ad. Errekuperatu; lehen azterketan gainditu ez den ikasgai baten azterketa berriz egin.

relazio, relaziua

ERLAZIO

trato

relación, conexión; trato

relazio iz. Erlazioa; izaki, gertaera edo ekintzen artean dagoen lotura edo zerikusia. Ik. **trato**.

relazionatu, relazionatzen

ERLAZIONATU

2 tratatu

relacionar(se)

relazionatu **1** *dau* ad. Erlazionatu. **2** *da* ad. Harremanak izan. Ik. **tratatu**.

rellenatu, rellenatzen

BETE, ERRELLENATU

rellenar

rellenatu *dau* ad. Errellenatu, bete. Ik. **bete**.

relojeia

ERLOJU DENDA, ERLOJUTEGI

relojería

relojeia iz. Erlojutegia, erloju denda, erlojeria*. *Itxi eztai in, ba, relojeia?* 'itxi ez dute egin, bada, erlojutegia?'.

relojero, relojerua; relojera, relojeria

ERLOJUGILE

relojero, -a

relojero iz. Erlojugilea; erlojuak egin, konpondu edo saltzen dituen pertsona. *Eskutako daldaladĭorrekin, ona ago i relojero izateko!* 'eskuetako daldalada horrekin, ona hago hi erlojugile izateko!'.

remangatu, remangatzen

MAHUKAK JASO

remangar

remangatu *dau* ad. Mahukak jaso. *Fregaderan ibiltzeko remangatzak mauka oiek, mauka muturrak musti ber zaizkik bestela* 'harraskan ibiltzeko [aritzeko] jaso itzak mahuka horiek, mahuka muturrak busti behar zaizkik bestela'. Ik. **mahukak jaso**.

remate, rematia

ERREMATE

remate, final
toque final

remate **1** iz. Erreматea; azkena ematea. **2** iz. Lan batean, azken ukitua. ◆ **rematea eman** (> *rematĭa eman*). Amaiera eman, azkena eman. *Egwaize zar onek emanen dĭa rematĭa batzĭai* 'hego haize tzar honek emanen dio erreматea baratzeari'.

rematxatu, rematxatzen

ERREMATXATU

remachar

rematxatu *dau* ad. Erreматxatu. *Giltzĭa rematxatu* 'iltzea erreматxatu'.

remolatxa, remolatxia

ERREMOLATXA, BETERRABA

remolacha (Beta vulgaris)

remolatxa iz. (Bot.) Erremolatxa, beterraba; landarea eta landare horren sustraia (Beta vulgaris). • *Remolatxak esan zen gau bat biare apibilekuena ber dela* 'erremolatxak esan zuen gau bat bederen apirilekoa behar duela'. ◆ **remolatxa pila**. *Neguen gordetzeko, remolatxak pilatuta zoiekin estaltzen zĭan* 'neguan gordetzeko, erremolatxak pilatuta zohiekin estaltzen ziren'.

remolino, remolinua

ZURRUNBILO, ZIRIMOLA

kakol

remolino, torbellino

remolino iz. Zurrunbiloa, zirimola; uraren edo airearen higidura lasterra eta birakakoa. Ik. **karakol** (> *kakol*); **haize bildu**. *Aizĭek ortxe remolinwa iten dau* 'haizeak hortxe zurrunbiloa egiten du'.

remolkatu, remolkatzen

ATOIAN ERAMAN, ERREMOLKATU

remolcar

remolkatu [erremolkatu] *dau* ad. Atoian eraman. *Autwa elurretan remolkatu berra izan dai* 'autoa elurretan erremolkatu beharra izan dute'.

remolke, remolkia

ATOI, ERREMOLKE

remolque (vehículo remolcado)

remolke [erremolke] iz. Atoia; atoian eramaten den ibilgailua. *Remolke txiki bat duka* 'erremolke txiki bat dauka'. ◆ **remolkean** (> *remolkĭen*). Atoian. *Remolkĭen ekar dau arĭa* 'erremolkean ekarri du harea'.

remolkekada, remolkekadia

ATOI BETE

una carga de remolque, un remolque lleno

remolkekada [erremolkekada*] iz. Atoi betearen edukia, erremolke baten zama kopurua. Ik. **traktorkada**. ¬

renegatu, renegatzen

ERNEGATU

irritar(se), enfurecer(se)

renegatu *da/dau* ad. Ernegatu, erabat gogaitu; amorratzen jarri. Ik. **amorratu**; **konsagratu**.

renobatu, renobatzen

BERRITU, ERRENOBATU

renovar

renobatu *dau* ad. Ik. **berritu**. *Konduzitzeko karnĭa renobatu berra dukazu* 'gidabaimena berritu beharra daukazu'.

rentero, renterua — ERRENTERO, ERRENTARI, MAIZTER
maiztar, errentero — *nagosi*
inquilino, -a, rentero, -a, arrendatario, -a

reparo, reparua — UZKURTASUN, ERREPARO
cuidado, reparo, consideración

erreparo (> *reparo*) iz. *Eztau bigarren eskuko arropaĭk yosten; reparwa ematen dĭa jaztĭa bestĭen arropĭa zana* 'ez du bigarren eskuko arroparik erosten; erreparoa ematen dio jaztea besteen arropa zena'.

repartitu, repartitzen — BANATU, PARTITU
banatu, partitu
repartir

repartitu *da/dau*. Banatu, partitu. *Senidĭen artĭen erenzia repartitu dai* 'senideen artean herentzia banatu dute'. Ik. **banatu**; **partitu**.

reparto, repartua — BANATZE

repasatu, repasatzen — ERREPASATU
repasar

repasatu *dau* ad. Errepasatu. *Atzo ikasitakua gaur repasatu dot* 'atzo ikasitakoa gaur errepasatu dut'.

repetitu, repetitzen — ERREPIKATU; BERRIZ ESAN
berriz esan / esan berriz
repetir

repetitu dau ad. Errepikatu. Ik. **berriz esan / esan berriz**.

repetizio, repetiziua — ERREPIKA; 2 ERREPIKAPEN
repetición

repetizio **1** iz. Errepika. **2** iz. Errepikapena.

republika, republikia — ERREPUBLIKA
república

republika iz. Errepublika. *Republika garaien* 'errepublika garaian'. *Republikĭen alde zon jende gaiena; gĭo aldatu ta kontra ata zĭan* 'errepublikaren [Espainiako Bigarren Errepublika] alde zegoen jende gehiena; gero aldatu eta kontra atera ziren'.

republikano, republikanua — ERREPUBLIKANO
republicano, -a

republikano adj./iz. Errepublikanoa, errepublikazalea. *Republikanwek ibazi zain elekziuek* 'errepublikanoek irabazi zuten [zituzten] hauteskundeak'.

repuesto, repuestua — ORDEZKO (PIEZA)
repuesto, recambio

repuesto iz. Ordezko pieza.

resinazio, resinaziua — ETSIPEN

etsipen

resignación

resinazio iz. Etsipena; itxaropena erabat galdu duenaren egoera. Ik. **etsipen**.

resistenzia — ERRESISTENTZIA

resistencia (acción y efecto de resistir(se))
resistencia (capacidad para resistir)

resistenzia iz. Erresistentzia.

resistitu, resistitzen — ERRESISTITU

resistir

resistitu *dau* ad. Eraso, bultzada, presio edo kideko bat jasan, amore eman edo higitu gabe. Ik. **jarki**.

resolbitu, resolbitzen — KONPONDU; ATERABIDEA EMAN

konpondu, soluzionatu

resolver(se)

resolbitu *da/dau* ad. Konpondu; aterabidea eman. Ik. **konpondu**; **soluzionatu**.

resta, restia — KENKETA

resta

resta iz. Kenketa; kopuru bati beste bat kentzean datzan eragiketa. *Bi restoiek txarki in tuzu* 'bi kenketa horiek txarki egin dituzu'.

restatu, restatzen — KENDU, KENKETA EGIN. 2 ERRESTATU

restar (hallar la diferencia entre dos cantidades)
restar (la pelota)

restatu **1** *dĭa* ad. Kendu, kenketa egin. Ik. **kendu**. **2** *dau* ad. Errestatu, pilota-jokoan, errefera eman.

restaurante, restaurantĭa — ERRESTAURANT, JATETXE

restaurante

restaurante iz. Errestauranta, jatetxea. *Ingu ontan badukatzizu restaurante on askwek* 'inguru honetan badauzkazu jatetxe on askoak'.

reteila, reteilia — ERRETEILA

retejo, reparación del tejado

reteila iz. Erreteila, teilatua konpontzea. *Denba txarrakin ibil dĭa, bea despeitu dai reteilĭa* 'denbora txarrarekin ibili dira, baina despeditu [bukatu] dute erreteila'. *Uda aldĭako autzi dai reteila lanak* 'udaldirako utzi dute erreteila lanak'.

reteilatu, reteilatzen — TEILABERRITU, ERRETEILA EGIN

retejar, cubrir de tejas

reteilatu *dau* ad. Teilaberritu, erreteila egin. *Gwai etxĭa reteilatzĭa da lanik prinzipalena, premia aundia duka ta* 'orain etxea teilatuberritzea da lanik printzipalena, premia handia dauka eta'.

retiatu, retiatzen

ERRETIRATU

1 jubilatu; 3 apartatu, kendu; baztartu; 4 kendu

retirarse, jubilarse
retirarse, volver a casa
apartar(se), alejar(se), retirar(se)
quitar, retirar

retiatu **1** *da/dau* ad. Erretiratu, jubilatu. ▲ Sin. *jubilatu*. *Aita nwa retiatu dain eztakit* 'aita nora [zein zahar etxetara] erretiratu duten ez dakit'.
2 *da* ad. (Gauean) etxeratu. Retĭatzeko ordua da 'erretiratzeko ordua da'. *Udan bĭanduo retĭatzen ga* 'udan beranduago erretiratzen gara'.
3 *da/dau* ad. Apartatu, baztertu. ▲ Sin. *apartatu*, *kendu*, *baztartu*.
4 *dĭa* ad. *Karneta retĭatu dĭai* 'karneta [gidabaimena] erretiratu diote'. ▲ Sin. *kendu*.

retolika, retolikia

ERRETOLIKA

letania

palabrería, retahíla

retolika iz. Erretolika. Hizketa luze eta aspergarria. Ik. **letania**.

retratatu, retratatzen

ERRETRATATU

fotografiatu

retratar; fotografiar

retratatu **1** *dau* ad. Erretratatu, erretratu bat egin. **2** dau ad. Erretratatu, argazki bat atera. Ik. **fotografiatu**.

retratista, retratistia

ERRETRATISTA, ERRETRATUGILE

retratista; fotógrafo, -a

retratista iz. Erretratista, erretratugilea; argazkiak egiten dituen pertsona.

retrato, retratua

ERRETRATU

fotografia

retrato; fotografía

retrato iz. Erretratua; argazkia.

reuma, reumia

ERREUMA

reuma, reúma, reumatismo

reuma iz. Erreuma; giltzaduretako edo giharretako oinazeak ezaugarri dituen eritasuna.

reunio, reuniua

BILERA, BILKURA

batzar, junta

reunión

reunio iz. Bilera, bilkura. *Reuniua do atsaldeko seietan* 'bilera dago arratsaldeko seietan'. Ik. **batzar**; **junta**.

rezelo, rezelua

ERREZELO

recelo, sospecha; duda

rezelo iz. Errezeloa, susmoa; beldurra. Ik. **susmo**; **bildur**.

rezibitu, rezibitzen

ERREZIBITU

hartu

recibir; acoger

rezibitu *dau* ad. Errezibitu. Ik. **hartu**.

ri-ra

RI-RA, DI-DA

aitaren batien

en un pispás; onomat. de una acción que se realiza con rapidez, enérgicamente

ri-ra onomat. Bat-bateko ekintza adierazten duen onomatopeia. *Gauzak ri-ra in* 'gauzak ri-ra egin'. Ik. **aitaren batean** (> *aitaren batĭen*); **di-da**; **ti-ta**.

ridikulo, ridikulua

BARREGARRI, ERRIDIKULO

barregarri

ridículo, -a

ridikulo **1** adj. Ik. **barregarri**. ◆ **ridikulua egin** (> *ridikulua in*). Erridikulua egin; barregarri gelditu, barregarri ibili. Ik. **barregarri gelditu**.

ridikulua in

ERRIDIKULUA EGIN

hacer el ridículo

ridikulua egin (> *ridikulua in*). Erridikulua egin; barregarri gelditu, barregarri ibili. Ik. **barregarri gelditu**.

rifle, riflia

ERRIFLE

rifle

rifle iz. Erriflea, kanoi ildodun eta luzeko fusila.

rija, rijia

rija (fístula que se hace debajo del lagrimal, por la cual fluye pus, moco o lágrimas).

rija iz. Malko guruinean sortzen den fistula, malko jarioa eragiten duena.

riki-raka

[KARRA-KARRA]

onomat. de la acción de roer

riki-raka onomat. Zerbait karraskatzearen onomatopeia.
– jatearena; azpijanarena, azpikeriarena (?). Ik. **kirri-karra**. ¬

rirrau

RIRRAU, DI-DA

onomat. expresión que se utiliza cuando se procede drásticamente, sin contemplaciones,

rirrau onomat. Di-da, bat-bateko ekintza adierazten duen onomatopeia.

rist, rixt

BRIXT

firrist / firrixt

rist, **rixt** onomat. Ik. **firrist**.

rogatiba, rogatibia

ERROGATIBA

rogativa

rogatiba iz. (Batez ere pl.) *rogatibak*. (Erl.) Errogatiba; Jainkoari premiazko behar bat eskatzeko egiten den ageriko otoitza. *Martxontan, rogatibak imerko tuai yauria iteko* 'martxa honetan, errogatibak egin beharko dituzte euria egiteko'.

rokete, roketia
ERROKETE, ELIZATORRA

roquete, alba del sacerdote; sobrepelliz

rokete iz. Elizatorra; apaizak meza emateko janzten duen jantzia.

romana, romania
ERROMATAR (BALANTZA)

romana (balanza)

romana iz. Balantza erromatarra, pisatzeko tresna.

ron, rona
RON

ron

ron iz. Azukre kanaberaren zukua destilatuz egiten den edari bizia. *Katarrwa kentzeko ona da rona*.

roska, roskia
HARI

rosca (de un tornillo o tuerca)

roska iz. Haria; torlojuetan eta kidekoetan, espiral-antzean kiribilduriko irtengunea. *Tornillwonek roskĭa galdwik duka* 'torloju honek haria galdurik dauka'.

rotabator, rotabatorra
ROTABATORE

rotavator (apero agrícola)

rotabator iz. Rotabatorea, nekazaritzako lanabesa, lurra iraultzeko erabiltzen dena.

rubio, rubiua
HORAIL, ILEHORI

rubio, -a

rubio, -a (Generoa hartzen du) adj./iz. Horaila; ilehoria. Ik. **hori**.

ruleta, ruletia
ERRULETA

ruleta

ruleta iz. Erruleta; zorizko jokoa, horizontalean biratzen den gurpil zenbakidun batean jokatzen dena; gurpil hori bera.

saboi (1)
SAROI

sai

aprisco, majada, redil
corral con choza para el ganado, cabaña

saboi[1] 1 iz. Saroia, ardien bazkalekua, bereziki etxolaren ingurukoa. Ond Bak: paraje donde hay un tai (artai?).
Otxuen 'Otxoa etxearen' saboia Ailetan do. Manon saboia, Baizan parien, mendien 'Urbasan' barru(r)ó (Ond Bak). Ik. **sai** [Urdiain].

saboi (2)
(GAZTAINA MOTA)

variedad de castaña

saboi[2] adj./iz. "Saboi, castañas tardías, de árbol grande" (Ond Bak). Ik. **inurri**.

safai, safaia
SABAI

goiko ganbara

desván, ático

safai iz. Sabaia, goiko ganbara (Iza Alts) (el local más alto de la casa). Ik. **goiko ganbara**.

sagar, sagarra

SAGAR

manzana
manzano

sagar (eta *sar*) **1** iz. Sagarrondoaren fruitua. **2** iz. (Bot.) Sagarrondoa.

◆ **sargar beltz** (> *sar beltz*). (Bot.) Errege sagar grisa, azal arrea duen sagar mota gazi-gozoa (bereizi egiten dira azal berdea –*errege sagarra*– eta azal arrea duten sagarrak –*reineta* edo *sagar beltza*–). ▲ Sin. *reineta*.

◆ **sagar ondo** (Ond Bak).

◆ **sargar motel** (> *sar motel*). Sagar geza.

◆ sar gazia.

◆ udara sarra.

◆ **errege sagar** (> *errege sar*). (Bot.) Azal berdea duen sagar mota gazi-gozoa (bereizi egiten dira azal berdea –*errege sagarra*– eta azal arrea duten sagarrak –*reineta* edo *sagar beltza*–). *Labĭen erreta o konpotĭa iteko, errege sarrak dĭa obenak* 'labean erreta edo konpota egiteko, errege sagarrak dira hoberenak'. Ik. **reineta**; **sagar beltz** (> *sar beltz*).

◆ **sagar arbola** (> *sar arbola*). (Bot.) Sagarrondoa (Malus sp.). *Sar-arbolĭa*. ▲ Sin. *sagar ondo*.

– sar-azala.
– sar zila. Mutxikina.
– sar bikorra (hazia).
– sar ardua.
– sarmin.
– sar gordina.
– sar yosia.
– sar erria.
– sar loria.
– sar eske. *Fan da sar eske*.

◆ **sagar tarta** (> *sar tarta*) iz. *Sar tartĭa iteko, sar gozwa obe* 'sagar tarta egiteko, sagar gozoa hobe'.

sagardo, sagardua

SAGARDO

sidra

sagardo (eta *sar ardo*) iz. *Sagardo gaiena «astozaienak» iten zain Bakaikun* 'sagardo gehiena «*astozaienak*» egiten zuten Bakaikun'.

sagarmin, sagarmina

SAGARMIN

manzano silvestre (Malus sylvestris)
manzana silvestre (fruto)

sagarmin ([Ziordia, Bakaiku] eta *sarmin*) iz. (Bot.) (Malus sylvestris). • Esr. zah. *Sagarmina baino gaiztoago izan* (> *sarmina baindo gaiztwo*). *Etxĭen beti gerra ematen; sagarmina baindo gaiztwo* 'etxean beti gerra ematen; sagarmina baino gaiztoago'. || Beti gerra ematen etxien, sagarmina baindo gaiztuo (Ond Bak).

sagona belar, sagona belarra

XABOI-BELAR

(hierba) jabonera (Saponaria sp.)

sagona belar. (Bot.) Xaboi-belarra (*Saponaria sp.*).

sagona trozo, sagona trozua

XABOI GOGOR

jabón en trozo

sagona trozo. Xaboi gogorra; xaboi opila.

sagona, sagonia

XABOI

jabón

sagona (eta *sabona* (Ond Bak) [Bakaiku]) iz. Xaboia. ||Eztekat sagonaik. Sagonai'pe (Ond Bak). ◆ **sagon-ur**. Xaboi ura. ◆ ontziek garbitzeko sagonia. ◆ **sagona trozo**. Xaboi gogorra; xaboi opila. ◆ **sagonia eman**. Xaboia eman. ◆ **sagona belar**. (Bot.) Xaboi-belarra (*Saponaria sp.*). [Adinduek, *sagonzillo jabonzillo* ordez]. ¬

sagrado, sagradua

SAKRATU

sagrado, -a

sagrado (eta *sagrau*, *sagraua*) adj. Sakratua. *Urkatzen zanai, bizitza sagraua emen dalako, ezĭain ileta funzioik iten* 'urkatzen zenari, bizitza sakratua omen delako, ez zioten hileta funtziorik egiten'.

sagu, sagua

SAGU

ratón (Mus musculus)

sagu (> *xagu*, *sau*, *xau*) iz. Ugaztun karraskaria, arratoiaren antzekoa, hura baino txikiagoa (Mus musculus). ◆ **sagu kafi** (> *xau kafi*). ◆ **sagu zulo** (> *xau zulo*). ◆ **ur-sagu** (> *ur-sau*, *ur-xau*) iz. *Ur-sagubek* (Ond Bak). Ik. **ur-arratoi**.

sahats, sahatsa

satsa, satsia (?) (Bot.) Belar mota herrestaria.
– lurreko sahats
Toponimia: Sasti 'sahasti' (?)
(Lilybium marianum)?

sai itxi, sai itxia

SAROI ITXI

redil, aprisco cercado

sai itxi. Saroi itxia. *Arriz itxitako saia* 'harriz itxitako saroia'.

sai, saia

SAROI

saboi

aprisco, majada, redil
corral con choza para el ganado, cabaña

sai iz. Saroia, ardien bazkalekua, bereziki etxolaren ingurukoa. Ik. **saboi**[1]. ◆ **ardi-saia** [Urdiain]. *Urbasako Urdingo saiek* 'Urbasako Urdiaingo saroiak'. ◆ **sai itxi**. Saroi itxia. *Arriz itxitako saia* 'harriz itxitako saroia'.

saiatu, saiatzen

SAIATU

ahalaindu, proponitu

intentar, esforzarse, procurar

saiatu *da* ad. Ik. **ahalaindu**; **proponitu**.

saiheski, saiheskia

SAIHESKI

carne de costado, costilla

saiheski (> *saieski*) iz. Saihetseko okela.

saihestu, saihesten

SAIHESTU (*)

colocar las costillas, o pares de una armadura, en la estructura de un sistema constructivo

saihestu (> *saiestu*) *dau* ad. Eraikitze lanetan, egitura baten saihetsak ezarri. *Zotolĭa saiestu: zotolĭai saietsak patu* 'zotola saihestu, zotolari saihetsak paratu' [Zotola: basoko txerritegia. Zotolaren egituraren bi isurialdeak zuhaitz adarrekin *saihesten* ziren; horien gainean, zotola estaliz, zohiak paratzen ziren]. *Gurdikamĭa saiestu* 'gurdi kama, gurtetxea, saihestu' [Gurdi kama eraikitzerakoan, egitura osatzen duten zurezko saihetsak paratu].

saihets hezur, saihets hezurra

SAIHETS HEZUR

kostilla

costilla

saihets hezur (> *saiets ezur*). S*aiets ezurren bat ausita duka* 'saihets hezurren bat hautsita dauka'. *Txerrien saiets ezurrak* 'txerriaren saihets hezurrak'. ▲ Sin. *kostilla*.

saihets, saihetsa

SAIHETS

kostilla

lado, costado
costilla
madero(s) lateral(es); cuaderna

saihets **1** iz. Gizakien edo abereen enborraren albo bakoitza. *Saiets aldĭa* 'saihets aldea'. *Saietsĭen artu dau golpĭa* 'saihetsean hartu du kolpea'. **2** iz. Saihets hezurra. **3** iz. Egitura edo armazoi batean, ardatz baten bi alboetara eta besteekin paraleloan ezartzen den pieza. *Zotolĭen saietsak* 'zotolaren saihetsak'. *Gurdikamĭen saietsak* 'gurtetxearen saihetsak' [gurdiaren egitura osatzeko, endaitzetik perpendikularrean ateratzen den zurajea]. ◆ **saihets hezur** (> *saiets ezur*). S*aiets ezurren bat ausita duka* 'saihets hezurren bat hautsita dauka'. *Txerrien saiets ezurrak* 'txerriaren saihets hezurrak'. ▲ Sin. *kostilla*.

saila, sailia (1)

SAIL

terreno, finca, parcela; plantación; bancal
conjunto, serie, fila, hilera

saila[1] (*a* itsatsia) **1** iz. Sailatxua [txikigarriarekin]. *Soro-saila*; *patata-saila*. *Lur sailĭa*. **2** iz. Kideko diren eta hurrenez hurren datozen gauzen multzoa. *Jai sailĭa* [segidako jaiegunak]. ◆ **saila egin** (> *sailĭa in*). *In dot gaur jorra saila bat!* Jorra saila haundia / txikia in.

saila, sailia (2) / xaila, xailia

[ANTXUME]

antxuma

cabrito, -a

saila[2] (eta *xaila*) iz. Antxume zertxobait hazia. *Antxuma sailĭa*. *Antxuma auxo haundio inak (bildotxak bezela)* (Ond Bak), [& Urdiain]. Ik. **antxuma**; **auxo**.

saio, saiua

SAIO

ekina; ahaleina

sesión, tiempo dedicado a algo; actuación, función, recital, número

saio iz. Lan saioa. *Dantza saio bat inko du*. Ik. **ekina**; **ahalegin(a)** (> *ahaleina*).

saka / sakak

ZAKU

saca, fardo

saka iz. Garraiorako zakua (?). *Sakak, mandotan patzen zĭanak* 'sakak, mandoetan paratzen zirenak'.

sakan, sakana

SAKAN

zulo, bajaguna

hoyo, barranca, hondonada

sakan iz. Sakonunea. *Sakan 'zulo' bat in dai paretan, Jesusen Bihotza patzeko. Sakana: nibela hausten den edozein zulo. Buruben ere izaten da. Morteruba iten da hariakin, porlanakin ta urakin: pila patzen da lurrien, ta han iten da erdien sakan bat. Tontorra eztana sakana. Urbasan bada Ailetakosakana leku-izena* (Ond Bak). *Zuluek dĭa sakanak* 'zuloak dira sakanak'. Ik. **zulo**; **bajaguna**.

sakats, sakats

SAKATS, LATZ (?)

sauzatar

cantarle las verdades (a alguien)

sakats Batez ere pl. *sakatsak* (AG). Ik. **sauzatar**.

◆ **sakatsak esan**.

◆ **sakatsak atera** (> *sakatsak ata*).

Sakatsak ata diatzi / sakatsak esan diatzi: jesukristonak esan diatzi 'kristorenak esan dizkio'.

sakatu, sakatzen

SAKATU

sacar, lanzar la pelota

sakatu *dau* ad. Sakea atera. *Pilotĭa sakatu* 'pilota sakatu'. *Sakatzak!* 'saka ezak!'

sakatzaile, sakatzailea

SAKATZAILE

sakatzaile iz. Sakea ateratzen duen pilotaria. Ik. **atatzaile**.

sake on(ak)

SAKE ON, ATERALDI ON

agudeza, dicho agudo

sake onak (ibili). pl. Ateraldi onak, ateraldi zorrotzak eduki. *Sake onak dukatzi orrek!* 'sake onak dauzka horrek!'.

sake, sakia

SAKE

saque

agudeza, dicho agudo

capacidad para comer o beber mucho de cada vez

sake **1** iz. Pilota-jokoan eta kidekoetan, jokaldia hasteko pilota jaurtitzea. *Falta in dik sakĭen* 'falta egin dik sakean'. **2** iz. Lgart. Ateraldi zorrotza. *A ze sakĭek jukatzik!* 'a ze sakeak zauzkak!'. **3** iz. Lgart. Asko jateko eta edateko gaitasuna. ◆ **sake onak** (ibili). pl. Ateraldi onak, ateraldi zorrotzak eduki. *Sake onak dukatzi orrek!* 'sake onak dauzka horrek!'.

sakon

SAKON

azal, axal

hondo, -a, profundo, -a

sakon 1 adj. ▼ Anton. *azal*; *axal*. 2 adb. (?).

sakramentu, sakramentua

SAKRAMENTU

sacramento

sakramentu iz. (Erl.) *Zazpi sakramentuek* 'zazpi sakramentuak'.

sakrifikatu, sakrifikatzen

SAKRIFIKATU

sacrificar, matar
sacrificar(se)

sakrifikatu *da/dau* ad. Besteen edo norberaren onerako, neke handiak hartu, zerbaiti uko egin.

sakrifizio, sakrifiziua

SAKRIFIZIO

sacrificio, abnegación
sacrificio, peligro o trabajo graves a que se somete una persona

sakrifizio iz. Esfortzu edo neke handia. *Sakrifizio aundiek inda ata zĭan aurrĭa* 'sakrifizio handiak eginda atera ziren aurrera'. *Sakrifizio aundia dukai aur orrekin* 'sakrifizio handia dute haur horrekin'.

sakrilejio, sakrilejiua

SAKRILEGIO

sacrilegio

sakrilejio iz. Sakrilegioa, gauza sakratu bat profanatzea.

sala, salia

SALA

sala, salón

sala iz. Sala, egongela.

salbaje, salbajia

SALBAI, BASATI

animali

salvaje; incivilizado, -a

salbaje adj./iz. Basa, basatia. ▲ Sin. *animali*. Ik. **pixti**.

salbajeia

BASAKERIA; 2 ASTAKERIA

izugarrikeia; astakeia

salvajada
brutalidad, atrocidad, barbaridad

salbajeria (> *salbajeia*) **1** iz. Basakeria. Ik. **izugarrikeria**. **2** iz. Astakeria. Ik. **astakeria**.

salbatu, salbatzen

SALBATU

libratu

salvar(se), librar(se)
salvar(se) (Rel.)

salbatu **1** *da/dau* ad. Arrisku larri batetik onik atera edo aterarazi; hondamenetik, suntsitzetik libratu. *Kazkar yutsinak maldade aundia in dau batzan; tomate baten batzuk salbatzen badĭa!* 'kazkabar erauntsiak kalte handia egin du baratzean; tomate baten batzuk salbatzen badira!'. *Mundua salbatzeko*. Ik. **libratu**. **2** *da/dau* ad. Erl. Salbamena lortu, zeruratzea erdietsi. • Kantaita. {.../ *Apiza zetako?* / *Mezĭa emateko*. / *Mezĭa zetako?* / *Gu ta mundu guztia salbatzeko!*}.

salbatzaile, salbatzailia

SALBATZAILE

salvador, -a

salbatzaile iz./adj.

salbazio, salbaziua

SALBAZIO

erremeio

kondenazio

salvación

salbazio **1** iz. Arrisku larri batetik onik ateratzea edo ateraraztea. *Launa izan zan aren salbaziwa* 'laguna izan zen haren salbazioa'. || *Orrek etxukak salbazioik* 'horrek ez zaukak salbaziorik'. Ik. **erremedio**. **2** iz. Erl. Salbamena, zeruratzea.

salbe, salbia

SALBE

salve (oración y canto)

salbe iz. *Salve Regina* hitzez hasten den otoitza; otoitz hori errezatzen edo abesten den elizkizuna. *Sanpedroko erromeia salbĭekin despeitzen da* 'Sanpedroko erromeria salbearekin despeditzen [amaitzen] da'.

salbo

SALBU

a salvo

salbo adb. Salbu, salbaturik; salbamena erdietsirik. ◆ **salbu egon** (> *salbo yon*). *Salbo do* 'salbu dago'.

salbokondukto, salbokonduktua

IGARO BAIMEN

salvoconducto

salbokondukto iz. Pasatzeko baimena, ibiltzeko baimena.

salda, saldia

SALDA

caldo

metal fundido

salda **1** iz. *Oilaki saldĭa* 'oilaki salda'. **2** iz. Burdina urtua.

saldatsu, saldatsua

SALDATSU

urtsu

caldoso, -a, jugoso, -a

saldatsu (eta *saldasu* (LM)) adj. Salda ugari duena. *Saldasua do zopĭoi* 'saldatsua dago zopa hori'. Ik. **urtsu**.

saldo, saldua

SALDO

ato, samalda

multitud, grupo de personas; grupo de animales, rebaño, manada, piara

saldo

saldo **1** iz. Taldea. Ahuntz, ardi, behi... saldo. Ik. **hato**; **samalda**. 2 iz. Bankuko diru kopurua.

saldu, saltzen

SALDU

yosi

vender

vender, traicionar

saldu **1** *dau* ad. Norbaiti zerbait eman, diru kopuru baten truke. *Salduko baginduke*. *Saldu gindatzan* 'genizkion'. *Saldu zan* 'zion' *best'ati*. *Saldu zan* 'zidan' *neri* (Ond Bak). *Merke saldu tu* 'merke saldu dugu/ditu'. ▼ Anton. *yosi*. **2** *dau* ad. Irud. *Be bua saldu zen* 'bere burua saldu zuen'. **3** *dau/dĭa* ad. Norbaitenganako leialtasuna hautsi, bereziki diru edo onuraren baten truke. *Orrek salduko like baita-baita...* 'horrek salduko luke baita-baita...'. ◆ **saltzeko ibili**. Saltzeko eduki. Ik. **salgai**.

salduazi SALARAZI (2)

hacer vender, obligar a vender

salduazi *dau* ad. Saltzera behartu.

salgai SALGAI

saltzeko ibili

en venta, a la venta

salgai pred. Saltzeko. *Beia salgai duku* 'behia salgai daukagu'. *Bei oi salgai do* 'behi hori salgai dago'. (LM). Ik. **saltzeko ibili**.

salmenta SALMENTA

venta

salmenta iz. Saltzea.

salmon, salmona IZOKIN

salmón

salmon iz. Izokina (Salmo sp.). *Basarrekan salmonak? Gwaindo ze esan ber doken!* 'Basaerrekan izokinak? Oraino zer esan behar duan!'.

salmorra GAZI

(muy) salado, -a

salmorra adj. Oso gazia. Ik. **gatzi**.

salsa, salsia SALTSA

unto

salsa, aderezo, condimento
enredo, lío

salsa **1** iz. Saltsa; janari batzuk gozatzeko maneatzen den nahastura. *Salsa ona in dĭazu merluzĭorri* 'saltsa ona egin diozu legatz horri'. Ik. **unto**. **2** iz. Saltsa, nahaste-borrastea. *Salsa guztitan sartzen daiz!* 'saltsa guztietan sartzen haiz!'. ◆ **salsan** adb. Saltsan, janariez mintzatuz, saltsarekin prestaturik. *Berdelau salsa berdĭen prepatu ber dot* 'berdel hau saltsa berdean preparatu behar dut'.

salsero, salserua; salsera, salseria SALTSERO

salsero, -a

salsero, -a (Generoa hartzen du) adj. Saltseroa.

saltatu, saltatzen SALTATU

salto in

saltar; saltarse

saltatu *dau* ad. Salto egin. *Errekĭa saltatu dau* 'erreka saltatu du'. Ik. **salto egin** (> *salto in*).

saltazi, saltazten SALTARAZI

hacer saltar

saltarazi (> *saltazi*) *dau* ad. Saltatzera behartu.

salto in
SALTO EGIN

saltatu

saltar, dar saltos

salto egin (> *salto in*) *dau* ad. *Ubarkagaineti salto in dau* 'uharka gainetik salto egin du'. Ik. **saltatu**.

salto, saltua
SALTO

brinko

salto, brinco, pirueta

salto iz. Jauzia. Ik. **brinko**. ◆ **salto eta brinko** (> *salto ta brinko*). ◆ **salto batean** (> *salto batĭen*) adb. Banua salto batien. ◆ **salto egin** (> *salto in*) *dau* ad. *Ubarkagaineti salto in dau* 'uharka gainetik salto egin du'. Ik. **saltatu**. ◆ **ur salto** iz. Ur jauzia. *Ur saltwa*.

saltokalai, saltokalaia
SALTOKARI, SALTARI

brinkolai

saltarín, -ina, saltador, -a

saltokalari (> *saltokalai*) adj./iz. Saltokaria. ▲ Sin. *brinkolai*.

saltokan
SALTOKA

brinkoka(n)

saltando

saltoka(n) adb. Salto eginez. *Saltokan ta brinkokan* 'saltoka eta brinkoka'. Ik. **brinkokan**.

saltoki, saltokia (?)
SALTOKI

puesto de venta

saltoki iz. *Orrek alako lekutan patzen dau saltokia merkadillwen* 'horrek halako lekutan paratzen du saltokia merkadiloan [azokan]'. (LM).

saltzaile, saltzailia
SALTZAILE

trafikante — *yosdun / yostun*

vendedor, -a

saltzaile (eta *saltzale*) iz./adj. *Saltzailia, saltzen dena* 'saltzailea, saltzen duena' (Ond Bak). || *Arrai saltzailĭa* 'arrain saltzailea'. *Sardina saltzailĭa* 'sardina saltzailea'. Ik. **trafikante**. ▼ Anton. *yosdun / yostun*.

saltzale
SALTZAILE

vendedor, -a

saltzeko ibili
SALTZEKO EDUKI

salgai

estar en venta; tener en venta

saltzeko ibili. Saltzeko eduki. Ik. **salgai**.

saludatu, saludatzen
SALUTATU, AGURTU

dioselia in

saludar

saludatu dau ad. Salutatu, agurtu. *Gwai eztau iyuerek'e saludatzen* 'orai ez du inork ere saludatzen'. Ik. **diosela egin** (> *dĭoselĭa in*).

saludo, saludua
AGUR, DIOSAL

diosela

saludo

saludo iz. Agurra, diosala. Ik. **diosela**.

samalda, samaldia
SAMALDA

talde, saldo, monton

multitud, grupo, montón; rebaño, manada, bandada, recua [pertsonak edo animaliak]

samalda iz. Talde handia [pertsonak nahiz animaliak]. Txerrikuma samaldia, behi samaldia, ahuntz samaldia... Ik. **talde**; **saldo**; **hato**; **monton**. ◆ **samaldan** adb. Ik. **samaldakan**.

samaldakan
SAMALDAKA

samaldan

en tropel, en grupos, en bandadas

samaldakan adb. Samaldaka, talde handietan. Ik. **samaldan**.

samaldan
SAMALDAN

en grupos, en montón, en bandadas

samaldan adb. Ik. **samaldakan**.

samar, samarra
SAMAR

bastante, un poco

samar **1** adb. (Izenondo baten eskuinean, artikulua edo beste mugatzaileren bat hartzen duela, zerbait nolabaiteko nahikotasunera iristen ez dela adierazteko). *Lodi samar*; *haundi samar*. *Aundi samar duka txapelĩa* 'handi samar dauka txapela'. *Tonto samarra da*. Ik. **nahiko**. **2** adb. (Adizlagun baten eskuinean). *Ezta goiz samar?* 'ez da goiz samar?'.
(3) iz. Begietako zikina ??

samin (?)

samur, samurra
SAMUR

biun, hexe — *zail, gogor*

blando, -a, tierno, -a

samur (eta *xamur*) adj. *Jateko samurra*. Ik. **hexe** (hexia). *Lur samurra*. *Lur samurra da arĩatza* 'lur samurra da hareatza'. *Emen ezto negu samurrik* 'hemen ez dago negu samurrik'. Ik. **bigun** (> *biun*). ▼ Anton. *zail*, *gogor*. *Il samurra izan dau* 'hiltze samurra izan du'. ◆ **negar samurra** (> *ñear samurra*). Negar erraz egitea. *Aur horrek ñear samurra duka* 'haur horrek negar samurra dauka.

samurtu, samurtzen
SAMURTU

beatu, biundu — *gogortu, zurtu*

ablandar(se), reblandecer(se)

samurtu (eta *xamurtu*) *da/dau* ad. *Estĩek gatzetan patuta xamurtu iten zĩaken* 'hesteak gatzetan paratuta samurtu egiten zituan'. ▲ Sin. *beatu*, *biundu*. ▼ Anton. *gogortu*, *zurtu*.

san
SAN

San

san adj. (maiusk.) Santu bat aipatzean aurretik ezartzen zaion hitza. Ik. **santa**.

sanatoio, sanatoiua

SENDATEGI

sanatorio

sanatorio (> *sanatoio*) iz. Sendategia, erietxea, bereziki tratamendu jakin bat behar duten erien egonaldietarako prestaturikoa.

sanatu, sanatzen

SANOTU

curarse, sanarse

sanatu *da* ad. Sanotu, sano bihurtu. *Ondo sanatzeko denborĭa berko dau* 'ondo sanotzeko denbora beharko du'. Ik. **ongitu**.

sandios

SANDIOS, DIOS

dios, redios

rediós

sandios interj. Harridura edo haserrea adierazteko erabiltzen den hitza. Ik. **dios**; **redios**.

saneatu, saneatzen

SANEATU

sanear; drenar

saneatu (eta *sanĭatu*) *dau* ad. Saneamendua egin; drainatu. *Errekĭa ata dĭagu sorwai; saneatu du* 'erreka atera diogu soroari; saneatu dugu'.

sangai, sangaia

LABANA-MARRAZA (NABALA-MARRAZA)

cuchillo de matarife

sangai iz. Nabala-marraza [labana-marraza] [*sangrai, *sangragai (?)]; abereak odolusten hiltzeko erabiltzen den labana. *Sangaia: sangatzeko labana* 'sangaia: sangratzeko labana'.

sangatu, sangatzen

SANGRATU

desangrar; sangrar

sangatu *dau* ad. Odolustu; odolusteko, abere bati zaina ireki. *Txerria sangatu* 'txerria sangratu'. Ik. **sangratu**.

sangratu, sangratzen

SANGRATU

desangrar; sangrar

sangratu (eta *sangatu* [Urdiain]) *dau* ad. (Iza Alts) Odolustu; odolusteko, abere bati zaina ireki. *Ttxerria sangratu*.

sanjuan / sanjuanak

SANJOAN

fiestas de San Juan (pl.)

sanjuan iz. pl. *Sanjoanak*, San Joan egunaren inguruan egiten diren jaiak. *Sanjwan (bezperako) sua*. *Sanjwanen kantaitĭa* 'San Joanen kantaita'. ◆ **sanjuan belar** (> *sanjuan bear*, *sanjuan biar*). (Bot.) Milazulo, santio belarra (Hypericum perforatum). ◆ **sanjuan-sanpedro (ibili)**. Beti jantzi batekin, arropa berarekin ibili, *sanjuan-sanpedro*. *Jersĭonekin naile, sanjwan-sanpedro* 'jertse honekin nabil, *sanjwan-sanpedro*'. ◆ **sanjuan ziza** iz. (Mikol.) Zizahoria (Cantharellus cibarius). ▲ Sin. *xixeta*.

sanjuan biar, sanjuan biarra

MILAZULO, SANTIO BELAR

corazoncillo, hipérico

sanjuan belar (> *sanjuan bear*, *sanjuan biar*). (Bot.) Milazulo, santio belarra (Hypericum perforatum).

sanjuan ziza
ZIZAHORI

xixeta

rebozuelo (Cantharellus cibarius)

sanjuan ziza iz. (Mikol.) Zizahoria (Cantharellus cibarius). ▲ Sin. *xixeta*.

sankristaua / sakristau, sakristaua
SAKRISTAU

sacristán

sankristau iz. Sakristaua. *Altsuko sankristaua*.

sankristia / sakristia
SAKRISTIA

sacristía

sakristia (eta *sankristia*) iz. Elizetan, apaizak janzten eta elizkizunetako gauzakiak gordetzen diren tokia. *Egun otzetan, sankristien ematen dai mezĭa* 'egun hotzetan, sakristian ematen dute meza'.

sanmigel
SANMIGEL

San Miguel

sanmigel iz. pl. *Sanmigeletan, gaztinak biltzĭa* 'sanmigeletan, gaztainak biltzera'. ◆ **sanmigel gaztina**. Gaztaina goiza, Sanmigeletarako (irailaren 29a) ontzen dena. Ik. **horitxo**; **inurri**. ◆ **sanmigel haize** (> *samigel aize*). Ipar-ekialdeko haize hotza [Aralarko San Migel aldetik jotzen duena]. Ik. **haize gorri**.

sanmigel gaztina, sanmigel gaztinia
(GAZTAINA MOTA)

castaña temprana que se recoge por San Miguel

sanmigel gaztina. Gaztaina goiza, Sanmigeletarako (irailaren 29a) ontzen dena. Ik. **horitxo**; **inurri**.

sanmigel haize, sanmigel haizia
SANMIGEL HAIZE

haize gorri

viento (del) nordeste

sanmigel haize (> *samigel aize*). Ipar-ekialdeko haize hotza [Aralarko San Migel aldetik jotzen duena]. Ik. **haize gorri**.

sano, sanua
SANO

osasuntsu — *gaizki*

sano, -a, saludable, de buena salud
sincero, -a, franco, -a, de carácter abierto
sano, -a, bien

sano **1** adj. Osasuntsua. ▲ Sin. *osasuntsu*. ▼ Anton. *gaizki*. **2** adj. Pertsonengatik esanda, tolesgabea. *Pobrĭek baia biotzez sano-sanwek gindan* 'pobreak baina bihotzez sano-sanoak ginen'. **3** adb. *I e'ago buruti sano* 'hi ez hago burutik sano'. ◆ **sano egon** (> *sano yon*). ◆ **sano-sanoa** (> *sano-sanwa*). ¬

sanpedro / sanpedruek
SANPEDRO

fiestas de San Pedro (pl.)

sanpedro iz. pl. *Sanpedrwek*, San Pedro egunaren inguruan egiten diren jaiak. *Sanpedroko festak*. *Sanpedrotako blusĭa jantzita* 'sanpedrotako blusa jantzita'. ◆ **sanjuan-sanpedro (ibili)**. Beti jantzi batekin, arropa berarekin ibili, *sanjuan-sanpedro*. *Jersĭonekin naile, sanjuan-sanpedro* 'jertse honekin nabil, *sanjuan-sanpedro*'.

sansebastian / sansebastianak

SANSEBASTIAN

fiestas de San Sebastián (pl.)

sansebastian iz. pl. *Sansebastianak*, San Sebastian egunaren inguruan egiten diren jaiak. • *Sansebastian, parra-pata-pan, mucha bandera y poco pan, aitak ibazi ta semĭek jan*.

santa, santia

SANTA

santa
Santa

santa **1** iz. Emakumezko santua. **2** adj. Santa bat aipatzean aurretik ezartzen zaion hitza. Ik. **san**.

santageda / santagedak

SANTA AGATA*

fiestas de Santa Águeda

santageda (eta *santagera(k)*) iz. pl. *Santagedak*, Santa Agata egunaren inguruan egiten diren jaiak. *Santagedak, etxegaltĭek* 'santagedak, etxekalteak'. • Esr. zah. *Santageda, urdaia patera*.

santagera, santageria

TXABILA, TORLANTXA

huso, molinillo que se usa para hilar

santagera iz. Txabila, torlantxa; haria eskuz egiteko erabiltzen den tresna. *Aria iten, emakumĭek ardatzakin ibiltzen zĭan gaio; gizonak, santagerĭekin* 'haria egiten, emakumeak ardatzarekin ibiltzen ziren gehiago; gizonak, santagerarekin'. Ik. **tronpilu** (?); **ardatz**; **lilai**.

santamaina

SANTA MARINA

Santa Marina (ermita)

santa marina (> *santamaina*) iz. Santa Marinako ermita; Urbasako eremua. ◆ **Santa Marina egun**. Santa Marina egunaren inguruan egiten den jaia.

santana; santanak

SANTANA

fiestas de Santa Ana (pl.)

santana iz. pl. Santa Ana egunaren inguruan egiten diren jaiak [Olatzagutiko jaiak].

santazi

SANTA GARAZI

santa Engrazia (ermita)

santazi iz. Santa Garazi; ermita (Urdiainen; gaur egun, hondatuta) eta eremua. Jaieguna urriaren 26an da.

santifikatu, santifikatzen

SANTIFIKATU

santificar(se), consagrar(se)

santifikatu **1** *da/dau* ad. (Erl.) Santutu. **2** (Era burutua izenondo gisa).

santinuxente / santi inuxente

INOZENTE; INOZENTE EGUN

Santos Inocentes; día de los Santos Inocentes

santinuxente iz. *Santinuxente eguna* 'inozente eguna [abenduaren 28a]'. • *Santi inuxente, buru-buru tente, txerri buztana tente*. [Inozentada egindakoari kantatzen zaiona]. Ik. **inozente**.

santio / santiuek

SANTIAGO / SANTIAGOAK

fiestas de Santiago (pl.)

santio iz. pl. *Santiuek*. Santiago; santiagoak; Done Jakue egunaren inguruan egiten diren jaiak [Bakaikuko jaiak]. ◆ **santiago-harri** (> *santio arri*) [Bakaiku]. Itsas trikuaren fosila. Ik. **jaungoikoaren harri** (> *jaungoikwen arri*, *jangoikwen arri*). ◆ **santiago okaran** (> *santio okan*) iz. Okaran mota (urdina). *Okan urdin aundi ta gozwek dĭa santio okanak* 'okaran urdin handi eta gozoak dira santiago okaranak'. ◆ **santiago sagar** (> *santio sar*) iz. Sagar mota.

santio-harri

FOSIL

jangoikuen harri

fósil de erizo de mar (equinoideo)

santiago-harri (> *santio arri*) [Bakaiku]. Itsas trikuaren fosila. Ik. **jaungoikoaren harri** (> *jaungoikwen arri*, *jangoikwen arri*).

santon / santonak

SANANTON

fiestas de San Antón (pl.)

sananton (> *santon*) iz. pl. *Santonak*. Sananton, San Anton egunaren inguruan egiten diren jaiak.

santu, santua

SANTU

santo, -a

santu **1** iz. Pertsona santua. Ik. **santa**. || *Ostiele santua* (Ond Bak). **2** iz. (Batez ere pl.) Liburutako irudiak. Ik. **imajen**. *Ata'men dai «Burundako hiztegia», santuekin da gúzti* 'atera omen dute «Burundako hiztegia», santuekin eta guzti'. ◆ santua izan; santua ez izan. *Oi eztok, gĭo, santua* 'hori ez duk, gero, santua'. ◆ oso santu ez yon. (no estar muy católico).

sanzionatu, sanzionatzen

ZIGORTU

sancionar, castigar

sanzionatu *dau* ad. Ik. **kastigatu**.

sapalda, sapaldia

ZAPALDA

1 eskila-maila; 2 apal

peldaño, escalón
anaquel, balda, estante

sapalda **1** iz. Zapalda, eskailera-maila. *Eskila sapaldĭa* 'eskailera zapalda, eskailera-maila'. Ik. **eskila-maila**. **2** iz. Apala, arasa. *Laio sapaldĭa* 'leiho zapalda'. *Tximini sapaldĭa* 'tximinia zapalda'. Ik. **apal**.

sapi, sapia

SAPELAR. 2 ZAIN-SABI

koroso (?)

álsine, picagallina, pamplina (Stellaria Sp.)
conjunto de raíces muy delgadas; barba de las raíces

sapi **1** iz. Ald. *sapiar* (Ond Bak). (Bot.) Sapelarra; belar-landarea, hosto txikiak eta lore zuriak dituena (Stellaria media). Ik. **koroso**. **2** iz. Zain *sapia*, sustraien *sapia*. ◆ **sapi beltz**. (Lore urdinduna); ◆ **sapi zuri**. (Lore zuriduna). ¬

saporrosa, saporrosia

MITXOLETA

fraile-moja (?)

amapola (Papaver rhoeas)

saporrosa (eta *sapiarrosa* [Bakaiku]) iz. (Bot.) Mitxoleta (Papaver rhoeas). ▲ Sin. *fraile-moja* (Ond Bak) (?).

sar

sar Baietz. (?) ¬

sar arbola, sar arbolia

SAGARRONDO

sagar ondo

manzano (Malus sp.)

sagar arbola (> *sar arbola*). (Bot.) Sagarrondoa (Malus sp.). ▲ Sin. *sagar ondo*.

sar ardo, sar ardua

SAGARDO

sidra

sar beltz

ERREGE-SAGAR GRISA

reineta

manzana reineta gris

sargar beltz (> *sar beltz*). (Bot.) Errege sagar grisa, azal arrea duen sagar mota gazi-gozoa (bereizi egiten dira azal berdea –*errege sagarra*– eta azal arrea duten sagarrak –*reineta* edo *sagar beltza*–). ▲ Sin. *reineta*.

sar motel, sar motela

SAGAR MOTEL (GEZA)

manzana sosa

sargar motel (> *sar motel*). Sagar geza.

sar tarta, sar tartia

SAGAR TARTA

tarta de manzana

sagar tarta (> *sar tarta*) iz. *Sar tartĭa iteko, sar gozwa obe* 'sagar tarta egiteko, sagar gozoa hobe'.

sar, sarra

SAGAR

manzana
manzano

sara / sarak

GANBELA SARE*, GANBELA HESI*

enrejado o estacada delante del pesebre

Bearra botatzeko sarak. *Sarak*. Ardiei belarra jaten emateko ganbelari jartzen zaion zurezko sarea edo hesia, abereak muturra besterik sar ez dezan.

sara, saria

SARE

red (de hilo, cuerda, alambre); tejido de mallas; reja, verja
aparejo para pescar, cazar, cercar, sujetar, etc.
red de araña, telaraña, tela de araña
adral
enrejado o estacada delante del pesebre

sara (eta *sare* [Bakaiku]) **1** iz. Sarea, hariak edo kidekoak gurutzatuz eta mailak osatuz egiten den ehuna. *Sara zulwa* 'sare zuloa'. || Parrila. *Talua erretzeko txinarrakin: talaburnien erdipurdi erre ondorien, geo sarien, parrilan* (Ond Bak). **2** iz. Sarea, arrainak, hegaztiak, piztiak eta kidekoak harrapatzeko tresna sareduna. **3** iz. Armiarma sarea. *Sara, sarĭa; imirrimau sarĭa*. Ik. **amegun**. **4** iz. Gurtesia [adral para traer hoja seca, etc. (Ond Bak)]. **5** iz. pl. *Sarak*. Ardiei belarra jaten emateko ganbelari jartzen zaion zurezko sare edo hesia, abereak muturra besterik sar ez dezan. Pesebre (superior). Ik. **ganbela**. **6** iz. Eskailera mota, okulukoa, belarra hartzeko erabiltzen dena (?).

sarakada, sarakadia

SAREKADA

red llena (de)

sarakada iz. Sarekada; sarean jasotzen diren arrainen, usoen edo kidekoen multzoa.

saranpion, saranpiona

ELGORRI

sarampión

saranpion iz. Elgorria. ¬

saratu, saratzen

SARETU

gastatu, desgastatu

desgastar(se); ralear

saratu *da* ad. Saretu, higatu. *Arropĭa saratu* 'arropa saretu'. *Arropĭa saratwik* 'arropa sareturik'. *Soinekwa saratu* 'soinekoa gastatu'. *Pantalonak saratuik dukatzi* 'prakak sareturik dauzka'. Ik. **sarestatu**. ▲ Sin. *gastatu*, *desgastatu*.

sarbide, sarbidia

SARBIDE

sarrera, entrada, sartuera

entrada, acceso, paso, camino de entrada, medio de entrar

sarbide iz. Sartzeko bidea; sartzeko aukera. *Sorwek eztuka sarbideik* 'soroak ez dauka sarbiderik'. ▲ Sin. *sarrera*, *entrada*, *sartuera*.

sarda

SARDE

sardai; matxarda (?), sardango

bieldo; horca
horquilla, horqueta

sarda iz. Sardea. Ik. **sardai** [Urdiain].

sardai, sardaia

SARDE

sarda; matxarda (?), sardango

bieldo; horca
horquilla, horqueta

sardai [Urdiain] **1** iz. Sardea. *Burnizko sardaia*; *zurezko sardaia*. *Bost hortzeko sardaia*; *bi hortzeko sardaia, bearretako* 'belarretarako'. *Sardai girtena* 'sarde giderra'. **2** iz. Urkila, txardangoa. *Arramĭen sardaia* 'adarraren sardea'. Ik. **sarda**; **sardango**; **matxarda**.

sardaikada, sardaikadia

SARDEKADA

2 sardaikazo

horquillada, contenido de una horquilla/horca
horquillazo (golpe)

sardaikada **1** iz. Sardekada, sardeak hartzen duen edukia. *Sardaikadĭa*. **2** iz. Sardearekin emandako kolpea. Ik. **sardaikazo**.

sardaikan

SARDEKA

con sarde; usando la horquilla

sardaikan adb. Sardeka; sardea erabiliz. *Sardaikan kargatzen zan bear gurdia* 'sardeka kargatzen zen belar gurdia'.

sardaikazo, sardaikazua

SARDEKADA

horquillazo, golpe de horquilla

sardaikazo iz. Sardekada. *Sardaiekin emandako golpĭa da sardaikazwa* 'sardearekin emandako kolpea da *sardaikazoa*'. *Sardaikazo batekin il zen subĭa* 'sardekada batekin hil zuen sugea'. Ik. **sardaikada**.

sardango, sardangua

TXARDANGO, URKILA

sardai

horquilla, horqueta

sardango iz. Txardangoa. *Urritz orrek sardango ederra duka* 'hurritz horrek sardango ederra dauka'. Ik. **sarda**; **sardai**.

sardi, sardia

SAGARDI

manzanal

sagardi (> *sardi*) iz. *Sardien sar klase asko izaten zĭan* 'sagardian sagar klase asko izaten ziren'. *Markesan sardia* 'markesaren sagardia'.

sardina-saltzaile

SARDINA-SALTZAILE

sardinera; arrai saltzaile; peskatero, -a

vendedor, -a de sardinas; sardinero, -a

sardina saltzaile. *Etxeik etxe ibiltzen zan sardina saltzailĭa* 'etxerik etxe ibiltzen zen sardina saltzailea'. ▲ Sin. *sardinera*. Ik. **arrai saltzaile**; **peskatero, -a**.

sardina, sardinia

SARDINA

sardina
travieso, -a, inquieto, -a, revoltoso, -a

sardina **1** iz. (Sardina pilchardus). *Sardinak yosten gindutzen* 'erosten genituen' (Ond Bak). || *Sardina burua*. *Sardina hezurra*. **2** adj./iz. Lgart. Bihurria. *Oi sardinĭa!* 'hori sardina!'. ◆ **sardina berri** iz. Sardina freskoa. *Brasan erre tu sardina berriek* 'brasan erre ditugu sardina freskoak'. Ik. **sardinzar**. ◆ **sardina saltzaile**. *Etxeik etxe ibiltzen zan sardina saltzailĭa* 'etxerik etxe ibiltzen zen sardina saltzailea'. ▲ Sin. *sardinera*. Ik. **arrai saltzaile**.

sardinera, sardineria

SARDINA-SALTZAILE

sardina-saltzaile

vendedora de sardinas

sardinera iz. Sardina saltzaile emakumezkoa. *Sardineřĭa*. Ik. **sardina saltzaile**; **peskatero, -a**.

sardinzar, sardinzarra

SARDINA ZAHAR

arenque
guardia civil

sardinzar **1** iz. Sardina zaharra, sardina gazitua (Clupea harengus). *Sardinzarrak, sardinak gatzĭen* 'sardina zaharrak, sardinak gatzean [gatzetan]. **2** iz. Lgart. Guardia zibila.

sarestatu, sarestatzen

SAREZTATU

zurzitu

zurcir, repasar

sarestatu *dau* ad. Saratu dan tokia zurzitu, sarastatu (?). Ik. **zurzitu**.

sargori, sargoria

SARGORI

bero falso

bochorno; bochornoso, -a, sofocante

sargori **1** iz. Ik. **bero falso**. **2** adb. ◆ **sargoria egon** (> *sargoria yon*). [Sarguria, sol entre chaparrones de agua JMS].

sarjento, sarjentua; sarjenta, sarjentia

SARJENTU

sargento
mandón, -ona; sargenta; sargentona

sarjento, -a (Generoa hartzen du: *sarjento*, *sarjentwa*; *sarjenta*, *sarjentĭa*) **1** iz. Sarjentua, ofizialaren agindupeko soldaduburua. **2** iz./adj. Agintzailea, aginduguakoa. || Emakume larderiatsua. *Sarjentĭa*.

sarjo, sarjua

zarzo (?)

sarjo adj. *Tela sarjo bat, zulo haundiak dekatzana, pulpa yateko ta* (Ond Bak). (Urdiain).

sarmin, sarmina

SAGARMIN

manzano silvestre (Malus sylvestris)

sarraila zulo, sarraila zulua

SARRAILA ZULO

giltza zulo

ojo de la cerradura

sarraila zulo iz. Sarrailan giltza sartzen den zuloa. *Sarraila zulwen bertan auzten dau giltzĭa sartwik* 'sarraila zuloan bertan uzten du giltza sarturik'. ▲ Sin. *giltza zulo*.

sarraila, sarrailia

SARRAILA

cerradura, cerraja

sarraila iz. Ateetan, kutxetan eta kidekoetan jartzen den metalezko gailua, haiek giltzaz ixteko eta irekitzeko erabiltzen dena. Ik **kisketa**; **murrilo**. ◆ **sarraila zulo** iz. Sarrailan giltza sartzen den zuloa. *Sarraila zulwen bertan auzten dau giltzĭa sartwik* 'sarraila zuloan bertan uzten du giltza sarturik'. ▲ Sin. *giltza zulo*.

sarrazi, sarrazten
SARRARAZI

sartuazi

hacer entrar, obligar a entrar, meter; introducir

sarrazi *dau* ad. Sarrarazi, sartzera behartu. *Alainak in tu antxumĭa autwen sarrazten, bea, sartu ezinda, baswen autzi ber izan dau* 'ahaleginak egin ditu antxumea autoan sarrarazten, baina, sartu ezinda, basoan utzi behar izan du'. Ik. **sartuazi**.

sarrena, sarrenia
SARNA, HAZTERI; EZKABIA

sarna

sarrena iz. Sarna, hazteria; azkura bizia eragiten duen eritasun kutsakorra. Ik. **hatz**; **ezkabia**.

sarrera, sarreria
SARRERA

sartuera, entrada, sarbide — *ataera*

entrada

sarrera iz. *Erriko sarreria* 'herriko sarrera'. *Etxeko sarreria* 'etxeko sarrera'. *Gau sarreria* 'gau sarrera'. ▲ Sin. *sartuera*, *entrada*, *sarbide*. ▼ Anton. *ataera*.

sarri, sarria
SARRI

2 maiz — *1 bihets*

tupido, -a, espeso, -a, cerrado, -a
frecuentemente, con frecuencia, a menudo, muchas veces

sarri **1** adj. Eremu txikian unitate asko dituena. *Maiza sarriei do* 'artoa sarriegi dago'. ▼ Anton. *bihets*. **2** adb. *Hemen sarri iten dau yauria* 'hemen sarri egiten du euria'. *Sarri do auria! Auri asko ai da* (Ond Bak). Ik. **maiz**. ◆ **sarritan** adb. Maiz. *Sarritan esaten dau gauzĭoi* 'sarritan esanten du gauza hori'. Ik. **maiz**; **askotan**.

sarritan
SARRITAN

maiz, askotan

muchas veces, a menudo, con frecuencia

sarritan adb. Maiz. *Sarritan esaten dau gauzĭoi* 'sarritan esanten du gauza hori'. Ik. **maiz**; **askotan**.

sarritxo
SARRITXO

2 maiztxo — *1 bihestxo*

tupido, -a, espeso, -a, cerrado, -a
con demasiada frecuencia

sarritxo **1** adj. Adkor. Sarria, tapitua. *Sarritxo do ori; biastxo ber zen* 'sarritxo dago hori; mehatzago [bakanago] behar zuen'. ▼ Anton. *bihestxo*. **2** adb. Adkor. *Sarritxo eldwa gwe etxĭá eskĭen* 'sarritxo heldu da [dator] gure etxera eskean'. Ik. **maiztxo**.

sartu-ata in / sartu ta ata
SARTU-ATERA (EGIN)

visita breve; incursión

sartu-ata egin (> *sartu-ata in*). Sartu-atera (egin); sartu-irtena.

sartu, sartzen

SARTU, SARTZEN

ata

entrar, meter(se), introducir
incluir; insertar, adjuntar
ponerse (sol)
plantar, sembrar
engañar, meter una mentira/trola

sartu 1 *da* ad. Barrura joan, barrura igaro.
Sartuik gindela 'ginela'. Oazalien koltxia sartzen zan. Sártu ber lukéi 'lukete' garzelá. Apiribila sartu ber zan. Mugarrak sartu (Ond Bak).
(n) (sembrar, plantar) patatia sartu (yain).
Patatak sartu ta ata; naguek erein eta ekarri (Ond Bak).
– sartu ta ata.
(n) - yuzkia sartu.
– kutxilua sartu.
– dirua sartu.
– gezurra sartu.
– muturra sartu.
– yauritan sartu
– lainua sartu.
– Kabitu. Ik. **kabitu**.

sartuazi, sartuazten

SARTU ARAZI, SARRARAZI

sarrazi

hacer entrar, obligar a entrar, meter; introducir

sartuazi *dau* ad. Sartu arazi, sarrarazi, sartzera behartu. Ik. **sarrazi**. *Otz onekin barrwá sartwazi tuai* 'hotz honekin barrura sarrarazi dituzte'.

sartuera, sartueria

SARRERA

sarrera

entrada, acceso, puerta de entrada

sartuera iz. Sarrera, sarbidea. *Sartueria: sartzeko tokia*. *Sartueran* 'sarreran'. Ik. **sarrera**.

sasi- (?)

SASI-

pseudo; falso, -a

sasi- (?) iz. (Hitz elkartuetan, lehen osagai gisa). Sasikoa, egiazkoa ez dena, benetakotik itxura besterik ez duena. *sasi-kuma*, *sasi-mediku*, *sasi-jakintsu* (?).

sasi-matxurreta, sasi-matxurretia

MASUSTA, MARTXUKA (RUBUS ULMIFOLIUS)

sasi-maxurta

zarzamora, mora (Rubus ulmifolius)

sasi-matxurreta iz. (Bot.) Lahar edo sasiaren (Rubus ulmifolius) fruitua, jateko ona, lehenik berde, gero gorri eta umotzean beltz diren pikor hazidun askoren multzoak osatua. ▲ Sin. *sasi-maxurta* [Bakaiku].

sasi-maxurta

SASI MASUSTA (RUBUS ULMIFOLIUS)

sasi-matxurreta

zarzamora, mora de zarza (Rubus ulmifolius)

sasi-maxurta [Bakaiku] iz. (Bot.) Sasiko (Rubus ulmifolius) masustaren fruitua. {sasimaxurta "Mora que se da en las cercas, etc., en matas más grandes que uso-maxurta" (Ond Bak)}. ▲ Sin. *sasi-matxurreta* [Urdiain].

sasi, sasia

SASI

zarza
matorral, maleza

sasi **1** iz. (Bot.) Zenbait landarek jasotzen duen izendapena: *ansasi* 'aran sasi'; *matxurreta sasi* 'masusta sasi'; (...). Ik. **lahar**. **2** iz. Sastraka. *Sasiz beteta do inguru oi* 'sasiz beteta dago inguru hori'. Ik. **zapar**.
◆ **sasiak hartu** (> *sasiek artu*). Sasitu, sasiz bete, sasiak jana gertatu.
◆ **sasi artean** (> *sasi artĭen*). *Sasi artĭen ibili naiz* 'sasi artean ibili naiz'.
◆ **sasi-matxurreta** iz. (Bot.) Lahar edo sasiaren (Rubus ulmifolius) fruitua, jateko ona, lehenik berde, gero gorri eta umotzean beltz diren pikor hazidun askoren multzoak osatua. ▲ Sin. *sasi-maxurta* [Bakaiku].

sasidi, sasidia

SASIDI

matorral

sasidi iz. Sasiz beteriko lekua edo saila. Ik. **lahardi**; **zapardi**.

sasipe, sasipia

SASIPE

matorral, maleza; bajo el matorral, bajo la maleza

sasipe iz. Sasi azpia; sasia. ◆ **sasipean** (> *sasipĭen*).

saski, saskia

SASKI

jaiski, zesto

cesta, cesto, canasta

saski (Hitz berria) (?) iz. Ik. **jaiski** [Altsasu], eta *jaski* edo *jeski* [gainerako Burundako herrietan]. ▲ Sin. *zesto*. ¬

sasoi, sasoia

SASOI

garai; puri

sazón, tiempo, temporada, época adecuada
edad, cada una de las etapas de la vida; juventud
sazón, fortaleza, buena salud

sasoi **1** iz. Nekazaritzari dagokion lanen batean aritzeko garai egokia. *Udaberriko yuzkiekin lurra belaxe patzen da sasoien* 'udaberriko eguzkiarekin lurra berehalaxe paratzen da sasoian'. *Sasoi ona do jorrako* 'sasoi ona dago jorrarako'. *Yaiteko sasoia* 'ereiteko sasoia'. Ik. **garai**. **2** iz. Giza bizitzaren garai bakoitza, bereziki osasuntsuena, gorputzaren aldetik beteena. **3** iz. Gorputzaren sendotasun eta osasun betetasuna. *A ze sasoia duka orrek!* 'a zer sasoia dauka horrek!'. *Guri fan zaigu sasoia* 'guri joan zaigu sasoia'. ◆ **sasoian egon** (> *sasoien yon*). Osasun betetasunean egon. *Jendĭa irurogei urtekin'e sasoien yoten da* 'jendea hirurogei urterekin ere sasoian egoten da'. ◆ **sasoiko**, sasoikua. Sasoiko jendia. Ik. **jarri (a)** [heldua]. Ik. **puri**; **furi**; **furieko**. ◆ **sasoi oneko**.

sasoien yon

SASOIAN EGON

estar en forma; estar en sazón

sasoian egon (> *sasoien yon*). Osasun betetasunean egon. *Jendĭa irurogei urtekin'e sasoien yoten da* 'jendea hirurogei urterekin ere sasoian egoten da'.

sasti

SAGASTI (?) - SAHASTI (?)

sagardi (?)

sasti iz. sagasti (?) - sahasti (?)

sastre, sastria

SASTRE

jostun

sastre, sastra

sastre iz. Lanbidez, arropak egiten dituen pertsona. Ik. **jostun**.

sastrei, sastreia

JOSTUNDEGI

sastrería (tienda y taller de sastre)

sastrei iz. Jostundegia.

sataga, satagia

SATAGA [HAGA]

tranca, vara grande

sataga [Altsasu] iz. Enbor pisuak mugitzeko ikazkinak erabiltzen duen haga [tranca que usaban los carbonero para mover los troncos pesados]. Ik. **haga**; **hagai**.

satan, satana

SATAN

diabru, ifarnuko etsai, luzifer

Satán; Satanás

satan iz. Deabrua. (Maiz izen berezi gisa erabiltzen da). *Ifarnuko satana* 'infernuko satana'. Ik. **diabru**; **ifarnuko etsai**; **luzifer**.

satelite, satelitia

TXORIBURU

alaja

alhaja (irón. Persona pícara y traviesa); desvergonzado, -a

satelite adj. Txoriburua, haizetsua, zelebrea; lotsa gutxikoa. *Oi satelitĭa!* 'hori satelitea [ale ederra]!'. Ik. **alaja**.

satisfazio, satisfaziua

SATISFAZIO

satisfacción (cumplimiento del deseo o del gusto)

satisfazio iz. Poza, pozbidea. *Esker txarreko jende orrekin satisfazio gutxi jasoko dau* 'esker txarreko jende horrekin satisfazio gutxi jasoko du'. Ik. **poz**; **poztasun**.

satitsu, satitsua

SATITSU

musaraña

cegato, cegajoso, corto de vista

satitsu **1** iz. Ugaztun intsektujale txikia, saguaren antzekoa baina mutur-luzea (Crocidura russula). **2** iz. Bista laburrekoa, erdi itsua.

sator zulo, sator zulua

SATOR ZULO

galería de topo; topera

sator zulo iz. Satorrak lurrean egiten duen zuloa, kanporatzen duen lur pilagatik nabarmentzen dena. *Sator zuloz beteĭk do larrĭa* 'sator zuloz beterik dago larrea'. Ik. **sator pila**.

sator-bear, sator-bearra

SATOR-BELAR, TARTIKU

tártago (Euphorbia lathyris)

sator-belar (> *sator bear*) iz. (Bot.) Tartikua (Euphorbia serrata?, Euphorbia lathyris?). ¬

sator, satorra (1)

SATOR

lurpeko

topo (Talpa sp.)

sator[1] iz. Ugaztun txiki intsektujalea, lurpean zulo bideak egiten dituena (Talpa europaea). Ik. **lurpeko**.

◆ **sator belar** (> *sator bear*) iz. (Bot.) Tartikua (Euphorbia serrata?, Euphorbia lathyris?). ¬

◆ **sator pila**. Satorrak lurrean zuloa egitean, kanpora botatzen duen lur pila.

◆ **sator zulo** iz. Satorrak lurrean egiten duen zuloa, kanporatzen duen lur pilagatik nabarmentzen dena. *Sator zuloz beteĭk do larrĭa* 'sator zuloz beterik dago larrea'.

◆ **satorrak bota**. Bihotzekoak jota hil. *Satorrak bota ber dik* 'satorrak bota behar dik [bihotzekoak jota hil behar dik]'.

◆ **satorrak jo** *dau* ad. Satorrak lurra kanpora botatzen dueneko ekintza. *Gaur ilunabarrĭen jo dau satorrak berriz'e batzan* 'gaur ilunabarrean jo du satorrak berriz ere baratzean'.

sator, satorra (2)

SATAR, KARBUNKO

carbunco (enfermedad contagiosa del ganado)

sator[2] iz. Satarra, karbunkoa, ganaduaren eritasun infekzioso larria, gizakia kutsatzen duena.

satsa, satsia

satsa iz. *Sats: kolore marronekua, alfalfia galtzen zena, odoldia-o sara bekelakua*. [sahats (?)].

sau, saua

SAGU

ratón (Mus musculus)

saustarrak / sauzatar

ZANTAR (?)

sakats

inmundicia, porquería
cantarle las verdades (a alguien)

saustarrak (eta *sauzatar* (AG)) iz. {Saustarrak, escombros, cosas sucias, despojos. Se dice también en sentido figurado: «Saustarrak atera», cantar las verdades. JMS}.

◆ **saustarrak atera** (> *saustarrak ata*) ([norbaiti] bereak eta bost esan, esatekoak esan).

sauzatar / saustar(rak)

ZANTAR (?)

sakats

inmundicia, porquería
cantarle las verdades (a alguien)

sauzatar (eta *saustar(rak)*) **1** iz. Batez ere pl. *sauzatarrak*. Hondakina, zaborra, zikinkeria. **2** iz. Irud. sauzatarrak ata: *Falta flakezak aurpegia bota*. Ik. **sakats**.

saxofon, saxofona

SAXOFOI

saxofón, saxófono

saxofon iz. Saxofoia.

seda, sedia

ZETA (EHUNA)

seda

seda iz. Zeta; zenbait intsekturen beldarrei darien gaia, zuntzak osaten dituena eta ehungintzan erabiltzen dena; zuntz horrekin eginiko ehuna. *Seineko sedazkwa* 'soineko zetazkoa'.

sega poto, sega potua

SEGA POTO

colodra, estuche de segador

sega poto (eta *sega pote* [Ziordia]). Segalariak gerrian eramaten duen ontzixka, segarria heze izateko erabiltzen dena. Ik. **segarri**.

sega, segia

SEGA

guadaña

sega iz. ◆ **segan egin** (> *segan in*). Segaz ebaki. *Garai batĭen segan iten zĭan gari guztĭek* 'garai batean segan egiten ziren gari guztiak'. Ik. **segatu**. ◆ **sega pikatu** (> *segĭa pikatu*). Segari mailuka ahoa berdindu. *Segia, pikamailuekin pikatu; segarriekin, zorroztu*. ◆ **sega poto** (eta *sega pote* [Ziordia]). Segalariak gerrian eramaten duen ontzixka, segarria heze izateko erabiltzen dena. Ik. **segarri**. ◆ **segara** (> *segá*). *Segá fan da* 'segara [segaz ebakitzera] joan da'. ◆ **segaz egin** (> *segaz in*). Segan egin.

segalai, segalaia

SEGALARI

segador, -a

segalari (> *segalai*) iz. Segaz ebakitzen duen pertsona.

segan in

SEGAN EGIN

segatu

segar

segan egin (> *segan in*). Segaz ebaki. *Garai batĭen segan iten zĭan gari guztĭek* 'garai batean segan egiten ziren gari guztiak'. Ik. **segatu**.

segarri, segarria

SEGARRI

(piedra) afiladera, (piedra) aguzadera, piedra de afilar [la guadaña]

segarri iz. Sega zorrozteko erabiltzen den harria. Ik. **sega poto**.

segatu, segatzen

SEGATU

segar, cortar

segatu *dau* ad. Segan egin. *Segatu tuai bear guztiek* 'segatu dituzte belar guztiak'. Ik. **segan egin**; **segaz egin**.

segi
SEGI

2 segikan

seguir, ir detrás; continuar, proseguir
siguiendo, persiguiendo

segi adb. Ik. **segitu**. *Segi orti* 'segi hortik'. *Segi nei* 'segi niri'. **2** adb. Segika. *Atzeti segi* 'atzetik segika'. Ik **segikan**. ◆ **segi!** interj. ◆ **segi aurrera** (> *segi aurrĭá*) (animo). ◆ **segi ibili**. Segika izan. *Orren segi dail* 'horren segika dabil'. Ik. **segikan**.

segi ibili
SEGIKA IZAN

siguiendo, persiguiendo

segi ibili. Segika izan. *Orren segi dail* 'horren segika dabil'. Ik. **segikan**.

segia pikatu
SEGA PIKATU

afilar la guadaña

sega pikatu (> *segĭa pikatu*). Segari mailuka ahoa berdindu. *Segia, pikamailuekin pikatu; segarriekin, zorroztu*.

segida, segidia
SEGIDA

seguimiento, continuación

segida iz. *Segidia eman* 'segida eman'. *Ardi maki orrek ez duka bestien segidaik* 'ardi maki [herren] horrek ez dauka besteen segidarik'.

segidan
SEGIDAN

segituen

detrás, a continuación; enseguida; seguido, -a, ininterrumpidamente

segidan adb. *Obe da segidan itĭa gauzak* 'hobe da segidan egitea gauzak'. Ik. **segituan** (> *segituen*).

segikan
SEGIKA

segi

siguiendo, persiguiendo

segikan adb. Segika. *Oi iri segikan jailek* 'hori hiri segika zabilek'. Ik. **segi**; **segi ibili**.

segitu, segitzen
SEGITU

seguir, ir detrás; continuar, proseguir

segitu **1** *dau/dĭa* ad. Jarraitu. *Atzeti segitu*. **2** *dau* ad. Jarraitu, egoera edo jarrera jakin batean iraun. *An zegitzen dau lanĭen* 'han segitzen du lanean'.

segituen
SEGITUAN

segidan

enseguida, en seguida, inmediatamente
uno tras otro, consecutivamente

segituen **1** adb. Segituan, berehala. *Intazu segituen*. Ik. **segidan**. **2** adb. Errenkadan. *Antuxak, bi o iru segituen* 'dominiskikuak, bi edo hiru segituan'.

segitzaile, segitzailia
SEGITZAILE

seguidor, -a, partidario, -a

segitzaile iz./adj. Segitzen duen pertsona, jarraitzailea.

segun (eta)

ARABERA

según, de acuerdo con

segun adb. *Beh*. (Batez ere, erlatibozko perpaus baten hasieran, zerbait gertatzeko baldintza edo zertzelada markatuz, erabiltzen da). -en arabera. *Segun ze egun iten den* 'segun zer egun [eguraldi] egiten duen [egiten duen egunaren arabera]'. ◆ **segun eta** (> *segun da*). *Beh*. *segun*-en indargarria. *Segun da nola beiratzen dezun* 'segun eta nola begiratzen duzun'.

segundo, segundua

SEGUNDO

segundo

segundo iz. Minutuaren hirurogeirena. *Segundo batĭen aldatzen da dana* 'segundo batean aldatzen da dena'.

seguranzia

SEGURANTZIA

seguridad, fiabilidad, confianza, certeza; garantía

seguranzia iz. Segurantzia, segurantza, ziurtasuna. *Egwaldi onek eztuka seguranziaik* 'eguraldi honek ez dauka segurantziarik'. *Zorra patuko den seguranziaik eztuku* 'zorra pagatuko duen segurantziarik ez daukagu'.

seguratu, seguratzen

SEGURATU, SEGURTATU

asegurar, dar seguridad

seguratu *da/dau* ad. Segurtatu.

seguro, segurua (1)

SEGURU

fijo

seguro, -a
seguro, -a, con seguridad, sin duda

seguro[1] **1** adb. *Eldu'an domekan seguro etorriko dala* 'heldu den domekan seguru etorriko dela'. *Seguro dakizu ola dala?* 'seguru dakizu hola dela?'. Ik. **fijo**. **2** adb. *Jostaiketan dola, ezta batere segurwa arbolazpien gelditzĭa* 'ostosketan dagoela, ez da batere segurua arbola azpian gelditzea'. **3** adj. *Eskilara zarroi ezta batere segurwa* 'eskailera zahar hori ez da batere segurua' ◆ **seguru asko** (> *seguro asko*). *Aginako minandako antibiotikwek emanko dezkizai, seguro asko* 'hagineko minarendako antibiotikoak emango dizkizute, seguru asko'. ◆ **seguru egon** (> *seguro yon*). Zalantzarik ez izan. *Seguro nok bĭa izan dala maldadĭoi in dena* 'seguru nagok bera izan dela maldade [gaiztakeria] hori egin duena'. ◆ **ibili (eduki) seguro**. Ez izan dudarik. *Eztaila agindutakwa beteko? Oi seguro dukak* 'ez dutela agindutakoa beteko? Hori seguru daukak.

seguro, segurua (2)

ASEGURU

seguro (contrato)

seguro[2] iz. Asegurua.

sei

SEI

seis

sei **1** zenbtz. Bost eta bat, 6. *Sei ume izan zituen*. *Seirak fan dĭa etxeti* 'seiak joan dira etxetik'. *Atsaldeko seiek* 'arratsaldeko seiak'. *Gaur sei dukatzi ilak* 'gaur sei dauzka hilak'. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan seigarrena.

seiegun

SEIEHUN

seiscientos, -as

seiegun **1** zenbtz. Seiehun, sei bider ehun, 600. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan seiehungarrena.

seigarren, seigarrena

SEIGARREN

sexto, -a

seigarren ord. Zerrenda batean aurretik bost dituena (6.). *Seigarren mandamentua*. *Seigarren Kutzan aldapa zorrotza do* 'Seigarren Gurutzean [garai bateko gurutze bideko gunea, Urdiainen] aldapa zorrotza dago'.

seiko, seikua

SEIKO

compuesto de seis, grupo/conjunto de seis; seis de la baraja

seiko adj./iz. Joko kartez mintzatuz, sail bereko sei irudi dituena. *Karta jokuen, seiko urrĭa* 'karta jokoan, seiko urrea'.

seina

SEINA

seis cada uno, seis a cada uno

seina banatz. Bakoitzari sei, bakoitzak sei.

seinakan

SEINAKA

de seis en seis, en grupos de seis

seinakan adb. Seinaka, seinako multzoetan.

seinal, seinala

SEINALE

señal, muestra, indicio, signo

seinalatu, seinalatua

SEINALATU

markatu

señalado, -a [referido a una fecha, un día]

seinalatu (era burutua izenondo gisa) *Egun seinalatuek, bereziek*. *Jai seinalatuek*.

seinalatu, seinalatzen

SEINALATU

markatu

señalar, marcar, poner una señal
señalar, mostrar, enseñar

seinalatu **1** *dau* ad. Nabarmentzeko seinale bat ezarri. Ik. **markatu**. **2** *dau* ad. Seinale edo keinu baten bidez adierazi. *Seinalatazu nun dan* 'seinalatu ezazu nun den'.

seinale, seinalia

SEINALE

marka, arrasto

señal, marca, distintivo
señal, muestra, indicio, signo
señal (cantidad o parte de precio que se adelanta en algunos contratos como garantía de su

seinale (eta *seinal*) **1** iz. Ik. **marka**; **arrasto**. **2** iz. Adierazgarria. *Seinale eskolá eztala fan* 'seinale eskolara ez dela joan'. *Ointotá fan da bea listotxo eldu da; ezta seinale ona* 'onddotara joan da baina listotxo [azkartxo] heldu da [dator]; ez da seinale ona'. **3** iz. Ikurra. *Bideberriko seinalĭek*. 4 iz. Diru bermea. *Diru seinalĭa*. *Emango dezut diru seinalĭa aurreti* 'emango dizut diru seinalea aurretik'.

seineko, seinekua

SOINEKO

vestido (de mujer)

sekatu, sekatzen

SIKATU, LEHORTU

idortu, legortu

musti, txirriatu

secar(se), desecar(se)

sekatu **1** *da/dau* ad. Sikatu, lehortu. *Zure galtzok sekatuik de* 'zure galtzerdiok sikaturik daude'. *Guk sekatzen tû trastiek* 'guk sikatzen ditugu janzkiak' (Ond Bak). *Arropĭa sekatzen patu* 'arropa sikatzen paratu'. ▲ Sin. *idortu*, *legortu*. Ik. **ihartu**. ▼ Anton. *musti*, *txirriatu*. **2** *da/dau* ad. Lehortu, idortu, ontzutu. *Lukaikak lukaika-agaien sekatu* 'lukainkak lukainka-hagan sikatu'. Ik. **kuratu**.

seko (2)

SEKO

muerto, -a

completamente, totalmente, del todo

seko[2] **1** adb. Hilda. *Hilda, seko*. *Seko gelditu da hilik*. **2** adb. Erabat, zeharo. *Lo seko*. **3** adb. Lo. ¬

seko, sekua (1)

SIKU, LEHOR, IDOR

idor, legor; ihar

musti; heze

seco, -a

delgado, -a, flaco, -a

seko[1] (eta *xeko*) **1** adj. Lehorra; urik ez duena, bustirik ez dagoena. ▼ Anton. *musti*; *heze*. Ik. **idor**; **legor**. **2** adj. Ibaiez eta kidekoez mintzatuz, urik ez daramana. || *Seko do ibaia* 'siku dago ibaia'. **3** adj. Berezkoa duen hezetasuna edo zukua galdu duena edo kendu zaiona. *Ogi sekwa* 'ogi lehorra'. **4** adj. Landareez eta kidekoez mintzatuz, iharra. *Bĭar sekwa* 'belar lehorra'. *Piper sekwa*. Ik. **ihar**.

◆ **punta ihar** / **punta seko**. Zuhaitzez hitz eginez, adar puntak iharturik dituena. Ik. **galar**.

sekotasun, sekotasuna

LEHORTASUN, SIKUTASUN

sequedad, sequía

sekotasun iz. Lehortasuna, sikutasuna. *Sekotasun aundia do aurten* 'sikutasun handia dago aurten'.

sekretaio, sekretaiua

SEKRETARIO, IDAZKARI

secretario, -a

sekretario (eta *sekretaio*) iz. Idazkaria.

sekretu, sekretua

SEKRETU

secreto

secreto, -a

sekretu **1** iz. *Sekretua eztau ondo gorde* 'sekretua ez du ondo gorde'. **2** adj. *Itz sekretwa ibiltzen zain* 'hitz sekretua ibiltzen zuten'. ◆ **sekretuan** (> *sekretwen*) adb. *Sekretwen gorde* 'sekretuan gorde'. Ik. **ixilien**; **ixilik**.

sekretuen

SEKRETUAN

ixilien, ixilik

en secreto

sekretuan (> *sekretwen*) adb. *Sekretwen gorde* 'sekretuan gorde'. Ik. **ixilien**, **ixilik**.

sekula

SEKULA

nunca, jamás (en frases negativas); alguna vez
siempre (en frases afirmativas)

sekula **1** adb. (Ezezko esaldietan). Inoiz ere ez.
Sekula baindo garbio do urde hói (Ond Bak). || *Sékula ailatzen ez* 'sekula ailegatzen ez'.
◆ **sekula guztian** (> *sekula guztĭen*). Sekula guztien ez'tiat esanko ezere 'sekula guztian ez diot esango ezer ere'.
Sekula yon daiz Franzien? Sekula yon be no Franzien.
Sekula guztien hemen ge gu, eskualdunok.
Sekula guztien e'naiz yon Madrilen.
◆ **sekula ere** (> *sekula're*). (Ezezko esaldietan). Ojala ezpalitz etorriko sekula're.
– sekula ez bekela
◆ **sekula santan** adb. *sekula*-ren indargarria.

sekula santan

SEKULA SANTAN, SANTA SEKULAN

nunca jamás

sekula santan adb. *sekula*-ren indargarria.

sekulako, sekulakua

SEKULAKO

izugarri, bildurgarri, ikeagarri; kriston; terrible

excelente, magnífico, -a, estupendo, -a; de miedo, muy grande, enorme; inaudito, -a
para siempre, por siempre

sekulako **1** adj. Berebizikoa. **2** adb. Betiko, beti-betiko. *Sekulako do inik* 'sekulako dago eginik'. ¬

sekura, sekuria

LEHORTE, IDORTE, SIKATE

legorte (EHHA)

secura, sequía

sekura iz. Lehortea, sikatea. *Sekurĭa dua izugarria* 'lehortea doa izugarria'. Ik. **legorte**.

sellatu, sellatzen

ZIGILATU

sellar

sellatu *dau* ad. Zigilatu; zigiluz markatu, zigilua ezarri.

sello, sellua

ZIGILU

sello; sello postal

sello iz. Zigilua; bidali behar den gutunaren estalkian itsasten den paper zatitxoa, posta-eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duena. *Leno, estankwen saltzen zituain sellwek* 'lehenago, estankoan saltzen zituzten ziguluak'.

seme-alaba

SEME-ALABA

hijos (hijos e hijas)

seme-alaba(k) pl. Semea eta alaba; semeak eta alabak.

seme, semia

SEME

hijo

seme iz. *Semi'au* (Ond Bak). *Bea da seme zarrena* 'bera da seme zaharrena'. *Seme bakarra da.*
◆ **seme-alaba(k)** pl. Semea eta alaba; semeak eta alabak.

semetako SEMETZAKO

hijo adoptivo

semetako iz. Semetako hartzen den gizakumea. *Semetako artu zain* 'semetako hartu zuten'.

seminaio, seminaiua SEMINARIO

seminario conciliar

seminario (> *seminaio*) iz. Apaizgaitegia.

sena (?)

senar-emaztiek SENAR-EMAZTE

andra-gizonak

marido y mujer, esposos, cónyuges

senar-emazte pl. *Senar-emaztĭek*. ▲ Sin. *andra-gizon(ak)*.

senar, senarra SENAR

gizon

marido, esposo

senar iz. Norbaitentzat, harekin ezkondua dagoen gizonezkoa. Ik. **gizon**. ◆ **senar-emazte** pl. *Senar-emaztĭek*. ▲ Sin. *andra-gizon(ak)*.

senargai, senargaia SENARGAI

novio, prometido

senargai (eta *senargei*) iz. *Senargaia leno, nobio guai* (Ond Bak).

senbradora, senbradoria EREITEKO MAKINA

yaiteko makinia

sembradora (máquina para sembrar)

senbradora iz. Ereiteko makina. Ik. **eraiteko makina** (> *yaiteko makinĭa*).

senda, sendia BIDEZIDOR, XENDRA

bide zihar

senda, sendero

senda iz. Bidezidorra, xendra. Ik. **bide zihar**.

sendatu, sendatzen SENDATU

ongitu *gaizkitu*

curar(se), sanar, poner remedio

sendatu *da/dau* ad. *Sendatw'á* 'sendatu da'. *Ezto gaitzoi sendatzeko botikaik* 'ez dago gaitz hori sendatzeko botikarik'. ▲ Sin. *ongitu*. ▼ *gaizkitu*.

sendo, sendua SENDO

indartsu, fuerte *ahul, xingle, erkin, mengal, mirrin*

fuerte, robusto, -a, corpulento, -a, grueso, -a; firme, sólido, -a

sendo* **1** adj. Lodia edo gorputz handikoa delako, indartsua edo irmoa dena. *Arrizko orma sendwek dukatzi errientxĭek* 'harrizko horma sendoak dauzka herriaren etxeak [herriko etxeak]'. **2** adj. Pertsona indartsua, osasuntsua, sasoikoa. *Aita sendwa zalako zukain "sendonak" izengutia* 'aita sendoa zelako zuten "sendorenak" izengoitia'. ▲ Sin. *indartsu, fuerte*. ▼ Anton. *xingle, ahul, erkin, mengal, mirrin*.

sendotu, sendotzen

SENDOTU

indartu

fortalecer(se), robustecer(se)

sendotu *da/dau* ad. Sendo edo sendoago bihurtu. Ik. **indartu**. ¬

senide, senidia

HAURRIDE, ANAI-ARREBA

anai-arreba

hermano, -a

senide iz. Haurridea, anai-arreba. *Zer dĭa «senidĭek» Urdinen?: anai-arrebak* 'Zer dira «senideak» Urdiainen?: anai-arrebak. || Txerri hok senide dia (ahardi izan da ere) (Ond Bak). Ik. **anai-arreba**.

senidetasun, senidetasuna

SENIDETASUN

parentesco; parentela

senidetasun iz. Senideak elkartzen dituen lotura. *Oiek dukai senidetasuna, oiek; alkarrekin ondo konpontzen dĭa* 'horiek daukate senidetasuna, horiek; elkarrekin ondo konpontzen dira'.

sensazio, sensaziua

SENTSAZIO

arrako, inpresio

sensación

sensazio iz. Sentsazioa. Ik. **arrako**; **inpresio**.

sensibilidade, sensibilidadia

SENTSIBILITATE

sensibilidad

sensibilidade iz. Sentsibilitatea.

sentido, sentidua

ZENTZU, SENTIDU

sensatez, prudencia, juicio, facultad de discernimiento
sentido; percepción sensorial (de los sentidos)
sentido, conocimiento
sentido, significado

sentido **1** iz. Sentidua, zentzua; ongia eta gaizkia bereizteko ahalmena; bereziki, zuzen, zuhur edo egoki aritzen denaren, arinkeriarik gabe jarduten duenaren nolakotasuna. *Orrekin gauzonik ez, sentidoĭk eztuka-ta* 'horrekin gauza onik ez, zentzurik ez dauka-eta'. **2** iz. Sentidua, zentzumena; sentipen mota jakin bat hartako den organo baten bidez hartzeko ahalmena. **3** iz. Konortea. *Sentidwa galdu ta lurrĭá fan da* 'konortea galdu eta lurrera joan da'. Ik. **konozimentu**. **4** iz. Esanahia, adiera. *Ze ai za esaten? Esan dezunak eztuka sentidoĭk* 'zer ari zara esaten? Esan duzunak ez du zentzurik'. ◆ **sentido beiko** adj. Zentzugabekoa. *Sentido beĭkwek iten tuai olako umekeiek* 'zentzugabekoek egiten dituzte holako umekeriak'.

sentikor, sentikorra

SENTIKOR

sensible, que siente

sentikor adj. *Mutil sentikorra da*.

sentimental, sentimentala

SENTIMENTAL

sentimental, sensible

sentimental **1** adj. Sentimen samurrek hunkitzen dutena; sentimen samurrak adierazten dituena. **2** adj. Sentimenei, batez ere sentimen samurrei eta maitasunezkoei, dagokiena.

sentimentu, sentimentua

SENTIMENDU

sentimiento; sensibilidad

sentimentu iz. Sentimendua. *Nolako sentimentua duka txakurra il zaiolako* 'nolako sentimendua dauka txakurra hil zaiolako'.

sentitu, sentitzen

SENTITU

sentir, percibir
sentir
sentir pena/dolor
sentir(se)

sentitu **1** *dau* ad. Zerbaiten sentipena izan. *Eztau otzik sentitzen* ez du hotzik sentitzen'. **2** *da/dau* ad. Entzun. *Ezta ezere sentitzen; au ixiltasuna dona* 'ez da ezer ere sentitzen; hau isiltasuna dagoena'. **3** *dau* ad. Damu izan, atsekabe hartu. *Asko sentitu dau esan zĭaina* 'asko sentitu du esan ziotena'. **4** *da* ad. Modu jakin batean izan. *Atzo baindo obeto sentitzen naiz* 'atzo baino hobeto sentitzen naiz'.

senu, senua

GAUEKO HEZETASUN

apar, ihintz

sereno, frescor y humedad de la noche
sereno, humedad de que durante la noche está impregnada la atmósfera
humedad de la noche que se deposita sobre la superficie de la tierra o sobre las plantas

senu iz. Zeru garbiko gauetan giroa hoztearen ondorioz airean gertatzen den hezetasuna; hezetasun horrek lur, landare eta gainazaletan uzten duen bustitasuna. *Ezetasuna auzten dau senuek; lodio izaten dĭa intz tintinak* 'hezetasuna uzten du serenoak; lodiago izaten dira ihintz tantak'. *Senua yonda're, alfafĭa ekarri iten genduen; intzakin, ordĭa, ez* 'serenoa egonda ere, alpapa ekarri egiten genuen; intzarekin, ordea, ez'. Ik. **apar**; **ihintz**. (Alderatu: **sereno**). ◆ **senua bota** *dau* ad. Gaueko hezetasuna isuri. *Egun batzuk badĭatzi senua botzen dela* 'egun batzuk badaramatza serenoa botatzen duela'. ◆ **senua egon** (> *senua yon*). Gaueko edo goizaldeko giroan hezetasuna egon. *Gaur goizĭen senua zon* 'gaur goizean senua zegoen'.

(Zeru garbiko gauetan giroa hoztearen ondorioz airean gertatzen den hezetasuna; gertaera horrek lur, landare eta gainazaletan uzten duen hezetasuna.)

senuz

SENEZ (?)

senuz adb. Dantza, senuz; kanta, senuz (AG) (?)

senzillo, senzillua

XUME, APAL

umil, nolanahiko

sencillo, -a; modesto, -a

senzillo adj. Sentzilloa; xumea, apala. Ik. **umil**; **nolanahiko**.

seña

HELBIDE

direkzio

seña (pl. señas)

seña iz. pl. *señak*. Helbidea. *Nun bizi za? Emantazu señak* 'non bizi zara? Emaidazu señak [helbidea]'. Ik. **direkzio**.

señorita, señoritia

ANDEREÑO

señorita
maestra de escuela
caracol de labio blanco (Cepaea hortensis)

señorita **1** iz. Andereñoa (titulu gisa erabiltzen da). **2** iz. Eskoletako maistra. **3** adj. Pertxenta, pinpirina. ◆ **señorita karakol**. Baratze-barraskiloa (Cepaea hortensis). Ik. **dama-karakol**.

separatu, separatzen

SEPARATU

apartatu, banatu; bakartu — *alkartatu, unitu, bildu*

separar(se); apartar(se); dividir(se)

separatu *da/dau* ad. ▲ Sin. *apartatu*; *banatu*; *bakartu*. ▼ Anton. *alkartatu*, *unitu*; *bildu*. ¬

separazio, separaziua

BEREIZTE, BANATZE. 2 TARTE, BITARTE

separación
intervalo, espacio, hueco, distancia, trecho

separazio 1 iz. Bereiztea; banatzea. 2 iz. Tartea, bitartea.

serbilleta, serbilletia

EZPAINZAPI, AHOZAPI

zajau txiki

servilleta

serbilleta iz. Ezpainzapia, ahozapia. Ik. **zajau txiki**.

serbitu, serbitzen

ZERBITZATU, SERBITU

servir, ser servidor, -a de; estar al servicio de
servir, atender (al cliente)
servir (a la mesa)
servir (ser soldado en activo)

serbitu **1** *dau* ad. Zerbitzatu; norbaiten edo zerbaiten zerbitzuan egon, haren esanak bete. *Bilbaun yon zan serbitzen* 'Bilbon egon zen zerbitzatzen'. **2** *dau* ad. Zerbitzatu; bezeroari hark eskaturikoa eman. *Atsaldĭen, tabernan ibil da serbitzen* 'arratsaldean, tabernan ibili da zerbitzatzen'. **3** *dau* ad. Zerbitzatu; janariez eta edariez mintzatuz, mahaira ekarri edo mahaira atera; (janaria edo edaria) platerean edo edalontzian jarri. *Serbitu ta jan* 'zerbitzatu eta jan'. **4** *dau* ad. Soldadutza egin. *Afrikan serbitu zen soldau* 'Afrikan serbitu zuen soldadu'.

serbitzai, serbitzaia

ZERBITZARI

sirviente, sirvienta, servidor, -a

serbitzai iz. Zerbitzaria. *Gwe izko Anjeles serbitzai ibil zan Bilbaun etxe batĭen* 'gure izeko Anjeles zerbitzari ibili zen Bilbon etxe batean'.

serbitzaile, serbitzailia

ZERBITZARI

sirviente, sirvienta; servidor, -a

serbitzaile **1** iz. Norbaiten edo zerbaiten zerbitzuan dagoen pertsona. **2** iz. Ostatu, taberna edo jatetxe batean bezeroak zerbitzatzen dituen langilea.

serbizio, serbiziua

ZERBITZU

servicio, prestación, favor

serbizio iz. Zerbitzua; funtzioa. *Makinĭorrek serbizio ona ematen dau; serbizio ona iten dwa* 'makina horrek zerbitzu ona ematen du; zerbitzu ona egiten dit'. Ik. **funzio**. ◆ **serbizioa egin** (> *serbiziyua in*) *dau* ad. *Zata xarrok serbizio ona iten dwai gwaindo* 'zata xaharrok zerbitzu ona egiten didate oraindik'.

serenata, serenatia

SERENATA

serenata
matraca, importunación

serenata iz. Gauaz eta toki agerian egiten zen musika-saioa; saio horietarako onduriko musika-lana. ◆ **serenata eman** (> *serenatĭa eman*). Kalaka eman. *A ze serenatĭa eman dwai!* 'a zer serenata eman didate!'.

serenatu, serenatzen

LASAITU, BARETU

lasaitu, soseatu

serenar(se), calmarse

serenatu *da/dau* ad. Ik. **lasaitu**; **soseatu**.

serenidade, serenidadia (?)

SERENITATE

serenidad

serenidade iz. Serenitatea.

sereno || senu

GAUZAIN. 2 GAUEKO HEZETASUN

sereno, vigilante nocturno
sereno, humedad de que durante la noche está impregnada la atmósfera

sereno **1** iz. Gauzaina. *Errien bueltan ibiltzen zan serenwa* 'herrian bueltan ibiltzen zen serenoa'. **2** iz. (Ik. **senu**). Zeru garbiko gauetan giroa hoztearen ondorioz airean gertatzen den hezetasuna; hezetasun horrek lur, landare eta gainazaletan uzten duen bustitasuna. Ik. **apar**; **ihintz**; **senu**.

seriedade, seriedadia

SERIOTASUN

formalidade, fundamentu

seriedad, fundamento

seriedade iz. Seriedade pixkat ber dau. Ik. **formalidade**; **fundamentu**.

serio, seriua

SERIO

serio, -a
serio, -a, de confianza
serio, -a, grave
en serio, serio, con seriedad, seriamente; gravemente

serio **1** adj. *Itxuraz seriua ematen dau, bea beti umore onakin daile* 'itxuraz serioa ematen du, baina beti umore onarekin dabil'. **2** adj. Zentzuzkoa, konfiantzazkoa. *Mutiki seriua ta langilĭa da* 'mutiki serioa eta langilea da'. **3** adj. Larria. *Kontu seriuek urte aietakwek* 'kontu serioak urte haietakoak'. **4** adb. *Serio esaten dau* 'serio esaten du'. *Serio ata dĭa reunioti* 'serio atera dira bileratik'. *Serio asko ibili gindan garai artan* 'serio asko [larri] ibili ginen garai hartan'.

seriotasun, seriotasuna
SERIOTASUN

seriedad, fundamento

seriotasun iz. Serioa denaren nolakotasuna. *Seriotasun pixkatekin ezpadezu artzen eztezu gauzonik inen* 'seriotasun pixka batekin ez badezu hartzen ez duzu gauza onik eginen'.

sermoi, sermoia
SERMOI

predikazio. 2 lotsai; bronka

sermón

sermón, amonestación, reprensión

sermoi (*sermoi*, *sermoia* [Urdiain]; Ald. *sermona*) **1** iz. Predikua. *Apizan sermoia. A ze sermoia bota dau. Sermoi luzĭa predikatu dau.* Ik. **predikazio**. **2** iz. Agiraka, errieta. *Nolako sermona bota dwa!* 'nolako sermoia bota dit'. Ik. **lotsai**; **bronka**. ¬

sermon, sermona
SERMOI

sermón

serreia
ZERRATEGI

serrería, aserradero

serreria (> *serreia*) iz. Zerrategia, zura zerratzeko lantegia. *Zerratokia, tronzan ibiltzen zĭan tokia; serreia aundio da* 'zerratokia, trontzan ibiltzen ziren tokia; serreria [zerrategia] handiago da'. Ik. **zerratoki**.

sesio, sesiua
BILKURA

bazar, junta

sesión, reunión

sesio iz. Bilkura, batzarra. *Ayuntamentuko sesiua* 'aiuntamentuko batzarra'. Ik. **batzar**; **junta**; **reunio**.

siesguna
(ISTINGA LEKU; LOKAZTI)

cenagal, lodazal

siesguna iz. Siratsa, istinga den gunea; lokaztia. Ik. **siets**.

siesta, siestia
SIESTA

siesta

siesta iz. Bazkalondoko loaldia. *Eskerr'eman ni enaizela fan siesta* (Ond Bak). *Siestan do* 'siestan dago'. ◆ **siesta egin** (> *siesta in*). *Egunio iten dau siesta txiki bat* 'egunero egiten du siesta txiki bat'.

siets, sietsa / siats, siatsa
SIRATS, ISTINGA, ZINGIRA

estero, marjal (terreno bajo pantanoso)

siets (eta *siats*) iz. Siratsa, istinga, zingira. *Siets tokia*, *siets lekua*. *Sietsa, sieslekuba* (Iza Alts). ◆ **sietsekoa izan** (> *sietsekwa izan*, *siatsekwa izan*). Lgart. Taberna zalea izan. Ik. **tabernazale**.

sihats, sihatsa
SIRATS, ISTINGA, ZINGIRA

estero, marjal (terreno bajo pantanoso)

sihatseko, sihatsekua / sietseko
TABERNA ZALE

aficionado a las tabernas

sietsekoa izan (> *sietsekwa izan*, *siatsekwa izan*). Lgart. Taberna zalea izan. Ik. **tabernazale**.

sikia
OXALA, SIKIERA*

ojala

ojalá

sikiera* (> *sikĭa*) interj. (Baldintzazko adizkiekin erabiltzen da) Nahia edo itxaropena adierazten duen partikula. *Sikĭa, lertuko balitzake* 'oxala, lehertuko balitz'. Ik. **ojala**.

sikiatra, sikiatria
PSIKIATRA

psiquiatra

sikiatra iz. Psikiatra.

sikiatriko, sikiatrikua
OSPITALE PSIKIATRIKO

psiquiátrico (hospital)

sikiatriko iz. Ospitale psikiatrikoa.

sikologo, sikologua
PSIKOLOGO

psicólogo, -a

sikologo iz. Psikologoa.

sila, silia
AULKI, SILLA

alki

silla

sila (Bustidura gabe) iz. Silla, aulkia. Ik. **alki**. *Silĭa*. *Jarri zaitez silontan* 'jar zaitez silla honetan'. *Sila txikia* 'silla txikia'.

sindikato, sindikatua
SINDIKATU

sindicato

sindikato **1** iz. Sindikatua; kideen interesak babesten dituen elkartea, bereziki langileen interesak babesten dituena. *Langilĭen sindikatwa* 'langileen sindikatua'. || **2** iz. Nekazariendako elkarte-denda, kooperatiba modukoa (LM).

sinestatu, sinestatzen
SINESTATU, SINETSI

creer, dar por cierto
creer en, tener fe en

sinestatu (eta *sinistatu*) **1** *dau/dĭa* ad. Frogatua edo egiaztatua ez den zerbait egiazkotako hartu; norbaitek esaten duena egiatako hartu. *Sinistatuik no egia esan dezula* (Ond Bak). || *Apizak ebeik ez sinestatu ta bestei sinestazi* 'apaizek eurek ez sinestatu eta bestei sinetsarazi'. **2** *dau* ad. (Dagokion osagarriak -n atzizkia hartzen duela). Zerbaitetan edo norbaitengan sinesmena edo fedea izan; zerbaiti sineste eman. *Jangoikwen sinistatzen dau* 'Jainkoa(ga)n sinestatzen du'. [Oharra: Gaur egun, elizaren eraginez-edo, 'sinistu, sinisten' forma zabaldu da].

sinestazi
SINETSARAZI

sinestarazi (> *sinestazi*, *sinestatuazi*) *dau* ad. Sinetsarazi; sinestera behartu. *Apizak ebeik ez sinestatu ta bestei sinestazi* 'apaizek eurek ez sinestatu eta bestei sinetsarazi'.

sinisgarri, sinisgarria
SINESGARRI

creíble, verosímil, fiable

sinisgarri adj. Sinestekoa, sinesteko modukoa. *Eztau ematen sinisgarria dala orrek* 'ez du ematen sinesgarria dela horrek'.

sinismen (?)

sinistatu, sinistatzen

SINESTATU, SINETSI, SINISTU

creer, dar por cierto
creer en, tener fe en

sinistatzaile, sinistatzailia

SINESLE, SINESTUN. 2 SINESKOR

creyente
crédulo, -a

sinestatzaile (> *sinistatzaile*) **1** adj./iz. Sineslea, sinestuna. **2** adj. Sineskorra, erraz sinesten duena, esaten diotena sinesteko joera duena.

sinistu, sinisten

SINISTU

sinestatu

creer

sinistu *dau* ad. Sinetsi. Ik. **sinestatu**. *Ezton erraxa esaten tuenak sinistĭa* 'ez dun erraza esaten dituenak sinestea'.

sinistun (?)

sinpatiko, sinpatikua

SINPATIKO

antipatiko

simpático, -a

sinpatiko adj. Atsegina, maitagarria. ▼ Anton. *antipatiko*.

sinple, sinplia

SINPLE

pelele

simple; tonto, -a; ingenuo, -a; mentecato, -a; abobado, -a
simple, sencillo, -a; llano, -a; no complicado

sinple (eta *xinple*) **1** adj. *Uste dok ain xinple nola-o?* 'uste duk hain sinple nagoela edo?'. Ik. **pelele**. **2** adj. Osagai gutxi dituena; ulertzeko erraza dena. *Oi baindo zerbeit sinplĭo nai dot* 'hori baino zerbait sinpleago nahi dut'.

sinplekeia

SINPLEKERIA

enbusteia

simpleza, tontería

sinplekeria (> *sinplekeia*, *xinplekeia*) iz. *Oiek xinplekeiek!* 'horiek sinplekeriak!'. *Xinplekeietan daitza* 'sinplekeriatan dabiltza'. Ik. **enbusteria** (> *enbusteia*, *inbusteia*).

sinpletasun, sinpletasuna

SINPLETASUN

simplicidad, sencillez

sinpletasun iz. *Gaztĭek dukai beste sinpletasun bat* 'gazteek daukate beste sinpletasun bat'.

sinpletu, sinpletzen

SINPLETU

inuzentatu

volver(se) simple; volver(se) estúpido/atontado/alelado
apasionarse, aficionarse con exceso (por alguien o algo)
loco, -a (por algo; por alguien)

sinpletu (eta *xinpletu*) **1** *da* ad. Sinple bihurtu. Ik. **inuzentatu**. **2** *da* ad. Zerbaitenganako edo norbaitenganako grinaz, txora-txora egin. *Orduen xinpletu zan zaletasun orrekin* 'orduan sinpletu zen zaletasun horrekin'. Ik. **itsutu**. | (Adizlagun gisa). *Raso xinpletwik jen kantalai orrekin* 'arras sinpleturik zauden kantari horekin'.

sinpletuazi

SINPLETU ARAZI

entontecer, poner a alguien tonto

sinpletuazi *dau* ad. Sinpletu arazi. *Sinpletwazi in dai gaixuoi* 'sinpletu arazi egin dute gaixo hori'.

sintetiko, sintetikua

SINTETIKO

sintético, -a

sintetiko adj./iz. *Ezta naturala, sintetikwa da* 'ez da naturala, sintetikoa da'.

sintoma, sintomia

SINTOMA

seinale

síntoma

sintoma iz. Eritasun bat ezagutarazten duen gertakaria.

sinusitis

SINUSITIS

sinusitis

sinusitis iz. Aurpegiko hezur-barrunbeak estaltzen dituen muki mintzaren hantura.

sira, siria

ZIRA

chubasquero, impermeable

sira iz. Zira, arropen gainean jartzen den jantzi irazgaitza.

sirena, sirenia

SIRENA

2 adar

sirena (ninfa marina con busto de mujer y cuerpo de pez)
sirena, bocina

sirena **1** iz. Mitologiako itsas izakia, burua eta gorputz erdia emakumearenak eta sabelaldea eta buztana arrainarenak dituena. **2** iz. Urrutira entzuten den txistu ozena ateratzen duen tresna, itsasontzietan, fabriketan eta beste zenbait lekutan seinale gisa erabiltzen dena; sirena-hotsa. Ik. **adar**. *Sirena otsa aĭtzen da* 'sirena-hotsa aditzen da'.

sirga, sirgia

ZIRGA

sirga

sirga iz. Zirga, altzairuzko hariz egindako soka.

sitisau, sitisaua

ISTANTEAN EGINDAKOA, (ITZULI AZKAR)

instante; visto y no visto
ida y vuelta que se hace en un instante

sitisau iz. Istant batean egindakoa. || Denbora gutxian egindako joan-etorria. ◆ **sitisaua egin** (> *sitisaua in*) *dau* ad. *In du sitisaua kanposantuti* 'egin dugu *sitisaua* [joan-etorri azkarra] kanposantutik'.
{• Joan-etorri azkarra egin. • Egonaldi laburra egin. • Aitaren batean desagertu}.

sits, sitsa

SITS, JANTZI(EN) SITS

polilla

sits **1** iz. Arropien sitsa. Ik. **sitsa egin**. **2** iz. lurreko sitsa / (ala lurreko sahatsa?) (*errosa koloreko korruek sara moduko bat*). ◆ **sitsak jan**. ¬

sitsa in

SISA EGIN

sisar

sitsa egin (> *sitsa in*) *dau* ad. Sisa egin; amaren edo etxeko dirutik hartu. *Orrek sitsa in dau* 'horrek sisa egin du'.

situazio, situaziua

EGOERA

modu

situazio iz.

so

SO (2), ISO

¡so! (usado para hacer que se paren o detengan las caballerías)

so interj. Zaldiei eta beste zama-abereei geldi daitezen esaten zaien hitza. *Astwai, arre ta so* 'astoari, arre eta so'. *So, astwa, so!* 'so, astoa, so!'. Ik. **buo** (> *bwo*); **uo** (> *wo*).

sobra (2)

SOBRA; SOBERA

gahiai

en exceso, de sobra

sobra[2] **1** adb. Sobera, gehiegi. Ik. **gahiai**. ◆ **sobra ere** (> *sobre're*) adb. ◆ **sobran** adb.

sobra, (pl.) sobrak (1)

SOBERAKIN

hondar

sobra, resto; excedente, remanente, sobrante

sobra[1] iz (pl.) Soberakina. Ik. **hondar**. *Atzoko sobrak janko tu gaur* 'atzoko sobrak [atzo sobratutakoak] jango ditugu gaur'.

sobrante, sobrantia

SOBERAKIN

residuo, sobra, resto; excedente, remanente, sobrante
sobrante, excesivo, -a
persona excluida del mayorazgo o de los bienes de la herencia

sobrante **1** adj./iz. Soberakina; zerbaiti dagokiona edo aski duena kendu ondoren gelditzen den gauza. *Baswá yandako jatekwen sobrantĭa izaten zan Basoko Marien ogia* 'basora eramandako jatekoen soberakina izaten zen *Basoko Mariaren ogia*'. **2** iz. Oinordekoa ez dena, maiorazkoa ez dena. *Mayorazgo ez zana, sobrante* 'maiorazkoa ez zena, *sobrante*'. *Sobrante gĭatuko nitzala* '*sobrante* [herentzia gabe] geratuko nintzela'.

sobratu, sobratzen

SOBRATU

gelditu

sobrar

sobratu *da* ad. Soberatu. Ik. **gelditu**.

sobre (1)

SOBRA ERE, ITXURAZ, NONBAIT

nunbait

al parecer, según parece, por lo visto, según dicen

sobre[1] adb. Sobra ere, itxuraz, nonbait. Ik. **nunbait**. *Lehengo fabrikan iten dau sobre lana. Hala're guaikuén irauten dau* (Ond Bak). *Sobre, ezta fan* 'sobra ere, ez da joan'.

sobre (2)

GUTUN AZAL; ZORRO

sobre (de correo); sobre (de sopa, etc.)

sobre[2] **1** iz. Gutun azala, eskutitzei jartzen zaien estalkia. **2** iz. Zorroa. *Zopa sobrĭa*.

sofa, sofia

SOFA

sofá

sofa iz. Jarlekua. *Jarri zaitez sofan* 'jar zaitez sofan'.

soin hezur, soin hezurra (soineko hezur)

SOIN HEZUR, SORBALDA HEZUR; AKROMION

acromion; escápula

soin hezur iz. Soineko hezurra, sorbalda hezurra; akromiona (?). *Soin(eko) ezurra ata* 'soin hezurra atera'.

soin, soina

SOIN

2 soinkada

hombro

carga que se lleva al hombro o en la espalda

soin **1** iz. Sorbalda. *Soina ata*; *soineko hezurra ata*. Ik. **soingain**. **2** iz. Bizkarreko karga. *Buruen ekartzen zan kardu soina, arpildaran*. Ik. **soinkada**. ◆ **soinean** (> *soinĭen*) adb. Sorbalda gainean, bizkarraren gainaldean. *Soinĭen, txalko* 'soinean, zalko'. Artazu aurra soinĭen 'har ezazu haurra soinean'. ◆ **soinean eraman** (> *soinĭen yan*). ◆ **soin hezur** iz. Soineko hezurra, sorbalda hezurra; akromiona (?). *Soin(eko) ezurra ata* 'soin hezurra atera'.

soineko, soinekua

SOINEKO

vestido (de mujer)

soineko (eta *seineko*) iz. Emakumezkoen jantzia, gorputz enbor osoa estaltzen duena. *Soineko berria in dau* 'soineko berria egin du'. ◆ **soineko txamarreta**. *Soineko txamarretĭa* [blusa modukoa].

soingain, soingaina

SOINGAIN

hombro

soingain [(Iza Alts); Urdiain]. iz. Sorbalda [hombro].

soinien

SOINEAN

a hombros

soinean (> *soinĭen*) adb. Sorbalda gainean, bizkarraren gainaldean. *Soinĭen, txalko* 'soinean, zalko'. Artazu aurra soinĭen 'har ezazu haurra soinean'. ◆ **soinean eraman** (> *soinĭen yan*).

soinkada, soinkadia

BIZKARKADA

bizkarkada

carga, cantidad que puede llevarse al hombro

soinkada iz. Soinean (bizkarrean) eraman daitekeen zama-kopurua. *Soin bat egur*. ▲ Sin. *bizkarkada*. Ik. **zanbrada**.

soinkan

SOINKA

acarreando al hombro

soinkan adb. Soinka. Sorbalda gainean, sorbaldan harturik. *Bidĭaindo, soinkan ata dai maiz guztia* 'bideraino, soinka atera dute arto guztia'.

soinu, soinua

(MUSIKA) SOINU

son, sonido, tañido; música

soinu (Bustidura gabe) iz. Musika-tresna baten hotsa, belarriari atsegin zaion hotsa. *Hasi da soinua plazan*. *Bado plazortan soinu bat!* 'badago plaza hortan soinu bat!'. *Soinu ta dantzan* 'soinu eta dantzan'. ◆ **soinu-hotsa** (> *soinu otsa*) iz. Musika hotsa. ◆ **soinu jotzaile** iz. Musika-jotzailea. *Soinu jotzailĭa*.

soka, sokia

SOKA

soga, cuerda, cordel

soka **1** iz. Espartzuzko edo kalamuzko hari multzo bihurritua. Ik. **gursoka**; **bursoka**; **erramal**; **hede**. **2** iz. (Esapideetan). *Soka luzĭa ekarriko dik onek* 'soka luzea ekarriko dik honek'.

sokadantza, sokadantzia

SOKADANTZA

nombre genérico de varios bailes vascos en los que los danzantes forman una hilera cogidos de

sokadantza iz. Dantza mota. *Korrwen, eskuti artuta..., sokadantzĭa* 'korroan, eskutik hartuta..., sokadantza'. *Zortzikwa're sokadantzĭa da* 'zortzikoa ere sokadantza da'.

sokasalto, sokasaltua

SOKASALTO

(juego de la) comba; cuerda de la comba

sokasalto iz. Bakarrik edo taldean egiten den jolasa, soka bati bi muturretatik heldu eta birak emanez saltoka ari denaren oinen azpitik eta buru gainetik pasatzean datzana. ◆ **sokasaltoan** (> *sokasaltwen*).

sokatira, sokatiria

SOKATIRA

apuesta de cuerdas, en la que dos bandos tratan de arrastrarse mutuamente

sokatira iz. Bi talderen artean jokatzen den herri kirola, soka baten alde banatan jarririk, talde bakoitzak bere alderantz tiraka, bestea bere alderdira ekartzean datzana.

sokorritu, sokorritzen

SOKORRITU, SOROTSI

laundu

socorrer, ayudar

sokorritu *dau* ad. Sorotsi; premian edo arriskuan dagoenari lagundu. Ik. **lagundu** (> *laundu*).

soldadore, soldadoria

SOLDATZAILE. 2 SOLDAGAILU

soldador, -a (encargado de soldar)
soldador (instrumento con que se suelda)

soldadore **1** iz. Soldatzailea; soldatze lanetan aritzen den pertsona. *Soldadorĭa?, ona ale!* 'soldatzailea?, ona hale!'. **2** iz. Soldagailua; soldatzeko erabiltzen den tresna. Ik. **soldatzeko makina**.

soldata, soldatia

SOLDATA, PAGA

paga; 2 jornal, sueldo

paga
sueldo, salario

soldata iz. Paga. *Gizajworrek mezi dau, ta eman dĭat soldatĭa* 'gizajo horrek merezi du, eta eman diot soldata [paga]'. *Emango dezut soldata gaixo* 'emango dizut soldata [paga] gehixeago'. Ik. **paga**. || Soldata, lansaria. Ik. **jornal**; **sueldo**.

soldatu, soldatzen

SOLDATU

soldar

soldatu *da/dau* ad. *Burnia soldatu* 'burdina soldatu'. ◆ **soldatzeko makina**. Soldagailua; soldatzeko erabiltzen den tresna. *Soldatzeko makinĭa*.

soldau, soldaua

SOLDADU

gerrero

soldado

soldadu (> *soldau*) iz. Armada bateko kidea; bereziki, maila apaleneko kidea. Ik. **gerrero**. ◆ **soldadu joan** (> *soldau fan*). *Soldau fan da* 'soldadu joan da'.

soldautza

SOLDADUTZA

servicio militar

soldautza iz. Soldadutza. *Ez tau nai izan soldautzaik itĭa* 'ez du nahi izan soldadutzarik egitea'.

solfa, solfia

SOLFEO

solfeo

solfa iz. Solfeoa; musika idazteko eta irakurtzeko sistema. *Guri apizak yakusten zeaun solfĭa* 'guri apaizak erakusten zigun solfa [solfeoa]'. *Solfĭa ikasten naile* 'solfeoa ikasten nabil'.

solibo, solibua

SOLIBA

solivo (madero)

solibo iz. Soliba; haga nagusietan bermatzen den haga txikiagoa, solairuari edo sabaiari eusten diona. Ik. **kuartoi**; **kapio**. [Drae. solivo. Guip. y Nav. Madero de sierra o viga que se usa como poste o sostén].

solimen gorri, solimen gorria

BIHURRI, DEMONIO

solimen gorri adj. (Izenondo gisa). Bihurria, demonioa. *Solimen gorria, mutiki trastwa* 'solimen gorria, mutiki bihurria'. [Suleiman, soliman (?)].

soltero, solterua; soltera, solteria

EZKONGABE

ezkonbeiko

soltero, -a

soltero, -a (Generoa hartzen du: *soltero*, *solterwa*; *soltera*, *solterĭa*) adj. Ezkongabea; ezkondu ez dena, ezkondu gabea. Ik. **ezkonbeiko**; **mutilzahar**; **neskazahar**.

soluzio, soluziua

SOLUZIO

arreglu, konponbide

solución, arreglo

soluzio iz. *Soluzio txarra duka orrek* 'soluzio txarra dauka horrek'. Ik. **arreglu**; **konponbide**.

soluzionatu, soluzionatzen

konpondu, arreglatu

solucionar

soluzionatu *da/dau* ad. Ik. **konpondu**; **arreglatu**.

somanta, somantia

ASTINALDI, JIPOI

paliza, pasada

somanta

somanta iz. Lgart. Astinaldia, jipoia. Ik. **paliza**; **pasada**.

somatu, somatzen

SUMATU

2 susmatu, kalatu

percibir, sentir; darse cuenta, notar
presentir, sospechar, barruntar

somatu **1** *dau* ad. Sumatu, sentipen edo sentimen bat nabaritu. **2** *dau* ad. Susmatu. Ik. **susmatu**; **kalatu**.

sonbela, sonbelia

KAPELA

sombrero

sonbela iz. Kapela. *Sonbelĭa jantzita* 'kapela jantzita'. ◆ **sonbeltxori** (> *sonbeltxoi*) iz. Amilotx mottoduna (Lophophanes cristatus; Parus cristatus).

sonbeltxoi, sonbeltxoia

AMILOTX MOTTODUN

basoilar, kakajale, txapela txoi

herrerillo capuchino (Lophophanes cristatus)

sonbeltxori (> *sonbeltxoi*) iz. Amilotx mottoduna (Lophophanes cristatus; Parus cristatus).

sonda, sondia

ZUNDA

sonda

sonda iz. Zunda. *Sondĭa patu dĭai, surretik sartuta estomagwaindo* 'zunda paratu diote, sudurretik sartuta estomagoraino [urdaileraino]'.

soplete, sopletia

SOPLETE

soplete

soplete iz. Tenperatura gorako garra sortzen duen tresna, tutu formakoa, metalak-eta berotzeko edo urtzeko erabiltzen dena.

sor, sorra

SOR, GOR

sordo, -a
(haciéndose alguien el) sordo

sor **1** adj./iz. Gorra, entzumena galdu duena, entzuten ez duena edo gaizki entzuten duena. *Sorra da jaio zaneti* 'sorra da jaio zenetik'. *Sorra da belarri batetik*. **2** (Adizlagun gisa). Entzungor eginez. *Be bua sor iten dau* 'bere burua sor egiten du'. ◆ **aditu eta sor** (> *aitu ta sor*). Sorrarena egin, entzungor egin. *Esan dena aitu ta sor* 'esan duena aditu eta sor'.

sorbalda, sorbaldia

SORBALDA

hombro
cuarto delantero (mitad de la parte anterior del cuerpo de algunos animales)

sorbalda iz. Besaburua; bizkarraren gainaldea. *Á zé sorbaldiá dekán horrék! (jendiengaiti, animaliengaiti)* (Ond Bak). *Ezkerreko sorbaldan zekan bolinĭa* 'ezkerreko sorbaldan zekarren bolina [saskia]. *Sorbaldĭa ta bizkarra erre duatzi yuzkiek* 'sorbalda eta bizkarra erre dizkit eguzkiak'. *Sorbaldan azkurĭa dukat* 'sorbaldan azkura daukat'.

sorgin haize, sorgin haizia

SORGIN HAIZE

viento arremolinado

sorgin haize [Altsasu, Urdiain, Bakaiku]. Haize zirimola, haize zurrunbiloa.

sorgin-afai, sorgin-afaia

SORGIN-AFARI

cena de medianoche (de amigos o vecinos, que se hacía después de un trabajo colectivo)

sorgin afari (> *sorgin afai*) iz. Gauerdi inguruan egiten den afaria, bereziki, egun berezietan lagunartean egiten dena. *Diote egunĭen iten da sorgin-afaia* 'inaute egunean egiten da sorgin-afaria'.

sorgin-bear, sorgin-bearra

SORGIN BELAR*, TXIKORI BELAR

kardubera

diente de león (Taraxacum officinale)

sorgin belar* (> *sorgin bear*, *sorgin bĭar*) iz. (Bot.) Txikori belarra (Taraxacum officinale). *Pusasi ta aziek faten dĭa bolakan: sorginak, sorginak!, esaten genduen* 'putz egin eta haziak joaten dira hegaka: sorginak, sorginak!, esaten genuen'. Ik. **kardubera**. [zapo pitxilita (?)].

sorgin, sorgina

SORGIN

brujo, -a, adivino, -a; hechicero, -a; [en los relatos infantiles o folclóricos] bruja
mujer malvada
chica traviesa, vivaz, inquieta, revoltosa; rebelde, indomable

sorgin **1** iz. Haur ipuinetan, atso itsusia, ahalmen magikoak dituena. **2** adj. Emakumeez mintzatuz, maltzurra, gaiztoa. **3** adj. Nesaki bihurria. ◆ **sorgin afari** (> *sorgin afai*) iz. Gauerdi inguruan egiten den afaria, bereziki, egun berezietan lagunartean egiten dena. *Diote egunĭen iten da sorgin-afaia* 'inaute egunean egiten da sorgin-afaria'. ◆ **sorgin belar*** (> *sorgin bear*, *sorgin bĭar*) iz. (Bot.) Txikori belarra (Taraxacum officinale). *Pusasi ta aziek faten dĭa bolakan: sorginak, sorginak!, esaten genduen* 'putz egin eta haziak joaten dira hegaka: sorginak, sorginak!, esaten genuen'. Ik. **kardubera**. [zapo pitxilita (?)]. ◆ **sorgin haize** [Altsasu, Urdiain, Bakaiku]. Haize zirimola, haize zurrunbiloa. ¬

sorginkeia

SORGINKERIA

brujería; hechizo, encanto

sorginkeria (> *sorginkeia*) iz.

sorginkuatu, sorginkuatua

SORGIN, BIHURRI

ziztin

rebelde, indomable

sorginkuatu (sorginkoatua) adj. Sorgina, bihurria. *A ze sorginkwatua don oi!* 'a zer *sorginkoatua* dun hori!'.

sorgintxoi, sorgintxoia

TXEPETX; 2 MENDI ERREGETXO

chochín (Troglodytes troglodytes)
reyezuelo (Regulus regulus)

sorgin-txori (> *sorgintxoi*) **1** iz. Txepetxa (Troglodytes troglodytes) EHHA. **2** iz. Erregetxoa (Regulus regulus) EHHA.

sori, soria

ARAKAITZ, KUKU SAGAR, KALITXA

verruga del árbol, repulgo; agalla, lobanillo

sori iz. Arakaitza, kuku sagarra, kalitxa. Arbolei azalean sortzen zaien konkorra; zuhaitz batzuetan intsektuen eraginez hazten den koskor biribila. *Arbolari azalĭen atatzen zaien tuturra da soria* 'arbolei azalean ateratzen zaien konkorra da soria'.

soro, sorua

SORO

campo de cultivo, tierra sembrada

soro iz. Lantzen den lursaila. *Soro zelaia*; *soro malkorra*. Ik. **basasoro**; **belar soro** (> *bear soro*).

sorpresa, sorpresia

SORPRESA

sorpresa

sorpresa iz. Ezustekoa, ustekabea.

sorta, sortia

SORTA

paxo; erramu

manojo, fajo, ramo, ramillete; sarta, ristra; fardo, lío

sorta iz. *Gari sorta bat zan amar gari bal(a)* 'gari sorta bat zen hamar gari bala'. *Egur sortĭa* 'egur sorta'. *Lora sortĭa* 'lore sorta'. *Bear onaĭn sortĭa* 'belar onen sorta'. ▲ Sin. **paxo**. Ik. **erramu**. ◆ **sortakan** adb. *Sortakan bildu* 'sortaka bildu'.

sortakan

SORTAKA

en fajos, en manojos, en haces

sortakan adb. Sortaka, sortatan. *Egurra sortakan ekartzen dau* 'egurra sortaka ekartzen du'.

sortu[1]

SORTU[1]

2 jaio. 4 asmatu, inbentatu

crear; nacer, brotar, surgir, salir; producir(se), ocasionar(se)
crear, fundar
crear, inventar, idear
conseguir

sortu[1] **1** *da/dau* ad. Agertu. *An sortu zan gwe launa* 'han sortu zen gure laguna'. **2** *da* ad. Jaio. Ik. **jaio**. **3** *dau* ad. Fundatu. **4** *dau*. Asmatu. Ik. **asmatu**; **inbentatu**. **5** *dau* ad. Lortu, sortu, atera. *Nundi sortu dezu baston hoi? Nunbaiteti sortu dau motorra.* Sin. *ata*. ◆ **sortu berri**. Ik. **etor berri**.

sortu[2]

SORTU[2], GORTU

ensordecer, quedar sordo, causar sordera

sortu[2] *da/dau* ad. Gortu. *Raso sortwik jon* 'arras sorturik zagon'.

soseatu, soseatzen

SOSEGATU

asentatu (?)

tranquilizar(se), calmar(se), sosegar(se)
asentar(se)

sosegatu (> *soseatu*, *sosiatu*) *da/dau* ad.
– Mahaia maki do, ezta sosiatzen.
– Haur trastuoi ezto sosiatuko denik (?).
– Sosiatu zaitez! (apurotik)
Ik. trankilizatu.

soso, sosua

MOTEL

motel

soso, -a

soso adj. Ik. **motel**.

sostenitu, sostenitzen

SOSTENGATU

autsi

sostener

sostenitu *dau* ad. Sostengatu, eutsi.

sotana, sotania

SOTANA

sotana

sotana iz. Apaizen soineko luzea. *Apizan sotanĭa* 'apaizaren sotana'. *Leno apizak sotanĭa yaten zain* 'lehenago apaizek sotana eramaten zuten'.

sozialista, sozialistia

SOZIALISTA

socialista

sozialista adj./iz.

soziedade, soziedadia

SOZIETATE, ELKARTE

2 elkarte

sociedad
asociación, agrupación, sociedad (deportiva, gastronómica...)

soziedade **1** iz. Gizartea. **2** iz. Legeriaren arabera eratua den elkartea. *Etxĭein soziedadĭa* 'etxeen sozietatea'. | Lagunarte gastronomikoa. Ik. **elkarte**.

sozio, soziua

SOZIO, BAZKIDE

socio, -a; afiliado, -a, asociado, -a

sozio iz. Bazkidea. ◆ **sozio egin** (> *sozĭo in*). *Sozĭo in naiz orrekin* 'sozio egin naiz horrekin'.

su baju, su bajua

SU BAXU, BEHEKO SU

hogar, fuego (de la chimenea)

su baju iz. Su baxua, beheko sua.

su eman

SU EMAN

pegar/prender fuego, quemar; incendiar

su eman.

su hartu

SU HARTU

prender, empezar a arder; incendiarse

su hartu.

su-ezkila, su-ezkilia

SU EZKILA, SU KANPAI

toque de campanas a fuego

su-ezkila. (Batez ere pl.) *su-ezkilak*. Sutea izanez gero, abisu emateko jotzen diren ezkilak.

su, sua

SU

fuego
fogata, fuego; hoguera
incendio, fuego

su **1** iz. Sua iteko (Ond Bak). *Emaniozu sua egurrai* 'emaiozu su egurrari'. | *Su bizia*; *su hila*; *su gozwa* 'su gozoa'; *su aundia* 'su handia'; *su motela*. • Esr. zah. *Sua eta ura, belaunetik gainbehera* [Belauneko neurritik gora, sua eta ura arriskutsuak dira]. • Esr. zah. *Sua, Gaubonetan txapan eta Sanjuanetan plazan*. **2** iz. Su tokia. *Sukaldeko sua*. *lurrĭen indako sua* 'lurrean egindako sua'. **3** iz. Sutea. ◆ **Sanjuan sua**, Sanjuan bezperako sua (LM). ◆ **su baju** iz. Su baxua, beheko sua. ◆ **su baztar**. Supazterra, sutondoa. *Su baztarrĭen jarrita* 'supazterrean jarrita'. ◆ **su eman**. Ibintziai su eman. ◆ **su hartu**. Tximiniek su hartu dau. ◆ **su ondo**. Sutondoa. Su onduen 'sutondoan'. ◆ **su-ezkila**. (Batez ere pl.) *su-ezkilak*. Sutea izanez gero, abisu emateko jotzen diren ezkilak. ◆ **sua egin** (> *sua in*). ◆ **suak hartu** (> *suek artu*). Hartu'au suek 'hartu du suak'. ◆ **suegal** iz. Su baxuaren hegala (LM). *Suegaleako* 'suegalerako' (Iza Alts). ▲ Sin. *subaztar*. {Iz ArOñ, Als. Lado; costado. "*Suegaleako*, para el costado del fuego" (Iza Alts)}. ◆ **suko** adj. *Suko hautsa*. ◆ **sutako hauts** iz. Su hautsa, errautsa. ▲ Sin. *errauts*. Ik. **surtako hauts**; **suko hauts**. ◆ **surtako hauts** [Altsasu, Urdiain] iz. Su hautsa, errautsa. ▲ Sin. *errauts*. Ik. **sutako hauts**; **suko hauts**. ◆ **sutan**. **1** adb. Sutan erre. **2** adb. Haserre bizian. Ik. **sutu**; **koleratu**. ◆ **sutan egon** (> *sutan yon*). **1** Suak harturik, erretzen egon. **2** Haserre bizian egon. *Errabi onekin, sutan no!* 'errabia honekin, sutan nago!'. ◆ **sutan paratu / jarri** (> *sutan patu*) **1** *dau* ad. Sua dagoen lekuan, suaren gainean jarri. *Eltzĭa sutan patu* 'eltzea sutan paratu'. **2** *da* ad. Haserre bizian jarri. *Laioko kristala ausi dĭailako sutan patu da asarratwik* 'leihoko kristala hautsi diotelako sutan paratu da haserreturik'. Ik. **koleratu** (> *koleatu*, *kollatu*). ◆ **sutara** (> *sutá*). ◆ **sutati(k)**. *Atziatzak, atatzak sutati* 'atzera ezak, atera ezak sutatik'.

suabe, suabia

SUABE

2 legun; 3 poliki, geldi, geldi-geldi(a) — *1 fortitz / fortiz*

suave (sabor); lento, moderado
suave (liso y blando al tacto, sin tosquedad ni aspereza)
suavemente

suabe **1** adj. Zapore arina. *Gusto swabĭa duka, góxwa* 'gusto suabea dauka, goxoa'. ▼ Anton. *fortitz* (eta *fortiz*) || *Aize suabĭa* 'haize suabea'. **2** adj. Leuna. *Ile swabĭa duka* 'ile suabea dauka'. Ik. **legun**. **3** adb. Poliki; astiro. *Ibiltazu sutan suabe-suabe* 'ibili [eduki] ezazu sutan suabe-suabe'. Ik. **poliki**; **geldi**; **geldi-geldi(a)**.

suabidade, suabidadia LEUNTASUN
leguntasun
suavidad

suabidade iz. Leuntasuna. Ik. **leguntasun**.

subaju, subajua SU BAXU
hogar, fuego

subandar, subandarra ZUHANDOR
oilan
cornejo (Cornus mas)

subandar iz. (Bot.) Zuhandorra; zuhaixka abartsua, lore-horia, oso zur idorra duena eta jateko on diren fruituak ematen dituena (*Cornus mas*) {(Iza Alts): cornejo}. ▲ Sin. oilan [Urdiain].

subandila, subandilia SUGANDILA
Ond: subilinta
lagartija

subasketa, subasketia / subesketa, SUHASKETA (*)
acción de refinar la fibra de lino

subasketa (eta *subesketa*) iz. *Liho subasketia*. Ald. subesketa JMS (Subesketa, acción de refinar la fibra de lino).
◆ **subasketa fan**. (LM) *Gipuzkua faten zian subasketá: garbiketá, lihua jotzia*... (subasketa = lanak itia).

subasta, subastia ENKANTE
subasta

subasta iz. Enkantea; jendaurreko salmenta mota, gehien eskaintzen duenari salgaia ematen zaiona. *Subastan ata daĭ pinudia* 'enkantean atera dute pinudia'.

subastatu, subastatzen ENKANTEAN ATERA
subastar, sacar a subasta

subastatu *dau* ad. Enkantean atera, jarri, saldu. *Garai batean, orbela subastatu iten zan* 'garai batean, orbela enkantean jartzen zuten'.

subaztar, subaztarra SUPAZTER
suegal
rincón junto al hogar; fuego, hogar

subaztar iz. Supazterra, sutondoa. Ik. **su baju**; **suegal**.

sube bibora, sube biboria SUGE BIBORA, SUGEGORRI
víbora

sube bibora iz. Sugegorria (Fam. Viperidae).

sube-mahats, sube-mahatsa SUGE-BELAR
ilarrondoko
aro (Arum sp.); planta perenne de la familia de las aráceas, con raíz tuberculosa y feculenta

sube-mahats (> *sube matsa*). (Bot.) Suge-belarra (Arum sp.). Ik. **ilarrondoko**.

sube, subia

SUGE

serpiente; culebra

sube Ik. **suge**.

subekuma, subekumia

SUGEKUME

cría de culebra

subekuma iz. Sugekumea, sugearen umea. *Ezton errexa subekumak ikustĭa* 'ez dun erraza sugekumeak ikustea'.

subesketan

ARDAZKETA, IRUTE (?)

ardazketan (?)

hilando (?); cardando lino

subesketan adb. Ardazketan, iruten [?]. Ik. **subetsa**. *Subesketan. Etxez etxe ibiltzen zian subesketan; haria iten, ardazketan.*
*{OEH suhastu (G-azp), subestu (G-nav), sugarastu (Lar → H, Añ). Ref.: Iz LinOñ 178; Iz Als (subetsak). Cortar el lino con una especie de tijeras o guillotina de madera. "Tascar el lino o el cáñamo" Lar. subastu (G-nav ap. A). "Cardar el lino" A. subarastu (G, AN -5vill, L), sugarastu (Lar), sugastu (G). Ref.: A (subarastu, sugastu); Lh (su). "Domar y ablandar el lino seco", "assedar el cáñamo" Lar. "Majar, ablandar el lino" A.}.
{subets (G-nav), sugats (Lar, s.v. "lino"), sugatz, sugarats (Lar). Ref.: Lh (su); Iz LinOñ 178, Als (*subetsak*)}.

subestu

SUHASTU [OEH]

kardatu, txarrantxatu

cardar, tascar (el lino)

subestu *dau* ad. Suhastu, lihoa kardatu (Iza Alts). Ik. **kardatu**; **txarrantxatu**.
*{OEH suhastu (G-azp), subestu (G-nav), sugarastu (Lar → H, Añ). Ref.: Iz LinOñ 178; Iz Als (subetsak). Cortar el lino con una especie de tijeras o guillotina de madera. "Tascar el lino o el cáñamo" Lar. subastu (G-nav ap. A). "Cardar el lino" A. subarastu (G, AN -5vill, L), sugarastu (Lar), sugastu (G). Ref.: A (subarastu, sugastu); Lh (su). "Domar y ablandar el lino seco", "assedar el cáñamo" Lar. "Majar, ablandar el lino" A.}.

subets, subetsa

SUHATS, GARBA

agramadera (instr. para tascar el lino); sedadera (instr. para asedar el lino)

subets iz. Suhatsa; lihoa zehatzeko lanabesa. {(Iza Alts): *subetsak*} Ik. **tranka**. [Urdiain]: *subesketan. Etxez etxe ibiltzen zian subesketan; haria iten, ardazketan.*
*{subets (G-nav), sugats (Lar, s.v. "lino"), sugatz, sugarats (Lar). Ref.: Lh (su); Iz LinOñ 178, Als (*subetsak*)}.

subezar, subezarra

SUGETZAR

serpiente / culebra grande

subezar iz. Adkor. Sugetzarra, suge handia.

subilinta

SUGANDILA

sugandilla

lagartija

subilinta [Bakaiku] iz. Sugandila (Podarcis sp.). Ik. **sugandilla**.

suburni, suburnia

SUBURDINA

sumailu

morillo

suburni iz. Suburdina, egurrari eusteko beheko suan jartzen den burdinazko euskarria. Ik. **sumailu**.

suegal, suegala

SU (BAXU) HEGAL

subaztar

costado del fuego bajo, flanco del hogar

suegal iz. Su baxuaren hegala (LM). *Suegaleako* 'suegalerako' (Iza Alts). ▲ Sin. *subaztar*. {Iz ArOñ, Als. Lado; costado. "*Suegaleako*, para el costado del fuego" (Iza Alts)}.

sueldo, sueldua

LANSARI, SOLDATA. 2 SUELDO (MONETA)

jornal

sueldo, salario
sueldo (moneda)

sueldo **1** iz. Soldata. **2** iz. Garai bateko diru mota. Sueldo bat, 20 madi (Ond Bak).

sueltatu

SOLTATU, LIBRATU

evacuar, excretar, cagar

sueltatu *dau* ad. Soltatu, libratu; hesteetan dagoena hustu; kaka egin. Ik. **kaka egin** (> *kaka in*); **hustu**.

suelto

SOLTE. 2 UGARI

suelto, -a; sin atar, libre
abundante; suficiente
dinero suelto

suelto **1** adj. Solte, besterekin multzoa osatzen ez duena. **2** adb. Solte; askaturik, lokarririk gabe. Ik. **plean-plean**. || *Txakurra suelto daile* 'txakurra solte dabil'. **3** adb. Ugari, nahikoa. *Patatia suelto do* 'patata suelto dago'. **4** adj. Diru xehea. *Diru sueltwa*. ◆ **suelto autzi**. Solte utzi. Ik. **askatu**; **jarain(ik)**.

suerte, suertia

SUERTE, ZORTE

fortuna, zori

suerte

suerte **1** iz. Zoria. Ik. **fortuna**; **zori**. **2** iz. Suerte ona. *Swerte aundia duka* 'suerte handia dauka'. ◆ **suertera bota** (> *suertĭa bota*). Zotz egin, zozkatu. *Soldau nwa fan, suertĭa bota dai* 'soldadu nora joan, suertera bota dute'. ◆ **suertetara bota** (> *suerteta bota*). (Zerbait) zozkatu, zotz egin. *Suerteta bota nor fan* 'suertetara bota [zotz egin] nor joan'. Ik. **suertera bota** (> *suertĭa bota*).

suerteta bota

ZOZKATU, ZOTZ EGIN

zotz

sortear, echar a suertes

suertetara bota (> *suerteta bota*). (Zerbait) zozkatu, zotz egin. *Suerteta bota nor fan* 'suertetara bota [zotz egin] nor joan'. Ik. **suertera bota** (> *suertĭa bota*).

suertia bota

ZOTZ EGIN, ZOZKATU

sortear, echar a suertes

suertera bota (> *suertĭa bota*). Zotz egin, zozkatu. *Soldau nwa fan, suertĭa bota dai* 'soldadu nora joan, suertera bota dute'.

sufrimentu, sufrimentua

SUFRIMENDU

sufrimiento

sufrimentu iz. Sufrimendua, sufritzea. *Oi baindo sufrimentu aundiokoik ezpaluka* 'hori baino sufrimendu handiagokorik ez balu'. Ik. **suplizio**.

sufritu, sufritzen

SUFRITU

sufrir

sufritu *dau* ad. Nekea edo oinazea pairatu edo jasan. *Gorriek sufritu* 'gorriak sufritu'. *Minakin sufritzen do* 'minarekin sufritzen dago'.

sufrituazi

SUFRIARAZI

hacer sufrir, torturar

sufrituazi *dau/dĭa* ad. Sufriarazi, sufritzera behartu. *Orri sufritwazi dĭatziainak!* 'horri sufriarazi dizkiotenak!'.

sufritzaile, sufritzailia

SUFRITZAILE

sufridor, -a

sufritzaile adj. Sufritzen duena.

sugandilla, sugandillia

SUGANDILA

subilinta

lagartija

sugandilla (eta *subandilla*) iz. Sugandila (Podarcis sp.). *Sugandillia bekela, yuzkia artzen* 'sugandila bezala, eguzkia hartzen'. ▲ Sin. *subilinta* [Bakaiku].

sugar, sugarra

SUGAR; 2 SUKAR

2 kalentura, fiebre

llama

fiebre

sugar **1** iz. Suaren garra. **2** iz. Sukarra, gorputzeko tenperaturaren goratzea. Ik. **kalentura**; **fiebre**.

suge, sugia

SUGE

serpiente; culebra

suge (eta *sube*) iz. *Subĭek pikatu iten dau. Subĭek pikatu dĭa* 'sugeak pikatu dio'. ◆ **sube kafi**. Suge habia. ◆ **sube-mahats** (> *sube matsa*). (Bot.) Suge-belarra (Arum sp.). Ik. **ilarrondoko**. ◆ **sube pikada**. Suge hozka, zizta.

sugile, sugilia

SUGILE

sugile adj. Su egiten duena. *Egur sugilĭa, sua iteko ona dana* 'egur suegilea, sua egiteko ona dena'.

sugur, sugurra
SUDUR

nariz

sugur [Altsasu, Bakaiku] iz. Sudurra. Ik. **sur**.

suhi, suhia
SUHI

yerno, hijo político

suhi iz. Alabaren edo semearen senarra.

suizidatu, suizidatzen
SUIZIDATU

suicidarse

suizidatu *da* ad. Ik. **(bere...) burua hil**.

sujetatu, sujetatzen
EUTSI

autsi, fijatu, heldu; lotu

sujetar

sujetatu *da/dau* ad. Eutsi, heldu, oratu; finkatu; lotu. *Ekatzu / ekartazu orkilia, motwa sujetatzeko* 'ekartzazu urkila, mototsa / motoa lotzeko'. Ik. **autsi**; **fijatu**; **heldu**; **lotu**.

sujezio, sujeziua
EUSKARRI

sujeción, unión

sujezio iz. Euskarria. Ik. **lotura**.

sukal entrada, sukal entradia
SUKALDE SARRERA

pasillo de entrada en la cocina

sukal entrada. Sukaldeko sarrera [sukalde sarreran horma baxu batez eraikitako pasabidea, sukaldean kerik ez egiteko (kerik ez sortzeko) eta sukaldea bero mantentzeko balio duena]. *Sukal entradan* (> *sukalentran*).

sukaldai, sukaldaia
SUKALDARI

kozinero, -a

cocinero, -a

sukaldari (> *sukaldai*) iz. Janariak prestatzen dituen pertsona. Ik. **kozinero**, **-a**.

sukalde, sukaldia
SUKALDE

cocina

sukalde iz. Janariak prestatzeko egokitua dagoen etxeko gela. ◆ **sukal entrada**. Sukaldeko sarrera [sukalde sarreran horma baxu batez eraikitako pasabidea, sukaldean kerik ez egiteko (kerik ez sortzeko) eta sukaldea bero mantentzeko balio duena]. *Sukal entradan* (> *sukalentran*). ◆ **sukaldea jaso** (> *sukaldĭa jaso*).

suko hauts, suko hautsa
ERRAUTS

errauts

ceniza

su(r)tako hauts / **suko hauts**. *Surtako hauts* [(Iza Alts), Urdiain (AG)]. ▲ Sin. *errauts*.

sulfatatu, sulfatatzen
SULFATATU

sulfatar; fumigar plantas o terrenos con sulfatos

sulfatatu *dau* ad. Sulfatoz fumigatu.

sulfato, sulfatua

SULFATO

sulfato

sulfato iz. Azido sulfurikoaren gatza.

sulso gorri, sulso gorria

SULTSO GORRI

gibelgorri (?)

rúsula íntegra (Russula integra) (?); ó, oronja (Amanita caesarea)

sultso gorri (> *sulso gorri*). (?) (Ond Bak). [(Russula integra) ala (Amanita caesarea)]. *Txapela goia gorri dukan sulswa* 'txapela goia gorri daukan sultsoa'. ▲ Sin. *gibelgorri* (?); *ama ointo*, *ointo gorringo* (?).

sulso, sulsua

SULTSO

hongo; seta (en general)

sulso iz. Onddoek eta zizek batera osatzen duten kategoria. *Sulswek dĭa danak: zizak eta ointwek; ointwek ez dĭa, ordĭa, zizatan sartzen* 'sulsoak dira denak: zizak eta onddoak; onddoak ez dira, ordea, zizatan [zizen kategorian] sartzen. *Sulso jalĭa da aua* 'sulso jalea [jan zalea] da hura'. [Ikus oharra. OHE]. *Esene-sulswa*. *Ilarre-sulswa*. ◆ **sultso gorri** (> *sulso gorri*). (?) (Ond Bak). [(Russula integra) ala (Amanita caesarea)]. *Txapela goia gorri dukan sulswa* 'txapela goia gorri daukan sultsoa'. ▲ Sin. *gibelgorri* (?); *ama ointo*, *ointo gorringo* (?).

suma, sumia

BATUKETA

suma, adición (operación)

suma iz. Batuketa; batura.

sumailu, sumailua

SUBURDINA, SUTXAKUR

suburni

morillo, caballete de hierro para sustentar la leña en el hogar

sumailu iz. Suburdina; egurrari eusteko beheko suan jartzen den burdinazko euskarria, gehienetan hankaduna izaten dena. Ik. **suburni**.

sumatu, sumatzen

BATU. 2 SUMATU

sumar (Mat.)
percibir, sentir; darse cuenta, notar
presentir, sospechar, barruntar; adivinar

sumatu **1** *dau* ad. Batu; batuketa egin. **2** (eta *somatu*) *dau* ad. Ik. **susmatu**.

sumin, sumina

SUMIN

amorru

furia, cólera, arrebato, exasperación
dolor, escozor, resquemor; irritación; dolor producido por el frío en los dedos, etc.

sumin **1** iz. Amorrua. Ik. **amorru**. **2** iz. Oinaze bizia; erresumina.

sumindu, sumintzen

SUMINDU. 2 ERRESUMINDU

1 mindu, sutu, kollatu

exasperar(se), enfurecer(se), encolerizar(se); resentir(se)
escocer(se), resquemar(se), irritar(se)

sumindu **1** *da/dau* ad. Biziki haserretu. Ik. **mindu**; **sutu**; **kollatu**. **2** *da/zaio* ad. Erremindu, erresumindu. *Ipurdia suminduik. Eskuek sumindwik.* Ik. **erre**. ◆ **sumindurik** (> *sumindwik*) **1** adb. Haserre bizian. **2** adb. *Berniĭa simindwik dukat, asunak pikatuta* 'berna sumindurik daukat, asunak pikatuta'.

suminduik

SUMINDURIK

enfurecido, -a; encolerizado, -a
con escozor, escocido, irritado

sumindurik (> *sumindwik*) **1** adb. Haserre bizian. **2** adb. *Berniĭa simindwik dukat, asunak pikatuta* 'berna sumindurik daukat, asunak pikatuta'.

sunsun, sunsuna

ZUNTZUN, TUNTUN

tuntun [?]

estúpido, -a, necio, -a, tonto, -a, lerdo, -a

sunsun adj. Zuntzuna, tuntuna. *Jende sunsuna* 'jende zuntzuna'. *Sunsuna: sentido beiko gauzak esaten tuena; yozein gauza esaten dena; fundamentu beikua* 'zuntzuna: sentidu gabeko gauzak esaten dituena; edozein gauza esaten duena; fundamentu gabea' (LM). ▲ Sin. *tuntun* [?].

supil, supila

SUBIL

baztarreko

tuero, trashoguero; tronco, leño (que se coloca en el fuego del hogar)

supil iz. Subila, beheko suan erretzen den enborra. ◆ Gabon supila (?). ▲ Sin. *baztarreko*.

suplizio, supliziua

SUPLIZIO

suplicio, sufrimiento

suplizio iz. Sufrimendu handia. *Au supliziua dukatena aurrokin!* 'hau suplizioa daukadana haurrokin!'. Ik. **sufrimentu**.

sur azpi

SUDUR AZPI

espacio situado bajo la nariz

sur azpi. Sudur azpia.

sur haundi

SUDUR HANDI

narigudo, -a; narizotas

sur haundi. Sudur handia; sudur handia duena. Ik. **sur luze**.

sur luze

SUDUR LUZE

narigudo, -a

sur luze. Sudur luzea; sudur luzea duena.

sur motz

SUDUR MOTZ

chato, -a

sur motz (eta *sur motx*). Sudur motza, sudur zapala; sudur motza duena.

sur zulo, sur zulua

SUDUR ZULO

fosa nasal, orificio nasal, ventana de la nariz

sur zulo iz. pl. Sudur zuloa. *Surzuluek itxik* 'sudur zuloak itxirik'.

sur, surra

SUDUR

nariz
morro, hocico, nariz (de los animales)
olfato

sur (eta *sugur* [Altsasu, Bakaiku]) **1** iz. Sudurra. *Surretik odola daiola* 'sudurretik odola dariola'. *Sur punta* 'sudur punta'. *Sur puntĭa, gorri-gorria* 'sudur punta, gorri-gorria'. **2** iz. Animalien sudurra. Ik. **mutur**. **3** iz. Usaimena. *Sur ona duka* 'sudur [usaimen] ona dauka'. ◆ **surra(k) itxirik ibili** [eduki]. Muki pilatzeagatik, sudurrak itxirik eduki. ◆ **sur azpi**. Sudur azpia. ◆ **sur haundi**. Sudur handia; sudur handia duena. Ik. **sur luze**. ◆ **sur luze**. Sudur luzea; sudur luzea duena. ◆ **sur motz** (eta *sur motx*). Sudur motza, sudur zapala; sudur motza duena. ◆ **surra zitatu** *dau* ad. Sudurra zitatu, hatza sudurrean sartu. ◆ **surra(ri) zitakan** (> *surra(i) zitakan*) Sudurrari zitaka. ◆ **sur zulo** iz. pl. Sudur zuloa. *Surzuluek itxik* 'sudur zuloak itxirik'.

surra zitatu

SUDURRA ZITATU; HATZA SUDURREAN SARTU

hurgarse las narices

surra zitatu *dau* ad. Sudurra zitatu, hatza sudurrean sartu. ◆ **surra(ri) zitakan** (> *surra(i) zitakan*) Sudurrari zitaka.

surtako hauts, surtako hautsa

SU(R)TAKO HAUTS

errauts, suko hauts, sutako hauts

ceniza

surtako hauts [Altsasu, Urdiain] iz. Su hautsa, errautsa. ▲ Sin. *errauts*. Ik. **sutako hauts**; **suko hauts**.

susal

SUSARA

en celo (la vaca); toriondo, -a

susal adb. Susara; behiengatik hitz eginez, arreske. *Beia susal do* 'behia susara dago'. ▲ Sin. *susea* [Altsasu].

susara (susal ?)

susea

SUSARA

en celo (la vaca); toriondo, -a

susea [Altsasu] adb. Susara; behiez mintzatuz, arreske. Ik. **susal**.

susmatu, susmatzen

SUSMATU

errezelatu, kalatu

sospechar, recelar; imaginar, presentir, intuir

susmatu *dau* ad. *Susmatu nen zeozer* 'susmatu nuen zer edo zer'. Ik. **errezelatu**; **kalatu**; **somatu**.

susmo, susmua

SUSMO

errezelo; arrasto

sospecha, recelo, desconfianza, mala espina; presentimiento, corazonada

susmo iz. *Susmo txarra*. Ik. **errezelo**; **arrasto**. ◆ **susmoa ibili** [izan, eduki] (> *susmwa ibili*) ad.

suspenditu, suspenditzen

suspender

suspenditu 1 *da/dau* ad. Eten, gelditu; bertan behera utzi. 2 *dau* ad. Ez gainditu. *Examena suspenditu dau*. ▼ Anton. *aprobatu*.

suspertu, suspertzen

SUSPERTU

piztu

recuperar(se), animar(se), vigorizar(se), tonificar(se)

suspertu *da/dau* ad. Moteldurik edo indargabeturik dagoena bizkortu edo indarberritu. *Oilo saldĭa ta oilakiekin suspertzen zan umĭa indako ama* 'oilo salda eta oilakiarekin suspertzen zen umea egindako ama'.

suspiro, suspirua

SUSPIRIO

suspiro; gemido

suspiro iz. Hasperena, intziria. *Suspiro batzuk in tu ta ixildu da* 'suspirio batzuk egin ditu eta isildu da'. *Suspiroketan daile* 'suspirioka dabil'.

suspiroketan

SUSPIRIOKA

suspirando, gimiendo

suspiroketan adb. Suspirioka, hasperen eginez. *Nearrez ta suspiroketan dĭa gau guztĭa* 'negarrez eta suspirioka darama gau guztia'.

sustanzia

SUSTANTZIA

ezpitua (?)

sustancia, esencia, jugo

sustanzia iz. Sustantzia. Sustanzia gutxi duka jatekuonek. Ik. izpitu / ezpitu.

sustatu, sustatzen

SUSTATU (2)

bildurtu, ikatu, izutu

asustar(se)

sustatu *da/dau* ad. Ikaratu, beldurtu. *Sustatu in ber du oi* 'sustatu [ikaratu] egin behar dugu hori'. Ik. **bildurtu**; **ikaratu**; **izutu**.

susto, sustua

SUSTO

ikara, arrako, bildur

susto

susto iz. Ikara, beldurra. Ik. **ikara**; **arrako**; **bildur**. *Susto emataillĭa* 'susto emailea'. ◆ **sustoa eman** (> *sustwa eman*) *dau* ad. *Ilunpĭen nendiyuala, susto aundia eman zwan* 'ilunpean nindoala, susto handia eman zidan'. Ik. **bildurtu**. ◆ **sustoa hartu** (> *sustwa artu*) *dau* ad. *Ikatwik de gwaindo oinazturĭengeti atzo artu zain sustwekin* 'ikaraturik daude oraino oinazturagatik atzo hartu zuten sustoarekin'. Ik. **bildurtu**.

sustokan

SUSTOA(K) EMATEN

asustando, dando sustos

sustokan adb. Sustoak ematen. *Il ber dwak sustokan* 'hil behar didak [nauk] sustoka'.

sustua eman

SUSTOA EMAN

bildurtu

asustar, sobresaltar, dar un susto

sustoa eman (> *sustwa eman*) *dau* ad. *Ilunpĭen nendiyuala, susto aundia eman zwan* 'ilunpean nindoala, susto handia eman zidan'. Ik. **bildurtu**.

sustua hartu

SUSTOA HARTU

bildurtu

asustarse

sustoa hartu (> *sustwa artu*) *dau* ad. *Ikatwik de gwaindo oinazturĭengeti atzo artu zain sustwekin* 'ikaraturik daude oraino oinazturagatik atzo hartu zuten sustoarekin'. Ik. **bildurtu**.

sutai, sutaia

SUTEGI

fragua, forja; herrería

sutai (eta *sutei* [Altsasu]) iz. Sutegia; errementariaren lantegian, landu behar diren burdina edo kidekoak goritzen diren labe irekia, gehienetan hauspoduna; labe hori dagoen lantegia. *Sutaiko auspwa* 'sutegiko hauspoa'. *Sutaien daile lanĭen* 'sutegian dabil lanean'. *Dezteran zorrozten daile sutaien in tuen aizkorak* 'gezteran zorrozten dabil sutegian egin dituen aizkorak'.

sutaila, sutailia

ERREMENTARI, SUTAGILE

errementari; arotz; herrero

herrero, -a

sutaila [Altsasu] iz. Sutagilea, errementaria. Ik. **sutaile**.

sutaile, sutailia

ERREMENTARI, SUTAGILE

errementari; arotz; herrero

herrero, -a

sutaile (eta *sutaila* [Altsasu]) iz. Sutagilea, errementaria; metalak, batez ere burdina, lantzen dituen pertsona. {"*Sutailí*, el herrero; *bi sutaila*" (Iza Alts)}. ▲ Sin. *errementari*, *arotz*, *herrero*.

sutako hauts, sutako hautsa

SUTAKO HAUTS

errauts, suko hauts, surtako hauts

ceniza

sutako hauts iz. Su hautsa, errautsa. ▲ Sin. *errauts*. Ik. **surtako hauts**; **suko hauts**.

sutan patu / jarri

SUTAN PARATU / JARRI

koleatu

poner al fuego

enfadarse, encolerizarse; ponerse de genio; ponerse furioso, -a

sutan paratu / jarri (> *sutan patu*) **1** *dau* ad. Sua dagoen lekuan, suaren gainean jarri. *Eltzĭa sutan patu* 'eltzea sutan paratu'. **2** *da* ad. Haserre bizian jarri. *Laioko kristala ausi dĭailako sutan patu da asarratwik* 'leihoko kristala hautsi diotelako sutan paratu da haserreturik'. Ik. **koleratu** (> *koleatu*, *kollatu*).

sutan yon

SUTAN EGON

quemándose, ardiendo, en llamas
estar enfurecido o furioso, estar hecho una furia

sutan egon (> *sutan yon*). **1** Suak harturik, erretzen egon. **2** Haserre bizian egon. *Errabi onekin, sutan no!* 'errabia honekin, sutan nago!'.

sutei

SUTEGI

fragua, forja; herrería

sutei iz. Sutegia (Iza Alts). Ik. **sutai**.

sutu, sutzen

SUTU

kollatu, sumindu

encolerizar(se), enfurecer(se)

sutu *da/dau* ad. Biziki haserretu, sumindu. *Sutu in naiz, baukat kolla bat!* 'sutu egin naiz; badaukat kolera bat!'. *Gaur sutwik no* 'gaur suturik nago'. Ik. **koleratu** (> *koleatu*, *kollatu*); **sumindu**.

-t(z)aile

-T(Z)AILE (ATZIZKIA)

-t(z)aile, sufijo que sirve para formar el nombre agente de los verbos transitivos

-t(z)aile (atzizkia). Aditzoinei erantsi eta 'egile' adierako izena sortzen du. Adibideak: *aixkiatzaile*, *asmatzaile*, *ibaztaile*, *jotzaile*, *konpontzaile*, *yakustaile*, *yostaile*, *zapaltzaile*, *zorroztaile*...

tabako, tabakua

TABAKO

tabaco (planta)
tabaco (Nicotiana tabacum)

tabako **1** iz. *Batza guztia tabako yain zen* 'baratze guztia tabako erein zuen'. *Lana ematen zen garai batĭen tabakwek* 'lanak ematen zuen garai batean tabakoak'. **2** iz. *Tabakwa erre* 'tabakoa erre'. *Tabako paketĭa* 'tabako paketea'.
◆ tabakua bildu, liatu (?).

tabano, tabanua

EZPARA

tábano (Tabanus sp.)

tabano iz. Ezpara; *tabanidae* familiako intsektua (Tabanus sp.). *Tabanwek gaineti kendube dukatzĭu* 'ezparak gainetik kendu gabe dauzkagu'.

taberna zulo, taberna zulua

TABERNA ZULO

taberna, interior de la taberna (en sent. peyor.)

taberna zulo iz. Taberna (maiz galbiderako lekutzat edo leku zoko edo iluntzat hartua). *Yun guztĭa taberna zulwen eman dau* 'egun guztia taberna zuloan eman du'.

taberna, tabernia

TABERNA

taberna, bar

taberna iz. *Tabernan sartuta ematen du atsaldia* 'tabernan sartuta ematen dugu arratsaldea'. *Errĭá etortzen dĭanĭen, badakiai taberna faten* 'herrira etortzen direnean, tabernara joan ohi dira [*badakiai taberna faten* = suelen ir a la taberna / acostumbran a ir a la taberna]. ◆ **taberna zulo** iz. Taberna (maiz galbiderako lekutzat edo leku zoko edo iluntzat hartua). *Yun guztĭa taberna zulwen eman dau* 'egun guztia taberna zuloan eman du'.

tabernai, tabernaia — TABERNARI

tabernero, -a

tabernari (> *tabernai*) iz. Taberna baten buru edo arduraduna. *Lukin ta Juan tabernaiek zian* 'Lukin eta Juan tabernariak ziren'. *Tabernaiek pazienzia aundia ber dai* 'tabernariak pazientzia handia behar dute'.

tabernazale, tabernazalia — TABERNAZALE

sietseko (Lgart.)

aficionado a las tabernas

tabernazale adj. Tabernan egotea gogoko duena, tabernaz taberna ibiltzen zalea dena. Ik. **sietseko**.

tabla, tablia — TAULA

ohol

tabla; tablón, madero

tabla iz. Taula Ik. **ohol** (> *ol*).

tableta, tabletia — TABLETA

libra

tableta (de chocolate, turrón y otros alimentos)

tableta iz. *Ekatazu tableta bat txokolate*. *Tableta bat txokolate jan dau sentada batĩen*. Ik. **libra**.

tablon, tablona — OHOLTZAR, OHOL ZABAL

tablón

tablon iz. Oholtzarra, ohol handia.

-tai / -tei — -TEGI (ATZIZKIA)

-tegi; sufijo que forma nombres con acepción de lugar

-tegi (> *-tai*, *-tei*, *-dei*, *-dai*) (atzizkia) Lekua adierako izenak sortzen dituen atzizkia. Adibideak: *alondai*, *agoztai*, *artai*, *buztintai*, *erlatai*, *hamarrendai*, *mintai*, *oilatai*, *putzutai*, *sutai*, *txerritei*... Ik. **tegi**.

taju, tajua — LUMA (IDAZLUMAREN METALEZKO XAFLA)

tajo, plumilla (instrumento de metal que sirve para escribir con tinta)

taju iz. *Tajwa*. Idazlumaren metalezko xafla puntaduna, tintaz idazteko erabiltzen dena. Ik. **pluma**.

taka-taka, taka-takia — TAKA-TAKA

andando, caminando
tacatá, andador, utensilio para enseñar a andar

taka-taka **1** adb. Oinez, ibilian. **2** iz. Haurrak pausokan ikasteko tresna. (tiki-takia ?)

takilla, takillia — LEIHATILA; TXARTELDEGI

taquilla, despacho de billetes, ventanilla

takilla iz. Leihatila; txarteldegia. Ik. **laihotila**.

tako, takua — TAKO

taco; tarugo; cuña, calzo
taco (calendario, etc)

tako **1** iz.

takon, takona
TAKOI

tacón

takon iz. Takoia, zapata-orpoa. *Zapatain takona* 'zapaten takoia'.

talaburni
TALO-BURDINA

pala para poner las tortas de maíz al fuego

talaburni [Ziordia, Altsasu, Bakaiku] iz. Talo burdina, taloak erretzeko erabiltzen den burdinazko xafla giderduna. *Talaburni: talua erretzeko garrakin*. *Talaburniyen* (Ond Bak). Ik. **daloburni**.

taladro, taladrua
ZULAGAILU, DARATULU

tarratilu

taladro, taladradora

taladro iz. Zulagailua, daratulua. Ik. **tarratilu**; **birabarki**.

talaga
ATALAGA

tranca de la puerta

talaga [Ziordia] iz. Atalaga; atea irmo ixteko haga, barruko aldetik zeharretara bi euskarritan finkaturik ezartzen dena. Ik. **atalagai** (> *atalai*).

talde, taldia
TALDE

saldo, samalda; kuadrilla; ekipo; alde

grupo; conjunto

talde iz. *Jende talde bat*. Ikus. **alde** (3); **saldo**; **samalda**; **kuadrilla**; **ekipo**.

taldekan
TALDEKA

en grupos, agrupado, -a; por grupos

taldekan adb. Taldeka, taldeetan.

tale-tale
IPURDIKOA EMAN (ARGITU)

azote en las nalgas (voc. infant.)

tale-tale Haur. Ipurdikoa eman. (Argitu).

talentu, talentua
TALENTU

tentu

talento; inteligencia, aptitud, capacidad

talentu iz. Gaitasun berezia; adimena. *Talentu aundikwa* 'talentu handikoa'. ◆ **talentubeiko**. Talentu gabekoa.

talentubeiko, talentubeikua
TALENTU GABEKO

buru arin, *talentudun, talentu haundiko, burutsu*

sin talento, que no tiene talento

talentubeiko adj. Talentu gabea, talentu gabekoa.

talentudun, talentuduna
TALENTUDUN

burutsu *talentubeiko*

talentoso, -a

talentudun adj. Ik. **burutsu**. ▼ Anton. *talentubeiko*.

talko, talkua

TALKO

talco

talko iz. Talko-hautsa.

talla, tallia

1 TAILLA. 2 IZARI, NEURRI. 3 GARAIERA,

3 altuera

talla; escultura (especialmente en madera)
talla; medida de prendas de vestir
talla; estatura o altura de las personas

talla **1** iz. Tailla; egur tailla. **2** iz. Jantzien neurria. **3** iz. Pertsonaren luzera, garaiera. Ik. **altuera**.

tallatu, tallatzen

1 TAILLATU. 2 GARAIERA NEURTU

tallar; dar forma o trabajar un material
tallar, medir la estatura de alguien

tallatu **1** *dau* ad. Taillatu; zura, harria-eta, landu. **2** *dau* ad. Garaiera neurtu. *Soldau fateko tallatzen zituain* 'soldadu joateko tallatzen zituzten'.

taller, tallerra

TAILER, LANTEGI

taller

taller iz. Tailerra, lantegia.

talo, talua

TALO

torta de maíz delgada y de forma circular

talo [Bakaiku] iz. Arto-irinez egindako opila, mehea eta biribila. Ik. **dalo**.

talol

TALO-OHOL

tabla redonda con mango para aplanar las tortas de maíz

talol [Bakaiku] iz. Talo-ohola. *Talwa zabaltzeko ola* 'taloa zabaltzeko ohola'. Ik. **dalo-ohol** (> *dalol*).

talotxatu, talotxatzen

TALOTXATU

fratasar, alisar

talotxatu ad. (Eraik.).

taltalka(n)

DAR-DAR, DARDARAKA

dardardar, daldalkan

temblando

taltalka(n) adb. Dar-dar, dardaraka. {"*Taltalkan doo*, está temblando" (Iza Alts)}. Ik. **daldalkan**; **dardardar**.

taltalkara

DARDARA

dildildade

temblor, tembleque; vibración, trepidación; palpitación

taltalkara iz. Dardara. {"El temblor; *taltalkara batzuk*" (Iza Alts)}. Ik. **dildildade**.

tamaño, tamañua

TAMAINA

naurri

tamaño; proporción, medida

tamaño iz. Tamaina. *Tamaño aundia* 'tamaina handia'. *Okil txikia eliztxoi baten tamañukwa izankwa* 'okil txikia eliz txori [txolarre] baten tamainakoa izango da'. Ik. **naurri**.

tanda, tandia

TXANDA, ALDI. 2 MULTZO, TALDE

tanda, turno
tanda, grupo, conjunto

tanda **1** iz. Txanda, aldia. *Bi tandatan eman tuai bazkaiek* 'bi txandatan eman dituzte bazkariak'. **2** iz. Taldea, multzoa. ◆ **tandakan** adb. Taldeka; txandaka. *Tandakan sartu dĭa esposiziyua ikustĭa* 'txandaka / taldeka sartu dira esposizioa ikustera'.

tanke, tankia

TANKE

depositu

depósito, cisterna
tanque, carro (de combate)

tanke **1** iz. Depositua. *Tankĭa, urez beteĭk*. Ik. **depositu**. **2** iz. *Gerrako tankĭa*.

tankera, tankeria

TANKERA

aspecto, apariencia, facha, porte
estilo, forma, manera; clase, tipo

tankera **1** iz. Itxura. *Tankera txarra*. *Tankera ortako tomateĭk ikusbe nengon* 'tankera horretako tomaterik ikusi gabe nengoen'. **2** iz. Moldea, era. *Aizkorĭekin tankera ortan jota eztezu egur asko txikituko* 'aizkorarekin tankera horretan jota ez duzu egur asko txikituko'. ◆ **tankera hartu** (> *tankerĭa artu*). Zerbaiten itxura hartu. *Tankera txarra artu dĭat* 'tankera txarra hartu diot'.

tanpor, tanporra

DANBOR

tambor
tambor, tamborilero, -a; tamborrero, -a

tanpor **1** iz. *Tanpor otsa* 'danbor hotsa'. Ik. **danbor**; **txuntxun**. **2** iz. Danbor jotzailea.

tanto, tantua

TANTO

tanto (unidad de cuenta en muchos juegos)

tanto iz. Joko eta kirol batzuetako puntua; puntu horiek irudikatzen dituen alea edo gauzakia. *Bost tanto aurrti dua* 'bost tanto aurretik doa'. *Lau tanton aldĭa* 'lau tantoren aldea'.

tapa-tapa

TAPA-TAPA

tipi-tapa

a paso corto y ligero, paso a paso, a pasitos
todo seguido, sin parar, sin titubear

tapa-tapa adb. Pauso nahiko motz eta lasterrez. Ik. **tipa-tapa**.

tapa, tapia

TAPA, ESTALKI

estalzaki

tapa, tapadera
cubierta (de un libro)
contraventana

tapa **1** iz. Ontzi, kutxa eta kidekoak estaltzeko erabiltzen den gaineko zatia. *Atzeatu tapĭá* (Ond Bak). Ik. **estaltzaki** (eta *estalzaki*). || *Kutxĭen tapĭa* 'kutxaren tapa'. *Kajĭen tapĭa* 'kaxaren tapa'. **2** iz. Liburu azala. *Libuen tapĭa* 'liburuaren azala'. **3** iz. Leiho-ohola, kontraleihoa. *Zabaltzazu laio tapak* 'zabal itzazu leiho tapak'.

tapaboka, tapabokia

TAPAUKA

bufanda

bufanda, tapaboca

tapaboka iz. Tapauka; lepokoa (berogarria). Ik. **bufanda**.

tapaki (?)

tapatu, tapatzen

TAPATU

estali

tapar(se), cubrir(se)

tapatu *da/dau*. Estali. *Zulua tapatu*. *Kazulĭa tapatu*. *Mantĭekin tapatu*. *Begiek tapatu*.

tapete, tapetia

MAHAIKO TAPIZ

tazpiz

tapete

tapete iz. Mahaiko tapiza. Ik. **tapiz**.

tapilo, tapilua

KORAPILO

nudo

tapilo iz. Korapiloa. *Begitia iteko bi tapilo in* (Ond Bak). *Iniotzizu begitĭa ta tapilua zapataĭn lokarrieiri, askatu inko zaizkizu-ta bestela* 'egizkiozu begizta eta korapiloa zapaten lokarriei, askatu egingo zaizkizu-eta bestela'.[*Tapilo* motak: *begita*, *erroseta*, *lazo*; *txibita* 2]. ◆ **tapiloa egin** (> *tapilua in*). *Ikas dau tapiluek iten* 'ikasi du korapiloak egiten'. ◆ **tapiloa askatu** (> *tapilua askatu*). *Tapilua askatzĭa zaila izaten da* 'korapiloa askatzea zaila izaten da'.

tapioka, tapiokia

TAPIOKA

tapioca

tapioka iz. Maniokaren sustraietatik ateratzen den gaia, jateko ona.

tapiz, tapiza

TAPIZ

tapiz

tapiz iz. *Kutxa gainĭen patzen zan tapiza* 'kutxa gainean paratzen zen tapiza'. Ik. **tapete**.

tapizatu, tapizatzen

TAPIZATU

tapizar

tapizatu *dau* ad. *Silak tapizatwik dukatziai*. 'sillak [aulkiak] tapizaturik dauzkate'.

tapon, tapona
TAPOI

tapón

tapon iz. Tapoia. *Botellĭen tapona* 'botilaren tapoia'. *Tubwen tapona* 'tutuaren tapoia'. ◆ **tapona paratu** (> *taponĭa patu*). Tapoia paratu, tapoia jarri. Ik. **taponatu**.

taponatu, taponatzen
BUXATU; TAPOIA JARRI

taponar(se)

taponatu *da/dau* ad. Buxatu; tapoia jarri. *Belarriko zulwa taponatwik* 'belarriko zuloa buxaturik'. Ik. **tapona paratu** (> *taponĭa patu*).

-tar
-(T)AR / -DAR (ATZIZKIA)

-tar, sufijo que sirve para formar gentilicios

-(t)ar (atzizkia). Jentilizioak, jatorria adierazten duten izenondoak sortzeko balio du. Adibideak: *altsuar*, *bakaikuar*, *iturmendiar*, *olaztiar*, *undintar*, *ziordiar*...

tar-tar
TAR-TAR-TAR

onomatopeya de una larga charla, conversación, discurso

tar-tar onomat. Etengabeko hizketan aritzearen onomatopeia. Ik. **tartar** (*tartarra*).

tarea / taria
LAN, EGITEKO

lan, iteko

tarea

tarea (eta *tarĭa*) iz. Lana, egitekoa. *Gaurko badukazai tarĭa!* 'gaurko baduzue tarea [lana]!'. Ik. **lan**; **egiteko** (> *iteko*).

tarjeta, tarjetia
TXARTEL

tarjeta

tarjeta iz. Txartela. *Txakurran bakunĭen tarjetĭa* 'txakurraren bakunaren tarjeta [txartela]'.

tarrakan
TATARREZ

tatarrakan, arrastakan

a rastras, arrastrando(se)

tarrakan adb. Arrastaka. Ik. **tatarrakan**; **arrastakan**. *Tarrakan (arrastakan) pasatu zakiten txalak hankia* (Ond Bak).

tarratako, tarratakua
TARRATADA

zarrastako

desgarro, rasgadura, rasgón

tarratako iz. Tarratada. *Tarratakwa in dĭat gonĭai*. ▲ Sin. *zarrastako*.

tarratilu, tarratilua
DARATULU, GINBALET

barrena, taladro

tarratilu iz. Daratulua; zura eta kidekoak zulatzeko erabiltzen den tresna aho-bihurria. *Tarratilubekin egurrei zuluek in* (Ond Bak). Ik. **birabarki** (> *billabarkina*, *biñabirjina*); **txastain**; **taladro**.

tarta, tartia
TARTA

tarta

tarta iz. Pastel handia, gehienetan biribila.

tartamutu, tartamutua

TARTAMUTU, TOTEL

tartamudo, -a

tartamutu adj./iz. Totela.

tartar, tartarra

HITZONTZI

hitzontzi

charlatán, -ana; parlanchín, -ina

tartar adj. Etengabe hizketan aritzen dena. Ik. **hitzontzi**. {OEH. (taltar). "Taltarra, dícese de la persona habladora, desordenada y liante (Idoate)" VocNav.}.

tartarreia

HITZONTZIKERIA

marmarreia

charlatanería, parloteo

tartarreria (> *tartarreia*) iz. Etengabeko hizketaldia. Ik. **marmarreria** (> *marmarreia*). ◆ **tartarrerian** (> *tartarreien*) adb. Hitzontzikerian, berriketan.

tartarreien

BERRIKETAN

charlando

tartarrerian (> *tartarreien*) adb. Hitzontzikerian, berriketan.

tarte, tartia

TARTE

bitarte, distanzia, separazio

intervalo, espacio, hueco, distancia, trecho
intervalo, lapso; pausa, interrupción
resquicio, rendija

tarte **1** iz. Ik. **bitarte**; **distanzia**; **separazio**. **2** iz. (Denborari dagokiola). ◆ **tartean** (> *tartĭen*). ◆ **tarteko** adj.

tarteka(n)

TARTEKA

aldien-aldien; aldien beĭn; noizĭen beĭn

a trechos, por intervalos, de lugar a lugar, con intermisiones
a veces, algunas veces, de vez en cuando, a ratos

tarteka(n) **1** adb. Tarteak utziz, tarteak hartuz. *Batzan, tartekan florĭek patzen tu* 'baratzean, tarteka loreak paratzen ditu'. **2** adb. Aldian behin, noizean behin. *Tarteka-tarteka, zerbeit eskribitzen dau* 'tarteka-tarteka, zerbait eskribitzen du'. Ik. **aldian-aldian** (> *aldien-aldien*); **aldian behin** (> *aldien beĭn*); **noizean behin** (> *noizĭen beĭn*).

tarteko, tartekua

TARTEKO

medio, -a, intermedio, -a, mediano, -a
familiar, pariente

tarteko **1** adj. Bitartekoa. *Ez bat ez bestĭa, emantazu tartekwoi* 'ez bat ez bestea, eman iezadazu tarteko hori'. **2** iz. Ahaidea (LM).

tas-tas

TAS-TAS, JO

pegar, golpear; dar (voc. infant.)

tas-tas Haur. Jo.

-tasun

-TASUN (ATZIZKIA)

-tasun; sufijo para formar nombres abstractos que denotan «cualidad», «propiedad», «atributo»

-tasun (atzizkia). Sortzen dituen izen abstraktuek oinarrian daukaten izenondoari dagokion kualitatea, izaera, nolakotasuna, adierazten dute; kualitate neutroak adierazten ditu. Adibideak: *abeastasun*, *argitasun*, *erraztasun*, *garbitasun*...

tatarrakan

TATARREZ

tarrakan [Bakaiku], arrastakan

arrastrando(se), a rastras; arrastradamente

tatarrakan adb. Tatarrez, arrastaka. ▲ Sin. *tarrakan* (Ond Bak); *arrastakan*. *Tintiniturrĭá gaienak faten dĭa titirrikan, ta baten batzuk atatzen dĭa tatarrakan* 'Tintiniturrira [Tintiniturri elkartera] gehienak joaten dira titirrikan [gurpilak titirrika: autoz], eta baten batzuk ateratzen dira tatarraka [tatarrez, arrastaka]'.

taxi

TAXI

taxi

taxi (eta *taksi*, *tasis*) iz. Bidaiariak garraiatzen dituen automobil gidariduna, eginiko bidearen saria adierazten duen kontagailu bat daramana. *Tasisa artu berra izan dau* 'taxia hartu beharra izan du'.

taxista, taxistia

TAXILARI, TAXISTA

taxista

taxista (eta *tasista*) iz. Taxi gidaria. *Urte asko eman tu taxista* 'urte asko eman ditu taxista'.

taza, tazia

KATILU; KIKARA. 2 KOMUNONTZI

taza (vasija pequeña de loza o de metal y con asa)
en días festivos, momento en que se reparte vino en tazas de plata
taza del retrete

taza **1** iz. Edariak hartzeko erabiltzen den ontzi kirtenduna, toskazkoa edo metalezkoa izan daitekeena; ontzi horren edukia. *Zidarrezko tazĭa* 'zilarrezko kikara'. *Festatan, zidarrezko tazatan banatzen daĭ ardwa* 'festetan, zilarrezko kikaretan banatzen dute ardoa'. **2** iz. Irud. «Taza» garaia: festetako ohitura; herriko festetan, ardoa zilarrezko kikaretan banatzen den garaia. *Taza fan* '*tazara* joan [plazara joan ardoa edatera]'. *Tazĭa artu* '*taza* hartu [plazan ardoa edan]'. **3** iz. Komunontzia. *Reteteko tazĭa* 'komuneko ontzia'.

te, tea

TE; HARKAITZETAKO TE

té de roca (Jasonia glutinosa)
té

te **1** iz. (Bot.) Harkaitzetako tea (Jasonia glutinosa). *Urbasan bildutako tea*. **2** iz. Jatorriz Ekialde Urruneko zuhaixka (Thea sinensis); landare horren hostoak. **3** iz. Te hostoz eginiko egoskina.

teatro, teatrua

TEATRO

teatro
acción fingida y exagerada

teatro iz. *Teatro lana in dai eskolako aurrak* 'teatro lana egin dute eskolako haurrek'. || *Teatrwa iten ibil da dánoĭn aurrĭen* 'teatroa egiten ibili da denon aurrean'

-tegi
-TEGI (ATZIZKIA)

hei [Urdiain], haia [Atsasu]

-tegi; sufijo que forma nombres con acepción de lugar

-tegi (> *-tei*, *-tai*, *-dei*, *-dai*) (atzizkia). Lekua adierako izenak sortzen ditu *-tegi* atzizkiak. Burundako adibideak: *alondai*, *agoztai*, *artai*, *buztintai*, *erlatai*, *hamarrendai*, *mintai*, *oilatai*, *putzutai*, *sutai*, *txerritei*...

tegi, tegia
TEGI

hei [Urdiain], haia [Atsasu]

pocilga

tegi iz. (Ond Bak): *Tegia*: txerriak gordetzeko toki itxi eta estalia. Ik. **hei**.

teila, teilia
TEILA

teja

teila iz. Eraikinak estaltzeko erabiltzen diren buztin errezko piezetako bakoitza. *Gailurreko teilak*. *Tapatako teilĭa* 'tapatarako teila'. *Kanaleko teilĭa* 'kanaleko teila'.

teilaia
TEILERIA

tejar, tejería

teilape, teilapia
TEILAPE

estalpe

techado, sotechado; refugio

teilape iz. Teilaz eginiko aterpea; teilen azpiko bitartea. Ik. **estalpe**.

teilatu hegal, teilatu hegala
TEILATU HEGAL

habazpi

alero (del tejado)

teilatu hegal. Hegatza. Ik. **habazpi**.

teilatu, teilatua
TEILATU

etxegain

tejado

teilatu iz. *Teilatu azpien* 'teilatu azpian'. *Teilatua berritu*. Ik. **etxegain**. ◆ **teilatu hegal**. Hegatza. Ik. **habazpi**.

teilatupe, teilatupia
TEILATUPE

techado, sotechado; refugio

teilatupe iz. Teilatu azpiko bitartea. || Teilaz eginiko aterpea. ◆ **teilatupean** (> *teilatupĭen*) adb. Teilatupeko aterpean.

teilei, teileia
TEILERIA

tejar, tejería

teileria (> *teilei*, *teileia*, *teilaia*) iz. Teilak eta adreiluak egiten diren etxea edo lantegia. *Erriko teileien iten zĭan, aspaldi dala, bertako etxĭeindako teilak* 'herriko teilerian egiten ziren, aspaldi dela, bertako etxeendako teilak'.

teju, tejua
TEJO

dejo; regusto o sabor a algo extraño, diferente de la propia de un alimento; sabor desagradable;

teju iz. Tejoa; gustu gaiztokoa, kirats modukoa.

tekla, teklia

TEKLA

tecla
interj. con la que se advierte a quien en la discusión se repite continuamente

tekla **1** iz. Pianoaren, organoaren eta kideko musika-tresnen pieza. || Idazmakina, ordenagailu eta kidekoetan, ikur bat idazteko hatzez sakatzen den pieza. **2** interj. Eztabaidan-eta, arrazoibidea behin eta berriz errepikatzen duenari ohartarazteko erabiltzen den hitza. *Batek zeozer asko repetitzen denĭen: tekla!* 'batek zeozer asko errepikatzen duenean: *tekla!*'.

tekniko, teknikua

TEKNIKO; 2 TEKNIKARI

técnico, -a (de la técnica)
técnico, -a (persona)

tekniko (eta *teniko*) **1** adj. Teknikari dagokiona; arte edo zientzia bati bereziki dagokiona. *Oi kontu teknikwa da* 'hori kontu teknikoa da'. **2** iz. Teknikaria, teknika edo lanbide jakin bati buruzko ezaguera berezia duen aditua. *Au konpontzeko teknikwai otsaĭn berko dĭazu* 'hau konpontzeko teknikariari hots egin beharko diozu'.

tela, telia

EHUN, TELA

egun, mihisa, oihal. 2 mintza

tela, tejido
tela, telilla, nata
frenillo [de la lengua]

tela **1** iz. Ehuna. *Tela lodia, mehea. Soinekua iteko tela polita yosi dot.* – tela rollua. **2** iz. Esne tela. *Esene-telĭa* 'esne tela'. Telia in zaio eseniai; tela lodia, esene ona. Ik. **esene gaina** / *esenien gaina*. **3** iz. Mihipekoa, mihi haria. *Mien telĭa* 'mihiaren tela'.

telebisio, telebisiua

TELEBISTA

televisión

telebisio iz. Telebista. ◆ telebisioko kadenia. ◆ telebisiuen ata. ◆ telebisiuen bota.

telefoniatu, telefoniatzen

TELEFONATU

telefonoti hotsain

telefonear, llamar por teléfono

telefoniatu 'telefonatu' *dau* ad. ◆ **telefonoti hotsain** 'telefonoz hots egin'.

telefonista, telefonistia

TELEFONISTA

telefonista

telefonista iz. *Leonor izan zan herriko telefonistia* 'Leonor izan zen herriko telefonista'.

telefono, telefonua

TELEFONO

teléfono

telefono iz. *Eztuka telefonoik* 'ez dauka telefonorik'. ◆ **telefonoak jo** (> *telefonuek jo*) *dau* ad. ◆ **telefonotik hots egin** (> *telefonoti otsain / otsein*). ¬

telegrama, telegramia

TELEGRAMA

telegrama

telegrama iz. Telegrafoz igorritako mezua; mezu hori idatzia duen orri berezia. *Aita il zezaienĭen telegrama bat jaso zain pesamĭekin* 'aita hil zitzaienean telegrama bat jaso zuten doluminekin'.

tema, temia
TEMA, SETA

obstinación, terquedad; manía

tema iz. *Be temĭa in gĭo're* 'bere tema egin gero ere'. ◆ **teman hasi**.

temoso, temosua / temosa, témosŭá
TEMOSO, TEMATSU

obstinado, -a, terco, -a, testarudo, -a, tenaz

temoso, -a (Generoa hartzen du: *temoso*, *temoswa*; *temosa*, *temosĭa*) adj. Tematsua. *Ezetz eta ezetz; temoso jarri da*.

tenaza, tenazia
SUHATZ, KURRIKA(K), ORRIKA(K)

tenaza; (pl.) tenacillas para el fuego

tenaza iz. (Singularrean nahiz pluralean). Kurrikak.

tenbleke, tenblekia
DARDARA

dildildade

tembleque; vibración

tenbleke iz. Dardara. Ik. **dildildade**.

tenedore, tenedoria
SARDEXKA

tenedor

tenedore iz. Sardexka. *Maia patzeko, atatazu patĭek, koilarak, tenedorĭek ta kutxilwek* Mahaia paratzeko, atera itzazu platerak, koilarak, sardexkak eta kutxiloak'.

teniente, tenientia
TENIENTE, LOTINANT

teniente

teniente iz. Armadako ofiziala, kapitainaren azpian hurrengoa. *Tenĭente txar bat tokatu zezaigun* 'teniente txar bat tokatu [egokitu] zitzaigun'. *Tenĭente jenerala*. *Tenĭente koronela*.

tenperatura, tenperaturia
TENPERATURA

temperatura

tenperatura iz. Eguratsaren hotz edo bero maila; gorputzaren edo gauza baten berotasun maila. *Be tenperaturĭa ber dau ardi esenĭek ondo kwajatzeko* 'bere tenperatura behar du ardi esneak ondo gatzatzeko'.

tenpestade, tenpestadia
EKAITZ

ekaitz, hodei, tormenta

tormenta; tempestad, temporal; borrasca

tenpestade iz. Ekaitza. Ik. **ekaitz**; **hodei**; **tormenta**.

tenplatu, tenplatzen
EPELDU

epeldu, beratu (> beatu)

templar(se)

tenplatu *da/dau* ad. Epeldu. Ik. **epeldu**; **beratu** (> *beatu*, *bĭatu*).

tenple, tenplia

TENPLE

temple, templado (de metal, instrumento etc)
temperatura
humor, temple; estado de ánimo, disposición

tenple **1** iz. Teknol. *Galtzairuen tenplĭa*, *burnien tenplĭa*; *kutxiluen tenplĭa*. **2** iz. Tenperatura. *Ez otz, ez bero, tenple onĭen do purĭa* 'ez hotz, ez bero, tenple onean dago purea'. **3** iz. Aldartea, pertsonaren gorputzaren edo gogoaren egoera. *Tenple txarra.* ◆ **tenplea eman** (> *tenplĭa eman*). *Sutaien ematen zĭan tenplĭa aizkorairi* 'sutegian ematen zien tenplea aizkorei'. ◆ **tenple txar**. *Tenple txarra dukat* 'tenple txarra daukat'.

tenplo, tenplua

TENPLU

templo

tenplo iz. Tenplua; erlijio zereginetarako edo jainko bati gurtza egiteko bereziki prestaturiko eraikina. Ik. **eliza**. *Ango tenpluek bisitatzen ibil dĭa* 'hango tenpluak bisitatzen ibili dira'.

tenpora(k)

TENPORA(K)

témpora

tenpora iz. pl. *Tenporak*. Eliza katolikoan, urtaro bakoitzaren hasieran barau egiten zen hiru egunak (asteazken, ostiral eta larunbata), zenbait tokitan, eguraldia iragartzeko aintzat hartzen direnak.

tensatu, tensatzen

TENKATU

tensar

tensatu *dau* ad. Tenkatu, tiratuz zurrundu. *Bordatzeko, bastidorĭen tensatzen da oiala* 'brodatzeko, bastidorean tenkatzen da oihala'.

tensio, tensiua

TENTSIO

tensión (arterial), presión arterial
tensión; inquietud, intranquilidad, exaltación

tentsio (> *tensio*) **1** iz. Tentsio arteriala. *Tensiuendako botikĭa artzen dau* 'tentsioarendako botika hartzen du'. **2** iz. Estutasuna, larritasuna.

tenso, tensua

TENKATU(A), ATEZATU(A)

tenso, -a

tenso adj. Tenkatua, atezatua. *Sokĭa tenso do* 'soka tenkatua dago'.

tentagarri, tentagarria

TENTAGARRI

tentalai, zirikagarri; zirikatzaile, zitatzaile,

tentador, -a

tentagarri **1** iz. Tentatzen duen gauza. **2** adj. Tentatzen duen pertsona. *Persona tentagarria, tentatzailĭa dana*. Ik. tentalari; **zirikagarri**; **zirikatzaile**; **tentatzaile**; **zitatzaile**; **zirrikiton**.

tentalai, tentalaia

TENTALARI, TENTATZAILE

tentatzaile, tentagarri, zirikatzaile, zitatzaile

tentador, -a; quien tienta

tentalari (> *tentalai*) adj./iz. Tentatzailea; pertsonengatik esanda, tentatzen duena. Ik. **tentagarri**; **tentatzaile**; **zirikagarri**; **zirikatzaile**, **zitatzaile**.

tentatu, tentatzen

TENTATU

zirikatu, zitatu; adarra jo

tentar (inducir a hacer algo)
aguijar, azuzar; tomar el pelo, fastidiar

tentatu **1** *dau* ad. Norbait zerbait egitera, eta, bereziki, gaitzera edo bekatura, bultzatu. | *Alkate fateko tentatu dĭai* 'alkate joateko tentatu dute' (?). **2** du ad. Zirikatu, ernegarazi; adarra jo. *Ze abil nei tentatzen!* 'zer habil niri tentatzen!'. Ik. **zirikatu**; **zitatu**; **adarra jo**.

tentatzaile, tentatzailia

TENTATZAILE

tentagarri, zitatzaile, tentalai, zirikatzaile

tentador, -a; quien tienta

tentatzaile adj./iz.

tentazio, tentaziua

TENTAZIO

tentación

tentazio iz.

tente

TENTE

zuti

de pie, en pie; tieso, -a, erguido, -a, firme, enhiesto, -a
tieso, -a, erguido, -a, enhiesto, -a
puntal, apoyo

tente **1** adb. Zutik, zuzen. Ik. **zuti**. ◆ **tente-potente** adb. Tente, geldirik. ● Esr. *Tente-potente, txerri(a) buztana tente*. **2** (Izenondo gisa). Tente dagoena. *Tentĭa*, *ttentte*, *ttenttĭa*. *Persona tentĭa, zutia, txutia* 'pertsona tentea, zutia'. Ik. **zuti(a)**. **3** iz. Euskarria, irozgarria. [(Ond Bak): apoyo, pie para sostener y reforzar techos, etc.]. Ik. **puntal**. ◆ **tente egon** (> *tente yon*). Zutik egon. ◆ **tente jarri** / **paratu** (> *tente patu*). Zutik jarri. Ik. **tentetu**; **zuti(k) jarri**.

tente patu, jarri

ZUTITU, TENTE JARRI

tentetu; zuti(k) patu / jarri

poner(se) en pie, levantar(se), poner(se) tieso, poner(se) derecho, erguir(se), poner(se) firmes

tente jarri / **paratu** (> *tente patu*). Zutik jarri. Ik. **tentetu**; **zuti(k) jarri**.

tente yon

TENTE EGON

zutik yon

estar de pie, en pie; estar en posición vertical

tente egon (> *tente yon*). Zutik egon.

tente, tentia

TENTE

zutia

tieso, -a, erguido, -a, enhiesto, -a
puntal, apoyo

tente **1** (Izenondo gisa). Tente dagoena. *Tentĭa*, *ttentte*, *ttenttĭa*. *Persona tentĭa, zutia, txutia* 'pertsona tentea, zutia'. Ik. **zuti(a)**. **2** iz. Euskarria, irozgarria. [(Ond Bak): apoyo, pie para sostener y reforzar techos, etc.]. Ik. **puntal**.

tentetu, tentetzen

TENTETU

poner(se) en pie, levantar(se), poner(se) tieso, poner(se) derecho, erguir(se), poner(se) firmes

tentetu *da/dau* ad. Tente jarri, zutitu. ▲ Sin. *tente jarri/patu*; *zutitu*.

tento, tentua

TENTU. 2 KONORTE

konorte 2 juizio

sentido, conocimiento, consciencia, conciencia
juicio, sentido, razón
prudencia, sensatez

tentu (> *tento*) **1** iz. Kordea, konortea. *Tentua galdu ta seko fan da lurrĭá* 'tentua galdu eta seko joan da lurrera'. Ik. **konorte**. **2** iz. Zuhurtzia; zentzua, sena (?). *Orrek eztuka tentoĭk; tentobeikua!* 'horrek ez dauka tentorik; tentu gabea!'. Ik. **juizio**. || Zuhurtzia, arreta. Tentuekin ibili or, irrixtatu be! 'tentuz ibili hor, irristatu gabe!'. ◆ **tentomotz** / **tentumotz**. ◆ **tentobeiko**. [Adierak zehaztu].

tentobeiko, tentobeikua

tentomotz

tentotsu, tentodun, zogi

tentobeiko (eta tentubeiko) adj.

tentomotz, tentomotza

TENTUMOTZ, ZENTZUGABE

tentobeiko

tentotsu, tentodun, zogi

insensato, -a, necio, -a; imprudente; falto, -a de juicio

tentomotz (eta *tentumotz*) adj. Zentzurik gabe jokatzen duena. ▲ Sin. *tentobeiko*. ▼ Anton. *tentotsu*, *tentodun*; *zogi*.

tentotsu, tentotsua

ZENTZUDUN

tentodun, zogi

tentomotz / tentumotz; tentubeiko,

juicioso, -a, sensato, -a

tentotsu adj. Tentua duena, zentzuduna. Ik. **zogi**. ▲ Sin. *tentodun*. ▼ Anton. *tentomotz / tentumotz*; *tentubeiko*, *talentubeiko*.

tentumotz, tentumotza

TENTUMOTZ

tentubeiko, talentubeiko

tentotsu

teoria

TEORIA

teoría

teoria iz. *Teoria ikasten*. *Teoria ta praktikĭa* 'teoria eta praktika'. *Orrek teoria asko dukatzi* 'horrek teoria asko dauzka'. ◆ **teorian** (> *teorien*) adb. Modu teorikoan. *Ondo funzionatu berko likek, teorien binapin* 'ondo funtzionatu beharko luke, teorian behinik behin'.

tergal, tergala

TERGAL

tergal

tergal iz. Poliesterrezko ehun sintetikoa. *Bentaja aundia duka tergalak, ia ezta batere zimurtzen* 'bentaja [abantaila] handia dauka tergalak, ia ez da batere zimurtzen'. ◆ **tergalezko** adj. Tergalez egina dena. *Tergalezko arropĭa* 'tergalezko arropa'.

terko

BURUGOGOR

bugogor, kaskagogor; kasketoso, -a

terco, -a

terko adj. Egoskorra, setatsua. Ik. **burugogor**; **kaskagogor**; **kasketoso**.

termometro, termometrua

TERMOMETRO

termómetro

termometro iz. Tenperatura neurtzeko tresna. *Patazu termometrwa, ia kalenturaĭk badukazun ikusteko* 'paratazu termometroa, ea kalenturarik baduzun ikusteko'.

terraje, terrajia

ITXURA

etxura, traza

figura, aspecto, apariencia, traza, pinta

terraje iz. Itxura, tankera. Ik. **etxura**; **traza**. ◆ **terraje txar**. Itxura txarra.

terraplen, terraplena

EZPONDA, PENDIZ

gerba

terraplén

terraplen iz. Ezponda, pendiza; aldapan dagoen lurzatia; bereziki, harresi baten behealdean, edo bide edo ubide baten ertzean gertatzen dena, edo lurrak beherantz lerra ez daitezen harriz-edo egiten dena. Ik. **gerba**.

terraza, terrazia

TERRAZA

terraza

terraza iz. Etxebizitza bateko zati estali gabea, baranda edo horma baxu batez hesitua dagoena. *Otxoan terrazĭa* 'Otxoaren terraza'. *Terrazati(k) ura sartzen zaie*.

terreno, terrenua

TERRENO, EREMU

lur; soro

terreno, campo; extensión, superficie, zona

terreno iz. Lurra, lursaila, eremua. *"Horrengaiti jendik soruk autzi ín tú, terrenuk áutzi, larre de danak hor [...]"* (Iza Alts). Ik. **lur**; **soro**.

terrible, terriblia

IKARAGARRI, IZUGARRI, BELDURGARRI

izugarria, ikaragarria

terrible; aterrador, -a; impresionante
enorme, muy grande; desmesurado

terrible **1** adj. Ikaragarria, izugarria, beldurgarria. *Eguna terriblĭa ibil du* 'eguna terriblea ibili [eduki] dugu'. Ik. **izugarri**; **ikaragarri** (> *ikagarri*). **2** adj. Egundokoa; neurririk gabekoa. *Terriblĭa zan jaten*.

tertulia

TERTULIA, LAGUNARTEKO BERRIKETALDI

tertulia

tertulia iz. Berriketan egiteko eta jostatzeko egiten den adiskideen arteko bilera. *Gaxin eltzia bekela: sukaldien hamalau gizon tertulien, ta eltzia azpiti erreik, erditi erdi yosik ta gaineti gordinik* 'Garaziren eltzea bezala: sukaldean hamalau gizon tertulian, eta eltzea azpitik errerik, erditik erdi egosirik eta gainetik gordinik'. *Oiek beti tertulien de* 'horiek beti tertulian daude'.

tesorero, tesorerua / tesorera, tesoreria

DIRUZAIN

depositario

tesorero, -a

tesorero, -a iz. Diruzaina. Ik. **depositario**.

tesoro, tesorua

TESORO, ALTXOR

tesoro

tesoro iz. Altxorra. *Libutan bilatuko tuzu munduko tesoroĭk aundienak* 'liburuetan bilatuko [aurkituko] dituzu munduko tesororik handienak'.

testamentu, testamentua

TESTAMENTU

testamento (declaración que de su última voluntad hace alguien; documento de la voluntad del Testamento, Sagradas Escrituras

testamentu **1** iz. (Zuz.) Norbaiten azken nahiaren adierazpena. **2** iz. (Erl.) Bibliako Ituna. *Testamentu Berriko pasaje batzuk laitu tu apizak* 'Testamentu Berriko pasarte batzuk leitu ditu apaizak'. ◆ **testamentua egin** (> *testamentua in*) *dau* ad. *Testamentua in be il da* 'testamentua egin gabe hil da'.

testamentua in

TESTAMENTUA EGIN

hacer, otorgar testamento

testamentua egin (> *testamentua in*) *dau* ad. *Testamentua in be il da* 'testamentua egin gabe hil da'.

testigo, testigua

TESTIGU, LEKUKO

testigo

testigo iz. Testigua, lekukoa. *An ze pasatu zan, testiguek zukatzien, ordĭá* 'han zer pasatu zen, testiguak zeuzkan, ordea'.

tetano, tetanua

TETANOS

tétanos

tetano iz. Tetanosa; eritasun kutsakorra. *Tetanwa arrapatu ta lokartwik ibil zain ainbeste denbwan* 'tetanosa harrapatu eta lokarturik ibili zuten hainbeste denboran'. *Obe dezu tetanwen kontrako txertua artzĭa* 'hobe duzu tetanosaren kontrako txertoa hartzea'. Ik. **ahoa giltzatu** (> *agwa giltzatu*).

tetxo, tetxua

SABAI

goiko-zoru, zoru (2)

techo, techado, techumbre; [autoarena, bagoiarena] techo

tetxo iz. Sabaia. Ik. **goiko-zoru**; **zoru** (2).

-ti

-TI (ATZIZKIA)

-ti; sufijo derivativo adjetival; denota 'carácter, modo de ser, naturaleza, inclinación'; muchas

-ti (atzizkia) 'Izaera, joera' adiera duten izenondoak sortzen ditu. Burundako adibideak: *bakarti*, *bildurti*, *egiti*, *ezkerti*, *gezurti*, *ikati*, *izuti*, *lotsati*, *nearti*, *uzkarti* (...).

ti-ta

DI-DA

di-da

onomat. en un santiamén, en el acto

ti-ta onomat. Bat-bateko ekintza adierazten duen onomatopeia. Ik. **di-da**; **ri-ra**.

ti-tau

DANBA

onomat. del ruido de disparos; ¡pum!

ti-tau onomat. Tiro baten onomatopeia.

tia
TIRA (1)

benga

¡vamos!, ¡venga!

tira[1] (> *tĭa*) interj. Norbait mugitzera edo zerbait egitera bultzatzeko. *Tĭa, mogitudi!* 'tira, mugitu hadi'. *Tĭa, tĭa, badezu garaia!* 'tira, tira, baduzu garaia!'. *Tĭa emendi oia!* 'tira hemendik ohera!'. ▲ Sin. *benga*.

tia
IZEKO

izko

tía

tia iz. Izeko. Ik. **izko**.

tiaferra, tiaferria
TIRAFERRA

tiradera

tiraferra (> *tĭaferra*) iz. {Tiradera, txinga de forma de herradura}. Ik. **txinga**.

tiagale, tiagalia
TIRAGALE

desperezo, estiramiento

tiragale (eta *tĭagale*) iz. Nagiak ateratzea. Ik. **nagi tiraka(n) egon** (> *nagi tĭakan yon*); **haundiketa**.

tiagalekan
TIRAGALEAK ATERATZEN

nagiketan, nagitiekan; haundiketan

desperezándose

tiragaleka (> *tĭagalekan*) adb. Tiragaleak ateratzen, nagiak ateratzen. Ik. **nagiketan**; **nagitiekan**; **haundiketan**.

tiakan
TIRAKA

tirando, estirando

tiraka(n) (> *tĭakan*) adb. Tiratuz, tira eginez. *Sokiai tiakan* 'sokari tiraka'. ◆ **nagi tiraka(n) egon** (> *nagi tĭakan yon*). Nagiak atera; besoak eta zangoak luzatu eta zabaldu, lo egin ondoren suspertzeko. *Nagiek atatzen yon* 'nagiak ateratzen egon'. Ik. **tiragale**; **haundiketa**.

tiatu, tiatzen
TIRATU

estirar, tirar

disparar, hacer fuego, abrir fuego; tirotear

tiratu (> *tĭatu*) **1** *dau/dĭa* ad. *Tĭatu orti sokĭai* 'tiratu hortik sokari'. *Txumatik tĭatu* 'tximatik tiratu'. Ik. **tira**[2] (> *tĭa*). **2** *dau* ad. (Tiro bat) bota. *Tiro asko tĭatu dai, bea usoik ez* 'tiro asko tiratu dute, baina usorik ez'. **3** *dau* ad. *Sukaldeko tximinik eztau ondo tĭatzen* 'sukaldeko tximiniak ez du onso tiratzen'. ◆ **aurrera tiratu** (> *aurrĭa tĭatu*). Aurrera egin, aurrera jo.

tiatzaile, tiatzailia
TIRATZAILE

tirador, -a, disparador, -a

tiratzaile (> *tĭatzaile*) iz. Tiro egilea; su armak erabiltzen dituen pertsona. *Tĭatzaile ona, tĭatzaile txarra* 'tiratzaile ona, tiratzaile txarra'. Ik. **punteria** (> *punteia*; *apunteia*).

tiesto, tiestua
LOREONTZI

mazeta

tiesto, maceta

tiesto iz. Loreontzia. ▲ Sin. *mazeta*. Ik. **jardinera**.

tigre, tigria

TIGRE

tigre (Panthera tigris)

tigre iz. (Panthera (tigris) sp.).

tiki-taka

TIKI-TAKA

paso a paso

tiki-taka **1** onomat. Pausoz pauso ibiltzearen onomatopeia. **2** iz. Tiki-takia (?). Haurrak pausokan ikastekua. Ik. **taka-taka**.

tikili-takala

KILI-KOLO

oscilante, vacilante, tambaleándose; suelto, -a, a punto de caer

tikili-takala adb. Kili-kolo; koloka. *Tikili-takala dukat ortza* 'tikili-takala daukat hortza'. ◆ **tikili-takala ibili**. *Tikili-takala daile aituna* 'tikili-takala dabil aitona'.

til-til-til

TAPA-TAPA

a paso corto y ligero, paso a paso, a pasitos

til-til-til adb. Tapa-tapa; pauso aski labur eta lasterrez. *Or fan da txakurra, til-til-til* 'hor joan da txakurra, til-til-til'.

tila arbola

EZKI

tilo

tila arbola (EHHA). (Bot.) Ezkia (Tilia). Ik. **ezki**.

tila, tilia

EZKI LORE, EZKI

tila, flor del tilo
tila (infusión)
tilo

tila **1** iz. Ezki lorea, ezkiaren lorea. **2** iz. Ezki lorearekin prestatutako egoskin lasaigarria. ◆ **tila arbola** (EHHA). (Bot.) Ezkia (Tilia). Ik. **ezki**.

tilin-talan

TILIN-TALAN; DILINDAN

bamboleando(se), balanceándose

tilin-talan **1** onomat. **2** adb. Dilindan; zintzilik egonda, balantzaka, zabuka, kulunka egin. ◆ **tilin-talan eraman** (*tilin-talan yan*). Biren artean, esku edo eskutoki banatik hartuta, haur bat, poltsa bat, bolina bat... balantzaka eraman.

tinbre, tinbria

TXIRRIN, TINBRE

txirrin

timbre, sonador, llamador

tinbre iz. Txirrina. *Tinbrĭa jo daĭ* 'tinbrea jo dute'. *Tinbre otsa aitwot* 'tinbre hotsa aditu dut'. Ik. **txirrin**.

tinta, tintia

TINTA

tinta (para escribir, dibujar, imprimir...)
tinta (de los cefalópodos)

tinta **1** iz. Idazteko, marrazkiak egiteko edo inprimatzeko erabiltzen den isurkari koloreduna. *Eskribitzeko tintĭa* 'eskribitzeko tinta'. **2** iz. Zefalopodoek jariatzen duten isurkari iluna. *Txipironaĭn tintĭa* 'txipiroien tinta'.

tintatu, tintatzen

TINDATU

teñir, tintar

tintatu *dau* ad. Tindatu. *Txumĭa errosa kolorez tintatu dau* 'txima [ilea] arrosa kolorez tindatu du'.

tinte, tintia

TINDU, KOLOREGAI

tintura

tinte, tintura
tanino

tinte **1** iz. Tindua; tindatzeko erabiltzen den koloregaia. *Tintĭa, arropia tintatzekwa, txumĭa tintatzekwa* 'tindua, arropa tindatzekoa, ilea tindatzekoa'. Ik. **tintura**. **2** iz. Taninoa; zenbait landare-ehunetan aurkitzen den gaia. *Araitzan tintĭa, intxorran tintia* 'haritzaren taninoa, intxaurraren taninoa'.

tintero, tinterua

TINTONTZI

tintero (recipiente)

tintero iz. Tintontzia. *Plumĭa ta tinterwa* 'luma eta tintontzia'.

tintilika(n)

ZINTZILIKA

tintilika(n) adb. Zintzilika, zintzilik. Ik. **txintxilikan**.

tintin, tintina

TANTA

gota
un poco (de)
goteo

tintin **1** iz. Tanta. **2** iz. Isurkari kopuru txikia, pixka. *Tintin bat, pixkat* 'tanta bat, pixka bat'. *Emantazu olio tintin bat* 'emadazu olio tanta bat [pixka bat]'. **3** iz. Jarioa, tanta jarioa. *Tubo junta onek tintina duka* 'tutu juntura honek tanta [jarioa] dauka'. Ik. **negar**. ◆ **ur tintin**. Ur tanta. ◆ **yauri tintin**. Euri tanta. ◆ **negar tintin** [Altsasu]. Negar malkoa. ▲ Sin. *begitako near*.

tintinkan

TANTAKA

goteando, gota a gota

tintinkan adb. Tantaka, tantaz tanta. *Tintinkan-tintinkan, bete da itajun(a) azpien patutako pozala* 'tantaka-tantaka, bete da itaxur azpian paratutako bozala'. Ik. **tintinketan**.

tintinketan

TANTAKA

goteando, chispeando

tintinketan adb. Tantaka; euri tantaka. *Tintinketan jailen; paragosa artu ber dinat* 'tantaka zabilen; aterkia hartu behar dinat'. Ik. **tintinkan**.

tintirri, tintirria

DINDIRRI

moquita

tintirri iz. Dindirria, sudurrari darion muki ura. ◆ **tintirria dariola** (> *tintirria daiola*) adb. Dindirria dariola. *Goizeko otzakin, surreti tintirria daiola* 'goizeko hotzarekin, sudurretik dindirria dariola'.

tintirria daiola

DINDIRRIA DARIOLA

moqueando

tintirria dariola (> *tintirria daiola*) adb. Dindirria dariola. *Goizeko otzakin, surreti tintirria daiola* 'goizeko hotzarekin, sudurretik dindirria dariola'.

tintura, tinturia

TINDU

tinte

tintura, tinte

tintura iz. Tindua, tindatzeko erabiltzen den koloregaia. Ik. **tinte**.

tio

OSABA

osaba

tío

tio iz. Osaba. *Leno «osaba» esaten zan; gwai, gazte jendiek, «tio»* 'lehenago «*osaba*» esaten zen; orain, gazte jendeak, «tio»'. Ik. **osaba**; **izko**.

tipi-tapa

TIPI-TAPA

tapa-tapa

a paso corto y ligero, paso a paso, a pasitos
todo seguido, sin parar, sin titubear

tipi-tapa adb. Pauso nahiko motz eta lasterrez. Ik. **tapa-tapa**.

tipo, tipua

TIPO

jenero, klase; 2 itxura

tipo, clase, índole
tipo, talle, figura (porte de una persona)
individuo, -a, elemento, -a, persona

tipo **1** iz. Mota, klasea. *Ze jende tipo da oi?* 'zer jende tipo da hori?'. *Ze tipotakwa duka eskutokia?* 'zer tipotakoa dauka eskutokia?'. **2** iz. Itxura. *—Oi tipwa dukana! —Bai, tipo zelebrĭa duka* '—Hori tipoa daukana! —Bai, tipo zelebrea dauka'. Ik. **itxura**. **3** iz. Morroia, pertsona. *Tipo jatorra da*. *Beste bi tipokin agertu zan* 'beste bi tiporekin agertu zen'.

tipula

TIPULA

cebolla (Allium cepa)

tipula [Iturmendi, Bakaiku] iz. (Bot.) Baratze landarea (Allium cepa), eta landare horren erraboila. • Esr. zah. *Tipula jana, tristura*. Ik. **kipula** [Urdiain].

tira / tiatu

TIRA (2), TIRATU

tirar

tira[2] (eta *tĭa*) ◆ **tira egin**. Tiratu. *Tĭaiok orti!* 'tira egiok hortik!'. Ik. **tiratu** (> *tĭatu*).

tirabide, tirabidia

TIRAMEN, (TIRO) HELMEN

alcance (de un arma); distancia de tiro; a tiro

tirabide iz. Tiramena, arma baten helmena edo irispidea; tiroa heltzen den punturainoko bitartea. *Tirabide luzĭa* 'tiramen luzea'. *Erbia tirabidĭá ata* 'erbia tirabidera atera'. ◆ **tirabidean egon** (> *tirabidĭen yon*). Arma baten tiramenean egon, tiroaren distantzian egon. *Uso bandadĭoi ezto tirabidĭen* 'uso aldra hori ez dago tiramenean'.

tirafondo, tirafondua

TIRAFONDO

tirafondo

tirafondo iz. *Neurriko tirafondwa sartu ber da* 'neurriko tirafondoa sartu behar da'.

tiragoma, tiragomia

TIRAGOMA

tiragomas, tirachinas

tiragoma iz. *Tubularrain gomĭekin indako tiragomĭa ibiltzen genduen* 'tubularren gomarekin egindako tiragoma ibiltzen genuen'.

tirakazo, tirakazua

TIRALDI, TIRAKADA

tirón

tirakazo (> *tĭakazo*) iz. *Belarriti bi tĭakazo eman dĭatzi* 'belarritik bi tiraldi eman dizkio'.

tirante, tirantia; tirantiek

TIRANTE, GALTZA-UHAL

tirantes (que sostienen de los hombros el pantalón u otras prendas de vestir)

tirante iz. (Batez ere pl.) *tirantĭek*. Galtzei eusteko, besagainetatik pasatzen diren bi zerrenda pintzadunen multzoa; soineko, elastiko, bularretako edo kideko bati sorbaldetatik eusteko oihalezko zerrenda.

tirizia

IKTERIZIA, MIN HORI, LARUMIN

ictericia

tirizia iz. Ikterizia; larruazalak eta begiek kolore horia hartzea, gibela ondo ez aritzearen ondorio dena. *Gibeleko gaitzak ematen dau tirizia* 'gibeleko gaitzak ematen du ikterizia'.

tiro, tirua

TIRO

tiro; disparo
tiro (de chimenea)

tiro **1** iz. Su arma batek jaurtigaia aurtikitzea; aurtikitze horretan gertatzen den danbada. *Eskupeta tirwa* 'eskopeta tiroa'. **2** iz. Tximiniaren tiroa. *Tiro txarra duka tximini onek* 'tiro txarra dauka tximinia honek'. ◆ **tiroa bota** (> *tirwa bota*). *Bi tiro bota zĭatzien eperraĭ, bea aurrĭá!* 'bi tiro bota zizkion eperrari [galeperrari], baina aurrera!'. ◆ **tiro hots**. *Tiro otsak aĭtzen dĭa eiztaien postutan* 'tiro hotsak aditzen dira ehiztarien postuetan'. ◆ **tiroa jo / eman** (> *tirwa jo / eman*).

tirokan

TIROKA

disparando, a tiros

tirokan adb. Tiroka; tiroak jaurtiz, tiro eginez, tiro egiten.

tirri-tarra

TIRRIKI-TARRAKA. 2 ZIRRI-ZARRA

zirri-zarra

despacio, lentamente, arrastrándose
de cualquier manera; a troche y moche

tirri-tarra **1** onomat. Nekez mugitzearen onomatopeia. Ik. **tirriki-tarraka**. **2** adb. Hala moduz eta laster batean egin. Ik. **zirti-zarta**; **zirri-zarra**.

tirriki-tarraka

TIRRIKI-TARRAKA

zirriki-zarraka

despacio, lentamente, arrastrando los pies (al andar)

tirriki-tarraka onomat. Poliki eta nekez ibili. Ik. **zirriki-zarraka**; **tirri-tarra**.

tisi, tisis, tisisa (?)

TISI, HETIKA

tuberkulosis

tisis

tisis iz. Tisia, hetika, tuberkulosia. Ik. **tuberkulosis**.

tisiko, -ua / tisika, -ia

TISIKO, TUBERKULOSO

tuberkuloso, -a

tísico, -a

tisiko (Generoa hartzen du: *tisiko*, *tisikwa*; *tisika*, *tisikĭa*) adj./iz. Tisiak joa, tuberkulosiak joa. Ik. **tuberkuloso, -a**.

titara, titaria

TITARE

dedal

titara iz. Titarea. *Josten ainbeste ibilita, titarĭa zulatu in zaio abwelai* 'josten hainbeste ibilita, titarea zulatu egin zaio amonari'.

titi, titia

TITI

bular. 2 erro

teta, pecho, mama
tetilla, ubre

titi **1** iz. Emakumearen ugatza. Ik. **bular**. **2** iz. Abereez mintzatuz, titiburua. Ik. **erro**. ◆ **titi-haundi**. ◆ **titia autzi**; *titia emateti autzi.* Titia kendu [destetar]. ◆ **titia bota** (haurrak hartutako titia bota). ◆ **titia eman**. Tititik edoskiarazi. *Bi urte beteĭk dukatzi aurrak, bea gwaindo amak titia ematen dĭa* 'bi urte beterik dauzka haurrak, baina oraindik amak titia ematen dio. ◆ **titia hartu**. ◆ **titia kendu**. ◆ **titiko haur**. Ik. **titiko**. ¬

titia eman

TITIA EMAN

amamantar, dar el pecho

titia eman. Tititik edoskiarazi. *Bi urte beteĭk dukatzi aurrak, bea gwaindo amak titia ematen dĭa* 'bi urte beterik dauzka haurrak, baina oraindik amak titia ematen dio.

titia kendu

TITIA KENDU

titia autzi

destetar

titia kendu. Titia emateari utzi. Ik. **titia autzi**.

titiko, titikua

TITIKO

de pecho; niño de pecho

titiko iz./adj. Titiko haurra. *Titiko aurra ematen dau* 'titiko haurra ematen du'. Ik. **haur**.

titimutur, titimuturra

TITIMUTUR, TITIBURU

pezón

titimutur iz. Titiburua, edoskitzean umeak ahoan sartzen duena.

titiriti (igarkizuneko hitza)

TITI, ERRO

voz que figura en una adivinanza; hace referencia a las ubres de la vaca

titiriti iz. Asmakizuneko hitza, *titi*, edo *erro* esan nahi duena. • Igarkizuna: *Lau titiriti, lau tatarata, bi espantagarri, isipua ta manta*. {*OEH. titiriti, tritri. (Voz sin significado preciso que figura en una adivinanza; ref. a las ubres de la vaca). v. titili. Lau titiriti, lau tatarata, bi espantagarri, isipua ta manta (G-nav, AN-araq). A EY III 410. Laur tritri, laur tratra, uztupa-mulu ardatza (R-uzt). Id. ib. 410}.

titirrika, titirrikia

UZTAI, TXIRRIKA

uztai / ustai; txirringala; txirrika

aro, anilla

titirrika iz. *Burnizko titirrikĭa ibiltzen genduen mutxikako* 'burdinazko titirrika [uztaia] erabiltzen genuen mutxikarako [jolaserako]. Ik. **uztai / ustai**; **txirringala**; **txirrika**.

titirrika(n)

BIRAKA, JIRAKA (OINARRI BATEN GAINEAN

bueltakan

rodando (desplazarse por una superficie dando vueltas o girando)

titirrika(n) adb. Biraka higituz (betiere oinarri baten gainean). *Tintiniturrĭá gaienak faten dĭa titirrikan, ta baten batzuk atatzen dĭa tatarrakan* 'Tintiniturrira [Tintiniturri elkartera] gehienak joaten dira titirrikan [gurpilak titirrika: autoz], eta baten batzuk ateratzen dira tatarraka [tatarrez, arrastaka]'. Ik. **bueltaka(n)**.

titulo, titulua

TITULU

Horrek titulo haundia duka 'horrek titulu handia dauka'.

-to / -do

-TO (ATZIZKIA)

-to; valor adverbial sufijado a un adjetivo, equivalente al castellano -mente

-to / **-do** (atzizkia). (Mendebaldeko hizkeran) Aditzondoak sortzen ditu; *-ki* aditzondo-sortzailearen bezalako adiera du. Ik. **-ki**. Adibideak: *gaizto*, *hobeto*, *ondo* (...). || Bestelakoak: *bixardo*, *bizkardo*, *motezto*, *neskato*, *zakuto*.

toalla, toallia

TOALLA

eskuoihal

toalla

toalla iz. Eskuoihala. Ik. **eskuoihal** (> *eskuoial*).

toka, tokia

LOTURA, BENDA

benda

venda

toka iz. Benda. *Ebaien tokĭa patu ber izan diai* 'ebakian toka paratu behar izan diote'. Ik. **benda**. ◆ **toka paratu** (> *tokĭa patu*).

tokan

TOKA (1)

tuteando a un hombre; empleando con un hombre el tratamiento de familiaridad

tokan adb. Gizonezko bati hika. Ik. **nokan**.

tokatu, tokatzen

TOKATU

corresponder
tocar; caer en suerte

tokatu *da/zaio* ad. Egokitu; suertatu. *Tokatzen dala. Esan zegun tokatzen zakiola* 'zitzaiola' (Ond Bak). || *Errezkĭa tokatu* '[erreskadan] txanda izan'. *Loteia tokatu* 'loteria egokitu'.

toki

TOKI

leku

lugar, sitio, paraje
sitio, espacio
posición, lugar, puesto

toki iz. *Esaten dau munduko tokik onena dala* 'esaten du munduko tokirik onena dela'. *Afaltzeko tokipe gelditu ga* 'afaltzeko tokirik gabe gelditu gara'. *Bosgarren tokien dua erriko ekipwa* 'bosgarren tokian doa herriko taldea'. Ik. **leku**. *Tokitan jok oi!* 'tokitan zagok hori!'.

◆ **-en tokian** (> *en tokien*) -en ordez. Zazi zu horren tokien 'zoaz zu horren tokian'. (Baita ere: *horren ordez* eta *horren portez*).
◆ **tokian tokiko** (> *tokien tokiko*). Tokien tokiko martxak. Ohiturak.
◆ **tokitan egon** (> *tokitan eon/yon*). Urrun egon, aparte egon. ▲ Sin. *lekutan eon/yon*.
◆ **tokitara** (> *tokita*). *Tokita fan daiz* 'tokitara joan haiz'.
◆ **tokiz aldatu**.

tokila, tokilia

TOKILLA, ARTILEZKO XAL

toquilla

tokila (Bustidura gabe) iz. Artilezko xala, emakumeek sorbalda gainean jartzen dutena edo ume txiki baten gorputza biltzeko erabiltzen dena. *Baukat tokila gorri bat* 'badaukat tokilla gorri bat'.

tokitan (yon)

TOKITAN EGON

lekutan yon

estar en un lugar lejano

tokitan egon (> *tokitan eon/yon*). Urrun egon, aparte egon. ▲ Sin. *lekutan eon/yon*.

toldo, toldua

TOLDO

toldo

toldo iz. Olanazko edo beste oihal mota bateko estalkia. Ik. **lona**. *Itzala iteko toldwa patu dai* 'itzal egiteko toldoa paratu dute'.

tomate, tomatia

TOMATE

tomatera (planta)
tomate (fruto)

tomate iz. (Bot.) Solanazeoen familiako baratze landarea; landare horren fruitua, jateko ona (Lycopersicon esculentum).

◆ **tomate egina** (> *tomate inia*).
◆ **tomate poto**. *Tomate potwa*.

tonbola, tonbolia

TONBOLA

tómbola

tonbola iz. Opariak zozketatzen diren barraka, festa egunetan eta ferietan paratzen dena. *Plazan patu daĭ tonbolĭa* 'plazan paratu dute tonbola'. *Zartaia tokatu zaio tonbolan* 'zartagia tokatu zaio tonbolan'.

tonelada, toneladia

TONA

tonelada

tonelada iz. Tona; pisu handientzat erabiltzen den unitatea, mila kiloren baliokidea

tono, tonua

TONU

tono, grado de coloración

tono iz. Tonua, kolore baten maila edo ñabardura. *Kolorĭonek eztuka bestĭonen tonwa* 'kolore honek ez dauka beste honen tonua'.

tontakeia

TONTAKERIA

tonteia, txorakei

tontería, bobada, idiotez, disparate
tontería, nadería, insignificancia

tontakeria (> *tontakeia*) iz. *Oinbeste tontakeia!* 'horrenbeste tontakeria!'. ▲ Sin. *tonteia*, *txorakei*.

tontamentien

TONTOKI, ZOZOKI, ERGELKI

tontamente

tontamentean (> *tontamentĭen*) adb. Zozoki, tontoki. || Inolako asmorik gabe edo ustekabean-eta adierazteko. Ik. **nahi gabe** (> *naibe*); **ustebe**; **usteztala**.

tontatu, tontatzen

TONTOTU

atontar(se), atolondrar(se), embobar(se), volver(se) estúpido

tonteia

TONTAKERIA, TENTELKERIA, KOPLA; 2

tontakeia, kopla; zelebrekeia; 2 huskeia;

tontería
nadería (cosa de poca entidad o importancia)

tonteria (> *tonteia*) **1** iz. *Nei tonteia gutxi!* 'niri tontakeria gutxi'. *Tonteia gogoti* 'tontakeria gogotik [ugari]'. Ik. **tontakeria** (> *tontakeia*); **kopla**; **zelebrekeria**. **2** iz. Huskeria. Ik. **huskeria** (> *uskeia*); **berriketa**.

tonto, tontua / tonta, tontia

TONTO

tuntun

tonto, -a, estúpido, -a, bobo, -a, atontado, -a, alelado, -a, lelo, -a

tonto, -a (Generoa hartzen du: *tonto, -ua*; *tonta, -ia*) adj. Ergela, zozoa. Ik. **tuntun**. *Tontotako dukai umila dalako* 'tontotarako daukate umila delako'.

tontolo

TONTOLO

txotxolo

estúpido, -a, necio, -a, tonto, -a, lerdo, -a

tontolo adj. Tontoa, tentela. Ik. **txotxolo**; **tuntun**.

tontor, tontorra

TONTOR; 2 KONKOR

cima, cumbre, pico
chichón, bulto
joroba, chepa, giba, corcova, encorvadura

tontor (eta *ttonttor*) **1** iz. Gailurra. Ik. **gailur**; **gain**. **2** iz. Koskorra, ziroa; kolpe baten ondorioz buruan ateratzen den kozkorra. Ik. **txori**[2]. **3** iz. Konkorra; sorbaldako irtengune nabaria.

tontotasun, tontotasuna

TONTOTASUN; NAGITASUN

tontería
vagancia, pereza

tontotasun iz. Moteltasuna, nagitasuna. *Tonto-tonto no, au tontotasuna nik dukatena* 'tonto-tonto nago, hau tontotasuna nik daukadana'.

tontotu, tontotzen

TONTOTU

sinpletu; 2 moteldu, nagitu

atontar(se), atolondrar(se), embobar(se), volver(se) estúpido
emperezar(se)

tontotu (eta *tontatu*) **1** *da/dau* ad. Tonto bihurtu. Ik. **sinpletu**. **2** *da/dau* ad. Moteldu. *Asko jan dotelako o, raso tontatwik nok* 'asko jan dudalako edo, arras tontoturik nagok'. Ik. **moteldu**; **nagitu**.

tontozar

TONTOTZAR

tonto, -a; atontado, -a

tontozar adj. Adkor. Tontoa. *Oi tontozarra!* 'hori tontotzarra!'.

topatu, topatzen

TOPATU

topar, encontrar(se), hallar

topatu *da/dau* ad. Aurkitu, topo egin. *Bazendaki gaur nokin topatu naizen* 'bazeneki gaur norekin topatu naizen'.

tope, topia

TOPE

tope (pieza que limita el movimiento de algo)
tope (extremo o límite al que puede llegar algo)

tope **1** iz. Zerbaiten mugimendua mugatzeko pieza. *Ataiai topĭa jarri dĭa* 'ateari topea jarri dio'. **2** iz. Muga, zerbait amaitzen den tokia. *Bete dau gurdia topĭaindo* 'bete du gurdia toperaino'. ◆ **tope egin** (> *tope in*) *dau* ad. Muga jo. *Tope in dau; ezin gaio segitu* 'tope egin du; ezin gehiago segitu'.

topo in

TOPO EGIN

topar(se), encontrar(se), hallar [casualmente]

topo egin (> *topo in*). Ustekabean aurkitu. *Bakizu gaur nokin in doten topo?* 'badakizu gaur norekin egin dudan topo?'. Ik. **enkontratu**; **koinziditu**.

topo, topua
TRABA, TOPE

traba, ostopo

tope, obstáculo; traba, estorbo
topar(se), encontrar(se), hallar [casualmente]

topo iz. Traba, topea. *Baukat estomagwen topo bat!* 'badaukat estomagoan topo bat!'. *Tubeia zegatwik do, topwa duka* 'hodia itxita dago, oztopoa dauka'. Ik. **traba**; **ostopo**. ◆ **topo egin** (> *topo in*). Ustekabean aurkitu. *Bakizu gaur nokin in doten topo?* 'badakizu gaur norekin egin dudan topo?'.

topor, toporra
TOPOR, PIPOR

bobil; txopor (?)

rechoncho, -a; pequeño y gordo; de poco tamaño y redondo

topor (eta *ttopor*) adj. Txikia eta borobila; txikia eta lodia. Ik. **borobil** (> *bobil*); **txopor**. [Inguruko erdaran, "toporrico, -a" esaten zaie pertsona txiki eta loditxoak direnei].

tordantxa, tordantxia
ARABAZOZO, ZOZABAR

estornino (Sturnus sp.)

tordantxa iz. Arabazozoa (Sturnus sp.). *Bandadakan etortzen dĭa tordantxak* 'saldokan etortzen dira tordantxak'.

toriatu, toriatzen
TOREATU

2 adarra jo; tentatu; burlatu

torear
tomar el pelo, fastidiar, burlarse

toriatu **1** *dau* ad. Toreatu. **2** *dĭa* ad. Adarra jo. *Aurrak toriatzen ibiltzen da* 'haurrak toreatzen ibiltzen da'. Ik. **adarra jo**; **tentatu**; **burlatu**.

toriatzaile, toriatzailea
TOREATZAILE, ADARJOTZAILE

bromista, burlón -ona

toriatzaile adj./iz. Adarjotzailea.

torkaza, torkazia
PAGAUSO

basuso

torcaz, paloma torcaz

torkaza (*a* itsatsia) iz. Pagausoa (Columba palumbus). *Torkazĭa*. Ik. **basuso**.

tormenta, tormentia
TORMENTA

ekaitz, hodei, tenpestade, trunboi, borraska

tormenta, tempestad

tormenta iz. Ekaitza. Ik. **ekaitz**; **hodei**; **tenpestade**; **trunboi**; **borraska**.

tormentu, tormentua
TORMENTU

tormento, tortura

tormentu iz. Tortura; oinaze handi eta eramaten zaila. *Auxe tormentua dukaguna!* 'hauxe tormentua daukaguna!'.

tornillo, tornillua
TORLOJU

tornillo

tornillo iz. Torlojua.

torpe, torpia

MOLDAKAITZ. 2 DORPE

moldakaitz, kazo; 2 suabe

torpe
pesadamente

torpe **1** adj. Moldakaitza, baldarra. Ik. **moldakaitz**; **kazo**. **2** (Adizlagun gisa). Zakar, astun, dorpetasunez. *Yauria torpe deka* 'euria torpe dakar'. *Yauria torpe bota dau* 'euria torpe bota du'. ▼ Anton. *suabe*.

torpetu, torpetzen

MOLDAKAITZ BIHURTU

volverse torpe

torpetu *da* ad. Moldakaitz bihurtu. *Edadĭekin torpetu in da* 'edadearekin torpetu egin da'.

torre, torria

DORRE

torre

torre iz. Dorrea. Ik. **eliztorre**. | *Laino-torre*.

torrija, torrijia

TORRADA

torrija

torrija iz. Torrada; esnetan beraturiko ogi xerra irin-arrautzetan pasatu, frijitu eta azukreztaturik egiten den gozokia. *Leku askotan jaten tuai torrijak diotetan* 'leku askotan jaten dituzte torradak inautetan'.

tortika, tortikia

TORTIKA

kostra

mugre, pringue, porquería, costra

tortika iz. Azalean edo zerbaiten gainean itsatsita geratzen den lohia. Ik. **zolda**. *Loi zakan sortutako tortikĭa*. *Lurreko tortikĭa arrotu* 'lurreko tortika harrotu'.

tortilla, tortillia

TORTILLA

tortilla

tortilla iz. Arrautzopila. *Bi arrontzakin indako tortillĭa* 'bi arrautzekin egindako tortilla'. *Patata-tortillia* 'patata-tortilla'. *Tortillĭa iteko, arrontzak batitu* 'tortilla egiteko, arrautzak irabiatu'.

tortola, tortolia

USAPAL, USATORTOLA

tórtola, tórtolo (Streptopelia turtur)

tortola iz. Usapala, usatortola (Streptopelia turtur).

tortuga

DORTOKA

tortuga

tortuga iz. Dortoka (Ord. Testudinata eta Ord. Chelonia).

tortura, torturia

TORTURA

tortura

tortura iz. *Tortura bat zan fabrika artan lan itĭa* 'tortura bat zen fabrikan hartan lan egitea'.

torturatu, torturatzen

TORTURATU

torturar

torturatu *dau* ad. *Ezanela tortutatu yaure burua* 'ez ezan torturatu heure burua'.

tostatu, tostatzen

TXIGORTU

txigortu

tostar(se)

tostatu *da/dau* ad. Txigortu. *Ogia tostatu ta ardwai bota* (ardana). Ik. **txigortu**.

total

EGIA ESAN; HITZ BATEAN, HORTAZ

egia esan; zinez

en realidad; en el fondo; a decir verdad; en suma, en resumen, en conclusión

total adb. Egia esan; egia esanda; aitorpen moduko esaldi baten atariko gisa ezartzen den hitza. *Total, ze in du, ba!* 'total, zer egin dugu, bada!'. Ik. **egia esan(da)**; **zinez**.

toz

voz para llamar al ganado

toz interj. *atoz* 'zatoz' aditz formaren aferesia; ganaduari hots egiteko erabiltzen da. *Toz, Morika toz!* Ik. **txo**.

traba in

TRABA EGIN

estorbar, entorpecer, obstaculizar

traba egin (> *traba in*). *Or kieto, traba besteik eztezu iten* 'hor kieto, traba besterik ez duzu egiten'.

traba, trabia

TRABA

aztapo, ostopo (LM), yausgarri*, estorbo, topo

traba, impedimento, estorbo

torno, galga, freno

traba **1** iz. Oztopoa, eragozpena. ▲ Sin. *aztapo*, *ostopo*, *yausgarri**, *estorbo*. **2** iz. Gurdien galga (goitibeherak jaisteko patzen zezaiona). Ik. **draga**. ◆ **traba egin** (> *traba in*). *Or kieto, traba besteik eztezu iten* 'hor kieto, traba besterik ez duzu egiten'. [Oharra: *traba in* ≠ *trabatu*]. ◆ **trabak paratu** (> *trabak patu*). pl. Eragozpenak jarri. *Pasaportĭa atatzeko, trabak besteik eztĭai patu* 'pasaportea ateratzeko, trabak besteik ez diote paratu'.

trabatu, trabatzen

TRABATU

engantxatu

enredarse, trabarse, tropezarse

impedir, obstaculizar, estorbar

atascarse

trabatu **1** *da* ad. Aurrera ez atzera ezin eginik gelditu. *Sasien trabatu* 'sasian trabatu'. Ik. **engantxatu**. **2** *da/dau* ad. Nahastu, katramilatu. *Liztĭa trabatwik do* 'listaria trabaturik dago'. *Txumĭa raso trabatwik dukazu* 'txima arras trabaturik daukazu'. Ik. **endredatu** (> *endreatu*). [Oharra: *trabatu* ≠ *traba in*].

trabes

TREBES

zihar, ziharkan

transversalmente, de través, al través, atravesado, -a; lateralmente, de costado, de lado,

trabes adb. Trebes, zeharka. *Arramak trabes* 'adarrak trebes'. *Intazu sorwoi trabes* 'egin ezazu soro hori trebes'. Ik. **zihar**; **ziharkan**. ◆ **trabesien** adb. Trebesean. *Furgoneta atzekaldĭen, juxto-juxtwen sartzen da trabesĭen* 'furgoneta atzealdean, justu-justuan sartzen da trebesean'. Ik. **ziharkan**; **trabeskan**.

trabesaño, trabesañua
ZEHAR OHOL

travesaño

trabesaño iz. Zehar ohola.

trabesien
TREBESEAN

ziharka(n), trabeskan

transversalmente, de través

trabesien adb. Trebesean. *Furgoneta atzekaldĭen, juxto-juxtwen sartzen da trabesĭen* 'furgoneta atzealdean, justu-justuan sartzen da trebesean'. Ik. **ziharkan**; **trabeskan**.

trabeskan
TREBESKA

ziharka, trabesien

a través; transversalmente

trabeskan adb. Trebeska, trebes, zeharka. Ik. **ziharka**; **trabesien**.

trabuko, trabukua
TRABUKO

trabuco

trabuko iz. Aurretik kargatzen zen su-arma, eskopeta baino motzagoa eta kanoiaren ahoa zabaldua zuena.

tradizio, tradiziua
TRADIZIO

ohitura, kostunbre

tradición

tradizio iz. *Tradizio batzuk ondo gorde tuai* 'tradizio batzuk ondo gorde dituzte'. *Gwaindo're segitzen dai tradizio orrekin* 'oraino ere segiten dute tradizio horrekin'. Ik. **ohitura**; **kostunbre**.

traduzitu, traduzitzen
ITZULI

traducir

traduzitu *dau* ad. Itzuli; hizkuntza batean esan edo idatzi dena beste hizkuntza batean esan edo idatzi. *Eskwaz laitzeko, zinez lan aundia iten dai libuek traduzitzen* 'euskaraz leitzeko, zinez lan handia egiten dute liburuak traduzitzen'.

trafikante, trafikantia
TRAFIKATZAILE, SALTZAILE

saltzaile

traficante; vendedor, -a

trafikante iz./adj. Trafikatzailea, saltzailea. *Biziketan ibiltzan zan trafikante* 'biziketan ibiltzen zen trafikatzaile [saltzaile]'. Ik. **saltzaile**.

trafikatu, trafikatzen
TRAFIKATU

traficar; comerciar, negociar, hacer negocios

trafikatu *dau* ad. Legez kanpoko salerosian aritu.

trafiko, trafikua
TRAFIKO

zirkulazio

tráfico, circulación

trafiko iz. Ibilgailuen zirkulazioa. *Kontuz ibili! Gaur trafiko aundia daile bideberrien* 'kontuz ibili! gaur trafiko handia dabil bideberrian'. Ik. **zirkulazio**.

tragatu, tragatzen

TRAGATU, IRENTSI

ietsi

tragar(se)

tragatu *dau* ad. Irentsi. Ik. **ietsi**. *Tua tragatu*. *Ezazula itxasuko urik tragatu* 'ez ezazu itsasoko urik tragatu'.

trago, tragua

TRAGO

furrutada

trago

trago; consumición

trance, apuro

trago 1 iz. Trago batien yan. Ekatzak ardo trago bat. Ur trago bat yan ber diet. Ik. **furrutada**. 2 iz. Irud. Trantzea, larrialdia. Tragu txarra pasatu. ◆ trago! ◆ tragokan adb. Ik. **furrutakan**.

tragokan

TRAGOKA

a tragos

tragokan adb. Tragoka, hurrupaka.

traidore, traidoria

TRAIDORE

traidor, -a

traidore adj./iz. – traidora. (Forma fem.). *Denborĭa, traidorĭa* 'denbora [eguraldia], traidorea'.

traila, trailia

BARGASTA

rebelde; descarada (referida a la mujer)

traila adj. Batez ere emakumeez mintzatuz, ausarta, lotsagabea; bargasta. – *Persona trailia*: lotsarik gabea, zirti-zarta esaka aritzen dena. – *Trailĭa: ijili-ajala ibiltzen dana*.

traje, trajia

JANZKI, TRAJE

traje

traje iz. Jantzi mota, kolore eta ehun bereko jakak eta galtzek edo jakak eta gonak osatua.

trajedia

TRAGEDIA, EZBEHAR

desgrazia, zoritxar

tragedia, desgracia, desdicha

trajedia iz. Tragedia, ezbeharra. *Oi trajedĭa ikagarria pasatu dana etxĭortan!* 'hori tragedia ikaragarria pasatu dena etxe hortan!'. Ik. **desgrazia**; **zoritxar**.

traktor, traktorra

TRAKTORE

tractor

traktor (eta *trator*, *tator*) iz. Traktorea.

traktorkada, traktorkadia

ATOI BETE

una carga de remolque de tractor, un remolque de tractor lleno

traktorkada (eta *tratorkada*, *tatorkada*) iz. Traktore atoi betearen edukia. Ik. **remolkekada**. *Tatorkada bat ongarrri ekartzeko eskatu dĭat* 'traktorekada* bat ongarri ekartzeko eskatu diot'.

tramangulu, tramangulua TRAMANKULU

armatoste, cachivache, trasto/artefacto grande, aparato pesado

tramankulu (eta *tramangulu*) iz. Tresna, makina edo altzaria, bereziki handia, landugabea edo bitxia dena. *Maiza txikitzeko tramankulua*.

tramitatu, tramitatzen TRAMITATU

tramitar

tramitatu *dau* ad. Tramiteak egin, izapideak egin.

tramitazio, tramitaziua TRAMITAZIO

tramitación, gestión

tramitazio iz. Tramiteak egitea, izapideak egitea.

tramite, tramitia TRAMITE

trámite

tramite iz. Izapidea, zuzemena.

tranbia TRANBIA

tranvía

tranbia iz. Tren txikia. *Altswa fan ga tranbien* 'Altsasura joan gara tranbian'.

trangila TRABA

traba (para animales)

trangila [Ziordia] iz. Ganaduari hanketan jartzen zaion zurezko zepoa, urrutira joan ez dadin. Ik. **trankila**.

tranka, trankia TRANGA

agramadera (para majar el lino)

tranka iz. Tranga, lihoa zehatzeko lanabesa. *Liuendako trankĭa* 'lihoarendako tranka'. *Trankĭa, liua trankatzeko* 'tranga, lihoa trangatzeko'. Ik. **subets**. ◆ **trankan** adb. Trangan; garbarekin lihoa zehatzeko jardunean. *Ardazketan ta trankan* 'ardazketan eta trangan'.

trankan TRANGAN

agramando (majando el lino)

trankan adb. Trangan; garbarekin lihoa zehatzeko jardunean. *Ardazketan ta trankan* 'ardazketan eta trangan'.

trankatu, trankatzen TRANGATU

agramar, majar (el lino)

trankatu *dau* ad. Trangatu, garbatu; lihoa-eta trangaz zehatu. *Liua trankatu* 'lihoa trangatu'.

trankila, trankilia TRABA

traba (para animales)

trankila (eta *trangila* [Ziordia]) iz. Ganaduari hanketan jartzen zaion zurezko zepoa, urrutira joan ez dadin. *Animaliei hankatan patzen zezaien, ez korritzeko* [Urdiain].

trankilidade, trankilidadia
LASAITASUN

lasaitasun

tranquilidad, calma, sosiego; apacibilidad

trankilizatu, trankilizatzen
TRANKILDU

lasaitu, soseatu — *larritu, apuatu*

tranquilizar(se), calmar(se)

trankilizatu *da/dau* ad. Trankildu. ▲ Sin. *lasaitu*, *soseatu*. ▼ Anton. *larritu*, *apwatu*.

trankilo, trankilua
TRANKIL

lasai

tranquilo, -a, calmoso, -a, apacible
tranquilamente, con calma

trankilo **1** adj. Trankila, lasaia; barea. *Sekula ezta nerbioso patzen; trankilo-trankilwa da* 'sekula ez da nerbioso paratzen; trankil-trankila da'. **2** adb. Trankil, lasai. *In lo trankilo* 'egin lo trankil'. ◆ **trankilo egon** (> *yon*), **ibili**; **gelditu**. *Au dana pasatzen danĭen trankilwo ibilko ga* 'hau dena pasatzen denean trankilago ibiliko gara'. Ik. **lasai**.

tranpa, tranpia
TRANPA (1)

laiho

ventana de la puerta

tranpa[1] (> *tranpĭa*) (Azentu diferentea adiera bakoitzeko) iz. Leihoa; etxe sarrerako ateak izaten duen leihoa. *Kanpoko ataiek dekan laiho txiki horri esaten zaio tranpĭa* (Ond Bak). *Tranpati beira* 'tranpatik begira'. Ik. **laiho**.

tranpa, tranpia
TRANPA (2)

martingala

tranpa[2] (> *tránpía*) 1 iz. Engainua; iruzurra. *Tranpiek iten tu kartatan* 'tranpak egiten ditu kartetan'. Ik. **martingala**. 2 iz. Animaliak harrapatzekoa. ◆ **tranpa paratu** (> *tranpia patu*).

tranposo, tranposua
TRANPOSO, TRANPATI

tramposo, -a

tranposo (Generoa hartzen du: *tranposo*, *tranposwa*; *tranposa*, *tranposĭa*) adj. Tranpatia. *Tranposo zikin bat da*.

tranze txar, tranze txarra
TRANTZE TXAR

trago amargo

tranze txar. Trantze txarra. *Tranze txarra pasatzen dail(e)* 'trantze txarra pasatzen dabil'.

tranze, tranzia
TRANTZE

larrialdi, estualdi

trance, apuro

tranze iz. Trantzea. Ik. **estualdi**; **larrialdi**. ◆ **tranze txar**. Trantze txarra. *Tranze txarra pasatzen dail(e)* 'trantze txarra pasatzen dabil'.

trapatu, trapatua
TRINKOTU(A), TRINKO

compacto, -a; compactado, -a

trapatu adj. Trinkoa, trinkotua. *Elur trapatua* 'elur trinkotua'.

trapero, traperua

TRAPERO, TRAPUKETARI

trapero, -a

trapero iz. Trapuketaria. *Arropa zar oiek, traperuendako* 'arropa zahar horiek, traperoarendako'.

trapu zahar

TRAPU ZAHAR

hatuzahar [Ziordia]

trapo viejo

ser alguien un trapo viejo: No tener ningún valor, o no servir para nada.

trapu zahar (> *trapu zar*) iz. Ehun zati zahar eta urratua. ▲ Sin. *hatuzahar* [Ziordia]. ◆ **trapu zahar bat ez balio** (> *trapu zar bat ez balio*). **1** Gutxi edo ezer ez balio. **2** Ahul, makal egon. *Gwaixe eztot trapu zar bat balio* 'oraintxe ez dut trapu zahar bat balio'.

trapu, trapua

TRAPU

zatar

trapo (paño)

trapu iz. Ehun zatia. *Pasatuiozu trapua maiai* 'pasa egiozu trapua mahaiari'. Ik. **zatar**. • Esr. zah. *Zortzi madi pupu, hamabi madi trapu*. ◆ **buruko trapu** (> *buko trapu*) iz. Buruzapia. ◆ **trapu zahar** (> *trapu zar*) iz. Ehun zati zahar eta urratua. ▲ Sin. *hatuzahar* [Ziordia]. ◆ **trapu zahar bat ez balio** (> *trapu zar bat ez balio*). **1** Gutxi edo ezer ez balio. **2** Ahul, makal egon. *Gwaixe eztot trapu zar bat balio* 'oraintxe ez dut trapu zahar bat balio'.

trapuzatar (?)

trasformadore, trasformadoria

TRANSFORMADORE

transformador

Goienkaldeko trasformadore zaharra.
Trasformadoria herriko argiendako.

trasformatu, trasformatzen

TRANSFORMATU

aldatu

transformar(se)

trasformatu da/dau ad. Transformatu, eraldatu.

trasformazio, trasformaziua

TRANSFORMAZIO

aldaketa

transformación, cambio

trasfusio, trasfusiua

TRANSFUSIO

transfusión

trasfusio iz. Transfusioa; pertsona baten edo animalia baten odola beste baten gorputzera igaroaraztea.

trasnotxatu, trasnotxatzen

BERANDU OHERATU; GAUPASA EGIN

trasnochar

trasnotxatu *dau* ad. Berandu oheratu; gaupasa egin.

traste, (batez ere pl) trastiek

JANTZI

jantzi

ropas, vestidos

traste iz. Batez ere pl. trastiek. Urd.: jantziek. Jendiek jazten dena, oinetakuak ere bai. (Ond Bak). Guk sekatzen tû trastiek 'janzkiak' (Ond Bak).
[Urdiain]. Traste (arropa) montona dukat plantxatzeko.
Ik. trasto; hato.

trasto, trastua

TRASTE

1 hato; 2 apareju

trasto
revoltoso, -a

trasto **1** iz. Hatuek. Ik. **hato-poto**, ato-potuek; **traste**.
2 adj. Bihurria. Persona bihurria, ume bihurria. Ik. **apareju**.

trastornatu, trastornatzen

NAHASI; BURUA NAHASI

burua nahastu, eratu. 2 konfunditu

trastornar(se)
confundir(se)

trastornatu **1** *da/dau* ad. Nahasi; burua nahasi. Ik. **burua nahastu**; **eratu**. **2** *da/dau* ad. Nahasi, nahastu, okertu. *Bidĭen arrastwa galdwik, elur asko zekan ba, ta dana zwi-zwia; bweltakan galduta, raso trastornatwik* 'bidearen arrastoa galdurik, elur asko zekarren, ba, eta dena zuri-zuria; bueltaka galduta, arras trastornaturik'. Ik. **konfunditu**.

tratamentu, tratamentua

TRATAMENDU

tratamiento

tratamentu **1** iz. Tratamendua, sendabidea. *Medikuek patu geau tratamentua eta segitu berko du* 'medikuak paratu digu tratamendua eta segitu beharko dugu'. **2** iz. Tratamendua; gai bati, kontserbatzeko, eraldatzeko edo lantzeko, prozesu jakin bat ezartzeko era. *Pipien kontrako tratamentua eman dĭai zurezko estruktura guztiai* 'pipiaren kontrako tratamendua eman diote zurezko estruktura guztiari'.

tratante, tratantia

TRATULARI, TRATANTE

negoziante

tratante, mercader, -a

tratante iz. Tratularia. *Tratante ona, hori. Txerri tratantiek, leheno «txerri yostailiek» esaten zezaien.* ▲ Sin. *negoziante*.

tratatu, tratatzen

TRATATU (1)

2 relazionatu

tratar; comportarse, portarse
tratar, relacionarse, alternar
tratar, hablar, discutir
tratar, aplicar
tratar, asistir, someter a tratamiento

tratatu **1** *dau* ad. Norbaitekin edo zerbaitekin aipatzen den eran jokatu edo aritu. *Oi ezta txakurra tratatzeko modua* 'hori ez da txakurra tratatzeko modua'. *Ondo kasoinik do, ondo tratatzen dĭai* 'ondo kasu eginik [zainduta] dago, ondo tratatzen (diote) dute'. **2** Norbaitekin harremana edo erlazioa izan. *Alkarrekin eztĭa tratatzen* 'elkarrekin ez dira tratatzen'. Ik. **relazionatu**. **3** *dau* ad. (Gai batez mintzatuz). *Asuntwoi astiontan tratatuko dai errientxĭen* 'asunto [kontu] hori aste honetan tratatuko dute herriaren etxean [udaletxean]'. **4** *dau* ad. Gai bati, kontserbatzeko, eraldatzeko edo lantzeko, prozesu jakin bat ezarri. *Zura tratatu*. *Tratatu beĭko ura da erriko iturritakwa* 'tratatu gabeko ura da herriko iturrietakoa'. **5** *dau* ad. Eri bati edo eritasun bati sendabidea aplikatu. *Eztulkan, ondo tratatu beiko katarruekin daile gwaindo* 'eztulka, ondo tratatu gabeko katarroarekin dabil oraindik'.

trato, tratua

HARREMAN, TRATU

1 negoziatu. 2 relazio

trato, acuerdo, contrato; compraventa
trato, relación; confianza

trato **1** iz. Saleroste jarduna, saleroste hitzarmena; salerostea. *Tratuá*. *Gwe aitak ez zen balio tratwako* 'gure aitak ez zuen balio traturako'.
2 iz. Norbaitekin izaten den harreman edo erlazioa. *Tratua ibili*. *Trato aundia ibiltzen zen gweikin* 'tratu handia ibiltzen [edukitzen] zuen gurekin'. *Alkarrekin tratua, konfianzĭa* 'elkarrekin tratua, konfiantza'. Ik. **relazio**.
3 iz. Tratatzea, tratatzeko edo erabiltzeko era. *Trato txarra ematen dĭa txakurrai* 'tratu txarra ematen dio txakurrari'.
◆ **tratua egin** (> *tratua in*). Ik. **negoziatu**. ¬

trator, tratorra

TRAKTORE

tractor

traza, trazia

TRAZA

etxura, itxura, terraje

traza

traza iz. Itxura. ▲ Sin. *etxura*, *itxura*, *terraje*. ◆ **traza gaiztoko**. *Traza gaiztokwa*: itxura edota modu txarrekoa.

trazatu, trazatzen

TRAZATU

trazar

trazatu *dau* ad. Lerroen bidez marratu edo marraztu. *Trazatzak linĭau sokĭekin* 'traza ezak linea hau sokarekin'.

trebe, trebia

TREBE

abil, mañoso, artista. 2 kapaz izan

diestro, -a, capaz, hábil, mañoso, -a

ser capaz (de), estar capacitado (para)

trebe 1 adj. Zerbait erraz eta ongi egiten duena. ▲ Sin. *abil*, *mañoso*, *artista*. ◆ **trebe izan**. Gai izan, gauza izan. —"Trebe dana, mugara!" Bakaikukuek Iturmendikuei (Ond Bak). *Oi trebe da bĭak bakarrik eltze guztia jateko* 'hori trebe da berak bakarrik eltze guztia jateko'. Ez ta trebe 'ez da trebe'. –*Trebe gaituk!* [ahaleginaren ondoren; zerbait lortzeko bidean dagoenean].

trebede, trebedia

TREBERA

trébede

trebede iz. Trebera; hiru hankako uztai edo triangelua, burdinazkoa, eltze, zartagin eta kidekoei su gainean eusteko erabiltzen dena. *Iru anka o lau ankako trebedĭa* 'hiru hanka edo lau hankako trebera'. *Elatzutik tintilikan patzen zan parrilĭa* 'elatzutik [gelatzua, laratza] paratzen zen parrila'. Ik. **eltze burni**; **parrila**.

trebetasun, trebetasuna

TREBETASUN

abildade

habilidad, destreza, maña, capacidad, aptitud

trebetasun iz. Trebea denaren nolakotasuna; zerbait trebeki egiteko gaitasuna. *Gwaindo ezta ondo moldatzen, eztuka trebetasunik* 'oraindik ez da ondo moldatzen, ez dauka trebetasunik'. Ik. **abildade**.

trebetu (?)

TREBATU

trebol, trebola

HIRUSTA, SEKULA-BELAR

hiruorri belar

trébol, trifolio

trebol iz. (Bot.) Hirusta, belar landarea (Trifolium sp.). Ik. **hiruorri belar**.

tren, trena

TREN

tren

tren iz. Lokomotor batek eta honek herrestan daramatzan bagoiek osaturiko multzoa, errailen gainean ibiltzen dena. *Gaur'e bĭandu eldu da trena* 'gaur ere berandu heldu [dator] trena'. *Trenan makinĭa* 'trenaren makina'. *Merkanzia trena* 'merkantzia trena'. ◆ **tren estazio / trenaĭn estazio**. Tren geltokia.

trenbide, trenbide

TRENBIDE

ferril

ferrocarril; vía (del tren)

trenbide iz. Ik. **ferril**.

trenza, trenzia

TXIRIKORDA

trenza

trenza iz. Txirikorda. *Txumĭa motxaĭ duka trenzak iteko* 'ilea motzegi dauka txirikordak egiteko'. ◆ **trenza egin** (> *trenzĭa in*). Txirikorda egin. *Maiz porkak iteko're trenzĭa iten da* 'arto kordak egiteko ere txirikorda egiten da'.

trenzatu, trenzatzen

TXIRIKORDATU

trenzar
hacer sartas o ristras

trenzatu *dau* ad. Trentzatu, txirikordatu. *Txumia trenzatu* 'ilea txirikordatu'. || *Maiz porkak iteko, maiz buek trenzatu* 'arto kordak egiteko, arto buruak trentzatu'.

tresena, tresenia

HIRUKOTE

conjunto de tres, trío

tresena iz. Hirukotea. Ik. **hiruko**.

tresondagarri, tresondagarria

DESONDRAGARRI, DESOHORAGARRI; ZARPAIL, lotsagarri, indezente

deshonroso, -a
andrajoso, -a, harapiento, -a

tresondagarri **1** adj. Desondragarria, desohoragarria. ▲ Sin. *lotsagarri*, *indezente*. **2** adj. Zarpaila, arlotea. Ik. **fardel**.

tresondatu, tresondatzen

DESONDRATU

deshonrar, afrentar, infamar

tresondatu *dau* ad. Desondratu.

triangulo, triangulua

TRIANGELU

triángulo

triangulo iz. Triangelua.

tribunal, tribunala

TRIBUNAL

tribunal
jurado

tribunal **1** iz. Auzitegia. **2** iz. Epaimahaia.

triki-traka

TRIKI-TRAKA

triquitraque, traqueteo
traqueteando

triki-traka adb. Trenaren ibiliaren hotsa. Ik. **fiti-fata**. || Neurrizko urrats edo higiduraz.

trikina, trikinia

TRIKINA

triquina

trikina iz. Hari itxurako harra, heldua denean txerrien eta beste zenbait abereren hesteetan bizkarroi, eta beldar egoeran giharretan handitsuak osatuz bizi dena (Trichinella spiralis). *Trikiñа zukaken basurdĭek* 'trikina zeukaan basurdeak'.

triku, trikua

TRIKU

erizo (Erinaceus europaeus)

triku iz. (Erinaceus europaeus). *Narrua errenez josita duka trikuek* 'larrua errenez josita [arantzaz beteta] dauka trikuak'.

trillatu, trillatzen

TRILATU (ABARRAKITU)

txikitu

destrozar

trillatu *dau* ad. Txikitu, birrindu, suntsitu, desegin. *Kazkarrak dana trillatu dau* 'kazkabarrak dena trilatu [txikitu] du. Ik. **txikitu**.

trineo, trineua

LERA

lera

trineo

trineo iz. (Hitz berria) Lera. *Gaur elurretá fan ber du trinewekin* 'gaur elurretara joan behar dugu trineoarekin'. Ik. **lera**.

trinidade egun, trinidade eguna

TRINITATE EGUN

Domingo de la Santísima Trinidad

trinidade egun. Trinitate eguna; Trinitate egunaren inguruan egiten den jaia.

trinidade, trinidadia

TRINITATE

trinidad

Domingo de la Santísima Trinidad

trinidade iz. Erl. Trinitatea. ◆ **trinidade egun**. Trinitate eguna; Trinitate egunaren inguruan egiten den jaia.

trinkin-trankin, trinkin-trankina

IRIN BAHE

cernedera; expresión alusiva a los instrumentos de cerner harina

trinkin-trankin iz. Irin bahea adierazten duen esamoldea. "Arkan dago irina, / Kutxan, trinkin-trankina, / Neonek erremeiatuko dot / Neonek huts egina" (Ond Bak). {*Trinkin-trikina*, alusivo a los instrumentos de cerner harina. JMS}. • Kontakizuna. *Andra batek in emen zen irinakin ogiya oratu olamaiyen ta fan emen zan Santa Maina dántza. Bea Santa Mainati etxeá etortzeako, olamaiyen ogiya asti eta ogiya olamaiti ataik. Eta gizonak esan emen zan: "Andre gona gorriduna, Dantzan ongi dakizuna, Zeórrek erremeiyatázu Zeórrek uts egina". Eta andriek: "Arkan dago irina, Kutxan, trinkin-trankina, Neonek erremeiyatuko dot Neonek uts egina"*.

trinko, trinkua

TRINKO

compacto, -a, firme, sólido, -a; duro, -a, fuerte

trinko adj. Hutsarterik gabe baturik edo elkarturik dauden zatiez osatua. *Harruá eztona trinkuá* (Ond Bak). *Au sarran trinkwa* 'hau sagarraren trinkoa' [Urdiain].

trintxera, trintxeria

TRINTXERA

zanja

trinchera

gabardina

trintxera 1 iz. Lubakia. Ik. zanja. Lurrakin tapatzen, trintxeratan. 2 iz. Gabardina.

tripa-txiki, tripa-txikia

BARRUKI(AK), TRIPAKI(AK)

tripaki

menudos (guiso)

tripa-txiki. Tripakiak, barrukiak. *Axuien tripa-txikiekin iten da tripotxa* 'axuriaren tripa txikiarekin egiten de tripotxa'.

tripa, tripia

TRIPA

vientre, barriga; tripa
estómago (de vacuno, ovino, porcino... que se come guisado)

tripa **1** iz. Sabela. **2** iz. Tripakia. Ik. **tripaki**. ◆ **tripa haundi** adj. Tripa handia duena. ◆ **tripak jaten egon** (> *tripak jaten yon*). Amorraturik egon, haserre egon, kezkak asaldaturik egon. *Ustez fan zan astĭen ekar ber zituaĭn sukaldĭako maia ta alkiek, ta gwaindo eztuai ekarri; tripak jaten no!* 'ustez joan zen astean ekarri behar zituzten sulkalderako mahaia eta aulkiak, eta oraindik ez dituzte ekarri; tripak jaten nago!'. ◆ **tripako min**. Tripan sentitzen den mina. ◆ **triparen pentsamendua ibili [eduki], pentsamenduan egon** (> *tripĭen pensamentua ibili*, *pensamentuen yon*). Jateko pentsamendua, jateko gogo handia. *Orrek tripĭen pensamendua besteik ez tuka* 'horrek triparen pentsamendua besterik ez dauka'. ◆ **tripa-txiki**. Tripakiak, barrukiak. *Axuien tripa-txikiekin iten da tripotxa* 'axuriaren tripa txikiarekin egiten de tripotxa'.

tripak jaten yon

TRIPAK JATEN EGON

estar nervioso o preocupado, estar reconcomiéndose, rabiando, irritándose

tripak jaten egon (> *tripak jaten yon*). Amorraturik egon, haserre egon, kezkak asaldaturik egon. *Ustez fan zan astĭen ekar ber zituaĭn sukaldĭako maia ta alkiek, ta gwaindo eztuai ekarri; tripak jaten no!* 'ustez joan zen astean ekarri behar zituzten sulkalderako mahaia eta aulkiak, eta oraindik ez dituzte ekarri; tripak jaten nago!'.

tripakada, tripakadia

TRIPAKADA

asealdi, betekada, otxokon

hartazgo, tripada; panzada

tripakada iz. Betekada. Ik. **asealdi**; **betekada**; **otxokon**.

tripaki, tripakia

TRIPAKI

tripak

estómago (de vacuno, ovino, porcino...); callos (pl.)

tripaki iz. Tripak. *Txerri onek gutxi duka tripakia* 'txerri honek gutxi dauka tripakia'. Ik. **tripa**; **kallo**.

tripako min, tripako mina

TRIPAKO MIN

dolor de tripas

tripako min. Tripan sentitzen den mina.

tripaundi, tripaundia

TRIPA-HANDI, TRIPAUNDI

barrigudo, -a, ventrudo, -a

tripaundi adj. Tripa-handia.

tripazai, tripazaia

TRIPAZAIN

triposo

comilón, -ona, glotón, -ona

tripazai adj. Tripazaina, oso jatuna den pertsona. ▲ Sin. *triposo*.

tripazorri, tripazorria

TRIPAZORRI

gose

hambre (canina), gazuza, carpanta

tripazorri iz. Tripa-zorria; gosea; gose handia. Ik. **gose**. Ik. **kurru-kurru**.

triposo, triposua TRIPAZAIN

tripazai

tragón, -ona, comilón, -ona, glotón, -ona

triposo adj. Lgart. Pertsonengatik hitz eginez, oso jatuna dena. Ik. **tripazai**.

tripote, tripotia TRIPOT, TRIPOTA

tripotx

estómago de cordero relleno; embutido de arroz y menudos de cordero

tripote iz. Axuriaren tripakiekin axuri urdaila betez eginiko hestekia. *Axuien estomago aundiekin indako tripotxa* 'axuriaren estomago handiarekin egindako tripotxa'. Ik. **tripotx**.

tripotx, tripotxa TRIPOTX

embutido de arroz y menudos de cordero
vientre, barriga; tripa

tripotx **1** iz. Axuriaren tripakiekin eginiko hestekia. *Tripotx beltza, tripotx zuia*. Ik. **tripote**. **2** iz. Irud. Tripa. [echar barriga. 2 adiera?]. ¬

triste, tristia TRISTE

3 pozik, alai, kontentu

triste, entristecido, -a, apenado, -a, melancólico, -a
entristecedor, -ra; triste, aflictivo, -a
tristemente, con tristeza, triste

triste **1** adj. Poztasun edo alaitasunik ez duena, tristura adierazten duena. *Begi tristĭek dukatzi txakur onek* 'begi tristeak dauzka txakur honek'. *Aurpegia tristĭa jekan* 'aurpegia tristea zakarren'. **2** adj. Tristura dakarrena, tristatzen duena. *Oso postura tristetan hil zituain, oso hiltze tristiek in zituain*. || *Eldu dĭa azaroko egunak, tristĭek ta ilunak* 'heldu dira azaroko egunak, tristeak eta ilunak'. *Tristĭek zĭan, gĭo, garai aiek* 'tristeak ziren, gero, garai haiek'. **3** adb. Poztasunik gabe, tristerik. *Txakurra il zaiolako triste do* 'txakurra hil zaiolako triste dago'. ▼ Anton. *pozik, alai, kontentu*. ◆ **triste egon** (> *triste yon*). *Triste zonen, bai* (Ond Bak).

tristetasun, tristetasuna TRISTETASUN

pena, tristura *alaitasun, poztasun*

tristeza, pena

tristetasun iz. Tristura. ▲ Sin. *pena, tristura*. ▼ Anton. *alaitasun, poztasun*.

tristetu, tristetzen TRISTATU

poztu, alegratu

entristecer(se), apenar(se)

tristetu *da/dau* ad. Tristatu; triste jarri, tristuraz bete. ▼ Anton. *poztu, alegratu*.

tristura, tristuria TRISTURA

pena, tristetasun *poza*

tristeza, pena, añoranza, angustia
indisposición, malestar

tristura **1** iz. Pena. Tristura bat izugarria. Ik. **pena**; **tristetasun**. ▼ Anton. *poza*. **2** iz. Ondoeza, bereziki urdailari dagokiona.

triziklo, triziklua

TRIZIKLO

triciclo (juguete infantil)

triziklo iz. Haur txikientzako ibilgailua, hiru gurpil, bat aurrean eta bi atzean, dituena. *Aurrandako triziklwa* 'haurrarendako trizikloa'. *Aspertu da triziklwen ibiltzen* 'aspertu da trizikloan ibiltzen'.

trofeo, trofeua

TROFEO

trofeo

trofeo iz. Garaikurra, garaipenaren lekukotasuna ematen duen gauzakia.

tronpeta, tronpetia

TURUTA. 2 TRONPETA

tulada (?)

corneta
trompeta (instrumento)

tronpeta **1** iz. Turuta, korneta. *Bandwa botatzeko tronpetĭa* 'bandoa jotzeko tronpeta'. Ik. **tulada**; **tutaldi**. **2** iz. Musika-tresna. *Tronpeta otsa bekelakoĭk ezto plazan festa girwa patzeko* 'tronpeta hotsa bezalakorik ez dago plazan festa giroa paratzeko'.

tronpilu, tronpilua

ZIBA

peonza, peón, trompo (juego)
huso (para hilar)

tronpilu **1** iz. Ziba; zurezko jostailua, udare baten itxura duena, inguruan biltzen zaion soka baten bidez lurrean birarazten dena. **2** iz. Iruteko ardatza. *Ardazketakwa, aria iteko* 'ardazketakoa, haria egiteko'. Ik. **santagera**.

tronza, tronzia

TRONTZA

tronzador, sierra de tronzar, sierra grande

tronza iz. Trontza; bi lagunen artean erabiltzeko zerra luze eta handia, mutur bietan eskutokia duena. Ik. **arpon** [arpan]. ◆ **tronzan** adb. *Abildade aundia zukaĭn tronzan* 'abilidade handia zeukaten trontzan'. Ik. **tronzaketan**.

tronzaketa / tronzaketan

TRONTZAKETA, ZERRAKETA

tronzado, aserrado

tronzaketa iz. Trontzan egitea, trontzatzeko lana; zerraketa. ◆ **tronzaketan** adb. Trontza lanetan.

tronzalai, tronzalaia

TRONTZALARI

tronzador, -a (persona)

tronzalai iz. Trontzalaria; trontzarekin enborrak ebakitzen dituen egurgilea.

tronzatu, tronzatzen

TRONTZATU

zerratu

tronzar

tronzatu *dau* ad. Trontzatu, trontzaz ebaki. Ik. **zerratu**.

troska

TROSKA

depósito de piedra caliza

troska [Olatzagutia] iz. Karea; karezko geruza.

truk in
TRUKE EGIN

kanbio in

canjear, cambiar, permutar, intercambiar

truk egin (> *truk in*). Truke egin. ▲ Sin. *kánbio in*. Ik. **zerbeiten alde**.

truk, truke
TRUKE

(zerbeiten) alde

a cambio, a/en trueque

truk / truke adb. Trukean, ordez. ◆ **trukean** (> *trukĭen*) adb. Ik. **(zerbeiten) alde**. ◆ **truk egin** (> *truk in*) Trukatu.

trukatu, trukatzen
TRUKATU

truk in, kanbio in

canjear, cambiar, permutar, intercambiar

trukatu *dau* ad. Gauza bat eman eta haren ordez beste bat hartu. *Trukatuko dezut (halakokin)*. Ik. **truk egin** (> *truk in*); **kanbio egin** (> *kánbĭo in*); **aldatu**.

truke, trukia
TRUKE

cambio, intercambio, trueque

truke **1** iz. Trukatzea. **2** adb. Trukean, ordez. Ik. **ordez**.
◆ **trukean** (> *trukĭen*) adb.
◆ **truk egin** (> *truk in*). Truke egin. ▲ Sin. *kánbio in*. Ik. **zerbeiten alde**.

trukien
TRUKEAN

a cambio, a/en trueque

trukean (> *trukĭen*) adb.

trunboi, trunboia
EKAITZ, TRUMOI*

ekaitz, hodei, tenpestade; borraska, tormenta

tormenta, borrasca

trunboi iz. (Batez ere sing.) Ekaitza, trumoia*. *Mendabaleti eldu zaigu trunboia* 'mendebaletik heldu zaigu [datorkigu] trumoia [ekaitza]'. Ik. **ekaitz**; **hodei**; **tenpestade**; **borraska**; **tormenta**.

trunboiketan
TRUMOIKA

jostaiketan

descargando la tempestad, tempesteando; tronando

trunboiketan adb. Ekaitzak joka; trumoika. Ik. **jostaiketan**.

trunku motz
MOTZONDO, ARBOLA IPURDI

arbola ipurdi, arbola-ondo

tocón (parte del tronco que queda unida a la raíz tras talar el árbol)

trunku motz iz. Motzondoa, arbola ipurdia; enborra moztu ondoren, lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia. ▲ Sin. *arbola ipurdi*, *arbola-ondo*.

trunku, trunkua

TRONKO, ENBOR

tronco, tallo
leño

trunku **1** iz. Tronkoa, enborra; zuhaitz eta zuhaixketan, sustraien eta adar nagusien artean gertatzen den zurtoinaren zatia. Ik. **txara**. **2** iz. Enbor zati ebakia. ◆ **trunku motz** iz. Motzondoa, arbola ipurdia; enborra moztu ondoren, lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia. ▲ Sin. *arbola ipurdi*, *arbola-ondo*.

-tsu (-zu)

-TSU (ATZIZKIA)

-tsu; sufijo, que, aplicado a nombres, sirve para formar adjetivos que denotan abundancia
-tsu; se usa también significando «casi», «poco más o menos», «aproximadamente».

-tsu **(-zu)** (atzizkia). **1** 'Ugaritasuna, oparotasuna' adierazten duten izenondoak sortzeko balio du. Burundako adibideak: *adartsu, aldapatsu, argitsu, arramatsu, baketsu, bizartsu, burutsu, buztintsu, errukitsu, esenetsu, gihartsu, girlitsu, gogaltsu, haizetsu, haragitsu, harritsu, hostotsu, iletsu, indartsu, jakintsu, koipetsu, lerdetsu, makartsu, mamitsu, menditsu, nekatsu / neketsu, odoltsu, oliotsu, osasuntsu, pekatsu, pisutsu, saldatsu, tentotsu, txigarratsu, umoretsu, urtsu, yauritsu, zaintsu, zoldatsu, zoriontsu*. || **-zu** aldaera zaharrarekin: *herdezu, kakazu, mukizu, zorrizu*. **2** Izenei erantsirik 'gutxi gora behera' adiera gehitzen diena. Adibideak: *berdintsu, erdipatsu, igualtsu, paretsu*.

ttattalangorri, ttattalangorria

TXANTXANGORRI, PAPARGORRI

papargorri

petirrojo (Erithacus rubecula)

ttattalangorri iz. Txantxangorria (Ond Bak). Ik. **papargorri**.

ttattar, ttattarra

TXATXAR, TATAR

despreciable, desdeñable, menospreciable
de poco valor, insignificante, escaso, -a; trivial

ttattar adj. Txatxarra, hutsala, ezdeusa.

ttauttau, ttauttaua

APO-HONTZ

autillo (Otus scops)

ttauttau iz. Apo-hontza (Otus scops). *Kunkun txikiek bekela kantatzen dau ttauttauek* 'kunkun txikiaren [txantxikua] bezala kantatzen du *ttauttauak*'. Ik. **hontz**.

ttipili-ttapala

TIPILI-TAPALA (OEH)

a paso corto y tambaleante; despacio y con cierta torpeza

ttipili-ttapala adb. Pauso txiki eta moldakaitzez.

ttirri-ttirri

superficialmente, ligeramente, por encima

ttirri-ttirri adb. Azaletik edo gainetik.

ttopor, ttoporra

TOPOR, PIPOR

bobil

rechoncho, -a; pequeño y gordo; de poco tamaño y redondo

ttopor adj. Ik. **topor**; **txopor**. *Txiki, borobil ta lodi dana: jende, animali, planta, gauzak* (Ond Bak). Ik. **bobil**.

ttunttun, ttunttuna
TUNTUN (1)

tanborra (?)

tamboril

ttunttun iz. Tuntuna, danbolina. Ik. **txuntxuna**.

ttunttunero, ttunttunerua
TTUNTTUN JOTZAILE

ttunttuna / txuntxuna jotzaile, danbolintero

tamborilero, -a

chistulari que toca a la vez el chistu y el tambor

ttunttunero iz. Ttunttun jotzailea. Ik. **ttunttuna/txuntxuna jotzaile**; **danbolintero**; **txistulari**.

tu, tua
TU

saliva, baba

tu (eta *txu* [Bakaiku]) iz. Listua. ◆ **tua bota** *dau* ad. Tu egin.

tua bota
TU EGIN

escupir

tua bota *dau* ad. Tu egin.

tubeia
HODI, TUTU

kañeia

tubería; cañería

tuberia (> *tubeia*) iz. Hodia, tutua; (pl.) hoditeria, tutueria. Ik. **tubo**; **kañeria** (> *kañeia*).

tuberkulosis, tuberkulosisa
TUBERKULOSI

tuberculosis

tuberkulosis iz. Tuberkulosia. Ik. **tisis**.

tuberkuloso, tuberkulosua / tuberkulosa,
TUBERKULOSO

tuberculoso, -a

tuberkuloso (Generoa hartzen du: *tuberkuloso, tuberkuloswa* / *tuberkulosa, tuberkulosĭa*) adj. /iz. Tuberkulosiak joa. Ik. **tisiko, -a**.

tubo, tubua
HODI, TUTU

tubo

tubo iz. Hodia, tutua. *Dan gutxiena dala're zikina, zegatu iten da tubua* (Ond Bak). Ik. **tuberia** (> *tubeia*); **kaneria** (> *kañeia*).

tubular, tubularra
TUBULAR

tubular; cámara de aire (de rueda de bicicleta)

tubular iz. *Biziketĭen txirrikĭen tubularra* 'bizikletaren txirrikaren tubularra'. Ik. **neumatiko**.

tufa, tufia
TUPA

marga (Geol.)

tufa iz. Tupa, buztinez eta kare haitzez osaturiko harria. Ik. **tufarri**.

tufadi, tufadia
TUPA EREMU

margal; terreno en que abunda la marga

tufadi iz. Tufa [tupa] dagoen eremua.

tufarri, tufarria

TUPARRI, MERLA

marga (Geol.)

tufarri iz. Tuparria; buztinez eta kare haitzez osaturiko harria. Ik. **tufa**.

tuka-tuka; tuka-tuka yan

ZANGA-ZANGA EDAN

(beber) a grandes tragos; (beber) de un sorbo continuado, sin respirar

tuka-tuka (eta *taka-taka*; *glaka-glaka*) onomat. Zanga-zanga; hurrupatzean egiten den hotsaren onomatopeia. Ik. **furrut**. ◆ **tuka-tuka edan** (> *tuka-tuka yan*). Zanga-zanga edan. Ik. **furrutaka**.

tul, tula

TUL

tul (tejido delgado que forma malla)

tul iz. Sare itxurako ehun mehe gardena, kotoizkoa, harizkoa edo zetazkoa izan daitekeena. *Tula ta kañamazwa, puntokruza iteko ibiltzen dĭa* 'tula eta kalamukia, gurutze puntua egiteko ibiltzen dira'.

tulada, tuladia

TURUTA-HOTS, TURUTALDI

sonido de la corneta; trompeteo

tulada iz. Turuta hotsa; turutaren joaldia. *Bandwen tronpeta otsa, tuladĭa* 'bandoaren turuta hotsa, *tulada*'. Ik. **tutaldi**. ◆ **tulada jo** (> *tuladĭa jo*) *dau* ad. Turutaldia jo.

tulun-tulun

FIRIN-FARAN

andar sin garbo; sin ton ni son; ganduleando

tulun-tulun adb. Firin-faran, hara eta hona, alde batetik bestera ezer ganorazkorik egin gabe; ganoragabeko ibilkera. ◆ **tulun-tulun ibili**. Kemenik gabe ibili, bizitasunik gabe ibili.

tunante, tunantia

TUNANTE, ALPROJA

tunante, pícaro, -a, bribón, -ona, taimado, -a, truhán, -ana

tunante adj. Alproja, pikaroa. Ik. **pillo**.

tunel, tunela

TUNEL

túnel

tunel iz. *Denbora asko aurrĭatzen da tunela in daineti* 'denbora asko aurreratzen da tunela egin dutenetik'.

tunika, tunikia

TUNIKA

túnica, toga

tunika iz. Grekoen eta erromatarren soineko zabala eta luzea, soingainekoaren azpian alkandora gisa eramaten zutena; antzinako tunikaren gisako jantzia.

tuntun, tuntuna

TUNTUN (2)

sunsun, tonto, tontolo

tonta, tontorrona, necia, insensata, simple (referido únicamente a mujeres)

tuntun adj. Ergela, zozoa (Andrazkoei besterik ez?). ▲ Sin. *sunsun*, *tonto*, *tontolo*.

-tura / -dura

-TURA / -DURA (ATZIZKIA)

txio onomat. Txorien kantu labur eta errepikatuaren onomatopeia. *Gaur baswen, txoi bakar baten txio otsik'e eztĭet aitu* 'gaur basoan, txori bakar baten txio hotsik ere ez diat aditu'. ◆ **txio-txio** onomat. Txorien kantu labur eta errepikatuaren onomatopeia. *Txio-txio daĭtza txoiek atai aurrĭen* 'txio-txio dabiltza txoriak atari aurrean'.

txiokan TXIOKA

trinando, cantando, gorjeando

txiokan adb. Txioka, txio eginez. *Ezaun do udaberria eldwala; txiokan daĭtza txoi gúztĭek* 'ezagun dago udaberria heldu dela; txioka dabiltza txori guztiak' [*Heldu dela*, badatorrela].

txipa zizia (?)

txipa-mahuka, txipa-mahukia [MAHUKA, ZAKUTO MODUAN ERABILIA]

manga de una prenda de vestir que, atada por el puño, sirve ocasionalmente de alforja

txipa-mahuka (> *txipa mauka*, *txipamauka*) iz. Jantzi baten mahuka, eskumuturretik lotuta, zorro edo zakuto moduan erabiltzen dena. Ik. **mahuka**. ◆ **txipa-mahukan** (> *txipa maukan*). *Txipa maukan ekartut zizak* 'txipa mahukan ekarri ditut zizak'.

txipa, txipia
TXIPA

ezkalu

foxino, piscardo; {bermejuela (?)}

txipa iz. Ezkailua; erreka eta urmaeletan bizi den arraintxoa (Phoxinus phoxinus). Ik. **ezkalu**.

txipi-txapa
TXAPLASTA (OEH)

cabrillas (juego); epostracismo

txipi-txapa iz. Txaplasta (OEH); txaplasta eginez, txaplastaka arituz egiten den jolasa. Harri zapala, artez botata, ibaiko ur gainean saltoka jarri. ¬

txipiron, txipirona
TXIPIROI

chipirón

txipiron iz. Txipiroia (Loligo vulgaris). *Txipironak rellenatwik* 'txipiroiak beterik'.

txiplistin, txiplistina
ZIPRIZTIN

salpicadura, salpicón
partícula diminuta

txipodi, txipodia
MAKALDI

chopera

txipu biar, txipu biarra
TXIPU BELAR / SABI, AMARANTO

bledo (Amaranthus sp.)

txipu belar (> *txipu bĭar*). (Bot.) Sabia, amarantoa (Amaranthus sp.).

txipu ziza, txipu zizia
TXIPU ZIZA / MAKAL ZIZA; LANDABURU

seta de chopo o de álamo; agrocibe (Agrocybe aegerita; Agrocybe cylindracea)

txipu ziza (eta *txipo ziza*). Makal ziza; landaburua; txipu [makal] zuhaitzean ateratzen den ziza (Agrocybe aegerita; Agrocybe cylindracea).

txipu, txipua
MAKAL

álamo, chopo

txipu iz. (Bot.) Makala (Populus sp.). ◆ **txipu belar** (> *txipu bĭar*). (Bot.) Sabia, amarantoa (Amaranthus sp.). ◆ **txipu ziza** (eta *txipo ziza*). Landaburua; txipu [makal] zuhaitzean ateratzen den ziza (Agrocybe aegerita; Agrocybe cylindracea).

txipudi, txipudia
MAKALDI

chopera

txipudi (eta *txipodi*) iz. Makaldia, txipuak dauden tokia.

txirbila
TXIRBIL

viruta, cepilladura

txirbila (*a* itsatsia?) iz. Txirbil(a). [biruta].

txirdil, txirdila
TXIRDIL, 2 TXIRBIL

2 txirbil

pingajo, colgajo
viruta, cepilladura

txirdil **1** iz. Zirpila, piltzarra [Pingajo, colgajo (LM)]. **2** iz. Txirbila. Ik. **txirbil(a)**.

txirdildu, txirdiltzen

ZIRTZILDU, ZIRPILDU, PILTZARTU

ajironar(se), hacer(se) jirones

txirdildu *da* ad. Zirtzildu, zirpildu, piltzartu; piltzar bihurtu. *Arropĭa, dobladilloti-ta (azpilzanati), txirdildu* 'arropa, azpilduratik-eta, txirdildu [piltzartu]'.

txirimiri, txirimiria

ZIRIMIRI

lanbur

sirimiri; llovizna, calabobos

txirimiri iz. Zirimiria, tanta guztiz xeheetan erortzen den euria. Ik. **lanbur**; **langar**.

txiripa, txiripia

TXIRIPA

chiripa, casualidad

txiripa iz. Zorioneko halabehar edo ezustea. ◆ **txiripaz** adb. Zorioneko halabeharrez, zorioneko ezustekoz; ozta-ozta. Ik. **usteztala**; **kasualidadez**.

txiripaz

TXIRIPAZ

usteztala, kasualidadez

de chiripa, de casualidad

txiripaz adb. Zorioneko halabeharrez, zorioneko ezustekoz; ozta-ozta. Ik. **usteztala**; **kasualidadez**.

txirla, txirlia

TXIRLA

chirla

txirla iz. *Txirla batzuk yosi tut arrotzai botatzeko* 'txirla batzuk erosi ditut arrozari botatzeko'.

txirlo, txirlua

ALMUTE LAURDEN; KUARTILLU (?)

un cuarto de aldmud

txirlo [Bakaiku, Urdiain] iz. Almute laurdena. Ik. **almute**.

txirria-txirria in

BUSTI-BUSTI EGIN

musti-mustia in, txelatu, txita-txitia in, enpapatu

calar(se), empapar(se), mojar(se); mojarse hasta los huesos

txirria-txirria egin (> *txírrĭa-txírrĭa in*) *da/dau* ad. Busti-busti egin, erabat busti, blai egin. Ik. **txirriatu**; **txelatu**; **musti**. ▲ Sin. *musti-mustĭa in*, *txita-txitĭa in*, *enpapatu*.

txirriatu, txirriatzen

BLAITU, BUSTI-BUSTI EGIN

txirria-txirria in, txelatu, txita-txitia in, musti- *sekatu*

empapar(se), calar(se)

txirriatu *da/dau* ad. *Yauri yutsinak arrapatu gĭau ta raso txirrĭatwik ailatu ga etxĭa* 'euri erauntsiak harrapatu gaitu eta arras txirriaturik ailegatu gara etxera'. ▲ Sin. *txirria-txirria in*, *txelatu*, *txita-txitia in*, *musti-mustia in*; *enpapatu*. ▼ Anton. *sekatu*.

txirrika zulo / arrasto / marka

GURPIL MARKA

rodada

txirrika zulo / arrasto / marka. Gurpil-arrastoa, gurpil marka. Ik. **gurdi zulo**.

txirrika, txirrikia

GURPIL, TXIRRIKA (*)

rueda

txirrika (*) iz. Gurpila, txirrika. *Txirrika bakarrekoa* (Ond Bak). ◆ **txirrika pintxatu** (> *txirrikĭa pintxatu*). Gurpila zulatu. ◆ **txirrika zulo** / **arrasto** / **marka**. Gurpil-arrastoa, gurpil marka. *Txirrika zulwa / arrastwa / markĭa*. Ik. **gurdi zulo**. ¬
[*Oharra: euskara batuan 'polea' esan nahi du].

txirrin, txirrina

TXIRRIN

tinbre

timbre, llamador
ombligo (voc. puer.)

txirrin **1** iz. Deitzeko tresna. *Etxeko txirrina aspaldi eztaile* 'etxeko txirrina aspaldi(tik) ez dabil'. | Iratzargailuaren txirrina. *Txirrina eztau aitu ta lo seko gelditu da* 'txirrina ez du aditu eta lo seko gelditu da'. ▲ Sin. *tinbre*. **2** iz. (Haur.). Zila, zilborra. ◆ **txirrina jo** *dau* ad. *Etxeko txirrina jo daĭ* 'etxeko txirrina jo dute'. *Erlojuen txirrinak jo dau* 'erlojuaren txirrinak jo du'.

txirrina jo

TXIRRINA JO

tocar el timbre
sonar el timbre del despertador

txirrina jo *dau* ad. *Etxeko txirrina jo daĭ* 'etxeko txirrina jo dute'. *Erlojuen txirrinak jo dau* 'erlojuaren txirrinak jo du'.

txirrindulari, txirrindularia

TXIRRINDULARI

ciclista

txirrindulari iz. Bizikletan ibiltzen den pertsona; bereziki, txirrindularitzan aritzen den kirolaria. *Leno 'txirrindulariek' esaten zezaien* 'lehenago 'txirrindulariak' esaten zitzaien' (LM, AG) (?).

txirringa, txirringia

TXIRRINGA

rueda; aro de metal con el que jugaban los niños

txirringa iz. Garai bateko jolaserako tresna; haurrek jolasteko erabiltzen zuten metalezko uztaia. Ik. **titirrika**; **txirringala**.

txirringala, txirringalia

ZIRRINDOLA, UZTAI

1 titirrika, txirringa; 2 uztai / ustai; txinga

aro
argolla
michelín, lorza, pliegue de gordura

txirringala **1** iz. Zirrindola; haurrek jolasteko erabiltzen zuten metalezko uztaia [Txirringalia, aro con que juegan los chicos. JMS]. Ik. **titirrika**; **txirringa**. **2** iz. Txinga; zirgilo ziriduna, bereziki paretari josia dagoena. Etxeko hormetan, kanpoko aldean eta atariaren ondoan, animaliak lotzeko ezartzen den metalezko uztaia. Ik. **uztai** (eta *ustai*); **txinga**. **3** iz. (pl.) Txitxia, gantza; loditasunez, gorputzean sortzen diren tolesak [michelín; pliegue de gordura que se forma en alguna parte del cuerpo].

txirristilu, txirristilua

ZERBATANA

ziziku

tiratacos, cerbatana

txirristilu [Ziordia] iz. Harri txikiak botatzeko kanabera; zerbatana. Ik. **ziziku**; **arrafistilu**.

txirtxir / txir-txir

TXIRTXIR

onomatopeya de freír o asar

txirtxir onomat. Janariak sutan erretzearen onomatopeia. *Parrilan txirtxir erretzen* 'parrillan txirtxir erretzen'.

txisa

TXIZA

pis, orina

txisa (eta *txixa*) iz. Gernua. ◆ **txisa egin** (> *txisa in*). Txiza egin. ◆ **txisa egiteko gogo** (> *txisa iteko gogo*). Ik. **txisakurre**. ◆ **txisa erreka** (> *txisarreka*) iz. Pixa erreka; gernu isuri luzea; isuri horrek uzten duen arrastoa. ◆ **txisa usai** (> *txisusai*). Txiza usaina. *Jai egunain ondorĩen, txisusaia yoten da kale baztar ortan* 'jai egunen ondoren, txiza usaina egoten da kale baztar horretan'.

txisa usai / txisusai

TXIZA USAIN

olor de la orina

txisa usai (> *txisusai*). Txiza usaina. *Jai egunain ondorĩen, txisusaia yoten da kale baztar ortan* 'jai egunen ondoren, txiza usaina egoten da kale baztar horretan'.

txisakurre, txisakurria

TXIZAGURA, PIXAGALE

ganas de orinar

txisakurre iz. Txizagura, txiza egiteko gogoa. Ik. **txisa egiteko gogo**. ◆ **txisakurreak egon** (> *txisakurrĩek yon*). Txizagurak egon. *Txisakurrĩek larri no* 'txizagurak larri nago'.

txisakurretu, txisakurretzen

TXIZAGURATU

entrarle a uno ganas de orinar

txisakurretu (eta *txixakurretu*) *da* ad. Txizaguratu, txiza egiteko gogoa sartu. *Txixakurretwik nok* 'txizaguraturik nagok'. *Txorroko ur otsakin, txixakurretu* 'txorrotako ur hotsarekin, txizaguratu'. *Pañala aldatzen asi, ta orduen txisakurretu* 'pañala [pixoihala] aldatzen hasi, eta orduan txizaguratu'. Ik. **kakakurretu**.

txisarreka, txisarrekia

TXIZA ERREKA, PIXA ERREKA

meada; rastro de orina

txisa erreka (> *txisarreka*) iz. Pixa erreka; gernu isuri luzea; isuri horrek uzten duen arrastoa.

txiskero, txiskerua

TXISKERO, PIZGAILU

mechero; encendedor

txiskero iz. Ald. *kiskero*. Sakelako pizgailua. *Arri berria ber dau txiskerwek* 'harri berria behar du txiskeroak'.

txisontzi, txisontzia

PIXONTZI

2 oinala

orinal

meón, -ona; que orina mucho

txisontzi **1** iz. Txiza jasotzeko erabiltzen den ontzia. Ik. **oinala**. **2** (eta *txixontzi*) adj. Adkor. Txiza asko egiten duena. *Txixontzi: txis(a) asko iten dena*.

txispa, txispia

TXINPARTA

chispa

txispa iz. Txinparta. Ik. **txispazo**. ● Esr. *Txorien eztaia: egurrak txispak botatzen denien* 'txorien ezteia: egurrak txinpartak jaurtitzen dituenean'. ◆ **txispak ata, bota**. Txinpartak atera, txinpartak jaurti. || Irud. **(zerbaiti) txispak atera** (> *txispak ata*). Jaki batekin-edo biziki gozatu. ▲ Sin. *gozatu*, *disfrutatu*. ◆ **txispak hartuik / hartuta**. Agudo, laster, arin. *Bolakan faten tuk, txispak hartuik. Txispak hartuik fan ber dik hemendik.*

txispazo, txispazua

TXINPARTA

chispazo

txispazo iz. Txinparta. Ik. **txispa**. *Txispazo batengeiti artu zen danak su* 'txinparta bategatik hartu zuen denak su'.

txistabear, txistabearra

odol bear

txistabelar (> *txistabear*) iz. (Bot.) ▲ Sin. *odol belar*.

txistara-sare

ZIZARE-SARE

rastro que deja la lombriz

txistara-sare iz. Zizare-sarea, zizareak uzten duen arrastoa. {Txistara-sare, rastro que deja la lombriz (Ond Bak)}.

txistara, txistaria

ZIZARE; BIZIO, HESTE ZIZARE

lombriz de tierra (Lumbricus terrestris)
lombriz intestinal (Enterobius vermicularis)

txistara **1** iz. Zizarea, lurpean bizi den animalia txikia (*Lumbricus terrestris*). *Txistaraz beteik do lurroi* 'zizarez beterik dago lur hori' **2** iz. Gizakiaren eta beste zenbait animaliaren hesteetan bizkarroi bizi den zizare mota (*Enterobius vermicularis*). *Aurra txistaraz josita do* 'haurra zizarez josita dago'. *Kedar ura artzen zan txistaraindako* 'kedar-ura hartzen zen zizareendako'. ◆ **txistara-sare** iz. Zizare-sarea, zizareak uzten duen arrastoa. {Txistara-sare, rastro que deja la lombriz (Ond Bak)}.

txistazi, txistazia

NARRA

trillo

txistazi (eta *txisterazi* [Altsasu]; *txistezai*, *txistazai* [Bakaiku]) iz. Narra. *Txistaziek mugarratu*. || *Txistazaieiri patzeko*. *Txistazaia lotzeko* (Ond Bak). Ik. **are** (> *arĭa*). [OEH. Trillo. Txistarrazia (aultzia, estrazia eta ixtexia, beste izenez). JMB in Garm EskL I 10. "Trillo. La e suena a veces a" Ond Bac. "*Guetxin etzon biyorrik eta ein ber zán txisteraziyekín*" (Iza Alts)].

txiste, txistia

TXISTE, IZKIRIMIRI

chiste

txiste iz. Izkirimiria. *Grazia aundia duka txistĭek kontatzen* 'grazia handia dauka txisteak kontatzen'.

txisterazi

NARRA

trillo

txisterazi ([Altsasu] eta *txistazi* [Urdiain]) iz. Narra. {(Iza Alts): trillo}. Ik. **txistazi**.

txistin, txistina

ÑIMIÑO, ZIZTRIN* (?)

txiki

chispa, gota aislada de lluvia menuda, nieve, etc.
diminuto, -a; chiquitín, -a

txistin (eta *txixtin*; *ziztin* (?) [Bakaiku]) adj./iz. Ñimiñoa, ziztrina*. Ik. **ziztin**. ◆ **abar txistin / ziztin**. Abar ziztrina*, abarra, adaxka. (Batez ere pl.) *Abar txistinak*. *Abar txistinak sua yazteko* 'abar ziztrinak sua irazekitzeko'. *Abar txistinakin, biarrakin ta ardiliekin iten dai txoiek kafia* 'abar ziztrinekin*, belarrarekin eta artilearekin egiten dute txoriek habia'. ▲ Sin. *txostamar*. Ik. **txiki**. | *Elur txistinak; elurra asten danĭen-eta, amukela txikiek* 'elur txistinak, elurra hasten denean-eta, maluta txikiak'. Ik. **txibristin**. [*Oharra: *txistin* hitzak *ziztrin* hitzaren aldean ez du konnotazio negatiborik, ez du gutxiespen baliorik]. ◆ **elur txibristin**, **elur txistin**. *Elur txistina, elur amukela txikia* 'elur txistina, elur maluta txikia'. ◆ **ur txistin**. (Iza Alts) Ur tanta txikia (?).

txistorra, txistorria

TXISTOR

chistorra

txistor (> *txistorra*) (*a* itsatsia) iz.

txistu, txistua

TXISTU

txulufita

chistu

txistu iz. Haizezko euskal musika-tresna. Ik. **txulufita**; **txuntxuna**.

txistulai, txistulaia

TXISTULARI

chistulari

txistulari (> *txistulai*) iz. Txistua jotzen duen musikaria. Ik. **ttunttunero**; **txuntxun**.

txita-txitia in / yon

BLAI EGIN / EGON

txelatu, txirriatu, enpapatu, musti-mustia in /

calar(se), empapar(se), mojar(se)
completamente mojado, calado hasta los huesos

txita-txita egin / egon (> *txita-txitĭa in, yon*). Blai-blai; blai egin, erabat busti. Ik. **txelatu**, **txirriatu**, **enpapatu**, **musti-mustia egin / egon**.

txita, txitia

TXITA

polluelo, -a, pollito, -a

txita iz. Hegaztien, eta, bereziki, oiloaren, ume jaio berria. ◆ **txita borta**. Txita basak. ◆ **txita-txita egin / egon** (> *txita-txitĭa in, yon*). Blai-blai; blai egin, erabat busti. Ik. **txelatu**, **txirriatu**, **enpapatu**, **musti-mustia egin / egon**.

txitajale, txitajalia

BELATZ

cernícalo vulgar

txitajale iz. Belatza (Falco tinnunculus). Ik. **oilojale**.

txitaldi, txitaldia

TXITALDI

pollada

txitaldi iz. Txitatzea; hegaztiak arrautzak txitatzen dituen aldia.

txitrat

PITXARTXAR (?)

pitxar (?)

tarabilla (Saxicola sp.) (?)

txitrat [Bakaiku] iz. Txori mota, kantuan "txi-tra-tra" egiten duena. [?]: Pitxartxarra (Saxicola sp.). {pájaro cuyo canto es "txi-tra-tra" (Ond Bak)}. Ik. **pitxar** [Urdiain].

txitxarro, txitxarrua

TXITXARRO

jurel, chicharro

txitxarro iz. (Trachurus trachurus). *Txitxarrwa: buru aundia, tripa aundia, ezur asko ta mami gutxi* 'txitxarroa: buru handia, tripa handia, hezur asko eta mami gutxi'. ◆ **txitxarro beltz**. (Trachurus picturatus).

txitxi, txitxia

TXITXI

haragi

carne, chicha (voc. infant.)
michelines

txitxi 1 iz. Haur. Haragi edo arrain zatia. Ik. **haragi**. **2** iz. (pl.) Ik. **txirringala**.

txitxigarro, txitxigarrua

KILKER, TXIRTXIR

grillo

txitxigarro iz. Txirtxirra, kilkerra. *Txitxigarrua kantaitan* (Ond Bak).

txitxiki, txitxikia

HARAGI TXIKITU

picadillo (de carne); picadillo de carne de cerdo adobada para hacer chorizos

txitxiki iz. Lukainkak egiteko haragi txikitua. *Txitxikia, lukaikak iteko aragi txikitua. Gosaitako lukaikak iteko txitxikia jan du zartaien inda* 'gosaritarako lukainkak egiteko txitxikia jan dugu zartagian eginda'.

txitxiyo, txitxiyua

TXITXIRIO

garbanzu

garbanzo (Cicer arietinum)
garbanzo (semilla)

txitxiyo iz. (Bot.) Txitxirioa (Cicer arietinum); landare horren hazia ▲ Sin. *garbanzu*.

txitxizale, txitxizalia

HARAGIZALE

haragizale, haragijale

aficionado, -a a la carne; que le gusta comer carne

txitxizale adj. Haragiaren zalea dena, haragi asko jaten duena. *Orri berdura gutxi; oi txitxizalĭa da, gĭo* 'horri berdura gutxi; hori txitxizalea da, gero'. *Txitxizale kwadrilla ederra bildu ga gaur afaitako* 'haragizale kuadrilla ederra bildu gara gaur afaritarako'. Ik. **haragizale**; **haragijale**.

txixa

TXIZA

pis, orina

txixakurre

TXIZAGURA

ganas de orinar

txixtin, txixtina

ÑIMIÑO, ZIZTRIN* (?)

chispa, gota aislada de lluvia menuda, nieve, etc.
diminuto, -a; chiquitín, -a

txo

kurrin-kurrin

voz usada para llamar al cerdo; cochi; cuino

txo interj. Txerriari hots egiteko erabiltzen den hitza. *Txerriairi otseiteko* 'txerriei hots egiteko': *txo, txo; txo, txiki*. *Txerrikumairi* 'txerrikumeei': *txo, kirrin, txo, txo*. *Txerri aundiairi* 'txerri handiei': *txo, marro, txo, txo*. Ik. **kurrin-kurrin**; **toz**.

-txo

-TXO, [-XKA] (ATZIZKIA)

sufijo para diminutivos: -ito -a; -illo -a
sufijo que expresa exceso de lo denotado por el vocablo al que se une
sufijado a un color: Que tira a ese color (traducible con el sufijo -oso, -a)

-txo (atzizkia). **1** Txikitasuna edo adierazkortasuna adierazten duen atzizkia: *aitatxo*, *aldapatxo*, *amatxo*, *arraitxo*, *batzatxo*, *elizatxo*, *errekatxo*, *etxetxo*, *gauzatxo*, *gelatxo*, *gizontxo*, *golpetxo*, *haurtxo*, *herritxo*, *hilabetetxo*, *hizketalditxo*, *iturritxo*, *kaletxo*, *katutxo*, *lantxo*, *libutxo*, *menditxo*, *mutikitxo*, *mutiltxo*, *nesakitxo*, *ordu erditxo*, *pekatutxo*, *saltotxo*, *txakurtxo*, *txerritxo*, *txoitxo*, *umetxo*, *urtetxo*... **2** Izenondoek ere hartzen dute *-txo*. Burundako hizkeran, **-egi** atzizkiaren pareko dira horrelako zenbait izenondo: *gaztetxo* 'aukeran gazteegi', *txikitxo* 'aukeran txikiegi'. Adibideak: *bajutxo*, *berdetxo* 'heldu gabea, berdeegi', *aunditxo* 'handitxo', *gaiztotxo*, *gaztetxo*, *luzetxo*, *loditxo*, *txikitxo*, *zahartxo*. **3** Aditzondoek ere hartzen dute *-txo*: *askotxo*, *apartetxo* [aparte samar], *beandutxo* 'berandutxo [berandu samar]', *geizkitxo* 'gaizkitxo', *gertutxo*, *goiztxo*, *ondotxo*, *polikitxo*, *irrutitxo* 'urrutitxo' [urrun samar]... **4** *-txo* atzizkia kolore bati ezarrita, kolore horren antzekoa, kolore horretarantz jotzen duela esan nahi du; Burundako hizkeran, euskara batuko **-xka** atzizkiaren pareko dira, eta halako kolorerantz jotzen duela adierazten du: *berdetxo* 'berdexka', *beztxo* 'beltzaxka', *gorritxo* 'gorrixka', *horitxo* 'horixka', *marrontxo* 'marroixka', *urdintxo* 'urdinxka', *zuritxo* 'zurixka'...

txoa

BELATXINGA. [2 BELATXIKI]

chova (Pyrrhocorax sp.)
[grajilla (Corvus monedula)]

txoa **1** iz. Belatxinga, belearen antzeko hegaztia, hura baino txikiagoa (Pyrrhocorax sp.). *Belĩa ta txoa* 'belea eta txoa'. [**2** iz. Belatxikia; belearen familiako hegaztia, familiakoen artean txikiena, lepondo grisa eta begi zurixkak dituena (Corvus monedula).]

txofer, txoferra

TXOFER, GIDARI

chófer

txofer iz. Automobil, autobus, kamioi eta kideko ibilgailuetako gidaria. *Txikitati zukan txofer izateko gogua* 'txikitatik zeukan txofer izateko gogoa'.

txofraki

TXORI HABIA

txoi kafi

nido de pájaro

txofraki [Altsasu] iz. Txori habia. Ik. **txori kafi** (> *txoi kafi*).

txoi kafi, txoi kafia

TXORI HABIA

txofraki

nido de pájaro

txori kafi (> *txoikafi*) iz. Txori habia. *Teilazpien dukai eliztxoiek txoi kafia* 'teila azpian daukate eliztxoriek [txolarrea] txori habia'. Ik. **txofraki** [Altsasu].

txoi, txoia (1)

TXORI

pájaro

txoi, txoia (2)

TXORI, ZIRO

tontor

chichón

txori[2] (> *txoi*) iz. Koskorra, ziroa; kolpe baten ondorioz buruan ateratzen den kozkorra. Ik. **tontor**.

txoiburu, txoiburua

TXORIBURU

txoro, burubeiko

ligero de cascos, casquivano, -a; vanidoso, -a, presumido, -a

txoriburu (> *txoiburu*) adj. Buruarina, zentzu gutxikoa. Ik. **txoro**; **burubeiko**.

txoijale, txoijalia

ANTZANDOBI HANDI

alcaudón real (Lanius meridionalis); (Lanius sp.)

txorijale (> *txoijale*) **1** iz. Antzandobi handia (Lanius meridionalis). Oro har, Lanius generoko hegaztia, tamaina ertaina, buru handia, moko sendoa eta isats luzea dituena (Lanius sp.). *Gĭo ta gutxio ikusten dĭa ingu oitan txoijalĭek* 'gero eta gutxiago ikusten dira inguru hauetan *txorijaleak* [antzandobiak]'.

txoijan, txoijana

TXORI JAN

comida de pájaros
pimpinela, sanguisorba (Sanguisorba sp.) [?]

txorijan (> *txoijan*) iz. (Bot.) Txori jana. || Hazi txiki beltzeko lekalea, txoriei jaten ematen zitzaiona. Ik. **pinpilindara**. [?].

txoikuma, txoikumia

TXORIKUME

cría de pájaro

txorikuma (> *txoikuma*) iz. Txorikumea, txoriaren umea. *Sasi ortan fwitter kafia do txoikumakin* 'sasi horretan fuiter [txio] habia dago txorikumeekin'.

txoitan

TXORITAN

cazando pájaros

txoritan (> *txoitan*) adb. Txori ehizan. ◆ **txoritan ibili** (> *txoitan ibili*). Txori ehizan jardun.

txokante, txokantia

BITXI, HARRIGARRI

harrigarri

chocante

txokante adj. Bitxia, harrigarria. Ik. **harrigarri**.

txokatu

(ZERBAIT) JO, TALKA EGIN; 2 TXOKATU

jo, txoke in. 2 harritu

chocar, colisionar, topar

extrañar(se), chocar

txokatu **1** *da* ad. Talka egin. Ik. **jo**; **txoke egin** (> *txoke in*). **2** *da* ad. Atentzioa eman. Ik. **harritu**.

txoke in

TXOKE EGIN

chocar, colisionar

txoke egin (> *txoke in*). Talka egin. Ik. **jo**; **txokatu**.

txoke, txokia

TXOKE

choque, colisión

txoke iz. Talka. ◆ **txoke egin** (> *txoke in*). Talka egin. Ik. **jo**; **txokatu**.

txoketa, txoketia

ZOTIN

hipo

txoketa iz. Zotina. *Zazpi ur trago txiki yan, txoketia kentzeko*.

txokle, txoklia

ESKALAPOI

txongolo, txoklo

zueco, chanclo, choclo

txokle (eta *txoklo* [Ziordia]) iz. Batez ere pl. Eskalapoia, zurezko oinetakoa. *Txokliek: ezpartina gainien jazten zien oinetakuek, zurezkuek*; geo larruzkuek hasi zian). *Txokle 'chanclo' pare bat* (Ond Bak). Ik. **txongolo**.

txoklo

ESKALAPOI

txongolo, txokle

zueco, chanclo, choclo

txoklo [Ziordia] iz. Oinetakoen gainetik jartzeko zuekoa. ▲ Sin. *txongolo*, *txokle*.

txoko, txokua

TXOKO

rincón, esquina

txoko iz. Adkor. Zokoa. Ik. **zoko**.

txokolatada, txokolatadia

TXOKOLATADA

chocolatada

txokolatada iz. Edateko txokolatearekin egiten den otordua. *Diote domekan txokolatadĭa iten dai* 'inaute domekan txokolatada egiten dute'.

txokolate kolore, txokolate-koloria

TXOKOLATE KOLORE

color chocolate

txokolate kolore. **1** adj. Txokolate kolorekoa. **2** iz. Txokolate kolorea.

txokolate, txokolatia

TXOKOLATE

chocolate
chocolate (bebida que se hace de chocolate)

txokolate **1** iz. *Libra bat txokolate*. **2** iz. Txokolate edaria. *Txokolate inia* 'txokolate egina'. *Txokolate lodia*. *Txokolate firria* 'txokolate mehea, urtsua'. ◆ **txokolatea egin**; **txokolatea eginda** (> *txokolatia in; txokolatia inda*) (eseniekin). *Urtiek zukatziela ta txokolatia in dau* 'urteak zeuzkala eta txokolatea egin du'. ◆ **txokolate kolore**. **1** adj. Txokolate kolorekoa. **2** iz. Txokolate kolorea. ¬

txokolatei, txokolateia

TXOKOLATEGI

chocolatería

txokolategi (> *txokolatei*) iz. *Garai batĭen txokolateia zon Urdinen* 'garai batean txokolategia zegoen Urdiainen'. *Blasak txokolatĭa iten zen txokolateien* 'Blasak txokolatea egiten zuen txokolategian'.

txokolatero, txokolaterua / txokolatera,

TXOKOLATEGILE

chocolatero, -a

txokolatero, -a (> *txokolaterwa / txokolateriĭa*) (Generoa hartzen du) iz. Txokolategilea; ogibidez txokolatea egiten duen pertsona.

txokolatezale, txokolatezalia

TXOKOLATEZALE

chocolatero, -a (muy aficionado a tomar chocolate)

txokolatezale iz./adj. Txokolatearen zalea dena. *Txokolatezale famĭa dukai urdintarrak* 'txokolatezale fama daukate urdiaindarrek'.

txolosta, txolostia

TOLOT

huero, podrido, batueco (referido a huevos)
(agua de) batueco

txolosta 1 adj. Tolota, oilanda arrautza ustela. ◆ **arrontza-txolosta**. Arrautza ustela, tolota. *Txolosta oi austak* '[arrautza] tolot hori hausi ezak'. (Ond Bak). Arrontziau txolostatuik jon. ▲ Sin. *arrontza ustel*. 2 iz. **txolosta gustu** (> *txolosta gusto*). Tolota zaporea. Galdwik do jatekwoi, txolosta gustwa duka 'galdurik dago jateko hori; tolota gustua dauka'. ◆ **txolosta ur**. Hidrogeno sulfuroa duen ura (Agua sulfurada).

txolostatu, txolostatzen

TOLOTATU

pudrirse el huevo

txolostatu *da* ad. Tolotatu. *Arrontzĭa txolostatu*.

txoltxa

INTXAUR-ORBAN

mancha que deja en los dedos el pericarpio de la nuez

txoltxa iz. Intxaur-orbana; intxaurraren kanpoaldeko azal berde mamitsuak hatzetan uzten duen orbana. *Intxor berdiek iten dai txoltxiek, bihetzak zikindu* (Ond Bak). Ik. **nogalina**.

txondor leku, txondor lekua

TXONDOR LEKU, TXONDOR-LARRAIN

era de carbonear; el espacio llano junto a la carbonera

txondor leku iz. Txondor larraina; egur-ikatza egiteko, txondorra kokatzen den toki zelaitua. *Txondor-leku batín ankak iya erre nitubén; iya txondor-lekubartan ankak erre eta justo-justu libratu nitzan, justo-justu* (Iza Alts).

txondor, txondorra

TXONDOR

txandor

carbonera; pila de leña, cubierta de tierra para el carboneo

txondor [Altsasu] iz. Ikatza egiteko eratzen den egur meta, lurrez, belarrez, zohiz edo kidekoz estaltzen dena. Ik. **txandor**. ◆ **txondor-leku**. *Txondor-leku batín ankak iya erre nitubén; iya txondor-lekubartan ankak erre eta justo-justu libratu nitzan, justo-justu* 'txondor-leku batean hankak ia erre nituen; ia txondor-leku hartan hankak erre eta justu-justu libratu nintzen, justu-justu' (Iza Alts).

txongolo, txongolua

ESKALAPOI

txokle, txoklo

zueco, chanclo, choclo

txongolo iz. Batez ere pl. *txongoluek*. Eskalapoia, zurezko pieza bat hustuz egiten den oinetakoa. *Zurezkuek zian txongoluek* 'zurezkoak ziren txongoloak'. [txomolu (JMS)].

txontxo

ISTAPEKA, ZANGALATRAU

txontxoles

a la espalda; a las espaldas; a caballo; a horcajadas (a la espalda de alguien)

txontxo adb. Istapeka norbaiten bizkarrean. *Gizon baten bizkarrĭen txontxo* 'gizon baten bizkarrean istapeka'. ▲ Sin. *txontxoles* [Ziordia]. Ik. **txalko**.

txontxoles

ISTAPEKA, ZANGALATRAU

a caballo; a horcajadas (a la espalda de alguien)

txontxoles [Ziordia] adb. Norbaiten bizkarrean istapeka, zangalatrau. Ik. **txontxo**.

txopor beltz, txopor beltza

INDABA BELTZ

alubia negra, judía negra

txopor beltz. (Bot.) Indiaba beltza.

txopor gorri, txopor gorria

INDABA GORRI

alubia roja, judía roja (caparrón rojo)

txopor gorri. (Bot.) Indiaba gorria. Indiaba bikor borobila eta gorri-more kolorekoa.

txopor zuri, txopor zuria

INDABA ZURI

alubia blanca, judía blanca

txopor zuri iz. (Bot.) Indiaba zuria.

txopor, txoporra

INDABA

indiaba; 2 topor

alubia, judía (Phaseolus vulgaris L.); variedad(es) de alubia: alubia negra, alubia roja, alubia rechoncho, -a; chaparro, -a; redondeado, -a; pequeño y gordo

txopor **1** iz. (Bot.) Indaba; indaba motak adierazteko izena (Phaseolus vulgaris L.). Indiaba klaseak: *txopor beltza*; *txopor gorria*; *txopor zuria*. *Txopor-gorriek estimazio aundiokua zukan txopor-beltzak baindo* 'txopor-gorriak estimazio handiagokoa zeukan txopor-beltzak baino'. Ik. **indiaba**. **2** adj. Txaparra; txikia eta biribil itxurakoa. Ik. **topor** (eta **ttopor**); **borobil** (> *bobil*). ◆ **txopor beltz**. Indiaba beltza. ◆ **txopor gorri**. Indiaba gorria. Indiaba bikor borobila eta gorri-more kolorekoa. ◆ **txopor zuri**. Indiaba zuria. ¬

txor-txor

GUR-GUR, BOR-BOR

onomat. para expresar el chorreo del agua

txor-txor-txor onomat. Ur etorriaren onomatopeia. *Txor-txor-txor*.

txorakeia

TXORAKERIA

tontakeia

tontería, chorrada, disparate, desatino; nimiedad, cosa de poca importancia

txorakeria (> *txorakeia*) iz. Adkor. Zorakeria. Ik. **zorakeria**.

txoratu, txoratzen

TXORATU; 2 ZORABIATU

eratu, sinpletu

enloquecer, volver(se) loco; marear, liar
marear(se)

txoratu **1** *da/dau* ad. *Adkor*. Zoratu. Ik. **zoratu**. ▲ Sin. *eratu*, *sinpletu*. **2** da/dau ad. Zorabiatu. *Goizeti, txoratwik nok raso* 'goizetik, arras txoraturik nagok'.

txorbeltx papartxui, txorbeltx papartxuia

ZOZO PAPARZURI

mirlo capiblanco

txorbeltx paparzuri (> *txorbeltx papartxwia*) iz. Zozo paparzuria (Turdus torquatus). *Leno ikusten zĭan txorbeltx papartxwiek* 'lehenago ikusten ziren zozo paparzuriak'.

txorbeltx, txorbeltxa

ZOZO

mirlo, tordo

txorbeltx iz. Zozoa, urretxindorraren familiako txoria (Turdus merula). *Txorbeltxak kantaitan badaitza, denbora ona in ber den seinale* 'txorbeltxak kantaitan badabiltza, denbora ona egin behar duen seinale'. ◆ **txorbeltx paparzuri** (> *txorbeltx papartxwi*) iz. Zozo paparzuria (Turdus torquatus). *Leno ikusten zĭan txorbeltx papartxwiek* 'lehenago ikusten ziren zozo paparzuriak'.

txori, txoria (1)

TXORI

pájaro

txori[1] ([Bakaiku] eta *txoi* [Urdiain]) iz. Tamaina txikiko hegaztia.
- txoi-txiki
- txoikuma
- txoi-luma
- txoiek kantaitan
- txoi bandada; txoi bakar, txoi bakarrak.

◆ **txoritan** (> *txoitan*) adb. Txori ehizan. ◆ **txoritan ibili** (> *txoitan ibili*). Txori ehizan jardun.

◆ **elur txori** (> *elur txoi*). Gailupa (Pyrrhula pyrrhula). ▲ Sin. *negu txoi*; *klabelin txoi pikomotxa* [krabelin txoi pikomotxa (EHHA)].

◆ **lur txori** (> *lur txoi*) iz. Uda-txirta (Anthus trivialis). *Lur txoiek lurrĭen iten dau txoi kafia* 'lur txoriak lurrean egiten du txori habia'.

◆ **negu txori** (> *negu txoi*). Gailupa (Pyrrhula pyrrhula). ▲ Sin. *elur txoi*; *klabelin txoi pikomotxa* [krabelin txoi pikomotxa (EHHA)].

◆ **txori kafi** (> *txoikafi*) iz. Txori habia. *Teilazpien dukai eliztxoiek txoi kafia* 'teila azpian daukate eliztxoriek [txolarrea] txori habia'. Ik. **txofraki** [Altsasu].

txorikaka

TXORI KAKA

excremento de pájaro
cosa o persona de poco valor o importancia

txorikaka (eta *txoikaka*) **1** iz. Txoriaren zirina (Iza Alts). **2** iz. Gauza hutsala; balio gutxiko pertsona.

txorikuma

TXORIKUME

cría de pájaro

txorikuma ([Altsasu] eta *txoikuma* [Urdiain]) iz. Txoriaren umea. (Iza Alts). *Oneskĭo txoikumak ata dĭa kafitĭ* 'honezkero txorikumeak atera dira habiatik'. *Txoikumak kafitĭ aldein daĭ* 'txorikumeek habiatik alde egin dute'.

txorinabar, txorinabarra

MIKA

pikaratz

urraca, picaza

txorinabar [Bakaiku] iz. Mika (Pica pica). Ik. **pikaratz**. {(Ond Bak) "picaza" (*bi-paper-ta-estaka*)}.

txorisagar

TXORI SAGAR

variedad de manzana muy amarilla y dulce

txorisagar iz. (Bot.) Azal horia duen sagar mota gozoa. {Variedad de manzana muy amarilla y dulce (Ond Bak)}.

txoro, txorua

TXORO

zoro, ero, burubeiko, txoriburu

loco, -a, chiflado, -a, chalado, -a; alocado, -a, atolondrado, -a, imprudente, insensato, -a

txoro adj. Adkor. Zentzu edo adimen gutxikoa, eroa. Ik. **zoro**; **ero**; **burubeiko**.

txorro-morro

TXORRO-MORRO

pídola (juego infantil)

txorro-morro iz. Haur jolasa, bata bestearen atzean makurturik dauden kideen gainera salto egin eta, eskuko hatz bat erakutsi ondoren, azpikoek hatz hori zein den asmatzean datzana. ◆ **txorro-morrokan** adb.

txorro-morrokan

TXORRO-MORROKA

(jugando) a la pídola

txorro-morrokan adb. Txorro-morroka.

txorro, txorrua

TURRUSTA, ZURRUSTA, TXORRO; 2 TXORROTA

chorro
grifo

txorro **1** iz. Turrusta; zulo, iturri edo hodi batetik ateratzen den isurkari baten jario etengabea. *Txorroko zulwa* 'txorroko zuloa'. **2** iz. Txorrota. *Fregaderako txorrwa* 'harraskako txorrota'.

txorrokan

TXORROKA

a chorros

txorrokan adb. *Ura txorrokan*.

txorrotx, txorrotxa

ZORROTZ

exigente

txorrotx adj. Zorrotza, exijentea. Ik. **zorrotz**; **exijente**.

txorroxtu

ZORROZTU

akestu

afilar, dar filo; sacar punta

txosketan

ZOZKETA

Hainbat txotx igualak eta bat haundiokua...

txostamar, txostamarra

ZOTZABAR

zoztamar, txotxomar [Altsasu], txotxamarka

leña menuda, ramilla; ramojo

txostamar iz. (Batez ere pl.) Zotzabarra; zotza, abar xehea. *Txostamarrak, zoztamar txikiek*. Ik. **zoztamar**; **txotxamarka** [Bakaiku]; **txotxomar** [Altsasu]; **abar txistin**.

txota, txotia

TXOTA, TXANKA (KARTA)

txotiko

sota (de la baraja española)

txota iz. Txanka; karta espainoletan, erregearen eta zaldunaren ondoko karta, ezkutari baten irudia duena. *Txotiko urre* 'txanka urrea'. *Txotiko basto* 'txanka bastoia'. Ik. **txotiko**.

txotiko, txotikua

TXOTA(KO), TXANKA (KARTA)

txota

sota (de la baraja española)

txotiko iz. *Txotako*; txanka, karta espainoletan, erregearen eta zaldunaren ondoko karta, ezkutari baten irudia duena. *Txotiko urre* 'txanka urrea'. *Txotiko basto* 'txanka bastoia'. Ik. **txota**.

txotx, txotxa

TXOTX, ZOTZ. 2 ZOZKETA. 3 SOS

palillo (mondadientes)
palito, ramilla, leña menuda, ramojo
sorteo; echar a suerte
dinero, calderilla

txotx iz. Ik. zotz.

2 iz. *Txotx!* Zozketa. *Txotx txikiek eta txotx aundiek noĭ ailatu, suertĭa bota* 'zotz txikiak eta zotz handiak nori ailegatu, suertera bota'.
«Txotxa» txikia da; «zotzak», aundiokwek '«txotxa» txikia da; «zotzak», handiagoak.
– ziria.
– abarra.

3 iz. Sosa, oso balio gutxiko dirua. ◆ **txotxik ez egin** (> *txotxik ez in*). Sosik ez egin, lanik ez egin. ◆ **txotxik ez irabazi** (> *txotxik ez ibazi*). Sosik ez irabazi, ezertxo ez irabazi. *Txotx bat'e ez dik ibazi* 'sos bat ere ez dik irabazi'.

txotxamarka

ZOTZABAR

zoztamar, txostamar, abar txistin

leña menuda, ramojo

txotxamarka [Bakaiku] iz. (Batez ere pl.) Zotzabarra, zotza, abar xehea (Ond Bak). Ik. **zotz**; **zoztamar**; **txostamar**; **abar txistin**.

txotxo TXERRI

cerdo, -a (voc. infant.)

txotxo[2] Haur. Txerria (animalia).

txotxo, txotxua (1) GOZOKI

golosina, dulce

txotxo[1] iz. Batez ere pl. *txotxwek*. Bolatxo txiki formako gozokia, normalean kolore askotakoak. Ik. **kamelo**. *Beĭn, txikitan, txotxwek zĭalakwen otalidonak jan zituen* 'behin, txikitan, txotxoak zirelakoan *optalidon*ak jan zituen' [Optalidon: pilulatan hartzen zen sendagai bat].

txotxolo, -a; txotxolua, -ia TXOTXOLO

tontolo; monigote

simple, insustancial; lelo, -a; alelado, -a, turulato, -a, embobado, -a; tontorrón, -ona

txotxolo, -a (Generoa hartzen du) adj. Ergela, buruarina. ▲ Sin. **tontolo**.

txotxomar ZOTZABAR

zoztamar, txostamar; txotxamarka [Bakaiku];

leña menuda, ramilla; ramojo

txotxomar [Altsasu] iz. (Batez ere pl.) Zotzabarra; zotza, abar xehea. {*Txotxomar batzuk*, unos palillos (para el fuego) (Iza Alts)}. Ik. **zoztamar**; **txostamar**.

txoza, txozia TXABOLA, ETXOLA

choza, cabaña

txoza iz. Txabola, etxola. Ik. **txabola**.

txu, txua TU

tu

saliva, baba

txu [Bakaiku] iz. Tua, listua. *Txuba* (Ond Bak). Ik. **tu**.

txui, txuia ZURI

blanco; blanco, -a

txuiketa, txuiketia ZURIKETA

blanqueo

txuiketa iz. Zuriketa. ◆ **txuiketan**. Ik. **zuriketa** (> *zwiketa*, *txuiketa*, *txuiketĭa*).

txuitu, txuitzen ZURITU

blanquear
pelar; mondar; deshojar; descortezar; desgranar

txuitzaile, txuitzailia ZURITZAILE

kisugile, pintore

blanqueador, -a; yesero, -a; albañil
pelador, -ra

txuitzaile (> *txwitzaile*) **1** adj./iz. Zuritzailea, zuritzen duena. *Karĭekin ibiltzen zĭan txwitxailĭek txwiketan* 'karearekin ibiltzen ziren zuritzaileak zuriketan'. **2** adj./iz. *Maiz txwitzailĭek* 'arto zuritzaileak'.

txukatu, txukatzen

XUKATU

sekatu

secar(se); absorber; enjugar

txukatu *da/dau* ad. Xukatu. *Yaurien ondoti, lurra poliki zoken txukatwik* 'euriaren ondotik, lurra poliki zegoan xukaturik'. *Txukatu dĭa paltsak* 'xukatu dira paltsak [ur putzuak]'. ik. **sekatu**.

txukun, txukuna

TXUKUN

limpio, -a, aseado, -a, arreglado, -a, pulcro, -a
aseadamente, pulcramente; apropiadamente, correctamente

txukun **1** adj. Garbia eta apaina, nahaspilarik eta lardaskarik gabea. *Au etxĭen txukuna dukazuna!* 'hau etxearen txukuna daukazuna'. Ik. **apain**; **garbi**; **kurioso**. **2** (Adizlagun gisa). *Txukun izaten tu baztarrak* 'txukun izaten ditu bazterrak'.

txukundu, txukuntzen

TXUKUNDU

asear(se), limpiar(se), adecentar(se), arreglar(se), ordenar; adecuar, acondicionar

txukundu *da/dau* ad. *Etxĭa txukundu ber dot* 'etxea txukundu behar dut'. *Txwitzen eta txukuntzen* 'zuritzen eta txukuntzen'.

txukunketa, txukunketia

TXUKUNKETA

limpieza, lavado, adecentamiento

txukunketa iz. Txukuntzea. ◆ **txukunketan** adb. *Fiestatako txukunketan* 'festetarako txukunketan'.

txukuntasun, txukuntasuna

TXUKUNTASUN

limpieza, lavado, aseo, pulcritud; orden, curiosidad; corrección, adecuación

txukuntasun iz. Txukuna denaren nolakotasuna. *Txukuntasuna ber dau etxĭen* 'txukuntasuna behar du etxean'.

txuleta, txuletia

TXULETA

chuleta

txuleta iz. *Txerri txuletak in tu afaltzeko* 'txerri txuletak egin ditu afaltzeko'.

txulo, txulua (1)

ZULO

agujero, orificio
escondite, escondrijo; guarida, madriguera
rincón, sucucho

txulo[1] **1** iz. Zuloa. Ik. **zulo**. **2** iz. Zokoa. *Txuloko kamiua* 'txuloko kamioa'. Ik. **zoko**. ◆ **zuloka** (eta *txuloka*) adb. *Txuloka yain indiabĭa* 'zuloka erein indaba'.

txulo, txulua (2)

HARRO, HARROPUTZ

harro, harroputz, fanfarron

apal, umil

chulo, presumido, -a; fanfarrón, -ona, arrogante, soberbio, -a; macarra [persona]

txulo[2] adj. (Lgart.) Harroa, harroputza. *Txulo zikin bat da*. Ik. **harro**. ▲ Sin. *harroputz*, *fanfarron*. ▼ Anton. *apal*, *umil*.

txulufita, txulufitia

TXISTU; TXILIBITU

txistu, fistilu

chistu; flauta

txulufita iz. Txistua; txilibitua. Ik. **txistu**; **fistilu**.

txuma-luze, txuma-luzia

TXIMA-LUZE, TXIMALUZE

de pelo largo; melenudo, -a

txuma-luze, txumaluze adj. Txima-luzea, txima luzeak dituena. *Mutiki txumaluze bat* 'mutilki tximaluze bat'. Ik. **kalfar**.

txuma-motz, txuma-motza

TXIMA-MOTZ

kaskamotz, kaskalo

de pelo corto; pelón, -ona

txuma-motz (eta *txuma motx*) adj. Txima-motza, buruko ilea motza duena. *Emakume txumamotx bat etor da txarlĭa ematĭa* 'emakume txima-motz bat etorri da txarla [hitzaldia] ematera'. Ik. **kaskamotz**; **kaskalo**.

txuma, txumia

TXIMA

pelo, cabello
copete
guedeja

txuma **1** iz. Txima; ilea, bereziki burukoa. Ik. **ile**. **2** iz. (Iza Alts) "el copete". **3** iz. [Guedeja, pelo del caballo que cuelga al desgaire (Ond Bak)].

◆ **txuma-luze, txumaluze** adj. Txima-luzea, txima luzeak dituena. *Mutiki txumaluze bat* 'mutilki tximaluze bat'. Ik. **kalfar**.

◆ **txuma-motz** (eta *txuma motx*) adj. Txima-motza, buruko ilea motza duena. *Emakume txumamotx bat etor da txarlĭa ematĭa* 'emakume txima-motz bat etorri da txarla [hitzaldia] ematera'. Ik. **kaskamotz**; **kaskalo**.

– txuma kuxkurra. Ile kizkurra.
– txuma zurda
– txuma garbi; txuma zikin
– txumia garbitu
– txumia arreglatu
– txumia fan.

◆ **txuma moztu** (> *txumĭa moztu*). Ilea moztu.

txumaje, txumajia

ILAJE

ilaje

cabellera
pelaje

txumaje iz. (Kutsu peioratiboa). *Oi txumajĭa dĭana emakume orrek* 'hori txumajea daramana emakume horrek'. Ik. ilaje.

txumia moztu, txumia mozten

ILEA MOZTU

cortar(se) el pelo

txuma moztu (> *txumĭa moztu*). Ilea moztu.

txunga, txungia

IHI, LEZKA (?)

ihi

junco (Juncus sp.)
espadaña (Typha sp.)
carrizo (común) (Phragmites sp.) (?)

txunga (eta *txunka* [Bakaiku]) **1** iz. (Bot.) Ihia, zurtoin luzeak eta malguak dituen belar landarea, oso toki heze eta bustietan hazten dena (Juncus sp.). Ik. **ihi**. | **2** iz. Lezka, kanaberaren zurtoinaren antzeko zurtoina duen belar landarea (Typha sp.).

txungadi, txungadia

IHITEGI

juncal, junquera

txungadi (eta *txunkadi* [Bakaiku]) iz. Ihitegia; txunga edo ihi asko dagoen tokia. *Ointo tokia da txungadi ondoko leku oi* 'onddo tokia da txungadi [ihitegi] ondoko leku hori'.

txuntxun, txuntxuna

TUNTUN, DANBOLIN

arratz, danbolin, txanbolin

tamboril; conjunto de chistu y tamboril

txuntxuna (eta *ttunttun*) (*a* itsatsia) **1** iz. Tuntuna, danbolina. Ik. **arratz**; **danbolin** / **txanbolin**. – *Txuntxuna: txulufitia eta tanporra* (eta danbolina) *batia jotzen zanien* (LM). **2** iz. Tuntun jotzailea. ◆ **txuntxuna jotzaile**. Tuntun-jotzailea, danbolin jotzailea. ▲ Sin. *txuntxunero*.

txuntxuna jotzaile, txuntxuna jotzailia

TUNTUN-JOTZAILE

txuntxunero

tamborilero, -a

txuntxuna jotzaile. Tuntun-jotzailea, danbolin jotzailea. ▲ Sin. *txuntxunero*.

txuntxunero, txuntxunerua

TUNTUN-JOTZAILE, DANBOLIN JOTZAILE

txuntxuna jotzaile

tamborilero, -a

txuntxunero iz./adj. Tuntun-jotzailea, danbolin jotzailea. ▲ Sin. *txuntxuna jotzaile*.

txupakan

ZUPAKA, MIAZKA

chupando

txupakan adb. Txupatzen, zupaka, miazka. Kamelwek txupakan jan berrien, ozkakan jaten tu.

txupatu, txupatzen

TXUPATU, ZUPATU

miezkatu

chupar

txupatu *dau* ad. Zupatu, miazkatu. Ik. **miezkatu**.

txupatzaile, txupatzailia

MIAZKATZAILE

miezkatzaile

chupón, -a

txupatzaile adj. Ik. **miezkatzaile**.

txupete, txupetia

TXUPETE

pete (Haur.)

chupete

txupete iz. Titiburuaren forma duen gauzaki malgua, haur txikiei xurgatzeko ematen zaiena. ▲ Sin. *pete* (Haur.).

txuri, txuria

ZURI

zuri

blanco; blanco, -a

txuri (eta *txwi*) iz./adj. adkor Zuria. *Ogi txuria* 'ogi zuria'. *Hil txúri* (Ond Bak). Ik. **zuri** (> *zwi*).

txuritu, txuritzen

ZURITU

txurka

TXURKA

tabla agujereada que se usa en la elaboración de los quesos
embudo pequeño que se usa para rellenar las morcillas

txurka **1** [Ziordia] iz. Ohol zulatua, gaztaiak egiteko prozeduran erabiltzen dena. **2** [Ziordia] iz. Odolkiak betetzeko erabiltzen den inbutu txikia. Ik. **txurrutela**.

txurreia

TXURRO DENDA

churrería

txurreria (> *txurreia*) iz. Txurroak egin eta saltzen diren lekua. *Festatan etortzen da txurreia* 'festetan etortzen da txurreria'.

txurro, txurrua

TXURRO

churro

txurro iz. Irin ore frijituz egiten den makila gisako janaria. *Yostazu bi dozena txurro* 'erostazu bi dozena txurro'.

txurrut

ZURRUT

furrut, zurrut

sorbo; trago
bebida (ingerir bebidas alcohólicas)

txurrut iz. Ik. **furrut**; **zurrut**. ◆ **txurrut egin** (> *txurrut in*). Zurrut egin. *Txurrut iten dau* 'txurrut [edan; edari alkoholdunak edan] egiten du'.

txurrutela, txurrutelia

(HESTEKIAK BETETZEKO INBUTU)

embudo que se usa para rellenar embutidos

txurrutela iz. Hestekiak betetzeko inbutua. Ik. **txurka**.

txurrutxal

burukoaxal

txurrutxal iz. (Bot.) Landare mota (Ond Bak). Ik. **burukoaxal**. [OEH. BURUKO-AXAL. "Burukoaxal, plantita dulce al gusto, llamada txurrutxal por navarros erdaldunes" Ond Bac 116.].

txut-txut

(AUTOA; KONTUZ!)

advertencia de que viene un automóvil (voc. infant.)

txut-txut interj. Haur. Autoa; kontuz! Haurrari autoa datorrela adierazteko esapidea.

txuti

ZUTIK

de pie, en pie; tieso, -a; vertical, derecho, -a

txuti adb. Zutik. Ik. **zuti**.

txutxupe

TRANPA

trampa en las reglas de un juego (voc. infant.)

txutxupe Haur. Tranpa, engainua. Mutxikan, araua hausten duenari esaten zaiona.

txuxtur, txuxturra

ZURTOIN, TXORTEN

pedúnculo

txuxtur iz. Adkor. Txortena, zurtoina. Ik. **zuztur**.

-tza

-TZA (ATZIZKIA)

-tza, sufijo que denota: 1 Profesión. 2 Acto. 3 Abundancia

-tza (atzizkia). **1** Izen bizidunei erantsita, lanbidea adierako izenak sortzen dituen atzizkia. Adibideak: *arrantza*, *artzaintza*, *hargintza*, *ikazkintza*, *nekazantza*, *soldautza*, *zurgintza*. **2** 'Egoera, gertaera, ondorioa' adierazten duten izenak sortzeko erabiltzen dena: *bizitza*, *ezkontza*, *heriotza*, *jaiotza*, *kobrantza*, *laguntza*. **3** Izen bizidun zein bizigabeei erantsirik multzo edo kopuru handia adierazten duena (horietako batzuk toponimo eta deitura bihurtuak ditugu). Adibideak: *batza*, *Bardoitza*, *Buztintza*, *Ezkiza*, *Galarza*, *hariatza*, *ibintza*, *kozpiltza*, *lokatza*. **-tza** + **-di** atzizkiez osatutakoak: *lohizadi*, *orbelzadi*. Ik. **-tze** (atzizkia).

-tze

-TZE (-TZA ATZIZKIAREN ALDAERA)

-tze; posfijo local variante de -tza. Designa campo de que se han cosechado leguminosas,

-tze [Bakaiku] (atzizkia). **-tza** atzizkiaren aldaera. Laborea bildu den soroa adierazten du. Adibideak: *babatze*, *indabatze*, *nagotze*, *patatatze*. {Posfijo local. Designa campo de que se han cosechado leguminosas, cereales, forrajeras... Variante de -tza. (Ond Bak)}.

uaxa, uaxia

UGARAXO, IGEL

rana

ubal, ubala

UHAL

korrea, zintuna; gerriko

correa; cinturón

ubal (eta *ubel* [Altsasu]) iz. Uhala; gerriko uhala. Ik. **hede**; **gerriko**. ▲ Sin. *korrea*, *zintun(a)*.

ubalaga

IGARABA

ubaraga

nutria

ubalaga [Bakaiku] iz. Igaraba (Lutra sp.). Ik. **ubaraga**.

ubalaiza

UGARAXO, IGEL

rana

ubalde, ubaldia

UHALDE, UHOLDE

inundazio

inundación, anegamiento

ubalde (eta *ubelde*) [Altsasu, Urdiain] iz. Uholdea; eurite handiaren ondorioz, ibaiek gainez egitea eta lur eremuak urez estaltzea. ▲ Sin. *inundazio*. {"*ubaldí*, la crecida de agua" (Iza Alts)}.

uban, ubana

JALKIN LUR; 2 MEANDRO

tierra de aluvión
meandro (de un río)

uban (eta *uana*) **1** iz. Jalkin lurra. *Ibai ondoko lurrak, urak autzitako lurrak*. Ik. **harelur**. **2** iz. Meandroa.
[OEH. uharan (Aq 1469), ugaran (V-ple-m, G, AN, Sal ap. A; Aq 743 (G, AN)). 1. Ribera, orilla. Mendi, zelai, ugaran, / euri, aize, sargori. Gazt Muslx 189 (Or ib. 199 ugalde, Onaind ib. 207 uralde). (G ap. A ← Aq). "Banda opuesta del agua, uarana (G). Uarangoa naiz" Aq 265. 2. (L ap. A ← Dv). "Dépression entre deux versants, par où s'écoulent les eaux" Dv. 3. (V-gip ap. A), ubaran (V-gip ap. A), ugaran (V-m ap. A). "Ubaran (V-gip), barrio. Algunos lo pronuncian uaran. Zazpi ubaran dauko Mundraguek" A. 4. **uana** (G-nav). "Meandro. Urdiainen ditugu iru uana" Satr (comunicación personal)].

ubaraga, ubaragia

IGARABA

ubalaga [Bakaiku]

nutria

ubaraga iz. Igaraba (Lutra sp.). Ald. **ubalaga** [Bakaiku].

ubari

UGARI

abundante; productivo, -a; fértil, fructífero, -a
en abundancia

ubari yon / ugari yon

UGARI EGON

en abundancia

ubari egon (> *ubari yon*) ad. Ugari egon. *Aurten ubari do gauzĭa* 'aurten ugari dago gauza'.

ubarka, ubarkia

UHARKA, PRESA

erreten, presa; parada

presa (de agua), represa, embalse
presa, dique

ubarka iz. Uharka, presa. Ik. **erreten**; **parada**; **presa**.

ubarkagain, ubarkagaina

PRESAGAIN; UHARKA

presa, represa

ubarkagain iz. Uharkaren gaina, presagaina; urtegia. *Ubarkagaineti iten zain salto ibaiko uretá* 'uharka gainetik egiten zuten salto ibaiko uretara'.

ubarkazpi, ubarkazpia

UHARKA AZPI

vertedero de la presa

ubarkazpi iz. Uharkaren azpia, presaren azpia.

ubarreta

ELUR-ERRAKETA, SAREPALA

raqueta, que se pone en los pies para andar por la nieve

ubarreta iz. Batez ere pl. *ubarretak*. elur-erraketa; elurretan ibiltzeko oinetan jartzen diren erraketak (sarepala). • Esr. zah. *San Martin ubarretakin, San Andres polainakin*. [OEH. bularreta; galarreta / golarreta].

ubaxa, ubaxia

UGARAXO, IGEL

rana

ubaxa (eta *uaxa*; *uberaxa* [Altsasu]; *ubalaiza*, *igualaiza* [Bakaiku]) iz. Ugaraxoa, igela (Fam. Ranidae eta Fam. Hylidae). *Ubaxak, kirri-karra kantaitan* 'ugaraxoak, korroka kantaitan [kantatzen]'.

ubaz- / ubez-

UGAZ-

prefijo análogo al sufijo español -astro, -astra (designa familiares que vienen de una nueva

ubaz- (eta *ubez-* [Altsasu]) (aurrizkia). *ubezaita*, *ubezalaba*, *ubezama*, *ubezseme*, eta abar. (Iza Alts). Garai batean erabiltzen zan. ◆ **ubezsenide** ([Altsasu], *ubazsenide* [Urdiain]) iz. Ugasenidea, anai-arrebaordea. *Ubezsenidik* (Iza Alts).

ubazahizpa, ubazahizpia

UGAZAHIZPA, AHIZPAORDE

hermanastra

ubazahizpa (> *ubazaizpa* eta *ubezaizpa*) iz. Ugazahizpa, ahizpaordea. Ik. **ubazsenide**.

ubazaita

UGAZAITA

padrastro

ubazaita (eta *ubezaita* [Altsasu]) iz. (g.g.er.) Ugazaita, aitaordea.

ubazalaba, ubazalabia

UGAZALABA, ALABAORDE

hijastra, hija adoptiva

ubazalaba (eta *ubezalaba* [Altsasu]) iz. Ugazalaba, alabaordea.

ubazama

UGAZAMA, AMAORDE

madrastra
madre adoptiva

ubazama (eta *ubezama* [Altsasu]) iz. Ugazama, amaordea.

ubazanai, ubazanaia

UGAZANAIA, ANAIORDE

hermanastro

ubazanai iz. Ugazanaia, anaiordea. *Ameiketati dirua bialdu zĭan ubazanaiek* 'Ameriketatik dirua bidali zion ugazanaiak'. Ik. **ubazsenide**.

ubazseme, ubazsemia

UGASEME, SEMEORDE

hijo adoptivo
hijastro

ubazseme (eta *ubezsemí* [Altsasu]) iz. Ugasemea, semeordea.

ubazsenide

UGASENIDE, ANAI-ARREBAORDE

hermanastros (hermanastros y hermanastras) pl.

ubazsenide (eta *ubezsenide* [Altsasu]) iz. Ugasenidea, anai-arrebaordea. *Ubezsenidik* (Iza Alts).

ubelde

UHALDE, UHOLDE

inundazio

inundación, anegamiento

ubelde iz. Uholdea. Ik. **ubalde**.

uberaxa

UGARAXO, IGEL

rana

uberaxa ([Altsasu] eta *ubaxa* [Urdiain]; *ubalaiza*, *igualaiza* [Bakaiku]) iz. Ugaraxoa, igela. Ik. **ubaxa**.

ubezaita

UGAZAITA

padrastro

ubide, ubidia

UBIDE

urzuin

aguanal (surco abierto para facilitar el desagüe de los sembrados)
acequia, zanja, canal, conducto de agua, cauce

ubide iz. Euri urak ateratzeko, soroetan tarteka egiten den ildaska sakona. Ik. **urzuin**. *Uguně zan sorwen goldĭekin zanjak, ubidĭek, atatzen zĭan; sorwa gelditzen zan arino, bestela ito iten zan* 'urgunea zen soroan goldearekin zangak, ubideak, ateratzen ziren; soroa gelditzen zen arinago, bestela ito egiten zen'. || *Airĭen gelditzeko sorwa, atatzen zĭan ubidĭek goldĭekin* 'airean gelditzeko soroa, ateratzen ziren ubideak goldearekin'.

uda, udia

UDA

verano, estío

uda iz. Lau urtaroetan beroena. *Lastima udan basuen galtzen dien itzalak* (Ond Bak). *Bai egunan otza; eztau ematen udan genik!* 'bai egunaren hotza; ez du ematen udan gaudenik!'. ◆ **uda alde**, **uda aldien**. Uda garaia; uda garaian. *Lan oiek obeto uda aldĭen itĭa* 'lan horiek hobeto uda aldean egitea'. ◆ **uda furian** (> *uda furien*) adb. Uda betean. ◆ **uda garaia**.

udaberri, udaberria

UDABERRI

primabera

primavera

udaberri iz. *Jende zarrok beti espĭa udaberria noiz etorriko, udaberria elduzkioz urte bat geio bizia, bea urte bat zarro ordia!* 'Jende zaharrok beti esperoan udaberria noiz etorriko, udaberria helduz gero urte bat gehiago bizia, baina urte bat zaharro ordea'. ▲ Sin. *primabera*.

udaizken

UDAZKEN

otoño

udaizken [Altsasu] iz. Udazkena. Ik. **udazken**.

udara garratx, udara garratxa

UDARE PIKORTSU

peral silvestre (Pyrus cordata); pera silvestre
pera (variedad de pera de carne granulosa)

udara garratx **1** iz. (Bot.) Basoko udarea (Pyrus cordata). **2** iz. Haragi pikortsua duen udare mota.

udara, udaria

UDARE

txermen

pera
peral (Pyrus communis)

udara iz. Udarea; udareondoaren fruitua. *Udarĭek duka azala txermena baindo latzokwa, gogorrokwa, bea konpotĭa iteko udarĭa da goxokwa* 'udareak dauka azala txermena baino latzagoa, gogorragoa, baina konpota egiteko udarea da goxoagokoa'. Ik. **txermen**. **2** iz. Udareondoa. ◆ **negu udara**. (Bot.) Neguko udarea; fruitua eta arbola (Pyrus communis). *Udazkenĭen biltzen dĭa negu udarak, ta, labien inda, oso onak dĭa* 'udazkenean biltzen dira negu udareak, eta, labean eginda, oso onak dira'. ◆ **udara arbola**. Udareondoa. ◆ **udara garratx 1** iz. (Bot.) Basoko udarea (Pyrus cordata). **2** iz. Haragi pikortsua duen udare mota. ◆ **udara ondo**. *Udara ondo* (Ond Bak).

udatzen, udatzena

UDAZKEN

otoño

udatzen [Bakaiku] iz. Udazkena. Ik. **udazken**.

udazkein, udazkeina

UDAZKEN

otoño

udazkein [Urdiain] iz. Udazkena. Ik. **udazken**.

udazken, udazkena

UDAZKEN

udaizken [Altsasu]; udazkein [Urdiain]; udatzen

otoño

udazken (eta *udaizken* [Altsasu]; *udazkein* [Urdiain]; *udatzen* Bakaiku]) iz. Udaren ondoko urtaroa. *Jende askondako udazkeina da urteko garairik onena* 'jende askorendako udazkena da urteko garairik onena'.

uf

UF

¡uf! (voz con la que se denota cansancio, fastidio, sofocación, etc.)

uf interj. Nekearen, aspertzearen edo kidekoen adierazle den hitza. *Uf, au berwen zakarra iten dena!* 'uf, hau beroaren zakarra egiten duena!'.

ufada, ufadia

UFADA

soplo, soplido

ufada iz. Ufakoa. *Ufadĭa*. ◆ **haize ufada** iz. Haize ufakoa, haize bolada. Ik. **haize bolada**.

ugari, ugaria

UGARI

abundante; productivo, -a; fértil, fructífero, -a
en abundancia

ugari (eta *ubari*) **1** adj. Dagokionetik asko duena edo asko ematen duena; emankorra. **2** adb. Kopuru handian; ugaritasunez. ◆ **ugari egon** (> *ugari / ubari yon*). *Aurten ubari do gauzĭa* 'aurten ugari dago gauza'.

ugaritasun (?)

ugaritu (?)

uguna, ugunia

URGUNE

aguazal, terreno encharcado

uguna iz. Ur gunea, hezetasun handia duen eremua. *Txungak etortzen dĭa ugunetan* 'txungak [ihiak] etorzen dira urguneetan'. Ik. **urtoki**.

uhata, uhatia

UR-AHATE*, ZERTZETA

cerceta

uhata (eta *ubata*) iz. Zertzeta (Anas crecca). *Ur-ahatea**; klase askotako ibaiko ahate txikiak. Ik. **pato**. ◆ **uata txiki**.

ukatu, ukatzen

UKATU

negar; desmentir
denegar, negar

ukatu

ukulondo

UKALONDO, UKONDO

codo

ukulondo [Altsasu] iz. Ukalondoa. Ik. **okolondo**.

ume-hazi

BIZITARAKO HAZI, BIZITARAKO UTZI

aurreako hazi, aurreako autzi

criar un animal no para sacrificarlo, sino para que viva o para procrear

ume-hazi. Bizitarako hazi, bizitarako utzi. *Urde ume-aziya antzu do guaindo* (Ond Bak). Ik. **aurrerako hazi** (> *aurreako azi*); **aurrerako autzi** (> *aurreako autzi*). ¬

ume, umia

UME

haur

niño, -a; crío, -a
cría

ume **1** iz. Haurra. *Andra ume in berria* 'andre ume egin berria'. Ik. **haur**.
– ume txiki
◆ **umea bota** (> *umĭa bota*). Batez ere animaliengatik hitz eginez, umea galdu, abortatu. *Urde honek umia bota bêr din. Urde honek umiek bota bêr jitun* (Ond Bak).
◆ **umea(k) egin** (> *umĭa in* / *umĭek in*) **1** Animalia emeez mintzatuz, ugaldu, ondorengoak izan; erditu. **2** Emakumeez mintzatuz, umea izan. Ik. **haurra egin** (> *aurra in*).
◆ **umea galdu** (> *umĭa galdu*). **1** Emakume haurdunengatik hitz eginez, umekia hila gertatu. Ik. **abortatu**. **2** Animaliengatik hitz eginez, ernari dagoen animaliaren umea hil.
◆ **ume bat izan**. Ume baten jokaera izan. *Ume bat don, ezton zogitzen* 'ume bat dun; ez dun zogitzen'.
– umetako. Umetako hartu dau.
– umetan. Ik. txikitan.
◆ **umetati(k)** adb. Ume garaitik. ¬

umealdi, umealdia

UMEALDI

camada

umealdi iz. Sabelaldia; erditze berean munduratzen diren umeen edo haurren multzoa. *Lenbiziko umealdien in zituben hamairu* (Ond Bak). || *In dau umealdi bat!* 'egin du umealdi bat!'.

umedade
UMEDADE, HEZETASUN

hezetasun

humedad

umedade iz. Hezetasuna. Ik. **hezetasun**. ¬

umedun, umeduna
UMEDUN

embarazada; preñada, cubierta, cargada
hembra que ha parido

umedun adj. Umeak dituena. *Urde umeduna, txerrikuma duna*. *Urde umeduna hil in da* (Ond Bak).

umekeia
UMEKERIA

haurkeia

niñería, niñada, chiquillada, puerilidad

umekeria (> *umekeia*) iz. Umeari dagokion egintza gaitzesgarria. Ik. **haurkeria** (> *aurkeia*). ◆ **umekeriatan** (> *umekeietan*) adb. *Beti umekeietan daitza* 'beti umekeriatan dabiltza'.

umel, umela
UMEL

heze

húmedo, -a
fruta, hortaliza manida, pasada

umel **1** adj. Hezea. *Umela*. Ik. **heze**. 2 adj. Galtzen hasia, usteltzen hasia.

umeldu, umeltzen
UMELDU

manirse, pasarse la fruta, hortaliza...

umeldu **1** *da/dau* ad. Hezetu. **2** *da/dau* ad. Helduegiz, usteltzen hasi. *Izotzak raso umeldu dau perrejila plantĭa* 'izotzak arras umeldu du perrexila landarea.

umetoki, umetokia
UMETOKI

útero; matriz

umetoki iz. Ugaztun emeen sabelaldeko barrunbea, umekia, jaio arte, edukitzen duena.

umetxo, umetxua
UMETXO

bebé; párvulo, -a; niñito, -a

umetxo iz. Ume txikia; (Adkor.) umea. *Umetxuet* 'umetxo bat'.

umezale, umezalia
UMEZALE

haurzale

niñero, -a; que le gustan los niños

umezale adj. Umeen zalea dena, umeak atsegin dituena. Ik. **haurzale**. *Ezta batere umezalĭa* 'ez da batere umezalea'.

umezur, umezurra
UMEZURTZ

huérfano, -a

umezurz
UMEZURTZ

huérfano, -a

umezurtz (> *umezurz* [Altsasu]; *umezur* [Urdiain]) iz. Gurasoetako bat, edo biak, hilak dituen haurra.

umia bota
UMEA BOTA

abortar

umea bota (> *umĭa bota*). Batez ere animaliez mintzatuz, umea galdu, abortatu. *Urde honek umia bota bêr din*. *Urde honek umiek bota bêr jitun* (Ond Bak).

umia galdu
UMEA GALDU, ABORTATU

perder el niño / la niña; abortar

umea galdu (> *umĭa galdu*). **1** Emakume haurdunez hitz eginez, umekia hila gertatu. Ik. **abortatu**. **2** Animaliez hitz eginez, ernari dagoen animaliaren umea hil.

umia in
UMEA EGIN, ERDITU

haurra in

parir

umea(k) egin (> *umĭa in* / *umĭek in*) **1** Animalia emeez mintzatuz, ugaldu, ondorengoak izan; erditu. **2** Emakumeez mintzatuz, umea izan. Ik. **haurra egin** (> *aurra in*).

umil, umila
UMIL

humilde, sencillo, -a, modesto, -a

umil **1** adj. Apala, harrokeriarik gabea. *Jende umila*. **2** (Adizlagun gisa). ◆ **umil-umila** adb.

umildade, umildadia
UMILDADE

umiltasun

humildad, sencillez, modestia

umildade iz. Umiltasuna, apaltasuna. Ik. **umiltasun**.

umildu, umiltzen
UMILDU

volverse humilde, humillarse

umildu *da/dau* ad. Apaldu, umil bihurtu.

umillatu, umillatzen
UMILIATU

humillar, menospreciar

umillatu da/dau ad. Umiliazioa jasan edo jasanarazi.

umillazio, umillaziua
UMILIAZIO

humillación

umillazio iz. Umiliazioa.

umiltasun, umiltasuna
UMILTASUN

umildade

humildad

umiltasun iz. Apaltasuna (bertutea). ▲ Sin. *umildade*.

umore, umoria
UMORE

humor, sentido del humor

umore iz. *Umore ona*. *Umore txarra*. *Umore ona jon plazan* 'umore ona zagon plazan'. *Umoreik ez, umoreipe* 'umorerik ez, umorerik gabe'.

umoretsu, umoretsua

UMORETSU

de buen humor

umoretsu **1** adj. Umore onekoa. **2** (Adizlagun gisa).

unguentu, unguentua

UKENDU

untura, pomada

ungüento

unguentu iz. Ukendua. Ik. **untura**; **pomada**.

unibersidade, unibersidadia

UNIBERTSITATE

universidad

unibersidade iz. Unibertsitatea.

unibersu, unibersua

UNIBERTSO

universo

unibersu iz. Unibertsoa; espazioan eta denboran diren gauza eta gertakari guztien multzoa. *Unibersu aundia* 'unibertso handia' (LM).

unidade (?)

UNITATE, BATASUN

unidad

unidade iz. Batasuna.

unide, unidia

INUDE

amaordeko

nodriza; ama de cría

unide iz. Inudea; inoren haurrari bularra ematen dion edo hura zaintzen duen emakumea. Ik. **amaordeko**.

uniforme, uniformia

UNIFORME

uniforme

uniforme iz. Talde baten jantzi bereizgarria, kide guztiek eramaten dutena. *Uniformĭa jantzita ata dĭa momoxarro* 'uniformea jantzita atera dira momoxarro [inautetan jantzita]'.

unio, uniua

BATASUN; ELKARTASUN

alkartasun, batasun

unión

unio **1** iz. Batasuna, elkartasuna. Herriontan ezto unioik. Ik. **alkartasun**; **batasun**. **2** iz. Lotura, piezen artekoa.

unitu, unitzen

BATU; LOTU

alkartu; lotu

unir(se), juntar(se)

unitu *da/dau* ad. Alkarrekin ondo unitzen dia (alkarrekin ondo izan, konpondu). Ik. lotu; alkartu.

untagarri, untagarria

GOZAGARRI, BIZIGARRI, ONGAILU

kondimentu (?)

adobo, aliño, condimento, aderezo; especia

unto

untagarri **1** iz. Janariak ontzeko gaia. Txerrieiri pensua yosi ta gio untagarria botatzen zezaion. *Untagarria dukalakuen jan dik txakurrak ogi hoi*. ▲ Sin. *kondimentu*. **2** iz. Frijitutako koipea, gantza. *Ogia untagarrien untatu*.

untatu, untatzen

GANTZUTU, IGURTZI

untar

sobornar

untatu **1** *dau* ad. *Ogia untatu*. *Untagarriekin untatu*. | *Botinak gilborriekin untatu*. **2** *dau* ad. Lgart. Erosi; mesede, diru edo opari truke norbaitengandik zilegi ez den eran zerbait lortu. *Alkatĭa untatuko zaiken* 'alkatea untatuko [erosiko] zitean'. ¬

unto, untua

BASI, SALTSA, KOIPE

salsa

unto, sustancia para untar

unto iz. Basia, saltsa, koipea. Ik. **salsa**.

untura, unturia

GANTZU, UKENDU

pomada

untura

untura iz. Gantzua, ukendua. Ik. **pomada**. ◆ **untura eman** (> *unturĭa eman*).

untzi

EULTZI

parva, trilla

uo!

ISO

voz con que se incita a parar al ganado vacuno

uo (> *wo* eta *bwo*) interj. Abelgorriei geldi daitezen esaten zaien hitza. *Ganauai aida ta uo, astwai arre ta so* 'ganaduari aida eta uo, astoari arre eta so'.

ur arratoi, ur arratoia

UR ARRATOI

ur sagu

rata de agua (Arvicola sapidus)

ur arratoi iz. Ugaztun karraskari anfibioa (Arvicola sapidus). ▲ Sin. *ur sagu*, *ursagu* [Bakaiku, Atsasu].

ur azpi

UR AZPI

urpe

ur gain

espacio bajo el agua

ur azpi iz. Ik. **urpe**. ▼ Anton. *ur gain*.

ur bedeinkatu ontzi, ur bedeinkatu ontzia

ur bedeinkatu ontzi iz. (Bot.) *Kardu altua, errenez beteik, ihintza biltzen dena*.

ur bedeinkatu, ur bedeinkatua

UR BEDEINKATU

agua bendita

ur bedeinkatu. Kristau erlijioan, apaiz batek bedeinkaturiko ura. *Ur bedeinkatuen pontĭa* 'ur bedeinkatuaren pontea [ontzia]'.

ur gain, ur gaina

UR GAIN

ur azpi, urpe

superficie del agua

ur gain. Ur azala. ▼ Anton. *ur azpi*, *urpe*.

ur sagu

UR SAGU, UR ARRATOI

ur-arratoi

ratón de agua; rata de agua (Arvicola sapidus)

ur sagu (> *ur-sau*, *ur-xau*) iz. *Ur-sagubek* (Ond Bak). Ik. **ur-arratoi**.

ur sau, ur saua

UR SAGU, UR ARRATOI

ratón de agua; rata de agua (Arvicola sapidus)

ur txistin

UR TANTA (TXIKIA)

gota diminuta de agua

ur txistin. (Iza Alts) Ur tanta txikia (?).

ur zulo, ur zulua

UR ZULO

socavón (producido por una corriente subterránea de agua)

ur zulo. Lur azpiko urak sortutako zuloa.

ur-begi, ur-begia

ITURBEGI

iturrien ama, iturribegi

fuente, manantial, ojo de agua

ur-begi iz. Iturbegia, iturburua. ▲ Sin. *iturrien ama*, *iturribegi*.

ur-salto, ur-saltua

UR-JAUZI

salto de agua; catarata, cascada

ur salto iz. Ur jauzia. *Ur saltwa*.

ur, ura

UR

zumo

agua; agua corriente
zumo; jugo

ur 1 iz. (-r- bakunarekin). Ik. **lurrun**; **izotz**. *Gwai artĭen yon ga uripe etxĭen* 'orain arte egon gara urik gabe etxean'. *Marsukuá* [elurra], *urá*.
– ur-putzu, ur-putzua.
– ura yan 'edan'.
– ura yan 'eraman', ura ekarri. Baserrita ura yan dai
– [fruta]-ura. Zukua; naranja ura 'laranja zukua'; limon ura 'limoi zukua'. Ik. **zumo**.
◆ **ur bedeinkatu**. Kristau erlijioan, apaiz batek bedeinkaturiko ura. *Ur bedeinkatuen pontĭa* 'ur bedeinkatuaren pontea [ontzia]'.
– txolosta ura.
– ur korriente, ur korrientia.
– iturriko ura.
◆ **urak hartu** *dau* ad. Ehunez edo arropez mintzatuz, bustitzearen ondorioz tamainaz txikitu. *Arropĭa urak artu* 'arropa urak hartu'. *Bazpare, pantalon berrieiri-ta obe don azpilzanĭa garbitu ondorĭen artzĭa, urak artzen baldin jitun'e, motxai ez auzteko* 'badaezpada ere, praka berriei-eta hobe dun azpildura garbitu ondoren hartzea, urak hartzen baldin baditin ere, motzegi ez uzteko'.
– ura aldatu
– ur haundi, ur haunditan.
– ur txiki, ur txikitan.
– ur garbia, ur zikina.
– ur gaina, ur gainien; ur azpia, ur azpien. Ik. **urpe**.
◆ **ur salto** iz. Ur jauzia.
– ura jaio. *Ura jaiotzen dan lekua*.
– uretan (biatzen 'beratzen') patu.
• **urari bulka egin** (> *urai bulka in*). *Berriz'e urai bulka in berko jianu, etxon beste erremeioik* 'berriz ere urari bulka egin behako zionagu' [Zoritxar edo ezbehar bati aurre egiteko erabiltzen den adierazpena].
– [Infusión; agua de, agua donde se ha hervido algo; solución o emulsión en agua]: kedar-ura, asun-ura, sagona-ura, limon-ura, azukara ura...
– Ez ur ez gatz [(ganoragabe(ko)] Sustanzia beiko.
– ura iyekinazi.
– ura yosi 'egosi'. Patzak ura yosten.
◆ **ur-arratoi** iz. Ugaztun karraskari anfibioa (Arvicola sapidus). ▲ Sin. *ur-sagu* [Bakaiku]; *ursagu* [Atsasu].
– ur gatzia; ur lela; ur gozo.
– ur-ñarra.
– ur-putzu (paltsa).
◆ **ur-sagu** (> *ur-sau*, *ur-xau*) iz. *Ur-sagubek* (Ond Bak). Ik. **ur-arratoi**.

urain

EDUKI

idugi, ibili

tener

urain *dau* ad. Eduki, ibili (Iza Alts). Ald. **urei(n)**, **urai(n)** (Iza Alts). Ik. **idugi**; **ibili**.

urak ata

URAK ATERA

ibaiek ata, ubelde (Iza)

desbordar(se) (el río, las regatas...)

urak atera (> *urak ata*). Ibaiak, errekak (...) gainezka egin. Ik. **ibaiak atera** (> *ibaiek ata*); **ubelde**.

urak hartu

URAK HARTU

encoger (una tela o una ropa por efecto del agua)

urak hartu *dau* ad. Ehunez edo arropez mintzatuz, bustitzearen ondorioz tamainaz txikitu. *Arropĭa urak artu* 'arropa urak hartu'. *Bazpare, pantalon berrieiri-ta obe don azpilzanĭa garbitu ondorĭen artzĭa, urak artzen baldin jitun'e, motxai ez auzteko* 'badaezpada ere, praka berriei-eta hobe dun azpildura garbitu ondoren hartzea, urak hartzen baldin baditin ere, motzegi ez uzteko'.

urakan, urakana

URAKAN

huracán

urakan iz. *Urakana, yauri aundiko ekaitza* 'urakana, euri handiko ekaitza'.

uralita, uralitia

URALITA

uralita

uralita iz. Amiantoz eta zementuz eginiko materiala, iraunkorra eta erregaitza, hoditeriak eta estalkiak egiteko erabili izan dena. *Uralitazko teilatua bota dĭa* 'uralitazko teilatua bota [jarri] dio'. *Uralitĭa ezta osasuntsua, galtegarria da* 'uralita ez da osasuntsua, kaltegarria da'.

urdai betadun, urdai betaduna

HIRUGIHAR

tocino entreverado

urdai betadun. Hirugiharra, gihar zerrendak tartekaturik dituen urdaia.

urdai, urdaia

URDAI

tocino

urdai iz. Txerriaren azal azpiko gantz trinkoa, berotuz edo frijituz urtzen ez dena. *Ilberriko urdaia iten da zartagian lehenbizien hazi* (Ond Bak). *Urdai kuratua* 'urdai gazitua'. *Urdai azala*. *Urdai azala ondo txigortwik* 'urdai azala ondo txigorturik'. Ik. **azpiazal**. ◆ **urdai betadun**. Hirugiharra, gihar zerrendak tartekaturik dituen urdaia.

urdaiazpiko, urdaiazpikua

URDAIAZPIKO

pernil, jamon

jamón

urdaiazpiko iz. Ik. **pernil**; **magra**; **jamon**.

urdail (?)

urdail (?) ¬

urde, urdia
URDE

txerri; 2 txerri, zikin

cerdo, -a

puerco, -a, cerdo, -a, asqueroso, -a; sucio, -a, grosero, -a; cicatero, -a, mezquino, -a

urde **1** iz. Txerria. Ik. **txerri**; **basurda**. || Urde: haundiek bakarrik, ar-eme. Urde hori ernai do (Ond Bak). —Lau urde dekatzau. —Eta hura? —Hura ezta urdiá, hura txerri gaztiá da (Ond Bak). **2** adj. Zikina. *Ago ixilik, urde zikinoi!* 'hago isilik, urde zikin hori!'. ▲ Sin. *txerri*, *zikin*. ◆ **urde zikin** adj. (Irain gisa).

urdetei, urdeteia
URDETEGI, TXERRITEGI

hei(a), txerritei, tegi, kortin

pocilga

urdetegi (> *urdetei*) [Bakaiku] iz. Txerritegia. *Urdiék urdeteién hil* (Ond Bak). Ik. **hei(a)** (eta *haia*); **txerritei**; **tegi**; **kortin**.

Urdin
URDIAIN

Urdiáin

Urdin iz. Urdiain. *Urdiaingo bertakwek "Urdin" esaten dĭai ebein herriai* 'Urdiaingo bertakoak "Urdin" esaten diote euren herriari'.

urdin, urdina
URDIN

azul

urdin adj./iz. *Urdin argia*; *urdin iluna*. *Zeru urdina*. *Begi urdinak*.

urdindu, urdindua
UBELDURA

cardenal, moradura

urdindu[2] iz. Ubeldura, ubeldua.

urdindu, urdintzen
URDINDU; 2 UBELDU, USPELDU

azular(se); azulear

amoratar(se), acardenalar(se)

urdindu[1] **1** *da/dau* ad. Kolore urdina hartu edo eman. **2** *da/dau* ad. Kolore ubela hartu, bereziki larruazalaren zati batek. ◆ **urdindu arte eman** (> *urdindu artĭa eman*) *dĭa* ad. Galantak eman.

urdintar, urdintarra
URDIAINDAR

urdiaindarra; natural de Urdiáin

perteneciente o relativo a Urdiáin o a los / las urdiaindarras

urdiaindar (> *urdintar*) **1** adj. Urdiaingoa, Urdiaini dagokiona. **2** iz. Urdiaingo herritarra. • Esr. zah. *Urdintarra jentila, arrua t'erdiko bonbila* (Ond Bak).

urdintasun, urdintasuna
URDINTASUN

cualidad de azul

urdintasun iz. Urdina denaren nolakotasuna. *Zeruko urdintasuna*. *Zerua urdintzen danĭen: au urdintasuna!* 'zerua urdintzen denean: hau urdintasuna!'.

urdintxo, urdintxua
URDINXKA

azulado, -a

urdintxo adj. Urdinxka.

urei EDUKI

ibili, idugi

tener

urei ad. Eduki, ibili (Iza Alts). Ald: *urein*, *urain*. Ik. **idugi**; **ibili**.

ureztatu, ureztatzen (?) UREZTATU

erregatu

regar, irrigar

ureztatu *dau* ad. *Seko-sekua jok ta ureztatzak* 'siku-sikua zagok eta urezta ezak' (LM). Ik. **erregatu**.

urjente, urjentia URGENTE

urgente

urjente adj. Urgentea, presakoa. *Otsain medikuai listo etortzeko, urjentĭa da-ta!* 'hots egin medikuari listo [azkar] etortzeko, urgentea da eta!'.

urjenzia URGENTZIA

urgencia

urjenzia iz. Urgentzia, larrialdia. *Ezta urjenzia aundiko kontua* 'ez da urgentzia handiko kontua'.

urkaldu URKULDU

yakurri

desgranar

urkaldu [Bakaiku] *dau* ad. Urkuldu, aletu. *Artoa urkaldu*. Ik. **yakurri**.

urkatu, urkatzen URKATU

ahorcar(se)

urkatu *dau* ad. Soka batez lepotik zintzilikatuz hil. *Urkatu in da* 'urkatu egin da'. || (Irud.) *Giaure burua lanĭen urkatwik eman du bizi guztĭa* 'geure burua lanean urkaturik eman dugu bizi guztia'.

urki, urkia URKI

abedul (Betula sp.)

urki iz. (Bot.) (Betula sp.).

urno, urnua URNO [OEH]

espiga de trigo; residuos de trigo, maíz, etc., en el campo

urno iz. Batez ere pl. *urnwek*. Galburua; garia bildu den soroan geratzen diren galburu bakanak. *Urnwek, sorotan gelditzen zĭan gari buru bakarrak* 'urnoak, soroetan gelditzen ziren galburu bakarrak'. *Paxo bat urno bildwot* 'sorta bat urno bildu dut'. ◆ **urnotara** (> *urnotá*) adb. Urnoak biltzera. *Ordik urnotá!* 'hoa urnotara'.

uroilo, uroilua UROILO

polla de agua; calamón

uroilo iz. Hegazti zangaluzea, moko sendo gorria eta luma ilunak dituena, zingira eta ibaietan bizi dena (Gallinula sp.).

urpe, urpia
URPE

ur azpi

espacio bajo el agua; fondo, profundidad

urpe iz. Ur azpia. (Batez ere leku atzizkiekin erabiltzen da, singularrean). *Urpĭen* 'urpean'. *Urpĭa sartu* 'urpera sartu'. Ik. **ur azpi**.

urradura, urraduria
URRADURA

urratu

rasguño, rasponazo
desgarro

urradura iz. Urratua. ▲ Sin. *urratu*[2].

urratu, urratua
URRATU

arrastada, urradura

rasguño, arañazo, rasponazo; brecha; herida

urratu[2] iz. Urratzearen ondorioa. Ik. **arrastada**; **urradura**.

urratu, urratzen
URRATU

rasgar, desgarrar

urratu[1] ad. *Belaunak urratwik dukatzi* 'belaunak urraturik dauzka'. *Zapata estuok opwa urratu dwai* 'zapa estuok orpoa urratu didate'.

urre kolore, urre koloria
URRE-KOLORE

dorado

urre kolore. **1** adj. Urre kolorekoa. **2** iz. Urre kolorea.

urre, urria
URRE

oro

urre **1** iz. *Orrek urrĭa balio dau* 'horrek urrea balio du'. *Urrezko txanpona*. • Esr. zah. *Dirudien guzia ezta urria* (Ond Bak). ◆ **ontza-urre**. *Ontza-urrĭá*. Ontzako urrea; diru zaharra. **2** iz. Karta espainoletako lau sailetako bat. Bateko urre (> *battiko urre*). ◆ **urre kolore**. **1** adj. Urre kolorekoa. **2** iz. Urre kolorea.

urrezko, urrezkua
URREZKO

de oro

urrezko adj. *Urrezko gatĭa* 'urrezko katea'. ◆ **urrezko eztai**. (pl.) Urrezko ezteiak. *Urrezko eztaiek in tuai* 'urrezko ezteiak egin dituzte'.

urreztatu, urreztatzen
URREZTATU

2 abeastu

dorar, cubrir de oro
enriquecer(se), hacer(se) rico

urreztatu **1** *dau* ad. Urrez estali; urre kolorez estali. Ik. **doratu**. **2** *da* ad. (Irud.) Aberastu. *Txerriek salduta, oiek urreztatu tuk* Txerriak salduta, horiek urreztatu dituk (LM). Ik. **aberastu** (> *abeastu*).

urri-ziza zopa, urri-ziza zopia
URRI-ZIZA ZOPA

sopa de plateras (setas)

urri-ziza zopa. Ogiarekin eta urri-zizekin egiten den zopa.

urri-ziza, urri-zizia

SAN MARTIN ZIZA

platera, cabeza de fraile (Clitocybe geotropa)
pardilla (Lepista nebularis)

urri-ziza iz. Trikolomatazeoen familiako zizak, oin biribil luze samarra eta txapela inbutu itxurakoa duena, kolorez hori zurixka dena. ◆ **urri-ziza beltz** (Clitocybe nebularis edo Lepista nebularis). Ilarraka. ◆ **urri-ziza zuri** (Clitocybe geotropa). San Martin ziza. ◆ **urri-ziza hanka mehe(a)**. ◆ **larreko urri-ziza**. ◆ **pagadiko urri-ziza** (> *padiko urri-ziza*). ◆ **urri-ziza zopa**. Ogiarekin eta urri-zizekin egiten den zopa.

urri, urria (1)

URRI

gutxi, eskas

escaso, -a, poco, -a, exiguo, -a, falto, -a, parco, -a
poco, -a, escaso, -a

urri[1] **1** adj. *Bai litro urria eman duana!* 'bai litro urria eman didana!'. **2** adb. *Aurten sarra urri do* 'aurten sagarra urri dago'. Ik. **gutxi**; **eskas**.

urri, urria (2)

IRAIL

se(p)tiembre

urri[2] iz. Urteko bederatzigarren hila; iraila. • Esr. zah. *Urrien, yuzkiek haitzak erre. Urri jorrĭa* 'urri jorra [iraileko jorraldia]'.

ursagu, ursagua

UR SAGU

ur arratoi

ratón de agua; rata de agua (Arvicola sapidus)

ursagu iz. {"La rata de río que come plantas" (Iza Alts)}. Ik. **ur sagu**; **ur arratoi**.

ursula (anisa)

UXUAL, ANIS

anís, aguardiente anisado

ursula iz. Anisa. Ik. **usual** (?).

urtabe, urtabia

URTABE

año, añada, temporada de un año; (buen) año agrícola; año de abundancia

urtabe iz. (*urtabe ona*, *urtabe txarra* esapideetan, 'uzta oneko urtea', 'uzta txarreko urtea' adierazteko). *Urtabĭa, orretako urtĭa, urte aproposa* 'urtabea, horretarako urtea, urte aproposa'. *Arkakusweindako urtabĭa (urte ona)* 'arkakusoendako urtabea (urte ona)'. *Aurten urtabe ona*.

urte garai, urte garaia

URTE-GARAI, URTE SASOI

época, temporada del año

urte garai iz. Urteko garaia; urte sasoia. *Jende askondako udazkeina da urte garai onena* 'jende askorendako udazkena da urte-garai onena'. *Urte garai txarrenĭen asi dĭa teilatua konpontzen* 'urte garai txarrenean hasi dira teilatua konpontzen'.

urte, urtia

URTE

año

urte iz. Bi urtien. Urte batien (Ond Bak). || *Urtĭa, zarroindako luzia dalakuen, motxa; ta motxa dalakuen, luzia* 'urtea, zaharrondako luzea delakoan, motza; eta motza delakoan, luzea'.
◆ **datorren urte**. *Datorren urtĭen ezkonduko dĭa* 'datorren urtean ezkonduko dira'. Ik. **heldu dan urte**.
◆ **fan dan / zan urte** iz. Joan den urtean, joan zen urtean; iaz. *Fan zan urtĭen izan zan* 'joan zen urtean izan zen'. *Fan zan urteko festak onak izan zĭan, bea aurtengwek obĭek* 'joan zen urteko festak onak izan ziren, baina aurtengoak hobeak'. ◆ **heldu dan urte** (> *eldu dan urte*, *eldwan urte*). *Eldu dan urtĭen lasaio ibiliko ga* 'heldu den urtean lasaiago ibiliko gara'. Ik. **datorren urte**.
– urte berri.
– urte zahar.
– urtiek bete.
– urtegun. Urte eguna, jaioteguna. *Urtegunien*. *Hie urtegunien*. (urtiek betetzen dan eguna).
– urte askotako!
◆ **urte askoan** (> *urte askwen*). *Morroi ibili zaken urte askwen* 'morroi ibili zuan urte askoan'.
◆ **urte garai** iz. Urteko garaia; urte sasoia. *Jende askondako udazkena da urte garai onena* 'jende askorendako udazkeina da urte-garai onena'. *Urte garai txarrenĭen asi dĭa teilatua konpontzen* 'urte garai txarrenean hasi dira teilatua konpontzen'.
◆ **urteko**. *Urteko mezĭa*. Ik. **anibersaio**.
◆ **urtean baino urtean... -ago** (> *urtĭen baindo urtĭen... -o*) adb. Urtetik urtera... -ago.
– urtabia (?) urte ona? urte hobia?

Urteberri

URTEBERRI

día de Año Nuevo

Urteberri iz. (maiusk.) Urteko lehen eguna (gehienetan *egun* izena ondoan duela). *Urteberri eguna*.

urtegun, urteguna

URTEGUN, URTEMUGA

(día de) cumpleaños; aniversario

urtegun iz. Urteak betetzen diren eguna; urtemuga. *Gaur zortzi izango da aman urteguna* 'gaur zortzi izango da amaren urteguna'.

urtetxo, urtetxua

URTETXO

año (con sufijo diminutivo, que expresa disminución, atenuación o intensidad)

urtetxo iz. Adkor. Urtea. *Be urtetxwek dukatzi* 'bere urtetxoak dauzka'. *Oneskĭio urtetxo batzuk ba dĭa il zala* 'honezkero urtetxo batzuk ba dira hil zela'.

Urtezahar-gau, Urtezahar-gaua

URTEZAHAR-GAU

Nochevieja

Urtezahar gau (> *urtezar gau*) iz. *Kwadrillan zelebratzen du Urtezar gaua* 'kuadrillan ospatzen dugu Urtezahar gaua'. *Urtezahar-gauba launakin pasatzen du* 'Urtezahar-gaua lagunekin pasatzen dugu'.

Urtezahar, Urtezaharra

URTEZAHAR

día de Nochevieja

Urtezahar (> *urtezar*) iz. (maiusk.) Abenduaren 31, urteko azken eguna (gehienetan *egun* izena ondoan duela). *Urtezar eguna* 'Urtezahar eguna'. ◆ **Urtezahar gau** (> *urtezar gau*). *Kwadrillan zelebratzen du Urtezar gaua* 'kuadrillan ospatzen dugu Urtezahar gaua'. *Urtezahar-gauba launakin pasatzen du* 'Urtezahar-gaua lagunekin pasatzen dugu'.

urtio

URTERO

anualmente, todos los años

urtero (> *urtĭo*) adb. Urte guztietan. *Úrtĭo iten dĭa bisitĭa* 'urtero egiten dio bisita'. ◆ **urteroko** (> *urtĭoko*) adj. Urte guztietakoa. *Úrtĭoko kontua da* 'urteroko kontua da'.

urtioko

URTEROKO

anual, de todos los años

urteroko (> *urtĭoko*) adj. Urte guztietakoa. *Úrtĭoko kontua da* 'urteroko kontua da'.

urtoki, urtokia

URTOKI

fontanal; sitio que abunda en aguas
terreno anegable, inundable; terreno propenso a inundarse

urtoki **1** [Urdiain] iz. Ur asko dagoen tokia. Ik. **uguna**. **2** [Bakaiku] iz. Uholdeek urez estaltzen duten lurra. {Terreno propenso a inundaciones (Ond Bak)}.

urtsu, urtsua

URTSU

acuoso, -a, abundante en agua; jugoso, -a

urtsu adj. Ur asko duena. *Bai urtsuek dĭala udarok* 'bai urtsuak direla udareok'.

urtu, urtzen

URTU

2 disolbitu

derretir(se), fundir(se)
diluir(se), disolver(se), deshacer(se)

urtu **1** *da/dau* ad. *Urtu dĭa elurrak* 'urtu dira elurrak'. 2 da/dau ad. Uretan edo beste isurkari batean desegin. *Pastillok eztĭa ondo urtzen* 'pastilla hauek ez dira ondo urtzen'. Ik. **disolbitu**.

urzuin

UR ZUIN, UBIDE

ubide

aguanal (surco abierto para facilitar el desagüe de los sembrados)

urzuin [Bakaiku] iz. Euri urak ateratzeko, soroetan tarteka egiten den ildaska sakona. Ik. **ubide**.

usai, usaia

USAIN

olor
mal olor; hedor, tufo

usai iz. Usaina. *Usai goxwa* 'usai gozoa'. Usai ona; usai txarra; erre usaia. *Ki usaia* 'ke usaina'.
◆ **usai ona 1** Ona, gustagarria. **2** Usai handia, bizia, indartsua. Usai ona dukai zizoiek [usai bizia, indartsua]. *Bĭar usai ona jok emen* 'belar usain ona [indartsua] zagok hemen'.
◆ usai txarra (?). Susmo txarra eman (?).
◆ **usaia aitu** *dau* ad. Usaina aditu, usaindu. *Erre usaia aitzen dot emen* 'erre usaina aditzen dut hemen'.
◆ **usaia bota**. Usai txarra bota. Usai ona bota.
◆ usaibeiko.
◆ usairipe. Usainik gabe.

usaia aitu

USAINA ADITU

oler, percibir olor

usaia aitu *dau* ad. Usaina aditu, usaindu. *Erre usaia aitzen dot emen* 'erre usaina aditzen dut hemen'.

usaibeiko, usaibeikua

USAINGABE

inodoro, -a

usaibeiko adj. Usaingabea, usainik ez duena. *Usaibeiko pitxilita batzuk ekar duatzi* 'usaingabeko pitxilita [larre lore] batzuk ekarri dizkit'.

usaidun, usaiduna

USAINDUN

oloroso, -a; perfumado, -a; aromático, -a

usaidun adj. Usain nabarmena duena. *Flore usaiduna ibiltzen dau* 'lore usainduna ibiltzen du'.

usaikan

USAINKA

oliendo, olfateando

usaikan adb. Usainka, usain eginez, usain egiten. *Txakurra usaikan daile* 'txakurra usainka dabil'.

usaio, usaiua

USADIO

ohitura, tradizio

uso, costumbre, usanza; tradición; hábito

usaio iz. Usadioa. *Olako usaiuek zĭan leno* 'holako usadioak ziren lehenago' (AG). Ik. **ohitura**; **tradizo**.

usaitu, usaitzen

USAINDU

oler, percibir olor; olfatear
sospechar, adivinar, barruntar

usaitu 1 *dau* ad. Usain egin; usaina hartu. *Eztezu usaitzen? Inguontan atxaparra do* 'ez duzu usaintzen? Inguru honetan atxaparra dago' [*Atxaparra*: sasiama (Lonicera sp.)]. **2** *dau* ad. Sumatu, igarri. *Usaitu dau zerbaiten gaitzala* 'usaindu du zerbaitetan gabiltzala'.

usalda, usaldia

(BARATXURI-ZOPA)

babatxuizopa

sopa(s) de ajo

usalda iz. Baratxuriarekin eta ogiarekin prestatzen den zopa. Ik. **babatxuizopa**.

usandu, usantzen USAINDU

2 usteldu

oler mal, heder; apestar

corromper(se), pudrir(se), pasar(se), picar(se), ranciar(se)

usandu **1** *da/dau* ad. Usaindu, usain txarreko bihurtu. Usai txarrakin, gelia usandu 'usain txarrarekin, gela usaindu'. *Gela itxi au usandwik do* 'gela itxi hau usaindurik dago'. **2** *da* ad. Usteldu. *Aragi oi usandwik do* 'haragi hori usaindurik dago'. Ik. **usteldu**. ◆ **usandurik egon** (> *usandwik yon*). **1** Usain txarreko egon. **2** Ustelduta egon.

usantei, usanteia USAINDEGI, USAITEGI (OEH)

lugar donde hay un olor intenso

usantegi (> *usantei*) iz. Usaindegia*; usain handia dagoen tokia. || Lurrindegia.

usatai, usataia (?) USATEGI

palomar

usatu, usatzen USATU

ibili, enpleatu

usar, utilizar

usatu *dau* ad. (g.g.er.). ▲ Sin. *ibili*, *enpleatu*.

uso-maxurta MASUSTA, MARTXUKA (RUBUS CAESIUS)

lur-matxurreta, uso-matxurreta

mora (Rubus caesius)

uso-maxurta [Bakaiku] iz. (Bot.) Masusta mota, *Rubus caesius* lahar herrestariaren fruitua, beltz morantza koloreko pikorrak ditu, sasi-matxurretarenak baino handiagoak, eta urtsuagoa da. ▲ Sin. *lur-matxurreta*, *uso-matxurreta*.

uso, usua USO

paloma

uso iz. (Columba sp.). *Etxe-uswa* 'etxe usoa'. *Basuswa* 'basausoa'. • Esr. zah. *Kanpwen uso ta etxĭen otso* 'kanpoan uso eta etxean otso'. ◆ **uso banda**, **uso-bandada**. Uso banda. ◆ **uso-matxurreta** [Urdiain], **uso-maxurta** [Bakaiku]. iz. (Bot.) Masusta mota, *Rubus caesius* lahar herrestariaren fruitua, beltz morantza koloreko pikorrak ditu, *sasi-matxurreta*renak baino handiagoak, eta urtsuagoa da. ▲ Sin. *lur-matxurreta*. ◆ **uso-ongarri**. *Uso-ongarria, onenetakua* 'uso ongarria, onenetakoa'. ◆ **uso-pasa** (> *uso-pasĭa*). Uso pasea. ◆ **uso-zopa**. ◆ **usotara** (> *usotá*). *Usotá fan dĭa* 'usotara joan dira'.

usojantzaile, usojantzailia GABIRAI

gabilan, zagizuri

gavilán (Accipiter nisus)

usojantzaile iz. Gabiraia (Accipiter nisus) Ik. **gabilan**; **zagizuri**.

usokuma, usokumia USAKUME

pichón

usokuma iz. Usakumea, usoaren umea.

usotai, usotaia

USATEGI

palomar

usotai iz. Usategia; usoak hazteko tokia. Burundako etxeetan *goiko-ganbaran* [ganbaran, sabaian] egon ohi da *usotaia*; usategiak hiruki edo lauki formako leihatilak ditu usoak sartu-atera daitezen.

ustai, ustaia

UZTAI

anillo, anilla, argolla, aro

ustai iz. Uztaia. *Farĭa ustaiekin lotzen zan lepwen* 'joarea uztaiarekin lotzen zen lepoan'. Ik. uztai.

uste izan

USTE IZAN

yaitzi

creer, pensar, opinar; conjeturar, suponer

uste izan *dau* ad. Uste batean oinarriturik pentsatu edo iruditu. *—Nún do pozalá? —Aiták ust'ót dekalá. Ustez eztot ikutu: enaiz errapatu. Uste gindubén* (Ond Bak). || *Orrek uste dik auskolo nor dala, eta eztok iyore* 'horrek uste dik auskalo nor dela, eta ez duk inor ere'. • Esr. zah. **ez-izan-eta-bai-uste** (> *ez-izan-da-bai-uste*) adj. Handiustez betea, harroa. *Ez-izan-da (ta)-bai-uste (harrua danaz esaten dana)* 'ez-izan-eta-bai-uste' (harroa denaz esaten dena).

uste, ustĭa

USTE

creencia, opinión, idea, juicio, parecer

uste iz. Norbaitek zerbaiti buruz, itxura edo aztarnen arabera duen iritzia. *Su zikín háu! Iník nekán ustéz ta hil dá* (Ond Bak). • Esr. zah. *Ustĭek alderdi ustela dau* (Ond Bak). ◆ **ustean** (> *ustĭen*). *Ne ustĭen oi ezto ondo* 'nire ustean hori ez dago ondo'. ◆ **ustez 1** adb. (-en atzizkiaren eskuinean). -en iritziz, -en iritzian. *Nere ustez*. Ik. **ustean** (> *ustĭen*). **2** adb. Itxuraz. *Ustez eztot ikutu: enaiz errapatu* (Ond Bak). *Ustez ondo zon* 'ustez ondo zegoen'. ◆ **usteztala** adb. Ustekabean. Ik. **usteztala**.

ustebe (uste gabe)

USTEKABE

usteztala, nahibe

sin querer; sin darse cuenta, involuntariamente
por sorpresa, de repente
por un casual; por casualidad

uste gabe (> *ustebe*) **1** adb. Ustekabe; ustekabean, espero izan gabe; nahi gabe. Ik. **usteztala**; **nahibe**.

◆ uste gabe (> ustebe) adb.
– uste be 'uste gabe'.
– uste be... (galderetan): Badakizu, uste be...?

ustekabe (?)

USTEKABE

por sorpresa, de repente

ustekabe (?) Ik. **uste gabe** (> *ustebe*), **usteztala**.

ustel usai, ustel usaia

USTEL USAIN

olor a podrido

ustel usai iz. Ustel usaina; usteldurik dagoen zerbaiti darion kiratsa. *Ez dezu aitzen ustel usairik?* 'ez duzu aditzen ustel usainik?'.

ustel-ustela in

USTEL-USTELA EGIN

usteldu

pudrirse del todo, descomponerse totalmente

ustel-ustela egin (> *ustel-ustela in*). Erabat usteldu.

ustel, ustela

USTEL

podrido, -a, putrefacto, -a, descompuesto, -a
falso, -a; hipócrita; corrupto, -a
vano, -a, ineficaz, nulo, -a, sin efecto; malo, -a
bochornoso, -a; insano, -a

ustel **1** adj. Gai organikoez mintzatuz, hondatu edo galdu dena, kiratsa dariona. *Haragi ustela*. *Sar ustela* 'sagar ustela'. **2** adj. Pertsonez eta animaliez mintzatuz, behar adina kemen, ausardia edo zintzotasun ez duena. *Jende ustel asko jok emen* 'jende ustel asko zagok hemen'. Ik. **ezkel**. **3** adj. Alferrikakoa, ondorerik gabea. • Esr. zah. *Ustĭek alderdi ustela dau* 'usteak alderdi ustela du'.

◆ **bero ustel**. Geihegizko beroa aireztatu gabeko lekuan; bero itogarria, sargoria.

◆ haragi ustel.

◆ **ustel usai** iz. Ustel usaina; usteldurik dagoen zerbaiti darion kiratsa. *Ez dezu aitzen ustel usairik?* 'ez duzu aditzen ustel usainik?'.

◆ **ustel-ustela**. adb. *Egurra ustel-ustela, auts biurtwik* 'egurra ustel-ustela, hauts bihurturik'.

◆ **ustel-ustela egin** (> *ustel-ustela in*). Erabat usteldu.

usteldu, usteltzen

USTELDU

usandu

pudrir(se), corromper(se), descomponer(se)
corromper

usteldu *da* ad. *Usteltzen asik do* 'usteltzen hasirik dago'. Ik. **usandu**; **ustel-ustela egin** (> *ustel-ustela in*).

ustelkeia

USTELKERIA

corrupción
putrefacción, podredumbre

ustelkeria (> *ustelkeia*) **1** iz. Antolakundeetan, batez ere publikoetan, haien funtzioak eta baliabideak zilegi ez den moduan kudeatzaileen onurarako erabiltzea. **2** iz. Usteltasuna.

ustez

USTEZ

en opinión de, a juicio de; a mi parecer
aparentemente, en apariencia

ustez **1** adb. (-en atzizkiaren eskuinean). -en iritziz, -en iritzian. *Nere ustez*. Ik. **ustean** (> *ustĭen*). **2** adb. Itxuraz. *Ustez eztot ikutu: enaiz errapatu* (Ond Bak). *Ustez ondo zon* 'ustez ondo zegoen'.

usteztala

USTE EZ DELA, USTEKABEAN

nahi be, uste be; kasualidadez, txiripaz

involuntariamente, sin querer; inadvertidamente; accidentalmente

uste ez dala (> *usteztala*) adb. Ustekabean, ezustean; nahi gabe. *Usteztala jo dĭat* 'ustekabean jo diot [dut]'. *Barkatu; usteztala zapaldu dezut ankĭa* 'barkatu; uste ez dala zapaldu dizut hanka [*Hanka*, oina]. *Usteztala bilatu dot* 'ustekabean bilatu [aurkitu] dut'. ▲ Sin. *nahi be*, *uste be*; *kasualidadez*, *txiripaz*.

ustĭen — USTEAN

en opinión de, a juicio de; a mi parecer

ustean (> *ustĭen*). *Ne ustĭen oi ezto ondo* 'nire ustean hori ez dago ondo'.

usual, usuala — UXUAL, ANIS

orujo (bebida); aguardiente anisado; anis usual

usual iz. Uxuala; anis korrientea. (ursula?)

utakio — NORK DAKI

a saber; vete tú a saber; quién sabe

utakio interj. Nork daki. *Útakió!* (Ond Bak). Ik. **auskolo**; **fan da bila**; **batek daki**; **jakintazu**; **zazi**.

utzi — UTZI

dejar
permitir, dejar, consentir

utzi [Bakaiku] *dau* ad. *Uzten gindán lo itén* (Ond Bak). Ik. **autzi**.

uxarra, uxarrĭa — UXARRE

hozadura

uxarra iz. Uxarrea; animalia batek, batez ere txerriak edo basurdeak, muturrarekin harrotutako lurra. *Txerrien uxarrĭek* 'txerriaren uxarreak'. || Irud. Lurra azaletik lantzea. *Au dok uxarrĭa in dĭana batzĭai* 'hau duk uxarrea egin diona baratzeari!'. • Esr. zah. *Marsuko uxarrĭa, maietzeko laia baindo hobĭa*.

uxarratu, uxarratzen — UXARTU, INDUSKATU

hozar

uxarratu *dau* ad. Uxartu; animalia batek, batez ere txerriak edo basurdeak, muturrarekin lurra altxatu edo harrotu.

uxarrien — UXARREAN

hozando, hocicando

uxarrean (> *uxarrĭen*) adb. *Batzan uxarrĭen ibilik de basurdak* 'baratzean uxarrean ibilirik daude basurdeak'.

uxatu, uxatzen — UXATU

alde inazi

espantar, ahuyentar

uxatu *dau* ad. Animaliei-eta ihes eragin, hurbiltzen ez utzi. Ik. **alde eginarazi** (> *alde inazi*). *Txoiek uxatzeko mutxitarrwa patu dau batzan* 'txoriak uxatzeko mutxitarroa [txorimaloa] paratu du baratzean'.

uzkar, uzkarra — UZKER

pedo

uzkar iz. Uzkerra, puzkerra. *Uzkarra, otsakin; putza, isilik* 'uzkerra, hotsarekin; putza, isilik'.
– uzkarra bota.
– uzkar usaia.
• Esr. *Uzkar bat ez balio*. Ezer ez balio.

uzkarketa, uzkarketia

UZKER SAIO

pedorrera

uzkarketa iz. Uzker saioa. ◆ **uzkarketan** adb. Uzkerka.

uzkarrontzi

UZKERRONTZI

uzkarti

pedorro, -a, pedorrero, -a

uzkarrontzi adj. Uzkerrontzia, uzkertia. ▲ Sin. *uzkarti*.

uzkarti

UZKERTI

uzkarrontzi

pedorro, -a, pedorrero, -a

uzkarti adj. Uzkertia, uzker asko botatzen dituena. ▲ Sin. *uzkarrontzi*.

uztai, uztaia

UZTAI

anilla, argolla, aro

uztai (eta *ustai*) iz. Uztaia. *Paetako uztaia*. [amarre de madera (?) EHHA]. *Farĭa ustaiekin lotzen zan lepwen* 'joarea uztaiarekin lotzen zen lepoan'. Ik. **oa**.

uztar-behi, uztar-behia

UZTAR-BEHI

vaca de yunta, vaca que se pone al yugo

uztar-behi iz. Uztarrirako behia, lanerako erabiltzen den behia. Ik. **uztarrirako** (> *uztarriako*).

uztarri, uztarria

UZTARRI

yugo
yunta, pareja de bueyes/vacas

uztarri iz. Idi, behi edo kidekoei, lanerako lotzeko, lepo gainean ezartzen zaien zurezko atal sendoa eta landua. ◆ **uztarrian lotu** (> *uztarrien lotu*). *Launduko dwazu uztarrien lotzĭa?* 'lagunduko didazu uztarrian lotzera?'. Ik. **uztarritu**. ◆ **uztarrirako** (> *uztarriako*). Uztartzeko balio duen aberea.

uztarridi

UZTAR-IDI

buey de yunta, buey que se pone al yugo

uztarridi, **uztar-idi** iz. Lanerako erabiltzen den idia (Ond Bak). Ik. **uztarrirako** (> *uztarriako*).

uztarrigile, uztarrigilia

UZTARGILE

fabricante de yugos

uztarrigile iz. Uztargilea, uztarriak egiten dituen eskulangilea. *Luziano uztarrigilĭa* 'Luziano uztargilea'. *Uztarrigilĭenak* 'uztargilearenak [uztargilearen familiakoak]'.

uztarritu, uztarritzen

UZTARTU

uncir, acoyundar

uztarritu *dau* ad. Uztartu, uztarrian lanerako lotu. *Bei parĭa uztarritu, uztarrien lotu* 'behi parea uztartu, uztarrian lotu'.

xahar, xaharra

XAHAR

viejo, -a

xahar (> *xar*) adj. Adkor. Zaharra. *Etxe xar oi* 'etxe xahar hori'.

xaila, xailia
ANTXUME

antxuma

cabrito, -a

xaila iz. Antxume zertxobait hazia. Ik. **antxuma**. *Antxuma sailĭa*. *Antxuma auxo haundio inak (bildotxak bezela)* (Ond Bak). [& Urdiain].

xakartu, xakartzen
ZAKARTU, ITSUSTU

afearse; ajarse, deteriorarse

xakartu *da* ad. Adkor. Edertasuna galdu, itsusi edo itsusiago bihurtu. *Xakartwaiz!* 'zakartu haiz!'. Ik. **zakartu**.

xamur, xamurra
XAMUR

biun

xamur adj. Adkor. Samurra. *Xamur-xamurra do aragi au* 'xamur-xamurra dago haragi hau'. Ik. **samur**.

xarmanta, xarmantia
XARMANT

encantador, -a, atractivo, -a, cautivador, -a, muy agradable; glamuroso, -a
(en sentido irónico) desagradable; grosero, -a

xarmant (> *xarmanta*) (*a* itsatsia) **1** adj. *Oi nesaki xarmantĭa* 'hori nesaki xarmanta'. **2** adj. (Ironiazko adieran) Zakarra, ezatsegina. [Sarri kontrako adierarekin erabiltzen da].

xaxtar, xaxtarra
XAXTAR

pequeño, insignificante; despreciable, desdeñable

xaxtar (eta *xastar*) adj. Adkor. Sastarra, txikia, balio gutxikoa. Ik. **txastar**; **zaztar**.

xelebre, xelebria
XELEBRE

peculiar, extravagante, curioso, -a, célebre; cómico, -a; gracioso, -a

xelebre adj. Adkor. Barregarria, bitxia, ohikoa ez dena. Ik. **zelebre**.

xingle, xinglia
SINGLE

ahul — *sendo, fuerte*

frágil, de poca consistencia; endeble
delicado, débil, enclenque

single (> *xingle*) **1** adj. Gauzengatik esanda, sendotasunik edo trinkotasunik ez duena. *Xinglĭa, erraz austekwa* 'singlea, erraz haustekoa'. *Bai xinglĭek iten tuaila gwai gauza guztĭek; belaxeti de ausik!* 'bai singleak egiten dituztela orain gauza guztiak; berehalaxetik daude hautsirik!'. ▲ Sin. *ahul*. ▼ Anton. *sendo*; *fuerte*. **2** adj. Pertsonengatik esanda, ahula edo erkina dena. Ik. **ahul**; **mengal**; **erkin**.

xinple, xinplia
SINPLE

simple; tonto, -a; ingenuo, -a; mentecato, -a; abobado, -a

xinple adj. Adkor. Sinplea. Ik. **sinple**.

xiordia
INDABA NABAR

alubia pinta alavesa

xiordia iz. (Bot.) Indaba nabarra (Phaseolus vulgaris var.). [Alubia pinta alavesa].

xixeta atxapardun, xixeta hatxaparduna

ATZAPAR HORI

bosquecillo

xixeta atxapardun iz. Atzapar horia (Clavaria Flava). ▲ Sin. *hatxaparrak*.

xixeta, xixetia

SALTSA PERRITXIKO, ZIZAHORI

san juan ziza

rebozuelo (Cantharellus cibarius)

xixeta (eta *zizeta* [?]) iz. Saltsa perritxikoa, zizahoria (Cantharellus cibarius). ▲ Sin. *san juan ziza*. ◆ **xixeta atxapardun** iz. Atzapar horia (Clavaria Flava). ▲ Sin. *hatxaparrak*.

xuhur, xuhurra

XUHUR

ximur

mezquino, -a, avaro, -a, ruin, tacaño, -a

xuhur (> *xur*) adj. Ik. **zuhur**.

ya

JA

danekoz, honeskio, ia (2)

(orainaldian) ya, para ahora; (lehenaldian) ya, para entonces

ya adb. Ja, jada.

yaili, yailtzen

IRAULI

volcar, voltear

arar, roturar la tierra

yaili *dau* ad. Irauli; zerbait azpikoz gora jarri. {*Lurra yailtzea*, a mover la tierra (Iza Alts)}. Ik. **itzuli**; **itzuldu**.

yain, yaiten (1)

EREIN

sembrar

yain, yaiten (eain, eaiten) (2)

ERAGIN

mover, mecer

eragin (> *eain*[2], *yain*[2]) (> *eaiten*, *yaiten* (IE)). *Kuiai yain* 'kumari [sehaskari] eragin'. *Aldiezkan yaiten kuiai* (IE) 'aldizka eragiten kumari [sehaskari]'.

yaintzaile, yaintzaila

EREINTZAILE, EREILE

hazimilera, isustaile, yaitaile

sembrador, -a (persona)

yaintzaile iz. Ereintzailea*, ereilea; zerbait ereiten duen pertsona. *Azimileria zan emakume yaintzailia* 'hazimilera zen emakume ereintzailea [ereilea]'. Ik. **hazimilera**; **isustaile**; **yaitaile**.

yainun

HERENEGUN

anteayer

yainun (eta *eainun* [Urdiain]; *ianeun*, *yaneun* [Bakaiku]; *ereinun* [Altsasu]) adb. Herenegun; atzokoa hastean bukatu zen egunean. Ik. **heainun**.

yainun atzeti(k)

HERENEGUN ATZETIK

trasanteayer, anteanteayer

heainun atzeti(k) (eta *yainun atzeti(k)*) adb. Herenegun atzetik, herenegun aitzin, herenegun aurre.

yaitaile, yaitailia

EREILE

yaintzaile

sembrador, -a (persona)

yaitaile iz. Ereilea; zerbait ereiten duen pertsona. Ik. **yaintzaile**; **hazimilera**; **isustaile**.

yaitzi batia

IRITZIRA, ALIRITZIRA

a ojo (de buen cubero), al azar, al (buen) tuntún; de cualquier manera
a, o al, voleo (de una manera arbitraria o sin criterio)

iritzi batera (> *yaitzi batia*). [a ojo; a voleo].

yaitzi, yaitzia (2)

IRITZI

uste, opinio

opinión, parecer
a ojo

iritzi (> *yaitzi*) iz. *Ze yaitzi dukak onen inguen?* 'zer iritzi daukak honen inguruan?'. Ik. **uste**; **opinio**. ◆ **iritzi batera** (> *yaitzi batia*). Iritzira, gutxi gorabehera. Ik. **gutxi gorabehera** (> *gutxi gwabĭa*).

yaitzi, yaizten dia (1)

IRITZI, IRIZTEN

iruitu, uste izan, opinio

opinar, parecer

iritzi, irizten (> *yaitzi*, *yaizten*; *ereitzi* [Altsasu]) *dĭa* ad. Yaizten zaizain bekela in lezakezai. *Zarra yaitzi* 'zaharra iruditu'. Ik. **iruditu** (> *iruitu*); **uste izan**; **opinio**.
Ze yaizten zaizu? Ze yaizten zaik / zain? (zer iruditzen zaizu?, zer deritzozu?)
– ondo yaitzi; gaizki / txarki yaitzi. Ondo yaizten zaira. Zuri ondo yaizten zaizu? Neri txarki yaizten zaira.
Yaitzi, gutxigoabia nola dan / yaizten diat gotxigoabia nola dan.
◆ yaitzi! Hobeto bizi gala? Yaitzi! || —Bai sarri (dela) postiek! —Yaitzi.
◆ yaitzi batia (> *yaitzi batĭa*). Iritzi batera, iritzira, nahi eran. *—Zenbat azukara botako dĭat gaztanberĭai? —Yaitzi batĭa* 'zenbat azukre botako diot gaztanberari? —Iritzi batera'. Ik. **gutxi gorabehera** (> *gutxi gwabĭa*).

yake / yaketa

-(E)NEZ GERO, -(E)NEZ GEROZ

ya que, puesto que

yake / **yaketa** junt. -(e)nez gero, -(e)nez geroz. *Yake ailatu dien* (Ond Bak). *(Gaztaia) yake (ta) ata dezun, probatu inko du* '(gazta) atera duzunez, probatu egingo dugu'.

yakurri, yakurtzen

ALETU, GARANDU, BIHITU {IRAKURRI}

urkaldu [Bakaiku]; lekatu

desgranar

yakurri (eta *yikurri* [Altsasu]) {irakurri} *dau* ad. Aletu, garandu, bihitu. *Yakur tazu maiza*. ▲ Sin. *urkaldu* [Bakaiku]. Ik. **lekatu**.

yakusi, yakusten

ERAKUTSI; 2 IRAKATSI; 3 IRAGARRI

mostrar, enseñar; demostrar, poner en evidencia
enseñar, instruir
anunciar
hacer padecer; hacer que otro padezca

yakusi (eta *eakusi*) **1** *dau* ad. Erakutsi. *Yakusiozu erria* 'erakutsiozu herria'. || *Nik yakusko dezut* (Ond Bak). || 2 *dau* ad. Irakatsi. *Tratorien ibiltzen yakusi deat. Bestei yakustia gustatzen zaio*. **3** *dau* ad. Berri eman, iragarri. *Egwaizĭa yakus(i) dai* 'hego haizea erakutsi [iragarri] dute'. Ik. **anunziatu**. **4** *dau* ad. Sufriarazi. *Ze yakusten dwa belaun onek!* 'zer erakusten dit belaun honek [belauneko minak]. Ik. **gorriak erakutsi**.
◆ **bere burua erakutsi** (> *be bua yakusi*). Nabarmendu.
◆ **ongi erakutsita** (> *ongi yakusita*). Ongi hezia. ◆ **gaizki erakutsita** (> *geizki yakusita*). Gaizki hezia, hezigabea.
◆ **gorriak erakutsi** (> *gorriek yakusi*). Oso gaizki edo larri pasarazi.

yakusiazi

ERAKUTSARAZI

mostrar; hacer enseñar

yakusiazi *dĭa/dau* ad. Erakutsarazi, erakustera behartu.

yakusle, yakuslia

ERAKUSLE

el/la que muestra, el/la que guía; enseñante, profesor, -a

yakusle iz. Erakuslea. Ik. **erakustaile**. ¬

yakusmentu, yakusmentua

IKUSKATZE, ARAKETA

inspección, registro

yakusmentu (**erakusmendu***) iz. Ikuskatzea, araketa. *Etxeik etxe yakusmentua iten ibiltzen zan aguazila* 'etxerik etxe *erakusmendua** [ikuskapena] egiten ibiltzen zen aguazila'. ◆ **yakusmentua egin** (> *yakusmentua in*). Ikuskatu, arakatu.

yakustaile, yakustailia

ERAKUSTAILE*, ERAKUSLE

yakusle

el/la que muestra, el/la que guía; enseñante, profesor, -a

yakustaile iz. Erakuslea. Ik. **erakustaile**.

yale, yalia

EDALE

yantzaile

el que bebe, la que bebe
bebedor, -a; borracho, -a

yale (eta *iale*) adj./iz. Edalea. ▲ Sin. *yantzaile*.

yalki, yalkitzen (ialki)

ERALKI, BAHETU

cerner, cribar, tamizar

yalki (> *ialki*, eta *ielki*, *iyelki* [Urdiain]) *dau* ad. Eralki, bahetu. *Irina yalki irin-baiyan* (Iza Alts). Ik. **iyelki**. Ik. **baiatik pasatu** (> *baijatik pasatu*).

yalokreo

JAKINA, HORIXE

hoixe!, jakina!, honbré

ya lo creo (para afirmar o asentir enfáticamente)

yalokreo interj. Jakina!, horixe!; egiazki, dudarik gabe. Ik. **horixe** (> *oixe*); **jakina**; **honbré**.

yan, yaten (1) EDAN

beber

yan[1] (eta *ean*) 1 *dau* ad. Edan. *Eman gĭauai ondo jatĭa eta yatĭa* 'eman digute ondo jaten eta edaten'.

|| Maria Kruzek yan dau. Fan zien ibaira ura yatia. Yan ber zain 'zuten' ibaiko ur guzia (Ond Bak).

– yateko ona; yateko txarra 'edateko ona; edateko txarra'.

– Yanko nike (zenduke, like, genduke, zendukei, likei) baita, baita...!

– yan egun(ak) 'edan egun(ak)' (Herriko plazan ardoa banatzen den eguna).

ura yan; eateko gogua, eanazi

◆ **edateko gogo** (> *eateko gogo*, *yateko gogo*). Ik **egarri**.

yan, yaten (2) ERAMAN, EROAN

llevar

llevar ventaja

yan[2] 1 *dau* ad. Eraman, eroan.

|| Hobe berrez yan 'eraman' da han hil (Ond Bak).

|| Hainbeste ohien azala yan dau arrijuen. Ekarri eta yan. Lastu'áu yantzan. Yaten gaizkiuei (ebeik hoiek guri) 'eramaten dizkigute' (Ond Bak).

(n) *dĭa* ad. (nor osagarririk gabe). Gainditu, irabazi. —*yanko diazu / diak / dian horri!* (esapidea) 'eramango diozu horri!' [beste hori trebea delako, ez duzu engainatuko, ez norgehiagokan garaituko, ez izorratuko (...) *Yanko dĭan ik orri* 'eramango dion hik horri!'. (ezezko moduan). Irabazi, gainditu. *Jorran e'ziakin yaten iyuerk-e* 'jorran ez zioan eramaten [irabazten, gainditzen] inork ere'.

yanazi, yanazten (1) EDANARAZI

abrevar, dar de beber, obligar a beber

yanazi[1] (eta *eanazi*) *dia* ad. Edanarazi, edatera behartu. *Eskolan, botellako esene txar aua yanazten zeauein* 'eskolan, botilako esne txar hura edanarazten ziguten'.

yanazi, yanazten (2) ERAMANARAZI

obligar a llevar, hacer llevar

yanazi[2] (eta *eanazi*) *dau* ad. Eramanarazi, eramatera behartu.

yantzaile, yantzailia EDANZALE, EDALE

yale

bebedor, -a

yantzaile adj./iz. Edanzalea; edarizalea, edalea. *Ardo yantzailĭa da* 'ardo edanzalea da'. ▲ Sin. *yale*.

yantzi, yantzia (iantzi, iantzia) ERANTSI(A); ERANSKIN

añadido, -a

añadidura, añadido

yantzi(a) (eta *iantzia*) (Era burutua izenondo gisa). Erantsia; eranskina.

yantzi, yazten (1)

ERANTSI

2 kontajiatu

añadir, agregar, adherir; aplicar
contagiar; pegar [olor]

yantzi[1] (eta *eantzi*) **1** *dau* ad. Erantsi, gehitu. *Gonĭai puskĭa yantzi jĭanat* 'gonari puska erantsi zionat'. **2** *dĭa* ad. Kutsatu. *Yantzi dwazu gripĭa* 'erantsi didazu gripea'. Ik. **kontajiatu**.

yantzi, yazten (2)

ERANTZI

jantzi

quitar(se) (la ropa)
desvestir(se), despojar(se); desnudar(se)

yantzi[2] (eta *eantzi*) 1 *dau* ad. Erantzi. *Yanztazu jersĭa* 'erantzi ezazu jertsea'. ▼ Anton. *jantzi*. 2 *da* da. *Yantzi zaitez* 'erantzi zaitez'. Ik. **biluzgorrian jarri** (> *biliskorrien jarri*).

yantzu, yantzua

ENANTZU*, EROSO. 2 AZKAR. 3 AZKARTASUN

nekeza (?)

fácil, cómodo, -a {Del verbo enanzar 1. intr. Nav. Adelantar, avanzar}
de prisa, con facilidad / pujante (?)
viveza, presteza, arranque, vigor; pujanza, brío

yantzu (eta *ianzu; iantzo, ianzo*) **1** adj. Enantzua*. *Lan yantzua*: erraz aurreratzen den lana; eroso egiten den lana; samurra. **2** adb. Azkar, laster (hazi, heldu, etorri, egin...). *Haur hoi oso ianzo heldu da*. **2** iz. Azkartasuna, bizkortasuna, kemena. *Gaur ez tukat iantzoik*. ¬

yantzun, yantzuna / eantzun, eantzuna

ERANTZUN. 2 OIHARTZUN

respuesta, contestación
eco, resonancia

eantzun[2] (eta *yantzun*) **1** iz. Erantzuna, erantzutean esaten edo egiten dena. Ik. **kontestazio**. **2** iz. Oihartzuna, aranotsa, durundia. *Yantzuna yoten da alderdi ortan* 'erantzuna [oihartzuna] egoten da alderdi horretan'. *Gwai aldatwik do alderdi oi, bea garai batĭen Urdingo kanposantu inguen yantzuna aitzen zan* 'orain aldaturik dago alderdi hori, baina garai batean Urdiaingo kanposantu inguruan erantzuna [oihartzuna] aditzen zen'.

yantzun, yantzuten / eantzun, eantzuten

ERANTZUN

kontestatu

responder, contestar; replicar

eantzun[1] (eta *yantzun*) *dau/dĭa* ad. Erantzun. Ik. **kontestatu**.

yantzupakia

yantzupakia iz. (AG)

yarrazi

IRAZEKI

1 eazi / yazi

encender (fuego, una vela, etc.)
avivar (el fuego; hacer que algo arda más)

yarrazi (eta *iyarrazi*) **1** [Bakaiku] *dau* ad. Irazeki, piztu. "*Yarrazi* e *iyarrazi*, encender fuego, una vela, etc." (Ond Bak). Ik. **eazi / yazi**. **2** [Urdiain] *dau* ad. Sua bizitu, sua biziagotu. Ik. **iarrazi**; **harrazi**.

yateko, yatekua

EDATEKO

edai

bebida

yateko (eta *eateko*) iz. Edatekoa. Ik. **edateko** (> *eateko*).

yau

HEU

tú mismo, tú misma

yauli nabar, yauli nabarra

ITEULI

tábano bovino (Tabanus bovinus)

yauli nabar (eta *aulinabar* [Bakaiku]). Iteulia; behiei eta kidekoei erasotzen dien ezpara (Tabanus bovinus).

yauli, yaulia

EULI

mosca

yauli (eta *auli* [Bakaiku]) iz. Eulia (intsektua). ◆ **yauli kaka 1** Euliaren kaka. **2** Ezdeusa, ezertarako balio ez duena. ◆ **yauli hotsa**. ◆ **erle yaulia**. Erlea. ◆ **yauli nabar** (eta *aulinabar* [Bakaiku]). Iteulia; behiei eta kidekoei erasotzen dien ezpara (Tabanus bovinus).

yaun, yuten (?)

IRAUN

yaun, yuten (?) ad. Zenbat denbora yuten 'irauten' den beruen!
Floriek zenbat denbora yuten dain!

yauri tintin

EURI TANTA

yauri txibristin

gota de lluvia

yauri tintin iz. Euri tanta. *Yauri tintinak dekatzi* 'euri tantak dakarzki'. *Yauri tintinaĭn otsak aĭtzen dĭa teilatuen* 'euri tanten hotsak aditzen dira teilatuan'. Ik. **yauri txibristin**.

yauri ur, yauri ura

EURI UR

agua pluvial, agua de lluvia

yauri ur(a). (Askotan pl.) Euri ura. *Batzĭendako yauri ura da obena* 'baratzearendako euri ura da hoberena'. *Yauri urak gaio balio dau erregatzĭa baindo're* 'euri urak gehiago balio du erregatzea [erregadiatzea, ureztatzea] baino ere'.

yauri yutsin, yauri yutsina

EURI ERAUNTSI

aguacero, chaparrón, lluvia torrencial, tromba de agua

yauri yutsin (eta *irutxin* [Ziordia]). Euri erauntsia, euri zaparrada. Ik. **zaparrada**.

yauri, yauria

EURI

lluvia

yauri (eta *auri* [Bakaiku]; *iauri*) iz. Euria. *Sarri do auriya!* (Ond Bak). *Yauria deka gogoti* 'euria dakar gogotik'.

– yauria in, bota, ekarri.

◆ **yauri mirria**. Euri eskasa, urria.

◆ **yauri gozoak** (> *yauri gozwek*). Euri onak, poliki eroritakoak.

◆ **yauria deka / zekan** [ekarri]. (Aspektua puntuala denean) Euria dakar / euria zekarren; euria ari izan; euria ari du; euria ari zuen. *Yauria deká* 'euria dakar, euria ari du'. *Yauria zekán* 'euria zekarren, euria ari zuen'. *Yauria jekak / jekan* 'euria zekarrek / zekarren'. *Yauria zekaken / zekanen* 'euria zekarrean / zekarrenan'.

◆ **yauria egin** (> *yauria in*) *dau* ad. Euria egin. *Azkeineko egun oitan yauria gógoti in dau emen* 'azkeneko egun hauetan euria gogotik egin du hemen'.

◆ **yauritan** adb. Euritan, euripean. *Yauritan ibil da ta musti-mustia etor da etxĭá* 'euritan ibili da eta busti-bustia etorri da etxera'. *Yauritan sartu du patatĭa* 'euritan sartu [erein] dugu patata'.

◆ **yauritan sartu**. Eurialdia hasi.

◆ **yauri tintin** iz. Euri tanta. *Yauri tintinak dekatzi* 'euri tantak dakarzki'. *Yauri tintinaĭn otsak aĭtzen dĭa teilatuen* 'euri tanten hotsak aditzen dira teilatuan'. Ik. **yauri txibristin**.

◆ **yauri ur(a)**. (Askotan pl.) Euri ura. *Batzĭendako yauri ura da obena* 'baratzearendako euri ura da hoberena'. *Yauri urak gaio balio dau erregatzĭa baindo're* 'euri urak gehiago balio du erregatzea [erregadiatzea, ureztatzea] baino ere'.

◆ **yauri yutsin** (eta *irutxin* [Ziordia]). Euri erauntsia, euri zaparrada. Ik. **zaparrada**.

• Kantaita: *Yauria dekala menditik....*

◆ **jito euri** (> *jito yauri*). Langarra. *Txirimiri bizia da jito yauria* 'zirimiri bizia da ijito eruria'.

▲ Sin. *langar*, *lanbur*, *lanburketa*, *lanbru*, *lanbroketa*.

◆ **yauri xehe** (eta *iauri xe*, *iauri txe*). Euri xehea.

yauria ekarri || yauria deka / zekan

EURIA ARI IZAN

(llover); llueve, está lloviendo / llovía, estaba lloviendo

yauria deka / zekan [ekarri]. (Aspektua puntuala denean) Euria dakar / euria zekarren; euria ari izan; euria ari du; euria ari zuen. *Yauria deká* 'euria dakar, euria ari du'. *Yauria zekán* 'euria zekarren, euria ari zuen'. *Yauria jekak / jekan* 'euria zekarrek / zekarren'. *Yauria zekaken / zekanen* 'euria zekarrean / zekarrenan'.

yauria in

EURIA EGIN

yauria [ekarri]

llover

yauria egin (> *yauria in*) *dau* ad. Euria egin. *Azkeineko egun oitan yauria gógoti in dau emen* 'azkeneko egun hauetan euria gogotik egin du hemen'.

yaurialdi, yaurialdia

EURIALDI*

(período de) lluvia

yaurialdi iz. Eurialdia*. *Yaurialdi bat ber dau batzĭonek* 'eurialdi bat behar du baratze honek'. [≠ yauri alde].

yauripien EURIPEAN

bajo la lluvia

yauripean (> *yauripĭen*) adb. Euripean.

yauritan EURITAN

bajo la lluvia

yauritan adb. Euritan, euripean. *Yauritan ibil da ta musti-mustia etor da etxĭá* 'euritan ibili da eta busti-bustia etorri da etxera'. *Yauritan sartu du patatĭa* 'euritan sartu [erein] dugu patata'.

yauritsu, yauritsua EURITSU

lluvioso, -a

yauritsu adj. Euritsua. *Udaberia yauritsu fan da* 'udaberria euritsu joan da'.

yausgarri JAUSGARRI*

aztapo, ostopo, traba

tropiezo, estorbo, obstáculo

yausgarri* iz. G.g.er. Jausgarria. ▲ Sin. *aztapo*, *ostopo*, *traba*. Ik. **begi yausgarri**.

yausi (2) IRAUSI

en celo [la hembra del cerdo]

yausi[2] adb. Irausi. *Txerria yausi do (bueltatu)*. Ik. **irausi**.

yausi, yausia (1) ERAUSI

istilu; garrasi; eskandalo, follon; makakarro

alboroto, jaleo, estrépito, bulla, jarana

yausi (eta *eausi*) iz. Erausia, hizketaldi zaratatsua; zalaparta, iskanbila. Ik. **erausi** (> *eausi*, *yausi*).

yauski EUTSI, HELDU, EDUKI

agarrar

sostener, apoyar

yauski (Ond Bak). Ald. *auski*. (agarrar; sostener, apoyar). Ik. **autsi**.

yazi, yazten IRAZEKI

piztu *hil*

encender

yazi (eta *eazi* [Urdiain]) *dau* ad. Irazeki, piztu. Ald. *yazain* [Altsasu]; *yarrazi* [Bakaiku]. *Yaztazu sua* 'irazeki ezazu sua'. *Sua yazik do* 'sua irazekirik dago'. *Argia yazik autzi dezu* 'argia pizturik utzi duzu'. ▲ Sin. *piztu*. ▼ Anton. *hil*.

yaztun, yaztuna ERAZTUN

anillo, sortija

yaztun (eta *eaztun*) iz. Ik. **eraztun** (> *eaztun*).

yelki, yelkitzen (ielki) ERALKI

cribar, tamizar

yelki (eta *iyelki* [Urdiain]) *dau* ad. Eralki, bahetu. *Ina iyelki* 'irina eralki'. Ik. **yalki** (**ialki**). Ik. **baiatik pasatu** (> *baijatik pasatu*).

yodo biar, yodo biarra

ZARAN BELAR, ENARA BELAR, KALITXA BELAR

celidonia mayor

iodo belar (> *yodo bear*, *yodo bĭar*) iz. (Bot.) Zaran-belarra, enara-belarra, kalitxa belar (Chelidonium majus). *Garitxwek kentzeko ibiltzen da yodo bearra* 'garatxoak kentzeko ibiltzen da iodo belarra [zaran belarra]'.

yon, yoten

EGON

estar [en un lugar, estado, en una situación]; estar quieto, permanecer, perdurar, durar
haber; existir
estar de; trabajar de, emplearse como
tener

yon (eta *eon*) 1 *da* ad. Egon
Merkio're badaki yoten (peskadillak). Etxien yoten dia izen baiko lanbide asko. —Bajon? —Bai, yon be yongo da (Ond Bak).
Yon ga. Yotia. Zuti o tente yoten da. Ogia yoin da, ogia yonko da. Yoten da lurra estalik. Balin bado. Dotore do jantzik. Arkan dago irina (Ond Bak).
2 Ari izan, jardun. Txakurra jaunkan do. Kantaitan de.
3 Ahalera. Taberna hontan erretzia bajok.
– banengon, ba! / banengoken, ba! / banengonen, ba! Banengoken ni! [ya me parecía].
◆ **egon eta egon** (> *yon da yon*). Zarrok, hemen, yon da yon.
◆ (moduren batean; norbaitekin...) **yoteko gogo**. Egoteko gogoa, egoteko nahia. Ik. **yongura**.

yonera, yoneria

EGONERA*, EGOERA; GIRO

estado, situación; condiciones

egonera* (> *yonera*) iz. Egoera; giroa. *A ze yonerĭa don guaixe!* 'a zer *egonera* [giroa] dagoen oraintxe!' [esaterako, kaleko *yoneria* uda giroko ilunabarrean]. Ik. **egoera**.

yongela, yongelia

EGONGELA

sala de estar

yongela iz. Egongela (LM).

yongura

EGON GURA

yoteko gogo

deseo de estar (con alguien, etc.)

yongura (eta *eongura* [?]) iz. Egon gura, egoteko gogoa. *(Norbaitekin) yongura* '(norbaitekin) egon gura'. Ik. **yoteko gogo**.

yosdun, yosduna

EROSTUN, EROSLE

yostaile

saltzaile, saltzale

comprador, -a

yosdun (eta *yostun* [Bakaiku]) iz. Erostuna, eroslea. Ik. **yostaile**. ▼ Anton. *saltzaile*, *saltzale*.

yosi, yosten (1)

EGOSI

cocer(se)
cocer(se); irritar(se), escocer(se)

yosi[1] (eta *eosi*) **1** *da/dau* ad. Egosi. *Yosi be do* 'egosi gabe dago'. **2** *da* ad. Gorputzeko azalaz mintzatuz, minberatu. *Aurrak ipurdi guztĭa yosik duka* 'haurrak ipurdi guztia egosirik dauka'.

yosi, yosten (2) EROSI

comprar
comprar, sobornar

yosi[2] (eta *eosi*) **1** *dau* ad. Erosi. || Sardinak yosten gindutzen (Ond Bak). | Merke yosi; gasti yosi. | Hik yositako autua txikiaia dok. | *Motor berria yosi, ta ibiltzen ez!* 'motor [motozikleta] berria erosi, eta ibiltzen ez!'. Ik. **mandatuak egin** (> *mandatuek in*). **2** *dau* ad. Diru truke norbaitengandik mesederen bat eskuratu. ¬

yosiazi (1) EROSARAZI

obligar a comprar

yosiazi (eta *eosiazi*) *dau* ad. Erosarazi, erostera behartu.

yosiazi (2) EGOSARAZI

hacer cocer

yosiazi[2] *dau* ad. Egosarazi, egostera behartu.

yostaile, yostailia EROSLE

yosdun / yostun *saltzaile*

comprador, -a

yostaile (eta *eostaile*) iz. Eroslea. *Txerri yostailĭa* 'txerri eroslea'. ▲ Sin. *yosdun*, *yostun*. ▼ Anton. *saltzaile*.

yoste, yostia (eoste, eostia) EROSTE

konpra

compra

yoste (eta *eoste*) iz. *erosi* aditzari dagokion ekintza. *Gauzak yostĭa nua* 'gauzak erostera noa'. Ik. **konpra**.

yotziazi, yotziazten / iotziazi ERAGOTZI ARAZI

yotziazi ad. eragotzi arazi. (Anaiari etxeko langilea yotziazi in dia kanpoan bizi den arrebak).
Ehiziako tranpiek patzia iotziazi ziain 'ehizarako tranpak paratzea eragotzi arazi zioten'

yozein EDOZEIN

cualquier; todo
cualquiera, quienquiera; cualesquiera, quienesquiera

yozein (eta *eozein*) **1** det. Edozein. *Yozein egunetan suston bat eman ber geau* 'edozein egunetan sustoren bat eman behar digu'. || *Yozein aldeta fateko* 'edozein aldetara joateko' (Ond Bak). **2** izord. *Yozeinek eztau inko olako bazkairik* 'edozeinek ez du egingo holako bazkaririk'. || *Yozeini kaso in* 'edozeini kasu egin' (Ond Bak). ◆ **yozein gauza** (eta *eozein gauza*). (Esapidea) Edozein gauza. *Lotsabeikworrek, yozein gauza!* 'lotsagabe horrek, edozein gauza!'.

yozer EDOZER

yozein

cualquier
cualquier cosa

yozer (eta *eozer*) 1 det. Edozein. 2 izord. Edozein gauza.

yun (guztia) EGUN

día, todo el día

yun (*guzti* zenbatzailearekin) *yun guztĭa*. Egun osoa, egun guztia. Ik. **egun**[1]. *Yun guztĭa bota dau oian* 'egun guztia bota du ohean'. *Yun guztĭa jaten!* 'egun guztia jaten!'.

yuntzi, yuntzia EULTZI

parva, trilla (mies tendida en la era para trillarla)

yuntzi[1] (eta *iuntzi*, *untzi*; *ontzia* [Altsasu]) iz. (Nekaz.) Eultzia; larrainean jo aurretik edo ondoren, etzanda dauden uzta azaoen multzoa. || *Yuntziek iteko larrainan* 'eultziak egiteko larrainean' (Ond Bak). ◆ **yuntziak egin** (> *yuntziek in*). Eultzitu, garia jo. Ik. **yuntzitu**. ◆ **yuntzitan ibili**. Eultzi lanetan aritu.

yuntzi, yuntzia (2) INUNTZI

escobón de brezo

yuntzi[2] iz. Inuntzia, txilarrezko erratza. Ik. **ilar-yuntzi**. Ald. *ilarriguntzi* (Iza Alts); *ilarrontzi* (Ond Bak). [Urdiain]: *ilarruntzi* eta *yuntzi*.

yuntziek in EULTZIA(K) EGIN

trillar; hacer la trilla

yuntziak egin (> *yuntziek in*). (Nekaz.) Eultzitu, garia jo. Ik. **yuntzitu**.

yuntzitan ibili EULTZITAN IBILI

haciendo la trilla

yuntzitan ibili. Eultzi lanetan aritu.

yuntzitu, yuntzitzen EULTZITU

yuntziek in

trillar (la mies en la era)

yuntzitu *dau* ad. (Nekaz.) Eultzitu, uzta larrainean jo, ahotza eta alea bereizteko. *Yuntzitu garia* 'eultzitu garia' (Ond Bak). || *Gwaindo gariek yuntzitu be dukatzĭu* 'oraindik gariak eultzitu gabe dauzkagu'. ▲ Sin. *yuntziek in*.

yutsi, yusten IRITSI

ailatu

llegar; alcanzar
alcanzar, pillar

yutsi **1** *da* ad. *Millon bat ez emen zan yutsi*. *Ez zaira hilabetia pasatzeko dirua yusten* 'ez zait hilabetea pasatzeko dirua iristen'. *Gauzak pintxo nahi, eta ez yusten* 'gauzak dotore nahi, eta ez iristen'. *Ezaigu yusten*. *Repartuen, janaia ezpa yusten?* **2** *dĭa* ad. Aurrean norabide berean doanarengana heldu. *Yutsi naiz haingana* 'iritsi naiz haiengana'. *Bĭandu ata naiz bea yutsi tut launak* 'berandu atera naiz baina iritsi ditut lagunak'. **3** *dau/dĭa* ad. Beste baten maila edo neurrira (hazi, handitu, ikasi...) ailegatu. *Yutsi dia anaiai eskolan* 'iritsi dio anaiari eskolan'. ¬

yutsin, yutsina ERAUNTSI

borraska; jasa (?)

tormenta, tempestad (de viento, lluvia, nieve); chaparrón

yutsin (eta *iutsin*; *irutxin* [Ziordia]) iz. Erauntsia. [borrasca, tempestad de lluvia, nieve, granizo; *hauts yutsina* (polvareda)]. *Yutsina heldu da*; *auri yutsina heldu da*; *harri yutsina*, *kazkar yutsina*, *elur yutsina*. Ik. **borraska**; **jasa** (?). *Auts yutsina* 'hauts erauntsia'. ¬

yuzki, yuzkia

IRUZKI, EGUZKI

Sol
sol

yuzki (eta *iguzki* [Altsasu]; *iuzki*) **1** iz. (Astronomian *E* larriz idazten da). Iruzkia, eguzkia. *Yuzkia. Yuzkiek Lurra argitzen dau. Yuzkia dok gutako jangoikua. Yuzkien berotasuna.* **2** iz. Eguzkiaren argia. *Yuzkik ezto gaur.* | – yuzki aldia 'eguzki aldea'. | – yuzkitan. | – yuzkitá. | – yuzkia yon. | – yuzkia hartu. | – yuzkia ata. Yuzkien ataeria. | – yuzkia sartu. Yuzkien sarreria. | ◆ **yuzki zuri**. *Yuzki txuria, indarbeikwa, bĭotzen eztena* 'eguzki txuria, indargabekoa, berotzen ez duena'. | ◆ **yuzkien azpien**. Ezta ezautu yuzkien azpien horren bekelakoik. ¬

yuzkialde, yuzkialdia

EGUZKIALDE

itzala

este, oriente
solana

yuzkialde **1** iz. Eguzkialdea, ekialdea. *Elizak aldarĭa yuzkialdĭá ibiltzen dai* 'elizek aldarea eguzkialdera ibiltzen dute'. **2** iz. Eguzkiak jotzen duen aldea. *Yuzkialdĭá patazu arropoiek sekatzen* 'eguzkialdera paratu itzazu arropa horiek sikatzen'. Ik. **egutera**.

yuzkipe, yuzkipia (?)

EGUZKIPE

argipe

itzalpe; ilunpe

lugar bajo el sol

yuzkipe iz. Eguzkipea. *Yuzkipĭen* 'eguzkipean'. Ik. **yuzkitan**; **yuzkien azpien**; **argipien**, **argitan**. ▼ Anton. *itzalpe*; *ilunpe*. ¬

zabal-zabala

ZABAL-ZABALIK

totalmente extendido
totalmente abierto, de par en par

zabal-zabala (eta *txabal-txabala*) adb. Erabat hedaturik edo barreiaturik; erabat irekita. *Or do, zabal-zabala jarrita* 'hor dago, zabal-zabala jarrita'. *Auztazu laiuek zabal-zabala* 'utz itzazu leihoak zabal-zabala'. *Ataia, zabal-zabala* 'ataria, zabal-zabala'.

zabal, zabala

ZABAL

laso

hestu, medar

ancho, -a; amplio, -a; extenso, -a; holgado, -a

zabal (eta *txabal*) **1** adj. *Bide zabala. Atorra zabala.* Ik. **laso**. ▼ Anton. *hestu*, *medar*. **2** adb. Irekirik. Ik. **zabalik**. Autzi zabalik (Ond Bak). *Agwa zabalik* 'ahoa zabalik'. *Autzi ataia zabalik* 'utzi atea zabalik'.
◆ **zabal-zabala** (eta *txabal-txabala*) adb. Erabat hedaturik edo barreiaturik; erabat irekita. *Or do, zabal-zabala jarrita* 'hor dago, zabal-zabala jarrita'. *Auztazu laiuek zabal-zabala* 'utz itzazu leihoak zabal-zabala'. *Ataia, zabal-zabala* 'ataria, zabal-zabala'.
◆ **zabal-zabala eginda** (> *zabal-zabala inda*).
[– zabalik eta zabalduik (bi formak erabiltzen dira. Bereizi)].

zabaldu, zabaltzen

ZABALDU

iri; barratu

1 hestutu, medartu. 2 itxi

ensanchar(se), ampliar(se)
extender(se), desplegar(se)
abrir(se)
anunciar(se), pregonar(se), divulgar(se), difundir(se), propagar(se), extender(se)

zabaldu **1** *da/dau* ad. Zabalera handiagoa eman. Ezta ain bide estua, ta ezto zabaldu berrik 'ez da hain bide hestua, eta ez dago zabaldu beharrik'. Ik. **lasatu**. ▼ Anton. *hestutu*, *medartu*.
2 *da/du* ad. Tolesturik edo bildurik dagoena hedatu. Talua zabaltzeko (Ond Bak). Izarak zabaldu.
3 da/dau ad. Ireki. *Ataia zabaldu*. Denda berria zabaldu dai 'denda berria zabaldu dute'. Ik. **iri**. ▼ Anton. *itxi*.
– zabalduik.
– zabalik.
– zabalduazi.
4 *da/dau* ad. Barreiatu. Ik. **barratu**.
– *Bidĭa* zabaldu. ¬

zabalduazi, zabalduazten

ZABALARAZI

hacer abrir; forzar a abrir; forzar a extender

zabalduazi *dau* ad. Zabalarazi, zabaltzera behartu. *Ataia zabaldwazi in dĭat* 'atea zabalarazi egin diot'.

zabaldura, zabalduria

ZABALDURA

ensanchamiento

zabaldura iz. Zabaltzea; horren ondorioa. *An zukan errekĭek zabalduria* (LM) 'han zeukan errekak zabaldura'.

zabalera, zabaleria

ZABALERA

anchura, ancho
amplitud, extensión

zabalera iz. Zabaltasunaren neurria. *Zabalera aundio emaiozu atorrĭorri bizkarraldĭen* 'zabalera handiago emaiozu atorra horri bizkarraldean'.

zabalik

ZABALIK

itxik, itxita

abierto, -a
de par en par [abierto]

zabalik adb. Zabaldurik; irekirik. *Gaur zabalik do dendĭa* 'gaur zabalik dago denda'. ▼ Anton. *itxik* / *itxita*. ◆ **zabal-zabalik**. Erabat zabalduta. [- *zabalik* eta *zabalduik* bi formak erabiltzen dira. Bereizi].

zabartu, zabartzen

EGURASTU

despejatu; pixkortu

despejarse, tomar el aire, orearse, pasear

zabartu *da* ad. Egurastu, airea edo haizea hartu. *Zabartu, norbĭa despejatu* 'zabartu, norbera egurastu'. *Ata za zabartzĭa?* 'atera zara zabartzera? [egurastera]'. Ik. **despejatu**; **pixkortu**.

zabor, zaborria
ZABOR

zaborreia

residuo, basura, resto, despojo

zabor / **zaborra** (eta *zabur*) (*a* itsatsia?) iz. *Zabor montona; zabor pilĭa*. Ik. **zaburra**; **zaborreria** (> *zaborreia*, *zaburrei*) ◆ **zaborra kontenedore** iz. Zaborrontzia.

zaborra kontenedore, zaborra kontenedoria
ZABORRONTZI

contenedor para depositar residuos

zaborra kontenedore iz. Zaborrontzia. Ik. **zaburra**; **zaburrei**.

zaborreia
ZABORRERIA

zikinkeia

desecho, residuo, basura, resto, despojo

zaborreria (> *zaborreia*, *zaburreia*) iz. Zaborrak, zabor multzoa. Zaborreiak indar haundia deka. Zaborrei ásko do sóru hontán (Ond Bak). Ik. **zabor**; **zikinkeria**.

zaburra, zaburria
ZABOR

residuo, basura, resto, despojo
zarza, matorral, maleza
escombro
partícula de suciedad que se introduce en el ojo

zaburra (*a* itsatsia) iz. Zaborra. *Zaburran bat sartu zaĭra begĭá* 'zaborren bat sartu zait begira'. Ik. **zabor**; **zaborreia** / **zaburreia**.

zaburreia
ZABORRERIA

desecho, residuo, basura, resto, despojo

zaburreria (> *zaburreia*) iz. Ik. **zaburra**. ◆ **jende zaburreia**. *Hoi jende xaburreia* (koxkorra).

zaburtegi, zaburtegia (?)
ZABORTEGI

basurero, vertedero

zaburtegi iz. Zabortegia. *Zaburtei bat inik do baztarroi, zaborrĭa franko biltzen da or* 'zabortegi bat eginik dago bazter hori, zaborra franko biltzen da hor'.

zagizuri, zagizuria
GABIRAI

gabilan, usojantzaile

gavilán (Accipiter nisus)

zagizuri [Bakaiku] iz. Gabiraia (Accipiter nisus). *Hegazti haundi bat, txita-jantzaile* (Ond Bak). Ik. **gabilan**; **usojantzaile**.

zahagi, zahagia
ZAHAGI

odre, pellejo

zahagi (> *zagi*) iz. Abere larrua, gehienetan ahuntzarena, zaku eran josia, ardoa edo olioa gordetzeko erabiltzen dena. *Ardo zagia* 'ardo zahagia'. *Zagi ardo* 'zahagi ardo'.

zahar, zaharra

ZAHAR

gazte, berri

anciano, -a, viejo, -a
mayor
antiguo, -a, viejo, -a

zahar (> *zar, xar*) **1** adj./iz. *Attun zarra* 'aitona zaharra'. || Bakaikuko zaharrak kontatzen zeina (Ond Bak). • Esr. zah. *Zarran mutriluen, arraia seguro* 'zaharraren mutriluan [butroian] arraina seguru'. ▼ Anton. *gazte*. **2** adj. (Erkaketetan). Urte gehiago dituena. *Ne baindo zarro da* 'ni baino zaharrago da'. *Zaharrenik zaharren*. *Niau baindo zarrokwa* 'neu baindo zaharragokoa'. **3** adj. Aspaldi sortua edo gertatua. *Etxe zarra berritu* 'etxe zaharra berritu'. *Ze berri? —Zaharrak berri*. *Kontu zarrak dĭa oiek* 'kontu zaharrak dira horiek'. *Galtzen fan dĭa oitura zarrak* 'galtzen joan dira ohitura zaharrak'. ▼ Anton. *berri*. **4** adj. Handia. *Oi arraila zarra dukana ormĭorrek* 'hori arraila zaharra daukana horma horrek. || *Oiek esku zarrak dukatzik ba!* 'horiek eskutzarrak dauzkak, ba!'. || *Lapúr zarrók!* (katubairi) (Ond Bak). Ik. **zar** (tzar).

zaharberritu, zaharberritzen

ZAHARBERRITU

renovar(se), reformar(se)

zaharberritu (> *zarberritu*) *dau* ad. Zaharra berritu; zaharrari berri itxura eman.

zaharraldi, zaharraldia

ZAHARRALDI, ZAHARTZE

envejecimiento; desgaste, pérdida de vigor; (avejentar)

zaharraldi (> *zarraldi*) iz. Zahartzea, zahartzen den aldia; aguretzea, atsotzea. *Agoko min onek eman dwa zarraldi bat* 'ahoko min honek eman dit zaharraldi bat!'. *Jendi'orrek yan den zarraldi oi!* 'jende horrek eraman [jasan, pairatu] duen zaharraldi hori! [izan duen zahartzea]'. *Zarraldia eman dĭai disgusto guzti oiek; ikusi besteĭk ezto nola zartu dan* 'zaharraldia eman diote disgustu guzti horiek; ikusi besterik ez dago nola zahartu den'. *Nolako zarraldia eman dĭan gaitzak!* 'nolako zaharraldia eman dion gaitzak!'.

zaharreia

ZAHARRERIA

vejez, senectud

zaharreria (> *zarreia*, *xarreia*) iz.

zahartu, zahartzen

ZAHARTU

amindu

gaztetu, berritu

envejecer(se), aviejar(se); pasar(se) de moda
envejecerse, llegar a una cierta edad

zahartu (> *zartu*, *xartu*) *da* ad. *Záhartuik zon baték esánia* (Ond Bak). Ik. **amindu**. ▼ Anton. *gaztetu*; *berritu*.

zahartzaro, zahartzarua

ZAHARTZARO

vejez, senectud, ancianidad (período)

zahartzaro ([Altsasu] eta *zarzaro*, *zarzarwa* [Urdiain]) iz. Giza bizitzaren azken zatia, heldutasunaren ondokoa.

zahi, zahia

ZAHI

salvado; cáscara del grano de los cereales desmenuzada por la molienda

zahi (> *zai*) iz. iz. Eho ondoren irinarekin nahasirik gertatzen den ale azal xehatua. *Zahi pixkat*. *Zahiekin zakuba* (Ond Bak).|| *Zaia jan da putza bero* 'zahia jan eta putza bero'. *Zaiek leno ez zukan fama onik, bea ezan galtzen da jan iten zan* 'zahiak lehenago ez zeukan fama onik, baina ez zen galtzen eta jan egiten zen'.

zail, zaila

ZAIL

1 erraza; 2 samurra

difícil, complicado, -a; dificultoso, -a; arduo, -a
duro, -a, sólido, -a; correoso, -a
duro, -a, incansable, resistente

zail **1** adj. Erraza ez dena. Lurreti atatzeko zaila, borrajĭa atatzeko zaila do. || Zail gizentzekuek dia. Erraz gizentzekuek dia. Gauza zailak. Lurra izaten da zaila harrotzeko (Ond Bak). Zail samarra da Bizkaiko eskueria. ▼ Anton. *erraz(a)*. **2** adj. Samurra ez dena. *Haragi zaila*. *Zail samarra*. Persona zaila 'pertsona zaildua [correoso, -a]. ▼ Anton. *samurra*.

zaildu, zailtzen

ZAILDU

konplikatu — *erraztu*

dificultar, complicar
endurecer(se), curtir(se)

zaildu **1** *da/dau* ad. ▲ Sin. *konplikatu*. ▼ Anton. *erraztu*. **2** *da/dau* ad. *Basoko lanetan ondo zaildwik* de 'basoko lanetan ondo zaildurik daude'.

zailtasun, zailtasuna

ZAILTASUN

1 gogortasun — *1 biuntasun; 2 erraztasun*

dureza, endurecimiento
dificultad, estorbo, impedimento, obstáculo, traba, inconveniente

zailtasun 1 iz. ▲ Sin. *gogortasun*. ▼ Anton. *biuntasun*. 2 iz. ▼ Anton. *erraztasun*.

zain (2)

ZAIN

espea

vigilando; esperando

zain[2] (eta *zai*) adb. *Yon zaitez zain* 'egon zaitez zain'. Ik. **espera** (> *espea*, *espĭa*). ◆ **zain egon** (> *zaĭn yon; zai yon*) **1** Itxaroten egon. *Ordu erdi bat zai ta ua etortzen ez!* 'ordu erdi bat zain eta hura etortzen ez!'. 2 Zaintzen egon. *Zai yonda aurra noiz lokartuko* 'zain egon da haurra noiz lokartuko'.

zain yon / zai yon

ZAIN EGON

estar a la espera, estar esperando, estar aguardando
estar vigilando, estar cuidando

zain egon (> *zaĭn yon; zai yon*) **1** Itxaroten egon. *Ordu erdi bat zai ta ua etortzen ez!* 'ordu erdi bat zain, eta hura etortzen ez!'. 2 Zaintzen egon. *Zai yonda aurra noiz lokartuko* 'zain egon da haurra noiz lokartuko'.

zain, zaina

ZAIN (1)

nerbio

raíz
vena
tendón; nervio

zain[1] **1** iz. Sustraia, erroa. *Zain eta ondua, lepotik gora arramak* (Ond Bak). *Pagu'horrek airien dukatzi zainak. Arbolien zainak, ondua o ipurdia, tronkua o gerria ta arramak. Aldakaitzak dia zainan ondoti atatzen dian arramak* 'arbolaren zainak, ondoa edo ipurdia, enborra edo gerria eta adarrak. Aldakaitzak dira zainaren ondotik ateratzen diren adarrak'. Ik. *sapi*.
– *zaineti ata* 'errotik atera' (arrancar de cuajo).
2 iz. Odola dabilen hodia. *Bernako zainak lertzeko zorien dukatzi* 'bernako [bernatako] zainak lehertzeko zorian dauzka'.
3 iz. Giharra hezurrari itsasteko egitekoa duen zuntz sorta.
– eztarriko zainak.
– lepozaina.
4 iz. Nerbioa. Ik. **nerbio**.

zaindu, zaintzen

ZAINDU

kasoin, atenditu, zaitu

cuidar, vigilar
guardar(se), preservar(se), proteger(se)

zaindu (eta *zeindu*, *zaitu*) **1** *dau* ad. *Zaintzak kazulĭa* 'zaindu ezak kazola'. **2** *da* ad. *Zaindu zĭaure bua* 'zaindu zeure burua'. Ik. **kasu egin** (> *kasoin*); **atenditu**; **zeindu**.

zaintsu, zaintsua

ZAINTSU

venoso, -a, musculoso, -a, vigoroso, -a
de muchas raíces

zaintsu **1** adj. Zain asko dituena; zainak eta giharrak larruazalean nabari zaizkiona; indartsua. *Zaintsua, zain asko dukatziena, dana zaina* 'zaintsua, zain asko dauzkana, dena zaina'. **2** adj. (Landareez mintzatuz). *Zaĭn askoko plantĭa da; zaintsua* 'zain askoko landarea da, zaintsua'.

zaintzaile, zaintzailia

ZAINTZAILE

kasoitaile, kasointzaile

cuidador, -a; vigilante, guardián, -ana

zaintzaile **1** iz. Zerbait edo norbait zaintzen duen pertsona. Ik. **kasoitaile**; **kasointzaile**. **2** (Izenondo gisa).

zaio, zaiua

ZEIO

aza, azalki

azuela (herramienta de carpintero que sirve para desbastar)

zaio (> *zayo*) iz. Zeioa, aitzur txiki baten antzeko lanabesa, zurginak zura arbastatzeko erabiltzen duena. Ik. **aza**[2]; **azalki**.

zaitu, zaitzen

ZAINDU

zaindu / zeindu

cuidar, vigilar

zaitu *dau* ad. Zaindu. Ik. **zaindu** / **zeindu**.

zaizkizu; zaizkio (...) [IZENA GALDETZEKO / EMATEKO ADIZKIAK]

forma(s) verbal(es) para preguntar por el nombre o la denominación
forma(s) verbal(es) para dar el nombre o la denominación

zaizkizu, {**zaizkio...**} Izena galdetzeko adizkiak; izena emateko adizkiak. Ik. **izen**. NOR-NORI saileko pluraleko adizkiak baliatzen dira izena galdetzeko, eta izena emateko: {***zaizkia*** (> *zaizkĭa*), ***zaizkik*** / ***zaizkin***, ***zaizkizu***, ***zaizkio***, ***zaizkiu*** (> *zaizkĭu*), ***zaizkizai***, ***zaizkie***}. *Nola zaizkizu?* 'nola deitzen zara? / zein da zure izena'. *Nei «Mari» zaizkĭa* 'ni «Mari» deitzen naiz'. *«Ilbeltza» zaizkio Burundan «urtarrilai»* '«ilbeltza» deitzen zaio Burundan «urtarrilari»'. *Galdetu iozu nola zaizkion* 'galdetu egiozu [galde iezaiozu] nola deitzen den / zein izen duen'.

zajau haundi, zajau haundia ZAMAU

mantel

mantel

zajau haundi. Zamaua. Ik. **mantel**; **hule**.

zajau txiki, zajau txikia EZPAINZAPI, AHOZAPI

serbilleta

servilleta

zajau txiki. Ezpainzapia, ahozapia. ▲ Sin. *serbilleta*. Ik. **eskuzatar**.

zajau, zajaua ZAMAU, MAHAI-ZAPI. 2 AHOZAPI

mantel

mantel
servilleta
(pl.) mantelería (juego de mantel y servilletas)

zajau iz. Zamaua. ▲ Sin. *mantel*. || (pl.) *Zajauek* [mantelería, juego de mantel y servilletas]. ◆ **zajau haundi**. Zamaua. Ik. **mantel**; **hule**. ◆ **zajau txiki**. Ezpainzapia, ahozapia. ▲ Sin. *serbilleta*. Ik. **eskuzatar**. ◆ **elizako zajau**. Mezako Ofertorioan erabiltzen den zamaua (Ond Bak). *Bere azpiyan yaten zuten olata mezakuen*. Elizako zajaua da kutxa gainetan ibiltzen dana.

zakar, zakarra ZAKAR

2 basurda *1 ederra, polita. 2 gozoa*

feo, -a; de mal aspecto
brusco, -a, áspero, -a, desagradable; grosero, -a

zakar (eta *xakar*) **1** adj. Itsusia. ▼ Anton. *ederra*, *polita*. **2** adj. Izaera zakarra; inolako gozotasunik agertzen ez duena. *Zakar xamarra zan* 'zakar samarra zen' Ik. **basurda**. *Bero zakarra*. *Egwaldi zakarra* 'eguraldi zakarra'. ▼ Anton. *gozo(a)*. ◆ **zakar-ipurdi.** *Aldeintzan, zakar-ipurdioi!* (*alkarrekin hasarratzen zianien*) 'alde egin ezan, zakar-ipurdi hori! (elkarrekin haserretzen zirenean)' (LM).

zakarkeia ZAKARKERIA

dureza, brusquedad, grosería, rudeza, tosquedad

zakarkeria (> *zakarkeia*) iz. Zakartasun gaitzesgarria; pertsona zakarrari dagokion egitea edo esana. *Zakarkeietan daile beti* 'zakarkerietan dabil beti'. *Zakarkeia ta modu txarra besteĭk eztukatzi* 'zakarkeria eta modu txarra besterik ez dauzka'.

zakartu, zakartzen

ZAKARTU. 2 ITSUSTU

volverse tosco, -a, embrutecerse; enfurecerse, embravecerse
afearse; ajarse, deteriorarse

zakartu **1** *da/dau* ad. Zakar bihurtu, laztu. *Egwaldia zakartu* 'eguraldia zakartu'. **2** (eta *xakartu*) *da* ad. Edertasuna galdu, itsusi edo itsusiago bihurtu. *Leno majĭo zan; zakartu in da* 'lehenago ederrago zen; zakartu egin da'.

zaku, zakua

ZAKU

saco, costal, saca
saco, cosa contenida en un saco

zaku **1** iz. *Irina, zaku batien... Eta... sartu zahien zakuben; irinakin zakuba... eta zahiekin zakuba* (Ond Bak). | *«Hi, zakua hutsik ez duk zutik egoten!» esaten ziken Pello Zabala frailĭek, ta orrengeiti laitzen emen ziken, zakua bete ta zutik mantenitzeko* '«hi!, zakua hutsik ez duk zutik egoten» esaten zian Pello Zabala fraideak, eta horregatik leitzen omen zian, zakua bete eta zutik mantentzeko'. Ik. **zakutela**. **2** iz. Zorro horren edukia; neurria. *Zakua patata. Trukien zaku sarrak ematen zen.*
– zakuzar. *Zakuzarrain modwa do jantzik.*

zakukada, zakukadia

ZAKUKADA

carga de un saco, un saco lleno

zakukada iz. Zakuaren edukia. *Bost zakukada patata ata tu sailĭortan* 'bost zakukada patata atera ditugu sail horretan'. *Soinĭen zakukadĭa artuta* 'soinean zakukada hartuta'.

zakukan

ZAKUKA

a sacos, por sacos; en gran cantidad

zakukan adb. Zakuka; zakuetan, kopuru handian. *Zakukan ekartzen genduzen gaztinak* 'zakuka ekartzen genituen gaztzainak'.

zakutela, zakutelia

TELAZKO ZAKU

bolsa

talega, saco de tela; bolsa de tela

zakutela iz. Telazko zakua, oihalez eginiko zakua edo poltsa, neurri txiki eta erdikoa. Ik. **zaku**; **bolsa**; **zakuto**. *Misazko zakutelak, urdaiazpikwek sartzeko* 'mihisezko zakutela, urdaiazpikoak sartzeko'. *Zakutelan ekartzen dot ogia* 'zakutelan ekartzen dut ogia'.

zakuto, zakutua

ZAKUTO

makuto

alforja, saquito

zakuto iz. Zaku edo zorro txikia, bereziki bidaietan-eta erabiltzen dena. ▲ Sin. *makuto*. ¬

zaldi zuri, zaldi zuria

LOGURA (TXOMIN)

logura

sueño (personificado para niños)

zaldi zuri iz. (Haur.) Logura, lo egiteko gogoa. ◆ **zaldi zuria heldu** [etorri]. Logalea, lo egiteko gogoa etorri. *Eldu zaizu zaldi zuria* 'heldu zaizu [badatorkizu] zaldi zuria [logura]'. *Ume oni eldu zaio zaldi zuria* 'ume honi heldu zaio [badatorkio] zaldi zuria'. Ik. **logure**. [OEH. ZALDI ZURI. "Cama, en lenguaje infantil" BU Arano].

zaldi, zaldia ZALDI

caballo, res equina (Equus caballus)

zaldi iz. (Equus caballus). Ik. **bihor**; **kaballeria** (> *kaballeia*).

zaldiki, zaldikia ZALDIKI

carne de caballo

zaldiki iz. Zaldi okela. *Ezto oituraik zaldikia jateko* 'ez dago ohiturarik zaldikia jateko'.

zaldiko-maldiko ZALDIKO-MALDIKO

caballito (juego infantil)

zaldiko-maldiko. Haur jolasa (LM).

zaldiko, zaldikua ZALDIKO

caballo (en el juego de cartas)

zaldiko adj./iz. Karta jokoan, zalduna. *Zaldiko kopĭa* 'zaldun kopa'. ◆ **zaldiko-maldiko**. Haur jolasa (LM).

zaldikuma, zaldikumia ZALDIKUME

bioka; pottoko

potro, -a

zaldikuma iz. Zaldikumea. Ik. **behoka** (> *bioka*); **pottoko**.

zale, zalia ZALE

aficionado, -a, inclinado, -a, amante de, deseoso de

zaletasun, zaletasuna ZALETASUN

afizio

afición, gusto, tendencia, propensión, inclinación

zaletasun iz. Zerbaiten edo norbaiten zalea izatea, zerbaitetarako edo norbaitenganako joera edo atxikimendua. *Amak zaletasun aundia duka musikako* 'amak zaletsun handia dauka musikarako'. Ik. **afizio**.

zaletu (?)

zalke, zalkia ZALKE

beza

arveja (Vicia sativa)

zalke iz. (Bot.) Lekadunen familiako landare igokaria, lore arrosa handiak ematen dituena, gari sailetan, belardietan eta bide bazterretan hazten dena (Vicia sativa). ▲ Sin. *beza*. ◆ **zalke beltz**. *Berez o erein be sortzen dana; zikina da* (Ond Bak). ◆ **zalke zuri**. (Bot.) *Ereinda etortzen da; hau ezta zikina. Biek animaliendako dia (zuri eta beltza)* (Ond Bak).

zaloi, zaloia ZALOI(N), ZALU (?)

esbelto, -a; airoso, -a, garboso, -a (?)

zaloi adj. Planta onekoa, itxura onekoa. *Zaloia, planta onekwa* 'zaloia, planta onekoa'.

zama, zamia AZAO

manojo, haz

zama iz. Azaoa. *Orbel zamĭa*. *Bear zamĭa* 'belar zama'. Ik. **bal**; **espal**; **sorta**.

zamailu
ZAMALEULI, MANDEULI

mandaiauli

mosca borriquera, mosca de burro, mosca de caballo (Hippobosca equina)

zamailu [Ziordia] iz. Zamaleulia, euliaren antzeko intsektu zapala, marroia eta distiratsua, batez ere zaldi eta abelgorriei ipurdi aldean eransten zaiena eta mihi zorrotz eta xurgatzailea duena (Hippobosca equina). Ik. **mandaiauli**; **itauli**.

zamaka / zamakan
AZAOKA, ZAMAKA

por manojos, por gavillas

zamaka(n) adb. Azaoka. *Orbela, zamaka-zamaka, gurdien patu* 'orbela, azaoka-azaoka, gurdian paratu'.

zamarra, zamarria
ZAMAR (1)

zamarra, chamarra

zamarra (*a* itsatsia) iz. Jaka moduko jantzia.

zana
ZENA

difunto, -a

zana (Mugatua) Zena; hildako bat aipaten denean erabiltzen den aposizioa. *Gwe ama zana bizi balitz gwai egun urte ibilko zituen* 'gure ama zena bizi balitz orain ehun urte ibiliko [izango] zituen'.

zanaoria
AZENARIO

zanahoria (Daucus carota)

zanaoria iz. Azenarioa (Daucus carota subsp. sativus).

zanbrada, zanbradia
BIZKARKADA (KARGA)

carga, que se lleva a la espalda

zanbrada iz. Bizkarrean jasotzen den karga. Ik. **bizkarkada**; **soinkada**.

zanbro, zanbrua
ZANBRO*

estéril (dicho de una planta, etc., que no da fruto, o no produce nada)

zanbro adj./iz. Landareengatik hitz eginez, emankorra ez dena, fruiturik ekartzen ez duena. *Patata zanbrwa, patataik ematen eztuena. Ezta gauza bĭa patata zanbrwa ta patata bortĭa.*

zanbrotu, zanbrotzen
ZANBROTU*

(dicho de una planta, etc.) hacerse improductivo, -a; no fructífero, -a

zanbrotu *da* ad. Landareengatik hitz eginez, zanbro bilakatu, ez-emankor bihurtu. *Gwe patatĭa zanbrotzen dua* 'gure patata zanbrotzen doa'. *Patatĭa zanbrotu iten da patata azia zarra baldin bada* 'patata zanbrotu egiten da patata hazia zaharra baldin bada' [*hazi zaharra*: berritu ez den hazia; leku berritik ekarritakoa da hazi berria].

zanbulu, zanbulua
ZANBULU

columpio

zanbulu iz. Bi soka edo katetatik zintzilik paratzen den esertokia, kulunkatzeko erabiltzen dena. *Erriko parkĭen zanbulu berriek patu tuai* 'herriko parkean zanbulu berriak paratu dituzte'.

zanbuluka(n) ZANBULUKA

irrinkaxketan, gurdilafraikan

balanceándose, meciéndose, tambaleándose

zanbuluka(n) adb. Zanbuluak eginez. Ik. **irrinkaxketan**; **gurdilafraikan**. ◆ **zanbulukan ibili**. Zanbuluka egin. *Gustwa ibiltzen da zanbulukan* 'gustura ibiltzen da zanbuluka'. Ik. **irrinkaxketan ibili**; **gurdilafraikan ibili**.

zanbulukan ibili ZANBULUKA IBILI

irrinkaxketan ibili, gurdilafraikan ibili

columpiar(se), balancear(se), mecer(se)

zanbulukan ibili. Zanbuluka egin. *Gustwa ibiltzen da zanbulukan* 'gustura ibiltzen da zanbuluka'. Ik. **irrinkaxketan ibili**; **gurdilafraikan ibili**.

zandala baba, zandala babia ZALDALE BABA

pienso de haba

zandala baba iz. Zaldale baba. *Zandala babĭa* [Urdiain].

zandale, zandalia ZALDALE

pensu

pienso, alimento que se da al ganado

zandale iz. Zaldalea; abereei ematen zaien bazka lehorra. Ik. **pensu**. *Lepizko zandalĭa ematen zĭan beieiri, gĭo agotza ta bĭar sekwa* 'lehendabiziko zaldalea ematen zien behiei, gero ahotza eta belar sikua'. || (Ond Bak) {pienso de grano, se opone a 'forrajia'}. *Artuzko, babazko, eruzko, galondarrezko, garizko, zalkezko pentsua*. ◆ **zandala baba** iz. Zaldale baba. *Zandala babĭa* [Urdiain].

zanga ZANGA (2)

onomatopeya del sorbo, trago

zanga onomat. Hurrupatzean egiten den hotsaren onomatopeia. Ik. **furrut**. ◆ **zanga-zanga edan** (> *zanga-zanga yan*). Zanga-zanga edan. Ik. **tuka-tuka edan**.

zangano, zanganua ERLAMANDO, ERLE NAGI

zángano, macho de la abeja reina

zangano iz. Erlamandoa, erle arra. *Zanganwek eztai pikatzen* 'zanganoek [erle arrek] ez dute pikatzen [ziztatzen]'. *Erlotz aurrĭen agertu dĭa ilik zangano guztiek* 'erlauntz aurrean agertu dira hilik zangano [erlamando] guztiak'.

zangilargo, zangilargua ZANGOLUZE, HANKA-LUZE

hanka luze

zanquilargo, -ga

zangilargo adj. Zangoluzea, zango luzeak dituena. Ik. **hanka luze**.

zanja-zulo, zanja-zulua ZANGA, ZANGA-ZULO

zanja, foso

zanja-zulo. Zanga, zulogunea.

zanja, zanjia ZANGA

zanja-zulo; trintxera

foso, zanja

zanja iz. Zanga. ◆ **zanja-zulo**. Zanga, zulogunea.

zankada, zankadia

PAUSO, OINKADA

pauso

zancada, paso largo

zankada iz. Oinkada luzea, pauso luzea. Ik. **pauso**.

zankalatraba

ZANGALATRAU (?)

zankarriko (?), zankarte (?)

a horcajadas

zankalatraba adb. Zangalatrau, zangoak eserlekuaren alde banatara jarriz eserita. Ik. **zankarriko**; **zankarte**.

zankarriko

ZANGALATRAU

zankarte, zankalatraba (?)

a horcajadas

zankarriko adb. Zangalatrau; zangoak eserlekuaren alde banatara jarriz eserita. Ik. **zankarte**; **zankalatraba** (?). ◆ **zankarriko jarri**. (Ond Bak) [& Urdiain]. *Malĭen, zankarriko* 'magalean, zankarriko.

zankarte, zankartia

ZANGARTE*, HANKARTE; 2 ZANGALATRAU

iztarrarte

entrepierna, bragadura, horcajadura
a horcajadas

zankarte (eta *xankarte*) **1** iz. Hankartea. Ik. **iztarrarte**. **2** adb. Zangalatrau. *Astwen, zankarte itxota* 'astoan, zangalatrau igota'. Ik. **zankarriko**; **zankalatraba**.

zankatu, zankatzen

apalancar

zankatu *da/dau* ad. *Labadorĭa zankatu*.

zanko, zankua

ZANGO

hanka

pierna

zanko iz. (Iza Alts) Zangoa. Ik. **hanka**.

zanpa

ZANPA, DANBA

danba

onomat. de un golpe, de una caída, de un estallido

zanpa onomat. Kolpe gogor baten, eztanda baten edo eroriko baten onomatopeia. *Zanpa! bota da lurrĭá* 'zanpa! bota da lurrera'.

zanpa-zanpa / zinpi-zanpa

ZANPA-ZANPA

sin cesar, ininterrumpidamente
dale que dale, a golpe limpio

zanpa-zanpa (eta *zinpi-zanpa*) adb. Etengabe, gelditu gabe. *Elurketan do, zanpa-zanpa* 'elurketan dago, zanpa-zanpa'. || Etengabe jotzearen onomatopeia. *Emaiok alfonbrĭorri, zanpa-zanpa!* 'emaiok alfonbra horri, zanpa-zanpa!'.

zanpatako, zanpatakua ZANPATEKO

danbateko

golpe fuerte; ruido, estruendo
golpe; costalada

zanpatako iz. Zanpatekoa. *A ze zanpatakwa eman dĭa* 'a zer zanpatekoa eman dio'. Ik. **danbateko**.

zanpatorta, zanpatortia / zanpatorto, LODIKOTE, POTZOLO

puztikilo, potzolo

gordinflón, -ona; rechoncho, -a

zanpatorta (Generoa hartzen du [aztertu]). adj. *Hoi nesaki zanpatortia; ezin ibili do*.

zanpuztu, zanpuzten ZAPUZTU

aborrecer, abandonar (dicho de las aves: dejar o abandonar el nido, los huevos o las crías)

zanpuztu *dau* ad. Zapuztu, hegaztiak habia arbuiatu, baztertu. Kafia zanpuztwik do; kafia autzita eta arrontzak galduta 'habia zapuzturik dago, habia utzita eta arrautzak galduta'. || – Asko janda, zanpuztu (?).

zantzu ZANTZU

rastro
estar aguardando, estar vigilando, estar al acecho
en busca (de), a la busca (de)

zantzu ◆ **zantzuan egon / ibili** (> *zantzuen yon, ibili*) (-*en* atzizkiaren eskuinean, *egon*, *ibili* eta kideko aditzekin). *Or do katua geldi-geldi espĭa, xauen zantzuen* 'hor dago katua geldi-geldi esperoan, saguaren zantzuan'. *Janaien zantzuen* 'janariaren zantzuan'. Ik. **arrastoan** (> *arrastwen*). ◆ **zantzuan (joan...)** (> *zantzuen fan*). Bila.

zantzuen fan ZANTZUAN JOAN

en busca (de), a la busca (de)

zantzuan (joan, ...) (> *zantzuen fan*). Bila.

zantzuen yon / ibili ZANTZUAN EGON

estar aguardando, estar vigilando, estar al acecho

zantzuan egon / ibili (> *zantzuen yon, ibili*) (-en atzizkiaren eskuinean, egon, ibili eta kideko aditzekin). *Or do katua, geldi-geldi, xauen zantzuen* 'hor dago katua, geldi-geldi, saguaren zantzuan'. Ik. **arrastoan** (> *arrastwen*).

zapal, zapala ZAPAL

plano, -a, llano, -a, aplastado, -a; chato, -a

zapal **1** adj. Ohikoa baino garaiera txikiagoa duena. **2** adj. Zapaldua bezala dagoena. ◆ **zapal-zapala** adb. ◆ **zapal-zapala egin** (> *zapal-zapala in*). Erabat zapaldu.

zapalaldi, zapalaldia ZAPALDI

aplastamiento, compresión

zapalaldi iz. Zapaldia; zapaltzea, zapaltze aldia. *Mazwekin buztin enpapatuai zapalaldi bat eman* 'mazoarekin buztin enapatuari [bustiari] *zapalaldi* bat eman'.

zapaldu, zapaltzen

ZAPALDU

pisar, pisotear, hollar
prensar, apisonar, aplastar
oprimir, someter, vejar

zapaldu (eta *zapatu* [Altsasu]) **1** *dau* ad. Lurrean dagoen zerbaiten gainean oina jarri; oin azpian erabili. *Nola ez dezun txakurran kakoi zapaldu!* 'nola ez duzun txakurraren kaka hori zapaldu!'. **2** *dau* ad. Gainean jartzen den zerbaiten bitartez sakatu, zanpatu. **3** *da* ad. Zapalago bihurtu, trinkoago bihurtu. *Lurra iten da zapaldu* (Ond Bak). **4** *dau* ad. Azpian hartu, mendean hartu edo eduki. ¬

zapaltzaile, zapaltzailia

ZAPALTZAILE

pisoteador, -a; opresor, -a

zapaltzaile adj./iz. Zapaltzen duena; bereziki, norbait indarrez zapaldua daukana. *Jende zapaltzailia izan dĭa oiek beti* 'jende zapaltzaile(a) izan dira horiek beti'.

zapar, zaparra

ZAPAR, SAPAR

zarza; maleza
maleza, matorral

zapar iz. (Bot.) [matorral]. *Zapar, arbol mehea: urritza, pago gaztia; sasi eztienak, zaparrak dia* (Ond Bak). Hesiek zaparrakin iten zian 'hesiak zaparrarekin egiten ziren'. Ik. **sasi**. ◆ **zaparrak hartu**. *Baswa zaparrak artu* 'basoa zaparrak hartu'. *Leno sorwa zana, zaparrak artu dau* 'lehenago soroa zena, zaparrak hartu du'. Ik. **larrak hartu**.

zapardi, zapardia

ZAPARDI, SAPARDI

matorral, zarzal

zapardi iz. Zaparra dagoen eremua. *Zapardi, arbol meheak sarri den lekua* (Ond Bak).

zaparrada, zaparradia

ZAPARRADA

yauri yutsin

chubasco, chaparrón

zaparrada iz. Euri jasa. *Atzo atsaldĭen zaparrada galantak bota zituen* 'atzo arratsaldean zaparrada galantak bota zituen'. ◆ **yauri zaparrada** iz. Euri zaparrada. *Yauri zaparrada majwa bota dau* 'euri zaparrada majoa bota du'. Ik. **yauri yutsin**.

zapata, zapatia

ZAPATA

zapato

zapata iz. Larruzko oinetakoa, oina orkatilaraino estaltzen duena. *Zapata parĭa* 'zapata parea'.

zapatain koxkor, zapatain koxkorra

ZAPATARI ARRUNT

zapatero, tejedor (Gerris lacustris; Gerris sp.); insecto hemíptero que se mueve con agilidad por

zapatain koxkor [Altsasu] iz. Zapataria; erreka eta ibaietako ur geldien gainean ibiltzen den intsektu hankaluzea (Gerris lacustris; Gerris sp.).

zapatain, zapataina

ZAPATAGIN

zapatero, -a

zapatero, -a

zapatain [Altsasu, Bakaiku] iz. Zapatagina; zapataria.

zapatero, zapaterua / zapatera, zapateria

ZAPATARI

zapatain [Altsasu]

zapatero, -a

zapatero, -a (Generoa hartzen du: *zapatero, -rwa*; *zapatera, -rĭa*) iz. Zapataria; zapatagina; zapata-konpontzailea. *Leno, erri gaienetan yoten zan zapaterwa* 'lehenago, herri gehienetan egoten zen zapataria'. Ik. **zapatagin** (> *zapatain*).

zapatilla, zapatillia

ZAPATILA

zapatilla; playera

zapatilla iz. Zapatila, txapina. *Etxeko zapatillak* 'etxeko zapatilak'.

zapatu

ZAPATU, ZAPALDU

pisar, pisotear, apisonar, aplastar
prensar, apisonar

zapatu *dau* ad. Zapaldu, sakatu (Iza Alts). Ik. **zapaldu**.

zapi (2)

ZAPI

mis / mix; mitxina

zape; voz que se utiliza para ahuyentar a los gatos

zapi interj. Katua uxatzeko erabiltzen den hitza. *Katua uxatzeko: zapi emendi!* 'katua uxatzeko: zapi hemendik!'. ▼ Anton. *mis / mix*; *mitxina*.

zapi, zapia (1)

SABI

plantón, arbolito nuevo que sirve para ser trasplantado

zapi iz. (Bot.) Sabia; landare sortu berria. *Mintegian jaiotzen dan sagar-planta da zapia. Gió/geó txertatu iten da* (Ond Bak).

zapla

ZAPLA

onomatopeya de la bofetada
de pronto, de golpe, de repente, súbitamente

zapla **1** onomat. Masailekoaren edo ukaldiaren onomatopeia. **2** onomat. Bat-batekotasuna adierazten duen onomatopeia.

zaplastako, zaplastakua

ZAPLAZTEKO

blastako

bofetada, torta, tortazo

zaplastako iz. Zaplaztekoa. Ik. **blastako**; **belarriondoko**.

zaplastakokan

ZAPLAZTEKOKA

blastakokan

a bofetadas, a tortas, a tortazos, a guantazos

zaplastakoka(n) adb. Zaplaztekoka. *Zaplastakokan ibil dĭa ebein artĭa* 'zaplaztekoka ibili dira euren artean'. ▲ Sin. *blastakokan*.

zapo pitxilita, zapo pitxilitia

TXIKORI-BELAR

diente de león (Taraxacum officinale)

zapo pitxilita iz. (Bot.) Txikori belarra (?).

zapo ziza, zapo zizia

MARASMIO JANGARRI, HANKALUZE

senderuela, ninfa (Marasmius oreades)

zapo ziza. (Mikol.) Marasmio jangarria, hankaluzea (Marasmius oreades). *Korrotan ta iladan atatzen dĭa zapo-zizak* 'korroetan eta ilaran ateratzen dira zapo-zizak'.

zapo, zapua

ZOMORRO, INTSEKTU

insecto

zapo iz. Intsektua, zomorroa. Ik. **bitxo txiki**; **eskarabajo**. ◆ **zapo pitxilita** iz. (Bot.) Txikori belarra (?). ◆ **zapo ziza**. (Mikol.) Marasmio jangarria, hankaluzea (Marasmius oreades). *Korrotan ta iladan atatzen dĭa zapo-zizak* 'korroetan eta ilaran ateratzen dira zapo-zizak'.

zar-zar-zar

BAR-BAR

bar-bar-bar, far-far-far

llover a cántaros

zar-zar-zar adb. Euri-hotsaren onomatopeia. *Yauria deka zár-zar-zar* 'euria dakar zar-zar-zar'. Ik. **bar-bar-bar**; **far-far-far**.

zar, zarra

TZAR (?)

so (para potenciar el significado del adjetivo o del sustantivo al que antecede, generalmente con gran, grande; descomunal

zar **1** adj. (Gaitzespenezko izenondo baten eskuinean, indargarri gisa, ezartzen den hitza). Tzarra (?). *Tonto zar, tonto zarroi!*. *Alfer zar* 'alfertzar' (EUS HIZ: alfer tzar). *Kontuen ibil adi, asto zarrroi* 'kontuan ibil hadi, astotzar hori'. **2** adj. Adkor. Handia. *Gerra zar bat*. *Gezur zar bat sartu dĭa* 'gezur tzar bat sartu dio'. *Arrapatu dot gripe zar bat!* 'harrapatu dut gripa zar bat!'.

zarba, zarbia

ZARBA (*), ZURKAITZ, ARBA

rodrigón, tutor (para leguminosas)

zarba iz. Zurkaitza, arba, hurritz arba, gehienetan; landare lekadunei-eta euskarri gisa alboan jartzen zaien makila edo zutoina. *Aurten'e zarbakin patu tu indiabak* 'aurten ere zarbekin paratu ditugu indabak'.

zarpa, zarpia

ATZAPAR. 2 ARRA

atzapar

garra, zarpa, uña; manaza

palmo

zarpa **1** iz. Atzaparra. Ik. **atzapar**. **2** iz. Arra; zabalduriko eskuan, hatz lodienaren eta txikienaren arteko bitartea, luzera neurri gisa erabilia izan dena.

zarpakan

ARRAKA* (ARRAZ NEURTUZ)

a palmos (midiendo)

zarpakan adb. Arra edo zehe baten luzerarekin neurtuz.

zarpeatu, zarpeatua

ZARPIATU

enfoscado; raseo (?)

zarpeatu(a) iz.

zarpeatu, zarpeatzen

ZARPIATU

enfoscar; rasear (?)

zarpeatu 1 *dau* ad. (Eraik.) Zarpiatu. *Paretak zarpeatu* 'paretak zarpiatu'. Ik. **errebokatu**; **raseatu**; **luzitu**. **2** iz.

zarraplastakan (?)

ARRAPASTAKA, ZARRAPASTAKA (OEH)

atropelladamente, precipitadamente, apresuradamente
a trompicones (?)

zarraplastakan adb. Arrapastaka, gehiegizko presaz eta nolanahi (?).

zarrastada, zarrastadia

ZARRASTADA, ZARRASTA

desgarro, rasgadura, rasgón

zarrastada iz. Urradura, urratua; tarratada, oihaleko edo arropako urratua. *Soinekwai zarrastadĭa in dĭat* 'soinekoari zarrastada egin diot'.

zarrastako

ZARRASTADA

tarratako

desgarro, rasgadura

zarrastako iz. Zarrastada. ▲ Sin. *tarratako*.

zart

ZART

de repente, de golpe, súbitamente
¡bum! (onomatopeya del reventón, estallido...)
¡crac! (onomatopeya de la rotura, del chasquido...)

zart **1** onomat. Bat-batekotasuna adierazten duen onomatopeia. **2** onomat. Kolpe baten, eztanda baten edo zerbait haustearen onomatopeia. ◆ **zart egin** (> *zart in*) *dau* ad. Lehertu, eztanda egin. *Zart in dwa* 'zart egin dit'.

zartada, zartadia

ZARTADA

1 zartako

golpe
tirón muscular

zartada **1** iz. Kolpea. ▲ Sin. **zartako**. **2** iz. Giharretako uzkurdura.

zartai, zartaia

ZARTAGIN

sartén

zartagi (> *zartai* [Urdiain], *zartagi* [Bakaiku]) iz. Zartagina. ◆ **zartagiti(k) pasatu** (> *zartaiti pasatu*). Janari bat arin frijitu eta gorritu. ● Esr. zah.* «*Nork nori? Zartagi zarrak pertzari: ua ortik, beltz ori*». ● «*Bera dena bestei; zartagi zarrak pertzari: ipur-beltz*».

zartaikada, zartaikadia

ZARTAGINKADA

sartenada

zartagikada (> *zartaikada*) iz. Zartaginkada, zartagin baten edukia. *Papaki zartaikadia prepatu dau gosaitako* 'papaki [txerriaren lepapeko urdaia] zartaginkada preparatu du gosaritarako'.

zartaiti pasatu

ZARTAGINETIK PASATU (ARIN FRIJITU;

sofreír, saltear (un alimento)

zartagiti(k) pasatu (> *zartaiti pasatu*). Janari bat arin frijitu eta gorritu.

zartako, zartakua

ZARTAKO

zartada, golpe zar, estakazo, ostia

golpe
varazo, bastonazo
bofetada, torta, sopapo, morrazo

zartako iz. *Zartako bat eman dĭa mutur-muturrĭen* 'zartako bat emen dio mutur-muturrean'. *Zartako batekin itxi dau ataia* 'zatako batekin itxi du ataria'. *Indar aundiekin eman zian zartakwa* 'indar handiarekin eman zion zartakoa'. ▲ Sin. *zartada*, *golpe zar*, *estakazo*, *ostia*.

zartana, zartania

DANBOLIN, SARTAN

tambor, para asar castañas

zartana (eta *zartan* [Bakaiku]). Danbolina, sartana; gaztainak erretzeko galdaratxoa. *Gaztinak erretzeko zartana* 'gaztainak erretzeko zartana [danbolina] (Ond Bak).

zartatu, zartatzen

ZARTATU

arrailatu; lehertu

hender(se), rajar(se), agrietar(se), cascar(se)

zartatu *da/dau* ad. Pitzatu, arrakalatu. *Baldosĭa zartatwik* 'baldosa zartaturik'. Ik. **arrailatu**; **lehertu**.

zata txiki / zata txikiek

ZATA TXIKI

abarca de goma

zata txiki. Gomazko oinetakoa, batez ere oinaren azpialdea babesten duena eta soka baten bidez zangoaren behealdean lotzen dena. Ik. **abarka**. *Zata txikiek jantzita*.

zata, zatia

ZATA (2)

abarca de goma; calzado de caucho con forma de zapato

zata iz. (pl) Abarka moduko gomazko oinetakoa. *Zatak*. ◆ **zata txiki**. Gomazko oinetakoa, batez ere oinaren azpialdea babesten duena eta soka baten bidez zangoaren behealdean lotzen dena. Ik. **abarka**. *Zata txikiek jantzita*.

zatamantar, zatamantarra

AZPANTAR, MANTAR

polaina

polaina(s)

zatamantar iz. Batez ere pl. Azpantarra, mantarra; orkatilatik belaunerako zango zatia estaltzen duen jantzia. *Zatamantarrak*. Ik. **polaina**. {*Zatamantarrak*, polainas de lana. JMS}.

zatar, zatarra

ZATAR

trapu; esku zatar

andrajo, harapo, trapo
descuidado, -a; andrajoso, -a; harapiento, -a

zatar **1** iz. Trapu zaharra. *Ekartzak zatarroi*. Ik. **trapu**; **esku zatar**. **2** adj. Zarpaila, arlotea. *Jende zatarra*.

zati, zatia
ZATI

puska, zuztur

pedazo, trozo, porción, cacho
parte, fragmento

zati iz. 1 iz. Zerbait haustean, ebakitzean edo banatzean gertatzen diren gauzetako bakoitza. Ik. **puska**; **zuztur**. **2** iz. Gauza batez mintzatuz, gauza horretatik bereiz daitekeen edo berezitzat har daitekeen osagaia. Ik. **parte**.

zatikan
ZATIKA

puskakan

a pedazos, por partes

zatikan adb. Zatika, hainbat zatitan, ez osorik; ez dena batera. Ik. **puskakan**.

zatitu, zatitzen
ZATITU

puskatu, txikitu

dividir(se), fraccionar(se), partir(se); separar(se); desmembrar(se), disgregar(se)
partir, trocear; repartir

zatitu **1** *da/dau* ad. Zatietan bereizi. Ik. **puskatu**; **txikitu**. **2** *dau* ad. Ik. **partitu**; **banatu**; **dibiditu**. ¬

zayo
ZEIO

azuela (herramienta de carpintero que sirve para desbastar)

zayo [Bakaiku] iz. Zeioa; zura arbastatzeko lanabesa. Ik. **zaio**.

zazi!
(ZOAZ) AUSKALO

fan da bila!; jakintazu / jakintzak/n; batek daki;

a saber, quién sabe, vete a saber, cualquiera sabe

zazi interj. (Esapidea) Zoaz [zoaz jakitera (?)], *auskalo* esanahiarekin. *Zazi nola zan!* 'zoaz (jakitera) nola zen'. ▲ Sin. *fan da bila*, *jakintazu / jakintzak/n*, *batek daki*, *auskolo*.

zazpi
ZAZPI

siete

zazpi **1** zenbtz. Sei eta bat, 7. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan zazpigarrena. **3** (Data adierazteko). *Ilan zazpien* 'hilaren zazpian'. *Gaur zazpi dukatzi ilak* 'gaur zazpi dauzka hilak'. **4** (Ordua adierazteko). *Goizeko zazpitan* 'goizeko zazpietan'. *Zazpi terditan* 'zazpi eta erdietan'.

zazpiegun
ZAZPIEHUN

setecientos, -as

zazpiegun **1** zenbtz. Zazpiehun, zazpi bider ehun. **2** iz. Zenbaki arrunten segidan zazpiehungarrena.

zazpigarren, zazpigarrena
ZAZPIGARREN

séptimo, -a

zazpigarren **1** ord. Zerrenda batean aurretik sei dituena (7.). **2** adb. Zazpigarren lekuan.

zazpiko, zazpikua
ZAZPIKO

compuesto de siete; grupo o conjunto de siete; (en la baraja) siete

zazpiko **1** iz. Zazpik osaturiko gauza. **2** adj./iz. Joko kartez mintzatuz, sail bereko zazpi irudi dituena. *Zazpiko kopĭa* (karta jokoan).

zazpina
ZAZPINA

siete cada uno, -a, siete a cada uno, -a

zazpina banatz. Bakoitzari zazpi, bakoitzak zazpi.

zazpinaka(n)
ZAZPINAKA

de siete en siete; en grupos de siete

zazpinaka(n) adb. Zazpinako multzoetan.

zaztada, zaztadia
SASTADA

pinchazo, punzada; punción; puñalada, cuchillada

zaztada iz. Sastada; gauzaki sarkor batez eginiko zauria. Ik. **ziztada**; **pintxazo**.

zaztar, zaztarra
SASTAR

kaxkar

pequeño, insignificante; despreciable, desdeñable

zaztar (eta *xaxtar* [Urdiain]; *txastar*, *xastar* [Altsasu]) adj. Sastarra, txikia, balio gutxikoa. *Jende zaztarra, jende kaxkarra* (LM). Ik. **kaxkar**. || {*txastarra* "Lo pequeño y despreciable" (Iza Alts)}.

ze
ZE

qué
porque, pues, que

ze **1** det. (Galdetzailea). Zein, zer: *Ze kontu?* (Ond Bak). Ik. **zer**. **2** Ezen, zeren; zergatikoa adierazten duen hitza. *Hainbestendako iten dai errosariua, (ze) ezta sekula hasten* (Loiolako Irratian) (Ond Bak).

zea / zia
ZERA

palabra que se emplea en sustitución de otra cualquiera cuando se ignora ésta o no se quiere

zera (> *zea*, *zĭa*) iz. Gogoratzen ez den hitz baten ordez erabiltzen dena. (Jokatu egiten da. Ik. **zeo**.) *zeak*; *zean*... 'zerak; zeran...'. ◆ **bai zera!**, **bai, zera!** (> *bai, zea*; *bai, zĭa*). ◆ **ez zera!**, **ez, zera!** (> *ez, zea*; *ez, zĭa*). ◆ **zera ere bai!** (> *zea're bai*). ◆ **zera baino ere** (izond.)**-ago** (*zea baindo're* (izond.)-*o*). *Zea baindo're tontwo* 'zera baino tontoago'.

zeau
ZEU

tú, tú mismo, -a; usted mismo, -a

zeau (eta *zĭau*) izord. *zu* izenordainaren era indartua. *Zĭau izan za* 'zeu izan zara'.

zeau, ziau
ZEU

tú mismo, -a; usted mismo, -a

zeau (> *zĭau*) **1** izord. Zeu, zu izenordainaren era indartua. **2** izord. (zu-ren eskuinean, hark hartzen duen kasu atzizki bera hartuz).

zebatu, zebatzen

aficionar(se), engolosinar(se), tomar gusto a algo

zebatu **1** *da/dau* ad. Zaletu. *Zebatuik do haurra (kamelotá..., telebisiua ikusten; ordenadoriekin ibiltzen)* [?].

zebeik
ZEUEK

vosotros mismos, vosotras mismas; ustedes mismos, -as

zebeik izord. Zeuek; *zek* 'zuek' izenordainaren era indartua.

zebein

ZEUEN

vuestro, -a

zebein izord. Zeuen. *Despeitazai zebein lana* 'despeditu [amaitu] ezazue zeuen lana'.

zegatu, zegatzen

BUXATU

itxi, ataskatu, pasua itxi

cegar(se), obstruir, cerrar el paso

zegatu *da/dau* ad. Buxatu; Hodi edo kideko batean oztopo bat jarri. Ik. **itxi**; **ataskatu**; **pasoa itxi** (> *paswa itxi*).

zein

ZEIN. 3 ZEINEN

cuál, qué; cuáles, quiénes
quién, quiénes
cuán, qué (en oraciones exclamativas)
cada cual, cada uno

zein **1** det. (Galdetzailea). Mota bereko zenbait gauzaren edo pertsonaren artean hautatzeko hitza. *Zein naio dezu?* 'zein nahiago duzu?'. **2** izord. Nor? *Zein izan da?* **3** adb. Zein (harridurazkoa), zeinen. *Ai, zein polita!* (LM). **4** izord. (bere-ren ezkerrean). Bakoitza. *Zein be alde* 'zein bere alde; bakoitza bere alde'. ◆ **zein baino zein ...-ago** (> *zein baindo zein ...-o*) 'zein baino zein ...-ago'. *Zein baindo zein gaio daitza sorwen* 'zein baino zein gehiago dabiltza soroan. *Zein baindo zein aundio dĭa* 'zein baino zein handiago [handiusteago] dira'.

zein

ZEREGIN

quehacer, tarea, ocupación, función

zein iz. Zeregin, egitekoa. Zeinik ez tukat.

zeindu, zeintzen

ZAINDU

kasoin, gobernatu

cuidar, vigilar
guardar(se), preservar(se), proteger(se)

zeindu (eta *zaindu*) *dau* ad. Zaindu, norbaiten edo zerbaiten arta hartu. *Etxĭa zeindu, gobernatu* 'etxea zaindu, gobernatu'. Ik. **kasu egin** (> *kasoin*); **gobernatu**; **zaindu**.

zek

ZUEK

vosotros, -as, ustedes

zek izord. Zuek; pluraleko bigarren pertsonaren izenordaina, hitz egiten ari denak aurrean dituen entzuleak adierazten dituena. Ik. **zebeĭk**.

zekor, zekorra

ZEKOR

bigai, ergi

ternero, becerro

zekor (eta *txekor*) iz. Ik. **bigai**; **ergi**.

zelai, zelaia

ZELAI

llano, -a, plano, -a

zelai (eta *txelai*) iz./adj. Eremu laua edo lau samarra. *Txelai ortan inko du itxana* 'zelai horretan egingo dugu itxana [atsedenaldia]'. *Zelai-zelaia da parajĭoi* 'zelai-zelaia da paraje hori'. Ik. **plano**.

zelaitu, zelaitzen ZELAITU

berdindu

allanar, explanar, alisar

zelaitu *dau* ad. Lurra, bidea zelaitu. *Malkorrak zelaitu* 'malkarrak zelaitu'. Ik. **berdindu**.

zelatan ZELATAN

estar/andar/ponerse al acecho; acechar, espiar, vigilar; celar

zelatan adb. Zelatatzen. *Laiotan, zelatan* 'leihotan, zelatan'. *Nesaki txikiek aundiokuek zelatan* 'neska txikiak handiagokoak zelatan'. *Fuera emendi, mukizuok; beti zelatan!* 'fuera hemendik, mukizuok; beti zelatan!'.

zelatu zelatzen ZELATATU

acechar, espiar, vigilar, escudriñar, observar, velar

zelatu *dau* ad. Zelatatu. Ik. **espiatu**.

zelatzaile, zelatzailia ZELATARI

centinela, vigilante; vigía; escucha
espía

zelatzaile iz. Zelataria. Ik. **espia**. [Aztertu forma zehatza.
OEH: *zelatatzaile*. Eta *zelatu* = *zelatatu*].

zelebratu, zelebratzen OSPATU

celebrar, conmemorar, festejar

zelebratu *dau* ad. Ospatu.

zelebrazio, zelebraziua OSPAKIZUN

celebración, conmemoración

zelebrazio iz. Ospakizuna.

zelebre, zelebria ZELEBRE

peculiar, extravagante, curioso, -a, célebre; cómico, -a; gracioso, -a

zelebre (eta *xelebre*) adj. Barregarria, bitxia, ohikoa ez dena. *Jende zelebre asko jek emen* 'jende zelebre asko zaudek hemen'.

zelebrekeia ZELEBREKERIA

barregarrikeia, tonteia

suceso gracioso, tonto; dicho o hecho gracioso, ridículo.

zelebrekeria (> *zelebrekeia*, *xelebrekeia*) iz. ▲ Sin. *barregarrikeia*; *tonteia*.

zenbagarren in ZENBATGARREN EGIN

(referido a una competición) ¿qué puesto ha obtenido?, ¿en qué posición?

zenbatgarren egin (> *zenbagarren in*). *—Zenbatgarren in dau korrika apustuen? —Laugarren in dau*' —zenbatgarren egin du korrika apustuan [lasterketan]? —Laugarren egin du'. Ik. **klasifikatu**.

zenbagarren, zenbagarrena

ZENBATGARREN

(referido a una enumeración, relación, sucesión, etc.) ¿qué número?, ¿en qué lugar?, ¿en qué

zenbatgarren (eta *zenbagarren*) ord. (Galdetzailea). *Errezkako zenbagarrena za?* 'errenkadako zenbatgarrena zara?'. Ik. **-garren**. ◆ **zenbatgarren egin** (> *zenbagarren in*). — *Zenbatgarren in dau korrika apustuen? —Laugarren in dau*' —zenbatgarren egin du korrika apustuan [lasterketan]? —Laugarren egin du'. Ik. **klasifikatu**.

zenbait

ZENBAIT

algún, alguno, -a; algunos, -as

zenbait (eta *zenbeĭt*) **1** zenbtz. zehaztgb. Batzuk. *Zenbait etxetan...* **2** (Izenordain gisa) *Zenbaĭtek baluka kardu au jateko* 'zenbaitek balu kardu hau jateko'. ◆ **zenbeitek** izord. Zenbaitek. *Misazko oial au baluka zenbeitek* 'mihisezko oihal hau balu zenbaitek'.

zenbaitez ...-o

ZENBAT ETA ...-AGO

cuánto más..., tanto más...; cuanto más... más...; cuanto menos... menos...

zenbaitez ...-o konp. Zenbat eta ...-ago. *Zenbaitez irrutio ta obeto* 'zenbat eta urrutiago hobeto'. *Zenbaitez aundio ta obeto* 'zenbat eta handiago eta hobeto'. *Ekatazu ogi puska bat, zenbaitez aundio ta obe* 'ekarridazu ogi puska bat, zenbat eta handiago eta hobe'.

zenbana

ZENBANA

a cuánto cada uno; cuánto(s) cada uno, cuántos a cada uno
¿a cuánto?, en cuánto

zenbana banatz. (Galdetzailea). Zenbat bakoitzak? Zenbat bakoitzari? Zenbana tokatzen zaigu? **2** banatz. Zenbatean. *Zenbana jok arrontza dozenĭa?* 'zenbana zagok arrautza dozena?'. *Zenbana do sardina kilwa?* 'zenbana dago sardina kiloa?'. Ik. **zenbatean** (> *zenbatĭen*).

zenbat

ZENBAT

cuánto, -a; cuántos, -as

zenbat **1** zenbtz. (Galdetzailea). Zer kopuru? *Zenbat aldiz esan ber dezut?* 'zenbat aldiz esan behar duzut?'. *Kilwek zenbat balio dau?* 'kiloak zenbat balio du'. **2** zenbtz. (Harridura-esaldietan edo kidekoetan, kopuruaren handia adierazteko). *Zenbat kilometro in tuen oneskio!* 'zenbat kilometro egin dituen honezkero!'. *Bazendakiai zenbat lan in ber izaten zan!* 'bazenekite zenbat lan egin behar izaten zen!'. **3** (Aditz baten osagarri). Zer kopurutan. *Zenbat nai dĭan!* 'zenbat nahi dion [duen]!'.
◆ **zenbaitez ...-o** konp. Zenbat eta ...-ago. *Zenbaitez irrutio ta obeto* 'zenbat eta urrutiago hobeto'. *Zenbaitez aundio ta obeto* 'zenbat eta handiago eta hobeto'. *Ekatazu ogi puska bat, zenbaitez aundio ta obe* 'ekarridazu ogi puska bat, zenbat eta handiago eta hobe'.
◆ **zenbatean** (> *zenbatĭen*) adb. (Galdetzailea). Zer preziotan? *Zenbatĭen saldu zenduen beia?* 'zenbatean saldu zenuen behia?'. Ik. **zenbana**.

zenbateko, zenbatekua

ZENBATEKO

cantidad, cuantía; importe
de cuánto, de qué cantidad

zenbateko **1** iz. Kopurua; tamaina. *Eztau esan zenbateko gastua in den* 'ez du esan zenbateko gastua egin duen'. *Zenbateko zorra autzi dai?* 'zenbateko zorra utzi dute?'. **2** adj. (Galdetzailea). Zer neurritakoa, zer kopurutakoa? *Garai artan, zenbateko txanponak izaten zĭan?* 'garai hartan, zenbateko txanponak izaten ziren?'.

zenbeitek

ZENBAITEK

algunos, -as; unos, -as

zenbeitek izord. Zenbaitek. *Misazko oial au baluka zenbeitek* 'mihisezko oihal hau balu zenbaitek'.

zenefa, zenefia

ZERRENDA APAINGARRI

cenefa; friso

zenefa iz. Mendela, zerrenda. *Zeru koloreko zenefĭa duka gonĭek* 'zeru koloreko zerrenda dauka gonak'.

zengeiti

ZERENGATIK, ZERGATIK

por qué
porque, pues, ya que

zengeiti(k) (eta *zengaiti(k)*) **1** (Galdetzailea). Zerengatik, zergatik? **2** Zeren.

zentimo, zentimua

ZENTIMO

céntimo

zentimo iz. Diru unitate baten ehunena.

zentral, zentrala

ZENTRAL

central eléctrica

zentral iz. Indarretxea. *Argiein zentrala* 'argien zentrala'.

zentratu, zentratzen

ZENTRATU

centrar
centrarse, concentrarse

zentratu **1** *da/dau* ad. Zerbait erdian jarri. **2** *da/dau* ad. Arreta jarri.

zentro, zentrua

ZENTRO

centro (punto interior)
centro (lugar de reunión; dependencia administrativa...)

zentro **1** iz. Erdigunea, erdia. Ik. **erdi**. **2** iz. Bilgunea, tokia; mota jakin bateko jarduerak biltzen edo garatzen dituen gunea.

zeo

ZERAGO

(más) adverbio que se emplea en sustitución de otro cualquiera cuando se ignora este o no se

zeo (eta *zĭo*) adb. Zerago. Zehaztu edo adierazi nahi ez den edo ezin den hitzaren ordezko hitza. Ik. **zera** (> *zea*, *zĭa*). *Uste't zeó* 'gehiago' *dela* (Ond Bak).

zeorrek

ZERORREK (ZERORI)

tú mismo, -a; usted mismo, -a

zeorrek (eta *zĭorrek*) izord. (Zerori), zerorrek; *zu* (*zuk*) izenordainaren era indartua. *Zeorrek erremeiatázu* (Ond Bak).

zeozer

ZEOZER, ZER EDO ZER

zerbeit / zerbait

algo, alguna cosa

zeozer izord. Zer edo zer. *Zeozer izankwa* 'zer edo zer izango da'. Ik. **zerbait** (> *zerbeit*).

zepiladora, zepiladoria

ARRABOTA, ARRABOTATZEKO MAKINA

cepilladora

zepiladora iz. Arrabotatzeko makina, zurginaren tresna. lk. **zepilu**. *Ol zarrak zepiladorati pasatzeko, ondo beiratazu giltzaik badukain* 'ohol zaharrak zepiladoratik [arrabotatzeko makinatik] pasatzeko, ondo begira ezazu iltzerik badaukaten'.

zepilu, zepilua

ESKUILA. 2 MARRUSKETA

cepillo
garlopa; cepillo [de carpintero]
cepillo (para limosnas)

zepilu (eta *zipilu*) **1** iz. Eskuila. *Arropaindako / arropien zipilua*. *Txwitzeko zepilua* 'zuritzeko [pintatzeko] eskuila'. **2** iz. Marrusketa, zurginaren lanabesa. Zurginan zepilua. **3** iz. Limosna ontzia, atabaka. *Elizan dirua botatzekwa* 'elizan dirua botzatzekoa'.

zepo, zepua

ZEPO

cepo

zepo iz. Piztiak-eta harrapatzeko metalezko arte edo harrapagailua, zanpatzean edo bertan dagoen jakia ukitzean ixten dena. *Txoi zepo*, *sator zepo*, *axei zepo*, *xau zepo*. *Txoiek arrapatzeko zepwa patu dau elurretan* 'txoriak harrapatzeko zepoa paratu du elurretan'. *Baina, *azkonarrak harrapatzeko kajia*.

zer

ZER

qué
el/la... que
qué; ¿y qué? (importar)

zer (eta *ze*) **1** det. (Galdetzailea).
Ze zan geo/gio. Arrontzia zetako?
Zer?
2 (Izena ezabaturik; ordezkatzen duen izenak gauza bat edo gauza bat baino gehiago adieraz dezake).
3 (*ze ajola / inporta zaio* 'zer axola / inporta zaio'-ren ordain gisa). *Ta ze?* 'eta zer?'. *Ta nei zer?* 'eta niri zer? [zer axola]'. *Bai, ta zer?* 'bai, eta zer?'. *Ta guri zer?* 'eta guri zer?'. *Olako kontuek esaten daitzala? Ta nei ze?* 'holako kontuak esaten dabiltzala? Eta niri zer?'.
4 (Zehar-galderetan).
(n) zera, *zĭa esan dinat*...
zeta gald. Zertara. *Autza zeta fan ber ga* 'harantz [hara, haraino] zertara joan behar gara'.
◆ **zer esan** (> *zesan*). *Ya eztaki ze esan e* 'ja (jada) ez daki zer esan ere'. ◆ **zer esanik (ere) ez** (> *zesanik ez*). Esan beharrik ez dago. *Ondo gabitazai jantokia, ta, zesanik ez, sukaldĭa* 'ondo garbi ezazue jantokia, eta, zer esanik ez, sukaldea'.

zer moduz?

ZER MODUZ?

¿qué tal?

zer moduz? **1** *Zer moduz zaitza?* 'zer moduz zabiltza?'. **2** (Norbait ikustean, diosal esapide gisa). *Zer moduz, Pilar?*

zeramika, zeramikia (?)

ZERAMIKA

cerámica

Zeramikazkua

zerbait

ZERBAIT

zeozer

algo, alguna cosa
un poco, algo

zerbait (eta *zerbeit*) **1** izord. Gauzaren bat. *Zerbeit izankwa* 'zerbait izango da'. *Olako otsak denien, zerbait ezain da* 'horrelako hotsak daudenean, zerbait izanen da'. *Bier izango dok/don beste zerbeit* 'bihar izango duk/dun beste zerbait'. Ik. **zeozer**. **2** adb. Apur bat. *Zerbait bai, bea gauza aundik ezon* 'zerbait bai, baina gauza handirik ez zegoen'. ◆ **zerbaitetarako** (> *zerbeitetako*). *Zerbeitetako balioko dau* 'zerbaitetarako balioko dau'.

zerbeit

ZERBAIT

algo, alguna cosa
un poco, algo

zerbeza, zerbezia

ZERBEZA, GARAGARDO

cerveza

zerbeza iz. Garagardoa.

zeregin (?)

ZEREGIN

quehacer, tarea, ocupación, función

zeregin (?) iz. Ik. **egiteko** (> *iteko*); **ezer egitekorik** (> *ezer itekoik*, *eze itekoik*).

zeremonia

ZEREMONIA

ceremonia, rito

zeremonia iz.

zeresan, zeresana

ZERESAN

hablilla, murmuración, chisme; motivo de conversación o murmuración
qué decir, comentario; algo que decir

zeresan **1** iz. Esamesa. *Zeresana franko sortu dau* 'zeresan(a) franko sortu du'. **2** iz. Esatekoa. *—Igwaleko ogia da bestĭau! —Zesanik ez!* 'igualeko ogia da beste hau! —Zeresanik ez!'. ◆ **zeresana eman**. Esamesarako edo berriketarako bidea eman. *Eman dau orrek zeresana* 'eman du horrek zeresana'.

zerezko (zera, zerezko...)

zerikusi / zeikusi

ZERIKUSI

relación, conexión; tener que ver (con)

zerikusi (eta *zeikusi*) iz. Beste norbait edo zerbaitekiko nolabaiteko erlazioa. *Orrek ez tuka orretan zeikusik* 'horrek ez dauka horretan zerikusirik'. Ik. **ikusteko izan**.

zero

ZERO

batez, ezez

cero

zero **1** iz. **2** zenbtz.

zerra, zerria

ZERRA. 2 EZPATA (GURDIARENA)

sierra
estandorio, telero

zerra **1** iz. Mozteko tresna. **2** iz. Ezpata, gurdiaren aurre eta atzealdean jartzen den euskarria. *Gurdien zerrak*. Ik. **balzerra**. | *Irud*. Makila, makilatu. *Orri, zerria, zerria, domatzeko!* 'horri, zerra, zerra, domatzeko [bezatzeko]'.

zerraja, zerrajia

SARRAILA

sarraila

cerradura, cerraja

zerraja iz. Sarraila. Ik. **sarraila**.

zerraldo (?)

zerraldo (Altsun aituta).

zerratoki, zerratokia

ZERRATOKI

aserradero

zerratoki iz. *Tronzan ibiltzen zĭan tokia, zerratokia* 'trontzan ibiltzen ziren tokia, zerratokia'. Ik. **serreria** (> *serreia*).

zerratu, zerratua

ESPARRU, ITXITURA

itxi; hespil

cercado, sitio vallado

zerratu[1] iz. Esparrua, itxitura. *Zerratua, esia dukan soroa o larrĭa* 'zarratua, hesia daukan soroa edo larrea'. Ik. **itxi**; **hespil**.

zerratu, zerratzen

ZERRATU

aserrar

zerratu[2] *dau* ad. Zerraz ebaki. *Tronzĭekin zerratu* 'trontzarekin zerratu'.

zerrauts, zerrautsa

ZERRAUTS

serrín

zerrauts iz. Zerratzean, zuretik ateratzen den hauts modukoa. *Zerrauts guztia bildu'ot, sua iteko* 'zerrauts guztia bildu dut, sua egiteko'.

zerri, zerria (?)

ZERRI

cerdo, -a
cerdo, -a, cochino, -a, guarro, -a, puerco, -a, sucio, -a, marrano, -a

zerri **1** iz Txerria. Ik. **txerri**. **2** adj. Zikina. *Zerri zikinoi* 'zerri zikin hori!'.

zerrota, zerrotia

ZERROTE

serrucho

zerrota iz. Zerrotea.

zertako

ZERTAKO

para qué, con qué objeto

zertako (eta *zetako*) (Galdetzailea). Zertarako? *Zertako uste dezu in daila?* 'zertako uste duzu egin dutela?'.

zertifikatu, zertifikatua / zertifikau, ZIURTAGIRI, SINESTAMENDU

certificado

zertifikatu iz. Ziurtagiria. *Zertifikaua*.

zertifikatu, zertifikatzen EGIAZTATU, ZIURTATU

certificar

zertifikatu *dau* ad. Egiaztatu, ziurtatu.

zertu, zertzen ZERTU, ZERATU

zetu

verbo que se emplea en sustitución de otro cualquiera cuando se ignora éste o no se quiere

zertu *da/dau* ad. Zeratu. *Urtiartan zan trena zertu zaina, deskarrilatu zaina* 'urte hartan zen trena zertu zutena, deskarrilatu zutena'. Ik. **zetu**.

zeru kolore, zeru-koloria ZERU KOLORE, URDIN ARGI

celeste

zeru kolore. **1** adj. Urdin argi kolorekoa. **2** iz. Kolore urdin argia.

zeru, zerua ZERU

2 paraiso *2 ifarnu*

cielo

cielo; paraíso; gloria

zeru **1** iz. *Zerwa beira* 'zerura begira'. *Udako zeru izarratua*. **2** iz. Santuen, aingeruen eta Jainkoaren grazian hiltzen direnen egoitza. *Ua ezpado zeruen, etxok zerwik* 'hura ez badago zeruan, ez zagok zerurik'. Ik. **paraiso**. ▼ Anton. *ifarnu*. ◆ **zeru garbi(a)**. Oskarbia. Ik. **raso**; **zeru urdin**. ◆ zerua garbitu. Ik. **rasatu**. ◆ **zeru kolore**. **1** adj. Urdin argi kolorekoa. **2** iz. Kolore urdin argia. ◆ **zeru urdin(a)**. ¬

zesan / ze esan ZER ESAN

qué decir

ni que decir tiene

zer esan (> *zesan*). *Ya eztaki ze esan e* 'ja (jada) ez daki zer esan ere'. ◆ **zer esanik (ere) ez** (> *zesanik ez*). Esan beharrik ez dago. *Ondo gabitazai jantokia, ta, zesanik ez, sukaldĭa* 'ondo garbi ezazue jantokia, eta, zer esanik ez, sukaldea'.

zestera, zesteria ZESTERA, OTARRE, SASKI

zesto

cesta, cesto, canasta

zestera iz. Otarrea, saskia. ▲ Sin. *zesto*. || Zestera: errespontsurako saskia eta kandelak; dirua edo erresponsua jasotzeko, familiak bere hilei elizan paratutako zesta. *Leno, argizaiolak patzen zian elizan; gio, zesterĭa* 'lehenago, argizaiolak paratzen ziren elizan; gero, zestera'. Ik. **argizaiol**.

zesto, zestua ZESTO

saski, jaski, jeski

cesto, cesta

zesto iz. Saskia. Ik. **saski** (eta *jaski*, *jeski*). *Bazekan zestwa bete ointo* 'bazekarren zestoa bete onddo'.

zestokada, zestokadia

ZESTOKADA

cantidad contenida en un cesto

zestokada iz. Zesto baten edukia. *Zestokada bat ailubi bildu dau* 'zestokada bat marrubi bildu du'.

zeta

zeta iz. (Ond Bak). Hongo de sombrero grande y delgado. Andan filifala con el viento. [OEH. zeta (V-ger, G-nav). Ref.: A; Ond Bac 403. "Seta (??)" A. "Hongo de sombrero grande y delgado. Andan fili-fala con el viento" Ond Bac 403].

zeta

ZERTARA

zeta gald. Zertara. *Autza zeta fan ber ga* 'harantz [hara, haraino] zertara joan behar gara'.

zetako

ZERTARAKO; ZERTAKO

para qué, con qué objeto

zetako gald. (...arrontzia zetako?... [sartu kantaita]). Ik. **zertako**.

zetu

ZERATU

zertu

verbo que se emplea en sustitución de otro cualquiera cuando se ignora este o no se quiere

zetu *da/dau* ad. Zeratu; aipatu edo zehaztu nahi ez den edo ezin den ekintza bat adierazteko erabiltzen den aditza. *Orti Iturtxuluá zetu ziaken* 'hortik Iturtxulora [kale izena] zeratu [(bizitokiz) aldatu] zituan'. Ik. **zertu**.

zezen, zezena

ZEZEN

toro

zezen iz. Ik. **behi**.

zi, zia

ZIRI

cuña, clavija, calce
asador, brocheta

ziri (> *zi*) **1** iz. Zurezko edo metalezko atala, puntako ertza aski zorrotza duena, pitzadurak zartarazteko erabiltzen dena. *Zurzia* 'zur ziria'. *Egurzia* 'egur ziria'. Burnizia 'burdin ziria'. *Porrazia* 'borra ziria'. **2** iz. Burruntzia. *Axwia erretzeko zia* 'axuria erretzeko ziria'.

zia

ZERA

palabra con la que se suple cualquier otra de la que uno no se acuerda o que no se acierta a

ziar

ZEIHAR, ZEHAR, TREBES

torcido, -a; sesgo, -a, oblicuo, -a, transversal; inclinado, -a

ziarka, ziarrien

ZEHARKA, TREBESKA

transversalmente, trasversalmente, de través, atravesado, -a

ziarrepa

ziarrepa (?) ¬

ziarzapo, ziarzapua / zierra-zapo

URZORRI

talitro, insecto acuático (Talitridae fam.) / gamaro (Gammarus pulex)

ziarzapo (eta *zierra-zapo* [Altsasu]) iz. Urzorria; erreketako krustazeo txikia (Talitridae fam.). *Tripako mina seguro errekako ura ziarzapuekin yanda* 'tripako mina seguru errekako ura ziarzapoekin edanda'.

ziatika, ziatikia

ZIATIKA

ciática

ziatika iz. Mehakako eta zangoko min bizia, nerbio ziatikoaren hanturak edo hertsatzeak eragina. *Reuma ziatikĭa*.

ziaure

ZEURE

de usted mismo, -a

ziaure (> *zĭaure*) **1** izord. Zeure; zure-k har dezakeen era, perpauseko nor, nork edo nori-ri dagokionean. **2** (zure-ren indargarri gisa).

zibil, zibila

GUARDIA ZIBIL

guardia civil (miembro)

zibil iz. pl. *zibilak*. Guardia zibila. *Zibilak daitza etxeik etxe* '(guardia) zibilak dabiltza etxerik etxe'.

zibilizatu, zibilizatzen / zibilizatua

ZIBILIZATU

civilizar(se), educar(se), instruir(se)
civilizado, -a, educado, -a, culto, -a

zibilizatu **1** *da/dau* ad. **2** (Partizipio burutua izenondo gisa).

zidar, zidarra

ZILAR

plata
plata (objeto o conjunto de objetos de plata)

zidar **1** iz. Zilarra (Ag; zenbaki atomikoa, 47). **2** iz. Zilarrezko gauza. Ik. **zidarrezko**. **3** iz. Mendi zidarra (?), ziharra (?). ¬

zidarrezko duro, zidarrezko durua

ZILARREZKO DURO

duro de plata

zidarrezko duro. Zilarrezko duroa, zilarrezko ogerlekoa; Espainiako diru zaharra.

zidarrezko pezta erdi, zidarrezko pezta

ZILARREZKO PEZETA ERDIA

media peseta de plata

zidarrezko pezeta erdi (> *zidarrezko pezta erdi*). Zilarrezko pezeta erdia.

zidarrezko pezta, zidarrezko peztia

ZILARREZKO PEZETA

peseta de plata

zidarrezko pezeta (> *zidarrezko pezta*). Zilarrezko pezeta; Espainiako diru zaharra.

zidarrezko taza, zidarrezko tazia

ZILARREZKO KIKARA

taza de plata

zidarrezko taza. Zilarrezko kikara. *Erriko festatan, zidarrezko tazatan banatzen da ardwa* 'herriko festetan, zilarrezko kikaretan banatzen da ardoa'.

zidarrezko, zidarrezkua

ZILARREZKO

de plata

zidarrezko adj. Zilarrezkoa, zilarrez egina. *Zidarrezkwa*. ◆ **zidarrezko duro**. Zilarrezko duroa, zilarrezko ogerlekoa; Espainiako diru zaharra. ◆ **zidarrezko eztai(ek)** (LM). iz. pl. Zilarrezko ezteiak; ezkontza baten edo beste gertaera gogoangarri baten hogeita bosgarren urteurrena. ◆ **zidarrezko pezeta** (> *zidarrezko pezta*). Zilarrezko pezeta; Espainiako diru zaharra. ◆ **zidarrezko pezeta erdi** (> *zidarrezko pezta erdi*). Zilarrezko pezeta erdia. ◆ **zidarrezko taza**. Zilarrezko kikara. *Erriko festatan, zidarrezko tazatan banatzen da ardwa* 'herriko festetan, zilarrezko kikaretan banatzen da ardoa'. ¬

zienbrera, zienbreria / zianbrera

JAKIONTZI, ZAKOTE-ONTZI

fiambrera

zienbrera (eta *zĭanbrera*) iz. Fianbrera, zakote-ontzia.

ziento, zientua

EHUN, EHUNEKO

egun

ciento; centena

ziento iz. Ehunekoa; ehunek osaturiko gauza; ehun unitate dituen multzoa. *Ziento erdia*. *Ziento bat kipula patu tu aurten* 'ziento bat tipula paratu [landatu] ditugu aurten'.

zientoka(n)

ZIENTOKA

a cientos; centenares, por centenas

zientoka (eta *zientokan*) adb. Ehunka.

zigarro, zigarrua

ZIGARRETA, ZIGARRO

cigarrillo, cigarro

zigarro iz. Zigarreta; erretzeko tabakoa, zilindro gisa paper finez bildua. *Zigarrwa erre* 'zigarroa erre'. Ik. **puro**.

zigorrazo, zigorrazua

ZIGORRADA, ZIGORKADA

azote, zurra, golpe

zigorrazo (eta ziorrazo) iz. Zigorrada, zigorkada, zigor kolpea. *Eman dĭat zigorrazo bat* 'eman diot zigorkada bat'.

zigueña, zigueñia

ZIKOINA

cigüeña

zigueña iz. Zikoina, amiamokoa.

zihar

ZEIHAR, ZEHAR, TREBES

trabes; 2 makur baldar; 3 oker

torcido, -a; sesgo, -a, oblicuo, -a, transversal; inclinado, -a; lateral

zihar (> *ziar*) adb. Zeihar; zehar, zeharka, trebes. Ik. **ziharkan**. ▲ Sin. *trabes*. 2 adj. Baldar. Ik. *makur*; *baldar*.

◆ **begi-zihar**. Ezkela, begi baldarra [begi-okerra] Ik. **oker**.

◆ **lepo zihar**. Lepo makurra.

ziharkan

ZEHARKA, TREBESKA

trabeska(n), trabesien

transversalmente, trasversalmente, de través, atravesado, -a; oblicuamente, de lado

ziharkan adb. Zeharka, trebeska. ▲ Sin. *trabeska(n)*, *trabesĭen*.

zihartu, zihartzen

ZEHARTU, ZEIHARTU

desviar(se), ladear(se)

sesgar(se), torcer(se) a un lado

zihartu (> *ziartu*) *da/dau* ad. *Lepwa ziartu, bea ankĭa biortu* 'lepoa zihartu, baina hanka bihurtu [bihurritu]'.

zihatu, zihatzen

ZIHATU, ZIHOTU, ZIHOZTATU

solidificarse, espesarse, congelarse. Ref. al aceite, manteca, grasa, etc.

zihatu (> *ziatu*) *da* ad. Koipeaz eta kidekoez mintzatuz solidifikatu; zihoa edo bilgorra bezala gogortu. *Koipĭa ziatu* 'koipea zihatu'. *Koipĭa oztĭen ziatu iten da, gogortu iten da* 'koipea hoztean zihatu egiten da, gogortu egiten da'. *Zartaien indako urdaia oztu ta ziatu in zaigu* 'zartaginean egindako urdaia hoztu eta zihatu egin zaigu'. Ald. zihotu (?).

zikatriz, zikatriza

EBAKIONDO, ORBAIN

cicatriz

zikatriz iz. Ebakiondoa, orbaina.

zikatrizatu, zikatrizatzen

ORBAINDU

cicatrizar(se)

zikatrizatu *da/dau* ad. Orbaindu.

zikin, zikina

ZIKIN

kotxino / kotxina; lakats *garbi*

sucio, -a, manchado, -a

puerco, -a, cerdo, -a, asqueroso, -a; sucio, -a, grosero, -a; mezquino, -a

so, maldito, -a [para potenciar el significado del adjetivo o del sustantivo al que antecede,

zikin **1** adj. *Garbitazu esku zikin oiek* 'garbi itzazu esku zikin horiek'. || Dan gutxiena dala're zikina, zegatu iten da tubua. Koroso: lurrán zikina. Lurrán umiá, zikiná; laboriá 'uzta', postizuá (Ond Bak). Ik. **lakats**. ▼ Anton. *garbi*. **2** adj. (Irain gisa, edo mespretxua adieraziz). ▲ Sin. *kotxino,-a*. 2 adj. **3** adj. (Gaitzespenezko izenondo baten eskuinean, indargarri gisa, ezartzen den hitza). *Alfer zikina*. *Gezurti zikin; gezurti zikinoi* 'gezurti zikin; gezurti zikin hori'. *Tonto zikin*. *Lapur zikin*. *Lapur zikin bat besteik ezta* 'lapur zikin bat besterik ez da'. *Txulo zikin* 'harroputz zikin'. ◆ **zikin-zikina** adb. Erabat zikinduta.

zikindu, zikintzen

ZIKINDU

garbitu

ensuciar(se), manchar(se)

zikindu *da/dau* ad. ▼ Anton. *garbitu*.

zikinkeia

ZIKINKERIA

garbitasuna

txerrikeia, puerkeia / porkeia, zaborreia; lakats

suciedad, porquería, basura
cochinada, marranada

zikinkeria (> *zikinkeia* [Urdiain], *zikinkai* [Bakaiku]). **1** iz. Gauza zikina. *Txerrikai, zikinkai haundia* (Ond Bak); [baina] Zikinkei haundia (Ond Bak). Ik. **txerrikeria**; **puerkeria** / **porkeria** (> *puerkeia / porkeia*); **zaborreria**; **lakats**. ▼ Anton. *garbitasun*. **2** iz. *Zikinkeia gogoti in dĭatziai gaixworri* 'zikinkeria gogotik egin dizkiote gaixo horri'.

zikintasun, zikintasuna

ZIKINTASUN

garbitasun

suciedad, mancha

zikintasun iz. *Laneko arropĭoni ezin zaio zikintasuna kendu* 'laneko arropa honi ezin zaio zikintasuna kendu'. ▼ Anton. **garbitasun**.

zikirio

ZIKIRIO, ZEKALE

centeno (Secale cereale)

zikirio (Ond Bak) (eta *zikio* [Altsasu]) iz. (Bot.) Zekalea (Secale cereale) [centeno].

zikiyo, zikiyua

ZIKIRIO, ZEKALE

centeno (Secale cereale)

ziklismo, ziklismua

ZIKLISMO

ciclismo

ziklismo. iz. *Errien afizio aundia jon ziklismwen* 'herrian afizio handia zagon ziklismora'.

ziklista, ziklistia

ZIKLISTA

ciclista

ziklista iz. *Txikitati(k) zukan ziklista profesionala izateko gogua* 'txikitatik zeukan ziklista profesionala izateko gogoa'.

zil, zila

ZIL; 2 ZILBOR-HESTE

ombligo
cordón umbilical
corazón de una fruta
eje que une dos piezas o lados

zil **1** iz. Zilborra. **2** iz. Zilbor hestea. **3** iz. Mutxikina; sagarretan eta udareetan, jan gabe uzten den barnealdea, haziak gordetzen dituena. *Sarran zila* 'sagarraren zila [bihotza, mutxikina]'. **4** iz. Ardatza. *Gwexain zila* 'guraizeen zila [ardatza]'. ◆ **zileraino musti** (> *zilĭaindo musti*). Zileraino busti. Blaitu. Ik. **musti-mustia egin**. ● Esr. *Zila tente jarri artĭa jan* 'zila tente jarri arte jan'. Lehertu arte jan. *Jan ber du zila tente jarri artĭa* 'jan behar dugu zila tente jarri arte'. ¬

zimel, zimela ZIMEL

ihar; txingal *mardul*

marchito, -a, mustio, -a, ajado, -a
enjuto, -a; seco, -a, duro, -a

zimel (eta *tximel*) **1** adj. Landareez edo fruituez mintzatuz, mardultasuna eta freskotasuna galdu duena. *Gaztina zimelak* 'gaztaina zimelak'. *Goxwek de sar zimelok* 'goxoak daude sagar zimelok'. Ik. **ihar**; **txingal**. ▼ Anton. *mardul*. **2** adj. Pertsonengatik esanda, gihartsua eta gogorra. *Garai artan jende zimela, gwai baindo gaio* 'garai hartan jende zimela, orain baino gehiago'.

zimeldu, zimeltzen ZIMELDU

zoildu (?)

marchitar(se), mustiarse, arrugar(se), ajar(se)

zimeldu (eta *tximeldu*) *da/dau* ad. *Raso tximeldu da tomata plantĭa* 'arras zimeldu da tomate landarea'. Ik. **zoildu** (?).

zimendu, zimendua ZIMENDU

cimiento

zimendu iz. *Zimendwipe de etxe zarroiek* 'zimendurik gabe daude etxe zahar horiek'. ◆ **zimenduak atera** (> *zimenduek ata*). *Etxe berria iteko ata tuai zimenduek* 'etxe berria egiteko atera dituzte zimenduak'.

zimur, zimurra ZIMUR

1 zimurguna. 2 xuhur, eskuitxi, eskuzimur

arruga, frunce
mezquino, -a, avaro, -a, ruin, tacaño, -a

zimur (eta *ximur*, *tximur*) **1** iz. *Dana ezurra ta zimurra do etxeko zarra* 'dena hezurra eta zimurra dago etxeko zaharra'. Ik. **zimurguna**. **2** (> *ximur*) adj. Zekena, zikoitza. Ik. **xuhur** (> *xur*); **eskuzimur**. ◆ **musua zimurtu**. Serio jarri. ◆ **mutur zimur**. Serioa.

zimurguna, zimurgunia ZIMURGUNE

arruga

zimurguna [(Iza Alts) eta Urdiain] iz. Zimurgunea, zimurra. Ik. **zimur**.

zimurtu, zimurtzen ZIMURTU

arrugar(se), llenar(se) de arrugas

zimurtu (eta *tximurtu*) *da/dau* ad. *Urtĭek majo zimurtzen dai aurpegia* 'urteak majo zimurtzen dute aurpegia'.

zin, zina ZIN

2 zinaza

juramento, promesa
leal, fiel; sincero, -a

zin[1] **1** iz. Jainkoaren edo norberaren ohorearen izenean egiten den promesa. **2** adj. Leiala, fidela; zinezkoa, egiatia, zintzoa. Ik. **zinaza**; **zintzo**, **egiti**.

◆ **zin eta fin** (> *zin da fin*) adb. Zinez, bene-benetan; zinki eta finki. *«Zin da fin!», esandakwa zinez esaten danĭen* '«zin eta fin!», esandakoa zinez esaten denean'.

◆ **zinez** adb. Egiaz, benetan. *Zinez esaten dezut* 'zinez esaten dizut'. Ik. **egitan**; **egia esan**; **total**.

zin, zina (2)

ZINK

cinc, zinc
balde de zinc

zin[2] **1** iz. Zinka; metal gogor zuri urdinkara. *Ojalatĭa da zinazkwa* [*zinazko* eta *zinezko*] 'hojalata [latorria] da zinkezkoa'. *Zinezko pozala, zinezko baldĭa* 'zinkezko pozala, zinkezko baldea'. **2** iz. Zinkezko baldea. *Zina patu dot itajuna azpien* 'zina [zinkezko baldea] paratu dut itaxur azpian'.

zinaza

ZIN

zin, zintzo, egiti — *falso*

leal, fiel; sincero, -a; persona de palabra; coloq. auténtico, -a

zinaza adj. Zina, leiala. *Egitia, zintzua, zinaza* 'egiatia, zintzoa, zina'. *Olako jende zinazaik enen gwaindo ezautu* 'holako jende zinazarik ez nuen oraino ezagutu'. Ik. **zin**; **zintzo**, **egiti**. ▼ Anton. *falso*.

zinbel, zinbela

ABATA, APEU

cimbel, cimillo

zinbel iz. Abata, apeua; usoak erakartzeko edo jaitsarazteko zuhaitzetan paratzen den haga kulunkaria; bertan, apeu gisa, hegoak mugiarazten zaion uso itsu bat lotzen da. Ik. **orgadera**.

zine, zinia

ZINE, ZINEMA

cine

zine iz. Zinema. *Gazin Altswa, ziniĭa ikustĭa* 'gozen Altsasura, zinea ikustera'.

zinez

ZINEZ

egitan; egia esan; total

de veras, de verdad, sinceramente

zinez adb. Egiaz, benetan. *Zinez esaten dezut* 'zinez esaten dizut'. Ik. **egitan**; **egia esan**; **total**.

zinezko, zinezkua

ZINEZKO

egitako

verdadero, -a, de verdad

zinezko adj. Egiazkoa.

zingulu, zingulua

GERRIKO KORDOI, ALBA GERRIKO

cíngulo (cordón para ceñirse el sacerdote el alba)

zingulu iz. Gerriko kordoia; apaizak alba gerrian lotzeko erabiltzen duena.

zinta, zintia

ZINTA

cinta

zinta iz.

zintun, zintuna

GERRIKO, ZINTUROI

ubal, gerriko, korrea

cinturón, cincho, cinto; correa

zintun iz. Gerrikoa, zinturoia. Ik. **ubal**; **gerriko**; **korrea**.

zintza
HEDE, SOKA

hede

zintza [Ziordia] iz. Abereak lotzeko soka. Ik. **hede**.

zintzo, zintzua
ZINTZO

leal, legal, noble, onrau, zuzen / txuxen *gaizto*

honesto, -a, honrado, -a; bueno, -a, formal, correcto, -a, cumplidor, -a; sincero, -a; leal, fiel
honradamente, honestamente; sinceramente; con formalidad; fielmente, con lealtad

zintzo (eta *txintxo, zintzu*, *txintxu*) **1** adj. *Pobrĭek baia zintzuek* 'pobreak baina zintzoak'. ▲ Sin. *leal*, *legal*, *noble*, *onrau*, *zuzen / txuxen*. ▼ Anton. *gaizto*. **2** adb. *Txintxo jokatzen dau beti* 'zintzo jokatzen du beti'. ◆ **zintzu egon** (> *zintzu yon*, *txintxu yon*). Inor bere onean, bere senean egon. *Talentuekin yon, sano yon, kapaz izan: oi da zintzu yotĭa* 'talentuekin egon, sano egon, kapaz izan: hori da zintzo egotea. *Larogitamar urte badukatzi, bea gwaindo zintzu do* 'laurogeita hamar urte badauzka, baina oraino zintzo dago'.

zintzotu, zintzotzen
ZINTZOTU

zogitu

corregir(se), formalizar(se), entrar en juicio

zintzotu (eta *txintxotu*) *da* ad. Ik. **zogitu**.

zintzu yon
(INOR) BERE ONEAN, BERE SENEAN EGON

estar (alguien) en sus cabales

zintzu egon (> *zintzu yon*, *txintxu yon*). Inor bere onean, bere senean egon. *Talentuekin yon, sano yon, kapaz izan: oi da zintzu yotĭa* 'talentuekin egon, sano egon, kapaz izan: hori da zintzo egotea. *Larogitamar urte badukatzi, bea gwaindo zintzu do* 'laurogeita hamar urte badauzka, baina oraino zintzo dago'.

zintzutasun, zintzutasuna
ZINTZOTASUN

ontasun, zuzentasun

honestidad, honradez; bondad; formalidad; sinceridad; lealtad

zintzutasun iz. Zintzotasuna, zintzoa denaren nolakotasuna. Ik. **ontasun**; **zuzentasun**.

zinzel, zinzela
ZIZEL

cincel

zinzel iz. Harria lantzeko altzairuzko esku lanabesa, ahoa alde bietatik zeharka ebakia duena eta mailuaz joz erabiltzen dena. Ik. **puntero**.

zinzirri
ARTALORE

maiz moltxo

flor del maíz, penacho del maíz (órgano reproductor masculino del maíz)

zinzirri iz. Artoaren lorea (?) [Altsasu]. Ik. **maiz moltxo** [Urdiain].

zinzirrin, zinzirrina
BELARRITAKO, ZIRTZILU

pendiente (adorno en la oreja)

zinzirrin iz. (Batez ere pl.) *zinzirrinak*. Belarritakoa, zirtzilua. *Alergia iten duai zidarrezko zinzirrinak* 'alergia egiten didate zilarrezko zinzirrinek'

zinzur, zinzurra

ZINTZUR

eztarri; txintxur hezur

garganta
nuez [del cuello]
voz aguda

zinzur (eta *txintxur*) **1** iz. Zintzurra. Ik. **eztarri**. **2** iz. Zintzur sagarra. Ik. **txintxur hezur**. **3** iz. Ahots zolia; norbaitek ahots zolia, zorrotza duela adierazteko. *A ze txintxurra jukan nesaki orrek!* 'a zer zintzurra [ahots zolia] zaukan nesaki horrek'. ◆ **txintxur hezur** (> *txintxur ezur*). Zintzur sagarra, tiroide kartilagoak lepoaren aurrealdean eratzen duen konkorra.

zio, ziua

KANDELA, ARGIZARI, TORTXA

bela

vela, cirio

zior, ziorra

ZIGOR

makila; 2 azote

vara, varapalo, azote, palo
castigo

zigor (> *zior*; *ziur* [Ziordia]) **1** iz. Abar mehe, luze eta zuzena. *Gaztainziorra* (eta *gaztina ziorra*). Ik. **makila**. **2** iz. (Irud.) *Ziorra orri, il artĭen!* 'zigorra horri, hil arte!'. Ik. **azote**.

ziordiar, ziordiarra

ZIORDIAR

ziordiarra; natural de Ziordia
perteneciente o relativo a Ziordia o a los / las ziordiarras

ziordiar **1** adj. Ziordikoa, Ziordiari dagokiona. **2** iz. Ziordiko herritarra.

ziorguna, ziorgunia

SABELMIN. 2 BIHURGUNE

2 bihorguna

retortijón de tripas; rayada (dolor penetrante y momentáneo)

ziorguna **1** iz. Sabelmina. *Tripako ziorgunak* [retortijón de tripas; rayada]. Ik. **ziorri**; **ziorrada**; **liztura**. **2** iz. Ik. **bihorguna**.

ziorrada, ziorradia

SABELMIN

ziorri, ziorguna

retortijón; rayada (dolor penetrante y momentáneo)

ziorrada iz. Sabelmina; tripako min sakona, behin eta berriro hasten dena [retortijón, rayada, dolor penetrante]. Ik. **ziorri**; **ziorguna**. ¬

ziorri, ziorria (?)

SABELMIN

ziorguna, ziorrada; liztura (?)

retortijón de tripas; rayada (dolor penetrante)

ziorri iz. (Batez ere pl.) *ziorriek*. Sabelmina. *Tripakomin ziorriek*. Ik. **ziorguna**; **ziorrada**; **liztura**.

ziortu, ziortzen

BIHURRITU [ARROPA]

escurrir la ropa, retorcíendola

ziortu *dau* ad. Arropa xukatu, bihurrituz; arropa bihurritu. *Arropĭa gabitu ta ziortu* 'arropa garbitu eta ziortu'. Ik. **txukatu**.

zipilu, zipilua
ESKUILA

cepillo; escobilla
cepillo (de carpintería)
cepillo (para limosnas)

ziplatu, ziplatzen
ZIPLATU

linpiatu

devorar, zampar
desplumar, pelar, limpiar: coloq. (robar, quitar el dinero)

ziplatu **1** *dau* ad. Jana ziplatu. Ik. **ziplo egin** (> *ziplo in*). **2** *dau* ad. Dena kendu; lapurtu, ostu. Ik. **linpiatu**.

ziplio
ZIPLO

linplio

acabar enteramente, acabar totalmente

ziplo
ZIPLO*

linpio, akabo

acabar enteramente, acabar totalmente

ziplo (eta *zíplĭo*) interj. Norbaitek zerbait erabat eta azkar bukatu. *Ziplo: linpio, dana jan. Patĭa ziplo in dau* 'platera ziplo egin du'. *Ziplo jan dau dana* 'ziplo jan du dena'. Ik. **linpio**. *Lapurrak, ziplo!* 'lapurrak / lapurrek, ziplo [ostu, lapurtu]. ◆ **ziplo egin** (> *ziplo in*). ▲ Sin. **linpio egin** (> *linpio in*).

zirdil, zirdila
ZIRDIN, ZIRPIL, ZERTZEN, ZIRTZIL

zirdin [Ziordia]

hilacha
inquieto, -a; impaciente, cascarrabias; revoltoso, -a
(tiempo) desapacible

zirdil (eta *txirdil*; *zirdin* [Ziordia]) **1** iz. Zirpila. *Zirdila daiola* (Ond Bak). **2** adj. *Pertsona zirdila. Gĭatuko ote dok nesaki zirdil au?* 'geratuko ote duk neska zirdil hau?'. ◆ **denbora zirdil**. Eguraldi zakarra. *Au egunan zirdila ata dik pa!* 'hau egunaren *zirdila* atera dik, bada!'.

zirdildu, zirdiltzen
ZIRPILDU, ZIRTZILDU

deshilachar(se)
hacer(se) desaliñado, -a

zirdildu (eta *txirdildu*) **1** *da/dau* ad. Zirpildu, zirtzildu. *Zirdildu: Ezpartinak eta hausten hasten dienien zirdila daiola* (Ond Bak). *Soinekwa zirdildu zaira raso* 'soinekoa zirpildu zait arras'. Ik. **zirdilkatu**. **2** *da* ad. Zirtzil bihurtu, arlotetu.

zirdilkatu, zirdilkatzen [?]
ZIRTZILDU

zirdildu

deshilacharse, echarse a perder (la ropa)

zirdilkatu (?) *da/dau* ad. Arropez edo oihalez mintzatuz, litsak irten, hondatu (LM) Ik. **zirdildu**.

zirdilkeia
ZIRTZILKERIA

zirdilkeria iz. (> *zirdilkeia*, *zirdilkaia*). iz. Zirtzilkeria, gauza hutsala. *—In dau yaurik hemen? —Ba! zirdilkeia!* 'egin du euririk hemen? —Ba! zirtzilkeria! [hutsaren hurrengoa]. *Fan dok jorra ta in dik zirdilkei bat!* 'joan duk jorrara eta egin dik zirdilkeria bat'. *Zirdilkeia gogoti iten dau orrek: korre!* 'zirdilkeria gogotik egiten du horrek: korre! [presaka egina].

ziria sartu (?) ZIRIA SARTU

engañar, burlarse de

ziria sartu (?). Engainatu; adarra jo.

zirikagarri, zirikagarria ZIRIKAGARRI

tentagarri

tentador, -a

zirikagarri adj. Zirikatzen duena. ▲ Sin. **tentagarri**.

zirikatu, zirikatzen ZIRIKATU

tentatu, zitatu

aguijar, azuzar
hacer irritar(se), hacer enfurecer(se), hacer encrespar(se)

zirikatu **1** *dau* ad. Norbait zerbait egitera bultzatu. Ik. **tentatu**; **zitatu**. **2** *dau* ad. Amorrarazi, ernegarazi.

zirikatzaile, zirikatzailia ZIRIKATZAILE

tentagarri, tentatzaile, zitatzaile, zirikagarri;

incitador, -a, provocador, -a, hostigador, -a

zirikatzaile iz. Zirikatzen duen pertsona. Ik. **tentagarri**; **tentatzaile**; **zitatzaile**; **zirikagarri**; **zirrikiton**.

zirikazi, zirikazten ZIRIKARAZI

hacer incitar, obligar a provocar

zirikazi dau ad. Zirikarazi, zirikatzera behartu.

zirio, ziriua KANDELA, TORTXA

bela

vela, cirio

zirio (eta *zio*) iz. Kandela, tortxa. *Bi kandelero ziriuekin* 'bi argimutil kandelekin'(Ond Bak). Ik. **bela**.

zirko, zirkua ZIRKU

circo

zirko iz. Zirkua. ◆ **zirkua egin** (> *zirkwa in*). Xelebrekeriak egin.

zirkular, zirkularra ZIRKULAR

circular
sierra circular

zirkular **1** adj. Zirkulu forma duena. **2** adj./iz. Zerra zirkularra.

zirkulatu, zirkulatzen ZIRKULATU

circular

zirkulatu **1** *dau* ad. *Odolak eztwa ondo zirkulatzen* 'odolak ez dit ondo zirkulatzen'. **2** *dau* ad. *Bideberriti(k) zirkulatu*.

zirkulazio, zirkulaziua

ZIRKULAZIO

1 trafiko

circulación, tránsito
circulación sanguínea

zirkulazio **1** iz. Ordu oitan zirkulazio aundia yoten da kaleti 'ordu horietan zirkulazio handia egoten da kaletik'. Ik. **trafiko**. **2** iz. Odol zirkulazioa. *Zirkulazio txarra, odolana* 'zirkulazio txarra, odolarena'.

zirri-zarra

ZIRRI-ZARRA

zirriki-zarraka

de un voleo
emborronando, garabateando

zirri-zarra adb. ◆ **zirri-zarra egin** (> *zirri-zarra in*). **1** Hala moduz eta laster batean egin. *Zirri-zarra in gauzak, erdipurdi in*. **2** Zirrimarrak egin, zirriborroak egin. Ik. **zirriki-zarraka**. – Zirriborroa. ¬

zirriki-zarraka

TIRRIKI-TARRAKA; 2 ZIRRI-ZARRA

tirriki-tarraka; 2 ziri-zarra

zirriki-zarraka (eta *xirriki-xarraka*, *xarraka-xarraka*) **1** onomat. Poliki eta nekez ibili. Ik. **tirriki-tarraka**. **2** adb. Zakar, begiramendu gabe; zirriborroak eginez. Ik. **zirri-zarra**.

zirrikiton, zirrikitona

ZIRRIKITON* 2 ZIRIKATZAILE

tentatzaile, tentagarri

descarado, -a; desvergonzado, a; revoltoso, -a; travieso, -a, inquieto, -a
tentador, -a; quien tienta; azuzador, -a

zirrikiton **1** adj./iz. Ume bihurria. **2** adj./iz. Zirikatzailea. Ik. **tentatzaile**; **tentagarri**; **zitatzaile**.

zirrinburrun

ZURRUMURRU

zurrunburrun, hots(ak)

rumor, murmuración, chisme, comidilla

zirrinburrun iz. Zurrumurrua. Ik. **zurrunburrun**; **hots**.

zirritu, zirritua

ZIRRITU

rendija, ranura, resquicio; grieta, fisura

zirritu iz. Irekidura luze eta estua. *Zirritu hartati* (Ond Bak). ◆ **ataia zirritu autzi**. Atea zirritu utzi. *Auztazu ataia zirritu, kia iten da bestela ta* 'uztazu atea zirritu, kea egiten da bestela eta'.

zirti-zarta

ZIRTI-ZARTA

con decisión, de golpe; sin vacilar

zirti-zarta adb. Berehala eta duda egin gabe. ◆ **egiak zirti-zarta esan** (> *egiek zirti-zarta esan*). *Egiek, gauzak zirti-zarta esan*. ◆ **zirti-zarta egin** (> *zirti-zarta in*). *Gauzak zirti-zarta in* 'gauzak zirti-zarta egin'. *Kardulatzak zirti-zarta ata* 'kardulatzak zirti-zarta atera'. Ik. **berriketarik gabe** (> *berriketaipe*).

zirujano, zirujanua

KIRURGIALARI, ZIRUJAU*

cirujano, -a

zirujano iz. Zirujaua, kirurgialaria. Ik. **mediku**.

zita, zitia

ZITA

cita

zita iz. Hitzordua. Ik. **ordua hartu**.

zitakan

ZIRIKA

incitando, provocando, hostigando

zitakan adb. Zirika, zirikatzen. *Beti zitakan jailek, zitatzailioi!* 'beti zirika zabilek, zirikatzaile hori'.

zital, zitala

ZITAL

despreciable, ruin, mezquino, -a; bellaco, -a

zital adj. Inolako prestutasunik agertzen ez duena. (LM).

zitatu, zitatzen

ZITATU, ZIRIKATU

zirikatu, tentatu

pinchar, azuzar, hostigar
incitar, tentar, tomar el pelo
hurgar, enredar, tocar

zitatu **1** *dau* ad. Zirikatu, xaxatu. *Txakurrak zitatu*. Ik. **zirikatu**; **tentatu**. **2** *dau* ad. Hatzekin edo zerbaitekin azterka edo ukitzen aritu. *Mina zitatu*. *Surra zitatu* 'sudurra zitatu'. *Surrai zitakan* 'sudurrari zitaka'.

zitatzaile, zitatzailia

ZIRIKATZAILE

tentagarri, zirikatzaile, tentatzaile, zirrikiton

incitador, -a, provocador, -a, hostigador, -a

zitatzaile adj./iz. Zirikatzailea. Ik. **tentagarri**; **zirikatzaile**; **tentatzaile**; **zirrikiton**.

ziun, ziuna

ZIRAUN

lución (Anguis fragilis)

ziraun (> *ziun* [Urdiain], *zirin* [Altsasu]). (Anguis fragilis). *Ziunak ez tau pikatzen, ez tau ozkadaik iten* 'ziraunak ez du ziztatzen, ez du hozkadarik egiten'.

ziur, ziurra

ziur adj. Baldarra (?). *Mutiko ziurra*.

ziurtasun (?)

ziurtasun (?)

ziza-larre, ziza-larria

ZIZA-LARRE

setal

ziza-larre. *Maiatzeko zizak eta urri-zizak jasotzen dĭa ziza-larretan* 'maiatzeko izak eta urri-zizak jasotzen dira ziza-larretan'. *Ziza-larrĭen arrastwa ezautzen da bĭarra iluno dalako* 'ziza-larrearen arrastoa ezagutzen da belarra ilunago delako'. *Ziza larrĭek korritu in dau* 'ziza larreak korritu egin du [higitu egin da, mugitu egin da]'.

ziza-leku, ziza-lekua

ZIZA-LEKU

lugar donde abundan las setas

ziza-leku / **ziza-toki**. Ziza ugari ateratzen den eremua. (Bereizi egiten dira *ziza-leku / toki* eta *ziza-larre*).

ziza, zizia

ZIZA

seta

ziza iz. Tricholoma, Lyophyllum eta Rhodopaxillus generoetako perretxikoa [perretxiko hitza ez da erabiltzen Urdianen]. *Maitzeko ziza*. *Negu ziza*. *Pago ziza*. *Zapo ziza*. *Urri ziza*. *Txipo ziza*. Ik. **sulso**; **ointo**. ◆ **ziza-larre**. *Maiatzeko zizak eta urri-zizak jasotzen dĭa ziza-larretan* 'maiatzeko izak eta urri-zizak jasotzen dira ziza-larretan'. *Ziza-larrĭen arrastwa ezautzen da bĭarra iluno dalako* 'ziza-larrearen arrastoa ezagutzen da belarra ilunago delako'. *Ziza larrĭek korritu in dau* 'ziza larreak korritu egin du [higitu egin da, mugitu egin da]'. ◆ **ziza-leku** / **ziza-toki**. Ziza ugari ateratzen den eremua. (Bereizi egiten dira *ziza-leku / toki* eta *ziza-larre*). ◆ **ziza txar**. Ziza pozoidun(ak). ◆ **zizatan** adb. Zizak biltzen. *Asko daki ta trebĭa da zizatan* 'asko daki eta trebea da zizatan'. ◆ **kardu-ziza**. (Mikol.) Jateko ona den perretxiko mota (Pleurotus eryngii). ◆ **negu ziza**. Martxoko ezkoa (Hygrophorus marzuolus).

ziziku

ZERBATANA, UFATUTU (TAKOAK

txirristilu

tiratacos, cerbatana

ziziku iz. (Ond Bak). (Haur jostailua). Ufatutua, takoak jaurtitzeko zerbatana. [Tiratacos, taco, trabuco. Es un juguete de niños]. Ik. **txirristilu** [Ziordia]; **arrafistilu**; **arifistilu**.

zizilu, zizilua

ZIZEILU

asiento largo y con respaldo abatible que sirve de mesa

zizilu iz. Zizeilua; zurezko eserleku luzea, zati mugikorra eta mahai gisa erabiltzeko modukoa izaten duena.

ziztada, ziztadia

ZIZTADA

pinchazo, punzada; punción

ziztada iz. Ziztatzea, zizta. Ik. **zaztada**; **pikada**.

zizti-zazta

ZIZTI-ZAZTA

onomatopeya de pinchar repetidas veces

zizti-zazta onomat. Ziztatzearen onomatopeia.

ziztin, ziztina

ZIPRIZTIN; 2 ZIZTRIN

txistin

salpicadura; chispa, gota aislada de lluvia menuda, nieve, etc.
diminuto, -a; chiquitín, -a; pequeño, -a; insignificante, escaso, -a

ziztin **1** iz. Zipriztina. (Batez ere pl.) (Ond Bak). Ik. **txifristin**. **2** adj. Ziztrina, txikia eta argala; balio gutxikoa, huskeriatzat hartzen dena. *Ziztin*, *ziztina* (sorgina, sorginkuatua). ◆ **abar ziztin** / **txistin**. Abar ziztrina*, abarra, adaxka. (Batez ere pl.) *Abar txistinak*. *Abar txistinak sua yazteko* 'abar ziztrinak sua irazekitzeko'. *Abar txistinakin, biarrakin ta ardiliekin iten dai txoiek kafia* 'abar ziztrinekin*, belarrarekin eta artilearekin egiten dute txoriek habia'. ▲ Sin. *txostamar*. ◆ **haur ziztina**.

ziztortoki

ziztor-toki iz. Sasi, iratze eta abarren zuztar [zurtoin] puskak dauden tokia. (Ond Bak). [lugar en que hay restos del tallo de helechos, zarzas, etc.].

-zkioz

-Z GEROZ

después de, una vez que; desde
en (el) caso de que; si

-zkioz. -z geroz **1** (Aditzaren partizipio burutuari edo aditz laguntzaileari loturik). Aipatzen dena gertatu edo egin eta gero. **2** (Aditzaren partizipio burutuari loturik). Aipatzen dena horrela gertatzen edo egiten delarik, edo horrela egiten edo gertatzen bada. 3 (Denbora-aditzondo gisa). Ik. **ezkeroz** (> *ezkĭoz*).

zogi, zogia

ZOGI

kabal

ero, zoro, kaskarin

juicioso, -a, sensato, -a, cuerdo, -a

zogi adj. Zentzuduna, zuhurra. *Erwa eztana, zogia, normala* 'eroa ez dena, zogia, normala' (Ond Bak). *Zogia izan da txiki-txikitati* 'zogia izan da txiki-txikitatik'. Ik. **kabal**. ▼ Anton. *ero*, *zoro*, *kaskarin*.

zogitu, zogitzen

ZOGITU

formaldu

volver(se) juicioso, -a; formalizar(se)

zogitu **1** *da* ad. Zentzatu, zentzudun bihurtu. Ik. **formaldu**. **2** *da* ad. Fruta ondu (?).

zohi, zohia

ZOHI, ZOTAL

zoiti, zoti

tepe

zohi (> *zoi*) Ald. *zoiti*, *zoti* [Ziordia, Altsasu] iz. Laiaz edo aitzurraz ateratzen den lur zati belarduna. *Neguen gordetzeko, zoiekin estaltzen zan remolatxa pilĭa* 'neguan gordetzeko, zohiekin estaltzen zen erremolatxa pila'. Ik. **zoiti**.

zoildu (?)

SOILDU (?) ZORITU, ZOLDU (?)

zimeldu (?)

ajar(se)

zoildu *da* ad. Soildu (?). Histu. *Zahartzien azala jendiai ta narrua animaliei zoildu, narrua lakaztu, laztu*. (?) [kazkartu, desfiguratu, zimeldu (?)]

zoiti, zoitia

ZOHI, ZOTAL

1 zohi

tepe
atontado, -a, alelado, -a, lelo, -a

zoiti (eta *zoti* [Ziordia, Altsasu]) **1** iz. (Iza Alts) Laiaz edo aitzurraz ateratzen den lur zati belarduna. [Tepe pequeño con cesped] (Bereizten ditu *zohi* eta *zoiti*). Ik. **zohi** (> *zoi*). **2** adj. Tentela. *Persona zoitia*.

zokalo, zokalua

ZOKALO

zócalo

zokalo iz. *Paretako zokalwa besteik eztai pintatuko* 'paretako zokaloa besterik ez dute pintatuko'.

zokete, zoketia
ERGEL, ARTABURU

kazo

zoquete

zokete adj. Ergel, artaburua. ▲ Sin. *kazo*.

zoko, zokua
ZOKO

baztar, zulo

rincón, sucucho
rincón, recoveco, lugar oculto/apartado/recogido; escondrijo, escondite, agujero, guarida

zoko (eta *txoko*) iz. Ik. **baztar**; **zulo**.

zolda, zoldia
ZOLDA

mugre, costra, porquería

zolda iz. Gauzei atxikitzen zaien zikintasuna. Ik. **tortika**.

zoldatsu, zoldatsua
ZOLDATSU

mugriento

zoldatsu (eta *zoldasu*) adj. *Bada jende zoldatsua, zoldĭa listo iten zaiena* 'bada jende zoldatsua, zolda listo egiten zaiena'.

zopa, zopia
ZOPA

sopa
sopa(s)

zopa **1** iz. *Oilaki zopĭa* 'oilaki zopa'. *Saldasua do zopĭoi* 'saldatsua dago zopa hori'. **2** iz. Saldatara botatzen den ogi puska. ◆ **zopak egin** (> *zopak in*). *Zopak in ber datzat esene horri* (Ond Bak).

zopajale, zopajalia
ZOPAZALE

sopero, -a

zopajale adj. Zopazalea.

zor, zorra
ZOR

eman berra

deuda; débito
deuda, obligación moral

zor iz. Zorrak kobratu. Ik. **eman beharra** (> *eman berra*). • Esr. zah. *Guzien zorra, eta ez jakin noiz da nola* 'guzien zorra, eta ez jakin noiz eta nola [hil beharra] (Ond Bak). ◆ **zor autzi**; **zorretan autzi**. ◆ **zor izan**. *Zor dezut zerbeit?* 'zor dizut zerbait?'. ◆ **zorrak kendu**. *Zorrak kentzen, naiko lan* 'zorrak kentzen, nahiko lan'. ◆ **zorretan** **1** adb. Zorra ordaintzeko dela. **2** adb. Ordaindu gabe, geroago ordaintzekotan. ◆ **zorretan egon** (> *zorretan yon*).

zoragarri, zoragarria
ZORAGARRI

maravilloso, -a, encantador, -a, delicioso, -a; alucinante

zoragarri adj. *Zoragarria izan da gaurko eguna*.

zorakeia
ZORAKERIA

erokeia, tontakeia

locura, insensatez, disparate, desatino; tontería, chorrada

zorakeria (> *zorakeia*) iz. Ik. **erokeria** (> *erokeia*); **tontakeria** (> *tontakeia*).

zoramari, zoramaria
ZORABIO

zoramarika

mareo; aturdimiento; desmayo

zoramari iz. Zorabioa. *Zoramaria jukat* 'zorabioa zaukaat'. Ik. **zoramarika**.

zoramarika, zoramarikia
ZORABIO

zoramari

mareo; aturdimiento; desmayo

zoramarika iz. Zorabioa. *Zoramarika bat* 'zorabio bat'. *Aldien bein etortzen zaira zoramarika bat* 'aldian behin etortzen zait zorabio bat'. ◆ **zoramarikan** adb. Zorabioka, zorabioak hartuta. *Zoramarikan no* 'zorabioka nago'.

zoramarikan
ZORABIOKA, ZORABIOAK HARTUTA

mareado, -a; mareándose

zoramarikan adb. Zorabioka, zorabioak hartuta. *Zoramarikan no* 'zorabioka nago'.

zoramaritu, zoramaritzen
ZORABIATU

zoratu, txoratu, mareatu

marear(se); desmayar(se)

zoramaritu *da/dau* ad. Zorabiatu. Ik. **zoratu**; **txoratu**; **mareatu**.

zoratu, zoratzen
ZORATU, ZORABIATU

txoratu, zoramaritu, mareatu

marear(se)

zoratu *da/dau* ad. Ik. **txoratu**; **zoramaritu**; **mareatu**.

zordun, zorduna
ZORDUN

deudor, -a

zordun adj./iz. *Beti zorretan, zorduna*. *Zorrak dukatziena, zorduna* 'zorrak dauzkana, zorduna'.

zori, zoria
ZORI

suerte, fortuna

suerte, azar, ventura, fortuna
a punto de

zori iz. *Eztai zori onik izan* 'ez dute zori onik izan'. Ik. **fortuna**; **suerte**. ◆ **zorian** (> *zorien*) adb. (-tzeko atzizkiaren eskuinean) *-t(z)eko zorien*. *Urak, gainez iteko zorien*. *Itotzeko zorien yon da*. *Hiltzeko zorien*. Ik. **beharrean** (> *bearrĩen)*; **puntuan** (> *puntuen*).

zorigaizto
ZORIGAIZTO

zoritxar, desgrazia — *zorion*

mala suerte, adversidad, infortunio, desventura, desgracia

zorigaizto iz. Zoritxarra. ▲ Sin. zoritxar, desgrazia. ▼ Anton. zorion. ◆ **zorigaiztoko** adj. ▲ Sin. *zoritxarreko*, *desgraziatu*. ▼ Anton. *zorioneko*.

zorigaiztoko
ZORIGAIZTOKO

zoritxarreko, desgraziatu — *zorioneko*

desgraciado, -a, maldito, -a; nefasto, -a, fatídico, -a

zorigaiztoko adj. ▲ Sin. *zoritxarreko*, *desgraziatu*. ▼ Anton. *zorioneko*.

zorion, zoriona

ZORION

felizidade

zoritxar, zorigaizto

felicidad, dicha

zorion iz. *Zorionik eztezu emanko kaskamakur orrek* 'zorionik ez dizu emango kaskamakur [pertsona makur] horrek'. ▲ Sin. *felizidade*. ◆ **zorionak** interj. Norbaiti, zorioneko zerbait gertatu zaionean, esaten zaion gizalegezko edo onginahizko esapidea; jai jakin batzuetan, urtebetetzeetan eta kidekoetan, zoriona opatzeko, erabiltzen den esapidea. ◆ **zorioneko 1** adj. Zoriontsua. ▲ Sin. *zoriontsu*, *feliz*. ▼ Anton. *zoritxarreko*, *zorigaiztoko*, *desgraziatu*. **2** adj. Askotan aipatu delako edo arazoak sortzen dituelako, nekagarria edo gogaikarria gertatzen dena. *Nwa fan don ogi bila zorioneko mutikioi?* 'nora joan dun ogi bila zorioneko mutiki hori?'. Ik. **ditxoso**. ◆ **zorionez** adb. ▼ Anton. *zoritxarrez*.

zorionak

ZORIONAK

felicidades (interj. para expresar felicitación o enhorabuena)

zorionak interj. Norbaiti, zorioneko zerbait gertatu zaionean, esaten zaion gizalegezko edo onginahizko esapidea; jai jakin batzuetan, urtebetetzeetan eta kidekoetan, zoriona opatzeko, erabiltzen den esapidea.

zorioneko, zorionekua

ZORIONEKO

zoriontsu, feliz. 2 ditxoso

zoritxarreko, zorigaiztoko, desgraziatu

dichoso, -a, afortunado, -a, feliz

de marras

zorioneko 1 adj. Zoriontsua. ▲ Sin. *zoriontsu*, *feliz*. ▼ Anton. *zoritxarreko*, *zorigaiztoko*, *desgraziatu*. **2** adj. Askotan aipatu delako edo arazoak sortzen dituelako, nekagarria edo gogaikarria gertatzen dena. *Nwa fan don ogi bila zorioneko mutikioi?* 'nora joan dun ogi bila zorioneko mutiki hori?'. Ik. **ditxoso**.

zorionez

ZORIONEZ

zoritxarrez

afortunadamente, por suerte

zorionez adb. ▼ Anton. *zoritxarrez*.

zoriontsu, zoriontsua

ZORIONTSU

zorioneko, feliz

feliz, dichoso, -a

zoriontsu adj. Ik. **zorioneko**; **feliz**.

zoritxar, zoritxarra

ZORITXAR

desgrazia, miseia; fatalidade; trajedia

zorion

mala suerte, adversidad, desgracia, infortunio

zoritxar iz. Zoriak ekarritako gertakari edo egoera kaltegarria; norbait gogor jotzen duen ezbeharra. *Zoritxarrik, binapin, ez dailela etorri* 'zoritxarrik, behinik behin, ez dadila etorri'. ▲ Sin. *desgrazia*, *miseia*, *fatalidade*, *trajedia*. ▼ Anton. *zorion*. ◆ **zoritxarreko 1** adj. Pertsonengatik esanda, zoritxarra duena. *Swerteĭk, batez; zoritxarreko jendĭa izan da* 'zorterik, batere ez; zoritxarreko jendea izan da'. **2** adj. (Gauzengatik esanda). *Antxe bertan gertatu zan zoritxarreko azidentĭa* 'hantxe bertan gertatu zen zoritxarreko istripua'. ▲ Sin. *zorigaiztoko*, *desgraziatu*. ▼ Anton. *zorioneko*. ◆ **zoritxarrez** adb. *Zoritxarrez, aurten eztau yaurik in* 'zoritxarrez, aurten ez du euririk egin'. ▼ Anton. *zorionez*.

zoritxarreko, zoritxarrekua

ZORITXARREKO

zorigaiztoko, desgraziatu

zorioneko

desgraciado, -a, desafortunado, -a, nefasto, -a, aciago, -a

zoritxarreko 1 adj. Pertsonengatik esanda, zoritxarra duena. *Swerteĭk, batez; zoritxarreko jendĭa izan da* 'zorterik, batere ez; zoritxarreko jendea izan da'. **2** adj. (Gauzengatik esanda). *Antxe bertan gertatu zan zoritxarreko azidentĭa* 'hantxe bertan gertatu zen zoritxarreko istripua'. ▲ Sin. *zorigaiztoko*, *desgraziatu*. ▼ Anton. *zorioneko*.

zoro, zorua

ZORO

ero, txoro

zogi

loco, -a, demente; chiflado, -a, chalado, -a

zoro (eta *txoro*) adj./iz. Zentzua galdu duena. *Zorwek zorakeiek iten tuai* 'zoroek zorakeriak egiten dituzte' (LM). Ik. **ero**. ▼ Anton. **zogi**.

zoronbua

zoronbua (?)

zorpe

ZORPE

zorpe iz. Zorretan dagoenaren egoera. ◆ **zorpean** (> *zorpĭen*) adb.

zorpetu, zorpetzen

ZORPETU

endeudarse, contraer deudas; hacer contraer deudas

zorpetu *da/dau* ad. *Zorpetwik do raso* 'zorpeturik dago arras'.

zorpien

ZORPEAN

en deuda, endeudado, -a

zorpean (> *zorpĭen*) adb.

zorretan yon

ZORRETAN

en deuda

zorretan 1 adb. Zorra ordaintzeko dela. **2** adb. Ordaindu gabe, geroago ordaintzekotan. ◆ **zorretan egon** (> *zorretan yon*).

zorri ganbela, zorri ganbelia

LEPONDOKO ZULO

nuca, cerviz

zorri ganbela [Urdiain] Lgart. Lepondoko zuloa; lepoaren atzealdeko ildoa, argaltasunak nabarmenagotzen duena. Ik. **buruko txoko** (Iza Alts).

zorri, zorria

ZORRI

piojo; ladilla
pulgón
salsero, -a; entrometido, -a

zorri 1 iz. Intsektu bizkarroia (Pediculus humanus). **2** iz. Landare zorria; lekaleen zorria: *baba-zorria*, ea. *Etxe ondoko sarrak zorria duka aurten'e* 'etxe ondoko sagarrak zorria dauka aurten ere'. **3** adj. Aspergarria, gogaikarria. Ik. **zorrizu**. ◆ **zorri ganbela** [Urdiain] Lgart. Lepondoko zuloa; lepoaren atzealdeko ildoa, argaltasunak nabarmenagotzen duena. Ik. **buruko txoko** (Iza Alts).

zorrizu, zorrizua ZORRITSU

zikin, kakazu, mukizu

piojoso, -a, piojento, -a
salsero, -a; entrometido, -a

zorrizu adj. Zorritsua. (Irain gisa edo mespretxua adierazteko erabiltzen da). Ik. **zikin**; **kakazu**; **mukizu**. "Zorrizu [...] kakazu, mukizu. Todas son injurias" (Ond Bak).

zorro, zorrua MALTZUR, AZERI

astuto

zorro[2] adj. Maltzurra, azeria. Ik. **zuhur**.

zorro, zorrua ZORRO

bolsa (de papel; de plástico)
envoltorio de cereales

zorro iz. *Papezko zorrwa* 'paperezko zorroa'. *Plastiko zorrwa* 'plastiko zorroa'. *Galletak, ina, arroza... zorrotan saltzen dai* 'galletak, irina, arroza... zorrotan saltzen dute'. [Desberdindu: *zorro*, *bolso*, *poltsa*, *bolsa*]. **2** iz. (Iza Alts) [dedal para heridas]. ◆ **gari zorro**. Galburuan, gari bikorraren estalgarria. • Esr. zah. *Txikia banintzan, haundia banintzan, maiatzien zorruen nitzan*.

zorrokada, zorrokadia ZORROKADA

bolsa (contenido)

zorrokada iz. Zorro betearen edukia. *Zorrokada bat kamelo ekar dwa* 'zorrokada karamelu ekarri dit'.

zorroko pitxilita LILIPA ARRUNT

kukurutxo-sonbela (?)

narciso de los prados

zorroko pitxilita iz. (Bot.) Lilipa arrunta (Narcissus pseudonarcissus). ▲ Sin. *kukurutxo-sonbela* (?). Ik. **narziso**; **pipori**.

zorrotz, zorrotza ZORROTZ; PIKO

3 fin *akets*

afilado, -a; aguzado, -a, cortante; puntiagudo, -a
severo, -a, riguroso, -a, rígido, -a, exigente, recto, -a; implacable

zorrotz (eta *txorrotx*) **1** adj. Ago zorrotza (Ond Bak). *Kutxilo zorrotza*. ▼ Anton. *akets*. **2** adj. Aldapatsua, pikoa. *Aldapa zorrotza* 'aldapa pikoa'. Ik. **zuti**. **3** adj. Pertsona zorrotza, txorrotxa (izaera). Ik. **fin**; **exijente**.

zorroztaile, zorroztailia ZORROTZAILE

afilador, -a

zorroztaile iz. Zorrotzailea, lanabes ebakitzaileak zorroztea ogibide duen pertsona. *Sutailĭa ibiltzen zan zorroztaĭle lanetan* 'sutagilea [errementaria] ibiltzen zen zorrotzaile lanetan'.

zorroztarri, zorroztarria ZORROZTARRI

deztera

muela de afilar; piedra de afilar

zorroztarri iz. Lanabesak zorrozteko erabiltzen den harria. Ik. **deztera**; **segarri**.

zorroztu, zorrozten

ZORROZTU

akestu

afilar, dar filo; sacar punta

zorroztu (eta *txorroxtu*) *da/dau* ad. *Kutxilwa zorroztu*. *Aizkorĭa zorroztu*. ▼ Anton. *akestu*.

zortzi

ZORTZI

ocho
en el plazo de una semana a partir de la fecha mencionada previamente

zortzi **1** zenbtz. *Zortzi ordu sartzen tut lanĭen* 'zortzi ordu sartzen ditut lanean'. **2** (Izen gisa). *Kale ortako zortzien bizi da* 'kale horretako zortzian bizi da'. **3** (Data adierazteko). *Abenduen zortzien fanko ga Durangwa* 'abenduaren zortzian joango gara Durangora'. **4** (Orduak adierazteko). *Zortzitan gelditu ga afaltzĭa fateko* 'zortzietan gelditu gara afaltzera joateko'. **5** (gaur, bihar eta kidekoekin). Zortzi egun barru, zortzi egunera. *Gaur zortzi, biher zortzi*... || Duela zortzi egun. Ik. **gaur zortzi**. ◆ **zortzitik zortzira** (> *zórtziti zortzĭá*). Astean behin; noiz behinka, gutxitan. *Zortziti zortzĭá etortzen da saltzailĭa* 'zortzitik zortzira etortzen da saltzailea'.

zortziegun

ZORTZIEHUN

ochocientos, -as
ochocientos

zortziegun zenbtz. zortziehun; zortzi bider ehun.

zortzigarren, zortzigarrena

ZORTZIGARREN

octavo, -a

zortzigarren **1** ord. Zortzigarren egunĭen. **2** (Adizlagun gisa). *Zortzigarren ailatu zan* 'zortzigarren ailegatu zen'.

zortziko, zortzikua

ZORTZIKO

zortziko
antigua moneda de ocho reales

zortziko **1** iz. Dantza mota. Ik. **giza-dantza**. **2** iz. Zortzi errealeko txanpon zaharra. *Zortzikuék, zortzi madi, hamar zentimo*.

zortzina

ZORTZINA

ocho cada uno, -a, ocho a cada uno, -a

zortzina banatz. Bakoitzari zortzi, bakoitzak zortzi.

zortzinakan

ZORTZINAKA

de ocho en ocho

zortzinakan adb. Zortzinaka.

zortzitan

ZORTZITAN; ZORTZIETAN

ocho veces
a las ocho horas

zortzitan **1** Zortzi aldiz. **2** (Ordua adierazteko). *Atsaldeko zortzitan fan zĭan* 'arratsaldeko zortzietan joan ziren'.

zoru, zorua ZORU. 2 SABAI

2 goiko-zoru

suelo, piso
techo
subsuelo; capa de tierra que está debajo de la capa labrantía o laborable

zoru **1** iz. Eraikin bateko lurra (Ond Bak). || Zurezkoa denean erabiltzen da. *Ganbarako zurezko zorua* [Urdiain]. Ik. **lur**. **2** iz. Sabaia; gela, eraikuntza edo barne batean, goialdearen barrualdea. (Iza Alts) [techo (sic) de una habitación]. Ik. **goiko-zoru**; **tetxo**. [**3** iz. Zorupea; nekazaritzan, normalean lantzen den lurrazalaren azpian dagoen lur geruza (JR.I)].

zoti, zotia ZOHI

zohi, zoiti

tepe

zoti (eta *zoiti* [Ziordia]) iz. Laiaz edo aitzurraz ateratzen den lur zatia. Ik. **zoiti**; **zohi**.

zotola, zotolia ZOTOLA

pocilga de monte

zotola iz. Basoko txerritegia. *Zotolĭa da txerriendako mendiko txabolĭa* 'zotola da txerriendako mendiko txabola'. Ik. **hei**. *Zotolak zoiekin estaltzen zĭan* 'zotolak zohiekin [zotalekin] estaltzen ziren'.

zotz, zotza ZOTZ

palito, ramilla, leña menuda, ramojo
palillo (mondadientes)
sorteo; echar a suerte

zotz (eta *txotx*) **1** iz. Abar xehea, zotzabarra. Ik. **zoztamar**; **zoztaka**. **2** iz. Txotxa, hortz-haginen bitarteak garbitzeko erabiltzen den ziritxoa. **3** iz. Zotz! Zozketa. Ik. **txotx**.

zozo, zozua ZOZO

tonto, -a, insustancial, bobo, -a

zozo adj. Ergela, inozoa. *Oi dok zozwa*! 'hori duk zozoa'.

zoztaka, zoztakia MAKILA PUNTADUN

estaka

estaca, palo afilado en un extremo para clavarlo

zoztaka iz. Zotz handia; makila lodia eta motza. Ik. **estaka**.

zoztamar, zoztamarra ZOTZABAR

txostamar, txotxomar [Altsasu], txotxamarka

leña menuda, ramojo

zoztamar iz. (Batez ere pl.) Zotzabarra. Zotzabar lehorra. Ik. **txostamar**; **txotxomar** [Altsasu]; **txotxamarka** [Bakaiku]; **abar txistin**; **zotz**.

zu ZU

tú; usted

zu izord. *Ni zu bekela*. *Zu(ri) fixtukan ikusi* (Ond Bak). Ik. **hi**; **zeau** (> *zĭau*). ¬

zubata, zubatia
KERETA

cancilla, verja de madera que se usa en los corrales
telera; cada una de las secciones móviles del vallado con que se forma el redil

zubata iz. Oholezko langa arina, ardiendako itxituretan erabiltzen dena.

zubildu, zubildua
[LUR AZPIKO UBIDE]

zanja

canal subterráneo hecho por el agua; zanja

zubildu iz. Lur azpiko erreka (?); erretena, zanga. Ik. **zanja**; **alkandoza**.

zuhur, zuhurra / zur, zurra
ZUHUR, ZIKOITZ

autsi (autsia), eskuitxi, eskuximur, zimur / ximur — *eskuzabal, emataile, emantzaile*

astuto, -a
mezquino, -a, avaro, -a, ruin, tacaño, -a

zuhur (> *zur*, *xur*) **1** adj. Pertsonengatik esanda, azeria. **2** adj. Zikoitza, zekena. *Jende zurra, ematen eztena* 'jende zuhurra, ematen ez duena' (LM). Ik. **xuhur** (> *xur*). ▲ Sin. *autsi (autsia)*, *eskuitxi*, *eskuximur*, *zimur / ximur*. ▼ Anton. *eskuzabal*, *emataile*, *emantzaile*.

zui, zuia (1)
ZUBI

puente

zubi (> *zwi*) iz. *Erromako zwien pasatzen ai zĭela* 'Erromako zubian pasatzen ari zirela' (Ond Bak). *Ibaiko zwia* 'ibaiko zubia'.

zui, zuia (2) / txui, txuia
ZURI

blanco, -a

zuiazpi, zuiazpia
ZUBIPE

lugar debajo de un puente

zubiazpi (> *zwiazpi*) iz. (gehienetan lekuzko kasu-atzizkiez) Zubipea, zubi azpia.

zuiketa
ZURIKETA

blanqueo
descortezamiento

zuin, zuina
ZUIN, MUGA

muga

linde, lindero

zuin iz. Lursail muga [linde]. *Sorwen mugako seinalĭa da zwina* 'soroaren mugako seinalea da zuina'. *Mugarriekin seinalatzen dĭa zwinak* 'mugarriekin seinaltzen dira zuinak'. Ik. **muga**. ◆ **zuina atera** (> *zwina ata*). Lursailaren zuina [muga] ildo edo irekidura batekin markatu. – zuinkide.

zuinkide, zuinkidia
MUGAKIDE

mugante

limítrofe, fronterizo, -a, colindante

zuinkide iz./adj. Mugakide; soro edo lursail mugakideak. Ik. **mugante**.

zuita, zuitia
TXOLOMA

paloma zurita (Columba oenas)

zuitu, zuitzen
ZURITU

emblanquecer, blanquear
pelar; mondar; deshojar; descortezar; desgranar

zukan
ZUKA

hablar o escribir utilizando las formas verbales correspondientes al pronombre personal zu

zukan adb. Zuka. ▲ Sin. **zuketan**.

zuketa, zuketia
ZUKETA

tratamiento de zu

zuketa iz. Zuka hitz egitea. *Zuketan iten dĭat launai* 'zuketan egiten diot lagunari'. ◆ **zuketan** adb. Zuka hitz eginez. Ik. **zukan**.

zuketan
ZUKETAN

hablar con tratamiento de zu

zuketan adb. Zuka hitz eginez. Ik. **zukan**.

zuku, zukua
BABARRUN ELTZEKARIA

potaje de alubias

zuku iz. Babarrun eltzea, potajea. ◆ **zuku jan**. Janaldia babarrunez egindako eltzekariarekin.

zukuzopa, zukuzopia
BABARRUN ZOPA

sopa de alubias

zukuzopa iz. Babarrun zopa; babarrunarekin eta ogiarekin prestatzen den zopa.

zulanguna, zulangunia
ZULOGUNE

bache; hondonada, depresión

zulanguna iz. Zulogunea. {[bache]. "*Zulanguna gutxi*, pocos altibajos en una superficie" (Iza Alts)}. Ik. **zulo**.

zulatu, zulatzen
ZULATU

agujerear(se)
taladrar, perforar; picar, horadar
cavar, hacer agujeros

zulatu **1** *da/dau* ad. Alderik aldeko zuloa egin. *Jerse zarroi raso zulatwik dukak* 'jertse zarroi aras zulaturik daukak'. 2 *dau* ad. Zuloa edo zuloak egin. *Eskuko tarratiluekin in dĭatzi zulwek* 'eskuko daratuluarekin egin dizkio zuloak'. **3** *dau* ad. (Putzuak edo kidekoak) egin, lurrean zulo bat eginez. *Aurtengo udazkeneko yauriek majo zulatu tuai dermioko bidĭek* 'aurtengo udazkeneko euriek majo zulatu dituzte dermioko bideak'.

zulatze, zulatzia
ZULATZE

agujereado; perforación

zulatze iz. *zulatu* aditzari dagokion ekintza.

zuldur, zuldurra

ZULDAR; 2 ZALDAR

rezno; hipodermosis, barro; parasitosis del ganado bovino
grano con pus; divieso; forúnculo

zuldur **1** iz. Zuldarra; abereen gaitza, larruazal azpian ateratzen diren har batzuk ezaugarri dituena. (Iza Alts) (gusano que se le forma al ganado vacuno bajo la piel) (rezno). **2** iz. Zaldarra [Urdiain]. Larruazal azpiko pikorta. *Azaleko pikorra da zuldurra* 'azaleko pikorta da zaldarra'.

zulo, zulua

ZULO

txoko, baztar; koba; | sakan, bajaguna

agujero, orificio
hoyo, sepultura (lgart.)
vacío, hueco
deuda, agujero (lgart.)
bache (hoyo en el pavimento)

zulo (eta *txulo*) **1** iz. *Zulwa txikia danĭen, txulwa* 'zuloa txikia denean, txuloa'. || Bota zuluen parea. Egurrei zuluek in... ta zuluoitan (Ond Bak). *Jostarratzan zulwa* 'jostorratzaren zuloa [begia]. **2** iz. Lgart. Hobia. (hoyo, sepultura). **3** iz. Alderik aldeko irekidura. *Zulwa in dĭazu kamisetĭai* 'zuloa egin diozu kamisetari'. **4** iz. Zorra, defizita. **5** iz. Bideko zuloa [bache]. Ik. **zulanguna**. **6** iz. Zenbait animaliaren gordelekua. Ik. **koba**. **7** iz. Zokoa. Ik. **txoko**; **baztar**. *Zulwen sartuta, atabe* 'zuloan sartuta, atera gabe.

- **axai zulo**. Azeri zuloa.
- **etxe zulo**. *Etxe zulwen sartuta yon* 'etxe zuloan sartuta egon'.
- **sator zulo**.
- **leze zulo** iz. Leize zuloa, leizea. *Bide ondo-ondwen do leze zulwa* 'bide ondo-ondoan dago leize zuloa'. Ik. **leze**.
- **ur zulo**. Lur azpiko urak sortutako zuloa.
- **zuloka** adb. *Zuloka yain* (*indiabia*, ea.) 'zuloka erein'.

zulodun, zuloduna

ZULODUN

agujereado, -a, con agujero(s)

zulodun adj. Zuloa edo zuloak dituena.

zuloka

ZULOKA

sembrar en agujeros

zuloka (eta *txuloka*) adb. ◆ **zuloka erein** (> *zuloka yain*).

zuma, zumia

ZUME

zumitz (?)

sauce
mimbre

zuma **1** iz. (Bot.) Zumea, sahatsa (Salix sp.). Ik. **erramu**. **2** iz. Zume mota txikia. Ik. **zumitz**. **3** iz. Zume adarra. Ik. **zigor** (> *zior*).

zumadi, zumadia

SAHASTI

mimbreral; salceda

zumadi iz. Zumeak edo sahatsak dauden eremua; sahastia.

zumar, zumarra

ZUMAR

olmo

zumar iz. (Bot.) (Ulmus sp.). *Gaitzak jota, galdu dĭa raso zumarrak* 'gaitzak jota, galdu dira arras zumarrak'.

zumardi, zumardia

ZUMARDI

olmeda

zumardi iz. Zumarrak dauden eremua.

zumei, zumeia

ZUMEIO [OEH], KIMU MULTZO

brotes (pl.); támara

zumei iz. Kimu berriak, adaxkak; kimu berrien multzoa. *Elurtĭen, kaman dela, erbiek zumeia jaten dai* 'elurtean, etzauntzan daudela, erbiek zumeia jaten dute'. *Basoko zumeia jaten libratu zan gosĭek iltzeti* 'basoko zumeia jaten libratu zen goseak hiltzetik'. [zumeria* (?)]

zumitz, zumitza

ZUMITZ

zuma; 2 molde

mimbrera

encella (molde para hacer quesos y requesones).

zumitz **1** iz. (Bot.) Zumea (landarea eta landarearen adarra).Ik. **zuma**. **2** iz. *Gaztaia iteko moldĭa, zumaz indakwa* 'gazta egiteko moldea, zumez egindakoa' Ik. **molde**. **3** iz. (fleje?)

zumo, zumua

ZUKU

(...) ur

zumo; jugo

zumo iz. Zukua. Ik. **-ur**.

zunba, zunbia

ZUNBA [JOARE MOTA]

cencerro en forma de campana

zunba iz. *Fara klase bat da zunbĭa* 'joare klase bat da zunba'.

zur, zura

ZUR

material (mateal)

madera

zur iz. (-r- bakunarekin). Zuhaitzen enbor, adar eta sustraiak osatzen dituen gaia, bereziki lantzeko eta gauzakiak egiteko erabiltzen dena. *Otsailekuá (elurra), zurá. Zurezkuek. Perretiá zurezkuá da* (Ond Bak). Ik. **material** (> *mateal*). ◆ **zurezko** adj. *Moldakaitza da zurezko koilarĭekin* 'moldakaitza da zurezko koilararekin'.

zurda, zurdia

ZURDA (1)

klin

cerda, crin

zurda iz. *Txuma zurdĭa* 'ile zurda'. *Gwai apropos patzen tuai txuma zurdak* 'orain apropos paratzen dituzte hile zurdak'. Ik. **klin**.

zurdo, zurdua

EZKERTI

ezker, ezkerti, katxo

zurdo, -a

zurdo adj. Esteban zurduenak. ▲ Sin. *ezker*, *ezkerti*, *katxo*.

zurgin, zurgina ZURGIN

carpintero, -a

zurgin iz. *Bi zurgin de errien* 'bi zurgin daude herrian'.

zurgintza, zurgintzia ZURGINTZA

carpintería [oficio]

zurgintza iz.

zuri-beltz ZURI-BELTZ

blanco, -a y negro, -a

zuri-beltz adj. ◆ **zuri-beltzean** (> *zuri-beltzĭen*) adb. *Zuri-beltzĭen do fotografia* 'zuri-beltzean dago fotografia'.

zuri, zuria ZURI

blanco; blanco, -a

zuri (> *zui*; *txuri*, *txui*) **1** adj. Elurraren edo esnearen kolorekoa. *Eztezu yuzkik artzen? Elurra baindo zurio zé* 'ez duzu eguzkirik hartzen? Elurra baino zuriago zaude'. *Ardo-zwia* 'ardo zuria'. *Ile-zwia* 'ile zuria'. **2** iz. Kolore zuria. ◆ **esku-zuri** (> *esku txuri*, *esku txwi*) adj. Lan gutxi egiten duena; alferra. Ik. **alfer**. ◆ **zuri-beltz** adj. ◆ **zuri-beltzean** (> *zuri-beltzĭen*) adb. *Zuri-beltzĭen do fotografia* 'zuri-beltzean dago fotografia'. *Zuri-beltzien do* (LM).

zuriguna, zurigunia ZURIUNE

mancha blanca, espacio (en blanco)

zuriguna iz. Zuriunea; orban edo tarte zuria.

zuriketa / zuriketan ZURIKETA

blanqueo
descortezamiento

zuriketa (eta *zwiketa*, *txuiketa, txuiketĭa*) **1** iz. Zuritzea. *Txwiketĭa udan itĭa da obena* 'zuriketa [margotu] udan egitea da hoberena'. **2** Azala kendu. *Maiz zwiketan: maiza txwitu ta porkak in* 'artazuriketa: maiza zuritu eta porkak [kordak] egin'. ◆ **zuriketan** (eta *txuiketan*) adb.

zuringo, zuringua ZURINGO

clara [de huevo]

zuringo iz. ◆ **arrontza zuringo**. Arrautzaren zuringoa.

zurita TXOLOMA

paloma zurita (Columba oenas)

zurita (eta *zwita*) iz. Txoloma, uso txikia (Columba oenas).

zuritasun, zuritasuna ZURITASUN

blancura

zuritasun (eta *zuitasun*, *txuitasun*) iz. Zuritasun asko deka: izara asko, burukoazal, oazala (Ond Bak). *Oi zwitasuna dukana arropi'orrek* 'hori zuritasuna daukana arropa horrek'.

zuritu, zuritzen
ZURITU

pintatu

emblanquecer, blanquear
encanecer, ponerse cano
cubrir de nieve
pelar; mondar; deshojar; descortezar

zuritu (Ond Bak) (eta *zwitu*, *txuritu*, *txwitu*) **1** *dau* ad. Zuriz margotu. Ik. **pintatu**. – txuitxeko zepilua. **2** da ad. Kolore zuria hartu. **3** *dau* ad. Elurtu, inguruak elurrez estali. *Puntak txwitu jituk* '[mendi] puntak zuritu ditik'. **4** *dau* ad. Azala kendu. Patatak zuitu. Maiza txuitu.

zuritxo, zuritxua
ZURIXKA

zurixka

blanquecino, -a, blancuzco, -a

zuritxo (eta *zwitxo*) adj. Zurixka. ▲ Sin. *zurixka*.

zurixka, zurixkia
ZURIXKA

zuritxo

blanquecino, -a, blancuzco, -a

zurixka adj. *Baldosi'au zurixkĭa da* 'baldosa hau zurixka da'. ▲ Sin. *zuritxo*.

zurra, zurria
ZURRA

zurraldi

zurra, tunda, paliza

zurra iz. *Orrek bĭak ber ziken zurra bat* 'horrek berak behar zian zurra bat'. Ik. **zurraldi**.

zurrakapote, zurrakapotia
ZURRAKAPOTE

zurracapote, sangría

zurrakapote iz. Ardo beltza azukrearekin eta zenbait frutarekin nahasiz prestatzen den edaria.

zurraldi, zurraldia
ZURRA

zurra

zurra, tunda, paliza

zurraldi iz. Zurra. Ik. **zurra**.

zurratu, zurratzen
ZURRATU

dar una paliza, zurrar, golpear

zurratu *dau* ad. Jipoitu. *Zurratu in dwai* 'zurratu egin didate [naute]'.

zurrukutun, zurrukutuna
ZURRUKUTUN (*)

sopa(s) de vino (?)

zurrukutun (?) iz. Ardo zopa. Ik. **ardana**. ¬

zurrunburrun
ZURRUMURRU

zirrinburrun, hots(ak)

rumor, murmuración, chisme, comidilla

zurrunburrun (eta *zirrinburrun*) iz. Zurrumurrua, ahoz aho dabilen berria, zehaztu eta egiaztatu gabea. (Aditzondo moduan) *Zurrunburrun daile kontu oi errien* 'zurrunburrun dabil kontu hori herrian'. Ik. **marmar**; **hots**.

zurrundu, zurruntzen

ZURRUNDU

endurecerse, quedarse rígido; entumecer(se), dejar o quedarse rígido un miembro

zurrundu *da/dau* ad. Zurrun bihurtu, malgutasuna kendu edo galdu. *Siestatik jagi nok otzak zurrundwik* 'siestatik jagi nauk hotzak zurrundurik'.

zurrunka, zurrunkia

ZURRUNGA

lo-zurrunga

ronquido

zurrunka (eta *zurrunga*) iz. *Zurrunkĭa franko ata dau sofan jarrita* 'zurrunga franko atera du sofan jarrita'. Ik. **lo-zurrunga**. ◆ **zurrunka egin** (> *zurrunkan in*). ◆ **zurrunkan** adb. Zurrungan, zurrunga eginez. *Lo, zurrunkan iten dau orrek* 'lo, zurrungan egiten du horrek'.

zurrut, zurruta

ZURRUT

furrut, txurrut

sorbo

trago

zurrut (eta *txurrut*) iz. Ik. **furrut**; **txurrut**.

zurtu

ZUR BIHURTU, GOGORTU, GORBEZITU

gogortu

lignificar

zurtu *da* ad. Patatak zurtu. Ik. **gogortu**.

zurzi, zurzia

ZIRI

zi

cuña de madera

zurziri (> *zurzi*) Zurezko ziria. Ik. **burniziri** (> *burnizi*); **egurziri** (> *egurzi*); **ziri** (> *zi*).

zurzitu, zurzitzen

PASARATU, SAREZTATU, SARETU

sarestatu

zurcir, remendar

zurzitu *dau* ad. Ik. **sarestatu**.

zuti(k) / zutia

ZUTIK; ZUT

tente

de pie, en pie; erguido -a; tieso, -a; derecho, -a, vertical

¡en pie!

derecho, -a, vertical; erguido, -a, esbelto, -a

zuti(k) (eta *txuti(k)*) **1** adb. *Zuti o tente* 'zutik edo tente' (Ond Bak). Ik. **tente**. ◆ **(jatekoa) zuti (k) egon** (> *jatekwa zuti(k) yon*). Jatekoa ondo egin gabe egon, ondo egosi gabe egon. *Patatak, aragia... zutik yon* 'patatak, haragia... zutik egon'. Ik. **gordinik**. **2** interj. *Zutik danok!* 'zutik denok!'. **3** adj. Pertsona zutia. *Zutia, tentĭa* 'zutia, tentea'. Aldapa zutia 'aldapa zorrotza'. Ik. **zorrotz**.

zutitasun, zutitasuna

ZUTITASUN

cualidad de derecho; cualidad de erguido/esbelto

zutitasun iz. *Zutitasuna ber dau, eta ez gelditu lotsatuta ta kuzkurtuta* 'zutitasuna behar da, eta ez gelditu lotsatuta eta kuzkurtuta'.

zutitu, zutitzen ZUTITU

tentetu

poner(se) de pie, levantar(se); poner(se) tieso, poner(se) derecho, enderezar(se)

zutitu (eta *txutitu*) *da/dau* ad. lk. **tentetu**.

zutituazi, zutituazten ZUTIARAZI

erguir, poner de pié; poner tieso, -a

zutituazi ad. Zutiarazi, zutitzera behartu.

zuzen, zuzena ZUZEN

baldar, bihur, makur

recto, -a, derecho, -a; directo, -a
justo, -a, recto, -a, imparcial, íntegro, -a
correcto, -a; acertado, -a
correctamente, bien, sin errores

zuzen (eta *txuxen*) **1** adj. *Arrasto zuzena*. *Jarri zaitez zuzen, bizkarra makurtuko zaizu-ta bestela* 'jar zaitez zuzen bizkarra makurtuko zaizu eta bestela'. ▼ Anton. *baldar*, *makur*, *bihur*. **2** adj. Zuzentasunez jokatzen duena. *Maistra izan genduen, ta txuxena zan gwekin* 'maistra izan genuen, eta zuzena zan gurekin. *Eztau gauza zuzenik iten* 'ez tu gauza zuzenik egiten'. ▼ Anton. *makur*, *baldar*, *bihur*. 3 adb. *Beak zuzen jokatu dau* 'berak zuzen jokatu du'. 4 adb. Norabidez aldatu gabe. *Zazi emeti zuzen eta autobus paradĭa bertan ikusiko dezu* 'zoaz hemendik zuzen eta autobus geralekua bertan ikusiko duzu'.

zuzendu, zuzentzen ZUZENDU

baldartu, bihurtu, makurtu

enderezar(se), poner(se) recto; corregir(se), enmendar(se)
dirigir(se)
corregir

zuzendu (eta *txuxendu*) **1** *dau* ad. *Lanak eman ber tu orrek zuzentzen* 'lanak eman behar ditu horrek zuzentzen'. ▼ Anton. *baldartu*, *bihurtu*, *makurtu*.

zuzenduazi, zuzenduazten ZUZENARAZI

hacer enderezar(se), obligar a poner(se) recto, -ta.
hacer corregir(se), obligar a enmendar(se)

zuzenduazi *dau* ad. Zuzenarazi; zuzentzera behartu, bide onera ekarri.

zuzenien ZUZENEAN

recto, -a, derecho, -a, en línea recta; directo, directamente
en directo

zuzenean (> *zuzenĭen*) adb. *Ioi're kaswik in be, etxĭá fan nitzan zuzen-zuzenĭen* 'inori ere kasurik egin gabe, etxera joan nintzen zuzen-zuzenean'.

zuzentasun, zuzentasuna ZUZENTASUN

zintzutasun

rectitud
justicia, rectitud, imparcialidad, integridad

zuzentasun (eta *txuxentasun*) iz. *Zuzentasuna ber dau munduen* 'zuzentasuna behar da munduan'. lk. **zintzutasun**.

zuzentze, zuzentzia

ZUZENTZE

corrección; rectificación
enderezamiento

zuzentze (eta *txuxentze*) iz. *zuzendu* aditzari dagokion ekintza.

zuztur, zuzturra

ZUZTAR, ZURTOIN, TXORTEN

tallo; pedúnculo
pedazo, trozo

zuztur (eta *txuxtur*) **1** iz. Zuztarra, zurtoina, txortena. *Aza-zuzturra*. *Sarran zuzturra* 'sagarraren zuzturra'. lk. **buztan**. **2** iz. *Lukaika zuzturra* (= lukaika muturra).